Kasu batzuetan, azentu grafikoa ere jarri da bereizgarria delako lurralde horretan. Esaterako, Zeberiotik Arratiara pasatzen bagara azentu aldaketa dago. Zeberioko hitz paroxitono asko proparoxitono egiten dira Arratian. Zeberio barruan ere, singular-pluralak azentuz bereizten dira. Gehiago oraindik, Zeberion toponimo paroxitono bat proparoxitono eginez gero, azkenengo hau etxeko gizona da. Adibidez, (Zabále=toponimoa//Zábale= kasu honetan Pedro Zabalekoa). (*Zabálen*, *Zábale bizi da*, *Zabálen Pedro bizi da*). Beste kasu bat aipatzearren, Gorbeialdean, esaldi nagusiaren aditza eta menpekoarena berdin idatzi arren azentuaz bereizten dira bata eta bestea. Esaterako: *Ilenean in séndun etzeko garbikusie*, Lit. “Ilenean egin zéndun etxeko garbikuzia”. Esaldi nagusiko aditzak lehen silaban daroa azentua. Esaldia menpekoa denean ostera, azken silabara aldatzen da azentua. Adibide berbera hartuz aiko hemen aldaketa: *Ilenean in sendún etzeko garbikusie*. Lit. “Ilenean egin zendún etxeko garbikuzia”... kasu honetan erlatibozkoa. Zehar-galderetan ere beste hainbeste gertatzen da.

Luze eta zabal bildutako 23 herriotako euskararen berezitasunak argiago ikusi eta ulertzeko, besteak beste, bibliografian ikus daitezkeen nire Zeberio haraneko euskararen ikerlanetatik hartutako hiru atal zehaztuko ditut eranskinean: bokalismoa, kontsonantismoa eta azentua.

**GORBEIA INGURUKO ETNO-IPUIN
ETA ESAUNDAK II**

ETNO-IPUIN ETA ESAUNDAK BERTSIO BIETAN

Etnotestua eta bere bertsio etimologikoa

1.15. Perutxu, laminak eta abemariak

ETNOTESTUA

Udako kanikula egun beten Perutxu ardietara yoan san egune sabaldu baño len.

Lamindao ganeko Petralandara allegau sanean lamiñas bete yakon inguru gustie d'andarik anda eroaudien Baltzolako kobasuloraño.

Perutxu durdidute (e)goan. Obuen-obuen iaukesan lamiñak alaurike t'irrintza baten.

Alangon baten, andik i kobasuloan barruetatik lamiña sarkitu bet agartu yakon da badiñotzo ba se:

- Nor satugun baino esta?
- Ni, Lamindaoko elexako sakristauen seme txikie! Ser ba?
- Elexea esan dosu?
- Bai,- erantzun otzen Perutxuk u-berbaltu ta gusti.
- Orduen su kristaue sara?
- Ba,bai! Lelengo Komuniñoa be in barri nao.
- Ba, mutil, orrexek salbau satu, ostaintxean gautzat sinean betiko, sureak in auen!

BERTSIO ETIMOLOGIKOA

Udako kanikula egun baten Perutxu ardietara joan zan eguna zabaldu baino leen.

Lamindao gaineko Petralandara allegatu zanean laminaz bete jakon inguru guztia eta andarik anda eroan eudeen Baltzolako kobazuloraino.

Perutxu durdiduta egoan. Oboan-oboan ei eukazan laminak alaurika eta irrintza baten.

Alangoren baten, andik i kobazuloaren barruetatik lamina zaarkitu bat agertu jakon eta badinotso ba ze:

- Nor zaitugun baino ez da?
- Ni, Lamindaoko eleizako sakristauaren seme txikia! Zer ba?
- Eleizea esan dozu?
- Bai,- erantzun eutsan Perutxuk u-berbaltu eta guzti.
- Orduan zu kristaua zara?
- Ba,bai! Leenengo Komuniñoa be egin barri nago.
- Ba, mutil, orrexek salbatu zaitu, osterantzean geuretzat zinean betiko, zureak egin euan!

Perutxu(k)p(b)ere burue libre ikusi auenean, ardietara barik etzera yoan san susien da dan-dana kontau aurenean.

Aitite-amama ta gurasoak trankilisauegin aurienean da sustosartue yoan yakonean badiñotzo aituek:

- Ara Perutxu, oin kristau denporetan gaos da es ikeratu kristau aurreko gaubesko kontuekas. Barriro pasauko ballatzu, "Pater noster" bat erresau ta kitu. Atxinean, ollarrak asten sirean kukurrukuke egunsentiegas batera da iluntzean karrakaldoak edo "larrabotiko abemariak" (1)auren rum-rum-rumotzean. Elexak in sirenetik kanpaia(k)tx(y)oten dauskues, arrikanpaia(k)g)oxean, angelusekoak igurdien d"abemariak (g)aubean. Bueno, kanpai klase geago be badaukus, il-kanpak, suenak, elexakoan, kanpabuelakoak eta estaki(t) seinbe(t)k (g)eago. Gaur u galdues yoakus, bakisu, gaur estao lengorik. Berbok entzukan, Perutxu alimau in sen d' aurrerantzean es auen ixin lamiñen bildurrik.

1.16. Pasiga edo pasigerak Zeberiotik

Oin kontaukotzut ako an Itorrondoko ostatuen pasau yakona gisonesko bateri pasigakana arrimau senean beste mutil ori agirien dauela.

Nortzuk sirean pasigak? B'aiko. Pasigak edo pasigerak iziten sirean beste bidaski antzeko ser batzuk. Orrik i montañesak iziten sirean, Sandander edo Kantabria aldekoak, andraskoak. Eta erropa sarrak eta lana sarra batutaurien. Lepoti kubanu andi

Perutxuk bere burua libre ikusi euenean, ardietara barik etxera joan zan zuzian eta dan-dana kontatu eurenenean.

Aitite-amama eta gurasoek trankilizatu egin eudeen eta sustosartua joan jakonean badinotso aito(n)ak(<aitonak):

- Ara Perutxu, orain kristau denporetan gagoz eta ez ikaratu kristau aurreko gauezko kontuekaz. Barriro pasatuko baliatzu, "Pater noster" bat errezatu eta kitu. Antzinean, ollarrak asten ziran kukurrukuke egunsentiagaz batera eta iluntzean kakarrakaldoak edo "larrabotiko abemariak" euren rum-rum-rumotsean. Eleizak egin ziranetik kanpaiak jotene deuskuez, arrikanpaia(k)goizean, angelusekoak eguerdian eta abemariak gauean. Bueno, kanpai klase geiago be badaukaguz, il-kanpak, suarenak, eleizakoenak, kanpabuelakoak eta ez dakit zenbat geiago. Gaur u galduez doakuz, badakizu, gaur ez dago lengorik.

Berbok entzukan, Perutxu alimatu egin zan eta aurrerantzean ez euan izan lamiñen bildurrik.

Orain kontatuko deusut arako an Itorrondoko ostatuan pasatu jakona gizonesko bateri pasigakana arrimatu zanean beste mutil ori agirian dauela.

Nortzuk zirean pasigak? Ba aiko. Pasigak edo pasigerak izaten zirean beste bidaski antzeko zer batzuk. Orreik i montañesak izaten zirean, Santander edo Kantabria aldekoak, andrazkoak. Eta erropa zaarrak eta lana zaarra batuten eudien. Lepotik kubanu andi bategaz ibil-

betegas ibiltzen sirean da kilo erropea edo lanea txakurrandi bet edo iru txiki pagetan audien. Dirue guresauenari orras batzuk edo titera edo olango balio gitxiko seosegas pagetotzien.

Seberion en general Itorrendoko ostatuan itaudien lo. Gaur u estao es ostaturik es etzerik an, baie lenago aukitaudien jentea.

Da ba olango gaube baten, pasiga bi i egosan lo auren koartuen da gauberdiantza gisoneskoen bat sartu yakien seguru koature, estai(t)p(b)a juboiutzik eta kantzuntzillutzik ala bilusik, beste mutil ori agirien dauela, bakisu, arkartekori. Orduen arginde-
rri(k)p(b)e es egoan da ilunetan isin sen trebitu ori. Katue saguen atzean baño ixilago yoian oyaren atzeko aldeko oyadar eta oyakuxeari eskue botata eta makurtute sein pasigak barruntau. Se, bakisu, lengo oyak oyakuxa bi aukiesan, bata (a)urreen da beste(a) atzean, da biek altuek, oyadar binegas bakotxa. Da, ba, pasigok o gisoneskoa barruntau audienean auren oian arrimuen, goatuten dotzie gison orreri ankarteti te grillistuke ateraudien koartutik kanpora. An armau i sen armetako eskandalue t'erretolikea. Kendu yakosan bai d'ondo kendu be gison orreri pasigokana yoateko intziguok. Ondo erantau i audien gison ori t'egunek eta egunek in i ausen ankarteko serori eutzi esinde minegas, orko mine, mine da ixin be gero, d'esin esan inori se pasetan yakon, ganeko lotzarie espabere etze ta kanpoan. Gu gau be denporeakarrenean enterau gaintzesan pasaukoagas, bakixu, baten bat beti deskuidetan da ta kontau iten ditu olango kontuek. Olango eskutuko kontuek e ixilik auki obe, kreditue galtzeako baño estire ta.

ten zirean eta kilo erropea edo lanea txakurrandi bat edo iru txiki pagetan eudien. Dirua gura ez euanari orratz batzuk edo titera edo olango balio gitxiko zeozegaz pagetan eutsien.

Zeberion en general Itorrendoko ostatuan egiten eudien lo. Gaur u ez dago ez ostaturik ez etzerik an, baina leenago eukiten eudien jentea.

Eta ba olango gau baten, pasiga bi ei egozan lo euren koartuan eta gauberdiantza gizonezkoen bat sartu jakien seguru koatura, ez dakit ba juboi-utsik eta kaltzontzillu-utsik ala biluzik, beste mutil ori agirian dauela, badakizu, arkarteko ori. Orduan argi-indarrak be ez egoan eta ilunetan izan zan trebitu ori. Katua saguaren atzean baino isilago joian oearen atzeko aldeko oeadar eta oekuxari eskua botata eta makurtuta zein pasiegak barruntatu. Ze, badakizu, leengo oak oekuxa bi eukiezan, bata aurrean eta bestea atzean, eta biak altuak, oeadar binagaz bakoitza. Eta, ba, pasigok o gizonezkoa barruntatu eudienean euren oearen arrimuan, goratuten deutsie gizon orreri ankartetik eta grillistuka atera eudien koartutik kanpora. An armatu ei zan armetako eskandalua eta erretolikea. Kendu jakozan bai eta ondo kendu be gizon orreri pasigokana joateko intziguok. Ondo erantatu ei eudien gizon ori eta egunak eta egunak egin ei euazan ankarteko zer orrei eutsi ezinda minagaz, orko mina, mina da izan be gero eta ezin esan inori zer pasetan jakon, ganeko lotsaria ezpabere etxe eta kanpoan. Gu geu be denporeakarrenean enteratu gintzazan pasatukoagaz, badakizu, baten bat beti deskuidetan da eta kontatu egiten ditu olango ezkutuko kontuak. Olango kontuak e isilik euki obe, kreditua galtzeako baino ez dira eta.

1.17. Jose Kintinoren txapela

Seberioke yai nausienak a Sandoniek isiten dire da plasan iten da erromerie, lenao barraka ta gusti. Da ba, gison selebrea yatzun ori Jose Kintino Barbatxakoa, d'orrek e, aldikada baten, itzelesko yantzak et'atze-aurreak iten ausen yantzalekuen.

Gitxiten bajatuten san plasara baie Sandonietan es auen utzik iten d'an ikusiko saindun jenteartean bateti bestera. Da se itauen? Ba, aldikadeak emoten otzenean, besteak a yantzan ebisen interan berak e artu buruko txapela t'aidean botatauen gora goraka da ba bierantzean sorure yausten yakon da barre itotzien txapela kuyetako makurtuten sanean. Aldikada bakotzik emon be Jose Kintinori edade orretan! D'atzera be bardin d'olan ibilte san luseroan, arkontdarea ta juboia garrikoti aterata silbota edo tripe-sile agirien, da beti umore onean, es ausen txartzat artzean ango barre t'aparajuek. Pentzau leikean burutxile sala burutxil beten antzean eragoion-da. Eta klaro, ondo pentzau esketño, Kintino bere sereginean ibilten sala pentzetot, areri es otzon ardure barre iteak, ak a txapela soruti altzetako makurtukeran, baterabestera aituten auen disimuluegas da ba nesken bernak edo apur bet e geao be igoal ikusi. Se aldikadak emon leion personeari e? Arentzat a aixek sirean Sandoniek, asko gisonek edateari letxe Kintinok o neskatoan bernak ikusteari emototzen, sera, inportantzie. Se ingotzesu ba, orixe aldikadori etorten yakon da, ba, atantxe eragoion Seberioke plasan Sandoni egunean. Gero ori esakera be biortu de, baten bat antzera edo ikusten danean sera esaten du: *Kintinokerietan dabil ori.*

Zeberioke jai nagusienak a Sandoniak (San Antolinak) izaten dira eta plazan egiten da erromeria, leenago barraka eta guzti. Eta ba, gizon zelebrea jatzun ori Jose Kintino Barbatxakoa, eta orrek e, aldikada baten, itzelezko dantzak eta atze-aurreak egiten euazan dantzalekuan.

Gitxitan bajatuten zan plazara baina Sandonietan ez euan utsik egiten eta an ikusiko zendun jente artean batetik bestera. Eta zer egiten euan? Ba, aldikadeak emoten eutsanean, besteak a dantzan ebizen interan berak e artu buruko txapela eta aidean botaten euan gora goraka eta ba beerantzean zorura jausten jakon eta barre egiten eutsien txapela koietako makurtuten zanean. Aldikada bakotzik bakoitzik) emon be Jose Kintinori edade orretan! Eta atzera be bardin eta olan ibilten zan luzaroan, arkontdarea (alkandora) eta juboia gerrikitik aterata zilbota edo tripa-zila agirian, eta beti umore onean, ez euazan txartzat artzean ango barre eta aparejuak. Pentsatu leikean burutxila zala burutxil baten antzean eragoion-eta. Eta klaro, ondo pensatu ezketino, Kintino, bere zereginean ibilten zala pentsetan dot, areri ez eutsan ardura barre egiteak, ak a txapela zorutik altzetako makurtukeran, batera bestera aituten euan disimulugaz eta ba nesken bernak edo apur bat e geaigo be igual ikusi. Ze aldikadak emon leion personeari e? Arentzat a areixek zirean Sandoniak, asko gisonek edateari letxe Kintinok o neskatoen bernak ikusteari emoten eutsan, zera, inportantzia. Zer egingo deutzazu, orixe aldikada ori etorten jakon, eta, ba, atantxe eragoion Zeberioke plazan Sandoni egunean. Gero, ori, esakera be biortu da, baten bat antzera edo ikusten danean, zera esaten dogu: *Kintinokerietan dabil ori.*

1.18. Sexu kontuak

Bueno-bueno-bueno, bakastesu ba ontxe ekarri be ekarteko temea. Gurago naunke aittu be in es itea baie baligo botzu liburuko kontau in beakotzudes batzuk u baie gause bat argi itxite gero e: eñoatzu iñon isenik aittuten se emen errien asko(k)t(d)akis an or emen pasau sirean gausak eta asko ilde on arren auren familiko asko bisiri(k)t(d)aos d'estao ondo olango gausak arakatutea, eskutuen aukiteko obea(k)t(d)ire.

Suk u seminarioan ikisi osu d'ondo dakisu eskontzati kanpoko sexo kontuek e pekatu sireala baie, ata gusti be, gausak a pasau iten dire d'or daos, konfesonarioak a berbas balekie, komediek! Konfesonarioak (g)ausa asko tapau dau baie beste gausa asko agirien lotu dire, fetxorie in dauenak a berak kontau daualako d'olango batzuk aittukotzudes. Abadeak es, abadeak isin daudie agorik askatu, sekretoan gorde baño.

Lenago, eskontzak a nobera (k)p(b)ebai baie askotan gurasoak itaudiesan tratuek eta besto batzuetan situasiñoak obligaute be bai. Aitu, urrin yoan barik i gaure etzean pasau sen au. Bitu, gure ama defuntea, sure amama Paulata, saspi nebarra isin sirean baie aitu selan. Gure aman aite alargundu in sen iru umegaz eta ama be bai beste iruges. Da gero alargun biek eskondu sirean arkalegas da beste lau semalaba auki audiesan d'orreteiko bat e gure ama da, sure amama. Orduen bigarren eskontzaraskero, atzeneko laurek apellidu bardine eukien, Arroita, baie ganetikoak a iruk Arroita eta beste irurek Beti. Bueno, goasen ba gaure

Bueno-bueno-bueno, badakastazu ba oraintxe ekarri be ekarteko temea. Gurago neunke aittu be egin ez egitea baina balio badeutsu libururako kontatu egin bearko deutsudaz ba-tzuk u baina gauza bat argi itxita gero e: ez nioatzu inoren izenik aitatuten ze emen errian askok dakiz an or emen pasatu zirean gauzak eta asko ilda egon arren euren familiako asko bizirik dagoz eta ez dago ondo olango gauzak arakatutea, ezkutan eukiteko obeak dira.

Zuk u seminarioan ikasi dozu eta ondo dakizu ezkontzatic kanpoko sexo kontuak e pekatu zireala baina ata guzti be gauzak a pasatu egiten dira eta or dagoz, konfesonarioak a berbaz balekie, komediak! Konfesonarioak gauza asko tapatu dau baina beste gauza asko agirian lotu dira, fetxoria egin dauanak a berak kontatu dauelako eta olango batzuk aitatuko deutsudaz. Abadeak ez, abadeak ezin daudie aorik askatu, sekretoan gordebaino.

Leenago, ezkontzak a norberak be bai baina askotan gurasoak egiten eudiezan tratuak eta beste batzuetan situaziñoak obligatuta be bai. Aitu, urrun joan barik i geure etxean pasatu zan au. Beitu, gure ama defuntea, zure amama Paulata, zazpi nebarreba izan zirean baina aitu zelan. Gure amaren aita alargundu egin zan iru umegaz eta ama be bai beste irugaz. Eta gero alargun biak ezkondu zirean alkarregaz eta beste lau seme-alaba euki eudiezan eta orretariko bat e gure ama da, zure amama. Orduan bigarren ezkontzarazkero, atzeneko laurak apellidu bardina eukien, Arroita,

serera, sexo temara. Oin kontauko-tzutena erriko persona biri pasau yakiela daukat entzunde. Baten seguru, eskondu sen bat etzekoak inde eskontza tratuok eta lau ilebete t'erdi barru familie es auen auki ba! Da oño? Selan isin laiteken? Da ba, bautisu egunean, gison ori abadeagana yoan i sen sakristinire da kontau abadeari pasau yakona. Da b'abadeak a atoan igirri auen aren larritasune da ba bakearren badiñotzo:

- Aiko urlie, frankilo on sates. Sainbet (d)enpora da eskondu saintzena?
- Lau ilebete t'erdi jaune, ser ba?
- Ba, sera, kontuek ondo daos gisona, aitu, lau ilebete t'erdi gaubes da beste lau ilebete t'erdi egunes, bedratzi ilebete dire, esatoak. Soas d'asisu ondo umea.

D'axe pasau i sen seguru. Gerora beste famili geao auki aude-san d'ateraudien bisimodue selanbaist. Ostaikoak a modukoak in dire da len esan dotzutena, gausak estire endredau bear, isilean gorde baño, gure aite isin es iteko, ak es, ak es otzun aumentau be ingo olango konturik, ak a beti esatoskun:

- Estanik es kontau, da badana be askotan ogeto isilik auki, badaespa-da sein txarrera in.

Beste kontu batera yoanda, klaro, gaur u gausak a kanbietan doas baie, askok o propiedadera eskondu gurisitaunen da ba propiedadekoak es auden gurisiten askotan modubakorik eta klaro, gasteak a gurixinean ba neskatoa ernari edo aurrerantza be iños itxitaunen da klaro, gero derrigor eskondu bear da prisas, umea bere tertzioan yayoteko d'alan sesana ebi-

baina ganetikoak a iruk Arroita eta beste irurak Beti. Bueno, goazen ba geure zerera, sexo temara. Orain kontauko deutsudana erriko pertsona biri pasatu jakiela daukat entzunda. Baten seguru, ezkondu zan bat etzekoak eginda ezkontza tratuok eta lau ilebete eta erdi barru familia ez euan euki ba! Eta koño? Zelan izan leiteken? Eta ba, bautizu egunean, gison ori abadeagana joan ei zan sakristiniara eta kontatu abadeari pasatu jakona. Eta ba abadeak a atoan igarri euan aren larritasuna eta ba bakearren badinotso:

- Aiko urlia, frankilo egon zaitez. Zeinbat denpora da ezkondu zeintzana?
- Lau ilabete eta erdi jauna, zer ba?
- Ba, zera, kontuak ondo dagoz gizona, aitu, lau ilabete eta erdi gauzez eta beste lau ilabete eta erdi egunez, bedratzi ilabete dira, esaktoak. Zoaz eta azi egizu ondo umea.

Eta axe pasatu ei zan seguru. Gerora beste familia geiao euki eudezan eta atera eudien bizimodua zelanbaist. Ostekoak a modukoak egin dira eta leen esan deutsudana, gauzak ez dira endredatu bear, isilean gorde baino, gure aita izan ez egiteko, ak ez, ak ez eutsun aumentatu be egingo olango konturik, ak a beti esaten euskun:

- Ez danik ez kontatu, eta badana be askotan obeto isilik euki, badaezpada zein txarrera egin.

Beste kontu batera joanda, klaro, gaur u gauzak a kanbietan doaz baina, askok o propiedadera ezkondu gura izaten euan eta ba propiedadekoak ez euden gura izaten askotan modubakorik eta klaro, gazteak a gura izanean ba neskatoa ernari edo aurrerantza be inoz

tau, d'asarrea be sarri otesan d'askotan biximodu txarra emon be bai fetxorigaiti, besto batzutan ba aurrera in bear. Oin, kasu betzuetan, seragaiti be itesan ori, ba eskondu baño lenao ia balio dauen yakiteko, se propiedadean sartzean sana alkarpoderoso iten san d'orretarako familie auki beada, seme edo alabea gitxienez, erederu bet.

Da, baligoa aititutzut, ori inportantea yatzu, se gixon artean insultorik andiena auxe san: "Ik esto(k)-p(b)aligo", baligo semea aukiteko, d'ori entzutea, bueno, bajezea yatzun d'ñook esauen gure ori entzun, naite batzutan egie isin.

Gero ba, , batzutan igoyal e modu diferenteko pareja bat eskontako ditean otesan baie ños e modu onekoan gurasoak a beste modu oneko bat topetotzien eskontako d'ños arreglu betera allegau be bai da klaro, modu eskasagokoa kalabasakas. D'ene orduen, batzuk u bertzopapel da gusti atetan audiesan da saldu Urkiolan da Santa Lusien da, bengantza modure.

Gero porlemaea otesan ume yasoakas edo sasikoakas, onikas solteratako umeakas, orrik i agirien lotuten sirean d'eskandalureko baño es sirean. Batzuk u eskondu be iten sirean, solteru on eskero mutile, baie eskondue isin eskero, orduen komediek.

Orregaitiño, batzuk u danabea-rrekoa(k)t(d)ireanes, emendatu esinek, eskonduekas be igoyal ibiltzen sirean da ba eskontzeak a lelengotan tapau arren yayo ta gerora tranpeak argi urtetauen se umeak estau engañetan, ak a agindu dauenan antza ate-

itxiten euan eta klaro, gero derrigor ezkondu bear eta prisaz, umea bere tertzioan jaioteko eta alan zeresana ebittatu, eta asarrea be sarri egoten zan eta askotan bizimodu txarra emon be bai fetxoriagaitik, beste batzuetan ba aurrera egin bear. Orain, kasu batzuetan, zera-gaitik be egiten zan ori, ba ezkondu baino leenago ia balio dauan jakiteko, ze propiedadean sartzean zana alkarpoderoso egiten zan eta orretarako familia euki bear da, seme edo alabea gitxienez, erederu bat.

Eta, balioa aitatu deusut, ori inportantea jatzu, ze gizon artean insultorik andiena auxe zan: "Ik ez dok balio", balio semea eukiteko, eta ori entzutea, bueno, bajezea jatzun eta inok ez euan gura ori entzun, naita batzutan egia izan.

Gero ba, batzutan igoyal e modu diferenteko pareja bat ezkontako ditean egoten zan baina inoz e modu onekoen gurasoak a beste modu oneko bat topetan eutsien ezkontako eta inoz arreglu batera allegatu be bai eta klaro, modu eskasagokoa kalabazakaz. Eta ene orduan, batzuk u bertzopapel eta guzti ateraten eudiezan eta saldu Urkiolan eta Santa Luzian-eta, bengantza modura.

Gero problemaea egoten zan ume jazoakaz edo sasikoakaz, oneikaz solteratako umeakaz, orreik i agirian lotuten zirean eta eskandalurako baino ez zirean. Batzuk u ezkondu be egiten zirean, solteru egon ezkeru mutila, baina ezkondua izan ezkeru, orduan komediak.

Orregaitino, batzuk u danabearrekoak direanez, emendatu ezinak, ezkondukaz be igoyal ibiltzen zirean eta ba ezkontzeak a leenengotan tapatu arren jaiio eta gerora tranpeak argi urtetan euan ze umeak ez dau engañetan, ak a

rako dau, amatara espadao igirri es iteko moduen. Orregaiti, olango kasuen bat on eskero agoperik agope esan be iten isin de, bates be kalte in gura isin eskero: “ori urlien umea dok.” Txarrena barres umea bera enteretan sanean. Pentzaisu selango disgustue!

A, gero, uriko umea(k)p(b)e oten sirean, olango umeari “urikoa” esaten yakon. Umetan, asteko ekarten audiesan diru apurren bategaitik euren apelliduegas, da gero inok erreklamau esik etzean geratuten sirean baia apellidue kanbiau barik. Oin es, oin beste neba-arraban apellidue artzean daudie d’ ogeto olan, espabere markaute lotuteko arriskue egoan. Emen Seberion, “Úriko” isenes esautu gendun gison bat. Selebrea isin yatzun.

Beste baten, tabernako kontuek esta, ba jenteak a yakitauen andra eskondu bet e gison geogas dabilela da ba egun beten, tabernan egosela, bete-bete inde, ba betikoa, arkaleri faltetan asi sirean da ba badiñotzo batek e txarresean urlieri:

- I, i emen ao botilla ardaoa edaten baie ire andrea binbitartean beste gison batzukes yabik i fraduen
- Ik i ser dostek ago andi orrek. Aitik mutil, ni nauri, nire andreak eskatu eskero, gure yoadanean gure yoadana emoten yostek eta ganetikoa-gas berak agintan yok, d’iri ser doa ba ire andrea estok eta naurea baño. I sartu ai aure fraketan edantxarreko agolatz ori alango ori!

D’antxe itxi auen lotzature eta beste inor be esan atomau barriro kontu ori mostradorera atetan sein beste ainbeste entzun.

agindu dauanaren antza aterako dau, amatara ez badago igarri ez egiteko moduan. Orregaitik, olango kasuren bat egon ezkerero aoperik aope esan be egiten izan da, batez be kalte egin gura izan ezkerero: “ori urliairen umea dok.” Txarrena barriz umea bera enteretan zanean. Pentsatu egizu zelango disgustual

A, gero, uriko umeak be egoten ziran, olango umeari “urikoa” esaten jakon. Umetan, azteko ekarten eudiezan diru apurren bategaitik euren apelliduegas, eta gero inok erreklamatu ezik etxean geratuten ziran baina apellidua kanbiatu barik. Orain ez, orain beste nebarreben apellidua artzen daudie eta obeto olan, ezpabere markatuta lotuteko arriskua egoan. Emen Zeberion, “Úriko” izenez ezagutu gendun gizon bat. Zelebrea izan jatzun.

Beste baten, tabernako kontuak ezta, ba jenteak a jakiten euan andra ezkondu bat e gizon geiagogaz dabilela eta ba egun baten, tabernan egozala, bete-bete eginda, ba betikoa, alkarri faltetan asi zirean eta ba badinotso batek e txarrezean urliri:

- I, i emen ago botilla ardaoa edaten baina ire andrea bienbitartean beste gizon batzukaz jabilk i fraduan
- Ik i zer deustak ao andi orrek. Aitu eik mutil, niri neuri, nire andreak eskatu ezkerero, gura joadanean gura joadana emoten jaustak eta ganetikoagaz berak agintan jok, eta iri zer deua ba ire andrea ez dok eta neurea baino. I sartu adi eure fraketan edantxarreko aolatz ori alango ori!

Eta antxe itxi euan lotsatuta eta beste inor be ez zan atomatu barriro kontu ori mostradorera ateraten zein beste ainbeste entzun.

Gero, beste kasu be(t)p(b)e yakite san emen, errien. Isena ta etzea eskoas aiteituen errespetoagaiti, onik (g)ausok isilik aukiteko obea(k)t(d)-ire isin be ta. Ba, orko etzeko gisona seguru, moskor utze san, beti kargeagas, ogeto esanda txarto kargaute. Batzutan eperdirañoko moskorragas ote san, fraka(k)p(b)uruti jasteraño be iños. Da ba, etze ori alboko etzeari dotzela egoan. Beko partea arrisko ormeagas baie kamarea olesko medilenagas bakarrik. Eta, klaro, estakiu ba segaiti, baie moskorti orren andrea dautzolako etzeko gisonas ebilen, bakisu setan esta, da ba etzeko ateti sartu bearrean, kamarako ol soltu bateti pasetan san beste etzera, da bestea moskor-moskor inde ote san les ba enterau bes edo enteraugures. Se, estakiu ba, andrea besto bategas ebilelako artzean situen moskorrak ala moskortie salako aprobetxetan audien beste biek.

Desde luego, errukie emoten i auen ak (g)ison gixajoak. Aprobetxetea be estao ba(t)p(b)e ondo e, baie batzuk u estaukie eskrupulurik. Gero ba, kontau askok iten isin dau, yoan estaki(t)p(b)aie, serera, Bilboko Palankara be yoateko intzigue be on da baie bate(k)p(b)año geaok o gaxoa(k)p (b)e batu daus, bates be ori sipilis edo ori, nik esotuot o bat olango kontagioti gorputzeko asala be satike dariola yausten. Oin, tabernan da gause txikerrrik etzan kontetan gero e! Da baten e olango fanfarroi bateri auxe esaotzen batek: “ Ik i burue non dauko(k)p(b)a, auki beadan lekuen ala potroatan? Ik esebes, ik i, baten yoan bas, sarri kontau, d’ara yoateagaiti es as

Gero, beste kasu bat be jakiten zan emen, errian. Izena eta etxea ez goaz aitatuten errespetoagaitik, oneik gauzok isilik eukiteko obeak dira izan be eta. Ba, orko etzeko gizona, seguru, mozkor utsa zan, beti kargeagaz, obeto esanda txarto kargatuta. Batzutan eperdirainoko moskorragaz egoten zan, frakak burutik jazteraino be inoiz. Eta ba, etxe ori alboko etxeari deutsalala egoan. Beeko partea arrizko ormeagaz baina kamarea oolezko medelinagaz bakarrik. Eta, klaro, ez dakigu ba zergaitik, baina moskorti orren andrea, deusalako etzeko gizonaz ebilen, badakizu zertan ezta, eta ba etzeko atetik sartu bearrean, kamarako ool soltu batetik pasetan zan beste etxera, eta bestea moskor-moskor eginda egoten zan lez ba enteratu be ez edo enteratu gura ez. Ze, ez dakigu ba, andrea beste bategaz ebilelako artzean zituen moskorrak ala moskortia zalako aprobetxetan eudien beste biak.

Desde luego, errukia emoten ei euan ak gizon gixajoak. Aprobetxetea be ez dago bat be ondo e, baina batzuk u ez daukie eskrupulurik. Gero ba, kontatu askok egiten izan dau, joan ez dakit baina, zerera, Bilboko Palankara be joateko intzigua be egon da baina batek baino geiagok o gaixoak be batu dauz, batez be ori sifilis edo ori, nik ezagutu dot o bat olango kontagiotik gorputzeko azala be zatika dariola jausten. Orain, tabernan eta gauza txikerrrik ez zan kontetan gero e! Eta baten e olango fanfarroi bateri auxe esan eutsan batek: “ Ik i burua non daukok ba, euki bear dan lekuan ala potroatan? Ik ezebez, ik i, baten joan ba az, sarri kontatu, eta ara joateagaitik ez az gu besteok baino geiaio gero, ze gizonari zentzuna potro-

gu besteo(k)p(b)año geao gero, se gisonari sentzune potroataro bajatu eskero e(s)tx(y)aok sereginik!

Gero ba, entzutea, aldi beten baten bat a masfloritea isin i sen, garrisberrea andrea ta gisona bieki eta ba gison letxe eskondute on arren, bestera be iten i auen seguru txakur betzuk atetako, entzutea e, naikoa aukiko auen bere buruegas. Oten dire kasuek. Aiko baten or Elbarrenen iru agoko txal ba(t)tx(y)-ayo san da usabak ilten itxi gurotzen ermandadan kobretako ta b'orduen ausoko batzuk erosi in otzien txal ori merke-merke da gero Santa Kurtzetan olesko txabola bat in d'entradak kobretan audiesan ikusteko ta ba dirualdie atera i audien, nobedadea zalako. Gero tragau in yakien iru agoko txal ori.

Gero ba, isenik enoa esaten, baie andran batek txakurregas iten i auen lo da ba jenteak a laster imini otzen isena, egunes Katxin sana gaubes "pitolerdo".

Txakurrena kontakeran baiena-gas akordau nes. Au kontu au baragarria da isin be da ba baragarrien bateri pasauko yakon.

Baten seguru, baten bat ebilen baieri esnea batzean d'atzenerako susera auken baie itxi auen sein besteak endredatu. Asi i sen batzean esneak eta ba bai ori etxakon geldi oten, bakisu, susera direnean artega oten dire, da ba isin auen gauzonik in morimintuokas da txarrena busten-kasuekas. D'alangon baten, gogait inde, bakisu se akordau yakon? Ba, sera, artu eskillerea, soltau beren aldeko garrikoa, amarrau bai suserean busten puntea d'estu goiko solibe-

ataro bajatu ezkerok ez jagok zereginik!

Gero ba, entzutea, aldi baten baten bat a ermafroditea izan i zan, garrisberrea andrea eta gizona biak eta ba gizon letxe ezkondata egon arren, bestera be egiten ei euan seguru txakur batzuk aterateko, entzutea e, naikoa eukiko euan bere buruagaz. Egoten dira kasuak. Aiko baten or Elbarrenen iru aoko txaal bat jaijo zan eta ugazabak ilten itxi gura eutsan ermandadan kobretako eta ba orduan auzoko batzuk erosi egin eutsoen txaal ori merke-merke eta gero Santa Kurtzetan olezko txabola bat egin eta entradak kobretan eudiezan ikusteko eta ba dirualdia atera ei eudien, nobedadea zalako. Gero tragatu egin jakien iru aoko txaal ori.

Gero ba, izenik ez noa esaten, baina andraren batek txakurragaz egiten ei euan lo eta ba jenteak a laster imini eutsan izena, egunez Katxin zana gauez "pitolerdo".

Txakurrena kontatukeran beiare-nagaz akordatu naz. Au kontu au baragarria da izan be eta ba baragarrien bateri pasatuko jakon.

Baten seguru, baten bat ebilen beiari esnea batzean eta atzenerako susara euan beia itxi euan zein besteak endredatu. Asi ei zan batzean esneak eta ba bei ori ez jakon geldi egoten, badakizu, susara diranean artega egoten dira, eta ba ezin euan gauzonik egin mobimintuokaz eta txarrena buztankazuekaz. Eta alangoren baten, gogait eginda, bada-kizu zer akordatu jakon? Ba, zera, artu eskillarea, soltatu beren aldeko garrikoa, amarratu bei susarearen buztan puntea eta estu goiko solibe-ari zein barriro buztankazuka asi eta kantin esnea bota. Eta

ari sein barrero bustenkasuke asi te kantin esnea bota. D'orretantxe dabilela, estukuran, frakak a bajatu in yakosan, klaro, garriko barik egoalako, da ba orkoxe momentean etxako sartzean kortan ausoko bat e seosen eske! Feturorretan ikusi auenean badiñotze ak ausokoak:

- Se itok mutil fetura baragarri orretan?
- Aiko mutil, pentzaik auk (g)uroana, se egie esaten boat estostek siñistuko, baie esin yoat a bai suse-ronegas gausonik in d'auxe in bear isin yoat esnea batzeako. Biger goxean sekorrangana aginduko yoat a baten bategas sekorra botaten d'ia sosegetan doan. Gero ba barre gure dana in i audien fetxori orren konture. Es ke, ikustekoa isingo san e a trajura d'aparajue gero e!

D'urrungo goxean, suseraldie pasau baño lenago, sekorrangana agindu auen bai suserea alaba sarrena da mutiko gasteaganas. Neskatoa aurretiki yoyan esku batean baie erremalean dauela da bestean txorbela auli d'espardurdinek uxatuteko d'atzetik i mutikoa barda bategas, baie erantau bear bada erantetako. Sekordunen etzera allegetako daosela abadea krusau yakien elezarantzako ditean da ba aik ikusikeran badiñotze neskatoari:

- Nora soasien baño esta ain soli?
- Ba, jaune, Entellaongo sekordunenera sekorra botaten baieri susera dao ta, ser ba?
- Ser ba? Ori bear ori sure aitek esin leike in, sulango neskato bat agindu barik?
- Es jaune, au bear au aitek esin leike in, sekorra(k)p(b)añõ, da ganera

orretantxe dabilela, estukuran, frakak a bajatu egin jakozan, klaro, garriko barik egoalako, eta ba orkoxe momentean ez jako sartzean kortan auzoko bat e zeozeren eske! Fetura orretan ikusi euanean badinotso ak auzokoak:

- Zer egiten dok mutil fetura baragarri orretan?
- Aiko mutil, pentsatu eik euk gura doana (dokana), ze egia esaten badeuat ez deustak sinistuko, baina ezin joat a bei susara onegaz gauza onik egin eta auxe egin bear izan joat esnea batzeako. Biar goizean zekorragana aginduko joat a baten bategaz zekorra botaten eta ia sosegetan doan (dokan). Gero ba barre gura dana egin ei eudien fetxoria orren kontura. Es ke, ikustekoa izango zan e a trajura eta aparejua gero e!

Eta urrengo goizean, susaraldia pasatu baino leenago, zekorragana agindu euan bei susarea alaba zaarrena eta mutiko gazteaganaz. Neskatoa aurretiki joian esku batean beia erramalean dauela eta bestean txorbela euli eta ezpadurdinak uxatuteko eta atzetik i mutikoa barda bategaz, beia erantatu bear bada erantetako. Zekordunaren etxera allegetako dagozala abadea kruzatu jakien elezarantzako ditean eta ba aiek ikusikeran badinotso neskatoari:

- Nora zoazien baino ez da ain zoli?
- Ba, jauna, Entellaongo zekordunenera zekorra botaten beiari susara dago eta, zer ba?
- Zer ba? Ori bear ori zure aitik ezin leike egin, zulango neskato bat agindu barik?
- Ez jauna, au bear au aitik ezin leike egin, zekorrak baino, eta ganera aitik e

aitek e seregin naiko dauko etzean etzeko bearrakas.

D'alantxe pasau sen seguru. Abadeak a esotzen ondo eretxi neskatoa bearleku orretan ikusteari, baie baserrien al dauenak al dauena iten dau da danak etzerako. Suo(k)p(b)e bai, mutiko mutikorik iten sainduen itaurren eskolati etorri orduen, edo errotara yoan edo iturrukure ekarri d'olango beartxuek.

Abadea aititukeran, abadegai baten kontue etorri yata gogora. Or Oroskon, "Aibere" esaten gauntzen aman lengusin bet egoan da b'an entzun naindun au kontu au. Ba seguru, abadegaien bat i egoan beti gaxokarik ibiltan sana, da ba bakasiñoatan etorten sanean bakar antzean da betuxo ibiltan san bateko besapeko da belarriostaiko ixurriek aukesala, besteko bixigoak uskaiti dariola, ara, dana i sen pupue, eta ba bere burueri lorra emototzen bere gaxookas, seguru. Baie, neskatoan bat ikustauenean plageak arturik i yoaten i sen bere atzean begie(k)p(b)ota inik eta ene orduen, ango neskaxien galapada d'aparajuek, seguru, barre baño es otzien iten ausoak neskan atzean gaxoak (g)ustiek kentzean yakosan da antza. Olan e abadegai orren antzean gaxogedarres ibiltan sireanari «mamarroakas» dabisela esaten yakien, nerbiotati, nerbios yosite.

Bueno ba, in al estirela be, kontau in dus sikeran isileko kontu betzuk e baie, oño, es pentzau e, kostau in yata komertasiño modu au gero!

Bueno, oin arte kontaukoak a txarka be kontau in leikes baie beste kasu betzuk u txarto akabau sirean, sano txarto, d'eskoas aittu be iten

zeregin naiko dauka etxean etxeko bearrakaz.

Eta alantxe pasatu zan seguru. Abadeak a ez eutsan ondo eretxi neskatoa bearleku orretan ikusteari, baina baserrian aal dauanak aal dauana egiten dau eta danak etxerako. Zuok be bai, mutiko mutikorik egiten zenduen itaurren eskolatik etorri orduan, edo errotara joan edo iturrikura ekarri eta olango beartxuak.

Abadea aitatukeran, abadegai baten kontua etorri jat gogora. Or Orozkon, "Aibere" (a bere) esaten geuntsan amaren lengusin bat egoan eta ba an entzun nendun (neuan) au kontu au. Ba seguru, abadegairen bat ei egoan beti gaixokarik ibiltan zana, eta ba bakazinoetan etorten zanean bakar antzean eta betuxo ibiltan zan bateko besapeko eta belarriosteko ixurriak eukazala, besteko bizioak uzk(a)iti dariola, ara, dana ei zan pupua, eta ba bere buruari lorra emoten eutsan bere gaixookaz, seguru. Baina, neskatoren bat ikusten euanean plageak arturik i joaten ei zan bere atzean begiak bota eginik eta ene orduan, ango neskaxien galapada eta aparejuak, seguru, barre baino ez eutsoen egiten auzoak nesken atzean gaixoak guztiak kentzean jakozan eta antza. Olan e abadegai orren antzean gaixo-gedarrez ibiltan zireanei «mamarroakaz» dabizela esaten jakien, nerbioetatik, nerbioz josita.

Bueno ba, egin aal ez dirala be, kontatu egin doguz sikieran isileko kontu batzuk e baina, oño, ez pentsatu e, kostatu egin jat komertazino modu au gero!

Bueno, orain arte kontatutakoak a txarka be kontatu egin leikez baina beste kasu batzuk u txarto akabatu zirean, sano

errespetoagaiti. Sexo asunto onek e gaur be porlema asko ekarten ditu da gaur be munduen gause gogorrak entzuten dire. Bakotxa bere bidean balebil eleitike ainbeste naste ongo, se nasteatetik estator gausonik.

txarto, eta ez goaz aitatu be egiten errespetoagaitik. Sexo asunto onek e gaur be problema asko ekarten ditu eta gaur be munduan gauza gogorrak entzuten dira. Bakotxa bere bidean balebil ez leitike ainbeste naaste egongo, ze naasteatetik ez dator gauzonik.

1.19. Begizkoa

Ori amak kontautzune Sata-moko begizkoana, emen be itesan ori plomoa urtu sartanean da gero ba ur barrañu batera bota d'ango figurak olango astu antza sanak a intrepetau itausen d'ikusi ia begizkoa andraskoa ala gisoneskoana dan. Da gero ba bidekurtze baten erre bea san a kunako armudea eleisan bateko igurdiko amabie(k)tx(y)oten daosela

Baie nik i amak kontau estotzun ser bat (d)akitzut, sera, ba ori bidekurtzean erretea gaxori(k)t(d)aoen umean kunako armudeana. Bai, emen be erre ite san eta ollalumasko armudori errekeran, txispotzean asten sirean txir-txar-txir-txar ollaluma gustiek, seinde, goie betean , da ba ori paseta sanean pentzetan audiela ba begizkoan parte txarreko madarikatuok garretan doasela aidean lañoataraño da bakean itxitotziela umeari.

Ni nauk e sinistu estot iten baie lenao es egoanales erremedio andirik olango gausak iten sirean da batzutan ondo urten, alantxe bear auelako.

Ori amak kontatu deusuna Zaratamoko begizkoarena, emen be egiten zan ori plomoa urtu sartanean eta gero ba ur barreñu batera bota eta ango figurak olango aztu antza zanak a interpretatu egiten euazan eta ikusi ia begizkoa andrazkoarena ala gizonezkoarena dan. Eta gero ba bidekurtze baten erre bear zan a kunako almudea eleizarren bateko egurdiko amabiak joten dagozala.

Baina nik i amak kontatu ez deusun zer bat dakitsut, zera, ba ori bidekurtzean erretea gaixorik dagoan umearen kunako almudearena. Bai, emen be erre egiten zan eta ollalumazko almuda ori errekeran, txispotsean asten zirean txir-txar-txir-txar ollaluma guztiak, zeinda, goia betean, eta ba ori pasetan zanean pentsetan eudiela ba begizkoaren parte txarreko madarikatuok garretan doazela aidean lainoataraino eta bakean itxiten eutsoela umeari.

Nik neuk e sinistu ez dot egiten baina leenago ez egoana lez erremedio andirik olango gauzak egiten zirean eta batzutan ondo urten, alantxe bear eualako.

1.20. Kaminoan gauzez tragatutako piztiak

Orrikas pisti tragauokas asi baño len, esplikasiño batzuk emon beotzudes ogeto aituteko. Nik i naure aldien kamiñoa esotu ot emen ergoienen baie gure ama defuntea txikerra sanean in audien au kamiño au. Lengo bidea, orti Uratzeti doa, kal tzada sarra, erre kondoti doa da kamiño barrie(k)p(b)añño erre buelta gitxiago dauko.

Da ba kamiño barrie in sanean, bitisu e, soloa(k)p(b)e erdibitu in ausen da ba gero isena(k)p(b)e kambiau in yakiesan. Ortxe dauku Errekatxu iseneko soloa kamiñoras kero, kamiño pekoari Errekatxu esatotzu baie kamiño ganekoari Sabalalde.

Guretzea, gerrostaien inekoa da, len or beragoan gaunken da bisimodu bikoa, batean gau bisi gaintzesan da bestean, goikoan, ama parteko osaba-lengusuek.

Da, ba, gerrostean ebakuaute yoan sirean gureak eta ni gudari Gorbaiera da gero atzenean Santoñan akabau gaindun.

Gerrostean gure aitek eta osaba Josek erosi in audien propiedadea d'erdibana in solo ta baso gustiek. Orduen e, etze sarra konpondu bearran, barriek itea pentz audien da ementxe kamiñokontran in gaindusen etze bi bardinek, eta bakotxantzatzat e tajamana barri bana da tejamana sarra erdibana, terrenoa gaurea baie osabeak usufrutue.

Kamiñokontran bisitea gausa grandea da aunke gaur autoak ugerituten asite on se oin modue be geao dao ta jentea kotxeak erosten asi de. Emen Ergoienen, Julean Kareakoak

Orreikaz pizti tragatuokaz asi baino leen, esplikazino batzuk emon bear deutsudaz obeto aituteko. Nik i neure aldian kaminoa ezagutu dot emen Ergoienen baina gure ama defuntea txikerra zanean egin eudien au kamino au. Leengo bidea, ortik Uratsetik doa, kal tzada zaarra, erreka ondolik doa eta kamino barriak baino erre buelta gitxiago dauka.

Eta ba kamino barria egin zanean, begitu egizu e, soloak be erdibitu egin euazan eta ba gero izenak be kambiatu egin jakiezan. Ortxe daukagu Errekatxu izeneko soloa kaminorazkero, kamino pekoari Errekatxu esaten deutsagu baina kamino ganekoari Zabalalde.

Gure etxea, gerra ostean eginekoea da, leen or beeragoan geunkan eta bizimodu bikoa, batean geu bizi gintzazan eta bestean, goikoan, ama parteko osaba-leengusuak.

Eta, ba, gerra ostean ebakuatuta joan zirean gureak eta ni gudari Gorbeiera eta gero atzenean Santoñan akabatu gendun.

Gerra ostean gure aitek eta osaba Josek erosi egin eudien propiedadea eta erdibana egin solo eta baso guztiak. Orduan e, etxe zaarra konpondu bearran, barriak egitea pentsatu eudien eta ementxe kamino kontran egin genduzan etxe bi bardinak, eta bakotxarentzat e tajamana barri bana eta tejamana zaarra erdibana, terrenoa geurea baina osabeak usufruktua.

Kamino kontran bizitea gauza grandea da aunke gaur autoak ugarituten asita egon ze orain modua be geiago dago eta jendea kotxeak erosten asi da.

erosi auen lelengo kotxea, dofine, da gero gu(k)p(b)e saisientosa erosi gairindun se ni nauk karnea banaun-ken, osaba Martinegas letxeru ibili naintzelako andi Dimeti, da karnea ba kadukaute naunken baie errenobau in ostien esamen barik.

Bueno, oin bakisu kamiñoan kontue. Da ba, klaro, egunes eskaindun ikusten baie gaubean antza, orri(k) pistiok kamiñora urtetako ekandue aukien seguru, se askotan ikusten gairindusen sapol-sapol inde kamiñoan urrungo goxean, sainde, ba, kirikiñolatzak, subeak eta txubelaxue(k)p(b)e bai kamiño bastarrean ur geldie on eskero. Asagaie(k)p(b)e iños ikusius tragaute, da lenao erbie(k)p(b)e bai, oin eskastu in dire baie. Basaurdea be iños arrapau daurie, ako baten or Laitukiganen kotxe batek mankau auen bat eta aletea doblau kotxeari, sera, kaltea andiagoa mesedea baño.

Da sarri oten gaintzesan pentzetan ia segaitiño etorten sirean kamiñora pistiok eta ba gure eretxien sera san, kamiñoan beroa. Gaubean otzago iten dau baie kamiñoko beroa gosoa isiten da ta orrik i kirikiñolatzak eta subeak eta kamiñoko berotxuen lo be igual da, klaro, autoan bat etorri orduen sapoldu te birrindu itausen. Gaur jente geao dabil gaubes, baie lenago be letxeruek egune argitu orduko pasetan sirean esneak tertziros eroateko sentralera, d'orrik isingo sirean . Iños baten bateri entzun dotzet e en partikular kirikiñolatzari kamiñoko galipot usine be gustetan yakola, d'isilitike, baie orretako be kamiño beroak usain andiagoa botaten dau, da, ba, igual usain orrek atraidu ingoitu, no(k)tx(y)akin? Beste batzu(k)t(d)iñue autoan argiek edo

Emen Ergoienen, Julian Kareakoak erosi euan leelengo kotxea, *dauphine*, eta gero guk be *seiscientosa* erosi gairindun ze nik neuk karneta baneunkan, osaba Martinegaz letxeru ibili nintzalako andi Dimatik, eta karneta ba kadukatuta neunkan baina errenobatu egin eustien examen barik.

Bueno, orain badakizu kaminoaren kontua. Eta ba, klaro, egunez ez gairindun ikusten baina gaubean antza, orreik piztiok kaminora urtetako ekandua eukien seguru, ze askotan ikusten gairinduzan zapal-zapal egin da kaminoan urrungo goizean, zeinda, ba, kirikinolatzak, sugeak eta txubelaxuak be bai kamino bazterrean ur geldia egon ezkerro. Azagariak be inoz ikusi doguz tragatuta, eta leenago erbiak be bai, orain eskastu egin dira baina. Basaurdea be inoz arrapatu deudie, arako baten or Laitokiganen kotxe batek mankatu euan bat eta aletea doblatu kotxeari, zera, kaltea andiagoa mesedea baino.

Eta sarri egoten gairinduzan pentzetan ia zergaitino etorten zirean kamino-ra piztiok eta ba gure eretxian zera zan, kaminoaren beroa. Gaubean otzago egiten dau baina kaminoko beroa gozoa izaten da eta orreik i kirikinolatzak eta sugeak eta kaminoko berotxuan lo be igual eta, klaro, autoren bat etorri orduan zapaldu eta birrindu egiten euzan. Gaur jente geiago dabil gaez, baina leenago be letxeruak eguna argitu orduko pasetan zirean esneak tertziros eroateko zentralera, eta orreik izango zirean. Inoz, baten bateri entzun deusat e en partikular kirikinolatzari kaminoko galipot usaina be gustetan yakola, eta izan leitike, baina orretarako be kamino beroak usain andiagoa botaten dau, eta,

tirituten ete otzien d'argire datosenean itzutu da bertan tragau txerrinkapean.

Oin, asagariak eta basaurdak estatos kamiñoagaitiño, orrik i gosea(k)t(d)akas da destrosue(k)p(b)e itzelak iten dauries ollategietan da soloatan be bai. Aspaldiko partes, basaurdak esin du gausonik in, etze-ko orturano yatorikus. Lengo gau beten ausoko Joseri ortuari gustiek malogratzes basaurda banda batek.

Bitisu espabere noraño sartu yakon basaurda arra sure aitexean anaje Euskadiri, Urkusuko etze ondoko txabolarano, da, ba, irusi egoan txarri emea gobernau te gero txarrikuma erdiak basaurdakumeak urtotzien.

Da gero beste kontu be(t)p(b)e badao. Sera, nik i oniri kasariori entzunde ta ba nau(k)p(b)e errastuek ikusite e, ba, or o Laitukiganen basaurdan paso dao da ba kamiñoa inde gero be bardin krusetan daurie se antxe daos errastuek kamiñoan alde bietan da ba olango pasoaan baten sugertau eskero ba autoak a basaurdea yo ta batzutan tragau be bai. O sea ke, kamiñoa goiti biti animiliek auren bidea(k)t(d)aukies yana topetan edo arrak emekana dabise-
nean sobre todo. Autopistatan be bardin pasetan da naite alanbradurak imini. Batzuk ganeti sailtu be iten daurie, beste batzuk u, seinde basaurdak, aspia yan da suloa iten daurie edo aginekas alanbrak siskau te arratea in pasetako. Orrik i basaurdok aginek indertzuek aukiten dauries.

Untxe etorri ya(t)p(b)urure gure aitueri se pasau yakon baten an Erdikobotoko basoan. Ia se pasau

ba, igual usain orrek atraitu egingo ditu, nok jakin? Beste batzuk dinoe autoan argiak edo tiratuten ete deutsien eta argira datozanean itsutu eta bertan tragatu txerrinkapean.

Orain, azagariak eta basaurdak ez datoz kaminoagaitino, orreik i goseak dakarz eta destrozak be itzelak egiten deudiez ollategietan eta soloatan be bai. Aspaldiko partez, basaurdak ezin dogu gauzonik egin, etxeko orturaino diatorkuz. Leengo gau baten auzoko Joseri ortuari guztiak malogratu deutzaz basaurda banda batek.

Begitu egizu ezpabere noraino sartu jakon basaurda arra zure aitexearen anaje Euskadiri, Urkuzuko etxe ondoko txabolaraino, eta, ba, irusi egoan txarri emea gobernatu eta gero txarrikuma erdiak basaurdakumeak urten eutsoen.

Eta gero beste kontu bat be bada-
go. Zera, nik i oneiri kazariori entzunda eta ba neuk be errastuak ikusita e, ba, or o Laitokiganen basaurdaren pasoa dago eta ba kaminoa eginda gero be bardin krusetan daudie ze antxe dagoz errastuak kaminoaren alde bietan eta ba olango pasoren baten sugertatu ezker-
o ba autoak a basaurdea jo eta batzutan tragatu be bai. O sea ke, kaminoa goiti beiti animiliek euren bideak daukiez jana topetan edo arrak emekana dabizenean sobre todo. Autopistatan be bardin pasetan da naita alanbradurak imini. Batzuk ganetik saltu be egiten deudie, beste batzuk u, zeinda basaurdak, aspia jan eta zuloa egiten daudie edo aginekaz alanbrak siskatu eta arratea egin pasetako. Orreik i basaurdok aginak indartsuak eukiten daudiez.

Oraintxe etorri jat burura gure

yakon? Ba, sera koño, basaurda makerea gañetu, makereak atakau.

Ba, seguru, udagoiena san da gure aitueta iketz egosten egosan antxe Erdikoboton. Antxegoan on be botoa inde iketza egosteko d'antxe.

Botoa ser dan? Ba, sera, pendise daoen basoan olan e larrin moduko selaikada biribil bet itea gero an ikestxondorra iteko. D'or basoan erditertzioan boto andi bet egoanes ba andixi geituten dotzu baso gustieri Erdikoboto, bueno, burpidepeari e se burpide ganea Larramendiko basoa da. Oin a burpidea pista inde dao, gemesak eta pasetako basoak atera bea direanean, entresaka edo derreo.

Da ba, alangon baten basaurda makera bat barruntau audien basaurdakume ta gusti. Da, koño, ba, alango basaurdakume bat kuxetako ditean egosan. Da, ba, bakisu, alango basaurdakuman bat manatu in i sen bandati te gure aituak artu saku bet eta rapa! kuxau in auen basaurdakumea, da sakuen sartu te txondorrantza yoan san laguneri erakusteko da betekada bat iteko, se iketz egostorduen txondorra akabau arte on bear isiten san basoan da ba ondo yatorkien urdai orde basaurdakumean gigerrea yatea.

Baie, pausu bi emon orduko non barruntetan dauen basaurda makerea irrintza baten bere atzeti. Klaro, gure aituak e esauen galdu gure basaurdakumea, da, se in auen? ba, gastaña beres erne batera igun basaurdakuma ta gusti. Baie basaurda makerea gastañapean auken amurru beten d'esin auen les igun aginekas ausike asi yakon areri gastaña beres ereneari. Orduen gure aituak e laguneri gaitu

aituari zer pasatu jakon baten an Erdikobotoko basoan. Ia zer pasatu jakon? Ba, zera koño, basaurda makerea gainetu, makereak atakatu.

Ba, seguru, udagoiena zan eta gure aitua-eta, ikatz egosten egozan antxe Erdikoboton. Antxe egoan egon be botoa eginda iketza egosteko eta antxe.

Botoa zer dan? Ba, zera, pendiza dagoan basoan olan e larrain moduko zelaikada biribil bat egitea gero an ikatz txondorra egiteko. Eta or basoan erditertzioan boto andi bat egoanez ba andixik deituten deutsagu baso gustiari Erdikoboto, bueno, burpidepeari e, ze burpide ganea Larramendiko basoa da. Orain a burpidea pista eginda dago, gemezak (GMC-kamioi-marka) eta pasetako basoak atera bear direanean, entresaka edo derreo.

Eta ba, alangoren baten basaurda makera bat barruntatu eudien basaurdakume eta guzti. Eta, koño, ba, alango basaurdakume bat kogiduteko ditean egozan. Eta, ba, badakizu, alango basaurdakumeren bat manatu egin ei zan bandatik eta gure aituak artu zaku bat eta rapa! kogidu egin euan basaurdakumea, eta zakuan sartu eta txondorrantz joan zan laguneri erakusteko eta betekada bat egiteko, ze ikatz egostorduan txondorra akabatu arte egon bear izaten zan basoan eta ba ondo diatorkien urdai orde basaurdakumearen gjarrea jatea.

Baina, pausu bi emon orduko non barruntetan dauen basaurda makerea irrintza baten bere atzetik. Klaro, gure aituak e ez euan galdu gura basaurdakumea, eta, zer egin euan? ba, gastaña berez-erne batera igon basaurdakume eta guzti. Baina basaurda makerea gastañapean eukan amorru baten eta ezin euan lez igon aginekaz ausika asi jakon

otzien kaka-dario berak esan bistike:

- Mutilek, se ingo yoat, etxon ala bota basaurdakume au?
- Botaiok- esatotzien besteok dardarotzean-, botaiok se ori makerori kapas dok aginekas arbolea eperditi botateko ta botaiok o bake bakean ori goiti beiti isingo gosak eta.

D'alantxik in i audien da makero-rrek agoan artute eroan i auen a basaurdekumea da Urrustiko selaien artu i ausen ganetiko umeok eta Meagaraiko bidea artu i auen Murgara inean da gra-siek e, s'espabere iten dotzo aberien bat. Estukurea baltza seguru.

areri gaztaña berez ereneari. Orduan gure aitua e laguneri deitu eutsien, kaka-dario berak esan beistike:

- Mutilak, zer egingo joat, etxodon (itxaron) ala bota basaurdakume au?
- Bota egiok- esaten eutsoen besteok dardarotzean-, bota egiok ze ori make-ra ori kapaz dok aginekaz arbolea eperditik botateko eta bota egiok o bake bakean ori goiti beiti izango gozak eta.

Eta alantxik egin ei eudien eta makera orrek aoan artuta eroan ei euan a basaurdakumea eta Urreztiko zelaian artu ei euazan ganetiko umeok eta Meagaraiko bidea artu ei euan Murgara einean eta graziak e, ze ezpabere egiten deutso aberiaren bat. Estukurea baltza seguru.

2.21. Saldaingo txakurra eta beste bertsio batzuk

“ Saldaingo txakurrena, kontue esese esakerea be in de Seberion eta esan be iten du ta auxe da: “*Saldaingo txakurrena pasau yako*”. Da, suk u ondo dakisu ser pasau yakon Saldaingo txakurreri, baie tire, barriro be kontaukotzut. Aiko, Saldainen i egoan txakur bet e danabarrekua eta egun beten goxago baskaiteko edo Uriondora yoateko adie auken da yoan be in sen, an gostarragoak i sian da. Yoan e yoan san baie bein Uriondoraskero baskalduakabaute topausen da txakur ori agoan txuegas lotu sen. Anka in bear isin auen Uriondoti te barrienbarris yoan san Saldainera eta bueltarako angoa(k)-p(b)e baskaldute. Atzenean ser? Da, ba, baskaldu bari(k) parau sala a txakur leloa.”

Saldaingo txakurrarena, kontua ezeze esakerea be egin da Zeberion eta esan be egiten dogu eta auxe da: “*Saldaingo txakurrarena pasatu jako*”. Eta, zuk u ondo dakizu zer pasatu jakon Saldaingo txakurrari, baina tira, barriro be kontauko deusut. Aiko, Saldainen ei egoan txakur bat e danabarrekua eta egun baten goizago bazkaiteko edo Uriondora joateko adia eukan eta joan be egin zan, an goiztarragoak ei ziran eta. Joan e joan zan baina bein Uriondoraz gero bazkaldu-akabatuta topatu euazan eta txakur ori aoan txuagaz lotu zan. Anka egin bear izan euan Uriondotik eta barrienbarris joan zan Saldainera eta bueltarako angoak be bazkalduta. Atzenean zer? Eta, ba, bazkaldu bari(k) paratu zala a txakur leloa.

Artzubiko txakurra

Zeberion badago beste bariante bat. Artzubiko txakurrarena. Artzubitik Solatxira Joan zan txakurra eta Saidainen beste gertatu jakon, anka-jokoa emon otzien Solatxikoak atear itxite, da barriro yoan bear Artzubire, d'an be bueltarako baskaldute. Pasadizu onen Berriemaileak aite-alaba bi dira. Pablo Intxaurraga eta bere alaba Amaia.

Ellakuriko txakurra

Saldaingo eta Artzubiko txakurraren kontua entzun orduan, haragora eroan neban ama, Arratiako Villaro edo gaurko Areatza gainera eta Zeanuri parteko Ellakuriko txakurrarena aitatu neutsan baekiela banenkielako eta aikomen erantzuna:

“Ellakuriko txakurreri best'ainbeste pasau i yakon. Baie, sera, Ellakurikoari arean diferentea pasau yakon. Ellakuriti Billaroko klausurako mojetara yoan san seguru lenao baskaiteko, bakisu, moja(k)p(b)eti ixin dire gostarrak baskaiten. Oin ori bes, se mojarik estao on be, Oñatera yoan barri daoselako. Da, ba egun orretan mojok erretiroa sala edo ejersisioak sirela, baskalordue kambiau te txakur ori banengo nengonean geratu i sen seguru. Barriro igon i auen Ellakurire baie angoa(k)p(b)e yanda topausen. Ellakurikoari be Saldaindo txakurrena pasau yakon.

Etxoisu, untxe etorri ya(t)k(g)ogora Joanito Sasolakoana. Arteako Juanito Etxebarria gure lengusu defuntuek e mojetara barik i Elorribi deritxon baserrire yoan sala esatauen txakur ori. Elorribik i

Artzubiko txakurra

Zeberion badago beste bariante bat. Artzubiko txakurrarena. Artzubitik Solatxira Joan zan txakurra eta Saidainen beste gertatu jakon, anka-jokoa emon eutsoen Solatxikoak atear itxita, eta barriro joan bear Artzubira, eta na be bueltarako bazkalduta. Pasadizu onen Berriemaileak aite-alaba bi dira. Pablo Intxaurraga eta bere alaba Amaia.

Ellakuriko txakurra

Saldaingo eta Artzubiko txakurraren kontua entzun orduan, haragora eroan neban ama, Arratiako Villaro edo gaurko Areatza gainera eta Zeanuri parteko Ellakuriko txakurrarena aitatu neutsan baekiela banenkielako eta aikomen erantzuna:

Ellakuriko txakurrari beste ainbeste pasatu ei jakon. Baina, zera, Ellakurikoari arean diferentea pasatu jakon. Ellakuritik Villaroko klausurako mojetara joan zan seguru leenago bazkaiteko, badakizu, monjak beti izan dira goiztarrak bazkaiten. Orain ori be ez, ze monjarik ez dago egon be, Oñatera joan barri dagozalako. Eta, ba egun orretan monjak erretiroa zala edo ejertzioak zirala, bazkalordua kambiau eta txakur ori banengo nengonean geratu ei zan seguru. Barriro igon ei euan Ellakurira baina angoak be janda topatu euazan. Ellakurikoari be Saldaindo txakurrarena pasatu jakon.

Etxodon (itxaron) egizu, oraintxe etorri jat gogora Juanito Sarasola-koarena. Arteako Juanito Etxebarria gure leengusu defuntuak e mojetara barik i Elorribi deritxon baserrira joan zala esaten euan txakur ori. Elorribik i

Pagomakurrerantzako bidean on bea dau”.

Beste bertsio bat

Amarenak entzun eta gero beste bertsio bat aipatu gura dot. Bertsio hau Jose Ramon Arbe Zeanurikoak kontatu eustan Gasteizen. Hitzaldi bat emoten nengoan eta Saldaingo txakurrarena kontatu nebanean hauxe esan eustan:

“I, Manu, Ellakuriko txakurre Atxeko baserrira yoan soalaskoa yaukoat entzunde, an Villaro gan-txuen”.

Gatzaietako txakurra (Abadiño)

Berriemaileak: Ama: Anastasia Belar Uriarte (Abadiñoakoa) Semea: Bittor Agirre Belar (Abadiñoakoa)

Gatzaieta Urkiolako aldatzaren erdi inguruko baserri garrantzitsua da. Kalendario eta abarretako argazkietan sarri agertzen dana.

Kontua da ba ze, Gatzaietako txakurra Intzalde deritzon baserrira joan zala lehenago bazkalduteko asmoz, baina joan zanerako bazkalduta aurkitu ebazala eta gero bere etxera bueltatu zanerako, etxekoak ere bazkalduta. Azkenean bazkaldu barik.

Beste bertsio bat

Berriemailea: Anton Mari Aldekoa Otalora

Barriemoile honen arabera, Gatzaietako txakurra Urkiolako San Antoniora joan zan. Erromeria eguna zan eta jende elia egoten danez

Pagomakurrerantzako bidean egon bear dau.

Beste bertsio bat

Amarenak entzun eta gero beste bertsio bat aipatu gura dot. Bertsio hau Jose Ramon Arbe Zeanurikoak kontatu eustan Gasteizen. Hitzaldi bat emoten nengoan eta Saldaingo txakurrarena kontatu nebanean hauxe esan eustan:

I, Manu, Ellakuriko txakurra Atxeko baserrira joan zoalazkoa jaukat entzunda, an Villaro ganetxuan)

Gatzaietako txakurra (Abadiño)

Berriemaileak: Ama: Anastasia Belar Uriarte (Abadiñoakoa) Semea: Bittor Agirre Belar (Abadiñoakoa)

Gatzaieta Urkiolako aldatzaren erdi inguruko baserri garrantzitsua da. Kalendario eta abarretako argazkietan sarri agertzen dana.

Kontua da ba ze, Gatzaietako txakurra Intzalde deritzon baserrira joan zala lehenago bazkalduteko asmoz, baina joan zanerako bazkalduta aurkitu ebazala eta gero bere etxera bueltatu zanerako, etxekoak ere bazkalduta. Azkenean bazkaldu barik.

Beste bertsio bat

Berriemailea: Anton Mari Aldekoa Otalora

Barriemoile honen arabera, Gatzaietako txakurra Urkiolako San Antoniora joan zan. Erromeria eguna zan eta jende elia egoten danez San Antonioetan, ba bazkal osteko hondakinekaz tripea betetako asmoz egin ei

San Antonioetan, ba bazkal osteko hondakinekaz tripea betetako asmoz egin ei eban gorantzakoa. Gora allegatu zaneko, koadrilla guztiak etozan beherantz berbalotsean euren maleta sikuetakoko hondakinok batuta.

Txakur horrek be buztana hankartean dala eaurt egin eta Gatzaietara itzuli behar izan eban eta bueltan etxean be ez eban aurkitu bazkari-jakirik.

(Oharra: azkenengo bertsio biak, etimologikoan bakarrik jaso dira.)

eban gorantzakoa. Gora allegatu zaneko, koadrilla guztiak etozan beherantz berbalotsean euren maleta sikuetakoko hondakinok batuta.

Txakur horrek be buztana hankartean dala eaurt egin eta Gatzaietara itzuli behar izan eban eta bueltan etxean be ez eban aurkitu bazkari-jakirik.

(Oharra: azkenengo bertsio biak, etimologikoan bakarrik jaso dira.)

2.22. Marianoren sinismena

“An, Uriondon, gure ausunean, bakisu, gure gaste denporan es egoan nora yoan andirik eta domeka arrastietan tertulia itzelak iten gaindusen. Modu gitxi gaunken baie umorea ona.

D’egun beten, Mariano sarra be etorri yakun tartera an etxean seinakio on barik kurtzulu sarra les arrasti gustien. Mariano gison lerdena san, pertxa onekoa d’elexastiku sintzoa. Ak e elexako aginduek e ondo betetausen d’olango kontuetan kopla edo broma gitxi beragas.

Da, ba, domeka arrasti orretan, gasteak a bakisu, seoseri ekin bear da aurretik arkal artute Marianori burlesar ekitea pentzandien da, Joan Txikerra, selebrea san ixin be, d’axe imini audien iterantzuna(k)p(b)otaten abureari da badiñotzo ba se:

– Mariano, beori beti dabil or elexako agindu gustie(k)p(b)etetan jaunekobean da ba esteretxo larregi beti olan ibilteari? Ixin beite apur

An, Uriondon, gure auzunean, badakizu, gure gazte denporan ez egoan nora joan andirik eta domeka arrastietan tertulia itzelak egiten genduzan. Modu gitxi geunkan baina umorea ona.

Eta egun baten, Mariano zaarra be etorri jakun tartera an etxean zeinakio egon barik kurtzulu (kurtzel(l)u zaarra lez arrasti guztian. Mariano gizon lerdena zan, pertxa onekoa eta eleizastiku zintzoa. Ak e eleizako aginduak e ondo betetan euazan eta olango kontuetan kopla edo broma gitxi beragas.

Eta, ba, domeka arrasti orretan, gazteak a badakizu, zeoseri ekin bear eta aurretik alkar artuta Marianori burlazar ekitea pentzatu eudien eta, Juan Txikerra, zelebrea zan izan be, eta axe imini eudien iterantzunak botaten agureari eta badiñotso ba ze:

– Mariano, berori beti dabil or eleizako agindu guztiak betetan jaunekobean eta ba ez deritzo larregi beti olan ibilteari? Izan beite apur bat e, zera, ez

- bet e, sera, espeite ixin ain estue pekatu mortal, benial d'olangoatan. Ganera, siur dao beori Jangoikori(k)t(d)aoen?
- Ara mutilek, -erantzun otzien Marianok-, surok o au t'ori ta bestea esangostesue baie kontus gero e, Jangoikorik i estaoelakoan bisi ta deskuidu santuen baten badao ser? Gero estau baligo, au in isin banau, a in espanau t'olangoak esatea, gero belu be igoal isingo da t'obeto artes ibili betiko damutu es iteko. Kontus gero e!
 - Tire, tire Mariano, espeie txarresean artu burlesar gabis de.
 - Olan badok obeto, se biotza(k)-p(b)e eraikadea in yostek in be berbok entzuckeran, errekoño, Jangoikoari beti isin yotzat errespetoa d'ortik etxatok kalterik, aitearen da semearen...

D'alan akabau sen Mariano ta gazte bromiston arteko trebitue d'arrasti ederra emon gaindun Larrea soñularien soñuotzagaz yantza gure dana inde”.

beite izan ain estua pekatu mortal, benial eta olangoetan. Gainera, ziur dago berori Jaungoikorik dagoan?

- Ara mutilak, -erantzun eutsoen Marianok-, zuok o au eta ori eta bestea esango deustazue baina kontuz gero e, Jaungoikorik i ez dagoelakoan bizi eta deskuidu santuren baten badao zer? Gero ez dau balio, au egin izan baneu, a egin ez baneu eta olangoak esatea, gero belu be igual izango da eta obeto artez ibili betiko damutu ez egiteko. Kontuz gero e!
- Tira, tira Mariano, ez bedi txarrezean artu burlazar gabiliz eta.
- Olan badok obeto, ze biotzak be eraikadea egin jaustak egin be berbok entzuckeran, errekoño, Jaungoikoari beti izan jautsat errespetoa eta ortik ez jatorik kalterik, aitearen eta semearen... Eta alan akabatu zan Mariano eta gazte bromiston arteko trebitua eta arrasti ederra emon gendun Larrea soinulariaren soinuotzagaz dantza gura dana egin da.

2.23. Perue eta Marie kizkaotsean

Perue ta Marien kontuek sabal ebisen gure ume denporan gaur u gixiagi entzuten dire baie. Perue ta Marie beti ibilten i sirean kiskan baie beti batera. Perue txikerra i sen, motxoa, musturreti sarri alla bako oke-rana dariola, kokoterrea, sera, kokotean urbedinkitontzi edo oskeagas da baragarri antza, drogosoa be bai, d'al isiten auenean txurrupline be gustetan i yakon. Berba biten esanda leloa ta burutxil antza, baie seta onekoa.

Perue ta Marien kontuak zabal ebilzan gure ume denporan gaur u gixiagi entzuten dira baina. Perue eta Marie beti ibilten ei zirean kizkan baina beti batera. Perue txikerra ei zan, motxoa, musturretik sarri aila bako okarana dariola, kokoterrea, zera, kokotean urbedinkatuontzi edo ozkeagaz eta baragarri antza, drogosoa be bai, eta aal izaten euanean txurruplina be gustetan ei jakon. Berba bitan esanda, leloa eta burutxil antza, baina seta onekoa. Marie

Marie oster, andra mardo, artzealango sabala d'aldikadaka umore txarrekoa, seta txarrekoa, aurretik ibilte i auen Perue. Onin kontuek e beti egosan etzeko bearrakas lotute, seinde, solobearretan, edo basokoatan edo etzebarrukoatan.

Oin kontaukotzutena udapartekoa da, bakisu, or tertzioan galondoak labrau bea dires, bedarrak siki-tu eta ganetikoak.

Ba, egun beten, seguru, Perue ta Marie galondan ebisen soloa gietan areagas. Perue atzetik eta Marie itaurren. Da ba Peruek e bateko arinago yoateko, besteko astiroago es otzen bakean be itxiten Marieri d'alangon baten badiñotzo:

– Ia ba Marie, gora inean bera ine ba
– Gora inean bera? Au etorri ai itaurrekoa iten da nauk ingo yoat atzekoa.

D'alantxe in i audien, d'orduen Mariek gana sartu ganadueri te erantau i auen Perue d'an erabili auen apatxotzean orpoetan ar barik sein busterriek edo adarran batek lepoan yo.

Galondoa areatu audienean, ganaduek soltau busturriti te barriro yoan sirean galondora saputzek, sastaparrak eta ganetiko sarraparrak a pillatu t'erretako. Erreakabau orduen, baskaiten yoan sirean. Gero bekaneko bat in d'arrastien, kanikulea yoan orduen bedarsikuten yoan sirean. Kargau burdie d'amarrau be in audien baie Peruek sokeari moropile txarto emon edo estakit ser, kus-tiñoa da ba se,ba, etzerantzean sokea erdi-soltau in yakiela da burdiko bedarsikue sati bet e bidean galdu.

Etzera allegakeran Mariek ikusten dau ori d'akulluagas yoten

oster, andra mardo, artzealango zabal-eta aldikadaka umore txarrekoa, seta txarrekoa, aurretik erabilten ei euan Perue. Onein kontuak e beti egozan etzeko bearrakaz lotute, zeinda, solobearretan, edo basokoetan edo etxebarrukoetan.

Orain kontauko deutsudana udapartekoa da, badakizu, or tertzioan galondoak labratu bear dira, bedarrak sikatu eta ganetikoak.

Ba, egun baten, seguru, Perue eta Marie galondan ebilzen soloa gietan areagaz. Perue atzetik eta Marie itaurren. Eta ba Peruek e bateko arinago joateko, besteko astiroago ez eutsan bakean be itxiten Marieri eta alangoren baten badiñotso:

– Ia ba Marie, gora einean beera egin ba
– Gora einean beera? Eu etorri adi itaurrekoa egiten eta neuk egingo joat atzekoa.

Eta alantxe egin ei eudien, eta orduan Mariek gana sartu ganadueri eta erantatu ei euan Perue eta an erabili euan apatxotzean orpoetan ar barik zein buztarriak edo adarren batek lepoan jo.

Galondoa areatu eudienean, ganaduek soltatu buztarritik eta barriro joan zirean galondora saputzak, sastaparrak eta ganetiko zarraparrak a pillatu eta erretako. Erre-akabatu orduan, bazkaiten joan zirean. Gero bekaneko bat egin eta arrastian, kanikulea joan orduan bedarsikutan joan zirean. Kargatu burdia eta amarratu be egin eudien baina Peruek sokeari moropila txarto emon edo ez dakit zer, kuestinoa da ba ze, ba, etzerantzean sokea erdi-soltatu egin jakiela

yoan san baie Peruek e ospa in i otzen, agile san isin be ta. Mariek e bakarrik deskargau auen burkada bedarra da sokea batu bearrean, etzondoko intxaurpean itxi auen. Andik i gerora, agartu sen Perue be ta an ebilen seguru intxaurpean intxaur galduen bat topetan. Atan daoela, urtetan dau Mariek e kortatik, artu intxaurpeko sokea da Perue es auen ba amarrau intxaurrean buelta ta buelta sokeak emon alean! Kiska bille ibili sen Perue baie oingoxean a etorri yakon pague. Mariek alango trajuran ikusi auenean badiñotzo burlesar gedarres:

- Ser dirudian baiño estok Perue fetura orretan?
- Gitarrea, Marie, ainbeste soka-bueltagas. Kendu istena soka au, se esango be ausokoak!
- Ausokoak? Ni nau nok o beinago da beti abil kiska gure, b'or daukok meresidukoa d'or on beakok sati beten, gautu arte gitxienez.

Da ba tire, gaubean soltau ingo auen se urrungo egunean es i egoan iñor intxaurreri lotute. Ain isin sirean kiskanteak iñon direanak itotzie-san arkaleri da kantea be aterotzien, aitisu, auxe:

*Perue ta Marie
asarratu dire
arkalenak dire ta
konponduko dire.*

eta burdiko bedarsikua zati bat e bidean galdu.

Etxera allegakeran Mariek ikusten dau ori eta akulluagaz joten joan zan baina Peruek e ospa egin ei eutsan, agila zan izan be eta. Mariek e bakarrik deskargatu euan burkada bedarra eta sokea batu bearrean, etxe ondoko intxaurpean itxi euan. Andik i gerora, agertu zan Perue be eta an ebilen seguru intxaurpean, garauteko edo intxaur galduren bat topetan. Atan dagoala, urtetan dau Mariek e kortatik, artu intxaurpeko sokea eta Perue ez euan ba amarratu intxaurrean buelta eta buelta sokeak emon aalean! Kizka billa ibili zan Perue baina oraingoxean a etorri jakon pagua. Mariek alango trajuran ikusi euanean badinotso burlazar gedarrez:

- Zer dirudi(k)an baino ez dok Perue fetura orretan?
- Gitarrea, Marie, ainbeste soka-bueltagaz. Kendu egistena soka au, zer esango be auzokoak!
- Auzokoak? Ni neu nok o beinago eta beti abil kizka gure, ba or daukak meresidukoa eta or egon bearko dok zati baten, gautu arte gitxienez.

Eta ba tira, gauean soltatu egingo euan ze urrungo egunean ez ei egoan inor intxaurreari lotuta. Ain izan zirean kizkan-teak, inon direanak egiten eutsiezan alkarri eta kantea be atera eutsien, aitu egizu, auxe:

*Perue ta Marie
asarratu dire
arkalenak dire ta
konponduko dire.*

2.24. Astoaren izenak

Astoak se isen daukien? Ba aikomensan ausonako asto batzun isenak:

jimenes, (jimenez) (astarra) (jitanuei erosia)

burro, (burro) (astarra)

burra, (burra) (emea)

txula, (chula) (emea)

titan, (titán) (astarra)

froilan, (froilán) (astarra)

silbestre, (silvestre)(astarra)

niña, (niña)(emea)

murtzia (murcia) (emea)

frailano, (frailano)(astarra)

klai, (clai)(astarra) (ostikaria zalako, boxealari ospetsuaren ikubilkazuen antzera)

perla, (perla) (emea)

romero, (romero) (astarra)

potxa, (pocha) (hiru etxetan) (emea)

periko, (perico) (hiru-lau etxetan) (astarra)

kariñosa, (cariñosa)(emea)

txarra (antz, oso txarra eta okerra zalako astoa)(astarra)

baltza (izan be oso baltza zalako) (astarra)

Ene. Sauk esan arte enas konturatu gaienak erderasko isena daukienik. Olangorik?

Astoak zer izen daukien? Ba aikomensan auzuneko asto batzueen izenak: jimenes, (jimenez) (astarra) (jitanuei erosia)

burro, (burro) (astarra)

burra, (burra) (emea)

txula, (chula) (emea)

titan, (titán) (starra)

froilan, (froilán) (astarra)

silbestre, (silvestre) (astarra)

niña, (niña) (emea)

murtzia (murcia) (emea)

frailano, (frailano)(astarra)

klai, (clai) (astarra) (ostikaria zalako, boxealari ospetsuaren ikubilkazuen antzera)

perla, (perla) (emea)

romero, (romero) (astarra)

potxa, (pocha) (hiru etxetan) (emea)

periko, (perico) (hiru-lau etxetan) (astarra)

kariñosa, (cariñosa) (emea)

txarra (antz, oso txarra eta okerra zalako astoa) (astarra)

baltza (izan be oso baltza zalako) (astarra)

Ene. Zauk esan arte ez naz konturatu geienak erderazko izena daukienik. Olangorik?

2.25. Ezkontza irabazi talo bategatik

Lenao be kontautzut e baie orrek taloan kontu orrek istorie dauko. Gaur Uriondon etzeak utzi(k)t(d)aos, domingeruen batzuk kendute, baie lenao enala bisi sen jentea ie etze gustietan. Gaienak errentoreak (g)intzesan da ba urtean baten errentea pagetako egune ote san d'etze

Leenago be kontatu deutsut e baina orrek taloaren kontu orrek istoria dauka. Gaur Uriondon etxeak utsik dagoz, domingeruren batzuk kenduta, baina leenago enala bizi zan jentea ia etxe guztietan. Geienak errentoreak gintzazan eta ba urtean baten errentea pagetako eguna egoten zan eta etxe

bakotxeko bat alkartu t'errentea pagetan yoaten sirean usaban etzera da gero kontuek arreglau orduen baskaldu usaban konture.

Errentea era askotara pageta san. Sati bet (d)iruten, beste sati bet e generotan, seinde, ollasko batzuk, indabea d'olangoak segun selango tratue eta ba beste erea yatzun u sera, ba, bear truke. Usabak a bere bearretarako eskatu itoskun eskubearra, seinde, garibearrak iteko, iketzegosteko edo beste edosetarako, da yoan in bear borondates kontra be norbere etzeko bearrak itxite usaba sein asarratu. Errentoreak orixe dauko, iñon aspian on bear, d'orregaiti esan be iten du au esakera au: "errentorea arri labanean bisi dala". D'au gisoneskoakas iten san, d'andraskoak etzeari autzin in bear da gisonak usabanean daosen bitartean gisonbearra(k)p(b)e in in bear d'etzekoak (g)anera, seinde, ba yanariiek, korta bearrak eta etzeko garbikusie, naikoa sereginik antza emoten danari, eske, etzea ta etzingurue tolostu esik (g)oseak eta ugerra(k)tx(y)an. A! d'umeak! neskato neskatorik krida, d'asko usaban etzeatara. Ni nauk asi naindun gure usaban seme gastea, nau baño piti be(t)k(g)asteagoa, ai amatxue! ni nau umea da sentzain amar urtegas usabanera mantenitalde. Olangoxea san ordukoa ta se ingotzesu ba konformau edo agoantau in bear.

D'egun beten, Uriondon, bueno, gu Beanun bisi gaintzesan baie orko Goinukoan artean aiten ordes semea yoan san errenta-paguek iten. Ganeko mutile, lerdena ta ganera aibela, begiargie. Da ba yoan sirean usaban etzera da ba usaborreri

bakotxeko bat alkartu eta errentea pagetan joaten zirean ugazabaren etxera eta gero kontuak arreglatu orduan bazkaldu ugazabaren kontura.

Errentea era askotara pagetan zan. Zati bat dirutan, beste zati bat e generotan, zeinda, ollasko batzuk, indabea eta olangoak segun zelango tratua eta ba beste erea jatzun u zera, ba, bear truke. Ugazabak a bere bearretarako eskatu egiten euskun eskubearra, zeinda, garibearrak egiteko, ikatzegosteko edo beste edozetarako, eta joan egin bear borondatez kontra be, norbere etzeko bearrak itxita ugazaba zein aserretu. Errentoreak orixe dauka, inoren azpian egon bear, eta orregaiti esan be egiten dogu au esakera au: "errentorea arri labanean bizi dala". Eta au gizonzezkoakaz egiten zan, eta andrazkoak etxeari eutsin egin bear eta gizonak ugazabarenean dagozan bitartean gizonbearrak be egin egin bear eta etxeakoak ganera, zeinda, ba janariak, korta bearrak eta etzeko garbikuzia, naikoa zereginik antza emoten danari, eske, etxea eta etxe ingurua tolestu ezik goseak eta ugerrak jan. A! eta umeak! neskato neskatorik krida, eta asko, ugazaben etxeetara. Nik neuk azi nendun gure ugazabaren seme gaztea, neu baino piti bat gazteagoa, ai amatxua! ni neu umea eta sentzain amar urtegaz ugazabarenera mantenitalde. Olangoxea zan ordukoa eta zer egingo deutzazu ba konformatu edo aguantatu egin bear.

Eta egun baten, Uriondon, bueno, gu Beanun bizi gintzazan baina orko Goinukoen artean aitaren ordeaz semea joan zan errenta-paguak egiten. Ganeko mutila, lerdena eta ganera aibela, begiargia. Eta ba joan zirean ugazabaren etxe-

etxoten daosela, kridea ebilen taloak erretako orea iten ogie faltauen be taloak erretako, bakisu, lenao yan bes asko t'entramea askarrie. D'olan daosela, ori Goinuko mutil lerden d'aibel ori aregas krideagas fijau sen, kridea bera be bai mutilegas, d'alangon baten lotzak aldea batera itxite non diñotzon mutil orrek:

– Nik i zuk erreko taloa(k)tx(y)ango naunkes ba, da gusture in be!

– Bai?- erantzun otzen erdi irribarreka neskatoak-, ba nik i erre be bai suri talaburriñan asal biko taloak!

D'aikoan amaika t'erdiak! nobio es sirean in ba? Da ba bebisen nobio. Andik i lasterrera, ausoko ume bat artudien besoatan, lenao usedioa egoan nobio-nobiek e ume bat besoatan artzeakoa, aitibitxi-amabitxi isiteko pontontziko bautisuen, d'orineskero erri gustie(k)tx(y)akitauen serio ta formal dabisela, eskontako planean.

Da gero andik i urte pare batera eskondu in sirean neskatoan etzera da bikuntzan bisi sirean modu apur bet in arteño.

Bikuntzan bisitea esta beti fasile isiten gero e! Ondo konpondu eskero don, baie txarresean estao bisiko danik. Egunean eguneango bisimoduen gorabera andiek oten dires d'agaitiño esaten du sarriten a esakerea: “laratzu baltzak esotuten dau persionea”. D'egie da isin be. Aiko, ni nau be, eskondu eskero, bikuntzan bisi isan nas sarrak usufrotoa aukielako da, bakit ori ser dan. Gure Uriondoko amak es ekien erdera asko baie beti esatoskun “kasao pide casa”. D'erresoia galanta. Bikuntzan asko iruntzi bea da bates be sarra(k)p(b)aragarri antza(k)p(b)adire.

ra eta ba ugazaba orreri etxodoten dagozala, kridea ebilen taloak erretako orea egiten ogia faltauen be taloak erretako, badakizu, leenago jan be ez asko eta entramea azkarria. Eta olan dagozala, ori Goinuko mutil lerden eta aibel ori aregaz krideagaz fijatu zan, kridea bera be bai mutilagaz, eta alangoren baten lotsak aldea batera itxita non dinotson mutil orrek:

– Nik i zuk erretako taloak jango neunkez ba, eta gustora egin be!

– Bai?- erantzun eutsan erdi irribarreka neskatoak-, ba nik i erre be bai zuri talaburrian azal biko taloak!

Eta aikoan amaika t'erdiak! nobio ez zirean egin ba? Eta ba baebilzan nobio. Andik i lasterrera, auzoko ume bat artu eudien besoetan, leenago usadioa egoan nobio-nobiak e ume bat besoetan artzeakoa, aitabitxi-amabitxi izateko pontontziko bautizuan, eta ori egin ezkerro erri guztiak jakiten euan serio eta formal dabilzala, ezkontako planean.

Eta gero andik i urte pare batera ezkondu egin zirean neskatoaren etxera eta bikuntzan bizi zirean modu apur bat egin arteraino.

Bikuntzan bizitea ez da beti fazila izaten gero e! Ondo konpondu ezkerro don, baina txarrezean ez dago biziko danik. Egunean eguneango bizimoduan gorabeera andiak egoten dira eta agaitiño esaten dogu sarritan a esakerea: “laratzu baltzak ezagututen dau pertsona”. Eta egia da izan be. Aiko, ni neu be, ezkondu ezkerro, bikuntzan bizi izan naz zaarrak usufrotoa eukielako eta badakit ori zer dan. Gure Uriondoko amak ez ekian erdera asko baina beti esaten euskun “casado pide casa”. Eta errazoia galanta. Bikuntzan asko iruntsi bear da

Da gero ba modu apur bet in audienean Kallera yoan sirean bisiten, auren pisure. Mutilek e fabrika sarrean itaueles bear ba aurrerantza etzerikara eragoion bearren, d'es lengo antzean or bidea(k)p(b)etean oñes egunean ordu bi arpelik emoten yoan-etorrietan, da uda partean tire, baye neguen? neguen atzena. Dandi(k)p(b)e diruen posean eragoion jenteak eta askotan propitarioa(k)p(b)año diru geao atetan audien fabrikati. "Fabrikati ilean txal bat etzera" esatauen emeko propitario andi betek. Egie san isin be, baserrien ilean txal bat aukiteko amabi bai bea dires, d'ori okerrik auki barik. B'olantxe, matrimonio gaste ori bestala bisi sen Kallen gisonak etzerik ara bear inde, errentore baño askos ogeto. Je-je-je, bitu talogintzeak se ekarri otzien. Pasau be iñon danik?

batez be zaarrak baragarri antzak badira. Eta gero ba modu apur bat egin eudienean Kallera (Ugaora, Miravalles-era) joan zirean biziten, euren pisura. Mutilak e fabrika zaarrean egiten euan lez bear ba aurrerantza etzerik ara eragoion bearren, eta ez leengo antzean or bideak betean oinez egunean ordu bi alperrik emoten joan-etorrietan, eta uda partean tira, baina neguan? neguan atzena. Dandik be diruen pozean eragoion jenteak eta askotan propietarioak baino diru geiago ateraten eudien fabrikatik. "Fabrikati ilean txaal bat etxera" esaten euan emengo propietario andi betek. Egia zan izan be, baserrian ilean txaal bat eukiteko amabi bei bear dira, eta ori okerrik euki barik. Ba olantxe, matrimonio gazte ori bestala bizi zan Kallen gizonak etzerik ara bear eginda, errentore baino askoz obeto. Je-je-je, begitu talogintzeak zer ekarri eutsien. Pasatu be inon danik?

2.26. Ezkontza galdu posporo bategaitik

Bueno ba, eskontza kontuekas asi gareanes, besterantza be pasau de iños, eskontzea galdu be bai, kasureko posporo bategaiti.

Non estai(t)p(b)ae, baten seguru, eskontako ditean i egosan neskato-mutil bi te ba eskon aurreko aronakoa be in i audien, etzalde bieta-koak arkaleri esaurea edo esaupidea emon d'etzeifinie, dotea t'olangoak tratetako.

Da ba mutile guraso ta gusti yoan i sen neskatoan etzera da ba kopauen bat ines beragoioen tratuok iten d'alangon baten mutilen aitexe-

Bueno ba, ezkontza kontuekaz asi gareanez, besterantza be pasatu da inoz, ezkontzea galdu be bai, kasureko posporo bategaitik.

Non ez dakit baina, baten seguru, ezkontako ditean ei egozan neskato-mutil bi eta ba ezkon aurreko aronakoa be egin ei eudien, etxalde bieta-koak alkarri ezaurea edo esaupidea emon eta etxeifinia, dotea eta olangoak tratetako.

Eta ba mutila guraso eta guzti joan ei zan neskatoaren etxera eta ba kopau-ren bat eginez baeragoioen tratuok egiten eta alangoren baten mutilaren aita-xegaiak zigarro bat egin ei euan. Orduan,

gaiek sigarro bat in i auen. Orduen, mutilek e atera boltzati posporoak eta sue emon i otzen sigarroa isituteko.

D'olan pasau sen arrastie da ba iluntzean mutilen familie yoan sanean neskatoan aitek esan i otzen alabe-ari:

- Alabatxue, estao eskontzarik
- Ser diñostesu aite oin tertzio onetan?
- Ba, es, se aiko, supastarra ondoan auki ilinti guredanagas da posporoa gastau dau nire sigarroa isituteko.
- Da ser dotzu suri orrek?
- Ser dosten? Esan be itea olangorik! Ser estau ingo orrek e bisimoduen posporo bat aurreratu leikeanean estau in de.

Da, esaten daurie es sireala eskondu. Bueno, isin be posporoana baño seoser geao isingo san baie kontau orixe iten da.

mutilak e atera boltsatik posporoak eta sua emon ei eutsan sigarroa isiotuteko.

Eta olan pasatu zan arrastia eta ba iluntzean mutilaren familia joan zanean neskatoaren aitek esan ei eutsan alabe-ari:

- Alabatxua, ez dago ezkontzarik
- Zer dinostazu aita orain tertzio onetan?
- Ba, ez, ze aiko, supastarra ondoan euki ilinti guradanagaz eta posporoa gastatu dau nire sigarroa isiotuteko.
- Eta ser deutzu zuri orrek?
- Zer deustan? Esan be egitea olangorik! Zer ez dau egingo orrek e bizimoduan posporo bat aurreratu leikeanean ez dau egin eta.

Eta, esaten daurie ez zireala ezkondu. Bueno, izan be posporoarena baino zeozer geiago izango zan baina kontatu orixe egiten da.

2.27. Dotebako ezkontza

Posporoana kontau orduen esan dotzut u seoser geao ongo sala apurtuteko ta ba seragas akordau nes, bueno, isena esangotzu(t)p(b)aie esaisu imini papelean gero, se lloba(k)p(b)isi dire te gustau be e(s)tx(y)akie ingo ori aidatutea.

Da b'orreri andra alarguneri alabea eskontako ditean plantau yakon da ba dotea eskatu otzen.

- Ama, eskontako adie dauket eta dotea gura naunke. Bai, eskontako adien gaos urlien semea ta biok eta etze-iminirako laguntzea gusture artuko naunke.

Posporoarena kontatu orduan esan deutzut u zeozer geiago egongo zala apurtuteko eta ba zeragaz akordatu naz, bueno, izena esango deutzut baina ez egizu imini papelean gero, ze ilobak bizi dira eta gustatu be ez jakie egingo ori aidatutea.

Eta ba orreri andra alargunari alabea ezkontako ditean plantatu jakon eta ba dotea eskatu eutsan.

- Ama, ezkontuteko adia daukat eta dotea gura neunke. Bai, ezkontuteko adian gagoz urliarene semea eta biok eta etxe-iminirako laguntzea gustora artuko neunke.

Baia ama esauki gorrien ebilen da mantentzeagaz naiko auken.

Baserriti(k)p(b)era(k)p(b)bakarrik (g)eneroa bai baie, dirue, se diru aterako auen ba, esebesa baño geao bai baie uskeri utze Da ba selan alan aurre in bear otzen asuntuari te ba, elexan eskontako yaiona(k)p(b)otaten asi sirean interan, alabeari matrakata ta gedar itzelak itotzesan ausoak entzuteko moduen.

Eskon besperan, bakisu ser akordau yakon? Ba, artu eskapolotan ganeko maletin sarra da bentanati bera bototzen seguru asarre gedarrak ines.

– Soas etzeti, estao doterik, aldekoa-kaz bakarrik yoan beakostesu!

Ausoak a kargu artute egosan da ba dana(k)p(b)arriketan dote barik itxi dauela asarrea dala t'estala.

D'eskondu sen, dote barik in be baia geroagokarreanean yakin sen danan egie. Arkal artute i egosan amalabok eta ba asarrea atxakie baño es i sen isin. Egie sain? Ba esauki gorrie d'esin emon eser dotean, baie barritzuen agorako baligo isin otzen se jenteak esaten i auen:

– Selan emongotzo dotea asarre dire ta, maletine bentanati yaurtiteraño!

Ixin be, lenao asko gurasok es auken modurik eta semalabak ixin artu erentzien kintxo andirik. Erentzie inportantea yatzun e, se aitu espabere a esakera sarra: “sasbako eraitzea ta diru bako eskontzea bardinek”.

Baina ama ezeuki gorrian ebilen eta mantentzeagaz naiko eukan.

Baserritik berak bakarrik generoa bai baina, dirua, ze diru aterako euan ba, ezebeza baino geiago bai baina uskeria utsa. Eta ba zelan alan aurre egin bear eutsan asuntuari eta ba, eleizan ezkontako jaionak botaten asi zirean interan, alabeari matrakata eta gedar itzelak egiten eutsazan auzoak entzuteko moduan.

Ezkon bezperan, badakizu zer akordatu jakon? Ba, artu eskapolotaren ganeko maletin zaarra eta bentanatik beera bota eutsan seguru asarre gedarrak eginez.

– Zoaz etxetik, ez dago doterik, aldekoa-kaz bakarrik joan bearko deustazu!

Auzoak a kargu artuta egozan eta ba danak barriketan dote barik itxi dauela asarrea dala eta ez dala.

Eta ezkondu zan, dote barik egin be baina geroagokarreanean yakin zan danaren egia. Alkar artuta ei egozan amalabok eta ba asarrea atxakia baino ez ei zan izan. Egia zein? Ba ezeuki gorria eta ezin emon ezer dotean, baina barritsuen aorako balio izan eutsan ze jenteak esaten ei euan:

– Zelan emongo deutso dotea asarre dira eta, maletina bentanatik jaurtiteraino!

Izan be, leenago asko gurasok ez eukan modurik eta seme-alabak ezin artu erentzian kintxo andirik. Erentzia inportantea jatzun e, ze aitu ezpabere a esakera zaarra: “sats bako eraitzea eta diru bako ezkontzea bardinak”.

2.28. Gaueko bégiran edurrak urtu

Uin kontaukotzut u beste gause baragarri bet. Au ser au Anekoko Marianonean pasau sen atxine.

Orain kontauko deutsut u beste gauza baragarri bat. Au zer au Anekoko Marianorenean pasatu zan antxina.

Aneko, serean dao, Uriondok iru parte daukos, Goinu, Beanu t'Aneko, d'an dao selaikadea d'antxe pasau i sen, nik estot esotu baie entzunde dauket. Asuntoa auxe da. Baten bat il in i sen an gaurko Marianon etzean da ba edurtzea i egoan galanta uindo negu aurretuxua isin arren. Da ba bégirea iten on sireanak ardures i egosan intierrue selan ingo et'audien, se klaro, Uriondotik i parrokiara tiradea dao, igoal sortzi kilometro da ganera bidearlo bat andabideti in beasan, emeti Uriondoti Ariltze ondoko Artzubire da gero kamiños beste lau kilometro. Orretarako andarie(k)p (b)e tanda ba(t)p(b)añño geao bea sirean. Da ba danak ardures edurtzeagaitiño.

Da bakisu, bégiran tandas-tandas errosarioa erresetan san da gero ba sutean atea itxi te tertulie. Iñon direan kontuek kontetan sirean gaube luseari autziteko. Da ba orretan daosela, gauberdien axeak urten i auen, axepelak eta, amigo de Dios, estau edur gaiena urtuten lurmenak agiririen diresela? Ene! Milagroa esaten i audien batzuk urrungo goxean. Seruen espadao ba ilen arimea? Bueno, asuntoa da ba se, urrungo egunean in audiela intierrue. Baie, Ailtzen, betiko andabideti Artzubire urten bearrean, egurresko subiti pasetea pentzaudien momentuko andariok estotzielakoan eser esango propitarioak seragaiti, denporaleagaiti. Baie, trebitue auki i audien, Ailtzeko a subie partikularra san da pasaute gero denunsie in i otzien. Klaro, olango andabideti kanpoko pasoak a galaso iten sirean se bein gorpue pasau eskero danak i aukien

Aneko, zerean dago, Uriondok iru parte daukaz, Goinu, Beanu eta Aneko, eta an dago zelaikadea eta antxe pasatu ei zan, nik ez dot ezagutu baina entzunda daukat. Asuntoa auxe da. Bateren bat il egin ei zan an gaurko Marianoren etxean eta ba edurtzea ei egoan galanta oraindo negu aurretuxua izan arren. Eta ba bégirea egiten egon zireanak arduraz ei egozan entierrua zelan egingo ete eudien, ze klaro, Uriondotik i parrokiara tiradea dago, igual zortzi kilometro eta ganera bidearlo bat andabidetik egin bear zan, emetik Uriondotik Ariltze ondoko Artzubira eta gero kaminoz beste lau kilometro. Orretarako andariak be tanda bat baino geiago bear zirean. Eta ba danak arduraz edurtzeagaitino.

Eta badakizu, bégiran tandaz-tandaz errosarioa errezetan zan eta gero ba sutean atea itxi eta tertulia. Inon direan kontuak kontetan zirean gau luzeari eutsiteko. Eta ba orretan dagozala, gauerdian aizeak urten ei euan, aizepelak eta, amigo de Dios, ez dau edur geiena urtuten lurmenak agiririan direzala? Ene! Milagroa esaten ei eudien batzuk urrungo goizean. Zeruan ez badago ba ilaren arimea? Bueno, asuntoa da ba ze, urrungo egunean egin eudiela entierrua. Baina, Ariltzen, betiko andabidetik Artzubira urten bearrean, egurrezko zubitik pasetea pentsatu eudien momentuko andariok, ez deutsoelakoan ezer esango propitarioak zeragaitik, denporaleagaitik. Baina, trebitua euki ei eudien, Areiltzeko a zubia partikularra zan eta pasauta gero denunzia egin ei eutsien. Klaro, olango andabidetik kanpoko pasoak a galazo egiten zirean ze bein gorpua pasatu ezkerro danak ei eukien pasetako dertxoa. Gaur u, ez jako egiten mirarik olan-

pasetako deretxoa. Gaur u, etxako iten mirarik olango kontueri baie lenao bai. Bitisu, osaba Martin Iruatxetakoa solorik solo eroan sainduen, su sau be andari yoan saintzen, d'esan eser pasau. Ba, Anekoko istorie milagroa isin sala kontetan isin de nire gogaldien.

go kontuei baina leenago bai. Begitu egizu, osaba Martin Iruatxetakoa solorik solo eroan zenduen, zu zeu be andari joan zintzan, eta ez zan ezer pasatu. Ba, Anekoko istoria milagroa izan zala kontetan izan da nire gogaldian.

2.29. Beste munduko argia Basatxikin

Au kontu au barreka akabau sen baie ser san yakin arte gorputzean pipiladureagas egon sirean onik i gure anajeok Kalleti etzerantza etosen baten. Kalleko fabrika sarrean itaudien bear da ba iluntzean etzerantza etosen. Neguen e egunek laburrek isiten dire ta ba egun beten, urten be berandutxugo urtaudien bearreti te ba betosen tipi tapa Elorbitatik (g)ora. Idergi betea egoan seguru te ba seoser ikustaudien. Basatxikiko selaire allegetan daosela, Basatxiki Uriondo baño lentxuago daoen selaikadea da, ta b'araxe allegetan daosela argie ikusi audien seguru, argi baragarrie da ganera mogidu iten i sen seruko gaugarra letxe. Ikeratu in sirean da buruko ullea(k)p(b)e artestu in i yakiesan da badiño gure anaje sarrenak:

– Ori argi ori estok o parte onekoa, ariman bat espado(k)p(b)a, erresau in beako yuk.

Da ba erresau be in i audien baie a argie an, batera bestera da ba etxotea pentzaudien argi orren atzeraurrea ikusi arte.

Alangon baten, desaparezidu yakien argi ori te ba allegau sirean Uriondora. Da ba an Anekoko labe ondoti pasau sireanean, non topetan

Au kontu au barreka akabatu zan baina zer zan jakin arte gorputzean pipiladureagaz egon zirean onik i gure anajeok Kalletik (Ugaotik, Miravalles-etik) etxerantza etozan baten. Kalleko fabrika zaarrean egiten eudien bear eta ba iluntzean etxerantza etozan. Neguan e egunak laburrak izaten dira eta ba egun baten, urten be berandutxuago urten eudien bearretik eta ba baetozan tipi tapa Elorribietatik gora. Idergi betea egoan seguru eta ba zeozer ikusten eudien. Basatxikiko zelaira allegetan dagozala, Basatxiki Uriondo baino leentxuago dagoan zelaikadea da, eta ba araxe allegetan dagozala argia ikusi eudien seguru, argi baragarria eta ganera mobidu egiten ei zan zeruko gaugarra letxe. Ikaratu egin zirean eta buruko uleak be arteztu egin ei jakiezan eta badino gure anaje zaarrenak:

– Ori argi ori ez dok o parte onekoa, arimaren bat ez badok ba, erreztatu egin bearko joaguk.

Eta ba erreztatu be egin ei eudien baina a argia an, batera bestera eta ba etxodotea pentsatu eudien argi orren atzeraurrea ikusi arte. Alangoren baten, desaparezidu jakien argi ori eta ba allegatu zirean Uriondora. Eta ba an

daurien Selas paragerue yarrite bere erreminta kajean ganean, d'argie ser? ba Selas parageruek e kajan kabidu es eta kanpoaldetik sinesko txapa bat e sin suriskea i auken lapikoari te erremindue(k)p(b)otateko d'axek iten i auen brillu itargiegas, d'axe isin i sen beste munduko a argi baragarrie. Gero trankilisau sirean baie estukurea langoa pasaudien seguru, d'askeanean dana i sen barrea da ba barrerik andienak Selase(k)p(b)erak, ser ori, istori ori kontau otzienean.

Selas nondik agartu sen? Ba estakit ondo baie or Ailtzeko Kaion laburrean iten auen lo enjeneral, d'egunes etzerik etze ibilte san katxarroak konpontan, sinesko adebasin edo partxeak imintotziesan metal gausako lapiko ta ganetikoari. Guardasola(k)p(b)e tolostan ausen da ba iños, eskekoan moduen, errekadu be itauen erdeldune isin arren. Isena be ortixik emon i otzien, beti ebilen “**se las** compro, **se las** vendo, **se las** arreglo...” d'askenean “**SELAS**” isenagas esotudu beti, **SELAS** paragerue. Gero sartzaroan, gausentandu sanean ainbatera erretiraudien da geao estu eser yakin.

Anekoko labe ondolik pasatu zireanean, non topetan daudien Selas paragerua jarrita bere erreminta kajearen ganean, eta argia zer? ba Selas parageruak e kajan kabidu ez eta kanpoaldetik zinezko txapa bat e, zin zurizkea ei eukan lapikoari eta erreminduek botateko eta arexek egiten ei euan brillu itargiagaz, eta axe izan ei zan beste munduko a argi baragarria. Gero trankilizatu zirean baina estukurea langoa pasatu eudien seguru, eta azkenean dana ei zan barrea eta ba barrerik andienak Selasek berak, zer ori, istoria ori kontatu eutsoenean.

Selas nondik agertu zan? Ba ez dakit ondo baina or Areiltzeko Kaioren labeurrean egiten euan lo engeneral, eta egunez etxerik etxe ibilten zan katxarroak konpontan, zinezko adabazin edo partxeak iminten eutsiezan metal gauzako lapiko eta ganetikoei. Guardasolak be tolestan euazan eta ba inoz, eskekoen moduan, errekadu be egiten euan erdalduna izan arren. Izena be ortixik emon ei eutsoen, beti ebilen “**se las** compro, **se las** vendo, **se las** arreglo...” eta azkenean “**SELAS**” izenagas ezagutu dogu beti, **SELAS** paragerua. Gero sartzaroan, gausentandu zanean ainbatera erretiratu eudien eta geiago ez dogu ezer jakin.

2.30. Pazkoazkoaz betetan herritik kanpora

Lenao, bakisu, urtean bein Paskoaskoas bete bear isiten san Elexa Ama Santean agindue betetako, da ba normalean erriko ejersisioatan itauen jenteak ori, konfesau te Paskoa egunean komuniñoa artu. Ejersisioatan misionerue etorten san ona errire d'a-

Leenago, badakizu, urtean bein Pazkoazkoaz bete bear izaten zan Eleiza Ama Santearen agindua betetako, eta ba normalean erriko ejerzioetan egiten euan jenteak ori, konfesatu eta Pazkoa egunean komunioa artu. Ejersizioetan misionerua etorten zan ona errira eta

regaz konfesetan san jente asko, ba sera, karga andie edo erriko abadea sein enterau ba kanpokoagas konfesau, bakisu, esesaunegas lotza gitxiago.

Da ba baten au Goinuko Juan sarra, Kallera yoan san Paskoaskoas kunplitako konfesetan da, elexea be ilune ta konfesonarioa ilunagoa, ba bere tokamenean arrimau sen Don Damianen konfesonariora da ba Kallen erdere geao sanes badiñotzo Don Damian orreri:

- Ave Maria purisima- Juan sarrak.
- Sin pecado consebida. -Don Damianek-, A ver, ¿cuantos pecados tiene usted?
- “Bai bañeunkesak olantxe kontaute banan banan botateko”, -Juan sarrak agobitartetik-.
- A! auskeldune sara?

Bueno d’orduen auskeras in i audien konfesiño ori te ba etorri sen Uriondora penitentzie beteta Gero ba fetxorie kontetan barre gure dana in gaindun beragas, baragarrie san isin be. D’orretara esan gauntzen ba Beanuko urlie Urkiolara yoan dala Paskoaskoas betetako konfesetan, da non diñoskun Juan sarrak:

- Ori? Orrek e onako baño karga geao auko yoan d’Urkiolara yoan dona d’alan e bide lusean penitentzie be erasago beteko yona, erro-sario ba(t)p(b)añe geao be igoyal erresau beako yosena, bakine, karga (a)ndiek e orixe yaukona.

aregaz konfesetan zan jente asko, ba zera, karga andia edo erriko abadea zein enteratu ba kanpokoagaz konfesatu, badakizu, ezezagunagaz lotsa gitxiago.

Eta ba baten au Goinuko Juan zaarra, Kallera joan zan Pazkoazkoaz kunplitako konfesetan eta, eleizea be iluna eta konfesonarioa ilunagoa, ba bere tokamenean arrimatu zan Don Damianen konfesonariora eta ba Kallen erdere geiago zanez badinotzo Don Damian orreri:

- Ave Maria purisima- Juan zaarrak.
- Sin pecado concebida. -Don Damianek-, A ver, ¿cuántos pecados tiene usted?
- “Bai bañeunkazak olantxe kontauta banan banan botateko”, - Juan zaarrak aobitartetik-.
- A! euskalduna zara?

Bueno eta orduan euskeraz egin ei eudien konfesino ori eta ba etorri zan Uriondora penitentzia beteta. Gero ba fetxoria kontetan barre gura dana egin gendun beragas, baragarria zan izan be. Eta orretara esan geuntsan ba Beanuko urlia Urkiolara joan dala Pazkoazkoaz betetako konfesetan, eta non dinoskun Juan zaarrak:

- Ori? Orrek e onako baino karga gei-ago eukiko joan eta Urkiolara joan dona eta alan e bide luzean penitentzia be erazago beteko jona, errosario bat baino geiago be igual errezatu bearko jozana, badakina, karga andiak e orixe jaukona.

2.31. Asto zuriari sententzia

Gure aiten anajea isin sen Agustin “Erri”, te ba umore onekoa san, beti egoan bertzo botaten. Da,

Gure aitaren anajea izan zan Agustin “Erri”, eta ba umore onekoa zan, beti egoan bertso botaten. Eta, ba, bear-

ba, berrerrako asto suri bet auken baie, beste askon moduen, bearrok in orduen astoa solte itxitauen da ba astoak a yakitaudien bedar gosoa non daoen da ba araxe “ Erri”-n astoa be. Gero gaubean etzera etorten yakon. Astoak orretan ona(k)t(d)ire, sera, etzera etorten.

Baie, baten seguru, faltea barruntauen da yaubatu in sen baie asto suri orren errasturi(k)p(b)es.

Urrungo goxean, baio(k)p(b)atu da kortako atepak sabaldu ausenean, non topetan dauen asto suri ori lepo gustie letras beterik. Artu auen asto ori d’eroan auen argiterago, se kortan es aukien argirik, etzean bes, Uriondon berandurarte on dire argi barik, karburoagas, da ba argitera eroan auenean asto ori, ausokoan batzu(k)p(b)e yaubatu sirean, da, danan arte laidu audesan letrok. Auxe imintauen seguru:

Solora noa
soloti nator
barriro banoa
bisirik enator.

Bertzolari antza san “ Erri” baie laster entendidu i auen asto surieri eskribiduko bertzoa d’aurrerantzean amarran aukiten i auen sein malograu baten batek a astoa, edo etzekalte in baten batek demandan bategas d’arruinatu.

2.32. Erlautza agirian

Olango kontu serok o gurosuse-la? Ba kontau in beakotzudes orduen, isilik aukiteko obea(k)t(d)ire baie.

rerako asto zuri bat eukan baina, beste askoren moduan, bearrok egin orduan astoa soltu itxiten euan eta ba astoak a jakiten eudien bedar gozoa non dagoan eta ba araxe “ Erri”-ren astoa be. Gero gauean etxera etorten jakon. Astoak orretan onak dira, zera, etxera etorten.

Baina, baten seguru, faltea barruntatu euan eta jaubetu egin zan baina asto zuri orren errasturik be ez.

Urrungo goizean, beiok batu eta kortako atepak zabaldu euazanean, non topetan dauan asto zuri ori lepo guztia letraz beterik. Artu euan asto ori eta eroan euan argitarago, ze kortan ez eukien argirik, etxean be ez, Uriondon berandurarte egon dira argi barik, karburoagas, eta ba argitara eroan euanean asto ori, auzokoren batzuk be jaubetu zirean eta danen arte leidu eudezan letrok. Auxe iminten euan seguru:

Solora noa
solotik nator
barriro banoa
bizirik ez nator.

Bertsolari antza zan “Erri” baina laster entendidu ei euan asto zuriari eskribidutako bertsoa eta aurrerantzean amarran eukiten ei euan zein malogratu baten batek a astoa, edo etzekalte egin baten batek demandaren bategaz eta arruinatu.

Olango kontu zerok o gura dozu-zala? Ba kontatu egin bearko deutsudaz orduan, isilik eukiteko obeak dira байна.

Ba, ori gure neba Jose beti isin de serioantza d'etxakosan gustetan olango berduleriek en partikular umeak eta onesketiño ondoan. Baten, Uriondon burue erdi galdute auken andra batek e es auken besterik i bere gonok altzau te beste kontuori tutue agirien imintea baño. Da ba guk u nausiok o bagenkien aren barri baie onik i ume ta gasteok aitu itotzieren ser ikusiko edo. Da ba olangon baten umeok o androrreri adi daosela badiñotzie serio-serio gure nebeak:

– Ia ba umeok, orren androrren “érlautzeri” adi on barik i estaukasue beste seregini, iturrikure ekarri edo?

A, érlautze? Bai, ori andran beste kontu orreri esatotzieren, tutueri, isites érlautze erleak abaiak iteko erabilten san gastaña arroak sirean, atzeko partea sarratu te aurretik erleak itaudien euren bearra, lenao es egoan gaurko moduko jaularik erleak aukiteko ta ba en jeneral gastaña aryoak erabilten sian, barruko ustela kendu t'axe. Gero erlaumea etorten sanean sur ibili bear isiten san sein eslekuen batera eskapau te beste baten sartzeako erlauma barrie. D'orretarako erlauma barriari arrana yoten yakon da fasilago kuxetan san da érlau(t)z barrien sartu, estie gause estimadue isiten san da.

Beste baten, au untzuago, gure nebea lloba nausitxuenakas yoan san konbidedu Egire Sandonietan. Da ba bidean Olatxutik doasela, an erreka bastarrean neska batzuk i egosan, sera, trajedebañoan iguskiek kiskeldu bearrean. Da klaro, lloba gasteok o begirik i kendu bes araxe begire d'orretara esan i otzieren gure nebeak, au

B'orixe dosu bogadea. Gaur u ure etzean, labadorea etzean, gaur labadoreak iten dau dana, auxe etorri de ta, se ingu ba?

Baie, atxine be, eskola bakoak isiteko naiko eskaindu iten ba? Ori surteko autzena misterioa da gero e? Gure gaste denporan, errautze ta iketz egostorduko iduri autze ta be ondo estimedu oten sirean garbikusietarako. Ara, mugarrien aspian be, tellea be bai, baie iketz egosie be iminte san.

A? Eta kafeari be bai. Autze es baie ilinti gorie sartzean jakon ur irikineri kafe ioa bota ta ganas asten sanean, da, nok esango lauke e? a ilintie sartuko kafea gosoagoa isiten san, seinde, olan e asukera errea balis letxe. Guk u besue gaunkenean sarri iten gairidun ori. Beste batzuk ilintie barik i burruntzi gorie be sartzean otzien d'ñon ikusite dauket txingerra(k)p(b)otaten be, da selango lurrune ta satea atetan dauen e?

erropea. Otsinean kontuz ibili bear izaten gendun zein barreneko lupetzagaz loitu, baina, labaderoa egin gendun, santo erremedio, zementozkoa zan eta an ez jakun loituten bat be, graziak! osterantzean ezpabere bibearra, batezbe neguan, klaro, ura otz eta atzamarrak kiputu egiten jakuzan, atzamar puntak ia sentitu be ez, arik eta konortera etorri arteraino.

Atzanean, etxera gobadotzara buruan dala eta pozik e garbizuziak egin da. Gero kakoan eskegi denpora ona izan ezker, eta, barriz e, denporeak txarrera egin ezker, ba kamaran edo kamarako balkoian, balaustradan barru aldean, zerean, etxean aurrealdeko egalpean, nordearen kontrakoan, eguzkibegien.

Ba orixe dozu bogadea. Gaur u ure etxean, labadorea etxean, gaur labadoreak egiten dau dana, auxe etorri da eta, zer egingo dogu ba?

Baina, antxina be, eskola bakoak izateko naiko ez gendun egiten ba? Ori surteko autsarena misterioa da gero e? Gure gazte denporan, errautsa eta ikatz egostorduko iduri autsa eta be ondo estimadu egoten zirean garbikusietarako. Ara, mugarrien azpian be, tellea be bai, baina ikatz egosia be iminten zan.

A? Eta kafeari be bai. Autsa ez, baina, ilinti gorie sartzean jakon ur irakinari kafe eoa bota eta ganez asten zanean, eta, nok esango leuke e? a ilintia sartutako kafea gozoagoa izaten zan, zeinda, olan e azukera errea balitz letxe. Guk u beesua geunkenean sarri egiten gendun ori. Beste batzuk ilintia barik i burduntzi gorie be sartzean eutsien eta inon ikusita daukat txingerrak botaten be, eta zelango lurruna eta zaratea ateraten dauan e?

Gero au beste kontu bet isingo yatzu baie, emen gurean, sure amama Paulak eta, ilinti gorie sartzean otzien aimarea(k)tx(y)o ta gero ekarriko iturrukureri sein kalte in ur orrek. Ausoko Simone(k)p(b)e esatauen da gau(k)p(b)e auki u usedio ori, seoser edan aurreti bedinkitu edo “Jesus” esatekoa. Gu(k)p(b)e ba se ikusi a ikisi iten gaindun de ba aurre-ra indu usedio orregas. Ni larogeta amakagarrenera noa t’ainbet ikustea tokau yat, lelengo an Uriondon, naure yayetetzean, d’eskonduskero emen Undurran, bikuntzako bisimoduen. Sure aiten propidadera eskondu naintzen baie bere gurasoen kargue artu gaindun bikuntzan bisi arren, sera, etzeko gastuek erdinaba isin arren. Da, ba, aurre-ra tiritu du. Atxinekoana esan beaku, sera, asko bisi danak asko ikusi, baie burue sano daukun artean, bisi in guru danok, al dala, gauretzean, bisie ba(t)p(b)año esta ta. Ni nauk sarri esan dot “bietati esite nauela”, bus-terrien, bateti sein besteti bear iteko esite daoen idi edo baien antzera. Bietati esie(k)p (b)eti baligo dau geao. Sure aite seosegaiti etorriko san Uriondoraño eskontzea eske, este-retxasu? Je-je-je!

Ai, etxoisu, nire burue! Aistu e(s)tx(y)at in ba lexie agartuten dan kantea! Josepantonina. Kantau ingotzut, sau(k)p(b)e yakingosu baie, etzean ainbe(t)p(b)ider gauri entzunde. Aikomen:

Josepantoni kolore gorri
kapitan baten alaba
ama(k)t(d)oterik emon es arren
ni(k) topauko dot senarra.
Astelenean eskondu eta
martisenean basora

Gero au beste kontu bat izango jatzu baina, emen gurean, zure amama Paulak eta, ilenti gorria sartzean eutsien abemariak jo eta gero ekarritako iturriko urari zein kalte egin ur orrek. Auzoko Simonek be esaten euan eta geuk be euki dogu usadio ori, zeozter edan aurretik bedeinkatu edo “Jesus” esatekoa. Guk be ba zer ikusi a ikasi egiten gendun eta ba aurre-ra egin dogu usadio orregaz. Ni laurogeita amakagarrenera noa eta ainbat ikustea tokatu jat, leenengo an Uriondon, neure jaiotetxean, eta ezkondu ezkeru emen Undurran, bikuntzako bizimoduan. Zure aitaren propidadera ezkondu nintzan baina bere gurasoen kargua artu gendun bikuntzan bizi arren, zera, etzeko gastuak erdinaba izan arren. Eta, ba, aurre-ra tiratu dogu. Antxina-koarena esan bearko dogu, zera, asko bizi danak asko ikusi, baina burua sano daukagun artean, bizi egin gura dogu danok, aal dala, geure etxean, bizia bat baino ez da eta. Nik neuk sarri esan dot “bietatik ezita nagoala”, buztarrian, bate-tik zein bestetik bear egiteko ezita dagoan idi edo beiaren antzera. Bietatik eziak beti balio dau geiago. Zure aita zeozter-gaitik etorriko zan Uriondoraino ezkon-tzea eske, ez deritzazu? Je-je-je!

Ai, etxodon (itxaron) egizu, nire burua! Aaztu ez jat egin ba lexia agertu-ten dan kantea! Josepa Antonirena. Kantatu egingo deusut, zeuk be jakingo dozu baina, etxean ainbat bider geuri entzunda. Aikomen:

Josepa Antoni kolore gorri
kapitan baten alaba
amak doterik emon ez arren
nik topauko dot senarra.
Asteleenean ezkondu eta

eguestenean orbela batu
 eguenean etzera
 bariku goxera **lexie** inde
 sapatu goxean plasara
 domeka goxean ondo apainduta
 amarretako mesara.

martizenean basora
 eguaztenean orbela batu
 eguenean etxera
 bariku goizean **lexia** eginda
 zapatu goizean plazara
 domeka goizean ondo apainduta
 amarretako mezara.

2.44. “Undurraga” armarri bila Chile-tik Zeberiora

Ene! Ori Gotzonen ardagoan etiketa ta kortxoan kontue kontaus-tesunean, sera, ako, a Chile-ko abadeana etorri ya(t)k(g)ogora. Isin be, kasualidadea gero e! Bitisu.

Egun beten, nagorriginen nenbilen da bide bates lelengo arbige-
 ra(k)p(b)atzean an Iturrialdeko soloan. D’andi Ugerteburuti bidaski be(t)p(b)arruntau nauen, baie geldigeldi egoan lusero, erretratuak atetan Undurrara adi. Urrintxu be begoan da bere yaskuna baltziskati enenkien, ala andragausea san ala gisongausea.

Etzera yoan naintzenean, ganaduek (g)obernau nitusen. Nagorrie askara bota nautzien da bedar siku apur bet aska ganeko sarara.

Urten nauen portalera ta, ba, a bidaskie Sabisarreti biera etorren da gixongausea sala konturatu naintzen, d’etxon in nauen portale inguruen nor dan beis(t)tx(y)akin arte, se, eretxi nautzen edosein bidaski etzala.

D’efetibamente. Undurrara allegaus naste berbas asi yatan, auskeras, es auken gure berbeikuna bardine baie, da badiñoste:

- Au Undurraga da esta?
- Bai, ser ba?
- Ba, Chile-tik nator Undurragatarrak agindute, euren armarri

Ene! Ori Gotzonen ardaoaren etiketa eta kortxoaren kontua kontatu deustazunean, zera, arako, a Chile-ko abadearena etorri jat gogora. Izan be, kasualidadea gero e! Begitu egizu.

Egun baten, nabo-orriginen nenbilen eta bide batez leenengo arbigarak batzean an Iturrialdeko soloan. Eta andik Ugarteburutik bidazki bat barruntatu neuan, baina geldigeldi egoan luzaro, erretratuak ateraten Undurrara adi. Urruntxu be baegoan eta bere jazkuna baltzizkatik ez nenkian, ala andra-gauzea zan ala gizon-gauzea.

Etxera joan nintzanean, ganaduak gobernatu nituzan. Nabo-orria askara bota neuntsien eta bedar siku apur bat aska ganeko sarara.

Urten neuan portalera eta, ba, a bidazkia Sabizarretik beera etorren eta gizon-gauzea zala konturatu nintzan, eta etxodon (itxaron) egin neuan portale inguruan nor dan beist jakin arte, ze, eritxi neuntsan edozein bidazki ez zala.

Eta efektibamente. Undurragara allegatuz naaste berbas asi jatan, euskeraz, ez eukan gure berbaikuna bardina baina, eta badinost:

- Au Undurraga da ezta?
- Bai, zer ba?
- Ba, Chile-tik nator Undurragatarrak

- bille, bai, euren eskudoa.
- Beori abadea esta isingo esta?
 - Selan dakisu ba?
 - Ba, itxurati, altzakuellosa eroan es arren; abade gauseari igirri iten yakie, se gau(k)p(b) etzean abadea dauku, gure gisonan anajea d'igirri iten yakie aurori karrerakoori, yaskunan be bai baie batesbe berbaikunan.
 - Ba, bai, abadea nas eta misiolari nago Chile-n d'an Undurraga apellidukoak daos masdui andiekas d'auren apelliduen armarrri bille dabis da orrexetan nator, ia dakisuen eskudodun arri orren barririk.
 - Jaune- esan nauntzen-, beorrek estau yakin be ingo baie, beste Undurra bat (d)ao Arratian, Seanuin.
 - Bai, badakit ori, baie agindu naudienak emengoxea dala esan dostie auren apellidue, Seberioiko Undurragakoa.
 - B'ara, ni emen Undurran eskonduskero bisi nes d'estot entzun iños eskudo konturik. Emen iru etze gaos eta onik (g)ureok o gerra ostekoa(k)t(d)ire, aurreko bisimodu biko etzea gerran apurtu sen eta. D'ori beko etze sar ori, atxine erre in sen da barrie inde on arren emeko sarrena da, orkoxea espada ba beorre(k)t(d)iñostan arri ori? Baie, non ongo dan baño esta! Dana dala, nire amaxea da betiko Undurrakoa t'ia seoser dakien.

Portalerik ara geitu nauntzen Paula, amaxeari d'entzegida plantau yakun balkoiko balaustran:

- Ser gurostesu ba?
- Onantxi t'onantxi dator au abade au, da, beorrek iños entzun dau emen Madalenen etze sarrean esku-

aginduta, euren armarrri bila, bai, euren ezkudoa.

- Berori abadea ez da izango ezta?
- Zelan dakizu ba?
- Ba, itxuratik, altzakuellosa eroan ez arren; abade-gauzeari igarri egiten jakie, ze geuk be etxean abadea daukagu, gure gizonaren anajea eta igarri egiten jakie eurori karrerakooi, jazkunan be bai baina batezbe berbaikunetan.
- Ba, bai, abadea naz eta misiolari nago Chile-n eta an Undurraga apellidukoak dagoz maasdui andiekaz eta euren apelliduaren armarrri bila dabilz eta orrexetan nator, ia dakizuen ezkudodun arri orren barririk.
- Jauna- esan neutsan-, beorrek ez dau yakin be egingo baina, beste Undurraga bat dago Arratian, Zeanurin.
- Bai, badakit ori, baina agindu naudienak emengoxea dala esan deustie euren apellidua, Zeberioiko Undurragakoa.
- Ba ara, ni emen Undurragan ezkondu ezker bizi naz eta ez dot entzun inoz ezkudo konturik. Emen iru etxe gagoz eta oneik gureok o gerra ostekoak dira, aurreko bizimodu biko etxea gerran apurtu zan eta. Eta ori beeko etxe zaar ori, antxina erre egin zan eta barria eginda egon arren emeko zaarrena da, orkoxea ez bada ba beorrek dinostan arri ori? Baina, non egongo dan baino ez da! Dana dala, nire amaxea da betiko Undurragakoa eta ia zezzer dakian.

Portalerik ara deitu neuntsan Paula, amaxeari eta entsegida plantatu jakun balkoiko balaustran:

- Zer gura deustazu ba?
- Onantxe eta onantxe dator au abade au, eta, beorrek inoz entzun dau

dodun arrien bat on sanik ataka ganean?

- Ara, kontu ori entzun bakoa be enas, baie, orko etze sarra erre in sen d'ungoa be edonoskoa da, ta ya sarkitute dao, kontuek atera?

D'or akabau sen komertasiñoa. Ak abadeak erretratuek aterotzesan Madalenen etzeari, batesbe aurrerik ara da psik agindu gaindun. Despedidakeran esaoskun:

- Bueno, nosonos armarri orren sus-terri(k) topetan bosue esangostesue urrungo baten, ni emeti geotan be etorriko nas da.

Arraskero, ibili be in gara arri orren barri topetan baie, esebes, non ongo dan baño esta? Gurosu te lurpean baietz egon? Arginen batek beste menesterren baterako erabilite be igoal etze barrie ikeran. Bate(k)p(b)aki!

emen Magdalenaren etxe zaarrea ezkudodun arriren bat egon zanik ataka ganean?

- Ara, kontu ori entzun bakoa be ez naz, baina, orko etxe zaarra erre egin zan eta oraingoa be edonozkoa da, eta ia zaarkituta dago, kontuak atera?

Eta or akabatu zan komertazinoa. Ak abadeak erretratuak atera eutsazan Magdalenaren etxeari, batezbe aurrerik ara eta pozik agindu gendun. Despedidakeran esan euskun:

- Bueno, nozoz armarri orren zuztarririk topetan badozue esango deustazue urrungo baten, ni emetik geigotan be etorriko naz eta.

Arrezkero, ibili be egin gara arri orren barri topetan baina, ezebez, non egongo dan baino ez da? Gura dozu eta lurpean baietz egon? Arginen batek beste menesterren baterako erabilite be igual etxe barria egikeran. Batek badaki!

2.45. Hitanoa abadeari Maiazpazkoetan

Maiespaskoa bespera baten, seguru, emen Arratiko abadean bat (d)oktrinea irikasten ebilen Lelengo Jaunartzea iteko egosan umeari. Aurretati bat, txarra es, baie, trasto antza san, eperdikerea, parauisinbakoa, galbarrokerra. Galbarrokerra serari esatotzien, buruko ullean galbar bidirukoari. Da, ba, gogaitute aukanes, badiñotzo abadeak:

- I, mutiko, orregaz feturorregas gero t' artaburuago isingo as eta sekula bes tok eser ganoraskorik ikisiko.
- Ik au(k)p(b)eses yakin sainbet agin daukosan ardiek?- esan i otzen

Maiazpazkoa bezpera baten, seguru, emen Arratiako abaderen bat doktrinea irakasten ebilen Leenengo Jaunartzea egiteko egozan umeei. Euretatik bat, txarra ez, baina, trasto antza zan, eperdikerea, paraeuzinbakoa, galbarrokerra. Galbarrokerra zerari esaten eutsien, buruko ulean galbar bi edo irukoari. Eta ba, gogaituta eukanez, badiñotso abadeak:

- I, mutiko, orregaz fetura orregaz gero eta artaburuago izango az eta sekula be ez dok ezer ganorazkorik ikasiko.
- Ik euk be ezetz jakin zeinbat agin daukazan ardiak?- esan ei eutsan mutikoak, buruko galbarrok igurtziz-.

mutikoak, buruko galbarrok igurdis-.

Oño! Abadea berba barik itxi auen eta itanoana alde batera itxite, ardien aginetan pentzetan eragoion. Da, kasualidades, elexako serorea ebilen elexako garbikusie iten Maiespaskoa besperea san da, eta ak abadea(k) preguntau in otzen ardi-aginon kontue eta seror(a)orrek argitu be in otzen aginon kontu ori a mutikoa konturatu barik se txarto b(e) es auen gure lotu mutikoan aurrean, bakisu, sein kreditue galdu.

Badoa barriro, seguru, aregana mutikoagana ta non diñotzon:

– Ser, ikisi ok dotrinea ala? Nik, pentzau te pentzau, bayakiat sainbet agin daukosan ardiek; onexenbeste.

– Bai egie dok, baie, sainbet (g)oienda sainbe(t)p(b)ean?- kontestau i otzon mutikoak-.

– I, errespeto geago abadeari e? Atomau be itea niri itano iten, gaur egurdartean ire gurasoakas berba ingo yoat eta ikusikok lotzabako orrek alangorrek!

Esan da in. Dotrina ordue akabaus batera, sotana-magalotzean yoan san abadea eta labesuginen aurkitu auen, seguru, mutikorren ama, da badiñotzo ba se:

– Andratxue, ire seme galbarroker orrek e(s)tx(y)aukona lotzarik, itano e(s)tx(y)ostena in ba dotrinan beste ume gustien aurrean, ia edukasiñoa sartzean dotzesuen etzean, olangorik? Ser ikusi biun baño es tona onango elementuekas?

– Ene, jaune, - kontestau i otzen lotsatute mutikoaren amak-, parkatu bei beorrek, ontxe isin neinke labe-

Oño! Abadea berba barik itxi euan eta itanorena alde batera itxita, ardiaren aginetan pentsetan eragoion. Eta, kasualitatez, eleizako serorea ebilen eleizako garbikuzia egiten Maiazpazkoa bezperea zan eta, eta ak abadeak preguntatu egin eutsan ardi-aginon kontua eta serora orrek argitu be egin eutsan aginon kontu ori a mutikoa konturatu barik ze txarto be ez euan gura lotu mutikoaren aurrean, badakizu, zein kreditua galdu.

Badoa barriro, seguru, aregana mutikoagana eta non dinotzon:

– Zer, ikasi dok doktrinea ala? Nik, pentsatu eta pentsatu, bajakiat zeinbat agin daukazan ardiak; onexenbeste.

– Bai egia dok, baina, zeinbat goian eta zeinbat beena?- kontestatu ei eutsan mutikoak-.

– I, errespeto geiago abadeari e? Atomatu be egitea niri itano egiten, gaur egurdartean ire gurasoakaz berba egingo joat eta ikusiko dok lotzabako orrek alango orrek!

Esan eta egin. Doktrina ordua akabatuz batera, sotana-magalotsean joan zan abadea eta labesuginen aurkitu euan, seguru, mutiko orren ama, eta badinotso ba ze:

– Andratxua, ire seme galbarroker orrek ez jaukana lotsarik, itano ez jaustana egin ba doktrinan beste ume guztien aurrean, ia edukazinoa sartzean deutzazuen etxean, olangorik? Zer ikusi bear dogun baino ez dona onango elementuekaz?

– Ene, jauna, - kontestatu ei eutsan lotsatuta mutikoaren amak-, parkatu bei berorrek, oraintxe ezin neinke labesue itxi, ze erraria puntu-puntu daukat, eta gaur ganera Maiazpazkoatoko

sue itxi, se errarie puntu-puntuen dauket, eta gaur ganera Maies-paskoatako mokotz edo morrokota(k)p (b)e laba barruen daukoda in-akabuen, baie, etzera noanean, gisonak eta biok emongotzu eskarmentue seme baragarri oneri.

Onek seme gogaitu onek ingo estauenik? Parkatu jaune, parkatu, beitzo laberik arako pamtixa pare bat eta es pei artu ain txartzat (g)ure mutiko trastoak inekoa beroreri. Ai ene, au lotzarie au gure etzerako t'andiagoa kanporako! Se (e)sango dauen baño es ta oin erriko jenteak?

Da gero ba, abade ori yoan san eta andra kuitida orrek labesua in akabaus batera mutikoari geitu otzen atoan etzera yoateko. Bein egurdiras kero, baskaitorduen, mutiko orreri, gedar esese, badanea bero-bero itetik asite, saputzeko on batzuk emon otzesan aitek eta galbarron ondoko baspiok erantau. Da gero badiñotze ukubile gora dauela:

- I, abadeari es totzek sekula santan itanorik ingo, entzun dostek? Es takik ori errespeto faltea dana? Es toskuk barriro olangorik ingo e? Biger, mes(a) aurretik, yoan ingo as abadeagana parkeske eskatan, d'aurrerantzean: "*bai jaune, es jaune ta berori*" ingo dotzek, entzun dostek? Alantxe in be in auen mutikoak. Yoan san abadeagana d'ikusiko eran non diñotzon: "*bai jaune, es jaune ta beori*".
- Oño!- abadeak siñistu isinik-, sano ondo, olantxe iten dok mutiko, olantxe, edukasiñoagas. Baie, nok esan doa ba abadeari olan berba iteko?
- Aitek esan yostek auri esateko!

mokots edo morrokotak be labe barruan daukadaz egin-akabuan, baina, etxera noanean, gizonak eta biok emongo deutsagu eskarmentua seme baragarri oni.

Onek seme gogaitu onek egingo ez dauanik? Parkatu jauna, parkatu, beitzo laberik arako pamtixa pare bat eta ez bei artu ain txartzat gure mutiko trastoak eginekoa beroreri. Ai ene, au lotsaria au gure etxerako eta andiagoa kanporako! Zer esango dauan baino ez da orain erriko jendeak?

Eta gero ba abade ori joan zan eta andra koitada orrek labesua egin akabatuz batera mutikoari deitu eutsan atoan etxera joateko. Bein eguerdiraz gero, bazkaitorduan, mutiko orri, gedar ezeze, badanea bero-bero egitetik asita, zaputzeko on batzuk emon eutsazan aitik eta galbarron ondoko bazpiok erantatu. Eta gero badinotso ukabila gora dauela:

- I, abadeari ez deusak sekula santan itanorik egingo, entzun deustak? Ez dakik ori errespeto faltea dana? Ez deuskuk barriro olangorik egingo e? Biar, meza aurretik, joan egingo az abadeagana parkeske eskatan, eta aurrerantzean: "*bai jauna, ez jauna eta berori*" egingo deusak, entzun deustak? Alantxe egin be egin euan mutikoak. Joan zan abadeagana eta ikusiko eran non dinotson: "*bai jauna, ez jauna eta berori*".
 - Oño!- abadeak sinistu ezinik-, sano ondo, olantxe egiten dok mutiko, olantxe, edukaziñoagas. Baina, nok esan deua ba abadeari olan berba egiteko?
 - Aitik esan jaustak euri esateko!
- Orixo egin ei eutsan, seguru, mutiko galbarroker orrek. Ak emon eutsazan

Orixe in i otzen, seguru, mutiko galbarroker orrek. Ak emon otzesan emoteko asak abadeari! A, su, ta Maiespaskoak aittu dusen eskero, bakisu, Dimen yai andiek ite(n) sirean lenao Maiespaskoatan, erromeri te gusti, d'egun orretako kantea be badakitzut. Aitu:

Dimen erromeria
Maiespaskoatan
ortxe datoz mutilok
neska(k) konbidetan.
Neska(k) konbidetako
Dimeko plasea
mutilok galdu daude
sedasko boltzea
amak emon botzien
etxean lotzea
es audien galduko
sedasko boltzea.

emoteko azak abadeari! A, zu, eta Maiazpazkoak aitatu doguzan ezker, badakizu, Diman jai andiak egiten ziran leenago Maiazpazkoatan, erromeria eta guzti, eta egun orretako kantea be badakitsut. Aitu:

Diman erromeria
Maiazpazkoetan
ortxe datoz mutilok
neskak konbidetan.
Neskak konbidetako
Dimako plazea
mutilok galdu daude
sedazko boltzea
amak emon botsien (baeutsoen)
etxean lotsea
ez eudien galduko
sedazko boltzea.

2.46. Uriola osteko errekarria

Uriolak? Kontus uriolakas gero e! Emen Ergoienen ur txikiko errekea dauku baie or Elbarreneko ur andiko errekan kaltealangoak iten dauries errekarri gustien, orrik akordatzako odai astrapalan ostaiko yausteok.

Gur(e) errekea Murgapean yayoten da, d'ur txikikoa da, Undurrako sein Etzebarriko errekatxuen antzekoa. Leku batzutan sakonetati dator, seinde Arkotxeti biera, baie besto batzutan agiriagoti dator. Errekarrie selaiagoa danean gasea esatotzu te sakon datorrenean garratza; eskillarari moduen. Eskillara(k)p(b)e gasak eta garratza(k)t(d)aos, seinde, gure tejamanako eskillarea garratza yatzu d'ostera portaleti orture baje-

Uriolak? Kontuz uriolakaz gero e! Emen Ergoienen ur txikiko errekea daukagu baina or Elbarreneko ur andiko errekan kaltealangoak egiten daudiez errekarri guztian, orreik akordatzako odei astrapalen osteko jausteok.

Gure errekea Murgapean jaioten da, eta ur txikikoa da, Undurragako zein Etzebarriko errekatxuaren antzekoa. Leku batzuetan sakonetatik dator; zeinda Arkotxetik beera, baina beste batzuetan agiriagotik dator. Errekarria zelaiagoa danean gazea esaten deusagu eta sakon datorrenean garratza; eskillarari moduan. Eskilarak be gazak eta garratzak dagoz, zeinda, gure tejabanako eskilarea garratza jatzu eta osteria portaletik ortura

takoa gasa gasea, malla asko baie sakonari gitxikoak.

Da, ba, kalteak a, geao edo gi-xiago, danean. Ikustea isiten da errekarie uriola ostaien. Emen Ergoien partean iñon direanak itxiten daus urioleak.

Istuki lekuetan ure esta ain arin yoaten, da yoanda be, istukieri asko kostetan yako sikituten, lupetz(a) andie oten da ta.

Bein ur yausteon afruntue yoaten danean yoan iten gara errekarie ikusten, batesbe umeak, seoser tope-tako intziguegas, esgausan bat edo.

Normalean, emen Ergoieneko errekarrien, ba, s(e) esangotzu(t)p(b)a, ainbe(t)k(g)ausa agartuten san agirien, seinde, lur birrine, orbelak, sasiak, saputzek, abarrak, sastaparrak, arbolan ba(t)p(b)e igoyal trabesetara, inguruko bedarra be sapsal-sapal inde, arritxirrie be bai, arritxokorrak, errekarriek, trongoak, mokorrak d'olango gausasko. Baie mirarik andiena garautekoari iten gauntzen, garautekoak a seinde, gastaña garauek, edo urritxak, intxaurrek edo sagar garauek topetan ibiltzen gaintzesan, orduen eskaunken da gaurko goso gausari(k)tx(y)ateko. Garautekoa ser yatzun? Ba, bai gisona, orrik i garaue eldu te beres yausten direnenak sorure, gaienetan putxa-putxa inde, bigun-bigun edo eldu-eldu inde, seinde, gastaña, urritxea, mesmerue, sagarra, madarie t'orrik. On be, errekarrietan da, ainbet frutal bereserne edo edadega ote san on be, ta, ba ortik i garauteko ugeri, makatzak eta orrik. A! estotzut esan, baie ori errekariko lur birrine, ortureko eroaten gaindun eta arritxirrie, arritxokorrak eta arriek,

bajetakoa gaza gazea, malla asko baina sakonari gitxikoak.

Eta, ba, kalteak a, geiago edo gitxia-go, danean. Ikustea izaten da errekaria uriola ostean. Emen Ergoien partean inon diranak itxiten dauz urioleak.

Iztuki lekuetan ure ez da ain arin joaten, eta joanda be, iztukiari asko kostetan jako sikituten, lupetza andia egoten da eta.

Bein ur jausteon afruntua joaten danean joan egiten gara errekaria ikusten, batezbe umeak, zeozer topetako intziguegaz, ezgauzaren bat edo.

Normalean, emen Ergoieneko errekarrian, ba, zer esango deusut ba, ainbat gauza agertuten zan agirian, zeinda, lur birrina, orbelak, sasiak, zaputzak, abarrak, sastaparrak, arbolaren bat be igoyal trabesetara, inguruko bedarra be zapal-zapal eginda, arritxirria be bai, arritxokorrak, errekarriak, trongoak, mokorrak eta olango gauza asko. Baina mirarik andiena garautekoari egiten geuntsan, garautekoak a, zeinda, gastaña garauak, edo urretxak, intxaurrak edo sagar garauak topetan ibiltzen gintzazan, orduan ez geunkan-eta gaurko gozo gauzarik jateko. Garautekoa zer jatzun? Ba, bai gizona, orreik i garaua eldu eta berez jausten diranak zorura, geienetan putxa-putxa eginda, bigun-bigun edo eldu-eldu eginda, zeinda, gatzainea, urretxea, mesmerua, sagarra, madaria eta orreik. Egon be, errekarrietan-eta, ainbat frutal beres-erne edo edadega egoten zan egon be, eta, ba ortik i garauteko ugari, makatzak eta orreik A! ez deusut esan, baina ori errekariko lur birrina, orturako eroaten gendun eta arritxirria, arritxokorrak eta arriak, ba, ormak egiteko edo etxeko arregluetarako.

ba, ormak iteko edo etzeko arreglutarako.

D'esan dotzuden moduen, or beatako errekarien, kalte andiagoak itausen urek. Eta esaun-esaun isite san orko beatakoa. Errekarie be diferentea da Elbarrendik Miraballesera edo Kallera bitartean, d'orti berago, akabue, dana loie, antoju utze. Orti, dana da erropa sarra, plastikue papela ta denodue errekarie gustien. Motz emoten dau begietara be, Ergoienekoa isin es iteko! Emen dandi be, dana da naturalagoa. Oin, ños indoskus aberiek e! Emen Ugarten baten baño geotan eroan daus urek gobadea iteko arriek edo otxineko askak apurtu d'olangoak. Baten e iturriko suresko subie be eroskun urek eta gero sementoskoa in bear. Gero, soloatan be kalteak itoskusen, seinde, lurre eroan, da batzutan landara ta gusti. Baten baño geotan galdu be in du piper edo tomate arloa burpideti biera etorriko urek eroanda. Isin be, gure lurrek apur bet pendisean daos on be ta fasilago iten dau nar lur labrauek, eta esan dotzuden moduen, piper-tomatean susterrak sakonak es isitera, ba, urioleak eroan iten daus lur de gusti. Se ingotzu ba? Labrantzeak orixe dauko, baie tire, urtean kabuen San Silbestre!

2.47. Erlea eta ardia azienda urria

Uriolak errekarian itxiten dauzen ser gustiek, seinde, garautekoak, edo arritxirrie, lur birrine t'orrik, lelengo yoan d'artzean dausenantz isiten dire, urek ekarrie(k)t(d)ireselako, es daukie ñongo yauberik.

Eta esan deutsudan moduan, or beetako errekarian, kalte andiagoak egiten euazan urak. Eta ezagun-ezagun izaten zan orko beetakoa. Errekarie be diferentea da Elbarrenetik Miraballesera edo Kallera bitartean, eta ortik beerago, akabua, dana loia, antoju utsa. Ortik, dana da erropa zaarra, plastikua, papela eta denodua errekarie guztian. Motz emoten dau begietara be, Ergoienekoa izan ez egiteko! Emen dandik be, dana da naturalagoa. Orain, inoz egin deuskuz aberiak e! Emen Ugarten baten baino geiagotan eroan dauz urak gobadea egiteko arriak edo otsineko askak apurtu eta olangoak. Baten e iturriko zurezko zubia be eroan euskun urak eta gero zementozkoa egin bear. Gero, soloetan be kalteak egiten euskuzan, zeinda, lurra eroan, eta batzuetan landara eta guzti. Baten baino geiagotan galdu be egin dogu piper edo tomate arloa burpidetik beera etorriko urak eroanda. Izan be, gure lurak apur bat pendizean dagoz egon be eta fazilago egiten dau nar lur labratuak, eta esan deutsudan moduan, piper-tomateen zuztarrak sakonak ez izatera, ba, urioleak eroan egiten dauz lur eta guzti. Zer egingo deusagu ba? Labrantzeak orixe dauka, baina tira, urtearen kabuan San Silbestre!

Uriolak errekarian itxiten dauzan zer guztiak, zeinda, garautekoak, edo arritxirria, lur birrina eta orreik, leenengo joan eta artzean dauzanarentzat izaten dira, urak ekarriak diralako, ez daukie inongo jaberik.

Antzera iten da erleakas be, bueno, erlaumeagas, ogeto esanda. Erlaumea, serean, erlautzean, erregina barrie fundetan danean, erdi tertzioa yoan iten da kanpora eta or ibilten da egas ainbaten pillatu arte, seinde, arbola baten edo etzean erresuman edo beste nainon.

Baie, guk iños erabili u erlaumea pillatuteko sera, au sistemeau, lur birrine bota gora goraka edo arrana(k)tx(y)o, arranotza atera pillatu arte.

Aitu, baten e, beresialdeko soloan gengosan andrak frantzes eta sekulebedar asie batzean da gixonak lur labrauen mokilausten, d'erlaumea barruntau gaindun gure ganetik eta ene! esan gauntzen gixonori:

– E, mutilek, ontxe arranik estauku baie bota iosue lur birrine erlaumeari ia pillatuten dun muna bastarreko arbolan baten.

D'alantxik in gaindun, da lograu be bai pillatutea a erlaumea. Beresialdeko soloti ur-ur, Latazarreko sagarondo baten pillatu sen a erlaumea.

Gero ba, bein araskero, artu erlaumori te gastañarrosko erlautz utzera eroan aurien gixonok d'an gorde gaindun, da erresultau ona emoskun. Estakigune da nondik etorri sen erlaumea, yaubea aukiko auen baie olan isineskero lelengo artzean dauanana da.

Eta, akordatzakoan topau eskerro erlaumea arbola edo beste lekuen baten, kurtze bat iten yakon d'urrungo doana(k)p(b)adaki ak erlaumea(k)tx(y)aubea daukona, d'ori errespetau ite san, orixe san usedioa d'olantxik iten gaindun.

Baie, dana dala, erlea sano delikadue da, ardie langoxea. Orregaiti

Antzera egiten da erleakaz be, bueno, erlaumeagaz, obeto esanda. Erlaumea, zerean, erlautzean, erregina barria fundetan danean, erdi tertzioa joan egiten da kanpora eta or ibilten da egaz ainbaten pilatu arte, zeinda, arbola baten edo etxearen erresuman edo beste nainon.

Baina, guk inoz erabili dogu erlaumea pillatuteko zera, au sistema au, lur birrina bota gora goraka edo arranak jo, arranotsa atera pilatu arte.

Aitu, baten e, Beresialdeko soloan gengozan andrak frantzes eta sekulabedar azia batzean eta gizonak lur labratuan mokilausten, eta erlaumea barruntatu gendun gure ganetik eta ene! esan geuntsan gizonoi:

– E, mutilak, oraintxe arranik ez daukagu baina bota egiozue lur birrina erlaumeari ia pilatuten dogun muna bazterreko arbolaren baten.

Eta alantxik egin gendun, eta logratu be bai pilatutea a erlaumea. Beresialdeko solotik ur-ur, Latazarreko sagarondo baten pilatu zan a erlaumea.

Gero ba, bein arazkero, artu erlauma ori eta gaztañarrozko erlautz utsera eroan eudien gizonok eta an gorde gendun, eta erresultadu ona emon euskun. Ez dakiguna da nondik etorri zan erlaumea, jaubea eukiko euan baina olan izan ezkerro leenengo artzean dauanarena da.

Eta, akordatzakoan topatu ezkerro erlaumea arbola edo beste lekuren baten, kurtze bat egiten jakon eta urrongo doanak badaki ak erlaumeak jabea daukana, eta ori errespetau egiten zan, orixe zan usadioa eta olantxik egiten gendun.

Baina, dana dala, erlea sano delikadua da, ardia langoxea. Orregaitik dauka-

dauku esakera au: “*erleagas et’ardiegas es gastau asinda gustiak*”. Bai, emotuna(k)t(d)iresenean ondo, baie galtzean asten bayatzus, adios Madri! bai, badaukasulekoan on d’esaukie agartu goxeti gaubera. Orregaiti, gure etzaldeatan auki in dus erleak eta ardi betzuk e, baie betegarri les, labrantza ta ganaduegas naste, urtea lusea isiten da ta danak iten dau falta agoa(k)p(b)etetakoko. Esaukie da txarra! D’ori be esotuu, gerrostean batesbe.

gu esakera au: “*erleagaz eta ardiagaz ez gastatu azinda guztiak*”. Bai, emotunak diranean ondo, baina galtzean asten bajatzuz, adios Madri! bai, badaukazulakoan egon eta ezeukia agertu goizetik gauera. Orregaitik, gure etzaldeetan euki egin doguz erleak eta ardi batzuk e, baina betegarri lez, labrantza eta ganaduegas naaste, urtea luzea izaten da eta danak egiten dau falta aoak betetakoko. Ezeukia da txarra! Eta ori be ezagutu dogu, gerra-ostean batezbe.

2.48. Zerura errekadu baragarria

Au kontu au lenago be kontau isingotzu(t)p(b)ae, atzera be kontaukotzut u barre iteko baño espada be.

Ba baten seguru, lagun bi, te batari anajea il i yakon sorrak itxite, d’andi denporeakarranean auxe komertasiño au auki i audien batabesteagas:

- I, orrek (g)ure anaje orrek in yostanalangorik?
- Ser in doa ba?
- Se in? Ba, txal-sekor ederra ferire eroan, saldu te diruok (g)orde e(s)tx(y)austasan in ba! D’oin kaka errea! Oin i ilde yaok eta diruok non gorde dauseni(k)p(b)es! Obarie inontza(t)p(b)es.
- Errekistaik ondo etzea mutil, estarian gordeta ongosak, ormasuloan baten edo.
- Aiko, inon direanak in yoadas topetan d’arpelek. Bitistek, deskuidu santuen baten ni baño lenago ilten bas, es asena letxe ilgo, da serure baoa, es asena letxe yoango, d’an seruen gure anajea ikusten

Au kontu au leenago be kontatu izango deusut baina, atzera be kontatuko deusut u barre egiteko baino ez bada be.

Ba baten seguru, lagun bi, eta batari anajea il ei jakon zorrak itxita, eta andik denporeakarranean auxe komertazino au euki ei eudien batabesteagaz:

- I, orrek gure anaje orrek egin jaustanalangorik?
- Zer egin deua ba?
- Zer egin? Ba, txaal-zekor ederra ferira eroan, saldu eta diruok gorde ez jaustazan egin ba! Eta orain kaka errea! Orain i ilda jagok eta diruok non gorde dauazanik be ez! Obaria inorentzat be ez.
- Errekistatu eik ondo etxea mutil, estarian gordeta egongo dozak, ormazuloren baten edo.
- Aiko, inon diranak egin joadaz topetan eta alperrik. Begitu eistak, deskuidu santuren baten ni baino leenago ilten ba az, ez azana letxe ilgo, eta zerura baoa, ez azana letxe joango, eta an

bok, e(s)t(d)oana letxe ikusiko, ia txal diruok non godeta itxi yoasan preguntaiok!

- I, burlesar ibiliko as estok? Ori errekadu baragarri ori ingo yoanik e(s)tx(y)aok munduen iñor, d'es aik auki ernegu-sarturik, sosegau ai, odolak ur inik ao ta!
- Erresoa daukok e, baie, errekoño! orrek anaje orrek in yostanalangorik! Etxeko baten batek e yakin in beaiok dirue non gordeta daoan, se bere faltan iñontza(t)p(b)estosa-(k)t(d)iruok. Makine bat ikusteko yayo gosak e? Dios l'ampare!

zeruan gure anajea ikusten badok, ez doana letxe ikusiko, ia txaal diruok non godeta itxi joazan preguntatu egiok!

- I, burlazar ibiliko az ez dok? Ori errekadu baragarri ori egingo joanik ez jagok munduan inor, eta ez egik euki ernegu-sarturik, sosegatu adi, odolak ur eginik ago eta!
- Errezioa daukak e, baina, errekoño! orrek anaje orrek egin jaustanalangorik! Etxeko bateren batek e jakin egin bear jok dirua non gordeta dagoan, ze bere faltan inorentzat be ez dozak diruok. Makina bat ikusteko jaijo gozak e? Dios le ampare!

2.49. Zeberio herriko kaminera luzea

Seberioko kamiñerea? Lusetoa, amaka kilometrokoa, asi Kalleko subien da Sasola bitartean amaka kilometroko lusarie dauko gure erriek.

Da, ba, un don bisi gara, baie gure gaste denporan kamiño bakarra egoan. Ausune t'alboetzeatara burpideak, estarta edo bidesiorrak.

Gu emen Undurran, kamiñeran bisi gara, bueno Seberio gustien be, ergoienetik elbarrenera ainbetzu(k)p(b)isi dire kamiñeran baie asko t'asko kamiñeratik aparte, arik eta kamiñobideak in arte ausuna ta ganetiko etzeatara. Lekuten-lekuten, errekas bestalde on esketiño, kamiñosubie-(k)p(b)e in dires, d'onak e, balaustra ta gusti sein erre kara yausi. Oin deretxat e etze gustietara daoela inde kamiñobidea, oin kotxea(k)p(b)e etze gustietara doas, etze-etzeraño. Au bai adelantue!

Zeberioko kaminera? Luzettoa, amaika kilometrokoa, asi Kalleko (Miravalles) zubian eta Sarasola bitartean amaika kilometroko luzaria dauka gure erriak.

Eta, ba, orain don bizi gara, baina gure gazte denporan kamino bakarra egoan. Auzune eta albo-etxeetara burpideak, estarta edo bideziorrak.

Gu emen Undurran, kaminera bizi gara, bueno Zeberio guztian be, ergoienetik elbarrenera ainbatzuk bizi dira kaminera baina asko eta asko kamineratik aparte, arik eta kamino-bideak egin arte auzune eta gainetiko etxeetara. Lekutan-lekutan, erreka bestalde egon ezketino, kamino-zubiak be egin dira, eta onak e, balaustra eta guzti zein erre kara jausi. Orain deritzat e etxe guztietara dagoala eginda kamino-bidea, orain kotxeak be etxe guztietara doaz, etxe-etxeraino. Au bai adelantua!

Baie, kamiñobideak in arte, baragarri ibilten gaintzesan kamiñerati kanpokoak. Seinde, Uriondo, Iruatxeta, Etxaso, Gesale, Karea, bueno, berba baten esanda eskandalue.

Da, klaro, etzinguruen bearren ibilteko, tire, baie ainbatera ondo yantzite yoan bea sanean, batesbe negu partean, orduen komediek.

Ikustea isiten san Seberioko kamiñerea. Lekuten-lekuten txoki-noak inde ote sirean, arriekas edo olakas edo aratx arroan bat sugertau eskero ba, axe. D'an itxiten gaindusen etzerik arako oñetakoak eta eskuetan ekarten gaindusena(k)tx (y)antzi, mesa, erromeri edo beste menester batzuetarako.

Ostu diñostesu? Bueno, iños faltau yakusen baie, geienetan orrik oñetakook txantxilek isiten sirean, maraxak, etzetik kamiñorakoa iteko, seinde abarka marastuek et'olangoak.

Erropea barres e, aldean ekarten gaindun, gisoneskoak a frakabarrenak erremangaute, d'andrak bernutzik se orduen andraskoak esauen fraka-luseri(k)tx (y)asten. Se, bakisu, lenao esaukie egoan etze askotan da soñeko txantxilek ugeriakoak sirean, beste eser baño.

Gero etzerantzean, erantzi oñetako onak eta ostera be abarka-medi maraxok imini te etzera, da posik e besterik es egoan da. Baie gurean, bueno, sure aitenean, se ni ona eskondu naintzen, emen, kamiñeran bisi gaintzesenok don be don, oñetako kanbieta barik, eta ganera lupetzik be ez bidean, ez labankerarik eta ez ezer. Besteak ostera, etxetik kamiñora bitartean, seinbet talo ta plastada eperdien, labandute yausite

Baina, kamino-bideak egin arte, baragarri ibilten gintzazan kamineratik kanpokoak. Zeinda, Uriondo, Iruatxeta, Etxazo, Gezale, Karea, bueno, berba baten esanda, eskandalua.

Eta, klaro, etxe inguruan bearren ibilteko, tira, baina ainbatera ondo jantzita joan bear zanean, batezbe negu partean, orduan komediak.

Ikustea izaten zan Zeberioko kamiñerea. Lekutan-lekutan txokinoak eginda egoten zirean, arriekaz edo olakaz edo aretx arroren bat sugertatu ezkerro ba, axe. Eta an itxiten genduzan etxerik arako oinetakoak eta eskuetan ekarten genduzanak jantzi, meza, erromeria edo beste menester batzuetarako.

Ostu dinostazu? Bueno, inoz faltatu jakuzan baina, geienetan orreik oinetakook txantxilak izaten zirean, marazak, etxetik kaminorakoa egiteko, zeinda abarka maraztuak eta olangoak.

Erropea barrez e, aldean ekarten gendun, gizonetakoak a fraka-barrenak erremangatuta, eta andrak bernutsik ze orduan andrazkoak ez euan fraka-luzerik jasten. Ze, badakizu, leenago ezeukia egoan etxe askotan eta soineko txantxilak ugariakoak zirean, beste ezer baino.

Gero etxerantzean, erantzi oinetako onak eta ostera be abarka-medi marazok imini eta etxera, eta pozik e besterik ez egoan eta. Baina gurean, bueno, zure aitarenean, ze ni ona ezkondu nintzan, emen, kamineran bizi gintzazanok don be don, oinetako kanbieta barik, eta ganera lupetzik be ez bidean, ez labankerarik eta ez ezer. Besteak ostera, etxetik kaminora bitartean, seinbat talo eta plastada eperdian, labanduta jausita zorura, eta atzera etxera joan bear mudetan. Batzuk u, olan persona

sorure, d'atzero etzero yoa bear mudetan. Batzuk u, oia persona txantxil antzak e, asko ardure bes da ba, eperdien taloa goiti beiti aurrera itaudien, segun nora, se batzuk u urrineti etorte sirean da barriro etzero yoaten be?

Barre iten dosu? Suok aseguru onean yayoak sarie, baie beste batzuk txantxil yaya(k)t(d)ire da selan alan burutu bear erropa ta ganetiko maraxagoakas. Oin, besto batzuk u txantxil yantzite yoaten sirean aurek (g)ureta e, enberasu itotzien antza erropa andiek edo estai(t)p(b)a. Da gero dana sirean angina, samasarratu, txakurrestul, mokodario, sera, kalamidate utze.

Kalefasiñoa? Ser dani(k)p(b)es. Sutondoko beroa bakarrik. Antxe berotu bear ospeles beteko atzamar punta kiputuak. D'oiria be, orrik (g)omasko serok etorri arte, botillur beroa barruan untzea sartute sein errementau, d'axe oira anka(k)p(b)-erotako.

Gaur, dana kanbiau de, gaurko komerentzie auki isan bagendu kexea ser dan be eskendun yakingo. Oin ser gure t'axe dauku. Da batzuk u untxe be kexas.Larra be txarra da gero e!

Kamiñerako isenak? Nik oñeta-koan yantzi-erantzia iteko lekuek aitu otzudes baie Seberioko kamiñerea isenes beteri(k)t (d)ao. Beitisu, asi gaitesen Artea parteko Sasolatik Seberiorantza lelengo kilometroan sainbet isen daukuzen eta segaitik.

"Arrisurieta" arri surie atetan eudien mina bat egoalako Etzebarrira bidean. Gaur es tao eser eta gasteak estakie segaiti(k)t (d)aukan "Arrisurieta" isena kurba orrek.

txantxil antzak e, asko ardura be ez eta ba, eperdien taloa goiti beiti aurrera egiten eudien, segun nora, ze batzuk u urrinetik etorten zirean eta barriro etzero joaten be?

Barre egiten dozu? Zuok aseguru onean jaiok zarie, baina beste batzuk txantxil jaiok dira eta zelan alan burutu bear erropa eta ganetiko maraxagoakaz. Orain, beste batzuk u txantxil jantzita joaten zirean eurak gureta e, enbarazu egiten eutsien antza erropa andiak edo ez dakit ba. Eta gero dana zirean angina, samasarratu, txakurrestul, mokodario, zera, kalamidate utsa.

Kalefaziñoa? Zer danik be ez. Sutondoko beroa bakarrik. Antxe berotu bear ospelez beteko atzamar punta kiputuak. Eta oera be, orreik gomazko zerok etorri arte, botilla-ur beroa barruan untzea sartuta zein errementatu, eta axe oera anak berotako.

Gaur, dana kanbiatu da, gaurko komerentzia euki izan bagendu kexea zer dan be ez gendun jakingo. Orain zer gura eta axe daukagu. Eta batzuk u oraintxe be kexaz. Larra be txarra da gero e!

Kaminerako izenak? Nik oinetako-en jantzi-erantzia egiteko lekuak aitatu deusudaz baina Zeberioko kaminerea izenez beterik dago. Begitu egizu, asi gaitazan Artea parteko Sarasolatik Seberiorantza leenengo kilometroan zeinbat izen daukaguzan eta zergaitik.

"Arrisurieta" arri zuria ateraten eudien mina bat egoalako Etzebarrira bidean. Gaur ez dago ezer eta gazteak ez dakie zergaitik daukan "Arrisurieta" izena kurba orrek. Beeragoan "Ugarteburu" daukagu, leenago Ugarte auzunekoak kaminora urtetako bidez-

Beragoan “*Ugerteburu*” dauku, lenao Ugerte ausunekoak kamiñora urtetako bidesiorra eta arratea aukielako, gaur es tao. Beragoan “*Iturriko-subie*”, kamiño-subi orren ondoan metal-urdun iturria daukuleko, gaur be martxan. Beratxuagoan, sera, “*Sabisarre*”, lenao sabie egoalako, ori nau(k)p(b)e es tot esotu, baie entzutea bai. Apurtxu be(t)p(b)erago “*Bolaleku sarra*”, onik Ugerteko Juan Josek-eta bolan olgetako, gaur es tao. Beragoan “*Undurrako kurbea, San Justo eta Pastor ermitea eta Undurra*” ausonea. Piti be(t)p(b)eratuago “*Kerixeta*”, ointzurarte kerixak egosalako, Josenak eta Simonenak. Metro batzu(k)p(b)erago “*Latasarre*”, lata sar bat egoalako, gaur esebes. Beratxoagoan, “*Latabarri*”, “*Latasarre*”-koa baño lata barriagoa egoalako, gaur estago latarik.

Ikustosu? Kilometro ba(t)p(b)-ño estoztut aititu te sainbat isen daukuzen. Gaurko gasteak estakituzue laureni(k)p(b)e, estaudies bisi be ineta lekuotako serok. Gure aldien danak auken ixena, kamiñera sein beste edosein lekutekoak.

2.50. Ilintia erremedio legez

Ilintie setako erabilte san? Ene mutilek, lenao gausaskotarako, sainde, gaubes ekarriko iturrikure berinkituteko, San Juanetako berinkasiñoatarako, kafe-lapikotxako ur irikineri kafe-autze botakeran sirigutzi betiteko, sigarroa sain pipea isitako, d'estu estuen, susi orde be bai gaubetan, galtzupullea(k)p(b)aña su ilagoa auki arren, geao aguantetan auelako.

dorra eta arratea eukielako, gaur ez dago. Beeragoan “*Iturriko-zubia*”, kamiño-zubi orren ondoan metal-urdun iturria daukagulako, gaur be martxan. Beeratxuagoan, zera, “*Sabizarre*”, leenago sabia egoalako, ori neuk be ez dot ezagutu, baina entzutea bai. Apurtxu bat beerago “*Bolaleku zaarra*”, oneik Ugarteko Juan Josek-eta bolan olgetako, gaur ez dago. Beeragoan “*Undurrako kurbea, San Justo eta Pastor ermitea eta Undurraga*” auzunea. Piti bat beeratxuago “*Kerixeta*”, oraintsurarte kereizak egozalako, Joserenak eta Simonenak. Metro batzuk beerago “*Latazarre*”, lata zaar bat egoalako, gaur ezer be ez. Beeratxoagoan, “*Latabarri*”, “*Latazarre*”-koa baino lata barriagoa egoalako, gaur ez dago latarik.

Ikusten dosu? Kilometro bat baino ez deusut aitatu eta zeinbat izen daukaguzan. Gaurko gazteak ez dakitsue laurenik be, ez daudiez bizi be egin-eta lekuotako zerok. Gure aldian danak eukan izena, kaminera zein beste edozein lekutakoak.

Ilintia zertarako erabilten zan? Ene mutilak, leenago gauza askotarako, zeinda, gaez ekarritako iturriko ura bedeinkatuteko, San Juanetako bedeinkazinoatarako, kafe-lapikotxako ur irikinari kafeautsa botakeran zirigutzi bat egiteko, zigarroa zein pipea isiotuteko, eta estuestuan, zuzi orde be bai gauetan, galtzupoileak baino su ilagoa euki arren, geiago

Oin, ori bai e, kontu andie auki bear isite san suegas, espabere, gogoratu sure amama Paulak sarri esatauen esakerea: “sue, ure ta edurre ona(k)p(b)ai, baie belaunpeti”.

Ilintien erremedioak banan-banan gurosusela? Tire ba, eragon in beakotzu orduen. Aitu, ori gaubeta-ko iturrukure berinkitutea, sure amama Paulak sarri kontausku, sera, bere txiki denporan aimarea(k)tx(y)o ta gero akarri eskero iturrukure, surteko ilinti bet artu te kurtze bat inasoten otziela yarroko ure edan baño len. Segaiti? Ba, antza, iturrie txorro-dune barik i otxindune danean, bein ilundu eskero, esta ikusten ure garbi ala loi daoen da, ganera, ganaduen batek apatxak-edo sartu eskero potxingoan kontaminau in lei ur ori d’edan eskero gero, ba kontuek atera. Orregaiti iten otzien kurtzea ilinti goriegas, berinkituteko. Egunes, ba, ure ikusi be ite san da ba loi egon eskero edan bes, bota nainora, olloan abora-edo. Bitu ausoko Simon defuntue(k)p(b)e se kontetan otzun, gaubean uredakeran ullean bat iruntzi eskero, gero urdaillan subea fundetan sala t’olangoak. A! ta pastoreak, sur ibilte sirean edateko uregas e, ganaduentzat potxingo bat itauden d’aurentzat beste bat goragoan, da tapaute sein ganaduek apatxak sartu t’apatxartekoa-edo pasau ureri t’edakeran kontaminau, gaxoa sartu noberari. Seose isingo yatzu se ilintiena egie da, nauk ikusie.

San Juanetakoa, esaunagoa da. Guk San Juan Bagilean kantaute solo gustiek errekorritan gendusen, sau(k)p(b)e bai, akordauko sara esta? Da, ba, guk enjeneral galtzupulleagas iten gaindun, baie orti beste

aguantetan eualako. Orain, ori bai e, kontu andia euki bear izaten zan suagaz, ezpabere, gogoratu zure amama Paulak sarri esaten euan esakerea: “sua, ura eta edurra onak bai, baina belaunpetik”.

Ilintiaren erremedioak banan-banan gura dozuzala? Tira ba, eragon egin bearko deutzagu orduan. Aitu, ori gauetako iturriko ura bedeinkatutea, zure amama Paulak sarri kontatu deusku, zera, bere txiki denporan abemariak jo eta gero akarri ezkeru iturriko ura, surteko ilinti bat artu eta kurtze bat egina-zoten eutsiela jarroko ura edan baino leen. Zegaitik? Ba, antza, iturria txorro-duna barik i otsinduna danean, bein ilundu ezkeru, ez da ikusten ura garbi ala loi dagoan eta, ganera, ganaduren batek apatxak-edo sartu ezkeru potxingoan kontaminatu egin lei ur ori eta edan ezkeru gero, ba kontuak atera. Orregaitik egiten eutsien kurtzea ilinti goriagaz, bedeinkatuteko. Egunez, ba, ura ikusi be egiten zan eta ba loi egon ezkeru edan be ez, bota nainora, olloan abora-edo. Begitu auzoko Simon difuntuak be zer kontetan eutsun, gauean ura edakeran uleren bat irentsi ezkeru, gero urdailan sugea fundetan zala eta olangoak. A! eta pastoreak, zuur ibiltan ziran edateko uregaz e, ganaduentzat potxingo bat egiten euden eta eurentzat beste bat goragoan, eta tapatuta zein ganaduak apatxak sartu eta apatxartekoa-edo pasatu urari eta edakeran kontaminatu, gaixoa sartu norberari. Zeozer izango jatzu ze ilintiarena egia da, neuk ikusia.

San Juanetakoa, ezagunagoa da. Guk San Juan Bagilean kantatuta solo guztiak errekorrietan genduzan, zeuok be bai, akordatuko zara ezta? Eta, ba, guk en general galtzupoileagaz egiten gen-

batzuk ilintiegas, San Juan sugarretako sutik artuko ilintiekas.

Kafeana barres, ori familia bitzuetan in du beti, Undurrakoan sain Uriondokoan. Lenao astegun bururien kafea artzea don isite san e, se, modurik es aukenak esin. Kafea erosi in beasan, baie, merketxuago urtetako, maltea be nastuten yakon d'atxikorie be bai, da, ba, andi orti emeti, erastxuago iten yakun d'artu iten gaidun. Da, ba, kafea iteko, kafe-lapikotxea iminte san surten, besuen. Lapikotxeak sumikea aukitauen barrualdeti, kafe-kolorea artute, d'antxe iminte san ure irikiten. Irikiten aste sanean, kafe, malte d'atxikori autze bota ta gorantza aste sanean, artu surteko ilinti bet eta sast! Sartu lapikotxeari, sirigutzi bet in de fraaaa! Ke moltzoak urtetauen da, ra! Erretirau ite san lapikoa. Gero irisi trapusko irestontzitik eta artu goso-goso, espanak txupeka. Ni ta nire aistak kafe saleak isin gara, batesbe tia Florentina. Sainbe(t)p(b)ider esatauen ak kafea in barriten: "onek kafe onek ile bistuko leuke". Da, bueno, susi orde ikusite badauke(t)p(b)aie guk u normalean galtzupullasko susie erabilten gaidun, Uriondon batesbe, se, Undurrara eskondu eskero eta kamiñeran bisi, ba, kamiñoan susi bari(k)p(b)e ikusi iten da, gau sarratu-sarratuen bat espada.

Gero ba, onik fumelariiek, posporoak (g)astau bearrean, ilintie erabiltaduen sigarro edo pipea isituteko. Bitu espabere, ako a eskontzea galdu auena posporo bategaiti. Ori kontaute daukotzut e. Akordau be ingo sara, sera, a etzeikusie iten yoan san mutile nobienera, eskon aurre-

dun, baina ortik beste batzuk ilintiagaz, San Juan sugarretako sutik artuko ilintiekaz.

Kafearena barriz, ori familia bitzuetan egin dogu beti, Undurragakoan zein Uriondokoan. Leenago astegun buruzurien kafea artzea don izaten zan e, ze, modurik ez eukanak ezin. Kafea erosi egin bear zan, baina, merketxuago urtetako, maltea be naastuten jakon eta atxikoria be bai, eta, ba, andik ortik emetik, erastxuago egiten jakun eta artu egiten gendun. Eta, ba, kafea egiteko, kafe-lapikotxea iminten zan surten, beesuan. Lapikotxeak sumikea eukiten euan barru-aldeetik, kafe-kolorea artuta, eta antxe iminten zan ura irakiten. Irakiten asten zanean, kafe, malta eta atxikori autsa bota eta gorantz asten zanean, artu surteko ilinti bat eta sast! Sartu lapikotxeari, zirigutzi bat egin eta fraaaa! Ke moltzoak urtetan euan eta, ra! Erretiratu egiten zan lapikoa. Gero irazi trapuzko iraztontzitik eta artu gozo-gozo, ezpanak txupeka. Ni eta nire aiztak kafe zaleak izan gara, batezbe tia Florentina. Zeinbat bider esaten euan ak kafea egin barritan: "onek kafe onek ila biztuko leuke". Eta, bueno, zuzi orde ikusita badaukat baina guk u normalean galtzupoilazko zuzia erabilten gendun, Uriondon batezbe, ze, Undurragara ezkondu ezkerro eta kamiñeran bizi, ba, kaminoan zuzi barik be ikusi egiten da, gau zarratu-zarraturen bat ez bada.

Gero ba, oneik fumalariak, posporoak gastatu bearrean, ilintia erabilten eudien sigarro edo pipea isiotuteko. Begitu ezpabere, arako a ezkontzea galdu euana posporo bategaitik. Ori kontatuta deukotsut e. Akordatu be egingo zara, zera, a etxe-ikusia egiten

txuen e, elexan yayona(k)p(b)otaten ebisela, da, nobianean, sutondoan daosela auren disponimientuek iten, nobio orrek e sigarroa isituteko surteti ilintie artu bearrean posporoa isitu auen, da gero aitek alabeari eskontzea galaso, nobioa fraduen ibili dala ta, arpeleko gastue iten. Es ke, dirueri begitu in bea yakon, ser ba? Gaurko fradue? Fradu larrean dabilenan inbidirik es auki, se gaur seoser dalakoan biger esebes igual. Kontus, apur bet begitue isin bea da s'espabere "Denporeak agertuko dau edurre mendien". Suok fin yokatisue bai, se axe aukikosue aldean. Arrankudiako Épaltza sarrak esan bistike: "de reales se asen millones", d'eresoia.

A! d'aistu baño len, ilintie, serean be erabiliu, seinde esakeretan-da. Aitu, batzuk ago-baltzak isiten dire, bai, maldasiñotzean da juramentu utzean ibilten dire bastarrak (g)ustiek kiskeldu bearrean, agotxarreko utze(k)tx(y)atzus, faltorrek, eta, ba, orriri b'esaten yakie au esakera moduko au: "urlieri surteko ilintigorie sartuko nauskio agoti".

2.51. Pastoreak Gorbeialdean: pastore- txabolak / txarrikortak / ganaduhesiak

Artzain berbea erabili un Gorbeialdean? Kia, inos bes. Gu(k)-p(b)eti, pastorea, ardi-pastoreari be bai, da beste berbea, sein esan dostesu, artalde? Esta, ori bes, guk u ardi-errebañue.

Segaiti pastorea diñostesu? Ara, au naure eretxie yatzu e, baie, Gorbeialdean ganadu klase asko egon da, oin be bai, gitxiago baia,

joan zan mutila nobiarenera, ezkon-aurretxuan e, eleizan deionak botaten ebilzala, eta, nobiarenean, sutondoan dagozala euren disponimientuak egiten, nobio orrek e zigarroa isiotuteko surtetik ilintia artu bearrean posporoa isiotu euan, eta gero aitak alabeari ezkontzea galarazo, nobioa fraduan ibili dala eta, alperreko gastua egiten. Es ke, diruari begitu egin bear jakon, zer ba? Gaurko fradua? Fradu larrean dabilenaren inbidiarik ez euki, ze gaur zeozer dalakoan biar ezebez igual. Kontuz, apur bat begitua izan bear da ze ezpabere "Denporeak agertuko dau edurra mendian". Zuok fin jokatu egizue bai, ze axe eukiko dozue aldean. Arrankudiagako Épaltza zaarrak esan beistike: "de reales se (h)acen millones", eta errazoia.

A! eta aaztu baino leen, ilintia, zerean be erabili dogu, zeinda esakeretan-eta. Aitu, batzuk ao-baltzak izaten dira, bai, maldiziotsean eta juramentu utsean ibilten dira bazterrek guztiak kiskeldu bearrean, ao-txarreko utsak jatzuz, faltorrek, eta, ba, orreiri be esaten jakie au esakera moduko au: "urliari surteko ilintigoria sartuko neuskio aotik".

Artzain berbea erabili dogun Gorbeialdean? Kia, inoiz be ez. Guk beti, pastorea, ardi-pastoreari be bai, eta beste berbea, zein esan deustazu, artalde? Ka, ezta, ori be ez, guk u ardi-errebaña.

Zegaiti pastorea dinostazu? Ara, au neure eritzia jatzu e, baina, Gorbeialdean ganadu klase asko egon da, orain be bai, gitxiago baina, zeinda,

seinde, erri-baiek edo basabaiek, bio-rak, saldiek, mandoak, ardiek, auntzek, astoak eta asto-mandoak, ori orriri asto andi t'indartzueri esaten yakie, eta aukites txarrie(k)p(b)e bai pastore askok auren txabola ondoko txarrikorta edo kortatxietan, gastaiaik iten daudiesanean gatzure sobretan yakie ta txarrieri emototzie d'alan aprobetxau esne gustie. Txarriek soltu be aukiten audiesan txabola ingurutatik eta seoser topetaudien lurre industute edo garauteko basomakatzak, txarri-okeranak, eskurrek, gastañak-eta yanda. Baie batesbe gatzure e.

Ganadue en jeneral urrusea isiten da, seinde erri-bai edo basabai eli urrusakas sekora batzuk naiko dire, bardin biorrakas be, saldi betzuk naiko dire, ardien da auntzen kasuen be beste ainbeste, akar d'arito batzukas naiko, isin be, eli edo errebañuetan emeak itxiten dire aurrerantzarako, urteroko umegintzarako, arrak okelarako isiten dire normalean edo sekorrari kasuen iditerako, akarreoatarako-ta.

Ikustosunes, Gorbaialdean ganadu klase asko dao ta igual e orrexegaitik esango pastorea berbea, animalia klase asko jagoten daudiesalako pastoreak. Onbre, emen Gorbaialdean mando-jagoleari, mandasaine, esatotzu, mandabiderik mandabide ibilte sirean, da, auntzen kasuen, an Igrinaon kabrerue esotu ot nik, auntz-errebañue auken -da, ba, kabrerue ta kabreruen txabolea an ongo da oin be, bere barririk estakit.

Sainbe(t) txabola ongo iren Gorbaialdean? Otekotan be asko, elie. Aitisu, d'ori suk sau(k)p(b)e yakingosu. Ona gurera, Gorbaian

erri-beiak edo basabeiak, beorak, zaldiaik, mandoak, ardiak, auntzak, astoak eta asto-mandoak, ori orreiri asto andi eta indartsuei esaten jakie, eta eukitez, txarriak be bai pastore askok euren txabola ondoko txarrikorta edo kortatxietan, gaztaiak egiten daudiesanean gatzura sobretan jakie eta txarriei emoten deutsie eta alan aprobetxatu esne guztia. Txarriak soltu be eukiten eudiesan txabola inguruetatik eta zeoser topetan eudien lurra industute edo garautako basomakatzak, txarri-okaranak, ezkurak, gaztañak-eta janda. Baina batez be gatzura e.

Ganadua en jeneral urruzea izaten da, zeinda erri-bei edo basabei eli urruzakaz zekor batzuk naiko dira, bardin beorakaz be, zaldi batzuk naiko dira, ardien eta auntzen kasuan be beste ainbeste, akar eta aarito batzukaz naiko, izan be, eli edo errebañuetan emeak itxiten dira aurrerantzarako, urteroko umegintzarako, arrak okelarako izaten dira normalean edo zekorrari kasuan iditarako, akarreoetarako-eta.

Ikusten dozunez, Gorbaialdean ganadu klase asko dago eta igual e orrexegaitik esango dogu pastorea berbea, animalia klase asko jagoten daudiesalako pastoreak. Onbre, emen Gorbaialdean mando-jagoleari, mandazaina, esaten deusagu, mandabiderik mandabide ibiltzen ziran, eta, auntzen kasuan, an Igrinaon kabrerua ezagutu dot nik, auntz-errebañua eukan-eta, ba, kabrerua eta kabreruaren txabolea an egongo da orain be, bere barririk ez dakit.

Zeinbat txabola egongo diran Gorbaialdean? Egotekotan be asko, elia. Aitu egizu, eta ori zuk zeuk be jakingo dozu. Ona gurera, Gorbaian begia atere-

begie aterea(k)p(b)e yoko leuke ta gurean lo iten be aukius Gorbaieko pastoreak ona Seberioke ergoienera barrutiek(k)tx(y)aten etorte sireanean, seinde, Oroskoko Gotitarrak, Felipe ta Bixinti edo Seaniko Pedro Íturtxa bere semeakas, da gero lo iten es baie, etzeko isin du Jose Canales Villarrokoa. Orrek e ardi-errebañue or Artea parteko Baltzolako etze sarrean aukitauen, or Sasola ganean. Makiña bat gastai yandu guk, eta denpora odaitsue sanean, pastoreak es audien gastairik iten, barrutik berdinek urtetotzen da galdu. Orduen esnea putxea iteko emotoskuen, legar da gusti, legar naturala. Ganeko betekadak.

Bueno ba, txabolatara yoanda, iños preguntau be iten gauntzen gurera etorte sirean pastorreari ia sainbet txabola inguru daoen Gorbaialdean. D'ori Felipe Goti, Oroskoko gison artesa yatzun da yakitune, da, baten, oker espanao, Gorbaialdea gustien aun de ogei txabolatik (g)ora egosala esaoskun, txabola sarrak eta barriek kontaute. D'egon ingo dire, ni(k)tx(y)akin es arrik. A! Etxoisu, Felipek esatoskun Gorbaialdeko txabola askon ondoan txarrikortak egosala, kortatxi asko, txarrientzako, irurogetakak (g)itxie-nes, txarrieri gatzure emoteko ta loditu, etzerako edo saltzeako. Gero, txabolondoatan, setako atako ganadue batzeako, esiek oten dire, pastoreak suresko taketakas inde. D'untxe etorri yat akordure gure aiten esakera bat esie dala-ta, edadea(k)tx(y)akiteko esakerea: "gisonak iru saldialdi, saldiek iru txakurraldi, txakurrak iru esialdi, esiek iru urte". Gure aite, bueno, sure aite bisi basan,

ak be joko leuke eta gurean lo egiten be euki doguz Gorbeiake pastoreak ona Zeberioke ergoienera barrutiak jaten etorten ziranean, zeinda, Orozkoko Gotitarrak, Felipe eta Bixinti edo Zeanuriko Pedro Íturtxa bere semeakaz, eta gero lo egiten ez baina, etzeko izan dogu Jose Canales Villarrokoa. Orrek e ardi-errebañua or Artea parteko Baltzolako etxe zaarrean eukiten euan, or Sarasola ganean. Makina bat gaztai jan dogu guk, eta denpora odeitsua zanean, pastoreak ez eudien gatzairik egiten, barrutik berdinak urtetan eutsan eta galdu. Orduan esnea putxea egiteko emoten euskuen, legar eta guzti, legar naturala. Ganeko betekadak.

Bueno ba, txabolatara joanda, inoz preguntatu be egiten geuntzen gurera etorten ziran pastorreari ia zeinbet txabola inguru dagoan Gorbeialdean. Eta ori Felipe Goti, Orozkoko gizon arteza jatzun eta jakituna, eta, baten, oker ez banago, Gorbeialdea guztian eun eta ogei txabolatik gora egozala esan euskun, txabola zaarrak eta barriak kontatuta. Eta egon egingo dira, nik jakin ez arrik. A! Etxodon egizu, Felipek esaten euskun Gorbeialdeko txabola askoren ondoan txarrikortak egozala, kortatxi asko, txarrientzako, irurogeitakak gitxie-nes, txarrieri gatzura emoteko eta loditu, etxerako edo saltzeako. Gero, txabolondoetan, zertarako artarako ganadua batzeako, esiak egoten dira, pastoreak zurezko taketakaz eginda. Eta oraintxe etorri jat akordura gure aitaren esakera bat esia dala-eta, edadeak jakiteko esakerea: "gisonak iru zaldialdi, zaldiak iru txakurraldi, txakurrak iru esialdi, esiak iru urte". Gure aita, bueno, zure aita bizi bazan, ak be kontatuko eutsuzan

a(k)p(b)e kontaukotzusen Gorbaildeko pastore eta ganetikoen kontuek. Sure aite gudari ibili sen Gorbaieko batalloiari yana eroaten mandoakas. Gero, gerrostean, Santoñan, denporaldi baten, libertadea emon arte.

Beste kontu be(t)p(b)e kontetoskuen gurean orrik pastoreok afari ostean-da an sutondoan.

Polite yatzu ori kontu ori. Beitu. Ba, pastoreak gastai asko aukiten audiesan kuretan auren txaboletan da, ba, orrik i komentuetako ermano legoak, mandoak artu euren otzara ta gusti te erririk erri esese, Gorbaildeko pastoreakana be yoaten siala gastai eske komenturako, da, ba, pastore asko egoales, ba, mando-otzarok bete-bete itaudiesala. Da ba, pastorean bat, baragarri antza seguru, legoa barruntetan auenean, txabolako atea itxi te asbitartean baten ostandu ite sala legoa pasau arte.

B'orrixek kontuok. Pastore bizi-tza gogorra dala esatoskuen da sarriten galtzaiek andiek. Esakerea da baie, "erletan d'arditen es gastau asindak", se gaixoa(k)tx(y)o eskero "adiós muy buenas" (sic), galtzai andie, da deskuidau eskero gatzetako be atera es, bates be erleakas, delikadue(k)t(d)ire isin be.

A! Lenao be inoz kontautzut e baie, Seberioko Santo Tomasen erri-baien elie be famaue yatzun. Or parrokien aspiko arasduian abaroan aukiten audien basabei eli ori te abadeak bedinkitu orduen Gorbaiera eroaten auden, Gesaletik (g)ora Arrabako Landara. Arrabako Landea esitute aukitauden erri-baiok loditu te saltzeako. Au egie da gero e! Ausoko Simone(k)p(b)e kontetauen,

Gorbeildeko pastore eta ganetikoen kontuak. Zure aita gudari ibili zan Gorbeiaiko batalloiari jana eroaten mandoakaz. Gero, gerra ostean, Santoñan, denporaldi baten, libertadea emon arte.

Beste kontu bat be kontetan euskuen gurean orreik pastoreok afari ostean-eta an sutondoan.

Polita jatzu ori kontu ori. Begi(ra)tu. Ba, pastoreak gastai asko eukiten eudiezan kuretan euren txaboletan eta, ba, orreik i komentuetako ermano legoak, mandoak artu euren otzara eta guzti eta erririk erri ezeze, Gorbeialdeko pastoreakana be joaten zirala gastai eske komenturako, eta, ba, pastore asko egoan lez, ba, mando-otzarok bete-bete egiten eudiezala. Eta ba, pastoreren bat, baragarri antza seguru, legoa barruntetan euanean, txabolako atea itxi eta azbitarteren (aitz-bitarteren) baten ostendu egiten zala legoa pasatu arte.

Ba orreixek kontuok. Pastore bizi-tza gogorra dala esaten euskuen eta sarritan galtzaiak andiak. Esakerea da baina, "erletan eta arditan es gastatu aziendak", ze gaixoak jo ezkeru "adiós muy buenas" (sic), galtzai andia, eta deskuidatu ezkeru gatzetako be atera ez, batez be erleakaz, delikaduak dira izan be.

A! Leenago be inoz kontatu deustut e baina, Zeberioko Santo Tomasen erri-beien elia be famaue jatzun. Or parrokiaren azpiko arizduian abaroan eukiten eudien basabei eli ori eta abadeak bedinkatu orduan Gorbeiaera eroaten euden, Gezaletik gora Arrabako Landara. Arrabako Landea esituta eukiten euden erri-beiok loditu eta saltzeako. Au egia da gero e! Auzoko Simonek be kontetan euan, bera Ipiñaburukoa

bera Ipiñeburukoa isinde. Da Santo Tomaseko sosioari be entzunde daukotziet Arrabako Landea Seberioke erabilte auela aldikada baten.

Bai, Gorbaialdeko pastoretza alosokoa isin de baie oin asko eskastu de. Pastorean bisimodue gogorra yatzun lenao, gaur ostera ogeto bisi direnean eskastu in dire, selango gau-sea esta? Baserrien be bardin pasau yaku, komerentzi geao agartu danean, jentea urire edo etzeak barristau te labrantzea ie-ie itxi, d'orti bearren. Oin gariri(k)p(b)e estu ereiten da panaderue portalera, d'olan dana. Len ganaduekas solo-bearrak iten itaurreko ta gusti te oin motortxu betek ipusterririk onena(k)p(b)año lan geao t'arinago. Lana? Bai, lana ta bearra esta bardine, se eguneko lana iteko, sainde artayorran, bear in beada, orregaiti esaten du: lanera bearren edo lantegire noa bearren, da lantegie gutzat es da fabrikea, soloa, baso edo olangoa. Gaur lantegie fabrikeari esaten dotzie baia Seberion estao fabrikarik, lantegiek nainon etzean, labrantzan sein basoan. Gaur jenteak nastu iten daus berbak.

Pastorea(k)p(b)e, oin txabolatan frigorifiku ta gusti daos, telefonoa be aldean, da batzuk lanroberra be bai yoan-etorrietarako, baie gaurko gas-teak estotzue gure olango bearlekurik. Pastoreak e bein ardiek mutildu eskero soltuen botaten ditues ardiek sein beste ganaduek nosipinean buelta bat inde. Ardiek mutildu esan doztut e baie guk u ondo estimedu aukiten gendun ardi-lanea, asitu te goruetan iteko da gero ba ari orregas ardilanskoko mediek-eta in, se lenao abarkamedien ibilten gintzesan ia danok. Sera, ardilana suri eta baltza

izanda. Eta Santo Tomaseko sosioai be entzunda deukotsiet Arrabako Landea Zeberioke erabilten euala aldikada baten.

Bai, Gorbeialdeko pastoretza alosokoa izan da baina orain asko eskastu da. Pastoreen bizimodua gogorra jatzun leenago, gaur ostera obeto bizi diranean eskastu egin dira, zelango gauzea ezta? Baserrian be bardin pasatu jaku, komerentzia geiago agertu danean, jentea urira edo etxeak barriztatu eta labrantzea ia-ia itxi, eta ortik bearren. Orain garirik be ez dogu ereiten eta panaderua portalera, eta olan dana. Leen ganaduekaz solo-bearrak egiten itaurreko eta guzti eta orain motortxu batek ipuztarririk onenak baino lan geiago eta arinago. Lana? Bai, lana eta bearra ez da bardina, ze eguneko lana egiteko, zeinda artajorran, bear egin bear da, orregaitik esaten dogu: lanera bearren edo lantegira noa bearren, eta lantegia gureztat ez da fabrikea, soloa, baso edo olangoa. Gaur lantegia fabrikeari esaten deutsie baina Zeberion ez dago fabrikarik, lantegiak nainon etxean, labrantzan zein basoan. Gaur jenteak naastu egiten dauz berbak.

Pastoreak be, orain txabolatan frigorifiku eta guzti dagoz, telefonoa be aldean, eta batzuk lanroberra be bai joan-etorrietarako, baina gaurko gazteak ez deutsue gura olango bearlekurik. Pastoreak e bein ardiak mutildu ezkeroko soltuan botaten dituez ardiak zein beste ganaduak noizik beinean buelta bat egin da. Ardiak mutildu esan deutsut e baina guk u ondo estimadu aukiten gendun ardi-lanea, azitu eta goruetan egiteko eta gero ba ari orregas ardilanzko mediak-eta egin, ze leenago abarkamedian ibilten gintzazan ia danok. Zera, ardilana

nastute tralla(k)p(b)e iten gendusen abarkari iminteko ugelesko begietati sartute kurtzetara aiubeta moduen, da, tralla luseak isiten sirean les bernatan obuena-obuen lotuten sirean, medi ganeti sein polaina ganeti da, selango beroa emon? Bestala olan, se, bernutzik nok aguantau espabere otzakas.

Tire ba, artzain preguntea in dostesu te bitu sainbet kontu aterun pastorea(k)t(d)irela-ta.

A, ta gero pastoreak esese, etzalde bakoitzean be aukiten gendusen ardiek eta auntzek, es asko, baie urterako lain bai. Dirue eskendun asko aukiten baie goserik eskendun pasetan. Txarri, ollo, koneju d'orri(k)p(b)e aukiten gendusen, urtea lusea isite san-da, ta ganera, ume t'ame, etzekadak etze bakoitzean, da, ba, ago asko daoen lekuen danerik(k)p(b)eada. Yakingosu etzean erabilten dun atxineko esakerea esta: "urdaie(k)p(b)e maietz luseak eroan", d'egie da, urtea lusea da isin be. Oin? Oin misketute bisi da jentea, pertsona esiteko esaukie da ona, esaukiegas surtu in bear, espabere gorrie(k) pasau edo, txarrena, gosea(k) tragau. Bakisu, etze utze, gerra utze!

Bueno, akabetako, sera, len pastoreak Gorbaialdera bearren, d'oin auren ostaikoak kurtzera igoten bateti besteti, bearren barik i denporea emoten deportea ines. Gorbaiaiko kurtzera yoateko adie daukotzu gaur askok eta askok, orretarako denporeak lagundu bear, se, aurie be txarra da baia edurre ta lañaberea atzenak mendireko. Mendiak inder andie artu dotzu aspalditxuen. Ogeto bisi garen sañalea, esteretxasu?

zuri eta baltza naastuta trallak be egiten genduzan abarkari iminteko ualezko begietatik sartuta kurtzetara aiubeta moduan, eta, tralla luzeak izaten ziran lez bernatan oboan-oboan lotuten ziran, medi gainetik zein polaina gainetik eta, zelango beroa emon? Bestela olan, ze, bernutzik nok aguantatu ezpabere otzakaz.

Tira ba, artzain preguntea egin deustazu eta begitu zeinbet kontu atera dogun pastoreak dirala-eta.

A, eta gero pastoreak ezeze, etxalde bakoitzean be aukiten genduzan ardiak eta auntzak, ez asko, baina urterako lain bai. Dirua ez gendun asko aukiten baina goserik ez gendun pasetan. Txarri, ollo, koneju eta orreik be aukiten genduzan, urtea luzea izaten zan-eta, eta gainera, ume eta ame, etzekadak etxe bakoitzean, eta, ba, ao asko dagoan lekuan danerik bear da. Jakingo dozu etxean erabilten dogun antzineko esakerea ezta: " urdaiak be maietz luzeak eroan", eta egia da, urtea luzea da izan be. Orain? Orain mizkatuta bizi da jentea, pertsona eziteko ezeukia da ona, ezeukiagaz zuurtu egin bear, ezpabere gorriak pasatu edo, txarrena, goseak tragatu. Badakizu, etxe utsa, gerra utsa!

Bueno, akabetako, zera, leen pastoreak Gorbaialdera bearren, eta orain euren ostekoak kurtzera igoten batetik bestetik, bearren barik i denporea emoten deportea eginez. Gorbeiaiko kurtzera joateko adia deukatsu gaur askok eta askok, orretarako denporeak lagundu bear, ze, euria be txarra da baina edurra eta lainaberea atzenak mendirako. Mendiak indar andia artu deustu aspalditxoan. Obeto bizi garan sañalea, ez deritzazu?

2.52. Lápikero zaharra hil ondorengo esaunda eta esaera

Gaur abadeak eskastu in dire baie untzurarte iru abade aukius gixienes Seberion.

Da, ba , baten, tokadak elexan, da, ba, askeneko kanpaiotzan señaleti, ba, gisoneskuan bat il sen, Lápikero esatotziaena.

Da, ba, intierru bespera gaubean, bégirea be in otzien ausokoak eta egunes etzeko bearrak iten lagundu be bai, bakisu, usadioa. Lenao intierruiek-eta goxes isiten sirean da gorpue etzan elexan sartzean, portikuen errespontzoa bota abadeak eta ortusanture artes. Gero etorri de ori gorpue elexan sartzea da geroago intierruiek eta mesak arrastis emotea.

Da, klaro, intierruiek iru klasekoak egosan lenao, primerakoa iru abadegas, organu ta gusti, segundakoa biges eta terserakoa bategas. Nik i atauta(k)p(b)e esotu odas errienak e. Norbere autautea erosteko modurik es aukenak errienak aukitausen, naurri diferentekoak. Alantxe ekartauden ortusanture ta gero errien atautea gorde beste baterako. Da, enterradoreak karea botatotzien lurregas tapau baño lenao. Ori gure aurrekoak e, se oin atauta baterako modue edosine(k)t(d)auko, merketxuagoa baño espada be. Mesa-erroppa(k)p(b)e diferenteak. Primerakoan onenak, segundakoan maraxtxuagoak eta terserakoan sarkitu eta maraxenak, eta sarriten kortikea inde iduneko ixerdiekas.

Lápikeron familiek e primerako intierrue guarauen, pague be alantxe, da ba parroko abadeo(k)p(b)e atan. Baie egun orretan parrokoak ainbatera yoan bearra-edo, ta, ba, kuajoto-

Gaur abadeak eskastu egin dira baina oraintsurarte iru abade euki doguz gitxienez Zeberion.

Eta, ba , baten, tokadak eleizan, eta, ba, azkeneko kanpaiotsaren señaletik, ba, gizonezkoren bat il zan, Lápikero esaten eutsoena.

Eta, ba, entierru bezpera gauean, bégirea be egin eutsoen auzokoak eta egunez etzeko bearrak egiten lagundu be bai, badakizu, usadioa. Leenago entierruak-eta goizez izaten ziran eta gorpua ez zan eleizan sartzean, portikuan errespontsoa bota abadeak eta ortusantura artez. Gero etorri da ori gorpua eleizan sartzea eta geroago entierruak eta mezak arrastiz emotea.

Eta, klaro, entierruak iru klasekoak egozan leenago, primerakoa iru abadegaz, organu eta guzti, segundakoa bigaz eta terzerakoa bategaz. Nik i atautak be ezagutu dodaz erriarenak e. Norbere autautea erosteko modurik ez eukanak erriarenak eukien euazan, neurri diferentekoak. Alantxe ekarten euden ortusantura eta gero erriaren atautea gorde beste baterako. Eta, enterradoreak karea botaten eutsien lurragaz tapatu baino leenago. Ori gure aurrekoak e, ze orain atauta baterako modua edozeinek dauka, merketxuagoa baino ez bada be. Meza-erropak be diferenteak. Primerakoan onenak, segundakoan maraxtxuagoak eta terzerakoan zaarkitu eta marazenak, eta sarritan kortikea eginda iduneko izerdiekaz.

Lápikeroren familiek e primerako entierrua gura euan, pagua be alantxe, eta ba parrokiako abadeok be atan. Baina egun orretan parrokoak ainbatera

rean esku itxi auen ardurea. Orduen parrokoan urrengo abadeak, Don Domingok, Arratiparteko edo estait nongo abade bateri geitu otzen parrokoan ordes betetako primerako mesea, iru abadedun mesa kantaua.

Da, klaro, kanpoko abade ori esan agartuten da Don Domingok urten in beauen Lápikeron gorpue etzeti elexara ekarteko, da urtauen arduas beterik. Betorren intierru ori, andariekas, da bidekurtze gustietan parau te errespontzoa erresetan auen abadeak. Esatauden bidekurtzetan sorginek-eta urtetaudela, d'orregaiti erresauko san errespontzoa. Erresau bai, baie pentzamtue beste leku beten. Non? Da, ba, kanpoko abadean. Se, etorri esik, abade biges emon bear primerako mesea, ta, ba, se esango ete dauen Lápikeron familiek iru barik abade bi ikusite altaran.

D'olan etorri sen Don Domingo, ixerdilarrie dariola. Elesportikure eldu eta askenengo errespontzoa bota otzenezan gorpuari, badoa sakristinirantza ta non topetan dauen kanpoko abadea yarrite brebiarioa errestan altara aurreko, tumuluen ondoan, gisonan parteko lankan. Es ke, mesa aurreti, tumuluen alde batean iru abadeak kantuotzean ekitoztien latinean, d'antxe abade ori. Tumuluiek ikerea be emotauen e, ganean kapa baltzagas d'aikas eguresko argimutil baltz eta nausiekas, d'abadeok "inparabisun" kantetan. Don Domingori serue sabaldu yakon irugarren abade ori ikusi auenean, da berekitan esan i auen ba se: "gaurtik aurrera e(s)tx(y)oaat ernegauko atzen atzenerarte". D'ortik artuu ori esakera moduen da sarri esan du gure etzean: "Lápikeron ingu" orixe, ernegau

joan bearra-edo, eta, ba, kuajotorearen esku itxi euan ardurea. Orduan parrokoaren urrengo abadeak, Don Domingok, Arratiparteko edo ez dakit nongo abade bateri deitu eutsan parrokoaren ordez betetako primerako mezea, iru abadedun meza kantatua.

Eta, klaro, kanpoko abade ori ez zan agertuten eta Don Domingok urten egin bear euan Lápikeroren gorpua etxetik eleizara ekarteko, eta urten euan arduaz beterik. Baetorren entierru ori, andariekaz, eta bidegurutze guztietan paratu eta errespontzoa errezetan euan abadeak. Esaten euden bidegurutzetan sorginak-eta urtetan eudela, eta orregaitik errezatuko zan errespontzoa. Errezatu bai, baina pentsamentua beste leku baten. Non? Eta, ba, kanpoko abadeagan. Ze, etorri ezik, abade bigaz emon bear primerako mezea, eta, ba, zer esango ete dauan Lápikeroren familiak iru barik abade bi ikusita altaran.

Eta olan etorri zan Don Domingo, izerdilarría dariola. Eleizportikura eldu eta azkenengo errespontzoa bota eutsonean gorpuari, badoa sakristinirantza eta non topetan dauan kanpoko abadea jarrita brebiarioa errezetan altara aurreko, tumuluaren ondoan, gizonen parteko lankan. Es ke, meza aurretik, tumuluaren alde batean iru abadeak kantuotzean ekiten eutsien latinean, eta antxe abade ori. Tumuluak ikerea be emoten euan e, gainean kapa baltzagaz eta areikaz egurrezko argimutil baltz eta nagusiekaz, eta abadeok "in paradisum" kantetan. Don Domingori zerua zabaldu jakon irugarren abade ori ikusi euanean, eta berekitan(berekitan) esan ei euan ba ze: "gaurtik aurrera ez joat ernegatuko atzen atzenerarte". Eta ortik artu dogu

es atzenerarte. Pasintzie be gausona isiten da batzutan. Larra be txarra. Begoan emen gure errien “Mari Pásentzi” bet, a beti ebilen allegau isinde. Gibela(k)p(b)e gero?

Orixe pasau yakon. Bakisu selango afruntue eroango auen Don Domingok neseseidade barik? A! Len aistu in yat esatea, baie, beste baten sera pasau sen terserako mesa bategas.

Intierruko mesako abadea etzan Seberiokoa, ilen familikoan bat-edo, antza. Da, ba, badoa sakristinian terserako erropo(k)tx(y)asten da kasullea soñean iminten yoan sanean, d’a kortikea ikusi kulluen, esan auen: “alla kuidaos, ni eñoak au kasulla sikin au iminten da primerako kasulleagas emongo yoat terserako mesea.

D’alantxik in auen da dana(k) posik. Oba es!

ori esakera moduan eta sarri esan dogu gure etxean: “Lápikerorena egin dogu” orixe, ernegatu ez atzenerarte. Pazientzia be gauza ona izaten da batzuetan. Larra be txarra. Baegoan emen gure errian “Mari Pásentzi” bat, a beti ebilen allegatu ezinda. Gibelak be gero?

Orixe pasatu jakon. Badakizu zelango afrontua eroango euan Don Domingok nezesidade barik? A! Leen aaztu egin jat esatea, baina, beste baten zera pasatu zan terserako meza bategaz.

Entierruko mezako abadea ez zan Zeberiokoa, ilaren familikoren bat-edo, antza. Eta, ba, badoa sakristanian terserako erropok janzten eta kasullea soinean iminten joan zanean, eta a kortikea ikusi kulluan, esan euan: “alla cuidados”, ni ez nioak au kasulla zikin au iminten eta primerako kasulleagaz emongo joat terzerako mezea.

Eta alantxik egin euan eta danak pozik. Oba ez!

2.53. Eskolasasi osteko azalpenak maisuari eta gainetikoak

Gure eskola denporea aitutustesu baie guk eskaindu auki gaurko komerentzirik. Ni urte bi bakarrik ibili nintzen eskolara, Uriondoti Santa Kurtzeko eskolara, ie kilometro bi te kamiñori(k)p(b)es, burpidea, da neguen lupetza ta labankerea ugeri. Sortzi urtegas sartu nintzen eskolara d’amar urtegas urten, krida, Satamora. Nau umea ta Satamora sentzain. Ori be bada e? Au, sure aite geao ibili sen eskolara. Emeti Undurrati Ermitabarriko eskolara kilometro bi pasautxu daos, baie, kamiñoa sikan. Da, ba, batzuk u,

Gure eskola denporea aitatu deustazu baina guk ez gendun euki gaurko komenientziarik. Ni urte bi bakarrik ibili nintzan eskolara, Uriondotik Santa Kurtzeko eskolara, ia kilometro bi eta kaminorik be ez, burpidea, eta neguan lupetza eta labankerea ugari. Zortzi urtegas sartu nintzan eskolara eta amar urtegas urten, krida, Zaratamora. Neu umea eta Zaratamora sentzain. Ori be bada e? Au, zure aita geiago ibili zan eskolara. Emetik Undurragatik Ermitabarriko eskolara kilometro bi pasautxu dagoz, baina, kaminoa sikieran. Eta, ba, batzuk u, zuk zeuk be egin dozu sarritan,

su(k)sau(k)p(b)e indosu sarriten, eskolara yoan goxean, baskaiten etzera etorri te arrastien barriro eskolara. Ba, gustire ie bedratzi kilometro egunean, da kexau bes. Da, domeka ta yayetan be beste ainbeste.

Urrinekoantzat, kosinea auki-tauren eskoleak eta gurauenak indabea ta txorixoa eroan etzeti te kosinau itauren kosinereak. Or tanda baten goxerdietan “letxe en polvo” emoten asi sirean suron denporan, baie esauken baiեսnean antzi(k)p(b)e.

Komerentzie esan dotzut e, baie eskolan eskusaue maixu-maistrantz(a)t)p(b)akarrik ote san. Eskolumean eskusaue eskolondoko arasduie san, negu sein uda, da, ba alan dala-ta kexau bes, danak itaudien-da.

Je-je-je, gause baragarri bat akordau yat, eskola-sasi iteana, eta kontau in beotzut, se lenao esan oten etzekoari abisetako modurik eta neska-mutil trastoantzak eskola-sasi itaudien, etzekoan isilean, naite gero kastigau maixuek. Egia esateko batzutan eskola-sasi ite san etzeko bearrakaiti edo beste sereginen bategaiti. Da, ba olan, maixue konprensiboagoa isiten san. Oin, batzuk u gusurre be esatotzien maixueri, eskola-sasi olgetako in da itaurren ibili dala esan.

Lenao, bueno, es ain atxine be, eskolara yoaten gintzesanean, auskera bakarrik(k)tx(y)akiten gendun, erderas berba soltuen batzuk eta eskolan palukasuke ikisten gaindun erdere, derrigorrak, nesetidadeak, ser ba?

Da, ba, egun beten, seguru, orko Aibelabe aspiko mutiko bat, Aibelabe, or Seberio t'Oroskoko linderoan daoan atxa da, ilune da isin be atxori, d'or inguruko mutiko ori

eskolara joan goizean, bazkaiten etxera etorri eta arrastian barriro eskolara. Ba, guztira ia bederatzi kilometro egunean, eta kexatu be ez. Eta, domeka eta jaietan be beste ainbeste.

Urrinekoantzat, kozinea eukiten euan eskoleak eta gura euanak indabea eta txorizoa eroan etxetik eta kozinatu egiten euan kozinereak. Or tanda baten goizerdian “leche en polvo” emoten asi ziran zuon denporan, baina ez euan beiesnearen antzik be.

Konbenientzia esan deusut e, baina eskolan eskusadua maisu-maistrantzak bakarrik egoten zan. Eskolumean eskusadua eskolondoko arizduia zan, negu zein uda, eta, ba alan dala-eta kexatu be ez, danak egiten eudien-eta.

Je-je-je, gauza baragarri bat akordatu jat, eskola-sasi egitearena, eta kontatu egin bear deusut, ze leenago ez zan egoten etzekoari abisetako modurik eta neska-mutil trasto antzak eskola-sasi egiten eudien, etxekoen isilean, naita gero kastigatu maisuak. Egia esateko batzuetan eskola-sasi egiten zan etxeko bearrakaitik edo beste zereginen bategaitik. Eta, ba olan, maisua konprensiboagoa izaten zan. Orain, batzuk u guzurra be esaten eutsoen maisuari, eskola-sasi olgetako egin eta itaurren ibili dala esan.

Leenago, bueno, ez ain antzina be, eskolara joaten gintzazanean, euskera bakarrik jakiten gendun, erderaz berba solturen batzuk eta eskolan palukazuka ikasten gendun erdere, derrigorrak, nezesidadeak, zer ba?

Eta, ba, egun baten, seguru, orko Aibelabe aspiko mutiko bat, Aibelabe, or Zeberio eta Orozkoko linderoan dagoan aitza da, iluna da izan be aitz ori, eta or inguruko mutiko ori eskolara joan zan

eskolara yoan san goxean da egurdien kosinan baskaldu t'olgetan eragoin seguru Gesalera bideko kapofutbol sarran ingurumarien txoritopetan. Marti-osoan abie isingo san se martisosoak i dire lelengo abiginen asten direanak. Da, ba, egon d'egon, erlejuri(k)p(b)es, da, ba marti-osoan txoriabie topetako intziguegas denporea neurtu bes eta, ene, elexako erlejuen laurek entzun ausen da karran yoan san eskolara, aurreti arnastue, estukureagas arnasea bueltau esinik, ito bearrean d'atzeti uskerrotzean, igurdiko indaban ostaien atzea berbas larritasunegas ia sirinek urten einik maixuen bildurregas. Maixue gogorra san isin be, d'ereldun purue, auskerarik ikisi bes d'ikisi gure bes.

Bueno, badoa mutiko ori eskolara, atea yo ta maixuek urritxa-palue eskuen dala urtotzen atera ta geaoko barik, di-dau-di-dau, eperdi ori bero-bero in i otzen da ganera eskuekas di-dau-di-dau, saputz edo kokoteko baspiok erantau, da badiñotzo: – “De dónde vienes a estas (h)oras?”

Eta eskola-sasi in barriko mutikoak, negarrari autzi esinik eta begiek esku lepoakas igurtan erantzun i otzan ekien erdera apurrean:

- Señor maistro, en allí txoria visto, arria tirao, ankan asartao, saltando-saltando sasira escapao, buscando-buscando denporea pasao, elexakanpaia oir y a eskola tarde venir.
- Bueno- esaotzen maixuek- siéntate en tu pupitre y después del Caralsol quedas castigao por esta pira”

D'alantxe in i otzen. Caralsol kantaurluen, maixuek klase partikurrarrak emotausen pagukoantzat eta

goizean eta eguerdian kozinan bazkaldu eta olgetan eragoin seguru Gezalera bideko kapo-futbol zaarraren ingurumarian txoritopetan. Marti-zozoaren abia izango zan ze marti-zozoak ei dira leelengo abiaginen asten diranak. Eta, ba, egon eta egon, erlejurik be ez, eta, ba marti-zozoaren txoriabia topetako intziguagaz denporea neurtu be ez eta, ene, eleizako erlojuan laurak entzun euazan eta karran joan zan eskolara, aurretik arnastua, estukureagaz arnasea bueltau ezinik, ito bearrean eta atzetik uzkerrotzean, egurdiko indaben ostean atzea berbaz larritasunagaz ia zirinak urten eginik maisuaren bildurragaz. Maisua gogorra zan izan be, eta erdaldun purua, euskerarik ikasi be ez eta ikasi gura be ez.

Bueno, badoa mutiko ori eskolara, atea jo eta maisuak urritza-palua eskuan dala urten eutsan atera eta geiagoko barik, di-dau-di-dau, eperdi ori bero-bero egin ei eutsan eta gainera eskuekaz di-dau-di-dau, zaputz edo kokoteko bazpiok erantatu, eta badinotzo:

– “De dónde vienes a estas horas?”

Eta eskola-sasi egin barriko mutikoak, negarrari eutsi ezinik eta begiak esku lepoakaz igurtan erantzun ei eutsan ekien erdera apurrean:

- Señor maestro, en allí txoria visto, arria tirado, ankan azertado, saltando-saltando sasira escapado, buscando-buscando denporea pasado, eleiza-kanpaia oir y a eskola tarde venir.
- Bueno- esan eutsan maisuak- siéntate en tu pupitre y después del “Cara al sol” quedas castigado por esta pira”

Eta alantxe egin ei eutsan. “Cara al sol” kantatu orduan, maisuak klase partikurrarrak emoten euazan pagukoantzat

aik estudioan imini ausenean, eskola-sasidun mutiko orreri artuaso otzen bere pisarra ta pisarrine d'alde batean eskribiduaso ser au: "No (h)aré más piras a la escuela", eta bestaldean, beste ser au: "Respetaré a los pájaros".

Pisarrori bete auenean, maixuari erakutzi otzen da esan otzen ba se: "a(h)ora bete a casa y enseña a tus padres el castigo".

Kendu yakosan antza mutiko orreri eskola-sasiak iteko gogoak. Etzean estaki(t)p(b)a se kontauko auen. Es audien gogorregi artuko se delitue be etzan ain andie. Umean kontuek. A! gaur ori mutikori gison inde dao, familia be asi dau da gison artesa yatzu, da itxuras gison lerdena t'aibela, da generia elexastikue.

eta areik estudioan imini euazanean, eskola-sasidun mutiko orreri artuazo eutsan bere pizarrea eta pizarrina eta alde batean eskribiduazo zer au: "No haré más piras a la escuela", eta bestaldean, beste zer au: "Respetaré a los pájaros".

Pizarra ori bete euanean, maisuari erakutsi eutsan eta esan eutsan ba ze: "ahora vete a casa y enseña a tus padres el castigo".

Kendu jakozan antza mutiko orreri eskola-sasiak egiteko gogoak. Etzean ez dakit ba zer kontatuko euan. Ez eudien gogorregi artuko ze delitua be ez zan ain andia. Umeen kontuak. A! gaur ori mutiko ori gizon eginda dago, familia be azi dau eta gizon arteza jatzu, eta itxuraz gizon lerdena eta aibela, eta gainera eleizastikua.

2.54. Gartzelarik harako kartak etxera erderaz gerraostean

Gerra ostaien, bisirik urten audien gudari asko sartu audiesan kartzelan, da kartzela batzuk urrin ordureko, se es egoan kotxerik es eser ikusten yoateko be ta ba kartas entendidu bear al san moduen.

Eta kartak erderas eskribitan audiesan derrigorres, se, espabere korreora eroan bes. Da klaro, kartok erderas esese, sobrea sabalik emon bear isitaudiesan, seguru, kartzele-ruek leiduteko ia ser imintaudien ikusteko, da kontrako seoser imini eskero atzera buelta edo erre.

Baie, bearrisenak personea surtu iten dau te karta selebreak allegetan sirean batera bestera. An gure ausoko batenera allegau sen karta bat ie-ie

Gerra ostean, bizirik urten eudien gudari asko sartu eudiezan kartzelan, eta kartzela batzuk urrun ordurako, ze ez egoan kotxerik ez ezer ikusten joateko be eta ba kartaz entendidu bear aal zan moduan.

Eta kartak erderaz eskribietan eudiezan derrigorrez, ze, ezpabere korreora eroan be ez. Eta klaro, kartok erderaz ezeze, sobrea zabalik emon bear izaten eudiezan, seguru, kartzeleruak leiduteko ia zer iminten eudien ikusteko, eta kontrako zeozer imini ezkerro atzera buelta edo erre.

Baina, bearrizanak pertsona zuurtu egiten dau eta karta selebreak allegetan ziran batera bestera. An gure auzoko

burus dakit. Kontetako? Bai gure bosu. Aitu:

“Queridos padres, (h)ermanos y demás familia: Por la presente decir que bien estamos. Tratar bien nos tratan. Comer komemos desente. En tiempo libre a kartas también jugamos. Muchos saludos para los besinos Julian Goseandia, Pedro Tratutxarra y Juan Sorrisbetea. Sin más se despide (h)asta la próxima y seguir bien Dios mediante.”

Ikustosunes, kartan dana ona baño esan kontetan baie ausokoan apelliduetatik argi egoan selan ego-san kartzelan. Seoser argudiau bear benetako egie yakinasoteko.

Nik entzunde dauket e ba, baten batek surten erreko sagar erreak aginta otzesala bateri kartzelara, da, ba, bakisu, sagar erreari asala arrotu iten yako, da, ba, asal arrotuen barruen ondo sartute paseta otziela kartatxue eurenari. D’isin ingo da se alan daukotziet entzunde gure sarra-ri. Seoser in bear. Esakerea da baie: “bisie(k)p(b)isilan d’ile lurre(k)tx(y)-an”. Bai, bisi danak aurrera in lei, d’in be in du kalamidadeak pasau arrik.

A! Ta gero au be bai. Gerra denporan batzu(k)t(d)esaparesidu in sirean da eskondute egosanan andrak a bisi-alargun geratu sirean da barri-ro eskontako be es egosan arik eta auren barri yakin arte.

batenera allegatu zan karta bat ia-ia buruz dakit. Kontetako? Bai gure badozu. Aitu:

“Queridos padres, hermanos y demás familia: Por la presente decir que bien estamos. Tratar bien nos tratan. Comer comemos decente. En tiempo libre a cartas también jugamos. Muchos saludos para los vecinos Julian Goseandia, Pedro Tratutxarra y Juan Sorrisbetea (Zorribetea). Sin más se despide hasta la próxima y seguir bien Dios mediante.”

Ikusten dozunez, kartan dana ona baino ez zan kontetan baina auzokoen apelliduetatik argi egoan zelan egozan kartzelan. Zeozer argudiatu bear benetako egia jakinazoteko.

Nik entzunda daukat e ba, baten batek surten erreko sagar erreak agintan eutsazala bateri kartzelara, eta, ba, bada-kizu, sagar erreari azala arrotu egiten jako, eta, ba, azal arrotuaren barruan ondo sartuta pasetan eutsoela kartatxua eurenari. Eta izan egingo da ze alan deukotsiet entzunda gure zaarrai. Zeozer egin bear: Esakerea da baina: “biziak bizi-lan eta ila lurra jakin”. Bai, bizi danak aurrera egin lei (leike), eta egin be egin dogu kalamidadeak pasatu arrik.

A! Eta gero au be bai. Gerra denporan batzuk desaparezidu egin ziran eta ezkontuta egozanan andrak a bizi-alargun geratu ziran eta barriro ezkontako be ez egozan arik eta euren barri jakin arte.

2.55. Urkiolako eleizako itaxur-urak itsaso ezberdinetara

Urkiolara gu sarri yoan gara untzurarte. Aitek kotxea eroaten auen arte San Antonio abad egunean

Urkiolara gu sarri joan gara orain-tsurarte. Aitak kotxea eroaten euan arte San Antonio abad egunean joaten

yoaten isin gara, urtailaren amaspian. Lelengo mesea entzun da gero abade misiolariokas be berba in, se esaune(k)t(d)us d'aure(k)p(b)e gure esaurea badaukie, da, egurdarte an emon da gero, etzerantzean Dimeti etorri te ango tratante bateri txarrikuma bi enkargau, urterako, ba(t)k(g)utzako da bestea surontzat anaje biontzat erdibana. Da txarrikumak segun selangoak isin, ba, bardin oskun ordotzak sein bargastak. Ori bai, gero gurisin eskero kapau ite sian bates be bargastak, irusialdirik euki estaien. Kapau eskero arroa geao artzean daudie txarriek. Amabost amasai arroako txarriek sarri il dus, urtea lusea isiten da-ta.

Txarrikumak tratanteak ekartuskusen da kortatxien sartzean gaidusen bie(k)p(b)atera. Baie urte baten, txarrikuma batek esotzen bakean itxiten besteari, te irrintzotzean erabiltauen aurreti kortatxi gustiti da medrau be esauen iten. Orretara, bakeagaiti, medilena imini bear gaidun kortatxien, olesko medilena, sikieran be bata(k)p(b)-esteari kalterik in es iteko. Medilena ser dan? Ba, se isingo da ba, separasiñoa itea seinde, kortatxien, gure txarrien kasuen, edo bisimodu biko etze baten erdien iten dan ormea bisimodu bata ta bestea bananduteko, edo or daukosu gure tejamana sarrean be, ausokoakas erdibanakoa dan les, erdien medilena dauka, oleskoa, d'orrixeri separasiñoari esaten yakie medilena, edosein leku separetako iten dan orma edo antzekoa. Etze barruan, lenao, simentzesko edo urritxa-paluskoa be isite san medilena. Bai, simentzat sein urritxapaluek kurtzetara sartute, sarea balis les imi-

izan gara, urtailaren amazpian. Lelengo mezea entzun eta gero abade misiolariokaz be berba egin, ze ezagunak doguz eta eurak be gure ezaurea badaukie, eta, egurdarte an emon eta gero, etxerantzean Dimatik etorri eta ango tratante bateri txarrikuma bi enkargatu, urterako, bat guretzako eta bestea zuontzat anaje biontzat erdibana. Eta txarrikumak segun zelangoak izan, ba, bardin euskun ordotsak zein bargastak. Ori bai, gero gura izan ezkeru kapatu egiten ziran batez be bargastak, irusialdirik euki ez dagien. Kapatu ezkeru arroa geiago artzean daudie txarriek. Amabost amasei arroako txarriak sarri il doguz, urtea luzea izaten da-eta.

Txarrikumak tratanteak ekarten euskuzan eta kortatxian sartzean genduzan biak batera. Baina urte baten, txarrikuma batek ez eutsan bakean itxiten besteari, eta irrintzaotsean erabilten euan aurretik kortatxi guztitik eta medratu be ez euan egiten. Orretara, bakeagaitik, medilena imini bear gendun kortatxian, oolezko medilena, sikieran be batak besteari kalterik egin ez egiteko. Medilena zer dan? Ba, ze izango da ba, separaziñoa egitea zeinda, kortatxian, gure txarrien kasuan, edo bisimodu biko etxe baten erdian egiten dan ormea bizimodu bata eta bestea bananduteko, edo or daukazu gure tejabana zaarrea be, auzokoakaz erdibanakoa dan lez, erdian medilena dauka, oolezkoa, eta orreixeri separaziñoai esaten jakie medilena, edozein leku separetako egiten dan orma edo antzekoa. Etxe barruan, leenago, zimintzezko edo urritza-paluzkoa be izaten zan medilena. Bai, zimintzat zein urritzapaluek kurtzetara sartuta, sarea balitz lez iminita. Medilenak

nite. Medilenak era askotakoak, segun bearrisana. Gaur ladrillue ta sementoa erabilten da asko medilena iteko. Tallatue(k)(b)e aukiten daudie auren medilena etzean erdiko gallurrean ur biko talletuak en partikular. Iru eta lau ureko talletue(k)p(b)e badaos.

Da, ba, Urkiola aituun eskeru, urte baten e berbagure egoan ango abade bat eta egune be auritzue ta ba an elesportikuen berbas, deporea emoten, Urkiolako txarri nausien errifeari etxon bitartean. D'alangon baten badiñosku abade orrek eskue talleturantz iminite: bitu, bitu, estaki(t)tx(y)akin be ingo dosuen baie, Urkiolako elexa onen talletu gallurreko medilenean yausten direan urek, euriek sein edurrek, itzeso diferenteatara doas. Gallurreko medilenean alde bateko etexureak, orra, Sadorra errekarra doas Otzandiorantz eta gero Ebro ibaiti bera Mar Mediterraniara, da medilenean bestaldeko etexureak Anboto ondoti bera Durungo aldeko Ibaisabal errekatik i Bilbora eta Santurtzin Mar Kantabrikora. Gu aite ta biok aitearenka asi gaintzesan sinistu esinik e baie abadea(k)p(b)ekien d'ondo ganera etexuron nondi norakoa. Etzera etorri gaintzesanean, onek aitek, eskolea be ni(k)p(b)año geao ta, ba, aldibete-ko ensiklopedia be begitu auen erre-
kak eta itzesoa ikusteko da efetibamente, alantxe da, abadeak esaneko moduen, osea ke, Urkiolako elexako talltau gallurreko medilena inportantea yatzu gero urok erdibitu te itzeso diferenteatarako ditea emoteko e! Olangorik? Sekule be eskendun entzun olangorik e baie gausak pasau iten dire d'uren lintero ori antxe dao.

era askotakoak, segun bearrisana. Gaur ladrillua eta zementoa erabilten da asko medilena egiteko. Tellatuak be aukiten daudie euren medilena etzearen erdiko gailurrean ur biko tellatuak en partikular. Iru eta lau ureko tellatuak be badagoz.

Eta, ba, Urkiola aitatu dogun ezkeru, urte baten e berbagura egoan ango abade bat eta eguna be euritsua eta ba an eleizportikuan berbaz, deporea emoten, Urkiolako txarri nagusiaren errifeari etxodon bitartean. Eta alangoren baten badinosku abade orrek eskua tellaturantz iminita: begi(ra)tu, begi(ra)tu, ez dakit jakin be egingo dozuen baina, Urkiolako eleiza onen tellatu gailurreko medilenean jausten diran urak, euriak zein edurrak, itsaso diferenteatara doaz. Gailurreko medilenean alde bateko itaxurak, orra, Zadorra errekarra doaz Otxandiorantz eta gero Ebro ibaitik beera Mar Mediterraneora, eta medilenean bestaldeko itaxurak Anboto ondolik beera Durango aldeko Ibaizabal errekatik i Bilbora eta Santurtzin Mar Kantabrikora. Gu aita eta biok aitearenka asi gintzazan sinistu ezinik e baina abadeak baekian eta ondo gainera itaxuron nondik norakoa. Etxera etorri gintzazanean, onek aitek, eskolea be nik baino geiago eta, ba, aldibateko ensiklopedia be begi(ra)tu euan errekar eta itsasoak ikusteko eta efektibamente, alantxe da, abadeak esaneko moduan, osea ke, Urkiolako eleizako tellatu gailurreko medilena inportantea yatzu gero urok erdibitu et itsaso diferenteatarako ditea emoteko e! Olangorik? Sekula be ez gendun entzun olangorik e baina gauzak pasatu egiten dira eta uren lintero ori antxe dago. Arrezkeru, Urkiolara goazen bakoitzean, gureztala (gura ez

Arraskero, Urkiolara goasen bako-txean, gurestala be, talleture bituten du da bateri baño geaori kontau Urkiolako elexako etexureatako uron nondi norakoa. B'olantxe su, ur erdikinek itzesu batera da best'er-dikine(k)p(b)estera. Selango gausea e?

dala) be, tellatura begi(ra)tuten dogu eta bateri baino geiagori kontatu Urkiolako eleizako itaxureatako uron nondik norakoa. Ba, olantxe zu, ur erdikinak itsasoa batera eta beste erdikinak bestera. Zelango gauza e?

2.56. Erbi-jana agindu eta katu-jana emon kinto-lagun iaun eta eritziari

Beste erri betzutan be ongoire baie emen Seberion be jente bromis-tea ugeri dao ta orko plasa inguruko fetxori be(t) kontaukotzut.

Aitu, ba or plasa inguruko kinto-lagun betzuk, isenak eskoas esaten errespetoagaiti e, atxaki bet aukitaidien baktotxean yanak itaudiesan, seinde erbien bat edo basaurdan bat il de gero eta iños katu-yana be bai, antojurik emon esik. Eta, ba, kintook antoju bakoak sireanes katu-yana itea pentzaidien. Auretaiko bat errikoa isin arrik Bilbon bisi de, gison yaune t'eretxie yatzu, modukoa da, kotxeagas da ondo yantzite etorten da errire, oin, edukaue bai e d'errentoreantz(a)t)p(b)e usaba ona. Da, ba, kinto-lagunok o erderas "gato por liebre" esaten dana sartu gurotzien lagun yaun orreri, se berak esaten iotzien katueri edosinek igirriko leuskiola kasulan gisaute be. Da, ba, kinto-lagunok topaudiesan katu mardo bi da Arbilduko Gabinari esatzien ia gisauko ausen katuok iñori agorik askatu barik sein euren lagun yaune enterau ainbateti. Gabina-(k)p(b)aietz, agindu ori beteko dauela. Orduen bototzien abisue lagun eretxi orreri, sereti, Satulati, se Satulan egoan orduen Seberioke tele-

Beste erri batzutan be egongo dira baina emen Zeberion be jente bromis-tea ugari dago eta orko plaza inguruko fetxoria bat kontatuko deusut.

Aitu, ba or plaza inguruko kinto-lagun batzuk, izenak ez goaz esaten errespetoagaitik e, aitzaki bat eukiten eudien bakoitzean janak egiten eudiezan, zeinda erbiren bat edo basaurdaren bat il eta gero eta inoz katu-jana be bai, antojurik emon ezik. Eta, ba, kintook antoju bakoak ziranez katu-jana egitea pentsatu eudien. Euretarike bat errikoa izan arrik Bilbon bizi da, gison iauna eta eritzia jatzu, modukoa da, kotxeagaz eta ondo jantzita etorten da errira, orain, edukatua bai e eta errentadoreantzat be ugazaba ona. Eta, ba, kinto-lagunok o erderaz "gato por liebre" esaten dana sartu gura eutsoen lagun iaun orreri, ze berak esaten ei eutsien katuari edozeinek igarriko leuskiola kazulan gisatuta be. Eta, ba, kinto-lagunok topatu eudiezan katu mardo bi eta Arbilduko Gabinari esan eutsoen ia gisatuko euazan katuok inori aorik askatu barik zein euren lagun iauna enteratu ainbatetik. Gabinak baietz, agindu ori beteko dauala. Orduan bota eutsoen abisua lagun eritzi orreri, zeretik, Satuolatik, ze Satuolan egoan orduan

fono bakarra. Abisue bototzien baie gusurre egien kolorean. Esaotzien kasari betek erbi bi il dausela ta ia gure dauen aixe(k)tx(y)aten etorri urli egunetan. Da ba baieskoa, etorriko sala, da ganera edabeak, kafe, kopa ta puroa(k)p(b)e bere konture isingo direala.

Allegau sen egun ori te danak Arbildure Gabinanera. Gabinak atrotzien alosoko kasulea gisadu ori pil-pilean dala. Baie estaki(t)p(b)a irribarrean bat edo kiñuen bat barruntau bauen espauen, lagun yaun orrek esan i otzien: “erbie isingo dok estok? Se katue badok atoan igirriko yotzat”.

D’orretara, Gabinan tabernako mostradorari dotzela egoan txikito bat artzean Andres eletrisista, Sollokoa, da badiñotzie serio-serio:

- katue badok nau(k)tx(y)akiat selan igirri.
- Bai? Selan?
- Ba beitu:-da Gabinari geitu otzenu Gabina, txakurre yanbarri ala yansar daukosu?
- Yansar se goxerik ona sigortute daukot, apur betegaiti bixikletati botaten dau bat egurdartean, manie daukona kamiñora urtetan?
- Ba, soltaisu kateati te ekasu txakur ori ona tabernara barrure.
- Setako ba, Andres?
- Ba, pruebea iteko kasulako jeneroagas. Kasulako okela sati bet emongotzu txakurreri te katue bada estau yango se txakurrek estau katuri(k)tx(y)aten.

Danak Andresen fetxorieri begire. Andres orrek artzean dau okela sati bet kasulati te aidean bototzen txakurreri, da txakurrek e sailtu bet in, agoa sabaldu te barrure, dranga-

Zeberrioko telefono bakarra. Abisua bota eutsoen baina guzorra egiaien kolorean. Esan eutsoen kazari batek erbi bi il dauazala eta ia gura dauan aiexek jaten etorri urli egunetan. Eta ba baiezkoa, etorriko zala, eta gainera edabeak, kafe, kopa eta puroak be bere kontura izango dirala.

Allegatu zan egun ori eta danak Arbildura Gabinanera. Gabinak atera eutsien alozoko kazulea gisadu ori pil-pilean dala. Baina ez dakit ba irribarrean bat edo keiñuren bat barruntatu baeuan ez baeuan, lagun iaun orrek esan ei eutsien: “ erbia izango dok ez dok? Ze katua badok atoan igarriko jautsat”.

Eta orretara, Gabinaren tabernako mostradorari deusala egoan txikito bat artzean Andres elektrizista, Zollokoa, eta badinotsie serio-serio:

- katua badok neuk jakiat zelan igarri.
- Bai? Zelan?
- Ba begi(ra)tu:-eta Gabinari deitu eutsan- zu Gabina, txakurra janbarri ala janzaar daukazu?
- Janzaar ze goizerik ona zigortuta daukat, apur bategaitik bizikletatik botaten dau bat egurdartean, mania daukana kaminora urtetan?
- Ba, soltatu egizu kateatik eta ekarri egizu txakur ori ona tabernara barrura.
- Zertarako ba, Andres?
Eta, ba, domeka orretan prisa apur bat neukan eguerdiko bazkaria tolestuteko eta badinotsat Mikolasari:

- I, gaur arintxuago joan bear jonak etxera
- Norako daukana ba ainbeste prisa, etxodon (itxaron) egina apur bat, etxe ori an egongo dona gero be andrea.
- Bai, baina gaur leenengo zapateruari narrua kendu bear jautsanat
- Zapateruari narrua? Zer dinostana? Zer egin dona ba zapateruak?
- Je-je-je! Ai Mikolasa, ez dona
- Ermitabarriko zapaterua gero e, zera dona, peskadu klase bat dona zapaterua, alabeak ekarri jaustana Bilbotik, ik jakingo dona, alabea Bilbon jagona sentzain eta zapaterua ekarri jaustana saltzan iminteko. Baina narrua kendu bear jakona, iluna eta gogorra jaukana euki be eta. Axe tolestu bear jonat.
- Aitearen eta semearen! Graziak e Paula,- esan eustan Nikolasak-, txarre-na pentsetan egon nona, nik ez jonat jakin be egin olango peskadurik egon dagoanik. Gure edadean be oraindino ikasi egin bearko joaguna!

Axe pasatu jakun. Barre guredana egin gendun biok biotara zapateruaren narru ori dala eta ez dala. Gero be sarri aitututen gendun zapateruaren kontu baragarria.

6.2. Ugarteko iturrien kontuak

Bueno, lamiñena aiteitustesu baie, ara, ni sano bildurtie ñatzu te ganera elelastikea d'orriin kontuek e gurago aitu es. Emen Ugarten oten i sirean, seinde or Ugerteburuko iturrien d'an beko Uratzeko iturringuruen be bai, baie nik i orrii estotziet sekule yamon andirik in, dotrinan be orrii kasu andirik in es iteko esatoskuen, kontue(k)t(d)iesela ta. Beste seoseri ekitea gure bosu ba sauk esan.

Iturriekaiti berba itea gurosule? Ori bai, ori gustetan yata se guk u iturri biek erabilten dus, bueno bata erasago dauku d'edateko gosoagoa da.

Iturri bata ementxe dao, Ugerteburuean, d'orriaxe dao bidesiorra d'ortixik ekartu iturrikure. Metal ure da, metal andie dauko, ta yarroa ondo irukutzi bea da barriro bete orduko, sespabere sumikea iten yako barruen da gustue kentzeotzo. Gero ori iturri ori Undurrakoa(k)p(b)usetan daudie. Andi Sabisarreko bolalekue baño aurreratxoagoti bajatu te subie dao inde, oin sementoskoa baie lenao egurreskoa, bitarteak soiekas tapaute sein ankan bat sartu age bitarteti. Eskudela be iminite dauko sein baten bat amildu errekarra da mankau.

Baie, iturrie, bestea da isiteko iturrie. Uratsen dao, d'an dauku txabolea be, kotxerea esatotzu. Bueno, ori iturri ori uratzeskoa da, atza botaten dau bota be gero e, da ba onik gure usabak eta, Ípiñatarrak bañutzea in audien or urazdun iturrien. Kaltzada sarran ondoko soloan in audien. Sure amama Paulak esotu auen martxan baia ni nauk es.

Bueno, laminena aitatu deustazu baina, ara, ni sano bildurtia niatzu eta ganera elelastikea eta orriin kontuak e gurago aitatu ez. Emen Ugarten egoten ei zirean, zeinde or Ugarteburuko iturrian eta an beeko Uratseko iturri inguruan be bai, baina nik i orreiri ez deutsiet sekula jaramon andirik egin, doktrinan be orreiri kasu andirik egin ez egiteko esaten euskuen, kontuak dirala eta. Beste zeozeri ekitea gure badozu ba zeuk esan.

Iturriekaitik berba egitea gura dozula? Ori bai, ori gustetan jat ze guk u iturri biak erabilten doguz, bueno bata erazago daukagu eta edateko gozoagoa da.

Iturri bata ementxe dago, Ugerteburuean, eta orriaxe dago bideziorra eta ortixik ekarten dogu iturriko ura. Metal ura da, metal andia dauka, eta jarroa ondo irukutzi(irakutzi) bear da barriro bete orduko, ze ezpabere sumikea egiten jako barruan eta gustua kentzean deutso. Gero ori iturri ori Undurrakoak be usetan daudie. Andik Sabizarreko bolalekua baino aurreratxoagotik bajatu eta zubia dago eginda, orain zementozkoa baina leenago egurrezkoa, bitarteak zoiekaz tapatuta zein ankaren bat sartu age bitartetik. Eskudela be iminita dauka zein bateren bat amildu errekarra eta mankatu.

Baina, iturria, bestea da izateko iturria. Uratsen dago, eta an daukagu txabolea be, kotxerea esaten deusagu. Bueno, ori iturri ori uratsezkoa da, atsa botaten dau bota be gero e, eta ba oneik gure ugazabak eta, Ípiñatarrak bañu-etxea egin eudien or urasdun iturrian. Kaltzada zaarraren ondoko soloan

Uratzeko bañutzea, ba, denporeagas gausestandu in i sen d'ango arriek e beste etze batzuk iteko erabili sirean. Gure etze au iteko be bai, se, yakingosu esta? Au etze au erre in yakun deskuidu betegaiti.

Se pasau yakun? Ba, sera, kortabearrak iten gabisela, kandelargiegas, se undiño eskaunken kableko argie ta ba goien umea negarres barruntau te umeari yamon iten yoan orduen, bueltarako txarriek e segun itxurea kortatxiko atea bota da kandelargie iminite gaunken sana mogidu te kandlea yausi te kortako aspigarriek e sue artu t'alantxik erre yakun etzea da gero ba barrie in bear usabak (g)aure laguntzeagas d'ausokoanakas. Grasiak e etzerreana batu te jentek a lagunduskune, ostaintxean selan burutu gulango errentore batek?

Uratzeko arriok o olantxi aprobetxau sirean baie iturrie an dao oin be da ergoieneko jente asko yoaten da bertara uratzetan.

Guk u yoakera andiagoa aukiu se, antxe, bañutze sarran beste aldean gure usaban propidadeak txabolea dauko, kotxerea esatetzune, d'antza, segun esatoskuen, an kotxeran itxiten audiesan, serok, orrik i burdibolanteok edo, auren kaballo ta gusti bañutzeroa etorten sireanean, aberatzak isingo sirean, d'ortik i dauko kotxerea isena. Oin i, sererako, bedar sikurereko edo gari denporan gariak (g)ordetako be usetan du, da mesede anadie itosku naite gero akarreoan in bear. Da, ba, esan dotzutena, guk u pitean-pitean yoan bear isiten gaindun Uratzeko soloatara ta ba uratza sarri edan du d'akostunbrau in gara. D'an gaosela sarri ikusten gaindun

egin eudien. Zure amama Paulak ezagutu euan martxan baina nik neuk ez.

Uratseko bañu-etxea, ba, denpore-agaz gauzeztandu egin ei zan eta ango arriak e beste etxe batzuk egiteko erabili zirean. Gure etxe au egiteko be bai, ze, jakingo dozu ezta? Au etxe au erre egin jakun deskuidu bategaitik.

Zer pasatu jakun? Ba, zera, kortabearrak egiten gabilzala, kandelargiagaz, ze oraindino ez geunkan kableko argia eta ba goian umea negarrez barruntatu eta umeari jaramon egiten joan orduan, bueltarako txarriak e segun itxurea kortatxiko atea bota eta kandelargia iminita geunkan zarana mogidu eta kandlea jausi eta kortako azpigarriak e sua artu eta alantxik erre jakun etxea eta gero ba barria egin bear ugazabak geure laguntzeagaz eta auzokoanaz. Graziak e etxe-errearena batu eta jentek a lagundu euskuna, osterantzean zelan burutu gulango errentore batek?

Uratseko arriok o olantxik aprobetxatu zirean baina iturria an dago orain be eta Ergoieneko jente asko joaten da bertara uratzetan.

Guk u joakera andiagoa euki dogu ze, antxe, bañu-etxe zaarraren beste aldean gure ugazabaren propidadeak txabolea dauka, kotxerea esaten deutsaguna, eta antza, segun esaten euskuen, an kotxeran itxiten eudiezan, zerok, orreik i burdibolanteok edo, euren kaballo eta guzti bañu-etxera etorten zireanean, aberatsak izango zirean, eta ortik ei dauka kotxerea izena. Orain i, zererako, bedar sikurako edo gari denporan gariak gordetako be usetan dogu, eta mesede andia egiten deusku naita gero akarreoan egin bear. Eta, ba, esan deusudana, guk u pitean-pitean joan bear iza-

Sasola edo Ermitabarriko jentea uratzetan, garauentza(t)p(b)e onan batek isin bea dau te seguru. D'isin be isin ingo da segun esataudien. Ai! D'estotzut esan, baie, iturrikure egun argis akarteko agindue aukiten gaudun e, se, olan e aimarie(k)tx(y)o ta gero ekarri esketiño "Jesus" esan bear isite san kalterik in es iteko eta sure amaman amari daukotzet entzunde, aurrek olangoatan, aimare ostaien ekarri eskero ilinti bategas kurtzea iten otziela yarroko iturrukureri sein kalte in.

Olango erresuek eta iteko seoser ongo da. Gure iturrie, txorrodune da d'ure garbi dator bere metala goiti biti, baie, Sabaleko iturrie esta txorrodune, potxingoa da, bueno, askea inde ure artzeako da, ba, a atxure, metalure baño garbiagoa yatzu baie klaro, ganaduen bat arrimau esketiño d'apatxak sartu ba, derigor loitu bear, d'iños kontauskue Sabalekoak sur ibilten sireala iturrikuregas, bates be umeak ekarri esketiño. Uin ai(k)p(b)e ure etzean daukie iminite da bake santu bet.Labaderorik auki un? Bueno, emen Ugerten etze bako-txa(k)p(b)ere arrie auki u errekontran. Onik, Justotxunak goirengo, gero beratxugoaan guk eta berengo Julian da Txominek. Onik i beinipin anaje bitzuen artean in audien labaderotxu bet errekean kontra-kontran, ertzeko atxa aprobetxaute. Ortxe, etzepeko errekarroan iten gaudun selanbaist e gure erropan garbikusie, baie lelengo lexie etzean e, gastañegurresko aska baten da gero errekan garbitu, biortu bien arte, gero anile bota da gero ba altzikituten itxi d'atzenean kakoan eskegi, da denpora txarragas kamaran. Da olan

ten gendun Uratseko soloatara eta ba uratsa sarri edan dogu eta akostunbratu egin gara. Eta an gagozala sarri ikusten gendun Sarasola edo Ermitabarriko jentea uratsetan, garauentzat be onen batek izan bear dau eta seguru. Eta izan be izan egingo da segun esaten eudien. Ai! Eta ez deusut esan, baina, iturriko ura egun argiz akarteko agindua eukiten gendun e, ze, olan e abemariak jo eta gero ekarri ezketino "Jesus" esan bear izaten zan kalterik egin ez egiteko eta zure amamaren amari daukotsat entzunda, eurak olangoetan, abemaria ostean ekarri ezkerro ilenti bategaz kurtzea egiten eutsiela jarroko iturriko urari zein kalte egin.

Olango errezuak eta egiteko zeozer egongo da. Gure iturria, txorroduna da eta ura garbi dator bere metala goiti beeiti, baina, Zabaleko iturria ez da txorroduna, potxingoa da, bueno, askea eginda ura artzeako eta, ba, a aitz- ura, metal-ura baino garbiagoa jatzu baina klaro, ganaduren bat arrimatu ezketino eta apatxak sartu ba, derrigor loitu bear, eta inoz kontatu deuskue Zabalekoak zuur ibilten zireala iturriko uregaz, batez be umeak ekarri ezketino. Orain aik be ura etxean daukie iminita eta bake santu bat.Labaderorik euki dogun? Bueno, emen Ugarten etxe bakoitzak bere arria euki dogu errekontran. Oneik, Justotxurenak goirengo, gero beeratxugoaan guk eta beerengo Julian eta Txominek. Oneik i beinik bein anaje bitzuen artean egin eudien labaderotxu bat errekearen kontra-kontran, ertzeko aitzia aprobetxatuta. Ortxe, etxepeko errekarroan egiten gendun zelanbaist e gure erropan garbikuzia, baina leenengo lexia etxean e, gaztainegurrezko aska

e gixonan frakak eta, saskeldute edo kortikeagas oten sireanean, ba, nik i, erreka ko ur korrentean iminten nausen arri be(t)k(g)anean dala d'antxe itxi beratan, kostra anditxuena yoan arte da gero yo arrien.

Surok Undurrakook e labaderoalangoa daukosue. Sure aitek eta sementoagas in audien labadero ederra burriñasko tuboa iminite goragoti. Ugertekoa baño luseagoa ta sakonari andiagokoa. Gero erropea yoteko arrie(k)p(b)e bi daukos se sarriten suon amama Paula ta isiko Martzelina bia(k)p(b)atera yoaten sirean erropa garbitan d'arkaleri lagundu kuñeta biek. Ixeratarako ta labaderoa askos ohea yatzu, gu, emen errekan danabearrean ibiltan gaintzesan sein lupetzagas loitu, se orrik i liñosko ixerak lekue be beaurie gero, da labaderoan, bien arte didau beten akletan dires ixerari alderik alde goatute.

Ganaduek e sedaten audien? Ba, ganaduek e erreka atetan gaindusen uredaten baie ausokoa yagon iten gaindun nastu es iteko. Ganadu esiekas es, baie esi bakoakas kontu andie auki bear isite san sein sustau t'aberien bat in. Sure amak esanda dakiu, baie, sure Uriondoko amama be olantxik i baiek eskubitorra sapaldu da gero kangreneagas il yatzuen. Onik i beintxak eta txalsekorrak isiten dires uxogoak.

Ikustosu? lamiñak eta aldea batera itxius da bitu selango barbal die in dun iturrio(k)t(d)irela d'estirela. Suo(k)p(b)ai suok oin ondo? Sure aitek eta saurontzat esese, ganaduentza(t)p(b)e ure imini osue, kortan obra andie inde. Lengunean ikusi naindun d'ikeratute lotu naintzen

baten eta gero errekan garbitu, biurtu biren arte, gero anila bota eta gero ba altzikituten itxi eta atzanean kakoan eskegi, eta denpora txarragaz kamaran. Eta olan e gixonaren frakak eta, saskelduta edo kortikeagas egoten zireanean, ba, nik i, erreka ko ur korrontean iminten neuazan arri bat ganean dala eta antxe itxi beraetan, kostra anditxuena joan arte eta gero jo arrian.

Zuok Undurrakook e labaderoalangoa daukazue. Zure aitik eta, zementoagaz egin eudien labadero ederra burriñazko tuboa iminita goragotik. Ugartekoa baino luzeagoa eta sakonari andiagokoa. Gero erropea joteko arriak be bi daukaz ze sarritan zuon amama Paula eta izeko Martzelina biak batera joaten zirean erropa garbietan eta alkarrerri lagundu koñata biak. Izaratarako eta, labaderoa askoz ohea jatzu, gu, emen errekan danabearrean ibiltan gintzazan zein lupetzagas loitu, ze orreik i linozko izarak lekua be bear daudie gero, eta labaderoan, biren arte didau baten akletan dira izareari alderik alde goratuta.

Ganaduak e zer edaten eudien? Ba, ganaduak e erreka atetan (ateraten) genduzan ura edaten baina auzokoa jagon egiten gendun naastu ez egiteko. Ganadu eziekaz ez, baina ezi bakoakaz kontu andia euki bear izaten zan zein sustatu eta aberiren bat egin. Zure amak esanda dakigu, baina, zure Uriondoko amama be olantxik i beiak eskubitorra zapaldu eta gero gangreneagaz il jatzuen. Oneik i beintxak (bigantxak) eta txalzekorrek izaten dirra uxogoak.

Ikusten dosu? Laminak eta aldea batera itxi doguz eta begitu zelango berbaldia egin dogun iturriok dirala eta ez

adelantuegas, baiek musturregas sakatu t'uredan, olangorik? Ori bai ori komerentzie!

dirala. Zuok bai zuok orain ondo? Zure aitak eta, zeuontzat ezeze, ganaduentzat be ura imini dozue, kortan obra andia eginda. Leengo egunean ikusi nendun (neuan) eta ikaratuta lotu nintzan adelantuagaz, beiak musturragaz sakatu eta ura edan, olangorik? Ori bai ori kome-nientzia!

7.2. Mari, Anboton eta Supelegorren

Aititeamamari sarri daukotziet entzunde ori Anbotoko Señorean kontu ori, edonosko kontue ixin be. Gure sarrak ee... olango gausa asko kontetoskuesan bates be negu inguruen an besuen obuen bernutzik eta esku kiputuek berotan oten gintzesanean sein otzatragau.

Gurean, aitite gendun kontulariagoa eta gaubiluntzetan artagarantan eragoion bitartean itzelesko kontuan kontetoskusan, seinbet gure t'axen beste.

Baten e, Anbotoko Señorean kontuekas asi jakun, denodu gustiegas asi be, segun itxurea berari be asko gutetan yakosan da. Aikomen-san ako aik edurtzapotausen urteko gaulendi beten gaure aititeri agorik ara entzuneko kontuok. Olantxik asi jakun:

“Marin kontue(k)tx(y)akin gurosues? Ba, aitu sur gauretxuok. Ninau(k)p(b)e gure aurrekoari entzunda daukotziedanez, guk Anbotoko Señorea deretxagunek Mari i eukan ixena, t'Anboto sana letxe bere okolu alosokoana, ba ortixi(k)tx(y)-atorko Mari Anbotokoa ixena bera be,seguru.

Aititeamamari sarri deukotset entzunda ori Anbotoko Señorearen kontu ori, edonoizko kontua izan be. Gure zaararak e olango gauza asko kontetan euskuezan batez be negu inguruan an beesuaren oboan bernutsik eta esku kiputuek berotuten egoten gintzazanean zein otzak tragadu.

Gurean, aitita gendun kontulariagoa eta gaubiluntzetan artagarantan eragoion bitartean itzelezko kontuak kontetan euskuzan, zeinbat gura eta arexen beste.

Baten e, Anbotoko Señorearen kontuekaz asi jakun, denodu guztiagaz asi be, segun itxurea berari be asko gustetan jakozan eta. Aikomenzan arako areik edurtzak bota euazan urteko gaulendi baten geure aititari aorik ara entzuneko kontuok. Olantxik asi jakun:

“Mariren kontuak jakin gura dozuez? Ba, aitu zuur geuretxuok. Nik neuk be gure aurrekoei entzunda deukotse-danez, guk Anbotoko Señorea deritzagunak Mari ei eukan izena, eta Anboto zan letxe bere okelu alozokoena, ba ortixik datorko Mari Anbotokoa izena bera be, seguru.

Nor, nongoa eta noizkoa dan? Batek badaki! Guk u, Jesukristo jaio aurreko personajea zalazkoa deukotsu

Nor, nongoa eta noskoa dan? Bate(k)p(b)aki! Guk u, Jesukristo yayo aurreko pertsonajea salaskoa daukotzu entzunde, oniri serori, abade ta fraileari bates be, da ba sera, errien in ixineko seoser sugertetan sanean, min bako arrana ugerra(k)tx(y)aten dauela ta, beragana yoaten sireala erritarra(k) konsulta eskatan eta erantzun itotziela onesean yoaneskero, txarresean barres e , mantzinek ixin bear i auen seguru! Kobasuloko atakaraskero, kontus e, aurrerantza sartu bear ixiten san eta atzerantza urten badaespada, sein beragas lotu barruen betiko. Batenba(t)p(b)e burlesartzat artzegaitiño estukura gorrie(k) pasaute i dao bildursartue ta berbaltue kendu esinik.

Bixi, kobasuloatan bixi i sen seguru. Emen gure parajea, Biskai partean, yakine, kobasulo bi i auke-san bere-berenak, Anbotokoa ta Supeleorrekoa Gobayen, Itxinako asduien, Atxulo baño arean barruratu-xugoan, Oroskorantza inean, ni nau be edonos onda nao an, soldadiska aurreti. Anboton denpora geao emoten i auen Supeleorren baño. Urterik urteko udabarriagas naste, garretan da txispotzean yoaten i sen Supeleorreti Anbotora Dimeko Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi inde ango sorgin da ganetiko gustiekas. Suok estosue yakin b'ingo baie, atxine, Dimen, Lamindao ganean Petralandako Landea dao eta antxe iten i auriesan sorginek eta beste ganetikoak auren funtzinoak akar deabrue erdien dauriela. Enoatzue ango serik i kontau be iten, parte txarrekoakandik i egun argis apartau obe, aitearen da semearen...ostaintxean?

Bein Anbotoraskero, udebarrie asten san, da beragas soloariak eta

entzunda, oneiri zerori, abade eta fraile-eri batez be, eta ba zera, errian egin ezineko zeozer sugertetan zanean, miin bako arrana ugerrak jaten dauala eta, beragana joaten zirala erritarrak konsulta eskatan eta erantzun egiten eutsiela onezean joan ezkeru, txarrezean barriz e , mantzinak izan bear ei euan seguru! Kobazuloko atakaraz gero, kontuz e, aurrerantz sartu bear izaten zan eta atzerantz urten badaezpada, zein beragaz lotu barruan betiko. Batenbat be burlazartzat artzegaitino estukura gorriak pasauta ei dago bildursartua eta berbaltua kendu ezinik.

Bizi, kobazuloetan bizi ei zan seguru. Emen gure parajea, Bizkai partean, jakina, kobazulo bi ei eukazan bere-bereak, Anbotokoa eta Supelegorrekoa Gorbeian, Itzinako azduian, Atxulo baino arean barruratxugoan, Orozkorantz einean, ni neu be edonoiz egonda nago an, soldadiska aurretik. Anboton denpora geiago emoten ei euan Supelegorren baino. Urterik urteko udabarriagas naaste, garretan eta txispotzean joaten ei zan Supelegorretik Anbotora Dimako Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi eginda ango sorgin eta gainetiko guztiekaz. Zuok ez dozue jakin be egingo baina, antxina, Diman, Lamindao gainean Petralandako Landa dago eta antxe egiten ei eudiezan sorginak eta beste gainetikoak euren funtzinoak aker deabrue erdian daudiela. Ez noatzue ango zerik i kontatu be egiten, parte txarrekoengandik i egun argiz apartadu obe, aitearen eta semearen...osterantzean?

Bein Anbotoraz gero, udabarria asten zan, eta beragaz soloariak eta basoak orrira eta lorera etorten ziran, gaurko moduan, baina antxina udabarria

basoak orrire ta lorara etorten sirean, garuko moduen, baie atxine udebarrie Marik ekarten auela pentzeta(n) san, da bate(k)p(b)añño geaok siñistu be bai, jenteak etzeukalako gaur beste konosimintu. Mari garretan ikusten i audien Supeleorreti Anbotora t'axe ixite(n) san udebarrien señale ta erritarren posa, urteko yakia logretako.

Da, ba gero, udebarririk ara, sera, udea ta udako koxitzak. Emen, liñoa, garie ta jenero geao be kuxau ixin du eta gure aurrekoak es aukienes denporalean kontrako erremediorik i, ba arriskuek arrimau ala, Mari Anbotokoari iten i otzien bisita koxitzak kontzebretako, se klaro, koxitza txarrakas ser? ba, esaukie ta gosea, kendu bakoa ganera, no(k)p(b)ete etzekadatako biripoak?

Udagoiengan, arto, fruta, ortuari eta gantetiko yakia(k)p(b)atzean sirean negu gogorrari autziteko. Semendi aurretuan liñoa ereite(n) san eta geroago garie ernaro onera etorri eta urrengo udebarrien askai onagas garatuteko.

Solo bearrak akabauskero, idebateak, egurgintzea, iketzegostea ta olango bearrak etorte(n) sirean da denodu gustiegas eragoion jenteak aaa... biximodue aurrera atetako, d'in in bear, ostaintxean gosea(k)tx(y)an.

Neguegas ba(t)p(b)atera, Anbotoko kobasuloa itxi te Anbotoko Señorea garra dariola ta txisplotzean ikusten i sen Supeleorreko kobasuloan sartzean. Antxe emoten i ausen neguko egun da gaube luseak. Estostesue siñistu b'ingo baie, ni naupe ikusite dauko(t)p(b)aten Mari Anbotokoa garretan sartzean Supe-

Marik ekarten euala pentsetan zan, eta batek baino geiagok sinistu be bai, jenteak ez eukalako gaur beste konozimintu. Mari garretan ikusten ei eudien Supelegorretik Anbotora eta axe izaten zan udabarriaren seinale eta erritarren poza, urteko jakia logretako.

Eta, ba gero, udebarririk ara, zera, udea eta udako koxitzak. Emen, linoa, garia eta jenero geiago be kogidu izan dogu eta gure aurrekoak ez eukienez denporalearen kontrako erremediorik i, ba arriskuak arrimadu aala, Mari Anbotokoari egiten ei eutsoen bisita koxitzak kontzebretako, ze klaro, koxitza txarrekaz zer? ba, ezeukia eta gosea, kendu bakoa gainera, nork bete etxekadetako biripoak? Inoz pasatu be egin da hori gero e! batezbe urte euritsuetan. Euri urteetan antza, Mari Anbotokoa itsasotik ibilten ei zan inizituotsean, da, ba, jakina, orrexek fundetan ei euazan eurite eta uriolak eta legorrekoak pagadu bear galtzaiak, bueno, itsasoan bertan be deskalabruak pasadu dira gero e!

Udagoiengan, arto, fruta, ortuari eta gantetiko jakiak batzean ziran negu gogorrari eutsiteko. Zemendi aurretuan linoa ereiten zan eta geroago garia ernaro onera etorri eta urrengo udabarrian azkai onagas garatuteko.

Solo bearrak akabadu ezkerro, idaebateak, egurgintza, ikatzegostea eta olango beharrak etorten ziran eta denodu guztiagaz eragoion jenteak aaa... bizimodua aurrera aterateko, eta egin egin bear, osterantzean goseak jan.

Neguagaz bat batera, Anbotoko kobazuloa itxi eta Anbotoko Señorea garra dariola eta txisplotsean ikusten ei zan Supelegorreko kobazuloan sartzean. Antxe emoten ei euazan neguko egun

leorren. Egie da gero ori! Ike-tzegosten nengoan beste biges Lekandapean da, serean, Gabon bespera besperan ukusi gendun Itxinan sartzean. Bildur andiagorik i sekula santan be esto(t) pasau!

Negue, denpora bardin, luseago ite(n) san naite egune lusetus yoan. Baie, egune(k)tx(y)oan egunek etorri, negue be yoan itesan da barriro be udebarrie allegau danon poserako.

Neguek e losorroti urtetan aue-nean udebarrie yayote(n) san eta beragas batera Mari Anbotokoak a Supeleorretik urten eta Anbotoko bidea artzean i auen eta olan ibili i sen kristau aroko denpora barrien podasus siñiskerori aistu arte”.

Beno ba, gitxibe(t)k(g)orago berago, aikorsan gure aititen kontuok. Guk u, aititeri, kontu kontetan asten yakunean, begiri(k)p(b)e eskauntzen kentzean, da, ixilduten sanean dana gintzesan preguntea, da ba, gasteagoak ixitera, eskolati t’ ele-xako dotrinati yakiten gendun krin-tiñaututen etorren erriek ie-ie gustis aistu ausela lenaoko siñiskerak.

Gure gogaldian, udebarrie ta negue bardin esautu dus baie usadioak kanbiaute. Esaterako, untzurarte udebarriti udara bitartean, soloak bedeinkatu iten sirean, abadeak iten ausen isopoa astindute lau axeetara. Da, ba, sera, ernaro onaren ostean ekatxa edo uriola arriskua barruntau esketiño, errogatibak iten sirean abadea aurreti dala.

Oin, gu gau be, sartzaroan sartu gara ta gure ostekoak gurea be aistuko daurie gaurko mundue, asko t’asko labrantzea itxi te bateko-besteko urire yoan yakulako. Ni(k) nau(k)-p(b)e fraikan emon doas urteak eta

eta gau luzeak. Ez deustazue sinistu be egingo baina, nik neuk be ikusita daukat baten Mari Anbotokoa garretan sartzean Supelegorren. Egia da gero ori! lkatzegosten nengoan beste bigaz Lekandapean eta, zerean, Gabon bezpera bezperan ikusi gendun Itzinan sartzean. Bildur andiagorik i sekula santan be ez dot pasadu!

Negua, denpora bardin, luzeago egiten zan naiz eta eguna luzatuz joan. Baina, egunak joan egunak etorri, negua be joan egiten zan eta barriro be udabarria allegadu danon pozerako.

Neguak e lozorrotik urtetan euanen udabarria jaioten zan eta beragaz batera Mari Anbotokoak a Supelegorretik urten eta Anbotoko bidea artzean ei euan eta olan ibili ei zan kristauaroko denpora barrien podazuz siniskera ori aaztu arte”.

Bueno ba, gitxi bat gorago beerago, aikorzan gure aititaren kontuok. Guk u, aititari, kontu kontetan asten jakunean, begirik be ez geuntsan kentzean, eta, isilduten zanean dana gintzazan preguntea, eta ba, gazteagoak izatera, eskolatik eta eleizako doktrinatik jakiten gendun krin-tinaututen etorren erriak ia-ia guttiz aaztu euazala leenagoko siniskerak.

Gure gogaldian, udabarria eta negua bardin ezagutu doguz baina usadioak kanbiaduta. Esaterako, oraintsurarte udabarritik udara bitartean, soloak bedeinkatu egiten ziran, abadeak egiten euazan isopua astinduta lau aizeetara. Eta, ba, zera, ernaro onaren ostean ekaitza edo uriola arriskua barruntadu ezketino, errogatibak egiten ziran abadea aurretik dala, prakagorri, deabru eta zerok o parte txarreko guztiok uxatuteko odei-lainoetatik.

uretak jubilau artiño. Se ingotzu ba? Datorrena datorrela, Kanales pastoreak esan beistike, sar on itea da kontue, esteretxasu?

Orain, gu geu be, zaartzaroan sartu gara eta gure ostekoak gurea be aaztuko daudie gaurko mundua, asko eta asko, labrantzea itxi eta bateko-beste ko urira joan jakulako. Zer egingo deusagu ba? Nik neuk be fabrikan emon dodaz urteak eta urteak jubilatatu arteraino. Datorrena datorrela, Kanales pestoreak esan beistike (sic), zaar on egitea da kontua, ez deritzazu?

7.3. Kadaguako deabru-zubia

Au kontu au, binke kontue, onik i Simon defuntuek eta beste modu betera kontet'oskuen baie ni nauk u beste klase batera be entzunde daukotzet lagun beteri an Kastrejana ganean Bilboko uren depositue iten ibili naintzanean. Urtea(k)t(d)ire... edonosko kontue ixin be.

Or o, serean, oño, Kastrejanati aurrera daoen errekeari selan esaten yako ba, errekoño, nire memorie, -Kadagua?- bai, orixe berberori, d'or seguru bixi i sen mutil gaste bat esta, da ba neskato bateri ixiotzon gurixine, bakisu, gasteen kontuek. Neskatoak a errekas bestaldean i auken baserrie, etxaguntzakoak, propitario andien baten alabea i sen da ganera guapea segun itxurea.

Beste leku askotan letxe, an be errekea pasetako bostasai arripausu i egosan seguru. Da ba b'ebisen bio(k)p(b)iotara iturrikuren atxakire arkal ikusten edo estakitzu(t)p(b)anik...

Kontue da ba se, sera, egun beten auri andie(k)p(b)ot'ausen inisitu t'odai astrapalotzagas, d'rrekea be

Au kontu au, bienke kontua, oneik i Simon defuntuak eta beste modu batera kontetan euskuen baina nik neuk u beste klase batera be entzunda deukotsat lagun bateri an Kastrejana ganean Bilboko uren depositua egiten ibili nintzanean. Urteak dira... edonoizko kontua izan be...

Or o, zerean, koño, Kastrejanatik aurrera dagoan errekeari zelan esaten jako ba, errekoño, nire memoria, -Kadagua?- (ebokazioa) bai, orixe berberori, eta or seguru bizi ei zan mutil gazte bat ezta, eta ba neskato bateri izan eutsan guraizana, badakizu, gazteen kontuak. Neskatoak a errekaz bestaldean ei eukan baserria, etxaguntzakoak, propitario andiren baten alabea ei zan eta ganera guapea segun itxurea.

Beste leku askotan letxe, an be errekea pasetako bost edo sei arripausu ei egozan seguru. Eta ba baebilzen biok biotara iturriko uraren atxakiara alkar ikusten edo ez dakitsut ba nik...

Kontua da ba ze, zera, egun baten euri andiak bota euazan inizitu eta odei astrapalotsagaz, eta errekea be andi eto-

andi etorren, ur andiekas, da k(l)aro, arripausuek e ukusi be esirean iten.

Mutil ori, aterriegas batera yoan san neskatoagana baie, esin pasau arripausuetati, da, oño, estututen asi sen. E(s)san atomau uger pasetan sein ur-korrenteak eroan d'ito. Neskatxiek e igirri otzen bere oneti urtenda daoela eta badiñotze:

- Estutu es sates in ba, gaur espada bigerko urok bajatuko dire ta
- Bajatu onik urtzarrok? Nosko? Ni nauk esi(n) nai etxon da besterik espada deabrueri ingotze(t)k(g)-edar untxe atoan ementxe subi bet iteko.
- Es mutil, esaixu olangorik in, esates nastu deabruegas esegaitiño be.

Baie, mutil orrek e, gurixinen gurixinegas, es otzen neskatoari kasuri(k)p(b)in da badiño santzo-gedarras:

- Untxe e(s)tx(y)atak agartuko deabrue subi bet iteko alderik alde?

Da, koño, berbok esan bausen ba se, agartuten yako deabrue, frakagorriekas da kaballo ganean, da badiñotze:

- Ser guro(k)p(b)a mutil ainbesteko intziguegas?
- Subie!
- Ori o(k)t(d)anori? Gure bok ingo yata, biger iguskiek urten baiño lenao inde daukek arrisko subie baie subie akabaus naste, ire arimea nauk eroango yoat a nauges. Konprome ao?
- Ongó e(s)no(k)p(b)a, asi t'in!

D'asi i sirean deabru frakagorriok subiginen, d'arin asi be denodu gustiegas. Mutile bere oneti urtenda egoan, garrastute, tipirrike. Neskatoa barres e negar baten errekean bestaldean bere mutilen arimea galdute ikusten auelako.

rren, ur andiekaz, eta klaro, arripausuak e ikusi be ez zirean egiten.

Mutil ori, aterriagaz batera joan zan neskatoarengana baina, ezin pasatu arripausuetatik, eta, koño, estututen asi zan. Ez zan atomatu uger pasetan zein ur-korrenteak eroan eta ito. Neskatxiak e igarri eutsan bere onetik urtenda dagoala eta badiñotso:

- Estutu ez zaitetz egin ba, gaur ez bada biarko urok bajatuko dira eta
- Bajatu oneik urtzarrok? Noizko? Nik neuk esin nei etxodon (itxaron) eta besterik ez bada deabruari egingo deusat gedar oraintxe atoan ementxe zubi bat egiteko.
- Ez mutil, ez egizu olangorik egin, ez zaitetz naastu deabruagaz ezergaitino be.

Baina, mutil orrek e, guraizanaren guraizanagaz, ez eutsan neskatoari kasurik be egin eta badino zantzo-gedarras:

- Oraintxe ez jatak agertuko deabrua zubi bat egiteko alderik alde?

Eta, koño, berbok esan ba euazan ba ze, agertuten jako deabrua, frakagorriekaz eta kaballo ganean, eta badiñotso:

- Zer gura dok ba mutil ainbesteko intziguagaz?
- Zubia!
- Ori dok danori? Gure badok egingo jak, biar eguzkiak urten baino leenago eginda daukak arrizko zubia baina zubia akabatuz naaste, ire arimea neuk eroango joat a neugaz. Konforme ago?
- Egongó ez nok ba, asi eta egin!

Eta asi ei ziran deabru frakagorriok zubiginen, eta arin asi be denodu guztia-gaz. Mutila bere onetik urtenda egoan, garrastuta, tipirrika. Neskatoa barriz e negar baten errekearen bestaldean bere mutilaren arimea galduta ikusten eualako.

Baie neskatoak a, lendi(k)p(b)e batenbateri entzunde edo, bitixu se esaotzen laño bitargietati ikusten auen itargiari:

– Itargie, esa eskuen daukotela baki(t)p(b)aie esango seuskio iguskieri biger goxean arean lenao urtetako?

Da, ba, antza komertasiñoa auki ingo aurien itargiek eta iguskiek, se urrungo goxean arean lenago urtauen iguskiek eta eskerrak orreri deabruen subie in akabau bari(k) lotu i sen seguru, d'arri beten faltan lotu be ganera. Baiii, iguskien argiek e podere barik itxiten i ausen deabru te ganetikoak. Ori be ixingo san ba e? Esteretxasu? Da gero ba urok esese, neskamutilo(k)p(b)e auren onera etorri i sirean da es auden geao deabruegas traturik in, badaspada. Egun argis apartau obe orrikandi. Orixe diñosku esan be esakera sarrak!

Baina neskatoak a, leendik be batenbateri entzunda edo, begitu egizu zer esan eutsan laino bitargietatik ikusten euan itargiari:

– Itargia, eza eskuan daukodala badakit baina esango zeuskio eguzkiari biar goizean arean leenago urtetako?

Eta, ba, antza komertazinoa euki egingo eudien itargiak eta eguzkiak, ze urrungo goizean arean leenago urten euan eguzkiak eta eskerrak orreri deabruen zubia egin-akabatu barik lotu ei zen seguru, eta arri baten faltan lotu be ganera. Baiii, eguzkiaren argiak e podere barik itxiten ei euazan deabru eta ganetikoak. Ori be izango zan ba e? Ez deritzazu? Eta gero ba urok ezeze, neskamutilok be euren onera etorri ei ziran eta ez euden geiago deabruagaz traturik egin, badaezpada. Egun argiz apartatu obe orreikandik. Orixe dinosku esan be esakera zaarrak!

7.4. Kadaguako deabru-zubia eta San Jose

Ori, sera, Kastrejanapeko errekea, Kadagua pasetako in audien subien beste kontu be(t)p(b)e badaikit e. An e Kastrejanaldean bearren ibili naintzanean, andi etorte san Barakaldoko gixon bat, sera yakon isena, Jesus Chavarri, da, bere lloba Jesus Mariges etorte san mendien ibiltan saleak sirean da, d'arexeri entzunde daukotzet. D'axek kontauten ba se, kontu ori, baie diferente, ikusikosu.

Segun itxurea, neskato ba(t)p(b)isi sen Kadaguan andiko partean, andikaldekoan, da bere mutil-lagune emetikoan, emetikaldekoan. Errekea

Ori, zera, Kastrejanapeko errekea, Kadagua pasetako egin eudien zubiaren beste kontu bat be badaikit e. An e Kastrejanaldean bearren ibili nintzanean, andik etorten zan Barakaldoko gizon bat, zera jakon izena, Jesus Chavarri, eta, bere lloba Jesus Marigaz etorten zan mendian ibiltan zaleak zirean eta, eta arexeri entzunda deukotsat. Eta arexek kontatu eustan ba ze, kontu ori, baina diferente, ikusiko dozu.

Segun itxurea, neskato bat bizi zan Kadaguaren andiko partean, andikaldekoan, eta bere mutil-laguna emetikoan, emetikaldekoan. Errekea pasetako, lee-

pasetako, lenaoko usure, arri-pausuek egosan, pausuko arri bet errekarri bateti bestera.

Da ba, baten, seguru, mutil orrek (g)errara yoan bear auen, seguru, te, ba despedidu in gurauen bere neskatoa, ta yoan be in sen, baie, egun orritan aurite andiek in ausen, da, ba errekea sano andi etorren d'arri-pausuek ikusi besirean iten, seguru. Da, ba, mutil ori artega, esin pasaute errekea, d'andikalderdien neskatoa arteak artu esinik. Orduen mutilek, antza, desesperasiñoan, maldisiñoa bototzen deabrueri. Bota bauen ba se juramentu ori, ene, e(s)tx(y)ako ba deabruer berbera agartuten kaballo ganean frakagorriekas! Da, ser? Da, ba deabruer:

- Ser guro(k)p(b)a mutil?
- Gure? Ba, subie, arri-pausuen ganeti naure neskatoa despeditako
- Ba, in ingo yata subi ori baie aure arimean truke. Auxe dok tratue: biger goxean iguskiek urtekeran ollarra(k)tx)yoorduko akabetan bayuk arrisko kamiño-subi ori, ire arimea gautzat. Argi yaok?
- Bai, bale, asi subiginen, atoan, biger egurdartean gerrara yoan bea yoat eta.

Deabruer, bueno, deabruer (g)ustiek asi i sirean subiginen, d'ango arriotza ta morimintue ikusikeran larritu in sirean neska-mutilok, sano estutu be, batesbe neskatoa, mutilen arimea sein galdu.

Orduen neskatoa, estukurean estukureagas, erresetan asi sen seruko Jangoiko ta santu gustieri laguntza eske mutilen arimea salbetako selanbaist. Bebisen, seguru, deabruok subiginen, da, in akabauen egosala, atzenengo arrie iminteko adien ego-

nagoko usura, arri-pausuak egozan, pausuko arri bat errekarri batetik bestera.

Eta ba, baten, seguru, mutil orrek gerrara joan bear euan, seguru, eta, ba despeditu egin gura euan bere neskatoa eta joan be egin zan, baina, egun orreitan eurite andiak egin euazan eta ba errekea sano andi etorren eta arri-pausuak ikusi be ez zirean egiten, seguru. Eta, ba, mutil ori artega, ezin pasatuta errekea, eta andikalderdian neskatoa arteak artu ezinik. Orduan mutilak, antza, desesperaziñoan, maldizinoa bota eutsan deabruari. Bota ba euan ba ze juramentu ori, ene, ez jako ba deabrua berbera agertuten kaballo ganean frakagorriekas! Eta, zer? Eta, ba deabruak:

- Zer gura dok ba mutil?
- Gura? Ba, zubia, arri-pausuen gainetik neure neskatoa despeditako
- Ba, egin egingo jak zubi ori baina eure arimearen truke. Auxe dok tratua: biar goizean eguzkiak urtekeran ollarrak jo orduko akabetan bajoaguk arrizko kamino-zubi ori, ire arimea geuretzat. Argi jagok?
- Bai, bale, asi zubiginen, atoan, biar egurdartean gerrara joan bear joat eta.

Deabrua, bueno, deabruak guztiak asi ei zirean zubiginen, eta ango arriotsa eta mogimentua ikusikeran larritu egin zirean neska-mutilok, sano estutu be, batezbe neskatoa, mutilaren arimea zein galdu.

Orduan neskatoa, estukurearen estukureagaz, errezetan asi zan zeruko Jaungoiko eta santu guztiei laguntza eske mutilaren arimea salbetako selanbaist. Baebilzan, seguru, deabruok zubiginen, eta, egin-akabatuan egozala, atzenengo arria iminteko adian egozala, oño!, San Jose agertu ei zan bere makileagaz zubi

sala, oño!, San Jose agartu i sen bere makilleagas subi ganean d'eskuetako makillori sartu justo deabruék atzenengo arrie imini bear audien suloan edo bitartean. Deabruék isin audien sartu bere lekuen arri ori San Josen makilleak enberasu itotzielako, es otzielako itxiten enkajetan atzenengo arrie. Alan ebisen, seguru, deabruék eta San Jose euren arteko trebituen, esbaien. D'orretan dabisela, iguskiek urten d'ollarra(k)tx)yootzien, ki-ki-ri-kiiii! Marti-ollarran bat isingo yatzun.

D'atzenean, ori Kadaguako subi ori arri beten faltan lotu i sen da mutile(k)p(b)ere arimea salbau in i auen. Apur betegaitik badarodie deabruok o Pedroboteron galdarara" mutil orren arimea.

9.3. Arrizurietako kontuak

Elexartzan bisi gaintzanean be entzunde gaunkesan emeko kontuek esta, baie Etzebarrire bisiten etorri gineanean ba emeko ausokoari t'entzunde Arrisurietako kontue(k)p-(b)e yakin in dus.

Arrisurita atxine esleku antza san seguru, se Undurrati Sasolara bitartean estao etzerik eta ori tramorri piñus beterik otera ba gaubiluntzan errespetoa emotekoa i sen, segu-segun...

Arrisurietako errekatxuti aurre-ratxugo, endemoniñosko mugarri bet (d)ao d'ortxe akabetan da Seberio. Andik atxine, Sasola dator d'Artea parte da, askos be eguskibegiagoa au gure au baño. D'ori, lañaberea daoenean isiten da esaunago, Sasolatik

ganean eta eskuetako makila ori sartu justo deabruak atzenengo arria imini bear eudien zuloan edo bitartean. Deabruak ezin eudien sartu bere lekuan arri ori San Joserren makileak enbarazu egiten eutsielako, ez eutsielako itxiten enkajetan atzenengo arria. Alan ebilzan, seguru, deabruak eta San Jose euren arteko trebituan, ezbaian. Eta orretan dabizela, eguzkiak urten eta ollarrak jo eutsien, ki-ki-ri-kiiii! Marti-ollarraren bat izango jatzun.

Eta atzenean, ori Kadaguako zubi ori arri baten faltan lotu ei zan eta mutilak bere arimea salbatu egin ei euan. Apur bategaitik badarodie deabruok o Pedroboteroren galdarara" mutil orren arimea.

Elexartzan bizi gintzazanean be entzunda geunkazan emeko kontuak ezta, baina Etzebarrira biziten etorri gineanean ba emeko auzokoari eta entzunda Arrizurietako kontuak be jakin egin doguz.

Arrizurietara antxina ezleku antza zan seguru, ze Undurratik Sarasolara bitartean ez dago etxerik eta ori tramo ori pinuz beterik egotera ba gauluntzean errespetoa emotekoa ei zan, segu-segun...

Arrizurietako errekatxutik aurre-ratxuago, endemoninozko mugarri bat dago eta ortxe akabetan da Zeberio. Andik antxina, Sarasola dator eta Artea parte da, askoz be eguskibegiagoa au gure au baino. Eta ori, lainaberea dagoan izaten da ezagunago, Sarasolatik

arantza iguskie d'onantza lañaberea. Terrenoak se iten dauen e?

Emen, oniri, ausokoari entzunde ba, or Arrisuritan gaubetan parte txarrekoak edo nik estai(t)p(b)a, nortzuk e baie agartu in ite sirealaskoa da jentea bildurtute oten sala. Lapurre(k)p(b)e bai seguru, onan e bidaskien bat feriti edo etorri eskero ganadue saldute.

Oin, Arrisuritati Etzebarrire bide ona dao baie Etzebarrikoak a pasoa besterantza auki daudie beti, Uratzerantza. An Urasganen aukiten gaindun kamiñopetxuen lekutxu bet inde oñetakoak mudetako. Abarkak eroaten gaindusen aldean da sapatak eskuen mesara ta yoateko, da, gure antzean beste askok e kamiñotik urrin bisi eskero. Arrisuritan, an e, kamiñoari dotzela, serean, kontraterrenoan, sulo andi be(t)p(b)e badao. Gerra denporakoa dala esaten daudie, errefujioa, sein ariplanoan tiroak norbera yo.

Bide ona daoela esan dotzut esta, baie ori bide ori, seragaitio da, emen Etzebarri te Arrisurita bitartean, lengo kaltzada sarreti ur, kantarea on san, d'oin be badao baie geldi. D'or o arri suriskea atetan audien da kamiñoraño bideak arri suri orregas beragas inde auken oñe t'akarreorako bear isitaudien. Estai(t)p(b)a arri ori nora eroat audien. Emeko sarrak esat audien ba ori arri suri ori autz iteko eroat audiel a gero pintura surie iteko edo. Kantarea birriteko aldiz ibili audien martxan. Gero bertanbera itxi aurien baie aldikada baten kintxoa atera edo iripasiko aurien usabok, birriten martxan iminteko kantarori.

D'arrie atetako burriñasko

arantza eguzkia eta onantza lainaberea. Terrenoak zer egiten dauan e?

Emen, oneiri, auzokoari entzunda ba, or Arrizurietan gauetan parte txarrekoak edo nik ez dakit ba, nortzuk e baina agertu egin egiten zirealazkoa eta jentea bildurtuta egoten zala. Lapurrak be bai seguru, onan e bidazkiren bat feriatik edo etorri ezker o ganadua salduta.

Orain, Arrizurietatik Etzebarrira bide ona dago baina Etzebarrikoak a pasoa besterantza euki daudie beti, Uratserantza. An Urasganen eukiten gendun kaminopetxuan lekutxu bat eginda oinetakoak mudetako. Abarkak eroaten genduzan aldean eta zapatak eskuan mezara eta, joateko, eta, gure antzean beste askok e kaminotik urrun bizi ezker o. Arrizurietan, an e, kaminoari deutsal a, zerean, kontraterrenoan, zulo andi bat be badago. Gerra denporakoa dala esaten daudie, errefujioa, zein aeroplanoen tiroak norbera jo.

Bide ona dagoala esan deusut ezta, baina ori bide ori, zeragaitino da, emen Etzebarri eta Arrizuriet a bitartean, leengo kaltzada zaarretik ur, kanterea egon zan, eta orain be badago baina geldi. Eta or o arri zurizkea ater aetan eudien eta kaminoranoko bideak arri zuri orregaz beragaz eginda eukan oina eta akarreo-rako bear izaten eudien. Ez dakit ba arri ori nora eroaten eudien. Emeko zaarrak esaten eudien ba ori arri zuri ori auts egiteko eroaten eudiel a gero pintura zuria egiteko edo. Kantarea birritako aldiz ibili eudien martxan. Gero bertanbera itxi eudien baina aldikada baten kintxoa atera edo irabaziko eudien uga-zabok, birritan martxan iminteko kantara ori.

Eta arria aterateko burrinazko

bagoiak aukiesan, or ongoire oin be ostu espaitues in, da, barre ingosu, baie bagoion errudak engrasetako, besterik esean, barakarroak erabilitaudean, auri antzagas goatu sos baten eta gero errudatan imini. A be isingo san ba miresie e? Da ganera ai(k)p(b)arakarroak sikiturduen, len baño txarrago.

Oin i, bitu selan direan gausak e, Arrisuritako eslekuti kotxeak etortire Etzebarrire, kantarea estable baie arentzat ineko bide firmea ondo yatorku.

Da ganera, oin kotxeak argiekas datos d'estao atxineko konturik. Atxine, bildurre bildurren ganean, ba gaubes e badalakoan isin es be igual, baie kontau bai, d'asko o aumentau be bai.

Guk ostera, an Elexartzan, dana basoa, da goien Aibelabeko atxa, puf, an agartuten san argiek e errespetoa sartze oskun gero e! Oin bestala bisi gara emen Etzebarrin. Emeti be tiradtxue dauku errire baie an baño auso geao emen Ergoienen.

bagoiak eukiezan, or egongo dira orain be ostu ez badituez egin, eta, barre egingo dozu, baina bagoion errudak engrasetako, besterik ezean, barakarroak erabilten eudezan, euri antzagaz goratu zotz baten eta gero errudetan imini. A be izango zan ba miresia e? Eta ganera areik barakarroak sikitu orduan, leen baino txarrago.

Orain i, begitu zelan direan gauzak e, Arrizurietako ezlekutik kotxeak etorten dira Etzebarrira, kanterea ez dabil baina arentzat egineko bide firmea ondo datorkigu.

Eta ganera, orain kotxeak argiekaz datoz eta ez dago atxineko konturik. Antxina, bildurra bildurraren ganean, ba gauzez e badalakoan izan ez be igual, baina kontatu bai, eta askok o aumentatu be bai.

Guk ostera, an Elexartzan, dana basoa, eta goian Aibelabeko aitzia, puf, an agertuten zan argiak e errespetoa sartzen euskun gero e! Orain bestela bizi gara emen Etzebarrin. Emetik be tiradtxua daukagu errira baina an baino auzo geiago emen Ergoienen.

9.4. Laminak uxatzeko gatza bota surtera jausitako esnari

Lenao, lámiñari bildur andie isiten yakon eta eurak uxatuteko naiko sereginik aukiten gendun gero e. Olango erremedio bat auxe yatzun: Aiko, lenao, besuen, laratzuti eskegite agosten san esnea maskilluen en general. Da, ba, batesbe su andie onaskero, eperdie emon orduko plasta-plasta, esneak a ganas itoskun da surtera yausi txingerrak kea dariola iminite. Orduen, gure sarran usadio-

Leenago, lámínai bildur andia izaten jakon eta eurak uxatuteko naiko zereginik eukiten gendun gero e. Olango erremedio bat auxe jatzun: Aiko, leenago, beesuan, laratzutik eskegita agosten zan esnea maskeluan en general. Eta, ba, batezbe su andia egon ezkerro, eperdia emon orduko plasta-plasta, esneak a ganaz egiten euskun eta surtera jausi txingerrak kea dariola iminita. Orduan, gure zaarren usadioari eutsinda, ba, artu

ari autzinde, ba, artu atoaan esku barru bete gatz eta surtera yausiko esne ganera botaten gaindun sabal-sabal lamiñak uxatuteko, esnesaleak i sirean da. Ori in esik, tximinitu sartzean i sireala gaunken entzutea, da, badaespada, gaz garapatxu ori botaten gauntzen. Gaurko gasteak estau-de olangorik iten baie gu(k)p(b)ai, akordatzakoan lamiñan bat agartuen be.

atoan esku barru bete gatz eta surtera jausiko esne ganera botaten gendun zabal-zabal laminak uxatuteko, esne zaleak ei ziran eta. Ori egin ezik, tximinitu sartzean ei zireala geunkan entzutea, eta, badaezpada, gatz garapatxu ori botaten geuntsan. Gaurko gazteak ez daude olangorik egiten baina guk bai, akordatzakoan laminan bat agertuan be.

11.6. Gauza bera era bitara ulertu

Au, Basoselain pasau sen. Gu, ba, Seberioako (g)ara baie gixonan bearragaitño Basoselain bixi gaintzesan, an Bidibieta ganean. Etxetxu bet in gaindun bisimodu bikoa d'ais-ta biok bisi gaintzesan ainbet urtean.

Da, ba, an gure ondo antzean Seberioko beste famili bet egoan bisiten, Erramunda ta Pedro Martana. D'aragotxuen Ines da Tomas. Tomas Seberioko Albitzukoa baie Ines, Arteako Igertzakoa d'orrik i Sasolatik arantzakook auskerea apurtxu bet e diferentea daukie, seinde, doméka barik dómeka esaten daurie, sápatue barik sápatue d'olan.

Da, ba, irutzuok (g)aunkesan umeak d'olgau be emen gure etzinguruen itaudien, landea egoan da

D'intera baten Inesen semea gaxokarik ibili sen, anginakas da ba umea(k)p(b)e yakitun egosan anginakas daoela ta.

Da, arrasti beten setako atako juntau in gaintzesan Erramunda, Ines d'irurok an gure etxe ondoan. Umeo(k)p(b)e an gaunkesan erdi ostikopetan da ba badiñotzet Ineseri:

Au, Basoselain pasatu zan. Gu, ba, Zeberioako gara baina gizonaren bearragaitino Basoselain bizi gintzazan, an Bidebieta(Basauri) ganean. Etxetxu bat egin gendun bizimodu bikoa eta aizta biok bizi gintzazan ainbat urtean.

Eta, ba, an gure ondo antzean Zeberioko beste familia bat egoan bisiten, Erraimunda eta Pedro Martarena. Eta aragotxuagoan Ines eta Tomas. Tomas Zeberioko Albitzukoa baina Ines, Arteako Igertzakoa eta orreik i Sarasolatik arantzakook euskerea apurtxu bat e diferentea daukie, zeinda, doméka barik dómeka esaten daudie, zapátua barik zápatua eta olan.

Eta, ba, irutzuok geunkazan umeak eta olgatu be emen gure etxe inguruan egiten eudien, landea egoan eta.

Eta intera baten Inesen semea gaxokarik ibili zan, anginakaz eta ba umeak be jakitun egozan anginakas dagoala eta.

Eta, arrasti baten zertako artako juntatu egin gintzazan Erraimunda, Ines eta irurok an gure etxe ondoan. Umeok be an geunkazan erdi ostikopetan eta ba badinotsat Ineseri:

- Ines, suon mutile angínakas daukasue esta?
- Bai, ánginekas dao, yakatzu, d’an dauket arturun beroa sedasko pañelu beten batute saman ia ba osatuten yatan eskolarik (g)aldu es iteko.

D’orretara, gure alaba txikerrak entzun in oskun komertasiñoa ta badiñoste ba se:

- Ama, suk angínakas daoela estostesu esan ala? Ser diño Inesek, ánginekas daoela?

Da, nik kontestau baño len non diñotzon Erramundak alborik ara gure alaba txikerrari:

- Dana dona bat neskato!

Klaro, umeak estaukie malesirik eta gure alabeak a pentzauen gaxo diferenteak sireala angínak eta ánginek. Oroskon be diferente iten da, esaun isiten da nor nongoa dan.

- Ines, suon mutila angínakaz daukazue ezta?

- Bai, ánginakaz dago, jakatzu, eta an daukat arto-urun beroa sedazko painulu baten batuta saman ia ba osatuten jatan eskolarik galdu ez egiteko.

Eta orretara, gure alaba txikerrak entzun egin euskun komertazinoa eta badinost ba ze:

- Ama, zuk angínakaz dagoela ez deustazu esan ala? Zer dino Inesek, ánginakaz dagoala?

Eta, nik kontestatu baino leen non dinotson Erraimundak alborik ara gure alaba txikerrari:

- Dana dona bat neskato!

Klaro, umeak ez daukie maleziarik eta gure alabeak a pentsatu euan gaxo diferenteak zirala angínak eta ánginak. Orozkon be diferente egiten da, ezagun izaten da nor nongoa dan.

11.7. Aho barrura begira frantsesa aditu ezinik eta ume-berbaikunea

Gure umeak aititususen eskero, beste baten e barre gure dana in gaidun onikas umeokas.

Ba, emeko famili bet orti beti etorri bet e ba Frantzien bearra daoela t’ara yoan san masduietan bear iten da ba gero modutxue in auenean bertan parau sen bisiten. Da ba, gure umean ideako alabea aukien de nosipinean Basoselaire etorten sirean auren familie ikusten d’egun betzu(k) pasetan.

Gurasoak erderas itaudien baie alabeak a frantzes be ondo itauen da gure umeakas olgetan oten sanean frantzesean be igual asten yakien da besteak aitu esinik ibilten sirean.

D’egun beten, ni(k) nauk esen-

Gure umeak aitatu dozuzan ezkeru, beste baten e barre gura dana egin gaidun oneikaz umeokaz.

Ba, emeko familia bat ortik beetik etorri bat e ba Frantzian bearra dagoala eta ara joan zan masduietan bear egiten eta ba gero modutxua egin euanean bertan paratu zan biziten. Eta ba, gure umeen ideako alabea aukien eta noizean beinean Basozelaira etorten zirean euren familia ikusten eta egun batzuk pasetan.

Gurasoak erderaz egiten eudien baina alabeak a frantzes be ondo egiten euan eta gure umeakaz olgetan egoten zanean frantzesean be igual asten jakien eta besteak aitu ezinik ibilten zirean.

tzun in nauntzien baie, emeko umeok asmau in nausen komertasiñoan d'anditxuenak esotzien besteari:

– Ia, biger ori frantzikoa datorrenean begitu in beotzu agoan edo barruragoan ia ser daukon barruen olan berba iteko, ia aparatuen bat edo daukon.

D'efetibamente, allegau yakie-nean frantzes ori imini audien danan erdien d'esan otzen sarrentxuenak agoa sabaltako da danak agora begire enausen ba topau! D'orretara esan nauntzien:

– Se iten dosuen baño esta agora begire, orrek estauko aparataturik es agoan es idunean, ori estakisue ba Frantzien yayo ta bisí dana? Berari, beste ainbeste pasetan yako suon auskereagas, estotzue bape aituten d'erderas iten dosue agaiti beragas arkal aituteko.

Da, tire, umeok o sosegau sirean da es otzien geao tabarrarik emon da olgetan segidu aurien komosinó. Baie, esan dotzutena, barre guredana in gaindun agoko edo iduneko aparatu ori dala t'estala. Akordau be iñoan danik oniri umeori e? Umeari txikiten berba selan iten yakien? Ba, umeberbaikunan, gu(k)p(b)eti in du olan gure ume txikerrakaz.

Eukites, umeak auren berbaikunea daukotzue, eta txikitekoa be polite jatzu, seinde, "txetxe" umeari, "txitxie" okeleari, "mama" ureri, "koko" txokolateari, "pupue" mine-ri, "porrot" uskerrari, "kos edo koskot" koskorrekoari, "txatxa" sagarrari, "lo-lo" lo iteari, "tas-tas" yote-ari, "apatxi" yarriteari, "taka-taka" oñez ibilteari, "mau-mau" yateari, "toto" txakurreri, "mixina" katueri,

Eta egun baten, nik neuk ez entzun egin neuntsien baina, emeko umeok asmatu egin neuazan komertazioan eta anditxuenak esan eutsien besteari:

– Ia, biar ori frantziakoa datorrenean begitu egin bear deutsagu aoan edo barruragoan ia zer daukan barruan olan berba egiteko, ia aparaturen bat edo daukan.

Eta efektibamente, allegatu jakie-nean frantses ori imini eudien danan erdian eta esan eutsan zaarrentxuenak aoa zabaltako eta danak aora begira ez neuazan ba topatu! Eta orretara esan neuntsien:

– Zer egiten dozuen baino ez da aora begira, orrek ez dauka aparataturik ez aoan ez idunean, ori ez dakizue ba Frantzian jαιο eta bizi dana? Berari, beste ainbeste pasetan jako suon eus-kerreagaz, ez deutsue bat be aituten eta erderaz egiten dozue agaitik beragaz alkar aituteko.

Eta, tira, umeok o sosegatu zirean eta ez eutsoen geiagio tabarrarik emon eta olgetan segidu eudien como si no. Baina, esan deutsudana, barre guredana egin gendun aoko edo iduneko aparatu ori dala eta ez dala. Akordatu be inon danik oneiri umeori e? Umeai txikitan berba zelan egiten jakien? Ba, umeberbaikunean, guk beti egin dogu olan gure ume txikerrakaz.

Eukitez, umeak euren berbaikunea deukatsue, eta txikitakoa be polita jatzu, zeinda, "txetxe" umeari, "txitxia" okelari, "mama" urari, "koko" txokolateari, "pupua" minari, "porrot" uzkerrari, "kos edo koskot" koskorrekoari, "txatxa" sagarrari, "lo-lo" lo egiteari, "tas-tas" jote-ari, "apatxi" jarriteari, "taka-taka" oinez ibilteari, "mau-mau" jateari, "toto" txaku-

“kurra” olloari, “papa” ogieri, “andi-andi” ibili edo paseeteari, “pa” mosueri, “popot” autoari, “arimea” odolari (odolak urten eskero, “arimeak urtengotzu”), “muuuu” baieri, “beeea” ardieri, “txio-txio” txiteari, “txantxurre” agin urten barrieri, “brun-brun” odaie(k)tx(y)oteari, “txine” diarueri, “fue” sueri edo “fu in” sueri, d’olangoak.

rrari, “ mixina” katuari, “kurra” oiloari, “papa” ogiari, “andi-andi” ibili edo paseateari, “pa” mosuari, “popot” autoari, “arimea” odolari (odolak urten ezker), “arimeak urtengo deutsu”), “muuuu” beieri, “beeea” ardiari, “txio-txio” txiteari, “txantxurra” agin urten barrieri, “brun-brun” odeiak joteari, “txina” diaruari, “fua” suari edo “fu egin” suari, eta olan-goak.

12.3. Bidekurtzeetako kiratsa

Gosetu aititu otzut esta? Ba, or bai, or Gostupeko kurtzeroan beti on da kiretza. Beti entzun de ba lamiñena edo orrin parte txarrekoan kiretza sala da barruntau be iten gaindun, naite lamiñarik eta ikusi es.

Da, sera, es emen bakarrik e. Ni, bakisu, argine isin nas da ba asko ibili nes etzeginen andi orti emeti, da, an Undurran etzeginen ibili gineanean be barruntetan gaindun kiretza antxe, serean, Albitzuko kurtzeroan d’errespetoa emotoskun gero e aronakoan.

Iños jente eskolaueri be preguntatu otzu sek emo laien kiretzori te ba esatoskuen ba se, ori leku eso eta, serean, iguskie(k)tx(y)oten estauen lekuetan oten dala d’isilitike, se, esan dotzuten leku bietan estau yo be iten iguskiek eta ganera bietan dao errekatxarkoa.

Serari, sakristaueri daukotzet entzunde, sera, ba, ori kiretzori mosolloana isingo dalaskoa se mosolloak elaxetako sagrario ondoko kurtzulu edo ontziko origoa edaten daudela da gero ain korotzat orixe kiretzori daukiela. Baie, estai(t)p(b)a,

Gorozitu aitatu deutsut ezta? Ba, or bai, or Gorozitupeko kurtzeroan beti egon da kiratsa. Beti entzun da ba lamiñena edo orrein parte txarrekoen kiratsa zala eta barruntatu be egiten gendun, naita laminarik eta ikusi ez.

Eta, zera, ez emen bakarrik e. Ni, badakizu, argina izan naz eta ba asko ibili naz etxeginen andik ortik emetik, eta, an Undurran etxeginen ibili gineanean be barruntetan gendun kiratsa antxe, zerean, Albitzuko kurtzeroan eta errespetoa emoten euskun gero e aronakoan.

Inoz jente eskolaueri be preguntatu deutsagu zek emon leian kirats ori eta ba esaten euskuen ba ze, ori leku ezo eta, zerean, eguzkiak joten ez dauan lekuetan egoten dala eta izan leitike, ze, esan deutsudan leku bietan ez dau jo be egiten eguzkiak eta ganera bietan dago errekatxarkoa.

Zerari, sakristauari deukotsat entzunda, zera, ba, ori kirats ori mozoiloe-na izango dalazkoa ze mozoilloak eleizetako sagrario ondoko kurtzulu (kurtzel(l)u edo ontziko orioa edaten daudiela eta gero aien korotzat orixe kirats

Gosetu te Albitzu pareko Kurtzebarri, elexati urrintxu daos.

Perretxiko klasean ba(t)p(b)e isi litike se batzuk u kiretza langoa aukiten daude.

Dana dalakoa, baie, ume denporan ganeko bildurre pasetan gaindun kirezokas d'olango kontuekas. Oin i estotzu mÍrarik iten olango kontueri da preguntau esik i kontau bes sein barre in edo lelotza(t)p(b)ota.

ori daukiela. Baina, ez dakit ba, Gorozitu eta Albitzu pareko Kurtzebarri, eleizatik urrintxu dagoz.

Perretxiko klaseren bat be izan leitike ze batzuk u kiratsa langoa eukiten daudie.

Dana dalakoa, baina, ume denporan ganeko bildurra pasetan gendun kiratsokaz eta olango kontuekaz. Orain i ez deutsagu mÍrarik egiten olango kontueri eta preguntatu ezik i kontatu be ez zein barre egin edo lelotzat bota.

12.4. Zimentu-harripeko urregorria

Gaur u sementoagas iten dire etzeak e baie lenao arriegas iten gaindusen. Ni, ba esan dotzuten moduen argine isin nes d'ainbet etze da tejamana in dot Seberion d'aragoan be bai eskatu esketiño.

Da, ori, sera, urregorriena preguntaustesunes, ba, bai, egie da. Bueno, beti esta urregorrie isin e, urresurie be bai te batzuk u edosein diru be bai. Non iminte san? Ba, aiko, etzea iteko, lelengo simintuek atera bea yakos, d'ondo atera be, lurre sakondute, d'atxa yo arte bada ogeto.

Da, ba usedioa egoan ba simintuetako lelengo kantoi-arrien aspian urregorrisko moneda bat iminteko, seinde, amaseiko gorri bet edo aun erleko gorrie, edo duketa edo ba urresurisko ogerlekoa edo beste diru klasean bat. Setako estakit seguru baie imini ite san, usadioa, segun u propitario baktotxan modue.

Bein simintuek ondo ateraskero, ormak altzetan gaindusen, sabalak e, se arri bitarteak lupetzagas betetan

Gaur u zementoagaz egiten dira etxeak e baina leenago arriagaz egiten genduzan. Ni, ba esan deutsudan moduan argina izan naz eta ainbat etxe eta tejabana egin dot Zeberion eta aragoan be bai eskatu ezketino.

Eta, ori, zera, urregorriarena preguntatu deustazunez, ba, bai, egia da. Bueno, beti ez da urregorria izan e, urrezuria be bai eta batzuk u edozein diru be bai. Non iminten zan? Ba, aiko, etxea egiteko, leenengo zimentuak atera bear jakoz, eta ondo atera be, lurra sakonduta, eta aitzia jo arte bada obeto.

Eta, ba usadioa egoan ba zimentuetako leenengo kantoi-arriaren azpian urregorrizko moneda bat iminteko, zeinda, amaseiko gorri bat edo eun errealeko gorria edo duketa edo ba urrezurizko ogerlekoa edo beste diru klaseren bat. Zertarako ez dakit seguru baina imini egiten zan, usadioa, segun u propitario bakoitzaren modua.

Bein zimentuek ondo atera ezkerro, ormak altzetan genduzan, zabalak e, ze

gaindusen, da derrigor in bear saba-lak etzeari autziteko.

Guk arginok, etzean erresuma-raño altzetan gaindusen ormak eta gero arotzie etorte san. Arotzak a ageak eta solibak imintaudiesan, solibari gauzea, etzebarrureko da gero erresumati gallurrera kabrioak. Ostaien ola yosi te talletue bota. Bueno, ola dana aprobetxetan san, onak e soliba ganetan yosteko etze barruen d'orrik kostanera edo ertze-koak kabrio ta tella bitarterako. Isin be, tellepean olak e bitarte batzuk aukin arren bardin aguantetan dotzo telleari. Gastañeari te ola atetako serrariak oten sirean. Onik i Etza-soko Pablo ta be serrari onak e, egurresko aldamiñoa in da bata goiti da bestea beti olginen trontzeagas. Bearleku gogorra, batesbe goikoa-ntzat, inder andie in bear trontzea gorantza altzetako.

Normalean, gastañegurre isite san, asko aguantetako, orrek e, serak, piñuek estau baligo, atoan gauestan-duten da, etexureti usteldu, edo sitze(k)tx(y)an. Agaitio ba, tellatue ondo in bea da. Da lenao ba es egoa-na letxe oingo adelanturik, tellatuari etexure ganean arriek iminten yakos-an tellea sujetetako sein axeak eta afruntuek eroan txirikelea letxe.

Da simintuetan esese, orma barruen be gordetan san dirue, d'orretarako ormea ikeran, iños sartu be in dot usabak eskatute, olango yarro murku bet edo beste olango lurreko ontzi ago sabal bat orman barruen gero an dirue gordetako.

D'arrie nondi atetan gaindun? Ba, onik i propietario andiek e kantaratati ekartaudien baie beste batzuk u etze yausien bateti edo etzerrean

arri bitarteak lupetzagaz betetan genduzan, eta derrigor egin bear zabalak etxe-ari eutsiteko.

Guk arginok, etxearen erresumarai-no altzetan genduzan ormak eta gero arotzia etorten zan. Arotzak a ageak eta solibak iminten eudiezan, solibari gauzea, etxebarrurako eta gero erresumatik gailurrera kabrioak. Ostean oola josi eta tellatua bota. Bueno, oola dana aprobetxetan zan, onak e soliba ganetan josteko etxe barruan eta orreik kostanera edo ertze-koak kabrio eta tella bitarterako. Izan be, tellepean oolak e bitarte batzuk eukin arren bardin aguantetan deutso telleari. Gaztañeari-eta oola aterateko zerrariak egoten zirean. Oneik i Etxazoko Pablo-eta be zerrari onak e, egurrezko andaminoa egin eta bata goitik eta bestea beetik oolginen trontzeagaz. Bearleku gogorra, batezbe goikoa-rentzat, indar andia egin bear trontzea gorantza altzetako.

Normalean, gaztaña-egurra izaten zan, asko aguantetako, orrek e, zerak, pinuak ez dau balio, atoan gauzeztanduten da, itaxuratik usteldu, edo sitsak jan. Agaitio ba, tellatua ondo egin bear da. Eta leenago ba ez egoan letxe oraingo adelanturik, tellatuari itaxura ganean arriak iminten jakozan tellea sujetetako zein aizeak eta afrontuak eroan txirikelea letxe.

Eta zimentuetan ezeze, orma barruan be gordetan zan dirua, eta orretarako ormea egikeran, inoz sartu be egin dot ugazabak eskatuta, olango jarro murku bat edo beste olango lurrezko ontzi ao zabal bat orman barruan gero an dirua gordetako.

Eta arria nondik ateraetan gendun? Ba, oneik i propietario andiak e kantara-

bateti edo espabere errekatati. Es pentzau e, baie ardurea isiten san ori arriena e, se arri gustiek estaude baligo etzegintzarako, seinde orrik area-riek e denporeagas area iten diren da urteakas bakisu ser datorren, goia(k)p(b)era.

B'orrixek (g)ausok.

Argintzatic aparte, soñularie be isines, soñu txikerra yoten dot ondiño be, baie etzean. Lenao, Seberioke plasea atetan nauen subastan, domeketan erromerie iteko. Baiii, erromeri andie ite san Seberioke plasan da yantzan be ainbetek. Andraskoak es baie gison gauseak pagau in bear isitauen tike bat yantzan iteko. Da tike ori paparrean yosten otzien kobradoreak olango orras txiki betegas. Erromeri andiek iten gaindusen baie batzutan txarto pasetan gaindun, seragas, orregas e baltzeoagas, se abade batzuk u galaso itaudien baltzeoko yantzea, pekaturreko bidea sala ta edo....baia tire, onik Seberioke abadea(k)p(b)ano, orrik Seanikoak askos gogorrangoak sirean orretan. D'oin ba, Ametza itxi te Subibarrire yoan gaintzesan bisiten, ara be errentan, baie oin semeak txaleta in dau Isisin d'emen nao posik, ser gure t'axe.

tatik ekarten eudien baina beste batzuk u etxe jausiren batetik edo etxe-erreren batetik edo ezpabere erreketatik. Ez pentsatu e, baina ardurea izaten zan ori arriena e, ze arri guztiak ez daude balio etzegintzarako, zeinda orreik area-arriak e denporeagaz area egiten dira eta urteakaz badakizu zer datorren, goiak beera.

Ba orreixek gauzok.

Argintzatic aparte, soinularia be izan naz, soinu txikerra joten dot oraindino be, baina etxean. Leenago, Zeberioke plasea ateraetan neuan subastan, domeketan erromeria egiteko. Baiii, erromeria andia egiten zan Zeberioke plazan eta dantzan be ainbateg. Andrazkoak ez baina gison gauzeak pagatu egin bear izaten euan tike bat dantzan egiteko. Eta tike ori paparrean josten eutsien kobradoreak olango orratz txiki bategaz. Erromeria andiak egiten genduzan baina batzutan txarto pasetan gendun, zeragaz, orregaz e baltzeoagaz, ze abade batzuk u galazo egiten eudien baltzeoko dantzea, pekaturreko bidea zala eta edo....baina tira, oneik Zeberioke abadeak baino, orreik Zeanurikoak askoz gogorrangoak zirean orretan. Eta orain ba, Ametza itxi eta Zubibarrira joan gintzazan biziten, ara be errentan, baina orain semeak txaleta egin dau Isasin eta emen nago pozik, zer gura eta axe.

13.3. Gerra osteko gorrotoak

Gerrako kontuek? Ara, aintu es ogeto, baie eskatuen ganera, ba, kon-tau ingotzudes. Urrinago yoan barik i ni nauri pasau yatana gerrostean. Isenak esan ingotzudes baie gurago

Gerrako kontuak? Ara, aintu ez obeto, baina eskatuaren ganera, ba, kon-tatu egingo deutsudaz. Urrunago joan barik i niri neuri pasatu jatana gerra ostean. Izenak esan egingo deutsudaz

naunke iñon sabaldu es itea, batzuk ilde be badaos da.

Ba, aitu, *bískaitarrak*, txarto pasau gaindu gerrostean, bates be entregau sirean batzukes. Besto batzuk ostera esoskuen kontratienporik imini te lagun in gaintzen barriro gerran enfrentaute ibili arren, d'eskondu be in dires ba(t)p(b)añõ geao bata bestean semalabakas.

Da, ba nirea onantxik isin sen. Plasako tabernan gengosan txikito bat artzean da orrik i karlista erresako bidiru arrimau te gañetu yatasan da badiñostie:

- Ia ver, oin esaik “gor(a) auskadi”
- Setako esan bea yoat ori- kostestau nauntzien bildurkilik e-, oin eskaoxak a gerran d'ori pasaute yaok.
- Pasaute? Es orixe.

D'asi yatasan yoten ikubilkasuke t'ostikeka da ba an itxi nainduen soruen itxunde mogitako be gausenintzela, d'aurek eskapau in audien mandasainok alangook.

Da, gero, ba, lagundustien baie ni esin sutundu d'atzera yausten naintzen sorure odola dariola. Denporeakarrenean, ya ilun kanpoan, beste *bískaitar* batzuk lagundute etzerako ditea artu nauen. Sekule e(s)tx(y)at in ain luse plasati Subibarrire.

Lagunok, portalean itxi nainduen d'eskillarak katuke igun naindusen.

Etzekoak enterau sirean da yaubatu be in yatasan, baie, medikue abixetan be bildur, d'enplastuek eta imini ostiesan baie mine kendu isin bates be saietzetan. Selan kenduko yatan ba saies bidiru apurtu in ostiesan da. Da, tire, saietza(k)t(d)enporea bear isiten daudiela banenkien da ba

baina gurago neunke inon zabaldu ez egitea, batzuk ilda be badagoz eta. (Beraz izenak ez ditugu agertuko)

Ba, aitu, *bískaitarrak*, txarto pasatu gendun gerra ostean, batez be entregatu zirean batzukaz. Beste batzuk ostera ez euskuen kontratienporik imini eta lagun egin gintzazan barriro gerran enfrentatuta ibili arren, eta ezkondu be egin dira bat baino geiago bata bestearen seme-alabakaz.

Eta, ba nirea onantxik izan zan. Plazako tabernan gengoan txikito bat artzean eta orreik i karlista errezako bi edo iru arrimatu eta gainetu jatazan eta badiñostie:

- Ia a ver, orain esaik “gora euskadi”
- Zertarako esan bear joat ori- kontestatu neuntsien bildurkilik e-, orain ez gagozak a gerran eta ori pasatuta jagok.
- Pasatuta? Ez orixe.

Eta asi jatazan joten ikubilkazuka eta ostikoka eta ba an itxi ninduen zoruan itxunda mogitako be gauza ez nintzala, eta eurak eskapatu egin eudien mandazainok alangook.

Eta, gero, ba, lagundu eustien baina ni ezin zutundu eta atzera jausten nintzan zorura odola dariola. Denporeakarrenean, ya ilun kanpoan, beste *bískaitar* batzuk lagunduta etzerako ditea artu neuan. Sekula ez jat egin ain luze plazatik Zubibarrira.

Lagunok, portalean itxi ninduen eta eskilarak katuka igon nenduzan (neuazan).

Etzekoak enteratu zirean eta jaubatu be egin jatazan, baina, medikua abixetan be bildur, eta enplastuak eta imini eustiezan baina mina kendu ezin batez be saietsetan. Zelan kenduko jatan ba

ogeta bost egun in nausen barruti jenteari erraumea naunkela esanda sein egiegas enterau bates be besteok.

Osatute gero be luseroan ataketan osten gero e a(k) paliseak, onan en partikular denporearen kanbioan da.

Gero, ba, urteak aurrera in de gero, ba ako niri lepoa berotuko bat il in sen da ba, usedioa danes ba intierurre be yoan naintzen asarrea aldea batera itxite. Da, mesea akabau sanean, usedioa dauku ileri mesea atetako norbera be mesako isiteko, ta ba besto batzukes moduen ni nau be sakristinire yoan da mesea atera nauntzen atzekoari begitu be in barik.

Elaxatik urtekeran beste bískaitar lagun bet on yatan etxoten elesportalean da badiñoste ba se:

- I, orrek in oana inde, intierrure etortea be naiko estok ala? Mesea be aterotzek estok?
- Ba, bai, e(s)tx(y)oa(a)uki bakerik i barruen da ba porsiakaso, iltea atzena dok eta e(s)tx(y)oa(t)k(g)ure kontzientzie kargetarik. Ara, Jangoikoa(k)tx(y)akingo yok se in beragas.

D'axe in naindun d'egie yakin gure bosu, barruko bakea gausandie da gero, bisie ba(t)p(b)año estaukte. Se mantzinek estauko barruko bakerik e, beti dao armin d'esta bisi posik. Olangoari barruek estotzo bakean itxiten. Gorrotoa esta lagun ona!

saiets bi edo iru apurtu egin eustiezan eta. Eta, tira, saietsak denporea bear izaten daudiela banenkian eta ba ogeita bost egun egin neuazan barrutik jenteari erraumea neunkala esanda zein egiaz enteratu batez be besteok.

Osatuta gero be luzaroan ataketan eustan gero e ak palizeak, onan en partikular denporearen kanbioan eta.

Gero, ba, urteak aurrera egin eta gero, ba arako niri lepoa berotutako bat il egin zan eta ba, usadioa danes ba entierrura be joan nintzan aserrea aldea batera itxita. Eta, mezea akabatu zanean, usadioa daukagu ilari mezea aterateko norbera be mezako izateko, eta ba beste batzukaz moduan ni neu be sakristaniara joan eta mezea atera neuntsan atzekoari begiratu be egin barik.

Eleizatik urtekeran beste bískaitar lagun bat egon jatan etxodoten (itxaroten) eleizportalean eta badinost ba ze:

- I, orrek ein euana eginda, entierrura etortea be naiko ez dok ala? Mezea be atera deusak ez dok?
- Ba, bai, ez joat euki bakerik i barruan eta ba por si akaso, iltea atzena dok eta ez joat gura kontzientzia kargetarik. Ara, Jaungoikoak jakingo jok zer egin beragaz.

Eta axe egin nendun (neuan) eta egia jakin gura badozu, barruko bakea gauza andia da gero, bizia bat baino ez daukagu eta. Ze mantzinak ez dauka barruko bakerik e, beti dago armin eta ez da bizi pozik. Olangoari barruak ez deutso bakean itxiten. Gorrotoa ez da lagun ona!

15.4. Oiloa ostu ezin eta pagatu egin behar

Ori olloan kontue, barre ingosu e, baie sano polite da. Niri be Don Damianek kontauten, bueno, niri te beste geori se ementxe ibili gaintzesan Samartolomeko ermiteari arotzie iten. Da, konfesarario sar bat egoan d'arexeri be in nauntzesan errepara-siño batzuk, sitzek edo sedana(k)-tx(y)anda aukena barristetan.

Da, deskantzetan on gaintzesanean bateri olloagas pasau yakona kontauskun Don Damianek. Sano abade kanpetxanue san da konfesararioan pregunta gitxi itekoa, da beti aukitauen jentea beragas konfesetako.

Da, sera, ba, baten seguru, urlie, gosea be andie ta ba ser yan gitxi. Sera akordau i yakon, urli lekuteko ollategire yoan d'ulloa ostutea arrasti berandu beten.

Da, yoan be in i sen da ollategi ori begistau be bai, te, oño, an e ollategien bastarrear, labea daoen lekuen, serean, aboan ondoan alanbrea apur bet apurtute ikusi i auen. Olloak ederrak i egosan e, mardo mardoak, ollaloka edo amaloka ba(t)p(b)e alosokoa arrautzak esartzen txitak atetako, eta ba an eragoien orean yan d'uredaten aboti. Aboa, yakingosu, arrieri oskea atetan yako d'ara sulora ure bota olloak edateko.

Urungo arrastiluntzan, artu artagarau batzuk eta barriro yoan i sen, kukumixo parau, d'andixik alanbrasuloti artagarau betzu(k)p(b)-otausen ollategire barrure, d'atoan arrimau yakon alango ollo mardo bat artagaraue(k)tx(y)aten. Orduen, sartu eskue alanbrasuloti te, sast! buste-

Ori olloaren kontua, barre egingo dozu e, baina sano polita da. Niri be Don Damianek kontatu eustan, bueno, niri eta beste geiagori ze ementxe ibili gintzazan San Bartolomeko ermiteari arotzia egiten. Eta, konfesarario zaar bat egoan eta arexeri be egin neuntsazan erreparazino batzuk, sitsak edo zedanak janda eukana barriztetan.

Eta, deskantzetan egon gintzazanean bateri olloagaz pasatu jakona kontatu euskun Don Damianek. Sano abade kanpetxanua zan eta konfesararioan pregunta gitxi egitekoa, eta beti eukiten euan jendea beragas konfesetako.

Eta, zera, ba, baten seguru, urlia, gosea be andia eta ba zer jan gitxi. Zera akordatu ei jakon, urli lekutako ollategira joan eta olloa ostutea arrasti berandu baten.

Eta, joan be egin ei zan eta ollategi ori begiztatu be bai, eta, oño, an e ollategiaren bazterrean, labea dagoan lekuan, zerean, aboaren ondoan alanbrea apur bat apurtuta ikusi ei euan. Olloak ederrak ei egozan e, mardo- mardoak, ollaloka edo amaloka bat be alozokoa arrautzak ezartzen txitak atetako, eta ba an eragoioen orean yan eta ura edaten abotik. Aboa, jakingo dozu, arriari oskea ateraten jako eta ara zulora ura bota olloak edateko.

Urungo arrastiluntzean, artu artagarau batzuk eta barriro joan ei zan, kukumixo paratu eta andixik alanbrasulotik artagarau batzuk bota euazan ollategira barrura, eta atoaan arrimatu jakon alango ollo mardo bat artagarauak jaten. Orduan, sartu eskua alanbrasulotik eta, sast! buztaneko lumatetik goratu ei eu-

neko lumatati goatu i otzen olloari baie, ain egoan mardo, esin atera d'eskuetan lumak itxite ospa in i otzen ollo orrek.

Arpeleko bearrok in de gero, etzera yoan i sen agoan txue inde da ganera eskubitorra da beso-makillea urrutute alanbreagas.

Baie, gero ba, Paskoaskoas kunplitorduen, konfesetan yoan i sen da ba erriko abadeagana barik misiolari-riegana yoan i sen baie a(k)p(b)e pre-
gunte asko in i otzesan d'alangon baten, seguru:

- Ia, lapurretarik edo in dosu?
- Es ba jaune, gogoan daukadala es beintzet.
- Intentziñori(k)p(b)es?
- Bueno, intentziñoa bai, baie intentziñoa bakarrik e. Onantxe t'onantxe ollo bat ostuteko intzigue nauken baie isin isi nauen.
- Ba, bakisu, intentziñoa be pekatu deIntentziñoa pekatu? Da, se in beo(t)p(b)a orduen?
- Ba, pagu orde limosnea in elexarako
- Limosnea? Baie sainbet edo?
- Ba, ogorleko ba(t)p(b)ai gitxienes
- Baie ostu estot in ba ta?
- Bardin dotze

Da, seguru, es i auken beste erremediorik eta ogorlekoa boltzatic atetan daola, esan i auen berekitan: "ontxe naurtuko yoat au misiolari seken au" eta non diñotzon:

- Bueno ba jaune, asolusiñorako derrigorra bada, beitzo ogorleko au da santaspaskuas.

Da, se in auen? Ba, a ogorlekoa misiolariari eskure emon bearrean, andik i andrak konfesetan diresan alboko errejillati opatu d'esan, seguru:

tsan olloari baina, ain egoan mardo, ezin atera eta eskuetan lumak itxita ospa egin ei eutsan ollo orrek.

Alperreko bearrok egin eta gero, etzera joan ei zan aoan txua eginda eta ganera eskubitorra eta beso-makilea urratuta alanbreagas.

Baina, gero ba, Pazkoazkoaz kunplitorduen, konfesetan joan ei zan eta ba erriko abadeagana barik misiolariagana joan ei zan baina ak be pregunta asko egin ei eutsazan eta alangoren baten, seguru:

- Ia, lapurretarik edo egin dozu?
- Ez ba jauna, gogoan daukadala ez beintzat.
- Intentzinorik be ez?
- Bueno, intentzinoa bai, baina intentzinoa bakarrik e. Onantxe eta onantxe ollo bat ostuteko intzigua neukan baina ezin izan neuan.
- Ba, badakizu, intentzinoa be pekatu daIntentzinoa pekatu? Eta, zer egin bear dot ba orduan?
- Ba, pagu orde limosnea egin eleizarako
- Limosnea? Baina zeinbat edo?
- Ba, ogerleko bat bai gitxienez
- Baina ostu ez dot egin ba eta?
- Bardin deutso

Eta, seguru, ez ei eukan beste erremediorik eta ogerlekoa boltsatic ateraten dagoala, esan ei euan berekitan: "oraintxe neurtuko joat au misiolari zeken au" eta non dinotzon:

- Bueno ba jauna, absolutzinorako derrigorra bada, beitzo ogerleko au eta santaspaskuas.

Eta, zer egin euan? Ba, a ogerlekoa misiolariari eskura emon bearrean, andik i andrak konfesetan diran alboko errejillati opatu eta esan, seguru:

– Beitzo, beitzo intentziñoaren pague, d'in bei berorrek (g)ure dauena.

– Baie, orti es gisona, andran errejillati gure ta be isin yoat artu, emoistek eskure emeti aurrerik ara.

– A? Isin dauela artu ogorlekoa? Ba, ni nau be olantxik ibili nes olloagas d'intentziñoagas lotu nes.

Polite kontue esta? Binke polite. Kontetodan bakotxean barreka imintot aurrekoa. Su? T'igual pasau ingo san au e?

– Beitso, beitzo intentziñoaren pagua, eta egin bei berorrek gura dauana.

– Baina, ortik ez gizona, andran errejillatik gura eta be ezin joat artu, emoistak eskura emetik aurrerik ara.A? Ezin dauela artu ogorlekoa? Ba, ni neu be olantxik ibili naz olloagas eta intentziñoagas lotu naz.

Polita kontua ezta? Bienke polita. Kontetan dodan bakoitzean barreka iminten dot aurrekoa. Zu? Eta igual pasatu egingo zan au e?

19.13. Saguzarra, ogigaztaia eta basakatua

Au bai dala kontu grasioa, je-je-je. Sagusarrak a, bakisu, gaubes ibiltan dires egaskada baragarrien d'egunes lo oten dires eskegite jeneralmentean.

D'egun beten, seguru, sagusarrran bat e yausi in i sen eskegit(e) egoan lekuti t'e(s)tx(y)ako gañetuten ogigastai bat eta esan:

– Gaur sikeran e(s)nok o parauko baraurik, txori baragarri onegas ingo yoat a gaurko armosue, au dok sugertea!

– Txori baragarrie esan dok? –kontestau i otzen sagusarrak– ni e(s)nok txorie gero, ni nau sague nok egoak auki arren, estotesak aginek ikusten ala?

– Bai barres! erresoia daukok auki be ta, bañoak orti(k) sear yaki bille.

Sagusar ori leku oneti librau sen, seguru. Baie andik (g)eroagotxure non agartuten yakon basakatu goseakil bet aurrerik ara ta:

– Aikomen ba ta, sagu mardo bat, au dok izitekoa, beste batzuetan denodu gustiegas ibilite be ixin

Au bai dala kontu grasioa, je-je-je. Sagusarrak a, badakizu, gaez ibiltan dira egazkada baragarrian eta egunez lo egoten dira eskegita jeneralmentean.

Eta egun baten, seguru, saguzarren bat e jausi egin ei zan eskegita egoan lekutik eta ez jako gainetuten ogigaztai bat eta esan:

– Gaur sikieran ez nok o paratuko baraurik, txori baragarri onegaz egingo joat a gaurko armozua, au dok suertea!

– Txori baragarria esan dok? –kontestatu ei eutsan sagusarrak– ni ez nok txoria gero, ni neu sagua nok egoak euki arren, ez deustazak aginak ikusten ala?

– Bai barriz! errazoa daukak euki be eta, banioak ortik zear jaki bila.

Saguzar ori leku onetik libratu zan, seguru Baina andik geroagotxura non agertuten jakon basakatu goseakil bat aurrerik ara eta:

– Aikomen ba eta, sagu mardo bat, au dok izatekoa, beste batzuetan denodu guztiagaz ibilita be ezin logratu eta

lograu te gaur barres e akordatzakoan etorri te berpetan yakie!

- Sagu mardoa esan dok? Ni nau e(s) nok sague gero? Ni nau txorie nok eta espas fietan beistetek egoetara, d'es ai atomau ni yaten gosuneagas atragantau be igoal ingo as da!

Basakatuek e sagusarran gedarrotza ikusikeran, ospa in i auen dri-
nean ta sagusar orrek e estarien gorde
auen bere burue birriteko aldis estu-
kura(k) pasau te gero. Orixe pasau i
yakon seguru! Surre ixitea ser yatzun
e!

gaur barriz e, akordatzakoan etorri eta
berbertan jakia!

- Sagu mardoa esan dok? Ni neu ez nok sagua gero? Ni neu txoria nok eta ez baaz fietan begitu eistak egoetara, eta ez adi atomatu ni jaten gosuneagaz atragantatu be igual egingo az eta!

Basakatuak e saguzarraren gedarrotza ikusikeran, ospa egin ei euan dri-
nean eta saguzar orrek e estalian gorde
euan bere burua birritako aldis estuku-
rak pasatu eta gero. Orixe pasatu ei
jakon seguru! Zuurra izatea zer jatzun e!

19.14. Emendatu ezineko astoa

Seberion abadegai asko on dires d'alango bateri entzun nontzen au kontu au bakaziño batzutan konformidadea dala t'es dala, d'asko gustau yatan da sarri kontau ot eta sauri be kontau ingotzut u de karretilla dakit eta. Aitu:

"Ba baten, negue san ondiño, d'an i egoan asto faltzo nagieperdi bet korta bastarrean, seinakio, luse eretxite, bedar sikue d'agotza yaten misketute. Orretara, ie-ie gogait inde esan i auen berekitan:

- "Sikeran udabarrie etorriko balitzike, kukue da ganetiko txoriek entzun da bedar guri gurie yateko, lora usainegas naste. Selango alegrentzia artuko naunken baño es ta!

Tire ba, gaubek egune, egunek (g)aube, allegau sen udabarrie baie intera bateko a astoan poskerie kanbietan asi sen. Udabarriagas batera, bearrak gañetu sirean baserrien da, yakine, astoari es otzien bakean be itxiten. Bateko bedarretan, besteko

Zeberion abadegai asko egon dira eta alango bateri entzun neuntsan au kontu au bakazino batzuetan konformidadea dala eta ez dala, eta asko gustatu jatan eta sarri kontatu dot eta zeuri be kontatu egingo deusut u de karretilla dakit eta. Aitu:

"Ba baten, negua zan oraindino, eta an ei egoan asto faltso nagieperdi bat korta bazterrean, zeinakio, luze eritzita, bedar sikua eta agotza jaten mizkatuta. Orretara, ia-ia gogait eginda esan ei euan berekitan:

- "Sikeran udaberria etorriko balitzake, kukua eta gainetiko txoriak entzun eta bedar guri guria jateko, lore usainagaz naaste. Zelango alegrentzia artuko neunken baino ez da!

Tira ba, gauak eguna egunak gaua, allegatu zan udaberria baina intera bateko a astoaren pozkeria kanbietan asi zan. Udaberriagaz batera, bearrak gainetu ziran baserrian eta, jakina, astoari ez eutsoen baketan be itxiten. Bateko beda-

satsetan, aragoko soloyorran, astoan bearlekue lastu in sen da tristetu.

Gogaitu in sen udabarriegas yana baño bearra andiagoa in yakolako d'arean ogeto bisiko salakoan, badiño berekitan:

– “Udabarrie atoan yoango ballata d'udea etorri, askos ogeto bisiko naintzike ainbeste astarrio in barik”.

Udabarri ori be yoan san da San Juanak allegau sireanean, postu in sen gure astoa eta txakur-amesak iten asi sen.

Baie, udako bero beroan, bedar-sikite, gari-yote, akarreo da ganetikoak agartu yakosan d'ak astoak isin auen geago soportau d'arrantzaka asi sen baie arpelik, seinbet eta arrantza geago bear geago eginasoten otzien, seguru.

Bearran bearragas desespe-
raut'egoan a astoa. Gaubiluntze baten ixerdie(k)p(b)eres sikitu, mandauliek eta espadurdinek uxatutea lograu auenean, bere burueri bueltaka asi sen da badiñotzo:

– Udagoiena etorriko ballata freskur(a) apur be(t)k(g)eago artu te bear gitxiago iteko! Onan bixiterik estao, ainbeste bear in da ondo inen pague ate ostaien palue!

Alangon baten allegau yakon udagoiena be asto emendatu isin orreri da tire ba, txarka be, udan baino ogeto eragoion. Baie, denpora onak txarra dakerren moduen, gure astoari beste bear gogor batzuk agartu yakosan d'urrinago: idebateak, egurgintzak eta iketz-egosteak. Ai ene! akabue astoantzat. Ogeto bisi gure da geroago ta txarrago. Seinbet akarreo astun, seinbat bidesior, seinbe(t)p(b)arda ta makillekasu, bisi isin

rretan, besteko satsetan, aragoko solojorran, astoaren bearlekua lastu egin zan eta tristetu.

Gogaitu egin zan udebarriagaz jana baino bearra andiagoa egin jakolako eta arean obeto biziko zalakoan, badino berekitan:

– “Udabarria atoan joango baliat eta udea etorri, askoz obeto biziko nintzateke ainbeste aztarrio egin barik”.

Udebarri ori be joan zan eta San Juanak allegatu ziranean, poztu egin zan gure astoa eta txakur-amesak egiten asi zan.

Baina, udako bero beroan, bedar-sikatze, gari-jote, akarreo eta gainetikoak agertu jakozan eta ak astoak ezin euan geiago soportatu eta arrantzaka asi zan baina alperrik, zeinbat eta arrantza geiago bear geiago eginazoten eutsoen, seguru.

Bearren bearragaz desesperatuta egoan a astoa. Gaubiluntze baten izerdiak berez sikatu, mandauliak eta ezpadurdinak uxatutea logratu euanean, bere buruari bueltaka asi zan eta badiñotzo:

– Udagoiena etorriko baliat freskura apur bat geiago artu eta bear gitxiago egiteko! Onan biziterik ez dago, ainbeste bear egin eta ondo eginaren pagua ate ostean palua!

Alangoren baten allegatu jakon udagoiena be asto emendatu ezin orreri eta tira ba, txarka be, udan baino obeto eragoion. Baina, denpora onak txarra dakerren moduan, gure astoari beste bear gogor batzuk agertu jakozan eta urrunago: ida-ebagiteak, egurgintzak eta iketz-egosteak. Ai ene! akabua astoarentzat. Obeto bizi gura eta geroago eta txarrago. Zeinbat akarreo astun, zeinbat bidezidor, zeinbat barda eta makilakazu,

ausen astoa(k)p(b)era(k)p(b)año es-taki.

Isin auen geago da biximodu latz orretan negueri geike asi sen eza eskuen aukela yakines da badiño ba se:

– “Ator negue ator. Bururik estaukanak anak erabili bear! Neguen emendatu esinik otearren kanbio utzean ibili nok d’ inon bes neguen letxe. E(s)tx(y)atak etorriko barriro negue!

Etorri yakon negue d’orduxean sosegau sen gure astoa da posi(k)p(b)año be posago lotu sen kortatxi ondoko okoluen epel epeletan bedarsikue d’agotza yaten inguruko elie letxe, konformitadean.”

Gustau yatzu? ba niri askarrie d’orrexegaitiño kontetan dotziet askotan etzekoari sein kanpokoari, konformitadea(k)t(d)anontza(t)p(b)a ligo dau ta. Esta baietz?

bizi izan euazan astoak berak baino ez daki.

Ezin euan geiago eta bizimodu latz orretan neguari deika asi zan eza eskuan eukala jakinaz eta badino ba ze:

– “Ator negua ator. Bururik ez daukanak anak erabili bear! Neguan emendatu ezinik egotearren kanbio utsean ibili nok eta inon be ez neguan letxe. Ez jatak etorriko barriro negua!

Etorri jakon negua eta orduxean sosegatu zan gure astoa eta pozik baino be pozago lotu zan kortatxi ondoko okeluan epel epeletan bedarsikua eta agotza jaten inguruko elia letxe, konformitatan.”

Gustatu jatzu? ba niri azkarria eta orrexegaitino kontetan deitsiet askotan etxekoei zein kanpokoari, konformitateak danontzat balio dau eta. Ezta baietz?

19.15. Pepetxin astoak mutilduten

Emen, gure errien, Pepetxin, baragarri antza bai(e) entzute andiko gizona san D’ Arkulandako Gerrakoan bisi sen, berak sarri esaten auen les, “*kon deretxo a kozina y alkoba*”. Ofizio askoko gizona yazun baie urtea(k)tx(y)oan urteak etorri, asto eskiladore les in sen esaun, bearbada besterik on b(e) es egoalako errien.

Bilboko portuen karga-deskarga bearretan ebilela, antza, kinkalleruen bategandik lortu auen seguru astoak mutilduteko aginadura bikotxeko makinea d’arraskero erririk erri ibilte san bere bixikleta ta kornetea artute afiladoreak auren txilibituagas moduen.

Emen, gure errian, Pepetxin, baragarri antza baina entzute andiko gizona zan eta Arkulandako Gerrakoan bizi zan, berak sarri esaten euan lez, “*kon deretxo a kozina y alkoba*”. Ofizio askoko gizona jatzun baina urteak joan urteak etorri, asto eskiladore lez egin zan ezagun, bearbada besterik egon be ez egoalako errian.

Bilboko portuan karga-deskarga bearretan ebilela, antza, kinkalleruren bategandik lortu euan seguru astoak mutilduteko aginadura bikoitzeko makinea eta arrezkero erririk erri ibiltzen zan bere bizikleta eta kornetea artuta afiladoreak euren txilibituagaz moduan.

Era askotara mutilduten ausen astoak, baserritar bakoitzaren gusture. Exijenteanak a bendejerak, martxanderak d'olangoak isiten ausen, yakine, orriri astoak ondo atondute d'itxura onean eroatea gustetan yakielako, jenteak ser esango be!

Apainduteko esese, astoak gaixotuten sireanean be Pepetxineri geituten otzien beteinario bearrak iteko da beti ideetan auen erremedioan bat, bateko San Juan goxeko iñontzean batuko bedarran enplastuen bat, beste teko santigitue edo best(e) edosein gause. Artisteia yatzun Pepetxin olango trebituetan.

Baten e, gei baragarri bet artu i auen. Beitisu: urli egunetan Kalleko (Ugaoko) trenan estasiñora yoateko dosenerdi bet asto baltz mutilduten. Artu bixikletea d'atoan plantau sen seguru Pepetxin Kalleko estasiñoan d'abemariak aurretxorako asto danak eukesan seguru mutil-mutil inde.

Mutildu-akabau auenean, ene! selaiko asto-luma(k)p(b)altzak eta astoak a beste kolore batekoak, olan e urdin-nabarrak. Ai ba dies, olango letxerik? Eta ba orretara badiñotzo Pepetxinek astoon usabari:

- Se asto erresa dosa(k)p(b)a onik astook?
- Ba, betikoak, -usabak. Ser ba?
- Betikoak? Ulle baltza, barruti(k)-p(b)e baltza isingo dok estok? Ser letxe pasau yakian baño estok asto-ori?
- Ara, Pepetxin, sosegau ai. Onik estosak asto baltzak, baltzitu(k)-p(b)ño. Seberioke Upo menditi ikes txondorretako ondakinen iduri t'autzek ekarten yoadas asto-okas, gero Bilbora trenes eroan d'an saltzeako. Setako? Ba, lexiek

Era askotara mutilduten euazan astoak, baserritar bakoitzaren gustora. Exijenteanak a bendejerak, martxanderak eta olangoak izaten euazan, jakina, orreiri astoak ondo atonduta eta itxura onean eroatea gustetan jakielako, jendeak zer esango be!

Apainduteko ezeze, astoak gaixotuten ziranean be Pepetxineri deituten eutsoen beteinario bearrak egiteko eta beti ideetan euan erremedioan bat, bateko San Juan goizeko inontzean batuko bedarren enplasturen bat, beste teko zaintiratu edo beste edozein gauza. Artisteia jatzun Pepetxin olango trebituetan.

Baten e, dei baragarri bat artu ei euan. Begitizu: urli egunetan Kalleko (Ugaoko) trenaren estazinora joateko dozenerdi bat asto baltz mutilduten. Artu bizikletea eta atoan plantatu zan seguru Pepetxin Kalleko estazinoan eta abemariak aurretxorako asto danak eukazan seguru mutil-mutil eginda.

Mutildu-akabatu euanean, ene! zelaiko asto-lumak baltzak eta astoak a beste kolore batekoak, olan e urdin-nabarrak. Ai ba diez, olango letxerik? Eta ba orretara badiñotso Pepetxinek astoon ugazabari:

- Zer asto erraza dozak ba oneik asto-
ok?
- Ba, betikoak,-ugazabak. Zer ba?
- Betikoak? Ule baltza, barrutik be baltza izango dok ez dok? Zer letxe pasatu jakian baino ez dok astooi?
- Ara, Pepetxin, sosegatu adi. Oneik ez dozak asto baltzak, baltzituak baino. Zeberioke Upo menditik ikatz txondorretako ondakinen iduri eta autsak ekarten joadaz astookaz, gero Bilbora trenes eroan eta an saltzeako. Zerta-

- edo erropa-garbikusiek iteko, d'orrexegaitiño, autzon akerreoan balztitu in yatasak asto lumatzuok da mutildu eskero santo erremedio, txarka be garbiago.
- Bueno, batera dala sein bestera dala, astook mutilduten iruntzi dodan autzegaiti te ganetiko domistikuekatik seosertxu geago kobrau beako at.
 - Sainbet lauko geago eskatuten do(k)p(b)a astoko?
 - Ba, aiko, lengos ganera, astoko erreal bateko obariegas konforme ñaok.
 - Bale, Pepetxin, inde yaok, autzos diruok eta goaxan orra Karetxen tabernara kopautxo bat iten kuartillu ardago bategas, olan e samea t'ametxorrie be librau ingo dosak. Ala, goaxan!
- Orixe pasau i yakon Pepetxineri akarreoko astookas.

- rako? Ba, lexiak edo erropa-garbikuziak egiteko, eta orrexegaitino, autson akerreoan balztitu egin jatazak asto lumatzuok eta mutildu ezkerro santo erremedio, txarka be garbiago.
- Bueno, batera dala zein bestera dala, astook mutilduten iruntsi dodan autsegaitik eta ganetiko doministikuekatik zeozertxu geiago kobratu bearko deuat.
 - Zeinbat lauko geiago eskatuten dok ba astoko?
 - Ba, aiko, leengoz ganera, astoko erreal bateko obariagaz konforme niagok.
 - Bale, Pepetxin, eginda jagok, eutsoz diruok eta goazak orra Karetxen tabernara kopautxo bat egiten koartillu ardao bategaz, olan e samea eta ametsorria be libratu egingo dozak. Ala, goazan!
- Orixe pasatu ei jakon Pepetxineri akarreoko astookaz.

19.16. Pepetxinen makailoa

Len esan dotzut u Pepetxin Bilboko portuen ibili sala karga-deskargan, d'an pasau yakon fetxori baragarri bet kontaukotzut da barre ingosu ikusikosu.

Gabon aurretuxe san d'egun orretan, beste genero batzun artean, makallagoa deskargetan ebisen denodu gustiegas. Pepetxin, selebrea san isin be, da bereak erabilen enkargaduen ixilean makallago bat artu te gabonkari les etzera ekarteko. Andi(k)p(b)uelta orti(k)p(b)uelta, lograu auen makallago eder bat ostu te gordetea okuluen baten. Iluntzean, etzerantzean, bultu gitxiago barrun-

Leen esan deutzut u Pepetxin Bilboko portuan ibili zala karga-deskargan, eta an pasatu jakon fetxoria baragarri bat kontaktuko deutzut eta barre egingo dozu ikusiko dozu.

Gabon aurretuxa zan eta egun orretan, beste genero batzuen artean, makailoa deskargetan ebizan denodu guztiagaz. Pepetxin, zelebrea zan izan be, eta bereak erabilen enkargaduren isilean makailoa bat artu eta gabonkari lez etxera ekarteko. Andik buelta ortik buelta, logratu euan makailoa eder bat ostu eta gordetea okuluren baten. Iluntzean, etxerantzean, bulto gitxiago barrunteta-

tetako edo, e(s)tx(y)akon gogoratu besterik makallago ori yakepean sartzea baño. Estukurean estukureas, bera be etzan konturetu kokotetik (g)ora agirien aukela makallago bustena. Eta ba klaro, enkargauen aurreti pasau sanean altoa bota otzen d'esan:

- I, ser darok or ixilean, Pepetxin?
- Nik esebes, aitu espabere eskueta-ko morralera, utz utzik.
- Es, es, zakutoan es, ser sartu ok or yakepean?
- Esebes ba!
- Selango esebes, kokoteti buruko galbar okerreraño makallago bustena agirien daukok eta!
- Eutso makallago au, ori goiti beiti isingo nok eta.

D'orretara, Pepetxinek antxe itxi bear isin auen a makallago ederra lotzature da burue makur-makur inde.

Baia trastoa ta baragarrie basan seosegaitik isingo san d'andik egun betzuetara, beste makallago eder bateri bustena ebagi otzen d'etzerantzean kokotean imini, beren beregi, enkargauek ondo ikusteko moduen. Enkargauek barriro botozen altoa ta badiñotzo:

- Barriro be makallago lapurren?
- Bai, d'oraingoan andiagoo ostu yoat
- Ba, erantzi(k)tx(y)akea d'itxi emen makallago ori
- Nik ez, auk artu gure bok.

Enkargau orrek (g)oatu Pepetxinen kokoteko makallago orreri busteneti te oño! bustena bakarrik eskuen. Tranpea in otzen Pepetxinek d'enkargue bera itxi lotzature beste gustien aurrean. Orixe in i otzen, seguru.

ko edo, ez jakon gogoratu besterik makailao ori jakepean sartzea baino. Estukuraren estukuraz, bera be ez zan konturatu kokotetik gora agirian eukala makailao buztana. Eta ba klaro, enkargatuaren aurretik pasatu zanean altoa bota eutsan eta esan:

- I, zer daroak or isilean, Pepetxin?
- Nik ezer be ez, aitu ezpabere eskueta-ko morralera, uts utsik.
- Ez, ez, zakutoan ez, zer sartu dok or jakepean?
- Ezer be ez ba!
- Zelango ezer be ez, kokotetik buruko galbar okerreraño makailao buztana agirian daukak eta!
- Eutso makailao au, ori goiti beiti izango nok eta.

Eta orretara, Pepetxinek antxe itxi bear izan euan a makailao ederra lotsatuta eta burua makur-makur eginda.

Baina trastoa eta baragarria bazan zeozergaitik izango zan eta andik egun batzuetara, beste makailao eder bateri buztana ebagi eutsan eta etxerantzean kokotean imini, beren beregi, enkargatuak ondo ikusteko moduan. Enkargatuak barriro bota eutsan altoa eta badiñotso:

- Barriro be makailao lapurren?
- Bai, eta oraingoan andiagoo ostu joat.
- Ba, erantzi eik jakea eta itxi emen makailao ori
- Nik ez, euk artu gura badok.

Enkargatu orrek oratu Pepetxinen kokoteko makailao orreri buztanetik eta oño! buztana bakarrik eskuan. Tranpea egin eutsan Pepetxinek eta enkargatua bera itxi lotsatuta beste gustien aurrean. Orixe egin ei eutsan, seguru.

19.17. “Pikatea” edo oiloak hortzak

Lenao, gosea be andie ta ba eskeko ta jitanuek erreskan ikusten gaindusen bateti bestera. Gaube iteko be auren lekuek aukiten aude-san. Or Isisi parean “Jitanuen Lekue” egon dao, angoxe sinprespean gaube itaudielako. Legea aukien seguru gaube bi leku baten in es iteko. Da ba egun beten, olango karrodun jitanu betzuk emen elbarrenen ollo bat ostu otzien baten bateri sista tertzioan d’atoan gobernaudien ollo ori iñok ukusi estause-lakoan. Baie, casualidades, Pepetxin sugertau in sen bere kortako leioti begire d’ikusi in i auen a fetxorie, bisi be kamiñoari dotzela bixi sen da, bakisu, Gerrako etzea kamiño kontra-kontran dao, d’andixik ikusi, seguru. Pepetxinek es auken bakerik axe olloa jitanueri kendu arte. Ondo ekien jitanuek gaube non itaudien da bakisu se in auen? B’aiko: Etxeko katar bateri atxurkasu bet emon, tragau d’isil isilik arrimau jitanuek olloa egosten aukin audien lapikora da ba atera lapikoti a olloa da katarra sartu lapikoan d’ospa in iñor konturatu b’in barik. Alangon baten jitanuek esan i otzen txikietariko bateri lapikoari yaubetuteko sein lar irikin d’ur faltan olloa gauzestandu edo malograu. Jitanilla ori badoa seguru lapikora d’ango barruko gausa ilune ikusikeran badiñotzo amari sispuruke, erderas klaro:

- *Mama, la pikatea tiene dientes?*
- *No ija no.*
- *Pues esta pikatea sí y muchos.*

Da, klaro, lapikora arrimau sireanean, efeti bamente, pikateak aginek edo ortzak aukesan, katarra san isin

Leenago, gosea be andia eta ba eskeko eta jitanuak erreskan ikusten genduzan batetik bestera. Gaua egiteko be euren lekuak eukiten eudezan. Or Isasi parean “Jitanuen Lekue” egon dago, angoxe ziprespean gaua egiten eudiela-ko. Legea eukien seguru gau bi leku baten egin ez egiteko. Eta ba egun baten, olango karrodun jitanu batzuk emen Elbarrenen ollo bat ostu eutsoen baten bateri sista tertzioan eta atoan gobernatu eudien ollo ori inok ikusi ez dauzakoan. Baina, casualitatez, Pepetxin sugertatu egin zan bere kortako leiotik begira eta ikusi egin ei euan a fetxoria, bizi be kaminoari deusala bizi zan eta, badakizu, Gerrako etxea kamino kontra-kontran dago, eta andixik ikusi, seguru. Pepetxinek ez eukan bakerik axe olloa jitanuei kendu arte. Ondo ekian jitanuek gaua non egiten eudien eta badakizu zer egin euan? Ba aiko: Etxeko katar bateri atxurkazu bat emon, tragatu eta isil isilik arrimatu jitanuak olloa egosten eukin eudien lapikora eta ba atera lapikotik a olloa eta katarra sartu lapikoan eta ospa egin inor konturatu be egin barik. Alangoren baten jitanuek esan ei eutsan txikietariko bateri lapikoari yaubetuteko zein lar irakin eta ur faltan olloa gauzestandu edo malogratu. Jitanilla ori badoa seguru lapikora eta ango barruko gauza iluna ikusikeran badiñotso amari zizpuruka, erderaz klaro:

- *Mama, la pikatea tiene dientes?*
- *No hija no.*
- *Pues esta pikatea sí y muchos.*

Eta, klaro, lapikora arrimatu zireanean, efektibamente, pikateak aginak edo ortzak eukazan, katarra zan izan be eta.

be ta. Alantxik in i otzien kanbioa Pepetxinek eta berak afaldu ollo ego-siegas usabak es audien gure auren-tzako ta, antojuegaiti edo. Beitu, oraingoan drogeak argi urten otzien lapurreri d' estakigu ba katar ori yan audien ala es, igoal bai, no(k)tx-(y)akin?

Alantxik egin ei eutsien kanbioa Pepetxinek eta berak afaldu ollo egosia-gaz ugazabak ez eudien gura eurentzako eta, antojuegaitik edo. Begitu, oraingoan drogeak argi urten eutsen lapurrei eta ez dakigu ba katar ori jan eudien ala ez, igual bai, nork jakin?

19.18. Zeberioگانeko Amabirjinari promesak galernatik bizirik urteteagaitik

Au kontu au, naure osaba Juaneri eta batesbe naure amari entzunde daukotzet eta sarriten entzunde ganera. Gure ama-ta, ona Seberioگانepeko Uribarrire etortensian, mantenitalde, euren familikoakana, bai, Áldekoren errentoreak sirean da ba laguntan etorte sirean artayorra denporan da gariyote denporan d'orritan. D'orti auken gure amak entzunda uin kontaukotzuten kontu edo isturi au, seguramente pasau ingo san da, se ondiño be errastue(k)t(d)aos Seberioگانeko Amabirjinean elexa ederrean.

Auxe kontetosten gure amak.

Atxine be atxine, mille ta sarpiraun de pikuen esatauen, an e, Bilbotik arantzako itzesoa, itzesotxarra egon eta galernea agartu yakien seguru peskeru batzuri. Itzesoa asarre eta dana ilun, galduta ebisen seguru peskadoreok euren bisie galtzeako gitxien faltan.

Alangon baten, seruko iluntasunen erdian, argi bet ikusten i audien, argi aparteko bat, iños ikusi bakoa. Orduen barkuko patrioiak, artu sesantea ta kalkuloak iten asi sen barkue yantzan ibili arren, olatuek iruntzi bearrean an itzesoa andien.

Au kontu au, neure osaba Juaneri eta batezbe neure amari entzunda deukotsat eta sarritan entzunda ganera. Gure ama-eta, ona Zeberioگانepeko Uribarrira etorten ziran, mantenitalde, euren familikoakana, bai, Áldekoren errentoreak ziran eta ba laguntan etorten ziran artajorra denporan eta garijote denporan eta orreitan. Eta ortik eukan gure amak entzunda orain kontatuko deutsudan kontu edo istoria au, seguramente pasatu egingo zan eta, ze oraindino be errastuak dagoz Zeberioگانeko Amabirjinearen eleiza ederrean.

Auxe kontetan eustan gure amak.

Antxina be antxina, mila eta sarpireun eta pikuan esaten euan, an e, Bilbotik arantzako itsasoan, itsasotxarra egon eta galernea agertu jakien seguru peskeru batzuri. Itsasoa aserre eta dana ilun, galduta ebilzan seguru peskadoreok euren bizia galtzeako gitxiren faltan.

Alangoren baten, zeruko iluntasunaren erdian, argi bat ikusten ei eudien, argi aparteko bat, inoiz ikusi bakoa. Orduan barkuko patrioiak, artu sextantea eta kalkuloak egiten asi zan barkua dantzan ibili arren, olatuak iruntsi bearrean an itsasoa andian. Ibili eta ibili, sextante orreri eskerrak, aren argiaren

Ibili te ibili, sestante orreri eskerrak, aren argien dirixiñoan, lograuden Bilboko porture allegetea eta bisie salbetea.

Andik (g)eroagora, sustosartua kendu te gero, patrioiak sestanteagas ineko kalkuloatati, a argie agartu san lekue topetan yoan sirean peskadoreok eta kalkuloak esatotzien lekure allegau sireanean, ene! justo-justo SeberioGANeko Amabirjinean elexa gane-ganea indiketotzien.

Ikereagas on arren, postu in sirean eta milagrotzat artuden a argi apartekoa agartutea galernako seru ilunean.

Orretara, arkal artute peskado-reok, iru promesa in otziesan SeberioGANeko Amabirjineari euren bisie salbeteagaiti. Bai, iru urterako iru promesa.

Lelengo urtean, urregorris bordauko mantu bet erregalautzien SeberioGANeko Amabirjineari. Bigarren urtean, urregorrisko medalloi eder bat SeberioGANeko Amabirjinean mantu ganean samati eskegite iminteko. D'irugarren urtean, iru barkutxu, ondo inde d'ondo pintaute SeberioGANeko Amabirjinean elexan eskegite iminteko.

Baie, tira, antza danes suri gustetan yatzuz kontu sarrok, je-je-je, orduen ondiño baligo be igual ingo daudie esta? No(k)tx(y)akin?

tetan jatzuz kontu zaarrok, je-je-je, orduan oraindino balio be igual egingo daude ezta? Nok jakin?

25.31. Supelegorreko astakume deabrua

Beñola, Orosko aldeko pastore batek e bere ardiek eroan oasan Gorbaie ondoko Itxina barruen daoen Supileor kobasulora. Edur itxuria auken denporeak da badaespada, sein edurre loditu, kobasuloan itxi ausen ardiok.

Arrasti beranduen, a pastorea etzerako bidean plantau sen Itxinako asduiti sear. Atxuloko begie pasau te lasterrera, astakuma ba(t)p(b)arruntau oan saltokari t'arrantzaka.

Pastoreak, astakuma ori goiti beiti, aurrera in oan larrea bera gautu baño lenao etzea yoteko.

Yoanean-yoanean, astakumeak atzerik ara segitan otzela konturatu sen. Segidu bakarrik es, esgausak iten asi yakon a astakume baragarrie, ostikoka, ausike t'itzulumurdike.

Karran asi sen a pastorea bildursartu ta gusti. Noseapinean atzerantz be begituten oan eta alango baten es dau ikusten ba aotik sue dariola!

Ene! -esat'oan berekitan-, sek isin bear yok onek. Au astakume au estok parte onekoa, baie, es orixe, niri neuri geiago itekorik e(z)tx(y)-aok, eta ikusiko yok orrek dana dalako orrek ia geiago nor dan!

Pagadui bateti(k)tx(y)oiala, a(k) pastoreak artzean dau pago-makilla endemoniño bat, yoten dau buru-buruen a astakume baragarrie d'ene!

Beinola, Orosko aldeko pastore batek e bere ardiak eroan euazan Gorbeia ondoko Itzina barruan dagoan Supelegor kobazulora. Edur itxurea eukan denporeak eta badaezpada, zein edurra loditu, kobazuloan itxi euazan ardiok.

Arrasti beranduan, a pastorea etxerako bidean plantatu zan Itzinako azduitik zear. Atxuloko begia pasatu eta lasterrera, astakume bat barruntatu euan saltokari eta arrantzaka.

Pastoreak, astakume ori goiti beiti, aurrera egin euan larrea beera gautu baino leenago etxea joteko.

Joanean-joanean, astakumeak atzerik ara segitan eutsola konturatu zan. Segitu bakarrik ez, ezgauzak egiten asi jakon a astakume baragarria, ostikoka, ausika eta itzulimurdika.

Karran asi zan a pastorea bildursartu eta guzti. Noizeanbeinean atzerantz be begituten euan eta alango baten ez dau ikusten ba aotik sua dariola!

Ene! – esaten auen berekitan-, zek izan bear jok onek. Au astakume au ez dok parte onekoa, baina, ez orixe, niri neuri geiago egitekorik ez jagok, eta ikusiko jok orrek dana dalako orrek ia geiago nor dan!

Pagadui batetik joiala, ak pastoreak artzean dau pago-makilla endemonino bat, joten dau buru-buruan a astakume

Deabrue berbera es yakon ba agartu asto itxuran!

Karran esese, ie-ie egas asi sen pastorea odolak ur eiteko moduen, eta, astakume deabrue atzerik ara. Yoan da yoan, alangon baten Orosko ergoienen daoen Olarteko kanpantorrean abemaritako kanpaiotza entzun sen.

Kanpaiotzan gei-barruen, asto deabrue, podere barik (g)eratu sen d'a(k) pastorea(k)p(b)izirik (g)orde oan bere arimea. Baie luseroan on i sen sustosartu ta bildursartua(k)-tx(y)ota pasaukoa aistu esinik. Etzan gitxiagorako, isin be, es o(r)ixel!

baragarria eta ene! Deabrua berbera ez jakon ba agertu asto itxuran!

Karran ezeze, ia-ia egaz asi zan pastorea odolak ur egiteko moduan eta astakume deabrua atzerik ara. Joan eta joan, alangoren baten Orozko ergoienen dagoan Olarteko kanpandorrean abemarietako kanpaiotsa entzun zan.

Kanpaiotsaren dei-barruan, asto deabrua, podere barik geratu zan eta ak pastoreak bizirik gorde euan bere arimea. Baina luzaroan egon ei zan sustosartu eta bildursartuak jota pasaukoa aaztu ezinik. Ez zan gitxiagorako, izan be, ez horixel!

25.32. Otxandioko zirrien pagua

Lenao erromeri asko t'andiek iten sirian d'emen Otxandion be Santa Mañeak iten sirian da leku askoko jentea yoaten gintzesan tertzios urten d'aimarietan etzera etorteko, bakisu, lenaoko usedioa, erretiro ona, es oingo moduen.

Da ba emeti Seberioti be bai baie ni Seanistarra ñatzu, Ipiñiburukoa d'andik i Otxandio urtxoago dao d'andik i gaste koadrillea yoaten gintzesan Santa Mañetan Otxandiora, maleta sikue artu t'egun osorako.

Da baten e Ipiñiburuko mutil bet e gauges naste etorri sen Otxandiora, erromerien. Andrasalea san d'onik i papartzu antzak (g)ustetan yakosan da ba erromerie asi sanean jototzean ibili sen neskan ingurumariti. Baltzea allegetan sanean, je-je-je, orduen aprobegetan oan arrimada batzuk iteko ta neskan bat deskuidetan sanean sast! eskue botatotzen

Leenago erromeria asko et andiak egiten zirean et emen Otxandion be Santa Mañeak (Santa Marinak) egiten zirean eta leku askotako jentea joaten gintzazan tertzios urten eta abemarietan etxera etorteko, badakizu, leenagoko usadioa, erretiro ona, ez oraingo moduan.

Eta ba emetik Zeberiotik be bai baina ni Zeaniztarra niatzu, Ipiñiburukoa eta andik i Otxandio urtxoago dago eta andik i gazte koadrillea joaten gintzazan Santa Mañetan Otxandiora, maleta sikua artu eta egun osorako.

Eta baten e Ipiñiburuko mutil bat e geugaz naste etorri zan Otxandiora, erromerian. Andrazalea zan eta oneik i papartsu antzak gustetan jakozan eta ba erromeria asi zanean jotaotzean ibili zan neskan ingurumaritik. Baltzea allegetan zanean, je-je-je, orduan aprobegetan euan arrimada batzuk egiteko eta neska-

gonapera da sirriginen asi. Ene orduen, ango neskan grillistu t'apara-
jue! Guk u barre iten gauntzen bara-
garrie salako baie Otxandioko muti-
lek e kargu artute egosan da gedar
itotzien baie arpelik, ak e berera.

Otxandiko mutilek asarre go-
rrien egosan d'auren artean alkar artu
t'eskarmentu bat emotea pentzau-
dien.

Pentzau bakarrik es, emon be
bai, je-je-je. Bakisu se in otzien?
B'aitu: Otxandioko mutilok goatu
otzien batzuk buruko saputzeti,
besto batzuk esku t'anketati te esta-
rire edo esleku betera eroan audien
sirridun ori. D'an ser? B'aiko: soltau
otzien aldeko garrikoa, beragas esku
biek amarrau atzeti te fraka(k)p(b)-
ajatu d'esan:

– Yoai emeti t'esai geiyao agartu
Otxandiyoti eskuluse lotzabako
ori alangori!

D'ene mutilek, a san ikustekoa
seguru, mutil ori eskuek atzen direla,
frakak orkatilletaraño bajatute t'an-
diena, kantzontzillu barik, orduen
askok es auen eroaten kantzuntzillo-
rik i fraka barruti te ba alantxe despa-
residu i sen mutil ori.

Ipiñiburuko bidea artu oan da
bidean bidaskien bat ikustauenean
ostandu iten san seguru sein baten
batek ikusi alango feturan.

Da, ba, goxaldean allegau sen
Ipiñiburure bidean kalamidade asko
pasaute, da, klaro, selan sartu etzean
alango serean, itxuran, da, ba, alan-
gon baten pentzau i oan berekitan:
Bueno, ortxe etze ondoko iturriko
askan sartuko yoasat eskubitorrak
(g)arriko ta gusti te ba garrikoa apur
bet e beratu d'eskuek e kipututen

ren bat deskuidetan zanean sast! eskua
botaten eutsan gonapera eta zirriginen
asi. Ene orduan, ango nesken grillistu eta
aparejua! Guk u barre egiten geuntsan
baragarria zalako baina Otxandioko
mutilak e kargu artuta egozan eta gedar
egiten eutsoen baina alperrik, ak e bere-
ra.

Otxandiko mutilak aserre gorrian
egozan eta euren artean alkar artu eta
eskarmentu bat emotea pentsatu
eudien.

Pentsatu bakarrik ez, emon be bai,
je-je-je. Badakizu zer egin eutsien? Ba
aitu: Otxandioko mutilok goratu eutso-
en batzuk buruko zaputzetik, beste ba-
tzuk esku eta anketatik eta estarira edo
ezleku batera eroan eudien zirridun ori.
Eta an zer? Ba aiko: soltatu eutsoen alde-
ko garrikoa, beragaz esku biak amarratu
atzetik eta frakak bajatu eta esan:

– Joan adi emetik eta ez adi geiago ager-
tu Otxandiotik eskuluze lotsabako ori
alango ori!

Eta ene mutilak, a zan ikustekoa
seguru, mutil ori eskuak atzen dirala, fra-
kak orkatiletaraino bajatuta eta andiena,
kantzontzillu barik, orduan askok ez euan
eroaten kantzontzillorik i fraka barrutik
eta ba alantxe desperezidu ei zan mutil
ori.

Ipiñiburuko bidea artu euan eta
bidean bidazkiren bat ikusten euanen
ostandu egiten zan seguru zein baten
batek ikusi alango feturan.

Eta, ba, goizaldean allegatu zan
Ipiñaburura bidean kalamidade asko
pasatuta, eta, klaro, zelan sartu etxean
alango zerean, itxuran, eta, ba, alangoren
baten pentsatu ei euan berekitan: Bueno,
ortxe etxe ondoko iturriko askan sartu-

dosakenean ia soltetea logretan dodan. Da, tire, lograu i oan garriko-ko moropiletik eskuok ateratea ta frakok altzau t'etzean sartu i sen komo si no, baie kendu i yakon bai d'ondo kendu be barriro sirrike ibilteko ekandue, ganeko lotzarie. Olango gausek e dabilenari pasetan yakos, esteretxasu? je-je-je, ba mutil orrek e geiao es i oan ankarik imini Otxandion.

ko joazat eskubitorrak garriko eta guzti eta ba garrikoa apur bat e beratu eta eskuak e kipututen dozakenean ia soltetea logretan dodan. Eta, tira, logratu ei euan garrikoko moropiletik eskuok ateratea eta frakok altzau eta etxean sartu ei zan komo si no, baina kendu ei jakon bai eta ondo kendu be barriro zirrika ibilteko ekandua, ganeko lotsaria. Olango gauzak e dabilenari pasetan jakoz, ez deretxazu? je-je-je, ba mutil orrek e geiao ez ei euan ankarik imini Otxandion.

25.33. Aduak adu pertsonaren destinoan

Aduak e ser dirian? Ba nik entzutia e, bisimoduen gorabera asko oten dire ta ba, batesbe, seoser txarra pasetan danean, “ adue(k)t(d)aukos” esaten da, seinde, ba gaxo bat edo desgrasi bet edo iltea. Se, batzutan, personeari soritxarreko desgrasiek etorten yakos da gasterik il be bai, d'ordu esaten da adue(k)t(d)aukosela. Umian kasuen begiskoa isiten da esaunagoa, sera, baten batek e txartogurian maldasiñoa bota edo txarra deseau te ba ak umiak onik auki es eta begiskoa bototziela esaten da.

Aduentzat es i dao edaderik. Oingo gasteak aduen ordes destinue esatotzie olango seoser pasetan danean.

Oin bakisu ser dirian aduek esta? Aiko, kontau ingotzut aduen kontu bet, Arteako seminarioan kridu nengoala entzunekoa, prefeto bateri. “Baten, seguru, mutikoan bateri adue(k)p(b)ototziesan edo aduek i aukesan. D'aduok sirian ba

Aduak e zer direan? Ba nik entzutea e, bizimoduan gorabeera asko egoten dira eta ba, batezbe, zeoser txarra pasetan danean, “aduak daukaz” esaten da, zeinda, ba gaixo bat edo desgrazia bat edo iltea. Ze, batzuetan, personeari zoritxarreko desgraziak etorten jakoz eta gasterik il be bai, eta orduan esaten da aduak daukazala. Umeen kasuan begiskoa izaten da ezagunagoa, zera, baten batek e txartogurean maldizinoa bota edo txarra deseatu eta ba ak umeak onik euki ez eta begiskoa bota deusiela esaten da.

Aduentzat ez ei dago edaderik. Oraingo gazteak aduen ordezt destinua esaten deusie olango zeoser pasetan danean.

Orain badakizu zer direan aduak ezta? Aiko, kontatu egingo deusut aduen kontu bat, Arteako seminarioan kridu nengoala entzunekoa, prefeto bateri. “Baten, seguru, mutikoren bateri aduak bota eutsiezan edo aduak ei euka-

mutik'ori subiak ausiki inde ilgo sala, sube bibora batek ausiki inde, bibora(k)p(b)akisu, bereno andie daukie, da ba alantxik.

Atan i egosan da ba etzekoak a naurriek artu i situesan da mutiko orreri kontus ibilteko esatotzien batesbe bedartza edo idatza eta olango lekuetati. Oñetakoa(k)p(b)e alo-sokoak iminten otziesan d'eskuekas kontus ibilteko esan batesbe eslekue-tan eta gaubian.

D'olan ebisen, yagonean, miske-miske asten mutik'ori. Kanpoko frutak eta be etzera ekartotziesan, bada-espada, se bera yoan eskero kuxetan, ba, bakisu, mallukiek edo, udako beroan subiak a bistu iten dire, d'akordatzakoan sat! ausiki be igoal.

Da, bueno. Egun beten, mutiko orreri matza enkapritxau yakon. D'orduen, yoan i sen bere aite matzetan etzeko orma eskutuen eukien masparrara. Matz urtea i sen da ba masmorda batzuk ie sorue yoten ei egosan. Artu aitorrek alango mas-morda bat eta erotzen semiari yateko. Orduen frutia esan garbitan, erramarik ara yate(n) san da.

Mutiko'ori asi sen matza yaten baie garauke in bearrean, agora eroan eta ausikadaka yaten asi sen intzi-guen intziguemas.

Etzeko gustiek i egosan berari begire, yan barik iruntzi in bear auen masmordea ta, andurre dariola.

Alangon baten badiño mutiko-ak:

- Ay! Seosek pikau dust miñen puntan da mine emotust. Agoko gustie botauen kanpora txue les purrustada bat inde, da non ikusten daudien selaien sube txiki-txiki- bet, biborakume bat. Atoan tragaudien osti-

zan. Eta aduok zirean ba mutiko ori sugeak ausiki eginda ilgo zala, sube bibora batek ausiki eginda, biborak badakizu, bereno andia daukie, eta ba alantxik.

Atan ei egozan eta ba etzekoak a neurriak artu ei zituezan eta mutiko orreri kontuz ibilteko esaten eutsien batezbe bedartza edo idatza eta olango lekuetatik. Oinetakoak be alozokoak iminten eutsiezan eta eskuekaz kontuz ibilteko esan batezbe ezlekuetan eta gauean.

Eta olan ebilzan, jagonean, mizke-mizke azten mutiko ori. Kanpoko frutak eta be etxera ekarten eutsiezan, badaezpada, ze bera joan ezkerro kogietan, ba, badakizu, mailukiak edo, udako beroan sugeak a biztu egiten dira, eta akordatzakoan sast! ausiki be igoal.

Eta, bueno. Egun baten, mutiko orreri maatsa enkapritxatu jakon. Eta orduan, joan ei zan bere aita maatsetan etzeko orma eskutuan eukien maatsparrara. Maats urtea ei zan eta ba maats-morda batzuk ia zorua joten ei egozan. Artu aita orrek alango maats-morda bat eta eroan eutsan semeari jateko. Orduan frutea ez zan garbitan, erramarik ara jaten zan eta.

Mutiko ori asi zan maatsa jaten baina garauka egin bearrean, aora eroan eta ausikadaka jaten asi zan intziguaren intziguagaz.

Etzeko guztiak ei egozan berari begira, jan barik iruntzi egin bear euan maats-mordea eta, andurra dariola.

Alangoren baten badino mutikoak:

- Ay! Zeozek pikatu deust miñaren puntan eta mina emoten deust. Aoko guztia bota euan kanpora txua lez purrustada bat eginda, eta non ikusten daudien zelaian sube txiki-txiki bat, biborakume bat. Atoan tragatu eudien ostikopetan

kopetan sapaldute baie berandu, se,berenoa sartute itxi otzen areri mutikoari miñean, d'andixik il i sen, aduek esaneko moduen. Balixitike ori egie isitea esta? Iñon danik pasau be gero e?

Etxekoak isin audien sinistu be in masmordan subia egotea ta yoan be in i sirian a masmordea artuko lekure.

D'efetibamente, a masmordea artuko ormasuloan biborean abie topaudien ume geiogas. Orduen konturatu sirian ausiki ineko biborakumea ormakontran egoan masmordan sartu sala d'abire yoan orduko mord'ori artu aitek eta mutikoari erotzela, d'ak a agora eroakeran ba ausiki in otzela estarien egoan biborakumeak. No(k) pentzauko oan ba ori? Da, ba, pasau be in leike e, se subiak ormasuloatan iten daudies auren abiek, matzondoan aienatati igonda. B'orixe, ak mutikoak aduek i aukesan d'andixik il i sen".

zapalduta baina berandu, ze,berenoa sartuta itxi eutsan areri mutikoari miñean, eta andixik il ei zan, aduak esaneko moduan. Baleitike ori egia izatea ezta? Inon danik pasatu be gero e?

Etxekoak ezin eudien sinistu be egin maats-mordan sugea egotea eta joan be egin ei zirean a maats-mordea artuko lekura.

Eta efektibamente, a maats-mordea artuko orma-zuloan biborearen abia topatu eudien ume geiagogaz. Orduan konturatu zirean ausiki egineko biborakumea orma-kontran egoan maats-mordan sartu zala eta abiara joan orduko morda ori artu aita eta mutikoari eroan eutsala, eta ak a aora eroakeran ba ausiki egin eutsala estarian egoan biborakumeak. Nok pentsatuko euan ba ori? Eta, ba, pasatu be egin leike e, ze sugeak orma-zuloatan egiten daudiez euren abiak, maatsondoaren aienetatik igonda. Ba orixe, ak mutikoak aduek ei eukazan eta andixik il ei zan".

25.34. Otsin-iturriko ule-sugea

Entzutia gure sarrari te, ba, iturrikure edakeran " Jesus" edo beste erresuen bat edo in bea dala se, su(k)tx(y)akingosu, emen iturriek e klase askotakoa(k)t(d)aos, ure, seinde, atxure, or, Sabalen, metalure, emen Iturrialden eta Errekatxun, uratza, or, Uratzen, gasie be badao or, Gesalen. Da, ba, iturri batzuk u txorrodune(k)t(d)ies, baie besto batzuk u emoie aspiti daukie t'esin lei artu txorrodunen moduen.

Orrikas, emoie aspiti daukienakas, aska bat iten da, seinde, arri-

Entzutea gure zaarrari-eta, ba, iturriko-ura edakeran " Jesus" edo beste errezuren bat edo egin bear dala ze, zuk jakingo dozu, emen iturriak e klase askotakoak dagoz, ura, zeinda, aitzura, or, Zabale-n, metalura, emen Iturrialde-n eta Errekatxu-n, uratsa, or, Uratse-n, gazia be badago or, Gezale-n. Eta, ba, iturri batzuk u txorrodunak dira, baina beste batzuk u emoia azpitik daukie eta ezin lei artu txorrodunaren moduan.

Orraikaz, emoia azpiti daukienakaz, aska bat egiten da, zeinda, arri-orma bat

orma bat obuen-obuen, eta otxin bet iten da, aska bat, eta orregaiti esaten yako otxin iturrie, potxingoa be bai, esta bardine baie, segun bakotzak e.

Da, ba, klaro, egunes ikusi iten da ure garbi daoen edo estaoen, baie bein ilundu askero esta ikusten da, ba, ur ori yarroan artu t'edan askero kontu andie auki bea da d'orregaiti "Jesus" edo beste antzekoan bat esan bea da berinkituteko, orixe da usedioa.

Batzuk u, ori nauk ikusite daukot e, ilunduta ekarriko iturrikureri ilinti bategas kurtzea itotzien edan aurreti(k), aitu noraño e!

D'es ori bakarrik. Nik entzutia daukot, iturriko otxinean ganaduen ullean bat egon, d'edanaskero, barruen subia fundetan dala ulle orretati, da tripan asi t'asi da gero kontuek ia nondik eta selan urtetan dauen ak subiak.

Orragaiti dao usedioa "Jesus" esateko, iturrikure edo edabean bat edakeran. Sera(k)p(b)e, ak e, Olartekoak, Anbotoko Señoreagana yoan sana(k)p(b)e, basu-sagardoa edan aurreti "Jesus" esan oan, an Supe-liorren, eta sagardoa berinkitu. D'orregaiti esaotzen ba se Anbotoko Señoreak a urregorrisko basue beragas eroateko berinkitu in dauela ta.

Su, balitxitike ori egie isitea esta? Seose isingo da ainbesteko bildurre isiteko gaubeko iturrikureri.

oboan-oboan, eta otsin bat egiten da, aska bat, eta orregaitik esaten jako otxin-iturria, potxingoa be bai, ez da bardina baina, segun bakoitzak e.

Eta, ba, klaro, egunez ikusi egiten da ura garbi dagoan edo ez dagoan, baina bein ilundu ezkeru ez da ikusten, eta, ba, ur ori jarroan artu eta edan ezkeru kontu andia euki bear da eta orregaitik "Jesus" edo beste antzekoren bat esan bear da bedeinkatuteko, orixe da usadioa.

Batzuk u, ori neuk ikusite daukat e, ilunduta ekarritako iturriko-urari ilinti bategaz kurtzea egiten eutsoen edan aurretik, aitu noraino e!

Eta ez ori bakarrik. Nik entzutea daukat, iturriko otsinean ganaduen ule-ren bat egon, eta edan ezkeru, barruan sugea fundetan dala ule orretatik, eta tripan azi eta azi, eta gero kontuak ia nondik eta zelan urtetan dauan ak sugeak.

Orragaitik dago usadioa "Jesus" esateko, iturriko-ura edo edaberen bat edakeran. Zerak be, ak e, Olartekoak, Anbotoko Señoreagana joan zanak be, basu-sagardoa edan aurretik "Jesus" esan euan, an Supelegorren, eta sagardoa bedeinkatu. Eta orregaitik esan eutsan ba ze Anbotoko Señoreak a urregorrizko basua beragaz eroateko bedeinkatu egin dauela eta.

Zu, baleiteke ori egia izatea ezta? Zeozer izango da ainbesteko bildurra izateko gaueko iturriko-urari.

25.35. Ergoieneko lurpeko urregorriak: Undurragan eta Murgan

Lenao be iños esanda daukutzut ori lurpeko urregorriena baie atzera

Leenago be inoz esanda deukotsut ori lurpeko urregorriarena baina atzera

be kontaukotzut se Murgakoa e(s)tx(y)atan burure betorri.

Emen, Undurran, oingo San Justo ta Pastorren ermita or goragoan egoan d'ona kamiñondora ekarri sen. D'esaten daurie, an, len on san lekuko landan, Elexatxu useneko landan, lurpian, idi-narru bete urregorri daoelaskoa gordeta, baiiii, orixe dauket entzutia e! Balitxikite ori egie isitea be gero, no(k)tx(y)akin?

D'es or bakarrik, or goiko Murga mendien be urregorrie i dao lurpian gordeta, d'es leku baten bakarrik e! Nik entzutia daukot eguskiek (g)oxean lelengo yoten dauen lurren aspian daoela urregorrie. Arrastien be bardin seguru. Arrastiko atzenengo eguskie(k)tx(y)-oten dauen lekuen be i dao urregorrie. Osea ke, Murga mendien leku biten i dao urregorri ori. Indusi iten espadogus ba Elexatxu-ko landea ta Murgako puntia? je-je-je! Baie, nondik asi lur yoten?.Ogeto bertanbera itxi, txakur-amesak iten ibili barik, se, badaoelakoan urregoerrie egon es in laitike, d'arpelik indusi, arpeleko bearlekue artu.

be kontatuko deutsut ze Murgakoa ez jatan burura be etorri.

Emen, Undurragan, oraingo San Justo eta Pastorren ermita or goragoan egoan eta ona kamino ondora ekarri zan. Eta esaten daudie, an, leen egon zan lekuko landan, Elexatxu uzeneko landan, lurpean, idi-narru bete urregorri dagoalazkoa gordeta, baiiii, orixe daukat entzutea e! Balitzateke ori egia izatea be gero, nok jakin?

Eta ez or bakarrik, or goiko Murga mendian be urregorria ei dago lurpean gordeta, eta ez leku baten bakarrik e! Nik entzutea daukat eguzkiak goizean leenengo joten dauan lurraren azpian dagoala urregorria. Arrastian be bardin seguru. Arrastiko atzenengo eguzkiak joten dauan lekuan be ei dago urregorria. Osea ke, Murga mendian leku bitan ei dago urregorri ori. Indusi egiten ez badoguz ba Elexatxu-ko landea eta Murgako puntea? je-je-je! Baina, nondik asi lur joten? Obeto bertan beera itxi, txakur-ametsak egiten ibili barik, ze, badagoalakoan urregoerria egon ez egin leiteke, eta alperrik indusi, alperreko bearlekua artu.

25.36. Itzinako lapur famatua eta herri-zekorra Supelegor zaintzen

Ako Frantsesadea? Bai koño, ori famosoa yatzun. Akorduri(k)p(b)e estok auki,baie Frantsesadea aititu ostesunean burure etorri yat a aldi betekoa. Ori Itzine partean pasau i sen. Edonosko kontue da gero.

Or Itzinen lapur famau bet on i sen, tremendoa ta bildurgarrie. Esin oan inok arrapau se Itzinen kobasulo

Arako Frantsesadea? Bai koño, ori famosoa jatzun. Akordurik be ez dok euki,baina Frantsesadea aitatu deustazunean burura etorri jat a aldi batekoa. Ori Itzina partean pasatu ei zan. Edonozko kontua da gero.

Or Itzinan lapur famatu bat egon ei zan, tremendoa eta bildurgarria. Ezin euan inok arrapatu ze Itzinan kobazulo

ugeri dao, seinde, Lapursulo, Asleor, d'asko, d'andiena Supilaur, d'alboragoan Atxuloko begie, Atxulo, atxan erdien beresko suloa, eskapetako be ona.

Da lapur famau orrek urregorri asko i auken gordeta Supilaur koba barruen da kueba yagoteko erri-sekorra eukitoan ataka atakan eta bera estala bestean bat arrimau eskerro agoti sue dariola aste i sen erri-sekor ori. Erri-sekorra? Erri-sekorra sera yatzu, sekor gorriskea, erri-bei edo basabei erresakoa, emeko geuria.

Da, ba, entzutia e, ori Frantzesadea isin senean, ba frantzesak, Frantzirantzean, urregorri asko gorde i auren Itzineko suloetan, gero bille etorteko-edo. Da, ba, lapur famaueri ondo etorri i yakosan frantzeson urregorri(k)p(b)e eta Supilaur suloan gorde i oasan. Supilaur sulo sakona yatzu da barruti sulo geio d'errespetokoak e. Kandelargie be amatau iten da, kontus andi barruetati.

D'egun beten forasteru betzuk agartu i sirian Itzineti urregorri topetan, frantzesak-edo isingo sian, da urregorrie es topetara, deskuidu beten, barruntau t'arrapau in i audien lapur famau ori, d'eroan da kartze-lan sartu urrin beten, entzutia frantzesak aurre isin sialaskoa, d'an auki audela presondegien il arte.

D'andi geroagora, barriro be etorri in i sian frantzesok urregorri bille baie Supilaurraer yoa sianean, ene mutilek, erri-sekorra agoti sue dariola plantau yakien d'esin sartu, espabere?

Da, frantzesok, lapur orren arima kondenaue isingo ete san es ete san, pentzauden lapur famauen asu-

ugari dago, zeinda, Lapurzulo, Aslegor, eta asko, eta andiena Supelegor; eta alboragoan Atxuloko begia, Atxulo, aitzaren erdian berezko zuloa, eskapetako be ona.

Eta lapur famatu orrek urregorri asko ei eukan gordeta Supelegor koba barruan eta kueba jagoteko erri-zekorrra eukiten euan ataka atakan eta bera ez dala besteren bat arrimatu ezkerro aotik sua dariola asten ei zan erri-zekor ori. Erri-zekorrra? Erri-zekorrra zera jatzu, zekor gorrizkea, erri-bei edo basabei errazakoa, emeko geurea.

Eta, ba, entzutea e, ori Frantsesadea izan zanean, ba frantsesak, Frantzirantzean, urregorri asko gorde ei euden Itzinako suloetan, gero bila etorteko-edo. Eta, ba, lapur famatuari ondo etorri ei jakozan frantseson urregorriok be eta Supelegor zuloan gorde ei euazan. Supelegor zulo sakona jatzu eta barrutik zulo geiago eta errespetokoak e. Kandela-argia be amatatu egiten da, kontuz andik barruetatik.

Eta egun baten forasteru batzuk agertu ei ziran Itzineti urregorri topetan, frantsesak-edo izango ziran, eta urregorria ez topetara, deskuidu baten, barruntatu eta arrapatu egin ei eudien lapur famatu ori, eta eroan eta kartze-lan sartu urrun baten, entzutea frantsesak eurak izan ziralazkoa, eta an euki eudela presondegian il arte.

Eta andik geroagora, barriro be etorri egin ei ziran frantsesok urregorri bila baina Supelegorrera joan ziranean, ene mutilak, erri-zekorrra aotik sua dariola plantatu jakien eta ezin sartu, ezpabere?

Eta, frantsesok, lapur orren arima kondenaue izango ete zan ez ete zan, pentsatu euden lapur famatuaren azu-

rre(k) topau te Supilaurreko sulora ekartea. Alantxi in i auren eta asurro(k)p(b)ototziesanean, desaparekidu in i yakien erri-sekor ori te barrure sartu al i sian d'urregorriok artu t'eroan.

Lapurren isena inok estaki, Patakon salaskoa be bauket entzutia.

D'ori erri-sekorrana lenao be kontautzut, ori, Anbotoko Señorean kontuen be bai. A(k)p(b)e erri-sekorra aukiten i oan itxunde bere ondoan Supilaurreko atakan goruetan ote sanean. Ku(e)bea yagoteko eukikotan. Seoser isingo yatzun, se kontau be iten san da.

Frantsesadea, bai gisona, gure usabari-te entzunde an Oroskon. Ak a leiduten be bekien, ondo barres. Su, au balitzitike egie isitea esta?

rak topatu eta Supelegorreko zulora ekartea. Alantxi egin ei euden eta azurrok bota eutsoezanean, desaparekidu egin ei jakien erri-zekor ori eta barrura sartu aal ei ziran eta urregorriok artu eta eroan.

Lapuraren izena inok ez daki, Patakon zalazkoa be badaukat entzutea.

Eta ori erri-zekorrarena leenago be kontatu deutsut, ori, Anbotoko Señorearen kontuan be bai. Ak be erri-zekorra eukiten ei euan etzunda bere ondoan Supelegorreko atakan goruetan egoten zanean. Kuebea jagoteko eukiko euan. Zeozer izango jatzun, ze kontatu be egiten zan eta.

Frantsesadea, bai gisona, gure ugazabari-eta entzunda an Orozkon. Ak a leiduten be baekian, ondo barriz. Zu, au balitzateke egia izatea ezta?

28.2. Sugearen buztanak burua galdu

Au kontu au serari daukotzet entzunde, Arantzasuko bateri d'a(k)p(b)e orreri, selan da ba, Arantzasuko Kartutxon semea, bai gixona, Don Pedro misionerueri, serean Afrikan on san luseroan misioneru d'arexeri entzunekoa, oin gixajoa ilde dao baie.

Ba baten seguru, Afrikako olango sube lusean bateri pasau i yakon. Da ba, ameneko, subean bustena kexau in i yakon bere burueri d'esan i otzen:

– I, i beti abil aurreti te ni nau beti atzeti, nau(k)p(b)e aurreti ibili gure yoat beti atzeti narras ibili barik aure esanean, e(s)tx(y)oa(t)k(g)ure au bisimodu au te kanbiau in beaiuk.

Au kontu au zerari daukotsat entzunda, Arantzazuko bateri eta ak be orreri, zelan da ba, Arantzazuko Kartutxoren semea, bai gizona, Don Pedro misioneruari, zerean Afrikan egon zan luzaroan misioneru eta arexeri entzunekoa, orain gixajoa ilda dago baina.

Ba baten seguru, Afrikako olango sube luzeren bateri pasatu ei jakon. Eta ba, ameneko, sugearen buztana kexatu egin ei jakon bere buruari eta esan ei eutsan:

– I, i beti abil aurretik eta ni neu beti atzetik, neuk be aurretik ibili gura joat beti atzetik narras ibili barik eure esanean, ez joat gura au bizimodu au eta kanbiatu egin bear joaguk.

- Kanbiau diñostek? Ik estaki(k)p-(b)a, buruek aurreti ibili bea dauela?
- Segaitio ba?
- Ba, aitik. Nik i begie(k)tx(y)aukoasat d'ikusit iten yoat aurrekoa. Ganera, yakie be topau beayoat, saguek edo era dana. Gero, aurreko aginetan berenoa be bayaukoat setako atako, estok aituten? I selan isingo as ba burue estaukok olango eser da?
- E(s)tx(y)ostek ardure, burue isin gure yoat eta kitu.

Da, ba, ain insistidu otzen asko bustenak a bere burueri, ba in in audien kanbio ori selanbaist. Egunak aurrera yoan ala, asuntoa lastu in i yakien. Buruko bustenak es i auen eser ikusten, saguri(k)p(b)e es auen kuxetan, bueno, dana i sen deskalabrue, il inik seguru subea! D'orretara esan i otzen benetako buruek benetako bustenari:

- Esan noan ba txakur amesik in es iteko. Oin, aure burue galduok eta naurea galdu baño len yoai barriri bustenera, axe dok ire lekue ta.

D'alantxik in i audien, seguru da bisirik urtein.

- Kanbiatu dinostak? Ik ez dakik ba, buruak aurretik ibili bear dauala?
- Zergaitino ba?
- Ba, aitu egik. Nik begiak jaukazat eta ikusi egiten joat aurrekoa. Ganera, jakia be topatu bear joat, saguak edo era dana. Gero, aurreko aginetan benenoa be bajaukat zertako artako, ez dok aituten? I zelan izango az ba burua ez daukak olango ezer eta?
- Ez jaustak ardura, burua izan gure joat eta kitu.

Eta, ba, ain insistidu eutsan asko buztanak a bere buruari, ba egin-egin eudien kanbio ori zelanbeist. Egunak aurrera joan aala, asuntoa lastu egin ei jakien. Buruko buztanak ez ei euan ezer ikusten, sagurik be ez euan kogiduetan, bueno, dana ei zan deskalabrua, il inik seguru sugea! Eta orretara esan ei eutsan benetako buruak benetako buztanari:

- Esan noan ba txakur amesik egin ez egiteko. Orain, eure burua galdu dok eta neurea galdu baino leen joan adi barriri buztanera, axe dok ire lekua eta.

Eta alantxik egin ei eudien, seguru eta bizirik urten.

28.3. Burlazar hasi eta benetan akabatu

Emen Seberion, ganadu-ermandade ugeri egoan da ba gu(k)p(b)e bagaunken emen Etzaso ta Gositu errekariko errekarian ermandadako gintzesanon artean. Auki be in in bear ermandadea se, lenao es egoan segurorik eta ba arkalen artean konpondu bear ganaduen bat tragau eskero, kabrunkunea edo axatu te errementau edo segaiti agaiti ganadue

Emen Zeberion, ganadu-ermandade ugari egoan eta ba guk be bageunkan emen Etxazo eta Gorozitu errekariko errekarian ermandadako gintzesanon artean. Euki be egin egin bear ermandadea ze, leenago ez egoan segurorik eta ba alkarren artean konpondu bear ganaduen bat tragatu ezker, kabrunkunea edo aizetu eta errementatu edo zergai-

galdu esketiño. Txal-galdue be, bueno, gaur abortoa esatotzu, ori be, ilde yayo eskero, ermandadan konpontan san. Gaxo bako ilte bat isin eskero, trokara yausi te il, edo beste seosetara mankau, ba orduen il ite san ganadue ta karnaseruen batek artu esik, aren okelea errepartidu iten san ermandadakoan artean da, ba, ganadu orren tasasiño- balioa danan arte pagau.

Da, ba egun beten, ganadue tasetan etorri yakusen ermandadako burue, mayordomoa eta beste ganetikoak, eta kortan sartu sireanean, burkada naboia ikusi audien, auki be eperdi ederrak aukiesan da garea be ona.

Orretara, badiñotzo tasadore gasteanak gure aite defuntueri:

- Oño, nabo ederra daukosue aurten, ganeko eperdiek eta garea, da ganera lorean usin gosoa!
- Bai,- erantzun otzen gure aitek-, aurten ainbe(t)x(y)andu.
- Saurok?
- Bai, mutil, gauk, no(k)p(b)a?
- Baie saurok?
- Mekasuen lapuñeta! -esan otzen gure aitek areri txantxetan edo burlesar dabilela igirri otzenean-, i ain listoa isin d'emen ao? Ire aite(k)-p(b)e olan esango yok estok? Ona es etorri ondo daoena txarto daoela esaten d'olango trikimalluekas e, gogaitu ori alangori! Da, beste gauze bat, txalue bas be, sikieran errespetoa galdu es in gero, errekoño!

D'alantxik akabau sen naboyanan kontue, burlesar asi te benetan akabau. Listo plantadun a mutil gogaitue lotzatute itxi audien, bata-saurrekoa isiteagaiti.

tik argaitik ganadua galdu ezketino. Txaalgaldua be, bueno, gaur abortoa esaten deutsagu, ori be, ilda jαιο ezker, ermandadan konpontan zan. Gaixo bako ilte bat izan ezker, trokara jausi eta il, edo beste zeozertara mankatu, ba, orduan il egiten zan ganadua eta karnizeruren batek artu ezik, aren okelea errepartitu egiten zan ermandadakoan artean eta, ba, ganadu orren tasazino-balioa danan arte pagatu.

Eta, ba egun baten, ganadua tasetan etorri jakuzan ermandadako burua, maiordomoa eta beste ganetikoak, eta kortan sartu zireanean, burkada naboia ikusi eudien, euki be eperdi ederrak eukiezan eta garea be ona.

Orretara, badinotso tasadore gazteenak gure aita defuntuari:

- Oño, nabo ederra daukazue aurten, ganeko eperdiak eta garea, eta ganera lorearen usain gozoa!
- Bai,- erantzun eutsan gure aitak-, aurten ainbat jan dogu.
- Zeuok?
- Bai, mutil, geuk, nok ba?
- Baina zeuok?
- "*Mekasuen lapuñeta!*" -esan eutsan gure aitak ar(er)i txantxetan edo burlesar dabilela igarri eutsanean-, i ain listoa izan eta emen ago? Ire aitak be olan esango jok eztok? Ona ez etorri ondo dagoana txarto dagoala esaten eta olango trikimailuekaz e, gogaitu ori alango ori! Eta, beste gauza bat, txalua ba az be, sikieran errespetoa galdu ez egin gero, errekoño!

Eta alantxik akabatu zan nabo-janaren kontua, burlesar asi eta benetan akabatu. Listo plantadun a mutil gogaitua lotsatuta itxi eudien, batezaurrekoa iza-teagaitik.

28.4. Ezkurra eta kalabaza

Au kontu au estakit i nori entzunde auki dotzedan, baie polite da ta kontau ingotzut ia gustetan yatzun.

Ba, baten seguru, gison andragin bet, andreari kapritxoa emotearren, arto-solora yoan san serukarik arako indaba barri betzun eske, gosoak isiten dire ta isin be orrik i lelengo indabok.

Artotza ederra i auken da, ba, eguskie berotan asite egoanes, seruko(k)p(b)atu te muna bastarreaan yarri sen, apur beten berean be, aratx andi beten gaispean, lepoa aratxari dotzela, artotzea begietati sartu gurean.

Artotzeari esese, bitarteko erremaletxa, indaba eta ganetikoari begire daoela, kalabasa endemoniño bat ikusi auen munan aiena artotzan barrure dauela.

Begire-begire parau yakon kalabasa orreri te, ba, oño! berekitan pentzetan asi sen d'esan bere burueri: "Aikomen amaiketerdiek! Mundue txarto inde yaok. Selan isin leitikok au, kalabasasi txiki beteti selan urten leikek ain kalabasa andiek et'ostera aratx garrasta onek selan auki leisek ain eskur txikiak? Au e(s)tx(y)aok ondo. Munduko gausak e selan doasen baño estok? Ikusteko be olangorik?"

Berekitako buruausteakas dabilela, e(s)tx(y)ako yausten eskur bat buru burura ta kaskatekotxu bet emon da txirran yoan kalabasondoraño? Ene! Antxe akabau yakosan, seguru, bere burueri lorr(a) emoteok d'esan i auen bere artean ba se: "es mutil, es, mundue e(s)tx(y)aok txarto inde se, txirran yoan doan eskur orren lekuen ori

Au kontu au ez dakit i nori entzunda euki deutsadan, baina polita da eta kontatu egingo deutsut ia gustetan jatzun.

Ba, baten seguru, gizon andragin bat, andreari kapritxoa emotearren, arto-solora joan zan zerukarik arako indaba barri batzuren eske, gozoak izaten dira eta izan be orreik i leenengo indabok.

Artotza ederra i eukan eta, ba, eguzkia berotuten asita egoanez, zerukok batu eta muna bazterreaan jarri zan, apur baten berean be, aritz andi baten gerizpean, lepoa aritzari deutsal, artotzea begietatik sartu gurean.

Artotzeari ezeze, bitarteko erre-molatxa, indaba eta ganetikoari begira dagoala, kalabaza endemonino bat ikusi euan munan, aiena artotzan barrura dauala.

Begira-begira paratu jakon kalabaza orreri eta, ba, oño! berekitan pentsetan asi zan eta esan bere buruari: "Aikomen amaiketerdiak! Mundua txarto eginda jagok. Zelan izan leitikok au, kalabazasi txiki batetik zelan urten leikek ain kalabaza andiak eta ostera aritz garrasta onek zelan auki leizak (leikezak) ain ezkur txikiak? Au ez jagok ondo. Munduko gauzak e zelan dozaken baino eztok? Ikusteko be olangorik?"

Berekitako buruausteakaz dabilela, ez jako jausten ezkur bat buru burura eta kaskatekotxu bat emon eta txirran joan kalabaza ondoraño? Ene! Antxe akabatu jakozan, seguru, bere buruari lorr(a) emoteok eta esan ei euan bere artean ba ze: "ez mutil, ez, mundua ez jagok txarto eginda ze, txirran joan dokan ezkur orren

kalabaszar ori egon balitzok ser? ba, nire buruen errukie! Es, es, yaosela gausa(k)t(d)aosen moduen, seosegaiti ongosak eta olan.

D'axe pasau yakon, seguru, te ba poz bi eroan i ausen etzera, bata burue sano kanpoti te barruti te bestea andreari indaba barrien kapri-txoa, andragine san da isin be. Gero estaki(t)p(b)a andreari dana kontau-tzen ala bera(k)p(b)akarrik io auen eskurre ta kalabasean artekoa. Ni nau(k)p(b)e inos pentzaudas olango gausak, es pentzau e, baie naturaleseak inde daukos bere bideak, esteretxasu?

lekuan ori kalabaza-tzar ori egon balitzok zer? ba, nire buruaren errukial! Ez, ez, jagozala gauzak dagozan moduan, zeozergaitik egongo dozak eta olan.

Eta axe pasatu jakon, seguru, eta ba poz bi eroan ei euazan etxera, bata burua sano kanpotik eta barrutik eta bestea andreari indaba barrien kapri-txoa, andragina zan eta izan be. Gero ez dakit ba andreari dana kontatu eutsan ala berak bakarrik eo euan ezkurra eta kalabazearen artekoa. Nik neuk be inoz pentsatu dodaz olango gauzak, ez pentsatu e, baina naturalezeak eginda daukaz bere bideak, ez deritzazu?

33.3. Jentilak harri-bolaka mendirik mendi Orozkon

Aibere kontue isingo da, baie egun beten arrastegi osoa emon i audin arri-bolak a jaurtiten orrik i Untzetapikuko jentilok eta Arrolako Santa Mañe puntakoak.

Bateti(k)p(b)estera lau be(t)kilometro ongo dire ta atera kontuik i selango arriotza aterako audin.

Da, ba, alangonbaten, Untzetapikuko jentil kankallo batek anka bat imini auen Untzetapikun eta bestea Santa Mañeko tontorreran da Torrelandako errotako andaparea sikitu lelengo surrupadan.

Orduin, Santa Mañeko jentil indertzu betek e, artu arri-bola endemoniño bat eta Untzetapikure inean bota auen eta, joño, punta puntan jo ta satie kendu i otzein Untzetapikuko puntetari.

Orregaiti ekosi leike Untzetapikun alde bateko oskea, sererantza,

A bere kontua izango da, baina egun baten arrastigi(-ri) osoa emon ei audien arri-bolak a jaurtiten orreik i Untzetapikuko jentilok eta Arrolako Santa Mañe puntakoak.

Batetik bestera lau bat kilometro egongo dira eta atera kontuak i zelango arriotsa aterako eudien.

Da, ba, alangoren baten, Untzetapikuko jentil kankailo batek anka bat imini euan Untzetapikun eta bestea Santa Mañeko tontorreran eta Torrelandako errotako andaparea sikatu leenengo zurrupadan.

Orduan, Santa Mañeko jentil indartu batek e, artu arri-bola endemonino bat eta Untzetapikura einean bota euan eta, koño, punta puntan jo eta zatia kendu ei eutsan Untzetapikuko puntetari.

Orregaitik ekusi leike Untzetapikun alde bateko oskea, zererantza, Aibelabe-

Aibelaberantzako partean. Ai bere bildurgarrie isingo san e! Ba, olantxik (g)aldu i auen Untzetapikuk u tontor satie. Oin antenea imini deuskui punta puntan eta kantarak aspian. Gaur u estao lengorik.

rantzako partean. A bere bildurgarria izango zan e! Ba, olantxik galdu ei euan Untzetapikuk u tontor zatia. Orain antenea imini deuskue punta puntan eta kantararak azpian. Gaur u ez dago leengorik.

34.3. Supelegorreko saia, belea eta mirua

Len esaotzuten moduin, or Supelegorren saiek asko oteire da bela(k)p(b)ere eskandalui, d'orti Itxinati belatxikoa(k)p(b)ere makiña bat, mirui(k)p(b)ere bai.

Da ganaduin bat tragetan sanean belak ekosten audin lelen go da begiek ateta otzeisan. Da belak a beti aukite audin beste bela bat arbola baten puntan edo aspuntan abisui emoteko. Da belean karrakotza entzun orduin, saie(k)p(b)ere arrimetan sian ganadu tragauegana da dana(k)p(b)atera in tripekadea. Saiek e entrama andikoak isiteire da satie(k)p(b)ere andiek iruntziten daudis d'auren biripoak betebearragas batzuitan atragantau bere iten dire. Baie, esan dotzutena, belak isiten dire, sera, beternarioak, aik emototzei abisue jaten joateko.

Or Supelegorren ganadu asko sartute(n) san barruko freskurara ta ba(t)p(b)añõ geio tragau bere bai. Orduin belak eta gero saiak sartuten sian Supelegorren d'ai ekostea bildurgarrie isite san pastoreantzat.

Orregaitio, pastoreak Supelegor ondora edo barrure joaten sianean, ba, badaespada, bates bere gaubean, kandela bedeinkatuik isituten aude-san bakean isiteko, parte txarrekoak a kalterik in es iteko.

Leen esan deutsudan moduan, or Supelegorren saiak asko egoten dira eta belak bere eskandalua, eta ortik Itzinatik belatxikoa bere makina bat, miruak bere bai.

Eta ganaduren bat tragetan zanean belak ikusten audien leenengo eta begiak ateraten eutsiezan. Eta belak a beti eukiten eudien beste bela bat arbola baten puntan edo a(it)zpuntan abisua emoteko. Eta belearen karrakotza entzun orduan, saiak bere arrimetan ziran ganadu tragatuagana eta danak batera egin tripakadea. Saiak e entrama andikoak izaten dira eta zatiak bere andiak iruntsiten daudiez eta euren biripoak bete bearragaz batzuetan atragantatu bere egiten dira. Baina, esan deutsudana, belak izaten dira, zera, beternarioak, aik emoten deusie abisua jaten joateko.

Or Supelegorren ganadu asko sartuten zan barruko freskurara eta bat baino geiago tragatu bere bai. Orduan belak eta gero saiak sartuten ziran Supelegorren eta a ikustea bildurgarria izaten zan pastoreantzat.

Orregaitino, pastoreak Supelegor ondora edo barrura joaten ziranean, ba, badaezpada, batez bere gaubean, kandela bedeinkatuak isiotuten eudezan bakean izateko, parte txarrekoak a kalterik egin ez egiteko.

Da, ba, Supelegorren istori andiek kontetan dire da ni gastea nintzen orduin beste pastore batek kontauten au kontui bere, kontui isingo da baie egasti bateri baño geiori pasau yako ori gero e.Baten e miru betek ekosi i auen bela batzuin artean sai andi bet Supelegorreko suloko atakan eta an ebilen karrakotzean idune gora t'idune bera biripoko enberasui kendu gurean.

Da, miruik ai saie alan ekosi auen orduin joan in yakon d'ondora arrimau orduin esaotzen:

- Ser pasetan yata ain artega oteko?
- E(s)tx(y)akia(t)p(b)a, asurren bat trabestu yatak idunean d'esin yoat es atzera es aurrera in, e(s)tx(y)-akiat ser in, biripoan ioten itxi edo botaka iteko bedarran batzu(k) jan. Ara, itxiste(k)p(b)akean da joadi orti e(s)tx(y)aukat kopletarako gogorik eta.

Miruik orduin, ai saie alan ekosi ebanean, pago batera egas in badaespada d'esan otzen:

- Klaro, ondo meresidute daukok, se beti abil gulerien bear estan satiek iruntziten da nosonos pasau bear da pasau yata. Ni ostera enok ibiltzen ire moduin, nik i pisti txikiagoak arrapatuten yoasat eta enok atragantetan, seinde saguik, emeak batesbe, t'olango pisti txikerra(k) jaten yoasat. Ale, oin or daukok sati beterako enojui lumabako sama luse orretan, naurri bakorrengalangek.

Aixe kontui akordau yata ta kontautzut. Ai pastorea, sera, a(k) pastoreak ni(k)p(b)ño ogeto kontautokotzun baie, tire, orixe pasau i yakon saieri Supelegorreko sulooan atakan.

Eta, ba, Supelegorren istoria andiak kontetan dira eta ni gaztea nintzan orduan beste pastore batek kontatu eustan au kontua bere, kontua izango da baina egasti bateri baino geiagori pasatu jako ori gero e.Baten e miru betek ikusi ei euan bela batzuen artean sai andi bat Supelegorreko zuloko atakan eta an ebilen karrakotzean iduna gora eta iduna beera birapoko enberazua kendu gurean.

Eta, miruak a saia alan ikusi euan orduan joan egin jakon eta ondora arrimatu orduan esan eutsan:

- Zer pasetan jak ain artega egoteko?
- Ez jakiat ba, azurren bat trabestu yatak idunean eta ezin joat ez atzera ez aurrera egin, ez jakiat zer egin, birapooan eoten itxi edo botaka egiteko bedarren batzuk jan. Ara, itxi eistak bakean eta joan adi ortik ez jaukat kopletarako gogorik eta.

Miruak orduan, a saia alan ikusi ebanean, pago batera egaz egin badaezpada eta esan eutsan:

- Klaro, ondo mereziduta daukak, ze beti abil gulerian bear ez dan zatiak iruntsiteta nozono pasatu bear eta pasatu jak. Ni ostera ez nok ibiltzen ire moduan, nik i pizti txikiagoak arrapatuten joazat eta ez nok atragantetan, zeinda saguak, emeak batezbe, eta olango pizti txikerrak jaten joazat. Ale, orain or daukak zati baterako enojua lumabako sama luze orretan, neurri bako orrek alango orrek.

Axe kontua akordatu jat eta kontatu deutsut. A pastorea, zera, ak pastoreak nik baino obeto kontatuko eutsun baina, tira, orixe pasatu ei jakon saieri Supelegorreko zuloaren atakan.

39.5. Beste munduko itxuran agertu gauean

Au istori au or Sásolako beetze baten pasau sen seguru. Oin i beetze ori yausi te barrie inde dao. Oingo etzeak e aspian kortea dauko da goien e sutea salea ta kuartue d'eskusaue be bai. Baie lengo sarra beetzea san, d'aurreko partean, selan esangotzu(t)p(b)a, ba entradea auken leorragas d'alboatan sutea, kuartu bet, atzeko parteko kortara pasoa, da ganean kuartuek. Eta atzeko partean, bean kortea da goien tollarea.

Bueno, ba Sásolako beetze orretan batzean i sirean sarri-sarri ausonako andrak esta, ba goruetan da yosten be bai, se ango etzeko andrea yoskilea san, d'ona ganera, esku onekoa da gustu andikoa. Da, seguru, ba, androk auren sereginok itorduen barriketan ekitotzien da etzekotik asite gisonak kargutute (e)gosan seguru, ba komertasiño batzuk es aukielu suster andirik eta txotxatute ete daosen androk o serakas, gaube-ko parte txarrekoakas d'olangoakas.

D'egun beten, gixonok arkal artute burlesar ekitea pentzaudien, androri txotxakeriok o kentzeako. D'orretarako, iluntza baten kartetan yokatuteko atxakiegas juntau sirean gisonok eta auren artean Gaurkulako etxagune be bai, bromistea galanta. D'orretara esan i otzon etzeko gisonak, serari, Gaurkulako etxaguneri:

– I, gaur iluntzean, Elexibitiko aimarie(k)tx(y)oten yaurikenean , sera in bea yautzuk oniri androri. Aitik, ik i, aure etzerako martxea artukok. Maitik altzau te gaubon esan androk entzuteko moduen da gero urten. Bien bitartean guk u sutean beste alderdiko bentanea ertigidien

Au istoria au or Sárasolako beetxe baten pasatu zan seguru. Orain i beetxe ori jausi eta barria eginda dago. Oraingo etxeak e azpian kortea dauka eta goian e sutea, salea eta kuartua eta eskusadua be bai. Baina leengo zaarra beetxea zan, eta aurreko partean, zelan esango deutsut ba, ba entradea eukan leorragaz eta alboetan sutea, kuartu bat, atzeko parteko kortara pasoa, eta ganean kuartuak. Eta atzeko partean, beean kortea eta goian tolarea.

Bueno, ba Sárasolako beetxe orretan batzean ei zirean sarri-sarri auzuneko andrak ezta, ba goruetan eta josten be bai, ze ango etzeko andrea joskilea zan, eta ona ganera, esku onekoa eta gustu andikoa. Eta, seguru, ba, androk euren zereginok egitorduan barriketan ekiten eutsien eta etzekotik asita gizonak kargututa egozan seguru, ba konbersazino batzuk ez eukiela zuztar andirik eta txotxatuta ete dagozan androk o zerakaz, gaueko parte txarrekoekaz eta olangoekaz.

Eta egun baten, gizonok alkar artuta burlazar ekitea pentsatu eudien, androri txotxakeriok o kentzeako. Eta orretarako, iluntze baten kartetan yokatuteko aitzakiagaz juntatu zirean gizonok eta euren artean Gaurkulako etxaguna be bai, bromistea galanta. Eta orretara esan ei eutsan etzeko gizonak, zerari, Gaurkulako etxagunari:

– I, gaur iluntzean, Elexabitiko abemariak joten jaudikanean , zera egin bear jautsuk oneiri androri. Aitik, ik i, eure etxerako martxea artuko dok. Maaitik altzatu eta gaubon esan androk entzuteko moduan eta gero urten. Bien bitartean guk u sutearen beste alderdi-

itxiko yuk eta sartu ai atzera andixik d'iminik i gauk eroango yoguken ixera surie buruti. Gero kandela ba(t)p(b)e iminiko yata eskuen sein aure eskue ikusi. Gero arrimai kontus-kontus suteko aterantza da alauri betzuek isek.

- Bai, baie, igirri ingo yaustiek?
- Ke ba, bai sera, gisona, orrik androk e(s)tx(y)aukiek ire malesirik, aurentzako i ya Gaurkulan ao.
- Bale ba.

D'alantxe in i audien. Baie, suteko androk o a sera ikusi audenean, asten dires grillistuke da sokorruke da en partikular bat e odolak ur iteko moduen sustosartuan surtosartuegas.

Gisonok o a fetxorie ikusi audienean, ondiño be burlesar ekittotzien androri d'esan, seguru:

- Ser pasetan yatzue ba ain estu t'artega oteko?
- Ser pasau, - kontestau i otzien ak e andra bildurti antzak-, ontxe puntuen beste munduko bat ikusi du suris yantzite da kandela isitue eskuen dala.
- Egie esta isingo?
- Baies ba, onaxeño, suteko ateraiño arrimau de t'eskapatu in dau.
- Saosie isilik, selan etorriko da beste mundukoan bat, andi esta iñor etorri ondiño ta.
- Baies ba, gauk ikusi du, benetan, alaurike entzun du, ai ene, ariman bat espada gero seruen sartu esinik? Erresau daigun, erresau, seoser pasauen be.

Olan eki otzien luseroan komertasiñoan, batzuk u burlesar da besteak ostera bene benetan. Da, gisonok ikusi audienean bromea baño geitxuago isin dala, egie esaotzien.

ko bentanea ertidigien itxiko joaguk eta sartu adi atzera andixik eta imini egik i geuk eroango joaguk izara zuria burutik. Gero kandela bat be iminiko jak eskuan zein eure eskua ikusi. Gero arrimatu adi kontuz-kontuz suteko aterantza eta alauri batzuk egizak.

- Bai, baina, igarri egingo yaustiek?
- Ke ba, bai zera, gizona, orreik androk ez jaukiek ire maleziarik, eurentzako i ya Gaurkulan ago.
- Bale ba.

Eta alantxe egin ei eudien. Baina, suteko androk o a zera ikusi eudenean, asten dira grillistuka eta sokorruka eta en partikular bat, e ,odolak ur egiteko moduan sustosartuaren surtosartuagaz.

Gizonok o a fetxoria ikusi eudienean, oraindino be burlazar ekiten eutsien androri eta esan, seguru:

- Zer pasetan jatzue ba ain estu eta artega egoteko?
- Zer pasatu, - kontestatu ei eutsien ak e andra bildurti antzak-, oraintxe puntuen beste munduko bat ikusi dogu zuriz jantzita eta kandela isiotuta eskuan dala.
- Egia ez da izango?
- Baietz ba, onaxe(ra)ino, suteko ateraiño arrimatu da eta eskapatu egin dau.
- Zagozie isilik, zelan etorriko da beste mundukoren bat, andik ez da inor etorri oraindino eta.
- Baietz ba, geuk ikusi dogu, benetan, alaurika entzun dogu, ai ene, arimaren bat ez bada gero zeruan sartu ezinik? Errezatu daigun, errezatu, zeozer pasatuan be.

Olan ekin eutsien luzaroan konbersazinoan, batzuk u burlazar eta besteak ostera bene benetan. Eta, gizonok ikusi eudienean bromea baino geitxuago izan dala, egia esan eutsien.

Baie, ata gusti be ak andra bildurtiek es otzien sinistuten. Orduen e gisonok, kanpora urten d'etorriaso in otzien Gaurkulako etxaguneri ixera eta kandela ta gusti d'atzera iminiaso lengo moduen d'orduen bai, orduen dana isin i sen barrea t'apara-jue.

Da, bitu bildursartue ser dan e, burlesarra isin dala yakin arren, areri andreari etzeraño lagundu bear isin otzien auso-ausoan bisi arren.

buztarrian dala.

Baltzola eta Axlor (Azlor) kobazu-
loen aitzinera allegatu ziranean piperdi
eginaz deskantsu apur bat artu eudien
Jentil-Zubi deritzonaren eguzkibegian.

Orretara, iloba gasteloak beste ba-
tzuz artean auxe pregunta au egin ei
eutsan bere aititari:

idi pare gaste au, obea(k)p(b)e bau-
kosus de kortan!

– Badaespada, llobatxue!,- erantzun

– Ser ba?

– Ser ba, diñostesu? Estakisu ala?
Ara, kontau in beakotzut bein
paraje onetan se pasau yakien gure
aurreko batzuri.

“Au gure Lamindaoko elexau
atxinekoa du te ninauk entzunde
daukotenes, baragarri ibili i sirean
ikeran.

Segaiti baragarri? Ba aiko.
Dimako Lamindaostarrak asi sirean
eleisa nagusi au egiten, Petralandako
landeari dotzela d’esaten ibili ñatzun
les, ba, kristiñauk egunes eiten
audiesan arri-bearrak, gaubes, baten-
batzuk lekus kanbietan otziesan d’e-
sin gausonik in, olangorik!

D’olan ibili i sirean luseroan d’e-
sin audien bearra aurrera atera eselan
be. Baltzolako yentilen susmoa
aukien, klaro, yentilek, orrik i yentil-
sarrak, endemoniñoak i sirean isin be
ta, es i audien gure elexarik etzirean
kristiñauk eta.

Luseroan ibili ta gero trebitu
orretan, ebatzi bet artu audien
Lamindaostarrak, sein? d’auxe: gau-
bean batenbatek sorotz itea, ia nor
edo nortzu(k)t(d)irean yakiteko gau-
betako serok, lapur mantzinok.

Olantxe in i audien. Lamindaos-
tar bat arduretu sen kortako leio
bateti sorotz iten gaube(k)t(d)auko-
san ordu gustietan.

Gaubero les, yentilek agartu
sirean Lamindaoko elexako obrara
da kristiñauk egunes ineko gustie
apurtu te Yentil-subi onen inguru-
marire ekarri i audiesan ormarri ta
ganetikoak.

– Aitita, gaur zergaitik buztartu dozun
baino ez da San Juan egunean jaioko
idi pare gazte au, obeak be badauka-
zuz eta kortan!

– Badaezpada, ilobatxual,- erantzun eu-
tsan aittak-.

– Zer ba?

– Zer ba, dinostazu? Ez dakizu ala? Ara,
kontatu egin bearko deutsut bein
paraje onetan zer pasatu jakien gure
aurreko batzuei.

Au gure Lamindaoko eleiza au an-
tzinakoa dogu eta nik neuk entzunda
daukadanez, baragarri ibili ei zirean egi-
keran.

Zergaitik baragarri? Ba aiko. Dima-
ko Lamindaostarrak asi zirean eleiza
nagusi au egiten, Petralandako landeari
deutsala eta esaten ibili niatzun lez, ba,
kristinauak egunez egiten eudiezan arri-
bearrak, gauez, batenbatzuk lekuz kan-
bietan eutsiezan eta ezin gauza onik egin,
olangorik!

Eta olan ibili ei ziran luzaroan eta
ezin eudien bearra aurrera atera ezelan
be. Baltzolako jentilen susmoa eukien,
klaro, jentilak, orreik i jentilzarrak, ende-
moniñoak ei zirean izan be eta, ez ei
eudien gura eleizarik ez zirean kristi-
nauak eta.

Luzaroan ibili eta gero trebitu orre-
tan, ebatzi bat artu eudien Lamindaos-
tarrak, zein? eta auxe: gauean batenbatek
sorots egitea, ia nor edo nortzuk direan
jakiteko gauetako zerok, lapur mantzinok.

Olantxe egin ei eudien. Lamindaos-
tar bat arduratu zan kortako leio batetik
sorots egiten gauak daukazan ordu guz-
tietan.

Gauero lez, jentilak agertu zirean
Lamindaoko eleizako obrara eta kristi-
nauak egunez egineko guztia apurtu eta

Baie, sorosten egoan leiopeti pasau sireanean yentilok, konturetu in sirean baten bat sorosten aukielat maldisiñoa bota i otzien esanes: “Orreri sorotz iten daoen orreri arpegiko leioa itxiko ballako”.

Da oño! Urrungo egunean, a sorosten egoana begi be(t)k(g)aldute es san agartu ba? Tuerto, olangorik? D’arexe(k)tx(y)entilek isingo sirean, nortzuk ostaintxean?

Lamindaostarrak ori ikusi audienean, abadeari entzunde edo, kurtze bat imini audien elexa barrie iten egosan terrenoan d’olantxe lograu i audien gaubesko yentilok uxatu t’elexa ederra itea.

- Esta isingo egie, aitite?- esan i otzen ikeratute lloba gasteloak.
- Ara llobatxu maitea,- esan i otzen aititek-, egie ala gusurre estaki(t) p(b)ae entzun olantxe dauket entzunde da ni(k) neuk, badaespada, kristinau denporan on arren be, Gabon-subila ekarteko basoti San Juan egunean yaioko idi pareagas iten dot sein bear estanan ba(t) pasau. Gaurko egunean be, one(k)tx(Y)entil-Subi onek (g)orputzean pipiladurea atetan dost, ser dan orregatio bildursartue e?
- Aitite, artegatu es saites in, -esan i otzen llobeak, apur bet inkredulo plantak ines-, orrik siñeskerok atxineko kontue(k)p(b)aiño estosis de. Emen estao yentilik es yentilondokorik!
- Esetz?- erantzun i otzen aititek esku bekarara eroanda. Badirese-nik es i de siñistu bear baie estirese-ni(k)p(b)e es i de esan bear gero e! Orixe esatoskuen saarrak. Aitu istesu ondo, Yentil-Subi onen istorie, ni nauri aite defuntuek kontau osten, beitsu:

Jentil-Zubi onen ingurumarira ekarri ei eudiezan orma-arri eta ganetikoak.

Baina, sorosten egoanaren leiopetik pasatu zireanean jentilok, konturatu egin zirean baten bat sorosten aukielat maldizinoa bota ei eutsien esanez: “Orreri sorots egiten dagoan orreri arpegiko leioa itxiko baliako”.

Eta oño! Urrungo egunean, a sorosten egoana begi bat galduta ez zan agertu ba? Tuerto, olangorik? eta areixek jentilak izango zirean, nortzuk osterantzean?

Lamindaostarrak ori ikusi eudienean, abadeari entzunda edo, kurutze bat imini eudien eleiza barria egiten egozan terrenoan eta olantxe logratu ei eudien gauzko jentilok uxatu eta eleiza ederra egitea.

- Ez da izango egia, aitita?- esan ei eutsan ikaratuta iloba gasteloak.
- Ara ilobatxo maitea,- esan ei eutsan aititak-, egia ala guzurra ez dakit baina entzun olantxe daukat entzunda eta nik neuk, badaezpada, kristinau denporan egon arren be, Gabon-subila ekarteko basotik San Juan egunean jaioko idi pareagaz egiten dot zein bear ez danaren bat pasatu. Gaurko egunean be, onek Jentil-Zubi onek gorputzean pipiladurea ateraten deust, zer dan orregatio bildursartua e?
- Aitita, artegatu ez zaitetz egin, -esan ei eutsan llobeak, apur bat inkredulo plantak eginaz-, orreik siniskerok antzinako kontuak baino ez dozuz eta. Emen ez dago jentilik ez jentilondokorik!
- Ezetz?- erantzun ei eutsan aititak eskua bekarara eroanda. Badiranik ez ei da sinistu bear baina ez diranik be ez ei da esan bear gero e! Orixe esaten euskuen zaarrak. Aditu eistazu ondo, Jentil-Zubi onen istoria, niri neuri aita defuntuak kontatu eustan, begiratu egizu:

– “Atxine, Baltzolako kobasuloan bisi i sirean orrik, serak, yentilak eta indertzuek sireanes gxean bertan asi i sirean subiginen, guk oin bereskoa dala esaten dun au berberau, baie esin i audien in-akabau euren subigintzea, sereko, Lamindaoko elaxako kanpaia entzun i audielako. Kristiñau denporako kanpaiotza(k) podere barik itxi d’uxatu in i audiesan yentil kankallook. Entzutea isingo da baie Baltzolako Yentil-Subi au gustis in-akabau barik geratu i sen. Egie edo gusurre, seoser isingo da, emen dauku te!”

Tire, deskantzu te kontuok kontau orduen euren bearlekueri ekin otzien aitite-llobok. Urte orretako Gabon-subiletarako aititek aurretisik begistaute i auken inisituek edo errekatxa(k)tx(y)oko aratx erdi igertu bet eta olan es auken aras garrasta sindo bat eperditi bota bearrik.

Trontzea artu te aitite-llobok, biek bietara sirrin-sarran bota audien a aratx erdi sikitue. Erramak kendu te gero eperdi aldetik arandela ta gustisko burriña-siri luse bat sartu otzien siri-malluagas lagundute. Siri-mallue ser yatzun? Ba porra andi bet, astune ta mangu lusedune, burriña-siririk sartzeako sein taketak sartzeako sarradurak iteko d’olango gausatarako. Gero, idi parean busterriko burtederik arako katea sartu sirien arandelati te narras eroan i audien Lamindaora bidean aitite aurreti te llobea atzerik ara sireala.

Etxera bidea es san lusea baie tertzio orretako gaubek atoaan etorten direanes, ia-ia gautu in yakien da Petralandako landapetik yoiasela, ene! berbalos baragarri bet entzun audien, ser? d’ auxe:

– “Antzina, Baltzolako kobazuloan bizi ei ziran orrik, zerak, jentilak eta indartsuak zireanez aitzean bertan asi ei zirean zubiginen, guk orain berezkoa dala esaten dogun au berberau, baina ezin ei eudien egin-akabatu euren zubigintzea, zereko, Lamindaoko eleizako kanpaia entzun ei eudielako. Kristinau denporako kanpaiotsak podere barik itxi eta uxatu egin ei eudiezan jentil kankallook. Entzutea izango da baina Baltzolako Jentil-Zubi au guttiz egin-akabatu barik geratu ei zan. Egia edo gezurra, zeozer izango da, emen daukagu eta!”

Tira, deskantsu eta kontuok kontatu orduan euren bearlekuari ekin eutsien aitita-ilobok. Urte orretako Gabon-subiletarako aititak aurretizik begizatuta ei eukan inizituak edo errekatxak jotako aritz erdi igartu bat eta olan ez eukan aritz garrasta zindo bat eperditik bota bearrik.

Trontzea artu eta aitita-ilobok biak bietara zirrin-zarran bota eudien a aritz erdi sikatua. Erramak kendu eta gero eperdi aldetik arandela eta gutzizko burrina-ziri luze bat sartu eutsoen ziri-malluagaz lagunduta. Ziri-mallua zer jatzun? Ba porra andi bat, astuna eta mangu luzeduna, burrina-ziriak sartzeako zein taketak sartzeako zarradurak egiteko eta olango gauzetarako. Gero, idi parearen buztarriko burtederik arako katea sartu ziriaren arandelatik eta narras eroan ei eudien Lamindaora bidean aitita aurretik eta ilobea atzerik ara zireala.

Etxera bidea ez zan luzea baina tertzio orretako gauak atoaan etorten direanez, ia-ia gautu egin jakien eta Petralandako landapetik joiazala, ene! berbalots baragarri bat entzun eudien, zer? eta auxe:

- Gaube gaubeskoantzat d'egune eguneskoantzaaaaaaat!
Aititek, bere llobeari eskutik oratute badiñotzo ba se:
- Ser Jaungoiko ete gaos entzuten? Gure atxinekoan denporan yentilek eta parte txarrekoak i egosan, baie oin, kristiñau denporan ser dan baño es da au berbalotz au? Gaubeko arimak espadira gero? Eta birritan pentsau bari(k)p(b)adiño aititek, eta idartzu esan be:
- Sarienok sariela, es saitesie arrimau estadio pare batetik onantzago. Ser ofresitan yatzuen yakin lei?
- Es bildurtu,- erantzun i otzien besteok-, gu gaueko arimak (g)ara d'emen gabis seruen sartu esinik arik eta bisien bete bakoa betatu arte!
- Oño! Da se itxi osue ba bete barik?
- B'ara! Gu andra-gisonak (g)ara, bigarren eskontzakoak, alargundu in ginean bakotxa iru semalabagas da gero bigarrenes eskondu da beste lau orpogorri yaio yakus, alosoko etxekadea bates be esaukie daoenean. Gosea es baie es aukie ugeri ikusi du bisitzan, batzuetan senperrak sufridu be bai d'aurreratuten yoan garen diru apurre gorde iten isin du estariko age-egur sulo baten badaespada baterako falta einean be. Eta desgrasisko egun beten, binke desgrasiskoa, perretxikotan yoan gintzezan orra goietako pagaduire d'onak sieralakoan yan d'akordatzakoan il eskintzesan in ba? Eta, klaro, aurreratuko diruek, amasaiko gorriek isin be, seme-alabari non gordetan gaindusen esan barik il gaintzesanes, esin gara sartu seruen.
- Gaur gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzaaaaaaat!
Aititak, bere ilobeari eskutik oratuta badinotso ba ze:
- Zer Jaungoiko ete gagoz entzuten? Gure antzinakoen denporan jentilak eta parte txarrekoak ei egozan, baina orain, kristinau denporan zer dan baino ez da au berbalots au? Gaueko arimak ez badira gero? Eta birritan pentsatu barik badino aititak, eta idartzu esan be:
- Zarienok zariela, ez zaitezie arrimatu estadio pare batetik onantzago. Zer ofreziduten jatzuen yakin lei?
- Ez bildurtu,- erantzun ei eutsien besteok-, gu gaueko arimak gara eta emen gabiz zeruan sartu ezinik arik eta bizian bete bakoa betatu arte!
- Oño! Eta zer itxi dozue ba bete barik?-
- Ba ara! Gu andra-gisonak gara, bigarren ezkontzakoak, alargundu egin ginean bakoitza iru seme-alabagaz eta gero bigarrenez ezkondu eta beste lau orpogorri jaio jakuz, alozoko etxekadea batez be ezeukia dagoanean. Gosea ez baina ez edukia ugari ikusi dogu bizitzan, batzuetan senperrak sufritu be bai eta aurreratuten joan garan diru apurra gorde egiten izan dogu estariko age-egur zulo baten badaezpada baterako falta eginen be. Eta desgraziazko egun baten, binke desgraziazkoa, perretxikotan joan gintzezan orra goietako pagaduire eta onak ziralakoan jan eta akordatzakoan il ez gintzezan egin ba? Eta, klaro, aurreratuko diruak, amaseiko gorriak izan be, seme-alabei non gordetan genduzan esan barik il gintzazanez, ezin gara sartu zeruan.

- Da ba non dokosue ba urregorri ori?- esaten i otzien aititek-.
- Dirue? Ba, serean, eslekuen dao, errotearen andapar(a) ondoko aratxesko egurpostean, ukubiles ta-ta-ta ineskero arro-satea barruntetan dan lekuen. Mesedes diruok non gorde gaindusen parte emongo baseuskioe gure seme-alaba koitidueri!
- Oba es!- erantzun audien aitite-llobak bie(k)p(b)atera-, bigerrera etxon barik, gabon-subil au etxera eroan d'atoatan ingo yatzue suon ofresimintu ori. Baie orretarako sein errotara yoan beogu ba?
- Ba, aiko, gu urlie t'urlie gosues da Gorbaiera doan mandabide t'erreka ertzeko errotan bisi gaintzesan d'an ibiliko yatzues gure umesurtzak aalak iten bisimodue aurrera eroateko. Mesede ori iten boskosue barriro agartuko gaiatzues eskerrak emoteko, ementxe berpetan, Lamindaoko elesportikuen Gabon gaubeko mesa ostean inok ikusi es iteko.

Entzun de in. Aitite-llobok, idiek aidatu te susien allegau sirean euren etxaguntzara. Idio(k)p(b)usterritik askatu, Gabon-subile etexurepeko leorrean imini, erropak mudau, artu mando gorri bana da tipi-tapa yoan sirean euren seregin misterioztzure inori berberdi be esan barik.

Errotorretara arrimau te atea(k)-tx(y)o audisenean, ikeratu in i sirean errotari gasteok eta:

- Nor da?- preguntatu auen semerik sarrenak-.
- Gau gara, bakes gatos da sabaldu atean, bildur barik!

- Eta ba non daukazue ba urregorri ori?- esaten ei eutsien aititak-.
- Dirua? Ba, zerean, ezlekuan dago, erro-taren andapara ondoko aritzezko egurpostean, ukabilez ta-ta-ta eginez gero arro-zaratea barruntetan dan lekuan. Mesedez diruok non gorde genduzan parte emongo bazeuntsie gure seme-alaba koitaduei!
- Oba ez!- erantzun eudien aitita-ilobak biak batera-, biarrera etxodon (itxaron) barik, gabon-subil au etxera eroan eta atoatan egingo jatzue zuon ofrezimintu ori. Baina orretarako zein errotara joan bear dogu ba?
- Ba, aiko, gu urlia eta urlia gozuez eta Gorbeia doan mandabide eta erreka ertzeko errotan bizi gintzazan eta an ibiliko jatzuez gure umezurtzak aalak egiten bizimodua aurrera eroateko. Mesede ori egiten badeuskuzue barriro agertuko gaiatzuez eskerrak emoteko, ementxe berbertan, Lamindaoko eleizportikuan Gabon gaueko meza ostean inork ikusi ez egiteko.

Entzun eta egin. Aitita-ilobok, idiak aidatu eta zuzian allegatu zirean euren etxaguntzara. Idiok buztarritik askatu, Gabon-subila itaxurepeko legorrean imini, erropak mudatu, artu mando gorri bana eta tipi-tapa joan zirean euren zeregin misterioztzure inori berberdi be esan barik.

Errota orretara arrimatu eta atean jo eudiezanean, ikeratu egin ei zirean errotari gasteok eta:

- Nor da?- preguntatu euan semerik zaarrenak-.
- Geu gara, bakez gatoz eta zabaldu atean bildur barik!

Ateak sabaldu otziesan da fetur(a) onean etosela ikusikeran barrure sartzeako eskatu otzien. Orretara aititek esan otzen ba se:

- Aiko mutil, onantxe t'onantxe d'auxe t'auxe pasau yaku Petralandako landapeti gentosala. Antxe, bai, sorginen landean atxinean.
- Egia es da isango?- erantzun i otzien errotari sarrenak berbaltu te gusti-, goasen ia esleku ori ikusten.

Yoan sirean eta efetibamente, asi sirean esaneko posteari taukada batzuk emoten eta ene! uekue barruntau audien d'arro-satea barruntau audien parteko ol sati biribile kendu audienean, ene! antxe (e)gosan on be urregorrisko diruok, alosoko pilloa on be, amasaiko d'aun erleko mone-datan.

Tristesean barruen posa agartu yakien errotako umesurtz koitidueri eta esker ona agartuteko urun sorro bi ofresidu otziesan, io barri-barriek, bata gari-uruneskoa, ogi, pamitxa, ai da ganetikoak iteko da bestea arto-uruneskoa, labigerra in, garandu artaburuok burru utzean itxite gero errotan iyokoa, arto, opil, talo, morokil da ganetikoetarako.

Aitite-llobok, etxera bueltau sirean auren mandogorri ganean urun sorro ta gusti, d'isilean gorde audien euren aronako baragarrie.

Andik iru egunera Gabon egune (e)torri sen eta usedioa san les Gabon-subile preparau auen aititek, Baltzolati ekarriko aretxaren satirik itxuraskoana elegidute.

Gabon Gaubeko afari aurretxuen, aititek, supasterrera eroan auen a Gabon-subile, aitearen in, sati bet ebagi askoreagas da kortako orma-suloan gorde auen etxea ta

Ateak zabaldu eutsiezan eta fetura onean etozala ikusikeran barrura sartze-ako eskatu eutsien. Orretara aititak esan eutsan ba ze:

- Aiko mutil, onantxe eta onantxe eta auxe eta auxe pasatu jaku Petralandako landapetik gentozala. Antxe, bai, sorginen landearen aitzinean (aurrean)
- Egia ez da izango?- erantzun ei eutsien errotari zaarrenak berbaltu eta guzti-, goazen ia ezleku ori ikusten.

Joan zirean eta efetibamente, asi zirean esaneko posteari taukada batzuk emoten eta ene uekua barruntatu eudien eta arro-zaratea barruntatu eudien parteko ool zati biribila kendu eudienean, ene! antxe egozan egon be urregorritzko diruok, alozoko piloa egon be, amaseiko eta eun erleko monedatan.

Tristezearen barruan poza agertu jakien errotako umezurtz koitaduei eta esker ona agertuteko urun zorro bi ofrezitu eutsiezan, eo barri-barriak, bata gari-urunezkoa, ogi, pamitxa, ai eta ganetikoak egiteko eta bestea arto-urunezkoa, labigarra egin, garandu artaburuok burru utsean itxita gero errotan eokoa, arto, opil, talo, morokil eta gainetikoetarako

Aitita-ilobok, etxera bueltatu ziran euren mandogorri gainean urun zorro eta guzti, eta isilean gorde eudien euren aronako baragarria.

Andik iru egunera Gabon eguna etorri zan eta usadioa zan lez Gabon-subila preparatu euan aititak, Baltzolatik ekarriko aritzaren zatirik itxurazkoena elegiduta.

Gabon Gaueko afari aurrettxuan, aititak, supasterrera eroan euan a Gabon-subila, aitearen egin, zati bat ebagi aizkoreagaz eta kortako orma-

ganadue(k)tx(y)agoteko. Gero Gabon-subile erre ala, bere iketz edo iduri apur bet kamarako poste-sulo baten gordeauen etxea erre es iteko erremedio moduen.

Gabon afarie aurrera yoian baie aitite artega begoan, llobea artegago, estu te larri, ie-ie kakadario, ain ariman gerokoari begire d'orretara esan i otzen aititek:

– Llobea, nasai on ai, Gabon Gaubeko ollar-mesa ostein ni neu konponduko nok orrikas arimokas, abadeagas berbatute ñaok eta.

Alantxe in auen. Mes(a) aurretik abadean konsejuek entzun, Lamin-daoko elexako Gauberdiko mesea entzun d'ausokoak etxeratu sireanean, bera elesportikuen lotu sen abadeagas d'abadea bad(a)espada ur bedinkitu te isopu te guzti.

Esaneko moduen, atibo agartu sirean andra-gizonok, bueno euren arimak eta:

– Eta ser? Ein doskosue mesede ori?
 – Bai orixe, eta ganeko posa emon suronean!- esan i otzien aititek abadearen aurrean.
 – Tire ba, oin bai, oin bai, oin sartu gaintikes seruen. Eutsis gure bostekoak!

Aititek, abadeak esanda ekienes, esku bieki lusetu otziesan, bata batari da bestea besteari baie liño-sapi be(t)k(g)aineti dala.

Abadea(k)p(b)era(k)p(b)e, “*In nomine Patris...*” berinkitu in ausen da serurako bidea artu i audien.

Natibete goxean, aititek bere llobeari dana kontau i otzen da liño sapiiek erakutzi otzesanean, ser? eta ene! sapiotan bost atzamarran erremarkak es sirean ba agartu? Egie (e)do gusurre, orrixek kontuo(k)t(d)-

zuloan gorde euan etxea eta ganaduak jagoteko. Gero Gabon-subila erre aala, bere iketz edo iduri apur bat kamarako poste-zulo baten gorde euan etxea erre ez egiteko erremedio moduan.

Gabon afaria aurrera joian baina aitita artega baegoan, ilobeia artegago, estu eta larri, ia-ia kakadario, aien arimen gerokoari begira eta orretara esan ei eutsan aititak:

– Llobea, nasai egon adi, Gabon Gaueko ollar-meza ostein ni neu konponduko nok orreikaz arimokaz, abadeagaz berbatuta niagok eta.

Alantxe egin euan. Meza aurretik abadearen kontsejuak entzun, Lamin-daoko eleizako gauerdiko mezea entzun eta auzokoak etxeratu ziranean, bera eleizportikuan lotu zan abadeagaz eta abadea badaezpada ur bedeinkatu eta isopu eta guzti.

Esaneko moduan, atibo agertu zirean andra-gizonok, bueno euren arimak eta:

– Eta zer? Egin deuskuzue mesede ori?
 – Bai orixe, eta gaineko poza emon zue-
 nean!- esan ei eutsien aititak abadearen aurrean.
 – Tira ba, orain bai, orain bai, orain sartu geintikez zeruan. Eutsiz gure bostekoak!

Aititak, abadeak esanda ekienez, esku biak luzatu eutsiezan, bata batari eta bestea besteari baina lino-zapi bat gainetik dala.

Abadeak berak be, “*In nomine Patris...*” bedeinkatu egin euazan eta zerurako bidea artu ei eudien.

Natibete goizean, aititak bere ilobe-
 ari dana kontatu ei eutsan eta lino
 zapiak erakutsi eutsazanean, zer? eta
 ene! zapiotan bost atzamarren erre-mar-

aukodas entzunde. Siñistutea beste kontu bet (d)a!”

Bueno, ikusi osunes au fraile orren kontu au lusetxu yoan yaku baie, alangoxea san a, kontularie, iñon diresan pasadisue(k) kontetan oskusen, ortxe dokosus ba pártida bat saure gausetarako. Es pentzau e, ni neu be gusture ibili ñatzu aldi beteko kontuo(k) kontetan. Lenao selango gausek e?

kak ez zirean ba agertu? Egia edo guzurra, orrixek kontuok daukadaz entzunda. Sinistutea beste kontu bat da! ”

Bueno, ikusi dozunez au fraile orren kontu au luzetxu joan jaku baina, alangoxea zan a, kontularia, inon diran pasadizuak kontetan euskuzan, ortxe daukazuz ba partida bat zeure gauzetarako. Ez pentzatu e, ni neu be gustura ibili niatzu aldi bateko kontuok kontetan. Leenago zelango gauzak e?

47.9. Bildotsa ostu ezin baina intentzinoa pekatu

Bein baten yoan san gixon bat elixara konfesetan. Allegau siranean Mandamentuetan saspigarrenera, abadeak esatzen gixonari:

- Iños eser ostu dosu?
- Es jaune, estot iñosbe eser ostu
- Eta esatzen abadeak, ostuteko asmorik iños euki dosu?
- Bai, jaune- erantzun otzen gixonak-, bein baten pentzau nauen bildos bat ostutea. Asmo orretan yoan nintzen kortako ateetara, baia ate orrek sulo txikiegie auken eta alegin gustiek egin arren, iñondi(k)p(b)esnauen bildotz ori lortu.

Orduen abadeak esan otzen.

- Ba, ostuteko asmoa euki dosun les, bildotza(k)p(b)alio auen presioa ontxe neuri ondaindu beako dostesu.

Konformau sen a gizona dirue emoteko, baia emokeran andrak konfesetan direan aldeti dirue eskeintzen otzen eta...

- Ortik es, ortik esin lei diru ori artu-esatotzen abadeak-.
- Ai ene! Neuri be orixe berberori kortako ate-suloan gertau yatan.

Bein baten joan zan gizon bat eleizara konfesetan. Allegatu ziranean Mandamentuetan zazpigarrenera, abadeak esan eutsan gizonari:

- Inoz ezer ostu dozu?
- Ez jauna, ez dot inozbe ezer ostu
- Eta esan eutsan abadeak, ostuteko asmorik inoz euki dozu?
- Bai, jauna- erantzun eutsan gizonak-, bein baten pentsatu neuan bildots bat ostutea. Asmo orretan joan nintzan kortako ateetara, baina ate orrek zulo txikiegia eukan eta aalegin guztiak egin arren, inondik be ez neuan bildots ori lortu.

Orduan abadeak esan eutsan:

- Ba, ostuteko asmoa euki dozun lez, bildotsak balio euan prezioa oraintxe neuri ondaindu bearko deustazu.

Konformatu zan a gizona dirua emoteko, baina emokeran andrak konfesetan diran aldetik dirua eskeintzen eutsan eta...

- Ortik ez, ortik ezin lei(ke) diru ori artu-esaten eutsan abadeak-.
- Ai ene! Neuri be orixe berberori kortako ate-zuloan gertatu jatan.

47.10. Abogatuari kontsulta egiten joan eta hankaz gora bota makilaz jota

Aldi beten yoan san gixon bat Durungora abogaueri konsultetan, usabak despedidea emon otzela-ta etxaldea libretako agindu otzela-ta.

Abogaue saludetako buruko sonbrerue kendu euan eta kendues batera ide moltzo ba(t)tx(y)ausi yakon abogauen oñetara.

- Ori setarako dosu ba?- itaundu otzen abogauek-.
- Ixerdie sikituteko jaune,- erantzun otzen seanistarrak

Eta ixerdie sikitu auenean esan otzen:

*Señor abogador
auto de mi favor
mi erregidor!*

- Ser gertau yatzu ba?- esaotzen abogauek-.
- Nire kortan dausen satzak, berorren agoti pasau bear daure.
- Jeeesus!, nire agoti?
- Bai jaune
- Nire ago esanetati ixingo da?
- Bai, bai, orixe, orixe!

Orduen asaldu otzen seanistarrak selan bere kortako satzak eroan gura dituzala bera doan etxeko kortara.

Eta abogaue(k)t(d)iñotzo:

- Seuk iños usaba enberasau dosu?
- Bai, jaune, burdie aukiten ixin do(t)p(b)ere tejamanan
- Ba ortixik (g)alduko satu
- Ederto jaune

Orduen Bartolo(k)t(d)iñotzo abogaueri bere soloatan estala eiten gausarik saspillo ondoetako moduen. Abogauek erantzun otzen:

- Eixu dana saspillo ondoan
- Ederto jaune. Beste gausa batzuekas dauket persekusiño ikaragarri bet

Aldi baten joan zan gizon bat Durangora abogaduari konsultetan, uga-zabak despedidea emon eutsala-eta etxaldea libretako agindu eutsala-eta.

Abogadua saludetako buruko sonbrerua kendu euan eta kenduaz batera ida moltzo bat jausi jakon abogadua oinetara.

- Ori zertarako dozu ba?- itaundu eutsan abogaduak-.
- Izerdia sikituteko jauna,- erantzun eutsan zeanuiztarrak

Eta izerdia sikatu euanean esan eutsan:

*Señor abogador
auto de mi favor
mi erregidor!*

- Zer gertatu jatzu ba?- esan eutsan abogaduak-.
- Nire kortan dagozan satsak, berorren aotik pasatu bear daude.
- Jeeesus!, nire aotik?
- Bai jauna
- Nire ao esanetatik izango da?
- Bai, bai, orixe, orixel!

Orduan azaldu eutsan zeanuiztarrak zelan bere kortako satsak eroan gura dituzala bera doan etxeko kortara.

Eta abogaduak dinotso:

- Zeuk inoz ugazaba enbarazutu dozu?
- Bai, jauna, burdia eukiten izan dot bere tejabanen
- Ba ortixik galduko zaitu
- Ederto jauna

Orduan Bartolok dinotso abogaduari bere soloetan ez dala egiten gausarik saspilo ondoetako moduan. Abogaduak erantzun eutsan:

- Egizu dana saspilo ondoan
- Ederto jauna. Beste gauza batzuekaz daukat persekuzino ikaragarri bat

- Segas daukasu ba?
- Auliekas, jauna
- Ba orreiri ser eingo dotzesu ba?,
dausen lekuen yo ta kitu.

Bertati parau yakon abogaueri auli be(t)p(b)egi ondoan. Yoten dau seanistarrak makilleagas begi-begien eta bota euan ankas gora.

Ordurik ona estau iñongo tribunaletan makillerik sartzearik. Aor ser pasau sen gure seanistar Bartolo Barrenetxeagas.

- Zegaz daukazu ba?
- Euliekaz, jauna
- Ba orreiri zer egingo deutzazu ba?,
dagozan lekuan jo eta kito.

Bertatik paratu jakon abogaduari euli bat begi ondoan. Joten dau zeanuiztarrak makilegaz begi-begian eta bota euan ankas gora.

Ordurik ona ez dago inongo tribunaletan makilarik sartzearik. Aor (ara or) zer pasatu zan gure zeanuiztar Bartolo Barrenetxeagaz.

47.11. Peruek Marieri ihes egin etxetik baina damaturik atzera etxera

Perue(k)p(b)ere Marie andreas esin leiola bisimodueri yarraitu, da pentzauen bere andreagandi iges eitea; da beste errialde batera eldu sanean asmau situsan etxe baten arrigarrisiko astrapala batzuk.

Yoan san etxe orretara ta iru anai aurkitu situen fraka(k)tx(y)asten; bi frakari autziten, bestea saltuke anka bie(k)p(b)atera sartzearren; anka bie(kp(b)atera sartu esik, atzera oira yoan bear ixitauen. Tayu orretan ikusirik (g)isona(k)t(d)iño:

- Mutilek, frakak olan estite yasten.

Gero frakari berak eldute selan yasten direan erakusten ebilen. Anaiak arriturik:

- Gixona! Jangoikoak ekarri satu; guk (g)oxe gustietan, orduke (g)altzean ixindus bearleku orretan, barris, utz einde yauskerakas belaeunek odoletan aukiten dus.

Eta eskerrak selan emon es ekiela egosan.

Andi aurrera yarraitu otzenezan gixonak andratxu bet topauen gari ebaten. Andra orrek kurtzulu argi bet espanetik dingiliska eukela eta itandu otzen:

Peruek bere Marie andreagaz ezin leiola bizimoduari jarraitu, eta pentsatu euan bere andreagandik iez egitea; eta beste errialde batera eldu zanean asma-tu zituzan etxe baten arrigarrizko astrapala batzuk.

Joan zan etxe orretara eta iru anaia aurkitu zituen frakak jazten; bi frakari eutsiten, bestea saltuka anka biak batera sartzearren; anka biak batera sartu ezik, atzera oera joan bear izaten euan. Taiu orretan ikusirik gizonak dino:

- Mutilak, frakak olan ez dira jazten.

Gero frakari berak elduta zelan jazten diran erakusten ebilen. Anaiak arriturik:

- Gizona! Jaungoikoak ekarri zaitu; guk goiz guztietan, orduak galtzean izan doguz bearleku orretan, barriz, uts eginda jauskerakaz belaeunak odoletan eukiten doguz.

Eta eskerrak zelan emon ez ekiela egozan.

Andik aurrera jarraitu eutsanean gizonak andratxu bat topatu euan gari ebagiten. Andra orrek kurtzulu argi bat

- Andratxue, sertarako dosu espaneti dingilizka kurtzulu argi ori? –erantzunik andreak esan otzen:-
- Etxean isten doanean aurkitu esinik ibilte nas, non isten doan aistu eiten yat eta emen ebili eskero, barris, estekot setan topau be.

Orduen pentzauen Peruek, etxean itxi auen Marie txarra sala, baie estauela oberik inonbe topau eta atzera bere lengo etxera biurtu sen.

ezpanetik dingilizka eukala eta itandu eutsan:

- Andratxua, zertarako dozu ezpanetik dingilizka kurtzulu argi ori? – erantzunik andreak esan eutsan:-
- Etxean ixten (itxiten) dodanean aurkitu ezinik ibiltzen naz, non ixten dodan aaztu egiten jat eta emen erabili ezkerro, barriz, ez daukat zertan topatu be.

Orduan pentsatu euan Peruek, etxean itxi euan Marie txarra zala, baina ez dagoala oberik inonbe topatu eta atzera bere leengo etxera biurtu zan.

47.12. Baltzolako suge deabrua

Dimeko ausune baten, ixenes Bargundi, toki askotan les, bisi sen fameli bet. Euretako anai bi yoan siran garagarilleko egun baten gari-sabaltan, gari-yoteko egualdi beroa egoala-ta. Gari-metan aurkitu siranean, eskupeti urten euan sube batek eta anai bate(k)p(b)esteari diñotzo:

- Artik palu bet eta tragaik ori
- Es, ori be Jangoikoak egine da eta dauela bixirik,- erantzun otzen besteak-.

Alan da gusti besteak palu bet arturi(k)tx(y)o dau eta baite busten puntea kendu be.

Sasoi aretan gerra ikerakgarri bet sortu sen eta anai bata yoan san gerrara t'an ebilen denporaldi beten. Baia gure Jangoikua algustiduna dana les Gabonetarako gerra amaitu eurien. Orduen Gabon egunean orreri mutil orreri gixonesko bat presentau yakon bere ondoan eta esan otzen:

- Oxorro gorriek Aldekotxen orrie fresko yok

Dimako auzune baten, izenez Bargundi(a), toki askotan lez, bizi zan familia bat.Euretariko anaia bi joan ziran garagarilleko egun baten gari-zabaltan, gari-joteko eguraldi beroa egoala-eta. Gari-metan aurkitu ziranean, eskupetik urten euan sube batek eta anaia batek besteari dinotso:

- Artu egik palu bat eta tragatu egik ori
- Ez, ori be Jaungoikoak egina da eta dagoala bizirik,- erantzun eutsan besteak-.

Alan eta guzti besteak palu bat artunik jo dau eta baita buztan puntea kendu be.

Sasoi aretan gerra ikerakgarri bat sortu zan eta anaia bata joan zan gerrara eta an ebilen denporaldi baten. Baina gure Jaungoikoa aalgustiduna dana lez Gabonetarako gerra amaitu eudien. Orduan Gabon egunean orreri mutil orreri gizonezko bat presentatu jakon bere ondoan eta esan eutsan:

- Oxorro gorriak Aldekoetxen orria fresko jok

- Suk ser dakixu Aldakotxeko oxorro gorriaren barririk,- erantzun eutzan mutilek-.
- Ser gurau seunke sure gurasoakaz gaur gaubean afaldutea baño?
- Nik mundo dana baño gurau, baie ori esin leiteke ixin.
- -Eta gixonak- Euk (g)urubo(k)p-(b)ai. Parau adi neure biskerrean eta ba(t)p(b)atean eure etxean egongo as. Elduko gara Arraño mendietara eta egingo yoasat an bildurgarrisko laprastadak, es adi deskuidau, barris, "Jesus" esaten; esaik "arre diablo".

Eta bertatik aurkitu siran Baltzolako arratean eta badiñotzo gixonak:

- Kobara barrure yoan beayuk.
- Sartu siranean:
- Artixek oneik arri baltzok
- Es, enoa, neure aitek eiten ditu onangoak- pentzaurik ilintxek sireala-

Kanpora urten siranerako arriok urregorri biurtu siran eta badiñotzo gixonari:

- Oneik urregorriskoa(k)t(d)ire bata! Barruen itxiosenak artu beas
- Erantzunik (g)isonak esan otzen
- Oin esin litiko(k)tx(y)oan, estok ikusi an barruen lo egon dan(a) artzan? Oin itxarri(k)tx(y)auk. Gausa bat esango doat: iñori mesederik eingo espadotze(k)p(b)e, eseioek txarriek ein. Akordetas ire anayak selan esauen gari-metan egon san subea tragetako? Ik erantzun eutzan: " Ori be Jangoikoak egine da ta bixi daite-la", alan da gustis be anaia(k)tx(y)o ta bustena kendu yeustan. Aiko emen atzamar txikerra falta yoat. Auxe emoiok ire anaiari.

Eta garriko gorri bet erakutzi

- Zuk zer dakizu Aldakoetxeko oxorro gorriaren barririk,- erantzun eutsan mutilak-.
- Zer gurago zeunke zure gurasoakaz gaur gauean afaldutea baino?
- Nik mundo dana baino gurago, baina ori ezin leiteke izan.
- -Eta gizonak- Euk gura badok bai. Paratu adi neure bizkarrean eta bat batean eure etxean egongo az. Elduko gara Arraño mendietara eta egingo joazat an bildurgarrizko laprastadak, ez adi deskuidatu, barriz, "Jesus" esaten; esan egik "arre diablo".

Eta bertatik aurkitu ziran Baltzolako arratean eta badinotso gizonak:

- Kobara barrura joan bear joaguk.
- Sartu ziranean:
- Artu egizak oneik arri baltzok
- Ez, ez noa, neure aitag egiten ditu onangoak- pentsaturik ilintxak zirala-

Kanpora urten ziranerako arriok urregorri biurtu ziran eta badinotso gizonari:

- Oneik urregorrizkoak dira ba-eta! Barruan itxi dodazanak artu bear dodazErantzunik gizonak esan eutsan:
- Orain ezin leitikok joan, ez dok ikusi an barruan lo egon dana artzan? Orain itxarrik jagok. Gauza bat esango deuat: inori mesederik egingo ez badeutsak be, ez egiok txarrik egin. Akordetan az ire anaiak zelan esan euan gari-metan egon zan sugea tragetako? Ik erantzun eutsan: " Ori be Jangoikoak egina da eta bizi daite-la", alan eta guztiz be anaiak jo eta buztana kendu jaustan. Aiko emen atzamar txikerra falta joat. Auxe emon egiok ire anaiari.

Eta garriko gorri bat erakutsi eutsan. Mutila etxera eldu zanean anaiari esan eutsan:

otzen. Mutila etxera eldu sanean anaiari esan otzen:

- Esara akordetan aldibateko gure metako subean txanfainea?
- Bai, akordetan nas
- Axek emon deust auxe garriko au suri erregaletako
- Sertarako do(t)p(b)a nik ori? Lotu eiosu garrien ortuko mesmerueri.

Lotues batera, garrikoak mesmerue egon san lekutik atera ta aidean eroan auen.

Oxorroa dala-ta igarkisun edo asertijo bat esangotzut: "Aguretxo poxpolin, bos biser eta bost agin". Ser da? Oxorroa.

Beste bat eguskie dala-ta: "Sasire yoan da urrutu es, uretara sartu te busti es". Eguskie.

- Ez zara akordetan aldibateko gure metako sugearen txanfainea?

- Bai, akordetan naz
- Arexek emon deust auxe garriko au zuri erregaletako
- Zertarako dot ba nik ori? Lotu egiozu garrian ortuko mizmeruari.

Lotuaz batera, garrikoak mizmerua egon zan lekutik atera eta aidean eroan euan.

Oxorroa dala-eta igarkisun edo asertijo bat esango deustut: "Aguretxo poxpolin, bost bizar eta bost agin". Zer da? Oxorroa.

Beste bat eguzkia dala-eta: "Sasira joan eta urratu ez, uretara sartu eta busti ez". Eguzkia.

47.13. Lapurrak hamaseiko gorria ostu Urkiolan San Antonio egunez

Bein baten yoan san gixon bat Urkiolara, San Antonio eguna salata. Eldu sanean elexingurure, bildur sen, urrian, barrura sartzen amasaiko gorrie foltzan euken-da, barris diru ori es ekien non gorde ta sartzean bildur, alako egunetan lapurres beterik a elezea egoten ei san-da.

Bera egon san ostatuko usabagana biurtu sen, berak elixati bueltea einarte amaseiko gorria ia gorde al izingo dauen esaten.

- Su bildur basara seure dirue aukiten nik selan gordeko dotzu-(t)p(b)a? Gordeixu seure agoan.
- Ederto pentzaute dao,- esaten otzen gixonak.

Baia, soritxarres, ostatarie au esaten egoala suertatu sen andi lapur bet pasatea ta dana entzuule.

Gixona yoan san susen da psik

Bein baten joan zan gizon bat Urkiolara, San Antonio eguna zala-eta. Eldu zanean eleiza ingurura, bildur zan, urrian, barrura sartzen amaseiko gorria poltsan eukan-eta, barriz, diru ori ez ekian non gorde eta sartzean bildur, alako egunetan lapurrez beterik a eleizea egoten ei zan-eta.

Bera egon zan ostatuko ugazabagana biurtu zan, berak eleizatit bueltea egin arte amaseiko gorria ia gorde al izango dauan esaten.

- Zu bildur bazara zeure dirua eukiten nik zelan gordeko deustut ba? Gorde egizu zeure aoan.
- Ederto pentsatuta dago,- esaten eutsan gizonak.

Baina, zoritxarrez, ostataria au esaten egoala suertatu zan andik lapur bat pasatea eta dana entzun euala.

elixara atzeti lapur orre(k)tx(y)arraitzen otzela. Elixara eldu siranean lapurrak moko-pañeloa ateraz batera txakur batzu(k)tx(y)austen itxi ausen esanes:

– Amaseiko bat falta dot ementxe.

Amaseikoa agoan eukena eta beste gixon batzuk parau sirean begire ia topetan eurien. Orduen lapurre(k)p(b)adiño:

– Onexek (g)ixion onek artu dau eta, barris, agoan dauko gordeta.

Gixonak “es” esateko agoa sabaltan dau te bertan yausi yakon amaseiko gorri ori. Lapurra salakoan guatzean dotzie yoten eta gustis andituarte es eutzien baketan itxi. A selango atsekabe edo desgustue eroan auen ba(t)p(b)e erru barik (g)ure Pirminek.

Gizona joan zan zuzen eta pozik eleizara atzetik lapur orrek jarraitzen eutsala. Eleizara eldu ziranean lapurrak moko-pañeloa ateraz batera txakur batzuk jausten itxi euazan esanez:

– Amaseiko bat falta dot ementxe.

Amaseikoa aoan eukana eta beste gizon batzuk paratu ziran begira ia topetan eudien. Orduan lapurrak badino:

– Onexek gizon onek artu dau eta, barriz, aoan dauka gordeta.

Gizonak “ez” esateko aoa zabaltan dau eta bertan jausi jakon amaseiko gorri ori. Lapurra zalakoan (g)oratzen deutsie joten eta guztiz anditu arte ez eutsien baketan itxi. A selango atsekabe edo disgustua eroan euan bat be erru barik gure Perminek.

47.14. Begizkoa eta bere inguruko usadioak

Badakiu lenaoko denporetan, euskalduna(k)p(b)e, beste askok les, begiskoa egoala sinistuten auriela. Au dala-ta seinbe(t)k(g)ure kontu eta esakera erabilten dau gure erriek seinde: selan eta segas osatuten dan; ser egin bear dan begiskoa artu es iteko, d’askos geao.

Begiskoa eta olangoan bildurrez, usadio eta esakera(k)p(b)e esaten dire.

Umea begiskoagas daoen errese-loa auki es eitoko, kanpokoak auxe esaten dau: “ Nire begiek esteutzo gatzik in”; esatea les, nik estotzet in begiskoa sure umeari.

Esaterako, umea yatun txarra danean gurasoak esatotzie: “ Es, suk es yan, ori begireko da ona-ta”. Ume txikien bat arrausike asten bada agoan iru kurutze egiten yakos.

Badakigu leenagoko denporetan, euskaldunak be, beste askok lez, begizkoa egoala sinistuten eudiela. Au dala-eta zeinbat gura kontu eta esakera erabilten dau gure erriak, zeinda: zelan eta zegaz osatuten dan; zer egin bear dan begizkoa artu ez egiteko, eta askoz geiago.

Begizkoa eta olangoen bildurrez, usadio eta esakerak be esaten dira.

Umea begizkoagaz dagoan errese-loa euki ez egiteko, kanpokoak auxe esaten dau: “ Nire begiak ez deutso gatzik egin”; esatea lez, nik ez deusat egin begizkoa zure umeari.

Esaterako, umea jatun txarra danean gurasoak esaten deutsoe: “ Ez, zuk ez jan, ori begirako da ona-eta”. Ume txiki-ren bat arrausika asten bada aoan iru kurutze egiten jakos.

Amak eskuetan paxea biribildute daukanean, umea batu baño len, paxea beragas aitearen eiten dautzo asi buruti bularreraño eta sorbalda bateti besteraño. Amak umeak asten dausenean, samati(k)p(b)era titi-arri deritzon kanikatxu bet eskegiten daurie, umeantza(t)p(b)ularra faltau barik eta ugeri euki daien.

Bide-kurtze batera elduten danean be, Purgatotioko arimen alde Pater Noster bat erresau bea da. Olango bide-kurtzeatan orio gordin usaine edo kiretza egoten ei de ta baserritarra(k)t(d)iñudie Purgatorio-ko arimen deia dala.

Amak eskuetan paxea biribilduta daukanean, umea batu baino leen, paxa beragaz aitearen egiten deutso asi burutik bularreraino eta sorbalda batetik besteraino. Amak umeak asten dagozanean, samatik beera titi-arri deritzon kanikatxu bat eskegiten daudie, umeantzat bularra faltatu barik eta ugeri euki dagien.

Bide-kurutze batera elduten danean be, Purgatotioko arimen alde Pater Noster bat errezatu bear da. Olango bide-kurutzeatan olio gordin usaina edo kiratsa egoten ei da eta baserritarrak dinodie Purgatorio-ko arimen deia dala.

49.6. Udiarragako Andra Mariaren kofradi-eguneko abestia (Ugao-Miravalles)

Udiarrako kofradie sano inportantea isin de beti. Yai andie ite san baskari te gusti. Gure bosu, Udiarrako kofradi-eguneko kantea kantaukotzut, ondiño burus dakit eta. Auxe dosu:

“Udiarran dingilis dago.
tupin aundia arizpean;
Andra Mariko Mesa ondoren
yarriri(k)p(b)ere inguruan;
tira gustiok
sar da gastioak
yan daigun alkarren leian.”

“Ollo, erbiak, eper, bildotzak,
ogei erraldeko txala,
basurde bat ta odolostiak
txakoliñagas yan ala,
ekin edaten
iñardu yaten
ase artian sabela.”

Udiarragako kofradia sano inportantea izan da beti. Jai andia egiten zan bazkari eta gusti. Gura badozu, Udiarragako kofradi-eguneko kantea kantauko deutsut, oraindino buruz dakit eta. Auxe dozu:

“Udiarragan dingiliz dago.
tupin aundia arizpean;
Andra Mariko Meza ondoren
jarririk bere inguruan;
tira guztiok
zar da gaztiok
jan daigun alkarren leian.”

“Ollo, erbiak, eper, bildotsak,
ogei erraldeko txala,
basurde bat ta odolostiak
txakoliñagas jan ala,
ekin edaten
iñardu jaten
ase artian sabela.”

“Sukalkiña bein Mesa entzuten
sain atartetik egoan,
ixil-ostuka erdaldun batek
bildotz errea eroian;
kanpaien miñak
iges egiñak
beso ausita itxi eban.”

“Katar gosia etorri ei san
ollo erre bat artzera
arrano batek biei elduta
igon ebasan torrera,
erakarririk
oso-osorik
sukalkiñaren eskura.”

“Gaurko egunes gure asabei
esan ei eutzen Mariak:
“Emen nas suen bitartekoa
arinduteko nekiak;
soritxarretan
nere esturetan
neugana eldu gustiak.”

“Agur Maria Jaungoikoaren
eta gisonen Ama ona,
otoi egisu bai gure aldes
lortu daikegun soruna (sic)
goralduteko
beti-betiko
Jesus gure Jaun lastana.”

“Sukalkiña bein Meza entzuten
zain atartetik egoan,
ixil-ostuka erdaldun batek
bildots errea eroian;
kanpaien miñak
iges egiñak
beso ausita itxi eban.”

“Katar gosea etorri ei zan
ollo erre bat artzera
arrano batek biei elduta
igon ebazan torrera,
erakarririk
oso-osorik
sukalkiñaren eskura.”

“Gaurko egunez gure asabei
esan ei eutsen Mariak:
“Emen naz zuen bitartekoa
arinduteko nekiak;
zoritxarretan
nere esturetan
neugana eldu guztiak.”

“Agur Maria Jaungoikoaren
eta gizonen Ama ona,
otoi egizu bai gure alde
lortu daikegun zoruna (sic)
goralduteko
beti-betiko
Jesus gure Jaun lastana.”

49.7. Haritz azpian batzartu ganadu-barrutiak banatzeko (Ugaon)

Udiarrako Amabirjineak eleza ederra dauko inde Kallen, bueno, gaur Ugao esatotzu, Miravalles erderas. D’or, nik entzutea e, oin Udiarrako Aman elezea daoen lekuen lenao aras andi bet egoala, d’or araspean iten audesan juntak inguruko errietako pastoreak-eta, ba,

Udiarragako Ama Birjineak eleiza ederra dauka eginda Kallen, bueno, gaur Ugao esaten deutzagu, Miravalles erderaz. Eta or, nik entzutea e, orain Udiarragako Amaren eleizea dagoan lekuan leenago ariz (aritz) andi bat egoala, eta or arizpean(aritzpean) egiten eudezan juntak inguruko errietako pas-

ganaduen barruti edo pastuek errepartitako, jaleorik on estaiten-edo.

Aras andie esatauden, d'aren aspian artzean i audesan euren ebatziok. Aras- arbolea inportantea san, bitu espabere Gernikekoa be, da besto bat or Luiandokoa, Malatu-edo esatotziena. Lenao Seberion-da, arasdui andiek egosan. Ortxe daukosu Seberion sartukeran Asandia, errotea dao bertan. Gu(k)p(b)eti esan du Asandia baie papeletan eskribidute Aresandiaga dator.

Da, len be esan dotzu(t)p(b)aie, Seberioiko elbarrenen, oin Santa Kurtzeko ermitea daoen lekuen be beste aras andi bet i egoan, d'antxe in auden elexea, polite, modus polite, ombre, Udiarrako Ama Birjineana politagoa e kanpoti sein barruti.

Da, lenao be kontautzut ori kandela isetuekas in audisan prososioak Udiarrati Santa Kurtzera ta ona Ugaora. Da Kallek irebasi. Seberios-tarrak esaten daudie guk, Kallekook o, sera, gatza in gauntzela kandelari geao aguantetako d'olan irebasi gendule. Galduen urtetan dauenak seoser asmau bear esta?

toreak-eta, ba, ganaduen barruti edo pastuak errepartitako, jaleorik egon ez daiten-edo.

Ariz (aritz) andia esaten euden, eta aren azpian artzean ei eudezan euren ebatziok. Ariz-arbolea inportantea zan, begiratu ezpabere Gernikakoa be, eta beste bat or Luiandokoa, Malato-edo esaten deutsoena. Leenago Zeberion-eta, arizdui andiak egozan. Ortxe daukazu Zeberion sartukeran Asandia, errotea dago bertan. Guk beti esan dogu Asandia baina papeletan eskribiduta Aresandiaga dator.

Eta, leen be esan deusut baina, Zeberioiko elbarrenen, orain Santa Kurtzeko ermitea dagoan lekuan be beste ariz andi bat ei egoan, eta antxe egin euden eleizea, polita, moduz polita, ombre, Udiarragako Ama Birjinearena politagoa e kanpotik zein barrutik.

Eta, leenao be kontatu deusut ori kandela izetuekaz egin eudiezan prozesioak Udiarragatik Santa Kurtzera eta ona Ugaora. Eta Kallek irabazi. Zeberios-tarrak esaten daudie guk, Kallekook o, zera, gatza egin geuntsela kandelai geiago aguantetako eta olan irabazi genduala. Galduan urtetan dauanak zeozer asmatu bear ezta?

50.4. Zeberio izenaren herri-jatorriaz

Seberion usena nondi datorren? B'ara, kontau gause asko kontetaire. Oin i Mirabelleetik Seberiora pasetako kamiño-subi ederra dao inde Nerbioi-erreka ganeti. Lenao suresko subiek ite sirean, balaustrak-eta paluikas inde sein erre kara yausi.

Zeberioaren uzena nondi datorren? Ba ara, kontatu gauza asko kontetan dira. Orain i Mirabelleetik Seberiora pasetako kamino-zubi ederra dago egin da Nerbioi-erreka ganetik. Leenago zurezko zubiak egiten ziran, balaustrak-eta paluakaz egin da zein erre kara jausi.

Da, ba gure Miraballeseko lena-okoari iños entzunde deukotziet Seberio usena **Seberrio**-ti datorrelaskoa, d'ori usen ori, serak, orrik i yentilek imini otziela. Ba, segun itxurea, yentile(k)p(b)ajatu sireala orti estai-(t)p(b)a Itzina edo Untzetapikuti, te, ba Nerbio-errekea asite, andi topau i audien d'esin pasau, ondiño subie in barik ongo san da, d'atzera bueltau sireala "**SEBERRIO-SEBERRIO-SEBERRIO**" gedarres euren serera, goietara. D'ortik imini otzielaskoa Seberio usena Seberiooko erriari.

Besterantza bere entzunde dauket. Baie, au geroagokoa isingo yatzu isin bere. Beste erri betzuetara bere bai, baie ona Miravallesera bere, ainbet erdeldun etorri de emengo fabriketara bearren, da, ba, Andalusiati etorrikoan bat asi sen Kalleko fabrika sarrean bearren. D'egun beten, seguru, Kalleti Seberiora daoen kamiño-subien erdire yoan i sen da, ba, a erreka andie ikusikeran esaten i auen: "se-be-rio, se be rio", esea esese, erreka be es i auen ondo esaten antza. D'andi bere yatorkolaskoa Seberio usena Seberiooko erriari. Barre iten dosu? B'orixe kontetan da emeti, orti datorrela esateuden gure aurrekoak. Su(k)p(b)arre iteko seoser geao bere bakisu esta? Ai suok!

51.1. Azagarria eta barakarroa

Baten e, an, serean, Supelegorren esbaian ibili ei sirean Perutxu ta Yentile bata(k)p(b)esteari iterantzuna(k)p(b)otaten, seinek (g)eagoka. Orretara esan otzen Yentile(k) Perutxuri:

Eta, ba gure Miraballeseko leenago-koai inoz entzunda deukotsiet Zeberio uzena **Zeberrio**-tik datorrelaskoa, eta ori uzen ori, zerak, orreik i jentilak imini eutsiela. Ba, segun itxurea, jentilak bajatu zirala ortik ez dakit ba Itzina edo Untzetapikutik, eta, ba Nerbio-errekea azita, andi topatu ei eudien eta ezin pasatu, oraindino zubia egin barik egongo zan eta, eta atzera bueltatu zirala "**ZEBERRIO-ZEBERRIO-ZEBERRIO**" gedarrez euren zerera, goietara. Eta ortik imini eutsielazkoa Zeberio uzena Zeberiooko erriari.

Besterantz bere entzunda daukat. Baina, au geroagokoa izango jatzu izan bere. Beste erri batzuetara bere bai, baina ona Miravallesera bere, ainbat erdaldun etorri da emengo fabriketara bearren, eta, ba, Andaluziatik etorrikoren bat asi zan Kalleko fabrika zaarrean bearren. Eta egun baten, seguru, Kalletik Zeberiora dagoan kamiño-zubiaren erdira joan ei zan, eta, ba, a erreka andia ikusikeran esaten ei euan: "ze-be-rio, ze be rio", ésea ezeze, érrea be ez ei euan ondo esaten antza. Eta andik bere datorkolazkoa Zeberio uzena Zeberiooko erriari. Barre egiten dozu? Ba orixe kontetan da emeti, ortik datorrela esaten euden gure aurrekoak. Zuk barre egiteko zeozor geiago bere badakizu ezta? Ai zuok!

Baten e, an, zerean, Supelegorren ezbaian ibili ei ziran Perutxu eta Jentila batak besteari iterantzunak botaten, zeinek geiagoka. Orretara esan eutsan Jentilak Perutxuri:

- Perutxu, ain kapasa basara or dosu Itxinako as-barrutien sear nire errebañu nausie d'orixe yagon beostesu. Lagune iminikotzut, or aurrean mantzo-mantzo ikusten dosun asagarie.
- Asagarie ardie(k)tx(y)agoteko?-erantzun otzen arritute Perutxuk-.
- Bai, ser ba? Nik amenasupean ondo baño be obeto esite daukot asagari au te txakurri(k)p(b)iskorrena baño be biskorragoa da.
- Biskorragoa? Sure asagari orreri ni(k) nauk esese barakarro bate(k)-p(b)e geago ingo lauskio- kontes-tau otzen Perutxuk.
- Barakarroak? Ekarrisu barakarro ori d'in ingu aronakoa, emendixik Supelegorretik Gorbaieko puntara ixingo da trebitue.

Perutxuk aurkitu te artu in auen barakarrorik alosokoana eta erakutzi in otzen Yentileri. Yentilek e fietan es sanes, lepobiskerrean ebagitxu bet in otzen alborik ara areri barakarroari tranparik on es iteko ta badiñotzo Perutxuri:

- Beno, ni Gorbaieko puntara yoango ñatzu saltu beten eta suk Perutxu, Supelegorreko atakatik urtekerea emon nire asagari ta sure barakarroari eta su seu be erdu eurekas batera, kapas basara nire asagariari segitan.

Esan da in. Yentile Gorbaieko tontor tontorrean egoala Perutxuk, sur ibilite, asagarien busten ganean imini auen kontus-kontus bere barakarroa. Segiduen eupada ba(t)p(b)ota Yentileri te: Bat, bi, eta iru! kontau ausenean, an yoaisen, oño, asagaria drinean eta alborik ara Perutxu begi bategas aurrera ta besteagas asagarien busteneko barakarroari begire. Yoan

- Perutxu, ain kapaza bazara or dozu Itzinako aitz-barrutian zear nire erre-bainu nagusia eta orixe jagon bear deustazu. Laguna iminiko deustut, or aurrean mantso-mantso ikusten dozun azagaria.
- Azagaria ardiak jagoteko?- erantzun eutsan arrituta Perutxuk-.
- Bai, zer ba? Nik amenazupean ondo baino be obeto ezita daukat azagari au eta txakurrik bizkorrena baino be bizkorragoa da.
- Bizkorragoa? Zure azagari orri nik neuk ezeze barakarro batek be geiago egin-go leuskio- kontestatu eutsan Perutxuk.
- Barakarroak? Ekarri egizu barakarro ori eta egin egingo dugu aronakoa, emendixik Supelegorretik Gorbeiaiko puntara izango da trebitua.

Perutxuk aurkitu eta artu egin euan barakarrorik alozokoana eta erakutsi egin eutsan jentilari. Jentilak , fietan ez zanez, lepobizkarrean ebagitxo bat egin eutsan alborik ara areri barakarroari tranparik egon ez egiteko eta badiotso Perutxuri:

Eta arrazkero “ Anpuero ” uzenagaz ezagutu da Zeberion, eta dantzaritik aparte bromista askarria izan da, batezbe txiste, guzur eta abarrak kontetan.

Eta, ba, egun baten, or Kalleko kofradietan txapelketa baragarri bat egin eudien, “nok esan guzurrik andiena” eta, klaro, Anpuero enteratu zanean presentatu egin zan eta irabazi ez euan ba egin! Aikomen bere guzurra, bueno akordetan nazana e, ze ni neu ea nintzan egon entzuten, neuk be beste batzuri entzuna baino ez dakit. Bueno, auxe kontatu ei euan Anpuerok:

- “Bueno, un kontaukotzuet a Seberioaneko auntzena. Baten e, an Seberioanen, estait i sainbet toneladako auntze il audien be. Ain isin sen andie, pisitu be esin isin audien in. Sangretorduen, odola-(k)p(b) ezin batute ibili sirean, kantinek, galdallak, erradak et’azkenean yarro murkuetan gorde bear odolaren odolagas. Da, ba gobernau-dienean, odolosteak in audiesan Seberioko ta ganetiko gustientzat. Aitelo pea, ain sen andie ba itxi in audien atzenerako. Aitelo pe ori betateko, iru burkada porru t’ogai anega arros bear isin audesan. Baie es aukien non geldorrestau andien andiegas. Orduen lelengo artu eskusorkiek eta siku-siku in audien aitelo pe endemoniñori. Gero, sue in otzien obu en-obuen ia beroagas seoser itaudien, sikuen geldorrestau edo. B’ebisen palankakas da sataiakas andi mogidu orti buelta d’alargon baten mogitan da aitelo pe ori Seberio ganeti(k)p(b)era kiki-ribueltaka d’esin audien parau aurberan. Betorren Adarreti bera, bakisu, Adarre Iberre ganean dao d’aurberea alosokoa, d’Iberre pasuenean Olabarri baño beratxua-goan dao en Presaldeko presa presa yausi, errementau d’auken arrosaldiek presako ur gustie sikitu au en d’egun bidiruen on sirean Seberio ko elbarrenekoak ur barik. Euriek asi sireanean librau sen prese a d’aitelo peko arrosan parte a Bilborañ o allegau sen. D’alantxe akabau sen kontue. Aikor nire gusurre egien kolorean kontau e. Kontau dautzuena aikomen daukosue zauon aurrean, baie fetxori ori ikusi auena, bate(k)p(b)aki.”
- “Bueno, orain kontauko deutsuet a Zeberio ganeko auntzarena. Baten e, an Zeberio ganen, ez dakit i zeinbat tone-ladako auntza il eudien be. Ain izan zan andia, pisatu be ezin izan eudien egin. Sangretorduan, odolak be ezin batuta ibili zirean, kantinak, galdailak, erradak eta azkenean jarro murkoetan gorde bear odolaren odolagas. Eta, ba gobernau eudienean, odolosteak egin eudiezan Zeberio ko eta ganetiko guztientzat. Aitelo pea, ain zan andia ba itxi egin eudien atzenerako. Aitelo pe ori betateko, iru burkada porru eta ogei anega arroz bear izan eudezan. Baina ez eukien non geldorraztatu andiaren andiagaz. Orduan leenengo artu eskusorkiak eta siku-siku egin eudien aitelo pe endemoniñ o ori. Gero, sua egin eutsien oboan-oboan ia beroagas zeozer egiten eudien, sikuan geldorraztatu edo. Ba ebilzen palankakaz eta sataiekaz andik mobidu ortik buelta eta alangoren baten mogietan da aitelo pe ori Zeberio ganetik beera kikiribueltaka eta ezin eudien paratu aurberan. Baetorren Adarretik beera, badakizu, Adarre (Adarra) Iberre (Ibarra) ganean dago eta aurberea alozokoa, eta Ibarra pasatu euanean Olabarri baino beeratxoagoan dagoen Presaldeko presa presa jausi, errementatu eta eukan arrozaldiak presako ur guztia sikatu euan eta egun bidiruan egon zirean Zeberio ko elbarrenekoak ur barik. Euriek asi zireanean libratu zan prese a eta aitelo peko arrozaren parte a Bilboraino allegatu zan. Eta alantxe akabatu zan kontua. Aikor nire guzurra egiaren kolorean kontatua. Kontau deitsuena aikomen daukazue zeuon aurrean, baina fetxori ori ikusi euana, batek badaki.”

Orrexegas gusur orregas iripasi i auen seguru txapela Anpuerok. Je-je-je, gustau in jatzu esta? Barre baten saos da. A be ukustea isingo san ba e ?

Orrexegaz guzur orregaz irabazi ei euan seguru txapela Anpuerok. Je-je-je, gustatu egin jatzu ezta? Barre baten zagoz eta. A be ikustea izango zan ba e ?

52.8. Kaltzontzillu bako gizona

Gaur lar dan gañe erropa dauku t'edosein modukoa auki be baia lenao es egoan gaur besteko modurik eta al dan moduen arreglau bear.

D'orretara, egun beten artayorran ebisen anaje bi goxeko freskuran da bietati batek e medikuegana yoan bear auen egurdartean tripalatzu ebil-elako, lenao bakisu bixigoa(k)p(b) e sarri ote sirean esteatan d'uskaian da ba medikuegana yoateko adien egoan. Baie, problemea auken seguru, kantzontzillurik es da ba bekien anaje sarrenak baukesala batzuk aldean edo ainbaten soldadiskan erosiak eta ba apur bet e lotzature baie atzenean derrigorrean badiñotzo:

- I, auxe t'auxe pasetan yatak eta aure kantzuntzilluek itxikostesak gaurko au iteko, medikuek se esango be,
- Ogeto es, mutil, itxiko estoasa(t)-p(b)a,- erantzun i otzen anajeak-, artisek konprimentu barik. Aitik, yoai etzera d'eskapoloteko tiradorean daukosak et'artu.
- Tire, olan badok o bai, aldean daukoasela pentzau yoat eta enok atrebitan isin eskatuten.
- Es ai estutu, nik i normalean e(s)tx(y)oasat erabilten sein salgetu edo gastau t' apurtu, pare bakarria yaukoat eta, bakik, ondo yagon beosak gausak, sera, bearrisena etorri iten dok eta ikustok?

Gaur lar dan gaina erropa daukagu eta edozein modukoa euki be baina leenago ez egoan gaur besteko modurik eta aal dan moduan arreglatu bear.

Eta orretara, egun baten artajorran ebilzen anaje bi goizeko freskuran eta bietatik batek e medikuagana joan bear euan egurdartean tripalatsu ebil-elako, leenago badakizu bizioak be sarri egoten zirean esteetan eta uzkaian eta ba medikuagana joateko adian egoan. Baina, problemea eukan seguru, kaltzontzillorik ez eta ba baekien anaje zaarrenak baeukazala batzuk aldean edo ainbaten soldadiskan erosiak eta ba apur bat e lotsatuta baina atzenean derrigorrean badinotso:

- I, auxe eta auxe pasetan jatak eta eure kaltzontzilloak itxiko deustazak gaurko au egiteko, medikuak zer esango be.
- Obeto ez, mutil, itxiko ez deuzat barerantzun ei eutsan anajeak-, artu eizak konprimentu barik. Aitik, joan adi etxera eta eskapoloteko tiradorean daukazak eta artu.
- Tira, olan badok o bai, aldean daukoazala pentsatu joat eta ez nok atrebitan izan eskatuten.
- Ez adi estutu, nik i normalean ez joazat erabilten zein zalgetu edo gastatu eta apurtu, pare bakarria jaukat eta, badakik, ondo jagon bear dozak gauzak, zera, bearrisana etorri egiten dok-eta, ikusten dok ?

Bueno, anaje orrek e arnasea artu auen da yoan san etzera. Gorputzeko garbikusiok in, kantzontzilluok artu d'iminten yoan sanean, ene! bargetarik es, oño! Da ba an aukesan eskuetan d'esin auen asmau. Orduen solo aldeko bentanara yoan san d'anajeari badiñotzo:

- I, nau nok o barriro, ator ona d'esaitek ia selan ostra yantziten diresan onik kantzontzilluok sein atzekos aurrera imini.
- Fasil, gisona,- erantzun i otzen anajek-, aiko, orretako bakarrik eñoak artayorrea itxiten da yantzi-sek e frakan moduen.
- Bai bañenkik aurrea t'atzea seintzu(k)t(d)iresan
- Bueno, i, " *marron patras*" ik eta kitu, aitu ostek ?
- Bale, untxe bai, argiago esin!

D'alantxe yoan i sen medikuegana da grasiek se efetibamente, medikuek fraka(k)p(b)ajatuteko agindu i otzen errekonosimentureko da bargeta bako kantzontzilluokas itxurastu in auen asuntoa, ostantxean ganeko lotzarie!

52.9. Elorriako "Txakarra" Ereñotzan

Elorria, bakisu, orti Olabarriko subie pasau te Etxazorantza goasela eskerrera dao, bean Ametzakorta dauko t'ondo antzean Ametza. Gero gorantza inean ba Artea, Larrabide da gero Seberiogane.

Da, bueno, "Txakarran" esake-reagaitiño preguntaustesu te ba, sera, seoselan kontaukutzut u dakitena.

Ori, Elorriako Martzelino, karreteru famaue isin sen. Ereñotzara

Bueno, anaje orrek e arnasea artu euan eta joan zan etxera. Gorputzeko garbikuziok egin, kaltzontzillook artu eta iminten joan zanean, ene! bargetarik ez, oño! Eta ba an eukezan eskuetan eta ezin euan asmatu. Orduan solo aldeko bentanara joan zan eta anajeari badiñotso:

- I, neu nok o barriro, ator ona eta esan eistak ia zelan ostra jantziten diran oneik kaltzontzillook zein atzekoz aurrera imini.
- Fasil, gizona,- erantzun i eutsan anajek-, aiko, orretarako bakarrik ez nioak artajorrea itxiten eta jantzi eizak e fraken moduan.
- Bai banienkik aurrea eta atzea zeintzuk diran
- Bueno, i, "*marron para atras*" eik eta kitu, aitu deustak ?
- Bale, oraintxe bai, argiago ezin!

Eta alantxe joan ei zan medikuagana eta graziak ze efektivamente, medikuak frakak bajatuteko agindu ei eutsan errekonozimenturako eta bargeta bako kaltzontzillookaz itxurastu egin euan asuntoa, osterantzean ganeko lotsaria!

Elorria, badakizu, ortik Olabarriko zubia pasatu eta Etxazorantza goazela ezkerretara dago, been Ametzakorta dauka eta ondo antzean Ametza. Gero gorantza einean ba Artea, Larrabide eta gero Zeberiogane.

Eta, bueno, "Txakarraren" esakereagaitino preguntatu deustazu eta ba, zera, zeozelan kontatuko deustut u dakidana.

Ori, Elorriako Martzelino, karreteru famatua izan zan. Ereñotzara ezkondu

eskondu sen da mutikorik i sartu sen abade ala fraile estakit e baie atoan urtauen da ba gero akarreoan ibilte san idiekas d'esan dotzutena, famosoa in sen. Idiek e ondo yagotausen gero e, yaten be ondo emototzien da berak a grasiegas esatauen: "idieri babea emon bea yakok ugeri, babea, da korotza be bigune ta gorriskea in beayok, orrik i pekoros baltzok o bedarrana(k)t(d)osak". Idiek onak esese, bietati esiek aukitauen, baki-su, idie(k)p(b)e busterrien bietati esite aukitea estimadue isiten san da ferietan be geao baligo isitauden.

Da burdie be ona aukitauen da larakoa be txakarreskoa erabiltauen, guk u gorostiskoa be erabilten gaindun baie txakarra ondiño be gogorragoa i de.

Ia ser dan larakoa? Bai, gisona, ori ba, sera, aitu, burdiek e burkamea dauko esta, atzeko petoti asi t'aurre-rainokoa. Burdiek aurre partean trabesetara aukiten dau egur gogor bat eta orixe da larakoa edo toleta be esatotzune. Da ba gero, burkamea busterrien sartzean da olango sulo bate-ti, sereti, burtadea esaten yakon sulo-ti te ba bein burtadan sartu eskero, beste larako bat sartzean yakon trabesetara d'alan, idiek aurrera sein atzera iteko burkamea sujetaute aukitauden, ostaintxean urten ingo leuke. D'orrik i larakook iteko txakarra erabiltauen Martzelinok.

Burtedea ser dan? Ba, se isingo da ba, len esan dotzuten moduen, busterriek aspi partean d'erdien aukiten dau edeakas ineko olango erredondel bikos bat d'andixik sartzean da burkamea, burdie danean, se espabere beste sera, gabitxue erabili bear ixiten san beste edosein gauseta-

zan eta mutikorik i sartu zan abade ala fraile ez dakit e baina atoan urten euan eta ba gero akarreoan ibilten zan idiekaz eta esan deutsudana, famosoa egin zan. Ildiak e ondo jagoten euazan gero e, jaten be ondo emoten eutsien eta berak a graziagaz esaten euan: "idiari babea emon bear jakok ugari, babea, eta korotza be biguna eta gorrizkea egin bear jok, orreik i pekorotz baltzok o bedarrarenak dozak". Ildiak onak ezeze, bietatik eziak eukiten euazan, badakizu, idiak be buztarrian bietatik ezita eukitea estimatua izaten zan eta ferietan be geiago balio izaten euden.

Eta burdia be ona eukiten euan eta larakoa be txakarrezkoa erabilten euan, guk u gorostizkoa be erabilten gendun baina txakarra oraindino be gogorragoa ei da.

Ia zer dan larakoa? Bai, gizona, ori ba, zera, aditu, burdiak e burkamea dauka ezta, atzeko petotik asi eta aurre-rainokoa. Burdiak aurre partean trabesetara eukiten dau egur gogor bat eta orixe da larakoa edo toleta be esaten deutsaguna. Eta ba gero, burkamea buztarrian sartzean da olango zulo batetik, zeretik, burtadea esaten jakon zulotik eta ba bein burtedan sartu ezker, beste larako bat sartzean jakon trabesetara eta alan, idiak aurrera zein atzera egiteko burkamea sujetatuta eukiten euden, osterantzean urten egingo leuke. Eta orreik i larakook egiteko txakarra erabilten euan Martzelinok.

Burtedea zer dan? Ba, zer izango da ba, leen esan deutsudan moduan, buztarriak azpi partean eta erdian eukiten dau edeakaz egineko olango erredondel bikoitz bat eta andixik sartzean da burkamea, burdia danean, ze ezpabere beste

rako, seinde, area-katea lotuteko, edo basoti ageak ekarteko narras kabilla ta gustisko siek sartute edo soloko makinea lurreri bueltea emoteko, edo garien ernaroan txilindroia pasetako edo narra erabilteko d'oin be orrik i idipruebak iteko be bai.

Gabitxue ser? Ba, esan dotzute-na, selan esangotzu(t)p(b)a, ba burkama puntea bakarrik isitea letxe. Klaro, gabitxuek e burkama puntea les larako bi beitu, bata fijoja da bestea sartu aterea iteko, a, t'onek sartu-aterakonek e ugel metxu bet aukiten dau larakoa sujetetako sein urten. Da ganera, gabitxuek e beste sulo bat aukiten dau atzeko parteti ba tiritu beadan serari, erreminteari lotute daoen katea pasetako edo amarretako. Es ke, gabitxue espalego, kateak e burtedea siskau ingo lauke atoaan. Burtedea seboagas igurdite egote san d'olan burkamea sein gabitxue fasil-fasil sartzean da. Ba Martzelinok o busterrie be kurioso aukitauen, sapak ondo garbi, edea(k)-p(b)e naurri-naurrien ebagite da ganeko lana ta gustiko ardinarrue be elegantziegas iminite. Da gero, ni fijaute nao, burdi ganean beti eroatausen sokea, katea da egur bi, bata luseagoa da punta ta gusti.

Da klaro, laburre san ba egur akarreoan katea bota ta tornikete antzera biortuteko d'olan estutu kargea sein bidean galdu da bide arlo bat in orduen, barriro tensetan san. D'ostera beste palu lusea sererako san, idea edo bedar sikue edo olangoa ekarri eskero ba olan e burdie iruliteko arriskue egoan lekuetan, ba, sartu iten san palu ori bedarrean edo idan eta kontrapesoia iten yakon burdie iruli es iteko. Orre(k) palu orrek e sataie auken isena. Beste batzuetan

zera, gabitxua erabili bear izaten zan beste edozein gauzetarako, zeinda, area-katea lotuteko, edo basotik ageak ekarteko narraz kabila eta guztizko ziriak sartuta edo soloko makinea lurreri bueltea emoteko, edo gariaren ernaroan txilindroia pasetako edo narra erabilteko eta orain be orreik i idipruebak egiteko be bai.

Gabitxua zer? Ba, esan deutsudana, zelan esango deutsut ba, ba burkama puntea bakarrik izatea letxe. Klaro, gabitxuak e burkama puntea lez larako bi bear ditu, bata fijoja eta bestea sartu-ate-rea egiteko, a, eta onek sartu-aterako onek e ugal meetxu bat eukiten dau larakoa sujetetako zein urten. Eta ganera, gabitxuak e beste zulo bat eukiten dau atzeko partetik ba tiratu bear dan zerari, erreminteari lotuta dagoan katea pasetako edo amarretako. Es ke, gabitxua ez balego, kateak e burtedea siskatu egingo leuke atoaan. Burtedea seboagaz igurdita egoten zan eta olan burkamea zein gabitxua fasil-fasil sartzean da. Ba Martzelinok o buzterria be kurioso eukiten euan, zapak ondo garbi, edeak be neurri-neurrian ebagita eta ganeko lana eta guztiko ardinarrua be elegantziagaz iminita. Eta gero, ni fijatuta nago, burdi ganean beti eroaten euazan sokea, katea eta egur bi, bata luzeagoa eta punta eta guzti.

Eta klaro, laburra zan ba egur akarreoan katea bota eta tornikete antzera biur-tuteko eta olan estutu kargea zein bidean galdu eta bide arlo bat egin orduan, barriro tensetan zan. Eta ostera beste palu luzea zererako zan, idea edo bedar sikua edo olangoa ekarri ezkerro ba olan e burdia iruliteko arriskua egoan lekuetan, ba, sartu egiten zan palu ori bedarrean edo idan eta kontrapesoia egiten jakon burdia iruli ez egiteko. Orrek palu orrek e sataia

sataie barik i burdie estukeran sokeari moropile emon da gero sobretan basan, axegas be iten yakon kontrapeso. A! d'estotzut esan baie burdiek e burkamean puntan galgea aukiten dau, seinde olango arandela moduko bat eta burriñori erruda ostaiko trabesañuraño doa. Da ba larakoa les, galgea emoteko be trakarra erabilte san, gorostie d'elexarra be bai, galgeanak estau larakoa(k)p(b)-este agoantau bear.

B'orixe, Martxelino Elorriakoa ba Ereñotzara eskondu sen da gero ba jenteak askotan esatotzen ba:

- Da Martzelino, selan Ereñotzati?
- Da berak e: Ereñotzan? Ereñotzan txakarra yaok ugeri or Txakarreko beresien, ganeko egurre txakarra!

D'andixik imini otzien "Txakarra" usen barrie. Da ba klaro, an Ereñotza ganean txakar asko dao d'ango beresi betek e Txakarre dauko usena. Beste Txakarre ba(t)p(b)e bauku Seberion, an e Saldain ganean, Txakarreko basoa esatotzu. Atxa(k)t(d)aos an da txakarrari atxa gustetan yako, asbitartean oten da jeneralmentean.

Txakarra, esta arbola andie baie gogorra bai gero. Orrie ba artean antzekoa, karraskilleana be badauko yasa baie esta edo ametzan antzekoa be bada baie esta iguala. Txakarran orriek e aginaduratxue dauko seinde puntatxuekas, baie kolorea berdeskagoa da, da beti orrien. Txakarrari erderas selan esaten yakon? Ortxe esin dotzut lagundu, nau(k)p(b)estakit eta, baie akaso gure Pablo anajeak a yakin lei se a basoatan asko ibilite dao ta.

Da geao se kontaukotzu(t)p(b)a? A, bueno serak estus aitu,

eukan izena. Beste batzuetan sataie barik i burdia estukeran sokeari moropila emon eta gero sobretan bazan, arexegaz be egiten jakon kontrapeso. A! eta ez deutsut esan baina burdiak e burkamearen puntan galgea eukiten dau, zeinda olango arandela moduko bat eta burrina ori errueda osteko trabesainuraino doa. Eta ba larakoa lez, galgea emoteko be trakarra erabilten zan, gorostia eta leizarra be bai, galgearenak ez dau larakoak beste agoantatu bear.

Ba orixe, Martxelino Elorriakoa ba Ereñotzara ezkondu zan eta gero ba jenteak askotan esaten eutsan ba:

- Eta Martzelino, zelan Ereñotzatik?
- Eta berak e: Ereñotzan? Ereñotzan txakarra jagok ugari or Txakarreko beresian, ganeko egurra txakarra!

Eta andixik imini eutsien "Txakarra" uzen barria. Eta ba klaro, an Ereñotza ganean txakar asko dago eta ango beresi batek e Txakarre dauka uzena. Beste Txakarre bat be badaukagu Zeberion, an e Saldarian ganean, Txakarreko basoa esaten deutsagu. Aitzak dagoz an eta txakarrari aitzia gustetan jako, a(it)zbitartean egoten da jeneralmentean.

Txakarra, ez da arbola andia baina gogorra bai gero. Orria ba artearen antzekoa, karraskillearena be badauka jasa baina ez da, edo ametzaren antzekoa be bada baina ez da iguala. Txakarraren orriak e aginaduratxua dauka zeinda puntatxuekaz, baina kolorea berdezkagoa da, eta, beti orrian. Txakarrari erderaz zelan esaten jakon? Ortxe ezin deutsut lagundu, neuk be ezdakit eta, baina akaso gure Pablo anajeak a yakin lei ze a basoatan asko ibilita dago eta.

Eta geiago zer kontaktuko deutsut ba? A, bueno zerak ez doguz aiatu, bur-

burdixerrinkak eta burtzile d'orrik. Sera, ba, burdixerrinkak egur gogorrekoak isiten dire d'orretarako enjeneral artea useta san da txerrinkeari gero obuena burriña imini geoa aguantetako. Da, ba erruda biek lotzeako burtzile iminten yakon d'a be egur gogorrekoa, elexarra enjeneral. Da burdie burtzilen ganean iminteko pintzak esaten yakona iminten yakosan d'an jiretauen burtzilek txerrinkakas batera. Da, ba klaro, burtzile ta pintzak egurreskoak isitera ba irrintza itaue burdiek rosean, d'ori in esiteko engrasau in bear isiten san, da ba orretarako onena sera san, urdaiasala, d'axegas igurdi pintzak sartzean direan burtzilen oskea, d'olan esauen ainbeste irrintza iten. D'urdaiasala esanean, ba, seboa edo koipea edo, d'asken antzean, oniri autoari kanbietan otzien orio sarra be botaten yakon, da baligo isitauen. Iños, faltara, barakarroa(k)p(b)e iminten yakosan labantako baie esaudien asko baligo se atoan sikituten sirean. Onbre, esakerea be badao onen ganean, seinde, ba: "burdie(k)-p(b)e untau esketiño irrintzarik es", bakisu orrek se esan gure dauen esta?

Burdien fetxorien bategas akordetan nasen? Ba, olan otosotoan e, bueno, bai, baten pasau yakun, etorri gaintzesan gure aite defuntue ta orti Mandoipeti burkada ideagas da ba bidean olango leku eso bateti gatose la burdixerrinke sartzu yakun lupetzan barruretxu d'esin atera inñondi(k)p(b)e. D'etxakun iruli burdie gitxigaitiño. Leku txarra san isin be, ubidea be inde aukiten gaidun baie bidertzeko atxak emoie auken da beti egoan an lupetza. Da, ba, se in esta kiule gaosela, "Txakarra" barruntau

dixerrinkak eta burtzila eta orreik. Zera, ba, burdixerrinkak egur gogorrekoak izaten dira eta orretarako en general artea usetan zan eta txerrinkeari gero oboan burriña imini geiagoo aguantetako. Eta, ba errueda biak lotzeako burtzila iminten jakon eta a be egur gogorrekoa, leizarra en general. Eta burdia burtzilaren ganean iminteko pintzak esaten jakona iminten jakozan eta an giretan euan burtzilak txerrinkakaz batera. Eta, ba klaro, burtzila eta pintzak egurrezkoak izatera ba irrintza egiten euan burdiak rozean, eta ori egin ez egiteko engrasatu egin bear izaten zan, eta ba orretarako onena zera zan, urdai-azala, eta arexegaz igurdi pintzak sartzean direan burtzilaren (k)oskea, (*) eta olan ez euan ainbeste irrintza egiten. Eta urdai-azala ez zanean, ba, seboa edo koipea edo, eta azken antzean, oneiri autoari kanbietan eutsien orio zaarra be botaten jakon, eta balio izaten euan. Inoiz, faltara, barakarroak be iminten jakozan labantako baina ez eudien asko balio ze atoan sikatuten zirean. Onbre, esakerea be badao onen ganean, zeinda, ba: "burdiak be untatu ezketino irrintzarik ez", badakizu orrek zer esan gura dauan ezta?

Burdiaren fetxorien bategas akordetan nazar? Ba, olan otosotoan e, bueno, bai, baten pasatu jakun, etorri gintzazan gure aita defuntua eta, ortik Mandoiapetik burkada ideagaz eta ba bidean olango leku ezo batetik gatozala burdixerrinke sartzu jakun lupetzan barruratxu eta ezin atera inondik be. Eta ez jakun iruli burdia gitxigaitino. Leku txarra zan izan be, ubidea be eginda eukiten gendun baina bide ertzeko aitzak emoi eukan eta beti egoan an lupetza. Eta, ba, zer egin ez dakigula gagozala, "Txakarra" barruntatu gendun

gaindun an goratxuagoan a be idatan idiekas. D'ordu en gure aitek aupada in otzen:

- I, Martzelino, burdie sartu yakuk lupetzan d'etorriko aintike aurridie iten idi bitzuan artean ia atetan yun?
- Bai Martolo, -kostestauskun "Txakarrak"-, etxoik apur beten, naure burdie aterako yoat burtedeti t'idi utzekas yoango nok. Kateari(k)p(b)adaukok?
- Bai sera, sokea bakarrik eta bera ideari amarraute.
- Nauk eroango yoat orduen.

D'alatxik in gaindun. Aurridi te gusti idi bitzuekas atoa atera gaindun burdie lupetzati iruli barik eta bakes allegau gaintzesan etzera. Mesede andie in oskun Martzelinok ostaintxean bakisu selango bearlekue burdie utzitu, atera ta barriro kargetea? B'olangoxea san Martzelino, "Txakarra", gison ona t'alegrea, edosineri laguntakoa.

an goratxuagoan a be idatan idiekaz. Eta ordu en gure aitak eupada egin eutsan:

- I, Martzelino, burdia sartu jakuk lupetzan eta etorriko eintike aurridia egiten idi bitzuan artean ia ateraten joagun?
- Bai Bartolo, -kostestatu euskun "Txakarrak"-, etxodon (itxaron) egik apur baten, neure burdia aterako joat burtedetik eta idi utsakaz joango nok. Katearik badaukak?
- Bai zera, sokea bakarrik eta bera ideari amarratuta.
- Neuk eroango joat orduen.

Eta alatxik egin gendun. Aurridi eta guzti idi bitzuekaz atoa atera gendun burdia lupetzatik iruli barik eta bakes allegatu gintzazan etxera. Mesede andia egin euskun Martzelinok osterantzean badakizu zelango bearlekua burdia utsitu, atera eta barriro kargetea? Ba olangoxea zan Martzelino, "Txakarra", gison ona eta alegrea, edozeineri laguntakoa.(*) oskea < koska ala hozka? Bigarrena bada (h)ozka da etimologikoa

53.1. Mugarri-linderoak

Gaur u beste modu beteko seña-leak iminten dire erri bien artean baie, lenao, linderoatan mugarriek iminten sirean aspian testigue dala, tellea en jeneral, iketza be bai ños.

Da ba or Otxandio ta Dimos-tarrari itzela pasau yakien. Beti ebisen seguru konpondu esinik i mugarriokas da ba egun beten ebatzi auden e, sera, auxe: urli egunetan ollarrak (g)oxean yoten dauanean urten bakotxa(k)p(b)eretzeti te bie(k)p(b)at iten daudien lekuen lindero-mugarrie antxe iminteko.

Gaur u beste modu bateko seinaleak iminten dira erri biren artean baina, leenago, linderoetan mugarriak iminten ziran azpian testigua dala, tellea en general, ikatza be bai inoiz.

Eta ba or Otxandio eta Dimoztarrei itzala pasatu jakien. Beti ebilzan seguru konpondu ezinik i mugarriokas eta ba egun baten ebatzi euden e, zera, auxe: urli egunetan ollarrak goizean joten dauanean urten bakotxak bere etxetik eta biak bat egiten daudien lekuan lindero-mugarria antxe iminteko.

Allegau sen egun ori te Otzandikoa ollarragas yagiten daoela non presentetan yakon Dimostarra d'emeñaok esan.

- Emeñaok- esan i otzen Otzandikoak-, esin leitikok isin.
- B'ara, ninauk martiollarran kukurrukuotzagas batera urten yoat eta emeñaok.
- Eno(k) fietan iges eta esplikaistek ogeto se pasau den.
- Bueno, ba, goxaldeko freskuran gure aiteta galondoko sapatzek erretan asi osak da ba, sera, antza ollarra itxartu in dok eta kukurruku in. Orretara nik i orpoatan ar barik i artu yoat onako bidea t'emeñaok, tranparik in barik.
- Ori drogoosa isitea dok eta etxo(k)p(b)alio.
- I, ba nik i berbea bete yoat eta eñoak atzera iten, mugarrie ementxe ta kitu.

Da, ba, alantxe in bear isin audien se gaur be antxe dao Otzandio ta Dimen arteko linderoko mugarrie. Gero, entzutea dauket au kontu au beste erri betzutan be pasau sala. Bi urrin yoan barik i ementxe Aramaio ta Otzandio ta Orosko ta Zuiaren artean. Da beste bat, serean, or o Santurtze t'ondoko errien artean be bai seguru. Gause justoa, erri txikerrak a seoseri bota beotzie errue ta ba emeko kasuetan nori te ollarrari. Asmau be gero kontu bakotxik.

Allegatu zan egun ori eta Otxandikoa ollarragaz jagiten dagoala non presentetan jakon Dimoztarra eta: "emen niagok " esan.

- Emen niagok- esan ei eutsan Otxandikoak-, ezin leitikek izan.
- Ba ara, nik neuk martiollarraren kukurrukuotsagaz batera urten joat eta eme niagok.
- Ez nok fietan igaz eta esplikatu eistak obeto zer pasatu dan.
- Bueno, ba, goizaldeko freskuran gure aita-eta galondoko zaputzak erretan asi dozak eta ba, zera, antza ollarra itzartu egin dok eta kukurruku egin. Orretara nik i orpoetan ar barik i artu joat onako bidea eta emen niagok, tranparik egin barik.
- Ori drogoosa izatea dok eta ez jok balio.
- I, ba nik i berbea bete joat eta ez nioak atzera egiten, mugarria ementxe eta kitu.

Eta, ba, alantxe egin bear izan eudien ze gaur be antxe dago Otxandio eta Dimaren arteko linderoko mugarria. Gero, entzutea daukat au kontu au beste erri batzuetan be pasatu zala. Bi urrin joan barik i ementxe Aramaio eta Otxandio eta Orozko eta Zuiaren artean. Eta beste bat, zerean, or o Santurtze eta ondoko errien artean be bai seguru. Gauza justoa, erri txikerrak a zezeri bota bear deusie errua eta ba emeko kasuetan nori eta ollarrari. Asmatu be gero kontu bakotxik.

53.2. Arlanpeko atsoa labesuginen

Gu ba emen Sásolan bisi gara aspalditi. Sásola artea partea da,

Gu ba emen Sarasolan bisi gara aspalditik. Sarasola artea partea da,

ementxe gaure etzea baño beratzugoa-
an dao mugarri andi bet, arri losa
galanta. Sásolan ainbet etze dao.
Suon aítiteta be ortxe bisi sirean,
eguskibegien, aunke neguen axebe-
gie geao. Bueno etzean Paulo parau
sen da suon aítite Undurrara eskon-
du. Bitzuok (g)ara errentoreak, Í-
piñanak.

Sásolan labrantzea alde bietara
dauku, Seberiorantza inean bata d'
Artearantza inean bestea. Paraje
lañaberatzue da batesbe Seberio par-
tekoa. Aitu, lañabereagas igitri igi-
rrien dao diferentzie artea partea isin
edo bestea isin. Artea partean arinao
kentzean dau lañaberea, beste parte-
koa nagiago ibiltan da. Orretan au
gure Migel da aítue, au beti dao den-
porea asmetan da bidaski gustiek
preguntetan dotzie se denpora daka-
rren. Baten e, barreka, istrimidadeak
in gaidusen beragas. Supastarrea
gengosan indaba-garantan d'alangon
baten telebisinoan, erosi barri gaun-
ken, oindo kolore bakoa, da ba "*el
ombre del tiempo*"-k, orrek e
Mariano Medinak, estai(t)p(b)a se
denpora emon auen urrungo egune-
rako ta ba gure Migelek entzuten dau
ori, artu peridiku orri bet eta lapise-
gas **NO** eskribidu te pantallean
aurrean es otzen imini ba! Guk in
gendusen barreak, errementau inik
isin naintzen, txoten da gustiek etorri
yatasan arnaseari bueltea emon esi-
nik. Baie Migel bera serio gero e
betullak ixurtute! Ostean e lañabera
kontuen, or Dime partean esakera
polite dao. Klaro, ori aítuteko emeti
Sásola kaskuti Dimatxak ikusten dire
Lemoako Aramotz-erarte, d'an
aspitxuen Arlanpeko baserrie dao,
kuebea be bai ganean. Da ba

ementxe geure etxea baino beeratzugo-
an dago mugarri andi bat, arri losa galan-
ta. Sarasolan ainbat etxe dago. Zuon aíti-
ta-eta be ortxe bizi zirean, eguzkibegien,
aunke neguan aizebegia geiago. Bueno
etxean Paulo paratu zan eta suon aítita
Undurrara ezkondu. Bitzuok gara erren-
toreak, Ípiñarenak.

Sarasolan labrantzea alde bietara
daukagu, Zeberionantz eínean bata eta
Artearantza eínean bestea. Paraje laina-
beratsua eta batezbe Zeberio partekoa.
Aitu, lainabereagaz igarri igarrian dago
diferentzia artea partea izan edo bestea
izan. Artea partean arinago kentzean
dau lainaberea, beste partekoa nagiago
ibiltan da. Orretan au gure Migel da
aítua, au beti dago denporea asmetan
eta bidazki guztiak preguntetan deutsoe
zer denpora dakarren. Baten e, barreka,
estremidadeak egin genduzan beragas.
Supaztarrea gengozan indaba-garantan
eta alangoren baten telebisinoan, erosi
barri geunkan, oraindino kolore bakoa,
eta ba "*el hombre del tiempo*"-k, orrek e
Mariano Medinak, ez dakit ba zer den-
pora emon euan urrungo egunerako eta
ba gure Migelek entzuten dau ori, artu
periodiku orri bat eta lapizagaz **NO**
eskribidu eta pantallearen aurrean ez
eutsan imini ba! Guk egin genduzan
barreak, errementatu einik izan nintzan,
txoten eta guztiak etorri jatazan arnase-
ari bueltea emon ezinik. Baina Migel bera
serio gero e betuleak ixurtuta. Ostean e
lainabeera kontuan, or Dima partean
esakera polite dago. Klaro, ori aítuteko
emetik Sarasola kaskuti Dimatxak ikus-
ten dira Lemoako Aramotz-erarte, eta
an aspítxuan Arlanpeko baserria dago,
kobebe bai ganean. Eta ba Aramotzetik
lainaberea sartzean danean, zera, nik

Aramotzetai lañaberea sartzean danean, sera, nik orriri San Kristobalگو Barroetatarrari entzunde iños, ba esakera au esaten daurie: “*Arlanpeko atzoak labesue in dau edo labesuginen dabil*”. D’auki be axen itxurea aukiten dau. Labesue iten danean, segun axeak nondi(k)tx(y)o, gora barik i keak nainora iten dau d’asko kostetan da labea sertuten, beadan moduen tolostuten, se klaro, labea ondo berotu esik errariek erdi inean be igoal atetan dire, d’ogi ori indijestoa isiten da, tripalak iteko ona, su txarrak orixe dauko, da besterantz be ondo es, se labea berogi in eskero ogiek erre, bie(k)p(b)e antzeko paretido. D’ori lañabereana emen Seberioke Ergoienen be esaten du. Emen Seberio partean, orti Mandoi ganeti lañaberea sartzean danean be sera esaten du: “*Mandoi ganean labesuginen daragoie*. Da, besto batzutan, lañaberea be-beraño sartzean da Seberioke errekarroan t’orreri *iperrandie* esatotzu da lañaberea baño otzagoa isiten da.

53.3. Barazar ganeko kaminerua

Gure aite, yakingosu, kamiñerue isin sen, geitu be olantxik itoztzen, “Sasolako Kamiñerue” da ba baten kontauskun ba se an e Barasarganean i egoan kamiñeru bet atxurregas kamiño bastarrak atontan. Kamiñeru orrek e es i ekien erderarik eta erdeldunekas aituteko euren sobrestanteari geitu bear isitotzen, bakisu ba sobrestanteak erdereya yakin bear isitauen Diputasinora ta yoaten sanean parteak eskribidute (e)moteko.

orreiri San Kristobaleko Barroetatarreri entzunda inoz, ba esakera au esaten daudie: “*Arlanpeko atsoak labesua egin dau edo labesuginen dabil*”. Eta euki be arexen itxurea aukiten dau. Labesua egiten danean, segun aizeak nondik jo, gora barik i keak nainora egiten dau eta asko kostetan da labea zertuten, bear dan moduan tolestuten, ze klaro, labea ondo berotu ezik errariak erdi eginean be igoal ateratan dira, eta ogi ori indigestoa izaten da, tripalak egiteko ona, su txarrak orixe dauka, eta besterantz be ondo ez, ze labea beroegi egin ezkeru ogiak erre, biak be antzeko paretido. Eta ori lainaberearena emen Zeberioke Ergoienen be esaten dogu. Emen Zeberio partean, ortik Mandoia ganetik lainaberea sartzean danean be zera esaten dogu: “*Mandoia ganean labesuginen daragoie*. Eta, beste batzutan, lainaberea bee-beeraino sartzean da Zeberioke erreka-arroan eta orreri *iparrandia* esaten deutsagu eta lainaberea baino otzagoa izaten da.

Gure aita, jakingo dozu, kaminerua izan zan, deitu be olantxik egiten eutsuen, “Sarasolako Kaminerua” eta ba baten kontatu euskun ba ze an e Barazar ganean ei egoan kamineru bat atxurragaz kamino bazterrak atontan. Kamineru orrek e ez ei ekien erderarik eta erdeldunekaz aituteko euren sobrestanteari deitu bear izaten eutsan, badakizu ba sobrestanteak erdereya yakin bear izaten euan Diputazinora-eta joaten zanean parteak eskribiduta emoteko.

Da ba egun beten gasogenosko auto bat parau i yakon Barasarganean da badiñotzo, erderas, klaro:

- Buenos días, por favor puede decirme si voy bien para Villarreal?
- Oño! -erantzun i otzen-, nik iri mille erreal sor?
- Siii, -beste orrek-, siii, Villarreal de Alava
- Mille erreal d'alabea?

Orduen kamiñeru orrek artzean dau atxurre d'atxurkasu bet emoteko ditean plantetan yako, d'orretara badiñotzo autoko gisonak esku biekas burue gordeta:

- Pero escuche uste, escuche....
- A! eskutzi(k) gurok? B'orduen eskutzik artukosak artzekoak!

Yoan i sen yoten baie autodun orrek autoa arrankau t'aurrera in i auen, ostaintxean yoten dau gero!

Gero sobrestanteari kontautzeanean fetxorie barrealdiek in i audiesan gasogenosko autodunen konture.

Eta ba egun baten gasogenozko auto bat paratu ei jakon Barazar ganean eta badinotso, erderaz, klaro:

- Buenos días, por favor puede decirme si voy bien para Villarreal?
- Oño! -erantzun ei eutsan-, nik iri milla erreal zor?
- Siii, -beste orrek-, siii, Villarreal de Alava
- Milla erreal eta alabea?

Orduan kamineru orrek artzean dau atxurra eta atxurkazu bat emoteko ditean plantetan jako, eta orretara badiñotso autoko gizonak esku biekaz burua gordeta:

- Pero escuche usted, escuche....
- A! eskutsik gura dok? Ba orduan eskutsik artuko dozak artzekoak!

Joan ei zan joten baina autodun orrek autoa arrankatu eta aurrera egin ei euan, osterantzean joten dau gero!

Gero sobrestanteari kontatu eutsanean fetxoria barrealdiak egin ei eudiesan gasogenozko autodunaren kontura.

53.4. Ubideko linderotik aurrera erderaz

Basarganeko kamiñeruen kontue aitatukeran beste pasadisu bat etorri ya(t)k(g)ogora, aina Arratiko pastore biena.

Ba, baten, Arratiko pastore bi, bueno, Gorbaian oten direana(k) pastore, da ba auren ardiok mutildute mendire botaudiesanean, orduen yoan i sirean Vituriera, Vituriko ferire arito bat erosteko intentziñoagas, se aritoa ona auki bea da ta nosipinean kanbiau bear isiten da erresea mekotu es iteko.

Da ba bayoiasen oñes Ubide parteti te, Arabako linderora allegau sianean badiñotzo bata(k)p(b)esteari:

Barazar ganeko kamineruaren kontua aitatukeran beste pasadizu bat etorri jat gogora, areina Arratiako pastore biena.

Ba, baten, Arratiako pastore bi, bueno, Gorbeian egoten direanak pastore, eta ba euren ardiok mutilduta mendira bota eudiezanean, orduan joan ei zirean Vitoriara, Vitoriako feriara aarito bat erosteko intentziñoagaz, ze aaritoa ona euki bear da eta noizik beinean kanbiatu bear izaten da errezea mekotu ez egiteko.

Eta ba bajoiazan oinez Ubide partetik eta, Arabako linderora allegatu ziranean badinotso bata besteari:

- I, mutil, onarte Biskaia isin dok eta emeti aurrera Araba partean sartzean gosak d'erderas berba in beako yuk?
- Ba, bai, se emen e erdere geao dok auskerea baño da ba erresoia daukok, emeti aurrera erdera ingo yu(k)p(b)adaespada.

Da, je-je-je, mutilok isilik, mutik in barik Arabarantza inean. D'alangon baten, an Villarreal paretik doasela, bidertzeko arboladui beten sata batzuk u bárrunaudiesan da bata(k)p(b)estean ukondoa yota badiño bietari(k)p(b)atek eskue arboladuire inean iminite:

- "Txoris"- "Txoris"

Eta besteak a burueri goiti bera itotzen alantxe dala esateko edo, baie agorik askatu barik.

Orixe isin i sen Vituriera bitartean ineko berba bakarra. Berba bat in da bera auskeras. Selan konpondu ete sirean Vituriko ferien aritoea erosteko? Bueno, negosioatan dirue da asuntoa konpontan dauena, d'alan isin b'ingo san se, arito ta gusti etorri i sirean onantza. Seoselan konpondu sirean!

- I, mutil, onarte Bizkaia izan dok eta emetik aurrera Araba partean sartzean gozak eta erderaz berba egin bear-ko joaguk?

- Ba, bai, ze emen e erdere geiago dok euskerea baino eta ba errezoia daukak, emetik aurrera erdera egingo joaguk badaezpada.

Eta, je-je-je, mutilok isilik, mutik egin barik Arabarantza einean. Eta alangoren baten, an Villarreal paretik doazela, bidertzeko arboladui baten zarata batzuk barruntatu eudiezan eta batak bestearen ukondoa jota badino bietarik batek eskua arboladuire einean iminita:

- "Txoris"- "Txoris"

Eta besteak a buruari goitik beera egiten eutsan alantxe dala esateko edo, baina aorik askatu barik. Orixe izan ei zan Vitoriara bitartean egineko berba bakarra. Berba bat egin eta bera euskeraz. Zelan konpondu ete zirean Vitoriako ferian aaritoea erosteko? Bueno, negozioetan dirua da asuntoa konpontan dauana, eta alan izan be egingo zan ze, aarito eta guzti etorri ei zirean onantz. Zeozelan konpondu zirean!

54.1. Eskolako lehenengo erantzuna

Txikiten se iten nauen? Baaa, aitu, ni nau sai urtegas yoan nintzen eskolara erderarik arean be yakin barik. Allegau nintzen eskolara ta esarri naintzen maixuek esaneko lekuen. Alangonbaten e maixuek aterauen kuadernu bet eta listea pesetan asi yakun eskolako sarrenetati asite. Usenak esan ala, erantzun itotzien maixueri te ba ni be sur nengoan

Txikitan zer egiten neuan? Baaa, aitu, ni neu sei urtegaz joan nintzan eskolara erderarik arean be yakin barik. Allegatu nintzan eskolara eta ezarri nintzan maixuak esaneko lekuan. Alangoren baten e maixuak atera euan kuadernu bat eta listea pesetan asi jakun eskolako zaarrenetatik asita. Izenak esan aala, erantzun egiten eutsoen maixuari eta ba ni be zuur nengoan nik be zelanbaist

ni(k)p(b)e selanbaist erantzuteko. Ni belarri onekoa isin nes beti baie sur egonda be esin nauen aitu bestean erantzune ta larrituten asi naintzen. Alangon baten allegau sen txikion tandea ta maixuek:

– Leon Bilbao Ibarretxe!

– “Esauste”- erantzun nontzen burue makur inde lotzeari autzi esinik-.

Da, koño, maixue aurrera listea-gas. Atara pentsau nauen ba naure barrureko: “koño, txarto be e(z)-tx(y)aok, lelengo egune ta maixueri ondo erantzun, olangorik?”.

D'alimau in nintzen da etxean be kontau fetxorie. Etxean be es ostien eser esan da ba aurrera bolea. D'olan ibili naintzen luseroan “esauste” erantzuten maixueri.

Baie kaskonduagoa in nintzenean, erdera be apur bet ikisi nauen d'orduxean konturatu naintzen nire “esauste” “servidor de usted” sala. Da seinbet olango eskolan, aitearen da semearen...

54.2. Mugarri boskotxa

Emen e gure etxeti Villarorantza inean Lamindaoko bidea dao ta ba or eskerretara yoan, da, ameneko dao mugarri boskotxa, bost erri bat iten dausena. Aoikomensan bost erriok: Seani, Dime, Artea, Villaro t'Arantzazu. Arantzazu selan? Ba, aiko, ortxe, Lamindaoko bidea artzean dan kaminopean Biteri ausunea dao da ba ori lur sati ori Arantzazu da, naite erdien Artea on. D'au estaik i yakin-gosun baie gure Klaudian aite, koño, sure aitite Frantzisko, naure aitexea,

erantzuteko. Ni belarri onekoa izan naz beti baina zuur egonda be ezin neuan aitu bestean erantzuna eta larrituten asi nintzan. Alangoren baten allegatu zan txikion tandea eta maixuak:

– Leon Bilbao Ibarretxe!

– “Esauste”- erantzun neutsan burua makur eginda lotseari eutsi ezinik-.

Eta, koño, maixua aurrera listea-gaz. Aretara, pentsatu neuan ba neure barrurako: “koño, txarto be ez jagok, leenengo eguna eta maixuari ondo erantzun, olangorik?”.

Eta alimatu egin nintzan eta etxean be kontatu fetxoria. Etxean be ez eustien ezer esan eta ba aurrera bolea. Eta olan ibili nintzan luzaroen “esauste” erantzuten maixuari.

Baina kaskonduagoa egin nintzenean, erdera be apur bat ikasi neuan eta orduxean konturatu nintzan nire “esauste” “servidor de usted” zala. Eta zeinbat olango eskolan, aitearen eta semearen...

Emen e gure etxetik Villarorantz einean Lamindaoko bidea dago eta ba or ezkerretara joan, da, ameneko dago mugarri boskotxa, bost erri bat egiten dauzana. Aikomensan bost erriok: Zeanuri, Dima, Artea, Villaro eta Arantzazu. Arantzazu zelan? Ba, aiko, ortxe, Lamindaoko bidea artzen dan kaminopean Biteri auzunea dago eta ba ori lur zati ori Arantzazu da, naita erdian Artea egon. Eta au eztakik i jakingo dozun baina gure Klaudiaren aita, koño, zure aitita Frantzisko, neure aitaxea, ortxe jaioa da zure

ortxe yayoa da sure isiko Klaudiak e beti esaten isin dosku bere aite Arantzazun yayoa sala. B'orrexegaiti da mugarri boskotxori. Lekutenlekuten badaos on be olango propiedadeak. Arrabako landea be lenao Seberiona salaskoa esaten da ba bitu non daosen bata ta bestea.

izeko Klaudiak e beti esaten izan deusku bere aita Arantzazun jaioa zala. Ba orrexegaitik da mugarri boskotx ori. Lekutenlekuten badagoz egon be olango propiedadeak. Arrabako landea be leenago Zeberiorena zalazkoa esaten eta ba beitu non dagozan bata eta bestea.

54.3. Albokearen adarrak

Albokak? Makine bat alboka in du gure etxean, batesbe gure aitek eta. Da, ba geao estus in adar faltan oten isin garelako. Iños Nabarrati be ekarri oskues adarrak, orrik i dultzaineruek. Estellako dultzaineruek esotuten dodas d'aixek ekarri oskun bein saku bete adar d'alboka partidea in geindun. Albokagintzea dala ta, suk u estai(t)p(b)a yakin be ingosun baie un kontaukutzut gure albokak segaiti daukien katea bat atzeko adarrean, atzeko adarra, bakisu, yosi barik oten da, presiñoan sartute bakarrik.

Ba, sera, baten e erromeri beten e, jente andie egoan on be ta ba olango gaste soro batzuk u larregi arri-mau yakusen aureskuen da ba, gurestala isingo san baie, yoten naoela yo albokean atzeko adarra t'aidean botostien da, koño, sugerte txarra be gero, ostikopetan sapaldu es ostien in ba t'apurtu naure aitek e kapritxo-agas aginadura ta gusti ineko adar ederra, Bilboko sesen plasati naure kuñetuek ekarrie.

D'arraskero, aiteri ta biori akordau yakun albokeari kateatxu bet imintea. Adarrari sulotxu bet in de andik i albokean busterrieri lotu kateatxu bategas d'olan adarra dingi-

Albokak? Makina bat alboka egin dogu gure etxean, batezbe gure aitek eta. Eta, ba geiago ez doguz egin adar faltan egoten izan garalako. Inoz Nabarratik be ekarri deuskuez adarrak, orreik i dultzaineruak. Estellako dultzaineruak ezagututen dodaz eta arexek ekarri euskun bein zaku bete adar eta alboka partidea egin gendun. Albokagintzea dala eta, zuk u eztakit ba yakin be egingo dozun baina orain kontauko deusut gure albokak zergaitik daukien katea bat atzeko adarrean, atzeko adarra, badakizu, josi barik egoten da, presinoan sartuta bakarrik.

Ba, zera, baten e erromeria baten e, jente andia egoan egon be eta ba olango gazte zoro batzuk u larregi arrimatu jakuzan aureskuan eta ba, gureztala izango zan baina, joten nagoela, jo albokearen atzeko adarra eta aidean bota eustien eta, koño, suerte txarra be gero, ostikopetan zapaldu ez eustien egin ba eta apurtu neure aitek e kapritxoagaz aginadura eta guzti eginoko adar ederra, Bilboko zezen plazatik neure koinatuak ekarria.

Eta arrezkero, aitari eta biori akordatu jakun albokeari kateatxu bat imintea. Adarrari zulutxu bat egin eta andik i albokearen buztarriari lotu kateatxu bategaz eta olan adarra dingilizka lotuta be ez

liske lotute be estotzo ardure, urringo tokean barriro sartu te kitu. Orixe da albokean kateatxu onen erresoia, esta adornue askok o pentzetan dauen moduen. Ordurik ona santo erremedio. Ser deretxasu?

deutso ardura, urringo tokean barriro sartu eta kito. Orixe da albokearen kateatxu onen errazoia, ez da adornua askok o pentsetan dauen moduan. Ordurik ona santo erremedio. Zer deritzazu?

54.4. Mandazaina eta albokaria Parisen

A, ori Parisen pasau sena guroso kontetea? Orko pasadisuko koplea makiña ba(t)p(b)ider kantau du Maurisiak eta biok. Bueno, Maurisiak a kantau te ni albokotzean martxea yoten.

Beñola, tabernako kontue antza, mandasain batek aitu ser entzun otzen Seaniko albokari fanfarroian bateri:

– Nire bidie(k) lakoak euki te nire moduen arnasea bueltetan dakienik esetz on iñon. Nik i Pariseko kallerik luseana pasau baietz mando ganean, albokotzean lotu be in barik, jotea, porru te martxea yoten!

– Ser diñok?-erantzun i otzen arritute ak e mandasainek. Orixe fetxori ori ikustearren seoser baño geago emongo ñeunkek.

– Inde yaok! Ser yokatuko yuk?-albokariak.

– Ba, neure ofiziora yoanas, bako-txan etxaguntzako mando gorri ederrena.

Esan da in. Egune notau, artu mando gorri bana eta Bituriera yoan i sirean lelengo, an preguntau te Pariseko bidea artzeako. A selako pare!

Ekine baragarrie danes, alangon baten allegau i sirean Parisera ta preguntau sein san kallerik luseana.

Es dakitzut sein kalle san esaten,... “Campos Eliseos” diñostesu?

A, ori Parisen pasau zana gura dozu kontatea? Orko pasadizuko koplea maki-na bat bider kantatu dogu Mauriziak eta biok. Bueno, Mauriziak a kantatu eta ni albokotsean martxea joten.

Beinola, tabernako kontua antza, mandazain batek aitu zer entzun eutsan Zeanuriko albokari fanfarroiren bateri:

– Nire bidia(l) lakoak euki eta nire moduan arnasea bueltetan dakienik ezetz egon inon. Nik i Pariseko kallerik luzeana pasatu baietz, mando ganean, albokotsean lotu be egin barik, jotea, porru eta martxea joten!

– Zer dinok?-erantzun ei eutsan arrituta ak e mandazainak. Orixe fetxoria ori ikustearren zeozter baino geiago emango nieunkek.

– Eginda jagok! Zer jokatuko joaguk?-albokariak.

– Ba, neure ofiziora joanaz, bakoitzaren etxaguntzako mando gorri ederrena.

Esan eta egin. Eguna notatu, artu mando gorri bana eta Vitoriara joan ei zirean leenengo, an preguntatu eta Pariseko bidea artzeako. A zelako pare!

Ekina baragarria danez, alangoren baten allegatu ei zirean Parisera eta preguntatu zein zen kallerik luzeana.

Ez dakitsut zein kalle zan esaten,... “Campos Eliseos” dinostazu? Ba orixe

Ba orixe isingo san d'orixe elegidu audien postorea iteko.

Posturea eiteko egunean, tertzios erantau sirean da ollarran kuku-rrukuegas batera plantau yakusan kalle luse ta sabal orren asikeran. An etosan bie(k)p (b)bietara, bat(a) albotkotzean aurreti ta bestea atzerik ara begire nos arnasea faltauko albokari fanfarroiari.

Albokariak komosinó iten i auen aurrera ba(t)p(b)be ikara barik eta ie-ie, suk esan dostesun ori... "Campos Eliseos" kalle luseari atzena emoteko gitxien faltan egosela, ba, mandasainek alborik ara aurreak artu, alborantza inean sutundu mando ganean d'albokariaren adarrean eskue imini auen axearen pasoa sarratuteko. Orretara, albokariak isin bueltau isin auen arnasea d'aleginean konortea galdu auen da mandoti biera yausi. Da klaro, postorea galdu auen bestea(k) tranpea in otzelako.

Arraskero, Pariseko posture ori kopla modure kantetan du te Maurisiak a grasi(e) andiegas iten dau in be. Aikomen koplea:

*Goxean Parisen, gaubean Parisen
Parisko kallean lusea,
auxe kalle au pasau eskero
atzeko mandoa neurea.*

55.1. Soinujotea pekatu

Ni gerrostean ba soñuyoten ibilten naintzen erromeririk erromeri, inoñs Barasar ganera be eroan nautie autoganean Ateletiri erresibitan kopea iripasite etorten sanean.

Da ba urte baten Arteako plasea atera nauen domeketako erromerien

izango zan eta orixe elegidu eudien postorea egiteko.

Posturea egiteko egunean, tertzios erantatu zirean eta ollarraren kukurrukuagaz batera plantatu jakuzan kalle luze eta zabal orren asikeran. An etorzan biak bietara, bata albokotsean aurretik eta bestea atzerik ara begira noiz arnasea faltatuko albokari fanfarroiari.

Albokariak komosinó egiten ei euan aurrera bat be ikara barik eta ia-ia, zuk esan deustazun ori "Campos Eliseos" kalle luzeari atzena emoteko gitxien faltan egozala, ba, mandazainak alborik ara aurreak artu, alborantz einean zutundu mando ganean eta albokariaren adarrean eskua imini euan aizearen pasoa zarratuteko. Orretara, albokariak ezin bueltatu izan euan arnasea eta aaleginean konortea galdu euan eta mandotik beera jausi. Eta klaro, postorea galdu euan besteak tranpea egin eutsalako.

Arrezkero, Pariseko postura ori kopla modura kantetan dogu eta Maurisiak a grazia andiagaz egiten dau egin be. Aikomen koplea:

*Goxean Parisen, gaubean Parisen
Parisko kallean luzea,
auxe kalle au pasau ezkeru
atzeko mandoa neurea.*

Ni gerra ostean ba soinujoten ibilten nintzan erromeriarik erromeria, inoiz Barazar ganera be eroan nautie autoganean Atletiri errezibitan kopea irabazita etorten zanean.

Eta ba urte baten Arteako plasea atera neuan domeketako erromerian

soñu txikerra yoteko. Orduen, bakisu, abadeak eta, es audien ondo ikusten soñuyotea, obeto esanda, baltzeoa yantzian itea, infernuko auspoa esatotzian soñueri. Da ba ni nauk e diru bearrisana be banaunken da ba soldatatzue atetako soñue yoten nauen, naite askotan gana barik ekin.

Aste Santu beten, bakisu, paskoaskoagas kunplidu beasan da ba ni nau be konfesetan yoan nintzen urli abadeagas (enoatzu isenik esaten) da ba konfesiño jeneralean domeketako soñuena be aitetu nauntzen badaespada da badiñoste ak abadeak:

- Suk estakisu domeketan bear itea pekatue dana?
- Ba, jaune, se esatea gure dau ba beorrek e nik estot iten bear itearren, nezesidadegaiti baño.
- Nezesidadea? Suk estaukosu bearrisnik.
- Jaune, bakotxan bearrisena norbera(k)t(d)aki ondoen, gerrostai larrie pasetan gaos gu te gure antzean beste asko.
- Bardin dotzo, domeketan esin lei bearrrik in d'estaukosu parkasiñorik.

D'orduen e sera in nauen, yoan Villarora t'ango abadeagas konfesau. Angoak a emosten asolusiñoa ta ba Paskoa egunean bete nauen paskoaskoagas. Orixe pasau yatan, grasiak e gaur estaoena olangorik, ostaintxean?

55.2. Sastegiko baltseoa

Soñuyotea, bueno, baltzeoa yantzian itea galasota oten san. Erri betzutako abadeak a gogorrakoak isiten sirean, beste batzuk u esotzian

soinu txikerra joteko. Orduan, badakizu, abadeak eta, ez eudien ondo ikusten soinujotea, obeto esanda, baltzeoa dantzian egitea, infernuko auspoa esaten eutsoen soinuari. Eta ba nik neuk e diru bearrisana be baneunkan eta ba soldatatzua atetako soinua joten neuan, naita askotan gana barik ekin.

Aste Santu baten, badakizu, pazkoazkoagas kunplitu bear zan eta ba ni neu be konfesetan joan nintzan urli abadeagaz (ez noatzu izenik esaten) eta ba konfesino generalean domeketako soinuarena be aiatu neutsan badaezpada eta badinost ak abadeak:

- Zuk ez dakizu domeketan bear egitea pekatua dana?
- Ba, jauna, zer esatea gura dau ba berorrek e nik ez dot egiten bear egitearren, nezesidadegaitik baino.
- Nezesidadea? Zuk ez daukazu bearrizanik.
- Jauna, bakotxaren bearrisana norberak daki ondoen, gerra oste larria pasetan gagoz gu eta gure antzean beste asko.
- Bardin deutso, domeketan ezin lei(ke) bearrrik egin eta ez daukazu parkazinorik.

Eta orduan e zera egin neuan, joan Villarora eta ango abadeagaz konfesatu. Angoak a emon eustan absoluzinoa eta ba Pazkoa egunean bete neuan pazkoazkoagas. Orixe pasau jatan, graziak e gaur ez dagoana olangorik, osterantzean?

ainbeste beitzen. Ortxe daukosu, urrin yoan barik i Seani d'Orosko. Seaniko abadeak esauden gure baltzeorik esegaiti be d'ostera Oroskokoak etzirean ain sarratuek.

Baten e, Gorbaieko yai egunean, erromerie egoan itzela an Igrñaoko landan da ba gasteriek e sasoia be itzela ta ba yantza t'aparajue. Baiii, Igrñaon, denpora ona onaskero fiesta andie iten da. Mesea oten da ermitan da gero ba yan, iturriko txoleteti ure edan, bueno, Igrñaoko iturriko txoleta kateagas amarraute dao sein baten batek eroan, da ba umorea ona. Baie, klaro, Seaniko partean in esin baltzeorik se galasota egoan, da ganera, neska-mutilek arrimuen ibilte pekatu sen.

D'orduen bakisu se akordau yakien gasteari? Ba, Igrñaopean Sastegi dao d'a Orosko partea danes araxe pasetea baltzeoa iten d'an in esin eser Seaniko abadeak. Aik auko audien amurrue e?

Gero estaki(t)p(b)a konfesauko sirean baie baltzeoa itea logretaudien.

Au fetxori au leku geaotan be pasetan san. Emen Seanik Oroskogas auken linderoa baie antzera pasetan san Seani ta Dimegas auren linderoko San Blas ermitan, or, Urregi aldean. Eta ba Urkiola edo Santa Lusiko erromeriti les ba(t)p(b)ño geao enparejatu t'eskondu be in de Gorbaieko erromariraskero.

te begiratuten. Ortxe daukazu, urrin joan barik i Zeanuri eta Orozko. Zeanuriko abadeak ez euden gura baltzeorik ezegaitik be eta ostera Orozkoak ez zirean ain zarratuak.

Baten e, Gorbeiaiko jai egunean, erromeria egoan itzela an Igrñaoko landan eta ba gazteriak e sasoia be itzela eta ba dantza eta aparejua. Baiii, Igrñaon, denpora ona egon ezkerro fiesta andia egiten da. Mezea egoten da ermitan eta gero ba jan, iturriko txoletetik ura edan, bueno, Igrñaoko iturriko txoleta kateagas amarratuta dago zein baten batek eroan, eta ba umorea ona. Baina, klaro, Zeanuriko partean egin ezin baltzeorik ze galazota egoan, eta ganera, neska-mutilik arrimuan ibilte pekatu zan.

Eta orduan badakizu zer akordatu jakien gazteei? Ba, Igrñaopean Sastegi dago eta a Orozko partea danes araxe pasetea baltzeoa egiten eta an egin ezin ezer Zeanuriko abadeak. Aiek eukiko eudien amorrua e?

Gero ez dakit ba konfesatuko zirean baina baltzeoa egitea logretan eudien.

Au fetxori au leku geiagotan be pasetan zan. Emen Zeanurik Orozko gaz eukan linderoa baina antzera pasetan zan Zeanuri eta Dimagaz euren linderoko San Blas ermitan, or, Urregi aldean. Eta ba Urkiola edo Santa Luziako erromeriatik lez bat baino geiago enparejatu eta ezkondu be egin da Gorbeiaiko erromariraz gero.

56.1. Laminak hondatu esne irakinagaz

Lanbreabeko errotan beti on da lamiñen entzutia da kontau be seinbe(t)k(g)ure t'axenbeste kontu kontau be in de gure gogaldien.

Lanpreabeko errotan beti egon da laminen entzutea eta kontatu be zenbat gura eta arexenbeste kontu kontatu be egin da gure gogaldian.

Gure etxea etxaguntzakoa isin yatzu beti t'errota bearretati aparte, ganadu asko ta labrantzea be andie eukiten gendun. Ganadue kortakadea da gainetikoa(k) mendien, ardiek eta batez be auntzek.

Lamiñakas asteko, oixe eskatusesu te, gure sarrak esan beistike, emen Lanpreabeko errotan, bakean be es i otzien itxiten lamiña gogaituok o beti esnea eske, bates be astelenetan. Da, ba, emon in bear, espabere selango tabarrea!

Egun beten, au atxineko kontue da gero e, domekea i sen isin be, da ba, Lanpreabeko errotako etxagune, auntzetara yoan i sen goxean goxeti, barauskarri apur bet inde, armosue gerorako itxite. Solorik solo yoian, bidebates, besperan laiatu te sotauko solo arloari adi.

Sartu sen Gorbaierantzako beresire d'esin i oasan auntzok pillatu, d'andi(k)p(b)uelta orti(k)p(b)uelta belu in yakon, mesarako go-goan yoan san baia.

Elexako mesarako lelengo kanpaia entzun oanean, auntza(k)p(b)ertanbera itxite etxera etorri i sen armosu apur bet in, prestau te mesa nausire yoateko.

Beragoion armosetan esnea maskilluen egosten auken bitartean, da, yantzi be ein sen antza, frantzesillasako fraka plantxau te gusti, baie elixako bigarren kanpaia entzun orduen larritu in sen da birriten pentzau be in barik, artu maskillutik i burruntxalakada batzuk esne d'edakeran estegorri, biusturi d' ametxorriarño-ko gustiek erre inik isin oasan baie alan da gustis be mogidu sen Ipiñiburuko elixarantza.

Bidean yoiala, belu allegetako

Gure etxea etxaguntzakoa izan jatzu beti eta errota bearretatik aparte, ganadu asko eta labrantza be andia eukiten gendun. Ganadua kortakadea eta gainetikoak mendian, ardiak eta batez be auntzak.

Laminakaz asteko, orixe eskatu deustazu eta, gure zaarrak esan beistike, emen Lanpreabeko errotan, bakean be ez ei eutsien itxiten lamina gogaituok beti esnea eske, batez be asteleenetan. Eta, ba, emon egin bear, ezpabere zelango tabarrea!

Egun baten, au antxineko kontua da gero e, domeka ei zan izan be, eta ba, Lanpreabeko errotako etxaguna, auntzetara joan ei zan goizean goizetik, barauskarri apur bat eginda, armozua gerorako itxita. Solorik solo joian, bidebatez, bezperan laiatu eta zotatuko solo arloari adi.

Sartu zan Gorbeiarantzako beresira eta ezin ei euazan auntzok pilatu, eta andik buelta ortik buelta belu egin jakon, mezarako gogoan joan zan baina.

Eleizako mezarako leenengo kanpaia entzun euanean, auntzak bertanbera itxita etxera etorri ei zan armozu apur bat egin, prestatu eta meza nagusira joateko.

Baeragoion armozetan esnea maskeluan egosten eukan bitartean, eta jantzi be egin zan antza, frantzezillazko fraka plantxatu eta guzti, baina eleizako bigarren kanpaia entzun orduan larritu egin zan eta birritan pentsatu be egin barik, artu maskelutik burduntzalakada batzuk esne eta edakeran estegorri, bioztura eta ametsorriainoko guztiak erre eginik izan euazan baina alan eta guztiz be mobitu zen Ipiñiburuko eleizarantz.

Bidean joiala, belu allegetako ardu-

arduria esese, urdalleko esne iriki-
ne(k)p(b)e es i otzon onik in, da tri-
peari eutzi esinik egoan.

Mesara sartu sen baie aurreko-
ri(k)p(b)e esin i oan ikusten urdalle-
ko minegas da tripalakas.

Mesa ostein, iñogas oteko asti
barik, etxerantza etorren, dandi(k)-
p(b)e, arantzean baño alosotxoago da
bidean pentzetan i oan:

– Oño! Or gabisek orrik lamiñok
uxatu esinde, ba ni(k) nauk
(g)orriek ikusi bayoadas esne iriki-
negas eureri be beste ainbeste in
eskero, santo erremedio! kenduko
yakiesak esnea edateko intziguok,
esne salea(k)p(b)adosa(k)p(b)e.

Etxera allegau sanean, kontau i
otzien ser pasau yakon da domeketa-
ko erropok kentzeako asti bari(k)-
p(b)adiñotzie seguru:

! astelenean, edo serean, ilenean,
- Seberio t'Oroskon esaten daudien
letxe, bakisu gure etxeko errena
Seberiokoa dana esta? - da ba orixe,
orrik lamiñok yatorkusenean, auxe
esan bea yakie konke barik: *“badao
esnea, gure dana, seinbe(t)k(g)ure
t' axen beste, erdu-erduzie”*, eta maski-
lluko esne irikine emon tripak
(g)ustiek erretako, d'etxakus barriro
etorriko, ikusikosue! Esan da in. Batos
lamiñok ilen edo astelen goxean, artze-
an ditues surrupada batzuk esne irikin
maskillurik ara d'ene! ango grillistu,
alauri, magalots eta galapadak!

Olantxe galdu i sirian betiko
lamiñok. Esne irikine edan orduen,
batzu(k) pagarteri(k) pagarte, beste
batzuk elexar d'altz artetik, lamiña
danak ostandu i sirian Lanpreabeko
errota ostaiko asbitarteatako estarie-
tan, da geiao es i sirian atomau etor-
ten. Olantxik emon i otzien akabue
edo atzena.

ra ezeze, urdailako esne irakinak be ez ei
eutsan onik egin, eta tripeari eutsi ezinik
egoan.

Mezara sartu zan baina aurrekorik
be ezin ei euan ikusten urdailako mina-
gaz eta tripalakaz.

Meza ostein, inogaz egoteko asti
barik, etxerantz etorren, dandik be,
arantzean baino alozotxoago eta bidean
pentsetan ei euan:

– Oño! Or gabizak orreik laminok uxatu
ezinda, ba nik neuk gorriak ikusi bajoa-
daz esne irakinagaz eurei be beste ain-
beste egin ezkerro, santo erremedio!
kenduko jakiezak esnea edateko intzi-
guok, esne zaleak badozak be.

Etxera allegatu zanean, kontatu ei
eutsien zer pasatu jakon eta domeketa-
ko erropok kentzeako asti barik badi-
notsie seguru:

! astelenean, edo zerean, ilenean,
- Zeberio eta Orozkon esaten daudien
letxe, badakizu gure etxeko errena
Zeberiokoa dana ezta? - eta ba orixe,
orreik laminok datorkuzanean, auxe
esan bear jakie konke barik: *“badago
esnea, gura dana, zeinbat gura eta arexen
beste, erdu-erduzie”* eta maskeluko esne
irakina emon tripak guztiak erretako, eta
ez jakuz barriro etorriko, ikusiko dozuel!
Esan eta egin. Badatuz laminok ilen edo
asteleen goizean, artzean dituez zurrup-
pada batzuk esne irakin maskelurik ara
eta ene! ango grillistu, alauri, magalots
eta galapadak!

Olantxe galdu ei zirean betiko lami-
nok. Esne irakina edan orduan, batzuk
pagarterik pagarte, beste batzuk lizar eta
altz artetik, lamina danak ostandu ei
ziran Lanpreabeko errota osteko
a(it)zbitarteetako estarietan, eta geiago
ez ei ziran atomatu etortzen. Olantxik
emon ei eutsien akabua edo atzena.

Olan isingo yatzun, se ni nau bertakoa nayatzu te nire gogaldien estot ikusi lamiñarik (g)ure (e)rrotan. Entzun da kontau bai, baie ikusi es.

Dana(k)t(d)ire (e)ntzutiak, lena-okoak antza, siñestu iten i audien olango kontuetan. Urrinago yoan barik aikor Lamindao Dimen. Isen ori baten batek iminikotzen, estere-txasu? Se ingo yako ba, gaur u estao lengorik, grasiek!

56.2. Txarkiris konbertiris in biniris

Au kontu au, bueno, kontue es, au pasau in sen emen Olarren. Onek e sure isiko Elenak ogeto kontauko lotzu baie tire akordetan nasena esangotzut.

Ba, baten, udea san, gari-yoteko tertzioa. Or gaunkesan solo nausien garimetak eta ba San Inasio besperabesperan gari-yotea pentzau gaindun egun sikuek itausen da, se bakisu, gari-yoteko denpora sikuek isin bea dau, espabere galgaraue esta ondo garantan da galbaiti eralgitea asko kostetan da.

Goxean goxeti erantau ginean d'asi ginean metatako eskutak a sabaltan galondoan da muna bastarretan. Setako? Ba eguskiegas kiskortuteko se olan ogeto garantan da galgaraue arrien kontra jokera.

Da, ba, imini gaindusen tejamanan gari-yoteko arri-losok eta ba asi ginean. Gisonenkoak gari-yoten d'andrasko t'umeok akarreoan lepaka sein besartean, tejamanati urrin bestao ta.

D'onik i txikitxuenok iturrikuretana da agintan gaindusen, se ure asko edaten san gari-yotorduen, se galautze,

Olan izango jatzun, ze ni neu bertakoa niatzu eta nire gogoaldian ez dot ikusi laminarik gure errotan. Entzun eta kontatu bai baina ikusi ez.

Danak dira entzuteak, leenagokoak antza, sinistu egiten ei eudien olango kontuetan. Urrinago joan barik aikor Lamindao Diman. Izen ori baten batek iminiko eutsan, ez deretxazu? Zer egingo jako ba, gaur u ez dago leengorik, graziak!

Au kontu au, bueno, kontua ez, au pasatu egin zan emen Olarren. Onek e zure izeko Elenak obeto kontatuko leutsu(leuskizu) baina tira akordetan nazana esango deusut.

Ba, baten, udea zan, gari-joteko tertzioa. Or geunkazan solo nagusian garimetak eta ba San Inazio bezperabezperan gari-jotea pentsatu gendun egun sikuak egiten euazan eta, ze bada-kizu, gari-joteko denpora sikuak izan bear dau, ezpabere galgaraue ez da ondo garantan eta galbaetik eralgitea asko kostetan da.

Goizean goizeti erantatu ginean eta asi ginean metatako eskutak a zabaltan galondoan eta muna bazterretan. Zertarako? Ba eguzkiagaz kizkortuteko ze olan obeto garantan da galgaraue arriaren kontra jokera.

Eta, ba, imini genduzan tejabanen gari-joteko arri-losok eta ba asi ginean. Gizonezkoak gari-joten eta andrazko eta umeok akarreoan lepaka zein besartean, tejabanatik urrun be ez dago eta.

Eta oneik i txikitxuenok iturrikuretana eta agintan genduzan, ze ura asko edaten zan gari-jotorduan, ze galautsa,

bueno, galautze serari esatotzu, galgarauen ganeko asalari, baie nik esan gurotzutena bestea da, gari yotorduen atetan dan autze, baltza da ta estegorri-
raño d'ametxorri-
raño sartzean da, ta sursuloa(k)p(b)e, basbaltz itxiten daus, d'ulleak a urdin-uridin inde, txapel ganetan igirten da ondoen.

Da, bueno, gisoneskoak a ure be bai baie ardaoa edo sangrie gurago isiten aurien ta ba bagaunken ardaoa be ekarrite garrafoian. Garrafoiak a normalean simentzakas yantzite oten dire apurtu esiteko, baie guk u azunbre bi t'erdiko garrafoi bat auki gaindun simesbakoa, kristel utze, berde-ilune, da kortako atostean gaunken selaien freskoako aukiteko.

Asi gaintzesan gari-yoten da ba egurdinguruen, parau in gaintzesan kopau bet iteko ta ba badoa gure Julian kortara ardaotan da ene! garrafoirik es. Olangorik?

Julian berba barik parau sen d'orretara, au gure ausoko Txomin, baragarri antza isin be, d' igirri in otzen Julianen estukureari d'asi in yakun berbas, da serio-serio asi be ganera:

– Bueno, Julian, ardagoa faltosue? Ba, milagroa in beaku orduen, se fetura eskasa da gari-yotorduen ardaorik auki es itea. Goasen orra iturriondoko txarkora d'antxe ikusikosue milagroa, uretik ardaoa ingotzuet. Erdusie t'ikusikosue, d'es ikeratu e pasau esta eser ingo ta.

Da, ba yoan be in ginean da errekatxarkora allegau gineanean, non asten yakun Txomin ori buruko txapela kendu d'esku biek altzaute esaten muna ganetik:

– “Txarkiris konbertiris in biniris”

bueno, galautsa zerari esaten deutzagu, galgarauaren ganeko azalari, baina nik esan gura deutzudana bestea da, gari jotorduan atetan dan autsa, baltza da eta estegorri-
raño eta ametxorri-
raño sartzean da, eta sudurzuloak be, baltz-baltz itxiten dauz, eta uleak a urdin-uridin egin-
da, txapel ganetan igarten da ondoen.

Eta, bueno, gizezonekoak a ura be bai baina ardaoa edo sangria gurago izaten audien eta ba bageunkan ardaoa be ekarrita garrafoian. Garrafoiak a normalean zimentzakaz jantzita egoten dira apurtu ez egiteko, baina guk u azunbre bi eta erdiko garrafoi bat euki gendun zimentz bakoa, kristal utsa, berde-iluna, eta kortako ate ostean geunkan zelaian freskoako eukiteko.

Asi gintzazan gari-joten eta ba eguerdi inguruan, paratu egin gintzazan kopau bat egiteko eta ba, badoa gure Julian kortara ardaotan eta ene! garrafoirik ez. Olangorik?

Julian berba barik paratu zan eta orretara, au gure auzoko Txomin, baragarri antza izan be, eta igarri egin eutsan Julianen estukureari eta asi egin jakun berbaz, eta serio-serio asi be ganera:

– Bueno, Julian, ardaoa falta dozue? Ba, milagroa egin bearko dogu orduan, ze fetura eskasa da gari-jotorduan ardaorik euki ez egitea. Goazen orra iturriondoko txarkora eta antxe ikusiko dozue milagroa, uretik ardaoa egingo deutzuet. Erdusie eta ikusiko dozue, eta ez ikaratu e pasatu ez da ezer egingo eta.

Eta, ba joan be egin ginean eta errekatxarkora allegatu gineanean, non asten jakun Txomin ori buruko txapela kendu eta esku biak altzauta esaten muna ganetik:

– “Txarkiris konbertiris in biniris”

Badoa Txomin munea bera da ba ardago-garrafoia txarkoan bedar batzukes tapaute es auen topau ba? Klaro, berak itxite. Ak se in auen, ba, kortako atostaien ikusi auenean a garrafoia, ba, gari-yoten asi orduko errekatxure eroan inor konturetorduko d'an itxi freskatuten. A(k)p(b)-ekien ardao-garrafoiana da yakines ganera in ausen kontuok. Selebrea gisona! Nok in laien milagroa? Da, ba gero eroan gaindun arda(g)o ori etzera ta ba, bromea gora bromea bera, dana edan fresko-fresko egoan da. Arantzasu gustie enterau sen fetxoriegas, binke fetxorie, milagroa baño geio. Ai gasteak! Onek Txomin baragarri onek in be gero inon danik.

57.1. Untzetabeko jentilen harri-bolak

Su Jumanuel, suges on beot. Suk u lengunean Kallen berbaldie aukiosu esta? Naure alabea, suñe ta llobea auki saindusen entzuten d'esaostien ba se Untzetapikuko Yentilarrien ganean ibili sintzela berbas d'esanotzien e:

– Orrek Juamanuelek yakin be estau ingo ni(k)t(d)akitena, d'esan in beotzet ikustodanean.

Bueno ba, oin aurrean saukodas d'esan ingotzut u dakitena urteak a pasau in direz baie.

Aiko, au isin sen mil nobesientos cuarenta y unoan. Iketzegosten gengosan Kortabaso t'Untzetapiku bitartean, an Untzetaben, Arriandie ingurumarien. Iketza egosten gaindun burbux egurregas. D'iketza ori Galdakoko Loroñontzat egosten gaindun. Orrek Loroño orrek gasojenosko kamioiak aukesan d'orrinztzako isiten san iketz ori.

Badoa Txomin munea beera eta ba ardao-garrafoia txarkoan bedar batzukaz tapauta ez euan topatu ba? Klaro, berak itxita. Ak zer egin euan, ba, kortako ate ostean ikusi euanean a garrafoia, ba, gari-joten asi orduko errekatxura eroan inor konturatu orduko eta an itxi freskatuten. Ak baekian ardao-garrafoiarena eta jakinez ganera egin euazan kontuok. Zelebrea gisona! Nork egin leian milagroa? Eta , ba gero eroan gendun ardao ori etxera eta ba, bromea gora bromea beera, dana edan fresko-fresko egoan eta. Arantzazu guztia enteratu zan fetxoriagaz, bienke fetxoria, milagroa baino geiago. Ai gazteak! Onek Txomin baragarri onek egin be gero inon danik!

Zu Juan Manuel, zugaz egon bear dot. Zuk u leengo egunean Kallen (Miravallesen) berbaldia euki dozu ezta? Neure alabea, suina eta llobea euki zenzuzan entzuten eta esan eustien ba ze Untzetapikuko Jentilarrien ganean ibili zeintzala berbaz eta esan neutsien e:

– Orrek Juan Manuelek yakin be ez dau egingo nik dakidana, eta esan egin bear deusats ikusten dodanean.

Bueno ba, orain aurrean zaukadaz eta esan egingo deusats u dakidana urteak a pasatu egin dira baina.

Aiko, au izan zan mil nobezientos kuarenta y unoan. Iketzegosten gengozan Kortabaso eta Untzetapiku bitartean, an Untzetaben, Arriandie(ga) ingurumarian. Iketza egosten gendun burbux egurragaz. Eta iketz ori Galdakaoko Loroñorentzat egosten gendun. Orrek Loroño orrek gasogenozko kamioiak eukazan eta orreintzako izaten zan iketz ori.

Da, ba, bakisu, iketz egostea bear gogorra jatzu baie txondorrek atondu eskeru asti apur be(t)p(b)e atetan san setako atako da, ba, bakisu, gu gasteok seinakio on bearrean ba beti gengosan bastarrak arakatuten.

D'alangon baten an Arriandie esan dotzuden ondo antzean, arri-bola ondo inek topau gaindusen, irulau arri-bola sirean agirien egosanak eta, ba, ango sarrak esatoskuen Yentil-arriek sireala, Untzetapikuti beste mendietara yaurtin edo botateko erabiltaudiesanak orrik i yentil kankallook o batzuk u Seberio parteko Mandoyerantza, besto batzuk u Oroskoko Santa Mañerantza t'olan.

Arri-bolok o naurri diferenkoak sirean, batzuk astunakoak sirean da gure gausea seinek lepora altzau itea isiten san, seinek (g)eaoka itea. D'an ibiltzen gaintzesan arrialtzetan istenak inik. Orduen bai guk u sasoi! Nok auki leien baiño esta a sasoi gaur!

B'orixe, orixe da esan gure nauntzune. Su(k)t(d)iñosunes gaur argitu in de arri-bolon ser ori edo dana dalako ori, kastilloan bat on salako atxine Untzetapikun. Baie guk u 1941ean eskenkien eser da gure antzean beste asko(k)p(b)es. Su(k)-t(d)iñosunetik i 1983ko uriolas gero argitu dire kontuok. Untzetapikun, antena artean, orma errastue(k)p(b)e agartu direla diñostesu t'erakutzi be bai eskabasiñoan erretratue. Gu(k)p(b)eti entzun du Untzetapikun Yentilen txabolea ta balkoia egosala d'andik itaudiela bolan batera bestera. Ai(k)p(b)ai inderra e?

Tire ba, estudioak aukiteak orixe dakar, argitasune d'alegretan naz Untzetapikukoa argitu bada. Beti gaos ikusten d'ikisten d'ortik esakerea be: denporeak agartuko yok edurre mendien!

Eta, ba, badakizu, ikatz egostea bear gogorra jatzu baina txondorrek atondu ezkeru asti apur bat be atetan zan zertarako artarako eta, ba, badakizu, gu gazteok zeinakio egon bearrean ba beti gengozan bazterrak arakatuten.

Eta alangoren baten an Arriandia(ga) esan deutsudan ondo antzean, arri-bola ondo eginak topatu genduzan, iru-lau arri-bola zirean agirian egozanak eta, ba, ango zaarrak esaten euskuen Jentil-arriak zireala, Untzetapikutik beste mendietara jaurtin edo botateko erabilten eudiezanak orreik i jentil kankallook o batzuk u Zeberio parteko Mandoiarantz, beste batzuk u Orozkoko Santa Marinarantz eta olan.

Arri-bolok o neurri diferenkoak zirean, batzuk astunakoak zirean eta gure gausea zeinek lepora altzatu egitea izaten zan, zeinek geiagoka egitea. Eta an ibiltzen gintzazan arrialtzetan iztenak (eztandak) eginik. Orduan bai guk u sasoi! Nok euki leiken baino ez da a sasoi gaur!

Ba orixe, orixe da esan gura neuntzuna. Zuk dinozunez gaur argitu egin da arri-bolon zer ori edo dana dalako ori, kastilloren bat egon zalako antxina Untzetapikun. Baina guk u 1941ean ez genkian ezer eta gure antzean beste askok be ez. Zuk dinozunetik i 1983ko uriolaz gero argitu dira kontuok. Untzetapikun, antena artean, orma errastuak be agertu dirala dinostazu eta erakutzi be bai eskabazinoaren erretratua. Guk beti entzun dogu Untzetapikun Jentilen txabolea eta balkoia egozala eta andik egiten eudiela bolan batera bestera. Aik bai indarra e?

Tira ba, estudioak eukiteak orixe dakar, argitasuna, eta alegretan naz Untzetapikukoa argitu bada. Beti gagoz ikusten eta ikasten eta ortik esakerea be: *denporeak agertuko jok edurra mendian!*

57.2. Artzubiko txakurrarena

Saldaingo txakurrena entzunde daukidan preguntastesu, da, ba, se esangotzu(t)p(b)a, ba baietz, edonosko kontue isin arren. Baie guri Saldain urrintxu iten yaku t'olango esakerarako besto bat erabilten du, urragokoa, emekoa, Artzubikoa. Gure familie Solatxikoa da ta Artzubi erasago iten yakunes ori "Saldaingo txakurrena" barik i "Artzubiko txakurrena" esaten du.

Da, ia ser pasau yakon Artzubiko txakurreri? Ba, Saldaingoari beste. Kontau in beakotzut orduen or aparatuen kuxetako esta. B'aiko:

Ba, baten, seguru, Artzubiko txakurre gogaitute i egoan antza auren etzean belu baskaiten audielaiko, da pentzauen Solatxire yoatea gostarragoak sirealasko entzutea aukelako.

Artu i auen Solatxiko bidea, ortik i Artiñao ta Sabale bitarteti da beioan Solatxireko ditean agoan txue inde.

Allegau i sen alangon baten Solatxiko ausonara da gausonerako dana topau i auen isilegi, etzeatako atea itxite da bertako txakurre(k)p(b)e erdi lo, d'esan i auen berekitan: – Emen e e(s)tx(y)aok sereginik, emen baskaldute yaosak antza da baskal ostaiko bekanekoa iten. Artzubire yoango no(k)p(b)arriro t'an baskalduko yoat ondiño lapikoa surteti atera barik ongok eta.

Da, ba, txakur orrek e artuen Artzubireko bidea da beioan txapaxapa tripak orroaka dausela goseak irrintzeka baskaiteko ditean.

Saldaingo txakurrarena entzunda daukidan preguntatu deustazu, eta, ba, zer esango deustut ba, ba baietz, edonozko kontua izan arren. Baina guri Saldain urrintxu egiten jaku eta olango esakerarako beste bat erabilten dogu, urragokoa, emekoa, Artzubikoa. Gure familia Solatxikoa da eta Artzubi erazago egiten jakunez ori "Saldaingo txakurrarena" barik i "Artzubiko txakurrarena" esaten dogu.

Eta,ja zer pasatu jakon Artzubiko txakurrari? Ba, Saldaingoari beste. Kontatu egin bearko deustut orduan or aparatuan koiuteko ezta? Ba aiko:

"Ba, baten, seguru, Artzubiko txakurra gogaituta ei egoan antza euren etxean belu bazkaiten eudielako, eta pentsatu euan Solatxira joatea goiztarragoak zirealazko entzutea eukalako.

Artu ei euan Solatxiko bidea, ortik i Artiñao eta Zabale bitartetik eta bajoian Solatxirako ditean aoan txua eginda.

Allegau ei zan alangoren baten Solatxiko auzunera eta gauzonerako dana topatu ei euan isilegi, etxeetako atea itxita eta bertako txakurrak be erdi lo, eta esan ei euan berekitan:

– Emen e ez jagok zereginik, emen bazkalduta jagozak antza eta bazkal osteo bekanekoa egiten. Artzubira joango nok barriro eta an bazkalduko joat oraindino lapikoa surtetik atera barik egongo dok eta.

Eta, ba, txakur orrek e artu euan Artzubirako bidea eta bajoian txapaxapa tripak orroaka dauzala goseak irrintzaka bazkaiteko ditean.

Allegau i sen Artzubire t'an-
goa(k)p(b)e es ausen ba baskaldu
akabaute topau sistarako ditean?

Atzenean ser? Ba, baskaldu
barik parau sela txakur ganorabakoa
alangoa, Saldaingoa parau sen
moduen. Emekoa Solatxire yoan san
moduen angoa Uriondora yoan i sen,
baie kasureko bieri bardin pasau
yakien seguru. D'ori es txakurreri
bakarrik, edosineri pasau leio da
sarriten pasau be iten da bisimoduen.
Konformidadea gausandie dala esa-
ten da t'egie da.

Allegau ei zan Artzubira eta angoak
be ez euazan ba bazkaldu akabatuta
topatu siestarako ditean?

Atzenean zer? Ba, bazkaldu barik
paratu zala txakur ganorabakoa alangoa,
Saldaingoa paratu zan moduan. Emekoa
Solatxira joan zan moduan angoa
Uriondora joan ei zan, baina kasurako
biei bardin pasatu jakien seguru. Eta ori
ez txakurrei bakarrik, edozeini pasatu lei-
kio eta sarritan pasatu be egiten da bizi-
moduan. Konformidadea gauza andia
dala esaten da eta egia da".

57.3. Gezaleko Bãñutze itsugedarrez

Baten e Ermitabarriko Idirinen
tabernan gengosan gaubiluntzeko
errondatxue iten. Da, ba, alangon
baten Bãñutze Gesalekoa sartu sen
tabernan. Basotik etorren da etzera
baño lenao txikito bat eskatu te an
musean ebisen mai ondoan yarri sen.
Kantzaute etorri sen antza se txikitoa
edan akabau orduko loak artuen
muslarion ondoan.

Muslariok o es otzien mirarik in
baie partidea akabaudienean bateri
ser akordau yakon bakisu?

- I mutilek, au Bãñutze loak
e(s)tx(y)ok artu ba? Burlesar ekin
bear yotzuk u apur beten, argiek
amatau bear yusek eta enbidoka
t'ordagoka asi beayuk ia se iten
yoan itxartuten doanean.
- Ori ingo yotzu(k)p(b)a gison gixa-
joari?- andik i baten batek-.
- Bai, ser ba? Ori goitibiti
e(s)tx(y)ok o txartzat artuko t'in in
beayotzuk fetxori ori.

Pentzau t'in. Amatau audesan
tabernako argiok, asten dire enbido-

Baten e Ermitabarriko Idirinen ta-
bernan gengozan gauiluntzeko erronda-
txua egiten. Eta, ba, alangoren baten
Bãñutze Gezalekoa sartu zan tabernan.
Basotik etorren eta etxera baino leenago
txikito bat eskatu eta an musean ebisen
maai ondoan jarri zan. Kantsatuta etorri
zan antza ze txikitoa edan akabatu ordu-
ko loak artu euan muslarion ondoan.

Muslariok o ez eutsien mirarik egin
baina partidea akabatu eudienean bateri
zer akordatu jakon badakizu?

- I mutilik, au Bãñutze loak ez jok artu ba?
Burlazar ekin bear jautsaguk u apur
baten, argiak amatatu bear joaguzak eta
enbidoka eta ordagoka asi bear joaguk
ia zer egiten joan itxartuten dokanean.
- Ori egingo jautsaguk ba gison gixajoa-
ri?- andik i baten batek-.
- Bai, zer ba? Ori goiti beiti ez jok o
txartzat artuko eta egin egin bear jau-
tsaguk fetxoria ori.

Pentzatu eta egin. Amatatu audie-
zan tabernako argiok, asten dira enbido-

tzean d'ordagotzean da derrepente non entzuten dun ilunetatik i gedarres Bãñutze:

– Se pastok emen ba? Suok ikusi itosue ikusi?

– Bai, gizona, - maiko gustiek arkal artute-

– Ba, olan bok o ni nau itzutu inok, ai la letxe, ni ñaok ona, un se ingo yoadan baño estok trajuronetan, lagundu in beakostesue etzera yoaten, ai de dies, e(s)tx(y)oa edan bata txikito erdi baño!

Gison gixajoa ain ukusi auden larri, argiek isitu audiesan d'an akabau sen bromea. Bãñutzek e edan auen beste txikito erdie t'etzera bidea artuen. Gero ba badaespada ango batek e bidearlo baten lagundu otzen sein seoser pasau, bakixu, sustosartuek estire onak isiten. Baie tire, ondo allegau i sen Bañutzero.

Bañutze segaitio diñodan? Klaro, suk u igual yakin be estosu ingo baie Gesalen ur gasidun iturri bet (d)ao, bueno, on san d'an in auden bañutzea, bañuek artzeako. Gastaña denporan jente asko yoate san ur gasi ori eske gastañak egosteko ta gasigosoan yateko.

Gero denporeagaz a bañutzea ya esan erabilten da beste etze bat in audien berpetan, d'entzutea dauket e ur gasidun iturrieri kanal bat in otziela da Gesalerrekara bota ure ungo etzeari umedaderik sartu es iteko. D'esta bardin Bãñutze ta Bañutze, lelengoa etzeko gizona, da bestea etzean usena, d'ausoneak a Gesale. An kamiñoa akabetan da. D'andik (g)ora Gorbaiera yoaten da Aibelaben eskerralderditi. B'orixe pasau yakon gison gixajoari. Grasiiek e burlesarreko kontue isin sana, ostaintxean komediak!

otsean eta ordagootsean eta derrepente non entzuten dogun ilunetatik i gedarrez Bãñutze:

– Zer pasetan dok emen ba? Zuok ikusi egite doze ikusi?

– Bai, gizona, - maaiko guztiak arkal artuta-

– Ba, olan badok o ni neu itsutu egin nok, ai la letxe, ni niagok ona, orain zer egingo joadan baino ez dok trajura onetan, lagundu egin bearko deustazue etxera joaten, ai de dies, ez joat edan bata txikito erdi baino!

Gion gixajoa ain ikusi audien larri, argiak izetu audiezan eta an akabatu zan bromea. Bãñutzek e edan euan beste txikito erdia eta etxera bidea artu euan. Gero ba badaezpada ango batek e bidearlo baten lagundu eutsan zein zeozer pasatu, badakizu, sustosartuak ez dira onak izaten. Baina tira, ondo allegatu ei zan Bañuetxera.

Bañuetze zegaitino dinodan? Klaro, zuk u igoal yakin be ez dozu egingo baina Gezalen ur gazidun iturri bat dago, bueno, egon zan eta an egin eudien bañu-etxea, bañuak artzeako. Gastaña denporan jente asko joaten zan ur gazi ori eske gaztañak egosteko eta gazigozoan jateko.

Gero denporeagaz a bañu-etxea ya ez zan erabilten eta beste etxe bat egin eudien berpertan, eta entzutea daukat e ur gazidun iturriari kanal bat egin eutsoela eta Gesalerrekara bota ura oraingo etxeari umedaderik sartu ez egiteko. Eta ez da bardin *Bãñutze eta Bañutze*, leenengoa etzeko gizona, eta bestea etxearen izena, eta auzuneak a Gezale. An kaminoa akabetan da. Eta andik gora Gorbeiera joaten da Aibelaberen ezker alderditik. Ba orixe pasatu jakon gizon gixajoari. Graziak e burlesarreko kontua izan zana, osterantzean komediak!

57.4. “Txisperua”, Deogracias Zeberioanekoa

Ene mutilek! Ori Txisperue Seberioangoa gizon selebrea d’ofizio askokoa san. Orren gausak kontetako egun erdi biu baie ya ke ta pregunte sabisen didau beten kontaukotzudes anditxuenak. Yayotes, Artea-Arratikoa, baie eskonduskero, bixi, Seberioango eleixari dotzela daoan etzean bixi sen sakristaue salako. Orrek etze orrek pasoa dauko eleixara barrure. Elexan sartu esketiño eskoatara dao pulpituue d’andixik dauko atea etzera sein eleixara pasetako. Ori etze ori lenao abadetxea isingo san baie gero sakristaue itxi otzien bisiten. Da Txisperue ixenagas esotu du beti.

Su(k)p(b)ebai? Ba danok antza. Bueno bere benetako usena Diogracias ixin sen baie ori gitxi(k)t(d)aki.

Txisperue segaitiño geitutozien? B’aiko. Urte baten e, Urkiolako erromeri egunean, au Diogracias Seberioangoa, ai koño, estotzut esan barres, au Diogracias albokarie san d’ona ganera, paparrean edo kolkoan eroatauen beti albokea, da ba egun orretan beragas naste “Barruntas” Barbatxakoa da besto batzuk Urkiolara yoan sirean baie oñes e, es oingo moduen kotxean eleixaraño. Mesea entzun d’an ekin i otzien bata albokotzean da “Barruntas” jototzean, yantzari ona san isin be ta ori “Barruntas”, da ba itzelesko erromerie in i audien. Egurdien baskaldu, aldean eroan audien maleta sikuegas d’arrastien tertzios artudien etzerako ditea Seberioaneko eleixan aimareak a yoteko asmoagas, se untzurarte yoten isin dire aimareak ermitetan da bates be Seberioaneko eleixan, ko-

Ene mutilek! Ori Txisperua Zeberioanekoa gizon zelebrea eta ofizio askotakoa zan. Orren gauzak kontetako egun erdi bear dogu baina ya ke eta pregunte zabilzan didau baten kontatuko deutsudaz anditxuenak. Jaiotez, Artea-Arratiakoa zan, baina ezkondu ezker, bizi, Zeberioaneko eleixari deutsalagoen etxean bizi zan sakristaue zalako. Orrek etxe orrek pasoa dauka eleixara barrura. Eleizan sartu ezketino eskoitara dago pulpitueta andixik dauka atea etxera zein eleixara pasetako. Ori etxe ori leenago abadetxea izango zan baina gero sakristaue itxi eutsoen biziten. Eta Txisperua izenagaz ezagutu dogu beti.

Zuk be bai? Ba danok antza. Bueno bere benetako izena Deogracias (Deogracias) edo Graziano izan zan baina ori gitxi daki.

Txisperua zergaitino deituten eutsoen? Ba aiko. Urte baten e, Urkiolako erromeria egunean, au Deogracias Zeberioanekoa, ai koño, ez deutsut esan barriz, au Deogracias albokaria zan eta ona ganera, paparrean edo kolkoan eroaten euan beti albokea, eta ba egun orretan beragaz naaste “Barruntas” Barbatxaokoa eta beste batzuk Urkiolara joan zirean baina oinez e, ez oraingo moduan kotxean eleixaraino. Mezea entzun eta an ekin ei eutsien bata albokotzean eta “Barruntas” jotaotzean, dantzari ona zan izan be eta ori “Barruntas”, eta ba itzelezko erromerie egin ei eudien. Eguerdian bazkaldu, aldean eroan eudien maleta sikuagaz eta arrastian tertzios artu eudien etzerako ditea Zeberioaneko eleizan abemariak a joteko asmoagaz, ze oraintsurarte joten

fradikoa da ta. Da ba betosan Urkiolati bera atajurik ataju d'alangon baten Villarora allegau sirean. Da bakisu, ondiño gaste da juergarako ganea edo, kontua da ba se, an Villaroko etze baten aurrean andra koadrilla bat egoan seguru liñoa asitu da goruetan, liñoa iruten gero arilek e, serari, eulerueri eroateko. D'onik i seberiostarrok alegre etosan seguru te au Diograsias albokean atxakiegas edo erdi burlesar asi yakien androri d'alangon baten txiskerue atera ta liño asituen ondoan sue emoteko planta batzuk in i ausen da mekasuen sotz! txiskeruen txispatik es dau ba suek artzean ak asituko liño moltzokak! Ene mutilek ango grillistue t'aparajue! D'atara badiño etzeko etxagunek:

– Nok atera yok au su au? Auxe txisperu au isingo soan eskuetako txiskeru peste orregas. B'aiko, soasie begien bistati d'esaitesie barriro agartu emeti, da posik on satesie goardi sibileri partemon esiteagaiti, sespabere or kalabosoan lo in beako saunkie ta.

Estukurori pasaudien d'orpoetan ar barik kuxaudien Seberio da gero ba fetxori ori batari kontau besteari aumentau, b'askenean Diograsiaseri "Txisperue" geiteuten asi sen jentea da gaur arte.

Esan dotzut u albokarie sala da berak itausen albokak esku onekoa san da. Ni nau(k)p(e) auki naindun berak ineko alboka bat untzurarte. Baie egun beten oneri, Inasio Sesteruenari, Jabier pratikantean anajeari, Ameriketan bisi sanari, alboka bat enkapritxau yakon gurean on san baten d'esanosten:

– Su Pablo, estakisu seinbe(t)p(b)año

izan dira abemariak ermitetan eta batez be Zeberioganeko eleizan, kofradikoa da eta. Eta ba baetozan Urkiolatik beera atajurik ataju eta alangoren baten Villarora allegatu zirean. Eta badakizu, oraindino gazte eta juergarako ganea edo, kontua da ba ze, an Villaroko etxe baten aurrean andra kuadrilla bat egoan seguru linoa azitu eta goruetan, linoa iruten gero arilak e, zerari, eulerueri eroateko. Eta oneik i zeberioztarrok alegre etozan seguru eta au Deograzias albokearen atxakiagaz edo erdi burlazar asi jakien androri eta alangoren baten txiskerua atera eta lino azituaren ondoan sua emoteko planta batzuk egin ei euzan eta mekasuen zotz! txiskeruaren txispatik ez dau ba suak artzean ak azituko lino moltzokak! Ene mutilak ango grillistua eta aparejua! Eta atara badino etzeko etxagunak:

– Nok atera jok au su au? Auxe txisperu au izango zoan eskuetako txiskeru peste orregaz. Ba aiko, zoasie begien bistatik eta ez zaitezie barriro agertu emetik, eta pozik egon zaitezie guardi zibilei parte emon ez egiteagaitik, ze ezpabere or kalabozoan lo egin bear-ko zeunkie eta.

Estukura ori pasatu eudien eta orpoetan ar barik koxidu (kogidu) eudien Zeberio eta gero ba fetxoria ori batari kontatu besteari aumentatu, ba azkenean Deograziaseri "Txisperua" deituten asi zan jentea eta gaur arte.

Esan deusut u albokaria zala eta berak egiten euzan albokak, esku onekoa zan eta. Nik neuk be euki nendun berak egineko alboka bat oraintsurarte. Baina egun baten oneri, Inazio Zesteruenari, Jabier praktikantearen anajeari, Ameriketan bizi zanari, alboka bat

gurago naunken orixe albok(a) ori.
Nok ine da?-

- Au alboka au?- esanontzen-, au Txisperue Seberiogangoak
- Da salduko lostesu?
- Onbre, nik estaukot o saltzeako baie Ameriketara eroateko bada eutzi.
- Bai? Baie pagau in beutzut, esan segan saltzean dostesun.
- Es, saldu es, eroaisus albokok d'urrungo etorten sareanean Ameriketako errekuerdu bet ekarri t'inde dao.

D'alantxik in osten. Urrungo etorri senean, egur landusko estutxetxu bet ekarri osten da ganean "EGI" imintauen da barruen urre gorrisko insinitxu bet, urregorri benetakoa e, es pentzau! Gordeta daukot etzean ondo estimedu.

Txisperue ofisio askokoa isin sala esan dotzut. Albokeas ganera dultzainerue be basan d'antza emototzen dultzaineari be.

Orres ganera, erloju, eskopeta d'edosein traste sein kinkalla konponta(n) auen.

Baten e burriñasko erloju bet eroan gauntzen arregletako da ba Txisperuek imini supasterrean talaburriña berotan, erlojueri origoa bota barrure da talaburriñaganean irikinaso in otzen. Gero, otzitu sanean origoa kanpora bota, sikitu ondo barruek eta ai la letxe! erlujue martxan imini es auen in ba? Gu siñistu esinik eta ba pregunteka asi gaintzesan:

- Se aberi auki dau ba
- Ser? Ba, loien loiagas parau in dok eta garbisusie bear isin yok, ugeldarri da sumika gustie kentzeako, orixe. Urrungorako kargu geao

enkapritxatu jakon gurean egon zan baten eta esan eustan:

- Zu Pablo, ez dakizu zeinbat baino gurago neunken orixe alboka ori. Nok egina da?-
- Au alboka au?- esan neutsan-, au Txisperua Zeberioganeok
- Eta salduko zeuskit?
- Onbre, nik ez daukat o saltzeako baina Ameriketara eroateko bada eutsi.
- Bai? Baina pagatu egin bear deustut, esan zegan saltzean deustazun.
- Ez, saldu ez, eroan egizuz albokok eta urrengo etorten zareanean Ameriketako errekuerdu bat ekarri eta egin da dago.

Eta alantxik egin eustan. Urrungo etorri zanean, egur landuzko estutxetxu bat ekarri eustan eta ganean "EGI" imintean euan eta barruan urre gorrizko insigniatxu bat, urregorri benetakoa e, ez pentsatu! Gordeta daukat etxean ondo estimadu.

Txisperua ofisio askokoa izan zala esan deustut. Albokeaz ganera dultzainerua be bazan eta antza emoten eutsan dultzaineari be.

Orrez ganera, erloju, eskopeta eta edozein traste zein kinkalla konpontan euan.

Baten e burrinazko erloju bat eroan geuntsan arregletako eta ba Txisperuak imini supazterrean talaburrinea beroetan (berotzen), erlojuari orioa bota barrura eta talaburrina ganean irakinazo egin eutsan. Gero, otzitu zanean orioa kanpora bota, sikatu ondo barruak eta, ai la letxe! erlojua martxan imini ez euan egin ba? Gu sinistu ezinik eta ba pregunteka asi gintzazan:

- Ze aberia euki dau ba
- Zer? Ba, loiaren loiagaz paratu egin

artiosue da noseapeinean moltzo edo eskusorki betegas garbikusialdi bet emon, s'ostaintxean ugerra(k)-tx(y)angotzue erloju eder au.

Eskopeta(k)p(b)arregletausen. D'un kontaukotzut elexako obrea in gaidunean pasau yakune.

An genbisen Seberioganeko ele-xea konpontan da, santue atera gaindunean ormati ormea barristetako, oño! akordatzakoan, eskopeta bat uger uger inde santuen atzeko oskan. Fuxe san. Seguramente gerra denporan baten batek ixilean godekoa d'aistu d'an itxie. Ser dan fuxe? Fuxe san eskopeta klase bat seinde gaurko eskopetan antzekoa baie kartutxo yoteko albandorras baten moduko orras bat aukitauen barruti kanporantza inean da ba bere ganean muelleagas altzetako martillutxu bet aspiko gatillueri atzerantza in orduen disparau te a orratza yotauen da tiroa bota. Uingo eskopetak barruen daukie dana d'ondo inde daos baie lenaokoak a aberi asko aukitaudien da Txisperuek aikas be aituten auen selanbaist konpontan ausen da.

Txisperuek e beste ofisio asko aukesan, argine be basan da sue iten be surre san. Aitu, fumelarie san baie pipan erretauen beti da ba posporoak(g)astau bearrean ba metxerue edo sue on askero ilintie erabilte auen. Baie ños, eslekuen baten on da besterik esean, aitisu e, fartikatik atetan auen kristel txiki bet eta iguskire inean imini pipa barrure dirigidute ta klaro kristeleti pasetan san beroagas barruko tabakorrie isitu itauen d'alantxik erretauen pipea. Guk u agoa sabalik aituten gauntzen sinistu ixinde. Sorginkerie sala pentzetan

dok eta garbizuzia bear izan jok, ugel-darri eta sumika guztia kentzeako, orixe. Urrengorako kargu geiago artu egiozue eta nozeapeinean moltso edo eskusorki betegaz garbikusialdi bat emon, ze osterantzean ugerrak jango deutsue erloju eder au.

Eskopetak be arregletan euazan. Eta orain kontatuko deutsut eleizako obrea egin gendunean pasatu jakuna.

An genblizan Zeberioganeko eleizea konpontan eta, santua atera gendunean ormatik ormea barristetako, oño! akordatzakoan, eskopeta bat uger-uger eginda santuaren atzeko oskan. Fuxe zan. Seguramente gerra denporan baten batek isilean gordekoa eta aaztu eta an itxia. Zer dan fuxe? Fuxe zan eskopeta klase bat zeinda gaurko eskopeten antzekoa baina kartutxo joteko albandorraz baten moduko orratz bat eukiten euan barrutik kanporantza einean eta ba bere ganean muelleagaz altzetako martillutxu bat azpiko gatilluari atzerantza egin orduan disparatu eta a orratza joten euan eta tiroa bota. Oraingo eskopetak barruan daukie dana eta ondo eginda dagoz baina leenagokoak a aberia asko eukiten eudien eta Txisperuak aiekaz be aituten euan zelanbeist konpontan euzan eta.

Txisperuak e beste ofizio asko eukazan, argina be bazan eta sua egiten be zuurra zan. Aitu, fumararia zan baina pipan erretan euan beti eta ba posporoak gastatu bearrean ba metxerua edo sua egon ezkerro ilintia erabilten euan. Baina inoz, ezlekuren baten egon eta besterik ezean, aitzu e, fartikatik atetan euan kristal txiki bat eta eguzkira einean imini pipa barrura dirigiduta eta klaro kristaletik pasetan zan beroagaz barruko

gaindun. Olangoxea san Txisperue. Baligo andikoa.

Uindo kontu geao gurosule? Ba gure bosu iketzegoteko disponimintueri ekin beakotzu. Baies diñostesu? Benga ba.

Aitu. Udaberandu beten Txisperuegas bearren yoan gaintzesan gison kuadrilla bat. Seberioganeko elesportikuen juntau gaintzesan domeka arrasti beten da badiñosku Txisperuek e:

– Aiko mutilek, biger asite daukun bearlekue didau beten da ganoreagas iteko, lelengo in bea dana da disponidu, bai disponidu. Iketza egosi bea da baie orretarako bearra errepertidu in bea da. Lantegie da bearra or Mandoipean dauku, pagoak eta burbuxek egosi bius baie, pago garrastak eperditi bota, trongoak in da serratu in bea dire ola atetako, orixe agindu dau usabak, se untxe da tertziorik onena pagoak asko agoantetako, agostuen ogaiti ogetamarrera da pagoa botateko tertziorik onena, ganetikoa iketzerako. Aratzak eta gastañak errespetau baie burbuxe, elexarra, artea da ganetiko egurre dana iketzerako, derreo ebagi. Da klaro, onek e bearleku onek e disponimintu andie eskatuten dau. Orregati, ondo baderetxasue bearlekuen errepartoa ingotzuet. Asteko, erremintak, askorak, atxurrek, trontzak, pala, sapalaga, belekiek, ara, beadan gustie ekarri, gero an seinakio on barik erreminta faltan. Bueno, biger ollarragas naste danok arriba da sobrelamartxa yoango gara gausak a disponitan.

Efetibamente, urrungo goxean Mandoipean juntau gaintzesan da-

tabakorria isiotu egiten euan eta alantxik erretan euan pipea. Guk u aoa zabalik aituten geuntsan sinistu ezinda. Sorginkeria zala pentsetan gendun. Olangoxea zan Txisperua. Balio andikoa.

Oraindo(oraindino) kontu geiao gura dozula? Ba gura badozu ikatzegoteko disponimintuei ekin bearko deutsagu. Baietz dinostezu? Benga ba.

Aitu. Udaberandu baten Txisperuegas bearren joan gintzazan gison koadrilla bat. Zeberioganeko eleizportikuan juntatu gintzazan domeka arrasti baten eta badinosku Txisperuek e:

– Aiko mutilak, biar asita daukun bearlekua didau baten eta ganoreagaz egiteko, leenengo egin bear dana da, disponidu, bai disponidu. Iketza egosi bear da baina orretarako bearra errepertidu egin bear da. Lantegia eta bearra or Mandoipean daukagu, pagoak eta burbuxek egosi bear doguz baina, pago garraztak eperditik bota, trongoak egin eta zerratu egin bear dira ola aterateko, orixe agindu dau ugazabak, ze oraintxe da tertziorik onena pagoak asko aguantetako, abuztuaren ogeitik ogeitamarrera da pagoa botateko tertziorik onena, gainetikoa iketzerako. Aritzak eta gastañak errespetatu baina burbuxe, leizarra, artea eta gainetiko egurra dana iketzerako, derreo ebagi. Eta klaro, onek e bearleku onek e disponimintu andia eskatuten dau. Orregatik, ondo baderetxazue bearlekuen errepartoa egingo deutsuet. Asteko, erremintak, aizkorak, aitzurrak, trontzak, pala, zapalaga, belekiak, ara, bear dan guztia ekarri, gero an zeinakio egon barik erreminta faltan. Bueno, biar ollarragaz naaste danok arriba eta sobrelamartxa joango gara gauzak a disponitan.

nok. Txisperue gaunken jefe d'esaoskun ba se:

– A ber, txondorra iteko leku selaie bea da t'emen dana da pendise, orduen iru-lauk artu atxurrek eta botoa in beosue, selaiune biribile txondorra artes iteko selai biribilean. Besto batzuk artu trontzak d'asi pago sein burbuxek eperdi eperdi botaten, serratuteko sein iketzerako. Besto batzuk txondorrerako egurginen, aras da gastañak al estirela.

D'asi gaintzesan bearren. Niri serrari tokau yatan. Ser dan ori? Ba, oingoan pagoa serratutea tokau yakun baie besto batzutan aratxa sein gastañea be igoal. Kontue da ba se, trongoak egurresko asto edo aldamiño baten iminten sirean da serarriok o bata goien da bestea bean paraute, sirrin-sarran ebagi d'olak atetan gaindusen gero beadan lekuen iminteko. Oin ori bear ori serrerietan iten da, didau beten serra elektrikuekas, emen Seberion be ainbet (d)aukus, baie lenao eskus, trontzakas, bearleku gogorra gero e, makiña bat a garriko min!

Da ba gero, ola atera ta kostanera sobrate gustiekas da burbuxegas txondorra preparau de isitu in gaindun. Nok? Nok ingo auen ba, Txisperuek, orixe san ba bere sera, espezialidadea. Atera auen sakutotik igeska siku bet eta arrisko metxerueri txispa batzuk ateraso d'atoan artu auen sue ak igeskeak da gero putz in de llamea atera auenean, txondorrari sue emon otzen lau lekutatik, lau ago itxi bea yakos txondorrari aspiti da printzipalena erditi gora tiroa iteko. Olantxik in gaindusen ikes bearrok Txisperuen disponimintuokas d'olan

Efektibamente, urrengo goizean Mandoipean juntatu gintzazan danok. Txisperua geunkan jefe eta esan euskun ba ze:

– A ber, txondorra egiteko leku zelaia bear da eta emen dana da pendiza, orduan iru-lauk artu aitzurrak eta botoa egin bear dozue, zelaiune biribila txondorra artez egiteko zelai biribilean. Beste batzuk artu trontzak eta asi pago zein burbuxek eperdi-eperditik botaten, zerratuteko zein iketzerako. Beste batzuk txondorrerako egurginen, aritz eta gaztañak aal ez dirala.

Eta asi gintzazan bearren. Niri zerrari tokatu jatan. Zer dan ori? Ba, oraingoan pagoa zerratutea tokatu jakun baina beste batzuetan aritza zein gaztañea be igual. Kontua da ba ze, trongoak egurrezko asto edo andamino baten iminten zirean eta zerarriok o bata goian eta bestea beean paratuta, zirrin-zarran ebagi eta oolak ateraten genduzan gero bear dan lekuan iminteko. Orain ori bear ori zerrerietan egiten da, didau baten zerra elektrikuekaz, emen Zeberion be ainbat daukaguz, baina leenago eskuz, trontzakaz, bearleku gogorra gero e, makina bat a garriko min!

Eta ba gero, oola atera eta kostanera sobrate guztiekaz eta burbuxegaz txondorra preparatu eta isiotu egin gendun. Nok? Nok egingo euan ba, Txisperuak, orixe zan ba bere zera, espezialitatea. Atera euan zakutotik igeska siku bat eta arrizko metxeruari txispa batzuk aterazo eta atoan artu euan sua ak igeskeak eta gero putz egin eta llamea atera euanean, txondorrari sua emon eutsan lau lekutatik, lau ao itxi bear jakoz txondorrari azpitik eta printzipalena erditik gora tiroa egiteko. Olantxik egin

e txondorrek a bakean itxiten oskunean piperdi iten gaindun, deskantzau te b'albokea be yoten oskun Txisperuek txondorra ketan dala. Gaubetan be yagon in bea san txondorra, sein errementau edo betegarrie eskatu te ba turnoka iten gaindun, da gaubotan be kontu itzelak kontetan gaindusen, yentilenak, arimenak eta iñon diresenak. Bueno, naikosu? Espabere onik i gure kontuok akaberari(k)p(b) estaukie, gixon famosoak orixe daukie, kontu asko. Txisperue, ganeko gixon selebrea! Asiterako modukoa!

genduzan ikatz bearrok Txisperuaren disponimentuokaz eta olan e txondorrek a bakean itxiten euskunean piperdi egiten gendun, deskantsatu eta ba albokea be joten euskun Txisperuak txondorra ketan dala. Gauetan be jagon egin bear zan txondorra, zein errementatu edo betegarrria eskatu eta ba turnoka egiten gendun, eta gauotan be kontu itzelak kontetan genduzan, jentilenak, arimenak eta inon diranak. Bueno, naiko dozu? Ezpabere oneik i gure kontuok akaberarik be ez daukie, gixon famosoak orixe daukie, kontu asko. Txisperua, ganeko gixon selebrea! Azitarako modukoa!

57.5. Pagoa misterio handiko arbolea

Ni nau basoatan asko ibilite nao, iketzegosten, egurginen, entresakaginen, iñausten, serrari be bai, age, soliba eta ola atetan, gastañola bates be.

Baie beti gaituste atentziñoa, serak, onek e, pagoak. Gaur u piñue dao nainon baie lenao pagadui itzelak egosan emen Seberion, gastañadui eta arasduie(k)p(b)e iñon es langoak. Aikoasan Santo Tomasen arasduiek an elexondon.

Arbola asko iñausten sian, bere-serneak sein noberak sartuek. Iñausi, bates be onik i frutalak, erasago batzeako auren frutuek, seinde, sagarrondoak eta olango arbolak. Sera, gastañea be iñausi ite san sespabere garrazta iten itxi eskero gatxagoa san kirikiñoak eratzi te kirikiñusietara batzea.

Baie pagoana da misterioa. Gure sarrak selan asmaudien baño esta a pago iñausteara. Pagoa metro bi inguruti iñausten da, d'andik errama

Ni neu basoetan asko ibilita nago, ikatzegosten, egurginen, entresakaginen, inausten, zerrari be bai, age, soliba eta oola ateraten, gaztaña-oola batez be.

Baina beti deitu deust atentzinoa, zerak, onek e, pagoak. Gaur u pinua dago nainon baina leenago pagadui itzelak egozan emen Zeberion, gaztañadui eta arazduiak be inon ez langoak. Aikoazan Santo Tomasen arazduiak an Eleizondon.

Arbola asko inausten ziran, bere-zerneak zein norberak sartuak. Inausi, batez be oneik i frutalak, erazago batzeako euren frutuak, zeinda, sagarrondoak eta olango arbolak. Zera, gaztañea be inausi egiten zan ze ezpabere garrazta egiten itxi ezkerro gatxagoa zan kirikinoak eratzi eta kirikinusetara batzea.

Baina pagoarena da misterioa. Gure zaarrak zelan asmatu eudien baino ez da a pago inausteara. Pagoa metro bi ingurutik inausten da, eta andik errama barriak urtetan deutsie. Eta klaro, ikatze-

barriek urtetotzie. Da klaro, iketze-gosteko edo egurretarako edo beste seosetako, pago arbolea eperditi bota bearrean, nosean errama bat ebaten yako, da, a pagoa sutuni(k)t(d)ao gerorako. Oin, iñausi edo erramak ebakeran, mine artzean dau arboleak eta adapoak urtetotzie, seinde olan e anditu edo mandaitu moduko bultuek. Eta denporeagas, pagoa sindo-sindoa isin arrik, olduten asten da, usteltan. Batzuetan aryoa aukiten dau, arra(k)tx(y)ototzo, mamarroak. Eta olan erdi sindo erdi ustel daonean, ildoa esatotzu. Ildoa beti esta ustela isiten, batzutan siku-siku iten da ta itzekarratu, arrankalas bete, d'apurka-apurka igertu. B'olangoxe gausek. Aryoagas kontus gero e! Aryoak a kalte andiek iten daus arbola sein frutatan.

Da, ba, arbola bat gausestanduten danean ba egurretarako aprobetxetan da. Ustelak estau balio baie arbola sikitue estimadue isite san sue iteko, txarrena urrin egoanean d'esin ekarri sugintzarako. Esakera baten be aitituten da ori egur igerrana. Aiko: "Munduen arpelik (g)altzean dires iru gause: itzesoko aurie, **urri-neko egur igerra**, da pobrean erresoia". Esakera oneri e(s)tx(y)ako falta erresoirik!

57.6. Oilalurrak eta (h)erribasoak

Emen Seberion bietakoak euki us eta euki be baukus. *Ollarurrek* esaten yakie, seinde, ba, kasureko, ausona bateko etzean artean terreno bat egoten da, d'ori terrenori, danena da, ausona gustiena. D'or yayoten diresan arbola bereserneck edo auso-

gosteko edo egurretarako edo beste zeozertarako, pago arbolea eperditik bota bearrean, noizean errama bat ebagiten jako, eta, a pagoa zutunik dago gerorako. Orain, inausi edo erramak ebagikeran, mina artzean dau arboleak eta adapoak urtetan deutsie, zeinda olan e anditu edo mandaitu moduko bultuak. Eta denporeagaz, pagoa zindo-zindoa izan arrik, olduten asten da, usteltan. Batzuetan arjoa eukiten dau, arrak joten deutso, mamarroak. Eta olan erdi zindo erdi ustel dagoanean, ildoa esaten deutsagu. Ildoa beti ez da ustela izaten, batzuetan siku-siku egiten da eta itzekarratu, arrankalaz bete, eta apurka-apurka igartu. Ba olangoxe gauzak. Arjoagaz kontuz gero e! Arjoak a kalte andiak egiten dauz arbola zein frutatan.

Eta, ba, arbola bat gauzeztanduten danean ba egurretarako aprobetxetan da. Ustelak ez dau balio baina arbola sikatua estimadua izaten zan sua egiteko, txarrena urrun egoanean eta ezin ekarri sugintzarako. Esakera baten be aitaituten da ori egur igarrarena. Aiko: "Munduan alperrik galtzean dira iru gauza: itsasoko euria, **urruneko egur igarra**, eta pobrearen errazoia". Esakera oneri ez jako falta errazoirik!

Emen Zeberion bietakoak euki doguz eta euki be badaukaguz. *Ollarurrak* esaten jakie, zeinda, ba, kasurako, auzune bateko etheen artean terreno bat egoten da, eta ori terreno ori, danena da, auzune guztiarena. Eta or jaioten diran

koan arte sartuek, seinde, intxaurrek, kerixak, urritxak sein beste edosein, ba, orri(k)t(d)anena(k)t(d)ire, da fruta denporan ba, kuxetan dause-nantzat, normalean umeantzat . D'or ollalur terrenoan, olloa(k)p(b)e soltu ibilteire, bueno, ote sirean, danenak nastute da gero gaubiluntzan bako-txa(k)p(b)ereak batu te ollategire edo kortara, gero otan lo iteko. Olloak soltu ote siala esan dotzut esta, se gaur egunean ollalur asko sementoa-gas edo alkitrena botata daos kotxe-ak-eta ibilteko. Emen Etxazon be ganeko plasuelea daukun etze gus-tien erdien, len baño bestala.

Erribasoak ostera, terreno andie(k)t(d)ire, batesbe mendietako-ak. Emen Seberion, esaterako, ortxe daukosu Mandoie. Emetikaldeko partea Seberio da eta terrenoa Ayun-tamintuena. Orrixerri esaten dotzu *erribasoak*. Orri(k)p (b)asook o ganaduen pastureko sein arbolatara-ko sein idebaterako sein aspigarrie batzeako erabili isin dire. Oin dala ainbat urte, Ayuntamintuek auneko onenbestean sartu auen piñue Man-doién, sartzean lagundutalde. Da gero ba, entresaka ta derreo botor-duen ba auneko onenbesteko obarie tokamenean errepartitan san. Gaur u estaki(t)p(b)a, piñue asko bajatu de ta ganera gausea asko kanbiau de, gaur estau iñok o bearrik in gure labran-tzan da gitxiago basoan. Gu len gaos bear asko inde, oin jentea miske bisi de, miske.

58.1. Astoa kanpaiotsean Uriondon

Oin kontaukotzutena gure gaste denporakoa da. Gaur eskeunke olan-

arbola berez-erneak edo auzokoen arte sartuak, zeinda, intxaurrek, kerezak, urretxak zein beste edozein, ba, orreik danenak dira, eta fruta denporan ba, kogietan dauzanarentzat, normalean umeentzat . Eta or ollalur terrenoan, olloak be soltu ibiltzen dira, bueno, ego-ten ziran, danenak naastuta eta gero gauiluntzan bakotxak bereak batu eta ollategira edo kortara, gero otan lo egi-teko. Olloak soltu egoten zirala esan deusut ezta, ze gaur egunean ollalur asko zementoagaz edo alkitrana botata dagoz kotxeak-eta ibilteko. Emen Etxazon be ganeko plazuelea daukagun etxe guztien erdian, leen baino bestela.

Erribasoak ostera, terreno andiak dira, batezbe mendietakoak. Emen Zeberion, esaterako, ortxe daukazu Mandoia. Emetikaldeko partea Zeberio da eta terrenoa Ayuntamentuarena. Orreixerri esaten deusagu *erribasoak*. Orreik basook o ganaduen pasturako zein arboletarako zein idebaterako zein azpigarria batzeako erabili izan dira. Orain dala ainbat urte, Ayuntamentuek euneko onenbestean sartu euan pinua Mandoian, sartzean lagundutalde. Eta gero ba, entre-saka eta derreo bota orduan ba euneko onenbesteko obaria tokamenean erre-partietan zan. Gaur u ez dakit ba, pinua asko bajatu da eta ganera gauzea asko kanbiatu da, gaur ez dau inork o bearrik egin gura labrantzan eta gitxiago basoan. Gu leen gagoz bear asko eginda, orain jentea mizke bizi da, mizke.

Orain kontatuko deusudana gure gazte denporakoa da. Gaur ez geunke

gorik ingo baie lenao in iten sirean olango astakeriek.

Gabonsar gaubeko amabietan, urte sarra akabau te barrie aste(n) san interan, gastea(k)p(b)atez be, iñon direan astakeriek, burlesarrak eta bromak iten ibilten sirean gaubeko ilunean, legea(k)p(b)e es i ausen ain-tze(t)p(b)e artzean antza ta.

Gabonsar gau beten emen Uriondoko ausunan, gaste batzuk alkartu sirean ixilean, artu asto deslai bet samako estukin da gusti, te kontus-kontus eroa(n)dien Asentzioko ermita-portalera. Gero, kanpandorreko kanpaiti(k)p(b)era dingiliske egoan sokeari moropil bet emon eta antxe itxi audien seguru a asto deslaie ondo lotute. Orreri gitxi eretxite, elesportikuen bedarsikue imini euzien andik tollaran batetik artute, baie bedar ori es otzien itxi urrean yateko moduen, espabe se, arean urrinao sein yan.

Astoak, ikusi es auen iten bedarsiku moltzoa baie usinera barruntau bai eta bedar ori yan gurean alak iten ausen arrimau te yateko baie arpelik. Astoak atzera aurreratan paraubako kanpaiotza atera auen da Uriondoko ausuna gustie buruko ullea(k)p(b)e artestute egoan beste mundukoan batzuk agartu ete sirean pentzetan. Burlesarreko gasteok auren etzeatara yoan sirean, baie ixilik, sein baten bate(k)p(b)arruntau. Urrungo egunean, ollarra(k)tx(y)o d' egunek argitu auenean, ausonako atrebiduenak a yoan in sirean ermita-portalera d'an aurkitu auden astoa inderga ta sutundu esinik. Ausunako beste gustiak enterau sireanean fetxoriegas, es auden txartzat artu gasteon bromea t'ondo asi auden urtebarri egune,

olangorik egingo baina leenago egin egi-ten zirean olango astakeriak.

Gabonzaar gaueko amabietan, urte zaarra akabatu eta barria asten zan interan, gazteak batez be, inon direan astakeriak, burlazarrak eta bromak egiten ibilten zirean gaueko ilunean, legeak be ez ei euazan aintzat be artzean antza eta.

Gabonzaar gau baten emen Uriondoko auzunean, gazte batzuk alkartu zirean isilean, artu asto deslai bat samako estukin eta guzti, eta kontuz-kontuz eroan eudien Asentzioko ermita-portalera. Gero, kanpandorreko kanpaitik beera dindilizka egoan sokeari moropil bat emon eta antxe itxi eudien seguru a asto deslaia ondo lotuta. Orri gitxi eretxita, eleizportikuan bedarsikua imini eutsoen andik tollararen batetik artuta, baina bedar ori ez eutsoen itxi urrean jateko moduan, ezpabere ze, arean urrunago zein jan.

Astoak, ikusi ez euan egiten bedarsiku moltzoa baina usinera barruntatu bai eta bedar ori jan gurean aalak egiten euazan arrimatu eta jateko baina alpe-rrik. Astoak atzera aurreretan paraubako kanpaiotsa atera euan eta Uriondoko auzune guztia buruko uleak be arteztuta egoan beste mundukoren batzuk agertu ete zirean pentsetan. Burlazaarreko gazteok euren etxeetara joan zirean, baina isilik, zein baten batek barruntatu. Urrungo egunean, ollarrak jo eta egunak argitu euaenean, auzuneko atrebiduenak a joan egin zirean ermita-portalera eta an aurkitu euden astoa indarga eta zutundu ezinik. Auzunako beste guztiak enteratu zireanean fetxoriegaz, ez euden txartzat artu gazteon bromea eta ondo asi euden urtebarri eguna, gaua begiran

gaube bégiran inde baie tire, txarto bes. Dana dala, Uriondoko bateri baño geaori kostau in yakon gau atako sustosartue kentzea broma astun bet isin arren. Ser dan gastea isin da soro otea e!

eginda baina tira, txarto be ez. Dana dala, Uriondoko bateri baino geiagori kostatu egin jakon gau atako sustosartua kentzea broma astun bat izan arren. Zer dan gaztea izan eta zoro egotea e!

58.2. Zekenaren arbi-ereitzea

Au Uriondoko labrantzea, eguskibegie ta lur onekoa da, lubela dao solo gaienetan, lur ilune, da ba beti be lurgorrie baño emotunagoa yatzu.

Da ba emen egoan gison baldro bat arean leposurie da sekena da ba bearrerako nagieperdi utze, bere aite isin esiteko, a ostera fin utze san, larrekoa, baie semea, esan dotzut u baie urrutu andi bakoa.

Egun beten, allegau sen arbie edo nagoa eraiteko tertzioa da ba, kostata be, beragoion besto batzun moduen soloa gobernetan sokil da mokil boldroa(k)p(b)irrintu edo austuten, da satzak atetan nagoa ereiteko. Baie beti ebilen koitakas da kexas da lelo-gedarres ausokoari da baten badiño:

– Surok es saosie ondo edo bear arpelik itosue. Aiko, nagoa potxora ereitea ohea dok o gero ogeto apartetako da satza aprobetxetako be, baie surok o, gure aite defuntue(k)p(b)e bai, potxo bakotxean nago-asi partidea botaten dosue da ernarora datorrenean d'apartetan asi, nago-landara onena itxiten dosue askaireko, askai ona auki daien, gero nagorrie iteko, arbigerak a yateko da ganetikoa ganadue-ri emoteko. Baie, oño, ni nau kantzau inok arpeleko bearrakas da nik i olango bearlekuek artu bearrean

Au Uriondoko labrantzea, eguzkibegia eta lur onekoa da, lurbela dago solo geienetan, lur ilune, eta ba beti be lurgorria baino emotunagoa jatzu.

Eta ba emen egoan gizon baldro bat arean lepozuria eta zekena eta ba bearrerako nagieperdi utsa, bere aita izan ez egiteko, a ostera fin utsa zan, larrekoa, baina semea, esan deutsut u baina urratu andi bakoa.

Egun baten, allegatu zan arbia edo naboaa ereiteko tertzioa eta ba, kostata be, baeragoion beste batzuen moduan soloa gobernetan, sokil eta mokil boldroak birrintu edo austuten, eta satsak ateraten naboaa ereiteko. Baina beti ebilen koitakaz eta kexas eta lelo-gedarrez auzokoei eta baten badino:

– Zuok ez zagozie ondo edo bear alperriek egiten dozue. Aiko, naboaa potxora ereitea ohea dok o gero obeto apartetako eta satsa aprobetxetako be, baina zuok o, gure aita defuntuak be bai, potxo bakotxean nabo-azi partidea botaten dozue eta ernarora datorrenean eta apartetan asi, nabo-landara onena itxiten dozue azkairako, azkai ona euki daien, gero naborria egiteko, arbigarak a jateko eta ganetikoa ganaduei emoteko. Baina, koño, ni neu kantsatu egin nok alperreko bearrakaz eta nik i olango bearlekuak artu

potxo bakotxean nago-asi bakarra eraingo yoat eta santo erremedio ganetiko bearrari.

Da ba alantxik in auen. Potxo bakotxera asi bakarra bota, satzagas tapau, satza be gitxiago, klaro, da ba ernaroari etxoten parau sen beste gustiek e lelotzat artute.

Allegau sen ernaroa da, ene mutilek, aren soloan dana san meatzunea d'esebesa. Se pasau yakon? Ba, sera, asi betzuk erne es, beste asko txorie(k)tx(y)an d'askenean es nagorik es nagoririk es arbigerarik es eser. D'orduen e berari itotzien barre ausoko gustiek eta baten batzuk esan be bai, sera:

- I ain listoa isin da selan estok o lograu ba nagorik? Urrungoan bakik i se in, aure aiten antzean bear in, ire aitek e ikusiko ballok ikusi au koxitza au, odola(k)p(b)e ur ingo llakosak disgustuen disgustuegas. Surtu ai bai, surtu, s'espabere gosea(k)tx(y)angoa, goseak irrintzeka bisiko as aure aldi gustien!

Da, ba, tire, egur eskarmentadue sugin ona dala esaten daurie ta ba aurrerantzarako ikisi auen se in bear estan. Ai amigo, esaukiek esi iten dau, esi.

58.3. Mirua eta sube-jatea

Txorien kontuek asko daos baie gure bosu miruen kontu betzuk kontauko- tzudes.

Mirueri bildur andie isiten gauntzen ollategietako txita(k)tx(y)-aten oskuselako da bakisu, txita(k)-tx(y)an askero, estao es ollaskorik es ollandarik esta geroko arrauntzarik.

bearrean potxo bakotxean nabo-azi bakarra ereingo joat eta santo erremedio ganetiko bearrei.

Eta ba alantxik egin euan. Potxo bakotxera azi bakarra bota, satsagaz tapatu, satsa be gitxiago, klaro, eta ba ernaroari etxodoten (itxaroten) paratu zan beste gustiek e lelotzat artuta.

Allegatu zan ernaroa eta, ene mutilak, aren soloan dana zan meatzunea eta ezebeza. Zer pasatu jakon? Ba, zera, azi batzuk erne ez, beste asko txoriek jan eta azkenean ez naborik ez naboririk ez arbigararik ez ezer. Eta orduan e berari egiten eutsoen barre auzoko guztiek eta baten batzuk esan be bai, zera:

- I ain listoa izan eta zelan ez dok o logratu ba naborik? Urrungoan bada- kik i zer egin, eure aitaren antzean bear egin, ire aitag e ikusiko ballok (baliok) ikusi au koxitza au, odolak be ur egingo llakozak (liakozak) disgustuaren disgustuagaz. Zuurtu adi bai, zuurtu, ze ezpabere goseak jango deua, goseak irrintzaka biziko az eure aldi guztian!

Eta, ba, tira, egur eskarmentadua sugin ona dala esaten daudie eta ba aurrerantzarako ikasi euan zer egin bear ez dan. Ai amigo, ezeukiak ezi egiten dau, ezi.

Txorien kontuak asko dagoz baina gura badozu miruaren kontu batzuk kontatuko deutsudaz.

Miruari bildur andia izaten geuntzan ollategietako txitak jaten euskuzalako eta badakizu, txitak jan ezkerro, ez dago ez ollaskorik ez ollandarik ez eta

Ostaintxean, miruek sagu, satar da batesbe subeak eta sirune(k)tx(y)aten ditus da ba subea aitutukeran atxineko kontu bet etorri ya(t)k(g)ogora. Aitu:

Baten seguru, miruek, erlaia d'erlestarra agindu ausen orti sear bisidunen arteko odolik (g)osoana sein den yakiten, gero bera(k)tx(y)-ateko aren okelea.

Yoan siren d'erlastarra arduretu sen odoldun gustieri espie sartu d'odol surrupadak iten. Bearleku lusea ta gatax san baie bete audien. Erlestarrak lelengo-lelengo erlaiari esan otzen noina san odolik (g)osoana: noina? da gisonana, bueno, personeana.

Erlaiak ori entzun auenean arteak artu esinik parau sen se erlaiak personan lagunak sirealako, uda partean eles ingurutako alegrie da ganera baserri askoko etexurepean edo kortako solibapeetan abiek iten audiesalako. D'orduen bakisu ser in auen erlaiak? Ba, santiamen baten sabaldu bere pikue d'erlestarrari pikekasu bategas agoa malograu da bere berbaikunea, sertu, ba esin in bissssss baiño, seinde, gutzat samasarratue letxe.

Alan da gustis be yoan in sirean miruegana. Baie, klaro, odolana erantzun bear euana erlestarra san d'esangurean esangureagas, bissss-bissss-otzean asi sen baie miruek esin otzen entendidu d'orduen erlaiak esan otzen mirueri:

- Aiko, erlestarrak probau daus odol gustiek d'argi daukosu. Nok iten dau bisss-bisss?
- Ba, ba, subeak- erantzun i otzen miruek.
- Ba, bai. Ortxe daukosus subeok (k)t(d)anak sautzako.

geroko arrautzarik. Osterantzean, miruak sagu, satar eta batezbe sugeak eta ziraunak jaten ditu eta ba sugea aitutukeran antxinako kontu bat etorri jat gogora. Aitu:

Baten seguru, miruak, erlaia eta erlastarra agindu euazan ortik zear bizidunen arteko odolik gozoena zein dan jakiten, gero berak jateko aren okelea.

Joan ziran eta erlastarra arduratu zan odoldun guztiei ezpia sartu eta odol zurrupadak egiten. Bearleku luzea eta gatxa zan baina bete eudien. Erlestarrak leenengo-leenengo erlaiari esan eutsan norena zan odolik gozoena: norena? eta gizonarena, bueno, pertsonearena.

Erlaiak ori entzun euenean arteak artu ezinik paratu zan ze erlaiak pertsonen lagunak zirealako, uda partean eleiz inguruetako alegria eta ganera baserri askotako itaxurapean edo kortako solibapeetan abiak egiten eudiezalako. Eta orduan badakizu zer egin euan erlaiak? Ba, santiamen baten zabaldu bere pikua eta erlastarrari pikokazu bategaz aoa malogratu eta bere berbaikunea, zertu, ba ezin egin bizzzzzzz baino, zeinda, guretzat samazarratua letxe.

Alan eta guztiz be joan egin zirean miruagana. Baina, klaro, odolarena erantzun bear euana erlastarra zan eta esangurearen esangureagaz, bizzzz-bizzzz-bizzzz-otsean asi zan baina miruak ezin eutsan entendidu eta orduan erlaiak esan eutsan miruari:

- Aiko, erlestarrak probatu dauz odol guztiak eta argi daukazu. Nok egiten dau bizzz-bizzz?
- Ba, ba, sugeak- erantzun ei eutsan miruak.
- Ba, bai. Ortxe daukazuz subeok danak zeuretzako.

D'alantxe lotu sen asuntoa. Erlaia personan lagun, erlestarra bere mantzinkerietan espie nori sartuko da mirue miiii-miiiiiotzean egas subeak nos ikusiko bajau d'iruntziteko. Ganeko mesedea gutzat. Subeari beti isin dotzu errespeto andie, batzuk u bereno txarrekoa(k)t(d)iralako. Esotu be in dus subean ausikadak eta ba(t)p(b)año geago ondo be esta ibili gero! Kontus!

58.4. Asto zahar gauzeztandua

Baserritar batek karabi andi ta sakon bat auken bere etze ondoko bidertzean. Urtero iten auen kare bisie, da karabi-barruek (g)arbituten ebilen aurrerantzarako kare barrie iteko.

Gaube orretan, selan es dakiela, etzeko asto sarra, soltu on da iluntasunean karabire barrure yausi i sen seguru. Istenak edo in alak in arren, isin auen urten karabiti d'arrantzotzean, purrustadaka d'ostikotzean asi sen. Usabak lori(k)p(b)e es auen in asto-arrantzataro d'urrungo goxean, tertzios yagi te asto bille asi sen astin-astin iteko ditean. Karabien barruen egoala ikusi auenean, baserritarak (g)ogor be gogor in otzen asto sarrari da badiñotzo ba ze:

– Estok esetako be baligo, es as gause esetako be, gatzetako be estostek iten d'untxe bai, untxe in yok ireak, ikusikok, estostek barriro arrantzarik ingo!

A astoan usaba, odolak ur iteko moduen yoan san laguntzeske ausora. Ainbe(t)k(g)ixon indertzu batu

Eta alantxe lotu zan asuntoa. Erlaia pertsonen lagun, erlastarra bere mantzinkerietan ezpia nori sartuko eta mirua miiii-miiiiiotsean egaz sugeak noz ikusiko bajatu eta iruntsiteko. Ganeko mesedea guretzat. Subeei beti izan deutsagu errespeto andia, batzuk u bereno txarrekoak diralako. Ezagutu be egin doguz subeen ausikadak eta bat baino geiago ondo be ez da ibili gero! Kontuz!

Baserritar batek karabi andi eta sakon bat eukan bere etxe ondoko bide ertzean. Urtero egiten euan kare bizia eta karabi-barruek garbituten ebilen aurrerantzarako kare barria egiteko.

Gau orretan, zelan ez dakiela, etzeko asto zaarra, soltu egon eta iluntasunean karobira barrura jausi ei zan seguru. Iztenak edo egin aalak egin arren, ezin euan urten karobitik eta arrantzotzean, purrustadaka eta ostikotzean asi zan. Ugazabak lorik be ez euan egin asto-arrantzataro eta urrengo goizean, tertzios jagi eta asto bila asi zan astin-astin egiteko ditean. Karobian barruan egoala ikusi euanean, baserritarak gogor be gogor egin eutsan asto zaarrari eta badiñotso ba ze:

– Ez dok ezertarako be balio, ez az gauza ezertarako be, gatzetarako be ez deustak egiten eta oraintxe bai, oraintxe egin jok ireak, ikusiko dok ez deustak barriro arrantzarik egingo!

A astoaren ugazaba, odolak ur egiteko moduan joan zan laguntza eske auzora. Ainbat gizon indartsu batu euan

auen karabi inguruen auren pala, atxur da gusti.

Da ba, astoan usaban agindueta-
ra, danak asi sirean lurre botaten
karabiko astoan ganera, enterrau te
bertan tragetako.

Da, oño, asi sirean, ganoso asi
be, d'usabak noseapeinean adikuna
ba(t)p (b)otaten otzen astoari te oño!
astoa gero ta gorago ikusten auen,
klaro, ganera botaten otzien lurre
astindu iten auen astoak t'orregaitik i
lurre botago ta gorago. Ai ba la letxe!

Karabia lurre nos beteko egosa-
la, ak asto sarrak anka es otzien in ba
danari?

Da ser pasau sen atzanean? Ba,
aiko, a astoa basora yoan sala d'es
audiela geao ikusi. Da txarrena, sera,
karabie lurre beteta itxi audienes,
b'atzera utzitu bear karea ingo basan.

Esan be iten da baie astoa surre
yatzu isin be d'etzea lañabereagas
topetan dakien moduen anka iten be
badaki antza se ak astoak in otzien,
gausestana isin arren. B'orixe istori
ori pasau i yakon seguru aregas asto-
agas. Kontu au arean aumentaute
ongo da baie gausak a pasau iten dire,
pasau. Emen Uriondon inon direnak
pasau be in dire gero e!

karobi inguruan euren pala, aitzur eta
guzti.

Eta ba, astoaren ugazabaren agin-
duetara, danak asi zirean lurra botaten
karobiko astoaren gainera, enterratu eta
bertan tragetako.

Eta, koño, asi zirean, ganoso asi be,
eta ugazabak noizeanbeinean adikuna
bat botaten eutsan astoari eta oño!
astoa geroago eta gorago ikusten euan,
klaro, gainera botaten eutsien lurra astin-
du egiten euan astoak eta orregaitik i
lurra botago eta gorago. Ai ba la letxe!

Karobia lurrez noiz beteko egozala,
ak asto zaarrak anka ez eutsien egin ba
danei?

Eta zer pasatu zan azkenean? Ba,
aiko, a astoa basora joan zala eta ez
eudiela geiago ikusi. Eta txarrena, zera,
karobia lurrez beteta itxi eudienez, ba
atzera utsitu bear karea egingo bazan.

Esan be egiten da baina astoa zuu-
rra jatzu izan be eta etxea lainabereagaz
topetan dakien moduan anka egiten be
badaki antza ze ak astoak egin eutsien,
gauzeztana izan arren. Ba orixe historia
ori pasatu ei jakon seguru aregaz astoa-
gaz. Kontu au arean aumentatuta egon-
go da baina gauzak a pasatu egiten dira,
pasatu. Emen Uriondon inon diranak
pasatu be egin dira gero e!

58.5. Beste mundukoak Larraganen gauez

Lenao gu koadrilla andie juntetan
ginean emen Uriondo t'inguruetan
da ba orreri Eluteria Larragane-
koari fetxoriek iten gauntzesan, mal-
bako antza san da isin be, da gero ba
lagundu be bai atzera gausa(k)p(b)-
ere lekuen iminten.

Leenago gu koadrilla andia juntetan
ginean emen Uriondo eta inguruetan
eta ba orreri Eleuteria Larragane-
koari fetxoriak egiten geuntsazan, mal-
bako antza zan eta izan be, eta gero ba
lagundu be bai atzera gauzak bere lekuan
iminten.

Baten e, iluntzea san da ba etzerantza gentosan gaste koadrillea, Uriondorantza, da ba Larraganetik pasakeran, sera e(s)tx(y)akun akordau ba? bakotxak arran bat artu te Eluterian soloan arrantotzean ibiltea, bior da saldien antzera. Bueno, sekulebedar d'alfafatzen ibili bearrean, munarik muna ibili gaintzesan sein bedartzea sapaldu, baie Eluteriak, a benetako ganadue sala pentzetauen d'alaurike entzuten gendun: Ene, kaballoak (g)ure soloan, yan beosties sekulebedar d'alfafa gustiek! Eta ba etorri be iten san ganaduok atetan baie guk u marro iten gauntzen da beste muna batera eskapau da juerga itzelak iten gaindusen. Politena urrungo egunean isiten san, soloak geldi geldi, da bedarrak osoan. Eluteriak isin auen sinistu d'esan be bai: au ok milagroa! bar(t) gaubean arrantotza gure soloan da egunes ganadu-errastu bat esan da bera bes, parte txarrekoak isin espadosa(k)p(b)a. Gerora yakitun imini gaindun sein burueri lor geao emon.

Baie beste baten, gauges naste, Lañoa ekarri gaindun gauges beste fetxori bet iteko. Eluteria Larraganeakoak a gariak ebagite aukesan da eskutak inde sabal-sabal galondoan. Estutute ebilen gari-bearrokas da ba gu(k)p(b)agenkienes, iluntzarantza gauk lagunduko gauntzela esan gauntzen.

Asi gaintzesan eskutak mutxuriotan iminten gero metatuteko, se, bakisu, garie lurreri dotzela esta ona sikituteko da sutunik imini beada. Da ba tire, lagunak lagun sakios, in gaindun mutxurio bear ori. Baie, ori Lañoa, bromistea askarrie da ba fetxorie in gure da badiñotzo Eluteriari:

Baten e, iluntzea zan eta ba etxerantza gentozan gazte koadrillea, Uriondorantza, eta ba Larraganetik pasakeran, zera ez jakun akordatu ba? bako txak arran bat artu eta Eleuteriaren soloan arrantotsean ibiltea, beor eta zaldien antzera. Bueno, sekulabedar eta alfafatzen ibili bearrean, munarik muna ibili gintzazan zein bedartzea zapaldu baina Eleuteriak a benetako ganadua zala pentsetan euan eta alaurika entzuten gendun: Ene, kaballoak gure soloan, jan bear deustiez sekulabedar eta alfafa guztiak! Eta ba etorri be egiten zan ganaduok ateraten baina guk u marro egiten geuntsan eta beste muna batera eskapatu eta juerga itzelak egiten genduzan. Politena urrungo egunean izaten zan, soloak geldi-geldi, eta bedarrak osoan. Eleuteriak ezin euan sinistu eta esan be bai: au dok milagroa! bart gauean arrantotza gure soloan eta egunez ganaduerastu bat esan eta bera bez, parte txarrekoak izan ez badozak ba. Gerora yakitun imini gendun zein buruari lor geiagio emon.

Baina beste baten, geugaz naaste, Lañoa(izengoitia) ekarri gendun geugaz beste fetxoria bat egiteko. Eleuteria Larraganeakoak a gariak ebagita eukazan eta eskutak eginda zabal-zabal galondoan. Estututa ebilen gari-bearroka eta ba guk bagenkianez, iluntzerantza geuk lagunduko geuntsala esan geuntsan.

Asi gintzazan eskutak mutxurioetan iminten gero metatuteko, ze, badakizu, garia lurrari deusala ez da ona sikituteko eta zutunik imini bear da. Eta ba tira, lagunak lagun zakioz, egin gendun mutxurio bear ori. Baina, ori Lañoa, bromistea azkarria, eta ba fetxoria egin gura eta badiñotso Eleuteriari:

- Eluteria, mutxurioak in dus baie, aurie inean be, metatu ingo yatzu au gari au d'alan ardure ba(t)k(g)itxiao sutzako.
- Orrenbeste ingostesue ba? ia gaube da bata, erretiretako tertzioa?
- Estotzo ardure, ori atoan ingu, su yoan etzera da gure bosu tollarako leiotti beitu nosipinean ia se tayu artzean dauen garimeteak.

Da ba, asi gaintzesan mutxurio-atati eskuta akarreo a iten da Lañoa metaginen. Baie es auken gausonik eta badiñosku ba se:

- I, mutilek, auxe t'auxe in bea yuk, ni nau meta barruen sartuko nok eta surok o ekin metaginen baie larregi estutu barik sain ito arnasa falteagas.

Bueno, atan parau gaintzesan da in gaïndun met'ori te etzerantza inean apartau gaintzesan galondoti Eluteriak a barruntau in esiteko moduen. Gu barres, Eluterian tollarako laiora adi. Alangon baten garimetea mogitan asi sen, bueno, Lañoa asi sen barrurik ara metea mogitan istrimidadeak inde, da ba morimintuokas metea yausi esan in ba!

D'orduen Eluteria alaurike entzuten gaïndun: Ene! ser pasetan da gure galondoko metan? Mogidu iten da bata? Beste mundukoak espada-bis ba? Ai ene amatxue!

Urrungo egunean, andik pasakeran dana kontau oskun Eluteriak eta ba guk u bagenkienes, " beste mundukoa" nor isin sen, esyakin plantak in gauntzesan da ba lagundu in gauntzen barriro metatuten d'alan akabau sen gure fetxorie.

Besto baten Uriondoko gaste koadrilla batek e burdie eroan otzien ara beko trokara Eluteriari te ba gero

- Eleuteria, mutxurioak egin doguz baina, eurie einean be, metatu egingo jatzu au gari au eta alan ardura bat gixtiago zuretzako.

- Orrenbeste egingo deustazue ba? ia gaube da ba eta, erretiretako tertzioa?
- Ez deutso ardura, ori atoan egingo dogu, zu joan etxera eta gura badozu tollarako leiottik begitu noizipinean ia zer taju artzean dauan garimeteak.

Eta ba, asi gintzazan mutxurioetatik eskuta akarreo egiten eta Lañoa metaginen. Baina ez eukan gauzonik eta badiñosku ba ze:

- I, mutilak, auxe eta auxe egin bear joaguk, ni neu meta barruan sartuko nok eta zuok o ekin metaginen baina larregi estutu barik zein ito arnasa falteagaz.

Bueno, atan paratu gintzazan eta egin gendun meta ori eta etxerantza einean apartatu gintzazan galondotik Eleuteriak a barruntatu egin ez egiteko moduan. Gu barrez, Eleuteriaren tollarako leiora adi. Alangoren baten garimetea mogietan asi zan, bueno, Lañoa asi zan barrurik ara metea mogietan estremidadeak eginda, eta ba mobimintuokaz metea jausi ez zan egin ba!

Eta orduan Eleuteria alaurika entzuten gendun: Ene! zer pasetan da gure galondoko metan? Mobidu egiten da ba eta? Beste mundukoak ez badabilz ba? Ai ene amatxua!

Urrungo egunean, andik pasakeran dana kontatu euskun Eleuteriak eta ba guk u bagenkianez, " beste mundukoa" nor izan zan, ezjakin plantak egin geuntsazan eta ba lagundu egin geuntsan barriro metatuten eta alan akabatu zan gure fetxoria.

Beste baten Uriondoko gazte koadrilla batek e burdia eroan eutsoen ara

esyakin in d'aurek opatu burdie barriro etzera ekarteko, d'ondo parau ganera.

Olangoxe bromak ite sirean, baie es edosineri gero e? Larraganen Larragan salako, ostaintxean kontus! Aitu espabere Paulino Etxasokoari ser pasau yakon Sotero Olabarrikoagas!

beeko trokara Eleuteriari eta ba gero ezjakin egin eta eurak opatu burdia barriro etxera ekarteko, eta ondo paratu ganera.

Olangoxe bromak egiten zirean, baina ez edozeineri gero e? Larraganen Larragan zalako, osterantzean kontuz! Aitu ezpabere Paulino Etxazokoari zer pasatu jakon Sotero Olabarrikoagaz!

58.6. Herodes eroan eta Pilatos ekarri

Au kontu au, serenean pasau sen, Juan Sarranean. Tomas Bediako, tratantea san d'Uriondoko Kanuton alabeagas eskondu sen da ba sarri etorte san Uriondora familien atxakire da bide bates ganadu-tratue(k)p(b)e iten, erosi sein saldu edo kanbiau be bai arreglaskero.

Da, ba, egun beten, onek e Goinuko Juan Sarrak ikusi auenean Tomas tratantea Kanutonera etorri sala geitu t'esaotzen ba se:

– I, Tomas, baie yaukoat lasiertuna pasau barri, ie-ie auntzutute ta kanbiete gustauko llatak. Ik auki be in ingok igual orti baien bat esnetsuagoa estok?

– I, ba, bai, bayaukoat itzako moduko bai bet eta irea okelarako eroan eta nirea esnerako ekarrikoat, eta trukea begipisuen ingo yuk, fiaw ai nauges, d'arean iripasten urtenko(k) kanbiora.

D'atan lotu sirean da in auden kanbiori baie Juan Sarra es egoan ba(t)p(b)e konforme bai barriegas, yakatzue t'a be lengoa besteko esne gitxikoa salako.

D'urrungo baten be etorri sen Tomas ori Uriondora ta Juan Sarrak

Au kontu au, zerenean pasatu zan, Juan Zaarrarenean. Tomas Bediako, tratantea zan eta Uriondoko Kanutoren alabeagaz ezkondu zan eta ba sarri etorten zan Uriondora familiaren atxakira eta bide batez ganadu-tratuak be egiten, erosi zein saldu edo kanbiatu be bai arreglatu ezker.

Eta, ba, egun baten, onek e Goinuko Juan Zaarrak ikusi euanean Tomas tratantea Kanutonera etorri zala deitu eta esan eutsan ba ze:

– I, Tomas, beia jaukat lasiertuna pasatu barri, ia-ia antzututa eta kanbiatea gustatuko liatak. Ik euki be egin egingo dok igual ortik beiren bat esnetsuagoa ez dok?

– I, ba, bai, bajaukat iretzako moduko bei bat eta irea okelarako eroan eta nirea esnerako ekarriko deuat, eta trukea begipisuan egingo joaguk, fiaw adi neugaz, eta arean irabazten urtengo dok kanbiora.

Eta atan lotu zirean eta egin euden kanbio ori baina Juan Zaarra ez egoan bat be konforme bei barriagaz, jakatzua eta a be leengoa besteko esne gitxikoa zalako.

Eta urrungo baten be etorri zan Tomas ori Uriondora eta Juan Zaarrak

erreperau otzenean geitu in otzen d'esan erdi asarre:

- I, Tomas
- Ser?
- Aiko, yakiten bayoa(t)tx(y)akin enoan ingo kanbiorik se baiok esnean antzera yabise(k)p(b)aie okelan nireak ainbet erralde geao yaukoasen. Ik antxe be obarie!
- Estok isingo ainbesterako, estok ain merroa ba ta? Ik i gosea emongotze(k)p(b)aieri d'e(s)tx(y)ok medrauko tinterri(k)p(b)e.
- Nik (g)osea emon baieri? Gurean gose tinterri(k)p(b)e e(s)txuk pasatu sekule santan gero e! Errekoño! Aiko, ik in dostek, sera, (H)erodes eroan, da Pilatos ekarri.

erreperatu eutsanean deitu egin eutsan eta esan erdi aserre:

- I, Tomas
- Zer?
- Aiko, jakiten bajoat jakin ez neuan egingo kanbiorik ze beiok esnean antzera jabilzak baina okelan nireak ainbat erralde geiao jaukazan. Ik antxe be obarial!
- Ez dok izango ainbesterako, ez dok ain merroa ba eta? Ik i gosea emongo deustak beiri eta ez jok medratuko tinterrik be.
- Nik gosea emon beiri? Gurean gose tinterrik be ez joaguk pasatu sekula santan gero e! Errekoño! Aiko, ik egin deustak, zera, Herodes eroan, eta Pilatos ekarri!

59.1. Astoa lotzeako horma-arandelea

Uda baten, onek e Erramontxu sesteruenak e, su(k)p(b)akisu, udako bakasiñoatan mesemoten laguntan otzien emeko abadeari, te ba baten kontauskun Durungoko etze baten orman sartute daoan arandelean istorie. Erramontxun ama Seberiokoa san baie aite Durungokoa, da berba be batzutan aiten moduen itauen. Auxe da berari entzune:

“Lenago, astoa ta ganetikoak erabilten sirenean akarreoatarako, etzeko ormeari dautzela burriñasko arandela bat oten san orman sartute ganaduek lotzeako.

Durungoko baserri orretan, sentzillu bixi sen ainbet seme-alabako famili bet.

Ekine baragarrie danes, urtea(k)-tx(y)oan urteak etorri, baserrie andi-

Uda baten, onek e Erramontxu zesteruarenak e, zuk badakizu, udako bakazinoetan meza emoten laguntan eutsien emeko abadeei, eta ba baten kontatu euskun Durungoko etxe baten orman sartuta dagoan arandelearen historia. Erramontxuren ama Zeberiokoa zan baina aita Durungokoa, eta berba be batzuetan aitaren moduan egiten euan. Auxe da berari entzuna:

“Orain kontatuko deustuet an Durungoko etxe baten orman sartuta dagoan arandelearen historia. Leenago, astoa eta gainetikoak erabilten ziranean akarreoatarako, etzeko ormeari deustala burdinazko arandela bat egoten zan orman sartuta ganaduak lotzeako.

Durungoko baserri orretan, sentzillu bizi zan ainbat seme-alabako familia bat.

tzen yoan san da labrantzako erre-
minta(k)p(b)e obetuten.

Astoagas asi sirean baie urteaka-
rrenean propietario biurtu sen a asie-
rako famili apala. Etze sarrari dotze-
la, granja eder bat in ebien, d'etze
barri te andiagoa itea pentsau ebien.

Pentsau t'in. Ganeko txaleta in
ebien! Ospatu be ein ebien auren
progresoa, oba es.

Etzeko umeak a baserrien parau
barik, estudioak ikisi ebiesan, baten
bat Salamankaraiño yoanda.

Aitite-amamak sartuten yoiasan
baie posik egosan auren aldibeteko
baserri apala progresaute ikusteagas.

Baie etzeko aititek es eban gura
arrokeririk eta egun beten, artu etze
sarreko a arandelea, sartu etze barri-
ko orman da marmolesko asulejo
baten auxe letreru au imini auen:
“*Arandela onetan, astoa lotzean gen-
dun aldi beten. Es aistu nondik
(g)atozen*”. Letrereuek an segitan dau
gaur be. Bueno, estait i berba bardi-
nek esan dodasen baie antxe dao
letrereue”.

59.2. Mutil zuziduna asto gainean

Au kontu au be, Erramontxu
sesteruenari sermoi beten entzunde
daukotzedala deretxat eta gustau in
yatan da ba bere berbaikuneagas
estaust ondo urtengo baie kontau
ingotzut:

“Beñola, mutil gazte batek egin-
bear inportante bat bete bear auen.
Auxe zan: susi bet ixitu d'urrineko
kastillo batera eroan bear auen ama-
tau barik bertako usaban alabeagas
eskontako. Bidea sano lusea san da

Ekina baragarria danez, urteak joan
urteak etorri, baserria anditzen joan zan
eta labrantzako erremintak be obetuten.

Astoagaz asi zirean baina urteaka-
rrenean propietario biurtu zan a asiera-
ko familia apala. Etxe zaarrari deutsal-
a, granja eder bat egin ebien, eta etxe barri
eta andiagoa egitea pentsatu ebien.

Pentsatu eta egin. Gaineko txaleta
egin ebien! Ospatu be egin ebien euren
progresoa, oba ez.

Etzeko umeak a baserrian paratu
barik, estudioak ikasi ebiesan, bateren
bat Salamankaraino joanda.

Aitite-amamak zaartuten joiazan
baina pozik egozan euren aldibeteko
baserri apala progresatuta ikusteagaz.

Baina etzeko aititak ez eban gura
arrokeriaririk eta egun baten, artu etxe
zaarreko a arandelea, sartu etxe barri-
ko orman eta marmolezko azulejo baten
auxe letreru au imini euan: “*Arandela
onetan, astoa lotzean gendun aldi baten.
Ez aaztu nondik gatozen*”. Letrereuak an
segitan dau gaur be. Bueno, ez dakit i
berba bardinak esan dodazan baina
antxe dago letrereua”.

Au kontu au be, Erramontxu zeste-
ruarenari sermoi baten entzunda deuko-
tsadala deritzat eta gustatu egin jatan eta
ba bere berbaikuneagaz ez deust ondo
urtengo baina kontatu egingo deutsut:

“Gaurko sermoian, aurrekoari on
egitea aitaturko deutsuet eta antzinako
kontu bat kontaturko deutsuet. Beinola,
mutil gazte batek eginbear inportante bat
bete bear euan. Auxe zan: zuzi bat isiotu
eta urruneko kastillo batera eroan bear
euan amatatu barik bertako ugazabaren

saldirik es aukanes, astorik onena artu, susie ixitu te bidean parau sen.

Yoan da yoan, alango baten beresi edo arboladui andi baten sartu sen da baso ori pasetan ebilela, atzotxu batek urten otzen bidera t'esan:

– Eup! mutiko, su barik nao da sure susi orregas emongo balostezu eskertuko neuntzuke. Es dakisu sainbe(t)p(b)año gurago naunken sue seoser erreta yateko.

– Es, andratxue! Isin dotzut lagundu. Nik seregin inportante ba(t)t(d)-aroat d'estaukot (d)enporagaltzean ibilteko astirik. Agur !

Ak a bios gogorreko mutil gazteak aurrera in auen atzotxue negarres itxite. Baie barruak es otzen bakean be itxiten d'ak mutil gasteak, astoari sooo! esan, eaurt in d'atzera yoan san atzotxuegana ta sue emon. Atzoak benetan eskertu otzen da saar on ein daitela esan.

Artu auen barriro bidea mutil orrek d'alangon baten axe indertzu bet agartu yakon arboladuiko meatzune baten da susia amatau es otzen in ba ! Ene orduen! A bai sala larrialdie ta desesperasiñoa! Mutil gastea lurre yota egoan, soruen esarrite burue ankartean auela negar baten.

Alango baten, burua altzau aue-
nean astoa ikusi auen etorriko bide-
ti(k)tx(y)oaten. Atzerik ara segidu
otzen d'atzotxueri sue emon otzen
lekure allegau anean:

– Ene!- esan auen berekitan-, susie
amatau in ya(t)p(b)aie lengo nire
sue atzotxue(k)t(d)auko ondiño
garra dariola. Eskatu ingotzet!

Bildurkilik eta lotsaz-lotsaz
yoan san mutil gastea atzotxuen su
ingurure da badiñotzo:

alabeagaz ezkontako. Bidea sano luzea
zan eta zaldirik ez eukanez, astorik onena
artu, zuzia isiotu eta bidean paratu zan.

Joan eta joan, alako baten beresi
edo arboladui andi baten sartu zan eta
baso ori pasetan ebilela, atsoxko batek
urten eutsan bidera eta esan:

– Eup! mutiko, su barik nago eta zure zuzi
orregaz emongo baseust eskertuko
neuskizu. Ez dakizu zenbat baino gura-
go neunken sua zeozer erreta jateko.

– Ez, andratxua! Ezin deutsut lagundu.
Nik zeregin inportante bat daroat eta
ez daukat denporagaltzean ibilteko
astirik. Agur !

Ak a biotz gogorreko mutil gazteak
aurrera egin euan atsoxoa negarrez itxita.
Baina barruak ez eutsan baketan be itxiten
eta ak mutil gazteak, astoari sooo! esan,
eaurt egin eta atzera joan zan atsoxoaga-
na eta sua emon. Atsoak benetan eskertu
eutsan eta zaar on egin daitela esan.

Artu euan barriro bidea mutil
orrek eta alangoren baten aize indartsu
bat agertu jakon arboladuiko meatzune
baten eta zuzia amatatu ez eutsan egin
ba ! Ene orduan! A bai zala larrialdia eta
desesperazinoa! Mutil gaztea lurra jota
egoan, zoruaz ezarrita burua ankartean
euala negar baten.

Alako baten, burua altzatu eue-
nean astoa ikusi euan etorritako bidetik joa-
ten. Atzerik ara segitu eutsan eta atso-
txoari sua emon eutsan lekura allegatu
zanean:

– Ene!- esan euan berekitan-, zuzia ama-
tatu egin jat baina leengo nire sua
atsoxkoak dauka oraindino garra
dariola. Eskatu egingo deutsat!

Bildurkilik eta lotsaz-lotsaz joan zan
mutil gaztea atsoxoaren su ingurura eta
badiñotzo:

– Parkatu, andratxue, susie amatau yat eta oin ni nau nago sure suen bearrisinean, emongo lostesu sure sutik, barrien barris susie ixitu te kastillora allegetako?

– Obeto es mutiko! Artu, saurea dosu ta. Soas bake bakean on iteak es takartzu kalterik eta.

Mutil gasteak atzotxueri esker-
rrak emon otzesan da barrien barriz artu auen lengo bidea d'atzenean allegauu in sen kastillora susi ixituegas. Ikusten dosuenes, on iteak kalterik es takar mesedea baño”.

– Parkatu, andratxoa, zuzia amatatu jat eta orain ni neu nago zure suaren bearrizanean, emango zeuskit zure sutik, barrien barriz zuzia isiotu eta kastillora allegetako?

– Obeto ez mutiko! Artu, zeurea duzu eta. Zoaz bake bakean on egiteak ez dakartzu kalterik eta.

Mutil gazteak atsoxoari eskerrak emon eutsazan eta barrien barriz artu euan leengo bidea eta atzenean allegatu egin zan kastillora zuzi isiotuagaz. Ikusten dozuenez, on egiteak kalterik ez dakar mesedea baino”.

59.3. Eleizagintza eta jentilak

Uin kontaukotzutena, egie edo gusurre, gure aurrekoari entzunde daukotzu te entzune kontaukotzut u ya ke ta preguntau ostesun. Aiko: “Au Seberioke elexa nausi au iten ibili sireanean, ontxe daoen lekuen asi sirean simintuek iten. Esaten dau-rie lelengo arrien aspian amasaiko gorri be(t)p (b)e imini audiela. Da ba bebisen seguru elexa au altzetan baie gause baragarriek pasetan yakiesan argineri. Egunes iten audien bearra gaubes baten batzuk apurtu itotzien edo arriek e beste leku betera eroan. D’esin i audien gausonik in da ba gau beten ango ondoko baserri beteko etxagune sorotz iten imini audien. An i egoan etxagun ori begiran kortako leiotik adi ser dan edo estan ikusteko. Gauberdien arriotza barruntauen da ogeto beitu auenean yentilek ikusi ausen orma-arriok artu te Olabarrirantza eroaten. Ikeratu in sen da bildursartuegas lori(k)p(b)e esauen in gau atan. Urrungo goxean

Orain kontatuko deutsudana, egia edo guzurra, gure aurrekoei entzunda deukotsu eta entzuna kontatuko deustut u ya ke eta preguntatu deustazun. Aiko: “Au Zeberioke eleiza nagusi au egiten ibili zireanean, oraintxe dagoan lekuan asi zirean zimentuak egiten. Esaten dau-die leenengo arriaren azpian amaseiko gorri bat be imini eudiela. Eta ba baebil-zan seguru eleiza au altzetan baina gauza baragarriak pasetan jakiezan arginei. Egunez egiten eudien bearra gaubez baten batzuk apurtu egiten eutsien edo arriak e beste leku batera eroan. Eta ezin ei eudien gauza onik egin eta ba gau baten ango ondoko baserri bateko etxaguna sorots egiten imini eudien. An ei egoan etxagun ori bégiran kortako leio-tik adi zer dan edo ez dan ikusteko. Gauberdian arriotsa barruntatu euan eta obeto begitu euanean jentilak ikusi euazan orma-arriok artu eta Olabarri-rantz eroaten. Ikaratu egin zan eta bil-

arginok eta ganetikook obrara etorri sireanean, bera be aurekana yoan da badiñotzie berbaltu te gusti:

- Mutilek e, yentilek isin dosa(k)p-(b)ata, gauberdien barruntau yoasat eta Olabarriko errekarra bota yauriesak arriok.
- Egie estok ixingo- arginok arteak artu esinik-.
- Ixingo esto(k)p(b)a, ganeko sustu-sartue emon yostian, orraitio, dardarotza kendu esinik ñaok o pipiladureak urtenda gorpuz gustien.
- I, ba, -esan i otzien arginok-, barrien barris ekarriko yusek arriok eta bere lekuen imini. Ik i gaur gaubean be ekiok sorotz iteari ia yentilok atometan direan barriri etorten.

Alantxe in i auen. Gauberdien barriri barruntausen yentilok eta besperan letxe adi-adi egoan baie alangon baten yentilen batek igirri in i otzen leiote sorosten daoela etxagun ori te badiñotze gedar baten:

- Nor yaok or sorosten? Iñorbes? B'or duen, etzorretako leio madarikitu ori sarratu daitela betiko sein beste iño(k)p(b)egitu!

Urrungo egunean, arginekana yoan sanean, a etxagune, begi be(t)k-(g)aldute, tuerto agartu i sen yentilen maldasiñoagaiti.

Gero ba, erremedioa topaudien. Elexea iten ibili sirean arasduien kurtze bat imini audien eta santo erremedio, yentilek isin audien kurtzea soportau t'es i sirean geao agartu. Bakealangoa!"

Oin ortxe dauku elexea, ederra benetan, Don Rufino beternarioak esan beistike esbeltesa andikoa. D'elesportikue be iñon es lakoa, buelta osokoa, errekarriekas iñon

dursartuagaz lorik be ez euan egin gau artan. Urrungo goizean arginok eta ganetikook obrara etorri zireanean, bera be eurekana joan eta badinotsie berbaltu eta guzti:

- Mutilak e, jentilek izan dozak ba eta, gauberdian barruntatu joazat eta Olabarriko errekarra bota jaudiezak arriok.
- Egia ez dok izango?- arginok arteak artu ezinik-.
- Izango ez dok ba, ganeko sustosartua emon jaustian, orraitino, dardarotza kendu ezinik niagok o pipiladureak urtenda gorputz guztian.
- I, ba, -esan ei eutsien arginok-, barrien barriz ekarriko joaguzak arriok eta bere lekuen imini. Ik i gaur gaubean be ekin egiok sorots egiteari ia jentilok atometan direan barriri etorten.

Alantxe egin ei euan. Gauberdian barriri barruntatu euazan jentilok eta bezperan letxe adi-adi egoan baina alangoren baten jentilen batek igarri egin ei eutsan leiotik sorosten dagoala etxagun ori eta badinotso gedar baten:

- Nor jagok or sorosten? Inor be ez? Ba orduan, etxe orretako leio madarikatu ori zarratu daitela betiko zein beste inok begiratu!

Urrungo egunean, arginekana joan zanean, a etxaguna, begi bat galduta, tuerto agartu ei zan jentilen maldizinoagaitik.

Gero ba, erremedioa topatu eudien. Eleizea egiten ibili zirean arazduan kurtze bat imini eudien eta santo erremedio, jentilek ezin eudien kurtzea soportatu eta ez ei zirean geiago agertu. Bakealangoa!"

Orain ortxe daukagu eleizea, ederra benetan, Don Rufino beternarioak

direan dibuju da letrak inde. Torrea be alosokoa naite beranduago ine isin. B'ortxe, emon dodas nik i urteak eta urteak sakristau, etzeko ta fabrikako bearreti kanpo, andreak eta semalabak lagundute, yakine.

esan beistike, esbelteza andikoa. Eta eleizportikua be inon ez lakoa, buelta osokoa, errekarriekaz inon direan dibuju eta letrak eginda. Torrea be alozokoa naita beranduago egina izan. Ba ortxe, emon dodaz nik i urteak eta urteak sakristau, etzeko eta fabrikako bearretik kanpo, andreak eta seme-alabak lagunduta, jakina.

59.4. Zeberioko kanpaiotsak

Puffff! seberioko kanpaiotzan istorie lusea be lusea yatzu. Baie tire, orren intzigue badaukosu asingo ñatzu kontetan. Seberioko errie andie da, berrogetakak kilometro kuadrakoa. Orregaitik elexa t'ermitas beteri(k)t(d)auku errie, ergoienetik elbarrenera bitartean amasai, ermita da Santo Tomas de Olabarrieta parroki nausie. Ondiño atxine estala, erriko batzuk alkartu t'abadeagas batera dana(k)p(b)arristau dus, sure aitexea be aundakak sapatu ibili de bearren, dano(k)t(d)ebalde.

Bueno, dana nastu barik, satike yoango ñatzu kanpaien gauze batzuk u kontetan.

Puffff! Zeberioko kanpaiotsan istoria luzea be luzea jatzu. Baina tira, orren intzigua badaukazu asi egingo niatzu kontetan. Zeberioko erria andia da, berrogetakak kilometro kuadrakoa. Orregaitik eleiza eta ermitaz betarik daukagu erria,ergoienetik elbarrenera bitartean amasei, ermita eta Santo Tomas de Olabarrieta parrokia nagusia. Oraindino antzina ez dala, erriko batzuk alkartu eta abadeagaz batera danak barrizatu doguz, zure aitexea be eundakak zapatu ibili da bearren, danok debalde.

Bueno, dana naastu barik, zatika joango niatzu kanpaien gauza batzuk u kontetan.

Parrokiako kanpai klaseak

Seberioko Parrokie esta selango-alangoa. Andie da, portiku ederrekoa da torrea be alosokoa. Kanpaia(k)p(b)be desentea(k)t(d)aukos. Kanpantorrean, kanpai nausi bi daukus: "kanpai andie da kanpai txikerra", isenagas, bakotxan miñe soka bategas lotute portikuperaño dariola, eskus yo al isiteko. Beste kanpai bi: "kanpabueltakeak" bata andiangoa da

Parrokiako kanpai klaseak

Zeberioko Parrokia ez da zelango-alangoa. Andia da, portiku ederrekoa eta torrea be alozokoa. Kanpaiak be dezen-teak daukaz. Kanpantorrean, kanpai nagusi bi daukaguz: "kanpai andia eta kanpai txikerra", izenagaz, bakotxaren miina soka bategaz lotuta portikuperaño dariola, eskuz jo aal izateko. Beste

bestea txikerragoa. Onik (g)aur argi inderragas yoten dire,baie len eskus. Torrearen kupulan, erlojuen kanpaia dao, bere makinarie beragoan da pesak soka banatati dingiliske torre barruti.

Gaur egun on es arren, sakrista-niko obrak in arte beste kanpai txiki bet egoan “kanpantxoa” isenekoa, abadea altarrantza doala abixetako.

Mesea erasoteko ainbet “kanpanilla” esbardin egosan baie abadea errieri begire mesemoten asi senean, itxi ein yakon txilin-yoteari.

“Kanpanillen” artean bat egoan anditxuagoa d’eleaxakoak edo beatikua eroatorduen yoten san bide gustien bidaskie(k)p(b)elaunikotuteko.

Norainoko kanpaiotsa

Seberrioko erriek ia amar kilometro daukos Kelletik (Ugaotik) Arteara bitartean. Parrokie ergoienen dao, Kalleko (Ugaoko) subiti sortzi Kilometrora.

Kanpantorreko kanpai nausienak ia-ia erri osoan entzuten dire axea segun nora dan. Esaterako, Uriondon ego-axea danean kanpaiotza entzuten da ta sartzamendikoa(k)tx (y)oten dauanean Undurran erlojuen kanpaiotza be entzuten da, bueno, entzuten dosue, su sau be Undurrakoa sara ta. Erlojuen kanpaiotza esese, Kalletik(Ugaotik) Urduñara doan trenan txistue be entzuten da ergoieneti. Ori axeak kausetan dau.

Kanpaien izentaziñoa

Kanpaioz bakotzak bere esangurea dauko da santzo edo geien

kanpai bi: “kanpabueltakeak” bata andia-go eta bestea txikerragoa. Oneik gaur argi indarragaz joten dira,baina leen eskuz.Torrearen kupulan, erlojuaren kanpaia dago, bere makinaria beeragoan eta pesak soka banatatik dindilizka torre barrutik.

Gaur egun egon ez arren, sakristianiako obrak egin arte beste kanpai txiki bat egoan “kanpantxoa” izenekoa, abadea altarrantz doala abisetako.

Mezea erasoteko ainbat “kanpanilla” ezbardin egozan baina abadea erriari begira mezea emoten asi zanean, itxi egin jakon txilin-joteari.

“Kanpanillen” artean bat egoan anditxuagoa eta eleizakoak edo biatikua eroatorduan joten zan bide guztian bidazkiak belaunikatuteko.

Norainoko kanpaiotsa

Zeberrioko erriak ia amar kilometro daukaz Kelletik (Ugaotik) Arteara bitartean. Parrokia ergoienen dago, Kalleko (Ugaoko) zubitik zortzi Kilometrora.

Kanpantorreko kanpai nagusienak ia-ia erri osoan entzuten dira aizea segun nora dan. Esaterako, Uriondon ego-aizea danean kanpaiotsa entzuten da eta sartzamendikoak joten dauanean Undurran erlojuaren kanpaiotsa be entzuten da, bueno, entzuten dozue, zu zeu be Undurrakoa zara eta. Erlojuaren kanpaiotsa ezeze, Kalletik (Ugaotik) Urduñara doan trenaren txistua be entzuten da ergoienetik. Ori aizeak kausetan dau.

Kanpaien izentaziñoa

Kanpaiots bakoitzak bere esangurea dauka eta zantzo edo deien moduan,

moduen, bakoitza(k)p(b)ere sinifikazioa dauko. Ie danakas akordetan nasen, se, batzuk u aspalditi daukus itxite, modernisau in gara ta.

Gei-kanpaiotzak a beti kanpai andiegas. Portikuraño allegetan dan soka bategas yoten da. Onek, soka puntan begi bet (d)auko oiñe sartute yoteko bear isin eskeru:

Kanpaioz bakarra monagilloari gei iteko, abadeak mesea erasoteko beti bear dau monagillo bat eta gisoneskua ganera. Gaur bardin dotzo.

Kanpaioz bi, abadeari geituteko.

Iru kanpaiotz estremauntziñoagas urtetan doala abixetako.

Elexakoak edo beatikua urtetan doala abixetako, aitu e: sasp kanpaiotz andraskoa bada da bedratzi gisoneskua bada.

Desgrazietan, suak urten eskeru bates be, kanpai andie ta txikerra bata bestean atzean yoten dire amabi tokadako tandak. Onetarako estao ordurik, sue bera da ordue.

Goxeko arrikanpaiak, albakoak esaten auen abadeak, egurdiko angelusekoak eta iluntzeko aimarietakoak, kanpai andiegas yoten dire segiduko tokadakas.

Mesa aurreti be aurreko moduko beste iru kanpaiotz tanda yoten dire. Ordu erdi lenago, lauren gitxiagotan d'ordu orduen. Mesea, nausie danean, ordu ordukoak errepika ta gusti yoten dire. Yai-egun andietan kanpabuelta(k)p(b)e bai.

Kanpai andie, errepika ta buelta-koak a beste batzutan be yoten dire, esate baterako sapatuetako ordu bi ordu bietan, edo Santa Ageda egunean ordu bietarik lauretara da seiretati sortziretara.

bakoitzak bere sinifikazioa dauka. Ia danakaz akordetan nazan, ze, batzuk u aspalditik daukaguz itxita, modernizatu egin gara eta.

Dei-kanpaiotsak a beti kanpai andiagaz. Portikuraino allegetan dan soka bategaz joten da. Onek, soka puntan begi bat dauka oina sartuta joteko bear izanez gero:

Kanpaiots bakarra monagilloari dei egiteko, abadeak mezea erasoteko beti bear dau monagillo bat eta gisonezkoa ganera. Gaur bardin deutso.

Kanpaiots bi, abadeari deituteko.

Iru kanpaiots estremauntzinoagaz urtetan doala abisetako.

Eleizakoak edo biatikua urtetan doala abisetako, aitu e: zazpi kanpaiots andrazkoa bada eta bedratzi gionezkoa bada.

Desgrazietan, suak urten ezkeru batez be, kanpai andia eta txikerra bata bestean atzean joten dira amabi tokadako tandak. Onetarako ez dago ordurik, sua bera da ordua.

Goizeko arrikanpaiak, albakoak esaten euan abadeak, egurdiko angelusekoak eta iluntzeko abemarietakoak, kanpai andiagaz joten dira segituko tokadkaz.

Meza aurretik be aurreko moduko beste iru kanpaiots tanda joten dira. Ordu erdi leenago, lauren gitxiagoetan eta ordu orduan. Mezea, nagusia danean, ordu ordukoak errepika eta guzti joten dira. Jai-egun andietan kanpabuelta-koak be bai.

Kanpai andia, errepika eta buelta-koak beste batzuetan be joten dira, esate baterako sapatuetako ordu bi ordu bietan, edo Santa Ageda egunean

Batenbat ilten danean, “il-kanpaiak edo tokada(k)tx” (y)oten dire. Kanpai nausienakas yoten dire, bietari(k) txikienagas asite. Lelengo tokadak eriotzaren barri artzean danean yoten dire da gero goxeko alba, egurdiko angelus d’iluntzeko aimarietako kanpaien ostaien.

Kostunbreko tokadetati(k) kanpo, gox erdien yoten basirean tokadok, entierrue egun orretan isiten san, da gei ori arrasti erdien in eskerro, etierrue urrungo egunean, a, len beti goxes, gero arrastire pasau sen. Esaneko tokadok beste isentaziño edo kontraseña ba(t)p (b)e badaukie, aitu:il-kanpaien ostaitxuen, ie-ie kanpai bie(k)p(b)atera yoten dire, “Tin-Tan” irukotxa gisonescoari da bikotxa andraskoari. Il dana, bautisau bai baie lelengo komuniñoa in bakoa isin eskerro, kanpabueltasko tokada(k)tx(y)oten dire.

Errosario-kanpaiak: Domeka ta yaiegun arrastietan errosarioa ta Santisimu te gustisko funtziñorako be mesa-kanpaiak lakoxea(k)tx(y)-oten sirean.

Mesearen erdien, konsagrasiónan, Ogie ta Kalise altzakeran be kanpai ba(t)tx(y)oten san.

Errogatibetan be kanpai klase bi yoten siresan: Lelengo mesarako modukoak eta gero, bedratzi errepika bitarteka geldiuneak ines. Asentziotako letanietan be bedratzi errepika yoten sirean portikuari iru bueltak emokeran.

Errepika, ainbat bider aipatu dotzut eta esta besterik kanpai nagusi bien arteko konbinasiñoa baño.

Il-kanpak negau: Etzan isiten normalena baie nosonos sugertau de d’esotu be in dot. Baten, gure errien

ordu bietarik lauretara eta seiretatik zortziretara.

Batenbat ilten danean, “il-kanpaiak edo tokadak” joten dira. Kanpai nagusienakaz joten dira, bietarik txikienagaz asita. Leenengo tokadak eriotzaren barri artzean danean joten dira eta gero goizeko alba, egurdiko angelus eta iluntzeko abemarietako kanpaien ostean.

Kostunbreko tokadetatik kanpo, goiz erdian joten baziran tokadok, entierrua egun orretan izaten zan, eta dei ori arrasti erdian egin ezkerro, etierrua urrungo egunean, a, leen beti goizez, gero arrastira pasatu zan. Esaneko tokadok beste izentazino edo kontraseña bat be badaukie, aitu:il-kanpaien ostetxuan, ia-ia kanpai biak batera joten dira, “Tin-Tan” irukotxa gizonetakoari eta bikotxa andrazkoari. Il dana, bautizatu bai baina leenengo komunioa egin bakoa izan ezkerro, kanpabueltasko tokadak joten dira.

Errosario-kanpaiak: Domeka eta jaiegun arrastietan errosarioa eta Santisimu eta guztizko funtziñorako be meza-kanpaiak lakoxeak joten ziran.

Mezaren erdian, konsagrazioan, Ogia eta Kaliza altzakeran be kanpai bat joten zan.

Errogatibetan be kanpai klase bi joten ziran: Leenengo mezarako modukoak eta gero, bedratzi errepika bitarteka geldiuneak eginaz. Asentziotako letanietan be bedratzi errepika joten ziran portikuari iru bueltak emokeran.

Errepika, ainbat bider aipatu deutsut eta ez da besterik kanpai nagusi bien arteko konbinazinoa baino.

Il-kanpaiak negatu: Ez zan izaten normalena baina nozono sugertatu da

negau in yakosan tokadak persona bateri amarrenak sor isin otzesalako parrokiari.

Entierru eguneko kanpaiotsak

Lenengo, iru kategoriko intierreak iten siresan, primerakoak, segundakoak da terzerakoak, baie kanpaietan es egoan diferentziarik.

Interruetan, parrokiako tokadetatik aparte, il danan ausunako ermitako kanpaia(k)p(b)e yoten sirean, lelengo abisue emoteko, gero arrastiluntzean errosarioa erresetako eta entierru egunean be bai.

Seberio lango errietan, gaur dana kotxes iten da baie, lenaoko entierruak oñes iten gendusen.

Orretarako andarie(k)p(b)ear isiten siresan gorpue andabideatati eroateko. Bide lusea isin esketiño andari geao bear isite(n) san, kontuek atera Uriondotik seinbet kilometro daoen ona parrokiare, andariak e bitzuek, edo irutzuek oten sirean.

Gorpue andabideti kanpo eroan askero problemak oten sirean, iños multea be bai permiso barik i paseteagaitik. Eske, gorpue pasetan dan lekutik edoseinek dauko gero pasetako deretxoa, egie edo gusurre orixe entzun du beti.

Andariak gorpue etzetik ateraten audienean, ausuneko ermitako kanpaia(k)tx(y)oten asten sirean arik eta gorpue begien bistan galdu arte. Gero, bein parrokiarantza urreratuten sanean gorpue, elexako il-kanpaiakas lagunduten yakon d'elexondoko kaltzadara allegetan danean, kanpaiotza biskortu iten da, elexarago da sarratugo.

Lenao, elesportikuko errespon-tzoan atzean da gero gorpu te gustis-

eta ezagutu be egin dot. Baten, gure errian negatu egin jakozan tokadak per-sona bati amarrenak zor izan eutsazalako parrokiari.

Entierru eguneko kanpaiotsak

Leenengo, iru kategoriko entierreak egiten zirean, primerakoak, segundakoak eta terzerakoak, baina kanpaietan ez egoan diferentziarik.

Entierruetan, parrokiako tokadetatik aparte, il danaren auzuneko ermitako kanpaiak be joten zirean, leenengo abisua emoteko, gero arrastiluntzean errosarioa errezetako eta entierru egunean be bai.

Zeberio lango errietan, gaur dana kotxez egiten da baina, leenagoko entierreak oinez egiten genduzan.

Orretarako andariak bear izaten ziran gorpua andabideetatik eroateko. Bide luzea izan ezketino andari geiago bear izaten zan, kontuak atera Uriondotik zeinbat kilometro dagoan ona parrokiara, andariak bitzuak, edo irutzuak egoten zirean.

Gorpua andabidetik kanpo eroan ezkeroko problemak egoten zirean, inoiz multea be bai permiso barik i paseteagaitik. Eske, gorpua pasetan dan lekutik edozeinek dauko gero pasetako deretxoa, egia edo guzurra orixe entzun dogu beti.

Andariak gorpua etzetik ateraten eudienean, auzuneko ermitako kanpaiak joten asten zirean arik eta gorpua begien bistan galdu arte. Gero, bein parrokiarantz urreratuten zanean gorpua, eleizako il-kanpaiakaz lagunduten jakon eta eleizondoko kaltzadara allegetan danean, kanpaiotsa biskortu egiten da, eleizarago eta zarratugo.

Leenago, eleizportikuko errespon-tsoaren atzean eta gero gorpu eta guz-

ko mesa ostaien, ortusantureko bidean be biskor-biskor yoten dire tokadak eta bein kanposanturas gero, barriro ie-ie kanpai bie(k)p(b)atera, Tin-Tan” iruten edo birriten segun gionesko edo andraskoa.

Ondiñokarren Seberioke errien segidu iten du kanpaiotzokas, bates be enterruetakoakas. Ardurea da baie segidu in beakotzu bisi garesan artean, esteretxasu?

Bueno, baten bat aistu in isingo ya(t)p(b)aie ortxe daukosus Seberioke parrokioko kanpaiotzak.

tizko meza ostein, ortusanturako bidean be bizkor-bizkor joten dira tokadak eta bein kanposanturaz gero, barriro ia-ia kanpai biak batera, Tin-Tan” irutan edo birritan segun gizonezko edo andrazkoa.

Oraindinokarren Zeberioke errian segitu egiten dogu kanpaiotsokaz, batez be enterruetakoakaz. Ardurea da baina segitu egin bearko deutzagu bizi garan artean, ez deretxazu?

Bueno, baten bat aaztu egin izango jat baina ortxe daukazuz Zeberioke parrokiako kanpaiotsak.

59.5. Sorginak bidekurtzeetan agertu

Sorginek? Aik i parte txarrekoak? Ene mutilek, on be klase askotakoak oten i sirean. Nik ukusi estodas iños in baie auren istoriek entzun bai, bates be orritan bidekurtzeetan, seinde, orti ergoieneti asite, ba, Sásolako kurtzeroa, Arrisurietakoa, Undurra t’Ugerteko kurtzeroa, beragoan Albitzuko kurtzeroa, gero emen Ermitabarrin Subitxuetakoa da bates be Olabarrikoa subi ondoko kurtzeroa, d’orritan daukedas entzuterik andienak. D’elbarrenerantza be begosan bidekurtzeak e, ori Subibarrikoa ta, baie nik i ergoienekoak esotodas ogeto.

Ni nau bakisu, parrokioko sakristaue isin nes eta nas neure aldien, bearreti kanpora e, bueno, D.Josen interan Txákolin Olabarrikoa isin sen, baie gero ostera be nau, da ba beti ibili nes abade artean da esto(t) sinistuten olango seron sorginon gauzetan baie entzun bai d’asko ganera sorgin gausak.Orrik kontuok o gaur u ie entzun be estire iten se,

Sorginak? Aiek i parte txarrekoak? Ene mutilak, egon be klase askotakoak egoten ei zirean. Nik ikusi ez dodaz inoz egin baina euren istoriak entzun bai, batez be orreitan bidekurtzeetan, zeinda, ortik ergoienetik asita, ba, Sarasolako kurtzeroa, Arrisurietakoa, Undurra eta Ugarteko kurtzeroa, beeragoan Albitzuko kurtzeroa, gero emen Ermitabarrin Zubitxuetakoa eta batez be Olabarrikoa, zubi ondoko kurtzeroa, eta orreitan daukadaz entzuterik andienak. Eta elbarrenerantza be baegozan bidekurtzeak e, ori Zubibarrikoa eta, baina nik i ergoienekoak ezagutu dodaz obeto.

Ni neu badakizu, parrokiako sakristaue izan naz eta naz neure aldian, bearretik kanpora e, bueno, D.Joseren interan Txákolin Olabarrikoa izan zan, baina gero ostera be neu, eta ba beti ibili naz abade artean eta ez dot sinistuten olango zeron sorginon gauzetan baina entzun bai eta asko ganera sorgin gauzak.Orreik kontuok o gaur u ia entzun

klaro, lenao esegoan oñeskoa baño besterik. Seberioik o kamiño bakarra dauko, Kalleti Arteara doana d'uin aldetzeatara kamiñoak inde on arren, len burpidea(k)p(b)año esegosan, dandi(k)p(b)e sikuen alosa baie denpora bustiegas, dana lupetza t'aparajue. Da, ba, klaro, jentea oñes ibilten gaintzesan da negu partean ilundu be arin, da ba, jentea bidea(k)p(b)etean ibilte san iluntzetan be. Da, bakisu, gaube beres be bildurre da ta baten bat kurtzeau eskero, errespetoa sartzean san. D'es ori bakarrik e, mosollo alauriek edo animilien baten satea be errespetokoa isiten san da, bildurti antzak e kontau be alantxe itauen.

Dana san olango kontue, bateko au agartu yakona estait nongo kurtzeroan besteko berbas entzun dau-sena sorgin edo parte txarrekoak, asuntoa da ba se, bildurkilik ibilten sala jentea gaubiluntzetan.

Bitu noraño, an Albitzupeko kurtzeroan kurtze bat imini bear audien parte txarrekoak uxatuteko da ba denporeagas, areri lekuari Albitzuko kurtzeroa barik i Kurtzebarri imini otzien. Iños, pagoatan be imini audesan kurtzeak orretakoxe, sorginok eta uxatuteko.

Estodala sinistuten esan dotzut olango kontuetan baie iños pentzau in dot in seoser ongo salaskoa se bitisu, niri sakristau les ainbet lekutera yoatea tokau yat, elexakoakas d'entieruetan da baten e parrokoari pre-guntau be in nauntzen ia segaiti errestan ausen ainbeste errespontzo intierruetan gorpuegas bidean dato-sela. Se, aitu, seinde, ergoieneko Ugerteko baten entierruen, abadea-gas nentorren aurreti, atzean andrak kandelakas buruen da gero andariak

be ez dira egiten ze, klaro, leenago ez egoan oinezkoa baino besterik. Zeberioik o kamino bakarra dauka, Kalletik (Ugaotik) Arteara doana eta orain alde-txeatara kaminoak eginda egon arren, leen burpideak baino ez egozan, dandik be sikuan alozo baina denpora bustiagaz, dana lupetza eta aparejua. Eta, ba, klaro, jentea oinez ibilten gintzazan eta negu partean ilundu be arin, eta ba, jentea bideak betean ibilten zan iluntzetan be. Eta, badakizu, gaua berez be bildurra da eta baten bat kurtzeatu ezkerro, errespetoa sartzean zan. Eta ez ori bakarrik e, mozollo alauriak edo animaliairen baten zaratea be errespetokoa izaten zan eta, bildurti antzak e kontatu be alantxe egi-ten euan.

Dana zan olango kontua, bateko au agertu jakona ez dakit nongo kurtzeroan, besteko berbaz entzun dauzana sorgin edo parte txarrekoak, asuntoa da ba ze, bildurkilik ibilten zala jentea gauiluntzetan.

Begitu noraino, an Albitzupeko kurtzeroan kurtze bat imini bear eudien parte txarrekoak uxatuteko eta ba denporeagaz, areri lekuari Albitzuko kurtzeroa barik i Kurtzebarri imini eutsien. Inoz, pagoatan be imini eudezan kurtzeak orretarakoxe, sorginok-eta uxatuteko.

Ez dodala sinistuten esan deutsut olango kontuetan baina inoz pentsatu egin dot egin zeozer egongo zalazkoa ze begitu egizu, niri sakristau lez ainbat lekutara joatea tokatu jat, eleizakoakaz eta entierruetan-eta baten e parrokoari preguntatu be egin neuntson ia zergaitik errezetan euazan ainbeste errespontso entierruetan gorpuagaz bidean datozala. Ze, aitu, zeinde, ergoieneko Ugerteko baten entierruan, abadeagaz nentorren

tandaka bidean d'atzean ganetiko gustiek. Se lenao dana san oñes oin kotxean iten da baie. Da ba Ugerteti Ermitabarrire, parrokiere kilometro bi pasautxu daos da pitean-pitean abadeak a parau itauen entierrue d'eresau errespontzoa, nik erantzun iten nauntzen: "Dominus bobiskun" "e kun espirituo", d'aurrera. D'akor-duen dauket selan pregunta nauntzen abadeari:

- Don Damian, ser dala ta ba ainbeste errespontzo bidean?
- Aitu Juan, sinistu estu iten baie badaespada, daneri(k)t(d)aoenes, entzute andiko bidekurtzeatan errespontzoa erresetan du sorginek edo parte txarrekoan kontra. Ganera, il-kanpaia(k)p(b)e yoten dus il dan ausunako ermitan da gero parrokiere allegakeran. Kostumbrea da ta ba segidu iten du iten, badaespada.

B'olangoxe gausek. Oin i estao lengorik. Oin argie dao iminite leku askotan da ganera atzeraurrera gustiek kotxean iten dire t'estao es sorginik es eser. Orrik kontuok o yoan sirean d'uin kontau iten dus baie kontu moduen, da suri be, preguntau in dostesuleko.

Kontuokas asi garesenes, au Seberio atxineti isin de famosoa sorgin kontuetan. Abadeak esanda dakit e baie emen atxine juisio ta gustiek on i sirean sorginen konture. Or Barbatxa t'Ereñotza aldean pasau i sen seguru. Da, ba, egie edo gusurre kontu polite kontausten parruko sarrak, a serekoa Petralandako landakoa. Kontue da gero e. Suk u eskola asko daukosu te badakit sinestu ingo estosune, da kontau ingotzut. Aiko:

aurretik, atzean andrak kandelakaz buruan eta gero andariak tandaka bidean eta atzean ganetiko guztiak. Ze leenago dana zan oinez orain kotxean egiten da baina. Eta ba Ugartetik Ermitabarrira, parrokiere kilometro bi pasautxu dagoz eta pitean-pitean abadeak a paratu egiten euan entierrua eta errezatu errespontsoa, nik erantzun egiten neuntsan: "Dominus vobiskun" "et cum spiritu tuo", eta aurrera. Eta akorduan daukat zelan preguntatu neuntsan abadeari:

- Don Damian, zer dala eta ba ainbeste errespontso bidean?
- Aitu Juan, sinistu ez dogu egiten baina badaezpada, danerik dagoanez, entzute andiko bidekurtzeatan errespontsoa errezetan dogu sorginak edo parte txarrekoen kontra. Ganera, il-kanpaiak be joten doguz il dan auzunako ermitan eta gero parrokiere allegakeran. Kostumbrea da eta ba segidu egiten dogu egiten, badaezpada.

Ba olangoxe gauzak. Orain i ez dago leengorik. Orain argia dago iminita leku askotan eta ganera atzeraurrera guztiak kotxean egiten dira eta ez dago ez sorginik ez ezer. Orreik kontuok o joan zirean eta orain kontatu egiten doguz baina kontu moduan, eta zuri be, preguntatu egin deustazulako.

Kontuokaz asi gara(za)nez, au Zeberio atxinetik izan da famosoa sorgin kontuetan. Abadeak esanda dakit e baina emen atxina juizio eta guztiak egon ei zirean sorginen kontura. Or Barbatxao eta Ereñotza aldean pasatu ei zan seguru. Eta, ba, egia edo guzurra kontu polita kontatu eustan parroko zaarrak, a zerekoa Petralandako landakoa. Kontua da gero e. Zuk u eskola asko daukazu eta badakit sinistu egingo

“Ba, baten seguru, an Ereñotzan sorgindu in gure i aurien neskatoan bat eta Petralandako landara eroateko ditean i egosan. D’ama be sosio san seguru te ba aita (a)ukien esyakinan. Baie aitek e seoser barruntau iten i auen, da ba bera be sorotz iten asi yakien. Da ba bebisen amalabok a tollaran atea itxite auren kontuokas d’aitori be katue saguen atzean les arrimau in i sen da giltzasuloti begire plantau yakien. Da, ukusi t’entzun in i auen ain fetxorie. Amak esaten i otzen alabeari: Bariku iluntzean Petralandako landara yoan beayune baie iño(k)tx(y)akin barik e. Atako, paparrean untauko yune au unto au d’auxe esango yune: “Laño gustien aspiti te sasi gustien ganeti” d’atoan plantauko gosena Petralandako landan.

- Ama, baie selan isilitike ba ori?
- Su es artegatu, onek unto onek aidean eroango gatu d’e(s)tx(y)aku ese pasauko.
- D’an Petralandan se in biu ba?- alabeak.
- Su gaure esanean ibili t’es arduretu pasau e(s)tx(y)atzu ese ingo ta.

D’etorri sen barikue t’esaneko moduen paparrok untaudiesan aregas untoagas, esan audiesan esan bearreko berbok eta inisitue les urten i audien amalabok aidean tollarako albatetik.

Aitek orduen, tollarea libre ikusi auenean, sartu sen barrure, artu auen a untoa da bera(k)p(b)e paparra arean untauen d’albatera arrimau sanean okerretara estaus esaten ba amalabok esaneko berbak: “Laño gustien ganeti te sasi gustien aspiti”. D’ene orduen. Gison gixajoa aidean yoan i sen laño gustien ganeti da sasi gustien

ez dozuna, eta kontatu egingo deutsut. Aiko:

“Ba, baten seguru, an Ereñotzan sorgindu egin gura ei eudien neskatoen bat eta Petralandako landara eroateko ditean ei egozan. Eta ama be sozio zan seguru eta ba aita eukien ezjakinean. Baina aitek e zoezer barruntatu egiten ei euan, eta ba bera be sorots egiten asi jakien. Eta ba baebilzan amalabok a tollaran atea itxita euren kontuokaz eta aita ori be katua saguaren atzean lez arrimatu egin ei zan eta giltzazulotik begira plantatu jakien. Eta, ukusi eta entzun egin ei euan aien fetxorria. Amak esaten ei eutsan alabeari: Bariku iluntzean Petralandako landara joan bear joaguna baina inok jakin barik e. Artarako, paparrean untatuko joaguna au unto au eta auxe esango joaguna: “Laino guztien azpitik eta sasi guztien ganetik” eta atoan plantatuko gozana Petralandako landan.

- Ama, baina zelan izan leiteke ba ori?
- Zu ez artegatu, onek unto onek aidean eroango gaitu eta ez jaku ezer pasatuko.
- Eta an Petralandan zer egin bear dogu ba?- alabeak.
- Zu geure esanean ibili eta ez arduratu pasatu ez jatzu ezer egingo eta.

Eta etorri zan barikua eta esaneko moduan paparrok untatu eudiezan aregaz untoagaz, esan eudiezan esan bearreko berbok eta inizitua lez urten ei eudien amalabok airean tollarako albatetik.

Aitak orduan, tollarea libre ikusi euanean, sartu zan barrure, artu euan a untoa eta berak be paparra arean unta- tu euan eta albatera arrimatu zanean okerretara ez dauz esaten ba amalabok esaneko berbak: “Laino guztien ganetik eta sasi guztien azpitik”. Eta ene orduan.

aspiti urrutu-urrutu inde ta sorabioa-
 gas durdidute, baie denporas allegau i
 sen Petralandara da bere alabea sor-
 gindu baño lenao, da sorgindu es
 iteko, aitearenka d'erresetan asi sen
 d'axek salbau i auen a neskatoa.
 Klaro, elexako sinifikasiñoakas orrik
 i parte txarrekoak es i aukien podere-
 rik. A saber dana be se isingo san baie
 ni(k)p(b)e entzunekoa kontautzut
 nauk sinistu es arren.

Gizon gizajoa aidean joan ei zan laino
 guztien ganetik eta sasi guztien azpitik
 urratu-urratu eginda eta zorabioagaz
 durdiduta, baina denporaz allegatu ei zan
 Petralandara eta bere alabea sorgindu
 baino leenago, eta sorgindu ez egiteko,
 aitearenka eta errezetan asi zan eta are-
 xek salbatu ei euan a neskatoa. Klaro,
 eleizako signifikaziñoakaz orreik i parte
 txarrekoak ez ei eukien podererik. A
 saber dana be zer izango zan baina nik
 be entzunekoa kontatu deusut neuk
 sinistu ez arren.

59.6. Eleizakoak edo biatikoa eta heriotza aurreko pasadizu bi

Elexakoan asuntoa lenao impor-
 tantea isin sen d'ainbe(t)p(b)ider
 yoan nas abadeari laguntan txiline
 artute bidean yoteko jenteari abiseta-
 ko da aitu se inportantea isingo san,
 sera, jentea balaunikotu ite san elexa-
 koa(k) pasakeran. Batzuetan Gure-
 jaune eroate san baie grabedadea oten
 sanean e Gurejaunegas naste Untzi-
 ñoa be eroate san, estremuntziñoa.
 Da, ba, gaxoan etzera allegetan sane-
 an abadeak konfesau itauen lelengo
 gaxoa, gero Gurejaune emon d'atze-
 nean Untziñoa. Bien bitartean erre-
 sue(k)p(b)e iten sirean, latinean e,
 seinde letaniek et'olangoak, errosario
 isin esik, errosarioa auskeras erresta
 san. D'urten baño lenao, elexan iru
 kanpaiotz yoten sirean elexakoakas
 doala abisetako, da gero bidean, len
 esan dotzuten moduen txiline. Guk u
 emen parrokien txilin andi bet auki-
 ten gaidun orretarako, jenteak ondo
 entzuteko pasakeran. Au gusti au
 oñes iten san. Askenerantza ya aba-
 dea kotxean yoaten asi sen kamiñoak

Eleizakoen asuntoa leenago impor-
 tantea izan zan eta ainbat bider joan naz
 abadeari laguntan txilina artuta bidean
 joteko jenteari abisetako eta aitu ze
 inportantea izango zan, zera, jentea
 balaunikatu egiten zan eleizakoak pasa-
 keran. Batzuetan Gurejauna eroaten zan
 baina grabedadea egoten zanean e
 Gurejaunagaz naaste Untziñoa be eroa-
 ten zan, estremauntziñoa. Eta, ba, gaixoa-
 ren etxera allegetan zanean abadeak
 konfesatu egiten euan leenengo gaixoa,
 gero Gurejauna emon eta atzenean
 Untziñoa. Bien bitartean errezuak be
 egiten zirean, latinean e, zeinda letaniak
 eta olangoak, errosarioa izan ezik, erro-
 sarioa euskeraz errezetan zan. Eta urten
 baino leenago, eleizan iru kanpaiots
 jotzen zirean eleizakoak doala abiseta-
 ko, eta gero bidean, leen esan deusudan
 moduan txilina. Guk u emen parroki-
 an txilin andi bat eukiten gendun orretara-
 ko, jenteak ondo entzuteko pasakeran.
 Au guzti au oinez egiten zan. Azkene-
 rantza ya abadea kotxean joaten asi zan

laguntan auen artean, da ganetikoa oñes, al damoduen.

Elexakoan inportantzie esan dotzut andie sala se klaro, pekatu mortalean il eskero infernure yoaten sala esatoskuen abadeak eta benialakas purgatoriora d'askeneko elexakoak beada(n)moduen in eskero ba serure artes. D'orduén ba jenteak eskatu itausen elexakoak, etzeko edo ausokoan batek e geao gaxoa(k)p(b)era(k)p(b)aña.

Pasadisu espesialan bat (d)akiden? Ba, yakin i yakin bai baie estai(t)p(b)a kontau ala kontau es, se ...

Kontetako diñostesu? Bueno, ingotzut e baie noin etzean pasau esan barik, errespetoagaitiño e! B'aitu. Or Aibelabe partean egoan kaletra txarreko gison bat eta berba txarrekoa yatzun, txorigorrike al estala be maldasiñotzean eragoion beti, dana juramentue t'aparajue bastarrak (g)ustiek erre bearrean.

D'egun beten, txarto parau sen d'ausoko bateri geitu otzien estukuran d'esan:

- Ene, sera, urlie (usena enoatzu esaten e) txarto parau yaku t'elexakoak eske yoango saintikes abadeagana, baie arin se ie berba bari(k)t(d)ao, d'il beosku.
- Elexakoak orreri agobaltz orreri? Ilinti gorie miñeti sartzea esta isingo ogeto?
- Tíre-tire, soas d'eskatus elexakoak e(s)tx(y)akun belu in d'infernure yoan beren arimea, se bisie ba(t)p(b)aña estao d'esto(t) kontzientzie kargau gure gero e!

D'etorri sen arin ausoko ori errekaduegas da ba eroan otziesan elexakook. Ni nau enaintzen yoan orduko egunean se bearren nengoan

kaminoak laguntan euan artean, eta ganetikoa oinez, aal dan moduan.

Eleizakoen inportantzia esan deutsut andia zala ze klaro, pekatu mortalean il ezkerro infernura joaten zala esaten euskuen abadeak eta benialakaz purgatoriora eta azkeneko eleizakoak bear dan moduan egin ezkerro ba zerura artez. Eta orduan ba jenteak eskatu egi ten euazan eleizakoak, etzeko edo auzokoren batek e geiago gaixoak berak baino.

Pasadizu espesialen bat dakidan? Ba, yakin i yakin bai baina ez dakit ba kontatu ala kontatu ez, ze ...

Kontetako dinostazu? Bueno, egingo deusut e baina noren etxean pasatu zan esan barik, errespetoagaitino e!Ba aitua. Or Aibelabe partean egoan kaletra txarreko gizon bat eta berba txarrekoa jatzun, txorigorrika aal ez dala be maldizintotzean eragoion beti, dana juramentua eta aparejua bazterrak guztiak erre bearrean.

Eta egun baten, txarto paratu zan eta auzoko bateri deitu eutsien estukuran eta esan:

- Ene, zera, urlia (usena ez noatzu esaten e) txarto paratu jaku eta eleizakoak eske joango zeintek ez abadearengana, baina arin ze ia berba barik dago, eta il bear deusku.
- Eleizakoak orreri aobaltz orreri? Ilinti gorie miinetik sartzea ez da izango obeto?
- Tira-tira, zoaz eta eskatu egizuz eleizakoak ez jakun belu egin eta infernura joan bere arimea, ze bizia bat baino ez dago eta ez dot kontzientzia kargatu gura gero e!

Eta etorri zan arin auzoko ori errekaduagaz eta ba eroan eutsiezan eleiza-

da. Baie kontaute dakit esaten ñabitzune.

Da, ba, enao seguru baie, deretxat a gaxo berberorregas isin sala, b'abadea yoan yakonean da konfesetako esan, oño, gaxoa esetzean parau i yakon d'abadeak a andi orti emeti komensidu in i auen, da komensitako estai(t)p(b)a diru apurren bat es otzen sartu armudapean. Entzun alan dauket entzunde. Abade orrek e il aurreti konfesetea gure auen les, sein Pedro Boteron galdarara yoan es daiten betiko, dirue opatu te armudapean sartu i otzen agonien edo atzenetan egoan gaixo orreri, d'alantxik komensidu. Diruegaiti isin espalitz estai(t)p(b)a se pasauko san aregas gison baragarriegas.

D'atzenean lograuden seguru elexakook ondo artzea t'il sanean asaskaldielangoa artudien seguru etzekoak, se ya infernuen ikustaudien kaletra txarrekorri, d'elexakoak in barik iltea(k)p(b)e sera emotauen, ser pentzau. Gaur gausek asko kanbiau dire. Orri(k)p(b)ildurrok e yoan in dires baie gaur be maldasiñoa(k)-p(b)otatea estao ondo, edukasiñoa gausandie da gero, da personea ago(a) askatukeran isiten da esaun.

Gero, entzunde daukotze(t)p(b)aten bateri, kontue isango da baie, ori urliek Eriotzari in otzen tranpa edo trikimaillue bisirik urtetako. Je-je-je. Ba, seguru, baten batek txarrera in eta oiratuta egoan d'Eriotzaren bildur san, antza. Baie entzutea i auken Eriotzea baten baten bille doanean, buru partera arrimetan sala geituteko. Eta, ser in auen gison orrek? Ara, txarragora in auenean, eaurt in d'ankak armudan imini eta burue oian atzekaldeko oiakoxeari dotzela.

kook. Ni neu ez nintzan joan orduko egunean ze bearren nengoan eta. Baina kontatuta dakit esaten niabiltzuna.

Eta, ba, ez nago seguru baina, deritxat a gaixo berberorregaz izan zala, ba abadea joan jakonean eta konfesetako esan, oño, gaixo ezetzean paratu ei jakon eta abadeak a andik ortik emetik konbenzidu egin ei euan, eta konbenzietako ez dakit ba diru apurren bat ez eutsan sartu almo(h)adapean. Entzun alan daukat entzunda. Abade orrek e il aurretik konfesetea gura euan lez, zein Pedro Boteroren galdarara joan ez daiten betiko, dirua opatu eta almo(h)adapean sartu ei eutsan agonian edo atzenetan egoan gaixo orreri, eta alantxik konbenzitu. Diruagaitik izan ez balitz ez dakit ba zer pasatuko zan aregaz gison baragarriagaz.

Eta atzenean logratu euden seguru eleizakook ondo artzea eta il zanean asaskaldialangoa artu eudien seguru etzekoak, ze ya infernuan ikusten eudien kaletra txarreko ori, eta eleizakoak egin barik ilteak be zera emoten euan, zer pentsatu. Gaur gauzak asko kanbiatu dira. Orreik bildurrok e joan egin dira baina gaur be maldizinoak botatea ez dago ondo, edukazinoa gauza andia da gero, eta personea aoa askatukeran izaten da ezagun.

Gero, entzunda deukotsat baten bateri, kontua izango da baina, ori urliak Eriotzari egin eutsan tranpa edo trikimaillua bisirik urtetako. Je-je-je. Ba, seguru, baten batek txarrera egin eta oeratuta egoan eta Eriotzaren bildur zan, antza. Baina entzutea ei eukan Eriotzea baten baten bila doanean, buru partera arrimetan zala deituteko. Eta, zer egin euan gison orrek? Ara, txarragora egin

Eta, ara non yatorikon Eriotza gau ilunean et'artes buru aldera berbas. Beste orrek erantzun barik, anak altzau otzesan eta Eriotzak alde in i otzen bere kodaña ta gusti. Urrungoan estaki(t)p(b)a ser pasauko san. Onik kontuak isingo yatzus, serana moduen, kukuena. Entzutea daukot olan gaixokarik-eta egoanak Andramari martikoatan kukua entzun eskero, etzala ilten urt'orretan. Au lartxu siñistea esta isingo? Kontue-(k)p(b)eti kontu.

euanean, eaurt egin eta anak armudan imini eta burua oearen atzekaldeko oea-koxeari deutsal. Eta, ara non diatorkon Eriotza gau ilunean eta artez buru aldera berbaz. Beste orrek erantzun barik, anak altzatu eutsazan eta Eriotzak alde egin ei eutsan bere kodaina eta guzti. Urrengoan ez dakit ba zer pasatuko zan. Oneik kontuak izango jatzuz, zerarena moduan, kukuarena. Entzutea daukat olan gaixokarik-eta egoanak Andramari martikoetan kukua entzun ezker, ez zala ilten urte orretan. Au lartxu sinistea ez da izango? Kontuak beti kontu.

59.7. Bendizino-usadioak

Bendisiñoak? Ene Jesus! Nondi asi banenki. Se lenao dana san bendisiñoa, usedioa egoan dana bedinkituteko, personak sein gausak, seinde, etzeak, soloak, umeak, odaie, sikitea, fabrikak, kotxeak. O sea ke saure aiteri be batute daukotzesus batzuk esta, baie geao gurosusela? Ba, sau(k) preguntaistesus de nik i kontestau ingotzut akordetan nasena, se ni nau asko ibilite nao elexako kontuetan, se erremedio, sakristaue, bakisu, abade artean beti. Bueno ba , sau asi nondi gure d'andixik antza emongotzu seoseri te.

Ori soloari bendisiñoa botatea? Baiiii gizona! Ori usedio andie isin sen e. Bein Andramari martikoraskero, soloatan, bates be garie isiten san inportanteana, ba bedinkitu iten sirean gari-soloak. Orretarako, abadeak erroketea t'estolea yantzi, gero sakristauek edo monagilloak isopoa artu te tontorri(k) tontor yoate(n) san gari arloari bendisiñoa botaten,

Bendizinoak? Ene Jesus! Nondik asi banenki. Ze leenago dana zan bendizino, usadioa egoan dana bedeinkatuteko, personak zein gauzak, zeinda, etxeak, soloak, umeak, odeia, sikatea, fabrikak, kotxeak. O sea ke zure aitari be batuta deukotsazuz batzuk ezta, baina geiago gura dozuzala? Ba, zeuk preguntatu eistazuz eta nik i kontestatu egingo deusut akordetan nazana, ze ni neu asko ibilita nago eleizako kontuetan, zer erremedio, sakristaua, badakizu, abade artean beti. Bueno ba, zeu asi nondik gura eta andixik, antza emongo deutsalgu zezeri eta.

Ori soloari bendizino botatea? Baiiii gizona! Ori usadio andia izan zan e. Bein Andramari martikoraskero, soloatan, batez be garia izaten zan inportanteana, ba bedeinkatu egiten zirean gari-soloak. Orretarako, abadeak erroketea eta estolea jantzi, gero sakristauak edo monagilloak isopoa artu eta tontorrik tontor joaten zan gari arloari bendizino botaten, baina, antza, gari soloa ikusi egin

baie antza gari soloa ikusi in bear isite san bendisiñoa botakeran. Garie esan dotzut se gariiek semendien erain da maietzerako burue dakar d'udarako eldu te klaro, or bitartean denporalea(k)tx(y)o esketiño arpelik (g)altzean sirean gariiek eta gero ogirik es. Orregaitiño bendisitan sirean gariiek, ondo elduteko.

Aste Santuen? Bueno, garisemea, bijiliek, ilen lelengo barikuek, ejersisioak eta Paskoaskoas betetea, bueno, elexan sartute ie denpora gustien.

Da, ba, bendisiño kontuen, ba Erramu egune san señaladue. Domekorretan ereñotzak ekarten sirean mesa nausire da bedinkitu. Gero orrek ereños bedinkituek usu asko auken, seinde, etze barruen iminteko, koartuetan en jeneral, inisitue t'odaien kontra, baten bat ilten sanean ur bedinkitue botateko gorpuei da ba, nik i urtero, garisemean asikeran aurreko urteko Erramu egunean bedinkituko ereñotza erretan naindun da, ba, a autze abadeak eralbiltauen autzen egunean bekokien igurtako.

Batzuk u soloatan be sartzean audiesan ereñotz erramatxuek koxitza onak logretako. Baie orretarako geao esotu du Santa Kurtzetako arantza edo elorrien bendisiñoa. Ganera polite isite san. Bitu. Tertzio orretan arantzak eta elorriek lorara etorrite daos da ebagi iten sirean erramatxu betzuk eta gero bakotxari, kutxilloagas arrankalatxu bet in de sos bat sartu kurtzetara. Sainbet errama? Ba solotan beste. D'orduen txortea preparetan sanean saratz errama bateri asala kendu, fasil iten yako in be, d'arexegas batu txorta gustie da

bear izaten zan bendizinoa botakeran. Garia esan deusut ze gariak zemendian erein eta maiatzerako burua dakar eta udarako eldu eta klaro, or bitartean denporaleak jo ezketino alperrik galtzean zirean gariak eta gero ogirik ez. Orregaitino bendezitan zirean gariak, ondo elduteko.

Aste Santuan? Bueno, garizumea, bijiliak, ilaren leenengo barikuak, ejerzizioak eta Pazkoazkoaz betetea, bueno, eleizan sartuta ia denpora guztian.

Eta, ba, bendizino kontuan, ba Erramu eguna zan señaladua. Domeka orretan ereinotzak ekarten zirean meza nagusira eta bedeinkatu. Gero orrek ereinotz bedeinkatuak usu asko eukan, zeinda, etxe barruan iminteko, koartuetan en general, inizitua eta odeiaren kontra, baten bat ilten zanean ur bedeinkatua botateko gorpuari eta ba, nik i urtero, garizumearen asikeran aurreko urteko Erramu egunean bedeinkatuko ereinotza erretan nendun eta, ba, a autsa abadeak eralbilten euan autsaren egunean bekokian igurditeko.

Batzuk u soloatan be sartzean eudiezan ereinotz erramatxuak koxitza onak logretako. Baina orretarako geiago ezagutu dogu Santa Kurtzetako arantza edo elorrien bendizinoa. Ganera polita izaten zan. Beitu. Tertzio orretan arantzak eta elorriak lorara etorrita dagoz eta ebagi egiten zirean erramatxu batzuk eta gero bakotxari, kutxilloagas arrankalatxu bat egin eta zotz bat sartu kurtzetara. Zeinbat errama? Ba solotan beste. Eta orduan txortea preparetan zanean sarats errama bateri azala kendu, fasil egiten jako egin be, eta arexegas batu txorta guztia eta gauza polita izaten zan etxe bakotxetik txorta bategaz elei-

gausa polite isiten san etze bakotxeti txorta bategas elexara Santa Kurtz egunean. Bein elexaraskero, abadeak bedinkitu itausen da gero bueltan, bakotxa(k)p(b)ere soloatan sartu, solo bakotxeko bat eta antxe oten san urte gustien soloa bedinkituten.

San Juanetan? Asteko naure egune, Juan nas da. Egun andie da. Emen Seberion Seberioganeko elexako fiestea da Andramariges batera, d'an iten sirean funtziño gustiek.

Etze bakotxean San Juan aratxa iminten san, elexar errama bat Santa Kurtzetako elorri erramean antzean kurtzetara palutxu bet iminite, baie San Juan Aratxari, lorak eta galburua(k)p(b)e iminten yakosan, gaur be bai, bueno, oin garirik esta erain be iten baie ganetiko gustie bai. Klaro, San Juan aratxa esta eroaten elexara bedinkituten baie etzeko ateatan iminten da etzea bedinkitu te yagoteko, baie au etze bakotxekoak iten dau.

Errogatibak? Baiii, askoooo. Sano erabili us. Jeneralmentean sikita andiegoanean iten sirean aurie iteko da beste batzuetan ekatxa paretako bendisiñoa botate san isopoagas d'errresuek ines. Seberion, parrokie andie da ta portikue be sabala ta buelta osokoa dauko da ba askotan elesportaleari obuena buelta emonda iten gaindusen errogatibak Amabirjinea andarik anda eroanda.

Beste batzuetan Seberioganeko Andra Marira iten gaindun errogatibea. Ara bide lusea dao ta sati betzuetan aurgora(k)p(b)e alosokoak, andariak errelebau iten sirean.

Se erresu iten gaindun errogatibatan? Ba, jeneralmentean letaniek eta Seberioganera isiten sanean, erro-

zara Santa Kurtz egunean. Bein eleizarazkero, abadeak bedeinkatu egiten euzan eta gero bueltan, bakotxak bere soloatan sartu, solo bakotxeko bat eta antxe egoten zan urte guztian soloa bedeinkatuten.

San Juanetan? Asteko neure eguna, Juan naz eta. Egun andia da. Emen Zeberion Zeberioganeko eleizako fiestea da Andramarigaz batera, eta an egiten zirean funtzino guztiak.

Etxe bakotxean San Juan aritza iminten zan, leizar errama bat Santa Kurtzetako elorri erramearen antzean kurtzetara palutxo bat iminita, baina San Juan Aritzari, lorak eta galburuak be iminten jakozan, gaur be bai, bueno, orain garirik ez da erein be egiten baina ganetiko guztia bai. Klaro, San Juan aritza ez da eroaten eleizara bedeinkatuten baina etxeko ateetan iminten da etxea bedeinkatu eta jagoteko, baina au etxe bakotxekoak egiten dau.

Errogatibak? Baiii, askoooo. Sano erabili doguz. Jeneralmentean sikate andia egoanean egiten zirean euria egiteko eta beste batzuetan ekaitza paretako bendizinoa botaten zan isopoagaz eta errezuak eginez. Zeberion, parrokia andia da eta portikua be zabala eta buelta osokoa dauka eta ba askotan eleizportaleari oboan buelta emonda egiten genduzan errogatibak Amabirjinea andarik anda eroanda.

Beste batzuetan Zeberioganeko Andra Marira egiten gendun errogatibea. Ara bide luzea dago eta zati batzuetan aurgorak be alozokoak, andariak errelebatu egiten zirean.

Zer errezu egiten gendun errogatibetan? Ba, jeneralmentean letaniak eta Zeberioganera izaten zanean, errosarioa

sarioa be igoal, edo isilean be bai bide arlo baten, kantau be bai, Amabirjinean kantak. Oin jenteak estau sinisten olango gausetan baie lenao orixe san usedioa da se ingo gaindun ba?

Emen gero Santo Tomasen parrokien usedio sar bar egoan. Santo Tomasen elie esatotzien da ba emen elespeko arasduien bedinkitu itaudien seguru ganadu elie, basabaiek edo erri-beiak, eta gero Arrabako landara eroan an lodituteko. Da, nik estot esotu bai(e) entzutea bai, sera, Seberrioko parrukoa yoan iten sala eskolumekas urtean baten Arrabako landea bedinkituten, an elie aukitauden eta, sarradura barruan pastuen, da gero ba saldu, okelarako bisipisu edo begipisuen segun tratantea, da, sekorrak err(i)-iditerako be bai, busterrireko. A! Serak itxi us aititu barik, Kandelario ta San Blas, nekasuen soztz, d'inportantea(k)t(d)ire barres.

Sesailean asikeran isiten dires. Kandelarioetan, ba, kandelak bedinkituten dire da ba gero usu asko daukie, ereñotzan moduen. Baie kandelak elexako sepulturatan be asko iminten sirean. Gaur kendu in de baie lenao etxe bakoxta(k)p(b)ere sepulturea auken da batzuk kandelas beterik oten sirean.

Elexea(k)p(b)era(k)p(b)e ainbet kandela erretauen altaratan da. Bueno, kandela bedinkitue sano erabili u. Intierruetan be andrasko batek ol baten estute ekarten situsen kandela barriek elexara. Buruen ekartausen gorpuen aurreti d'elexan isitu sepulturatan, intierru egunean aurean da gero norbere sepulturatan, errespontzorako diru te gusti.

be igual, edo isilean be bai bide arlo baten, kantatu be bai, Amabirjinearen kantak. Orain jenteak ez dau sinisten olango gauzetan baina leenago orixe zan usadioa eta zer egingo gendun ba?

Emen gero Santo Tomasen parrokiaren usadio zaar bar egoan. Santo Tomasen elia esaten eutsoen eta ba emen eleizpeko arazduian bedeinkatu egiten eudien seguru ganadu elia, basabaiek edo erri-beiak, eta gero Arrabako landara eroan an lodituteko. Eta, nik ez dot ezagutu baina entzutea bai, zera, Zeberrioko parrokoa joan egiten zala eskolumekaz urtean baten Arrabako landea bedeinkatuten, an elia eukiten euden eta, zarradura barruan pastuan, eta gero ba saldu, okelarako bizipisu edo begipisuan segun tratantea, eta zekorrak erri-iditarako be bai, buztarrirako. A! Zerak itxi doguz aitatu barik, Kandelario eta San Blas, nekasuen zotz, eta inportanteak dira barriz.

Zezeilean asikeran izaten dira. Kandelarioetan, ba, kandelak bedeinkatuten dira eta ba gero usu asko daukie, ereñotzaren moduan. Baina kandelak eleizako sepulturatan be asko iminten zirean. Gaur kendu egin da baina leenago etxe bakoxtak bere sepulturea eukan eta batzuk kandelaz beterik egoten zirean.

Eleizeak berak be ainbat kandela erretan euan altaratan eta. Bueno, kandela bedeinkatue sano erabili dogu. Entierruetan be andrazko batek ool baten estuta ekarten zituzan kandela barriak eleizara. Buruan ekarten euazan gorpuaeren aurretik eta eleizan isiotu sepulturatan, intierru egunean aurean eta gero norbere sepulturatan, errespontzorako diru eta guzti.

San Blasetan ba kordioa ta yanariak ekarten sirean elexara ta bedinkitu. Gero etzean yan eta ondakinak erre edo ganadueri emon ai(k)p(b)e parte artzeako, seinde, laranjasalak astoari, gustau iten yakies, nok esango lauke e?

Ur bedinkituek? Ori, sapatu santu gaubean, gauberdiko mesan. Bueno, or bendisiño bi ite sirean. Lelengo Pasko-sirioa, kandela lodie d'alosokoa, da gero ure. Sirioan berinkasiñoa kanpoan ite san, elesportikuan. D'ori iteko, sue isitu bear isite san baie es posporoagas, espabere se, arrien txisparik arakoagas. Beitu, nik i sakristau les, funtzinoa asi aurreti, sue isituten nauen, asko kostata e! Artzean nauen tella bat eta otegur siku betzuk imini sugin ona(k)t(d)irelako. Gero, sigarroak isituteko txiskeru bet artu, metxea atera suloti d'asten naintzen txispea atetan. Beste eskuen igeskea edo liñosko sorki altzitu bet aukiten nauen d'a arrimau txispara suek artu arte. Esta fasile e. Baie nik i truko bat naunken, ori liñosko sorki marax edo salge ori estukin bategas ondo estutute aukiten nauen da bein altziek suek artu eskeru, urrungorako epaie baltzitude aukiten dau d'arinago artzean dau suek. B'olantxik, igeskeak edo sorkiek sue arturduen, putz in da tella ganeko sotzari sue emon garra atetako. Da gero bai, gero su andiagoa in d'eroaten nauen elexako atera abadeak andi sue artzeako. Da funtzinoa aste sanean, andi suti Pasko-sirioa isituten auen abadedak bere erresuekas. D'orregas naste, intzentzarioan iketza be bai, ikes biribilek, erosiak e, d'iketza orreri be tellako sutik emoten yakon sue da

San Blasetan ba kordioa eta yanariak ekarten zirean eleizara eta bedinkatu. Gero etxean jan eta ondakinak erre edo ganadueri emon aiek be parte artzeako, zeinda, laranjazalak astoari, gustatu egiten jakiez, nok esango leuke e?

Ur bedeinkatuak? Ori, zapatu santu gauean, gauerdiko mezan. Bueno, or bendizino bi egiten zirean. Leenengo Pazko-zirioa, kandela lodia eta alozokoa, eta gero ura. Zirioaren bedeinkazinoa kanpoan egiten zan, eleizportikuan. Eta ori egiteko, sua izetu bear izaten zan baina ez posporoagaz, ezpabere ze, arriaren txisparik arakoagas. Begitu, nik i sakristau lez, funtzinoa asi aurretik, sua izetuten neuan, asko kostata e! Artzean neuan tella bat eta ota-egur siku batzuk imini sugin onak diralako. Gero, zigarroak izetuteko txiskeru bat artu, metxea atera zulotik eta asten nintzan txispea ateretan. Beste eskuan igeskea edo linozko sorki altzitu bat eukiten neuan eta a arrimatu txispara suak artu arte. Ez da fazila e. Baina nik i truko bat neunkan, ori linozko sorki marax edo salge ori estukin bategaz ondo estututa eukiten neuan eta bein altiak suak artu ezkeru, urrungorako epaia baltzitude eukiten dau eta arinago artzean dau suak. Ba olantxik, igeskeak edo sorkiak sua artu orduan, putz egin eta tella ganeko zotzari sue emon garra atetako. Eta gero bai, gero su andiagoa egin eta eroaten neuan eleizako atera abadeak andik sua artzeako. Eta funtzinoa asten zanean, andik sutik Pazko-zirioa izetuten euan abadedak bere errezuekaz. Eta orregaz naaste, intzentsarioaren iketza be bai, iketza biribilak, erosiak e, eta iketza orreri be tellako sutik emoten jakon sua eta gero nabetako intzentso autsa bota

gero nabetako intzentzo autze botor-
duen keak urtetauen, usindun keak.
D'orixe, eta gero prososinoan sartze-
an san elexara ilunetan, sirio argiegas.
Areri sirioari bost untza sartzean
otzesan abadeak, kurtze forman,
d'aik untzak intzentzo bola bat auki-
tauden kanpoaldeti.

Gero, barruen, ure(k)p(b)erin-
kituten sirean. D'ori ur ori gausa
akotarako useta san, seinde, urberin-
kitontzitarako, isoporako, poton-
tzien edo potondegien umea(k)p(b)-
autisetako d'olango menesterretara-
ko.

Su, Jumanuel, ainbeste bendisi-
ño olan batera kontaute asko dire
gero e, esteretxasu? Da, seguru baten
bat itxi une aitu barik. Aistuek
urrungo baterako itxikus!

orduan keak urtetan euan, usaindun
keak. Eta orixe, eta gero prozesinoan
sartzean zan eleizara ilunetan, zirio argia-
gaz. Areri zirioari bost untza sartzean
eutsazan abadeak, kurtze forman, eta aik
untzak intzentso bola bat eukiten euden
kanpo aldetik.

Gero, barruan, urak bedeinkatuten
zirean. Eta ori ur ori gauza akotarako
usetan zan, zeinda, urbedeinkatu-ontzie-
tarako, isoporako, potontzian edo
potondegian umeak bautizetako eta
olango menesterretarako.

Zu, Juan Manuel, ainbeste bendizino
olan batera kontatuta asko dira gero e,
ez deretxazu? Eta, seguru baten bat itxi
doguna aitatu barik. Aaztuak urrengo
baterako itxiko doguz!

59.8. Elizaren doktrina estuak eskrupulu ugari sortu abade zein eliztar artean

Gure denporako dotrina? Ene
mutileeeek, oingoan antzi(k)p(b)es!

Bitisu, gure gaste denporan ele-
xako dotrineak inder andie auken.
Orduko abadeak sano estu artzean
gindusen pekatuen bildurregas. Pe-
katuek e klase bitekoak egosan, mor-
talak eta benialak. Pekatu mortalean
il eskero, infernure, Pedro Boteron
galdarara betiko. Selango bildurre!
Orregaiti, konfesonarioak a mori-
mintu andie aukien. Gitxien gitxie-
nes, urtean baten Paskoaskoagas bete
beasan, garisuman, Aste Santu aurre-
ko astean, ejersisioak iten sirean d'an
konfesau Paskoa egunean Gure
Jaune artzeako. Pekatuek? Ene! Ia
dana san pekatue, domeka ta yaye-
tan mesara yoan esitea, blasfemetea,

Gure denporako doktrinea? Ene
mutilaaaak, oraingoaren antzik be ez!

Begi(ra)tu egizu, gure gazte denpo-
ran eleizako doktrineak indar andia
eukan. Orduko abadeak sano estu artze-
an ginduezan pekatuen bildurregas.
Pekatuak e klase bitakoak egozan, mor-
talak eta benialak. Pekatu mortalean
il ezker, infernura, Pedro Boteroren
galdarara betiko. Zelango bildurre!
Orregaitik, konfesonarioak a morimintu
andia eukien. Gitxien gitxienez, urtean
baten Pazkoazkoagas bete bear zan,
garizuman, Aste Santu aurreko astean,
ejersizioak egiten ziran eta an konfesatu
Pazkoa egunean Gure Jauna artzeako.
Pekatuak? Ene! Ia dana zan pekatua,
domeka eta jaietan mezara joan ez egi-

norbere andreagas kanpoko aragisko serak, relasiñoak aukitea eta beste asko. Bitu noraño, Gure Jaune, mesan konsagratue eskuekas ikututea be pekatu mortala. Abadeak orregaiti euren eskue(k)p(b)edinkitute aukitera, artu leikien forma konsagraue eskuekas, gaur ostera edosinek emoten dau komuniñoa. Selan kanbiau direan gausak e? Orregaiti, lenao, jentea bildurres beterik ebilen da pitean-pitean konfesonaria. Baie batzuk, onik eskrupuloso antzak, ikusite daukodas urrungo mesaurreti be konfesetan yoaten. Segaiti? Ba, bildurregaiti, igual pekatuen bat esatea aistu edo bildurregas aistu in yakola pentsau edo konfesau arren be dueda sartu te badaespada atzera konfesau komuniñoa artu baño len, sespabere beste pekatu barri bet, komuniñoa pekatuen artzea. Batzuk asko padezitan audien infernuen bildurregas.

Baten e estukurea pasau nauen. Mesa nausie san. Yakingosu, se su sau be monagilloa isin sara-ta, gure parrochien iru mesa ote sirean domeka ta yayetan, goxekoa, erdikoa eta mesa nausie. Arrastien ganera errosarioa eta Santisimuen bedinkasiñoa. Estukurea baie andie gero e! Abadea Gure Jaune emoten ebilen da ni pateneagas okospetan ogi apurren ba(t)tx(y)ausien be, ta, ba, abadeak komuniñoa agora emotauen, miñe atera ta miñera, gaur eskure emoten da baie, ta, ba atzotxu bet etorri sen komulgetan da miñen punteregi imini edo, formea yausi in bea yakon da eskuemas lagundu te barrure andratxu orrek. Neuk in nauen neure artean ba se:” ene, pekatu mortala in yok orrek, eskuemas Gure Jaune ikutu”.

tea, blasfemetea, norbere andreagas kanpoko aragizko zerak, relaziñoak eukitea eta beste asko. Begi(ra)tu noraino, Gure Jauna, mezan konsagratua eskuekaz ikututea be pekatu mortala. Abadeak orregaitik euren eskuak bedeinkatuta eukitera, artu leikien forma konsagratua eskuekaz, gaur ostera edozeinek emoten dau komunino. Zelan kanbiatu diran gauzak e? Orregaitik, leenago, jentea bildurrez beterik ebilen eta pitean-pitean konfesonaria. Baina batzuk, oneik eskrupuloso antzak, ikusita daukadaz urrungo meza aurretik be konfesetan joaten. Zergaitik? Ba, bildurregaitik, igual pekatuen bat esatea aaztu edo bildurregaz aaztu egin jakola pentsatu edo konfesatu arren be dueda sartu eta badaezpada atzera konfesatu komuniñoa artu baino leen, ze ezpabere beste pekatu barri bat, komunino pekatuen artzea. Batzuk asko padezitan eudien infernuaren bildurregaz.

Baten e estukurea pasatu neuan. Meza nagusia zan. Jakingo dozu, ze zu zeu be monagilloa izan zara-eta, gure parrochien iru meza egoten ziran domeka eta jaietan, goizekoa, erdikoa eta meza nagusia. Arrastian gainera errosarioa eta Santisimuen bedeinkaziñoa. Estukurea baina andia gero e! Abadea Gure Jauna emoten ebilen eta ni pateneagaz okozpetan ogi apurren bat jausian be, eta, ba, abadeak komunino aora emoten euan, miina atera eta miinera, gaur eskura emoten da baina, eta, ba atsotxu bat etorri zan komulgetan eta miinaren puntaregi imini edo, formea jausi egin bear jakon eta eskuagaz lagundu eta barrura andratxu orrek. Neuk egin neuan neure artean ba ze:” ene, pekatu mortala egin jok orrek, eskuagaz Gure Jauna ikutu”.

Gaur sinistu be eskaunke ingo baie lenaoko dotrinea estuegie san, sorrotzegie, absurdoa. Baie bate(k)p-(b)añño geaok o konfesau be ingo ausen pekatutzet oin buruti pasau be iten e(s)tx(y)akusenak. Bestala gaur, olango traba barik!

Abadeak aure(k)p(b)e, batzuk, sano eskrupulosoak sirean, bates be mesan konsagrasiañoan eta komuniño osteko kopoi te patenan garbisusietan.

Se, ni(k)p(b)dakit abadeari aure-ri entzunde, kosagrasiañooko berbak ondo esan beadorela formea eta arda-
goa konsagretako, bai, latinean esat-
audiesan berbok: "okestenin kor-
pusmeun" ogireko d'ardagorako
beste batzuk: "ikestenin kalisangi
nismeï...t'estait se geao se ardagoana
luseagoa san. Eta, isena estot esango
baie, abade batek isilean baie biten
d'iruten be esatausen berbok e bada-
espada. Bildurrek inde-edo, sein
konsagrau barik itxi.

Da gero, komuniño ostean, kali-
se, kopoi, ta patenea garbitako be,
komediek e batzuk. An ibilte sirean
sapi bategas forma konsagratuen
apurrak ondo garbituten d'uregas
naste edaten. Segaiti diñostesu? Ba,
dotrinako entzuteatati, olango ogi
apur txiki konsagratu bakoitzean
Jaungoikoa dagoalako, da klaro, selan
itxi Gure Jaune olango, ser baten,
partikula baten, partikulea esatortzien
abadeak.

Da gero, bitu e, ori kalise-ta gar-
bituteko sapie, abadea(k)p(b)akarrik
garbitu leikien e, esku bedeinkitudu-
ne(k)p(b)akarrik. Gaurko gasteak
barre ingo laukie onik (g)ausok en-
tzunde. Baie lenaoko eleaxo dotrinea
olangoxea san da aguantau in bear.

Gaur sinistu be ez geunke egingo
baina leenagoko doktrinea estuegia zan,
zorrotzegia, absurdoa. Baina batek baino
geiagok o konfesatu be egingo euazan
pekatutzat orain burutik pasatu be egi-
ten ez jakuzanak. Bestela gaur, olango
traba barik!

Abadeak eurak be, batzuk, sano
eskrupulosoak ziran, batez be mezan
konsagrazinoan eta komunino osteko
kopoi eta patenaren garbizuzietan.

Ze, nik badakit abadeari eurei en-
tzunda, kosagrazinoan berbak ondo esan
bear dirala formea eta ardaoa konsagre-
tako, bai, latinean esaten eudiezan ber-
bok: "(h)oc est enim corpus meum"
ogirako eta ardaorako beste batzuk:
"(h)ic est enim calix sanguinis mei"...
eta ez dakit zer geiago, ze ardoarena
luzeagoa zan. Eta, izena ez dot esango
baina, abade batek isilean baina bitan eta
irutan be esaten euazan berbok e bada-
ezpada. Bildurrek eginda-edo, zein kon-
sagratu barik itxi.

Eta gero, komunino ostean, kaliza,
kopoi, eta patenea garbitako be, kome-
diak e batzuk. An ibilten ziran zapi bate-
gaz forma konsagratuen apurrak ondo
garbituten eta uragaz naaste edaten.
Zergaitik dinostazu? Ba, doktrinako en-
tzuteatatik, olango ogi apur txiki konsa-
gratu bakoitzean Jaungoikoa dagoalako,
eta klaro, zelan itxi Gure Jauna olango,
zer baten, partikula baten, partikulea
esaten eutsoen abadeak.

Eta gero, begi(ra)tu e, ori kaliza-eta
garbituteko zapia, abadeak bakarrik gar-
bitu leikean e, esku bedeinkatudunak
bakarrik. Gaurko gazteak barre egingo
leukie oneik gauzok entzunda. Baina lee-
nagoko eleizako doktrinea olangoxea
zan eta aguantatu egin bear.

Gaur elexa batzuetan konfesonari(k)p(b)e estao. Es ke, inportantea sera da, on itea eta txarto in bosu damututea. Kalte itea da pekatu.

Da, len aistu in yat esatea, baie, len mesak-eta goxes sirean danak, errosarioa arrastis. Da lenaoko mesak latinean, eskendun eser aituden baie mesara yoan bear domeketan, espabere pekatu mortala. Abadea(k)p(b)e lenao erriari lepoa emonda emotaudiesan mesak, oin erriari begire da auskeras, oin sikieran aitu iten du. Au kanbio au serak ekarri auen, selan esaten da ba ori Erromako Aita Santuek iten dauen juntea, -Kontzilioa-? Bai, bai, orixe, orti etorri sen kanbioa.

Oin estaki(t)p(b)a beste puntarantza es ete goasen. Elexara gero ta jente gitxiago dator. Ondiño emen Seberion, tire, entieruetan eta Domusantu te Aste Santuen-da, jenteak akuditan dau baie gitxiagora doa. Abadea(k)p(b) eskastus yoakus, eta barririk estator gitxi baño. Ortxe daukosu, su sau be seminarioan on sintzen, abadegai, eta sure interan Seberion amalau abadegai on sintzien da ba(t)p(b)ño etzan in abade, Don Gerardona. Au de mundue. Oin elexean dotrinea bigundu danean, ele-xak utzituten. D'eskerrak Seberioko parrokie ta beste elexa t'ermitak konpontan borondatesko jentea ibili dana, d'auren artean sure aitexea, aundekak sapatu in daus elexa ta ermita konpontan, s'espabere gausestandu edo yausi. B'orixe, lenaoko dotrineak d'uingoak estaukie antzi(k)p(b)e. Ori bai, persona sintzoa isitea len sein oin bardin e! Orixe da inportantea, se elexta yoatea(k)p(b)-

Gaur eleiza batzuetan konfesionariorik be ez dago. Es ke, inportantea zera da, on egitea eta txarto egin badozu damututea. Kalte egitea da pekatu.

Eta, leen aaztu egin jat esatea, baina, leen mezak-eta goizez ziran danak, errosarioa arrastiz. Eta leenagoko mezak latinean, ez gendun ezer aituden baina mezara joan bear domeketan, ezpabere pekatu mortala. Abadeak be leenao erriari lepoa emonda emoten eudiezan mezak, orain erriari begira eta euskeraz, orain sikieran aitu egiten dogu. Au kanbio au zerak ekarri euan, zelan esaten da ba ori Erromako Aita Santuak egiten dauan juntea, -Kontzilioa-? Bai, bai, orixe, ortik etorri zan kanbioa.

Orain ez dakit ba beste puntarantza ez ete goazen. Eleizara geroago eta jente gitxiago dator. Oraindino emen Zeberion, tira, entieruetan eta Domusantu eta Aste Santuan-eta, jenteak akudietan dau baina gitxiagora doa. Abadeak be eskastuz joakuz, eta barririk ez dator gitxi baino. Ortxe daukazu, zu zeu be seminarioan egon zintzan, abadegai, eta zure interan Zeberion amalau abadegai egon zintzien eta bat baino ez zan egin abade, Don Gerardorena. Au da mundua. Orain eleizearen doktrinea bigundu danean, eleizak utsituten. Eta eskerrak Zeberioko parrokia eta beste eleiza eta ermitak konpontan borondatezko jentea ibili dana, eta euren artean zure aitaxea, eundakak zapatu egin dauz eleiza eta ermita konpontan, ze ezpabere gauzeztandu edo jausi. Ba orixe, leenagoko doktrineak eta oraingoak ez daukie antzik be. Ori bai, persona zintzoa izatea leen zein orain bardin e! Orixe da inportantea, ze eleizara joateak bakarrik ez dau balio, zintzoak izan

akarrik estau baligo, sintzoak isin bea dau personeak, au mundo au konpontako. Bao on be ser konpondu elexa barruen sein kanpoan. Dotrina sein dotrina barik, on badao ser konpondu elexa barruen sein kanpoan.

bear dau personeak, au mundo au konpontako. Doktrina zein doktrina barik, egon badao zer konpondu eleiza barruan zein kanpoan.

59.9. Beleak argitu errotara bidea neskatoari

Lenao errotak inportanteak sirean baserrireko da jentea urrinera yoaten san garie t'artoa iyoten.

Da, ba, baten orko Goikiri aspiko neskato bateri esan i otzen bere aitek:

- I, neskato, gaxokarik ñabik eta esin nona yoan, d'i(k)tx(y)oan beakona Antzasuko errotara.
- Bai, baie errotara bidea estakit ondo ta galtzean banas ser?
- Bai, sera. Ik i bidekurtzean bat-edo topetan bona astoa bota aurreti ta berak eroangona Antzasuko errotaraño, astoak ondo yakisena bideok-eta.

Da, ba, artu kortako asto nabarra, astotzara eta gusti ta gari sorroa otzara batean da arto sorroa bestean dala artu i auen errotako bidea.

Argiñao ganera eldu sanean, ene, bidekurtzea d'iñor es inguruti pre-guntetako be. Astoari iso esan da lotu in i sen ingurure begire. D'an landarrean belak mamarro topetan da beste bela bat bidertzeko artea ganean. Bakisu, belak deskonfiaue-(k)t(d)ire, da beti oten da bat bégiran edo bijiletan besteai abisetako iñor barruntau esker. D'orretara, neskato orrek e, astoa aurreti bota baño len non diñotzen artea ganeko beleari:

- I, belea, sein dona Antzasuko erro-

Leenao errotak inportanteak ziran baserrirako eta jentea urrunera joaten zan garia eta artoa eoten.

Eta, ba, baten orko Goikiri azpiko neskato bateri esan ei eutsan bere aitak:

- I, neskato, gaixokarik niabilk eta ezin nona joan, eta ik joan bearko dona Arantzazuko errotara.
- Bai, baina errotara bidea ez dakit ondo eta galtzean banaz zer?
- Bai, zera. Ik i bidekurtzeren bat-edo topetan badona astoa bota aurretik eta berak eroango auna Arantzazuko errotaraino, astoak ondo jakizana bideok-eta.

Eta, ba, artu kortako asto nabarra, astotzara eta guzti eta gari zorroa otzara batean eta arto zorroa bestean dala artu ei euan errotako bidea.

Argiñao gainera eldu zanean, ene, bidekurtzea eta inor ez ingurutik pre-guntetako be. Astoari iso! esan eta lotu egin ei zan ingurura begira. Eta an landarrean belak mamarro topetan eta beste bela bat bidertzeko artea ganean. Badakizu, belak deskonfiatuk dira, eta beti egoten da bat bégiran edo bijiletan besteai abisetako inor barruntatu ezkerro. Eta orretara, neskato orrek e, astoa aurretik bota baino leen non dinotsan artea gaineko beleari:

tako bidea?

- Kuaaa-kuaaa-kuaaa! -beleak
- Sein? Dimatxetaranza doana?
- Kuaaa-kuaaa-kuaaa!- beleak
- Baies diñona? Baies diñostena?

B'olan bona, arre triki-traka astoa!

Da, ba, aitek esaneko moduen, astoa aurreti dala in i auen neskatoak Antzasuko errotako aronakoa. Bai, astoak onak i dire bidea topetan, lañabera sarratue onda be bai.

- I, belea, zein dona Arantzazuko errota-ko bidea?

- Kuaaa-kuaaa-kuaaa! -beleak
- Zein? Dimatxetaranz doana?
- Kuaaa-kuaaa-kuaaa!- beleak
- Baietz dinona? Baietz dinostena? Ba olan badona, arre triki-traka astoa!

Eta, ba, aitak esaneko moduan, astoa aurretik dala egin ei euan neskatoak Arantzazuko errotako aronakoa. Bai, astoak onak ei dira bidea topetan, lainabera zarratua egonda be bai.

59.10. Begian txindorra eta eperdian zaldarra

Elexean dotrineagas ibili gara leentxuago esta, ba, beste pekaruetariko bat san guredala baten bateri eperdie ikustea, baie gureta eperdie edo beste eskutuko seoser ikustea be pakatue san, oin, gurestala edo gure barik ikusi eskero ba libre. Bueno, pentzaminu utze be pakatue sala entzutea egoan e.

Da, ba, gausa baragarri bet etorri yat (g)ogora. Sera, umean bateri begien txindorrek urten eskero esaten yakon, burlesar: "suk u baten bateri eperdie ikusi otzesu esta? B'orregaiti urten dotzu begien txindorrek eta seguru eperdien saldarrek". Orduen umeak esataudien lotza-gedarres: "begien txindorra bai baia eperdien saldarrak es, guk esto-tzu ikusi iñori eperdirik, begiko txindorrek a beres urten dosku, beres". Je-je-je, umeakas ite sirean bromak. Lenao normala san begien txindorrek urtetea ta saldarra(k)p(b)arres, eperdien esese, ankabitor edo orkatillan eta leku geotan be bai. Gana-dueri be urtetotzien garauek e baie

Eleizean doktrineagaz ibili gara leentxuago ezta, ba, beste pekaruetariko bat zan guradala baten bateri eperdia ikustea, baina gurata eperdia edo beste ezkutuko zeozer ikustea be pakatua zan, orain, gureztala edo gura barik ikusi ezkerro ba libre. Bueno, pentsamentu utsa be pakatua zala entzutea egoan e.

Eta, ba, gauza baragarri bat etorri jat gogora. Zera, umeren bateri begian txindorrek urten ezkerro esaten jakon, burlazar: "zuk u baten bateri eperdia ikusi deutzazu ezta? Ba orregaitik urten deutzu begian txindorrek eta seguru eperdian zaldarrak". Orduan umeak esaten eudien lotsa-gedarrez: "begian txindorra bai baina eperdian zaldarrak ez, guk ez deutzagu ikusi inori eperdirik, begiko txindorrek a berez urten deusku, berez". Je-je-je, umeakaz egiten ziran bromak. Leenago normala zan begian txindorrek urtetea eta zaldarrak barriz, eperdian ezeze, ankabitor edo orkatilan eta leku geiagotan be bai. Ganaduei be urtetan eutsien garauak e baina zaldarra barik zaldarra esaten jako. Leen ez

saldarra barik sulderra esaten yako. Len esegoan gaurko garbikusirik es gaurko medisinarik, d'egoana be karu, bates be indisiñoak. Orregaiti esaten du esakerea: "indisiñoa baño karuago dao". Erremedioak? Asmau in bear. Esaterako, saldarra osatuteko liño sapi bat artu, ur irikinean sartu, ure kentzeako biortu te saldarran ganean iminten san beste sapitxu bet aspian dala sein erre eta an auki aguantau arte beroa. Olan saldarra eldu ite san arinago ta errementau itauen materiek, soltzaiek eta olan osatu arte saldar soldue. Begiko txindorra delikadugoa san d'esin yakon eser in, garbitu d'etxon osatu arte, d'es ikusi bear eperdirik iñori urrungoan, je-je-je-.

Lenao olango garauek eta antze-koak asko ote sirean. Ori, disipula be esan isiten gausona e, bates be umeari disipulak agartu eskero kalentura ta gustiek etorten yakiesan d'al sana in d'aguantau in bear. Gaur, atoan medikuagana.

egoan gaurko garbikuzirik ez gaurko medizinarik, eta egoana be karu, batez be indizinoak(injekzioak). Orregaitik esaten dogu esakerea: "indizinoa (inje-kzioa) baino karuago dago". Erremedioak? Asmatu egin bear. Esaterako, zaldarra osatuteko lino zapi bat artu, ur irakinean sartu, ura kentzeko biurtu eta zaldarran ganean iminten zan beste zapitxo bat azpian dala zein erre eta an euki aguantatu arte beroa. Olan zaldarra eldu egiten zan arinago eta errementatu egiten euan materiak, zoltzaiek eta olan osatu arte zaldar zoldua. Begiko txindorra delikaduagoa zan eta ezin jakon ezer egin, garbitu eta etxodon osatu arte, eta ez ikusi bear eperdirik inori urrungoan, je-je-je-.

Leenago olango garauak eta antze-koak asko egoten ziran. Ori, dizipula be ez zan izaten gauza ona e, batez be umeai dizipulak agertu ezkerro kalentura eta guztiak etorten jakiezan eta aal zana egin eta aguantatu egin bear. Gaur, atoan medikua(ren)gana.

59.11. Bateo eguneko abadearen haserrea

Ako a bateoko abadean bron-kea? Su sau be akordauko sara esta? Se, nauk indo(t)p(b)a!, akordau beo-sule se seu be an sengosan-da, ni sakristau moduen da su monagillo moduen, gastetxue ondiño, danagas akordetako.

Ba, etorri sian bautisukook ele-xara umean bateoa iteko ditean. Otz itauen in be ta, ba, aitibitxi-amabi-txiok ardures, umea negar baten, otzagaiti seguru, te se in audien, ba epelago oteko elexean barruen sartu

Arako a bateoko abadearen bron-kea? Zu zau be akordatuko zara ezta? Ze, neuk egin dot ba!, akordatu bear dozula ze zeu be an zengozan-eta, ni sakristau moduan eta zu monagillo moduan, gastetxoa oraindino, danagaz akordetako.

Ba, etorri ziran bautizukook eleiza-ra umearen bateoa egiteko ditean. Otz egiten euan egin be eta, ba, aitibitxi-amabitxiok arduraz, umea negar baten, otzagaitik seguru, eta zer egin eudien, ba epelago egoteko eleizearen barruan

abadeari etxon barik. Bator abade ori sakristiniti te elexa barruen ikustera badiñotzie asarre be asarre:

– Selan atomau sarie bateatu bako umea elexan sartzean, urtaisue kanpora ume ta gusti.

– Parkatu bei jaune- umean aitek-, estu in txarresean, onesean d'esyakinean baño.

Puf! Da nauk esan nauen ba! Abadeak es otzela ondo eretxiko ele-xan sartzeari te alantxe isin sen.

Bueno, abade orrek in ausen elesportikuko erresuok eta sartu sire-an potontzire. Orduen potontontzie korupean egoan , bastar bastarrear, d'ilun. Gaur aurrean dao elexako obrea in saneti.

Bateaudien ume ori te kandela berinkituegas eroadien aurrera da atzenean bakean akabau sen dana.

Urtekeran, aitibitxi-amabitxiak karameloak eta konfitek artu te txirran botaudiesan inguruko ume t'amek artzeako. Guri eskure emoskusen konfitek eta karameloak, akordetan sara? Da gero aitibitxiri esan in nauntzien ia selan akordau yakien elexan sartzea, abadeari etxon barik, d'esausten ba se:

– Aiko, portikuen gengosan otzakilik eta umea negar baten ikusikeran, gauk esaten gairun ba! Goasen barrure, otzak tragau baño len, epeletara, d'alantxe.

Su, Juamanuel, beste kontu bet, suk ni(k)p(b)añño geao dakisu te yakingosu or kanponasiñoatan umeak bateatuteko, katedralan ondoan, do-tzela barik e, beste elexa antzeko bat (d)aoela batisterio isenekoa. Baiiii!-(nik)-, Italien esaterako Florentzian da Pisan-da. Ikustosu, yakin dot nik abadeari te entzunde. Nauk iten isin

sartu abadeari etxodon barik. Badator abade ori sakristiniatik eta eleiza barruan ikustera badinotsie aserre be aserre:

– Zelan atomatu zarie bateatu bako umea eleizan sartzean, urten egizue kanpora ume eta guzti.

– Parkatu bei jauna- umearen aitik-, ez dogu egin txarrezean, onezean eta ez jakinean baino.

Puf! Eta nauk esan neuan ba! Abadeak ez eutsala ondo eritziko elei-zan sartzeari eta alantxe izan zan.

Bueno, abade orrek egin euazan eleizportikuko errezuok eta sartu ziran potontzira. Orduan potontontzia korupean egoan , bazter bazterrear, eta ilun. Gaur aurrean dago eleizako obrea egin zanetik.

Bateatu eudien ume ori eta kandela bedekituegagaz eroan eudien aurrera eta atzenean bakean akabatu zan dana.

Urtekeran, aitibitxi-amabitxiak karameloak eta konfitak artu eta txirran bota eudiezan inguruko ume eta amek artzeako. Guri eskura emon euskuezan konfitak eta karameloak, akordetan zara? Eta gero aitibitxiri esan egin neuntsan ia zelan akordatu jakien eleizan sartzea, abadeari etxodon barik, eta esan eustan ba ze:

– Aiko, portikuan gengozan otzakilik eta umea negar baten ikusikeran, geuk esaten gairun ba! Goazen barrura, otzak tragatu baino leen, epeletara, eta alantxe.

Zu, Juan Manuel, beste kontu bat, zuk nik baino geiago dakizu eta jakingo dozu or kanponazinoetan umeak bateatuteko, katedralaren ondoan, deusala barik e, beste eleiza antzeko bat dagoala batisterio izenekoa. Baiiii Juan!-(nik)-, Italian esaterako Florentzian eta Pisan-

do(t)p(b)a! su(k)tx(y)akingosule, seminarioan-da ikisite.

Gero, portikuen gaosela, abadeak urtauen da parkeske eskatutzien ain gogor artzegaiti, d'esaotzien ba se, yayoparri bet elexan sartzeako elexean dotrinea bete bea sala.

Gaur oster, bateoko umeak ele-xako lelengo lankan oteire asikerati da potontzie ondoan, danon bistan, d'es lengo moduen korupean d'ilunetan. Bildurtuteko be! Oin ganera, mesa barruan iteire bateoak d'erri gustiek artzean dau parte. Lenao bautisuek umea yayo d'urrungo egunean ite sirean sein bateatu barik il da Linbora yoan. Oin es i dao Linborik. Oin bateoak urteagarrenean be igual iteire da batzuk beranduago be bai. D'andiena, gaur batzuk elexara bes da bateatu bes. Bakisu, asko bisi danak asko ikusi!

eta. lkusten dozu, jakin dot nik abadeai eta entzunda. Neuk egiten izan dot bal Zuk jakingo dozula, seminarioan-eta ikasita.

Gero, portikuan gagozala, abadeak urten euan eta parkeske eskatu eutsien ain gogor artzegaitik, eta esan eutsien ba ze, jaiobarri bat eleizan sartzeako eleizearen doktrinea bete bear zala.

Gaur oster, bateoko umeak eleizako leenengo lankan egoten dira asikeratik eta potontzia ondoan, danon bistan, eta ez leengo moduan korupean eta ilunetan. Bildurtuteko be! Orain gainera, meza barruan egiten dira bateoak eta erri guztiak artzean dau parte. Leenago bautizuak umea jαιο eta urrengo egunean egiten ziran zein bateatu barik il eta Linbora joan. Orain ez ei dago Linborik. Orain bateoak urteagarrenean be igual egiten dira eta batzuk beranduago be bai. Eta andiena, gaur batzuk eleizara be ez eta bateatu be ez. Badakizu, asko bizi danak asko ikusi!

60.1. Zeberioganeko idiaren untzejoa

“A, bai, ori Seberioganeko idiena ser dan? Yakingo e(s)tx(y)oa(t)p-(b)a? Lenao, Seberioganen, erratoki bat on i soan idieri te, erradurak iminteko sein apatxak gausestandu edo kamiñoatan labandu. Da pasau e(s)tx(y)akiat a pasauko soan baie kontau, auxe pasadizu au kontetok “untzeyoa” dala t'estala. Aitik:

“Ba, baten, emen e Ereñotza partean karreteru famau bet on i soan, idie(k)p(b)e alosokoa(k)tx(y)-aukoasan auki be. D'egun beten Seberioganera eroan yoasan idiek

“A, bai, ori Zeberioganeko idiarena zer dan? Jakingo ez joat ba? Leenago, Zeberioganen, erratoki bat egon ei zoan idiei eta, erradurak iminteko sein apatxak gauzeztandu edo kaminoetan labandu. Eta pasatu ez jakiat a pasatuko zoan baina kontatu, auxe pasadizu au kontetan dok “untzejoa” dala eta ez dala. Aitik:

“Ba, baten, emen e Ereñotza partean karreteru famatu bat egon ei zoan, idiak be alozokoak jaukazan euki be. Eta egun baten Zeberioganera eroan joazan idiak erazten. Ganaduak erantzi jakingo

erasten. Ganaduek erantzi yakingok ser dan estok? Ba, orixe, apatxak atondu d'apatxetan erradurak imintea. Da ba allegau soan erratokire d'imini yaurian idi mardoana aidean ugelesko sintxa ganetan, d'asi soasen apatxak atonduten erradurak ondo yosteko. Da, klaro, badaki(k)p(b)a, batzuetan konturik andienagas ibilite be untzeyoa sugertetan dok. Ser dan untzeyoa? Je-je-je, i(k)txa(y)kinbe estok ingo, baie ori auxe ok: beitik, erradura-sulotik untzea sartzean dok eta apas gogorrean badok e(s)tx(y)-akok idieri minik iten baie barruko mampirantza sartzean bayakok e min iten yakok d'ostikeka asten dok (g)anadue. Ba, orrexerri min ite orreri esaten yakok "untzeyoa". Da, ba, txarto kalkulau edo etxakiat segaitiño, untzeyoa in yotzan idi orreri eta entzutea yaukat idi orre(k)p(b)ota-yoan ostikadeagas a erradura aidean yaurtin yoala d'inderran inderragas Urkiolako kanpandorrera allegau soala da golpean golpeagas iru egunean ibili soala ango kanpabuiltakoa kanpaiotzean. Besto batzuk esaten yauriek ak erradureak Seberioko parrokiako sakristini ganeko kanpantxoa yo yoala d'abe egun bidiruen on soala builtaka. A be ikustekoa isingo soan ba e? Onik i gure sarrok iñon danik kontau be gero! Seoser in bear, orduen e(s)tx(y)egoan gaurko entreteniminturik eta umeari seoser kontau bear bein aimaretaraskero, sobretodo negu inguruan".

60.2. Baragarrien arteko exagerazioak

Seberion beti on dosak fanfarroiak on be ta ba tabernara yoan

dok zer dan ez dok? Ba, orixe, apatxak atondu eta apatxetan erradurak imintea. Eta ba allegatu zoan erratokira eta imini jaudian idi mardoena aidean ugalezko zintxa gainean, eta asi zoazen apatxak atonduten erradurak ondo josteko. Eta, klaro, badakik ba, batzuetan konturik andienagas ibilite be untzejoa sugertetan dok. Zer dan untzejoa? Je-je-je, ik jakinbe ez dok egingo, baina ori auxe dok: begitu eik, erradura-zulotik untzea sartzean dok eta apatx gogorrean badok ez jakok idiari minik egiten baina barruko mampirantza sartzean bajakok e min egiten jakok eta ostikoka asten dok ganadua. Ba, orrexerri min egite orreri esaten jakok "untzejoa". Eta, ba, txarto kalkulatu edo ez jakiat zergaitino, untzejoa egin jautsan idi orreri eta entzutea jaukat idi orrek bota joan ostikadeagaz a erradura aidean jaurtin joala eta indarraren indarragaz Urkiolako kanpandorrera allegatu zoala eta golpearen golpeagaz iru egunean ibili zoala ango kanpabuiltakoa kanpaiotzean. Beste batzuk esaten jaudiek ak erradureak Zeberioko parrokiako sakristania ganeko kanpantxoa jo joala eta a be egun bidiruen egon zoala bueltaka. A be ikustekoa izango zoan ba e? Onik i gure zaarrok inon danik kontatu be gero! Zeozer egin bear, orduan ez jagoan gaurko entreteniminturik eta umeari zeozer kontatu bear bein abemarietarazkero, sobretodo negu inguruan".

Zeberion beti egon dozak fanfarroiak egon be eta ba tabernara joan

esketiño d'apur bet edan, ba bakik, iñon direan kontuek kontetosak eta batak andie bota eskero besteak andiagoa.

Or Itorrondon Érrekaldek aukin yoan taberna d'ostatue d'or juntetan soasen orrik baragarriok auren andikeriok o kontetan.

Baten e, an juntau i soasen koa-drilla bat Sandoninguruen, ori Samartolomeko Errubio, Subibarriko Konfiterue, Bertzutengo Txomin, Dimeko tratante barritzu bet eta Malestudiente. Malestudiente nor dan? Ba, propietario andie. Seminaria yoan i soan ikisten da ba urten in yoan, edo bota, d'orregaitiño esaten yotzian "Malestudiente". Propietario andie soan da demandistea. Bueno, b'antxe juntau i soasen baragarri gustiok o Érrekalden ostatu-tabernan.

Lelengo Errubio Samartolomekoa asi i soan berbas bere andikeriek e kontetan d'aiko se esan yoan:

"Ikusten nosuen bakotxean ollarra atetan dostesue komertasiñora. Eske gure ollarra es da selango alangoa gero. Munduen esta ongo gure ollarra baño andiagorik. Aitistesue. Gure ollarran kukurrukuotza Seberio gustien entzuten da ala estose asmetan goxetan? Andie dana letxe, erpa(k)p(b)e endemoniñoa(k)t(d)aukos d'astraka asten danean bildurgarrie da, disgustue baño estoste emoten. Aiko, astraka asten danean, Ariltzeko tellatuetaraño botaten dostes arritxokorrak d'ariltzekoak kexea sartustie tallak apurtu iten yakisela ta. Bildur nes sein ariltzetarran batek atentziñoa esese demanda sartuko ete osten. Orregatik i bakisue se in dodan? Ba ollarra burdi-sokeagas

ezketino eta apur bat edan, ba badakik, inon direan kontuak kontetan dozak eta batak andia bota ezkerro besteak andiagoa.

Or Iturrondon Érrekaldek eukin joan taberna eta ostata eta or juntetan zoazan orreik baragarriok euren andikeriok o kontetan.

Baten e, an juntatu ei zoazan koa-drilla bat Sandoni inguruan, ori San Bartolomeko Errubio, Zubibarriko Konfiterua, Bertzutengo Txomin, Dimako tratante barritsu bat eta Malestudiente. Malestudiente nor dan? Ba, propietario andia. Seminaria yoan ei zoan ikasten eta ba urten egin joan edo bota, eta orregaitino esaten jautsian "Malestudiente". Propietario andia zoan eta demandistea. Bueno, ba antxe juntatu ei zoazan baragarri guztiok o Érrekalden ostatu-tabernan.

Leenengo Errubio San Bartolomekoa asi ei zoan berbaz bere andikeriak e kontetan eta aiko zer esan joan:

"Ikusten nozuen bakotxean ollarra ateraten deustazue komertazinora. Eske gure ollarra ez da zelango alangoa gero. Munduan ez da egongo gure ollarra baino andiagorik. Aitu eistazue. Gure ollarran kukurrukuotsa Zeberio guztian entzuten da ala ez dozue asmetan goizetan? Andia dana letxe, erpak be endemoninoak daukaz eta astraka asten danean bildurgarria da, disgustua baino ez deust emoten. Aiko, astraka asten danean, Areilzako tellatuetaraino botaten deustaz arritxokorrak eta Areilzakoak kexea sartu deustie tellak apurtu egiten jakiezala eta. Bildur naz zein areilzatarran batek atentziñoa ezeze demanda sartuko ete deustan. Orregatik i badakizue zer egin dodan? Ba olla-

amarrau ot ollategiko matzondoan d'astraka in de suster da gusti atera in estaust in ba? Atara, artu area-katea t'ermitondoko arteari dotzela amarrau ot, axe estau aterako d'an on beako doste Gabonetarte. Gabonetan kasulara yoan beoste ollar orrek eta daukot eretxie beste gabonkari andirik i estule beako. Bueno, turroia bai. Guk u Gabonetako turroia direktamente ekarten du Alikanteti d'aurten be bai. Trenean Kalleraño (Miraballeseraño). Bein Kalleraske-ro, Ereñotzako Txakarra eroaten du ipusterriegas da burkada turroia ekarri. Iges be ekarri gaindun da or o Eskori ganean, sataiagas kontrapeso a iten etorri arren, kargean kargeagas iruli in yakun burdie da turroi tableta batzuk u apur-apur in. Kontuek atera, aikas apurrekas bakarrik i inguru gustiko umeak a ganeko tripakadea in audien. Bakisue, Samartolomen badao jeneroa ta erdusie nainos da yan emendatu arteño”.

Errubio Samartolomekoana entzun orduen Txomin Bertzutengoa asi soan berbas asunberdiko txoleteti ardao tragu bet inde, da ba aseana kontau yoan:

“Aiko Errubio, Samartolomen bakarrik esta yaten gero! Guk u asea yaten du asea. Bertzutenen lango asarik estao munduen. Bitu. Baten erne yakun endemoniñosko asa bat. Trungue pagoalangoa d'orriek e endemoniñoak. Kontuek atera norañoakoak se baten ipusterriegas galondoa areatuten ebilen gure ausoko bat d'alangon baten, akordatzakoan, inisitue t'odaie(k)tx(y)o auen, d'asten da txirgorea d'ababusea goienbean da ba erretirau in bear ganadu, itaurreko ta gustiek. Orduen e etzea urrintxu

rra burdi-sokeagaz amarratu dot ollategiko maatzondoan eta astraka egin eta zuztar eta guzti atera egin ez deust egin ba? Artara, artu area-katea eta ermitondoko arteari deutsalala amarratu dot, axe ez dau aterako eta an egon bearko deust Gabonetararte. Gabonetan kasulara joan bear deust ollar orrek eta daukat eretxie beste gabonkari andirik i ez dogula bearko. Bueno, turroia bai. Guk u Gabonetako turroia direktamente ekarten dogu Alikantetik eta aurten be bai. Trenean Kalleraino (Miraballeseraino). Bein Kallerazkero, Ereñotzako Txakarra eroaten dogu ipuzterriegaz eta burkada turroia ekarri. Igaz be ekarri gendun eta or o Eskori ganean, zataiagaz kontrapeso a egiten etorri arren, kargearen kargeagaz irauli egin jakun burdia eta turroi tableta batzuk u apur-apur egin. Kontuak atera, aiekaz apurrekaz bakarrik i inguru guztiko umeak a ganeko tripakadea egin eudien. Badakizue, San Bartolomen badago generoa eta erduzie nainoz eta jan emendatu arteraino”.

Errubio San Bartolomekoarena entzun orduan Txomin Bertzutengoa asi zoan berbaz azunberdiko txoletetik ardao tragu bat eginda, eta ba azearena kontatu joan:

“Aiko Errubio, San Bartolomen bakarrik ez da jaten gero! Guk u azea jaten dogu azea. Bertzutenen lango azarik ez dago munduan. Begitu. Baten erne jakun endemoninozko aza bat. Trungua pagoalangoa eta orriak e endemoninoak. Kontuak atera norainokoak ze baten ipuztarriagaz galondoa areatuten ebilen gure auzoko bat eta alangoren baten, akordatzakoan, inizitua eta odeiak jo euan, eta asten da txirgorea eta abazuzea goianbeean eta ba erretiratu egin

eukien da munas bestaldeko asapeko leorrera yoan sirean. Baia klaro, asorriek e txirgoras bete sirean da pixuen pixuegas asorri bet apurtu in i sen d'dien busterrri ganera yausi d'idi beteri adarra atera eperdi eperditi. Barre iten dosue? Ba oindo estot akabau. Asea lapikoan egosten da esta? B'aiko. Berzutengo asak egosteko lapikoa(k)p(b)e alosokoak isin bea dau d'orretarako iños auki be indu lapiko endemoniño bat, ortxe Tellerin inde, seinde Santa Kurtzeko elexealangoa, d'iños karabie be ibili u asok egosteko. Errubio, gure asea suon ollarragas ondo ongo litike esta? Da ganean turroia, orduxean bai konpleto”.

Asikeran esan doadanes, tratante dimostar bat on i soan eurekas d'a(k)p(b)e ba berea bota barik isin yoan itxi te ba auxe kontau i yoan:

“Ara, suon andikeriok estire esebe an gure errien pasausanan ondoan. Baten e karabi baten ebilen gison bat urterako karea iten da ba deskuiduen baten kare bisie yausi i yakon begietara da begiok o gausestandu. Se in orduen? Ba, aiko, an Dimen, Dimatxean ogeto esanda, arri suri trasparanteak urtetan dau, “espatodislandia” esatoskun maixuek eskolan. Ni nau(k)p(b)e ikusite daukot olango arrie. Maixuek erakutzi itoskun d'errai beten ganean imini eskero, errai doblea ikusten san. Da ba se in audien itzutu orregas? Ba, olangoxe arri suriegas in audesan begi bi da galdukoan lekuen imini. Da ser? Ba, milagroa, len baño obeto ikusi seguru!”

Dana soan esagerasiñoa, gusurre da sarraparrea eta Malestudiantek

bear ganadu, itaurreko eta guztiak. Orduan e etxea urruntxu eukien eta munaz bestaldeko azapeko leorrera joan zirean. Baina klaro, aza-orriak e txirgoraz bete zirean eta pisuaren pisuagaz aza orri bat apurtu egin ei zan eta idien buztarri ganera jausi eta idi bateri adarra atera eperdi eperditik. Barre egiten dozue? Ba oraindino ez dot akabatu. Azea lapikoan egosten da ezta? Ba aiko. Berzutengo azak egosteko lapikoak be alozokoak izan bear dau eta orretarako inoz euki be egin dogu lapiko endemonino bat, ortxe Tellerin eginda, zeinda Santa Kurtzeko eleizealangoa, eta inoz karabia be erabili dogu azok egosteko. Errubio, gure azea suon ollarragaz ondo egongo leiteke ezta? Eta ganean turroia, orduxean bai konpleto”.

Asikeran esan doadanez, tratante dimoztar bat egon ei zoan eurekaz eta ak be ba berea bota barik ezin joan itxi eta ba auxe kontatu ei joan:

“Ara, zuon andikeriok ez dira ezebe an gure errian pasatu zanaren ondoan. Baten e karabi baten ebilen gizon bat urterako karea egiten eta ba deskuiduren baten kare bizia jausi ei jakon begietara eta begiok o gauzeztandu. Zer egin orduan? Ba, aiko, an Diman, Dimatxean obeto esanda, arri zuri trasparanteak urtetan dau, “espatode Islandia” esaten euskun maixuak eskolan. Nik neuk be ikusita daukat olango arria. Maixuak erakutsi egiten euskun eta errai baten ganean imini ezkerro, errai doblea ikusten zan. Eta ba zer egin eudien itsutu orregaz? Ba, olangoxe arri zuriegaz egin eudezan begi bi eta galdukoen lekuan imini. Eta zer? Ba, milagroa, leen baino obeto ikusi seguru!”

Dana zoan esagerazinoa, guzurra

esin yoan geao agoantau te badiño-tziek:

“Bueno, mutilek, saosie ixilik orrik (g)ustiok egiek estosak eta. Gusur utze sarie. Nok sinistuko yok ori Samartolomeko ollarran kontue, da ganera turroiana? D’errematea ori Ariltzeko tellatuena. Ni nau bixi nok Ariltzen, Presalden, d’e(s)tx(y) oat sekule arritxokorrik i barruntau tellatuetan. Gero, Bertzuneko aseana amesetan be esin leik sinistu. D’iri Dimostar gusurri orreri auxe esango-at: emen entzun diresenak selan sinistuko yusek iñok espayosak ukusi, ala bai? Guk es arren akaso arri surisko begidune(k)p(b)ai, no-(k)tx(y)akin?”

Antxe akabau i soan a gusurri tertulie da ba gero bakotxa bere etzera, batzuk u ondo kargaute da besto batzuk u alborakargeagas bidea(k)p-(b)etean.

eta zarraparrea eta Malestudiantek ezin joan geiago agoantatu eta badinotsiek: “Bueno, mutilak, zagozie isilik orreik guztiok egiak ez dozak eta. Guzur utsa zarie. Nok sinistuko jok ori San Bartolomeko ollarraren kontua, eta ganera turroiarena? Eta errematea ori Areilzako tellatuarena. Ni neu bizi nok Areilzan, Presalden, eta ez joat sekula arritxokorrik i barruntatu tellatuetan. Gero, Bertzuneko azearena amesetan be ezin leik sinistu. Eta iri Dimostar guzurri orreri auxe esango deuat: emen entzun diranak zelan sinistuko joaguzak inok ez bajauzak ikusi, ala bai? Guk ez arren akaso arri zurizko begidunak bai, nok jakin?”

Antxe akabatu ei zoan a guzurri tertulia eta ba gero bakotxa bere etzera, batzuk u ondo kargatuta eta beste batzuk u albora-kargeagaz bideak betean.

60.3. Zeberioko sorginak

Ori kontu ori atxinekoa dok. Oneri, Gerardito maistreanari yaukotzat entzunde. Ori bakik i estudio andikoa dok eta arexeri entzune o(k)p(b)ae badiñoat, enok asko akordetan. Ba, baten, seguru, mil kinientos i pikoan, juisioan bat on i soan e(s)tx(y)akiat non be. Ixenak esaun iten yatasak in baie. Bueno, ba seguru, atxineko Juan Aranan batek e denunsiau in i yoasen Diego Guinea da Maria Guesala. Segaitiño? Ba, seguru, Katalina Guesala neskatoa sorginduteagaiti edo, da ganera Pretalandara eroateagiti ango funtzioak iteko, deabru edo akar kontuek. Petralanda Dimen yaok et’ara

Ori kontu ori antzinakoa dok. Oneri, Gerardito maistreanari jaukotsat entzunda. Ori badakik i estudio andikoa dok eta arexeri entzune dok baina badiñoat, ez nok asko akordetan. Ba, baten, seguru, mil kinientos i pikoan, juizioren bat egon ei zoan ez jakiat non be. Izenak ezagun egiten jatazak egin baina. Bueno, ba seguru, antzineko Juan Aranaren batek e denunziatu egin ei joazan Diego Guinea eta Maria Guesala. Zegaitino? Ba, seguru, Katalina Guesala neskatoa sorginduteagaitik edo, eta ganera Pretalandara eroateagaitik ango funtzioak egiteko, deabru edo aker kontuak. Petralanda Diman jagok eta ara aidean

aidean edo egas yoateko untoan bat emoten yaurian seguru, sera esanda: “sasi gustien ganeti te laño gustien aspiti”. Da, ba seoser isingo soan se atzenean kastigue be on i soan errudunentzat. Au kontu au libruen i yatok eta olan bok seoser isingok. Entzutea yaukat au Maria Guesala ementxe Olabarrin bisi sala,gaure etzetik ur, d’ortxe Olabarriko subipean lamiña(k)p(b)e oten soasela.

edo egaz joateko untoren bat emoten jaudian seguru, zera esanda: “sasi guztien ganetik eta laino guztien azpitik”. Eta, ba zeozer izango zoan ze atzenean kastigua be egon ei zoan errudunentzat. Au kontu au libruen ei jatok eta olan badok zeozer izango dok. Entzutea jaukat au Maria Guesala ementxe Olabarrin bizi zala, geure etxetik ur, eta ortxe Olabarriko zubipean laminak be egoten zoazela.

60.4. Olabarriko zubipeko laminak

Olabarri entzute andikoa isin dok betiti. Lekue be espesiala. Aitik. Olabarrin juntetan dosak erreka bi, bata Etxaso-errekea eta besteti Subitxuetati yatorrana, bakik i Subitxuetan beste erreka bi juntetan dosak, Undurrakoa ta Gesalekoa. Bueno ba esan doadana, Etxasokoa ta Subitxuetakoa juntetan doasen puntuen yaok subie inde. D’antxe, antxe subipean oten i soasen lamiñak auren ulle gorriek orrastu t’orrastu. Itxure baten neskatoak i soasen baie anketa- ra bitu eskero, patoan anak seguru, bitarteko mintz eta gusti. Esne sale amurrutuek i soasen seguru da nosonos esnea ganaz ikusi esketiño “*txurie gora- txurie gora*” alaurike asten i soasen.

Jentea birdurkilik ibiltan i soan subie ganeti pasakeran da ba seoser pentzau bear da ba...

Egun beten, Olabarrikoan batek e olango lamiña bat eroan i yoan onesean kortako atakara d’erraperik arako baldekada esnea opatu i yotzan, d’andi buelta orti buelta engañau in i yoan da lamiña orreri beste

Olabarri entzute andikoa izan dok betitik. Lekua be espeziala. Aitu eik. Olabarrin juntetan dozak erreka bi, bata Etxazo-errekea eta bestetik Zubitxuetatik diatorrana, badakik i Zubitxuetan beste erreka bi juntetan dozak, Undurrakoa eta Gezalekoa. Bueno ba esan doadana, Etxazokoa eta Zubitxuetakoa juntetan doazen puntuan jagok zubia eginda. Eta antxe, antxe subipean egoten ei zoazen laminak euren ule gorriak orraztu eta orraztu. Itxura baten neskatoak ei zoazen baina anketa- ra begitu ezker, patoan anak seguru, bitarteko mintz eta guzti. Esne zale amurrutuek ei zoazan seguru eta nozonoz esnea ganaz ikusi ezketino “*txuria gora- txuria gora*” alaurika asten ei zoazan.

Jentea birdurkilik ibiltan ei zoan zubi ganetik pasakeran eta ba zeozer pentzatu bear eta ba...

Egun baten, Olabarrikoren batek e olango lamina bat eroan ei joan onezean kortako atakara eta erraperik arako baldekada esnea opatu ei jautsan, eta andik buelta ortik buelta engainatu egin

lamiña gustiek e betiko selan galdu esanazo. Ak a lamiñeak esan yotzan ba se, San Juan egunean yayoko sekora pareta bustertu r'Olabarriko erreka intillatuteko kurtzeak ines, d'alantxe galduko sireala betiko lamiña gustiek.

Alantxik in i yaurian da santo erremedio. Antxe tragau i soasen lamiña gustiek odola dariola. Gero ba Santo Tomas de Olabarrietako elezea be in i soan da ba bateko badeinkasiñoak eta besteko kanpaiotzak, es i soan oten geao lamiñabildurrik. Oin i Olabarrin e(s)tx(y)aok es lamiñarik es olarik. Oin kamiñosubisko paso biurtu ok Iberre gure ausonara da Mandoipeko beste ausonetara, seinde, Seberiojanera, Amesolara, Elorriara, Ametzara, Gositure, Etxasora...

Nik i Olabarrikoa kontau oa(t)p(b)ae, or goratxuangoan Gositureka yaok subi te gusti, d'an be lamiñak oten i soasen d'okerrak on be Ametzakorta da Gositukoan esanetati. B'orrixek kontuok!

60.5. Malestudiante Zeberioztarra

Malestudiante nor soan? B'ori personaje famosoa isin soan. Propietario andie isin soan baie errentore bisi soan Ailtzeko Presalden. Malestudiante ixena sereti yatorkok o ba seguru seminaria sartu soan baie abade karrera akabau esinik urten yoan eta bota segaiti agaiti ori e(s)tx(y)akiuk eta orrexegaitiño seguru imini i yotzian Malestudiante isen-burlea.

ei joan eta lamina orreri beste lamina guztiak e betiko zelan galdu esanazo. Ak a lamineak esan jautsan ba ze, San Juan egunean jaioko zekor pareta buztartu eta Olabarriko erreka intillatuteko kurtzeak eginaz, eta alantxe galduko zireala betiko lamina guztiak.

Alantxik egin ei jaudian eta santo erremedio. Antxe tragatu ei zoazan lamina guztiak odola dariola. Gero ba Santo Tomas de Olabarrietako eleizea be egin ei zoan da ba bateko badeinkazinoak eta besteko kanpaiotsak, ez ei zoan egoten geiago lamina-bildurrik. Orain i Olabarrin ez jagok ez laminarik ez olarik. Orain kamino-zubizko paso biurtu dok Ibarra gure auzunera eta Mandoipeko beste auzonetara, zeinde, Zeberiojanera, Amezolara, Elorriara, Ametzara, Gorozitura, Etxazora...

Nik i Olabarrikoa kontatu deuat baina, or goratxuangoan Gorozitu-erreka jagok zubi eta guzti, eta an be laminak egoten ei zoazan eta okerrak egon be Ametzakorta eta Gorozitukoan esanetatik. Ba orrixek kontuok!

Malestudiante nor zoan? Ba ori personaje famosoa izan zoan. Propietario andia izan zoan baina errentore bizi zoan Areilzako Presalden. Malestudiante izena zeretik jatorkok o ba seguru seminaria sartu zoan baina abade karrera akabatu ezinik urten joan eta bota zergaitik argaitik ori ez jakiguk eta orrexegaitino seguru imini ei jautsian Malestudiante izen-burlea.

(Orain J. Intxaurreaga 52, sartzen da)

(Orain J.Intxaurrea 52, sartzen da)

Txankoloakas ibiltzen soan kli-klau-kli klau, da barruti abarketak. Or Eskori ganean sagarrak aukiten yoasan da ba umeak a yan es iteko olak untzas gora iminten yoasen. Da baten e, Fidel Eskorikoak a brometan esan Solatxiko umeak sagarrak kuxetan ibiltzen sireala d'ordu e pistolea atera yauskuan da tiro ba(t)p(b)ota gorantz axera. Bildurtute ibiltzen gaintzoasen beragas. D'esoan ibiltzen brometan gero e, se ori untzana abadeak a sermoi ostaien abixau in yoan baten umean bateri kalterik i pasau in es iteko sagarduire esyakinean yoanda. Oño! Broma gitxi Malestudiantegas.

(Orain D.Etxebarria 60, sartzen da barriro)

Bilbora joateko be beretzako bakarrik i arkiletan yoan Lándajo Ermitabarrikoan saldidun burdibolantea. Aberatza soan d'orixe be in ak.Txakurreri be galletak emoten yotzesan yateko da gu barres e txakurren inbidiegas, a be basoan ba esaukie.

Ganera, demandistea soan, bates be onikas a Satulako Leonenakas, da geoagas be bai.Baten e, Madriler demandan joateko geie auki yoan da bakik i se in yoan? Ba beretzako bakarrik i bagoi osoa arkilau da ganera Kallen (Miravallesen) paradarik auki es arren, paraso in yotzan trenari bera montetako.

(Orain J.Intxaurrea 52 sartzen da)

I Damian, a Malestudiante fanfarroia soan baie Satulako Leonenari bildurre isiten yotzian. Beitik i baten e Seberioaneko agostuko Kofradi

Txankloakaz ibiltzen soan kli-klau-kli-klau, eta barrutik abarketak. Or Eskori ganean sagarrak aukiten joazan eta ba umeak a jan ez egiteko olak untzaz gora iminten joazan. Eta baten e, Fidel Eskorikoak a brometan esan Solatxiko umeak sagarrak kuxetan (kogiduetan) ibiltzen zireala eta orduan e pistolea atera jauskuan eta tiro bat bota gorantz aizera. Bildurtuta ibiltzen gintzoazan beragas. Eta ez soan ibiltzen brometan gero e, ze ori untzina abadeak a sermoi ostean abisatu egin joan baten umeren bateri kalterik i pasatu egin ez egiteko sagarduira ezjakinean joanda. Oño! Broma gitxi Malestudiantegaz.

(Orain D.Etxebarria 60, sartzen da barriro)

Bilbora joateko be beretzako bakarrik i arkiletan joan Lándajo Ermitabarrikoaren zaldidun burdibolantea. Aberatza soan eta orixe be egin ak.Txakurrari be galletak emoten jautsazan jateko eta gu barriz e txakurraren inbidiegas, a be bazoan ba ez eukia!

Ganera, demandistea soan, batez be oneikaz a Sautuolako Leonenakaz, eta geiagogaz be bai.Baten e, Madriler demandan joateko deia euki joan eta badakik i zer egin joan? Ba beretzako bakarrik i bagoi osoa alkilatua eta ganera Kallen (Miravallesen) paradarik euki ez arren, parazo egin jautsan trenari bera montetako.

(Orain J.Intxaurrea 52 sartzen da)

I Damian, a Malestudiante fanfarroia soan baina Sautuolako Leonenei bildurra izaten jautsian. Begitu egik i, baten e Zeberioaneko agostuko Kofradi egun baten, ba, ango mezara joan soan eta ba ango bola-jokoak, erromeria eta funtzinoak akabatu zoazanean

egun beten, ba, ango mesara yoan soan da ba ango bola-yokoak erro-meri te funtziñoak akabau soasenean etzerako bidea artu yoan seguru. Da, klaro, Presaldera yoateko Satulati pasau bear, da bildur, d'orduén Martolo Solatxikoagas juntau soan d'a be Solatxirantzako ditean da badiñotzek e:

- I Martolo, etzera lagundu beostek
- Etzera? Selan yoango no(k)p(b)a Presalderaiño iten yoan beroagas.
- Ba, bai, lagundu in beostek se bildur nok Satulati pasetan
- B'artik beste bide bat orti basori(k)p(b)aso.
- Es, es, pentzau bes, lagundu in beostek sein seoser pasau, fraketan be enok kabitan ori jente ori kapas dok e bearrestanan bat iteko da lagundistek.

Da ba belaniko parau te gustiek in i yotzesan da ba lagundu yotzan Presalderaño biek ixerdi bitzetan botaten yoan kanikuleagas.

Presaldera allegau soasenean Malestudiantek e sartu yoan eskue bere txaleko barruko boltzara da bost ogorlekoko surie emon yotzan Martolori laguntegaiti. Orduen diru andie soan ori, bost ogorlekokoa da ganera urresuriskoa.

(Orain D. Etxebarria 60 sartzen da.)

B'olangoxea isin soan Malestudiante. Gero ba gerrea etorri soan da gerraraskero es soan Seberiotik ikusten. Antxe galdu soan bere errastue baie bere feturea ta fetxoriek e(s)tx(y)akusek aistu, ikusi ok estok, onek e Justo ire aitxea(k)-p(b)esotu yoan Malestudiante d'akorduen yaukosak aren istoriek.

etxerako bidea artu joan seguru. Eta, klaro, Presaldera joateko Sautuolatik pasatu bear, eta bildur, eta orduan Bartolo Solatxikoagas juntatu zoan eta a be Solatxirantzako ditean, eta badiñotzak e:

- I Bartolo, etxera lagundu bear deustak
- Etxera? Zelan joango nok ba Presalderaino egiten joan beroagas.
- Ba, bai, lagundu egin bear deustak ze bildur nok Sautuolatik pasetan
- Ba artu egik beste bide bat ortik basorik baso.
- Ez, ez, pentsatu be ez, lagundu egin bear deustak zein zeozer pasatu, fraketan be ez nok kabitan ori jente ori kapaz dok e bearreztanaren bat egiteko eta lagundu eistak.

Eta ba belaniko paratu eta guztiak egin ei jautsazan eta ba lagundu jautsan Presalderaino biak izerdi bitsetan botaten joan kanikuleagas.

Presaldera allegatu zoazanean Malestudiantek e sartu joan eskua bere txaleko barruko boltsara eta bost ogorlekoko zuria emon jautsan Bartolori lagunduteagaitik. Orduan diru andia zoan ori, bost ogorlekokoa eta ganera urrezurizkoa.

(Orain D. Etxebarria 60 sartzen da.)

Ba olangoxea izan zoan Malestudiante. Gero ba gerrea etorri zoan eta gerrarazkero ez zoan Zeberiotik ikusten. Antxe galdu zoan bere errastua baina bere feturea eta fetxoriak ez jakuzak aaztu, ikusi dok ez dok, onek e Justo ire aitaxeak be ezagutu joan Malestudiante eta akorduan jaukazak aren istoriak.

60.6. Erratokiko Kruz-en anteojuak

Emen Subibarrin erratokie aukin yoan Krus-ek eta ba edadean be aurrera ta antijuek erabilten yoasen ganaduek erasteko.

Da baten orko ergoieneko Jose karreterue yoan yakoa estu te larri idie koxo daukela ta. Krus-ek e erratokien sartu orduko esan i yotzan:

- Aiko mutil, erdi imutil ñaok se antiju barik i erdiri(k)p(b)e(s)tx(y)-oat ukusten d'asuntoa sera ok, Mantzamino Satulakoa etorri yatak eta seoser leiduteko antijuek beayasela ta itxi in bear isin yotzadas. Yoai Satulara t'ekarten bostesak antijuok erantzi edo kurauko yotzat apatxa idieri.

Jose karreteruek e estu idie erratokiko ormako arandelan da yoan in soan Satulara Mantzaminogana ta:

- I Mantzamino, onantxi t'onantxi ñatok eta Krus-en antijuek itxi beostesak agudo, ilundu in beayok eta.
- Mekasuen sozt!- kontestau i yotzan Mantzaminok-. Yoan baño estok in, emeti pasau ok Egiko Tomas Andie d'antijuek ikusi yostesanean artu te berak eroan yostesak papelan batzuk laiduteko da gero berak eroateko Krus-eri. Orti, Saututi yoan dok atajue ines. Yoai t'eskatiosak arin, papelok etxongo yauriek eta, irea beinago dok, idie esaik auki sufritan.

Esan da in. Yoan soan Egire, eskatu antijuok Tomas Andieri te santiamen baten plantau soan Subibarrin. Krus-ek orduen imini bere antijuok eta garbitu yotzan apatxarteia idi orreri. Gero, karakol birrindusko enplastue imini yotzan

Emen Zubibarrin erratokia eukin joan Krus-ek eta ba edadean be aurrera eta anteojuak erabilten joazan ganaduak erazteko.

Eta baten orko ergoieneko Jose karreterua joan jakoa estu eta larri idia koxo daukala eta. Krus-ek e erratokian sartu orduko esan ei jautsan:

- Aiko mutil, erdi inutil niagok ze anteaju barik i erdirik be ez joat ukusten eta asuntoa zera dok, Mantzamino Sautuolakoa etorri jatak eta zeozer leiduteko anteojuak bear joazala eta itxi egin bear izan jautsada. Joan adi Sautuolara eta ekarten badeustazak anteojuok erantzi edo kuratuko jautsat apatxa idiari.

Jose karreteruak e estu idia erratokiko ormako arandelan eta joan egin zoan Sautuolara Mantzaminogana eta:

- I Mantzamino, onantxe eta onantxe niatok eta Krus-en anteojuak itxi bear deustazak agudo, ilundu egin bear jok eta.
- Mekasuen zotzl- kontestatu ei jautsan Mantzaminok-. Joan baino ez dok egin, emetik pasatu dok Egiko Tomas Andia eta anteojuak ikusi jaustazanean artu eta berak eroan jaustazak papelaren batzuk leiduteko eta gero berak eroateko Krus-eri. Ortik Zaututik joan dok atajua eginaz. Joan adi eta eskatu egiozak arin, papelok etxodongo (itxarongo) jaudiek eta, irea beinagoa dok, idia ez egik euki sufritan.

Esan eta egin. Joan zoan Egira, eskatu anteojuok Tomas Andieri eta santiamen baten plantatu zoan Zubibarrin. Krus-ek orduan imini bere anteojuok eta garbitu jautsan apatxarteia idi orreri.

da erradurea be bai kontus-kontus untzeyorik in barik.

Orixe ok istorie. Antijuok ondo estimedu on soasen on be. Es ke orduen es soan gaur bestean beütuten begietako sera, bista faltea baie Kruseri gausak ondo itea gustetan yakoaan d'antiju barik es soan atometan idie erasten. Aiko, tardau arren be gausak artes inaskero beti ogeto. Orixe pasau i soan seguru.

Gero, karakol birrinduzko enplastua imini jautsan eta erradurea be bai kontuz-kontuz untzejorik egin barik.

Orixe dok istoria. Anteojuok ondo estimadu egon zoazan egon be. Es ke orduan ez zoan gaur bestean begütuten begietako zera, bista faltea baina Kruseri gauzak ondo egitea gustetan jakoaan eta anteju barik ez zoan atometan idia erazten. Aiko, tardatu arren be gauzak artez egin ezkeru beti obeto. Orixe pasatu ei zoan seguru.

60.7. Zubibarriko errotak

Subibarrin i erratokie esese errota(k)p(b)e on dosak ointzurarte. Bueno, errota bata kurioosa isin soan, Konfiteruena. Aitik, oin Mais-enak bisi oasen etzean Konfiterue bixi soan, au gure etzepeko presako Áldekotarra. D'orduen konfitek iten yoasen kakaoagas da kakao io in bear isiten soan da ondoko errotara eroan bearrean ioten, Konfiteruek e berak montau yoan etzean errota txiker bat eta errotarriok o mogitako astoa erabilten yoan obuena- obuena buelta ta buelta. Da ba famosoa isin soan Konfiterue, es ke orduen Seberio baten konfitek itea esgausea soan ixin be.

Beste errotea alosokoa, ni nauk u geien Bizinti errotarie esotu ñoan, baie orti geao be pasau i dosak.

Errotori andie dok eta atzeko andaparea be itzela. Ni nauk errota esotu yoat baie ori lenao olea isin soan d'inportantea seguru. Kontuek atera isek e olori iteko ure bear soan uregas mogitan soalako olean erruda nausie.

Zubibarrin i erratokia ezeze errota be egon dozak oraintsurarte. Bueno, errota bata kurioosa izan zoan, Konfiteruarena. Aitu egik, orain Maiz-enak bizi doazan etxean Konfiterua bizi zoan, au gure etxepeko presako Áldekotarra. Eta orduan konfitek egiten joazan kakaoagas eta kakao eo egin bear izaten zoan eta ondoko errotara eroan bearrean eoten, Konfiteruak e berak montatu joan etxean errota txiker bat eta errotarriok o mobitako astoa erabilten joan oboan-oboan buelta eta buelta. Eta ba famosoa izan zoan Konfiterua, es ke orduan Zeberio baten konfitek egitea ezgauzea zoan izan be.

Beste errotea alozokoa, nik neuk u geien Bizente errotaria ezagutu nioan, baina ortik geiao be pasatu ei dozak.

Errota ori andia dok eta atzeko andaparea be itzela. Nik neuk errota ezagutu joat baina ori leenago olea izan zoan eta inportantea, seguru. Kontuak atera eizak e ola ori egiteko ura bear zoan, uragaz mobitan zoalako olearen errueda nagusia.

D'ur ori ortxe gaure etzepean artzean soan. Presea in jaudian da gero ubidea kilometro erdikoa ie-ie, da olea baño lentxuago atxa yaok eta atxean tunela inde yaok, ik au(k)p(b)e bakik ori, d'erditertzioan errekarra inean eskapea yaukak, andaparea betetan doanean ur sobrantea errekarra botateko. Orduko denporan ori tunel ori iteko derrigor ixin bear yoan inportanteak olorrek.

Gero ba denporeagas olak sarratuten yoan soasen da ba errota letxe erabilten auren presa, ubide d'andapara ta gusti. Olea itxi t'errota moduen erabilten asi soasenean ergoienekoak orraxe yoaten gaintzosen astoak artu t'arto-gariok ioten. Errotarien Murtzia ixeneko astoa be an ote soan badaespada. Da baten itzela pasau yakoan bateri.

Errotariak e(s)tx(y)audian kobretan diruen, urunear baño, artoa sein garie da klaro, gari sorroa astunagoa isiten soan errotarantzean etzerantzean baño da ba ergoieneko bat asarratu in i soan errotariagas da gedarres gañetu yakoan errotariari:

– Aiko, eñatok (g)eaio ire errotara, pitantza andiegie kentzean dostek eta beste errota batera yoango nok, aun ke sea Arteara, Arteako Errotabarrire, d'agur lapur ori alangori.

Errotari ori besoak ate ganean dausela on soan entzuten d'ergoieneko orrek eperdie emonagas batera badiñotzek atzerik ara:

– Errotea kanbiaukok in, baie errotarie es, an be emen bestean ibiliko asango errotariagas d'igoal txarrago, auk ikusi, ni gero be ementxe ongo nok bekoki astunik imini barik

Eta ur ori ortxe geure etxepean artzean zoan. Presea egin jaudian eta gero ubidea kilometro erdikoa ia-ia, eta olea baino leentxuago atxa jagok eta atxean tunela eginda jagok, ik euk be badakik ori, eta erditertzioan errekarra einean eskapea jaukak, andaparea betetan doanean ur sobrantea errekarra botateko. Orduko denporan ori tunel ori egiteko derrigor izan bear joan inportanteak ola orrek.

Gero ba denporegaz olak zarratuten joan zoazan eta ba errota letxe erabilten euren presa, ubide eta andapara eta guzti. Olea itxi eta errota moduen erabilten asi zoazanean ergoienekoak orraxe joaten gintzoazan astoak artu eta arto-gariok eoten. Errotariaren Murtzia izeneko astoa be an egoten zoan badaezpada. Eta baten itzela pasatu jokoan bateri.

Errotariak ez jaudian kobretan dirutan, urunetan baino, artoa zein garia eta klaro, gari zorroa astunagoa izaten zoan errotarantzean etxerantzean baino eta ba ergoieneko bat asarratu egin ei zoan errotariagas eta gedarrez gainetu jokoan errotariari:

– Aiko, ez niatok geiao ire errotara, pitantza andiegia kentzean deustak eta beste errota batera joango nok, aun ke sea Arteara, Arteako Errotabarrira, eta agur, lapur ori alango ori.

Errotari ori besoak ate ganean dauzala egon zoan entzuten eta ergoieneko orrek eperdia emonagaz batera badiñotsak atzerik ara:

– Errotea kanbiatuko dok egin, baina errotaria ez, an be emen bestean ibiliko azango errotariagas eta igual txarrago, euk ikusi, ni gero be ementxe egongo nok bekoki astunik imini barik.

Da ba yoan in i soan beste erro-
tan batera da yoan barriten ondo baie
denporakarrenean, an be txakurrek
ortosik.

Eta ba joan egin ei zoan beste errotaren
batera eta joan barritan ondo baina
denporakarrenean, an be txakurrak
ortozik.

61.1. Sugeak esnea edan ardiari

Ori subean esneana? Ba, ni gas-
tea nintzen orduin pastore bere asko
inde nago ta ba entzutea euki dot ori
subean kontui ori.

Antza, subean batek esnea eda-
totzein ardieri da pastoreak esin auen
gausonik in gastai denporan.

D'arrastegi beten, lentxuago
batu ardiek eta egurreko aska baten
esne piti bet imini auen d'ate ostaire
joan san sorotz iten.

D'efetibamente, andik lastertxu-
re sube endemoniño bat agartu
yakon askondora d'ai esnea edaten
asi. Subea lusea bere bai baie batesbe
lodie i sen. Orduin ai pastorea joan
san erremintak aukesan lekure, artu
koraña ta rrraaasssttt, erditi ebagi
auen ai subea d'antxe tragau betiko.

Ori sugearen esnearena? Ba, ni gaz-
tea nintzan orduan pastore bere asko
eginda nago eta ba entzutea euki dot ori
sugearen kontu ori.

Antza, suberen batek esnea edaten
eutsien ardieri eta pastoreak ezin euan
gauzonik egin gaztai denporan.

Eta arrastegi (arrastiri) baten, leen-
txuago batu ardiak eta egurrezko aska
baten esne piti bat imini euan eta ate
ostera joan zan sorots egiten.

Eta efektibamente, andik lastertxu-
ra sube endemonino bat agertu jakon
aska ondora eta a esnea edaten asi.
Sugea luzea bere bai baina batezbe lodia
ei zan. Orduan a pastorea joan zan erre-
mintak eukazan lekura, artu kodaña eta
rraaasssttt, erditik ebagi euan a sugea
eta antxe tragatu betiko.

61.2. Sugea besoan biribildu

Baten e an Oroskon itzela pasau
yakon bateri. Igitiegas ebilen bedar
ebaten an e errekatxu bastar baten.
D'alangon baten, antza ekosi bere es,
da, bedar artean subea koxi auen
eskuin d'esetako astirik emon barik i
besoan batu-batu in yakon da gustis
biribildu yakonean estututen asi
yakon, d'estututen d'esin soltau bere
in.

Orduin, subea ausike asi baño

Baten e an Orozkon itzela pasatu
jakon bateri. Igitaiaz ebilen bedar eba-
giten an e errekatxu bazter baten. Eta
alangoren baten, antza ikusi bere ez, eta,
bedar artean sugea kogjdu euan eskuan
eta ezertarako astirik emon barik i beso-
an batu-batu egin jakon eta guztiz biribil-
du jakonean estututen asi jakon, eta
estututen eta ezin soltatu bere egin.

Orduan, sugea ausiki asi baino leen

len errekatxuko potxingoan sartu auen besoa sube ta gusti, d'antxe soltau subeak, espadau ori iten aisigi bere igual ingotzen e. Kontui auki beada subeakas.

Da, ba gero, luseroan auki i eban ai besoa gorri-gorri d'aitu selango kontui e, esatauen ai besoa sekule bere es auela gustis sano auki, beste besoa baño makalago parau yakola.

errekatxuko potxingoan sartu euan besoa sube eta guzti, eta antxe soltatu sugeak, ez badau ori egiten aisiki bere igual egingo eutsan e. Kontua euki bear da sugeakaz.

Eta, ba gero, luzaroan euki ei eban ai besoa gorri-gorri eta aitu zelango kontua e, esaten euan ai besoa sekula bere ez euala guztiz sano euki, beste besoa baino makalago paratu jakola.

61.3. Sugea txoriari tiraka adikuneagaz

Entzutea beti euki ot eta ekosi bere iños in dot e, jakingosu, guk u pastore bearretan denpora asko emoten du begire, besoak makilla ganea iminite. Baten e ardiekas nengoan barrutien usaban ardiekas da ba an elorri beten ganean txori bet ekosi nendun itxure baragarrien d'arrimau in naintzen eskuetako urretxapalu ta gusti.

Fijetan nas ogeto ta non ekostodan elorri eperdien subea gorantza adi txorieri. Orduin palukasu bet emon notzen elorrieri t'orduxean desaparecido sen ai subea da txorie bere bai. Subeak tiritu iten i dotzo txorieri adikuneagas, selango gausea e?

Entzutea beti euki dot eta ikusi bere inoz egin dot e, jakingo dozu, guk u pastore bearretan denpora asko emoten dogu begira, besoak makilla ganean iminita. Baten e ardiekaz nengoan barrutian ugazabaren ardiekaz eta ba an elorri baten ganean txori bat ikusi nendun itxura baragarrian eta arrimatu egin nintzan eskuetako urretxapalu eta guzti.

Fijaetan naz obeto eta non ikusten dodan elorri eperdian sugea gorantza adi txoriari. Orduan palukazu bat emon neutsan elorriari eta orduxean desaparecido zan a sugea eta txoria bere bai. Sugeak tiratu egiten ei deutso txoriari adikuneagaz, zelango gauzea e?

61.4. Itzinako atso-agureak

Ba, esan dotzuten moduin, ni mutikorik on nintzen Iguartze base-riren kridu, d'andi aures aurre ekos-ten da Itxina eta antxe, Lekandara einan, atxak a kurbea iten daun lekuin, as bi daos, as punta bi, seinde sutuni(k)t(d)aosen moduin da Le-

Ba, esan deutsudan moduan, ni mutikorik egon nintzan Iguartze base-riren kridu, eta andik aures aurre ikus-ten da Itzina eta antxe, Lekandara einan, aitzak a kurbea egiten dauan lekuan, aitz bi dagoz, aitz punta bi, zeinda zutu-rik dagozan moduan eta Lekandarantza

kandarantza joan eskero asbitartea ekosten da. D'orrik as biok auren usena daukie. Batari Atzoa esaten otzein da besteari Agurea, bueno Atzo-Agureak se oñean atxa dana da bat.

Esautzutena, ba ni kridu nengoan, da bakisu, lenao erlojuri(k)p(b)-eres d'ardiekas joaten nitzenean, ba usabak sera esatosten:

– Inasio, igurdirantza Itxinako Atzo-Agureari beitu d'Atzo-Agureak iguskie(k) joten ditunean da geispea in igurdie da ta baskaitordu, erdu baskaiten ostera bere arrastegien joateko.

D'alantxe jakiten nendun baskalordui. Klaro, orrek kontu orrek estau balio Orosko gustireko, ori Iberreti Adarora bitarterako da, d'Iguartze bere antxe dago.

Iguskirik on esik i Olarteko Samartolomeko elexan angelus-kanpaiak entzunarteño enendun jakiten igurdie nos dan, baie ai kanpaia urri-neraño entzute san.

B'antxe daos Atzo-Agureak. Peligrosoa(k)t(d)ire orrik atxok e, da baten seguru, montañeruen bat a jausi bere in i sen bateti bestera pasakeran sokeak utz inde. Itxinan kontu andie bea da. Denpora onagas bere kontus, da lañaberea edo denporalea daoenean joan es itea obe, se pastoea(k)p(b)ere baragarri ibilteire bideak ondo jakin arren.

Onik i gaurko montañeru asko atrebidu utze(k)t(d)ires, bildurbakoak eta gero seoser paseu orduin ser? Gero karradea d'elikoteroa ta abarra, baie batzutan berandu.

joan ezkeru a(it)zbitartea ikusten da. Eta orreik aitz biok euren izena daukie. Batari Atsoa esaten eutsoen eta besteari Agurea, bueno Atso-Agureak ze oinean aitzana dana da bat.

Esan deutsudana, ba ni kridu nengoan, eta badakizu, leenago erlojurik bere ez eta ardiekaz joaten nintzanean, ba ugazabak zera esaten eustan:

– Inazio, egurdirantza Itzinako Atso-Agureari begitu eta Atso-Agureak eguzkiak jotzen ditunean eta gerizpea egin eguerdia da eta bazkaitordu, erdu bazkaiten ostera bere arrastirian joateko.

Eta alantxe jakiten nendun bazkalordua. Klaro, orrek kontu orrek ez dau balio Orozko guztirako, ori Ibaratik Adarora bitarterako da, eta Iguartze bere antxe dago.

Eguzkirik egon ezik i Olarteko San Bartolomeko eleizan angelus-kanpaiak entzunarteino ez nendun jakiten eguerdia noz dan, baina a kanpaia urruneraino entzuten zan.

Ba antxe dagoz Atso-Agureak. Peligrosoak dira orreik aitzok e, eta baten seguru, montañeruren bat a jausi bere egin ei zan batetik bestera pasakeran sokeak uts eginda. Itzinan kontu andia bear da. Denpora onagaz bere kontuz, eta lainaberea edo denporalea dagoanean joan ez egitea obe, ze pastoreak bere baragarri ibiltzen dira bideak ondo jakin arren.

Oneik i gaurko montañeru asko atrebidu utsak dira, bildurbakoak eta gero zeozer pasatu orduan zer? Gero karradea eta elikopteroa eta abarra, baina batzuetan berandu.

61.5. Mendigane-ko mutil burrukak

Ai gause selebrea san gero e! Ba lenao, Olarten goxeko seiretako mesara joaten san jentea da ba gero korta bearrak eta ganaduin jatekoak eta in orduin ba astie seinbe(t)k(g)ure aukitandin gasteak se domeketan esin sen in beste bearrrik, pekatue i sen domeketan bear itea ta.

Orduin, ba oniri gaste inder-tzueri sera akordau yakien, Mendiganera joan d'an Seberioiko t'Arteako gasteakas burrekan eitea.

Da, ba juntetan sirean da naikoa san bateren batek esatea:

- Ik esto(k)p(b)alio ni(k)p(b)este!
- Esetz?

D'aste san burrekea segiduin, baie odol barik e, inderrak naurtute-ko bakarrik.

Sasoiko gasteak sirean da dana(k)p(b)ere indertzuek e baie Oroskokoak geitxuao sirean segun esataudin.

Gero ba esakerea bere badao Seberiokoan aldeti Orosko aitituten dan bakotxean:

"Oroskoarrak? Bai, goxean "be(r)ori", igurdien "su", arrastegien "itano" d'iluntzean "lepoa berotu". Kontus Oroskomarrakas!

A gauza zelebrea zan gero e! Ba leenago, Olarten goizeko seiretako mezara joaten zan gentea eta ba gero korta bearrak eta ganaduen jatekoak eta egin orduan ba astia zeinbat gura euki-ten eudien gazteak ze domeketan ezin zan egin beste bearrrik, pekatua ei zan domeketan bear egitea eta.

Orduan, ba oneiri gazte indartsueri zera akordatu jakien, Mendiganera joan eta an Zeberioiko eta Arteako gazteakaz borrokan egitea.

Eta, ba juntetan zirean eta naikoa zan bateren batek esatea:

- Ik ez dok balio nik beste!
- Ezetz?

Eta asten zan borrokea segiduan, baina odol barik e, indarrak neurtuteko bakarrik.

Sasoiko gazteak zirean eta danak bere indartsuak e baina Oroskokoak geitxuago zirean segun esaten eudien.

Gero ba esakerea bere badago Zeberiokoen aldetik Orozko aitatuten dan bakoitzean:

"Oroskoarrak? Bai, goizean "be(r)ori", eguerdian "zu", arrastirian "itano" eta iluntzean "lepoa berotu". Kontuz Orozkomarrakaz!

61.6. Zeberioiko elia Arrabako Landara

Ni asko onas ardiekas pastore an Gorbei inguruin d'atentziñoa geitu-ten osten Seberioiko eliek, sera, basabai errebañuik.

Seberioistarrak elie eroataudin Arrabako Landara, baie, ganaduik ondo atondute gero e, auren arranak iduneti eskegite egurreko ustaiakas.

Ni asko egon naz ardiekaz pastore an Gorbeia inguruan eta atentziñoa dei-tuten eustan Zeberioiko eliak, zera, basabei errebañuak.

Zeberioistarrak elia eroaten eudien Arrabako Landara, baina, ganaduak ondo atonduta gero e, euren arranak idunetik eskegita egurrezko uztaiakaz.

Atentziñoa gaituten audin aik arranak arranotzean. Arrabara eroataudisan. Arraban esie aukien inde sein ganaduik urten barrutiti. D'an aukitaudisan lodituten gero saltzeako.

Ori, Santo Tomasen elia sala diñostesu? Ba, isingo san, nik i orrenbeste estait e, baie ukusite bai, orti Gesaleti gora Aibelaben eskerralde Mendiganera ta gero Pagomakurreti Arrabara eroataudisan. Orixe san Seberioti Gorbeierako bidea. Oin kamiño bi daos erdien, Bikosganekoa da Billaroti doiana. Dandi(k)p(b)ere, guk u Iguartzeti urrago gaunken. Baie selango arranotza? dalan-dalan-dalan...tremendoa!

Atentzinoa deituten eudien aiek arranak arranotsean. Arrabara eroaten eudiezan. Arraban esia eukien eginda zein ganaduak urten barrutitik. Eta an eukiten eudiezan lodituten gero saltzeako.

Ori, Santo Tomasen elia zala dinostazu? Ba, izango zan, nik i orrenbeste ez dakit e, baina ikusita bai, ortik Gezaletik gora Aibelaberen ezkerretik Mendiganera eta gero Pagomakurreti Arrabara eroaten eudiezan. Orixe zan Zeberiotik Gorbeiarako bidea. Orain kamino bi dagoz erdian, Bikoizganekoa eta Villarotik doana. Dandik bere, guk u Iguartzetik urrago geunkan. Baina zelango arranotza? dalan-dalan-dalan...tremendoa!

62.1. Pazkoa egunean zuziak Malmasin ganean

Nik eiñik eindde dekot e Paskoa egunien yoan orra gora, orko Malmasin ganera orregas Buiako Fidel Arestiges, suegas olan ukusteko beste mendi betzutati gaubes. Ori isin sen Aberri egune dala yakitteko. Galtzupilla edo metxotie isitute eitten giñun. Da, Fidel Buiakoa kapritxosoa isin sen d'orise iñi(k)t(d)eku e Sapatu Santu gaubien. Susiyekas batera, estai(t)p(b)a arrana be espauen eroten arrana bere yoteko, d'ori ittauen Buiako Fidelek, asikeran arrana bere bai beste mendi betzutan bere entzuteko Aberri egune datorrela. Urtero yoaten gasen Malmasin ganera galtzupillak suten disela.

Nik eginik eginda daukat e Pazkoa egunean joan orra gora, orko Malmasin ganera orregaz Buiako Fidel Arestigaz, suagaz olan ukusteko beste mendi batzutatik gauez. Ori izan zan Aberri eguna dala jakiteko. Galtzupoila edo metxotea izetuta egiten gendun. Eta, Fidel Buiakoa kapritxosoa izan zan eta orixe eginik daukagu e Zapatu Santu gauean. Zuziekaz batera, ez dakit ba arrana be ez baeuan eroaten arrana bere joteko, eta ori egiten euan Buiako Fidelek, asikeran arrana bere bai beste mendi batzutan bere entzuteko Aberri eguna datorrela. Urtero joaten garezen(gintzazan) Malmasin ganera galtzupoilak sutan dirala.

62.2. San Juanetako kantuak

San Juanetako kantuak? Ene, baiiii! Esaostesu, ameneko gure ama

San Juanetako kantuak? Ene, baiiii! Esan deustazu, ameneko gure ama

defuntie(k)p(b)ere kontauri(k)t(d)-ekotzule oin urtiek esta? Bueno, bea suk kantea gurosu yakiñ esta? Ba bai, San Juan gabillien kantetan giñun solorik solo galtzupillak suten disela. Galtzupillak on esik i metxotie bere bai edo sarda baten puntan saputzek suten bere bai, bea, guk u galtzupillea geio erabili (d)u gariye ereitten giñun eta.

San Juan gabillien auskeras kantetan giñun beo gero erderas bere ikesi giñun, ameneko orko troka parteko erdelduneri entzunde ero. Biyek kantaukotzudes.

SAN JUAN GABILLIEN

San Juan dabil soloetan
goikoetan da bekoetan
arto gariyek
arto gariyek
gobernetan.

SAN JUAN EN JUNIO

San juan en junio
denpora (h)ermoso
sapos y culebras
se (h)a dicho a quemar
alubia, borona y trigo goardar

defunteak bere kontaurik daukatsula orain urteak ezta? Bueno, baina zuk kantea gura dozu jakin ezta? Ba bai, San Juan bagilean kantetan gendun solorik solo galtzupoilak sutan dirala. Galtzupoilak egon ezik i metxotea bere bai edo sarda baten puntan zaputzak sutan bere bai, baina, guk u galtzupoilea geiago erabili dogu garia ereiten gendun eta.

San Juan bagilean euskeraz kantetan gendun baina gero erderaz bere ikasi gendun, ameneko orko troka parteko erdelduneri entzunda edo. Biak kantauko deutsudaz.

SAN JUAN BAGILEAN

San Juan dabil soloetan
goikoetan da bekoetan
arto gariyek
arto gariyek
gobernetan.

SAN JUAN EN JUNIO

San juan en junio
denpora (h)ermoso
sapos y culebras
se (h)a dicho a quemar
alubia, borona y trigo guardar
(OHARRA: Kantuen letra dagoen dagoenean erespetatuko dogu.)

62.3. Laminak eta sorginak polboreak galdu

Emen guretzien estu orrin kontu askoik entzun e bea, entzuni(k)t(d)ekot ameneko lamiñak eta sorgiñek polboreak (g)aldu sittusela.

Anbotoko Señorie bere, entzutie e, ameneko orti Ganekogortati

Emen gure etxean ez dogu orrein kontu askorik entzun e baina, entzunik daukat ameneko laminak eta sorginak polboreak galdu situzala.

Anbotoko Señorea bere, entzutea e, ameneko ortik Ganekogortatik Gor-

Gorbaiera paseta sala garra dariyola, beo, geio esin esan neisu. Ori bere, polboriek (g)alduko sauen, lamiña ta sorgiñen antzien, ameneko, no(k)-tx(y)akiñ ori?

beiara pasetan zala garra dariola, baina, geiago ezin esan neizu. Ori bere, polbo-reak galduko (z)euan, lamina eta sorgi-
nen antzean, ameneko, nok jakin ori?

62.4. Sugeak esnea edan behiari

Ia subiek (g)anadueri esnie eda-totzien? Bai, ori entzuni(k)t(d)ekot, entzunik e. Ardiyeri estot entzun beo beiyeri bai, da bakisu selan? B'ameneko kaderati gora olan batu-batu eindde, boiltan-boiltan igun d'errapeti esnie edan suabe-suabe beyek igirri bere eiñ barik. (Felix Atutxa, buruagaz baietz esaten albo-rik hara)

Su(k)p(b)ere ameneko entzun dosu esta Felis? Bai, koño, nau(k)p-(b)ere entzuni(k)t(d)ekot, aspaldiyan burure etorri bere e(s)tx(y)at eiñ orixe kontu ori bea. (Felix Atutxak bere ondotik)

Kontetie dalako e, ostantzien nik i bildur andiye dotziet subieri gero e bates bere bedar sikuegas d'ibilliskero orrikas udako bero andiyekas.

la sugeak ganadueri esnea edaten eutsien? Bai, ori entzunik daukat, entzunik e. Ardieri ez dot entzun baina beieri bai, eta badakizu zelan? Ba ameneko kaderatik gora olan batu-batu eginda, bueltan-bueltan igon eta errapetik esnea edan suabe-suabe beiak igarri bere egin barik. (Felix Atutxa, senarra, buruagaz baietz esaten alborik hara)

Zuk bere ameneko entzun dozu ezta Felix? Bai, koño, neuk bere entzunik daukat, aspaldian burura etorri bere ez jat egin orixe kontu ori baina. (Felix Atutxak, bere senarrak ondotik)

Kontetea dalako e, osterantzean nik i bildur andie deutsiet sugeari gero e batez bere bedar sikuagaz eta ibili ezke-ro orreikaz udako bero andiekaz.

62.5. Begizkoari eta maskarari bildurra

Entzuni(k)t(d)ekot, orren siñes-tuteri(k)p(b)ere estekot nik e, beño nire ama defuntiek e batenba(t)k-(g)axotu edo edoseñeri gausiek txar-to urten eskero, ene! begiskoa ein-ddotzie, begiskoa!

Gure amak ameneko bildurre isitotzen begizkoari eta serari bere bai ori, karnabaletako maskarie, ba,

Entzunik daukat, orren sinistuterik bere ez daukat nik e, baina nire ama defunteak e batenbat gaixotu edo edozeineri gauzeak txarto urten ezker-o, ene! begizkoa egin deutsie, begizkoa!

Gure amak ameneko bildurra iza-ten eutsien begizkoari eta zerari bere bai ori, karnabaletako maskarea, ba, orrexeri bere bai. Esaten euan maskara egunetan

orrexeri bere bai. Esatauen maskara egunetan es egoala gausonik, ameneko lapurre(k)p(b)ere agartuten siela d'esauen gurisiten maskararik ukusi bere, pekatue ber(e) es bea kasi-kasi pekatue e olan arpegiye tapaute ibilteie ateste egunien.

ez egoala gauza onik, ameneko lapurrak bere agertuten zireala eta ez euan gura izaten maskararik ukusi bere, pekatua bere ez baina kasi-kasi pekatua e olan aurpegia tapatuta ibiltea aratoste egunean.

62.6. Buiagoititik Basaurira esne-saltzen astoagaz

Ni sano esaune nas Bidebiyeta partien, bueno, oiñ i Basauri geiyo entzuten da bea. Guk u, ba, esnie saldu eitten giñun. Astoa artu te Malmasin ganeti Basoselaire da gero Bidebiyetan etzerik etze esnie salduten. Sure familiye bere, bueno, sure andrien familiye bere olantxe esautu nañun da lagun andiyek eiñ gara. Suon bodan bere on giñean da gaur bere ganeko posa emon dostesuen etortiegas.

B'olan ibilli nes urte askoan. Gero karnea atera nañun da gero kotxiegas yoaten nintzen d'askoz bere ogeto. Oin danera nabil kotxien da bestala. Seguru-seguru estakit e bea, ameneko nau isingo nintzen askenengoa astoagaz esnesalduten Basauri parteti.

Ni sano ezaguna naz Bidebieta partean, bueno, orain i Basauri geiago entzuten da baina. Guk u, ba, esnea saldu egiten gendun. Astoa artu eta Malmasin ganetik Basoselaira eta gero Bidebietan etxerik etxe esnea salduten. Zure familia bere, bueno, zure andrearen familia bere olantxe ezagutu neuan eta lagun andiak egin gara. Zuon bodan bere egon ginean eta gaur bere ganeko poza emon deustazuen etortieagaz.

Ba olan ibili naz urte askotan. Gero karneta atera neuan eta gero kotxeagaz joaten nintzan eta askoz bere obeto. Orain danera nabil kotxean eta bestela. Seguru-seguru ez dakit e baina, ameneko neu izango nintzan azkenengoa astoagaz esne-salduten Basauri partetik.

63.1. Bilboko lindero-kontuak

Linderoak? Ni Bilboko beste puntakoa nas, Larraskitukoa, d'ona eskondu nintzen, Buiagoitire, d'au etzaldie Bilbo da orra trokaraño. Sebértxe bere or Gorikoti urrien dao bea ori bere Bilbo da.

Da, or goyen Goribisko dao d'aurrien etze bi ote sien len, oin bat (d)ao, da suete bat isin sen, pertenesi-

Linderoak? Ni Bilboko beste puntakoa naz, Larraskitukoa, eta ona ezkondu nintzan, Bujanagoitira, eta au etxaldea Bilbo da orra trokaraino. Seberetxe bere or Gorikotik urrean dago baina ori bere Bilbo da.

Eta, or goien Goribisko dago eta aurrean etxe bi egoten ziran leen, orain bat dago, eta suete bat izan zan, perte-

du iten isin dau Bilbora, d'ostantzien Arguiara, bai, Goribisko, bai, San Pedroko Sagardui, oin Ipiña, Jose Mari Ipiña da propietariyoa. A etzie linderoan erdi erdiyen on san. Oin suetie yausiri(k)t(d)ao.

nezidu egiten izan dau Bilbora, eta osterantzean Arguiara, bai, Goribisko, bai, San Pedroko Sagardui, orain Ipiña, Jose Mari Ipiña da propietarioa. A etxea linderoaren erdi erdian egon zan. Orain suetia jausirik dago.

63.2. Tabakorria erein Larraskitun

Tabakorik erein dun? Gure aittitte(k)p(b)ai. An ibilte san eguski-begiyen ereiten d'ondo yagotauen.

Gero ba orriyek eitten yakosani-n kontus-kontus apartetan ausen da sikittuten itxi ondo eskegitte.

Gero ba fumau baño lenao pikau-pikau eitten auen da gorde gero pipan erretako. Batzutan arto-kapaxagas bere erretan auen bea normalien e pipan, arrisko metxeruegas sue eindde.

Baten e gure aittitten aitteri gause selebrie pasau yakon. Tabakorriye erre gure da pipea topau esin, da, an ebillen bueltaka burue galdu biarrien, da semiek esaotzen:

- Aitte, se topetan dabil ba beori?
- Ba, se topauko yoa(t)p(b)a, naure pipea, galdu e(s)tx(y)oa(ei)ñ ba
- Pipea? Beorren espanien dauko ba ta
- Egiye barres, nauk inddoa(t)p(b)a, esin galdu isin dodala olan por olan!

Gero atzenien dana(k)p(b)arreka. A pipea Ameriketati ekariye isin sen d'asko estimetan auen, orrexek estutuko auen ameneko.

Tabakorik erein dogun? Gure aittak bai. An ibiltan zan eguzkibegian ereiten eta ondo jagoten euan.

Gero ba orriak egiten jakozanean kontuz-kontuz apartetan euazan eta sikatuten itxi ondo eskegita.

Gero ba fumatu baino leenago pikatu-pikatu egiten euan eta gorde gero pipan erretako. Batzuetan arto-kapaxagaz bere erretan euan baina normalean e pipan, arrizko metxeruagaz sua eginda.

Baten e gure aittaren aitari gauza zelebrea pasatu jakon. Tabakorria erre gura eta pipea topatu ezin, eta, an ebilen bueltaka burua galdu bearrean, eta semeak esan eutsan:

- Aita, zer topetan dabil ba berori?
- Ba, zer topatuko joat ba, neure pipea, galdu ez joat egin ba
- Pipea? Berorren ezpaneau dauka ba eta
- Egia barriz, neuk egin joat ba, ezin galdu izan dodala olan por olan!

Gero atzenean danak barreka. A pipea Ameriketatik ekarria izan zan eta asko estimetan euan, orrexek estutuko euan ameneko.

63.3. Behar askok kontu gitxi

Kontuen bat kontetako? Nik i estot uki kontuetarako astirik e.

Konturen bat kontetako? Nik i ez dot euki kontuetarako astirik e. Gure

Gure etzien labrantza andiye auki giñun, amar bei, paradako sekor bi t'idiyek. Mutikotan bere, iturren da gero nagosie isin orduen idiyen atzeti te sarritten iturreko barik soloa arietuten. Idiye(k)p(b)ustertuteko bere askotan bakarrik. Eta ariegas talkual, busterriyen aspiyen sobeoa eoten san d'an sartu ganaga, toleta ifiñi da labretan galondora. Idiyek ondo esitte auki dusen, espabere lagune bier.

Eskondu nintzenien, ogeta sortzi urtegas, emen Buiagoitin bere kortakada ganadue da ni biarren bonberu. Egunero Bilbora da gero ikusi in bier egunek ser dakarren.

Bonberu kasuen bat kontetako? Ba, asko bea, bat e(s)tx(y)ata aistuko sekule bere. A Urdulisko trenan txokie. Amasazpi edo il sien. Terrible isin sen, estot akordau gure bere, txarto, sano txarto pasau giñun, d'esin eser in ildde egosanakas. Beste egun batzutan trankilloago, bea biar gogorra da bonberuena. Gaur adelantu geyo dao ta obeto bea, oiñ bere gogorra desgrasiye daoenien. Jubilau nintzeneti emen nabil etze inguruen al doana eitten, d'ameneko daukosu lengo kortie oin txoko eindde famili gustiye juntetako.

etxean labrantza andia euki gendun, amar bei, paradako zekor bi eta idiak. Mutikotan bere, itaurren eta gero nagusia izan orduan idien atzetik eta sarritan itaurreko barik soloa areatuten. Idiak buztartuteko bere askotan bakarrik. Eta areagaz talkual, buzterriaren azpian sobeoa egoten zan eta an sartu ganaga, toleta ifini eta labretan galondora. Idiak ondo ezita euki genduzan, ezpabere laguna bear.

Ezkondu nintzanean, ogeita zortzi urtegaz, emen Buiagoitin bere kortakada ganadua eta ni bearren bonberu. Egunero Bilbora eta gero ikusi egin bear egunak zer dakarren.

Bonberu kasuren bat kontetako? Ba, asko baina, bat ez jat aaztuko sekula bere. A Urdulizko trenen txokea. Amasazpi edo il zirean. Terriblea izan zan, ez dot akordatu gura bere, txarto, sano txarto pasatu gendun, eta ezin ezer egin ilda egozanakaz. Beste egun batzutan trankilloago, baina bear gogorra da bonberuena. Gaur adelantu geiago dago eta obeto baina, orain bere gogorra desgrazia dagoanean. Jubilatu nintzanetik emen nabil etxe inguruan aal dodana egiten, eta ameneko daukazu leengo kortea orain txoko eginda familia guztia juntetako.

64.1. Soloak bedeinkatu San Juanetan

Bedeinkatu eintten da, abadie etortzen san urte gustidxetan San Juanetan. Etzekoa(k)p(b)ere eintten gendusan nosipiñ. Kanta itten gendun:

San Juan gabillie
denpora balientie

Bedeinkatu egiten da, abadea etortzen zan urte guztietan San Juanetan. Etzekoak bere egiten genduzan noizean bein. Kantatu egiten gendun:

San Juan gabillie
denpora balientie

sapoak (artoa da zuzena) eta garidxe gorde
San Juan dabil soloetan
goikotan da bekoetan
arto garidxe, arto garidxe
gobernetan.

Kantaitten gendun eta metxotie
ixetute solo gustidxetati ibiltten
gentzen gora ta bera.

Ori San Juan besperan kantaitten
gendun eta urrungo egunien
ifintten da domiñaratzza balkoien
berakatzakas eta lorakas.

sapoak (artoa da zuzena) eta garidxe gorde
San Juan dabil soloetan
goikotan da bekoetan
arto garidxe, arto garidxe
gobernetan.

(Letra errespetatu egin da)

Kantatu egiten gendun eta metxotie
isiotuta solo guztietatik ibiltzen
gintza(z)a n gora eta beera.

Ori San Juan bezperan kantatu egiten
gendun eta urrungo egunean ifintzen
da domiene-aritzza balkoian berakatzakas
eta lorakas.

64.2. Abadeak soloak bedeinkatzen

Lenau bai baie nik estot eseutu
ori, erresau edo eintten geidxien (sic),
kurtzemat ifiñi edo olan soloan, nik
ori entzun dot.

Abadea Arrigorriagati etorten
san bedeinkatuten soloak, uden beti
eta setiembrien edo olan bere bai, se
inddabak emoten gentzesan, inddabak
eta arruntzak, ollaskoak, txorixoak,
kotxe baten etorte san beste
mutil bet eta eraten geidxen(sic),
estakit setako ba, pobrieri emoteko
edo nontzako.

Leenago bai baina nik ez dot eza-
gutu ori, errezatu edo egiten geidxien
(sic), kurtze bat ifini edo olan soloan, nik
ori entzun dot.

Abadea Arrigorriagatik etorten zan
bedeinkatuten soloak, udan beti eta
setienbrean edo olan bere bai, ze inda-
bak emoten geuntsazan, indabak eta
arrauntzak, ollaskoak, txorizoak, kotxe
baten etorten zan beste mutil bat eta
eroaten geidxen(sic), ez dakit zertarako
ba, pobreari emoteko edo norentzako.

65.1. Laminak Kákatzen baserrian

Lamiñak Kákatzen etzean bixi
sienak lelao yoate siela erreka mune-
ra bedarra ebagiten d'erreka munen
topauriela orrasie urregorriskoa,
d'eroauriela etzera.

Eta urrungo egunean yoan
dakon lamiñea d'esaotzen e:

Laminak Kákatza-ren etxean bizi
zireanak leenago joaten zireala erreka
munara bedarra ebagiten eta erreka
munan topatu eudiela orrazia urrego-
rrizkoa, eta eroan eudiela etxera.

Eta urrungo egunean joan jakon
laminea eta esan eutsan e:

“Mañesi, ekarrisu nire orrasi
esposu ekarten nire orrasi
nik kendukot sure bixi”.

“Mañazi, ekarrizu nire orrazi
ez badozu ekarten nire orrazi
nik kenduko dot zure bizi”.

65.2. Petralandako sorginak

Petralandako Landara yoate sisan sorgiñek d’an itaurien juntea, erremerie, da yantzan, d’erremerire yoateko esataurien: “sasi gustien ganeti te laño gustien aspiti”. D’allegeta sien ara da ba an erremerie itaurien, yantzan itaurien da ba baten e sorgin beteri akordau yakon orrik se iten daurien ikusten yoan beadauela bera(k)p(b)e baie txarto esan auen.

Ak esan auen: “laño gustien gañeti te sasi gustien aspiti”. D’allegau sen Petralandara urrrrutute odooooooooo dariola da yoan yakosan sorgiñok eta sorgiñok asi yakosan serean da, besteak se iotzen bateri, estena sartu eperditi. D’arek sorgiñek, estena sartukoak esaotzen:

“Sorgin, sorgin barri
musturre sorrotza dekona ik”.

Petralandako Landara joaten ziran sorginak eta an egiten eudien juntea, erromeria, eta dantzan, eta erromerira joateko esaten eudien: “sasi guztien ganetik eta laino guztien azpitik”. Eta allegetan ziran ara eta ba an erromeria egiten eudien, dantzan egiten eudien eta ba baten e sorgin bateri akordatu jakon orreik zer egiten daudien ikusten joan bear dauala berak be baina txarto esan euan.

Ak esan euan: “laino guztien gaintik eta sasi guztien azpitik”. Eta allegatu zan Petralandara urrrratuta odooooooooo la dariola eta joan jakozan sorginok eta sorginok asi jakozan zerean eta, besteak zer egin eutsan bateri, eztena sartu eperditik. Eta arek sorginak, eztena sartukoak esan eutsan:

“Sorgin, sorgin barri
musturra zorrotza daukana ik”.

65.3. Lamiñarrietako laminak

Lamiña(k)p(b)xixi sien Lamiñarrietan. D’auki audisan suloak, da suloatan itaurien erremerie.

Da yoate san mutil gaste ba(t)tx(y)antzan eiten aurekas. D’ain isi sien majak, kontautzen e beste laguneri:

– I, etorri ari naugas, or, serean, Lamiñarrietan erremerie eiten dok domeketan da.

Laminak bizi zirean Lamiñarrietan. Eta euki eudiezan zuloak, eta zuloetan egiten eudien erromeria.

Eta joaten zan mutil gazte bat dantzan egiten eurekaz. Eta ain izan zirean majak, kontatu eutsan e beste lagunari:

– I, etorri adi neugaz, or, zerean, Lamiñarrietan erromeria egiten dok domeketan eta.

Da, yoan sala a mutille baia anketara fijau sala d'ankak (a)uki euriesela patoan antzekoak.

Eta igirri otzienean lamiñek eurek igirri in dotziela lamiñe(k)-t(d)irela, mutillok o yo-yo-yo ein d'aidean ibillite gero kanpora atera audisela.

65.4. Txakurzuloko txakurra

Txakursulon, Txakursulo beean oki aurien txakur bet eta beskaiten asten sienean botataurien Txakursulo gora, Txakursulo goien asi diela beskaiten da.

Da gora allegetan sanean beskarie yanda topetauen d'an goien esatzien:

– Yoan adi bera, bean yasa(k)p(b)-eskaiten da.

Da txakurre galapaka etorte san bera baie bean be beskaldute tope-tausen.

Da txakurre beskari barik lotzea san.

Eta, joan zala a mutila baina anketa-
ra fijatu zala eta ankak euki eudiezala patoaren antzekoak.

Eta igarri eutsienean laminak eurak igarri egin deutsiela laminak dirala, muti-
lok o jo-jo-jo egin eta aidean ibilita gero kanpora atera eudiezala.

Txakurzulon, Txakursulo beean euki eudien txakur bat eta bazkaiten asten zireanean botaten eudien Txakurzulo gora, Txakurzulo goien asi dirala bazkaiten eta.

Eta gora allegetan zanean bazkaria janda topetan euan eta an goian esaten eutsoen:

– Joan adi beera, beean jagozak bazkai-
ten eta.

Eta txakurra galapaka etorten zan beera baina beean be bazkalduta topetan eua-
zan.

Eta txakurra bazkari barik lotzean zan.

65.5. Jentiletxea Isasin

Ebarista sarrak kontetoskun Isisiko etzea iauriela yentillek. Da yentillek isin siela annndiek eta indertzuek, da botatauriela Isisire arrrrrie Ártetatik asi d'Isisire, Isisiko etzea, yentilletzea eiteko eta esatauri-
riela:

– “Aiba la palanka asta la Salamanka”

Da batek esautzela besteari:

– Esai(k)p(b)ota Salamankaraino palanke se Salamankan neure pariente(k)tx(y)aukoasat eta.

Ebarista zaarrak kontetan euskun Isasiko etxea egin eudiela jentilak. Eta jentilak izan zireala andiak eta indartsuak, eta botaten eudiela Isasira arria Ártetatik asi eta Isasira, Isasiko etxea, jentiletxea egiteko eta esaten eudiela:

– “A(h)i va la palanca (h)asta la Sala-
manca”

Eta batek esan eutsala besteari: Ez egik bota Salamankaraino palanke ze Salamankan neure parienteak jaukazat eta.

65.6. Sorgina katu feturan

Gixon bat ibiltetan gaubetan goruetan. Da gau gustietan yoaten yakon katue, baltza, ederra. Da, katue ederra dala baie, esatauen baie, ba begitu itotzen katu orreri, da katu ori beste gau beten be yoan yakon da esaotzen:

– “Gixona ixin de goruetan?

Da besteak esaotzen, e gixonak:

– Katue ixin de barriketan?

Da, yaurti otzesan gorue ta, da besoa apurtutzen, bueno txarto esan dot, aurreko ankea esan bear nauen, da, besoa apurtute yoan san katu ori. Da, urrungo egunean e ba, urtauen kanpora alboko atzoak a, besoa apurtute, da katue ausoko andrea ixin sen, sorgiñe ixin sen da.

Gizon bat ibiltetan zan gauetan goruetan. Eta gau guztietan joaten jakon katua, baltza, ederra. Eta, katua ederra dala baina, esaten euan baina, ba begiratu egiten eutsan katu orreri, eta katu ori beste gau baten be joan jakon eta esan eutsan:

– “Gizona izan eta goruetan?

Eta besteak esan eutsan, e gizonak:

– Katua izan eta barriketan?

Eta, jaurti eutsazan gorua eta, eta besoa apurtu eutsan, bueno txarto esan dot, aurreko ankea esan bear neuan, eta, besoa apurtuta joan zan katu ori. Eta, urrenge egunean e ba, urten euan kanpora alboko atzoak a, besoa apurtuta, eta katua auzoko andrea izan zan, sorgina izan zan eta.

65.7. Martiakatsu (zozomikotea)

Baten e, pastore bat ei egoan negu luseagas gogaitute, bere ardi-errebañue nos eroango barrutietara. Da ba, martien akabuko egunean, pastore ori, burlesar asi ei yakon martieri d’esan i otzen:

“Martiakatzu, martiakatzu aprilla(n) sartu niaitzu”.

Da, ba, pastore ori posik martia akabatu eskero denpora onak etorriko direla pentzaute, barreka martieri, bueno negueri.

Martiek orduen, pastore orren arrokeriok ikusi orduen non diñotzon aprilleri:

– I, gaur dok nire asken egune ta emongostek eure lelengo egune?

– Artuik gure bok!

Baten e, pastore bat ei egoan negu luzeagaz gogaituta, bere ardi-errebañua noz eroango barrutietara. Eta ba, martiaren akabuko egunean, pastore ori, burlesar asi ei jakon martiari eta esan ei eutsan:

“Martiakatsu, martiakatsu apirilea(n) sartu niaitzu”.

Eta, ba, pastore ori pozik martia akabatu ezker denpora onak etorriko dirala pentsatuta, barreka martiari, bueno neguari.

Martiak orduan, pastore orren arrokeriok ikusi orduan non dinotson apirilari:

– I, gaur dok nire azken eguna eta emongo deustak eure leenengo eguna?

– Artu egik gura badok!

Da, esan da in. Martiek artu otzen aprilleri lelengo egun ori te asten da ekatxa, baie ikeragarrie e, inisitu odai t'aparajue, serue goien bean, edur-aurie botalean. Da ba askenean ardiek (g)ustiek tragautzesan areri pastoreari.

D'orregaitik esaten da martiek ogeta amabi egun daukosela ogeta amaka barik. D'ordurik ona, martien askenengo eguner ta apriliko lelen-gokoari "martikakatzu" yako isena.

Eta, esan eta egin. Martiak artu eutsan apirilari leenengo egun ori eta asten da ekaitza, baina ikeragarria e, inizitu odei eta aparajua, zerua goien-beean, edur-euria bota aalean. Eta ba azkenean ardiak guztiak tragatu eutsazan areri pastoreari.

Eta orregaitik esaten da martiak ogeita amabi egun daukazala ogeita amaika barik. Eta ordurik ona, martian azkenengo egunari eta apirileko leenengokoari "martikakatsu" jako izena.

66.1. Baranbioko baserriko bizimodua

USKERA

Selan nabilen? Ba, ni bere ondo Jangoikoari grasiak. Ondo nabil, amen supastarrien, bero berotan. Artoa garandu, indabak apartau, de, esnea artu ona, d'ondo bisi gara. Estago otzi(k)p(b)ere. Negu bedere ona doba, bai, negu bigune, negu ona doba, bai, de, griperi(k)p(b)ere estu kositen, katarrori(k)p(b)eres, da, osasune ona daukegu, bai, Jangoikoari eskerrak.

Nongoa nasen? Ni, Baranbio goikoa, Baranbio goikoa nas. Uskera berba eiten gendun? Bai, da, uskera bai, dana uskera, berba iten gendun uskaldunek. Danak uskaldunek, auso gustik uskaldunek. Da nire aitek eta ama(k)p(b)ere bai uskera. Nire nebak, arrabak, danak uskera, espabere esposu berba iten uskera tenasie burure, je-je-je. Orain bere olan ein bea geunke, geuk lelen-goko asi se emen bere uskera berbaiten bosu, ka, estau iñok entzuten uskera, iño(k)p(b)eres, alaba(k)p(b)eres, amak eta aita(k)p(b)ai, bestiek es, uskera aka-

EUSKERA

Zelan nabilen? Ba, ni bere ondo Jaungoikoari graziak. Ondo nabil, emen supaztarrean, bero berotan. Artoa garandu, indabak apartatu, eta, esnea artu ona, eta ondo bizi gara. Ez dago otzik bere. Negua bere ona doa, bai, negu biguna, negu ona doa, bai, eta, griperik bere ez dogu kogiduten, katarrorik bere ez, eta, osasuna ona daukagu, bai, Jaungoikoari eskerrak.

Nongoa nazan? Ni, Baranbio goikoa, Baranbio goikoa naz. Euskera berba egiten gendun? Bai, eta, euskera bai, dana euskera, berba egiten gendun euskaldunak. Danak euskaldunak, auzo guztiak euskaldunak. Eta nire aitek eta amak bere bai euskera. Nire nebak, arrebak, danak euskera, espabere ez badozu berba egiten euskera tenazea burura, je-je-je. Orain bere olan egin bear geunke, geuk leenengo(ko) asi ze emen bere euskera berba egiten badozu, ka, ez dau inok entzuten euskera, inok bere ez, alabak bere ez, amak eta aitek bai, besteak

bau dea, ya estao emen uskaldunik ba(t)p(b)ere. Eskondute gero erdiera, danak erdiera

ez, euskera akabatu da, ya ez dago emen euskaldunik bat bere. Ezkonduta gero erdera, danak erdera

ESKONTZEA

Eskondu? Ba, gu eskondu orduin ba joan gintzen agure sar baten etxera, se erre ein sen gure etxea, de gero, agure sar baten etxera joan gintzen bisi isiten d'an bisi gin(t)zen, d'erropak (g)arbitu da kuida-
 dau ondo gisona.

D'etorten san moskorturik e. Gure usaba etorte san moskorturik, de, igoitauen eskillerati gora, d'asten da bueltaka, atzerantza jausi, de, asi eskillara(k)p(b)iera bueltaka de nire amagiñarrebak jo tabikea ta:

– Pilar, jagi satis orti se ori gixon ori eskillara(k)p(b)iera doba, jausi de.

Da nik ixitu petrolioa, se esegoan, orduin esegoan argirik. D'ixitu petrolioa ta, eskillara(k)p(b)iera jatzi de:

- (H)ermojenes, se itosu or? de
- Emen nago, emen nago, jausi nes esta, jausi nes.
- Ala, ala, gora, orti gora.

Da nik (g)oratu besoti, de, ala gora, ala, sugutera, andi kendu sapat-
 tak (g)isonari, d'agarrau besondoti te:

- Goasen o(g)era,-d'eroan oera de-.
- Selan sagos orain (H)ermojenes, da
- Ba, ondo nago, ondo nago.

Ni joan sugutera, eta kefea egin d'esne apur betegas mesklau d'eroan kafea bero-bero, nastaurik, ba, gisonari berotan sartuitekote, kenduitekote otza, se laiturik egoan, se otz eukan. Da gero ba ondo parau sen gisona, ya berotu sen d'ondo egoan.

Da gero, seme –alabak etorri

EZKONTZEA

Ezkondu? Ba, gu ezkondu orduan ba joan gintzan agure zaar baten etxera, ze erre egin zan gure etxea, eta gero, agure zaar baten etxera joan gintzan bizi izaten eta an bizi gintzan, eta erropak garbitu eta kuidatu ondo gizona.

Eta etorten zan mozkorturik e. Gure ugazaba etorten zan mozkorturik, eta, igoten euan eskilaratik gora, eta asten da bueltaka, atzerantza jausi, eta, asi eskilarak beera bueltaka eta nire amaginarrebak jo tabikea eta:

– Pilar, jagi zaitetz ortik ze ori gizon ori eskilarak beera doa, jausi da.

Eta nik izetu petrolioa, ze ez egoan, orduan ez egoan argirik. Eta izetu petrolioa eta, eskilarak beera jatsi eta:

- Hermogenes, zer egiten dozu or? eta
- Emen nago, emen nago, jausi naz ezta, jausi naz.
- Ala, ala, gora, ortik gora.

Eta nik goratu besotik, eta, ala gora, ala, sugetera, andi kendu zapatak gizonari, eta agarratu besondotik eta:

- Goazen oera,-eta eroan oera eta-.
- Zelan zagoz orain Hermogenes, eta
- Ba, ondo nago, ondo nago.

Ni joan sugetera, eta kefea egin eta esne apur bategaz mezklatu eta eroan kafea bero-bero, naastaurik, ba, gizonari berotan sartu egiteko, kendu egiteko otza, ze leiturik egoan, ze otz eukan. Eta gero ba ondo paratu zan gizona, ya berotu zan eta ondo egoan.

Eta gero, seme –alabak etorri ziran

sien Ameriketati, de, eroan gurau-
dien eurekas aite, de:

- Ni es. Ni enoba, surokas enoba, -
itotzien- ni emen ondo nago, de,
enoba ni orti, de:
- Bai, bai aite, etorri beadosu geuges,
etorri beadosu, de:
- Bueno, bueno ba, enpeñetan basa-
rie ainbeste, joango nas, baie ni
emen ederto nago.

Da gero eroan audien eurekas
aite, baie, aite semealabak etxi, de,
gugana igoitauen Koskorrera(sic),
de:

- Ene, basatos (H)ermojenes itotzen
(Kontzek)
- Bai, banator, Kon(t)ze, banator ona
se emen sikanan egoski ederra
artuiten da ta, tanbolin bete gastaña
erre ta emen ederto gagos gu, ederto,
-da, olan bisi sen-, baie ondo, de
gu beti ondo erongo gara.

ETXEKO BEARRAK

Ba bearrak etxien, artoa, eregin
artoa, patatak, sildu edo silak urten
baño lenao, patata(k)p(b)ere ba laian,
laietu, laietu te gero beiekas edo idik,
idipusterrie da ai landu, laborean, da
gero eregin an patatak eta indabak eta
artoa, ta dana, da garie...

Da gastañak uki gendusen de,
solo andi be(t)k(g)eunken d'an kiri-
kiñoak e danak solora batuiten gen-
dusen gurdin, de, gero an pillo baten
itxiten gendusen.

D'an ukiten gendusen kirikiño-
ak. D'ilebete edo olan pilloan. Gero
usteldu iten da kirikiñoa d'eskutillea-
gas joan, eskutilleagas gastañak jo, de
gero gastañak altzau sakure, da gero
kuxu gurdin d'etxera, salduiteko,
d'alan a ber ogei ogerleko artuiten

Ameriketatik, eta, eroan gura eudien
eurekaz aita, eta:

- Ni ez. Ni ez noa, zuokaz enoa, -egiten
eutsien- ni emen ondo nago, eta, ez
noa ni ortik, eta:
- Bai, bai aita, etorri bear dozu geugaz,
etorri bear dozu, eta:
- Bueno, bueno ba, enpeñetan bazarie
ainbeste, joango naz, baina ni emen
ederto nago.

Eta gero eroan eudien eurekaz aita,
baina, aita seme-alabak itxi, eta, gugana
igon egiten euan Koskorrera(sic), eta:

- Ene, bazatoz Hermogenes egiten eu-
tsan (Kontzek)
- Bai, banator, Kontze, banator ona ze
emen sikanan eguzki ederra artu egi-
ten da eta, tanbolin bete gaztaña erre
eta emen ederto gagoz gu, ederto,
-eta, olan bizi zan-, baina ondo, eta gu
beti ondo eroango gara.

ETXEKO BEARRAK

Ba bearrak etxean, artoa, erein
artoa, patatak, zildu edo zilak urten
baino leenago, patatak bere ba laian, laia-
tu, laiatu eta gero beiekaz edo idiak, idi-
puzterria eta a landu, laborean, eta gero
erein an patatak eta indabak eta artoa,
eta dana, eta garia...

Eta gaztañak euki genduzan eta,
solo andi bat geunkan eta an kirikinoak e
danak solora batu egiten genduzan gur-
dian, eta, gero an pilo baten itxiten gen-
duzan.

Eta an eukiten genduzan kirikinoak.
Eta ilabete edo olan pilloan. Gero ustel-
du egiten da kirikinoa eta eskutileagaz
joan, eskutileagaz gaztañak jo, eta gero
gaztañak altzatu zakura, eta gero kogidu
gurdian eta etxera, saldu egiteko, eta alan

bosu ba ai saunken, espabere poooobre, orduin esegoan txakur txikirik. De, Gastañak salduiten gendusen Domu Santuitan mesa bat atetako difuntuentzako, espabere esegoan segas, txakur txiki bet es egoan orduin da gastañak saldu iten gendusen da amagiñarrebak itauen:

“Ba, sikan mesa bat atetako edo bi”. Ba laukoren bat aberastu iten saubien da saldu iten gendusen gastaña(k)t(d)anak.

De gu txikerrak isin garenien, txikitxuik, igitaie kuxu, d'idak ebagiten basora. Txintxorta bat kuxuten genduin, urdaie, da palu beten puntan burrunzulue leges, d'an erre d'ogiegie kuxu aspin ai koipetxui jausteko ogien ganera, de, ai jaten genduin, ai, da goso gero e goso. Orain i urdairik estau iñok (g)ure, baie orduin, ooo! orduin gosoba san urdaie, da gero sagar bat edo bi ganean, da, ba, karra, orduin esegoan a oraingo koplarik, orain, au esto(t)k(g)ure, bestea esto(t)k(g)ure, bestea estata gustetan, d'es, ori es, orduin dana san gausa ona, baie orain es, orain i....

Abarkak? Abarkak (g)arbitu, de, igual ilebeteko, abarketa suri(e)k, medi bal(t)sak, da kakastu iten bada gaur domekea abarketak, a, garbitu suri-suri imini datorren domekarako, espabere esegoan laukorik i besto batzuk erosteko, de, gorde iten san gauzea, laukoak a pesetak, erlak, dirue, lau erleko, ogerleko, d'olan. Orduin erlak, oin kanbiau de dana.

Gastaña(k)p(b)atu orduin, ba, gu jagiten gintzen goxean bostetan, de igual lauretan bere jagi(ten) nintzen ni de gastaña(k)p(b)atzaiten joateko erretxea iten genduin e, erretxea iten genduin gastaña(k)p(b)atzaiten

a ver ogei ogerleko artu egiten badozu ba a zeunkan, ezpabere poooobre, orduan ez egoan txakur txikirik. Eta, gastañak saldu egiten genduzan Domu Santuetan meza bat aterateko difuntuentzako, ezpabere ez egoan zegaz, txakur txiki bat ez egoan orduan eta gastañak saldu egiten genduzan eta amagiñarrebak egiten euan:

“Ba, sikan meza bat aterateko edo bi”. Ba laukoren bat aberastu egiten (z)eubien eta saldu egiten genduzan gastañak danak.

Eta gu txikerrak izan garanean, txikitxuak, igitaia kogidu, eta idak ebagiten basora. Txintxorta bat kogiduten genduan, urdaia, eta palu baten puntan burduntzulia legez, eta an erre eta ogia kogidu azpian a koipetxua jausteko ogiaren ganera, eta, a jaten genduan, a, eta gozo gero e gozo. Orain i urdairik ez dau inok gura, baina orduan, ooo! orduan gozoa zan urdaia, eta gero sagar bat edo bi ganean, eta, ba, karra, orduan ez egoan a oraingo koplarik, orain, au ez dot gura, bestea ez dot gura, bestea ez jat gustetan, eta ez, ori ez, orduan dana zan gauza ona, baina orain ez, orain i....

Abarkak? Abarkak garbitu, eta, igual ilabete(ra)ko, abarketa zuriak, media baltzak, eta kakastu egiten bada gaur domekea abarketak, a, garbitu zuri-zuri imini datorren domekarako, ezpabere ez egoan laukorik i beste batzuk erosteko, eta, gorde egiten zan gauzea, laukoak a pezetak, errealak, dirua, lau errealeko, ogerleko, (ogeierrealeko) eta olan. Orduan errealak, orain kanbiatu da dana.

Gastañak batu orduan, ba, gu jagiten gintzan goizean bostetan, eta igual lauretan bere jagiten nintzen ni eta gastañak batu egiten joateko erretxea(sic)

joan baño len, de, gastaña(k)p-(b)atzaiten joateko opilek, opilek atera labeti, labea es el (h)orno, solemos desir las tortas, de, atetan gendusen opilek joateko gastañaduire gastaña(k)p(b)otaiten. De, umeak neunkesan txikerrak e, de, amagiñarrebak isera suri bet imintauen balkoian d'esatausten:

– Pilar, ori iserori ekosi orduin balkoian, karra etxera e, se umea negarres dago.

Da, nik i iserea ekosten nauenien balkoian, ba, etxi sestoa, de karra bierantza etxera, da, gero gobernau etxien umie d'armosau, da gizonari kuxu armosui da eroan gastañaduire armostako. Da gero ba gurdie bete kirikiños, da, igon gurdi gora da sakatu gurdie. Da gero kirikiños bete orduin ero(a)n solora gurdie deskargetako, an iminteko kirikiñoak soloan.

egiten genduan e, erretxea(sic) egiten genduan gaztañak batu egiten joan baino leen, eta, gaztañak batu egiten joateko opilak, opilak atera labetik, labea es el homo, solemos decir las tortas, eta, ateraten genduzan opilak joateko gaztañaduirea gaztañak bota egiten. Eta, umeak neunkazan txikerrak e, eta, amaginarrebak izara zuri bat iminten euan balkoian eta esaten eustan:

– Pilar, ori izara ori ekusi orduan balkoian, karra etxera e, ze umea negarrez dago.

Eta, nik i izarea ekusten neuanean balkoian, ba, itxi zestoa, eta karra beerantza etxera, eta, gero gobernau etxean umea eta armozatu, eta gizonari kogidu armozua eta eroan gaztañaduirea armozako. Eta gero ba gurdia bete kirikinoz, eta, igon gurdi gora eta sakatu gurdia. Eta gero kirikinoz bete orduan eroan solora gurdia deskargetako, an iminteko kirikinoak soloan.

66.2. Baranbioko jaiak

GARRASTATXUKO JAIA

Andramari urrukoetan selebretan genduin. Andramari urrukoetan esan gure dau Nuestra Señora de Setiembre, ori de Garrastatxukoa, orduin selebretan genduin.

Baranbio gustie, erri gustie joaten san Garrastatxure, ausoak (g)ustiek, da, Garrastatxun sesenak in sien urte baten, Bilboti ekarrite, los toreros, olan esaten da, toreruik, toreros, baie, sesenak iten sien, da jente asko joate san. Da dansea in arrastegien, dansea, da, aurreskuik,

GARRASTATXUKO JAIA

Andramari urrikoetan zelebretan genduan. Andramari urrikoetan esan gura dau Nuestra Señora de Setiembre, ori da Garrastatxukoa, orduan zelebretan genduan.

Baranbio guztia, erri guztia joaten zan Garrastatxura, auzoak guztiak, eta, Garrastatxun zezenak egin ziran urte baten, Bilbotik ekarrita, los toreros, olan esaten da, toreruak, toreros, baina, zezenak egiten ziran, eta jente asko joaten zan. Eta dantzea egin arrastirian, dantzea,

mutil neskatoak d'eskondui(k)p-(b)ere bai aurrekuiten audin, aurreku asko Garrastatxun. Tanborile Bilboti joate san, tanborilerue, d'erromeri andie iten san Garrastatxun. Orain asko galdu de erromerie Garrastatxun, Baranbio(k)p(b)ere estauko eser, akabau iten doa dana, gero eserberes.

SANTA AGEDA

Garrastatxuko kanturik? Es, Garrastatxuko kanturik estot ensun, estauket ideari(k)p(b)ere.

Santageda bai. Santageda kante-tan gendun, orain bere bai esaten da Santageda. Santageda uskera(s), baie aistu in yat, uskeras ni(k)p(b)anen-kien baie aistu in yat, jakin bai baie aistu in de dana. Seoser akordetan nas:

Santa Agedaren alabansak
kantatutera noa ni
grasia diskat(sic) imini
Santa on oneri.

Alkate jaunagas egondu gera
ausoko errestaldian(sic)
libertadia geurakin degu
ibil(t)seko bakian.

Nagosi jauna aurrera
erreberensia lurrera
lotza(s) bere (b)ai etorri gera
jaune berorren aurrera.

Etxonetako nagosi jauna
oso gisontxo noblia
aistu in yat, pero era más bonito!
Usoa doa otara
nire begia lotara
nagosi jauna
aistu in yat, pero cómo es? era
más bonito!

eta, aureskuak, mutil neskatoak eta ezkonduak bere bai aureskua egiten eudien, auresku asko Garrastatxun. Tanborila Bilbotik joaten zan, tanborilerua, eta erromeria andia egiten zan Garrastatxun. Orain asko galdu da erromeria Garrastatxun, Baranbiok bere ez dauka ezer, akabatu egiten doa dana, gero ezer bere ez.

SANTA AGEDA

Garrastatxuko kanturik? Ez, Garrastatxuko kanturik ez dot entzun, ez daukat idearik bere.

Santa Ageda bai. Santa Ageda kante-tan gendun, orain bere bai esaten da Santa Ageda. Santa Ageda euskeraz, baina aaztu egin jat, euskeraz nik banenkien baina aaztu egin jat, jakin bai baina aaztu egin da dana. Zeozer akordetan naz:

Santa Agedaren alabantzak
kantatutera noa ni
grazia diskat(sic) imini
Santa on oneri.

Alkate jaunagaz egondu gera
aузoko errestaldian(sic)
libertadea geurekin degu
ibiltzeko bakian.

Nagusi jauna aurrera
erreberentzia lurrera
lotsaz bere bai etorri gera
jauna berorren aurrera.

Etxonetako nagusi jauna
oso gizontxo noblia
aaztu egin jat, pero era más bonito!
Usoa doa otara
nire begia lotara
nagusi jauna
aaztu egin jat, pero cómo es? era
más bonito!

UME KANTAK

Txikitxu polit ori
 ser dosu negarres
 aitek tabernarako
 dirurik emon es.
 Aitek tabernarako
 dirurik emon es
 txikitxu polit ori
 ser dosu negarres.

Durangon baskaldute
 Mañariti gora
 Aite San Antonio
 Urkiolakora.

Seinbategen eiten dautzo
 Aite San Antoniyori
 egun batian yoan
 da bestian etorri.

Bueno, guk u yoan estu esaten,
 joan, baie ensun in du orlan, yoan
 ikisi in du orlan, joan esaten du.

UME KANTAK

Txikitxu polit ori
 zer dozu negarrez
 aitek tabernarako
 dirurik emon ez.
 Aitek tabernarako
 dirurik emon ez
 txikitxu polit ori
 zer dozu negarrez.

Durangon bazkalduta
 Mañaritik gora
 Aita San Antonio
 Urkiolakora.

Zeinbategen eiten deutso
 Aite San Antoniori
 egun batean joan
 da bestean etorri.

Bueno, guk u "yoan" ez dogu esaten, **joan**, baina entzun egin dogu orrelan, "yoan" ikasi egin dogu orrelan, **joan** esaten dogu.

66.3. Sorginak Baranbion

Sorginek? Bai, sorgine(k)p(b)ai. Sorginen zuloa geure etxe ondoan dago, sorginen suloba esaten daudie. De gu txikerrak isen garenien bildurre pasetan andi, bildurre, da sorginek urtengo daudie orti da tragauko gatubies. Orduin sorginek, da, guk karra gora da karra biera sorginsulo aurretiki. Guk karra iten gendu in da sorginok o ba es audin urteiten kanpora, baie sorginsuloa esaten daudie, an egoan sorginsuloba.

Selakoak sirian? Estakit selangoak isingo diren sorginok, estait, nik ekosi estotein sorginik e baie ensun bai sorgin sulob(a), ensun asko.

Sorginak? Bai, sorginak bai. Sorginen zuloa geure etxe ondoan dago, sorginen zuloa esaten daudie. Eta gu txikerrak izan garanean bildurra pasetan andi, bildurra, eta sorginak urtengo daudie ortik eta tragatuko gaituez. Orduan sorginak, eta, guk karra gora eta karra beera sorginzulo aurretiki. Guk karra egiten genduan eta sorginok o ba ez eudien urten egiten kanpora, baina sorginzuloa esaten daudie, an egoan sorginzuloa.

Zelakoak zirean? Ez dakit zelangoak izango diren sorginok, ez dakit, nik ikusi ez dot egin sorginik e baina entzun bai sorginzuloa, entzun asko.

Txarrak sirian? Txarra(k)p(b)ai, kuxuten daudienien sulora sartuitten audiesan umeo(k)p(b)arrure, sorgin-sulora, esataudien, guk ekosi estu ein, baie, ensun, ensun bai.

Sorginen konturik estait. Sorginek kuxuten basatubie, ba sulora sartu, esataudien, guk ekosi estogu egin sorginik, ensun, sorgine(k)t(d)agos or sulorretan, sulorretan sorgine(k)-t(d)agos...

AGURRA

Su, gurosunien etorri satis. Berbaiteko posik nago d'olan ba berbaitu sati betien.

Bueno, ondo ibili de beste egun betarte. Ondo ibili de gitxi gastau, de bitartien ondo pasau. Agur.

Txarrak zirean? Txarrak bai, kogiduten daudienean zulora sartu egiten eudiezan umeok barrura, sorginzulora, esaten eudien, guk ikusi ez dogu egin, baina, entzun, entzun bai.

Sorginen konturik ez dakit. Sorginak kogiduten bazaitue, ba zulora sartu, esaten eudien, guk ikusi ez dogu egin sorginik, entzun, sorginak dagoz or zulo orretan, zulo orretan sorginak dagoz...

AGURRA

Zu, gura dozunean etorri zaituz. Berba egiteko pozik nago eta olan ba berba egiten dogu zati batean.

Bueno, ondo ibili eta beste egun baterarte. Ondo ibili eta gitxi gastatu, eta bitartean ondo pasatu. Agur.

67.1. Baranbioko euskera

Baranbion, oin erdiera sano baie emen etxien, uskera etxekoa(k)p-(b)akarrik. Len, osterantzien ausoko gustik uskera berba iten (d)audie(n).

Semat urte nik? Larogeta saspi, asko dire. Txikerretan beti uskera bai, baie gizona etor orduin akabau sen uskerie.

Eskolan erdiera.

Bierrak? Jenteak etxien orduin, ganaduigas, orduin es egoan irebasirik oin leges, oin edosein lekuten da(g)o irebasie sano.

Oin danok obeto. Ya Landabason estao iñor, Laudion bisire.

Intxutaspen? Emen beti, irugarren edo laugarren matrimonioa bisi siren, gu igoal laugarrena.

Baranbion, orain erdera sano baina emen etxean, euskera etxekoak bakarrik. Leen, osterantzian auzoko guztiak euskera berba egiten eudien.

Zenbat urte nik? Laurogeita zazpi, asko dira. Txikerretan beti euskera bai, baina gizona etorri orduan akabatu zan euskerea.

Eskolan erdera. Bearrak? Jenteak etxean orduan, ganaduagaz, orduan ez egoan irabazirik orain legez, orain edozein lekutan dago irabazia sano.

Orain danok obeto. la Landabason ez dago inor, Laudion bizi dira.

Intxutaspen? Emen beti, irugarren edo laugarren matrimonioa bizi ziran, gu igual laugarrena.

Minak? Mina(k)p(b)ai. Baskariegas joate nitzen. Amaketan urtein da rapa-rapa Altubeko minati biera, de, biar itaudien suloan, bier itauen da, esebere irebasteko, alan da se, lengo bisie d'oraingoa, orain bodatan(sic) bisi de jente gustie.

Sorginek? Nik estot ensun orlango konturik. Bueno, orti, llobeneti aurrera daosela sorginek, letañi erreka aldien, bai, ori ensunde dauket.

Bierrak? Etxien sugete erdien artomokolak surituten, da ganaduik eta len bier asko.

Baranbioko uskerie? Baranbioko uskera feoa da, Oroskokoan antzekoa.

Egunek? Ilena, martisena, egustena, eguena, barikube, sapatue de domekie.

Gaurko denporie? Gaur odeie(k)t(d)agos, tronadie etorko da, gaur bere igoal etorko da euri(e) bere, bai, oin majo dago.

Ardiek? irurogei edo. Gure mutille orti joan da aunsetara. Ene? nire nebiek e auntz errebañuegas orduin bisi sen, aunsekas, bai, asko. Ak a gorriek ekosi ausen gerre denporan. Eron otziesan ardik eta asurik Urrujolati, aunse(k)p(b)ere aumakas estait se lekutera, a(k) pasauen la cuarentena en la crus.

Garrastatxu? Garrastatxuko Amabirjinea ur dago. Garrastatxure errosario bat erresetan sarri joaten gintzen, domeketan. Dansea bere eite san Amabirjinean egunien.

Minak? Minak bai. Bazkariagaz joaten nintzan. Amaiketan urten egin eta rapa-rapa Altubeko minatik beera, eta, bear egiten eudien zuloan, bear egiten euan eta, ezer bere irabazteko, alan da ze, leengo bizia eta oraingoa, orain bodatan(sic) bizi da jente guztia.

Sorginak? Nik ez dot entzun olango konturik. Bueno, ortik, illobarenetik aurrera dagozala sorginak, letania erreka aldean, bai, ori entzunda daukat.

Bearrak? Etxean sugete erdian artomokolak zurituten, eta ganaduak eta leen bear asko.

Baranbioko euskerea? Baranbioko euskera feoa da, Orozkokoaren antzekoa.

Egunak? Ilena, martizena, eguaztena, eguena, barikua, zapatua eta domekea.

Gaurko denporea? Gaur odeiak dagoz, tronadea etorriko da, gaur bere igual etorriko da eurie bere, bai, orain majo dago.

Ardiak? irurogei edo. Gure mutila ortik joan da auntzetara. Ene? nire nebeak e auntz errebañuagaz orduan bizi zan, auntzekaz, bai, asko. Ak a gorriak ikusi euazan gerra denporan. Eroan eutsiezan ardiak eta azuriak Urrujolatik, auntzak bere aumakaz ez dakit ze lekutara, ak pasatu euan la cuarentena en la cruz.

Garrastatxu? Garrastatxuko Amabirjinea ur dago. Garrastatxura errosario bat errezetan sarri joaten gintzan, domeketan. Dantzea bere egiten zan Amabirjinearen egunean.

68.1. Eskoledadeko bizimodua

Ni ixin nintzen txikerretan, gustis ungoxeko uniñokoa e, nasionalis-

Ni izan nintzan txikerretan, guztiz oraingoxeko uninokoa e, nazionalistea.

tea. Lau urte ile bi gitxiago(g)as il sen Sabino Arana, da, kantetaudien, Sabino Aranan kantuek kantetan situesan, da nau(k)p(b)e kantetan nituen. Da gero aistu be batzuk in yatasan, besto batzuk es, da, olan.

Da gero kaskondure allegau nintzen orduen, beti nintzen, beti katolikea, beeeeti.

Nik erresetan nintuen errosarioa(k)p(b)akarri(k)p(b)e igual, da, errosarioa etxean familien, saspi urtegas nauk erresetan nauen, saspi urtegas nauk aurreti e, artean amagas, da gero nauk.

D'ibili nintzen eskolara da, eskolan be enintzen mamalea, besto-batzun modukoa edo undio igual espabiladago ixingo nintzen, baie, erderarik ba(t)p(b)enenkien, axek (g)altzean nindun.

Baten e, mutiplikar iten egon gintzesan eskolan da, ba, surre nintzenes, ba pasau in nauntzen aurreko neskatoari, berak es auen yakin da. Baie e(s)tx(y)akon gustau nik aurreratutea. Neskatori arroa san d'amenasau in nindun etxerantzean bere nebakaz urtengostela bidean da. Da, ba, etxerantzean nire lagun bet e bildur baie ni nau es. Etxerantzean, errementarien sorrostan eroaneko igitiegas yoan nintzen da, bidean, ak neskato arroak urtoskun bidera nebakas da paluegas yo. Nik orduen yo igitiegas d'atzamarrean ebegie in nauntzen d'odolagas ondatu erropak. Atzera be amenasue botosten da ni bildur etxera yoaten gurasoak se esango be. Da, yoan nintzanean de dana kontau, auxe esaostien:

– Ara Antoni, orrek neskato orrek neba(k)p(b)adaukos, suk (g)urasoa(k)t(d)aukosus de yoan trankila eskolara.

Lau urte ile bi gitxiagogaz il zan Sabino Arana, eta, kantetan eudien, Sabino Aranaren kantuek kantetan zituezan, eta neuk be kantetan nituen. Eta gero aaztu be batzuk egin jatazan, beste batzuk ez, eta, olan.

Eta gero kaskondura allegatu nintzan orduan, beti nintzan, beti katolikea, beeeeti.

Nik errezetan nintuen errosarioak bakarrik be igual, eta, errosarioa etxean familian, zazpi urtegas neuk errezetan neuan, zazpi urtegas neuk aurretik e, artean amagaz, eta gero neuk.

Eta ibili nintzan eskolara eta, eskolan be ez nintzan mamalea, beste batzun modukoa edo oraindino igual espabiladago izango nintzan, baina, erderarik bat be ez nenkien, arexek galtzean nindun.

Baten e, mutiplikar egiten egon gintzazan eskolan eta, ba, zuurra nintzanez, ba pasatu egin neuntsan aurreko neskatoari, berak ez euan yakin eta. Baina ez jakon gustatu nik aurreratutea. Neskato ori arroa zan eta amenazatu egin nindun etxerantzean bere nebakaz urtengo deustala bidean eta. Eta, ba, etxerantzean nire lagun bat e bildur baina ni neu ez. Etxerantzean, errementarian zorrotan eroaneko igitaiagaz joan nintzan eta, bidean, ak neskato arroak urten euskun bidera nebakaz eta paluegaz jo. Nik orduan jo igitaiagaz eta atzamarrean ebegie egin neuntsan eta odolagaz ondatu erropak. Atzera be amenzua bota eustan eta ni bildur etxera joaten gurasoak zer esango be. Eta, joan nintzanean eta dana kontatu, auxe esan eustien:

– Ara Antoni, orrek neskato orrek nebak badaukaz, zuk gurasoak daukazuz eta joan trankila eskolara.

Da, ba, alantxe in nauen. Baie maistrearen bildurre nik. D'esan nauntzanean pasaukoa, esosten:

– Ondo in dotzesu, ederto!

Ene orduen! Nik obispoari bes bildurrik. Ni indertzue ixin nes, yan be ondo, Sansonen moduko inderra, erresau be asko, mesea be askotan entzun da beti alegrea, dibertidea, katolikea, da niri Jaungoikoak lagundu ust.

Da, bitu e. A neskato arroari egundo be etxakon parau ondo a atzamarra. Baie, erromerire asi gintzesenean, es auen gure iñok ibili gure beragas da beti ibilte san niges, niri be es osten grasirik iten baie...

Ni(k)p(b)ear? Askok. Gixona(k)p(b)ño geao. Etxean, etxeko bearrak, sentzain, garbikusiek, korta bearrak, eta gero kanpoko bearrak. Nik iños eroanda dauket emen garriganean aun kiloko sakue. Baie kanpaia entzuten nauenean, al ixin eskero San Bartolomeko mesara, da gero bearren, laietan, gari ebaten, egurginen, danera. Baten e gari ebaten laguntan yoan nintzen ausora da nire martxea ikusite gisoneskoen batek esan i auen:

– A gari ebaten dabilena enbrea ala gixona ete ok?

Da, ba nau nintzen. Baie, badiñotzut e, niri Jaungoikoak lagundu ust, d'asko. Nik San Antoniori be beti errestan dotzet, suk errestan dotzesu? Ba in in beayako, San Antonio Paduakoari.

Yantzi? Ba, alosa, es aldeana es señorita, baie ondo, de intermedio.

Gerra denporea? Txarra. Gosea, eta txarto baie gu ungoxeko uniñoan. Baie proibisiño andiekas.

Eta, ba, alantxe egin neuan. Baina maistrearen bildurra nik. Eta esan neuntzanean pasautakoa, esan eustan:

– Ondo egin deutzazu, ederto!

Ene orduan! Nik obispoari be ez bildurrik. Ni indartsua izan naz, jan be ondo, Sansonen moduko indarra, erre-zatu be asko, mezea be askotan entzun eta beti alegrea, dibertidea, katolikea, eta niri Jaungoikoak lagundu deust.

Eta, begitu e. A neskato arroari egundo be ez jakon paratu ondo a atzamarra. Baina, erromeriara asi gintzazanean, ez euan gura inork ibili gura beragas eta beti ibiltan zan nigaz, niri be ez eustan graziarik egiten baina...

Nik bear? Askok. Gizonak baino geiago. Etxean, etxeko bearrak, sentzain, garbikuziak, korta bearrak, eta gero kanpoko bearrak. Nik inoz eroanda daukat emen garriganean eun kiloko zakua. Baina kanpaia entzuten neuanean, aal izan ezkerro San Bartolomeko mezara, eta gero bearren, laietan, gari ebagiten, egurginen, danera. Baten e gari ebagiten lagunduten joan nintzan auzora eta nire martxea ikusita gizoneskoren batek esan ei euan:

– A gari ebagiten dabilena enbrea ala gizona ete dok?

Eta, ba neu nintzan. Baina, badiñotzut e, niri Jaungoikoak lagundu deust, eta asko. Nik San Antoniori be beti errezetan deutzat, zuk errezetan deutzazu? Ba egin egin bear jako, San Antonio Paduakoari.

Jantzi? Ba, alozo, ez aldeana ez señorita, baina ondo, de intermedio.

Gerra denporea? Txarra. Gosea, eta txarto baina gu oraingoxeko uninoan. Baina proibizino andiekaz.

Gose denporea san da ba gurean txal sekor bat erosi gure baie denun-sien bildurre, ta ba, ausoko batek esautzen gure aiteri:

– Es ai arduretu, erosi ingo yuk txal sekorra. Nautzako dala esango yuk eta eure kortan sartu, nau konponduko nok.

D'alantxik in gairidun baie auso-ko batek tabarrea emototzen areri erosi auenari:

– Urлие, sure txal sekorra urlien kortan dao esta?
– Bai, - berak erantzun-, kantzautu etorri de ta yatekoa sopra daukienez urlien kortan itxi ot, es arduretu neurea da ta, ganeko egun beten ekarrikot etxeko kortara.

Da, ba, alantxe il gairidun isilean txal sekor ori, gatza emon da sesine in denunsirik artu barik. Olangoxe gausek.

Gose denporea zan eta ba gurean txaal zekor bat erosi gura baina denun-tziaren bildurra, eta ba, auzoko batek esan eutsan gure aitari:

– Ez adi arduratu, erosi egingo joaguk txaal zekorra. Neuretzako dala esango joaguk eta eure kortan sartu, neu konponduko nok.

Eta alantxik egin gendun baina auzoko batek tabarrea emoten eutsan areri erosi euanari:

– Urлие, zure txaal zekorra urliaeren kortan dago ezta?

– Bai, - berak erantzun-, kantsatuta etorri da eta jatekoa sopra daukienez urliaeren kortan itxi dot, ez arduratu neurea da eta, ganeko egun baten ekan-riko dot etxeko kortara.

Eta, ba, alantxe il gendun isilean txaal zekor ori, gatza emon eta zezina egin denuntziarik artu barik. Olangoxe gauzak.

69.1. Etxeko beharlekuak eta jatorduak

GARIA

Emen Arrankudian, garie ereiten gendun. Ba, garie lenengo makinetu iten gendun, edo laitu eta gero ba apurtu lurrek, soiyeke eta apurtu dana gero ba tragasillueras ibili te gero garierein.

Da gero udebarrien ba ataraten gauntzen, txirintxoia esaten gauntzen guk e, bedar txarra. Da gero ba juliorarte da julioan ebagi te gero pillotu eta gero sabaldu ta yo, kanikulea edo denpora ona iten auenien, egoskie-(k)p(b)erotuten auenien.

GARIA

Emen Arrankudiagan, garia ereiten gendun. Ba, garia leenengo makinatu egiten gendun, edo laiatu eta gero ba apurtu lurrak, zoiak eta apurtu dana gero ba tragasilluagaz(soloko erreminta bat) ibili eta gero garia erein.

Eta gero udabarrian ba ataraten geuntsan, txirintxoia esaten geuntsan guk e, bedar txarra. Eta gero ba juliorarte eta julioan ebagi eta gero pilotu eta gero zabaldu eta jo, kanikulea edo denpora ona egiten euanean, eguzkiak berotuten euanean.

LABESUA

Labesue sapatuetan iten gendun. Ba ekarten gindun u otakak, sera, berotuteko labea eta pinuen errama(k)p(b)e bai, baie geiyao otakak. Eta gero garbitu labea ba inarrakas, amarrau palu beten, baranda baten, da garbitu labea aregas ipiskiegas. Da gero palan koxi errarie da sartu barrure, artoak lenengo da gero errarie, ogi yagie.

GORUETAN

Goruetan bai, bai, asko lanearas, lanagas nire gogaldien baie sarrak a liñoaras be bai. Ba, gure abuela defunteak iten auen. Lania garbituten otzien da gero asitu da gero berak koixten auen ba ardatza d'albu beten ifinten auen lanea goien argimutile moduko palu beten d'ardatzaras tiritu te laneari sertu te irun itauen. Da gero amak merik in.

EGUNEKO JATORDUAK

Yan? Guk u, yagi orduko oitik amak ifinten auen kefesnea lapiko baten d'an sartute kasue. Da koxi kasueras tankera edo txoletera kafesnea t'artuten gindun barausteko.

Eta gero sortzi t'erdi bedratzitan, egun gusti, urtea(k)t(d)aukosan egun gustietan, gurien berakasopea yaten san armostako. Berakasopea ta gero ganién urdaie arrauntzakas edo urdaie bakarrik.

Eta gero txarrie il orduen ba igual lukinkak edo espabere makailloa egosite orioaras egun gustietan goxean.

Egurdikoa, ba, indabak egun

LABESUA

Labesua sapatuetan egiten gendun. Ba ekarten gendun u otakak, zera, berotuteko labea eta pinuen erramak be bai, baina geiago otakak. Eta gero garbitu labea ba inarrakaz, amarratu palu baten, baranda baten, eta garbitu labea aregaz ipizkiagaz. Eta gero palan kogi(du) erraria eta sartu barrura, artoak leenengo eta gero erraria, ogi jagia.

GORUETAN

Goruetan bai, bai, asko laneagaz, lanagaz nire gogaldian baina zaarrak a linoagaz be bai. Ba, gure abuela defunteak egiten euan. Lanea garbituten eutsien eta gero azitu eta gero berak kogiduten euan ba ardatza eta albo baten ifinten euan lanea goian argimutilla moduko palu baten eta ardatzagaz tiratu eta laneari zertu eta irun egiten euan. Eta gero amak mediak egin.

EGUNEKO JATORDUAK

Jan? Guk u, jagi orduko oetik amak ifinten euan kefesnea lapiko baten eta an sartute kazua. Eta kogi(du) kazuagaz tankera edo txoletera kafesnea eta artuten gendun barausteko.

Eta gero zortzi eta erdi bedratzitan, egun guzti, urteak daukazan egun guztietan, gurean berakatz sopea jaten zan armoztako. Berakatz sopea eta gero ganean urdaia arrauntzakaz edo urdaia bakarrik.

Eta gero txarria il orduan ba igual lukinkak edo espabere makailloa egosita orioagaz egun guztietan goizean.

Egurdikoa, ba, indabak egun guz-

gustietan. Egun geienetan indabak edo patatak, porrusaldie. Da domeketan ba garabantzuk okeleas da txorixoaras da sopa de fideo ifini lelengo eta gero tomatearas edo piperraras okelea ifinte san.

Iluntzean, guk u merindau beti iten gindun edo txokolatea ogieras edo espabere abuelo defuntueras sera, makallo errea edo sardina sarra(k)p(b)ere bai origo gordineras. Erre lenengo da gatza kendu tenasakas eta gero satitu makalloa, sati txikitxuk in serian, platarera bota origo gordineras da yan, goso, atzamarrak txupeka.

Eta gaubien betik edo geienetan patataporruk makallaoaras, bueno, makallao bustenaras gasigosoia iteko, goso sano.

Bos yatordu guk egun gustitan, beti iten gindusen, bai, entramea bere ona ta gurien e yaton onak isin gara beti, bates bere abuelo defuntue.

Abuelo defuntuek edan iten auen asko, d'orregaitik i gure ama(k)p(b)eti emototzen merindetan fuerte, d'armostan be bai, edanak kalterik in es iteko.

Makalloa be arroa bat ekarten giñun illien da batzutan akabau iten yakun da barriro ekarten san, se ganaduen pientzuek ekarri ordun, pientzuek (g)urien ekarten sien ba, esnie salduera, pientzue asko, eta urteiten yoate san, karreteru bet ukiten ginun, illien baten etorten sana pientzue ekarten, arexek ekartoskun. Da gero abuelo defuntuek urteiten auen beiekas, d'arroa bat makallo ekarten san illerako. Baie esan elduten. Ile askotan falteta san, sikitu itesan atostaien eskegite, atzenerako sikitu ite san.

tietan. Egun geienetan indabak edo patatak, porrusaldea. Eta domeketan ba garbantzuak okeleagaz eta txorixoagaz eta sopa de fideo ifini leenengo eta gero tomateagaz edo piperragaz okelea ifinten zan.

Iluntzean, guk u meriendatu beti egiten gendun edo txokolatea ogiagaz edo ezpabere abuelo defuntuagaz zera, makailo errea edo sardina zaarrak bere bai orio gordinagaz. Erre leenengo eta gatza kendu tenazakaz eta gero zatitu makailaoa, zati txikitxuak egin zerean, platerera bota orio gordinagaz eta jan, gozo, atzamarrak txupaka.

Eta gauean beti edo geienetan patataporruak makailaoagaz, bueno, makailao buztenagaz gazigozoa egiteko, gozo sano.

Bost jatordu guk egun guztietan, beti egiten genduzan, bai, entramea bere ona eta gurean e jatun onak izan gara beti, batez bere abuelo defuntua.

Abuelo defuntuak edan egiten euan asko, eta orregaitik i gure amak beti emoten eutsan merindetan fuerte, eta armoztan be bai, edanak kalterik egin ez egiteko.

Makailaoa be arroa bat ekarten gendun ilean eta batzuetan akabatu egiten jakun eta barriro ekarten zan, ze ganaduen pentsuak ekarri orduan, pentsuak gurean ekarten ziran ba, esnea salduera, pentsua asko, eta urten egiten joaten zan, karreteru bat eukiten gendun, ilean baten etorten zana pentsua ekarten, arexek ekarten euskun. Eta gero abuelo defuntuak urten egiten euan beiekaz, eta arroa bat makailo ekarten zan ilerako. Baina ez zan elduten. Ile askotan faltetan zan, sikatu egiten zan ate ostean eskegita, atzenerako sikatu egiten zan.

B'orixe. Bos yatordu iten sirean gurean d'orduen es egoan gaurko miskeririk e. Bear iten san sano da yan bere polito, on iteko bestean.

Ba orixe. Bost jatordu egiten zirean gurean eta orduan ez egoan gaurko mizkeriarik e. Bear egiten zan sano eta jan bere polito, on egiteko bestean.

70.1. Sentzain joan eta bertara ezkondu

Guk se iten gendun? Ba Elordin bisi te ba gero ardietara ta ardiek aukiten gindusen, auntze(k)p(b)e bai da ba baserriko sreean bixi, baserrien.

Nora yoaten gaintzesan? Ba gero Elorditi Gorbaiera bija asko iten gendun, an Orosko mendietan, Aibelabeko atxan ondoan ardiek eta auntzek eta beiek, sera, ganaduek, onik i basabeiek eta orrixekas bixi.

Da ba domeketan Elorditi mesara, parrokiare. Tiradea egoan baie yoan in bear, oñes da sarriten lupetzarik lupetza, Gesaleraño d'an oñetakoak kanbiau da mesara.

Gero erromeriek iten sireanean be yoaten gintzesan erromerietara, seinde, Undurrara, Seberioganera, Urkiolara be bai edo Santa Lusiera, danok koadrillan, elie isitea les moduen.

Da gero ba Lemoara etorri. Ama il jakun, aite be il jakun da gero Lemoan aistia, a be il sen baie, gero Lemoara etorri te Lemoan bixi.

Da Lemoati Kolasiñora etorri sentzain, krida, krida on nintzen ni ortxe bean, urte bi terdi inendusen.

Da gero ba eskondu. Onaxe etorri t'ementxe bixi, eskondu eskero ba ementxe bixi gara.

Eskondu gintzesan orduen Yaurire yoan giñean. Eskondu gintzesan Yaurire. Da gero eskondu sirean osaba(k)p(b)e ta, aitate ementxe bixi sen da:

Guk zer egiten gendun? Ba Elordin bizi eta ba gero ardietara eta ardiak eukiten genduzan, auntzak be bai eta ba baserriko zerean bizi, baserrian.

Nora joaten gintzazan? Ba gero Elorditik Gorbeiera bija asko egiten gendun, an Orozko mendietan, Aibelabeko aitzaren ondoan ardiak eta auntzak eta beiak, zera, ganaduak, oneik i basabeiak eta orreixekaz bizi.

Eta ba domeketan Elorditik mezara, parrokiara. Tiradea egoan baina joan egin bear, oinez eta sarritan lupetzarik lupetza, Gezaleraino eta an oinetakoak kanbiatu eta mezara.

Gero erromeriak egiten zireanean be joaten gintzazan erromerietara, zeinda, Undurrara, Zeberioganera, Urkiolara be bai edo Santa Luziara, danok koadrillan, elia izatea lez moduan.

Eta gero ba Lemoara etorri. Ama il jakun, aita be il jakun eta gero Lemoan aiztea, a be il zan baina, gero Lemoara etorri eta Lemoan bizi.

Eta Lemoatik Kolaziñora etorri sentzain, krida, krida egon nintzan ni ortxe beean, urte bi eta erdi egin nenduzan.

Eta gero ba ezkondu. Onaxe etorri eta ementxe bizi, ezkondu ezkerro ba ementxe bizi gara.

Ezkondu gintzazan orduan Yaurira joan ginean. Ezkondu gintzazan Yaurira. Eta gero ezkondu zirean osabak be eta, aitita ementxe bizi zan eta:

– Neure etxera etorri beosue,- iten auden-, neure etxera

Da, ba, gu(k)p(b)e an baño errenta txikerragoa dauku te, ba, yoan in biu, da ba yoan da berrogeta urteak ementxe.

– Neure etxera etorri bear dozue,- egi- ten euden-, neure etxera

Eta, ba, guk be an baino errenta txikerragoa daukagu eta, ba, joan egin bear dogu, eta ba joan eta berrogeta urteak ementxe.

71.1. San Martinen hamabi egiak deabruari eta Zeberioko bertso-kantak

Seberioko kontuek (g)urosuse-la? B'orretako ni baño saleagoa(k)-t(d)osus gure etzeko Lino edo saure ama, orrik iñon dan kontue(k)-t(d)akituzes.

Nik i, bardin botzu, kontue(k)-p(b)arik kanta batzuk kantaukotzudes. Batzuk u ikisie(k)t(d)ires baie beste batzuk nauk asmaue(k)p-(b)ebai, se ni bertsolari antza isin ñatzu, d'iños jentaurrian be botodas bertzoak. Santageda allegetan sanean barres e, nigana etorte sirean kintolagunek Santagedan bertzoak eske. Ni nau be sarri ibilite nao Santagedatan aurreti kantetan, nik aurreti te besteak atzeti. Gero, au Karmelo gure semea be salea isin de kantetan, guk Ayestatarrok kantau be polito iten isin du, sama onekoak isin gara gaie-nok eta umoretzuek, ni nau igual seriotxuena, baie kantau bea sanean e(s)tx(y)atan birriten esan bear. Nik i asko isin arren, bertzoak enala kantetan nausen okerrik in barik. Oin i batzuk u aistu be in yatas baie akordetan nasen batzuk kantaukotzudes.

Zeberioko kontuak gura dozuzala? Ba, orretarako ni baino zaleagoak dozuz gure etzeko Lino edo zeure ama, orreik inon dan kontuak dakitsuez.

Nik i, bardin badeutsu, kontuak barik kanta batzuk kantatuko deutsudaz. Batzuk u ikasiak dira baina beste batzuk neuk asmatuak be bai, ze ni bertsolari antza izan niatzu, (natxatzu) eta inoz jente aurrean be bota dodaz bertsoak. Santa Ageda allegetan zanean barriz e, nigana etorten zirean kintolagunak Santa Agedaren bertsoak eske. Ni neu be sarri ibilita nago Santa Agedatan aurretik kantetan, nik aurretik eta besteak atzetik. Gero, au Karmelo gure semea be zalea izan da kantetan, guk Ayestatarrok kantatu be polito egiten izan dogu, sama onekoak izan gara gaie-nok eta umoret-suak, ni neu igual seriotxuena, baina kantatu bear zanean ez jatan birritan esan bear. Nik i asko izan arren, bertsoak enala kantetan neuazan okerrik egin barik. Orain i batzuk u aaztu be egin jataz baina akordetan nazan batzuk kantatuko deutsudaz.

San Martinen hamabi egiak deabruari

Kanteagas asi baño len, kontui-xu, ako atxine or Kastrejana barre-neko errekan, seguru, arripausuetan

San Martinen hamabi egiak deabruari

Kanteagaz asi baino leen, kontu egizu, arako antzina or Kastrejana barre-neko errekan, seguru, arripausuetan

errekea andi etorren da mutilen batek maldisiñoa bota i otzien deabrueri andixi subie iteko, bere neskatxiegan-na yoateko-edo. Deabruok gañetu yakosan da subiiteko plantau be bai, seguru, baie mutilen arimean truke. D'asi i sian subiginen, latiguen. Da, a mutile damutu in i sen da, ba, galdu es auen gure in bere arimea, da deabrueri erreklamatzera, ak esan i otzen: “*subi au in-akabau baño lenao Samartinen amabi egiek kante-tan bostesak arimea autzako barri-ro*”. D'ak mutilek kantau in i otzesan amabi egiok eta, sera e, arri beten faltan lotu i sen Kastrejanako subie. Entzutea alan dauket inde eta aikomentsan Samartinen amabi egiok. Amairugarrena eskaturduen, asak emon i otzesan deabrueri: “estok amairu” esanda.

San Martin

esai(k)p(b)at: Gure Jaune bera do(k)p(b)at bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k)p(b)i: Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune beda do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esaik iru: Iru trinidadak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esaik lau: lau ebangelistak lau, iru trinidadak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k)p(b)ost: Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistak lau, iru trinidadak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) sai: sai seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistak lau, iru trinidadak

errekea andi etorren eta mutilen batek maldizinoa bota ei eutsan deabrueri andixik zubia egiteko, bere neskatxiagana joateko-edo. Deabruok gainetu jakozan eta zubia egiteko plantatu be bai, seguru, baina mutilaren arimearen truke. Eta asi ei ziran zubiginen, latigoan. Eta, a mutila damutu egin ei zan eta, ba, galdu ez euan gura egin bere arimea, eta deabruari erreklamatzera, ak esan ei eutsan: “*zubi au egin-akabatu baino leenao San Martinen amabi egiak kantetan badeustazak arimea euretzako barri-ro*”. Eta ak mutilak kantatu egin ei eutsazan amabi egiok eta, zera e, arri baten faltan lotu ei zan Kastrejanako zubia. Entzutea alan daukat eginda eta aikomentsan San Martinen amabi egiok. Amairugarrena eskatu orduan, azak emon ei eutsazan deabruari: “ez dok amairu” esanda.

San Martin

esaik bat: Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esaik bi: Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esaik iru: Iru Trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esaik lau: lau ebangelistak lau, iru Trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esaik bost: Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, iru Trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esaik sei: sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau eban-

iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) sasp: sasp sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistea(k) lau, iru trinidadetak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) sortzi: sortzire(k)t(d)ire seruek, sasp sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistea(k) lau, iru trinidadetak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k)p(b)edratzi: bedratzi ordenamintuek, sortzire(k)t(d)ire seruek, sasp sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistea(k) lau, iru trinidadetak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) amar: amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, sortzire(k)t(d)ire seruek, sasp sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistea(k) lau, iru trinidadetak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) amaka: amaka milleangeruek, amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, sortzire(k)t(d)ire seruek, sasp sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelistea(k) lau, iru trinidadetak iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esai(k) amabi: amabi apostoluek, amaka milleangeruek, amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek,

gelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) zazpi: zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) zortzi: zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) bedratzi: bedratzi ordenamintuek, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) amar: amar mandamentuak, bedratzi ordenamintuek, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) amaika: amaika mila angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamintuek, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistea(k) lau, iru Trinidadetak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

esai(k) amabi: amabi apostoluek, amaika mila angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamintuek, zortzirik

sortzire(k)t(d)ire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llaga(k)p(b)ost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadetik iru, Erromako altara(k)p(b)i, gure Jeune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

esaik amairu: estok amairu, ollarra(k)tx(y)oten yo(k) munduen, angerutxuek seruen!

dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagatik bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinidadetik iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiosak.

esaik amairu: ez dok amairu! ollarrak joten jok munduan, angerutxuak zeruan.

ESKONDU DAMUTUARENAK

1

Ia urte bete da
eskondu nazala
egun bat gitxiago
damutu yatala

2

Eskondu eskeitiño
mosua garbitzen
iturriko urikan
es dot nik gastatzen

3

Begietati beera
yausten da negarra
mosua garbitzeko
naikoa da bera

4

Pasetan nintzanean
sure portaletik
negarrak emot(en) eustan
begi bietatik

5

Onako lotzabako
lotza es dosuna
ia galdu deustasu
nire osasuna.

EZKONDU DAMUTUARENAK

1

la urte bete da
ezkondu nazala
egun bat gitxiago
damutu jatala

2

Ezkondu ezkeitiño
mosua garbitzen
iturriko urikan
ez dot nik gastatzen

3

Begietati beera
jausten da negarra
mosua garbitzeko
naikoa da bera

4

Pasetan nintzanean
zure portaletik
negarrak emot(en) eustan
begi bietatik

5

Onako lotsabako
lotsa ez dozuna
ia galdu deustazu
nire osasuna.

URKIOLARA YOAN

1

Urkiolara yoan
sapatak urrutu
gure san Antonio maiteak
barriak eingo(d)itu.

2

Askok egiten deutzo
San Antoniori
egun batean yoan maitea
ta bestean etorri.

3

Aita San Antonio
Urkiolakoa
askoren biotzeko maitea
santu debotoa.

4

Durangon baskalduta
Mañaritik gora
aldatz andia dago maitea
San Antoniora.

5

Urkiolara yoan
domuru santurus
lenengo preguntea maitea
non dao Maria Jesus

6

Iturrira yoan da
laster da etorri
mandasain mutilokas maitea
tardau espaledi.

7

Mandasain mutilaren
errosarioa
birjina Santa Klara maitea
Erriojakoa.

URKIOLARA JOAN

1

Urkiolara joan
zapatak urrutu
gure san Antonio maiteak
barriak eingo(d)itu.

2

Askok egiten deutso
San Antoniori
egun batean joan maitea
ta bestean etorri.

3

Aita San Antonio
Urkiolakoa
askoren biotzeko maitea
santu debotoa.

4

Durangon bazkalduta
Mañaritik gora
aldatz andia dago maitea
San Antoniora.

5

Urkiolara joan
domuru santuruz
lenengo preguntea maitea
non dao Maria Jesus

6

Iturrira joan da
laster da etorri
mandazain mutilokaz maitea
tardau ezpaledi.

7

Mandazain mutilaren
errosarioa
birjina Santa Klara maitea
Erriojakoa.

GASTEIA NINTZANEAN

1
Gastea nintzanean
denpora batean
es nintzan soportatzen
eskondu artean.

2
Eskondu eta gero
urrengo gaubean
surrea artu nendun
oiaren aurrean.

GAZTEIA NINTZANEAN

1
Gaztea nintzanean
denpora batean
ez nintzan soportatzen
ezkondu artean.

2
Ezkondu eta gero
urrengo gaubean
zurrea artu nendun
oiaren aurrean.

TXONDONEN KATUA

1
Txondonek bai ei dauka
katutxu formala
gauk bere es daukagu
ain baisen argala

2
Berrogetamar erralde
serbait gitxiago
errotako pisuetan
pisiturik dago

3
Barasareak bere
pitxar bete koipe
gasteak artzen dosue
beste orrenbeste.

4
Goiko sala barrien
emona da gatza
sendatuko ete nintzan
neukan bildur latza.

TXONDONEN KATUA

1
Txondonek bai ei dauka
katutxu formala
gauk bere ez daukagu
ain baizen argala

2
Berrogetamar erralde
zerbait gitxiago
errotako pisuetan
pisiturik dago

3
Barasareak bere
pitxar bete koipe
gasteak artzen dozue
beste orrenbeste.

4
Goiko sala barrien
emona da gatza
sendatuko ete nintzan
neukan bildur latza.

JOSEPANTONI KOLORE GORRI

Josepantoni koloregorri
kapitan baten alaba
amak doterik emon es arren
nik topauko dot senarra

JOSEPANTONI KOLORE GORRI

Josepantoni koloregorri
kapitan baten alaba
amak doterik emon ez arren
nik topauko dot senarra

astelenean eskondu eta
martisenean basora
eguastenean orbela batu
eguenean etxera
bariku goixean lexi eginda
sapatu goixean plasara
domeka goixean ondo apainduta
amarretako mesara.

astelenean ezkondu eta
martizenean basora
eguaztenean orbela batu
eguenean etxera
bariku goixean lexi eginda
zapatu goixean plazara
domeka goixean ondo apainduta
amarretako mezara.

OROSKOKO ERRIAN

1

Oroskoko errian
atean atean
amaika neska mutil bayagok
alperrik galtzean

2

Eskontzen es badira
aurtengo urtean
errematera doa maitea
datorren urtean.

3

Nor isango ete da
errematantea
Perutxu tokolo Olatzarreko
faltzo bergantea.

(Perutxu-ren tokian edosein
isen. Olatzar- toponimoaren ordes
beste edosein)

MARI KATALIN

Mari Katalin Oroskokoa
mandasain mutil salea
sortzi mutilek eginda dauka
amar kanako gonea
gonea dauka, yakea falta
nobioak eingotzo (egingo deutzo)
berena badau.

OROZKOKO ERRIAN

1

Orozkoko errian
atean atean
amaika neska mutil bajagok
alperrik galtzean

2

Ezkontzen ez badira
aurtengo urtean
errematera doa maitea
datorren urtean.

3

Nor izango ete da
errematantea
Perutxu tokolo Olatzarreko
faltzo bergantea.

(Perutxu-ren tokian edozein izen.
Olatzar- toponimoaren ordez beste
edozein)

MARI KATALIN

Mari Katalin Orozkokoa
mandazain mutil zalea
zortzi mutilek eginda dauka
amar kanako gonea
gonea dauka, jakea falta
nobioak eingotso (egingo deutso)
berena badau.

KOPLA SOLTUAK

1
Amorebietako
bisialarguna
bakarrik egon barik
artuina (artu egina) laguna.

2
Atzoa sarra sarra
aburea sarrago
atzo demoniño ori
kenakit orrago.

3
Atzoa ta aburea
asarratu dira
alkarrenak dira ta
konponduko dira.

4
Gastetan erromerian
dama gastean erdian
tira ta tira ibilten nintzan
fanfarroikerian.

5
Neure andrea andre ona da
ausoak alan dinoste
erositako presio orretan
posikan salduko nauke.

6
Nere andra andra ona da
yai eguna danean
samako mina etorten jako
bearren dagoanean.

PEDROTXU

1
Pedrotxuk egiteko
lastosko subia
andixik pasetako
bera ta nobia.

KOPLA SOLTUAK

1
Amorebietako
bizialarguna
bakarrik egon barik
artuina (artu egina) laguna.

2
Atsoa zarra zarra
aburea zarrago
atso demoniño ori
kenakit orrago.

3
Atsoa ta aburea
asarratu dira
alkarrenak dira ta
konponduko dira.

4
Gaztetan erromerian
dama gaztean erdian
tira ta tira ibilten nintzan
fanfarroikerian.

5
Neure andrea andre ona da
auzoak alan dinoste
erositako prezio orretan
pozikan salduko nauke.

6
Nere andra andra ona da
jai eguna danean
samako mina etorten jako
bearren dagoanean.

PEDROTXU

1
Pedrotxuk egiteko
lastozko zubia
andixik pasetako
bera ta nobia.

2

Pedrotxuk koiuteko
sasian soso
Maritxuk egiteko
saldatxu gosoa.

2

Pedrotxuk koiuteko
sasian zozoa
Maritxuk egiteko
saldatxu gozoa.

SEBERIOKO BERTZOAK

ZEBERIOKO BERTSOAK

BERTZO BARRIAK, LUKAS DE
AÑIBARROK JARRIAK

BERTSO BARRIAK, LUKAS DE AÑIBA-
RROK JARRIAK

1

Bertzo barriak kantau bear dus
motibo siran boto bi
Seberioko kaballeroak
derrotau bear naude ni

1

Bertso barriak kantau bear duz
motibo ziran boto bi
Zeberioko kaballeroak
derrotau bear naude ni

2

Mundu gustiak galdu bear gaitu
sori tristeko diruek
deskuidu ori egin basan se
ondo bengantzan naiuek

2

Mundu guztiak galdu bear gaitu
zori tristeko diruek
deskuidu ori egin bazan ze
ondo bengantzan naiuek

3

Ainbeste gison prudentziako
ibili dira gugana
ugasabaren aginduagas
badoias Tantanegana

3

Ainbeste gizon prudentziako
ibili dira gugana
ugazabaren aginduagaz
badoiaz Tantanegana

4

Tantanegana joateko eta
gustiak yoan es dira
atxurrik asko konpontzen deusku
ogeiko sarrak balira.

4

Tantanegana joateko eta
guztiak joan ez dira
atxurrik asko konpontzen deusku
ogeiko zarrak balira.

5

Gure Jainkoan selan emon lei
mantzinerako gausa ona
diruarekin menpe isanekas
amenasuak ausora.

5

Gure Jainkoan zelan emon lei
mantzinerako gauza ona
diruarekin menpe izanekaz
amenazuak auzora.

6

Dibujante bat endredau daude
ondo dagoan lekutik
kalte andiak guri eginda
yoango dira mundutik.

7

Dibujante ori koloka daude
beste ofisina batera
adiskideak es dira falta
orain bertzoak atera.

8

Kostunbrerikan es dogu euki
soia besala egoten
obrea artu ta joaten gara
lauko freskoak ekarten.

9

Bearrerako libre daukaguz
lau probintzia osoak
bear ein barik etxok (es jok) emoten
pesetarikan ausoak.

6

Dibujante bat endredau daude
ondo dagoan lekutik
kalte andiak guri eginda
joango dira mundutik.

7

Dibujante ori koloka daude
beste ofisina batera
adiskideak ez dira falta
orain bertzoak atera.

8

Kostunbrerikan ez dogu euki
zoia bezala egoten
obrea artu ta joaten gara
lauko freskoak ekarten.

9

Bearrerako libre daukaguz
lau probintzia osoak
bear ein barik etxok (ez jok) emoten
pezetarikan auzoak.

MUTIL SAARRAREN BERTZOAK

1

Dosena bat bertzo barri
gastean konsolagarri
neure mingaña sano dan arte
nai nitukes jarri.

2

Bagiratuas alkarri
andrarik esin ekarri
mutil sarraren despedidea
esingo dot jarri.

3

Egon saiteze aditzen
sartu ta nola gabiltzen
gaste denporan eskondu barik
fasil da gelditzen.

MUTIL ZAARRAREN BERTSOAK

1

Dozena bat bertso barri
gaztean konsolagarri
neure mingaña sano dan arte
nai nitukez jarri.

2

Bagiratuaz alkarri
andrarik ezin ekarri
mutil zarraren despedidea
ezingo dot jarri.

3

Egon zaiteze aditzen
sartu ta nola gabiltzen
gazte denporan ezkondu barik
fazil da gelditzen.

4

Orain anginak barritzen
indarrak bere urritzen
soldata gabe orain jarri nas
anaia serbitzen.

5

Anaiak nauko mendian
koineta aldamenean
gaste denporas akordatzen nas
sasoa yoanean.

6

Orain tristura begian
nago es nago txarrian
artu pipa bat ortzean eta
suaren guardian.

7

Leenago erromerian
dama gasteen erdian
gira ta bira ibiltzen nintzan
panparroikerian.

8

Gero ilunabarrean
estimasio txarrean
egun gustian oien pardelak
neure biskarrean.

9

Iloba daukat arotza
oa emendik arantza
animosoa es da gelditzen
sarraren biotza.

10

Begiratua sorrotza
soldata barik morrontza
animosoa es da gelditzen
sarraren biotza.

11

Ni neuk daukadan jantzia
badaukat nori utzia
bi arkondara, praka pare bat,
anaiak utzia.

4

Orain anginak barritzen
indarrak bere urritzen
soldata gabe orain jarri naz
anaia serbitzen.

5

Anaiak nauko mendian
koineta aldamenean
gazte denporaz akordatzen naz
sasoa joanean.

6

Orain tristura begian
nago ez nago txarrian
artu pipa bat ortzean eta
suaren guardian.

7

Leenago erromerian
dama gazteen erdian
gira ta bira ibiltzen nintzan
panparroikerian.

8

Gero ilunabarrean
estimazio txarrean
egun guztian oien pardelak
neure bizkarrean.

9

Iloba daukat arotza
oa emendik arantza
animosoa ez da gelditzen
zarraren biotza.

10

Begiratua zorrotza
soldata barik morrontza
animosoa ez da gelditzen
zarraren biotza.

11

Ni neuk daukadan jantzia
badaukat nori utzia
bi arkondara, praka pare bat,
anaiak utzia.

ESKONDU-DAMUTUAREN
BERTZOAK

1
Eskongaiak eskontzan
se modutan asi
kantuan albaneuke
serbaist erakutzi.

2
Se modutan egin
eskontzeko lanak
ondo ebatzi situan
Kristo gure jaunak.

3
Alan agintzen dau ta
eleisako amak
alperrik damuko dau
deskuidatzen danak.

4
Es dot ikusten baia
alan dot aditzen
olango gaste asko
ser modus gabiltzen.

5
Gaube ta gauberdian
bide erdietan
pekatu egiteko
peligru andietan.

6
Selangoak direan
gaubetako tratuak
neuri esan deustiee
skarmentatuak.

7
Mutil erdi moskorrak
agoak beroak
aien koplak entzuten
neskatxi soroak.

EZKONDU-DAMUTUAREN
BERTSOAK

1
Ezkongaiak ezkontzan
ze modutan asi
kantuan albaneuke
zerbaist erakutsi.

2
Ze modutan egin
ezkontzeko lanak
ondo ebatzi zituan
Kristo gure jaunak.

3
Alan agintzen dau ta
eleizako amak
alperrik damuko dau
deskuidatzen danak.

4
Ez dot ikusten baina
alan dot aditzen
olango gazte asko
zer moduz gabiltzen.

5
Gaube ta gauberdian
bide erdietan
pekatu egiteko
peligru andietan.

6
Zelangoak direan
gaubetako tratuak
neuri esan deustiee
skarmentatuak.

7
Mutil erdi mozkorrek
agoak beroak
aien koplak entzuten
neskatxi zoroak.

8

Gusur eta gaistoak
sinesten aieri
seinbat engañatzen dan
Jaungoikoak daki.

9

Biar da urte bete
eskondu nintzala
egun bat gitxiago
damutu nintzala.

10

Nire senerrak es dau
beste ofisiorik
tabernara yoanda
moskortzen besterik.

11

Eskondu nintzanean
bost gona nituan
bi prenda jarri eta
bi saldu nituan.

12

Soinean daukadana
dana daukat sarra
barriak egiteko
daukat modu txarra.

8

Guzur eta gaiztoak
sinesten aieri
zeinbat engañatzen dan
Jaungoikoak daki.

9

Biar da urte bete
ezkondu nintzala
egun bat gitxiago
damutu nintzala.

10

Nire senerrak ez dau
beste ofiziorik
tabernara joanda
mozkortzen besterik.

11

Ezkondu nintzanean
bost gona nituan
bi prenda jarri eta
bi saldu nituan.

12

Soinean daukadana
dana daukat zarra
barriak egiteko
daukat modu txarra.

KANTABRIAKO BERTZOAK

1

Seruko aita markau eidasuz
pekatariaren posuak
Kantabriako deskalabruak
siraden lastimosuak.

2

Arbola eder bat dala medio
jartzera noa bertzoak
milla urtean mantendu gaitu
lau probintzia osoak.

KANTABRIAKO BERTSOAK

1

Zeruko aita markau eidazuz
pekatariaren pozuak
Kantabriako deskalabruak
ziraden lastimosuak.

2

Arbola eder bat dala medio
jartzera noa bertzoak
milla urtean mantendu gaitu
lau probintzia osoak.

3
Arbola orren iprintzipala(sic)
san Bergarako astean
arri-sillarres inguratua
urresko kaja batean.

4
Biba Biskaia Gipuskoakin
Alaba eta Naparra
biba kortean gure fabore
dagon ministro bakarra.

5
Fueroak kendu deuskusan ori
isenes es dot esango
ilten danean salbasiñorik
es da orrentzat isango.

3
Arbola orren iprintzipala(sic)
zan Bergarako astean
arri-zillarrez inguratua
urrezko kaja batean.

4
Biba Bizkaia Gipuzkoakin
Alaba eta Naparra
biba kortean gure fabore
dagon ministro bakarra.

5
Fueroak kendu deuskusan ori
izenez ez dot esango
ilten danean salbazinorik
ez da orrentzat izango.

71.2. Frantzia Korteko erromantzea

1
Etorri nintzanean
Frantzia kortetik
ama topatu nendun
sutean tristerik

2
Ser egiten dau ama
orrela bakarrik
nobedade barriak
entzun dodas bai nik

3
Se nobedade barri
entzun dosu ama
eskontan sareala
bai seme lastana.

4
Eskonduta nago ta
on dator andrea
ori il eisu eta
artu eisu bestea.

1
Etorri nintzanean
Frantzia kortetik
ama topatu nendun
sutean tristerik

2
Zer egiten dau ama
orrela bakarrik
nobedade barriak
entzun dodaz bai nik

3
Ze nobedade barri
entzun dozu ama
ezkontan zareala
bai seme lastana.

4
Ezkonduta nago ta
on dator andrea
ori il eizu eta
artu eizu bestea.

5
Nondikoa dakarsu
sure emastea
Frantzia kortekoa
bai ama neurea.

6
Es dot gura frantzesik
gitxiago errenik
esan dodan berbeas
urten bear dot nik.

7
Esan dosun berbeas
urten bear bosu(badosu)
urten bidera eta
il egin bear dosu.

8
Ain da polita ba se
nire emastea
es da posible ama
nik ori eitea.

9
Suk es bosu (badosu) posible
artu anajea
anaje gastea ta
estudiantea.

10
Juanita jatzi saites
saldian ganetik
sar daisudan puñal au
biotzan erditik.

11
Ai! orren puñal orren
puntean sorrotza
ikusis beste barik
ilten deust biotza.

12
Saspi saldi daukadas
isaras yantzita
saspigarrena barriz
perlas estarita.

5
Nondikoa dakarzu
zure emaztea
Frantzia kortekoa
bai ama neurea.

6
Ez dot gura frantzesik
gitxiago errenik
esan dodan berbeaz
urten bear dot nik.

7
Esan dozun berbeaz
urten bear bozu(badozu)
urten bidera eta
il egin bear dozu.

8
Ain da polita ba ze
nire emaztea
ez da posible ama
nik ori eitea.

9
Zuk ez bozu (badozu) posible
artu anajea
anaje gaztea ta
estudiantea.

10
Juanita jatsi zaitez
zaldian ganetik
sar daizudan puñal au
biotzan erditik.

11
Ai! orren puñal orren
puntean zorrotza
ikusiz beste barik
ilten deust biotza.

12
Zazpi zaldi daukadaz
izaraz jantzita
zazpigarrena barriz
perlaz estarita.

13
Aixek emongotzudas (deutzudas)
istearren bisirik
arek neuretzat baia
es itxi bisirik.

14
Orres ganera daukat
urre kalisea
urre kalisea ta
sobrepellisea.

15
Danak emongotzudas (deutzudas)
itxi ni bisirik
dana neutzako baia
es itxi bisirik.

16
Saspi nebatxo dodas
Frantzia kortean
ai! areik balekie
emen ser dabilan.

17
Sortzi isara dodas
bai neure dotea
sortzigarrentxu ori
odoles betea.

18
Kanpai bat entzuten dot
es dakit nongoa
igual isango da
agoniakoa.

19
Abadea ekasu (ekarri egisu)
konfesatu naiten
arimaren okerrak
artestu daidasen(dagidasan)

20
Abadea urrin dago
eleisa urrinago
oin(orain) orretan asteko
asti gitxi dago.

13
Aixek emongotsudaz (deutsudaz)
iztearren bizirik
arek neuretzat baina
ez itxi bizirik.

14
Orrez ganera daukat
urre kalize
aurre kalizea ta
sobrepellizea.

15
Danak emongotsudaz (deutsudaz)
itxi ni bizirik
dana neutzako baina
ez itxi bizirik.

16
Zazpi nebatxo dodaz
Frantzia kortean
ai! areik balekie
emen zer dabilan.

17
Zortzi izara dodaz
bai neure dotea
zortzigarrentxu ori
odolez betea.

18
Kanpai bat entzuten dot
ez dakit nongoa
igual izango da
agoniakoa.

19
Abadea ekazu (ekarri egizu)
konfesatu naiten
arimaren okerrak
arteztu daidazen(dagidazan)

20
Abadea urrin dago
eleiza urrinago
oin(orain) orretan asteko
asti gitxi dago.

21

Amaxe biotz gogor
muskerres betea
subeak ein daiola
gaubean oea.

21

Amaxe biotz gogor
muskerrez betea
sugeak ein daiola
gaubean oea.

71.3. Santa Ageda bertso-koplak: bizitza eta agurrak

SANTA AGEDA I

(Hasi eta gero kantatzeko. Lo egon
eskero)

Lastimea da etxekotxuok
lotxu gosoan al saree
gaur S. Ageda bespera da ta
mesedes altzau saitease.

SANTA AGEDA I

(Hasi eta gero kantatzeko. Lo egon
ezkero)

Lastimea da etxekotxuok
lotxu gozoan al zaree
gaur S. Ageda bezpera da ta
mesedez altzau zaiteze.

KINTOARENTZAT

Soldadu soas soldadu
amaren seme sobradu
borondaterik baldin badago
limosna billa gatos gu.
Limosneruak S. Ageda
es da astean-astean
urtean baten eta beratan
seseilaren bostean.

KINTOARENTZAT

Soldadu zoaz soldadu
amaren seme sobradu
borondaterik baldin badago
limosna billa gatoz gu.
Limosneruak S. Ageda
ez da astean-astean
urtean baten eta beratan
zezeilaren bostean.

AGURRAK

1

Oles da oles ementxe gatos
ondo lotzas ta bildurres
nagosi jaunak esandakoa
kantauko badu edo es
errespustarik es du(dogu) agiri eta
aurrera segitzen gues.

2

Oles da oles atean
kantutxu asi gaitean
S. Ageda kantatzen gatos
etxe onetako atean

AGURRAK

1

Oles da oles ementxe gatoz
ondo lotsaz ta bildurrez
nagosi jaunak esandakoa
kantauko badu edo ez
errespustarik ez du(dogu) agiri eta
aurrera segitzen guez.

2

Oles da oles atean
kantutxu asi gaitean
S. Ageda kantatzen gatoz

kontauko badu esan deiskula
iñor badado etxean
iñok esetzik es diño eta
kantetan asi gaitesan.

3

Neure kristauak badakisue
nos dogun S. Ageda
lege sarreko usadioan
kantuen gatos atera
Martirioak esplikatzeko
lizensiarik ete da
sentimenturik isaterikan
emen es dogu ostera.

4

Kristau maiteak gogoan artu
nortzuk gagosan atean
aurtengo urteko kinta gasteak
S. Agedantzat batzean
kantauko bada esan deiskula
inor badago etxean
inok esetzik es diño eta
kantetan asi gaitean.

5

Neure kristauok es galtzarren
lege sarreko usuak
S. Agedak kantatzen gatos
aurtengo urteko kintuak
libertadea eskatzen dogu
erritar biotzekuak
gaur surori emen esplikatzeko
Santa onen pasadisuak.

SANTA AGEDA II

1

Neure kristauak gogoan artu
nortzuk gagosan atean
aurtengo urteko kinto gasteak
Santa Agedantzat batzean
kantauko bada esan daiskula

etxe onetako atean
kontauko badu esan deiskula
inor badado etxean
inok ezetzik ez diño eta
kantetan asi gaitezan.

3

Neure kristauak badakizue
noz dogun S. Ageda
lege zarreko usadioan
kantuen gatoz atera
Martirioak esplikatzeko
lizenziarik ete da
sentimenturik izaterikan
emen ez dogu ostera.

4

Kristau maiteak gogoan artu
nortzuk gagozan atean
aurtengo urteko kinta gazteak
S. Agedantzat batzean
kantauko bada esan deiskula
inor badago etxean
inok ezetzik ez diño eta
kantetan asi gaitean.

5

Neure kristauok ez galtzarren
lege zarreko usuak
S. Agedak kantatzen gatoz
aurtengo urteko kintuak
libertadea eskatzen dogu
erritar biotzekuak
gaur zurori emen esplikatzeko
Santa onen pasadizuak.

SANTA AGEDA II

1

Neure kristauak gogoan artu
nortzuk gagozan atean
aurtengo urteko kinto gazteak
Santa Agedantzat batzean
kantauko bada esan daiskula

iñor badogu etxean
inok esetzik es dino eta
kantetan asi gaitean.

2

Seruetara begiak altzau
grasiak eskatutzeko
Santa Agedak ser pasau suan
gaur emen esplikatzeko.

3

Prinsipe onen asitasuna
lendabisiko asteko
martiriosko pena tristeak
seruan ikusiteko.

4

Gobernadore Palermokoak
aginpidea basuan
S. Ageda ain san ederra
bere andratzat nai suan.

5

Gison andia isana gaitik
ori logratu es suan
lendabisiko martiriok
agaitik isan situan.

6

Soldaduari agindu eutzan
plasan asotatutzeko
eta mudatu nai espasuan
bularrak ebagiteko.

7

Sententzi ona emoten deutza
biotza alegratzeko
orrik gustiok eginda gero
kalabosora sartzeko.

8

Krudeldadea golpearekin
eudenean asotatu
soldadu onek esaten eutzan
ia nai suan mudatu.

inor badogu etxean
inok ezetzik ez dino eta
kantetan asi gaitean.

2

Zeruetara begiak altzau
graziak eskatutzeko
Santa Agedak zer pasau zuan
gaur emen esplikatzeko.

3

Prinzipe onen asitasuna
lendabiziko asteko
martiriozko pena tristeak
zeruan ikusiteko.

4

Gobernadore Palermokoak
aginpidea bazuan
S. Ageda ain zan ederra
bere andratzat nai zuan.

5

Gizon andia izana gaitik
ori logratu ez zuan
lendabiziko martiriok
agaitik izan zituan.

6

Soldaduari agindu eutsan
plazan azotatutzeko
eta mudatu nai ezpazuan
bularrak ebagiteko.

7

Sententzi ona emoten deutsa
biotza alegratzeko
orrik guztiok eginda gero
kalabozora sartzeko.

8

Krudeldadea golpearekin
eudenean azotatu
soldadu onek esaten eutsan
ia nai zuan mudatu.

9

S. Agedak erantzun eutzan
Jesus gura dot amatu
obeagorik Jaungoikodanik
sekula es dot pentzatu.

10

Ori entzun da gentil gaistoak
elduten dira bertatik
kutxilloakas ebagiteko
bere bularrak ondotik.

11

Gorputz gustia betetan jakon
odoles beren petxoti
probidentzia etxakon faltau
Jaunkoikoaren aldeti.

12

Negargarrisko tristurarekin
bularrak oso kendurik
kalabosora eroan euden
silla batean arturik.

13

Esin leikean iñola bisi
isan esbalau grasirik
seinek ikusi eta badago
milagro aundiagorik.

14

Arik urrengo egunsentian
yoan siran bisitatzera
ura bisirik topatutzerik
inok es euan espera.

15

Gobernadore traidore arek
sentensia dosu emoten
plasan iltzeko eroateko
es baldin basan mudatzen.

16

S. Agedak erantzun eutzan
enas bat bere bildurtzen
sure idolo jaungoiko faltzo
bat bere etxat gustatzen.

9

S. Agedak erantzun eutsan
Jesus gura dot amatu
obeagorik Jaungoikodanik
sekula ez dot pentsatu.

10

Ori entzun da gentil gaiztoak
elduten dira bertatik
kutxilloakas ebagiteko
bere bularrak ondotik.

11

Gorputz guztia betetan jakon
odolez beren petxoti
probidentzia etxakon faltau
Jaunkoikoaren aldeti.

12

Negargarrizko tristurarekin
bularrak oso kendurik
kalabozora eroan euden
silla batean arturik.

13

Ezin leikean iñola bizi
izan ezbalau grazirik
zeinek ikusi eta badago
milagro aundiagorik.

14

Arik urrengo egunsentian
joan ziran bizitatzera
ura bizirik topatutzerik
inok ez euan espera.

15

Gobernadore traidore arek
sentensia dozu emoten
plazan iltzeko eroateko
ez baldin bazan mudatzen.

16

S. Agedak erantzun eutsan
enaz bat bere bildurtzen
zure idolo jaungoiko faltso
bat bere etxat gustatzen.

SANTA AGEDA III

1

Bedeinkatua isan dedilla
etxe onetako gentea
pobre ta umilde dabisanentzat
badute borondatea
Santa martirik maitea
dago errukis betea
berak alkantzau ta emon daiskula
osasuna eta bakea.

2

Libertadea eskatzen deutzatet
exeko printzipalari
S. Agedaren alabantzarik
kantatutzera nator ni.
Grasiak ipini deutzagus
santa bedeinkate oni
onen fedean bisi gaitesan
osasunes eta ongi.

3

Nok esango dau ser pasau suan
munduan S. Agedak
lenda bisiko asotaduta
kendu eutzesan bularrak
Gorrotorearen indarrarekin
gentilen biotz gogorra
instante baten sabaldu jakon
gorputz gustian odola.

4

Santa au preso sartu sanean
san milagro bat andia
seruetatik bajatu jakon
Jaungoikoaren argia.
Milagro ikaragarria san
santa onen alegria
S. Pedrok berak kuratu eutzan
santa oni gorputz gustia.

SANTA AGEDA III

1

Bedeinkatua izan dedilla
etxe onetako gentea
pobre ta umilde dabizanentzat
badute borondatea
Santa martirik maitea
dago errukiz betea
berak alkantzau ta emon daizkula
osasuna eta bakea.

2

Libertadea eskatzen deutzatet
exeko printzipalari
S. Agedaren alabantzarik
kantatutzera nator ni.
Graziak ipini deutzagus
santa bedeinkate oni
onen fedean bizi gaitesan
osasunez eta ongi.

3

Nok esango dau zer pasau zuan
munduan S. Agedak
lenda biziko azotaduta
kendu eutsezan bularrak
Gorrotorearen indarrarekin
gentilen biotz gogorra
instante baten zabaldu jakon
gorputz guztian odola.

4

Santa au preso sartu zanean
zan milagro bat andia
zeruetatik bajatu jakon
Jaungoikoaren argia.
Milagro ikaragarria zan
santa onen alegria
S. Pedrok berak kuratu eutsan
santa oni gorputz guztia.

5

Borroka gogor oiek diñaude
ilgo da gaurko gaubean
len beisan firme billatu euden
santa au biramonean
esan eutzoen euren onean
nai bosu(badosu) gure legean
bestelan presentatuko sara
Quinsianoren aurrean.

6

Berris enperadore onek dino
eroateko argana
dontzella gaste orren biotza
len besain firme darama.
Jaun serukoak emana dauka
orain berak ein dauana
ser amodio andia eukan
gure Jaungoikoagana.

7

Soldadu batek galdetzen deutzo
sergaitik dagon ixilik
adoraiquesu eure jaungoikoa
egon nai bosu (badosu)bisirik
itzori ondo aditu eta
Santak diñotze bakarrik
nik adoratzen dodana baño
es dago gison besterik.

8

Ser balorea eraman euden
etzai gaistoan aurrera
umildadesko bere begiak
itzuli siran lurrera
Emperadore kruek-kruela
an beti beren legera
arrastaka ta desonraturik
atera bedi kalera.

9

Orduan erantzun eutzan berak
Jaungoikuari grasiak
baña borrego gentil gaistoak

5

Borroka gogor oiek dinaude
ilgo da gaurko gaubean
len beizan firme billatu euden
santa au biramonean
esan eutsoen euren onean
nai bozu(badozu) gure legean
bestelan presentatuko zara
Quinzianoren aurrean.

6

Berriz enperadore onek dino
eroateko argana
dontzella gazte orren biotza
len bezain firme darama.
Jaun zerukoak emana dauka
orain berak ein dauana
zer amodio andia eukan
gure Jaungoikoagana.

7

Soldadu batek galdetzen deutso
zergaitik dagon ixilik
adoraikezu eure jaungoikoa
egon nai bozu (badozu)bizirik
itzori ondo aditu eta
Santak dinotse bakarrik
nik adoratzen dodana baino
ez dago gizon besterik.

8

Zer balorea eraman euden
etsai gaiztoan aurrera
umildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera
Emperadore kruek-kruela
an beti beren legera
arrastaka ta desonraturik
atera bedi kalera.

9

Orduan erantzun eutsan berak
Jaungoikuari graziak
baña borrego gentil gaitoak

sauden gorrotos josiak
Santaren fede bisi-bisia
Jaunaren probidentzia
lurrak ikara egin euan ta
arritu siran guziak.

10

Jaun aundi bat etorri san ara
ikara aren puntuan
enperadore aren lagun bi
aspian artu situan
ikusirik an orduan antxe
aiek alako moduan
se milagroak gertatu siran
santa onekin munduan.

11

Itzen egoan orduan bera
Jesusi deies eguan
orain gloriak gosatzen dago
angeruekin seruan.
Seruan dala eukiko dogu
Santa Ageda goguan
bere bisitza kontatutzeko
kanta-kantari moduan.

12

Kristau deboto batzuek bertan
euden bere gorpua artu
Kataniako siudadian
baita bere enterratu
kristaua, konsideratu
au onela san gertatu
karidadea ematen dunai
berak eingotzo(egingo deutzo) pagatu.

13

Adios orain esaten dogu
santa onekin batean
urte ontxu bat pasau dagigun
osasanagas bakean
pobre umildiaren artean
beti erruki gaitean
karidadeak lagunduko dau
seruetako atean.

zauden gorrotoz josiak
Santaren fede bizi-bizia
Jaunaren probidentzia
lurrak ikara egin euan ta
arritu ziran guziak.

10

Jaun aundi bat etorri zan ara
ikara aren puntuan
enperadore aren lagun bi
azpian artu zituan
ikusirik an orduan antxe
aiek alako moduan
ze milagroak gertatu ziran
santa onekin munduan.

11

Itzen egoan orduan bera
Jesusi deies eguan
orain gloriak gosatzen dago
angeruekin zeruan.
Zeruan dala eukiko dogu
Santa Ageda goguan
bere bizitza kontatutzeko
kanta-kantari moduan.

12

Kristau deboto batzuek bertan
euden bere gorpua artu
Kataniako siudadian
baita bere enterratu
kristaua, konsideratu
au onela zan gertatu
karidadea ematen dunai
berak eingotso(egingo deutso) pagatu.

13

Adios orain esaten dogu
santa onekin batean
urte ontxu bat pasau dagigun
osasanagas bakean
pobre umildiaren artean
beti erruki gaitean
karidadeak lagunduko dau
zeruetako atean.

SANTA AGEDA IV

1

Kataniako jauregi baten
Santa Ageda bisi san
da enperadore Palermokoa
santa onegas gustau san
agintze aundiak eukesan baña
santa onen gura esan
martiriosko pena tristeak
agaitik emon eutzasan.

2

Sententzi gogorra emoten deutza
enperadore kruelak
bere senartzat artzen esbaeban
ebagiteko bularrak
S. Agedak erantzun eutzan
bildurtu bagarik minak
sure jaungoikoa adorau baiño
guragot igaro danak.

3

Ori entzunaz batera eurak
doias bera asotatzera
ta umildadesko bere begiak
itzuli siran lurrera
soldadu batek esaten deutza
mudatu saites Ageda
martiriosko eriotzea
ikusteko saos bestela.

4

S.Agedak erantzun eutzan
enas bildurtzen gizona
neure Jaungoikoa seruan daukat
Jesukristo gure jauna
martirio danak igaro eta
yoango nas beragana
gero seruan igaroteko
betiko soriontasuna.

5

Ainbeste asote emon da gero
doias bularrak ebaten

SANTA AGEDA IV

1

Kataniako jauregi baten
Santa Ageda bizi zan
da enperadore Palermokoa
santa onegaz gustau zan
agintze aundiak eukezan baina
santa onen gura ezan
martiriozko pena tristeak
agaitik emon eutsazan.

2

Sententzi gogorra emoten deutsa
enperadore kruelak
bere senartzat artzen ezbaeban
ebagiteko bularrak
S. Agedak erantzun eutsan
bildurtu bagarik minak
zure jaungoikoa adorau baiño
guragot igaro danak.

3

Ori entzunaz batera eurak
doiaz bera azotatzera
ta umildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera
soldadu batek esaten deutsa
mudatu zaitez Ageda
martiriozko eriotzea
ikusteko zaos bestela.

4

S.Agedak erantzun eutsan
enaz bildurtzen gizona
neure Jaungoikoa zeruan daukat
Jesukristo gure jauna
martirio danak igaro eta
joango naz beragana
gero zeruan igaroteko
betiko zoriontasuna.

5

Ainbeste azote emon da gero
doiaz bularrak ebaten

gero kartzelan sartu eginda
goiserorduko il daiten
bularretatik gorputz gustia
odoles beteta euken
baña jaunaren probidentzia
es yakon inos faltatzen.

6

Bularrak kendu eginda gero
arturik silla batean
kartzela baten sartu audien
soldadu bien artean,
soldadu biok esaten auden
ilgo da gaurko gaubean
baña osatuta topau eudien
andik urrengo goisean.

7

Kinsiano onek ikusiten dau
len besain firme dagona
plasan ilteko emoten deutza
sententzi edo ordena
S. Agedak eskatzen eban
Jaunaren laguntasuna
une atan bertan etorri yakon
seruko argitasuna.

8

Lurrak ikara egin auen da
orma aundi bat jausi san
ta enperadore onen lagun bi
aspian artu situsan.
Martiriosko eriotzea
eroan auen munduan
da orain gloriak gosaten dago
angeruakas seruan.

9

Kristiñau batzuk enterrau euden
Kataniako urian
bere aurrean auspestu eta
danak damutu eitean.
Urte ontxu bat ospatzen dogu
santa onen isenean
bere fedea mundu onetan
beti konserbau daitean.

gero kartzelan sartu eginda
goizerorduko il daiten
bularretatik gorputz guztia
odolez beteta euken
baina jaunaren probidentzia
ez jakon inoz faltatzen.

6

Bularrak kendu eginda gero
arturik silla batean
kartzela baten sartu audien
soldadu bien artean,
soldadu biok esaten auden
ilgo da gaurko gaubean
baina osatuta topau eudien
andik urrengo goizean.

7

Kinziano onek ikusiten dau
len bezain firme dagona
plazan ilteko emoten deutsa
sententzi edo ordena
S. Agedak eskatzen eban
jaunaren laguntasuna
une atan bertan etorri jakon
zeruko argitasuna.

8

Lurrak ikara egin auen da
orma aundi bat jausi zan
ta enperadore onen lagun bi
azpian artu zituzan.
Martiriozko eriotzea
eroan auen munduan
da orain gloriak gozaten dago
angeruakaz zeruan.

9

Kristiñau batzuk enterrau euden
Kataniako urian
bere aurrean auzpeztu eta
danak damutu eitean.
Urte ontxu bat ospatzen dogu
santa onen izenean
bere fedea mundu onetan
beti konserbau daitean.

MARTIRIOARI ITXITEKO

1

Nagusi jauna aurrera
erreberentzia lurrera
lotza garala etorri gara
jauna berorren aurrera.

2

Alkate jaunagas egon gara
atzoko arratzaldean
libertadea geurekin dogu
ibiliteko bakean.

3

Eder eleisan altare
arri labratus pilare
Bigiña amak eskogituak
etxe onetakuak dirade.

4

Usoak doas otara
nere begiak lotara
nagosi jauna oraintxe noia
berorren koplaetara.

5

Orain bagoasela gu
gente noblea parkatu
eta bertatik gura genduke
nagosi jauna notatu.

6

Or be betxuan kantara
arria andik atara
nagosi jauna oraintxe goas
berorren notaetara.

7

Laguna(k)tx(y)atas asiten
alborikara tentatzen
asiko banas asi naitela
nagosi jauna notatzen.

MARTIRIOARI ITXITEKO

1

Nagusi jauna aurrera
erreberentzia lurrera
lotsa garala etorri gara
jauna berorren aurrera.

2

Alkate jaunagaz egon gara
atzoko arratsaldean
libertadea geurekin dogu
ibiliteko bakean.

3

Eder eleizan altare
arri labratuz pilare
Bigiña amak eskogituak
etxe onetakuak dirade.

4

Usoak doaz otara
nere begiak lotara
nagosi jauna oraintxe noia
berorren koplaetara.

5

Orain bagoazela gu
gente noblea parkatu
eta bertatik gura genduke
nagosi jauna notatu.

6

Or be betxuan kantara
arria andik atara
nagosi jauna oraintxe goaz
berorren notaetara.

7

Lagunak jataz asiten
alborikara tentatzen
asiko banaz asi naitela
nagosi jauna notatzen.

SANTA AGEDA OSTEKO NOTATZEAK

SANTA AGEDA OSTEKO NOTATZEAK

AGURRA NOR SER DANARI

AGURRA NOR ZER DANARI

NAGUSIARI

NAGUSIARI

1

Eder seruan dogu isarra
erreka onduan leisarra
etxe onetako nagosi jaunak
urre gorrisko bisarra
urre gorrisko bisarrarekin
diamantesko espalda
jauna berori lango gisonik
erri onetan es alda.

1

Eder zeruan dogu izarra
erreka onduan leizarra
etxe onetako nagosi jaunak
urre gorrizko bizarra
urre gorrizko bizarrarekin
diamantezko espalda
jauna berori lango gizonik
erri onetan ez alda.

2

Erreka aundiak leku askotan
itxasua uregas nagosi
etxe onetako nagosi jauna
propietarioetan nagosi
limosnerua bada seguru
gauk es du iños ikusi
ikusi barik sinesten dogu
jaunori dala nagosi.

2

Erreka aundiak leku askotan
itxasua uregas nagosi
etxe onetako nagosi jauna
propietarioetan nagosi
limosnerua bada seguru
gauk ez du iñoz ikusi
ikusi barik sinesten dogu
jaunori dala nagosi.

3

Etxe askotan egiten dira
diruarekin erronkak
jauna berori lango aberatzak
erri onetan banakak
jauna berorrek andiak ditu
ganadu eta bai finkak
eta ganera diruz beterik
ipoteka eta libretak.

3

Etxe askotan egiten
diradiruarekin erronkak
jauna berori lango aberatsak
erri onetan banakak
jauna berorrek andiak ditu
ganadu eta bai finkak
eta ganera diruz beterik
ipoteka eta libretak.

4

Errotapian arria dago
aren ganean txoria
etxe onetako nagosi jauna
propietario andia
propietario andia eta
diru askoren jaubia
guri limosna emongo deusku
eun erleko bat barria.

4

Errotapian arria dago
aren ganean txoria
etxe onetako nagosi jauna
propietario andia
propietario andia eta
diru askoren jaubia
guri limosna emongo deusku
eun erleko bat barria.

5

Jardinik jardin maitea beti
udabarrian loria
etxe onetako nagosi jauna
ondo da gison noblia
ondo da gison noblia eta
gausa askoren jaubia
gaur limosnea emongo deusku
dudea barik aundia.

6

Gisonak onak leku askotan
batian eta bestian
etxe ontakolangorik es da
emeko erri gustian
tabernan meatz allegatzen da
al dan gustian eleisan
jauna berori lango gisonik
erri onetan es da isan.

7

Etxe onetako nagosi jaunak
sabalik daukas biotz bi
mesede aundiak egin eiteko
mundu onetan askori
mundu onetan askori eta
gaur egingo deusku guri
urte askotan osasunagaz
bisi daitela jaun ori.

ALKATEARI

Alkate onak erri askotan
batean eta bestian
Seberioquia langorik es dao(dago)
bat bere es da Biskaiian
tabernan meatz allegatzen da
eleisan aal dauanian
jaun ori ona dala guk letxe
dakie mundu gustian.

5

Jardinik jardin maitea beti
udabarrian loria
etxe onetako nagosi jauna
ondo da gizon noblia
ondo da gizon noblia eta
gauza askoren jaubia
gaur limosnea emongo deusku
dudea barik aundia.

6

Gizonak onak leku askotan
batian eta bestian
etxe ontakolangorik ez da
emeko erri guztian
tabernan meatz allegatzen da
al dan guztian eleizan
jauna berori lango gizonik
erri onetan ez da izan.

7

Etxe onetako nagosi jaunak
zabalik daukaz biotz bi
mesede aundiak egin eiteko
mundu onetan askori
mundu onetan askori eta
gaur egingo deusku guri
urte askotan osasunagaz
bizi daitela jaun ori.

ALKATEARI

Alkate onak erri askotan
batean eta bestian
Zeberioquia langorik ez dao(dago)
bat bere ez da Bizkaiian
tabernan meatz allegatzen da
eleizan aal dauanian
jaun ori ona dala guk letxe
dakie mundu guztian.

NAGUSIARI

1

Itxasoan dao lebatza asko
erreka onduan iñontza
etxe onetako nagosi jauna
ondo gison aberatza
ondo da gison aberatza eta
berak ona dau biotza
gaur guretzako sabalduko dau
kaxa nagosiko giltza.

2

Libru andiak munduan dagos
egin eiteko ikusi
etxe onetako nagosi jaunak
sekretario ikasi
sekretario ikasi eta
sueldu andia irabasi
guri limosna emon eiteko
jaun ori dogu nagosi.

3

Santu gustiak seruan dagos
pekatariak munduan
etxe onetako nagosi jauna
onena erri barruan
limosnerua bada seguru
jenteak segun diñuan
jaun ori ondo portauko jaku
gauseagas edo diruan.

4

Mundu onetan entzute andia
markesak eta dukiak
erri onetan askos geiago
etxe onetako nausiak
egitadiak nobleak ditu
karidadesko begiak
jaun ori ondo saludatzen dau
erri gustiko gentiak.

NAGUSIARI

1

Itxasoan dao lebatza asko
erreka onduan iñontza
etxe onetako nagosi jauna
ondo gizon aberatsa
ondo da gizon aberatsa eta
berak ona dau biotza
gaur guretzako zabalduko dau
kaxa nagosiko giltza.

2

Libru andiak munduan dagoz
egin eiteko ikusi
etxe onetako nagosi jaunak
sekretario ikasi
sekretario ikasi eta
sueldu andia irabazi
guri limosna emon eiteko
jaun ori dogu nagosi.

3

Santu guztiak zeruan dagoz
pekatariak munduan
etxe onetako nagosi jauna
onena erri barruan
limosnerua bada seguru
jenteak segun diñuan
jaun ori ondo portauko jaku
gauzeagaz edo diruan.

4

Mundu onetan entzute andia
markesak eta dukiak
erri onetan askoz geiago
etxe onetako nausiak
egitadiak nobleak ditu
karidadesko begiak
jaun ori ondo saludatzen dau
erri guztiko gentiak.

5

Ollarra doa otara
nire begiak lotara
nagusi jauna oraintxe noa
berorren koplaetara.

6

Laño artean isarra
erreka munan lexarra
etxe onetako nagusi jaunak
urregorrisko bisarra.

7

Urregorrisko bisarra eta
urresurisko samea
errealbikos egina dauka
eleisarako bidea.

5

Ollarra doa otara
nire begiak lotara
nagusi jauna oraintxe noa
berorren koplaetara.

6

Laino artean izarra
erreka munan lexarra
etxe onetako nagusi jaunak
urregorritzko bizarra.

7

Urregorritzko bizarra eta
urrezurizko samea
errealbikoz egina dauka
eleizarako bidea.

NAGUSI JAUNA EGON ESEAN.

Gradurik gradu notadutzen da
mundu onetan gentera
nagosi jaunik es dan lekuan
lelengo etxeko andrea.

ETXEKO ANDREA NOTATUTZEKO

1

Eder intxaurren kordena
guk olan dogu ordena
etxeko andrea notadutzeko
nagosiaren urrena.

2

Okaran gorri betea
aurten da sure urtea
errealtxu bi emon eskero
badosu borondatea.

ABADEARI

1

Ogei gisaldi ia eldu dira
Jesukristo jaio sala

NAGUSI JAUNA EGON EZEAN.

Gradurik gradu notadutzen da
mundu onetan gentera
nagosi jaunik ez dan lekuan
lelengo etxeko andrea.

ETXEKO ANDREA NOTATUTZEKO

1

Eder intxaurren kordena
guk olan dogu ordena
etxeko andrea notadutzeko
nagosiaren urrena.

2

Okaran gorri betea
aurten da zure urtea
errealtxu bi emon ezkerro
badozu borondatea.

ABADEARI

1

Ogei gisaldi ia eldu dira
Jesukristo jaio zala

jaunori baiño abade oberik
es dot uste isango sala
jauna berori yoan danik ona
Santa Kurtzeko elisara
faltau be in (egin) barik ango gentea
yoan egiten da mesara.

2

Etxe onetako abade jauna
ondo ona ta noblea
jauna berorrek esplikatzen dau
Jesukristoren legea
Jesukristoren legea eta
eleisa amaren ordea
jauna berorrek sabalduko dau
seruetako atea.

3

Isar ederrak seruan dagoz
mundua argitutzeko
etxe onetako abade jauna
erlejiñoa saintzeko
Aita santua Erroman dago
Jesukristoren ordeko
jauna berori eskogituta
dago aren lekureko.

jaunori baiño abade oberik
ez dot uste izango zala
jauna berori joan danik ona
Santa Kurtzeko elizara
faltau be in (egin) barik ango gentea
joan egiten da mezara.

2

Etxe onetako abade jauna
ondo ona ta noblea
jauna berorrek esplikatzen dau
Jesukristoren legea
Jesukristoren legea eta
eleiza amaren ordea
jauna berorrek zabalduko dau
zeruetako atea.

3

Izar ederrak zeruan dagoz
mundua argitutzeko
etxe onetako abade jauna
erlejiñoa zaintzeko
Aita santua Erroman dago
Jesukristoren ordeko
jauna berori eskogituta
dago aren lekureko.

ALARGUNARI

Armarioan sagua
ari begira katua
etxe onetako etzeko andrea
alargun bedeinkatua.
Bere senarra gison ona san
egoanean munduan
orain gloriak gosatzen dago
Santa Agedagas seruan.

ALARGUNARI

Armarioan sagua
ari begira katua
etxe onetako etzeko andrea
alargun bedeinkatua.
Bere senarra gison ona zan
egoanean munduan
orain gloriak gozatzen dago
Santa Agedagaz zeruan.

ETXEKO ANDREARI

1

Etxe onetako andrea
leku oneko alabea
ortxe bidean konsultau gara
selan dan limosnerea.

ETXEKO ANDREARI

1

Etxe onetako andrea
leku oneko alabea
ortxe bidean konsultau gara
zelan dan limosnerea.

Esku batean dirua dakar
bestean lukainka parea
altzoa bere gora dakar da
an be dosena arrautzea.

2

Ortxe soloan madari
erramak ditu gora adi
etxe onetako etxeko andreak
Ama Birjiña dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu bat leges argi
enbra eder ta galantagorik
es da mundura etorri.

3

Eleisa onduan kaltzadea
andi jentea pasa da
etxe ontako etzeko andrea
ondo andre galanta da
Etxeko androri joaten danean
jai egunean mesara
gente gustia berari adi
oten (egoten) da bere trasara.

4

S. Ageda Santa aundia
Seruetako tronuan
etxe onetako etzeko andrea
axelangua munduan
karidadesko begiak ditu
S. Agedaren moduan
biotz obeko andrarik es da
bat bere emeko munduan.

5

Etxeko andria on ona
seure gausaren doi ona
paskoa goixean jantziko dosus
seure soñean bos(t) gona.
Suri ta nabar aspikogona
asul ederra ganeko
andrea sure parerik es da
plasa bat ondradutzeko.

Esku batean dirua dakar
bestean lukainka parea
altzoa bere gora dakar da
an be dozena arrautzea.

2

Ortxe soloan madari
erramak ditu gora adi
etxe onetako etxeko andreak
Ama Birjiña dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu bat legez argi
enbra eder ta galantagorik
ez da mundura etorri.

3

Eleiza onduan kaltzadea
andi jentea pasa da
etxe ontako etzeko andrea
ondo andre galanta da
Etxeko androri joaten danean
jai egunean mezara
gente guztia berari adi
oten (egoten) da bere trazara.

4

S. Ageda Santa aundia
Zeruetako tronuan
etxe onetako etzeko andrea
axelangua munduan
karidadezko begiak ditu
S. Agedaren moduan
biotz obeko andrarik ez da
bat bere emeko munduan.

5

Etxeko andria on ona
zeure gauzaren doi ona
paskoa goixean jantziko dozuz
zeure soinean bost gona.
Zuri ta nabar azpikogona
azul ederra ganeko
andrea zure parerik ez da
plaza bat ondradutzeko.

6

Ortxe betxuan errota
uruna ondo eota
etxe onetako etzeko andrea
ondo da andra galanta.
Egitadeak formalak eta
gorputza ondo pertxeta
beren soñean jantzi ederrak
erregiña les yantzita.

7

Etze onetako etzeko andrea
txikitxu konponidea
biribil eta kuriosea
gorputzes prepraradea
eta ganera beterik dauka
generos beren etxea
gaur guretzako sabaldukoitu
kartera eta kaxea.

8

Ortxe soloan asia
susterra dauka lusia
etxe onetako etzeko andrea
ona ta kuriosia.
Orres gainera esan deuskue
selan dan limosnerea
etzeko andra onek emongo deusku
dirua ta gausea.

9

Ondo andratxu prepradea
etxe onetako andria
erri onetan onena dauka
baita berorrek ondria
ondo andratxu kariñosea
biotza limosneria
gaur guretzako emongo deusku
limosna gustis andia.

10

Ortxe goitxuan bidia
aren onduan idia
etxe onetako etzeko andrea
andratxu konponidia

6

Ortxe betxuan errota
uruna ondo eota
etxe onetako etzeko andrea
ondo da andra galanta.
Egitadeak formalak eta
gorputza ondo pertxeta
beren soinean jantzi ederrak
erregiña lez jantzita.

7

Etxe onetako etzeko andrea
txikitxu konponidea
biribil eta kuriosea
gorputzez prepradea
eta ganera beterik dauka
generoz beren etxea
gaur guretzako zabaldukoitu
kartera eta kaxea.

8

Ortxe soloan azia
zuzterra dauka luzia
etxe onetako etzeko andrea
ona ta kuriosia.
Orrez gainera esan deuskue
zelan dan limosnerea
etzeko andra onek emongo deusku
dirua ta gauzea.

9

Ondo andratxu prepradea
etxe onetako andria
erri onetan onena dauka
baita berorrek ondria
ondo andratxu kariñosea
biotza limosneria
gaur guretzako emongo deusku
limosna guztiz andia.

10

Ortxe goitxuan bidia
aren onduan idia
etxe onetako etzeko andrea
andratxu konponidia

orres gainera ondo dakigu
selan dan limosneria
andratxu onek emongo deusku
dirua eta gausia.

orrez gainera ondo dakigu
zelan dan limosneria
andratxu onek emongo deusku
dirua eta gausia.

SALDUN GASTEIA NOTATUTZEKO

Arantza baltzak orria txiki
punta aldera loratzu
orain emendik gura genduke
saldun gastea notatu.

ZALDUN GAZTEIA NOTATUTZEKO

Arantza baltzak orria txiki
punta aldera loratsu
orain emendik gura genduke
zaldun gaztea notatu.

SALDUN GASTEARI

1

Seme ederrak amak asita
leku askotan munduan
etxe onetako langorik es dao
emen errialde barruan
galantes ondo galante data
baita aberatza moduan
saldun gasteori eskonduteko
askok gure dau munduan.

2

Ortxe goitxuan iturri
ura txorrotik etorri
etxe onetako saldun gasteak
amalau urre txintzarri
Amalau urre txintzarriekin
saspi damaren eguski
gusti orreri gitxi eretxita
geiago ditu meresi.

3

Ortxe soluan bedarra
tximinian dao kedarra
etxe onetako saldun gastea
ondo mutiltxu ederra.
Edertasunak andiak ditu
galantasuna andiago
saldun gaste ta ederragorik
es dago orixe baño.

1

Seme ederrak amak azita
leku askotan munduan
etxe onetako langorik ez dao
emen errialde barruan
galantez ondo galante data
baita aberatsa moduan
zaldun gazteori ezkonduteko
askok gure dau munduan.

2

Ortxe goitxuan iturri
ura txorrotik etorri
etxe onetako zaldun gazteak
amalau urre txintzarri
Amalau urre txintzarriekin
zazpi damaren eguzki
guzti orreri gitxi eretxita
geiago ditu merezi.

3

Ortxe soluan bedarra
tximinian dao kedarra
etxe onetako zaldun gaztea
ondo mutiltxu ederra.
Edertasunak andiak ditu
galantasuna andiago
zaldun gazte ta ederragorik
ez dago orixe baño.

4

Ortxe goitxuko landetan
txoriak dabis kantetan
etxe onetako saldun gastea
mutil ederra benetan
traje ederra daro soñetan
sapata gorriek oñetan
saldun gasteori lango beste bat
es dago erri onetan.

5

Argi ederrak asko daos baña
eguskia da nagusi
etxe onetako saldun gasteak
aren argia dirudi
bere arpegia argi ta eder
danok eiten du(dogu) ikusi
saldun gaste ta ederragorik
amak esin leike asi.

6

Plasa onduan subia
andi pasauta egia
etxe onetako saldun gasteak
topaurik dauko nobia
topaurik dauka nobia eta
dotea be dauka andia
arreo ederra eta ganera
dirua be partidia.

7

Gure begiekas ikusten dogus
isar ederrak seruan
etxe onetako mutil gastea be
mutil ederra munduan
edertasunak aundiak ditu
danok dakigun moduan
ederragorik amak asita
es dao bat bere munduan.

8

Altuan dago Mintegi
kamiño ondoan Artzubi
etxe onetako saldun gasteak
opaka ditu nobi bi

4

Ortxe goitxuko landetan
txoriak dabiz kantetan
etxe onetako zaldun gaztea
mutil ederra benetan
traje ederra daro soiñetan
zapata gorriek oñetan
zaldun gazteori lango beste bat
ez dago erri onetan.

5

Argi ederrak asko daoz baina
eguzkia da nagusi
etxe onetako zaldun gazteak
aren argia dirudi
bere arpegia argi ta eder
danok eiten du(dogu) ikusi
zaldun gazte ta ederragorik
amak ezin leike azi.

6

Plaza onduan zubia
andi pasauta egia
etxe onetako zaldun gazteak
topaurik dauko nobia
topaurik dauka nobia eta
dotea be dauka andia
arreo ederra eta ganera
dirua be partidia.

7

Gure begiekaz ikusten doguz
izar ederrak zeruan
etxe onetako mutil gaztea be
mutil ederra munduan
edertasunak aundiak ditu
danok dakigun moduan
ederragorik amak azita
ez dao bat bere munduan.

8

Altuan dago Mintegi
kamino ondoan Artzubi
etxe onetako zaldun gazteak
opaka ditu nobi bi

opaka ditu nobi bi eta
askok aita ta amari
erri onetan estimadua
dago mutil gaste ori.

opaka ditu nobi bi eta
askok aita ta amari
erri onetan estimadua
dago mutil gazte ori.

SEME-ALABEI

Ortxe goitxuan ardiak dagos
mendian arran soñuan
etxe onetan seme-alabak
eskonduteko moduan
euron doteak andiak dira
danok dakigun moduan
seme-alabok eskonduteko
askok gura daus munduan.

SEME-ALABEI

Ortxe goitxuan ardiak dagoz
mendian arran soñuan
etxe onetan seme-alabak
eskonduteko moduan
euron doteak andiak dira
danok dakigun moduan
seme-alabok ezkonduteko
askok gura dauz munduan.

DAMA GASTEARI

1

Lore ederra gustis argia
uda barriko loria
duda bagarik axe langua
emeko dama gastia
klabelinatxu gustis polita
gainera dote aundia
ori logratzen gau ta egun dabil
erri gustiko jentia.

2

Damatxu gaste preparadea
gorputzes ondo artesa
sure arpegia esan lei dala
jardin bateko larrosa.
Gorputzes ondo linda ta eder
berbaikunean donosa
sulako dama gaste-gasterik
erri onetan bat es da.

3

Damatxu gaste konponidea
aurten da sure urtea
aurten eskondu eiten sarala
arturik dauku notea
aspalditxuan sententzituta
dago suretzat dotea

DAMA GAZTEARI

1

Lore ederra guttiz argia
uda barriko loria
duda bagarik axe langua
emeko dama gaztia
klabelinatxu guttiz polita
gainera dote aundia
ori logratzen gau ta egun dabil
erri gutziko jentia.

2

Damatxu gazte preparadea
gorputzez ondo arteza
zure arpegia esan lei dala
jardin bateko larrosa.
Gorputzez ondo linda ta eder
berbaikunean donosa
zulako dama gazte-gazterik
erri onetan bat ez da.

3

Damatxu gazte konponidea
aurten da zure urtea
aurten ezkondu eiten zarala
arturik dauku notea
azpalditxuan sententzituta
dago zuretzat dotea

ogerlekuak millekadaska
arreo elegantea.

4

Eleisa onduan kaltzada
andi gentia pasa da
etxe onetako dama gastea
ondo neska galanta da.
Dama gasteori joaten danean
erromerian plasara
gente gustia berari ardi
oten da beren trasara.

5

Aratxik aratx ibiliten jaku
mendi altuan okila
etxe onetako dama gasteak
ofesioa joskila.
Maestra aundiak ofesioetan
leku askotan badire
danen maestra joskileetan
etxe ontakua daudie.

6

Damatxu gaste konponidea
seure kolore gorria
seure matrailla iruditzen yat
klabeliñaren orria.
Klabelediñaren orriarekin
larrosa maiatzekoa
seuri begira ementxe gagoz
damatxu biotzekoa.

7

Ortxe soluan madari
erramak dituz gora adi
etxe onetako dama gasteak
ama Birjiña dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu batek les argi
dama eder da galantagorik
ez da mundura etorri.

8

Ortxe betxuan beresi
askoreagas iñusi
etxe onetako dama gastia

ogerlekuak millekadazka
arreo elegantea.

4

Eleiza onduan kaltzada
andi gentia pasa da
etxe onetako dama gaztea
ondo nezka galanta da.
Dama gazteori joaten danean
erromerian plazara
gente guztia berari ardi
oten da beren trazara.

5

Aratxik aratx ibiliten jaku
mendi altuan okila
etxe onetako dama gazteak
ofezioa joskila.
Maestra aundiak ofesioetan
leku askotan badire
danen maestra joskileetan
etxe ontakua daudie.

6

Damatxu gazte konponidea
zeure kolore gorria
zeure matrailla iruditzen jat
klabelinaren orria.
Klabeledinaren orriarekin
larrosa maiatzekoa
zeuri begira ementxe gagoz
damatxu biotzekoa.

7

Ortxe soluan madari
erramak dituz gora adi
etxe onetako dama gazteak
ama Birjina dirudi.
Bere arpegiak egin eiten dau
espillu batek lez argi
dama eder da galantagorik
ez da mundura etorri.

8

Ortxe betxuan beresi
azkoreagaz iñuzi
etxe onetako dama gaztia

askok gure dau erosi.
Askok erosi gura izan arren
gatx dago ori erosten
arreo ederraz dotea be dauko
milla ogerleko diruten.

9

Etxe onetako dama gasteak
etxe ingurua biribil
nobio faltarik es dau isango
oin legez formal badabil
ori logratzen gente aberatza
etxe onetara dabil
euren kotxeak daukiesanak
aeroplano ta automobil.

10

Errotapean arria
bere ganean txoria
erastun baten sartu leiteke
neskatxa sure garria.

11

Sure soloan madari
erramak ditu amabi
etxe onetako alaba onek
babalorea dirudi.

TXIKERRENA NOTATZEKO

1

Ortxe ortuan asa bi
batak bestea dirudi
etxe onetako txikerrentxuak
urre kurtzea dirudi.

2

Etxe onetako txikerrentxuak
edertasunak ugari
bere arpegi eder orretan
meresi dituz mosu bi.

TABERNEREARI

Geuri entzuten ementxe dauka
taberna onetan gentera

askok gure dau erosi.
Askok erosi gura izan arren
gatx dago ori erosten
arreo ederraz dotea be dauko
milla ogerleko diruten.

9

Etxe onetako dama gazteak
etxe ingurua biribil
nobio faltarik ez dau izango
oin legez formal badabil
ori logratzen gente aberatza
etxe onetara dabil
euren kotxeak daukiesanak
aeroplano ta automobil.

10

Errotapean arria
bere ganean txoria
erastun baten sartu leiteke
neskatxa zure garria.

11

Zure soloan madari
erramak ditu amabi
etxe onetako alaba onek
babalorea dirudi.

TXIKERRENA NOTATZEKO

1

Ortxe ortuan aza bi
batak bestea dirudi
etxe onetako txikerrentxuak
urre kurtzea dirudi.

2

Etxe onetako txikerrentxuak
edertasunak ugari
bere arpegi eder orretan
meresi dituz mosu bi.

TABERNEREARI

Geuri entzuten ementxe dauka
taberna onetan gentera

eta guk ondo kantau eiteko
sarratuta du (dogu) samea
samea freskatu egiteko
utzituta dao botea
len baiño len ba bete eigusu
taberneratxu maitea.

eta guk ondo kantau eiteko
zarratuta du (dogu) samea
samea freskatu egiteko
utsituta dao botea
len baino len ba bete eiguzu
taberneratxu maitea.

SANTA AGEDA-ESKARIAK

ASKENA

1

Ate ondoan askora
ia koplarik asko da
etxeke andrea ekarri egisu
limosna ori eskura.

2

Orain nai dogus amaitu
txarto esanak parkatu
eskerrik asko ta urte askotan
osasunagas pasatu.

3

Etxe ondoan asuna
orria dauka asula
eskerrik asko ta urte askotan
osasuna auki daisula.

4

Etxe onetako andria
esan bear deutzut egia
etxe onetan il egin daude
amalau arroako txarria.

5

Solomo gorri lusea
aren koipearen dultzea
piska ta piska ibili barik
ekarri egisu gustia.

6

Etxe onetako andrea
giltze aundiaren jaube
giltza aundiak artu eibus ta
egin kaxara bidea.

SANTA AGEDA-ESKARIAK

AZKENA

1

Ate ondoan azkora
ia koplarik asko da
etxeke andrea ekarri egizu
limosna ori eskura.

2

Orain nai doguz amaitu
txarto esanak parkatu
eskerrik asko ta urte askotan
osasunagaz pasatu.

3

Etxe ondoan asuna
orria dauka azula
eskerrik asko ta urte askotan
osasuna euki daizula.

4

Etxe onetako andria
esan bear deutzut egia
etxe onetan il egin daude
amalau arroako txarria.

5

Solomo gorri luzea
aren koipearen dultzea
pizka ta pizka ibili barik
ekarri egizu gustia.

6

Etxe onetako andrea
giltze aundiaren jaubea
giltza aundiak artu eizuz ta
egin kaxara bidea.

7

Kaxara yoan ta utzik etorri
es da suretzat ondrea
es suretzako ondrea eta
es guretzat be ohea.

8

Soloan makinarekin
etxea frontalarekin
etxeko andra etorri saigus
eskuan limosnarekin.

LIMOSNARIK EMOTEN ES DAUANARI

Erbia dago asatzen
errikumea babatzen
etxe onetako u(ga)saba jauna
samarañoko kakatzen.

7

Kaxara joan ta utsik etorri
ez da zuretzat ondrea
ez zuretzako ondrea eta
ez guretzat be ohea.

8

Soloan makinarekin
etxea frontalarekin
etxeko andra etorri zaiguz
eskuan limosnarekin.

LIMOSNARIK EMOTEN EZ DAUANARI

Erbia dago azatzen
errikumea babatzen
etxe onetako u(ga)zaba jauna
samarainoko kakatzen.

71.4. Balentin de Berriotxoari bertsoak

BALENTIN BERRIOTXOARI BERTZO BARRIAK XENPELA- RREK JARRIAK

1

Milla sortzireun irurogeita
saspigarren urtean
Kristo serutik jatsi sanetik
onañoko bitartean.
Iru obispok pasatu duten
martirioaren gogorra
penagarria isan da oien
munduko bisitza.

2

Baten bisitza kanta desadan
au da bigarren bertzoa
Elorrioko semea da ta
Balentin Berriotxo.
Aita ta ama Bizkaian daude
semea an ila gaixoa,

BALENTIN BERRIOTXOARI BERTSO BARRIAK XENPELARREK JARRIAK

1

Milla zortzireun irurogeita
zazpigarren urtean
Kristo zerutik jatsi zanetik
onainoko bitartean.
Iru obispok pasatu duten
martirioaren gogorra
penagarria izan da oien
munduko bisitza.

2

Baten bisitza kanta dezadan
au da bigarren bertzoa
Elorrioko semea da ta
Balentin Berriotxo.
Aita ta ama Bizkaian daude
semea an ila gaixoa,

jentil artean betetu jako
eriotzako plaso.

3

Amairu urterik amabostera
estudioak ikasi
gero aitaren ofisioa
erakusten suten asi
gogoan eukan apaiz aginda
naiago suela bisi
tormentu gitxi mundu onetan
es dau beragan ikusi.

4

Berrogei urte orain situen
gertatu balitz bisirik
ogeta saspi lendabisiko
estudiatzen asirik.
Seminario batera yoan san
arotz ikasirik
negarres nabil aren pausoak
esin adierasirik.

5

Seminario eder batean
Logroñon apaiz egiña
beste gustiak baño lenago
ikasirik esamiña.
Buru argia isanik eta
fedea santurako fiña
negarres urtu leiteke artas
akordatuko bagiña.

6

Ogeitaka urte zituela
etzeukan umore ila
kolegioko maixuak baisen
estudiante abila.
Obispo jaunak esagaturik
justua ta umila
agindu suen mesa eman ta
erretiratu sedila.

jentil artean betetu jako
eriotzako plazoa.

3

Amairu urterik amabostera
estudioak ikasi
gero aitaren ofisioa
erakusten zuten asi
gogoan eukan apaiz aginda
naiago suela bisi
tormentu gitxi mundu onetan
ez dau beragan ikusi.

4

Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bisirik
ogeta zazpi lendabiziko
estudiatzen asirik.
Seminario batera joan zan
arotz ikasirik
negarrez nabil aren pausoak
ezin adierazirik.

5

Seminario eder batean
Logroñon apaiz egiña
beste guztiak baino lenago
ikasirik esamiña.
Buru argia izanik eta
fedea santurako fiña
negarrez urtu leiteke artaz
akordatuko bagiña.

6

Ogeitaka urte zituela
etzeukan umore ila
kolegioko maixuak baisen
estudiante abila.
Obispo jaunak ezagaturik
justua ta umila
agindu zuen meza eman ta
erretiratu zedila.

7

Goisero laurak jotzian mesa
eman ta konfesiara
berau egin ta obra onetan
pasatzen suen denpora.
Pobrerik inos etorten basan
eskean ate ondora
bere ogia ari emon da
deboziñoa gogorra.

8

Logroñon mesa emon suen ta
Elorriara etorri
predika eta konpeseñoan
bere errian san jarri.
Aspeitiako San Inasion
bisita egin du sarri
askenerako aren pausoak
siraden lastimagarri.

9

Suertatu da gure Balentin
San Inasion sartzea
pentzatu suen ango padreak
abertentzia artzea.
Nola nai suen Santo Domingok
seukan jantzia jartzea
eta fabore egingo sian
al basuen ekartzea.

10

Ango padreak maite isanik
imini suan kontuan
agindu sion sartu sedila
Ocañako komentuan.
Bide gustian eskean yoan san
gabak askotan kanpoan
bere gorputza asotatuas
allegatzen san lekuan.

11

Allegatu san Ocañara ta
emon eutzien jantzia
berak nai suen gorputzarentzat
alako penitentzia.

7

Goizero laurak jotzian meza
eman ta konfesiara
berau egin ta obra onetan
pasatzen zuean denpora.
Pobrerik inoz etorten bazan
eskean ate ondora
bere ogia ari emon da
deboziñoa gogorra.

8

Logroñon meza emon zuen ta
Elorriara etorri
predika eta konpeseñoan
bere errian zan jarri.
Azpeitiako San Inazion
bisita egin du sarri
azkenerako aren pausoak
ziraden lastimagarri.

9

Suertatu da gure Balentin
San Inazion sartzea
pentsatu zuen ango padreak
abertentzia artzea.
Nola nai zuen Santo Domingok
zeukan jantzia jartzea
eta fabore egingo zian
al bazuen ekartzea.

10

Ango padreak maite izanik
imini zuan kontuan
agindu zion sartu zedila
Ocañako komentuan.
Bide guztian eskean joan zan
gabak askotan kanpoan
bere gorputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.

11

Allegatu zan Ocañara ta
emon eutsien jantzia
berak nai zuen gorputzarentzat
alako penitentzia.

Munduko gausak gustiak beti
alde batera utzia
neke, trabaju, naigabeetan
artu du pasientzia.

12

Gure Balentin Berriotxoak
egin situen pausuak
konsideratzen jarri eskero
dirade lastimosuak.
Beti negarres Jesusen ama
sabaldurikan besuak
aren biotza atzegintzen du
seruko usain gozoak.

13

Paseatzera etzan joaten
komentu lagunarekin
etxean seukan tertulia ona
errosario birekin.
Bere gorputza martiritzen
asote disiplinakin
orasioak balio badu
seruan dago Balentin.

14

Bakardian oneraño san
Balentinen istoria
Ocañatik Manilara siran
sortzi ministro abia.
Barkuan ere sufritu duta
makina bat kalameria
biotza penas urtu leiteke
es baldin bada arria.

15

Ocañatikan Manilaraño
barkuan bost ilabete
jakina dago isango sala
asko leguas aparte.
Sortzi ministro oien artean
au san sobresaliente
gure Balentin ango maixuak
obispo nonbratu dute.

Munduko gauzak guztiak beti
alde batera utzia
neke, trabaju, naigabeetan
artu du pazientzia.

12

Gure Balentin Berriotxoak
egin zituen pausuak
konsideratzen jarri ezkerro
dirade lastimosuak.
Beti negarrez Jesusen ama
zabaldurikan besuak
aren biotza atsegintzen du
zeruko usain gozoak.

13

Paseatzera etzan joaten
komentu lagunarekin
etxean zeukan tertulia ona
errosario birekin.
Bere gorputza martiritzen
azote disziplinakin
orazioak balio badu
zeruan dago Balentin.

14

Bakardian oneraño zan
Balentinen istoria
Ocañatik Manilara ziran
zortzi ministro abia.
Barkuan ere sufritu duta
makina bat kalameria
biotza penaz urtu leiteke
ez baldin bada arria.

15

Ocañatikan Manilaraino
barkuan bost ilabete
jakina dago izango zala
asko leguaz aparte.
Zortzi ministro oien artean
au zan sobresaliente
gure Balentin ango maixuak
obispo nonbratu dute.

16

Ango padreak agindu sion
eskubidea artzeko
predikatzen asi sedila
kristandadean jartzeko.
Konfesiño ta barau egunak
animas akordatzeko
pekatuaren mantxa Judasen
kalabosuan sartzeko.

17

Artoa jana ta ura edari
arri ganean lo egin
beti Jesusi erregututzen
gugas akordatu dedin.
Kristandia nai suenari
konfesiñoa eragin
jakina dago salbajeakin
etzegoala atze gin.

18

Erreiñu artan gobernadore
salbajeen nagusia
Jaungoikoaren bildur gabea
estranjerian asia.
Erlegioko fede santuan
jarri nai duen gustia
agindu suen plasan kentzeko
espatarekin bisia.

19

Garagarrilaren lendabisiko
goisean siran asi
arratzerako bost millatetik
etzan garaurikan bisi.
Fede santuko kristabak ilten
situenean ikusi
Balentin bere lagunetara
abiatu san igesi.

20

Pedro Albato eta bestea
Geronimo Ermosilla
gero Balentin Berriotxo
saltatu san euren billa.

16

Ango padreak agindu zion
eskubidea artzeko
predikatzen asi zedila
kristandadean jartzeko.
Konfesino ta barau egunak
animaz akordatzeko
pekatuaren mantxa Judasen
kalabozuan sartzeko.

17

Artoa jana ta ura edari
arri ganean lo egin
beti Jesusi erregututzen
gugaz akordatu dedin.
Kristandia nai zuenari
konfesinoa eragin
jakina dago salbajeakin
etzegoala atse gin.

18

Erreiñu artan gobernadore
salbajeen nagusia
Jaungoikoaren bildur gabea
estranjerian azia.
Erlegioko fede santuan
jarri nai duen guztia
agindu zuen plazan kentzeko
ezpatarekin bizia.

19

Garagarrilaren lendabiziko
goizean ziran asi
arratzerako bost millatetik
etzan garaurikan bizi.
Fede santuko kristabak ilten
zituenean ikusi
Balentin bere lagunetara
abiatu zan igesi.

20

Pedro Albato eta bestea
Geronimo Ermosilla
gero Balentin Berriotxo
saltatu zan euren billa.

Iru obispo batzartu siran
seukaten biotz umilla
aien bisitza laster izanda
martirisatu ta illa.

21

Arrapatuta kate gogorres
lotuak seuden alkarri
ilteko emon sententzia ta
kartzela banatan jarri.
Soldadu tropa batean jarri
gero plasara ekarri
espateagas sama mostuta
dirade lastimagarri.

22

Orretarako eskatu suten
ordubeteko lekua
Jaungoikoari egin artean
bere ofresimentua.
Gobernadore batek emon dau
pena kantidadekua
iñor aiekas damutzen bada
bertan kentzeko burua.

23

Iru obispo oien gorpuak
ogei eta lau orduan
eduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan.
Oriente aldeko probintzian bertan
Jeuda(sic) deitzen dan lekuan
erregutzen dot aien arimak
egon daitesan seruan.

24

Orra ogetalau bertso barri
ejenplo eder batian
oroipengarri kanta daitesan
pekatarien artian.
Ai nire Jesus eskatzen deutzut
grasia errematian
komeni da ta sartu gagisus
seruetako glorian.

Iru obispo batzartu ziran
zeukaten biotz umilla
aien bizitza laster izanda
martirizatu ta illa.

21

Arrapatuta kate gogorrez
lotuak zeuden alkarri
ilteko emon sententzia ta
kartzela banatan jarri.
Soldadu tropa batean jarri
gero plazara ekarri
ezpateagaz sama moztuta
dirade lastimagarri.

22

Orretarako eskatu zuten
ordubeteko lekua
Jaungoikoari egin artean
bere ofrezimentua.
Gobernadore batek emon dau
pena kantidadekua
iñor aiekaz damutzen bada
bertan kentzeko burua.

23

Iru obispo oien gorpuak
ogei eta lau orduan
eduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan.
Oriente aldeko probintzian bertan
Jeuda(sic) deitzen dan lekuan
erregutzen dot aien arimak
egon daitezan seruan.

24

Orra ogetalau bertso barri
ejenplo eder batian
oroipengarri kanta daitezan
pekatarien artian.
Ai nire Jesus eskatzen deutzut
grazia errematian
komeni da ta sartu gagizuz
zeruetako glorian.

71.5. Lapur famatuaren bertso barriak

LAPUR FAMATUAREN BERTZO BARRIAK

1

Orain kanta barri bat
nai neuke nik jarri
munduko kriaturen
eskarmentugarri,
trantze estu onetan
gustis nago larri
nire pasadisuak
esan barik garbi

2

Ia nire kristauak
aditu kontuan
nire deskalabrua
selan dan munduan,
amairu eriotza
urtebete barruan
neskatxi bat motibo
nola ein ditudan.

3

Ogei eta bost urte
dauskat oraindik
orain arte isan nas
beti nekasari,
ein ninduen alperrik
gurasoak asi
es diet askenean
emon pena gitxi.

4

Ai au nire suberte
ikaragarria
jaunak bere eskutik
nendukan itxia,
neskatxi bat motibo
isan da gustia
amairu pertzonari
kentzeko bisia.

LAPUR FAMATUAREN BERTSO BARRIAK

1

Orain kanta barri bat
nai neuke nik jarri
munduko kriaturen
eskarmentugarri,
trantze estu onetan
gutziz nago larri
nire pasadizuake
san barik garbi

2

la nire kristauak
aditu kontuan
nire deskalabrua
zelan dan munduan,
amairu eriotza
urtebete barruan
neskatxi bat motibo
nola ein ditudan.

3

Ogei eta bost urte
dauzkat oraindik
orain arte izan naz
beti nekasari,
ein ninduen alperrik
gurasoak azi
ez diet askenean
emon pena gitxi.

4

Ai au nire suberte
ikaragarria
jaunak bere eskutik
nendukan itxia,
neskatxi bat motibo
izan da guztia
amairu pertzonari
kentzeko bisia.

5

Niri berba emonda
besteakin eskondu
orrexek emoten deust
biotzean damu,
utza san sikiera
motibo isan balu
beragatik bear dogu
oain biok galdu.

6

Bengantza orrekin ba
gau triste batean
puñal eta trabuko
arturik aidean,
ondo loturik negoan
etzaien katean
derrepente sartuas
beraren etxean.

7

Afaltzen an siraden
senar-emasteak
eskonbarriak eta
siraden gasteak,
es sioten emoten
penarik iltzea
suerte ona begira
egosan tristeak.

8

Bost puñalada asteko
emon nion berari
es Jesus eta es amen
yoan san mundutik,
senar tristea egoan
andreari begira
baia esin kenduta
seukan erida.

9

Berari tira nion
petxuan erdira
orra ser pasatu san
esan dot egia,

5

Niri berba emonda
besteakin ezkondu
orrexek emoten deust
biotzean damu,
utsa zan sikiera
motibo izan balu
beragatik bear dogu
oain biok galdu.

6

Bengantza orrekin ba
gau triste batean
puñal eta trabuko
arturik aidean,
ondo loturik negoan
etsaien katean
derrepente sartuaz
beraren etxean.

7

Afaltzen an ziraden
senar-emazteak
ezkonbarriak eta
ziraden gazteak,
ez zioten emoten
penarik iltzea
suerte ona begira
egozan tristeak.

8

Bost puñalada asteko
emon nion berari
ez Jesus eta ez amen
joan zan mundutik,
senar tristea egoan
andreari begira
baina ezin kenduta
zeukan erida.

9

Berari tira nion
petxuan erdira
orra zer pasatu zan
esan dot egia,

senar eta emaste
sukaldean biak
an gelditu siraden
derrepente illak.

10

Es isandu balira
sano eta fiñak
orra ser suertia
gaiski dabillanak,
asiño au eginda
irten dau etxetik
justisia altoka
asiño atzetik.

11

Giratu ta tirati
nik barris gogotik
lau gison tiro bates
an siran erori,
orra sei eriotza
gau batean egin
arimak nora siran
nai nuke ni(k)tx(y)akin.

12

Kristauaren biotza
ikaragarria
gisonari emoten
alako larria,
utzi sesala bertan
diru ta saldia
egin nai es basuan
munduko aldia.

13

Saldiaren ganean
gizon armatua
abiatu nintzanean
lapur famatua,
atzetikan banuen
nok arrapatua
baia billatzen nuan
non eskutatua.

senar eta emazte
sukaldean biak
an gelditu zira
denderrepente illak.

10

Ez izandu balira
sano eta fiñak
orra zer suertia
gaizki dabillanak,
aziño au eginda
irten dau etxetik
justizia altoka
azino atzetik.

11

Giratu ta tirati
nik barriz gogotik
lau gizon tiro batez
an ziran erori,
orra sei eriotza
gau batean egin
arimak nora ziran
nai nuke nik jakin.

12

Kristauaren biotza
ikaragarria
gizonari emoten
alako larria,
utzi zezala bertan
diru ta zaldia
egin nai ez bazuan
munduko aldia.

13

Zaldiaren ganean
gizon armatua
abiatu nintzanean
lapur famatua,
atzetikan banuen
nok arrapatua
baina billatzen nuan
non ezkutatua.

14

Partian an ebilen
egun eta gauan
enemigua franko
banua inguruan,
ia deskantzurikan
es nendukan inun
eta saspì soldadu
neronek il nitun.

15

Urte bete osoan
beti lapur egin
batzuetan kamiños
bestietan mendis,
ainbeste eriotza
gainera egin
es dakit ser gertatu
bear dan nirekin.

16

Aitak bialdu siran
niri notisia
sekiela besela
asuntu gusia,
erabakia sala
nire sententzia
arrapatu eskero
kentzeko bisia.

17

Abiso au artuta
urrengo egunian
partirak arrapatu
ninduen mendian,
saldia il sidaten
alabearrian
sortzi soldaduk tira
siraten batian.

18

Bi balaso nituen
beso ta buruan
odola basijoan
iturri moduan,

14

Partian an ebilen
egun eta gauan
enemigua franko
banua inguruan,
ia deskantsurikan
ez nendukan inun
eta zazpi soldadu
neronek il nitun.

15

Urte bete osoan
beti lapur egin
batzuetan kaminoz
bestietan mendiz,
ainbeste eriotza
gainera egin
ez dakit zer gertatu
bear dan nirekin.

16

Aitak bialdu ziran
niri notizia
zekiela bezela
asuntu guzia,
erabakia zala
nire sententzi
aarrapatu ezkeru
kentzeko bizia.

17

Abiso au artuta
urrengo egunian
partirak arrapatu
ninduen mendian,
zaldia il zidaten
alabearrian
zortzi soldaduk tira
ziraten batian.

18

Bi balazo nituen
beso ta buruan
odola bazijoan
iturri moduan,

alan be trabukoa
disparatu nuan
bi soldadu gainera
eritu nituan.

19

Lenengo niri elduak
bi bakarrik siran
baleroso isan arren
umildatu nintzan,
bagage eta gusti
loturik saldian
sortzi soldadu siran
nire goardian.

20

Motza asko nisala
egunen erdian
yoan bear isan nuen
gustien erdian,
allegau nintzanean
neronen errira
basan gentea franko
neroni begira.

21

Ia nire orduko
lotza ta larria
sergaitik egin neban
asko pikardia,
beala sartu ninduen
kapilla batean
Santo Kristo bat para
siraten aurrean.

22

Esamiña egiteko
nire apartian
ia senbat oker neban
arimen kaltian,
pakaturiak ama
Birjiña Maria
Jaungoikoaren aurrean
bitarteko andia.

alan be trabukoa
disparatu nuan
bi soldadu gainera
eritu nituan.

19

Lenengo niri elduak
bi bakarrik ziran
baleroso izan arren
umildatu nintzan,
bagage eta guzti
loturik zaldian
zortzi soldadu ziran
nire goardian.

20

Motza asko nizala
egunen erdian
joan bear izan nuen
guztien erdian,
allegau nintzanean
neronen errira
bazan gentea franko
neroni begira.

21

Ia nire orduko
lotsa ta larria
zergaitik egin neban
asko pikardia,
beala sartu ninduen
kapilla batean
Santo Kristo bat para
ziraten aurrean.

22

Esamina egiteko
nire apartian
ia zenbat oker neban
arimen kaltian,
pakaturiak ama
Birjina Maria
Jaungoikoaren aurrean
bitarteko andia.

23

Jaungoikoan ofensak
dituk gustis damu
arren miserkordia
nisas isan sasu,
Lusifer asia da
goiko seruan
pekatuagaitikan
dago inpernuan.

24

Ni geiago eginda
bisi nas munduan
es dakit niretzat be
ser sententzi dauan,
amaika ordu santuak
ia dira aurki
il egin bear dot eta
gustis nago larri.

25

Kontua emoteko
gure Jesus onari
adios mundutarrok
bai ta aita ta amari,
senidiakin batian
adiskide danak
akabatzen dirade
nire munduko lanak.

26

Arren lagun deidala
gure Jesus onak
ogeita bost urtekin
banoa mundutik,
obra baten okerrak
nire ondagarri
mundu gustia nigas
eskarmentu bedi.

23

Jaungoikoan ofensak
dituk guztiz damu
arren miserkordia
nizaz izan zazu,
Luzifer azia da
goiko zeruan
pekatuagaitikan
dago inpernuan.

24

Ni geiago eginda
bizi naz munduan
ez dakit niretzat be
zer sententzi dauan,
amaika ordu santuak
ia dira aurki
il egin bear dot eta
guztiz nago larri.

25

Kontua emoteko
gure Jesus onari
adios mundutarrok
bai ta aita ta amari,
senidiakin batian
adiskide danak
akabatzen dirade
nire munduko lanak.

26

Arren lagun deidala
gure Jesus onak
ogeita bost urtekin
banoa mundutik,
obra baten okerrak
nire ondagarri
mundu guztia nigaz
eskarmentu bedi.

72.1. Panderojoten trikitixari zein albokari

Ni panderoa yoten nos asi naintzen? Ene amatxue, edonos! Nire aitek eta aitea(k)p(b)e bekien panderoyoten eta ni neu be dosena bat urte inguruges asi naintzen pandero-yoten Seberioiko plasan, Sandonietan.

Panderoa ba etzean ikisi nauen da koplak(k)p(b)e bai. Bueno, koplak erromeirik erromeri be entzun d'ikisten nitusen. Da, gero, ori sure osaba Manu, nire kuñetea aisteagas eskondue, bakisu, ori bere sasoian bertzolarie yatzun d'orre(k)p(b)e koplak asko yakitansen, da ba andi orti emeti ba ikisi te kantau.

Benantziogas nos asi naintzen? Benantziogas, ba, eskondu aurreti be ainbet urte ibili naintzen, dosenerdi bet urte bai gitxienez, da gero bein eskondu eskero, ba Benantziok soñue yo al isin dauen arte, dandi(k)p(b)e urte asko.

Gero, geaori be yo otziet panderoa, bueno batesbe sure osaba Leoneri laguntan dotzet. Leon albokarie langoa da isin be gero? Ganeko soñu dultzea atetan dotzen albokeari. Atzeneko urteatan albokeak inderra artu dau te ba leku askotati geituten doskue batesbe pasakalleak iteko. Bitu noraño e, diskoa(k)p(b)e ateroskues besto batzukes nastean ta au Aita Juan Jose Sakramentinue ibili be bitarteko. Aite Juan Jose musiku ona yatzu, Arratiko korue be dirijitan dau Santageda egunean, suk ondo dakisu ori se sau be kantorea sara ta osaba Leonegas batera, Seberioti be gaste partideak artzean dosue parte Arratiko koruen. Bueno, pandero kontue, yai egunetan e, ostaintxean bear in bear da sano in be. Kortakada ganadue gaunken, idi te gusti. Gure

Ni panderoa joten noz asi nintzan? Ene amatxua, edonoz! Nire aitek eta aizteak be baekien pandero-joten eta ni neu be dozena bat urte ingurugaz asi nintzan pandero-joten Zeberioiko plazan, Sandonietan (San Antolinetan. Zeberion *Sandoniak* esaten da)).

Panderoa ba etxean ikasi neuan eta koplak be bai. Bueno, koplak erromeirarik erromeria be entzun eta ikasten nituzan. Eta, gero, ori zure osaba Manu, nire koinatearen aizteagaz ezkondua, badakizu, ori, bere sasoian bertsolaria jatzun eta orrek be koplak asko jakiten euazan, eta ba andik ortik emetik ba ikasi eta kantatu.

Benantziogaz noz asi nintzan? Benantziogaz, ba, ezkondu aurretik be ainbat urte ibili nintzan, dozenerdi bat urte bai gitxienez, eta gero bein ezkondu ezkeru, ba Benantziok soñua jo aal izan dauan arte, dandik be urte asko.

Gero, geaori be jo deusiet panderoa, bueno batezbe zure osaba Leoneri laguntan deusat. Leon albokaria langoa da izan be gero? Ganeko soñu dultzea ateraten deusatan albokeari. Atzeneko urteatan albokeak indarra artu dau eta ba leku askotatik deituten deuskue batezbe pasakalleak egiteko. Begitu noraino e, diskoak be atera deuskuez beste batzukaz naastean eta au Aita Juan Jose Sakramentinue ibili da bitarteko. Aita Juan Jose musiku ona jatzu, Arratiko korua be dirijetan dau Santa Ageda egunean, zuk ondo dakizu ori ze zeu be kantorea zara eta osaba Leonegaz batera, Zeberiotik be gazte partideak artzean dozue parte Arratiko koruan. Bueno, pandero kontua, jai egunetan e, osterantzean bear egin bear eta sano egin be. Kortakada ganadua geunkan, idi eta

Benantziok o ondo yagotauen gana-
due da satisfetxo oten san ganaduek
ondo ikusite.

Gero, intera baten, Benantzio
gariyoteko trilladoreagas be ibili sen,
enkargadu, da nik i etzeko bearrak
in bear. Semea soñu ikisten agindu
gaindu Gipuskure da ba Oroskoko
mutil bet artu gaindu kridutzet d'a-
xegas in bear aurrera. Lelengo
Elexabitiko bisimodu biko etxean
bisi ginean da gero gaure etze barrie
in gaindu, aspian kortea da goien
pisu biko, ementxe kamiñondoan,
kamiñolari dotzela, terraza ta gusti.

Kantak kantetako diñostesu?
Aitearen! Klase askotakoa(k)t(d)aki-
des. Batzuk nauk asmaue(k)p(b)e bai
gero e. Aitu, au koplau, Benantzior
in nautzen baie oin isena kanbiaute
Leoneri be kantetan dotzet:

Karakol Arteakoa
soñulari famosoa
Maurisia(k)tx(y)oten dotzo
alimoso panderoa.

Ai Leon Arteakoa
albokari famosoa
Maurisia(k)tx(y)oten dotzo
alimoso panderoa.

Gero albokako martxeari lagun-
tako Ártolan kantea be kantetan dot
erara datorrenean. Aikomen:

Ártola(k)t(d)auko, Ártola(k)t(d)auko
Ártola(k)t(d)auko fama
bera dauela, bera dauela
mundu gustiko jentea.
Sorrontzan be etzea
Sorri kaparras betea.

Da ba koplak asko baie nik i
kasu baterako, ori “begire nago begi-
re”, beste modu betera kantetot.
Aiko:

guzti. Gure Benantziok o ondo jagoten
euan ganadua eta satisfetxo egoten zan
ganaduak ondo ikusita.

Gero, intera baten, Benantzio gari-
joteko trilladoreagaz be ibili zan, enkargadu,
eta nik i etzeko bearrak egin bear.
Semea soinu ikasten agindu gendun
Gipuskoara eta ba Orozkoko mutil bat
artu gendun kridutzat eta arexegaz egin
bear aurrera. Leenengo Elexabitiko bizi-
modu biko etxean bizi ginean eta gero
geure etxe barria egin gendun, azpian
kortea eta goian pisu biko, ementxe,
kamino ondoan, kaminoari deutsal,
terraza eta guzti.

Kantak kantetako dinostazu?
Aitearen! Klase askotakoak dakidaz.
Batzuk neuk asmatuak be bai gero e.
Aitu, au koplau, Benantziori egin neun-
tsan baina orain izena kanbiatuta
Leoneri be kantetan deutsal:

Karakol Arteakoa
soinulari famosoa
Mauriziak joten deutso
alimoso panderoa.

Ai Leon Arteakoa
albokari famosoa
Mauriziak joten deutso
alimoso panderoa.

Gero albokako martxeari lagun-
tako “Ártolaren” kantea be kantetan dot
erara datorrenean. Aikomen:

Ártolak dauka, Ártolak dauka
Ártolak dauka fama
bera dauala, bera dauala
mundu gustiko jentea.
Zorrontzan be etxea
zorri kaparras betea.

Eta ba koplak asko baina nik i kasu
baterako, ori “begire nago begire”, beste
modu batera kantetan dot. Aiko:

Begire nago begire
kamiño-subi barrire
nos etorriko ete dan
alkatea gure errire.

Besto batzuk u “goiko kamiño barrire” esaten daurie, baie goien esta oten kamiñorik, mandabideak edo bidesiorrak edo akaso burpidea, baie kamiño-subie errien entradan oten da, errekea pasetako d’arriskoa isiten da, orti yatoriko kamiño-subie isena be, kamiñeruek eta arginek inekoa da ta.

Gero ba segun selango yantzarie(k)t(d)aukusen aurrean, ba batzutan kopla baragarrie(k)p(b)e kantetan doas, yantzan esese, barre be iteko. Aikor bat:

Baragarria(k)t(d)osak
katuen arrautzak
ondora biribilek
puntara sorrotzak.

Bueno, seoseri ekin dotzu te ba se esangotzu(t)p(b)a geao. A bai, ni nauri, kantuakaiti be bai baie txalo geao yoten dostie nire koplan akaberran. Atzeneko errepiketa altuti iten dot eta orrek e grasie itotzo jenteari. Orretako samea auki bea da inder-tzu, da ni Jaungoikoari grasiak sama t’idun onekoa nas. Soñulari esesau-nekas kontus ibili bea da tonuegas, ni nau, ya Benantzion soñure ta Leonen albokara inde nao. Albokan tonue gatxagoa da asartetea baie Leonek e yakiten dau se alboka ekarri niges doanean.

Bueno, beste baten geao, se guk asi eskero estauku akaberarik.

Begira nago begira
kamino-zubi barrira
noz etorriko ete dan
alkatea gure errira.

Beste batzuk u “goiko kamiño barrire” esaten daudie, baina goian ez da egoten kaminorik, mandabideak edo bidezidorrak edo akaso burpidea, baina kamino-zubia erriaren entradan egoten da, errekea pasetako eta arrizkoa izaten da, ortik diatoriko kamino-zubia izena be, kamineruak eta arginak eginekoea da eta.

Gero ba segun zelango dantzariak daukaguzan aurrean, ba batzutan kopla baragarriak be kantetan dodaz, dantzan ezeze, barre be egiteko. Aikor bat:

Baragarriak dozak
katuen arrautzak
ondora biribilak
puntara zorrotzak.

Bueno, zeozeri ekin deusagu eta ba zer esango deusut ba geiago. A bai, niri neuri, kantuakaitik be bai baina txalo geiago joten deustie nire koplan akaberran. Atzeneko errepiketa altutik egiten dot eta orrek e grazia egiten deusot jenteari. Orretarako samea euki bear da indartsu, eta ni Jaungoikoari graziak sama eta idun onekoa naz. Soinulari ez ezagunakaz kontus ibili bear da tonuagaz, ni neu, ya Benantzioaren soinura eta Leonen albokara eginda nago. Albokan tonua gatxagoa da azertetea baina Leonek e jakiten dau ze alboka ekarri nigaz doanean.

Bueno, beste baten geiago, ze guk asi ezkeru ez daukagu akaberarik.

73.1. Anbotoko Señorea Supelegorren

Nik i ekosi estot in iños Anbotoko Señorea baie entzutia bai. Entzuni(k)t(d)auket ona Itxineko Supeleorrera etorte sala garra dariola. Onaxe aurrera, ortxe dao Itxina d'os-taien dao Supeleor, ku(e)ba andie. Gur(e) etzeti esta ekosten kuebia, barrualdean daoelako. Ekosten dana da atzo-agureak esaten yakona, aitiosu, ontxe daukosus bista bistan baie laster lañaberea sartuko da t'estosu ekosiko bata bere, egoskie ber(e) es, arrastegia badoa ta.

Or oten i sen Anbotoko Señorea. Nos diñostesu? Ba nik entzutia e, baie udan isingo san, ara nik estakit ondo se nire bisien asti gitxi auki ot olango kontuitan ibilteko. Niri bearra tokau yat asko da kontu gitxi, je-je-je. Ori, ostera, sure ausoko Simon, oño, selan auken ba apellidue? Goioaga(nik), orixe, ori kontularie yatzun. Ementxe ondoko baserrien egoan kridu d'ak a andi orti emeti batuiten situen olango kontuik.

Nik i ikusi ez dot egin inoz Anbotoko Señorea baina entzutea bai. Entzunik daukat ona Itzinako Supelegorrera etorten zala garra dariola. Onaxe aurrera, ortxe dago Itzina eta ostean dago Supelegor, kueba andia. Gure etxetik ez da ikusten kueba, barrualdean dagoalako. Ikusten dana da Atso-Agureak esaten jakona, aitu eiozu, oraintxe daukazuz bista bistan baina laster lainaberea sartuko da eta ez dozu ikusiko bata bere, eguzkia bere ez, arrastegia badoa eta.

Or egoten ei zan Anbotoko Señorea. Noz dinostazu? Ba nik entzutea e, baina udan izango zan, ara nik ez dakit ondo ze nire bizian asti gitxi euki dot olango kontuetan ibilteko. Niri bearra tokatu jat asko eta kontu gitxi, je-je-je. Ori, ostera, zure auzoko Simon, oño, zelan eukan ba apellidua? Goioaga (nik), orixe, ori kontularia jatzun. Ementxe ondoko baserrian egoan kridu eta ak a andik ortik emetik batuten zituan olango kontuak.

73.2. Itzinako Atso-Agureak eta eguerdia

Itxineko atzo-abureak? Aikor dosus aures aur. Beitu, ortxe aures aur daukasun atxa Itxine da. Asdui tremendoa da. Emeti basatos, sereti, Pagomakurreti, Lekandako puntia ekosten da eta Oroskorantza basatos, or erdi inguruin Atxuloko suloa dao, d'orti joaten da Itxinera barrure, bestaldeti bere bai, Urigoititi joan esketio. Da, ba, ortxe gure aurrian Itxinako atxak a kurbea iten dau, ekosten dosu? B'ortxe daos atzo-

Itzinako atso-agureak? Aikor dozuz aurrez aur. Begitu, ortxe aurrez aur daukazu aitzia Itzina da. Azdui tremendoa da. Emetik bazatoz, zeretik, Pagomakurretik, Lekandako puntea ikusten da eta Orozkorantza bazatoz, or erdi inguruan Atxuloko zuloa dago, eta ortik joaten da Itzinara barrura, bestaldetik bere bai, Urigoititik joan ezketino. Eta, ba, ortxe gure aurrean Itzinako aitzak a kurbea egi-ten dau, ikusten dozu? Ba ortxe dagoz

agureak. Fijau satis ondo, estosus ekosten as bi t'erdien bitarte andi bet? B'orrixe(k)t(d)ire atzo-agureak.

Guk u lenao, erlojuri(k)p(b)ere eskendun erabilten da ba egordin baskaiteko ordui jakiten gendun atzo-abureari beitute. Gu solora bearren edo ganaduikas joaten gintzasan egoringuruin, Itxinara aituten gainun da ba atzo-agurean bitartie egoskiek jo ta bete-bete in dauela ekosiskero, egordie dala jakiten gainun. Axe san señaleara, atzo-agurean bitartie egoskie(k)p(b)eteta ukustie.

Atso-Agureak. Fijatu zaitez ondo, ez dozuz ikusten aitz bi eta erdian bitarte andi bat? Ba orreixek dira Atso-Agureak.

Guk u leenago, erlojurik bere ez gendun erabilten eta ba eguerdian bazkaiteko ordua jakiten gendun Atso-Agureari begituta. Gu solora bearren edo ganaduekaz joaten gintzanean eguerdi inguruan, Itzinara aituten gendun eta ba Atso-Agureen bitartea eguzkiak jo eta bete-bete egin dauala ikusi ezker, eguerdia dala jakiten gendun. Axe zan seinalea, Atso-Agureen bitartea eguzkiak beteta ikustea.

73.3. Sugeak ganaduari esnea edan

Naure begiekas ekosi estot in baie entzun bai ori subiana. Gaubian isingo san, baie entzutia dauket e subiak ankati gora igon da beieri iños esnea edan dotzela suabe-suabe beie(k)p(b)erak igirri bere in barik. Igirri urruno egunian etzeko usabak, se esnea batuiten joan orduin, ba, esne gitxiago beiek. Ardieri bere edatitzein antza se ori bere entzuni(k)t(d)auket, ni nauri etxat suertau ekostia baie subiakas kontus, orrik i isilik ibilteire iño(k)p(b)arruntau es eiteko.

Neure begiekaz ikusi ez dot egin baina entzun bai ori sugearena. Gaubean izango zan, baina entzutea daukat e sugeak ankatik gora igon eta beiari inoz esnea edan deusala suabe-suabe beiak berak igarri bere egin barik. Igarri urruno egunean etzeko ugazabak, ze esnea batuten joan orduan, ba, esne gitxiago beiak. Ardiei bere edaten eutsien antza ze ori bere entzunik daukat, niri neuri ez jat suertatu ikustea baina sugeakaz kontuz, orreik i isilik ibilten dira inok barruntau ez egiteko.

73.4. Untzetako jentil-bedarrak

Esatuin i ba or Untzeta mendien jentilek ote siala. Antxe dao Jentilsulo bere d'ai i sen euren bisilekui. Andiek i sirian, bildugarriek auren arribolakas da. Baie, eure(k)p(b)ere aukitaudin seguru bildurren bat. Or Untzetabeko landasearretan

Esaten eudien i ba or Untzeta mendian jentilak egoten zirala. Antxe dago Jentilzulo bere eta ai ei zan euren bizilekua. Andiak ei zirean, bildugarriak euren arribolakaz eta. Baina, eurak bere eukiten eudien seguru bildurren bat. Or Untze-

bedarran bat edo arbola klasean bat oten i sen, estai(t)p(b)a selangoa baie jentilok o bildur isitotzein seguru bedar edo arbola klase orreri.

Kontue da ba se, ganaduik i pas-tuin ibilte sianean jan itaudiela bedar ori edo arbolorren orri ori. Jentilok o ori ekosten audinean ospa iten i audin bildurregas. D'es ori bakarrik e, jaten ekosi es arren bere, ganaduin pekorotza(k)p(b)ere uxatu itausela jentilok se, ba, pekorotzean bere esaun isiten i sen bedar orren sundia. Selango gausak e? Jentiltzarrak uxatu bedar klase batek edo arbolea, agine edo espasan ba? Aginek berenoa i dauko. Guk ementxe dauku agine etze aurrian, urte asko daukos, d'e-gurre santzue ta gogorra.

Agine dala ta disgustue bere auki du etzean. Or aurrian, Itxinapean baso bat auken gure anajeak eta ba basoa de reo botaten ebisen obreruik.

Piñu botaten akabaudienean, goardea joan san ara basora da piñu artean agin bet ekosi auen eperditi botata trontzeagas. D'esan otzein obrerueri, bueno obreruin enkargadueri se jornalereuek e kanpostarrak sien, erdeldunek:

- Au agin au selan ebai dosue ba?
- Ba, piñuikas naste dana bota du, ser ba?
- Estakisue ba agine botatea proibidute daoena, protejidute daoen arbola klase bat (d)a ba ta.
- Guk u ser dakiu ba olangorik?
- Ba, urrengorako jakingosue.

Da, ba, bakisu ser? Ai goardea joan eta egun batzutura, berrogai mille ogorlekoko denuntzie allegau yakon da multea pagau bear isin auela gure anajeak agin ori dala t'es-

tabeko landazarretan bedarran bat edo arbola klaseren bat egoten ei zan, ez dakit ba zelangoa baina jentilok o bildur izaten eutsoen seguru bedar edo arbola klase orreri.

Kontua da ba ze, ganaduak i pastuan ibiltzen ziranean jan egiten eudiela bedar ori edo arbola orren orri ori. Jentilok o ori ikusten eudienean ospa egiten ei eudien bildurragaz. Eta ez ori bakarrik e, jaten ikusi ez arren bere, ganaduen pekorotzak bere uxatu egiten euazala jentilok ze, ba, pekorotzean bere ezagun izaten ei zan bedar orren sundea. Zelango gauzak e? Jentiltzarrak uxatu bedar klase batek edo arbolea, agina edo ez bazan ba? Aginak benenoa ei dauka. Guk ementxe daukagu agina etxe aurrean, urte asko daukaz, eta egurra zaintsua eta gogorra.

Agina dala-eta disgustua bere euki dogu etxean. Or aurrean, Itxinapean baso bat eukan gure anajeak eta ba basoa de reo botaten ebilzan obreruak.

Pinu botaten akabatu eudienean, guardea joan zan ara basora eta pinu artean agin bat ikusi euan eperditik botata trontzeagaz. Eta esan eutsien obrerueri, bueno obreruen enkargaduari ze jornalereuak e kanpoztarrak ziran, erdaldunak:

- Au agin au zelan ebagi dozue ba?
- Ba, pinuekaz naaste dana bota dogu, zer ba?
- Ez dakizue ba agina botatea proibiduta dagoana, protejiduta dagoan arbola klase bat da ba eta.
- Guk u zer dakigu ba olangorik?
- Ba, urrengorako jakingo dozue.

Eta, ba, badakizu zer? Ai guardea joan eta egun batzuetara, berrogei mila ogorlekoko denuntzia allegatu jakon eta multea pagatu bear izan euala gure ana-

tala. Au gure etzeurreko agin au bere kontaute i daukie diputasiñoko guardok.

jeak agin ori dala eta ez dala. Au gure etxe aurreko agin au bere kontatuta ei daukie diputazinoko guardok.

73.5. Itzinako saiak eta beleak

Saiak eta bela(k)p(b)ere asko emen Itxinen. Emen ganadui dao ugeri te bakisu, saiak e gose disenean estaukie errukirik. Gu Itxinati ur-ur bisi gara ta ba askotan etzondoraño etorten yakus saiak. Saiak okerra(k)-t(d)ire baie saiak arrimau baño len beleak iten dau bere bearra, ganadu tragau edo malograueri begiek atetzos da gero etorteire saiak okelea jaten. Bildurgarrie isiten da sai bandea olan ekostea.

Guri iños pasau yaku, sera, bigantxak edo beiek umeginen asten dire soloan bere igual da ba txala inde gero garbiskine(k)p(b)otaten ditus ganaduek eta saiak ori barruntetan daudienean susien plantetan dires txal in barrien ondoan garbiskinek jateko. D'olan datosenean errespetoa sartzean doskui d'arrimetan bere kontus orrikas, txakurre(k)p(b)otaten dus uxatuteko edo eskopetea bere igual atera bear, bakisu selango txoritzarra(k)t(d)iresen orrik saiok? Orregaitio ba, al dala, ernarisar daosen beiek kortan aukiten dus saiak arrimau in es iteko. Itxina ondoan bisiteak orixe arrisku ori dauko, baie tire, asuntoa manejaute dauku. Basabeiekas gatxagoa da, klaro, basoan oteire ta norbera konturatu orduko saiak in dotzui aberie, da, amean garbiskinek esese, txala bera bere tragau te jan bere bai, belak lagundute, orrik beletxiki edo belaskilloa(k)-

Saiak eta belak bere asko emen Itzinan. Emen ganadua dago ugari eta badakizu, saiak e gose diranean ez daukie errukirik. Gu Itzinatik ur-ur bizi gara eta ba askotan etxe ondoraino etorten jakuz saiak. Saiak okerrak dira baina saiak arrimatu baino leen beleak egiten dau bere bearra, ganadu tragatu edo malograuari begiak ateraten deutzaz eta gero etorten dira saiak okelea jaten. Bildurgarria izaten da sai bandea olan ikustea.

Guri inoz pasatu jaku, zera, bigantxak edo beiak umeginen asten dira soloan bere igual eta ba txala eginda gero garbizkinak botaten dituz ganaduak eta saiak ori barruntetan daudienean zuzian plantetan dira txaal egin barriaren ondoan garbizkinak jateko. Eta olan datozenean errespetoa sartzean deuskue eta arrimetan bere kontuz orreikaz, txakurrak botaten doguz uxatuteko edo eskopetea bere igual atera bear, badakizu zelango txoritzarrak diran orreik saiok? Orregaitino ba, aal dala, ernarizaar dagozan beiak kortan aukiten doguz saiak arrimatu egin ez egiteko. Itzina ondoan biziteak orixe arrisku ori dauka, baina tira, asuntoa manejatuta daukagu. Basabeiekaz gatxagoa da, klaro, basoan egoten dira eta norbera konturatu orduko saiak egin deutzue aberia, eta, amearen garbizkinak ezeze, txala bera bere tragatu eta jan bere bai, belak

p(b)ere estire gausonak, ibili bere bandak iteire Itxina parteti txilio baten

Supelegorreko saien kontui diñostesu? Je-je-je. Or gausa asko kontetan da. Parte txarreko txoriek edo olangoa gause asko, baie entzutia bakarrik. Ni nau bere ibilite nago Supelegor inguruti te ni(k)p(b)ere ekosite daukoas saiek Supelegorren sartzean d'urteiten baie seguramente barruen tragauko ganaduen baten okelea jateko isingo san, estosu pentzetan? Gero, bakisu, pastoreak aumetau bere iten ditues gausek eta orti etorrikoire orrik kontuok. Oin, Itxinako saiek ikerea emotekoa-(k)t(d)ire gero e, d'undiokarren geiao Supelegorreko sartu-urtenean ekos-tea, bates bere gaubiluntzean edo lañaberegunetan. Oin esebes, oin estauku ganaduri(k)p(b)ere, onik etze ondoko ganaduik estire gureak, errentan dauku kortea ta barrutiek. Gure errentoreak ganadu onak asteitu, ainbeste premio bere iribasi daus, ortxe daukos etzeko orman eskegite, baie plaka partidea aukin bere, ekosisus.

lagunduta, orreik beletxiki edo belaskilolak bere ez dira gauza onak, ibili bere bandak egiten dira Itzina partetik txilio baten

Supelegorreko saien kontua dinostazu? Je-je-je. Or gausa asko kontetan da. Parte txarreko txoriak edo olango gauza asko, baina entzutea bakarrik. Ni neu bere ibilita nago Supelegor ingurutik eta nik bere ikusita daukadaz saiak Supelegorren sartzean eta urten egiten baina seguramente barruan tragatuko ganaduren baten okelea jateko izango zan, ez dozu pentsetan? Gero, badakizu, pastoreak aumetatu bere egiten dituez gauzak eta ortik etorriko dira orreik kontuok. Orain, Itzinako saiak ikerea emotekoak dira gero e, eta oraindinokarren geiago Supelegorreko sartu-urtenean ikustea, batez bere gauiluntzean edo lainabeera egunetan. Orain ezebez, orain ez daukagu ganadurik bere, oneik etxe ondoko ganaduak ez dira gureak, errentan daukagu kortea eta barrutiak. Gure errentoreak ganadu onak azten ditu, ainbeste premio bere irabazi dauz, ortxe daukaz etzeko orman eskegita, baina plaka partidea euki bere, ikusi egizuz.

73.6. San Juanetako usadioak

San Juan besperan sugarrak in baño len, solorik solo ibiltzen gintzen galtzapolla isituekas San Juan Bagilean kantetan.

San Juan bespera gaubian San Juan aretxa ifinten gendun balkoiko balaustran edo ateondoan, segun, guk etze bi aukidus eta batak a balaustra asko dauko baie one(k)p(b)este onek arrisko eskillarak d'or-

San Juan bezperan sugarrak egin baino leen, solorik solo ibiltzen gintzan galtzupoila izetuekaz San Juan Bagilean kantetan.

San Juan bezpera gauean San Juan aritza ifinten gendun balkoiko balaustran edo ate ondoan, segun, guk etxe bi euki doguz eta batak a balaustra asko dauka baina onek beste onek arrizko eskilarak eta ormea goraino, orregaitik i ate ondo-

mea goraño, orregaitik i atondoan josten gendun San Juan Aretxa, galburu, larrosa eta kurtze ta gusti.

Da, ba, gero soloatan bere iminten gendun, sera, elorrie. Artu elorri txorta bat, bakotxari arrankala bat in, sartu kurtzetara palutxui de kurtzea in, Erramu egunian berinkituko erramu orritxu be(t)p(b)ere imini eta solo bakotxean olango bat sartzean giñun soloa(k)p(b)erinkituteko. San Juan bedarra(k)p(b)ere batzean gendus, erremedio modure.

73.7. Bildurra lapur

Gure familien beti on gara ganadu artean da or ibili gara tratante moduin Arratie, Seberio, Laidío t'inguru gustietan. Aragoan bere bai, Artzeniega, Balmaseda t'orti bere bai. Danerik iten gendun, saldu sein erosi.

Baten e, gure aite defuntue Arratiko feri betera joan san txarri banda bategas, oñes gero e. Egun osoa emon auen ferien d'atzenarako saldu ausen txarriok eta etzerantza etorren txari-diruok garrikoan barruin ondo gordeta. Baie, diru askotxu sen da ba bidean gautu in yakon da bildurre sartu yakon da bideko edosein satak ikeratu itauen.

Allegau sen Mendiganera, d'andi datorrela, estukureagas, tripak mogidu yakosan da frakak soltetan joan san ondoko pagaduire. Bere bearrok iten daoela, urruman bat asmauen d'estukuran altzau frakok da galapan mogidu sen garrikoa ondo estuteko asti barik. Bide gustien satak asmetan ausen atze parteti te lapurren bat salakoan arinago asi

an josten gendun San Juan Aritza, galburu, larrosa eta kurtze eta guzti.

Eta, ba, gero soloatan bere iminten gendun, zera, elorria. Artu elorri txorta bat, bakotxari arrankala bat egin, sartu kurtzetara palutxua eta kurtzea egin, Erramu egunian bedeinkatutako erramu orritxu bat bere imini eta solo bakotxean olango bat sartzean gendun soloak bedeinkatuteko. San Juan bedarrak bere batzean genduzan, erremedio modura.

Gure familian beti egon gara ganadu artean eta or ibili gara tratante moduan Arratia, Zeberio, Laudío eta inguru guztietan. Aragoan bere bai, Artzeniega, Balmaseda eta ortik bere bai. Danerik egiten gendun, saldu zein erosi.

Baten e, gure aita defuntua Arratiko feria betera joan zan txarri banda bategaz, oinez gero e. Egun osoa emon euan ferian eta atzenarako saldu euazan txarriok eta etxerantza etorren txari-diruok garrikoan barruan ondo gordeta. Baina, diru askotxu zan eta ba bidean gautu egin jakon eta bildurra sartu jakon eta bideko edozein zaratak ikeratu egiten euan.

Allegatu zan Mendiganera, eta andik datorrela, estukureagaz, tripak mogidu jakozan eta frakak soltetan joan zan ondoko pagaduire. Bere bearrok egiten dagoala, urrumaren bat asmatu euan eta estukuran altzatu frakok eta galapan mobidu zan garrikoa ondo estuteko asti barik. Bide guztian zaratak asmetan euzan atze partetik eta lapurren bat zalakoan arinago asi zan eta arnasestu ikera-

sen da arnasestu ikeragarriegas ailegau sen etzera. Etzera allegau sanean, badiñotzo andreak:

- Ser pasau yatzu ba gizona?
- Ser? Ba Mendiganen urten doste lapur betek eta etzeraño segiduust
- Baie, non dao ba lapur ori?
- Estaipa, baie Mendiganeti etzeraño sagata bat entzuten isin dot atze parteti te lapurren bat isin de.
- Gizona, baie, garrikoa dakasu narras, d'orixe isingo san sata ori
- Bai, balaitike, baie, ene, karterea bere ostuust, ai ene! adios nire txarri-diruok!
- Gizona, baie, karterea ostu botzu, selan etorriko yatzun ba atzeti etzeraño?
- Koño! Erresoia daukosu. Klaro, frakak soltakeran niri jausi in yat karterea urli lekutan, orduin frakak soltakeran jausi yat
- Ba, klaro gizona, ara, soas oira ta biger egun argis joan karteratan antxe ongo da ta.
- Baie, biger Artzeniegara joan beot ferire arittoa erosteko
- Bueno, semea aginduku karterea topetan, d'oin soas lo bildurti ori alangori.

Urrungo egunian, aite Artzeniegara ta semea Mendiganeko pagadui-ra. Antxe egoan karterori iñok ukutu bere in barik. Bildurrek se in leien e?

garriagaz allegatu zan etxera. Etxera allegatu zanean, badinotso andreak:

- Zer pasatu jatzu ba gizona?
- Zer? Ba Mendiganen urten deust lapur batek eta etxeraino segidu deust
- Baina, non dago ba lapur ori?
- Ez dakit ba, baina Mendiganetik etxeraino zarata bat entzuten izan dot atze partetik eta lapurren bat izan da.
- Gizona, baina, garrikoa dakazu narras, eta orixe izango zan zarata ori
- Bai, baleiteke, baina, ene, karterea bere ostu deust, ai ene! adios nire txarri-diruok!
- Gizona, baina, karterea ostu badeutsu, zelan etorriko jatzun ba atzetik etxeraino?
- Koño! Errazoia daukazu. Klaro, frakak soltakeran niri jausi egin jat karterea urli lekutan, orduan frakak soltakeran jausi jat
- Ba, klaro gizona, ara, zoaz oera eta biar egun argiz joan karteratan antxe egongo da eta.
- Baina, biar Artzeniegara joan bear dot feriara aarittoa erosteko
- Bueno, semea aginduku dogu karterea topetan, eta oin zoaz lo bildurti ori alango ori.

Urrungo egunian, aita Artzeniegara eta semea Mendiganeko pagadui-ra. Antxe egoan kartera ori inok ikutu bere egin barik. Bildurrak zer egin leian e?

74.1. Anbotoko Señorea Anbototik Dimatxetarantz

Anbotoko Señorea? Bai. Entzutea esese, je-je-je, baten e Ereñon gengosan, neguko iluntza baten da, oño! Andi, Anboto ganeti laño gorri bet ikusten gaindun. Ni asko ibilite

Anbotoko Señorea? Bai. Entzutea ezeze, je-je-je, baten e Ereñon gengozan, neguko iluntze baten eta, oño! Andik, Anboto ganetik laino gorri bat ikusten gendun. Ni asko ibilita nago ganaduekaz

nao ganaduekas andi Anboto parteti, Saibe eta Eskua inguruti te andi te ba ikusiten gaindun argi ori. D'antxe juntau gintzesan Ereñoko San Martin-en ermitondoan ausoko ainbet eta oño! Anbotoko laño gorri ori onantza etorren, Anbototi, Saibera, Urkiola ondoti Dimatxetarantza, da oño! Baten batek esan auen ba se:

– Ene! Anbotoko Señorea yatok onantza, ori laño gorri ori estok normala tertzio onetan!

Da, ba, dano(k)p(b)egire laño gorri orreri, ikereagas, da ba alangonbaten desaparecidu in sen. Estai-(t)p(b)a norantza ingo auen. Suk u Supelegorrera diñosu? Ba, balaitike se orra yoate salaskoa entzunde dauket orti Atxuloko suloti pasaute.

andik Anboto partetik, Saibe eta Ezkua ingurutik eta andik eta ba ikusi egiten gendun argi ori. Eta antxe juntatu gintzazan Ereñoko San Martinen ermita ondolan auzoko ainbat eta oño! Anbotoko laino gorri ori onantza etorren, Anbototik, Saibera, Urkiola ondotik Dimatxetarantza, eta oño! Baten batek esan euan ba ze:

– Ene! Anbotoko Señorea jatok onantza, ori laino gorri ori ez dok normala tertzio onetan!

Eta, ba, danok begira laino gorri orreri, ikereagaz, eta ba alangoren baten desaparecidu egin zan. Ez dakit ba norantza egingo euan. Zuk u Supelegorrera dinozu? Ba, baleitike ze orra joaten zalaskoa entzunda daukat ortik Atxuloko zulotik pasatuta.

74.2. Samartinek ahuntz-errebañua bikoiztu

Atxine, emen Ereño partean, segun itxurea, auntek oten i sirean ugeri te ba Samartinek alosoko auntz-errebañue i auken da beste pastorean bate(k)p(b)e arean txikerragoa baie a(k)p(b)e andie.

Da ba bebisen seguru pastuen erri-basoan da Mandoie aspixuen bedar gosoa edo ta, ba, e(s)tx(y)akies nastuten ba auntz-errebañu bie? Da, bedar goso ori yan arte ondo baie bein iluntzeraskero baktotxa bere auntze(k) pillatuten yoan sanean, komediek! Nok argitu a nastea? Auntz emeak, akarrak eta giberrie(k)p(b)e danak nastean, nok tolostu a nastea?

Samartin i surre san isin be ta ba bere auntz errebañue bikostuteko erea ikusi auenean badiñotzo beste pastore malbakoari:

Antxina, emen Ereño partean, segun itxurea, auntek egoten ei zirean ugari eta ba Samartinek alozoko auntz-errebañua ei eukan eta beste pastorean batek be arean txikerragoa baina ak be andia.

Eta ba baebizan seguru pastuan erri-basoan eta Mandoia azpitzuan bedar gozoa edo eta, ba, ez jakiez naastuten ba auntz-errebañu biak? Eta, bedar gozo ori jan arte ondo baina bein iluntzeraz gero baktotxa bere auntek pillatuten joan zanean, komediak! Nork argitu a nastea? Auntz emeak, akarrak eta giberrak be danak nastean, nork tolestu a nastea?

Samartin i zuurra zan izan be eta ba bere auntz-errebañua bikoiztuteko erea ikusi euanean badiñotzo beste pastore malbakoari:

- I, es ai estutu, atoa konponduko yuk errepartoan asuntoa
- Atoan? Baie selan? Nik e(s)tx(y)akiat oin selan distingidu nire auntzek eta ireak. No(k)tx(y)-akin oin sein seinena(k)t(d)oasan?
- Ni neu(k)p(b)ai
- Auk esangostek selan?
- B'aiko, mutil, nik naure auntzek markauta yaukasat eta ondo markaute ganera.
- Non yaukie(k)p(b)a markori? Nik ikusi es iteko markan bat espok?
- Aitik, nire auntzek aurreko besoatoko ukondoatan e(s)tx(y)aukiek ulerik. Orduen orrixe(k)t(d)osak nireak.
- Konforme, orduen apartaisek markadunok eta beste gustiek nireak isingosak.

Da, se pasau sen? Ba auntz gustie(k)t(d)aukiesanes aurreko besoko ukondoak ule barik, Samartinek auntz-errebañue bikostu in auela sur baño surrago ibili salako beste pastore kokorioan aurrean.

- I, ez adi estutu, atoa konponduko joaguk errepartoaren asuntoa
- Atoan? Baina zelan? Nik ez jakiat orain zelan distingitu nire auntzak eta ireak. Nork jakin orain zein zeinenak doazan?
- Nik neuk bai
- Euk esango deustak zelan?
- Ba aiko, mutil, nik neure auntzak markatuta jaukazat eta ondo markatuta ganera.
- Non jaukiek ba marka ori? Nik ikusi ez egiteko markaren bat ez badok?
- Aitu eik, nire auntzak aurreko besoatoko ukondoetan ez jaukiek ulerik. Orduan orreixek dozak nireak.
- Konforme, orduan apartatu eizak markadunok eta beste guztiak nireak izango dozak.

Eta, zer pasatu zan? Ba auntz guztiak daukiezanez aurreko besoko ukondoak ule barik, Samartinek auntz-errebañua bikoiztu egin euala zuur baino zuurrago ibili zalako beste pastore kokorioaren aurrean.

74.3. Sugeak esnea edan ganaduei zein andreari

Subeak esnerik edan dotzien ganadueri? Bai, gizona. Ikusi estot in baie entzun asko, beieri sein ardieri. Nik ikusi, txarrie bai badauket ikusite beieri errapeti esnea edaten da baiex itxi.

Da, ba, ori subeana, nik i edaten estot ikusi baie iños sugertau yat ardie subean ausikadati tragau be itea. Errapea anditute ikusikeran yakin nauen subeak ausikite tragau yatala. Mogidu ingo san ardie ta ba subeak ausike ingotzen.

Sugeak esnerik edan deutsien ganadueri? Bai, gizona. Ikusi ez dot egin baina entzun asko, beieri zein ardieri. Nik ikusi, txarria bai badaukat ikusita beieri errapetik esnea edaten eta beiak itxi.

Eta, ba, ori sugearena, nik i edaten ez dot ikusi baina inoz sugertatu jat ardia sugearen ausikadatik tragatu be egitea. Errapea andituta ikusikeran jakin neuan sugeak ausikita tragatu jatala. Mogidu egingo zan ardia eta ba sugeak ausika egingo eutsan.

Ganadu nausieri be entzunde dauket, ankati gora igunde edo itxunde daoela edatotziela.

Txarriena barris i, txarriari esnea asko gustetan yako. Olan e, txala in barriten, beiek esnea loi ekarten dau, oritze esaten yako esne orreri, da ba txalak tripea bete orduen, sobrea batu galdara batera ta txarriari emoten yako ori oritze d'edan iten dau ganoso.

Subeak andreari be esnea edan dotzen? Ba, nik es, nik estot entzun olangorik.

OHARRA (Hemen Txominen andreak, Iziar Zenarruzabeitiak, alborik hara haxe esan euskun)

Ni(k)p(b)ai, nik entzunde dauket olango kanpostar bateri ba baten subean batek andreari esnea edatotzela. Andreak ume yayoparriegas iten i auen lo ta ba gaubean subeak esnea edatotzela da ganera umeak negarrik in estaien subea(k)p(b)ustena sartzean otzela agoan umeari txupete modure. Baie au kanpostar bateri entzunde daukotzet e, etxean estot ni nau(k)p(b)e iños entzun olangorik.

Ganadu nagusiarri be entzunda daukat, ankatik gora igonda edo etxunda dagoala edaten eutsiela.

Txarriarena barriz i, txarriari esnea asko gustetan yako. Olan e, txaala egin barritan, beiak esnea loi ekarten dau, oritze esaten yako esne orreri, eta ba txaalak tripea bete orduan, sobrea batu galdara batera eta txarriari emoten yako ori oritze eta edan egiten dau ganoso.

Sugeak andreari be esnea edan deutsan? Ba, nik ez, nik ez dot entzun olangorik.

OHARRA (Hemen Txominen andreak, Iziar Zenarruzabeitiak, alborik hara haxe esan euskun)

Nik bai, nik entzunda daukat olango kanpoztar bateri ba baten suberen batek andreari esnea edaten eutsola. Andreak ume jaioparriagaz egiten ei euan lo eta ba gauean sugeak esnea edaten eutsala eta ganera umeak negarrik egin ez daian sugeak buztana sartzean eutsola aoan umeari txupete modura. Baina au kanpoztar bateri entzunda deukotsat e, etxean ez dot nik neuk be inoz entzun olangorik.

74.4. Ardi zein ahuntz esne eta gaztaigintzaz

Errebañuen esneko ardiek edo auntzek aukiten dire auren arito edo akarragas. Sartuten diresanean d'antzutu, ba, saldu iteire okolarako.

Artxoak eta aumakas, segun, urrusa onentxuenak errebañureko gordetan dire da besteak saldu.

Artxoan kasuen, bustena ebaten yakie, len igitai gori betegas baie oin kutxilloagas eta ganera kurau, se lengo eran soldu iten yakien a epaie

Errebañuan esneko ardiak edo auntzak aukiten dira euren aarito edo akarragas. Zaartuten diranean eta antzutu, ba, saldu egiten dira okelarako.

Artxoak eta aumakaz, segun, urruza onentxuenak errebañurako gordetan dira eta besteak saldu.

Artxoen kasuan, buztana ebagiten jakie, leen igitai gori betegas baina orain kutxilloagaz eta ganera kuratu, ze lengo eran zoldu egiten jakien a epaia eta asko

d'asko kostau osatuten. Auntzeri etxakie bustena ebaten, txikitxue daukielako.

Setako ebagi diñostesu? Ba, yakingosu, ardi t'auntzeri esnea atzeti batzean yakie da seinbet eta enberasu gitxiago ogeto. Oin, je-je-je-, esnea batukeran korotza(k)p(b)e esneartera datos da sarri ganera. Orregaiti gero esne ori ondo irisi beada. Gaur u irestontzi ona(k)t(d)-aukus baie lenao, seragas iten gaindun, artu aginen asala t'embudo moduen imini te gero barruen sasunek imini. Gero esnea bota sasun arteti d'alantxe iristen gaindun d'ondo in be, esneak (g)arbi-garbi urte-tauen.

Oniri artxo sein auma barrieri etxon in bear isiten yakie lelengo umea auki arte. Ardien kasuen arkastea esaten yako da auntzetan giberrie, beietan beintxea.

Da gero ba esneagas gastaiak iten dus. Guk u ardiekas gabisenes ba ardi-esneagas.

Odaiegas auki beada kontu andie. Egun beroatan eta bates be odaie(k)tx(y)oten dauenean estu gatairik iten, inaskero barruti usteldu iteire, estaurie baligo. Olango egunetan ba artxoari betekada bat iten itxi edo putxea iten du esneagas. Gatzatue be esaten yakola esan dosu? Guk u putxea esaten du, mamie be entzun dot e.

Se gaxo aukiten daurien? Ba, ba(t)p(b)año geao, seinde, lasiertunea, sera, errapea gogortutea d'esnerik emon es itea, besto bat a kokaldea, samapean papera antzeko andituek urtetzotzie batzuri, gero ba kabrunkunea be bai t'entzegida tragetan dire kabrunkuneagas, gaxo txa-

kostatu osatuten. Auntzei ez jakie buzta-na ebagiten, txikitxua daukielako.

Zertarako ebagi dinostazu? Ba, jakingo dozu, ardi eta auntzei esnea atzetik batzean jakie eta zeinbat eta enbarazu gitxiago obeto. Orain, je-je-je-, esnea batukeran korotzak be esne artera datoz eta sarri ganera. Orregaitik gero esne ori ondo irazi bear da. Gaur u iraztontzi onak daukaguz baina leenago, zeragaz egiten gendun, artu aginaren azala eta enbudo moduan imini eta gero barruan (s)asunak imini. Gero esnea bota (s)asun artetik eta alantxe irazten gendun eta ondo egin be, esneak garbi-garbi urtetan euan.

Oneiri artxo zein auma barrieri etxodon (itxaron) egin bear izaten jakie leelengo umea euki arte. Ardien kasuan arkaztea esaten jako eta auntzetan giberria, beietan beintxea.

Eta gero ba esneagas gataiak egiten doguz. Guk u ardiekas gabilzanez ba ardi-esneagas.

Odeiegaz euki bear da kontu andia. Egun beroetan eta batez be odeiak joten dauanean ez dogu gatairik egiten, egin ezkeru barrutik usteldu egiten dira, ez daudie balio. Olango egunetan ba artxoari betekada bat egiten itxi edo putxea egiten dogu esneagas. Gatzatua be esaten jakola esan dozu? Guk u putxea esaten dogu, mamia be entzun dot e.

Zer gaixo eukiten daudien? Ba, bat baino geiago, zeinda, lasiertuna, zera, errapea gogortutea eta esnerik emon ez egitea, beste bat a kokaldea, samapean papera antzeko andituak urtetan deutsie batzuri, gero ba kabrunkunea be bai eta ensegida tragetan dira kabrunkuneagas, gaixo txarra da ori gero e!. Gero, orain asko zabaldu dan, zer ori, érderaz

rra da ori gero e!. Gero, oin asko sabaldu den, ser ori, erderas lenguasul edo ori, guk esotudu lenaoti. Orreri gaxo orreri miñaspikoa esatotzu.

Baie, besto batzutan, ardie inutile da isin be ta, ardie fasil katigituten da sasi t'atxartean, d'orduen arin espasoas, atoan gañetuten dire belak lelengo ta saiek (g)ero. Saiek piti beten etxoten daurie, belak begiek atararte.

Non aukiten dodasen ardiek? Ba, udabarritik San Juanetara betik ibilten nas, emen Bedia parteko barrutiek(k)tx(y)an da ba bein artxoan kontue akabaurduen, ba ardiok mutildu te San Juanetan goietara bota, nik i Ereño aldera soltetan dodas da nosipinean buelta bat in. Lanroberrean yoaten nas naure txakur de gusti.

Barrutien sera kontetea gurosule? B'aitu. Artxo t'esne denporan emetik beti ibilten nas da, klaro, ardiek ondo yagon bea dire sein bestean landara pasau. Normalean pagau iten du bedarra arreglu betera eldute, lenao Seanistarrari Arraban iten yakien moduen, kobrau itaudien Arraba t'inguruetan ardiek edo beste ganaduek pastuen aukitea. Deklarau in bear isiten san seinbe(t)k(b)uru dekon bakotxak. Da ba an beti ibilten gaintzesan direna(k)p(b)aña piti be(t)k(g)itxiago esaten, gitxiago pagetako.

Besto batzukes barrutiek abonutalde be iten dot, soloa barik landea danean, se, ardiek korotz asko iten dau te txixe be bai, d'ori abunu ona da aurrerantzarako, natural-naturala

A, t'estotzut esan, baie ardie(k)-tx(y)agotean kontuen txakur-kaka-

lengua azul edo ori, guk ezagutu dogu leenagotik. Orreri gaixo orreri miinazpikoa esaten deuntsagu.

Baina, beste batzuetan, ardia inutila da izan be eta, ardia fasil katigituten da sasi eta aitz artean, eta orduan arin ez bazoaz, atoan gañetuten dira belak leenengo eta saiak gero. Saiak piti baten itxaroten daudie, belak begiak atara arte.

Non aukiten dodazan ardiak? Ba, udabarritik San Juanetara beetik ibilten naz, emen Bedia parteko barrutiak jan eta ba bein artxoan kontua akabatu orduan, ba ardiok mutildu eta San Juanetan goietara bota, nik i Ereño alde-
ra soltetan dodaz eta noizean beinean buelta bat egin. Landroberrean joaten naz neure txakur eta guzti.

Barrutien zera kontetea gura dozula? Ba aitu. Artxo eta esne denporan emetik beetik ibilten naz eta, klaro, ardiak ondo jagon bear dira zein bestean landara pasatu. Normalean pagatu egiten dogu bedarra arreglu batera elduta, leenago Zeanuriztarrai Arraban egiten jakien moduan, kobratu egiten eudien Arraba eta inguruetan ardiak edo beste ganaduak pastuan aukitea. Deklaratu egin bear izaten zan zeinbat buru daukon bakotxak. Eta ba an beti ibilten gintzazan direanak baino piti bat gitxiago esaten, gitxiago pagetako.

Beste batzukaz barrutiak abonutalde be egiten dot, soloa barik landea danean, ze, ardiak korotz asko egiten dau eta txiza be bai, eta ori abonu ona da aurrerantzarako, natural-naturala.

A, eta ez deuntsut esan, baina ardiak jagotearen kontuan txakur-kakagaz naastu(ta)ko ur loa erabilten dogu. Kantin batera bota txakur-kakak, uregaz naastu-naastu egin eta gero ipizki bategaz

gas nastuko ur loie erabilten du. Kantin betera bota txakur-kakak, uregas nastu-nastu in de gero ipiski betegas munarik muna linteroak(k)p-(b)usti, d'olan ardiek e txakur kiretza barruntetan dauenean, atzera iten dau, erregular txakurre ur daoela pentzaute edo.

D'olantxi(k)t(d)e gure bisimodue. Grasiak andreak asko laguntan dostena, gastaiginen batesbe, ostaintxean bear gogorra da, baie tire, bisiteko lain atetan du te ba aurrera in bear al dun artean.

munarik muna linteroak busti, eta olan ardiak e txakur kiratsa barruntetan dauanean, atzera egiten dau, erregular txakurra ur dagoala pentsatuta edo.

Eta olantxiak da gure bizimodua. Graziak andreak asko laguntan deustana, gaztaiginen batezbe, osterantzean bear gogorra da, baina tira, biziteko lain ateraten dogu eta ba aurrera egin bear aal dogun artean.

74.5. Arratiako kapadoreak kompetentzian

Ia esetu nauen emenko Bediako kapadore famosoak? Obeto es, esetuko enauen ba Sipri kapadorea? Da bere lengusu Santi Ígalo kapadorea be bai. Kapadore onak sirean, batesbe txarriek kapetan auriesan, arrak sein emeak, bueno ordotzak sein arkala edo makerak.

Su(k)tx(y)akingosu saure etzeti be, urterako txarrie loditu iten da, batzuk u bi be igual, da amasei amasaspi arroako txarrie loditako, sera, gastetan kapau in bear isiten da leleno irusialdie etorri baño lenao, d'olan estao ernarituteko bildurrik eta mardotu iteire.

Ordotzak a fasilago kapetan auriesan, ebagitxu bet itotzien barrabiltxueri eta ba barruko bolatxuek, je-je-je, potrotxuek ebagi orduen yosi itotzien.

Arkalea sanean, gatxago aukitautidien. Isterran aurretukoko tripa ingurutu ebagi bet itotzien da gero atzamarra sartu emean serak a oño, (obarioak nik) bai orrixek topau arte.

Ia ezagutu neuan emengo Bediako kapadore famosoak? Obeto ez, ezagutuko ez neuan ba Zipri kapadorea? Eta bere lengusu Santi Ígalo kapadorea be bai. Kapadore onak zirean, batezbe txarriak kapetan eudiezan, arrak zein emeak, bueno ordotsak zein arkala edo makerak.

Zuk jakingo dozu zeure etxetik be, urterako txarria loditu egiten da, batzuk u bi be igual, eta amasei amazapi arroako txarria lodituteko, zera, gaztetan kapatu egin bear izaten da leenengo irusialdia etorri baino leenago, eta olan ez dago ernarituteko bildurrik eta mardotu egiten dira.

Ordotsak a fasilago kapetan eudiezan, ebagitxu bat egiten eutsien barrabiltxueri eta ba barruko bolatxuak, je-je-je, potrotxuak ebagi orduan josi egiten eutsien.

Arkalea zanean, gatxago eukiten eudien. Iztarraren aurretukoko tripa ingurutik ebagi bat egiten eutsien eta gero atzamarra sartu emearen zerak a oño, (obarioak nik) bai orreixek topatu arte.

Gero ebagi te yosi. Yosi orduen, soldu es iteko, alkola edo lejia botatortzien ebagire baie onena sera san mamukioan ure, ur ori ainbet erremadiotarako erabilten san d'orretarako be bai, deisinfetetako.

Da, ba esan dotzutena, Sipri te Santi Ígalo erririk erri ibiltan sirean, nondi geitu t'araxe baie konpetidore batek urtotzien, serak, Seaniko Undurrako Antoniok.

A Antonio, abile san, kapadore surre ta fine. Atzamarra(k)p)b)e meak eta luseak aukesan da ba batesbe emeak kapetako ebagi txikerragoa itotzen txarriari da gero atzamar me ta luseagas fasilago topetausen orrik suk esaneko obariook eta klaro, kliente asko auken Arratian d'Oroskon be bai.

Baten e bakisu se in audien Siprik eta Santi Ígalok? Antonio Oroskora doala yakin audien. Da goxalde orretan yoan, da, an Mendiganeti aurrera, serean Adaro aldeko bidertzean etxon in otzien Antonio ori arrapau te ba kapetako erabiltauen atzamarra gaucestanduteko.

An egosan, baie Antonio saldien etorren da barruntausenean aidatu saldi ori te an itxi ausen kapadoreok. Antoniok o kliente asko auken, Seberioti be ibilte san, Meltxorrek esanda dakit. Ondo bear iteak orixe dauko, kliente ugeri. Se ños pasau de, ba, sera, arkalea kapakeran obarioak esese, beste seoser geao be ebagi te txarrie gaxotu. Edo ños a abagie yosikeran estea be yosi.

Ni(k)p(b)aten, txarrie il, erre ta gero ebagi orduen ikusi in nauen selan daukon estea gantzagieri lotute andixi yosturati, karea inde letxe oten da, asurre letxe gogor. Kapadorea(k)p(b)e auren kontuek

Gero ebagi eta josi. Josi orduan, zoldu ez egiteko, alkoola edo lejia botaten eutsien ebagira baina onena zera zan mamukioaren ura, ur ori ainbat erremadiotarako erabilten zan eta orretarako be bai, deisinfektetako.

Eta, ba esan deusudana, Zipri eta Santi Ígalo erririk erri ibiltan zirean, nondik deitu eta araxe baina konpetidore batek urten eutsien, zerak, Zeanuriko Undurragako Antoniok.

A Antonio, abila zan, kapadore zuurra eta fina. Atzamarra be meeak eta luzeak eukazan eta ba batezbe emeak kapetako ebagi txikerragoa egiten eutsan txarriari eta gero atzamar mee eta luzeagaz fazilago topetan euazan orreik zuk esaneko obariook eta klaro, kliente asko eukan Arratian eta Orozkon be bai.

Baten e badakizu zer egin eudien Ziprik eta Santi Ígalok? Antonio Orozkora doala yakin eudien. Eta goizalde orretan joan, eta, an Mendiganetik aurrera, zerean Adaro aldeko bide ertzean etxodon (itxaron) egin eutsoen Antonio ori arrapatu eta ba kapetako erabilten euan atzamarra gauzeztanduteko.

An egozan, baina Antonio zaldian etorren eta barruntatu euazanean aidatu zaldi ori eta an itxi euazan kapadoreok. Antoniok o kliente asko eukan, Zeberiotik be ibiltan zan, Meltxorrek esanda dakit. Ondo bear egiteak orixe dauka, kliente ugari. Ze inoz pasatu da, ba, zera, arkalea kapakeran obarioak ezeze, beste zeozer geiago be ebagi eta txarria gaixotu. Edo inoz a abagia josikeran estea be josi.

Nik baten, txarria il, erre eta gero ebagi orduan ikusi egin neuan zelan daukan estea gantzagiar lotuta andixik josturatik, karea eginda letxe egoten da, azurra letxe gogor. Kapadoreak be euren kontuak.

74.6. Upoko San Segismundok berbaltua kendu

Sure ama parteko familie Uriondokoa? Ba emeti Ereñoti ur dao. Da sarri yoan gara Upora be. Upoko ermitea San Segismundona da, ta bakisu ango bedinkasiñoa setako dan ona? Ba, berbaltue kentzeako.

Bitu. Nauri pasau yatan. Baten e, gure aite soloan egoan da kasari lagun bet arrimau yakon. Itxi auen eskopetea lata bastarrea d'aitegana yoan san berbas. Ni mutikoa, ta ba aitek e esan be in osten eskopetara arrimau be es iteko baie ni lata ondoan nengoan d'alangon baten latean bestaldera sailtu in nauen da yausi naintzen eskopetondora. Gedar in ostien da ba niri berbaltue etorri yatan.

Orduen gura aitek e Upoko erromeri egunean, Madalena aurreko domekan isiten da, ta ba araxe ermitara eroan d'abadeari bedinkasiñoa eskatutzen. Da osatu in naintzen, kendu in yatan berbaltue.

Zure ama parteko familia Uriondokoa? Ba emetik Ereñotik ur dago. Eta sarri joan gara Upora be. Upoko ermitea San Segismundorena da, eta badakizu ango bedeinkazinoa zertarako dan ona? Ba, berbaltua kentzeako.

Beitu. Neuri pasatu jatan. Baten e, gure aita soloan egoan eta kazari lagun bat arrimatu jakon. Itxi euan eskopetea lata baztarrea eta aitagana joan zan berbaz. Ni mutikoa, eta ba aitek e esan be egin eustan eskopetara arrimatu be ez egiteko baina ni lata ondoan nengoan eta alangoren baten latearen beste aldeira saltu egin neuan eta jausi nintzan eskopeta ondora. Gedar egin eustien eta ba niri berbaltua etorri jatan.

Orduan gure aitek e Upoko erromeria egunean, Magdalena aurreko domekan izaten da, eta ba araxe ermitara eroan eta abadeari bedeinkazinoa eskatu eutsan. Eta osatu egin nintzen, kendu egin jatan berbaltua.

74.7. San Juanetako usadioak

Baiii. San Juanetan gausa asko iten sian, oin be bai baie len geao. San Juan bespera gaubean sugarrak.

OHARRA (hemen Iziar sartzen da berriro berbaz) San Juan bespera gaubean eskutak artu, suemon da solorik solo ibilten giñean kantuke, ori: *artoak eta gariak (g)orde, subeak eta sapoak erre*.

Da San Juan aratxa be iminten gendun, leixarra kurtzea inde, ate ondoan edo balkoian Santa Kurtzetan elorriegas ite san moduen, baie

Baiii. San Juanetan gauza asko egiten zirean, orain be bai baina leen geaigo. San Juan bezpera gauean sugarrak.

OHARRA (hemen Iziar sartzen da berriro berbaz) San Juan bezpera gauean eskutak artu, sua emon eta solorik solo ibilten ginean kantuka, ori: *artoak eta gariak gorde, sugeak eta sapoak erre*.

Eta San Juan aritza be iminten gendun, leixarra kurtzea eginda, ate ondoan edo balkoian Santa Kurtzetan elorriagaz egiten zan moduan, baina Santa Kurtze-

Santa Kurtzetan solo bakotxean iminte san kurtzedun elorri erramatu bana.

Gero San Juan goxean, inontzean ortosik ibiltea ona sala esataudien osasunerako.

OHARRA (orain berriro jarraitzen du Txominek)

Ba nik i San Juan goxean, inontzean bedarrak ebaten nausen, batezbe patanak eta gero kargatxu beten kamaran eskegi d'usain gosoa emotaudien urte gustien.

San Juan bezperako sugarretan bastarretako sasi, bedar txar da sapatzek gustiek erretan sirean inguruek garbi itxiteko. Olangoxe usedioak.

tan solo bakoitzean iminten zan kurtzedun elorri erramatxu bana.

Gero San Juan goizean, inontzean ortozik ibiltea ona zala esaten eudien osasunerako.

OHARRA (orain berriro jarraitzen du Txominek)

Ba nik i San Juan goizean, inontzean bedarrak ebagiten neuazan, batezbe patanak eta gero kargatxu baten kamaran eskegi eta usain gozoa emoten eudien urte guztian.

San Juan bezperako sugarretan bazterretako sasi, bedar txar eta zaputzak guztiak erretan zirean inguruak garbi itxiteko. Olangoxe usadioak.

75.1. Anbotoko Señorea Anbototik Supelegorrera

Anbotoko Señoreana ia entzunde daukoda? Entzunde, entzunde bai al don baist! Sesan dodan? Ba, bai al don baist, si por sierto erderas!

Bueno ba, esaneko moduen, entzunde dauket Anbotoko Señorea garretan yoate sala Anbototi Supelegorrera, ori esatoan gure aurreko jenteak. Ni nauk e ikusi estot in sekule baie bateti bestera ibilte sala entzutia bai. Orti Petralanda ganeti yoaten i sen gaubian. Batzuk u ikusi te sinistu be iten i audien. Seoser ikusikoan jenteak.

Anbotoko Señorearena ia entzunda daukada? Entzunda, entzunda bai al don baist!(sic). Zer esan dodan? Ba, bai, al don baist, si por cierto erderaz!

Bueno ba, esaneko moduan, entzunda daukat Anbotoko Señorea garretan joaten zala Anbototik Supelegorrera, ori esaten euan gure aurreko jenteak. Nik neuk e ikusi ez dot egin sekula baina bate-tik bestera ibiltzen zala entzutea bai. Ortik Petralanda ganetik joaten ei zan gauean. Batzuk u ikusi eta sinestu be egiten ei eudien. Zeozer ikusiko euan jenteak.

75.2. Laminak Lamiñategiko kobazuloan

Lamiñek emen asko. Ori Sulai-barreti gora Meagorri esaten yakon lekuen Bustingorriko suloa dao d'antxe oten i sirian lamiñek. Alan

Laminak emen asko. Ori Sulaibarretik gora Meagorri esaten jakon lekuan Bustingorriko zuloa dago eta antxe egoten ei zirean laminak. Alan esaten eus-

esatoskuen da ba guk u bildur andie isiten gauntzen andi pasakeran.

Baie entzute andikoa serekoa da, Lamiñetegiko kuebakoa. Lamiñetegi or serean dao, Villaroti Gorbaieko bidian, Elorribiti gora. D'an kueba dao ta barru barruen ure be bai. D'esatudien an lamiñek oten siriala.

Baten e idebaten yoan siala Uribeko Iturriakoak araxe ondora, ta ba, bero txarra ta ba, odaie(k)tx(y)o da leorrera yoan siriala araxe kubasulora ta lamiñek orrastuten topau bertan. Baia geio arrimau sirianean, orrasie(k)p(b)akarrik aurkitu audisela.

Atertu (o)anean, artu orراسيok eta etxera etorri siala. Baie, gaubian lamiñek entzute i audesan sokorru beten etxeko atakan:

“Iturriako andragrasie
ekarri gure orراسي
espabere apurtukotzut
lepoko askasie”.

Da ba Iturriakoak a atear itxite, birdulkilik, eta lamiñek alauri beten. Baie esin sianes sartu, atepoko bitarteti miñe sartzeotzien lamiñok.

Orduen Iturriakoak a berotu surten burriñasko burruntzie da miñeti sartutzien banan-banan lamiñori t'antxe akabau i sen pertzekusiñoa.

kuen eta ba guk u bildur andia izaten geuntsan andik pasakeran.

Baina entzute andikoa zerekoa da, Lamiñategiko kuebakoa. Lamiñetegi or zerean dago, Villarotik Gorbaierako bidean, Elorribitik gora. Eta an kueba dago eta barru barruan ura be bai. Eta esaten eudien an laminak egoten zireala.

Baten e idebaten joan zireala Uribeko Iturriakoak araxe ondora, eta ba, bero txarra eta ba, odeiak jo eta leorrera joan zireala araxe kuebazulora eta laminak orraztuten topatu bertan. Baina geiago arrimatu zireanean, orraziak bakarrik aurkitu eudiezala.

Atertu eanean, artu orراسيok eta etxera etorri zireala. Baina, gauean laminak entzuten ei eudiezan sokorru baten etxeko atakan:

“Iturriako andragrazia(sic)
ekarri gure orراسي
ezpabere apurtuko deutsut
lepoko askazia”.

Eta ba Iturriakoak a atear itxita, birdulkilik, eta laminak alauri baten. Baina ezin zireanez sartu, atepoko bitartetik miina sartzean eutsien laminok.

Orduan Iturriakoak a berotu surten burrinazko burruntzia eta miinetik sartu eutsien banan-banan laminori eta antxe akabatu ei zan persekuzinoia.

75.3. Neskea plageak eroan eta laminatu

Baten e, or Elexartzan, labesuginen ebilen andra bat. Estu t'artega ebilen suginen. Amaika semalaba aukesan da txikerrena beragas auken laburrean astotzara baten. Baie negar baten egoan ume ori te ba ama gero-

Baten e, or Elexartzan, labesuginen ebilen andra bat. Estu eta artega ebilen suginen. Amaika semalaba eukazan eta txikerrena beragas eukan labe-aurrean asto-otzara baten. Baina negar baten egoan ume ori eta ba ama geroago eta

ago t'artegago, se, umeari yamon iten yoate san bakotxean labako sue esin oan kontrolau d'ololak ur iteko moduen ebilen magalotzean atzeraurrera. D'alangon baten, desesperasiñoan, badiño berekitan:

– Plageak eroango balau sikan au ume negarti au labesue in d'errari yagiok erre arte!

Esan boasan ba se berbok, e(s)tx(y)ako desaparestitan nekatxi negarti ori astotzaratik! Ene amatxue, baie ser in dodan baño esta!

Ak andreak in, in oan labasue baie oni(k)p(b)e (e)s auken axe ume barik, naite beste amar auki etxean.

Urriak aurrera in audien da beste umeak asi in yakosan. D'auretaiko bat pastore yoan san, ardi pastore.

Etxera etorri sen egun beten, seme pastorea amagana yoan san d'ain egoan triste se, badiñotzo amari:

– Ama, Lamiñategiko kobasulo ondoti nabilenean ardiekas neskato gauze bat ikustot suloan ataka-atakan. Polite da isin be neskatie d'iños arrimau nasenean ondo ikusteko barrure iten dau t'esin dot beragaz berbarik in.

– Ene, eure arrabatxoa espado(k)p(b)a, bai mutil, onantxe t'onantxe txikerra sala plageak eroanekoa. Kargu eioi urrungoan se oni(k)p(b)e (e)(s)tx(y)aukoat ordixerik ona.

– Bai ama, e(s)p(b)ei beorrek odol txarrik in, barriro ikusten bot kargutuko nas, oba es, ni nau be naure arrabatxoa ikusteko egarriegas nao.

Pastore ori yoan in, in sen, da neskatie ikusi be bai baie arrimakeran desaparecido iten yakon.

Esautzen amari se pasetan

artegago, ze, umeari jaramon egiten joaten zan bakotxean labeko sua ezin euan kontrolatu eta odolak ur egiteko moduan ebilen magalotzean atzeraurrera. Eta alangoren baten, desesperaziñoan, badino berekitan:

– Plageak eroango baleu sikieran au ume negarti au labesua egin eta errari yagiok erre arte!

Esan baeuzan ba ze berbok, ez jako desaparezetan nekatxi negarti ori asto-otzaratik! Ene amatxua, baina zer egin dodan baino ez da!

Ak andreak egin, egin euan labesua baina onik be ez eukan axe ume barik, naita beste amar euki etxean.

Urteak aurrera egin eudien eta beste umeak asi egin jakozan. Eta eurretari bat pastore joan zan, ardi-pastore.

Etxera etorri zan egun baten, seme pastorea amagana joan zan eta ain egoan triste ze, badinotso amari:

– Ama, Lamiñategiko kobazulo ondoti nabilenean ardiekaz neskato gauza bat ikusten dot zuloaren ataka-atakan. Polita da izan be neskatie eta inoz arrimatu nazanean ondo ikusteko barrura egiten dau eta ezin dot beragaz berbarik egin.

– Ene, eure arabatxoa ez badok ba, bai mutil, onantxe eta onantxe txikerra zala plageak eroanekoa. Kargu egiok urrungoan ze onik be ez jaukat ordixerik ona.

– Bai ama, ez bedi berorrek odol txarrik egin, barriro ikusten badot kargutuko naz, oba ez, ni neu be neure arabatxoa ikusteko egarriagaz nago.

Pastore ori joan egin, egin zan, eta neskatie ikusi be bai baina arrimakeran desaparecido egiten jakon.

Esan eutsan amari zer pasetan

yakon da, ba, amorrek es ekien se in be bere alabatxoia etxera ekarteko.

Urrungo domekan, mesaurretik konfesetan yoan san gero mesan Gure Jaune artzeako. Abedeak seoser igirri otzon, esan gura d'esan barik itxi dotzela seoser, da badiñotzo:

- Se pasetan yatzu ba andratxue ain triste oteko, askatisu barruko moropil ori, estogu iñon kontauko ta.
- Ara, jaune, oin urte batzuk u maldasiño bat bota noan naurekitan, da plageak erustan alabatxu txikerra d'e(s)tx(y)ata geio agartu. Da, seme pastoreak esauste Lamiñetegin neskato bat ikusten dauela, da bera espada ba? Ser deritxo beorrek?
- Da, sertan senbisen a maldasiñoa bota sendunean?
- Ba, labesuginen, asterako errarie erretako labako sue iten, ogi partidea, etxe bete gara ta.
- Bueno ba, andratxue, soas, beteisu penitentzie ta datorren sapatuen barriro labesuginen asten sarenerako ni neu be antxe ongo nas.
- Jaune, baie, beori niges labesuginen?
- Su nasai, naure esanean ibili d'es arduretu ganetikoagas.

Urrungo sapatuen, a andrea t'abadea biek ebisen labesubearrak iten d'orretara badiñotzo abadeak:

- Gaur, saspi ogi erreko (o)gus eta saspigarrenari kurtze bat ingotzegu
- Setako ba?
- Ori gero ikusiko (o)gu, Lamiñetegiko kobasulora goasenean

Labesue in akabaudenean, artu ogiok otzaratan da, ama t'abadea Lamiñetegiko kobasulora yoan sirian seme pastorea aurretik dala.

jakon eta, ba, ama orrek ez ekian zer egin be bere alabatxoia etxera ekarteko.

Urrungo domekan, meza aurretik konfesetan joan zan gero mezan Gure Jauna artzeako. Abedeak zeozer igarri eutsan, esan gura eta esan barik itxi deusala zeozer, eta badiñotso:

- Zer pasetan jatzu ba andratxua ain triste egoteko, askatu egizu barruko moropil ori, ez dogu inon kontatuko eta.
- Ara, jauna, orain urte batzuk u maldizino bat bota neuan neurekitan, eta plageak eroan eustan alabatxu txikerra eta ez jat geiago agertu. Eta, seme pastoreak esan deust Lamiñetegin neskato bat ikusten dauala, eta bera ez bada ba? Zer deritzo berorrek?
- Eta, zertan zenbilzan a maldizinoia bota zendunean?
- Ba, labesuginen, asterako erraria erretako labeko sua egiten, ogi partidea, etxe bete gara eta.
- Bueno ba, andratxua, zoaz, bete egizu penitentzia eta datorren sapatuan barriro labesuginen asten zaranerako ni neu be antxe egongo naz.
- Jauna, baina, berori nigaz labesuginen?
- Zu nasai, neure esanean ibili eta ez arduratu ganetikoagaz.

Urrungo sapatuan, a andrea eta abadea biak ebilzan labesu-bearrak egiten eta orretara badiñotso abadeak:

- Gaur, zazpi ogi erreko doguz eta zaspigarrenari kurtze bat egingo deusagu
- Zetarako ba?
- Ori gero ikusiko dogu, Lamiñetegiko kobazulora goazenean

Labesua egin akabatu eudenean, artu ogiok otzaratan eta, ama eta abadea Lamiñetegiko kobazulora joan zirean seme pastorea aurretik dala.

Ara allegau sirianean, abadeak erreskan ipini oasan ogiok kuebaren atakan eta saspigarrena, a kurtzedune, irurak ostanduko sirian idatzan ertzean.

Andi lasterrera, a neskatxi polite agartu sen kuebearen atakara t'ogiok banan-banan artu te kuebara eroaten asi sen.

Saspigarren ogire allegau sanean, kurtzedunera, artu be in oan esku biekas baie esin sen mogidu be in, es atzera es aurrera, katigitute les lotu sen kurtzedun ogie eskuetan oala.

Orduen abadeak idatzatik urten da bedinkasiñoa bototzen areri neskatxi lamiñetueri, t'alantxe itxi otzon lamiñea isiteari t'etxera ekarri audien danen poserako eta bates be aman osasunerako. Pasau estakit e baie kontau orixe ite san. Lamiñetegi isena be ortixi etorriko yako, on be antxe dao ta, bai al don baist!

75.4. Baltseoa pekatu

Lenao ia dana san pekatue, batzuk u mortalak eta beste batzuk u benialak eta konfesetan yoan bear ostaintxean abadeak (g)edar baten ibilte sirian pulpitudi.

Yantzeagas be kontus ibili bear isiten gendun. Jotea in leikean baie emen Seanuin baltseoa esin sen in, abadeak a proibidute euki oskun. Urrinago yoan barik i ni gastetan "Ijas de Maria"koa nintzen da, ba, Seaniko abade batek e, isena enoa esaten errespetoagaiti, baie, baltseoan yantzan in noala yakin oanean, kanpora bota nindun, despatxau kongregasiñoti.

Ara allegatu zireanean, abadeak erreskan ipini euazan ogiok kuebaren atakan eta zazpigarrena, a kurtzeduna, irurak ostenduko zirean idatzaren ertzean.

Andik lasterrera, a neskatxi polita agertu zan kuebearen atakara eta ogiok banan-banan artu eta kuebara eroaten asi zan.

Zazpigarren ogira allegatu zanean, kurtzedunera, artu be egin euan esku biekaz baina ezin zan mogidu be egin, ez atzera ez aurrera, katigatuta lez lotu zan kurtzedun ogia eskuetan euala.

Orduan abadeak idatzatik urten eta bedeinkazinoa bota eutsan areri neskatxi laminatuari, eta alantxe itxi eutsan lamina izateari eta etxera ekarri eudien danen pozerako eta batez be amaren osasunerako. Pasatu ez dakit e baina kontatu orixe egiten zan. Lamiñetegi izena be ortixik etorriko jako, egon be antxe dago eta, bai al don baist!(sic)

Leenago ia dana zan pekatua, batzuk u mortalak eta beste batzuk u benialak eta konfesetan joan bear osterantzean abadeak gedar baten ibilten zirean pulpitudi.

Dantzeagaz be kontuz ibili bear izaten gendun. Jotea egin leikean baina emen Zeanurin baltseoa ezin zan egin, abadeak a proibiduta euki euskun. Urrunago joan barik i ni gastetan "Hijas de Maria"koa nintzan eta, ba, Zeanuriko abade batek e, izena ez noa esaten errespetoagaitik, baina, baltseoan dantzan egin neuala yakin euanean, kanpora bota ninduan, despatxatu kongregazinotik.

D'es ori bakarrik. Or Gorbaien, bueno, Egrinaon San Inasio selebretan da ta ba mesostean erromerie ite san, gaur be bai antxe bertan edo Arraban. Da, klaro, jotea bai baie gero baltzeoa etorren da Seanuiko abadeak a galaso itoskun. D'orduen tranpea iten gendun. Erromerie Egrinao ta Sastegiko linderoan iten gendun, da jotea Seanuin da baltzeorako pausu betegas Sastegire pasetan ginean, da Sastegi Orosko partea da t'ango abadeak esaren galasoten.

Antzeko kontue aukiten gendun emen San Blasen, Seanui te Dimeko linderoan daoen ermitan. An be, jotea Seanuin da baltzeoa Dimen.

Villarogas be beste ainbeste paseta san. Santi Kurtz ermitia Seanui te Villaroko Karpo ausunean arteko linderoan dao t'an be bardin paseta san. Seanuiko abadeak sian galasoten audenak, Villarokoak es ostera.

Aitu norañokoa isingo dan kontu au e? Nik i baltzeoa dala ta kanta ba(t)p(b)e badakit, ia ondo kantetan dotzuden, se, edade onegas gausa asko aistu be in yatas. A ber ba:

Yolasetan garbi-garbi beti isan adi
oituretan es galgarri isan iñori
seure ekandu on ori
gisonen txalogarri
isan bedi beti-beti bai Jose Mari.
Baltzeoa dala baltza- baltza da baltza
lisuña da ta motza gaste ibilkeran
ondu daigun biotza
emoiosu esetza
mutillori dosu artza ta eriotza.
Ibilli ta ibilli gorputzes ta oñes
binen-binen ibillite nora yoan es
seure isen onores
aitu sainke bai erres
dekosule beres-beres jentea burles.

Eta ez ori bakarrik. Or Gorbeian, bueno, Egirinaon San Inazio selebretan da eta ba meza ostean erromeria egiten zan, gaur be bai antxe bertan edo Arraban. Eta, klaro, jotea bai baina gero baltseoa etorren eta Zeanuriko abadeak a galazo egiten euskun. Eta orduan tranpea egiten gendun. Erromeria Egirinao eta Sastegiko linderoan egiten gendun, eta jotea Zeanurin eta baltseorako pausu bategaz Sastegira pasetan ginean, eta Sastegi Orozko partea da eta ango abadeak ez euden galazoten.

Antzeko kontua eukiten gendun emen San Blasen, Zeanuri eta Dimako linderoan dagoan ermitan. An be, jotea Zeanurin eta baltseoa Diman.

Villarogaz be beste ainbeste pasetan zan. Santa Krutz ermitea Zeanuri eta Villaroko Karpo auzunean arteko linderoan dago eta an be bardin pasetan zan. Zeanuriko abadeak zirean galazoten eudenak, Villarokoak ez ostera.

Aitu norainokoa izango dan kontu au e? Nik i baltseoa dala-eta, kanta bat be badakit, ia ondo kantetan deutsudan, ze, edade onegaz gauza asko aaztu be egin jataz. A ber ba:

Jolasetan garbi-garbi beti izan adi
oituretan ez galgarri izan inori
zeure ekandu on ori
gizonen txalogarri
izan bedi beti-beti bai Jose Mari.
Baltseoa dala baltza- baltza da baltza
lizuna da ta motza gazte ibilkeran
ondu daigun biotza
emoiozu ezetza
mutil ori dozu artza ta eriotza.
Ibili ta ibili gorputzes ta oinez
binan-binan ibillite nora joan ez
zeure izen onorez
aitu zeinke bai errez
daukazula berez-berez jentea burles.

75.5. Hiru neska berbartudunak

Sabaleko baserrien ama batek iru alaba aukesan, d'irurek tartamutuek. Eskon edadera allegau sirianean, ba, amak eskondu in guroasan.

Andi orti emeti, amorrek errekadu in da sustertu oan mutilen bat eta alabak ikusteko egune ipini.

Amak ipini oasan iru alabok patxadaz yantzite ta goruetan supasterrean baie agindu bet emon otzien:

- Alabatxuok, ori mutil ori datorrenean, suok o txiti(k)p(b)es e, ekin gorueteari te nauk ingo(t)p(b)erba, entzun dostesue?
- Bai, ama, bai!

Etorri yakien mutil ori te ba amak eroan oan alabokana ondo bearrean baie alangon baten e(s)tx(y)ako alaba bateri arie apurtuten?

Da, ba, goruetako arie apurtu yakonak, aman agindue aistute edo, non asten dan berbas:

- Tilit in yon ariek
- Torontile emoion (beste aistiak)
- Amak isilitoteko esan baie gu isilik esin on (irugarrenak)

Zabaleko baserrian ama batek iru alaba eukazan, eta irurak tartamutuak. Ezkon edadera allegatu zireanean, ba, amak ezkondu egin gura euazan.

Andik ortik emetik, ama orrek errekadu egin eta zuztatu euan mutilen bat eta alabak ikusteko eguna ipini.

Amak ipini euazan iru alabok patxadaz jantzita eta goruetan supasterrean baina agindu bat emon eutsien:

- Alabatxuok, ori mutil ori datorrenean, zuok o txitik be ez e, ekin gorueteari eta neuk egingo dot berba, entzun deustazue?
- Bai, ama, bai!

Etorri jakien mutil ori eta ba amak eroan euan alabokana, ondo bearrean, baina alangoren baten ez jako alaba bateri aria apurtuten?

Eta, ba, goruetako aria apurtu jakonak, amaren agindua aaztuta edo, non asten dan berbas:

- Tilit egin jona ariak
- Torontila emoiona (beste aizteak)
- Amak isilik egoteko esan baina gu isilik ezin egon (h)irugarrenak)

75.6. Lexia garbikuzirako

Garbikusie danerako da ona. Gaur u modu andie dao edoser garbituteko baie lenao erropea garbitako ta, esegoan gaur besteko modurik. Eta ganera, tela(k)p(b)e gaurkoa(k)p(b)año gogorrakoak sirian d'askos geio kostetan yakun garbikusi bearrak itea. Lexie iten gendun.

Lexie itesan, ifintesan ure berotuten. Barrikea ote san bogadea

Garbikuzia danerako da ona. Gaur u modu andia dago edozer garbituteko baina leenago erropea garbitako eta, ez egoan gaur besteko modurik. Eta ganera, telak be gaurkoak baino gogorrakoak zirean eta askoz geiago kostetan jakun garbikuzi bearrak egitea. Lexia egiten gendun.

Lexia egiten zan, ifinten zan ura berotuten. Barrikea egoten zan bogadea

iteko, d'ifinten yakon ganean trapue, d'an trapuen ifinten yakon surteko autze. Da, a abarrue erropas betetasan da kantinean ure berotan ifini. Ure berotu ala, lelengo ur epela botaten yakon, gero berotxoagoa, d'askeanean irikiten, egosi arte, bogadea egosi arte. D'an aspiti urtetoan lexiek, surteko autze auki oalako. D'axegas garbitan gendusen erropak, surteko autzegas. Autze eralgi itesan garbiek isin bear oan da. Gero errekarera eroan d'an yo-yo in. Arrie ote san d'arrien yo. Gero biurtu bien artean ur andienak botasoteko da gero eskegi, altzikitu edo sikitu arte. Baie plantxetako altzikitute ohea san se sikuegi in eskero ixurrek eta tximurrek kentzea sano gatxa san aikas lengo txingerresko plantxakas. Gaur ser gure t'axe dauku, gaur bestean ondo bisitea kostako da!

egiteko, eta ifinten jakon ganean trapua, eta an trapuan ifinten jakon surteko autsa. Eta, a barrua erropaz betetan zan eta kantinean ura berotuten ifini. Ura berotu aala, leenengo ur epela botaten jakon, gero berotxoagoa, eta azkenean irakiten, egosi arte, bogadea egosi arte. Eta an azpitik urtetan euan lexiak, surteko autsa euki eualako. Eta arexegaz garbietan genduzan erropak, surteko autsagaz. Autsa eralgi egiten zan garbiak izan bear euan eta. Gero errekarera eroan eta an jo-jo egin. Arria egoten zan eta arrian jo. Gero biurtu biren artean ur andienak botazoteko eta gero eskegi, altzikitu edo sikatu arte. Baina plantxetako altzikituta ohea zan ze sikuegi egin ezkerro ixurrak eta tximurrak kentzea sano gatxa zan areikaz leengo txingarrezko plantxakaz. Gaur zer gura eta axe daukagu, gaur bestean ondo bizitea kostako da!

75.7. Muskerrari bildurra

Muskerrari bildurre? Itzela. Selan es ba, samara saltu in de ito ito-ala entzun du beti te.

Eguskiegas urtetan deure asko. Koleorea(k)p(b)e politek aukiten daures baie bildurre itzela, subeari bestekoa.

Gu sarri yoaten gintzesan umetan orra goiko landara. Or bisimodu biko etxea dao da ba etxekoneko umea(k)p(b)e etorte sirian guges malluki batzean. D'an gabisela beti ikusten gendun muskerran bat malluki arteti. Baia ain sen andie gure malluki egarrie ba uxatu iten gendusen muskerrok eta mallukie(k)tx(y)-an, antxe bertan edo sien sartu te gero etxean.

Muskerrari bildurra? Itzela. Zelan ez ba, samara saltu egin eta ito egiten euala entzun dogu beti eta.

Eguzkiagaz urtetan daude asko. Koleoreak be politak eukiten daudez baina bildurra itzela, sugeari bestekoa.

Gu sarri joaten gintzazan umetan orra goiko landara. Or bizimodu biko etxea dago eta ba etxekoneko umeak be etorten zirean gugaz mailuki batzean. Eta an gabilzala beti ikusten gendun muskerran bat mailuki artetik. Baina ain zan andia gure mailuki egarria ba uxatu egiten genduzan muskerrok eta mailukiak jan, antxe bertan edo zirian (ziribedarra) sartu eta gero etxean.

Muskerra aituuneskero sera etorri yata gogora, ori subelandarean kantea, subelandareak estau ese iten, da grasiek e se plagea dao on be ta orma gustietan. Kantau ingotzut orduen:

Subelandarea mar-mar-mar
aite sopa(k)tx(y)aten
ama ardoa edaten
umetxo bat andetan
abadea kantetan.

Muskerra aitatu dogun ezkeru zera etorri jat gogora, ori subelandarearen kantea, subelandareak ez dau ezer egiten, eta graziak e ze plagea dago egon be eta orma guztietan. Kantatu egingo deusut orduan:

Subelandarea mar-mar-mar
aita sopak jaten
ama ardoa edaten
umetxo bat andetan
abadea kantetan.

76.1. Anbotoko Señorea Atxulotik Supelegorrera

Anbotoko Señorea? Bai gixona, naure amaxeari entzunde, ortixi (Gorbeia indikatzen dago eskuagaz aurrez aur ikusten delako) yoaten i soan garra dariola. Anbototi, orti Urkiola ganeti Iritxineko asduirantza iten i yoan d'an Atxuloko bentanati pasetan i soan Supelegorreko kuebara yoateko. Nos yoate soan? Ba, sera, amaxean sereti, ba udegoieneti negure bitartean. Ni nauk e(s)tx(y)oat ikusi baie nire amaxeak siñestu iten yoala esango ñaunkek e berak kontetan yostaneti. Anbotoko Señoreak alaban ba(t)p(b)e auki i yoan, Mari ixenekoa. Bai gixona, Atxuloko bentanati. Beitiok, aitik Gorbeierantza ta eskoatara Lekandako atxa estok ikusten? Ba, eskoara inean yaok ori Atxuloko bentanori. Udegoiengan, pagoari te, orbela yausten yakianean, emetixi, gure etxe ondoti ikusi iten dok Atxuloko bentanea. Ikustok? Emeti Gorbaierantza bista ona(k)-tx(y)aosak on be gero e? Ni asko yoaten (n)ok Gorbaiera, da kapri-txoa, urtetan yaukadan beste bider edo geiotan.

Anbotoko Señorea? Bai gizona, neure amaxeari entzunda, ortixik (Gorbeia indikatzen dago eskuagaz aurrez aur ikusten delako) joaten ei zoan garra dariola. Anbototik, ortik Urkiola ganetik Iritxinako(sic) azduirantza egiten ei joan eta an Atxuloko bentanatik pasetan ei zoan Supelegorreko kuebara joateko. Noz joaten zoan? Ba, zera, amaxearen zeretik, ba udagoienetik negura bitartean. Nik neuk ez joat ikusi baina nire amaxeak sinistu egiten joala esango niaunkek e berak kontetan jaustanetik. Anbotoko Señoreak alabaren bat be euki ei joan, Mari izenekoa. Bai gizona, Atxuloko bentanatik. Begitu egiok, aitu egik Gorbeiarantz eta eskoiatara Lekandako aitzia ez dok ikusten? Ba, eskoiaara einean jagok ori Atxuloko bentana ori. Udagoiengan, pagoari eta, orbela jausten jakianean, emetixik, gure etxe ondoti ikusi egiten dok Atxuloko bentanea. Ikusten dok? Emetik Gorbeiarantz bista onak jagozak egon be gero e? Ni asko joaten nok Gorbeia, eta kapri-txoa, urtetan jaukadan beste bider edo geiagotan.

Da, beste gause bat, sera, Iretxi-neko bentanati eskoarago, Orosko-rantza inean, sera(k)tx(y)aosak, iru atzoagureak, atzo bi t'agurea. Atxa-(k)t(d)osak irurek eta Oroskoarrak esaten yauriek e atxok eguskie(k)-tx(y)oorduen egurdie dala, baskaitordu. D'ixin in gok.

Eta, beste gauza bat, zera, Iretxinako(sic) bentanatik eskoiarago, Orozkorantza einean, zerak jagozak, iru Atso-Agureak, atso bi eta agurea. Aitzak dozak irurak eta Orozkoarrak esaten jaudiek e aitzok eguzkiak jo orduan eguerdia dala, bazkaitordu. Eta izan egingo dok!

76.2. Laminak akabatu esne irakin bidez

Lamiñen kontue? Bai, gixona. Serari yaukotzat entzunde, Lanbreabeko Isari, aun urtegas il soan. D'ak kontetan yostan ba bere aitexeari te lamiñek etorten yakiasala Lanbreabeko etxera, d'esin gausonik in.

Esnasaleak soasan antza lamiñok, eta ba beti esne eske, tabarrea emoten gaubiluntzetan yakiten yaurian da esneak a batute daosela, d'esin kendu ingurutu.

Da, bakik i se in yaudian? Ba, andi baten bateri entzunde edo, ba, imini esnea irikiten maskillu alosoko baten d'iluntzean lamiñok agartu soasanean, esne irikine emon yotzian, da koño! antxe akabau i soasan lamiñok esne irikinegas tripak erreta sokorru beten.

Laminen kontua? Bai, gizona. Zerari jaukotsat entzunda, Lanbreabeko Izari, eun urtegaz il zoan. Eta ak kontetan jautan ba bere aitaxeari eta laminak etorten jakiazala Lanbreabeko etxera, eta ezin gauza onik egin.

Esnezaleak zoazan antza laminok, eta ba beti esnea eske, tabarrea emoten gaubiluntzetan, jakiten jaudian eta, esneak a batuta dagozala, eta ezin kendu ingurutik.

Eta, badakik i zer egin jaudian? Ba, andik baten bateri entzunda edo, ba, imini esnea irakiten maskelu alozoko baten eta iluntzean laminok agertu zoazanean, esne irakina emon jautsian, eta koño! antxe akabatu ei zoazan laminok esne irakinagaz tripak erreta sokorru baten.

76.3. Arlanpeko atsoa labesuginen

Arlanpeko atzoana? Bai, seoser bai. Or Arlanpen esakera ba(t)tx(y)-aok on be, olan e Dimatxetan lañobereaa oten dokenean erabiltok, auxe: "*Arlanpeko atsoa labesuginen*". Da, labasuena airtu yunes, ba, Arlanpekoak errotara Igorrera etorte soasan da, ba, errotarie kargu artute

Arlanpeko atsoarena? Bai, zeozer bai. Or Arlanpen esakera bat jagok egon be, olan e Dimatxetan lainabeerea egoten dokenean erabilten dok, auxe: "*Arlanpeko atsoa labesuginen*". Eta, labesuarena airtu joagunez, ba, Arlanpekoak errotara Igorrera etorten zoazan eta, ba,

yegoan. Ba, Arlanpekoak astoa ondo esite yaukian da astoa bakarrik agintan yaudian errotara, baie, astotzara baten sorroa ta bestean arri bi, kontrapesoia iteko edo. Da beti bardin.

Da, ba, baten Arlanpeko agurea errotariegas juntau soan d'errotariiek esan i yotzan:

– I, astotzara baten sorro orde arri bie(k)p(b)arik sergaitik estotzek iminten beste artosorro bat eta kitu?ç

– Ara, mutil, guretxean gure aite(k)p(b)e olantxe iten yoan da gu(k)p(b)e olantxe iten yuk, usedio utze.

Da, ba, denporeagas Arlanpeko astoak e(s)tx(y)oan bear lagunik errotako yoan-etorrie iteko se bidea ikisi yoan, d'ondo ikisi be, da bakarri(k)tx(y)oate soan, Arlanpen sorroa kargetan yotzian de gero Igorreko Olabarriko errotariiek iyo orduen barriri kargau t'etxera soli-soli.

Mendean kitantzea e(s)tx(y)-akia(t)p(b)a selan ibiliko soan. I, ba, astoak onan batzuk i dosak etxera bidea topetako lañabera andie on arrik. Au astoan kontu au Gorbaieko pastoreari be entzunde yaukotziat e se Gorbaiean lañabereagas kontus, baie astoak eta kaballeriek en general surrek i dosak etxera bidea topetan.

76.4. Lapur-tranpak argi urten

Lapurren konturi(k)tx(y)akia-dan? Patakon esan dostek? Es ba. Etxoik a ber, pentzeteari emonda, seoser garanduko yoat. Lapurrek? Lapurrek? A bai!

Baie au pasaue dok e! Ni nauri

errotaria kargu artuta jegoan. Ba, Arlanpekoak astoa ondo ezita jaukian eta astoa bakarrik agintan jaudian errotara, baina, asto-otzara baten zorroa eta bestean arri bi, kontrapesoia egiteko edo. Eta beti bardin.

Eta, ba, baten Arlanpeko agurea errotariagas juntatu zoan eta errotariak esan ei jautsan:

– I, asto-otzara baten zorro orde arri biak barik zergaitik ez deutsak iminten beste arto-zorro bat eta kito?

– Ara, mutil, gure etxean gure aitak be olantxe egiten joan eta guk be olantxe egiten joaguk, usadio utsa.

Eta, ba, denporeagas Arlanpeko astoak ez joan bear lagunik errotako joan-etorria egiteko ze bidea ikasi joan, eta ondo ikasi be, eta bakarrik joaten zoan, Arlanpen zorroa kargetan jautsian eta gero Igorreko Olabarriko errotariak eo orduan barriri kargatu eta etxera zoli-zoli.

Mendaren kitantzea ez jakiat ba zelan ibiliko zoan. I, ba, astoak onen batzuk ei dozak etxera bidea topetako lainabeera andia egon arrik. Au astoaren kontu au Gorbeiaiko pastoreai be entzunda jeukotsiat e ze Gorbeian lainabereagas kontuz, baina astoak eta kaballeriak en general zuurrek ei dozak etxera bidea topetan.

Lapurren konturik jakiadan? Patakon esan deustak? Ez ba. Etxodon (itxaron) eik a ber, pentseteari emonda, zeozer garanduko joat. Lapurrak? Lapurrak? A bai!

Baina au pasatua dok e! Niri neuri

be naure amak (k)ontau yostan baten bere aiteri pasaukoa an Igorrebason, Erbibaso esaten yotzian landan.

Ba, an Erbibason, itargi andie oten soanean ikusi iten soasan erbiek eta kasariiek etxoten oten soasan erbieri tiritako.

Da, baten, gure aitite, aman aite, kasarie soan d'a(k)p(b)e yakiten yoan nos yoan erbietara. Yoan soan eskopeta ta gusti da Erbibaso erdiko arbola batera igon yoan d'erramartean ostandu erbiek agartu ala tirituteko.

An yegoan etxoten da alangon baten berbalotza asmau yoan da bera isilik sein erreparau besteok. Nortzuk ete sirean es ete sirean, oño! gixon bi, antxe aitite on soan arbolape berean. Gure aitite ixilik eta entzun in yotzian komertasiñoan bata(k)p-(b)esteari esaten:

- I, gaurko ferien Urliiek eta Urliiek ganadue saldu yauriek eta orrin etxean dirue yaok.
- Bai, erresoia daukok auki be. Bata emekoa dok eta bestea Bernagoiti aldekoa. Yoaten espagosa(k)p(b)a Bernagoitirantza diruok kentzean?
- Goaxan, erbiek urrungoan be emen ongosak et'araxe yoan beaiuk, gaur itargie be argitzu yaok eta.

Da, ba, gixon biok eskapau yaurian. Gure aitite be bajatu arbolati t'etxera yoan soan d'andrearri badiñotzek:

- Andrea, auxe t'auxe pasau yat eta yoan in beot atoan Bernagoiti aldera lapurretea in baño lenao.
- Gizona, baie gaube da ba ta!
- Bardin dotzo, yoan in beot.

Da, yoan soan d'esan in yotzian ango etxekoari se gogo daukien

be neure amak kontatu jaustan baten bere aitari pasautakoa an Igorrebason, Erbibaso esaten jaustian landan.

Ba, an Erbibason, itargi andia egoten zoanean ikusi egiten zoazan erbiak eta kazariak itxaroten egoten zoazan erbiei tiratuteko.

Eta, baten, gure aitita, amaren aita, kazaria zoan eta ak be jakiten joan noz joan erbietara. Joan zoan eskopeta eta guzti eta Erbibaso erdiko arbola batera igon joan eta errama artean ostandu erbiak agertu aala tiratuteko.

An jegoan etxodoten (itxaroten) eta alangoren baten berbalotza asmatu joan eta bera isilik zein erreparatu besteok. Nortzuk ete zirean ez ete zirean, oño! gizon bi, antxe aitita egon zoan arbolape berean. Gure aitita isilik eta entzun egin jaustian komertazinoan bata besteari esaten:

- I, gaurko ferian Urliak eta Urliak ganadua saldu jaudiek eta orrein etxean dirua jagok.
- Bai, errezoia daukak euki be. Bata emekoa dok eta bestea Bernagoiti aldekoa. Joaten ez bagozak ba Bernagoitirantz diruok kentzean?
- Goazan, erbiak urrungoan be emen egongo dozak eta araxe joan bear joaguk, gaur itargia be argitsu jagok eta.

Eta, ba, gizon biok eskapatu jaudian. Gure aitita be bajatu arbolatik eta etxera joan zoan eta andrearri badinotsak:

- Andrea, auxe eta auxe pasatu jat eta joan egin bear dot atoan Bernagoiti aldera lapurretea egin baino leenago.
- Gizona, baina gaua da ba eta!
- Bardin deutso, joan egin bear dot.

Eta, joan zoan eta esan egin jaustian ango etxekoari zer gogo daukien gizon

gixon bik eta prest oteko atea eta, ondo itxite.

Alantxe in yaurian. Ateak itxi, bentana(k)p(b)e bai. Txakurre be atean kanpoaldeko arandelan amarrau da gure aitite ta etxeko gixona eskopetakas kamarako leioan.

Goxaldean, txakur ausiekas batera tau-tau-tau, atea:

- Nor da?
- Gau
- Se beosue tertzio onetan?
- Sabaldu atea
- Se gurosue ba?
- Dirue, arin, feriko dirue!
- Dirue? Bai ontxe artukosue dirue!

D'orduén etxagunek tiro ba(t)p-(b)ota yoan axera da besto bat lapurron ondo ondora beren beregi.

Bildurto in soasan lapurrok et'alandxe akabau soan lapurretea. Tranpeak argi urten yotzian gure aititeri esker.

Bernagoitiko usabak, agradesimintureko beintxa eder bat erregalau yotzan gure aititeri ineko mesedeagaiti.

bik eta prest egoteko atea eta, ondo itxita.

Alantxe egin jaudian. Ateak itxi, bentanak be bai. Txakurra be atearan kanpoaldeko arandelan amarratu eta gure aitita eta etxeko gizona eskopetakas kamarako leioan.

Goizaldean, txakur ausiekas batera tau-tau-tau, atea:

- Nor da?
- Geu
- Zer bear dozue tertzio onetan?
- Zabaldu atea
- Zer gura dozue ba?
- Dirua, arin, feriako dirua!
- Dirua? Bai oraintxe artuko dozue dirua!

Eta orduan etxagunak tiro bat bota joan aizera eta beste bat lapurron ondo ondora beren beregi.

Bildurto egin zoazan lapurrok eta alantxe akabatu zoan lapurretea. Tranpeak argi urten jautsian gure aititari esker.

Bernagoitiko ugazabak, agradezimenturako beintxa eder bat erregalatu jautsan gure aititari, egineko mesedeagaitik.

76.5. Jentilak indartsuak besteko buruarinak

Yentile(k)p(b)ai, yentilek ibilte i soasan emeti Gorbeialdeti, Iritxineti te orti, da jentea birdurkilik ibiltan soan bates be ilundurduen.

Baten e or Iritxine ondoan egurginen ibili soasan batzuk, astillaginen, siekas trongoak erdibitan. Gautu in beayoan da bearren segidu yaurian les ba yentilek agartu i yakiasan d'esan amenasuke:

- Suonak in yok, gauges etorri beo-

Jentilak bai, jentilak ibiltan ei zoazan emetik Gorbeialdetik, Iritxinatik(sic) eta ortik, eta jentea birdurkilik ibiltan zoan batez be ilundu orduan.

Baten e or Iritxina(sic) ondoan egurginen ibili zoazan batzuk, astillaginen, ziriekaz trongoak erdibietan. Gautu egin bear joan eta bearren segitu jaudian lez ba jentilak agertu ei jakiazan eta esan amenzuka:

- Zuonak egin jok, geugaz etorri bear

sue, aimarie(k)tx(y)ota yaosak eta estaukosue sereginik.

- Egiok, erresoia daukosue, -erantzun iyotzan egurgin sur betek ango yentilik andienari,- baie suokas yoan orduko suon inderra naurtu gure geunkek ia ainbesterañokoa dan ala es yakiteko.
- Bai gixona, auk gurokenean, ser in bear yoat?
- Bitik, pago-trongo onetan burriñasko si bi yaukadas sartute d'arrankalea inde. Sartu isek aure eskutzarrak emen arrankalan da sieri lagundu arinago erdibituteko.
- Ori? Ori ser do(k)p(b)a nitzako, esan be itea olangorik?

Da yentil orrek sartu iyoasan eskutzarrok trongoan arrankalan da tireka asi. Baie ak egurgin surrek e siporreagas sie(k)tx(y)o yoasan baie barrure inean barik i kanpora, da yentilen atzamarrak arrapau. Yentile aienaka asi soanean, egurginok anka in yotzian da San Justoko ermitara allegau soasanean arnasea artu yaurian, se yentilek elexan e(s)tx(y)aukiek podererik. Yentilek indertzuek isingo soasan baie surre(k)p(b)a-t)p(b)es.

dozue, abemariak jota jagozak eta ez daukazue zereginik.

- Egia dok, errezoia daukazue, -erantzun ei jautsan egurgin zuur batek ango jentilik andienari,- baina zuokaz joan orduko zuon indarra neurtu gura geunkek ia ainbesterañokoa dan ala ez jakiteko.
- Bai gizona, euk gura dokanean, zer egin bear joat?
- Begitu egik, pago-trongo onetan burriñazko ziri bi jaukadaz sartuta eta arrankalea eginda. Sartu egizak eure eskutzarrak emen arrankalan eta ziriari lagundu arinago erdibituteko.
- Ori? Ori zer dok ba niretzako, esan be egitea olangorik?

Eta jentil orrek sartu ei joazan eskutzarrok trongoaren arrankalan eta tiraka asi. Baina ak egurgin zuurrak e ziri-porreagaz ziriak jo joazan baina barrura einean barik i kanpora, eta jentilaren atzamarrak arrapatu. Jentila aienaka asi zoanean, egurginok anka egin jautsian eta San Justoko ermitara allegatu zoazanean arnasea artu jaudian, ze jentilak eleizan ez jaukiek podererik. Jentilak indartsuak izango zoazan baina zuurrak bat be ez.

77.1. Mari-Pétralanda Mairulegorretan

Anbotoko Señorean entzutea? Bai, obeto es. Baie guk Mari-Pétralanda geitzean dotzu, gure sárrari entzunde. Or, Gorbaien oten i sen, seguru, Mairulegorreta eta Aldamiñaspiko kobasuloatan, bera ta beiki-deak.

Orti, Gorbaiti, Mairulegorretati Urkiolara d'Urkiolati Petralandara

Anbotoko Señorearen entzutea? Bai, obeto ez. Baina guk Mari-Pétralanda deitzean deutsagu, gure zaarrari entzunda. Or, Gorbeian egoten ei zan, seguru, Mairulegorreta eta Aldamiñazpiko kobasuloatan, bera eta berekideak.

Ortik, Gorbeiatik, Mairulegorretatik Urkiolara eta Urkiolatik Petralandara etorten ei zan, aidean, inarra baten gane-

etorten i sen, aidean, iñarra baten ganean, da beragas naste, gausasko ekarte i oan, astoak eta, sera, auntzen akarra, alondoagas yosiko ede satiekas lotute iduneti.

Dimen, Lamindaon, Petralanda iseneko baserri-etzea dao d'antxe barrenean, selaikadea dao d'antxe, Txibixaon, iten i situesan euren akelarreak edo funtziñoak.

Txibixao ser dan? Ba Txibixao, sera da: sorginek auren artean matrakak aukiten situesan, auren arteko ikusiesinek eta txibiskerie(k)p(be) bai, seinde, ba arkaleri sirriek eta olangoak. Eta Petralandapeko akelarre baten, ango inguruko bidaski bet pasau i sen ondoti te ba fetxoria ikusi in gurean, pago baten ganera igun oan eta sorgin betek esan i otzon beste bateri, itano ta gedarrotzean: – I, txibis ao, txibis ao niges, ser dala ta txibiskeri ori? Matrakotza guro na ala?

D'arreskero, auren komertasiñoti edo, areri selaikadeari, Petralanda baserri-etzepeko landa-selaiari “Txibixao” esatotzien d'esatotzu. D'an dao oin be baie a landea piñu sartute dao.

D'antxe iten i situesan akelarreak a akarra landa-erdien lotute seoseri edeagas eta arexen akarran inguruen yantzak eta, iten i situesan. Urtean baten ite i auren akelarre-batza nausie, eta, egune, isiten i sen, udabarriko lenengo idergi betea, erderas, plenilunioa esaten yakona. D'orrek udabarriko lenengo idergi bete orrek e seikusie dauko Aste Santuegas be. Gero antxe, Txibixaon, artzean i situesan urte gustiko ebatziek eta batesbe nok isin bear oan Gorbai inguru gustiko usandreak urrungo urte osorako.

an, eta beragas naaste, gauza asko ekarten ei euan, astoak eta, zera, auntzaren akerra, alondoagas jositako ede zatiekaz lotuta idunetik.

Diman, Lamindaon, Petralanda ize-neko baserri-etxea dago eta antxe barrenean, zelaikadea dago eta antxe, Txibixaon, egiten ei zituezan euren akelarreak edo funtziñoak.

Txibixao zer dan? Ba, Txibixao, zera da: sorginak euren artean matrakak eukiten zituezan, euren arteko ikusi-ezinak eta txibizkeriak be bai, zeinda, ba alkarri zirriak eta olangoak. Eta Petralandapeko akelarre baten, ango inguruko bidazki bat pasatu ei zan ondotik eta ba fetxoria ikusi egin gurean, pago baten ganera igon euan eta sorgin batek esan ei eutsan beste bateri, itano eta gedarotsean: – I, txibiz ago, txibiz ago nigaz, zer dala eta txibizkeria ori? Matrakotsa gura dona ala?

Eta arrezkero, euren konbersazinoetik edo, ari zelaikada ari, Petralanda baserri-etxepeko landa-zelaiari “Txibixao” esaten eutsien eta esaten deutsagu. Eta an dago orain be baina a landea pinu sartuta dago.

Eta antxe egiten ei zituezan akelarreak a akerra landa-erdian lotuta zezeri edeagas eta arexen akerraren inguruan dantzak eta, egiten ei zituezan. Urtean baten egiten ei euden akelarrebatar nagusia, eta, eguna, izaten ei zan, udabarriko leenengo idergi betea, erderaz, plenilunioa esaten jakona. Eta orrek udabarriko leenengo idergi bete orrek e zerikusia dauka Aste Santuagaz be. Gero antxe, Txibixaon, artzean ei zituezan urte guztiko ebatziak eta batezbe nork izan bear euan Gorbeia inguru guztiko uzandreak urrengo urte osorako.

Gero, Petralandapeko funtzioak akabatu orduen barriro garretan Mairulegorretara; asi emen Lamindaon, gero Urkiolara ta Gorbaien Aldamiñaspiti Mairulegorrataka kuebara. Antxe ote i sen Mari-Pétralanda da bere be(r)ekideak.

Konsultarik itotzen erriko jenteak? Ara, gure amamari te entzunde, ba, bai seguru. Osatu gurisiteurenak yoaten i sirian Mari-Pétralandari konsultea iten d'ak emoten i otziesan sinismen andiko bedarrak, osatu iteko gaxoak.

Orri(k)p(b)edarrok, osasun bedarrak esaten yakienak, udan sartu orduko batu bea dire, sespabere siki-tu iten dire t'estaure baligo. Orregaitik, San Juan besperan be bedarra(k)p(b)atzean dire urte barruko erremedioatarako, pulmuni bedarrak, katarro bedarrak eta olangoak. Se, lenao katarro, pulmuni te bularrestu asko egoan da seosegas osatu bear, botika gitxi egoan da. Mansanillea be Gorbaien San Inasio aurreti batu bea da, gero belu de, da batu estauenak erosi in bear, baie dirue nok orduko denporan?

Supelegor entzun dodan? Entzun bai, baie, Supelegor gure parajeti Oroskorago dao ta Mairulegorreta erasago iten yaku ta beti entzun du Mari-Pétralanda Mairulegorreta d'inguruko kobasuloatan oten sala, d'ortixik etorte sala Lamindaoko Petralandara, isena(k)p(b)era(k)t(d)ño: Mari-Pétralanda, d'akelarrean landa-selaie, Txíbixao.

Onikontuok e bildurre sartzeako kontetoskuesan, gaubetan, aimaria(k)tx(y)o ta gero kanpoti ibili ez iteko, gauberi errespetoa isiteko.

Gero, Petralandapeko funtzioak akabatu orduan barriro garretan Mairulegorretara; asi emen Lamindaon, gero Urkiolara eta Gorbeian Aldamiñazpitik Mairulegorrataka kuebara. Antxe egoten ei zan Mari-Pétralanda eta bere berekideak.

Konsultarik egiten eutsien erriko jenteak? Ara, gure amamari eta, entzunda, ba, bai seguru. Osatu gura izaten eudenak joaten ei zirean Mari-Pétralandari konsultea egiten eta ark emoten ei eutsiezan sinesmen andiko bedarrak, osatu egiteko gaixoak.

Orreik bedarrok, osasun-bedarrak esaten jakienak, udan sartu orduko batu bear dira, ze ezpabere sikatu egiten dira eta ez daude balio. Orregaitik, San Juan bezperan be bedarrak batzean dira urte barruko erremedioatarako, pulmuni bedarrak, katarro bedarrak eta olangoak. Ze, leenago katarro, pulmuni eta bularrestu asko egoan eta zeozegaz osatu bear, botika gitxi egoan eta. Manzanilea be Gorbeian San Inazio aurretik batu bear da, gero belu da, eta batu ez dauanak erosi egin bear; baina dirua nork orduko denporan?

Supelegor entzun dodan? Entzun bai, baina, Supelegor gure parajetik Orozkorago dago eta Mairulegorreta erasago egiten jaku eta beti entzun dogu Mari-Pétralanda Mairulegorreta eta inguruko kobazuloatan egoten zala, eta ortixik etorten zala Lamindaoko Petralandara, izenak berak dino: Mari-Pétralanda, eta akelarrearen landa-zelaia, Txíbixao.

Oneik kontuok e bildurra sartzeako kontetan euskuezan, gauetan, abemariak jo eta gero kanpotik ibili ez egiteko, gauari errespetoa izateko.

Yentil, lamiña d'orrin konturik es ba, es oskuen kontetan etzean d'estakit, len esan dotzuden moduen bildurregaiti isingo san.

Au dala ta, seragas akordau nas, ako ak misiolariak e gure amari te, bototzien bronkea Aste Santu aurreko misinoietan: "Bai, gaurko gasterie gaubes dabil kanpoti. Astoa kanpoti badosue, gauberdien be bille yoaten sarie, da semalaban bat kanpoti isin eskero, bille yoan bes, ori de patxadea!"

Bueno ba, baligo botzu, auxe osu Mari-Pétralanda dala ta dakitzutena, eta nos gura yoango gara Txibixao, akelarre lekue t'inguruek ikusten. Gustauko yatzue.

Jentil, lamina eta orrein konturik ez ba, ez euskuen kontetan etxean eta ez dakit, leen esan deutsudan moduan bildurrageitak izango zan.

Au dala eta, zeragaz akordatu naz, arako ark misiolariak e gure amari eta, bota eutsien bronkea Aste Santu aurreko misinoietan: "Bai, gaurko gazteria gauzez dabil kanpotik. Astoa kanpotik badozue, gauerdian be bila joaten zarie, eta seme-alabaren bat kanpotik izan ezkerro, bila joan be ez, ori de patxadea!"

Bueno ba, balio badeutsu, auxe dozu Mari-Pétralanda dala-eta dakitsudana, eta noiz gura joango gara Txibixao, akelarre lekua eta inguruak ikusten. Gustatuko jatzue.

77.2. Ellakuriko txakurra

Seberion, Saldaingo txakurreri se pasau yakon kontautzut baie emen, Villaron, Ellakuriko txakurreri pasau yakon antzekoa.

Ellakuri, emen Villaron, bueno, oin Villaro Areatza da, ortxe goien dao, komento onen goikaldean, eguskibegien. Ellakuri erris Zeani da.

Da, ba, txakur bet aukien kantzau-kantzau inde beti indaba(k)-tx(y)aten. Bueno, yan esan dot seoser esatearren, se txakurrek estau yaten indabarik gosekilik e(s)p(b)adao. Isin be, txakurreri, arratoiari te baieri e(s)tx(y)akie gustetan indabarik. Asala yangotzie indabeari gose-gosean, baie barrue e(s)t(d)otzie yango. Beitu noraño, beieri indaba serukak emon eskero, amurruegas da ganoso yango daus, baie garauden bat aurkituten badau seruka barruan, antxe itxiko dau ondarrean yan barik.

Zeberion, Saldaingo txakurrari zer pasatu jakon kontatu deutsut baina emen, Villaron, Ellakuriko txakurrari pasatu jakon antzerakoa.

Ellakuri, emen Villaron, bueno, orain Villaro, Areatza da, ortxe goian dago, komentu onen goiko aldean, eguzkibegian. Ellakuri erris Zeanuri da.

Eta, ba, txakur bat eukien kantsau-kantsau eginda beti indabak jaten. Bueno, jan esan dot zeoser esatearren, ze txakurrak ez dau jaten indabarik gosekilik ez badago. Izan be, txakurrari, arratoiari eta beieri ez jakie gustetan indabarik. Azala jango deutsie indabeari gose-gosean, baina barrua ez deutsie jango. Begitu noraino, beieri indaba zerukak emon ezkerro, amorruegas eta ganoso jango dauz, baina garauden bat aurkituten badau zeruka barruan, antxe itxiko dau ondarrean jan barik.

Ellakuriko txakurre be olan ebilen, seguru, antoju artute portzelanasko platereko indabari. Asi iten san yaten baie an itxitoan muskildute dana, plater-indaba egosiko sukueri txupekada batzuk emonda.

Da, baten e, txakur ori, desesperaute, pentzetan asi sen, se bide artu, t'esautzon bere burueri ba se:

– Ellakurin e(s)tx(y)aok sereginik eta gaur orra beko mojan komentora yoan bear yoat baskaiten, se, orko mojak eukiko yaustiek indaba(k)p(b)año seoser gozoagoa tripekada bat iteko aspaldiko partes.

Da, yoan san Ellakuriti bera agoan txue inde. Klausurako komentoko orma ganeti saltu in de santiamen baten presentau sen komentoan.

Komentoari obuen-obuen buelta bat emon otzon usainke-usainke, da beko bentana bateti refetoria ikusi auenean, refetoria, komedorari esatotzie mojak, imini aurreko anka biek e bentana-markoan da baskarie eskatu oan esanes:

– Egun on daukiela! Gosakilik nao ta baskari apur beten eske nator, ondakine(k)p (b)adire be bardin dost se auron ondakinek Ellakuriko indaba(k)p(b)año gosoago ingo yatas.

– Ai, ene txakurre!- refetoria garbitan lotu sen moja batek-, estauku ba eser baskaiteko, guk u egurdarteko amabietan baskaiten du, goxean goxeti yagiten gara ta, gaure maitineak eta errestako, da ba gaurko baskarie yoan da, d'ondakin apurre(k)p(b)e, batu te txarri askara bota dus, txarrie(k)p(b)e loditu in bea dire ta. Beste baten isin beako dau.

– Se ingu ba,- txakur orrek agoko

Ellakuriko txakurra be olan ebilen, seguru, antoju artuta portzelanazko platereko indabari. Asi egiten zan jaten baina an itxiten euan muskilduta dana, plater-indaba egosiko zukuari txupakada batzuk emonda.

Eta, baten e, txakur ori, desesperauta, pentsetan asi zan, zer bide artu, eta esan eutsan bere buruari ba ze:

– Ellakurin ez jagok zereginik eta gaur orra beeko monjen komentura joan bear joat bazkaiten, ze, orko monjak eukiko jaustiek indabak baino zeozer gozoagoa tripakada bat egiteko aspaldiko partez.

Eta, joan zan Ellakuritik beera aoan txua eginda. Klausurako komentuko orma ganetik saltu egin eta santiamen baten presentatu zan komentoan.

Komentoari oboan-oboan buelta bat emon eutsan usainka-usainka, eta beeko bentana batetik refetoria ikusi euanean, refetoria, komedorari esaten deustie monjak, imini aurreko anka biak e bentana-markoan eta bazkaria eskatu euan esanez:

– Egun on daukiela! Goseakilik nago eta bazkari apur baten eske nator, ondakinak badira be bardin deust ze euron ondakinak Ellakuriko indabak baino gozoago egingo jataz.

– Ai, ene txakurral- refetoria garbitan lotu zan monja batek-, ez daukagu ba ezer bazkaiteko, guk u egurdarteko amabietan baskaiten dogu, goizean goizetik jagiten gara eta, geure maitinesak eta errezetako, eta ba gaurko bazkaria joan da, eta ondakin apurrak be, batu eta txarri askara bota doguz, txarriak be loditu egin bear dira eta. Beste baten izan bearko dau.

– Zer egingo dogu ba,- txakur orrek

txuok iruntzite-, badaespada geratu es ninten esebe barik, obeto yoan ninten naure etzera gaur be indabak ongo dire d'indabori akatz apurbet iten goseak il baño lenao.

Yoan san txakur ori Ellakurire, tripak orroaka situsela, eta es indaba d'es indabondoko! Baskaldute aurkitu situsen. Atzenean, es batean es bestean, baskaldu barik lotu sen Ellakuriko txakurre. D'au, bisimoduen be sarriten pasetan da. D'ori pasetan yakonari "*Ellakuriko txakurrena pasau yako*" esaten du. Esakera in de txakur orren danagurekoa.

aoko txuok iruntsita-, badaezpada geratu ez naiten ezer be barik, obeto joan naiten neure etxera gaur be indabak egongo dira eta, indaboi akatz apur bat egiten goseak il baino leenago.

Joan zan txakur ori Ellakurira, tripak orroaka zituzala, eta ez indaba eta ez indabondoko! Bazkalduta aurkitu zituzan. Atzenean, ez batean ez bestean, bazkaldu barik lotu zan Ellakuriko txakurra. Eta au, bizimoduan be sarritan pasetan da. Eta ori pasetan jakonari "*Ellakuriko txakurrena pasatu yako*" esaten dogu. Esakera egin da txakur orren danagurekoa.

77.3. Lexia arte-egur errearen hautsagaz

Lexie? Bai, gure amama Ziprianak eta itauren, emen ausotegi gustie batute. Gure etzean, artak auki daukus ondiño be, bueno, ondo bat (d)anean, artea esatotzu baie asko diesenean, artak edo aratadui eta gure etze inguruen artadui dauku, atxine inausite ganera.

Da, lexie da garbikusi sakona, gobadea isiten san. Ixerak auneskoak sirian les, ba, gogorrak isiten sirian da lexie ite san euren garbikusireko.

Orretarako autze bear isite san, egur errean autze, d'autzik onena arte-egur erreana san. Artea erreaskero, autz suri-suriek urtetoan d'orixe san onena lexie iteko.

D'autzori, urtean kabuen erretan san arta-egurregas logretan san, da, ba, arpelik (g)aldu es iteko, etzeko okolu beten gordetan san bear sanerako, seinde, ba, gaskaxea edo tinajue daoan moduen txarri edo sesine gatzetan gordetako, ba, arta-

Lexia? Bai, gure amama Ziprianak eta egiten euden, emen auzotegi guztia batuta. Gure etxean, artak euki daukaguz oraindino be, bueno, ondo bat danean, artea esaten deutzagu baina asko dirazanean, artak edo aratadui eta gure etxe inguruan artadui daukagu, antxina inausite ganera.

Eta, lexia da garbikuzi sakona, gobadea izaten zan. Izarak eunezkoak zirean lez, ba, gogorrak izaten zirean eta lexia egiten zan euren garbikuzirako.

Orretarako autsa bear izaten zan, egur errearen autsa, eta autsik onena arte-egur errearena zan. Artea erre ezkerro, auts zuri-zuriak urtetan euan eta orixe zan onena lexia egiteko.

Eta auts ori, urtearen kabuan erretan zan arte-egurregaz logretan zan, eta, ba, alperrik galdu ez egiteko, etzeko okelu baten gordetan zan bear zanerako, zeinda, ba, gatz-kaiza edo tinakoa dagoan moduan txarri edo zezina gatzetan gor-

autze be olango kaxa moduko baten gordeta san bea sanerako.

Lexie iteko, ausotegi gustie baztea(n) san, tandas iteko aunesko ixeron garbikusie. D'orretarako, egurreko tinajue artzea san d'an sartu aunesko ixerak. Galdaillean egosiko ur irikine bota da ganeti arta-autze, suri-surie. Gero gioneskoak sartu barrure ta sapaldu-sapaldu itauren, seinde, matzagas ite san moduen txakoline iteko. D'ure otzitu ala, barriro berotu te beste igurdialdi bet.

Bein orin de gero, kendu ure eta gobadotzaran artute erre kara eroate san gobadea akabetako. Errekan akklarau te gero biur-biur in urek (g)ustiek kentzeako ta gero eskegi.

Baie, oin kontaukotzut u gause kurioa. Lexien ure aklaletorduen, erre kaka ure suritu ite san da, ba, ango erre kaka kangrejoari e(s)tx(y)akien gustetan lexi-ure ta erreka ertzetik kanpora urtetauren. Orduen, guk umeok, amamari laguntan yoaten ginean da, artu kangrejuok eta gobadotzaran ekarten gaindusen, erropa ganean, etzean egosi te yateko, besterik espasan gatz apur bet botata egostorduen.

D'oin kontaukotzut fetxori andiagoa, barre ingosu baie. Emeko gure ausoko andra bat, isena estu esango, bakisu, errespetoagaiti, gobadea iten yoan san Antzabarroko otxinera da gisona eroan oan laguntan. Txakurrek (b)e segidutzien atzerik ara. Gisona eskastxue san d'andrea, andratzarra, garbosea. Da, gobadea iten daosela, gisona e(s)tx(y)ako yausten otxinera! Ene? Goatu gison orreri te itxurealangoan atera oan, busti-busti inde, ondatute lexi uregas suritute, d'otz itauren les, otzakilik,

detako, ba, arte-autsa be olango kaxa moduko baten gordetan zan bear zane-rako.

Lexia egiteko, auzotegi guztia baztean zan, tandaz egiteko eunezko izaron garbikuzia. Eta orretarako, egurrezko tinakoa artzean zan eta an sartu eunezko izarak. Galdaillean egosiko ur irakina bota eta ganetik arte-autsa, zuri-zuria. Gero gizonetzkoak sartu barrura eta zapaldu-zapaldu egiten euden, zeinda, maatsagaz egiten zan moduan txakolina egiteko. Eta ura otzitu aala, barriro berotu eta beste igurdialdi bat.

Bein ori egin eta gero, kendu ura eta gobadotzaran artuta erre kara eroaten zan gobadea akabetako. Errekan akklaratu eta gero biur-biur egin urak guztiak kentzeako eta gero eskegi.

Baina, orain kontatuko deusut u gauza kurioa. Lexiaren ura aklaletorduan, erre kaka ura zuritu egiten zan eta, ba, ango erre kaka kangrejoari ez jakien gustetan lexi-ura eta erreka ertzetik kanpora urtetan euden. Orduan, guk umeok, amamari laguntan joaten ginean eta, artu kangrejuok eta gobadotzaran ekarten genduzan, erropa ganean, etxean egosi eta jateko, besterik ez bazan gatz apur bat botata egostorduan.

Eta orain kontatuko deusut fetxoria andiagoa, barre egingo dozu baina. Emeko gure auzoko andra bat, izena ez dogu esango, badakizu, errespetoagaitik, gobadea egiten joan zan Antzabarroko otsinera eta gizona eroan euan laguntan. Txakurrak be segidu eutsien atzerik ara. Gizona eskastxua zan eta andrea, andratzarra, garbosea. Eta, gobadea egiten dagozala, gizona ez jako jausten otsinera! Ene? Goratu gizon orreri eta itxurealangoan atera euan, busti-busti egin-

dar-darotzean. Andreak orduen, artu gobadotzaran gizon ori t'etzera ekarri oan, pulmunien bat artuen be. Es oan gure ausoko inor enteretarik eskandalu orregas, baie txakurre ausi beten asi yakon, txau-txau-txau! Andreak isilik oteko agintotzen baie arpelik, a txakurre berean. Alangon baten gobadotzaran barruti gisonak: ki-ki-ki! in otzen txakurreri te txakurre isildu. Orretara esan i oan ak andreak: *“orratiño, gisona gisontxoa isin arren, beti gison!”*

da, ondatuta lexi uragaz zurituta, eta otz egiten euan lez, otzakilik, dar-darotsean. Andreak orduan, artu gobadotzaran gizon ori eta etxera ekarri euan, pulmoniaren bat artuan be. Ez euan gura auzoko inor enteretarik eskandalu orregaz, baina txakurra ausi baten asi jakon, txau-txau-txau! Andreak isilik egoteko agintan eutsan baina alperrik, a txakurra berean. Alangoren baten gobadotzararen barrutik gizonak: ki-ki-ki! egin eutsan txakurrari eta txakurra isildu. Orretara esan ei euan ak andreak: *“orregaitino, gizona gizontxoa izan arren, beti gizon!”*

78.1. Untzetako harri-bolak

Arri-bolak ikusi? Desde luego, nauk ikusie(k)t(d)ire e. Gastetan aitegas yoaten gintzesan ba egurrek ekarten. Orduko urtean arrastau uen dana uriola batek, eta orraño ekarrite on sirean arri-bolok, Bertzuten ganeko trokaraño. Orduen ni nauk u amar urte be enindusen aukiko. Arriak e, bai eta ba(t)p(b)año geao e an trokarroan, an urek urtetan dau Untzetabepen es, bueno ba, antxe errekarroan, baie emen bastante biera ekarrite, olango kare-arri erredondo-erredondoak e, bai, briiillue itaudien e ganeti be e, da, selan aitek eta esaten oskuen e: *“onik jentilen arrie(k)t(d)ires”*.

Eta yentilek ibilte sian emen, orti(k) eta ara bolaka, orti Untzetapikuti Mandoire, esaten audin, eta selan esaten audin e, or anka bat imini da besto bat an (Untzeta eta Mandoia) da, or Arkulandako erre-kako arripausuetan ur(e) edaten audiela, serean Artandan, oin kamiñosubie dao inde baie.

Arri-bolak ikusi? Desde luego, neuk ikusiak dira e. Gaztetan aitagaz joaten gintzazan ba egurrak ekarten. Orduko urtean arrastratu euan dana uriola batek, eta orraino ekarrita egon ziran arri-bolok, Bertsuten ganeko trokaraino. Orduan nik neuk u amar urte be ez nenduzan eukiko. Arriak e, bai eta bat baino geiago e an troka-arroan, an urak urtetan dau Untzetabepen ez, bueno ba, antxe errekarroan, baina emen bastante beera ekarrita, olango kare-arri erredondo-erredondoak e, bai, briiillua egiten eudien e ganetik be e, eta, zelan aitek eta esaten euskuen e: *“oneik jentilen arriak dira”*.

Eta jentilak ibiltzen ziran emen, ortik eta ara bolaka, ortik Untzetapikutik Mandoiara, esaten eudien, eta zelan esaten eudien e, or anka bat imini eta beste bat an (Untzeta eta Mandoia) eta, or Arkulandako erre-kako arri-pausuetan ura edaten eudiela, zerean Artandan, orain kamino-zubia dago eginda baina.

78.2. Jentilkumea

Len esan dotzuden moduen, emen Untzetapikun jentil partidea bisi i sen, seguru, te ba auren artean jentilkumea be bai.

Da ba, segun itxurea, jentilkumea yoaten i sen eskolara be. D'onek ausoko Eustasiak esatauen e, jentilkumori kinteleko bastoia eskuen dala yoate sala eskolara, da umeak (g)ustie(k)t(d)ana(k)p(b)ildurregas, se eskolako bentanatik i aidean botaten i ausen eskolumeok ak auken indertzarragas.

Intera baten ibili i sen olan baie gero itxi in i otzen eskolara yoateari, da bake-santu bet. Ori be bai, ori be entzunde daukotziet Eustasiari te.

Leen esan deutsudan moduan, emen Untzetapikun jentil partidea bizi ei zan, seguru, eta ba euren artean jentilkumea be bai.

Eta ba, segun itxurea, jentilkumea joaten ei zan eskolara be. Eta onek auzoko Eustasiak esaten euan e, jentilkumori kintaleko bastoia eskuan dala joaten zala eskolara, eta umeak guztiak danak bildurragaz, ze eskolako bentanatik i aidean botaten ei euazan eskolumeok ark eukan indartzarragas.

Intera baten ibili ei zan olan baina gero itxi egin ei eutsan eskolara joateari, eta bake-santu bat. Ori be bai, ori be entzunda deukotsiet Eustasiari eta.

78.3. Arriandi(aga)ko urregorria

Ori Arriandi? Bai, Arriandi dao Untzetabepen, onantxik apur bet alborantza iten dau, Gorbaierantza inean, bai, aintxe, aintxe dao.

Arriandi ori, nik entzutea e, oniri sarrari te, ba yentilek arribolan ibilte i sirean, da, ba Oroskoti Untzetapikure bota i auen olango jentiltzarran batek arri andi ori te Untzetapiku yo ta mendi satie kendu i otzen seguru. Or auki be oskea dauko Untzetapikuk onantza inean, Gorbaierantza inean. Dana be kontue isingo da baie, nik entzutea e, eske, orrik i aukien inderragas ba, edosein gause. Emen Bertzutenen ausona gustie bildurkilik bisi i sen orrikas jentil kankallookas. Labesue inor-duen be, labera etorri te artoak ostuten i situesan deskuidau eskero.

Ori Arriandi? Bai, Arriandi dago Untzetabepen, onantxik apur bat alborantza egiten dau, Gorbeiarantz einean, bai, antxe, antxe dago.

Arriandi ori, nik entzutea e, oneiri zaarrari eta, ba jentilak arri-bolan ibilten ei zirean, eta, ba Orozkotik Untzetapikura bota ei euan olango jentiltzarraren batek arri andi ori eta Untzetapiku jo eta mendi zatia kendu ei eutsan seguru. Or euki be ozkea dauka Untzetapikuk onantz einean, Gorbeiarantz einean. Dana be kontua izango da baina, nik entzutea e, es ke, orreik ei eukien indarragas ba, edozein gauza. Emen Bertzutenen auzune guztia bildurkilik bizi ei zan orreikaz jentil kankailookaz. Labesua egin orduan be, labera etorri eta artoak ostuten ei zituezan deskuidatu ezkeru.

Indertzuek eta mantzinek i sirean seguru.

Urregorrie? Aitu, aitek eta esatoskuen, estait sainbet mandokada, ser, urregorri daosela or ainbaten enterraute, Untzetabepeko trokan, mandokada(k)t(d)aosela, or, urregorriek enterraute. Ori beti esaturien e gaure aitek eta, bai, bai, d'esaten gendun ba: topetan yoan beaku!

D'or Arriandipean be urregorrie i dao, esatudien e, baie gure aiteri te or Untzetabepeko trokan daoelaskoa daukotziet entzunde. Su, seoser isin be ingo da e?

Indartsuak eta mantzinak ei zirean seguru.

Urregorria? Aitu, aita-eta esaten euskuen, ez dakit zeinbat mandokada, zer, urregorri dagozala or ainbaten enteratuta, Untzetabepeko trokan, mandokadak dagozala, or, urregorriak enteratuta. Ori beti esaten eudien e geure aita eta, bai, bai, eta esaten gendun ba: topetan joan bearko dogu!

Eta or Arriandipean be urregorria ei dago, esaten eudien e, baina gure aitari- eta, or Untzetabepeko trokan dagoalazkoa deukotsiet entzunda. Zu, zeozer izan be egingo da e?

78.4. Laminak Untzetabepen

Or Untzetapiku ganan aspian errekeak urtetan dau. Lamiñak, esatauen gure amak, bere aitek esaten otzela, emen be, Bertzuten-errekan, ote sireala lamiñak bastarreko atxan ganean paraute orrastuten seguru ulleak.

D'aik kentzeako edo galtzeako ser in audien be konteta auen gure amak. A ber ondo esaten botzut: topau bear i sirean sekor bi, errisekorrak, bai, San Juan egunean yaio, da busten punta(k)p(b)altzak eta musturre(k)p(b)e baltzak. (hemen Juan Luis senarrak zuzendu egiten du alborik hara):

– Es, errisekorrok sirean musturrek (g)orriek, de busten punta(k)p(b)-altzak.

A, bueno, ori, busten puntako luma(k)p(b)altzak, de mustur gorriak, bai, aikas, da tragesa kuiau te pasau i audiesan errekek a gora ta biera, t'orduen desaparesidu i sirean

Or Untzetapiku ganaren azpian errekeak urtetan dau. Laminak, esaten euan gure amak, bere aita esaten eutsiela, emen be, Bertzuten-errekan, egoten zireala laminak bazterreko atxaren ganean paratuta orraztuten seguru uleak.

Eta areik kentzeako edo galtzeako zer egin eudien be kontetan euan gure amak. A ber ondo esaten ba deutsut: "topatu bear ei zirean zekor bi, erri-zekorrak, bai, San Juan egunean jaio, eta buztan puntak baltzak eta musturak be baltzak. (hemen Juan Luis senarrak zuzendu egiten du Rosalia alborik hara):

– Ez, erri-zekorrok zirean musturak gorriak, eta buztan puntak baltzak.

A, bueno, ori, buztan puntako lumak baltzak, eta mustur gorriak, bai, areikaz, eta tragesa kogidu eta pasatu ei eudiezan errekek a gora eta beera, eta orduan desaparezidu ei zirean laminok

lamiñok odola dariola. (Barrero Juan Luis senarra berbetan)

– Segun esataudin abuelok eta, lamin asko serean oten i sirean, Olabarriko errekan. Ermitabarrin, an Subitxueta, Ugarte ganeko Murgati datorren Seberioke errekeagaz bat iten dau Gesal-errekeak, Subitxueta sube-subien, da bera-txuago Olabarriko subien Etxaso-errekeak eta antxe, antxe oten i sirean lamiñak, asko, bandadak, elie.

Da, su, ori komo berdadero kontetaudien gero e, benetako sera e, gure amak eta.

odola dariola. (Barrero Juan Luis senarra berbetan)

– Segun esaten eudien abuelok eta, lamin asko zerean egoten ei zirean, Olabarriko errekan. Ermitabarrin, an Zubitxueta, Ugarte ganeko Murgatik datorren Zeberioke errekeagaz bat egiten dau Gezale-errekeak, Zubitxueta zubi-zubian, eta beeragotxuago Olabarriko zubian Etxazo-errekeak eta antxe, antxe egoten ei zirean laminak, asko, bandadak, elia.

Eta, zu, ori “komo berdadero” kontetan eudien gero e, benetako zera e, gure amak eta.

78.5. Mari Anbotokoa Untzetabetik

Mari Anbotokoa entzutea? Entzutea bai. Su nik entzunde daukotzet Margarita defunteari. Oin esangotzut. Olatxuko Errubio ta orrik esotuko saindusen es? Bueno ba, ain amari e, saarra isin sen, ni umea nasela be, eta areri entzunde, sera, gauberdien, ikuuusi, es baten, baten baño geotan, andi agartuten san, Gorbaialdeti de pasetan i sen orti atzean argie itxite, txispa(n) moduen, orti Untzetabeti, bai orti paseta sala. Jesus Mari, lengusuek, esan doste, bere aitek (Siprianok) esaten auela, ori Mari ori, ikusi in auela pasetan, bai, ikusi in auela Untzetabeti Gorbaiera pasetan txispotsean.

Mari Anbotokoaren entzutea? Entzutea bai. Zu nik entzunda deukotsat Margarita defunteari. Orain esango deutsut. Olatxuko Errubio eta orreik ezagutuko zenduzan ez? Bueno ba, arein amari e, zaaarra izan zan, ni umea nazala be, eta areri entzunda, zera, gauberdian, ikuuusi, ez baten, baten baino geigotan, andik agertuten zan, Gorbaialdetik eta pasetan ei zan ortik atzean argia itxita, txispen moduan, ortik Untzetabetik, bai ortik pasetan zala. Jesus Mari, leengusuek, esan deust, bere aitek (Ziprianok) esaten euale, ori Mari ori, ikusi egin euale pasetan, bai, ikusi egin euale Untzetabetik Gorbaiera pasetan txispotsean.

78.6. Begizkoarena

Begizkoa? Nik estait in selan, baia nauk pasau nindule dakit. Bai, nauk. Eta, Olatxuko ixikoak, tia

Begizkoa? Nik ez dakit egin zelan, baina neuk pasatu nendula dakit. Bai, neuk. Eta, Olatxuko izekoak, tia Mariak,

Mariak, in osten erremedioa seguru. Se parau i nintzen, ba, triste ta mine daukoten moduen. Eta etorri sen urrean batenbat ikusten da ba, edeeerra on i nintzen seguru, te au de umean ederra, ta sera ta, ba sertu te, gero urrungo egunerako ya tristetute parau i nintzen da, txarto seguru, yan bes eser, d'esebes, da, ene, ta, tia Mari etorri te:

– Onek? One(k)tx((y)aukona begiskoana, oneri ume oneri egin yotziena begiskoana, ta nauk ingo yotzat erremedioa.

Eta in osten erremedioa, seguru, e ur berue edo imini eta ara sera bota, plomoa urtue edo, eta sainbe(t)punta urtetan dotzen, an yakiten i audien asko aukin badau edo gitxi aukin badau. Eta urten i osten punta asko, plomoa urtute, urtu sartanean da bota barreñure, urartera, d'an urtetan i audien txarren dagoenari puntarik (g)eien, sorrotzak eta puntak. Eta nauri in ostien ori. D'axe inde kendu ite san begiskoana.

Baie, nik txarriari be iten ikusi nindun begiskoana. Ori, gu andiek (g)aresela ixin sen e. Ori Maria txikerra, Akesolon d'ama etorri sen da:

– Jesus! Selango txarrie daukosuen da, selango sera ta! A ixite san beti ganaduegas beti inbidiegas egote san e, ba, aurrekoana esta. Or ekin otzen seguru, te, gero txarri ori geixotu, bai atoan, egunen bat edo bi barru, txarri ori parau sen korkobaute moduen, tripan min daukon moduen eta sertute, da, ba, tia Maria or bisi sen da tia Mariari esan i otzien ba:

– Maria, estau aukingo begiskoana gure txarrie(kp(b)e)?

– Da, ser pasetan yako ba

egin eustan erremedioa seguru. Ze paratu ei nintzan, ba, triste eta mina daukadan moduan. Eta etorri zan urrean batenbat ikusten eta ba, edeeerra egon ei nintzan seguru, eta: "au da umearen ederra", eta zera eta, ba zertu eta, gero urrungo egunerako ya tristetuta paratu i nintzan eta, txarto seguru, jan be ez ezer, eta ezebez, eta, ene, eta, tia Maria etorri eta:

– Onek? Onek jaukana begizkoarena, oneri ume oneri egin jautsiena begizkoarena, eta neuk egingo jautsat erremedioa.

Eta egin eustan erremedioa, seguru, e ur beroa edo imini eta ara zera bota, plomo urtua edo, eta zeinbat punta urtetan deutzan, an jakiten ei eudien asko euki badau edo gitxi euki badau. Eta urten ei eustan punta asko, plomoa urtuta, urtu sartanean eta bota barreñura, urartera, eta an urtetan ei eudien txarren dagoenari puntarik geien, zorrotzak eta puntak. Eta neuri egin eustien ori. Eta axe eginda kendu egiten zan begizkoarena.

Baina, nik txarriari be egiten ikusi nendun begizkoarena. Ori, gu andiak garala izan zan e. Ori Maria txikerra, Akesoloren-eta ama etorri zan eta:

– Jesus! Zelango txarria daukazuen eta, zelango zera eta! A izaten zan beti ganadugaz beti inbidiaz egoten zan e, ba, aurrekoarena ezta. Or ekin eutsan seguru, eta, gero txarri ori gaixotu, baina atoan, egunen bat edo bi barru, txarri ori paratu zan korkobatuta moduan, tripan min daukan moduan eta zertuta, eta, ba, tia Maria or bizi zan eta tia Mariari esan ei eutsoen ba:

– Maria, ez dau eukiko begizkoarena gure txarriak be?

- T'auxe t'auxe
- A, ba, ingotzu por siakaso begiskoan erremedioa, se, espadauko estau urtengo puntarik, se espadauko ak, estau urtetan puntarik, a paretan da erredondo.

Eta in otzenean, ori nau akordetan nas, selango punta soooooorrotzak urtotzien barreñuen plomo urtuari. Beitisu, gero, esaten daurie papaokerie(k)t(d)iresela e, bitisu, eske, inkreible e, inkreiblea da e!

- Eta, zer pasetan jako ba
- Eta auxe eta auxe
- A, ba, egingo deusagu por siakaso begizkoaren erremedioa, ze, ez badauka ez dau urtengo puntarik, ze ez badauka ark(begizkoarena), ez dau urtetan puntarik, a paretan da erredondo.

Eta egin eutsoenean, ori neu akordetan naz, zelango punta zoooooorrotzak urten eutsien barreñuan plomo urtuari. Begitu egizu, gero, esaten daudie papaokeriak dirala e, begitu egizu, eske, inkreible e, inkreiblea da e!

78.7. Zaintiratua

Ni nauk e sarri ikusiot santigituena iten eta nau(k)p(b)e inde daukotzek e neure osaba Siprianori. Normalean, orkatillan, ankabitorra be esaten yako, ukondoan edo eskubitorean ite san erasoa t'antxe ite san santigituena.

Santigituena iteko gause bi in bea dire: lelengo, sanbedarrak susendu. Klase bi sanbedar daos, andraskoantzako eta gisioneskoantzako. Bedar batzuk u sabaltoa(k)t(d)ire eta beste batzuk e lusangak. Gero sanbedarriori aspiko santxuak ketzean yakies da origo epela bota, bigunbigun in arte. Gero orregas naste igurdialdi on bat emon erasoa in den lekuen da bolatxue topaurduen, sakatu. Baie, t'au de inportantea, oriten dosun bitartean onixe(k)p(b)erbok esan d'esan in beire: "santigitu san urrutu, sana bere lekuen sartu". Nik olan itot, baie batzuri e(s)tx(y)akiesan berbok aitu be iten, ain esataudiesan agopeti(k) edo agobarruti! Ba,

Nik neuk e sarri ikusi dot zaintiratuarena egiten eta neuk be eginda deukotsak e neure osaba Ziprianori. Normalean, orkatilan, ankabitorra be esaten jako, ukondoan edo eskubitorean egiten zan erasoa eta antxe egiten zan zaintiratuarena.

Zaintiratuarena egiteko gauza bi egin bear dira: leenengo, zainbedarrak zuzendu. Klase bi zainbedar dagoz, andrazkoantzako eta gizonezkoantzako. Bedar batzuk u zabaltoak dira eta beste batzuk e luzangak. Gero zainbedar orrei azpiko zaintxuak ketzean jakiez eta orio epela bota, bigunbigun egin arte. Gero orregaz naaste igurdialdi on bat emon erasoa egin dan lekuan eta bolatxua topatu orduan, sakatu. Baina, eta au da inportantea, ori egiten dozun bitartean oneixek berbok esan eta esan egin bear dira: "zaintiratu zain urratu, zaina bere lekuan sartu". Nik olan egiten dot, baina batzuei ez jakiezan berbok aitu be egi-

nik inotzen osaba Siprianori te, ukondoko bolea sakatu nauntzanean, grillistuke t'aienaka asi yatan, baie urrungo egunerako mejorie itzela. Ikustosu? Ondo urtosten da bio(k) posik.

Baten batzuk u es audien ondo ikusten ori santigituena ta, ba ixilean yoaten sirean iten ekienATEGANA. Eske, batzuk u treato apurtxu be(t)p(b)e itaudien orrikas agopeko berbokas gero e. Gaur? Gaur atoan medikuegana.

ten, ain esaten eudiezan aopetik edo aobarrutik! Ba, nik egin neutsan osaba Ziprianori eta, ukondoko bolea sakatu neutsanean, grillistuka eta aieneka asi jatan, baina urrenge egunerako mejoria itzela. Ikusten dozu? Ondo urten eustan eta biok pozik.

Baten batzuk u ez eudien ondo ikusten ori zaintiratuarena eta, ba isilean joaten zirean egiten ekienATEGANA. Eske, batzuk u teatro apurtxo bat be egiten eudien orreikaz aopeko berbokaz gero e. Gaur? Gaur atoan medikuagana.

78.8. San Juanetan, biluzik, kardulatzak surtera

San Juanetakoa? Gaure etze aurrean iten gaindusen San Juan sugarrok eta ganetiko erromeriek. Andie da, baie au pasau in yakun. Egie esangotzut. Ori, Mari Inasiaren nebea, Endrike, orrik aukien sololuse esaten yakona, kardulatzes beterik e, yosite. D'enterau sirean, seguru, kardulatzok kentezako erremedioa sera sala: San Juan suekas naste, gaubeko amabietan, atera kardulatz soloan da surtera bota bea sala, baia bilusik.

Da jentea, akordubari(k)t(d)-aoela, urtetan dau kortako ateti Endrikek, Jaugoikoak mundure ekarri auen moduen, bilus-bilusik eta, ene, emengo girigaie! Kardulatzok artzean egoan bitartean, ausoko batzuk galtzapullakas etxon otzien onantzean bilusik ogeto ikusteko. Ene ango barreak! Etorri sen Endrike ori te bota auen sustererik arako kardulatz txorta surtera d'arin ostandu kortan barriro yantziteko. Errementau es besteko barreak in gaindusen, aleko barreetza

San Juanetakoa? Geure etxe aurrean egiten genduzan San Juan sugarrok eta ganetiko erromeriak. Andia da, baina au pasatu egin jakun. Egie esango deutsut. Ori, Maria Ignaziaren nebea, Enrike, orreik eukien sololuze esaten jakona, kardulatzes beterik e, josita. Eta enteratu zirean, seguru, kardulatzok kentezako erremedioa zera zala: San Juan suekaz naaste, gaueko amabietan, atera kardulatz soloan eta surtera bota bear zala, baina biluzik.

Eta jentea, akordu barik dagoala, urtetan dau kortako atetik Enrikek, Jaugoikoak mundura ekarri euan moduan, biluz-biluzik eta, ene, emengo girigaia! Kardulatzok artzean egoan bitartean, auzoko batzuk galtzupoilakaz etxodon (itxaron) eutsien onantzean biluzik obeto ikusteko. Ene ango barreak! Etorri zan Enrike ori eta, bota euan zuztarrerik arako kardulatz txorta surtera eta arin ostendu kortan barriro jantziteko. Errementatu ez besteko barreak egin

Da, gero, an soloan kardulas gustiek galdu ez sirean egin ba! Baia danak e, danak, seguru. Eske inkreiblea isin sen. Da, Josek, aitek esatauen:

– Mekaguen die! Nauk e(s)tx(y)oa siñestan eser, eta, au siñestu in bear!

Bai, alantxe pasau sen. Jose erro-tariak esatauen, danak (g)aldu sirela kardulatzok, olangorik? Asiske, seoser badao.

genduzan, aaleko barreotsa. Eta, gero, an soloan kardulatz guztiak galdu ez zirean egin ba! Baina danak e, danak, seguru. Eske inkreiblea izan zan. Eta, Josek,- aitek esaten euan:-

– Me cago en diez! Neuk ez joat sinis-tan ezer, eta, au sinistu egin bear!

Bai, alantxe pasatu zan. Jose erro-tariak esaten euan, danak galdu zirala kardulatzok, olangorik? Asieske, zeozer badago.

78.9. Arto-ereitzako maldizioaren ondorioa

Udebarrien artoa ereiten da, ta oin kontaukotzut u beste istori bet. Su, au pasau in sen gero e, gauk ikusi gindun. Da, ori esta antigualeko gau-sea. Ara, ortxe soloan ibili sirean arto-ereiten Jose t'andrea ta ibili sire-an, soloa labrau, arpeldu, markadoga-ubideak in d'ereiten arto ori.

Eta Jose ori, segaiti agaiti, kabre-aute, oooosti utzean, maldisiño utzean.

Da, Marik (andreak) auki ausen iru edo lau artaburu bereinkitute Kandelario edo San Blasetan. Eta kostunbrea egoan a asi bereinkitue ganetiko artoari nastuteko d'alan dana bereinkitu. Bebisen ereiten, da Josek, ubide edo fila bi bakarrik erein ausen, ganetiko gustie Marik.

Ereitza bearrok akabaudiesan da ba ernaroari etxoten egosan faltatan barriri ereiteko.

Etorri sen artoa ernarora eta ene! Josek ereineko artagarau bat esan da bera be esan erne, d'ostera Marik ereinekoa dana erneta. Da Josek esatotzen:

– Etorri ona, orri(k)p(b)ota barik

Udabarrian artoa ereiten da, eta orain kontauko deusut u beste istoria bat. Zu, au pasatu egin zan gero e, geuk ikusi gendun. Eta, ori ez da antigualeko gauzea. Ara, ortxe soloan ibili zirean arto-ereiten Jose eta andrea, eta ibili zirean, soloa labratu, arpeldu, markadoga-ubideak egin eta ereiten arto ori.

Eta Jose ori, zergaitik argaitik, kabre-atuta, oooosti utsean, maldizino utsean.

Eta, Marik (andreak) euki euazan iru edo lau artaburu bedeinkatuta Kandelario edo San Blasetan. Eta kostunbrea egoan a azi bedeinkatua ganetiko artoari naastuteko eta alan dana bedeinkatu. Baebilzan ereiten, eta Josek, ubide edo fila bi bakarrik erein euazan, ganetiko guztia Marik.

Ereitza bearrok akabatu eudiezan eta ba ernaroari etxodoten (itxaroten) egozan fältetan barriri ereiteko.

Etorri zan artoa ernarora eta ene! Josek ereineko artagarau bat esan eta bera be ez zan erne, eta ostera Marik ereinekoa dana erneta. Eta Josek esaten eutsan:

– Etorri ona, orreik bota barik egongo

ongoire, asi barik, ikusi ingu lurpean bigitute.

- Oni(k)t(d)ire su(k)p(b)oteak. Bigitu, artagarue(k)p(b)ertan daos, da ba(t)p(b)e esta erne, juramentuke ibili sarealako. Erre in saindusen bai, erre asiok eta selan erne ba?

Su, eske, pentzetakoa isin sen a e? Aixek fila bie(k)p(b)akarrik parau sirean erne barik. Sera, garauo(k)p(b)otako modu moduen lotu, ori gauk ikusie e! Guk u gero, amaka barre iten gaindun baie berak es auen barrerik iten e! Bera (Jose) serio egote san. Se a isin sen gause bat, sera, un misterio!

dira, azi barik, ikusi egingo dogu lurpean begituta.

- Oneik dira zuk boteak. Begitu, artagarauak bertan dagoz, eta bat be ez da erne, juramentuka ibili zarealako. Erre egin zenduzan bai, erre aziok eta zelan erne ba?

Zu, eske, pentsetakoa izan zan a e? Areixek fila biak bakarrik paratu zirean erne barik. Zera, garauok botako modu-moduan lotu, ori geuk ikusia e! Guk u gero, amaika barre egiten gendun baina berak ez euan barrerik egiten e! Bera (Jose) serio egoten zan. Ze a izan zan gauza bat, zera, un misterio!

78.10. Sugeak esnea edan ganaduari Bertsutenen

Subeak (g)anadueri esnea edan? Baaaai; gaure aitek eta ikusite barres, ikusite. Baieri, seguru, beti errapea utzi(k) topau eta, ene! se Jesus!, txala soltau barik eta errapea utzitute, da, ba ser pasetan ete dan. Da: sorotzi in beakotzu, emen seoser pasetan da. Da sorotziten parau te, ganera baiekk orroa in. Da, gauberdi edo goxaldean, seguru, baiekk e: (m)uuuuu! Olango bat iten i auen. Da, badoas sorosten, da, subea, subetzarra sartu, ankan batu baieri, da, errotik i txa-txa-txa, ta baie geldi geeeeeeldi, d'e-daten subea, da suabe edan, da baie txalagas baño posago, se txalak (g)olpeak emototzos errapean.

D'andreari be edatotzienik? Ori bai, ori entzunde. Olango gausak amak kontaute dakides, bai, te, subeak umean kunan, bueno, kunea, lenao lastamarrea, d'an lo in be bai da gero amari titie edan. Gero oyak etorri sirean, lau ankakoak, eta oyakuxa

Sugeak ganaduari esnea edan? Baaaai; geure aitek eta ikusita barrez, ikusita. Beiari, seguru, beti errapea utsik topatu eta, ene! zer Jesus!, txaala soltatu barik eta errapea utsituta, eta, ba zer pasetan ete dan. Eta: sorotsi egin bearko deutzagu, emen zeozter pasetan da. Eta sorotsiten paratu eta, ganera beiakk orroa egin. Eta, gauerdi edo goizaldean, seguru, beiakk e: (m)uuuuu! Olango bat egiten ei euan. Eta, badoaz sorosten, eta, sugea, subetzarra sartu, ankan batu beiarri, eta, errotik i txa-txa-txa, eta beia geldi geeeeeeldi, eta edaten sugea, eta suabe edan, eta beia txaalagaz baino pozago, ze txaalak golpeak emoten deutzaz errapean.

Eta andreari be edaten eutsoenik? Ori bai, ori entzunda. Olango gauzak amak kontatuta dakidaz, bai, eta, sugeak umearen kunan, bueno, kunea, leenago lastamarrega, eta an lo egin be bai eta gero amari titia edan. Gero oek etorri

edo katrea(k)p(b)e bai.Ori amari entzunde daukotzet, bai, berari be baten batek kontaukoa e.

ziran, lau ankakoak, eta oekuxa edo katreak be bai.Ori amari entzunda daukotsat, bai, berari be baten batek kontatukoa e.

78.11. Inpernuko deabrua baino atso txarragoa

Ni nauk, gaure familien pasauko gausa bat esangotzut. Gure tia bat, aman aistea, Oroskon aukin gaindun, oin satorra esatotzie, oseake, lenaokori(k)tx(y)atorkie satorrana, ta ba oin lengusue(k)t(d)aukus an.

Bueno ba, an etxean pasau sen, auki audien, gure ixikoak auki auen, amaxea, suegre, infernuko deabrua baño txarragoa e, d'iminten ausen begi betzuk u beste munduko baten antzekoak.

Il sen da, sera, alabea aukin auen, ba txikerretan maiti yausi edo ta buruen golpea artu eta ixin auen berba be ondo in, d'erdi inosentea golperik ona.

Da, su, amori il, de, ba, enterrau te, urrungo egunetan e, iluntzea allegau te sera, asten i sen, alabori: ama-ama-ama-ama-ama ta uuuuu! gedarrotzean edo olango sarata bat.

Da, tia, andi egunen baten badoa seguru, te, ene! oia, bera (atsoa) egote san moduen edo yasean, tapak mogidute, t'armudea be olan mogidute.

Da, tia, sustau be in sen da: ona kuarture iñor esta sartu, oia inde imini gaindunik ona esta iñor sartu. Eta, ba urrungo egunean bardin, asten isen bestea (a golpedun alabea) barruntatu iten i auen a, da: ama-ama-ama...esaten i auen, da ba, bardin.

D'atzenean, ausoko usaba aukien alboan, da, siñesmena terriblekoa, Juan Anton, da, esan i otzen:

Ni neuk, geure familian pasatuko gauga bat esango deutsut. Gure tia bat, amaren aiztea, Orozkon euki gendun, orain satorra esaten deutsie, oseake, leenagokorik datorkie satorrarena, eta ba orain leengusuak daukaguz an.

Bueno ba, an etxean pasatu zan, euki eudien, gure izekoak euki euan, amaxea, suegre, infernuko deabrua baino txarragoa e, eta iminten euazan begi batzuk u beste munduko baten antzekoak.

Il zan eta, zera, alabea euki euan, ba txikerretan maatik jausi edo eta buruan golpea artu eta ezin euan berba be ondo egin, eta erdi inozentea golperik ona.

Eta, zu, ama ori il, eta, ba, enterratu eta, urrungo egunetan e, iluntzea allegatu eta, zera, asten ei zan, alaba ori: ama-ama-ama-ama-ama eta uuuuu! gedarrotsean edo olango zarata bat.

Eta, tia, andik egunen baten badoa seguru, eta, ene! oea, bera (atsoa) egoten zan moduan edo jasean, tapak mobiduta, eta armudea be olan mobiduta.

Eta, tia, sustatu be egin zan eta: ona kuartura inor ez da sartu, oea eginda imini gendunik ona ez da inor sartu. Eta, ba urrungo egunean bardin, asten ei zan bestea (a golpedun alabea) barruntatu egiten ei euan a, eta: ama-ama-ama... esaten ei euan, eta ba, bardin.

Eta atzenean, auzoko ugazaba aukien alboan, eta, sinismena terriblekoa,

su, emen se pasetan da ba? – ser pentzau estakiela alboko ori be.

Bakisu se in audien? Armudori imini ondo sobrekamorreras, d'in audien yooooosi, yosi. Gaubean, ene! parau sen oia yoskura gustiek arrankaute les eta atzoa ote san itxuran iminite.

Atzenean, Juan Antonek esan i otzen: orrek andratxu orrek amaka promesa, an mesea, or mesea esatauen seoser pasetan yakonean, da danak aukingo daus kunplidu barik.

Bueno, yoan sirean San Felisimora edo ainbatera d'esplikautzien se pasetan dan. Eta mesok atera ta, Oroskoko abadea be etorri, da, bedinkitu kuartu ori eta desaparekidu sen, antxe akabau sen dana.

Egie dan ori? Seoser ixingo san ori gusti ori iteko!

Juan Anton, eta, esan ei eutsan: zu, emen zer pasetan da ba? – ser pentsatu ez dakiala alboko ori be.

Badakizu zer egin eudien? Armuda ori imini ondo sobrekama orregaz, eta egin eudien jooooosi, josi. Gauean, ene! paratu zan oea jostura guztiak arrankatuta lez eta atzoa egoten zan itxuran iminita.

Atzenean, Juan Antonek esan ei eutsan: orrek andratxu orrek amaika promesa, an mezea, or mezea esaten euan zeoser pasetan jakonean, eta danak eukiko dauz kunplitu barik.

Bueno, joan zirean San Felizisimora edo ainbatera eta esplikatu eutsien zer pasetan dan. Eta mezk atera eta, Orozkoko abadea be etorri, eta, bedein-katu kuartu ori eta desaparekidu zan, antxe akabatu zan dana.

Egia dan ori? Zeoser izango zan ori guzti ori egiteko!

79.1. Mari, ikusi, Anbototik Supelegorrera harona

Mari Anbotokoa, askok esaten dau esteuriela ekosi, baie nik ekosi ot Supilaurdi Anbotora pasetan eta Anbototi Supilaurrera be bai.

Nos? Ori gabonsar gaubean etorten da Supilaurrera. Bakotxean iten daus saspi urte.

Emen (Aldekon) deku ekosite. Semeak, sarrenak esan austen ba, Yosebak, orrek esosten:

– Aite, gaur toketan yako Anbotoko Señoreari kanbietan, da, sertukosu, da ba sertuku, ekosiku masgaraue(k)tx(y)atorduen, urten ona balkoira, d'Anbototi ara Supilaurrera.

Mari Anbotokoa, askok esaten dau ez daudiela ikusi, baina nik ikusi dot Supelegorretik Anbotora pasetan eta Anbototik Supelegorrera be bai.

Noiz? Ori Gabonzar gauean etorten da Supelegorrera. Bakoitzean egiten dauz zazpi urte.

Emen (Aldekon) daukagu ikusita. Semeak, zaarrenak esan eustan ba, Josebak, orrek esan eustan:

– Aita, gaur toketan jako Anbotoko Señoreari kanbietan, eta, zertuko dozu, eta ba zertuko dogu, ikusiko dogu maasarauak jatorduan, urten ona balkoira, eta Anbototik ara Supelegorrera.

Eta itargie(k)p(b)añõ argi geao daroa pasetan danean. Saspi urte iten dauz Supilaurren eta saspi Anboton.

D'entzutia daukat, Anboton daonean kosetxea ohea isiten dala, emen baserrietan, bai, da, Supilaurren daonean eskasagoa.

Eta iretargiak baino argi geiao daroa pasetan danean. Zazpi urte egiten dauz Supelegorren eta zazpi Anboton.

Eta entzutea daukat, Anboton dagoanean kosetxea ohea izaten dala, emen baserrietan, bai, eta, Supelegorren dagoanean eskasagoa.

79.2. Mari Anbotokoak neb(e)a

Mari Anbotokoak familiri(k)-t(d)aukon? Ara, semerik eta alabarik es, nebea bai. Neba ba(t)p(b)auken, isena estait.

Neborrek, Mari elexara yoaten esales, ba, elexara yoatea gurauen, odaie ta berinkituten direan modun, Mari be berinkituteko. Se in auen? Ba in auen, seguru, beiek e ustertu, da gurdiegas, artu gurdie eta burkamean atzeko petoko suloti amarraute imini, ganadu errebeldea ferire eroate san modun.

Da yoan san serera, elexara. Ta, abadeagas oteko itxi auen e elespean burdien amarraute. Baie besteak (Marik) se in auen? Estai(t)p(b)a selan sertu, burdi ori soiltau selanbeist usteriti, te ba burdi te gusti urrean marxtaotzen Marik nebeari berinkitu barik. Or dabil arona garretan neguen Anbototi Supilarrera eta udebarrien Supilaurreti Anbotora.

Nos arte? Ba, suri orrek Amondarain pastore oroskoarrak esan oztzun modun, anega ba(t)k(g)arik garauten daukon beste urte.

Mari Anbotokoak familiarik daukan? Ara, semerik eta alabarik ez, nebea bai. Neba bat ba eukan, izena ez dakit.

Neba orrek, Mari eleizara joaten ez zan lez, ba, eleizara joatea gura euan, odeia-eta bedeinkatuten direan moduan, Mari be bedeinkatuteko. Zer egin euan? Ba egin euan, seguru, beiak e uztartu, eta gurdiagaz, artu gurdia eta burkamaren atzeko petoko zulotik amarratuta imini, ganadu errebeldea feriara eroaten zan moduan.

Eta joan zan zerera, eleizara. Eta, abadeagaz egoteko itxi euan e eleizpean burdian amarratuta. Baina besteak (Marik) zer egin euan? Ez dakit ba zelan zertu, burdi ori soltatu zelanbaist uztarritik, eta ba burdi eta guzti urrean marxtatu eutsan Marik nebeari bedeinkatu barik. Or dabil arona garretan neguan Anbototik Supelegorrera eta udabarrian Supelegorretik Anbotora.

Noiz arte? Ba, zuri orrek Amondarain pastore orozkoarrak esan eutsun moduan: anega bat garik garautan daukan beste urte.

79.3. Jentilak Untzetapikun

Yentilek esirean isin edosin modutekoak e, annnndiek i sirean

Jentilak ez zirean izan edozein modutakoak e, annnndiak ei zirean eta

d'okerrak. Esataudien anka bat imintaudiela emen Untzetapikun da bestea Artandan da Altzagako presan ure edataudiela.

Or Untzetapikuti bestaldera Jentilsulo dao d'or bisi i sirean, seguru. Da selango arri-bolak aukiesan! Biribil biribilek.

Orriri jentilori bildur andie isiten i otzien, mantzinek sirean da. Baie emeko jentea be surre, ta, ba, irusaku in bear sarriten jentilori eskapetako, ostaintxean akabo orrikas, seguru.

Gero ba, orrek Bertzuteneko Siprianok esan otzun moduen, argie agartu i sen Gorbaialdeti te galdu sirean betiko jentilok.

Ganera gero, emetik urrin barik, or Udiarran agartu sen Amabirjinea, Udiarrako Amabirjinea, oin Kallen dauko elexa ederra, da, ba abadeak eta esanda, orrik jentilok es i aukien podererik kristiñauen serakas. Agaiti esan dotzut lentxuago Mari Anbotokoan nebeak berinkituten eroan auela Mari arrabea elexara burdiko petoari amarraute, baie arpelik, elespetik eskapau in i otzen da. Bai, berinkasiñoak isiten sirean jentil d'olangoen kontrako erremedioa. Emen fama andie, San Felisisimok auki dau, makiña bat berinkasiño!, seinde, begiskoa kentzeako be San Felisisimora yoan, berinkitu te santo erremedio!

79.4. Sugeak ardi-esnea edan Arraban

Ori pasau sen Arraban. Pastore batek ardieri esnea atera orduin, da txabolara yoate sanean, kantinean esnea dauela, subiak urteteiotzen

okerrak. Esaten eudien anka bat iminten eudiela emen Untzetapikun eta bestea Artandan eta Altzagako presan ura edaten eudiela.

Or Untzetapikutik bestaldera Jentilzulo dago eta or bizi ei zirean, seguru. Eta zelango arri-bolak eukiezan! Biribil biribilak.

Orreiri jentiloi bildur andia izaten ei eutsien, mantzinak zirean eta. Baina emeko jentea be zuurra, eta, ba, iruzaku egin bear sarritan jentiloi eskapetako, osterantzean akabo orreikaz, seguru.

Gero ba, orrek Bertzuteneko Ziprianok esan eutsun moduan, argia agertu ei zan Gorbeialdetik eta galdu zirean betiko jentilok.

Ganera gero, emetik urrin barik, or Udiarran agertu zan Amabirjinea, Udiarrako Amabirjinea, orain Kallen (Miravallés-Ugaon) dauka eleiza ederra, eta, ba abadeak-eta esanda, orreik jentilok ez ei eukien podererik kristiñauen zerakaz. Agaitik esan deusut leentxuago Mari Anbotokoaren nebeak bedeinkatuten eroan euala Mari arrebea eleizara burdiko petoari amarratuta, baina alperrik, elezpetik eskapatu egin ei eutsan eta. Bai, berdeinkaziñoak izaten zirean jentil eta olangoen kontrako erremedioa. Emen fama andia, San Felisisimok euki dau, makina bat bedeinkaziño!, zeinda, begizkoa kentzeako be San Felisisimora joan, bedeinkatu eta santo erremedio!

Ori pasatu zan Arraban. Pastore batek ardiei esnea atera orduan, eta txabolara joaten zanean, kantinean esnea dauala, sugeak urtetan ei eutsan bidera,

bidera, da kantine itxi selaien da, dranga-dranga-dranga edaten i otzen kantinesnea sube orrek.

Da, ba, egun beten, yoan san a mutile, (pastorea), soldadu da denporea luse in yakon subeari, itxurea. D’etorri senean barres, soldadisketi, subeak urten in otzen bidera barriro.

D’orretara, Arraba ta Igrinaoko pastoreak alkartu i sirean da berak e: – Il in beaiuk ori sube ori, tragau, sespabere bate(k)p(b)ayakik!

D’il in audien subetzar ori buruburuen yota, d’an itxi audin tragaute saiek edo yateko.

eta kantina itxi zelaian eta, dranga-dran-ga-dranga edaten ei eutsan kantin-esnea sube orrek.

Eta, ba, egun baten, joan zan a mutila, (pastorea), soldadu eta denborea luze egin jakon sugeari, itxurea. Eta etorri zanean barrez, soldadiskatik sugeak urten egin eutsan bidera barriro.

Eta orretara, Arraba eta Egriñaoko pastoreak alkartu ei zirean eta berak e: – Il egin bear joaguk ori sube ori, traga-tu, ze ezpabere batek bajakik!

Eta il egin eudien subetzar ori buruburuan jota, eta an itxi eudien traga-tuta saiak edo jateko.

79.5. Lapurzulon idi-narru bete urregorri

Nik entzunde dauket e Gorbaien, Lapursulon, Lapursuloko kueban idinarru bete urregorri daoe-la gordeta, an estarien baten.

Lapursulo dao Austingarbindi aurrera yoanda, da len, txabolea ote san an, Lapursuloko landan ote san txabolea. Ba, antxe, i dao idinarru bete urregorri.

Nik entzunda daukat e Gorbeian, Lapurzulon, Lapursuloko kueban idinarru bete urregorri dagoala gordeta, an estariren (estalian) baten.

Lapurzulo dago Austegiarminetik aurrera joanda, eta leen, txabolea egoten zan an, Lapursuloko landan egoten zan txabolea. Ba, antxe, ei dao idinarru bete urregorri.

79.6. Anbotoko Señoreari maldizioa bota

Errotarien batek “mekaguen la señora de Anboto” esan in auela ta, ba, sertute, maldisiñoan bildurres sertute abadeagana yoan i sen. Abadeagana yoan i sen konfesetan da ba abadeak:

– Yoan in beakosu da parkeske eskatu iosu Anbotoko Señoreari, baie lesara barrure etzaitte sartu bera daoen lekuraño e, berak urten daie-la atakara. Da gero barrure basoas,

Errotariren batek “mekaguen la señora de Anboto” esan egin euala eta, ba, zertuta, maldizinoaren bildurrez zertuta abadeagana joan ei zan. Abadeagana joan ei zan konfesetan eta ba abadeak:

– Joan egin bearko dozu eta parkeske eskatu egiozu Anbotoko Señoreari, baina lezara barrura ez zaitetz sartu bera dagoan lekuraño e, berak urten dagiala atakara. Eta gero barrura bazo-

barruti es eisu urten berari eperdie emonda e. Aurrez sartu te, atzes urten, espabere beragas parauko sara, bera daoen baño barrurago.

az, barrutik ez egizu urten berari eperdia emonda e. Aurrez sartu eta, atzes urten, ezpabere beragas paratuko zara, bera dagoan baino barrurago.

79.7. Arimak agertu zorrak kitutu arte

Arimak agartu? Baiii. Ori de, igual a persona bate(k)p(b)a, dirue gorde eslekuen baten da inñori esan es, d' eser esan barik il, d'arik eta non gorde dauen yakin arte familikoan batek, agartu gaubetan.

Da gero dauket entzunde, gaixorik on da promesa in: "osatuten banok o yoango nok, esaterako Urkiolara, da mesa bat sertu, agindu, d'aginduko mesori atera barik edo, serean, il, de gero ba seguru, purgatorioti arimeak a sera, denpora asko bea dauela ta ba, agartu iten i sirean arimak ia baten batek sor ori kitutu te purgatorioti urtetan audien seruen sartzeako.

Gero, sorra kitutu orduen, eskue emotaudien baie norbera(k)p(b)eti eskue seosegas batute emon bear, se erremarkak itxite audiesan, arimak sirean da.

Arimak agertu? Baiii. Ori da, igual a pertsona batek ba, dirua gorde ezleku- ren baten eta inori esan ez, eta ezer esan barik il, eta arik eta non gorde dauan yakin arte familiakoren batek, agertu gauetan.

Eta gero daukat entzunda, gaixorik egon eta promesa egin: "osatuten banok o joango nok, esaterako Urkiolara, eta meza bat zertu, agindu, eta aginduko meza ori atera barik edo, zerean, il, eta gero ba seguru, purgatoriotik arimeak a zera, denpora asko bear dauala eta ba, agertu egiten ei zirean arimak ia baten batek zor ori kitutu eta purgatoriotik urtetan eudien zeruen sartzeako.

Gero, zorra kitutu orduan, eskua emoten eudien baina norberak beti eskua zeozergaz batuta emon bear, ze erre-markak itxiten eudiezan, arimak zirean eta.

80.1. Untzetapikuko harri-bolak

Ser dakidan Untzetapikuko arri-bolan ganean? Ba, nik i, orrik, orrik i, isin nintzen delegado de forestalistas, emen Oroskon, da gero joan gintzen pista batzuk ekosten, sera, Untzetapiko, Leseaga, orti, pista batzuk ekosten, orrik ur(i)olak otxentaitresean eta, ta, pista gustik i endredau in sien da, da nik ekosten

Zer dakidan Untzetapikuko arri-bolan ganean? Ba, nik i, orreik, orreik i, izan nintzan delegado de forestalistas, emen Orozkon, eta gero joan gintzan (gintzazan) pista batzuk ikusten, zera, Untzetapiko, Lezeaga, ortik, pista batzuk ikusten, orreik ur(i)olak otxentaitresean eta, eta, pista guztiak i endredatu egin ziran eta, eta nik ikusten eta, eta ikusi

da, d'ekosi nindun olan arri biribil-biribil bat. Koño! orrik arri(e)k setako isingo dire? Orrik arriok isingoi-res goiko sera, Untzetapikukoak. D'asi nintzen ekosten da, koño! arri-taos! Da gero, beste lagun betegas berba inindun, Lárrondogas, d'ori kanteran ibili sen bearren da:

– Ekosi odas an arri betzuk eta joan beadu ekosten.

Orrek auki auen lanroberra, da, domeketan joan gintzen arri topetan, da gero joate nintzen trokati e. Ekosten nendun igual olan, arri puntatxu bet, koño! emen dao beste bat. Da, eroan nindun palanka batzuk u burriñaskoak, d'atera andik, eta koño! emen dao beste bat, d'emen dao beste bat, d'olan, topau neindun berrogeta lau arribola. Da in gendun erdibana, or Moises eta biok, eta Julia be joate san, da sarri askotan ba, arrie ateretako txarto yegoan e, da sakuin sartu arrie, d'artu lepoan, da, atera autoa daoen lekure.

Orrik arriok sertarako? Ba, orrik arriok isin sirean ba kastillue defenditako, mil sesentakoa, oin jakin du ori. Or, gause bik iten siren sarri askotan.

Or arriek ote sirean kastilloan bertan, da, enemigoa etorri orduin, orri(k)p(b)otaten yuen arrie, da beste batzuetan, katapultasagas. Katapultasak amabi tonelada bakotxak e, orrikas katapultasakas arrie botaten yuen e lareun metro, da, lareun metro, da kastilloa jo ta jo, jo ta jo, jo, arrie t'arrie, t'arrie ... apurtuten yuen. Orrik arrio(k)t(d)aukie 28 kilo ta 44 kilo.

Jentilsulo dao or bean. Jentilsulon, diñue, leyenda(k)t(d)aos, jen-

nendun(neuan) olan arri biribil-biribil bat. Koño! orreik arriak zertarako izango dira? Orreik arriok izango dira goiko zera, Untzetapikukoak. Eta asi nintzan ikusten eta, koño! arriak dagoz! Eta gero, beste lagun bategaz berba egin nendun (neuan), Lárrondogaz, eta ori kanteran ibili zan bearren eta:

– lkusi dodaz an arri batzuk eta joan bear dogu ikusten.

Orrek euki euan lanroberra (Range Rover), eta, domeketan joan gintzan (gintzazan) arri topetan, eta gero joaten nintzan trokatik e. Ikusten nendun (neuan) igual olan, arri puntatxu bat, koño! emen dago beste bat. Eta, eroan nendun (neuzan) palanka batzuk u burriñazkoak, eta atera andik, eta koño! emen dago beste bat, eta emen dago beste bat, eta olan, topatu nendun (neuzan) berrogeta lau arri-bola. Eta egin gendun erdibana, or Moises eta biok, eta Julia (emaztea) be joaten zan, eta sarri askotan ba, arria aterateko txarto jegoan e, eta zakuan sartu arria, eta artu lepoan, eta, atera autoa dagoan lekura.

Orreik arriok zertarako? Ba, orreik arriok izan zirean ba kastilloa defendituteko, mil sesentakoa, orain jakin dogu ori. Or, gauza biak egiten ziran sarri askotan.

Or arriak egoten zirean kastilloan bertan, eta, enemigoa etorri orduan, orreik botaten juen arria, eta beste batzuetan, katapultasagaz. Katapultasak amabi tonelada bakotxak e, orreikaz katapultasakaz arria botaten juen e lareun metro, eta, lareun metro, eta kastilloa jo eta jo, jo eta jo, jo, arria eta arria, eta arria ... apurtuten juen. Orreik arriok daukie 28 kilo eta 44 kilo.

Jentilsulo dago or beean. Jentilsulon, dinoe, leyendak dagoz, jentilak, orreik

tilek, orrik arrik, Untzetapikotik Santa Marinara botaten yuen, baie, ori esin lei bota e, esakerea, esakerea bai.

arriak, Untzetapikotik Santa Marinara botaten juen(juezan), baina, ori ezin lei bota e, esakerea, esakerea bai.

80.2. Jentilzuloko jentilak neskatoa bahitu

Esakerea da, ba, emen Oroskon, ori, egon san neskato bat Ierro familia-likoa, Ierro Olabarriandikoa. Da, segun diñue, joan san ardiek e topetan, da ba, Jentilsulon, jentilek, orrik sekuestrau in sauren ori neske ori.

De, gero, an egon san da joan sirean gero, sera, anaiak, topetan, arrabea topetan. Arrabea isin topau t'isin topau, da, non egongo da? non egongo da? Ba emen egon bea dau. Da joan siren barra edo palanka bategas, burriñasko barra bategas, da, atea, jentileskoa (sic)apurtu, da neskatoa librau in yuen.

Da gero, orreri imini otzin isena: Ierro Palankos Olabarria

Esakerea da, ba, emen Orozkon, ori, egon zan neskato bat (H)lerro familia-koa, (H)lerro Olabarriandikoa. Eta, segun dinoe, joan zan ardiak e topetan, eta ba, Jentilzulon, jentilak, orreik sekuestratu egin zeuden ori neska ori.

Eta, gero, an egon zan eta joan zirean gero, zera, anaiak, topetan, arrebea topetan. Arrebea ezin topatu eta ezin topatu, eta, non egongo da? non egongo da? Ba emen egon bear dau. Eta joan ziren barra edo palanka bategaz, burri- nazko barra bategaz, eta, atea, jentilez-koa (sic) apurtu, eta neskatoa libratu egin juen.

Eta gero, orreri imini eutsoen izena: (H)lerro Palankos Olabarria.

80.3. Jentilzulora Maiortuko parterea

Emen dao leienda bat, ori, Maiortuko, sera, gure parientekoa, ori isin sen komadrone edo partera emengo ingurukoa, ofisial(a) barik, on san.

Da, segun, etorri sian jentilek, jentil bet etorri sen, gaubes orra, partereagana ta:

- Su, andratxue, Jentilsulon andrea dago estadin da etorri in beosu laguntan.
- Ba, nik esin dot, - estau joan gure- da,

Emen dago leyenda bat, ori, Maiortuko, zera, gure parientekoa (sic), ori izan zan komadrone edo partera emengo ingurukoa, ofisial(a) barik, egon zan.

Eta, segun, etorri ziran jentilak, jentil bat etorri zan, gauzez orra, partereagana eta:

- Zu, andratxua, Jentilzulon andrea dago estadian eta etorri egin bear dozu laguntan.
- Ba, nik ezin dot, - ez dau joan gura- eta,

– Etorri bisu, etorri bisu. D’andra-
txue nik i gaubes koxukotzut eta
gaubes ekarrikotzut.

– A bai?

– Emongotzut seoser.

Da, konkistau in auen da, etorri
sen beste egun beten, da, joan san ara
(Jentilsulora) ba partu(e) iten, da
laguntzan. D’ondo urten yoan.

Da gero, aterotzien seguru, ogi
suri-suri-surie, jentilek an afaltako.
Da, segun, orrek andratxuek, kuxu
an ogi satitxu bet eta sartu yoan
gonapean etzera eroateko, ogie.

Da gero, ori ogi(e)gas joan san
urteiten baia atea esan sabalduten,
atea esan sabaldu, da:

– Oño! esta sabalduten atea?

– Andratxue, suk estosu seoser kuxu
emen?

– Esta isingo au ogi satitxue?

– Ba, ori, ori de, d’esta atea sabaldu-
ten, d’emongotzut ogi oso bat.

D’emon otzen ogi oso bat, suri
surie eta tapabokea, onan tokillea
moduin edo sedasko sobrekamean
modukoa, fleko gorriekas, kolorea-
kas, da gero atea sabaldu sen.

Da gero, ori tababokori egon
san gure etzean, nik esautu nindun
ori e, emen txikerretan, da gero apur-
tu in sen. B’orixe, ogi suri surie eta
tabakokea emon otzein.

Au, oin 300 urteko gausea da
gitxienes, da parterea isin sen Juana
Ibarra, Maiortukoa.

Jentilsulon andrak? Jentilek e,
gisioneskoak et’andraskoak egosan,
jentilkuma(k)p(b)ere bai, agaiti eska-
tudin parterea jentilkumea jaioten
laguntako. D’ondo urten yoan.

– Etorri bear dozu, etorri bear dozu. Eta
andratxua nik i gaeuz kogiduko deu-
tsut eta gaeuz ekarriko deutsut.

– A bai?

– Emongo deutsut zeozer.

Eta, konkistatu egin euan eta, etorri
zan beste egun baten, eta, joan zan ara
(Jentilzulora) ba partua egiten, eta
laguntzan. Eta ondo urten joan.

Eta gero, atera eutsoen seguru, ogi
zuri-zuri-zuria, jentilak an afaltako. Eta,
segun, orrek andratxuak, kogidu an ogi
zatitxu bat eta sartu joan gonapean
etxera eroateko, ogia.

Eta gero, ori ogiagaz joan zan urten
egiten, baina atea ez zan zabaldu-
ten, eta ez zan zabaldu, eta:

– Oño! ez da zabaldu-ten atea?

– Andratxua, zuk ez dozu zeozer kogidu
emen?

– Ez da izango au ogi zatitxua?

– Ba, ori, ori da, eta ez da atea zabaldu-
ten, eta emongo deutsut ogi oso bat.

Eta emon eutsoen ogi oso bat, zuri
zuria eta tapabokea, onan tokillea
moduan edo zetazko sobrekamearen
modukoa, fleko gorriekaz, koloreakaz,
eta gero atea zabaldu zan.

Eta gero, ori tapaboka ori egon zan
gure etxean, nik ezagutu nendun
(neuan) ori e, emen txikerretan, eta gero
apurtu egin zan. Ba orixe, ogi zuri zuria
eta tapakokea emon eutsoen.

Au, orain 300 urteko gauzea da gi-
txienez, eta parterea izan zan Juana
Ibarra, Maiortukoa.

Jentilzulon andrak? Jentilak e, gizo-
nezkoak eta andrazkoak egozan, jentilku-
mak bere bai, agaitik eskatu eudien par-
terea jentilkumea jaioten laguntako. Eta
ondo urten joan.

80.4. Anbotoko Andrea Anbototik Gorbeiarara haronakoan

Anbotoko andrea edo señorea-na? Bai, entzutea bai. Ori, serak, Isabel Larrak kontetan yoan esta.

(OHARRA: orain Pablo Azkoagaren emaztea, Julia Barberena Irigoyen sartzen da Anbotoko Andrearena kontatzen)

Orik, Zeberion bizi zin eta gantziren Isabel Larra-ta, ni neskato nintzen, elkarrekin egon ginen eta ona, ona, bein ari omentziren iratzea batzen eta asi baitziren kargatzen, bai, urratzen zen. Asitzien berriz eta urratu, t'asi, t'asi. D'azkenean, pixkat intxe zitulaik, ya, iluna omentzen, eta ikusi omentzuten sugarra pastentzela, Anbototik orra Gorbeialdera, urrian, eta orduan itzuli omentzizuten idiak etxera, lasterka, izituan eta orduan gantziren etxera ta:

– Zer zaude emetik?

– Pues, olako su bat, sugarra - ikusi omentzuten-, eta gero sugarrak

– Jesus! Orrek izitu zaizte? Ori Anbotoko Andrea da, leku bateti bertzera pasten dena

Au pasatu zen Zeberion, Gorrotxategi familian

Anbotoko Andrea edo Señorea-rena? Bai, entzutea bai. Ori, zerak, Isabel Larrak kontetan joan ezta.

(OHARRA: orain Pablo Azkoagaren emaztea, Julia Barberena Irigoyen (Zugarramurdikoa. Ikus fitxa) sartzen da Anbotoko Andrearena kontatzen)

Orik, Zeberion bizi ziren eta joan ziren Isabel Larra-eta, ni neskato nintzen, elkarrekin egon ginen eta ona, ona, bein ari omen ziren iratzea batzen eta asi baitziren kargatzen, bai, urratzen zen. Asi ziren berriz eta urratu, eta asi, eta asi. Eta azkenean, pizka bat eginta zitularik, ya, iluna omen zen, eta ikusi omen zuten sugarra pasten (pasatzen) zela, Anbototik orra Gorbeialdera, urrian, eta orduan itzuli omen zituzten idiak etxera, lasterka, izutuan eta orduan joan ziren etxera eta:

– Zer zaude emetik?

– Pues, olako su bat, sugarra - ikusi omen zuten-, eta gero sugarrak

– Jesus! Oriek izutu zaituzte? Ori Anbotoko Andrea da, leku batetik bertzera pasten (pasatzen) dena

Au pasatu zen Zeberion, Gorrotxategi familian

80.5. Jentilak Laudion baserritarren egunean

Jentilek ia nos galdu sirean? Es, estakit, beres galduko sirean, oin estau ia iño(k)p(b)ere sinisten olango kontuitan. Len bai, len asko entzutesan, gure aurrekoan denporan. Ai bere, etzan gaurko moduko denporea.

(OHARRA: orain Pablo Azkoagaren emaztea, Julia Barberena

Jentilak ia noz galdu zirean? Ez, ez dakit, berez galduko zirean, orain ez dau ia inok bere sinis(tu)ten olango kontuetan. Leen bai, leen asko entzuten zan, gure aurrekoen denporan. A bere, ez zan gaurko moduko denporea.

(OHARRA: orain Pablo Azkoagaren emaztea, Julia Barberena Irigoyen

Irigoyen sartzen da jentilen pasadizua kontatzen)

Estakit e bana, nik yentilek Laudion ezautu izantut, euskal arraza galtzen ai da, baina Laudion, ni arritute gelditu nitzen, oain 25 edo 30 urte edo ola, baserritarren egunean, emazteki bat eta anaia, bakizu jigan-teak nola mugitzen diren, (hemen Julia zutundu egiten da eta ikusi zituen “Jentilon” mugimentuak egiten ditu, imitatu egiten ditu) olako, bai, andiak ziren, benetan yende bitxiak ziren eta, niok eztu kasu in, baina olako mugimendu batzuek, ezteki, pausaki, t’ala itentzien, b’oien mugimentuek ola zien. Anai-arrebak Laudion. Ori nik ikusi dut, eta niork eztu argazkirik ata jendeak ikusteko. Euskal arraza galtzen doa.

(Zugarramurdikoa. Ikusi fitxa) sartzen da jentilen pasadizua kontatzen)

Ez dakit e baina, nik jentilak Laudion ezagutu izan ditut, euskal arraza galtzen ari da, baina Laudion, ni arrituta gelditu nintzen, orain 25 edo 30 urte edo ola, baserritarren egunean, emazteki bat eta anaia, badakizu, jiganteak nola mugitzen diren, (hemen Julia zutundu egiten da eta ikusi zituen “ Jentilon” mugimentuak egiten ditu, imitatu egiten ditu) olako, bai, andiak ziren, benetan jende bitxiak ziren eta, niork (inork) ez du kasu egin, baina olako mugimendu batzuek, ezteki, pausaki, eta ala egiten zien (zituzten), ba oien mugimentuak ola ziren. Anai-arrebak Laudion. Ori nik ikusi dut, eta niork ez du argazkirik atera jendeak ikusteko. Euskal arraza galtzen doa.

81.1. Itzinako bizimodu gogorrean mito-esaundarik ez

Eeeene! nik i Anbotoko Señorean entzutea bai baie geao es. Ai bere ibiliko san garretan baie nik estot ekosi. Jentile(k)p(b)ere entzun bai or Jentilsulon da, baie es. Lamiñena bere entzutea or erreketan ote siala.

Sera bai, lenao esataudin odaie datorrenean sano, ba abadeak a bedinkitu eskero, paretan dau(e)la odaie.

Baie guk u, gure abuelo, aitek eta nik bisimodu gogorra eukin du Itxinen. Ni 14 urtegas, 14 urterik (g)ea nago pastore Itxinean. Txabolea bere, selango alangoa. Lo iteko bere soruen abarrak. Orma(k)-p(b)ere suloakas eta bitartean sapoak ekosten gaindusen nos deskuidauko gastaia jateko, bai, sapoak a begire begire aukiten gendusen, da gastaia(k)p(b)ere txabolearen goiko

Eeeene! nik i Anbotoko Señorearen entzutea bai baina geiago ez. A bere ibiliko zan garretan baina nik ez dot ikusi. Jentilak bere, entzun bai or Jentilsulon eta, baina ez. Laminena bere entzutea or erreketan egoten zirala.

Zera bai, leenago esaten eudien odeia datorrenean sano, ba abadeak a bedeinkatu ezkerro, paretan daudela odeia.

Baina guk u, gure abuelo, aitik eta nik bizimodu gogorra euki dogu Itzinan. Ni 14 urtegas, 14 urterik geiago nago pastore Itzinan. Txabolea bere, zelango alangoa. Lo egiteko bere zoruan abarrak. Ormak bere zuloakaz eta bitartean sapoak ikusten genduzan noz deskuidauko gastaia jateko, bai, sapoak a begira-begira eukiten genduzan, eta gastaiaik

saietzetati eskegite auki bear, aidan, espabere jan.

Da, ba gaube(k)p(b)ere luseak eta bildurre! Ni lelenngotan ara Itxineko beste pastore baten txabolara joate nintzen lo iten, bildurregaiti. An Supelior ondoan ikereak emoten aun olan e odaieta isin eskero. Da gero, ba, saiek eta orrik txorio(k)p(b)ere ikerea emotaudin, saiek esese, arrañoak, serak, agilek eta ganetiko pisti gustik.

Bai, bisimodu gogorra. Mesara bere, Iberreko Samartolomeko elexarraño etorten sien gure ab(u)elo ta, gu bere bai. Gero Igrriñaoko ermitan asi sirean mesa domeketan emoten, orrik i fraileak.

Gero ba, berrogetaka luse urteak nituela, Austigarbin-eko landan egin gaindun txabola barrie d'an gaos aspaldiokas.

Oin i, estao lengorik. Oin i, argia dauku, plakakas iminite, argi te telebisiñoa ekosteko bere bai. Neberea bere badauku, butanogas, bonbona erosten du eta ilebete inguru aguantetan dosku. Oin ondo, bueno, lengorik e. Oin e, telefonoa, lanronberra, dana dauku, baie estai(t)p(b)a, beste bat eta neu gara Orosko parteko askenengo pastoreak e, an bestaldean, Arraba t'Igrriñaio partean Enrike dan modun. Emen. Urigoitiko Jose Mari, Bixinti te nau gara atzenak, ia gastean bat animatuten dan. Baie, gaur be, adelantu gustikas, pastore bisimodue gogorra da, ekosteko bai polite!

bere txabolearen goiko saietsetatik eskegita euki bear, aidan, ezpabere jan.

Eta, ba gauak bere luzeak eta bildurra! Ni leenngotan, ara, Itzinako beste pastore baten txabolara joaten nintzan lo egiten, bildurregaitik. An Supelegor ondoan ikereak emoten euan olan e odeia-eta izan ezkerro. Eta gero, ba, saiak eta orreik txoriok bere ikerea emoten eudien, saiak ezeze, arrañoak, zerak, agilak, eta ganetiko pizti guztiak.

Bai, bizimodu gogorra. Mezara bere, Ibarrako San Bartolomeko eleizaraino etorten ziran gure abuelo-eta, gu bere bai. Gero Egiriñaoko ermitan asi zirean mezea domeketan emoten, orreik i fraileak.

Gero ba, berrogetaka luze urteak nituela, Austegiarmin-eko landan egin gendun txabola barria eta an gagoz aspaldiokaz.

Orain i, ez dago leengorik. Orain i, argia daukagu, plakakaz iminita, argi eta telebisinoia ikusteko bere bai. Neberea bere badaukagu, butanoagaz, bonbona erosten dogu eta ilabete inguru aguantetan deusku. Orain ondo, bueno, leengorik e. Orain e, telefonoa, lanronberra, dana daukagu, baina ez dakit ba, beste bat eta neu gara Orozko parteko askenengo pastoreak e, an bestaldean, Arraba eta Egiriñaio partean Enrike dan moduan. Emen. Urigoitiko Jose Mari, Bizente eta neu gara atzenak, ia gazteren bat animatuten dan. Baina, gaur be, adelantu guztiokaz, pastore-bizimodua gogorra da, ikusteko bai polita!

81.2. Sugeak esnea edan behiari eta txerriak ardiari

Ori bai, ori entzunde dauket neu(k)p(b)ere. Beieri, geureari eda-

Ori bai, ori entzunda daukat neuk bere. Beiari, geureari edaten eutsan

totzen emen kortan, bai, da konturetu, ba, esnerik estaukelako beiek.

Subia ekosi in aun gure aitek, kortara joanda, da subia(k) mantzomantzo esnea edan beieri, sereti, ankati gora igonda, taka! erroa suabe-suabe sartu txalan modun agoa ta raka-raka, subiak, eta beiek se ete dauken da se ete dauken da, beie esne barik, esne barik eta subiak. Se orrik irusten duis sapoak eta bitxoak osorik orrik e! mekaguen, subiak!

Da gero, subia ekosi audin da ba tragauden d'ondatu sen, sertu sen sube ori da gero bauken esnea, len letxe.

Da, sera(k)p(b)ere, txarrie(k)p(b)ere edatotoz ardiari esnia e, bai, ardiari esnia e. Txarrie ardiekana susin joaten da, bai, ori nau(k)p(b)ere serturi(k)t(d)auket, ekosite.

emen kortan, bai, eta konturatu, ba, esnerik ez daukalako beiak.

Sugea ikusi egin euan gure aitak, kortara joanda, eta sugeak mantzomantzo esnea edan beieri, zeretik, ankatik gora igonda, taka! erroa suabe-suabe sartu txaalaren moduan aoa eta, raka-raka, sugeak, eta beiak zer ete daukan eta zer ete daukan eta, beia esne barik, esne barik eta sugeak. Ze orreik iruntsiten daudez sapoak eta bitxoak osorik orreik e! mekaguen, sugeak!

Eta gero, sugea ikusi eudien eta ba tragatu euden eta ondatu zen, zertu zen sube ori eta gero baeukan esnea, len letxe.

Eta, zerak bere, txarriak bere edaten deutso ardiari esnea e, bai, ardiari esnea e. Txarria ardiekana zuzian joaten da, bai, ori neuk bere zerturik daukat, ikusita.

81.3. Lapurzulo inguruko arrañoak, saiak eta belak

Itxinean, ku(e)bak eta lesak eseso daos. Or daos Lapursulo, Oloseta, Otzakobeta (otzoak ongo sirean edo) eta lesa asko ta sakonak e. Andiena Supilaur.

Da, ba, Itxinean, ardiekas ibiltaro baragarrie dao, atx asko, asdue diñosu? ba bai orixe. Da, ba, sarriten ganadue mankau ite san d'orduen orri(k) txori nagusiok o aprobetxetandin ganadue jateko. Ardien bat on eskero olan, ba, lelengo belak agartan dire, da begiek atera da gero saiak.

Bela(k)t(d)jire, serak, abadeak. Belak botaten daure bedinkasiñoa da gero datos saiak okelea jaten. Onik arrañoak, or dao Arraño-Atxa, ba, asuriek eroaten daudis erpakas goa-

Itzinean, kuebak eta lezak exzesoa dagoz. Or dagoz Lapurzulo, Oloseta, Otzakobeta (otzoak egongo zirean edo) eta leza asko eta sakonak e. Andiena Supelegor.

Eta, ba, Itzinean, ardiekaz ibiltaro baragarria dago, aitz asko, azduia dinozu? ba bai orixe. Eta, ba, sarritan ganadua mankatu egiten zan eta orduan orreik txori nagusiok o aprobetxetan eudien ganadua jateko. Ardiren bat egon ezkerolan, ba, leenengo belak agartan dira, eta begiak atera eta gero saiak. Belak dira, zerak, abadeak. Belak botaten daude bedekazinoa eta gero datoz saiak okelea jaten. Oneik arrañoak, or dago Arraño-Atxa, ba, azuriak eroaten daudez

tute, onango erpa(k)t(d)aukies, mortalak, da kuxu asurie ta gora goraka altzetan daure da gero guiti biera bota ta jan. D'orregaiti dauko Arraño-Atxa isena a(k)p(b)ere.

Da, saiek, ardie bakarrik es, bigantxa ba(t)p(b)ere bardin e, olan e koxo edo barruntau eskero, bela(k)p(b)egiek aterorduin, batos saiok eta rau-rau-rau jan , d'atoan e!

Da, ganaduen batek txala in da umetokiek eta gabriskine(k)p(b)otaten ditunean be, saiek susien joaten dire jaten, d'erretirau esik txal jaioparrie bere jan igual.

Saiekas kontus ibili bea da, batesbe, troka baten daosenean. Trokatan da, saiek esin dau egas in egoak lurre joten dotzielako, da baten bat arrimau eskero, kontus, orrin pikukasuegas, se barruraño sartzeotzui.

81.4. Orientazio bideak eta animaliak

Itxina guk u ondo esaututen dogu eta ango bidea(k)p(b)ere ondo dakius, ainbeste urtean bakisu.

Egun onakas estao porlemarik. Kasureko, or Itxinean Urigoti partearantza atzo-agure(k)t(d)aos, atxak dira, as bi, bata andiagoa, agurea, eta bestea, txikiagoa, atzoa. Da, erloju barik ibili arren bere, egoskiek atzo-agureak joten dausenean egurdiko ordu bata(k)t(d)ire. Olan jakiten gaindun baskaitordue, gaur bere bai naite erlojue aldean eroan.

Gero, orintasiñorako, guk u atxak eta senda gustiek esaututen dus, da lañaberea on arren eskara galtzean. Gaur, onik, montañeruek

erpakaz goratuta, onango erpak daukiez, mortalak, eta kogidu azuria eta gora goraka altzetan daude eta gero goitik beera bota eta jan. Eta orregaitik dauka Arraño-Atxa izena ak bere.

Eta, saiak, ardia bakarrik ez, bigantxa bat bere bardin e, olan e koxo edo barruntatu ezker, belak begiak atera orduan, badatuz saiok eta rau-rau-rau jan , eta atoan e!

Eta, ganaduren batek txala egin eta umetokiak eta garbizkinak botaten ditunean be, saiak zuzian joaten dira jaten, eta erretiratu ezik txal jaiobarria bere jan igual.

Saiekaz kontuz ibili bear da, batezbe, troka baten dagozanean. Troketan eta, saiak ezin dau egaz egin egoak lurra joten deutsielako, eta bateren bat arri-matu ezker, kontuz, orrein pikukazuegaz, ze barruraino sartzen deutsue.

Itzina guk u ondo ezagututen dogu eta ango bideak bere ondo dakiguz, ainbeste urtean badakizu.

Egun onakaz ez dago problemarik. Kasurako, or Itzinaan Urigoiti parterantza atso-agureak dagoz, aitzak dira, aitz bi, bata andiagoa, agurea, eta bestea, txikiagoa, atsoa. Eta, erloju barik ibili arren bere, eguzkiak atso-agureak joten dauzanean egurdiko ordu batak dira. Olan jakiten gendun bazkaitordua, gaur bere bai naita erlojua aldean eroan.

Gero, orientazinorako, guk u aitzak eta senda guztiak ezagututen doguz, eta lainaberea egon arren ez gara galtzean. Gaur, oneik, montaineruak arripiloak

arripilloak inde edo pintura markak iminite daukies, baie guk u, gaure modure iten du.

Da, ostera, galdu esiteko, kaballerie da onena, bates bere astoa. Astoa, lañaberarik andienagas bere es da galtzean, astoak a txabolarantzakoa sein etzerantzako bidea beti topaukotzu. Astoa aurreti bota ta suk atzeti segidu, d'ai esta galduko.

Lengunean, montañeru bet ekosi ot eskuetan aparatu bategas nondi joan bea dau(e)n jakiteko, sera, jepesea edo dala esausten.

Eta, apuro baten (e)on eskero, olango eslekuin baten edo, santzoa(k)p(b)ere botaten gendusen non gaosen abixetako. Onik i atxineko kontuek, ai bere bisimodu gogorra san gero e. Oin ogeto gaos baie ata gusti bere, geu isingo gara seguramente Itxina parteko atzenengo pastoreak.

eginda edo pintura markak iminita daukiez, baina guk u, geure modura egiten dogu.

Eta, ostera, galdu ez egiteko, kaballeria da onena, batez bere astoa. Astoa, lainabeerarik andienagas bere ez da galtzean, astoak a txabolarantzakoa zein etxerantzako bidea beti topatuko deutsu. Astoa aurretik bota eta zuk atzetik segidu, eta a ez da galduko.

Leengo egunean, montaineru bat ikusi dot eskuetan aparatu bategaz nondik joan bear dauan jakiteko, zera, gps-a edo dala esan eustan.

Eta, apuro baten egon ezkeru, olango ezlekuren baten edo, zantzoak bere botaten genduzan non gagozan abiseta-ko. Oneik i antzinako kontuak, a bere bizimodu gogorra zan gero e. Orain obeto gagoz baina a eta guzti bere, geu izango gara seguramente Itzina parteko atzenengo pastoreak.

81.5. Otso-batidak Gorbeialdean

Otzoak emeti? Baiiii!. Batidak iten gendusen, permisoagas e, se eskendun gauonik iten batzutan e.

Da, ba, batida iteko, juntatu iten gaintzesan pastoreak eta erriko jentea, asi emen Oroskon da ba Gorbeia bueltako gustiok.

Normalean, otzoak non joten dauen, ba andik ataketan gendun geio, otzoa uxatuteko. Orretarako, paluek, satak eta bolanderak eta, erabilten gendusen bieti gora joanean-joanean uxatuteko. Da gero ba an guien, Gorbaieko puntan, se otzoak a gora iten dau beti, beti doa gora, d'an Gorbaieko puntan etxoiten otzein kasariek d'an ite san batidea. D'in in

Otzoak emetik? Baiiii!. Batidak egiten genduzan, permisoagaz e, ze ez gendun gauza onik egiten batzuetan e.

Eta, ba, batida egiteko, juntatu egiten gintzazan pastoreak eta erriko jentea, asi emen Orozkon eta ba Gorbeia bueltako gustiok.

Normalean, otzoak non joten dauan, ba andik ataketan gendun geiago, otsoa uxatuteko. Orretarako, paluak, zaratak eta bolanderak-eta, erabilten genduzan beetik gora joanean-joanean uxatuteko. Eta gero ba an goian, Gorbeiaiko puntan, ze otzoak a gora egiten dau beti, beti doa gora, eta an Gorbeiaiko puntan etxodon (itxaron)

bear se espabere ardiari atakau, da bakisu otzoak selango kalteak iten dituen, jan estaus iten ardi gustiek e baie kaltea in bai, d'ori galtzei andie da gutzako.

egiten eutsien kazariak eta an egiten zan batidea. Eta egin egin bear ze ezpabere ardiei atakatu, eta badakizu otzoak zelango kalteak egiten dituen, jan ez dauz egiten ardi guztiak e baina kaltea egin bai, eta ori galtze andia da guretzako.

81.6. Arimak jagoten Olarten (Orozkon)

Arimak? Bai. Emen Iberren, Aste Santuin arimak eta jagoten joaten gintzen Olartera. Aste Santuitan joaten gintzen arimak jagoten Olarteko San Barlome parrokiare arimak eskapetan doasela ta parrokian, kanpo santuin da...

Gisonak, San Bartomera joaten gintzen d'andrak komentora, ona Iberreko mojan komentora. Iru egun isiten sian, iruaurrena, Paskoa aurreko iru egunetan.

Egun osoan eoten gintzen, gaubeko amabietarte, turnoka. Abadeak (g)eituten oskun nortzuk joan beaudin. Belauniko oten gintzen errestan, kandela bedinkatuek isituta. Guk eskendusen ekosten arimak e, baie ordu t'erdirik ordu t'erdi erreleboa iten gendun.

Lenago abadeari errespetao, sera, la de Dios! (Hemen Olga Larrea sartzen da berbaz) Ori kandleana, ba kandela bedinkitue isitute eukiten gendun da, arimak ekosi es arren, an ibiltan sien. Kandelargie mogidu iten basan, onan, batera ta bestera, andik ebisen arimak eta kandelargia artes egote sanean, orduin eskapaurik ote sirean arimok.

Arimak? Bai. Emen Ibarra, Aste Santuan arimak eta jagoten joaten gintzazan Olartera. Aste Santuetan joaten gintzazan arimak jagoten Olarteko San Barlome parrokiara arimak eskapetan doazela eta, parrokian, kanpo santuan eta...

Gizonak, San Bartomera joaten gintzazan eta andrak komentora, ona Ibarra monjen komentora. Iru egun izaten ziran, irurrena, Pazkoa aurreko iru egunetan.

Egun osoan egoten gintzazan, gaueko amabietarte, turnoka. Abadeak deituten euskun nortzuk joan bear eudien. Belauniko egoten gintzazan errezetan, kandela bedeinkatuak izetuta. Guk ez genduzan ikusten arimak e, baina ordu eta erdirik ordu eta erdi, erreleboa egiten gendun.

Lenago abadeari errespetao, zera, la de Dios! (Hemen Olga Larrea sartzen da berbaz) Ori kandlearena, ba kandela bedeinkatua izetuta eukiten gendun eta, arimak ikusi ez arren, an ibiltan ziran. Kandelargia mobidu egiten bazan, onan, batera eta bestera, andik ebiltan arimak eta kandelargia artez egoten zanean, orduan eskapaturik egoten zirean arimok.

82.1. Anbotoko Señorea, Anbototik Pagasarrira

Anbotoko Señorea? Ooooo!
Anbotoko Señorea bai. Lenao ibilte san emen Margaite, bendejerea, martxanderea, eskuotzareagas, d'esa-totzien Margaiteri, entzegida esato-tzien olango kontue d'arranan moduen yoten yoate san:

- Margaite!
- Ser?
- Anbotoko Señorea bajatu de suten, Anbototi Pagasarrira
- Jangoikoa! Anbotoko Señorea bajatu de, seguru, suten bajatu de ta.

D'or ibilte san arrana yoten leku gustitati, gos, gosberandu sain arrastis. Arrauntzak, ollaskoak et'olangoak erosten ibilte san Margaite ori, d'arrana yoten Anbotoko Señorean ganean.

Bai, Anbototi Pagasarrira, da gero atzera Anbotora, suten, garretan pasetan i sen, da Margaite etzerik etze esaten arranotzean. Es auen bear bestetiko arranik, Margaite bera san arranik naiko.

Anbotoko Señorea? Ooooo! Anbotoko Señorea bai. Leenago ibiltan zan emen Margarita, bendejerea, martxanderea, esku-otzareagas, eta esaten eutsien Margaritari, entsegida esaten eutsien olango kontua eta arranaren moduan joten joaten zan:

- Margarita!
- Zer?
- Anbotoko Señorea bajatu da sutan, Anbototik Pagasarrira.
- Jaungoikoa! Anbotoko Señorea bajatu da, seguru, sutan bajatu da eta.

Eta or ibiltan zan arrana joten leku guztietatik, goiz, goiz-berandu zein arrastiz. Arrauntzak, ollaskoak eta olangoak erosten ibiltan zan Margarita ori, eta arrana joten Anbotoko Señorearen ganean.

Bai, Anbototik Pagasarrira, eta gero atzera Anbotora, sutan, garretan pasetan ei zan, eta Margarita etxerik etxe esaten arranotzean. Ez euan bear bestetariko arranik, Margarita bera zan arranik naiko.

82.2. “Lagarto” Zeberioztarren izenburle modernoa

Segaitiño geituten doskuen “lagarto” Seberioztarroi? Ba, aiko, Onek e Justo(k)p(b)e kontautzu ori Entellaondi aragoko Áldaman bere-siko musker endemoniñoan istorie, binke istorie, d'estu barriro kontauko. Baie “Lagarto” izenburlea orrik i Bilboko kasariok asmauko audien or Itorrondoko fondan on sireanean, musker orren batidean atxakien. Orti yoango san peridikure notisie, ta ba gero, andi etorriko yaku seguramen-

Zergaitino deituten deuskuen “lagarto” Zeberioztarroi? Ba, aiko, Onek e Justok be kontatu deutsu ori Entelladorenatik aragoko Áldamaren beresiko musker endemoniñoaren istoria, bienke istoria, eta ez dogu barriro kon-tatuko. Baina “lagarto” izenburlea orreik i Bilboko kazariok asmatuko eudien or Itorrondoko fondan egon ziranean, musker orren batidearen aitzakian. Ortik joango zan periodikura notizia, eta ba

te isenburle ori. Gu Seberiostarrok, “txubelaxuek” (g)ara, ainbet (d)ao on be ta gure erreka bastarretan, da “lagarto” berandukoa da, orrik betarrok iminiko isenburlea. Gaur u ie aistute dao, gure ideakoan artean isan esik.

Bueno, un kontaukotzut “lagarto” dala ta se pasau yakon emeko Seberioko andra beteri Bilbon.

Yoan san, seguru, Juana koipe, Anestasia Artxandakoan ama, d’orri(k)p(b)isi sian lenao Barbatxan, Paulo bisi sen etzean, gure ama defunteak esatauen, d’orren ama san Bénture, Juanana, da Juana ori, deabruen bildur esan isiten urrean da, egun beten yoan san Bilbora da, Bilbon baten batek e:

- Ombre, uste es de Seberio?
- Siiii, soy de Seberio
- Uste ya conose al lagarto de Seberio?
- Siiii! Pero el mayor lagarto el amo del jaro,- jaro beresieri esaten yako-, con griñas de vara y media, quinientos lapasorris y sien mil demonios con él.- gure amak esatauen sapea esese, perillea be auki-tauela Áldama sarrak-.

Juana orrek erdera be yakin auen baie orixe berori auskerasko berbaikunan ogeto esaten i auen:

- Lagartorik andiena?
- Beresien usaba,
- kana t’erdiko sapeagas
- bostaun lapasorriges
- t’aun mille demoniño beragas.

Andr’orrek e bauken bai letxea e olan berba iteko areri Bilboko barritzueri e, es otzen barriro preguntarik ingo, pentzau estot iten.

gero, andik etorriko jaku seguramente izenburle ori. Gu Zeberioztarrok, “txubelaxuak” gara, ainbat dago egon be eta gure erreka bazterretan, eta “lagarto” berandukoa da, orreik beetarrok iminitako izenburlea. Gaur u ia aaztuta dago, gure ideakoen artean izan ezik.

Bueno, orain kontatuko deusut “lagarto” dala-eta zer pasatu jakon emeko Zeberioko andra bateri Bilbon.

Joan zan, seguru, Juana koipe, Anestasia Artxandakoaren ama, eta orreik bizi ziran leenago Barbatxaon, Paulo bizi zan etxean, gure ama defunteak esaten euan, eta orren ama san Béntura, Juanarena, eta Juana ori, deabruaren bildur ez zan izaten urrean, eta, egun baten joan zan Bilbora eta, Bilbon baten batek e:

- Hombre, usted es de Zeberio?
- Siiii, soy de Zeberio
- Usted ya conoce al “lagarto” de Zeberio?
- Siiii! Pero el mayor lagarto el amo del jaro,- jaro beresiari esaten jako, con griñas de vara y media, quinientos lapazorris y cien mil demonios con él.-gure amak esaten euan zapea ezeze, perillea be eukiten euala Áldama zaar-rak-.

Juana orrek erdera be yakin euan baina orixe berori euskerazko berbaikunan obeto esaten ei euan:

- Lagartorik andiena?
- Beresiaren ugazaba,
- kana eta erdiko zapeagaz
- bosteun lapazorrigaz
- eta eun mila demonino beragaz.

Andra orrek e baeukan bai letxea e olan berba egiteko areri Bilboko barritsuari e, ez eutsan barriro preguntarik egingo, pentsatu ez dot egiten.

82.3. Inori agindua norberak egin behar

Gausa selebre bat kontaukutzut oin. Ori, Santi txapel, baragarrie san isin be. Bitisu norañokoa. Ba baten seguru, ida ta gastaña denporan, auri-egun beten, busti-busti inde, buruti anketaraño ondatute, etorri sen etzera t'andreak esan i otzen:

- Santi, busti-busti inde saosenes, ekarristesu bai, baldekada-ure orti iturriko askati
- Bai, ekarriko estotzu(t)p(b)a!

Da, yoan san Santi ori andrean esana iten, d'andrea be posik lelengon esana iteagaiti, orratño.

Bator Santi baldekada-uregas d'etzera etorriko eran altzau balde ori esku biekas d'andreaki es otzon bota ba buruti biera, d'esan:

- Andratxue, ia ke ta oin sau be busti-busti inde saosen, oin sauk ekarrisu baldekada-ure sauk (g)urosun lekuti.

Baragarrie sanes, beste baten, Santi-txapel da ganetikoak, laietan egosan, seguru, an Satula inguruko soloan, kamiño ganetxuan. Da, ba, andi kamiñoa gora barruntau audien afiladorea, bere txistua fiiiiooooka! Orduen, Santi-txapel-ek esan otzien besteari:

- E, barre batzuk in beayusek. Orraxe kamiñora yoan bea yoat eta orrexeri afiladore orreri yantzan inaso beayatzat.

Esan da in. Laiak itxi, kamiñora sailtu in d'afiladorea bere parera allegau sanean badiñotzo, erderas e:

- Alto! pa pasar por aqui hay que bailar
- Bailar? Pero ¿por qué?
- Aquí mando yo y tú a bailar
- Bueno, pero yo bailo mejor con tarrañolas y voy a sacar del bolsillo

Gauza zelebren bat kontatuko deustut orain. Ori, Santi-txapel, baragarria zan izan be. Begitu egizu norainokoa. Ba, baten, seguru, ida eta gaztaina denporan, euri-egun baten, busti-busti eginda, burutik anketaraino ondatuta, etorri zan etxera eta andreak esan ei eutsan:

- Santi, busti-busti eginda zagozanez, ekarri egistazu bai, baldekada-ura ortik iturriko askatik
- Bai, ekarriko ez deustut ba!

Eta, joan zan Santi ori andrearen esana egiten, eta andrea be pozik leenengoan esana egiteagaitik, orregaitino.

Badator Santi baldekada-uragaz eta etxera etorriko eran, altzatu balde ori esku biekaz eta andreaki ez eutsan bota ba burutik beera, eta esan:

- Andratxua, ia ke eta orain zeu be busti-busti eginda zagozan, orain zeuk ekarri egizu baldekada-ura zeuk gura dozun lekutik.

Baragarria zanez, beste baten, Santi-txapel eta ganetikoak, laietan egozan, seguru, an Sautuola inguruko soloan, kamino ganetxuan. Eta, ba, andik kamiñoa gora barruntatu eudien afiladorea, bere txistua fiiiiooooka! Orduan, Santi-txapel-ek esan eutsien besteei:

- E, barre batzuk egin bear joaguzak. Orraxe kaminora joan bear joat eta orrexeri afiladore orreri dantzan eginazo bear jautsat.

Esan eta egin. Laiak itxi, kaminora saltu egin eta afiladorea bere parera allegatu zanean badiñotso, erderaz e:

- Alto! para pasar por aqui hay que bailar
- Bailar? Pero ¿por qué?
- Aquí mando yo y tú a bailar
- Bueno, pero yo bailo mejor con tarrañolas y voy a sacar del bolsillo

– Vale!

D'ene mutilek! Afiladore orrek tarrañola(k)p(b)arik estau ateraten pistolea boltzatik d'esan Santi-txapeleri:

– Ahora vas a bailar tu hasta desir yo basta.

Da, mutil ori yantzaotzean agotau arte. Gero afiladoreak Satularaño yoanazotzen d'anbe beste yantzaldi bet inazo. Gero besto bat Plasan, azkenengoa Ermitabarrin gustis negau arte. Kilometro bi badaos e Satulatik ara e! Atzenean esan i otzen afiladoreak:

– Ahora, vete a casa, y esto para que aprendas a dejar en pas al que va en pas.

Baragarrie san baie berari be pegautzon ederra ak afiladoreak. Atzenean, laietakoa(k)p(b)e errementau bearrean barreka, fetxoriegas. Axe pasau yakon, seguru, iñori agindue noberak in bear!

– Vale!

Eta ene mutilak! Afiladore orrek tarrañolak barik ez dau ateraten pistolea boltsatik eta esan Santi-txapeleri:

– Ahora vas a bailar tú hasta decir yo basta.

Eta, mutil ori dantzaotsean agotatu arte. Gero afiladoreak Sautuolaraino joanazo eutsan eta an be beste dantzaldi bat eginazo. Gero beste bat Plazan, azkenengoa Ermitabarri-n guztiz negatu arte. Kilometro bi badagoz e Sautuolatik ara e! Atzenean esan ei eutsan afiladoreak:

– Ahora, vete a casa, y esto, para que aprendas a dejar en paz al que va en paz.

Baragarria zan baina berari be pegatu eutsan ederra ak afiladoreak. Atzenean, laietakoak be errementatu bearrean barreka, fetxoriagaz. Axe pasatu jakon, seguru, inori agindua noberak egin bear!

83.1. Anbotoko Señorea Arrabatik

Anbotoko Señorea? Paseto sala bai, emeti (Arraba) ganeti esatauren. Emeti ba, Anbototi orra

Supeleorrera, esatauren, nik entzutia e, lenao aiteri te.

Noskorik estait, ori es, garretan paseto sala esatauren.

Yentilek? Olangorik es. Lamiñe(k)p(b)ai.

Anbotoko Señorea? Pasetan zala bai, emetik (Arraba) ganetik esaten euden. Emetik ba, Anbototik orra

Supelegorrera, esaten euden, nik entzutea e, leenago aitari-eta.

Noizkorik ez dakit, ori ez, garretan pasetan zala esaten euden.

Jentilak? Olangorik ez. Laminak bai.

83.2. Lamiñategietako laminak

Lamiñe(k)p(b)ai. Or dao kobatxo bat or goien, or Gorbaierantza

Laminak bai. Or dago kuebatxo bat or goian, or Gorbeiarantza zoazela,

soasela, Laminitegietako kueba esaten yakona, ementxe igukeran Pagomakurrerantza eskoaldean dao, ortxe, bastarrean dao kuoba bat. Da, an, selan a lamiñek oten siala ta, esatostkun guri aitek eta amamak. Eta emen ba lenao, d'urek urtetan dau bertan, ure dao, errekea, bastante ure e.

Lamiñategietako kueba esaten jakona, ementxe igokeran Pagomakurrerantza eskoi aldean dago, ortxe, bazterrean dago kueba bat. Eta, an, zelan a laminak egoten zirala-eta, esaten euskun guri aitak, eta amamak. Eta emen ba leenago, eta urak urtetan dau bertan, ura dago, errekea, bastante ura e.

83.3. Saiak, arraiak, beleak

Txoritzarra(k)t(d)irela ta, emen Gorbaialdean kontu andie auki beada saiekas, arraiekas da belakas.

Saieri altuen gustetan yakie, egas iteko, ostaintxean egoak iten dotzie lurre yo, d'esin daure egas in. Belak eta arraia(k)p(b)ai.

Ganadue, batzutan, mankaute edo beste batzutan yausite edo daoenan, orduen ataketan dotzie yateko. Ganadue yatorduko, orrik i belak, bela baltzak, orrik bela nausiek, aik entzegida begiek atetozies edo atzeti, eperdiko sereti, asi iten daure, orrik. De gero, datos saiek, orrik ibiltent dire gran-gran-gran, ekitotzie. D'es arrimau ondora e!

Ganadue gexoagas tragetan danean, ori sera esaten dana, karbunkoana edo kabrunkunea edo ori gaxori, orregas tragau eskero ganadue, saiek estutzie goatzean egun bi edo iruen igual e. Segaitik es? Ba, estai(t)p(b)a se topetan dotzien, baie seoser badeuko e, se, bestera, iños bisiri(k)p(b)e yan duste niri ardie e, igual egon aska, ta ba, ankasgora parau, altzau isinde, de segiduen, baten da geiaotan e.

Kabrunkuneagas, egun bi edo iru be igual tardetan daure, estutzie

Txoritzarrak dirala eta, emen Gorbaialdean kontu andia euki bear da saiekaz, arraiekaz eta belakaz.

Saiei altuan gustetan jakie, egaz egiteko, osterantzean egoak egiten deutsie lurra jo, eta ezin daude egaz egin. Belak eta arraiak bai.

Ganadua, batzuetan, mankatuta edo beste batzutan jausita edo dagoanean, orduan ataketan deutsie jateko. Ganadua jatorduko, orreik i belak, bela baltzak, orreik bela nagusiak, areik entsegida begiak ateraten deutsiez edo atzetik, eperdiko zereti, asi egiten daude, orreik. Eta gero, datoz saiak, orreik ibiltent dira gran-gran-gran, ekiten deutsie. Eta ez arrimatu ondora e!

Ganadua gaixoagaz tragetan danean, ori zera esaten dana, karbunkoarena edo kabrunkoarena edo ori gaixo ori, orregaz tragatu ezkeru ganadua, saiak ez deutsie goratzen egun bi edo iruan igual e. Zergaitik ez? Ba, ez dakit ba zer topetan deutsien, baina zeozer badauko e, ze, bestera, inoiz bizirik be jan deuste niri ardia e, igual egon azka, eta ba, ankazgora paratu, altzatu ezinda, eta segituan, baten eta geiagotan e.

ukuturik ingo e, ibili ingo dire an, inguruen, danean, baie estutzie pikurik sartzean, estai(t)p(b)a segaiti den ori, seoser badeuko, berenoan bat edo.

Da suk esan dosun moduen, saieri belak emototzie abisue ganadue yaten etorteko, baie es kabrunkunadune. Grasie in doste sure aitexeak e beternarioak esatea belari te Larrea Oroskokoak, abadeak. Ondo iminite daukie isena, alantxe da ta.

Gero ori Larrea Oroskoko pastoreak esan dotzune, arrañoa, orreri guk u arraie esatotzu, arrai surie, agileari. Bai, iños nau(k)p(b)e ikusi ot onan a, igoal bitxo bat, edo asuri bet, ra! artu d'eroaten erpatan.

Karbunkoarenagaz, egun bi edo iru be igual tardetan daude, ez deutsie ikturik egingo e, ibili egingo dira an, inguruan, danean, baina ez deutsie pikurik sartzean, ez dakit ba zergaitik dan ori, zeozer badauko, berenoren bat edo.

Eta zuk esan dozun moduan, saiei belak emoten deutsie abisua ganadua jaten etorteko, baina ez karbunkoenaduna. Grazia egin deust zure aiteaxeak e beternarioak esatea belari eta Larrea Orozkokoak, abadeak. Ondo iminita daukie izena, alantxe da eta.

Gero ori Larrea Orozkoko pastoreak esan deutsuna, arrañoa, orreri guk u arraia esaten deutsagu, arrai zuria, agileari. Bai, inoiz neuk be ikusi dot onan a, igual bitxo bat, edo azuri bat, ra! artu eta eroaten erpatan.

83.4. Egiriñaoko ermitako funtzinoak

Bai, Igriñaoko ermiten mesea emoteuren. Bueno, lenao, gure aiteta, Seaniko parrokiraño yoate sirian mesara e, tiradea dao e! Baie yoan in bear se domeketan mesara yoan esitea pekatu andie san, derrigor yoan bear, da konfesau in bear yoan es itea, je! oingo moduen?

Gero ba, Igriñaoko ermiten emoteuren mesea, d'ara eras yoaten gintzesan. Igutauren fraileak. Nire denporan, lelengo pasionistek, emeti Eubati, da gero atzenezan karmelitek i auren atzen ori. Da, ba amabietan isite san mesea, da, mesara, emeko Orosko, Seberio, Seanuikoak eta juntetan gintzesan, danak an ondo, antxe tertulien. Da, gero, lelungotan es egoan eser Arraban, baie gero gu oten gintzesanean errefujioan, erdi

Bai, Egiriñaoko ermitan mezea emoten euden. Bueno, leenago, gure aita-eta, Zeanuriko parrokiaraino joaten ziran mezara e, tiradea dago e! Baina joan egin bear ze, domeketan mezara joan ez egitea pekatu andia zan, derrigor joan bear, eta konfesatu egin bear joan ez egitea, je! oraingoa moduan?

Gero ba, Egiriñaoko ermitan emoten euden mezea, eta ara eraz joaten gintzazan. Igoten euden fraileak. Nire denporan, leenengo pasionistak, emetik Eubatik, eta gero atzenezan karmelitatek egin euden atzen ori. Eta, ba amabietan izaten zan mezea, eta, mezara, emeko Orozko, Zeberio, Zeanurikoak eta juntetan gintzazan, danak an ondo, antxe tertulian. Eta, gero, leenengotan ez egoan ezer Arraban, baina gero gu egoten gin-

tabernea t'antxe juntetan gintzesan gu emekook. Serak, besteak es, orrik Aldaminpetakoak euren txaboletara yoate sien. D'olan domeka gustietan.

Da gero ba, San Inasio egunian, yai andie ite san d'erromerie be bai. Baie uin kontaukutzut gause baragarri bet. Erromerien yantzan ite san baie Seaniko abadeak es euren itxiten baltzeoa iten, d'Oroskokoak antza bai. Orduen, erromerie Sastegi partearantza ite san da, ba baltzeoa allegetan sanean, pausu bet emon d'Orosko partera paseta san jentea, Sastegire, da gero barriri Seani partera. D'olantxi iteuren seguru.

Gero, fraileak esan dotzut esta, ba fraileak mesea emoten esese, eskean be etorte sian, komentorako. Onik ermano legoak etorte sian gastaian. Da olango bateri "Apatxandi" esatotzien. Da, eskean etorte sanean pastore batzuk ostandu be iten yakosasan: "bayatok Apatxandi"-esanda. Baie, fraileak etxon d'etxon itotzien da, ba atzenean emon in bear gastaia.

tzazanean errefugioan, erdi tabernea eta antxe juntetan gintzazan gu emekook. Zerak, besteak ez, orreik Aldaminpetakoak euren txaboletara joaten ziran. Eta olan domeka guztietan.

Eta gero ba, San Inazio egunean, jai andia egiten zan eta erromeria be bai. Baina orain kontatuko deusut gauza baragarri bat. Erromerian dantzan egiten zan baina Zeanuriko abadeak ez euden itxiten baltseoa egiten, eta Orozkokoak antza bai. Orduan, erromeria Sastegi partearantz egiten zan eta, ba baltseoa allegetan zanean, pausu bat emon eta Orozko partera pasetan zan jentea, Sastegira, eta gero barriri Zeanuri partera. Eta olantxe egiten euden seguru.

Gero, fraileak esan deusut ezta, ba fraileak mezea emoten ezeze, eskean be etorten ziran, komentorako. Oneik (h)ermano legoak etorten ziran gastaian. Eta olango bateri "Apatxandi" esaten eutsoen. Eta, eskean etorten zanean, pastore batzuk ostendu be egiten jakozan: "bajatok Apatxandi"-esanda. Baina, fraileak etxodon (itxaron) eta etxodon (itxaron) egiten eutsien eta, ba atzenean emon egin bear gastaia.

83.5. Ardi-errebainuaren "nortasun-agiriak "

Ardi-errebainue selan manajetan dun? Bueno, or gause asko dao kon-tetako. Guk u pastoreok e gaure ardiek-eta, ondo esotuten dogus. Baie, pastore bakotxak a bere, serak, markak itozos ardieri, markea bada belarrien eta pinturia isin eskero, lepo biskerrean. Da, ba, marka bardine danean, lekue da inportantea, esta bardin akatza belarrien goiko parte-

Ardi-errebainua zelan manajetan dogun? Bueno, or gauza asko dago kon-tetako. Guk u pastoreok e geure ardiak eta ondo ezagututen doguz. Baina, pastore bakotxak a bere, zerak, markak egiten deusaz ardiari, markea bada, belarrian eta pinturea izan ezkerro, lepo bizkarrean. Eta, ba, marka bardina danean, lekua da inportantea, ez da bardin akatza belarrian goiko partean egin edo

an in edo beko partean. Ori pastoreok ondo yakiten dogu, da, badakigu sein seinena dan, oba es.

Bueno, nik i naure ardierna esangotzut e, gauk se marka iten dotzun gaure ardieri.

Markak iteko, markadora esaten yakon tenasa antzekoa erabilten dogu, d'aregas in markea edo suloa ardiaren belarrien.

Akatsetik asiko gara. Akatza, onan, kuadru txiki beten antzekoa da, guk u eskerreko belarrien aspi parteti itotzu, beste batzuk u beste leku beten edo eskoiko belarrien.

Mirubustena da beste bat. Orrek e urkulluen antza dauko eta belarrien goiko aldean iten yako.

Laitegie da beste marka bat. Ori be belarrien alboan iten da, eta isena(k)t(d)iñon moduen, laian antza dauko, olan siete bat isitea les.

Burruntzizuloa da beste bat. Ori de, sulo erredondoa, biribile, txikitxoa, burrunzti goriegas iten dana, Arkastari be lenao igitu goriegas ebaten yakien bustena, infesiñoan bildurregaiti.

Belarri-puntatxoa ebagi da beste marka bat. Ba, segun, ori noberak ikusten dau se marka bea dauen norbere ganadue esotuteko.

Arrakadea da gaurko beste ser bat, señale bat. Sanidadeak obligau iten dosku, da ba antxe daukie iminite sanidadeko arrakadori.

Da, gero, ortik aparte, pinturia be erabilten dogu, koloreatako pinturia. D'ori pinturori, ba, lepobiskerrear itotzogu, epermukurrean edo, segun, aurreragoan. Da, mutildu edo eskilau orduen, atzera pintau bear isiten da, lengoa, lanea(k)t(d)arolako.

beeko partean. Ori pastoreok ondo jakiten dogu, eta, badakigu zein zeinena dan, obe ez.

Bueno, nik i neure ardierna esango deusut e, geuk zer marka egiten deusagun geure ardiei.

Markak egiteko, markadora esaten jakon tenaza antzekoa erabilten dogu, eta aregaz egin markea edo zuloa ardiaren belarrian.

Akatsetik asiko gara. Akatza, onan, kuadru txiki baten antzekoa da, guk u ezkerreko belarrian azpi partetik egiten deusagu, beste batzuk, u beste leku beten edo eskoiko belarrian.

Miru-buztana da beste bat. Orrek e urkuluaren antza dauka eta belarriaren goiko aldean egiten yako.

Laitegia da beste marka bat. Ori be belarriaren alboan egiten da, eta izenak dinoan moduan, laiaren antza dauka, olan siete bat izatea lez.

Burruntzi-zuloa da beste bat. Ori da, zulo erredondoa, biribila, txikitxua, burrunzti goriagaz egiten dana, Arkastari be leenago igitai goriagaz ebagiten jakien buztana, infekzinoaren bildurragaitik.

Belarri-puntatxoa ebagi da beste marka bat. Ba, segun, ori norberak ikusten dau zer marka bear dauan norbere ganadua ezagututeko.

Arrakadea da gaurko beste zer bat, seinale bat. Sanidadeak obligatu egiten deusku, eta ba antxe daukie iminita sanidadeko arrakada ori.

Eta, gero, ortik aparte, pinturea be erabilten dogu, koloreatako pinturea. Eta ori pintura ori, ba, lepo-bizkarrean egiten deusagu, epermukurrean edo, segun, aurreragoan. Eta, mutildu edo eskilatu orduan, atzera pintatu bear izaten da, leengoa, laneak daroalako. Eta, gero, ba,

Da, gero, ba, arranak. Arrana(k)p(b)e, klase askotakoa(k)t(d)aos da bakotxa bere tertzio ta lekureko.

Bitarte-arranak edo solorakoak esatotzu orriri sata gitxi iten daurenari. Soloan, barrutien dabisenean ardiek, estaure bear arran andirik se kontrolaute daos gauk edo arditxakurrek e d'estaure bear geio.

Negu-arranak isiten dire, ba, negureko, goietan daosenean ogeto entzuteko nondi(k)t(d)abisen, urri-neti kontroletako.

Arran-sarrak, orrik i sartute edo erdi sulotute daosena(k)t(d)ires. Orrik arran sarrok iminten yakies ardiek mutildu eta goietara botaten dusenean. Se, klaro, ardiek e sarriten, or Itxina partean da, asbitartean sartzean dire abaroan, da, ba, arranak atxan kontra yokeran, ba, arpelik (g)altzean dire, ta, ba, sarrak isin eskero, ardure bes. Olan aprobetxetan dogus arran sarrak.

Transumantziarako, dunbak edo dunba-arranak erabilten dogus. Ardi señalatu eta onenari iminten yakies d'auren arranotsera beste gustie(k)t(d)oas.

Ardiek e dana(k)t(d)ire diferenteak, bardinik estao. Guk ondo dakiu ardi bakotxa selangoa dan.

Esaterako, ardiek pillatu gura dusenean, txistue be erabilte dogu, edo txakurre bota, edo espabere, aldean eroan artagarau betzuk eta ardi señaladu beteri erakutzi eskue lusetute, t'atoan etorten da a ardie artagarau edo prentzue yaten da bere ostaien beste gustiek apatxotzean. Orreri ardi orreri auskularie esatotzu, eskularie diñosu? B'orixe, bardin de auskularie edo eskularie, eskure datorrena. Eskuardie be esaten yako.

arranak. Arranak be, klase askotakoak dagoz eta bakotxa bere tertzio eta lekurako.

Bitarte-arranak edo solorakoak esaten deutsagu orreiri zarata gitxi egiten daudenari. Soloan, barrutian dabizanean ardiak, ez daude bear arran andirik ze kontrolatuta dagoz geuk edo arditxakurrak e eta ez daude bear geiago.

Negu-arranak izaten dira, ba, negurako, goietan dagozanean obeto entzuteko nondik dabilzan, urri-neti kontroletako.

Arran-zaarrak, orreik i zaartuta edo erdi zulotuta dagozanak dira. Orreik arran zaarrok iminten jakiez ardiak mutildu eta goietara botaten doguzanean. Ze, klaro, ardiak e sarritan, or Itzina partean-eta, aitz bitartean sartzean dira, abaroan, eta, ba, arranak aitzaren kontra jokeran, ba, alperrik galtzean dira, eta, ba, zaararak izan ezkerro, ardura be ez. Olan aprobetxetan doguz arran zaararak.

Transumantziarako, dunbak edo dunba-arranak erabilten doguz. Ardi seinatalatu eta onenari iminten jakiez eta euren arranotsera beste guztiak doaz.

Ardiak e danak dira diferenteak, bardinik ez dago. Guk ondo dakigu ardi bakoitza zelangoa dan.

Esaterako, ardiak pilatu gura doguzanean, txistua be erabilten dogu, edo txakurra bota, edo ezpabere, aldean eroan artagarau batzuk eta ardi seinaltatu bateri erakutsi eskua luzatuta, eta atoan etorten da a ardia artagarau edo pentsua jaten eta bere ostean beste guztiak apatxotzean. Orreri ardi orreri auskularia esaten deutsagu; eskularia dinozu? Ba orixe, bardin da auskularia edo eskularia, eskura datorrena. Esku-ardia be esaten jako.

Olantxi gabis gu ardiekas.

Da gu pastoreok selan aituten garan beste ganetiko pastoreakas? Ba, len e, santzoak iten gendusen batzutan, txistue(k)p(b)e bai. B'egosan santzolari ona(k)p(b)e, e. Sera, Fidel pastoreak a Saldropon itoan santzoa d'emeti entzun iteuren aren santzoa. Baie normalean berbas aituten ginean. Suk esaostesu baten e Arrabati bera etorri suok eta Astondoak seoser esan ostela esku biak agoan iminite d'esauntziela eser aitu da berak esan otzuela "ak aitu yok". Ba ori bai, sera, gu akostumbrate gaos olan berba iten, ie-ie santzo tipora ta aituten gara, gaure berbaikerea dauku, bakisu, ainbeste urtean!

Oin ostera, sano kanbiau de , sera, pastorean bisimodue. Oin i, txabola(k)p(b)e obea(k)t(d)aukus, argi eta telebisio ta gusti, bai, panelakas, da frigorifikue be bai, butanoagas. Da ya santzoak yoan sirean, oin i telefonoa dauku setako atako. Gure aitek eta esotu bauren au? Oin i seinbet eta adelantu geio, pastore gitxiago. Se ingotzu ba?

84.1. Sugea ganaduari esnea edaten

Ori subeana? Gurean kortan pasau sen ori. D'esta urte asko be. Isingo san mil nobesientos sinkuenta y sinkoan edo seian edo olan ixingo san.

Da, ama konturetu sen, gure ama defuntea konturetu sen selan beiek esne gitxiako dauken erro bateti.

Da, a erro bateti esnea falta dauela ta, ba, bueno ba, aitek esatauen ba, seguramente txala ikeran,

Olantxi gabilz gu ardiekaz.

Eta gu pastoreok zelan aituten garan beste ganetiko pastoreakaz? Ba, leen e, zantzoak egiten genduzan batzuetan, txistuak be bai. Ba egozan zantzolari onak be, e. Zera, Fidel pastoreak a Saldropon egiten euan zantzoa eta emetik entzun egiten euden aren zantzoa. Baina normalean berbaz aituten ginean. Zuk esan deustazu baten e Arrabatik beera etorri zuok eta Astondoak zeozer esan eustala esku biak aoan iminita eta ez zeuntsiela ezer aitu eta berak esan eutsuela " ak aitu jok". Ba ori bai, zera, gu akostumbratuta gagoz olan berba egiten, ia-ia zantzo tipora eta aituten gara, geure berbaikerea daukagu, badakizu, ainbeste urtean!

Orain ostera, sano kanbiatu da, zera, pastoreen bizimodua. Orain i, txabolak be obeak daukaguz, argi eta telebizino eta guzti, bai, panelakaz, eta frigorifikua be bai, butanoagaz. Eta ya zantzoak joan sirean, orain i telefonoa daukagu zertarako artarako. Gure aitek-eta, eza-gutu ba euden au? Orain i zeinbat eta adelantu geiago, pastore gitxiago. Zer egingo deutsagu ba?

Ori sugearena? Gurean kortan pasatu zan ori. Eta ez da urte asko be. Izango zan mil nobesientos zinkuenta y zinkoan edo seian edo olan izango zan.

Eta, ama konturatu zan, gure ama defuntea konturatu zan zelan beiak esne gitxiako daukan erro batetik.

Eta, a erro batetik esnea falta dauela eta, ba, bueno ba, aitek esaten euan ba, seguramente txala egikeran, esnea gei-

esnea geitxuago aukiten dau beiek e, d'igual batu ez ondo, ta, atzeratu iten yakol apur bet esne-golpea. Baie esan ixin orrena, ixin sen subea, a beieri ankati igototzen da subeak edatotzen esnea, d'atzenean agartu sen a subea, etzea, gure etzea bikotxa ixin sen d'albokoan esan inor bisi, etze sar bat ixin sen, ya yausite egoan geiena, d'egon san an sasié, ormean kontrán sasié, d'untzorrie.

Da, domeka egurdi beten, koardrillea on gaintzesan, gasteak a, gure anaie defuntue ta bostosai, gasteak. Eta subea ikusi auen (gure anaiak). Olloak arrautzea ifintauen e sasi artean, d'aren, antxe abien subea batute on san, batu-batu inde, da, da ekusi auen orduen esauen e:

- Eskopetea!,- da an batek esaotzen an gure ausoko, oin defuntu dao, Felis Etxebarria, d'ak esaotzen e-.
- Es eio(k)p(b)ota eskopeteagas tirorik se subeak saltu iten daure ta.
- Salturik estau ingo.

Bototzen tiroa ta ebagi i auen erdi erditi subea, ebagi in auen d'axe ixin sen subea, beieri esnea edatotzena.

84.2. Sugea txistuka esnea eske

Subeana, beste bat. Ori Manu, emeko Seatakoa, Seata dao Ereño baño onago, emen, etze bat, oniño etzea an dao, telletue ta yausite dauko baie, bai.

D'a ixin sen pastorea, mutilsarra, da a bai, Manu Barandika, Ereñoko Seata baserrikoa. Da gure aitek esatuen, arek e, ba, ardiei esnea

txuago eukiten dau beiak e, eta igual batu ez ondo, eta, atzeratu egiten jako apur bat esne-golpea. Baina ez zan izan orrena, izan zan sugea, a beiarí ankatik igoten eutsan eta sugeak edaten eutsan esnea, eta atzenean agertu zan a sugea, etxea, gure etxea bikoitza izan zan eta albokoan ez zan inor bizi, etxe zaar bat izan zan, ya jausita egoan geiena, eta egon zan an sasia, ormearen kontrán sasia, eta untzorria.

Eta, domeka eguerdi baten, koardrillea egon gintzazan, gazteak a, gure anaia defuntua eta bostosei, gazteak. Eta sugea ikusi euan (gure anaiak). Olloak arrautzea ifinten euan e sasi artean, eta aren, antxe abian sugea batuta egon zan, batu-batu eginda, eta, eta ikusi euan orduan esan euan e:

- Eskopetea!,- eta an batek esan eutsan an gure auzoko, orain defuntu dago, Felix Etxebarria, eta ak esan eutsan e-.
- Ez egiok bota eskopeteagaz tirorik ze sugeak saltu egiten daude eta.
- Salturik ez dau egingo.

Bota eutsan tiroa eta ebagi egin euan erdi erditik sugea, ebagi egin euan eta axe izan zan sugea, beiarí esnea edaten eutsana.

Sugearena, beste bat. Ori Manu, emeko Seatakoa, Seata dago Ereño baino onago, emen, etxe bat, oraindino etxea an dago, tellatua eta jausita dauka baina, bai.

Eta izan zan pastorea, mutilzaarra, eta a bai, Manu Barandika, Ereñoko Seata baserrikoa. Eta gure aitik esaten euan, arek e, ba, ardiei esnea batzean

batzea otzien orduen, ba, fratertxu beten subeari eroatetzela, olan sulo batera botata auki auen subea, karau-bi edo sulo batera, urten esiteko, d'ara eroatetzela subeari esnea. Da, ya atzenezan asi senezan esetuten, da k(l)aro, subeak urten isin, ba txistu itotzela subea(k)p(b)erak, ya, bere abixue esnea ekarteko ordue dala ta, txistu subeak suloti. Olangorik!

Suloa untxe be an egongo da, lo ke pasa ke oin urte batzuk egon san ya lurregas beteta. Bai, aitek esatoskun:

– Oño! Manuri txistu iten yotzek seguru subeak e gose danean!

etsien orduan, ba, platertxu baten sugeari eroaten eutsola, olan zulo batera botata euki euan sugea, karaubi edo zulo batera, urten ez egiteko, eta ara eroaten eutsola sugeari esnea. Eta, ya atzenezan asi zanean ezagututen, eta klaro, sugeak urten ezin, ba txistu egiten eutsola sugeak berak, ya, bere abisua esnea ekarteko ordua dala eta, txistu sugeak zulotik. Olangorik!

Zuloa oraintxe be an egongo da, lo que pasa que orain urte batzuk egon zan ya lurragaz beteta. Bai, aitik esaten euskun:

– Oño! Manuri txistu egiten jautsak seguru sugeak e gose danean!

84.3. Parte txarrekoak Baltzola ganean

Ereñon egote sian gaubetan, akorduen daukot, ni umea nasela, mutikoa, txikerra nasela, andrak, sure parintea, gure aman aistea, Sebastiana, d'orrik egote sian Ereñon, o koadrille bat, ona Dimeko, onik i Bal(t)solako kuebak estakisu? orti ekusten dauresela, orti, parte txarrekoak ekusten diesela, argie ekustaurien ba seosena ta, ba, Ereñoti bisten dao Bal(t)sola, d'an, ekusten dauriela, an mogiduten dala argie, partetxarrekoak. Ori esataurien andrak, ekusi itauriela partetxarrekoan argie, an Dimeko Bal(t)sola ganean.

Ereñon egote ziran gauetan, akorduan daukat, ni umea nazala, mutikoa, txikerra nazala, andrak, zure parientea, gure amaren aiztea, Sebastiana, eta orreik egoten ziran Ereñon, o koadrilla bat, ona Dimeko, oneik i Baltzolako kuebak ez dakizu? ortik ekusten daudezala, ortik, parte txarrekoak ekusten direzala, argia ekusten eudien ba zeozerena eta, ba, Ereñotik bistan dago Baltzola, eta an, ekusten daudiezala, an mobiduten dala argia, partetxarrekoak. Ori esaten eudien andrak, ekusi egiten eudiela partetxarrekoen argia, an Dimako Baltzola ganean.

84.4. Arimak urten bidera

Arimak? Bai, orri(k)p(b)ai. Orrik ixite sian, gure lengusu bet oniño untzu il de Sorrontzan, ni baño lau urte edo bost sarragoa ixin sen. Da,

Arimak? Bai, orreik bai. Orreik izaten ziran, gure leengusu bat oraindino oraintsu il da Zornotzan, ni baino lau urte edo bost zaarragoa izan zan. Eta, ari

areri ama il yakonean, gastetan, gaste gastetan il jakon ama, gure aite defuntuen arrabea ixin sen, da, arek e esatauen ba berari amak urtetan doztzela bidera, olan bakarrik eta yoate sanean e gaubean, ba, Barrankuti Ereñorantza, ama defunteak urtetan oztzela bidean. Gero, esataurien ba, olan agartu eskero, in bea dala iru bider “aitearen”, ba, desagartuteko.

ama il jakonean, gaztetan, gazte gaztetan il jakon ama, gure aita defuntuaren arrebea izan zan, eta, ark e esaten euan ba berari amak urtetan deutsalala bidera, olan bakarrik-eta joaten zanean e gauean, ba, Barrankutik Ereñorantz, ama defunteak urtetan eutsola bidean. Gero, esaten eudien ba, olan agertu ezker, egin bear dala iru bider “ aitearen”, ba, desagertuteko.

84.5. Inizitua eta hodeia uxatzeko erritua

Orretarako unikoa ite sana ixiten san, ba, odaie ta olan aste sanean fuerte, maietz inguruen ixiten san da odaien sera asko, edo negu-neguen edo maietzean, da ixite san ba, ereño(n)tza orriek, ur berinkituegas katxarrotxu beten, sue emon d’arin i a(k)p(b)otatauen kea, d’ak kentzean dauela odaie, ereñontzan orriek. Erremu egunean bereinkitu ite sian da gero eroate san ur berinkitue etzera, da, ifinte san frateran ur berinkitue, kikera baten da, ba, fratereko kikera orren inguruen ereñontz orriek. Areri emototzien sue ta ya esaleikean ba ereñontz errean keak, usain gosoa auken e, b’ak uxatuten auela odaie t’inisitue. Esatauren e. Nik ori umetarik,e, gastetarik (g)ean dauket entzunde.

Kandela berinkitue be ixitute san odaie t’inisituegas.

Orretarako unikoa egiten zana izaten zan, ba, odeia (trumioia) eta olan asten zanean fuerte, maietz inguruan izaten zan eta odeiaren zera asko, edo negu-neguan edo maietzean, eta izaten zan ba, ereinotza orriak, ur bedeinkatuegas katxarrotxu baten, sua emon eta arein i ark botaten euan kea, eta ark kentzean dauela odeia, ereinotzaren orriak. Erramu egunean bedeinkatu egiten ziran eta gero eroaten zan ur bedeinkatua etxera, eta, ifinten zan plateran ur bedeinkatua, kikera baten eta, ba, platereko kikera orren inguruan ereinotz orriak. Arei emoten eutsien sua eta ya esan leikean ba ereinotz errearen keak, usain gozoa eukan e, ba ark uxatuten euala odeia eta inizitua. Esaten euden e. Nik ori umetarik e, gastetarik geiago daukat entzunda.

Kandela bedeinkatua be izetuten zan odeia eta inizituagaz.

84.6. Bele, sai eta arranoen jakituria haragi-jatean

Ganadueri, lelengo atera beozos beleak a begiek, ardieri edo beie-

Ganaduari, leenengo atera bear deutsalaz beleak a begiak, ardieri edo

ri edo danadalakoari, da gero doa saie yaten ya.

Kabrunkoa, orregas tragetan danean ganadue, estau yaten segiduen. Kabrunkoa da, derrepentean e, tragetan da ganadue e, txala(k)p(b)e bai lenao. Kabrunkoak estai(t)p(b)a, baie sintomea badáuko, sintomea, paretan dies batzu(k)p(b)itze dariola agoti d'anditu iten dies, anditu.

Da, beitu, ortxe ardiegas e, onik i, ementxe Lekue(k)t(d)aukos, dosena bat ardi edo. Da, egundo estaurie ardirik auki te, ba, lengurtean abixausten ba yoango banintike mesedes ardi bet ibilisinde daoela ta. Da yoan nintzen da, orriri ardieri kabrunkoana dekonean urtetan dotze, lanati agarrau eskero laneak urten iten dotze, ya usteldute dao lanea bixiri(k)t(d)aoela, baltzitu iten yako aragie, da, lanea(k)p(b)eres urtetan dotze. D'egon san anditute ta bitze dariola t'esan nontzen:

- Ori ardie entzegida tragauko da
- Ke, ba! Selan tragauko da ba ontxe kortati atera ta gero sentidu dau te?

D'egurdireko tragaute on san.

D'olan tragetan danean ganadue, belak eta saiek igual egun bidiruen estutzie ikutan, e, edo geaoigoal. Igarri, aurek istintoa. Auki bea daurie istintoa, derigor. Belea, suuurre da bitxoa e!

Arranoa? Arranoa baiiii, arrano surie. Orrik artxoak eroaten daures erpakas. Naure denporan be eroaten auresan artxoak, artxoak anditxuek e, artxoa yaio ta bostosai garren egunean koi t'eroan iteurien. Ni(k) pentzetot, aidean daroanean ito iten dauela, ito, bai, da gero yan.

Ementxe, gaure parajeon be badao, ementxe Ereñoti ensegida, ba,

beiarri edo danadalakoari, eta gero doa saia jaten ya.

Kabrunkoa, orregaz tragetan danean ganadua, ez dau jaten segituan. Kabrunkoa da, derrepentean e, tragetan da ganadua e, txaalak be bai leenago. Kabrunkoak ez dakit ba, baina sintomea badáuka, sintomea, paretan dira batzuk bitsa dariola aotik eta anditu egiten dira, anditu.

Eta, begitu, ortxe ardiagaz e, oneik i, ementxe Lekue-k ardiak daukaz, dozena bat ardi edo. Eta, egundo ez daudie ardirik euki eta, ba, leengo urtean abisatu eustan ba joango baneintike mesedez ardi bat ibili ezinda dagoala eta. Eta joan nintzan eta, orreiri ardiei kabrunkoarena daukanean urtetan deutso, lanatik agarratu ezker laneak urten egiten deutso, ya ustelduta dago lanea bizirik dagoala, baltzitu egiten jako aragia, eta, laneak berez urtetan deutso. Eta egon zan andituta eta bitsa dariola eta esan neutsan:

- Ori ardia entsegida tragatuko da
- Ke, ba! Zelan tragatuko da ba oraintxe kortatik atera eta gero sentitu dau eta?

Eta, eguerdirako tragatuta egon zan.

Eta, olan tragetan danean ganadua, belak eta saiak igual egun bidiruan ez deusie ikutan(ikututen), e, edo geiigo igual. Igarri, eurak instintoa. Euki bear daudie instintoa, derrigor. Belea, zuuurra da bitxoa e!

Arranoa? Arranoa baiiii, arrano zuria. Orreik artxoak eroaten daudez erpakaz. Neure denporan be eroaten eudezan artxoak, artxoak anditxuak e, artxoa jaio eta bost edo sei garren egunean kogidu eta eroan egiten eudien. Nik pentsetan dot, aidean daroanean ito egiten dauela, ito, bai, eta gero jan.

Arrano-atxa badao, Mandoien emetikaldeti, Ubetxe esaten yako.

Mandoi(k)t(d)auko emeti, emetikaldeti Seberio aldeti barik emetiko aldeti, Ubetxe, atxe txikitxu bet eta olan bajetan da goiti, ona emoten dau, Galdakorantza, bai, atxa, Arrano-atxe, atx andie be esta, arexeri esatotzie Arrano-atxa.

Se beste bat (d)ao alboan, d'esaten dotzie Belatxa, bai, te, ondo ondoan dao, bata bestean ondoan daos e.

D'ori Belatxa da, gurean aitek eta, erresoia dauko orretan, gero sarri onas pentzetan ni, aiteri entzunde ba, lenao, nar iauela uregas basoak, nar in auela, satiek, eta an bean dao dana arrie, baie, mortalak arriek, toneladako arrie(k)t(d)aos bajatute, nar inde. De gero, belak aste auriesan umeak, atxan bitartean. Gurean anaiak iños koi be in daus an belakumeak.

Ementxe, geure parajeon be badaogo, ementxe Ereñotik entsegida, ba, Arrano-atxa badago, Mandoia-ren emetikaldetik, Ubetxe esaten jako.

Mandoia-k dauka emetik, emetikaldetik Zeberio aldetik barik emetiko aldetik, Ubetxe, aitz txikitxu bat eta olan bajetan da goitik, ona emoten dau, Galdakaorantz, bai, aitz, Arrano-atxa, aitz andia be ez da, arexeri esaten deutsie Arrano-atxa.

Ze beste bat dago alboan, eta esaten deutsie Belatxa(bele-aitza), bai, eta, ondo ondoan dago, bata bestearen ondoan dagoz e.

Eta ori Belatxa da, gurean aitik eta, errezoia dauka orretan, gero sarri egon naz pentsetan ni, aitari entzunda ba, leenago, nar egin euala uragaz basoak, nar egin euala, zatiak, eta an beean dago dana arria, baina, mortalak arriak, toneladako arriak dagoz bajatuta, nar eginda. Eta gero, belak azten eudiezan umeak, aitzaren bitartean. Gurean anaiak inoiz kogidu be egin dauz an belakumeak.

84.7. Otso-ehiza edo batida Egiriñaon

Ori ekusite be badauket nik (G)orbeien. Isea be bai baie batidea estotzu geao.

Ni(k)t(d)ekot ekusite, mutikotan, ba, gu, Gorbaiera, ni urteatan yoate nintzen, astean bija bat iten nauen anaiari eroaten yatekoa, ara, ardiekas egoten san da. Egote san an Arrabara igokeran, eskoitxuen, eskoiko aldeti aukitauen txabola bat, Arrabako Landara urten baño apurtxu bet lenao.

D'egun beten, andik, Arrabatik

Ori ikusita be badaukat nik Gorbeian. Izea (eiza) be bai baina batidea esaten deutsagu geiago.

Nik daukat ikusita, mutikotan, ba, gu, Gorbeiera, ni urteatan joaten nintzan, astean bija bat egiten neuan anaiari eroaten jatekoa, ara, ardiekaz egoten zan eta. Egoten zan an Arrabara igokeran, eskoitxuan, eskoiko aldetik eukiten euan txabola bat, Arrabako Landara urten baino apurtxu bat leenago.

Eta egun baten, andik, Arrabatik

Igrinaora yoateko on nintzen yanagas d'esaostien e:

– Esta yoan bear orrantza, se, dabis, i batidea iten otzoari

Da, ibilte sian olan e, korneta baten moduen adarragas adarra yoten da, gero goien etxon kasariiek eskopetakas batidea iteko. Normalmente or Sastegiti arantza, gorantza. Etorre sian orti Altaminepe aldeti d'orti Ubide aldeti, da, gero, pasetan sian Igrinaoti ba ona Sastegirantza, bai. Ekusite dekot selan ibilte sian orri(k)p(b)atidek emoten otzoari. Baiiii! adarra yo ta bolanderakas be uxatuten audiesan otzoak eta gero goien batidea in. Ori ekusite badauket, nauk ekusite.

Egiriñaora joateko egon nintzan janagaz eta esan eustien e:

– Ez da joan bear orrantza, ze, dabilz, i batidea egiten otsoari

Eta, ibilten ziran olan e, korneta baten moduan adarragas adarra joten eta, gero goian etxodon (itxaron) kazariak eskopetakaz batidea egiteko. Normalmente or Sastegitik arantz, gorantz. Etorren ziran ortik Altaminepe aldetik eta ortik Ubide aldetik, eta, gero, pasetan ziran Egiriñaotik ba ona Sastegirantz, bai. Ikusita daukat zelan ibilten ziran orreik batidak emoten otsoari. Baiiii! adarra jo eta bolanderakaz be uxatuten eudiezan otsoak eta gero goian batidea egin. Ori ikusita badaukat, neuk ikusita.

84.8. Patakon lapurra Bediako Barrankutik

Ori, lapurren kontue, estaurien gure aitek eta saaararak, au Patakon ixite sala lapur famatue.

Patakonek, Patakon kaballogas ibilte sala esaturien, beti, normalmente kaballogas. Baie, kaballoga ibiltauela erradurak aldrebes ifinite, atzekos aurrera ifinite, bai, ori, konfundiduteko: koño!, ba, emeti yoanda, da,ba, orrantza yoan barik i yoan da besterantza. Bai, ori entzunde dauket.

Au Patakon, emen, au Igorre, da gero emen Sekutzen be badao, Lapurbide esatotzien, Sekutzen, ementxe bertan, ensegida, emeti, Bediati Barrankure yoan da Barrankuen eskoira koiu d'Ereñoko bidea eskoitara itxi te bitarteti dao piste bat Igorrerarte urtetan dau, Gesalara. Pisteak Sekutze dauko

Ori, lapurren kontua, esaten eudien gure aita eta saaararak, au Patakon izaten zala lapur famatua.

Patakonek, Patakon kaballogaz ibilten zala esaten eudien, beti, normalmente kaballogaz. Baina, kaballoga ibilten euala erradurak aldrebez ifinita, atzekos aurrera ifinita, bai, ori, konfundiduteko: koño!, ba, emetik joanda, eta,ba, orrantz joan barik i joan da besterantz. Bai, ori entzunda daukat.

Au Patakon, emen, au Igorre, eta gero emen Sekutzen be badago, Lapurbide esaten eustien, Sekutzen, ementxe bertan, entsegida, emetik, Bediatik Barrankura joan eta Barrankuan eskoira kogidu eta Ereñoko bidea eskoitara itxi eta bitartetik dago pista bat Igorrerarte urtetan dau, Gezalera. Pisteak Sekutze dauka izena, basoa

isena, basoa famosoa. Or dao, etze bat (d)ao an, oin Diputasiñoana da, d'ak etzea(k)t(d)auko Lapurbide isena, d'iñok estotzo geituten, se, ya gasteak estakie. Ori de Lapurbide.

Da gero, aitek esatauen, ba, an koite auriela beti errastue a ber norantza, Patakonek norantza in ete dauen. Ba, gure aite(k)p(b)e, ba, entzuneko gausek. Igorrekoa esatauen isin sala Patakon. Igorreko Gesalako edo ango ingurukoa. Ori errekorridue itauela esatauen gure aitek. Igorreti, ba, au Seberio aldeti ona Barrankure.

Da, baten, e, emeko esatai(t) nongo andratxuen bat, errentea pagetan yoan i sen usabanera ta bidean Patakonek urten, da: "Ene amatxue? Patakon. Da Patakonek

- Nora soas ba andratxue?
- Errentea pagetan usabari baie estauket e beadan beste diru te sorreen itxi beakotzet sati bet, ai ene!
- Bueno ba, nauk emongotzut falta yatzune ta pagaiosu errenta osoa usabari
- Bai?
- Te, bai.

A andrea sinistu esinik yoan san da kitutu ausen urteko errenta sorrok eta etzean be kontauen pasau yakona.

Baie, se in auen Patakonek? Usaborren etzera yoan, esorduen baten, da errentadiru gustie ostu. A bai e kaballeroa, erradurek atzekos aurrera ifinite!

famosoa. Or dago, etxe bat dago an, orain Diputazinoarena da, eta ark etxeak dauka Lapurbide izena, eta inork ez deutso deituten, ze, ya gazteak ez dakie. Ori da Lapurbide.

Eta gero, aita esaten euan, ba, an kogiduten eudiela beti errastua a ber norantz, Patakonek norantz egin ete dauan. Ba, gure aita be, ba, entzuneko gauzak. Igorrekoa esaten euan izan zala Patakon. Igorreko Gezalekoa edo ango ingurukoa. Ori errekorridua egiten euala esaten euan gure aita. Igorretik, ba, au Zeberio aldetik ona Barrankura.

Eta, baten, e, emeko ez dakit nongo andratxuren bat, errentea pagetan joan ei zan ugazabanera eta bidean Patakonek urten, eta: "Ene amatxua? Patakon! Eta Patakonek:

- Nora zoaz ba andratxua?
- Errentea pagetan ugazabari baina ez daukat e bear dan beste diru eta zorrean itxi bearko deusat zati bat, ai ene!
- Bueno ba, neuk emongo deusut falta jatzuna eta pagatu egiozu errenta osoa ugazabari
- Bai?
- Eta, bai.

A andrea sinistu ezinik joan zan eta kitutu euazan urteko errenta zorrok eta etxean be kontatu euan pasatu jakona.

Baina, zer egin euan Patakonek? Ugazaba orren etxera joan, ezorduren baten, eta errenta-diru guztia ostu. A bai e kaballeroa, erradurak atzekoz aurrera ifinita!

84.9. Guzur-txapelketako irabazlea

Au, gause baragarrie da baie, baten emen Barrankuko Sebastianare-

Au, gauza baragarria da baina, baten emen Barrankuko Sebastianare-

nean on gaintzesan kartetan da ba or egozan ori Ismael da Julian, da ba, posture in aurien kuartillu bet ardao, seinek esan gusurrik andiena.

Da, Ismaelen gusurregas enas akordetan baie Julianenagas bai se irabasi in auen da.

Ba, baten, seguru, onik Lopes de Letonarrak Otxandiotik etorrie(k)-t(d)ire, ta ba Julianeri te beor gorri bet faltau yakien d'esi aurien topau iñon. Atzenean, i aurien, Otxandioti Urkiolara, Sabigaineti emeti Artaungo atxetati etorri sian Belatxikitara. Da Belatxikitako ermitean ganeko atxean, ba, an parau sirean deskantzetan, ba sigarro bat in, erre ta deskantzetan Julian ori eta bere anaia. Da, ba, batak Ois mendire begitu-begitu in d'esan otzen besteari:

– Oño! aikoan gure beorra!

– Non?- da

– Oisen, estok ekusten, ango ermiten ondo ondoan?

– Baiiii!

Yoan sirean, da beor ori isin sen mallukie, mallukie eldute, gorri gorrie!

nean egon gintzazan kartetan eta ba or egozan ori Ismael eta Julian, eta ba, postura (apostua) egin eudien kuartillo bat ardao, zeinek esan gusurrik andiena.

Eta, Ismaelen guzurragaz ez naz akordetan baina Julianenagaz bai ze irabazi egin euan eta.

Ba, baten, seguru, oneik Lopez de Letonarrak Otxandiotik etorriak dira, eta ba Juliani-eta, beor gorri bat faltatu jakien eta ezin eudien topatu inon. Atzenean, egin eudien, Otxandioti Urkiolara, Sabigainetik emetik Artaungo aitzetatik etorri ziran Belatxikietara. Eta Belatxikietako ermitaren ganeko aitzean, ba, an paratu zirean deskantzetan, ba zigarro bat egin, erre eta deskantzetan Julian ori eta bere anaia. Eta, ba, batak Oiz mendira begiratu-begiratu egin eta esan eutsan besteari:

– Oño! aikoan gure beorra!

– -Non?- eta

– Oizen, ez dok ikusten, ango ermitaren ondo-ondoan?

– Baiiii!

Joan zirean, eta beor ori izan zan mailukia, mailukia elduta, gorri gorria!

85.1. Pastoretza kontuz eta kantuz

Ni pastore? ie bisi gustiye, bai, pastore d'aintxe dotore, je-je-je-! Irurte yu nintzen eskola ta ba gitxiendis irurogetaka urtiak ardierrebañuas, emen, Ubide ingurutati, Arraldeti ta, Gorbeieko emeko parteti, Biskaye t'Araba partien. Gero ba Arrabara ta be yuten gintzen, an Basilio ta oten sien, da gastayek onak e Basiliok eta, baie emetiko aldeti geio ibili nes. Gero barrutiyek e leku

Ni pastore? ia bizi guztia, bai, pastore eta antxe dotore, je-je-je-! Iru urte joan nintzan eskolara eta ba gitxiendiz irurogetaka urteak ardi-errebañuagaz, emen, Ubide inguerutatik, Arraldetik-eta, Gorbeiaiko emeko partetik, Bizkaia eta Araba partean. Gero ba Arrabara-eta, be joaten gintzan, an Basilio-eta, egoten ziran, eta gaztaiak onak e Basiliok-eta, baina emetiko aldetik geiago ibili naz. Gero barrutiak e leku askotan jaten gen-

askotan yaten giñusen. Su Seberiyokue sa esta? Ba, Seberiyon be onda nao, an Ermitabarri aldean eta ondo e, sano ondo, barrutiyek onak aukiten noasan yateko, estai(t)p(b)a bes-tien batek topaukoban olako barruti onik, e, baie ni sano gusture on nintzen Seberiyon.

Bisimoru gogorra eroan du pastoriek e, baie nik umorie esto(t)k(g)aldu e, da, ba, kantetan be salie nas, bertzue(k)p(b)e kantetodas. Bueno, oiñ i aistu in yatas asko baie kantaukotzudes kanta batzuk u al doan moruen.

Ori, a pastoreri pasaukoa da polite, ia akordetan nasen kopla gus-tiyekas:

Goierritik artzain bat
jetzi yaku guri
kontue pranko orrek
ekarri det neri.

Kopeta beltza deu ta
muturre seriyo
motibua badauka
esta misteriyo.

Oien pasadisua
nago kontatzeko
dama ori bildur sen
neskasartutzeko.

Dama ori apaintzen san
leno edo geyo
mutil gaste politak
gustatzen saiskiyo.

Atzeti ibili gaitik
erropa sarrakin
amar bat milla duro
badauka berakin.

Dama au gustura dabil
bibotedunakin
lanik asko isan biadau
mantenitzen orrekin.

duzan. Zu Zeberiokoa zara ezta? Ba, Zeberion be egonda nago, an Ermitabarri aldean eta ondo e, sano ondo, barrutiak onak eukiten neuazan jateko, ez dakit ba besteren batek topa-tuko eban olako barruti onik, e, baina ni sano gustura egon nintzan Zeberion.

Bisimodu gogorra eroan dogu pas-toreak e, baina nik umorea ez dot galdu e, eta, ba, kantetan be zalea naz, bertsoak be kantetan dodaz. Bueno, orain i aaztu egin jataz asko baina kantatuko deutsudaz kanta batzuk u aal dodan moduan.

Ori, a pastoreari pasatutakoa da poli-ta, ia akordetan nazan kopla guztiekaz:

Goierritik artzain bat
jetsi jaku guri
kontue pranko orrek
ekarri det neri.

Kopeta beltza deu ta
muturre seriyo
motibua badauka
ezta misteriyo.

Oien pasadisua
nago kontatzeko
dama ori bildur sen
neskazaartutzeko.

Dama ori apaintzen zan
leno edo geyo
mutil gazte politak
gustatzen zaizkiyo.

Atzeti ibili gaitik
erropa zaarrakin
amar bat milla duro
badauka berakin.

Dama au gustura dabil
bibotedunakin
lanik asko izan biadau
mantenitzen orrekin.

Bibotedun ori da
polita pausuban
go(r)betak etzian da
dirua ausuan

Obe suen apaindu
artzaina basuan

.....
.....

Artzaina geratu da
desesperatuta
Ameriketara jun da
ardiak salduta.

Ameriketarako
prestetan san asi
buruausia franko
basuen lenbisi.

Artian itxasorik
etzuan ikusi
baporian sartu san
makilla ta gusti.

Ardiyen inguruen, ba, beste kanta ba(t)p(b)e badakit, erderas. Sera, ardiyek esaututeko markak iten yakies. Guk u belarriyen eiten geuntzen, ona e, txak! ebagitxu bet. Eta gero mendiyen arranak ifinten yakies, entzuteko. Gutzako onenak arranbitarteak sien, da, ba ondo entzuten da arranbitarteotza. Da kantea, erderas da, nik erdera gitxi dakit e, soldaisken ikisikoa, se ni beti isin nes euskaldune e, gorrie. Gero kantautokozut u beste kanta bat gudari denporakoa, ori be erderas. Bueno arranana auxe da:

Al son de los senserros
los errebaños a pastar van
y yo pensando en Clara
toda la noche voy a pasar
y yo pensando en ella
toda la vida voy a estar.

Bibotedun ori da
polita pausuban
go(r)betak etxian da
dirua auzuan

Obe zuen apaindu
artzaina basuan

.....
.....

Artzaina geratu da
desesperatuta
Ameriketara jun da
ardiak salduta.

Ameriketarako
prestetan zan asi
buruausia franko
bazuen leenbizi.

Artian itxasorik
etzuan ikusi
baporian sartu zan
makilla ta gusti.

Ardien inguruan, ba, beste kanta bat be badakit, erderaz. Zera, ardiak eza-gututeko markak egiten jakiez. Guk u belarrian egiten geuntsan, ona e, txak! ebagitxu bat. Eta gero mendian arranak ifinten jakiez, entzuteko. Guretzako onenak arran-bitarteak ziran, eta, ba ondo entzuten da arran-bitarteotsa. Eta kantea, erderaz da, nik erdera gitxi dakit e, soldadiskan ikasitakoa, ze ni beti izan naz euskalduna e, gorria. Gero kantatuko detsut u beste kanta bat gudari denporakoa, ori be erderaz. Bueno arranarena auxe da:

Al son de los cencerros
los errebaños a pastar van
y yo pensando en Clara
toda la noche voy a pasar
y yo pensando en ella
toda la vida voy a estar.

Eta gudari denporakoa, bueno, nik i Otzandiyo bonbardetan be ikusi noan e, emeti Mikoletati da Gernike be bai, andi Pagasarri aldeti. Bueno or doa kantea:

No sabemos cuándo es fiesta ni domingo pues la guerra no se ocupa de disfrases todo el día y toda la noche vigilando evitando la tragedia de un ataque.

Ikesgiñaren kantea be badakit. Enas danagas akordetan baie, ondi-koen akordetan nas apur bet.

Ikesgiñagas eskontzen danak
es dau sentzuni(k)p(b)uruan
abariaren lapikotxua
txikiña baña goxua.

Aritxondo baten jesarri nintzen
negarra franko altzora
abariaren lapikotxoa
etorten yatan gogora.

Ikesgiñaren lapikotxoa
andiya baña arrua
abariaren lapikotxoa
txikiña baña goxua.

Gero ba, kanta soltue(k)p(b)e badakides. Au de bisiyodunentzat kantetan sana:

Txikitatikan artu banintzo
fraile edo misio
nere gorputzak etzuen isango
oin dauken beste bisio.
Elisatikan aparte nabil
tabernatikan sosio
tripatzar onek asko biar dek
baldin emoten bas(a)io.

Eta gero erromeiyetan be asko kanteta san, da ba onan jente aberatz antza ikusi orduen e auxe kantetaban gastejentiek:

Eta gudari denporakoa, bueno, nik i Otxandiano bonbardeetan be ikusi neuan e, emetik Mikoletatik eta Gernika be bai, andik Pagasarri aldetik. Bueno or doa kantea:

No sabemos cuándo es fiesta ni domingo pues la guerra no se ocupa de disfraces todo el día y toda la noche vigilando evitando la tragedia de un ataque.

Ikazginaren kantea be badakit. Ez naz danagaz akordetan baina, oraindino-koan akordetan naz apur bat.

Ikazginagaz ezkontzen danak
ez dau zentzunik buruan
abadearen lapikotxua
txikiña baina goxua.

Aritxondo baten jesarri nintzen
negarra franko altzora
abadearen lapikotxoa
etorten jatan gogora.

Ikazginaren lapikotxoa
andiya baina arrua
abadearen lapikotxoa
txikiña baina goxua.

Gero ba, kanta soltuak be badakidaz. Au da biziodunentzat kantetan zana:

Txikitatikan artu banintzo
fraile edo misio
nere gorputzak etzuen izango
oin dauken beste bizio.
Elizatikan aparte nabil
tabernatikan sozio
tripatzar onek asko biar dek
baldin emoten baz(a)io.

Eta gero erromeietan be asko kantetan zan, eta ba onan jente aberats antza ikusi orduan e auxe kantetan eban gazte-jenteak:

Kanta, kanta konpañero
dana dakisun moruen
pobrerik estala bisi
aberatzaren moruen. (bis)

Ero, beste kanta au be kantetan
yakien, onan e, aimariye(k)tx(y)o ta
gero ebisen neskari:

Maritxu nora soas
ia gaba da ta
gaba isan gaitikan
konponduten gara

Maritxu itxisu
gabeko ibillera
da egunes argiro
garbiro jolastu.
Gabas ibiltzen basera
goisero berandu
arpelik (g)alduko sara
eta neskasartu
edoseinek ori
esin leike artu.

Bueno, kante kontue akabetako,
bertzo ba(t)p(b)otakotzuet, nauk
dakiten moruen e:

Suek etorri sare
emen yakiten
gausie in dosue
bastante mobiduten,
posi(k)tx(y)ungo sarie
seuen etzieten (sic)
beste baten etorteko
ganie eukiten.

Kanta, kanta konpañero
dana dakizun moduen
pobrerik ezala bizi
aberatsaren moduen. (bis)

Edo, beste kanta au be kantetan
jakien, onan e, abemariak jo eta gero ebi-
zan neskari:

Maritxu nora soaz
ia gaba da ta
gaba izan gaitikan
konponduten gara

Maritxu itxizu
gabeko ibillera
da egunez argiro
garbiro jolastu.
Gabaz ibiltzen bazera
goizero berandu
arpelik galduko zara
eta neskazaartu
edozeinek ori
ezin leike artu.

Bueno, kanta kontua akabetako,
bertso bat botako deutsuet, neuk daki-
ten moduan e:

Zuek etorri zare
emen jakiten
gauzie in dozue
bastante mobiduten,
pozik jungo zarie
zeuen etxieten (sic)
beste baten etorteko
ganie eukiten.

85.2. Saiak zortzi kilometroko usaina

Saiye(k)t(d)aukie, sera, ugerle-
kue, serien, Mantzarregoan. Ugerle-
kue esaten yakie esta, d'an bisi dire
urrien, d'andi urtetan daurie. Da,

Saiak daukie, zera, ugerlekua, zere-
an, Mantzarregoan. Ugerlekua esaten
jakie ezta, eta an bizi dira urrean, eta
andik urtetan deudie. Eta, saiak dauka

saiye(k)t(d)auko use(i)ñe sortzi kilometrokue. Da saiyek iten dau, baten i osten, ni besto bateas andi Gorbeiti bera, errefujiyue, sera, Arresena dao an, Arrese, Sementos Lemona daoen, an ardi bet e, ba, oker-etxun sen, geurie, da nekasuen dies e, oker-etxunde gaurie ta, yun gintzen Basilio ta, pastoriek aiñiketan, da, buenoooo! yun orduko, eperditi estie atotzen ensegida saiyek, d'ensegida narrue kendu.

Begiyek atera beliek e, gero datos saiyek. Beliek atera esik igoal estotzie ba saiyek (g)oatzean.

Saiyek e, belie(k)p(b)egiyek atetan espotzos, estau yaten. Saiyek e misteriyue(k)t(d)aukos.

Saiye be barres, entzunde yeko-at e, bixi dala irureun urte (Luziano, hitano dabil, ondoko Eugeniok berbaz, eta Eugeniok erantzun erdi barreka:)

– Saiye dana moruen balitzok urune, betiko bixi, je-je-je! (Eugeniok “saia” (buitre) eta “zahia” (salvado = gari azala) homonimiagaz ironia darabil)

usaina zortzi kilometrokoa. Eta saiak egiten dau, baten egin eustan, ni beste bategaz andik Gorbeiatik beera, errefugioa, zera, Arreserena dago an, Arrese, Zementos Lemona dagoana, an ardi bat e, ba, oker-etxun zan, geurea, eta, nekasuen diez e, oker-etxunda geurea eta, joan gintzan Basilio- eta, pastoreak arineketan, eta, buenoooo! joan orduko, eperditik estea atera eutsan ensegida saiak, eta ensegida narrua kendu.

Begiak atera beleak e, gero datoz saiak. Beleak atera ezik igual ez deutsie ba saiak goatze(a)n.

Saiak e, beleak begiak ateraten ez badeutsaz, ez dau jaten. Saiak e misterioak daukaz.

Saia be barrez, entzunda jaukat e, bizi dala irureun urte (Luziano, hitano dabil, ondoko Eugeniok berbaz, eta Eugeniok erantzun, erdi barreka:)

– Saia dana moduan balitzok uruna, betiko bizi, je-je-je! (Eugeniok “saia” (buitre) eta “zahia” (salvado = gari azala) homonimiagaz ironia darabil)

85.3. Otso-ehiza Ubide gainean

Otzue? Otzue ikusite be badeuket. Otzuas tropesau be ines, bai. Da, ilteko ite san eisie, bai eisie te dana esta. Ibilte sien pastoriek, bueno, yuten gintzen ba pastore asko, batzuk orti, besto batzuk emeti te ba Seanistarrak eta danak esta. Da gero goien eskopetakas besto batzuk eta baten bat garbitzen san, otzuen bat ilte san. D'eskopetadunek e puntuetan paraute, krusietan da. Batzuk u beti gora arreetan, porrejenplo esta,

Otsoa? Otsoa ikusita be badaukat. Otsoagaz tropezatu be egin naz, bai. Eta, ilteko egiten zan eizea, bai eizea eta dana ezta. Ibilten ziran pastoreak, bueno, joaten gintzan ba pastore asko, batzuk ortik, beste batzuk emetik eta ba Zeauiztarrak eta danak ezta. Eta gero goian eskopetakaz beste batzuk eta baten bat garbitzen zan, otsoren bat ilten zan. Eta eskopetadunak e puntuetan paratuta, kruzeetan eta. Batzuk u beetik gora arre-

da besto batzuk etxoten. Arreeu txakurrekas. Useiñe artzean daurie txakurre(k)p(b)e d'arreetan auresan otzuek e. Bueno, eisien, pastore, txakur de kasari, danok iten giñun. Baie, bai, otzuas tropesaute nao, onduen ikusi noan da, nekasuen dies, bildur andiye e.Otzue(k)p(b)akarrik es, asagariye(k)p(b)e ardie(k)tx(y)aten dau(r)ies, guri yate oskusen. Baie asagariyek koxuteko be txakurre(k)p(b)otaten sien useiñe artze(a)ko. Bai, eisie in in bier, espabere otzuekas gausoni(k)p(b)es.

etan, por ejemplo ezta, eta beste batzuk itxaroten. Arreoa txakurrekaz. Usaina artzean daudie txakurrak be, eta arreetan eudezan otsoak e. Bueno, eizean, pastore, txakur eta kazari, danok egiten gendun. Baina, bai, otsoagaz tropezatuta nago, ondoan ikusi neuan eta, nekasuen diez, bildur andia e.Otsoak bakarrik ez, azagariak be ardiak jaten daudiez, guri jaten euskuezan. Baina azagariak kogiduteko be txakurrak botaten ziran usaina artzeako. Bai, eizea egin-egin bear, ezpabere otsoakaz gausonik be ez.

85.4. Lapurzulo Saldropon (Gorbeiapen)

Lapursulo ori estao Gorbeien, beragoan dao. Ori dao Saldropon, bai, Lapursulo esatotzie. Ba, orduen, emeti galtzarie ote san, oin dala bostaun urte inguru, galtzarie, emeti, Ipiñeburu te Ba(r)asar erditi, sereti, San Pedroti Gernikeraño gitxienesdi. Ba, lapurrok an urten bidera e. Selan yuten sien karruekas, ba, au sera, Meltxor da, gurien aite argiñe san, da Meltxor Bituriyeti barrikakas, sagietan be erungo ebien ardaue, baie orduen barriketan esta. Da, an, Lapursulon lapurrek urtetebela, lapurrek urten, d'agaiti dauko isena Lapursulo. Bakit non daoen be. An dak Lapursulo da Lapursasi

Lapurzulo ori ez dago Gorbeian, beeragoan dago. Ori dago Saldropon, bai, Lapurzulo esaten deutsie. Ba, orduan, emetik galtzadea egoten zan, orain dala bosteun urte inguru, galtzadea, emetik, Ipiñaburu eta Barazar erditik, zeretik, San Pedrotik Gernikaraino gitxienezdik. Ba, lapurrok an urten bidera e. Zelan joaten ziran karroakaz, ba, au zera, Meltxor-eta, gurean aita argina zan, eta Meltxor Bitoriatik barrikakaz, zaragietan be eroango eben ardaoa, baina orduan barriketan ezta. Eta, an, Lapurzulon lapurrrak urtetan ebela, lapurrrak urten, eta agaitik dauka izena Lapurzulo. Badakit non dagoan be. An dagok (jagok) Lapurzulo eta Lapursasi.

85.5. Sakamantekasa

Sakamantekasari, bildurre, andiie umetan.Or Araba partean bisi i sen ori Sakamantekas ori, txarra seguru e, da gero ba umeai bildurre

Sakamantekasari, bildurra, andiia umetan.Or Araba partean bizi ei zan ori Sakamantekas ori, txarra seguru e, eta gero ba umeai bildurra sartu egiteko

sartu iteko erabilte san. Sakamantekasa egote san emen be, emen Ubiden be, baie beste asunto bategaiti, orrek es oan ñor ilten e. Oin esan-gotzut. Sakamantekasa ifini otzien isena, or egon san gixonari, aduana-koari. Emen Ubiden egoan Biskaia eta Araban arteko linea, mugarrie t'aduanea. D'aduanako gisonak esaten yuan, iru alaba yekuasan da, ba, ak esaten yuan: *“tres (h)ijas y la madre, cuatro fieras para el padre”*.

Sakamantekasa esatotzien, se, selan au Biskaiko entradie san, emen beti, ero ardaue dala, ero bestie dala, ero orti mangie, b'Arabati Biskaire pasetea kobrau ite san, klaro, ero, or enpleauek ote sien, or, elegante on san Sakamantekas ori. Se nau be igoal sesto bete gastaigas yuten nintzoan ba Arteara igoal, orduen e(s)tx(y)-egoan gaurko serik eta, *“ande se podía”*.

Eta Sakamantekasai emoten ñauntzan gitxienezdi gasta bat. Eta lelengo datorren automobil edo kanbioari altoa bota t'esaten yotzan:

– Lleve a este (h)asta Castillo Elejabeitia (Arteara).

Ak Sakamantekasak e(s)tx(y)-uan koiperik atetan, baie kobrau bai koño, besterik esean gasta bat gitxiendis.

85.6. Trápero-ren pasadizuak

Trápero? Baooo! esto(t)tx(y)akingo ba. Tráperon arrebie san Tomás, a san demasa! Tráperok o frakak aukesan aldien sekule kendu bakuek.

– Trápero kapaute egoan, gure osabiek kapauban- (alborik hara Eugeniok)

erabilten zan. Sakamantekasa egoten zan emen be, emen Ubiden be, baina beste asunto bategaitik, orrek ez euan inor ilten e. Orain esango deutsut. Sakamantekasa ifini eutsoen izena, or egon zan gizonari, aduanakoari. Emen Ubiden egoan Bizkaia eta Arabaren arteko linea, mugarría eta aduanea. Eta aduanako gisonak esaten joan, iru alaba jaukoazan eta, ba, ark esaten joan: *“tres (h)ijas y la madre, cuatro fieras para el padre”*.

Sakamantekasa esaten eutsoen, ze, zelan au Bizkaiko entradea zan, emen beti, edo ardoa dala, edo bestea dala, edo ortik mangea, ba Arabatik Bizkaira pasetea kobratu egiten zan, klaro, edo, or enpleatuak egoten ziran, or, elegante egon zan Sakamantekas ori. Ze neu be igual zesto bete gaztaigaz joaten nintzoan ba Arteara igual, orduan ez jegoan gaurko zerik eta, *“a donde se podía”*.

Eta Sakamantekasari emoten nieuntsan gitxienezdik gazta bat. Eta leenengo datorren automobil edo kamioari altoa bota eta esaten jotsan:

– Lleve a este hasta Castillo y Elejabeitia (Arteara).

Ark Sakamantekasak ez joan koiperik ateraten, baina kobratu bai koño, besterik ezean gazta bat gitxiendis.

Trápero? Baiiii! ez dot jakingo ba. Tráperoren arrebie zan Tomás, a zan demasa! Tráperok o frakak eukazan aldean sekula kendu bakoak.

– Trápero kapatuta egoan, gure osabeak kapatu eban- (alborik hara Eugeniok)

- Ori kontue ixingok
- Bai, letxes, Matxitok kapau bala ba!
- Segaitio ba?
- Ba, talentuek emoutzelako
- Ori entzun yoat e baie kontue isingok ori, no me jodas!

Tráperok urte betien sekule frakarrik es aban garbitu. Frakak aukesan lustriegas, satza, lustrie. Da, frakak apurtan yakosanién, alanbriegas yosi t' aurrera.

Da, Segundo, Tráperon anaiyie suan esta, gixona altue, tremendue suan. D'ardue gustetan yakon sano, Tráperori. Da, baten Basarren badiñotzek e serak:

- I, Pedro, iñik santzo
- Kuartillu bet pagetan bo(k)p(b)ai
- Pagauko yata gure bok, kuartillu bet pagauko yata
- D'esta pasauko eser?
- Ser pasauko(k)p(b)a?

Berak iten yok lelengo au: belarriek atzamarrakas sarratu, da gero, nekasuen dies, kriston oyue, santzoa, bueeeeeno!

Ardiyekas lo iteban beti Tráperok. Soterok, Gabonak pasetako ardiyek saindu in bisien orduen, da, orduen, librien planteta san piñue, da, guardie geunken, ori, sera, Ipiñeburukue, da, beti ba ardiyek e denuntziatzen ingo dausela ta, au ta bestie ta, bai, te, denuntzi betzuk u pagau be indoas. Da, Tráperoi esan gauntzen:

- I, ardaue emongostat eta ardiyek saindukosak?

Da, ni, botilla andi bet, asunberdikue, da Sotero(k)p(b)esto bat, nauk eruen nontzesan, da:

- Aiba Pedro
- Ardiyek saidukus, Gabonak pasau artikoa.

- Ori kontua izango dok
- Bai, letxes, Matxitok kapatu ebala ba!
- Zergaitino ba?
- Ba, talentoak emon eutsolako
- Ori entzun joat e baina kontua izango dok ori, no me jodas!

Tráperok urte batean sekula frakarrik ez eban garbitu. Frakak eukazan lustreagaz, satsa, lustrea. Eta, frakak apurtan jakozanean, alanbreagaz josi eta aurrera.

Eta, Segundo, Tráperon anai zean ezta, gizona altua, tremendoa zean. Eta ardoa gustetan jakon sano, Tráperori. Eta, baten Barazarren badinotsak e zerak:

- I, Pedro, egin egik zantzo
- Kuartillu bat pagetan badok bai
- Pagatuko jak gura badok, kuartillu bat pagatuko jak
- Eta ez da pasatuko ezer?
- Zer pasatuko dok ba?

Berak egiten jok leenengo au: belarriak atzamarrakaz zarratu, eta gero, nekasuen dies, kristoren oiua, zantzoa, bueeeeeno!

Ardiekaz lo egiten eban beti Tráperok. Soterok, Gabonak pasetako ardiak zaindu egin bear ziran orduan, eta, orduan, librean plantetan zan pinua, eta, guardea geunkan, ori, zera, Ipiñaburukoa, eta, beti ba ardiak e denuntziatu egingo dauzala eta, au eta bestea eta, bai, eta, denuntzia batzuk u pagatu be egin dodaz. Eta, Tráperoi esan gauntson:

- I, ardaoa emongo deustat eta ardiak zainduko dozak?

Eta, ni, botilla andi bat, azunberdikoa, eta Soterok beste bat, neuk eroan neuntsazan, eta:

- Aiba Pedro
- Ardiak zainduko doguz, Gabonak pasatu arte(ra)koa.

Baie, se in dau (Tráperok)? Kortxue kendu botillardaueri te, bakisu se esaosten?

– Lelengo seuk probau- bildurre enbenenauko ete odan!

Da, e(s)tx(y)egoan, Arralden e(s)-tx(y)egoan urik, da yuten suan ureske Trápero Mantzarroga(r)a, d'andi kantin bete, esebes, e(s)tx(y)oan ekarten. Esnie batzen yuan igesko kantin ugeras, da sesangostat, Estanisek erosten yotzan gastaye, d'aren gastaye be gastaye isingo suan. Onik Basiliok eta, gastaye ona! Baie Trápero ikusi esketiño gastaye iten, Tráperok iñiko gastaye, e(s)tx(y)o(k)tx(y)aten San Pedro(k)p(b)e!

Besto baten, astoa eroan yoan soltu da Basarren jitanuen astoakas nastu d'erderari(k)tx(y)akin es, da yun soan da:

– Burro, mio, burro yo, burro mio, burro yo, burro mio, burro yo!- Tráperok

– Tiene uste errason- jitanuek

Eske, a morroskoa ikusite nok esan esetz? Trápero, ta bere anaiyie be gisontzarrak suasen isin be.

Baina, zer egin dau (Tráperok)? Kortxoa kendu botilla-ardoari eta, bada-kizu zer esan eustan?

– Leenengo zeuk probatu- bildurra enbenenatuko ete dodan!

Eta, ez jegoan, Arralden ez jegoan urik, eta joaten zoan ura eske Trápero Mantzarrogara, eta andik kantin bete, ezebez, ez joan ekarten. Esnea batzen joan igazko kantin ugerragaz, eta zer esango deustat, Estanisek erosten jotsan gaztaia, eta aren gaztaia be gaztaia izango zoan. Oneik Basiliok-eta, gaztaia ona! Baina Trápero ikusi ezketino gaztaia egiten, Tráperok eginiko gaztaia, ez jok jaten San Pedrok be!

Beste baten, astoa eroan joan soltu eta Barazarren jitanuen astoakaz naastu eta erderarik jakin ez, eta joan zoan eta:

– Burro, mío, burro yo, burro mío, burro yo, burro mío, burro yo!- Tráperok-.

– Tiene usted razón- jitanuak.

Eske, a morrozkoa ikusita nok esan ezetz? Trápero, eta bere anaia be gizontzarrak zoazan izan be.

85.7. Fraille legoa gaztai-eskean Ubidetik

Gero, ba, besto batzu(k)p(b)e ibilte sien eskean Ubideti te. Batzuk eurentzako baie besto batzuk u komentorako.

Baten e, ori Daniel pastorea txabola barruen da, olango baten, frailie, gizon kriston bat, frailie txabolara barrure. Da, Danielek e(s)tx(y)aukan, sera, miñien ullik eta ra! urten atera ta:

– Ser? permiso bari(k)p(b)arrure?

– Ni, legoa nais, legoa, Arantzasukue.

Gero, ba, beste batzuk be ibiltzen ziran eskean Ubidetik-eta. Batzuk eurentzako baina beste batzuk u komentorako.

Baten e, ori Daniel pastorea txabola barruan eta, olango baten, frailea, gizon kristoren bat, frailea txabolara barrura. Eta, Danielek ez jaukan, zera, miinean ulerik eta ra! urten atera eta:

– Zer? permiso barik barrura?

– Ni, legoa naiz, legoa, Arantzazukoa.

Baia, arek (g)astaiye gure. Se, emeti Seaniti Ubidera batuko auriesan 150 gasta bai. Arantzasuti etorri, alprojakas, saldien. Emen be gasta asko batutaurien d'eskupulariyo bat emototzien de yasta, pagaute. Da gurien be amak eta, erlijiiñue kristona aukien orduen. Emen danien ibilte san fraile legue, saldialprojok o bete artio.

86.1. Baltseo-dantza galarazo Ubiden

Baltzeuen kontue? Booo! Ori, or Seanuin, abariek es eban isten baltzeue yantzan eiten. Gogorrak sien, ie dana san pekatu, da, soñuei be infernuko auspue esatotzien.

Baie tranpie iteban jentiek, seinde, Igriiñaon erromeriye iten sanien, baltzeue iteko Sastegire pasetan sien, Orosko partera, d'an libre. D'emen Seanui te Dimeko linderoan, San Blasen be bardin, baltzeue iteko Dimera pasetan sien. Bai, Seaniko abariek e gogorrak suasen orretan. Orrikas disfrasaute ibilte sienakas kontus, e, errespetoa, nekasuen dies!

Da gero, ba, Ubidera allegau suan ori, d'emen be baltzeue proibiru abariek. Baie, gu(k)p(b)e tranpie iten giñun, Arabara pasau, ementxe dao linea, mugarriye, lenao aduanie.

Baten e, Ubiden, plasan, erromeriyen, Hipolito etorri saskun. Ba, musikue "Pintxe" da kuadrillie yantzan. Iguel ongo sien berrotamar edo irurogetamar pareja yantzan, emen Ubideko plasan. Da, eskuekas, olan inde (eskuak gora altzatuta) goye(k)tx(y)oteko moruko, Hipolito, kontzejala, da, proibiru, galaso baltzeue itea. Da ser in gendun? Aduanie pasau arantza ta emen guru

Baina, arek gaztaia gura. Ze, emetik Zeanuritik Ubidera batuko eudiezan 150 gazta bai. Arantzazutik etorri, alprojakaz, zaldian. Emen be gazta asko batuten eudien eta eskupulario bat emoten eutsien eta ya está, pagatuta. Eta gurean be amak-eta, erlijinoa kristorena eukien orduan. Emen danean ibiltan zan fraile legoa, zaldi-alprojok o bete arteraino.

Baltseoaren kontua? Baaaaa! Ori, or Zeanurin, abadeak ez eben itxiten baltseo dantzan egiten. Gogorrak ziran, ia dana zan pekatu, eta, soinuari be infernuko auspoa esaten eutsien.

Baina tranpea egiten eban jenteak, zeinda, Egiriñaon erromeria egiten zanean, baltseo egiteko Sastegira pasetan ziran, Orozko partera, eta an libre. Eta emen Zeanuri eta Dimako linderoan, San Blasen be bardin, baltseo egiteko Dimera pasetan ziran. Bai, Zeanuriko abadeak e gogorrak zoazan orretan. Orreikaz disfrazatuta ibiltan ziranakaz kontuz, e, errespetoa, nekasuen dies!

Eta gero, ba, Ubidera allegatu zoan ori, eta emen be baltseo proibitu abadeak. Baina, guk be tranpea egiten gendun, Arabara pasatu, ementxe dago linea, mugarria, leenago aduanie.

Baten e, Ubiden, plazan, erromerian, Hipolito etorri jakun. Ba, musikua "Pintxe" eta kuadrillea dantzan. Igual egongo ziran berrogeitamar edo irurogeitamar pareja dantzan, emen Ubideko plazan. Eta, eskuekaz, olan eginda (eskuak gora altzatuta) goiak joteko moduko, Hipolito, kontzejala, eta, proibitu, galarazo baltseo egitea. Eta zer egin gendun?

guk, aintxe in baltzeue, Arabara pasau, or bertan dao linea, mugarriye.

Lenao, erromeriye ilundu baño lenao akabeta san da iluntzeko kanpaia(k)tx(y)o orduko etzera, da aimariyek erresau in bier beti e, txapela kendu te belauniko paraute. Oiñ e(s)tx(y)aok olakoik.

Aduanea pasatu arantza eta: "emen gura dogu guk". Antxe egin baltseoa, Arabara pasatu, or bertan dago linea, mugarria.

Leenago, erromeria ilundu baino leenago akabetan zan eta iluntzeko kanpaiak jo orduko etxera, eta abemariak errezatu egin bear beti e, txapela kendu eta belauniko paratuta. Orain ez jagok olakorik.

86.2. *Villarreal* esan eta *millaerreal* ulertu

Baten, or, Basar ganeti Ubidera bitartien, Otzandiyoko kurtzeruen parien, kamiñeruek on suasen euren sobrestantiegas, kamiño bastarrak garbitan.

D'alangonbaten, auto bat. Orduen auto gitxi yebilan gaurkorik, eta ba lotu suan autori te kamiñeru beteri preguntau:

- Oiga, voy bien para Villarreal, por favor?
- Ser? Nik iri mille erreal sor?
- Siii, Villarreal de Alava
- Millerreal d'alabie- nekasuen la letxe, kamiñeruek altzetan yok atxurre ta yoteko plantau sanien, e, autokuek esan yotzan
- Pero, escuche uste, escucheme uste...
- A!, eskutzik (g)urok e, ba oin ikusikok.

Itxi atxurre lurrien da ukubilok altzaubasanien, autokuek arrankau te ospa in yuan, ostantzien lepue berotute yungo suan Villerlera.

Baten, or, Barazar ganetik Ubidera bitartean, Otxandioko kurtzeroaren parian, kamineruak egon zoazan euren sobrestanteagaz, kamino bazterrak garbitan.

Eta alangoren baten, auto bat. Orduan auto gitxi jebilan gaurkorik, eta ba lotu zoan auto ori eta kamineru bateri preguntatu:

- Oiga, voy bien para Villarreal, por favor?
- Zer? Nik iri mila erreal zor?
- Siii, Villarreal de Alava
- Mila-erreal eta alabea- nekasuen la letxe, kamineruak altzetan jok aitzurra eta joteko plantatu zanean, e, autokoak esan jautsan
- Pero, escuche usted, escucheme usted...
- A!, esku utsik gura dok e, ba orain ikusiko dok.

Itxi aitzurra lurrean eta ukabilok alztatu ebazanean, autokoak arrankatu eta ospa egin joan, osterantzean lepoa berotuta joango zoan Villarrealera.

86.3. Sexu harremana kobratu eta frakasatu

Emen, bateri, isena eskoas esaten e, ba, gustetan yakon andra eskonparri bet, asko gustau be e.

Emen, bateri, izena ez goaz esaten e, ba, gustetan jakon andra ezkonbarri bat, asko gustatu be e.

Andi siri orti siri konsegidu oan tratue itea, d'andriek e, kobrau in otzen, urte beteko errentia ta mille pesta, d'emotzen dirue, baie baten-goagaiti bakarrik e. Baie, gison orreri es otzen funsionau bier dan moruen asuntoak, esebes.

D'andi amabost egunera ero, gison ori atzera yoan san andriegana bakarrik egoan batien. Da yoan san armaute doiela pentzate, d'andreak esan otzen:

- Su, gure bosu, (párteatara eskua botata), au emen dao, baie, mille peseta.
- Joe, baten, andrie baten pagauskero pagaute oten da
- Es, es, es, au (ankartekoa) gure bosu, bai, au emen dao, baie mille peseta.- baie es otzen asetetan mille peseta pagatea ta, orduen esan otzen-
- Su, suri bakisu ser pas(e)tan yatzun?
- Ser pas(e)tan ya(t)p(b)a niri?

Suri pas(e)tan yatzu: begiek (g)ure ta txitxine logure!

Andik ziri ortik ziri konsegitu euan tratua egitea, eta andreak e, kobratu egin eutsan, urte bateko errentea eta mila pezeta, eta emon eutsan dirua, baina batengoagaitik bakarrik e. Baina, gison orreri ez eutsan funsionatu bear dan moduan asuntoak, ezebez.

Eta andik amabost egunera edo, gison ori atzera joan zan andreagana bakarrik egoan batean. Eta joan zan armatuta doala pentsatuta, eta andreak esan eutsan:

- Zu, gura badozu, (párteatara eskua botata), au emen dago, baina, mila pezeta.
- Joe, baten, andrea baten pagatu ezkerro pagatuta egoten da
- Ez, ez, ez, au (ankartekoa) gura badozu, bai, au emen dago, baina mila pezeta.- baina ez eutsan azeptetan mila pezeta pagatea eta, orduan esan eutsan-
- Zu, zuri badakizu zer pasetan jatzun?
- Zer pasetan jat ba niri?

Zuri pasetan jatzu: begiak gura eta txitxina logura!

86.4. Kuba-ra joan zen abadea

Baten, Kuba-ra yun san abare bat emeti, Erlijiñue erakusteko ero. Da, an presentau in biban arenbatera. Da presentau sen lekuko orrek, saludau te serak inde, onan, goiti bera begitutzen biten ero iru bider edo olan da, esaotzen e:

- hombre blanco vestido de negro...a cortar caña, y si no, a España.

Gero e(s)tx(y)akiyat se in yuen abari orregas, an lotuko suan beste askon moruen. Bromie isingon suan.

Baten, Kuba-ra joan zan abade bat emetik, Erlijinoa erakusteko edo. Eta, an presentatu egin bear eban arenbatera. Eta presentatu zan lekuko orrek, saludatu eta zerak eginda, onan, goitik beera begiratu eutsan bitan edo iru bider edo olan eta, esan eutsan e:

- hombre blanco vestido de negro...a cortar caña, y si no, a España!

Gero ez jakiat zer egin juen abade orregaz, an lotuko zoan beste askoren moduan. Bromea izango zoan.

87.1. Otxandioko bizitza eta Santa Mañeak

Nire ama isete(n) san ona ta yuten san leku gustira biarrak itten, se bere gisona gerran desaparecido in san, da bisitzen san amandrias, da ni bebai. Nik es noan esagutzen aittitte, baie osaba danak.

Da, bein, es san etorri Gumer-sindo, iseten san bere gisona, amandrien gisona. Da gero, topau eban txabola baten. Da, esan al dot ori? Ildde topau eban da gero enterrau da, ya (e)sta, akabo san.

Gero, bisi san amandrie obe-tuau, bakarrik, bere etxien. Da oso garbiye iseten san da niri asko gure nauen. Da gero, ba, bera, bisi san bakarrik. Elisa yuten san, erromeriya gustiyetan; ta Otxandiyoko kantak, berak kanteta ebasan danak, amandriek. Da gero, kantau orrek (g)ausa gustiyok, da etxia. Da gero, apurtxo ba(t)tx(y)an da yuten san errusaiyua, da errusayutik etxera.

Otxandiyoa yuten nintzen Santa Mañ(e) egunien, da paseta(n) noan ondo. Da kantetan gendun:

Agur Santa Mariña
enai es betiko
beste urte betian
enais etorriko.
Agur eleisa barri
agur Sa(n) Martoia
agur bolalekua
agur iturria.

Beste kanta au be bai:
Saltzen, saltzen
txakur txiki baten karameluak
esta muy bien
esaten dau konfiteruak.

Nire ama izaten zan ona eta joaten zan leku guztira bearrak egiten, ze bere gizona gerran desaparecido egin zan, eta bizitzen zan amandreagaz, eta ni be bai. Nik ez neuan ezagutzen aitita, baina osaba danak.

Eta, bein, ez zan etorri Gumersindo, izaten zan bere gizona, amandreen gizona. Eta gero, topatu eban txabola baten. Eta, esan aal dot ori? Ilda topatu eban eta gero enterratu eta, ya está, akabatu zan.

Gero, bizi zan amandrea obetoago, bakarrik, bere etxean. Eta oso garbia izaten zan eta niri asko gure nauen (sic). Eta gero, ba, bera, bizi zan bakarrik. Elizara joaten zan, erromeria guztietan; eta Otxandioko kantak, berak kantetan eban danak, amandreak. Eta gero, kantatu orreik gauza guztiok, eta etxera. Eta gero, apurtxo bat jan eta joaten zan errosiora, eta errosariotik etxera.

Otxandiora joaten nintzan Santa Mañe (Santa Marina) egunean, eta pase-tan neuan ondo. Eta kantetan gendun:

Agur Santa Mariña
ez naiz ez betiko
beste urte batean
ez naiz etorriko.

Agur eleiza barri
agur San Martoia
agur bolalekua
agur iturria.

Beste kanta au be bai:
Saltzen, saltzen
txakur txiki baten karameluak
está muy bien
esaten dau konfiteruak.

Cuando vamos a Otxandiano
 Santa Mañ(e) egunian
 mekaguenlamar
 tomaremos chocolate
 Vulcanoren aurrian.

Da gero, yuten giñen berbena, berbena batea. Da, urrengo egunien bakillak ikusten yuten giñen, da gero, amarretakue. Amarretakue eitten gendun da dantzak ikusten yuten giñen. Da gero, pelota partidue egote san, ta, osabak olgau eitt(e) eban pelotan. Ta gero, meriyendetan etxia.

Urrengoko egunien e, ostera, bakillak ikusten, da igual iru egunien. Erreka, irugarren egunien yuten giñen erreka erropie garbitzen. Garbittu ta etorten giñen plasa, ta plasan artzen gendun limonadie (kantatu egiten dau):

Limonadia akabaturik,
 akabaturik
 Otxandiyoko yende gustiya
 dago tristerik
 epel-epelik.
 Da, or akabetan sien yaiyek.

Cuando vamos a Otxandiano
 Santa Mañe egunian
 mekaguenlamar (me cago en la mar)
 tomaremos chocolate
 Vulcanoren aurrian. (Plazako iturrian dago Vulcano-ren irudia)

Eta gero, joaten ginan berbenara, berbena batera. Eta, urrengo egunian bakillak ikusten joaten ginan, eta gero, amarretakoa. Amarretakoa egiten gendun eta dantzak ikusten joaten ginan. Eta gero, pelota partidua egoten zan, eta, osabak olgatu egiten eban pelotan. Eta gero, meriyendetan etxera.

Urrengoko egunian e, ostera, bakillak ikusten, eta igual iru egunian. Erreka, irugarren egunian joaten ginan errekarara erropea garbitzen. Garbitu eta etorten ginan plazara, eta plazan artzen gendun limonadea (kantatu egiten dau):

Limonadia akabaturik,
 akabaturik
 Otxandioko jende guztia
 dago tristerik
 epel-epelik.
 Eta, or akabetan ziran jaiak.

87.2. Ur bako etxeko garbi-ikuzia

Etxien esan egoten urik, da, yuten giñen erreka balde baten erropias denpora ona ittebanien. Da gero garbittuten gendun erropie. Da ipintten gendun kordela batzuekin siketzen. Da, a siketu arte, e, sartuten giñen erreka, kangrejuak artzen, gosue(k)t(d)ies kangrejuak, balde baten kangrejuak eruten basen, da gero, erropie siketzen sanien, ipintten noan doblaute d'eruten noan isekon etxea.

Etxean ez zan egoten urik, eta, joaten ginan errekarara balde baten erropeagaz denpora ona egiten ebanean. Eta gero garbituten gendun erropea. Eta ipintten gendun kordel batzuekin siketzen. Eta, a sikatu arte, e, sartuten ginan errekarara, kangrejuak artzen, gozoak dira kangrejuak, balde baten kangrejuak eroaten basen (ebazan?)(sic), eta gero, erropea siketzen zanean, ipintten neuan doblatuta eta eroaten neuan izekoaren etxera.

87.3. Negua Otxandion

Neguen, denpora txarra ittebanien, d'edur asko kalien, esan ibiltten iñorbes, nau bakarrik. Da yuten nintzen eskola. D'an maistriek emoten nauen armosue. Gero biltzen nauen egur eske Ayuntamentua da eruten noan eskola. Estufie isetzen gendun da, an, ba biyok, berbetan egoten giñen da gero amabiyetan esaten nauen:

– Begoña, ordue da, da, etxia yun bi dosu d'esaittes etorri arratzaldien denpora txarra dagoelako.

Da, enintzen yuen arratzaldien, baie, ni yuten nintzen kalea, busti bustitte ibiltte nintzen, da, dana, da, amandrie etorte san nauri topetan, da yo itten nauen, ba, bustitte yute nintzelako etxia. Da, amandrek sue itteban da naure erropie siketzen ipinteban. Da, siketute gero, urregoko egunien eskola. Da gero, egunero egunien bustitten nintzen, edurre esan kentzen, da, gero, amandrie(k)tx(y)o, d'ama(k)p(b)e bai, baie nire ama, nire ama bierra itten yuten san se gizona gerran desaparesidu san.

Neguan, denpora txarra egiten ebanean, eta edur asko kalean, ez zan ibiltten inorbe, neu bakarrik. Eta joaten nintzan eskolara. Eta an maistreak emoten nauen(sic)(eustan) armozua. Gero biltzen nauen(sic) (ninduen) egur-eske Ayuntamentura eta eroaten neuan eskolara. Estufea izetzen gendun eta, an, ba biok, berbetan egoten ginan eta gero amabietan esaten nauen(sic) (eustan):

– Begoña, ordua da, eta, etxera joan bear dozu eta ez zaitetz etorri arratsaldean denpora txarra dagoalako.

Eta, ez nintzen joan arratsaldean, baina, ni joaten nintzan kalera, busti bustita ibiltten nintzan, eta, dana, eta, amandrea etorten zan neu(ri) topetan, eta jo egiten nauen(sic) (ninduen), ba, bustita joaten nintzalako etxera. Eta, amandrek sua egiten eban eta neure erropea siketzen ipinten eban. Eta, sikatuta gero, urregoko(ko) egunean eskolara. Eta gero, egunero egunean bustiten nintzan, edurra ez zan kentzen, eta, gero, amandreak jo, eta amak be bai, baina nire ama, nire ama bearra egiten joaten zan ze gizona gerran desaparezidu zan.

88.1. Anbotoko Señorea eta jentilak Diman

Anbotoko Señoreana nik entzuten nauen, ba selan gaubes paseta san emetik e, ser dauko isena ba, bai, Anbototi ona Petralandara, errekorridue orra itauela gaubes, d'an ibilte sala batera ta bestera.

Yent(z)ilek(sic.) ote siala or Baltzolan esataurien. Or dao Yentilsu-bie, d'or ote siala Yentilek.

Anbotoko Señorearena nik entzuten neuan, ba zelan gaeuz pasetan zan emetik e, zer dauka izena ba, bai, Anbototik ona Petralandara, errekorridua orra egiten euala gaeuz, eta an ibiltten zala batera eta bestera.

Jentilak egoten zirala or Baltzolan esaten eudien. Or dago Jentilzubaia, eta or egoten zirala Jentilak.

Petralanda, aintxe dao, Lamindaon, aintxe dao Petralandako landea. Suk esan dosun moduen, ondoan dao Txibixao, len landea baie oin piñu. Or, or itauriesan fetxoriok orrik sorginok eta, kontuek isingoireres baie, entzutea.

Petralanda, antxe dago, Lamindaon, antxe dago Petralandako landea. Zuk esan dozun moduan, ondoan dago Txibixao, leen landea baina orain pinu. Or, or egiten eudiezan fetxoriok orreik sorginok-eta, kontuak izango dira baina, entzutea.

88.2. Patakon lotsa-galdua

Patakon, entzutea dauket ori. Lotzagalduek isin bear auen seguru se, boda gustietara yoaten sala daukat entzutea. Isites, estaki(t)p(b)a isin basan emeti Izurza(sic) edo Mañari aldekoa. Da, ba boda gustietara yoate san, boda gustietan agarta san, seguru, inbitau bari(k)p(b)e bai, konbitik emon barik e. D'esatotzien e:

– Selan satos ba? Noin parteti?

– Nok esan doste etorri es iteko ba?

Da, ba, bodo(k)tx(y)an da ba ospa itauen. Lotzagaldue isin be in in bear e olangoak iteko.

Beti ibilte san non ser arrapauko, errekan espasan, ortuen, batean espada bestean baie beti seoser bere sakutoan, iñona klaro.

Patakon, entzutea daukat ori. Lotsagalduek izan bear euan seguru ze, boda guztietara joaten zala daukat entzutea. Izatez, ez dakit ba izan bazan emetik Izurza edo Mañari aldekoa. Eta, ba boda guztietara joaten zan, boda guztietan agertan(agertuten) zan, seguru, inbitatu barik be bai, konbiterik emon barik e. Eta esaten eutsoen e:

– Zelan zatoz ba? Noren partetik?

– Nok esan deust etorri ez egiteko ba?

Eta, ba, bodok jan eta ba ospa egiten euan. Lotsagalduek izan be egin-egin bear e olangoak egiteko. Beti ibiltzen zan non zer arrapatuko, errekan ez bazan, ortuan, batean ez bada bestean, baina beti zeozer bere zakutoan, inorena klaro.

88.3. Maletxoreak Igorre eta Diman

Orrik itauriesan gause txarrak. Kudrilla junteta san da iñon direnak itauriesan.

Iorren i aurien baten, ba, alargun beteri ortuarie ostu otzien da merindafarie in aurekas. Da gero, onik maletxoreok o yoate sirean goxeko bedratzietako mesara, domeketan, Iorren goxeko mesara. Da, Baltzolakoa isites, semea egon san an (H)ilario, Don (H)ilario egon san an

Oorreik egiten eudiezan gauza txarrak. Koadrilla juntetan zan eta inon diranak egiten eudiezan.

Igorren egin eudien baten, ba, alargun bateri ortuarie ostu eutsoen eta merindafaria egin eurekaz. Eta gero, oneik maletxoreok o joaten ziran goizeko bedratzietako mezara, domeketan, Igorren goizeko mezara. Eta, Baltzolakoa izatez, semea, egon zan an Hilario, Don

parroko. Da, gos baten, maletxoreok o, ba, mesara d'esautzien ba se, sermoian, pulpitudi:

- Ser esanyo(k)p(b)a?- euretaiko batek-. Se Don (H)ilariok sermoian esatuen se pasetan dan astebarruen-.
- Bakik se esan dauen? Esanyo(k)-p(b)a se, alarguntxoari ostu barik soloan, ortuen ostu barik ortuarie, alarguneri ostu barik i berari ostu daitziela, ori in yok sermoian
- Ori esan yok? Ba, oin i, gaubean berari inbitxuk lapurretan.

Da, trataurien, auki ausen Don (H)ilariok txabolatxu beten bedratzi ollo d'ollarra, d'esauen batek:

- Ontxe gaubean ostu bitxusek olloak eta kukurrukue itxiko yuk.

Bea, ipini otzien kukurrukueri ankan amarraute auxe letreru au, baie, erderas eskribidute: "Estoy viudo desde las tres y media de la madrugada".

Da, abadean arrabea yoan san urrungo egunean yaten emoten betiko moduen ollategire d'ollarrak ooooo!ooooo!ooooo! batera ta bestera asarre itotzen. D'arraborrek e:

- Ai- ai- ai, (H)ilario! Gurean pasetan dana? Bart olloak eroan ditues d'ollarra(k)t(d)auko ankan ipinite letrerue.
- Arrapau t'ekarristesu ia se iminten dauen,- Don (H)ilariok.

Da, besteak, Don (H)ilariok esautzen leidu auenean arrabeari:

- "Estoy viudo desde las tres y media de la madrugada"-iminten dau letreru onek. Ai, orrik maletxoreok! Ederra pegauskue!

Don (H)ilariok o geao es ia auen sertu sermoietan ostuterik et'olango-rik. Eskarmentau sen antza. Baie,

Hilario egon zan an parroko. Eta, goiz baten, maletxoreok o, ba, mezara eta esan eutsien ba ze, sermoian, pulpitudi:

- Zer esan jok ba?- euretariko batek-. Ze Don Hilariok sermoian esaten euan zer pasetan dan astebarruan-.
- Badakik zer esan dauan? Esan jok ba ze, alarguntxoari ostu barik soloan, ortuan ostu barik ortuarria, alargunari ostu barik i berari ostu daitziela, (dagoiela) ori egin jok sermoian.
- Ori esan jok? Ba, orain i, gauean berari egin bear jautsaguk lapurretan.

Eta, tratatu eudien, euki euazan Don Hilariok txabolatxu baten bederatzi ollo eta ollarra, eta esan euan batek:

- Oraintxe gauean ostu bear jautsaguzak olloak eta kukurrukua itxiko joaguk.

Baina, ipini eutsoen kukurrukuari ankan amarratuta auxe letreru au, baina, erderaz eskribituta: "Estoy viudo desde las tres y media de la madrugada".

Eta, abadearen arrebea joan zan urrungo egunean jaten emoten betiko moduan ollategira eta ollarrak ooooo!ooooo!ooooo! batera eta bestera aserre egiten eutsan. Eta arraba orrek e:

- Ai- ai- ai, Hilario! Gurean pasetan dana? Bart olloak eroan dituez eta ollarrak dauka ankan ipinita letrerua.
- Arrapatu eta ekarri egistazu ia zer iminten dauan,- Don Hilariok.

Eta, besteak, Don Hilariok esan eutsan leidu euanean arrabeari:

- "Estoy viudo desde las tres y media de la madrugada"-iminten dau letreru onek. Ai, orreik maletxoreok! Ederra pegatu deuskuel!

Don (H)ilariok o geiago ez ia euan zertu, sermoietan ostuterik eta olango-

orrik maletxoreok? Orrik itzelak itarriesan.

rik. Eskarmentatu zan antza. Baina, orreik maletxoreok? Orreik itzelak egiten eudiezan.

88.4. Dima herriaren mugarri mitikoak

Dime, erri andie da eta orren istorie lusea da. Oin esangotzut segaitio dan andie Dimeko errie.

Zamakola isin sen emen kontornoan gizonik listoena. Dimekoa san, agaiti dauku errien bere isena Zamakola iminite.

Zamakolak itauen, bisi sen gaubes. Suterraneo bat aukitauen inde an San Balentin esaten yakon lekuen, suterraneo andi bet e suloa inde bate-ti bestera. San Balentin dao Obarantzako bidean, ermitea, d'aintxe, an auki be aukitauen aspiti kubea inde beretzako. Da itauen orrek (Zamakolak) egunes or, barruen, da gaubes kanpoti.

Da, baten, pentzaurien erriek (g)ustiek munarritu in beadisela bakotxan erriek eta ba, bueno, bale, traturien errietako gisona(k)t(d)-anak ori asuntori. Da ba, Zamakola, listoa e, bera be besteakas batera traturien.

Da pentzaurien munarritutea. Dimen inguruen bueltan-bueltan erri asko daos, bedratzi amar edo geao, mendie(k)p(b)e kontaute, seinde, Lemoa, Iorre, Arantzazu, Artea, Villaro estait seguru, Seani, Ubide, Otxandio, Abaiño, Mañeri, Durungo ta Sorrontza.

Da, Zamakolak esautzien ba se: tratau in biu danok o prest egoteko batera ollarrak kantetan dauenean. Kablooa edo dana dalako artu te bakotxa noraño allegetan dan, ba,

Dima, erri andia da eta orren istoria luzea da. Orain esango deusut zergaitino dan andia Dimako erria.

Zamakola izan zan emen kontornoan gizonik listoena. Dimakoa zan, agaitik daukagu errian bere izena "ZAMAKOLA" iminita.

Zamakolak egiten euan, bizi zan gauez. Subterraneo bat eukiten euan eginda an San Balentin esaten jakon lekuan, subterraneo andi bat e zuloa eginda batetik bestera. San Balentin dago Obarantzako bidean, ermitea, eta antxe, an euki be eukiten euan azpitik kuebea eginda beretzako. Eta egiten euan orrek (Zamakolak) egunez or, barruan, eta gauez kanpotik.

Eta, baten, pentsatu eudien erriak guztiak munarritu (mugarritu) egin bear dirala bakoitzaren erriak eta ba, bueno, bale, tratatu eudien errietako gizonak danak ori asunto ori. Eta ba, Zamakola, listoa e, bera be besteakaz batera traturien.

Eta pentsatu eudien munarritutea. Dimaren inguruan bueltan-bueltan erri asko dagoz, bederatzi amar edo geiago, mendiak be kontatuta, zeinda, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Villaro ez dakit seguru, Zeanuri, Ubide, Otxandio, Abadiño, Mañeri, Durango eta Zornotza.

Eta, Zamakolak esan eutsien ba ze: tratatu egin bear dogu danok o prest egoteko batera ollarrak kantetan dauenean. Kablooa edo dana dalakoa artu

aintxe iminteko munarrie aspian tella kaskue dala testigantzarako.

Danak atan. Baie onek, Zamakolak, isin san les ain listoa, se i auen? Ba, iluntzerantza arturunesko oreari paitarra nastu te ollarrari emon yateko t'ollarra moskor-moskor in, moskorra emon ollarrari. Orretara, goxaldeko iruterdietan yoten dau ollarrak jeneralmentean, baie Zamakolanak a gaubeko amabi-amabietan yo auen, seguru. Orduen Zamakolak artu kabalhoa ta, taka-taka-taka, Dimeri buelta osoa emoutzen beste errietakoak itxartu orduko. Baie, bauken malesie e, listoa san da. Se in auen? Ba bere kabalhoari erradurak atzekos aurrera yosi d'olan e baterantza yoan dalakoan besterantza yoan da munarriek sartu.

Orixe in i auen Zamakolak eta orrexegaiti de erri andie Dimeko errie eta ingurukoak txikerrak. Irusaku iotzien Zamakolak inguruko errikoari. Bueno, gaur Seani be andie da baie Gorbaierantza asi in salako, baie ostaintxean San Blasen dauko Dimegas munarrie. Zamakola listoa e? Listoti be pasae!

eta bakoitza noraino allegetan dan, ba, antxe iminteko munarria azpian tella kaskua dala testigantzarako.

Danak artan. Baina onek, Zamakolak, izan zan lez ain listoa, zer egin euan? Ba, iluntzerantza arto-urunezko oreari paitarra naastu eta ollarrari emon jateko eta ollarra mozkor-mozkor egin, mozkorra emon ollarrari. Orretara, goizaldeko iruterdietan jotzen dau ollarrak jeneralmentean, baina Zamakolarenak a gaueko amabi-amabietan jo euan, seguru. Orduan Zamakolak artu kabalhoa eta, taka-taka-taka, Dimari buelta osoa emon eutsan beste errietakoak itzartu orduko. Baina, baeukan malezia e, listoa zan eta. Zer egin euan? Ba bere kabalhoari erradurak atzekoz aurrera josi eta olan e baterantz joan dalakoan besterantz joan eta munarriak sartu.

Orixe egin ei euan Zamakolak eta orrexegaitik da erri andia Dimako erria eta ingurukoak txikerrak. Iruzaku egin eutsien Zamakolak inguruko errikoei. Bueno, gaur Zeanuri be andia da baina Gorbeierantz azi egin zalako, baina osterantzean San Blas-en dauka Dimagaz munarria. Zamakola listoa e? Listotik be pasatual!

88.5. Haltza eta pagoa botateko hazeguna

Altzagas asiko gara. Altza, isites bigune da baie nos ebagi yakin eskerro sano sostenitan da, asko agoantetan dau. Bea, orretarako bota beasan maitze idergibarrien biti irure bitartean, aintxe bota bea san, d'ori ite san dana sikitu, da, esta usteltan, sitze(k)-p(b)e estau yaten da gause askotarako balio isiten auen, seinde, bustu-

Altzagaz asiko gara. Altza, izatez biguna da baina noiz ebagi yakin ezkerro sano sostenietan da, asko aguantetan dau. Baina, orretarako bota bear zan maiatz idergibarrian bitik irura bitartean, antxe bota bear zan, eta ori egiten zan dana sikatu, eta, ez da usteltan, sitsak be ez dau jaten eta gauza askotarako balio izaten euan, zeinda, buztarriak egiteko,

rriek iteko, edo bentana-markoak edo errotarren eja edo ardatzerako be bai, baie ortxe egunean isin bea dau, orixe da bere asegune, ostaintxe-an usteldu iten da atoan. Altza baño arinago usteltakorik estao.

Da, ba, esaneko ortxe egunean, yoan, da altz meari goatzean botzesu, ba, domau iten da baie apurtu edo arrankaldu es.

Da, gero beste edosein egur, sue iteko gure bosu, egurre fuertean iteko, idergi barrien bota, bai, idergi barrien, sue iteko edosein arbola idergi barrien ebagi.

Pagoa(k)p(b)e bere tertzioa dauko botateko: agostuen 20ti 31ra, d'or materialak urtetan dau suri-suri-suri, axe da onena, tertzio orretan botea. Pagadui asko daukus emeti, baie pagalandarea logretea esta isiten fasile d'orrexegaiti pagoak iñausi iten dire ta gero bere erramatati aprobe-txau egurre pagoa bera eperditi bota barik.

Piñu landarea oster, fasilago logretan da. Piña(k)p(b)atu, labean berotu, asie apartau te gero sabien erein. Erne ta gero tamañu betera allegau orduen atera ta basoan sartu landara bakotxa bere sulloan, piñu-sartzea esaten yako orreri.

Piñuek e urte onak emon doskuz baie ontxe bajutxu dabil. Oin i idari(k)p(b)e esta ebaten da piñu egurre be merke dabil. Entresaka(k)p(b)e egitalde edo noberak pagau bear. Oin kanpoti dator material asko, Frantzietai te.

edo bentana-markoak edo errotarren eja edo ardatzerako be bai, baina ortxe egunean izan bear dau, orixe da bere azeguna, osterantzean usteldu egiten da atoan. Altza baino arinago usteltakorik ez dago.

Eta, ba, esaneko ortxe egunean, joan, eta altz meari goratzen badeutsazu, ba, domatu egiten da baina apurtu edo arrankaldu ez.

Eta, gero beste edozein egur, sua egiteko gura badozu, egurra fuertean egiteko, idergi barrian bota, bai, idergi barrian, sua egiteko edozein arbola idergi barrian ebagi.

Pagoak be bere tertzioa dauka botateko: abuztuaren 20tik 31ra, eta or materialak urtetan dau zuri-zuri-zuri, axe da onena, tertzio orretan botea. Pagadui asko daukaguz emetik, baina pagalandarea logretea ez da izaten fazila eta orrexegaitik pagoak inausi egiten dira eta gero bere erramatatik aprobetxatu egurra pagoa bera eperditik bota barik.

Pinu-landarea oster, fasilago logretan da. Piñak batu, labean berotu, azia apartatu eta gero sabian erein. Erne eta gero tamainu batera allegatu orduan atera eta basoan sartu landara bakoitza bere sulloan, pinu-sartzea esaten jako orreri.

Pinuak e urte onak emon deuskuz baina oraintxe bajutxu dabil. Orain i idarik be ez da ebagiten eta pinu-egurra be merke dabil. Entresakak be egitalde edo norberak pagatu bear. Orain kanpotik dator material asko, Frantziatik- eta.

88.6. Makerea erosi eta ordotsak urten

Lenao, feriek ite sian emen Arratiko ainbet erriten esta, ta ba,

Leenago, feriak egiten ziran emen Arratiako ainbat erritan ezta, eta ba,

baten Obako bat Iorreko ferire yoan san makera bille txarrikumak iteko.

Yoan san da ba, andi txikitoa orti anise, ba txispau in sen Obakoori te ba asi sen tratuen da tratante bateri esautzen ba se:

- I, makera bat erosikoat aurrerantza txarrikumak iteko moduko bat
- Bai, mutil, - ikusi auen edan-edan inde daoela ta-, aikomen makera eder au, errrapea be bete beteri(k)-tx(y)aukek eta laster yosak umeak.
- Da, segan dauke(k)p(b)a?
- B'onenbestean.
- Bale, tratue inde yaok, eutsos diruok eta ekak makerori.

Iaurien tratu ori te ba Obakoori yoan be in sen selan edo alan bere etxera makera ta gusti, da, sartu auen kortako txarrikortan, kortatxie be esatotzie, d'an.

Andreak a barruntauenean, yoan san makerori ikusten da badiñotze gison orreri:

- Ai, gisontxo, gisontxo, ederra ekarri ostesu, makerea barik ordotza da ba ta, potroak (g)alanta(k)t(d)-ekos, estotzesus ikusi ala?
- E-e-e? Ba, oin eiñek inde daos d'o-nek umeak a derigor in bitus.
- A, ganorabakoa alangoa, aurrekori(k)p(b)estosu ikusten da, soas pajarrera, txispori kendu arte, aurten gurean txarrikuma barik!

Onik i beridikue(k)t(d)ies e!

baten Obako bat Igorreko feriara joan zan makera bila txarrikumak egiteko.

Joan zan eta ba, andik txikitoa ortik anisa, ba txispatu egin zan Obako ori eta ba asi zan tratuan eta tratante bateri esan eutsan ba ze:

- I, makera bat erosiko deuat aurrerantz txarrikumak egiteko moduko bat
- Bai, mutil, - ikusi euan edan-edan egin-da dagoala eta-, aikomen makera eder au, errapea be bete betarik jaukak eta laster jozak umeak.
- Eta, zegan daukak ba?
- Ba onenbestean.
- Bale, tratua eginda jagok, eutsoz diruok eta ekark makera ori.

Egin eudien tratu ori eta ba Obako ori joan be egin zan zelan edo alan bere etxera makera eta guzti, eta, sartu euan kortako txarrikortan, kortatxia be esaten deutsie, eta an.

Andreak a barruntatu euanean, joan zan makera ori ikusten eta badiñotso gison orreri:

- Ai, gizontxo, gizontxo, ederra ekarri deustazu, makerea barik ordotsa da ba-eta, potroak galantak daukaz, ez deustazuz ikusi ala?
- E-e-e? Ba, orain eginak eginda dagoz eta onek umeak a derrigor egin bear dituz.
- A, ganorabakoa alangoa, aurrekorik be ez dozu ikusten eta, zoaz pajarrera, txispa ori kendu arte, aurten gurean txarrikuma barik!

Oneik i beridikuak dira e!

88.7. Bargastak kapatu barik kobratu

Au, Antonio, kapadore ibili sen. D'estai(t)p(b)a Iorren bertan isin sen ala Antzasun ferie. Da, Iorren ote san

Au, Antonio, kapadore ibili zan. Eta ez dakit ba Igorren bertan izan zan ala Arantzazun feria. Eta, Igorren egoten zan

gison bat a, beti faltak atetan danari, drogoso bat.

Baten, seguru, Antonio kapadoreak esan i otzen orreri gison faltor orreri ba se:

- I, txarririk edo animalirik kapetako iñon bayaok esaistek, ontxe astitzu ñabik eta
- Bai, bargasta bi yasak, ortxe urli lekuten yasak (neskasar bi isin sirean da burlesar esautzen besteak, esotu arren, isenak eta lekue eskoas esaten e, kreituegaiti)

Da, yoan san ara kapadorea tiki-taka, ta, ba, etxe orretara eldurduen badiñotzie ba se:

- Txarri bargasta bi daukosues kapetako esta?
- Nok esan dotzu te?
- Urliak,-(isena eskoas esaten se ori faltea isingo litike), urliak esaoste etorteko
- Ai-ai-ai- ori lotzabako gogaitue, lotzabakoa!-neskasar biek eurekitan-.

Da, gero, Antonio sur egon san. Antoniok ser i auen? Tiki-taka, Iorren urli orren etxera yoan d'andreamari esautzen ba se:

- Su, ba, txarri bi erositus sure gisonak ferien da kapaute itxi otxeas, da, kanbiorik estau auki t'esan doste onantza banator sauri eskatako dirue.
- Bueno ba, eutzi!

Da, ba allegau sen gison ori etxera d'andreak esautzen:

- Txarriek non dosus ba?
- Se txarri?
- Ba, ona etorri de Antonio kapadorea kobretan txarriek kapautzuzelata!
- Ai, jolin-jolin! Ederra pegauste!

gizon bat a, beti faltak ateraetan danari, drogoso bat.

Baten, seguru, Antonio kapadoreak esan ei eutsan orreri gison faltor orreri ba ze:

- I, txarririk edo animaliarik kapetako inon bajagok esan eistak, oraintxe astitsu niabilk eta
- Bai, bargasta bi jagozak, ortxe urli lekutan jagozak (neskazaar bi izan ziran eta burlazar esan eutsan besteak, ezagutu arren, izenak eta lekua ez goaz esaten e, kredituagaitik)

Eta, joan zan ara kapadorea tiki-taka, eta, ba, etxe orretara eldu orduan badinotsie ba ze:

- Txarri bargasta bi daukazuez kapetako ezta?
- Nork esan deutsu,- eta?
- Urliak,- (izena ez goaz esaten ze ori faltea izango leitike), urliak esan deust etorteko
- Ai-ai-ai- ori lotsabako gogaitua, lotsabakoa!-neskazaar biak eurekitan-.

Eta, gero, Antonio zuur egon zan. Antoniok zer egin euan? Tiki-taka, Igorren urli orren etxera joan eta andreamari esan eutsan ba ze:

- Zu, ba, txarri bi erosi ditu zure gizonak ferian eta kapatuta itxi deutsadaz, eta, kanbiorik ez dau euki eta esan deust onantz banator zeuri eskatuteko dirua.
- Bueno ba, eutsi!

Eta, ba allegatu zan gison ori etxera eta andreak esan eutsan:

- Txarriak non dozuz ba?
- Zer txarri?
- Ba, ona etorri da Antonio kapadorea kobretan txarriak kapatu deutsuzala eta!
- Ai, jolin-jolin! Ederra pegatu deust!

88.8. Hamabost misterioko errosarioa penitentzian

Gure aite indertzue isin sen e da, bearren be ona. Idiekas bear asko iteuen, ageak atetan da. Erri-idiek aukesan ederrak d'indartzuek. Erri-idiek e erri-beien moduko gorriskak sirean, basabeiek esatotzie gaur askok.

Da ba baten e, an Dimen, Txiki-tontzat ageak eta trongoan atetan ebisen gure aite, Nikomes da Txomin da biotati bat, Txomin, maldasiñotzean, seguru, idiokas da gure aitek esautzen ba se:

- Ai Txomin- Txomin, se gause ona dan abilidadea ta pasientzie
- Ni(k)p(b)ata bes,- bestea.

D'orduen, gure aitek, iluntzerantz bearrok akabau situesanean esautzien ba se:

- Bueno, errosarioa erresau biyuk orrin maldasiñoon penitentzi les se erre osak bastarrak (g)ustiek juramentuokas.

Da, gure aitek egunero erres-tauen errosario santue ta ba orduko egunean amabost misterioko errosarioa erresau aurien maldasiñoan penitentzireko.Egun orretan, ba iru errosario batera, errosario konpletoa.

Gure aite indartsua izan zan e eta, bearren be ona. Idiekaz bear asko egiten euan, ageak ateraten eta. Erri-idiak eukazan ederrak eta indartsuak. Erri-idiak e erri-beien moduko gorrizkak ziran, basabeiak esaten deutsie gaur askok.

Eta ba baten e, an Diman, Txiki-torentzat ageak eta trongoan ateraten ebilzan gure aita, Nikomes eta Txomin eta biotatik bat,Txomin, maldizintosean, seguru, idiokaz eta gure aitak esan eutsan ba ze:

- Ai Txomin- Txomin, ze gauza ona dan abilidadea eta pazientzia!
- Nik bata bez,- bestea.

Eta orduan, gure aitak, iluntzerantz bearrok akabatu zituezanean esan eutsien ba ze:

- Bueno, errosarioa errezatu bear joaguk orrein maldizinoon penitentzia lez ze erre dozak bazterrak guztiak juramentuokaz.

Eta, gure aitak egunero errezetan euan errosario santua eta ba orduko egunean amabost misterioko errosarioa errezatu eudien maldizinoen penitentzi-rako.Egun orretan, ba, iru errosario batera, errosario konpletoa.

88.9. San Blasetako baltseoa, zarta txanketan

Ori baltzeoana? Baiiiiiii! Or o Seani te Dimen linderoan, San Blasen ermitea dao t'or erromerie ite san. Baie Seaniko abadeak a esaurien isten baltzeoa yantzan iten. Da sarri dauket ikusite Seaniko aguasile sarteagas txanketan yoten baltzeoan ibilte sianari, barda ta txibitotza atetauen.

Ori baltseoarena? Baiiiiiii! Or o Zeanuri eta Dimaren linderoan, San Blasen ermitea dago eta or erromeria egiten zan. Baina Zeanuriko abadeak a ez eudien itxiten baltseoa dantzan egiten. Eta sarri daukat ikusita Zeanuriko aguasila zartagaz txanketan joten baltseoan ibiltzen ziranei, barda eta txibitotsa atera-

Edo ostaintxean e tranpea in bear. D'itauen askok e, sera, jotea akabaurduen baltzoea iteko pausu bet emon linderotik atxine, aratxuago, da Dime partera pasau, d'an e aguasilek esin yo sarteagas, Seaniti kanpo esin yo, bai, bai, nauk sarriten ikusite ori fetxori ori e.

ten euan. Edo osterantzean e tranpea egin bear. Eta egiten euan askok e, zera, jotea akabatu orduan baltzoea egiteko pausu bat emon linderotik antzina, aratxuago, eta Dima partera pasatu, eta an e aguazilak ezin jo zartagaz, Zeanuritik kanpo ezin jo, bai, bai, neuk sarritan ikusita ori fetxoria ori e.

89.1. J.M. Barandiaran entzuten beren berez

Ni, baten, Saldibarrea yuen nintzen Don Jose Migel Barandiaran ikusten d'entzuten, beren beres. An emoban txarla bat eta nik selan leidu neban, serien, periodikuen, estakit i korreue ero gaseta ero seiñ ixen san, baie beti auki ot oixe ameso, arexei gixonai entzutie, se, a ixen dan moruen Alemaniyan eta seak, estudiyaute dausena(k)p(b)a, ni e akordetan nas, selan ipiñi ban baten emen Garagartzako kueba baten, kobasulo baten, topauriela asurrek ero eskeletue, serena, "del oso gigante europeo" (hau erderaz dino), or Aramaïyon, da, sala, sulo txiki txiki bet e, baña asi siela atxurrekindde kentzen, lurre kentzen, lurre kentzen, da metro bit'erdi ero geiyao urteban. Antxe on i sien asurrek, oso gigante europeo orrenak.

Da Saldibarrea yuen nintzen, neure burut(te)ik e, beren beres, Otxandiyotik i bakar bakarrik, iño-gas beneban konsultau. Da, yuen nintzen, beren beres, se gure neban arixe gixona entzutie berbetan. Se leidute baneuken aren istoriye ta Frantziyan Euskalerrien bixi sala gerra serien da dana. Da gustau yatan asko berbaldiye. Da gero geiyao gustau yatana, se, an e, berak ataban ba

Ni, baten, Zaldibarrera joan nintzan Don Jose Migel Barandiaran ikusten eta entzuten, beren berez. An emon eban txarla bat eta nik zelan leidu neban, zerean, periodikuan, ez dakit i Korreoa edo Gazeta edo zein izan zan, baina beti euki dot orixe ames ori, arexeri gizonari entzutea, ze, a izan dan moduan Alemanian eta zerak, estudiantuta dagozanak ba, ni e akordetan naz, zelan ipini eban baten emen Garagartzako kueba baten, kobazulo baten, topatu eudiela azurrak edo eskeletoa, zerarena, "del oso gigante europeo" (hau erderaz dino), or Aramaion, eta, zala, zulo txiki-txiki bat e, baina asi zirala atxurrekin-eta, kentzen, lurra kentzen, lurra kentzen, eta metro bi eta erdi edo geiago urten eban. Antxe egon ei ziran azurrak, oso gigante europeo orrenak.

Eta Zaldibarrera joan nintzan, neure burutatik e, beren berez, Otxandiotik i bakar bakarrik, inogaz be ez neban kontsultatu. Eta, joan nintzan, beren berez, ze gura neban axe gizona entzutea berbetan. Ze leiduta baneukan aren istoria eta Frantzian Euskalerrian bizi zala gerra zerean eta dana. Eta gustatu jatan asko berbaldia. Eta gero geiago gustatu jatana, ze, an e, berak atera

Otxandiyoko otza, otza, bai. Oiñ onenbeste urte Otxandiyon esin leien bixi, se a parajie e(s) san kristaue(k)p(b)isiteko, otz aundiye euken Otxandiyon, ixotza, ixotza, bai, dana ixotza da, emen kristauek esin leiyela bixi, ba, orregaittik esateban ba selan datorren e munduko goraberak, len e paraje otzak sienak e, ba gaur jente asko bisi dala, da gerou te bero geiyau daoela amosferan, amosferie berotzen doiela esateban, bai.

eban ba Otxandioko otza, otza, bai. Orain onenbeste urte Otxandion ezin leikean bizi, ze a parajea ez zan kristauak biziteko, otz andia eukan Otxandion, izotza, izotza, bai, dana izotza eta, emen kristauak ezin leikela bizi, ba, orregaittik esaten eban ba zelan datorren e munduko gorabeerak, leen e paraje otzak ziranak e, ba gaur jente asko bizi dala, eta geroago eta bero geiago dagoala atmosferan, atmosferea berotzen doeala esaten eban, bai.

89.2. Anbotoko Señorea Otxandiotik zehar

Anbotoko Señorea? Bai, bai, bai. Guk esatetzagu Anbotoko Señorie beti. Nik aittei te entzunde, aittek eta, bueno, ipuñe moruen ero kontetaoskuen.

Ba, orti Gorbeiya pas(e)tan sala, estaitt urie pasetan ero, ala negue pas(e)tan, Anbototi Gorbeiya, bai, orixe.

Isuski bat erutebala, isuskiye, esateban arek, isuskiye, bai, giñarrie, eskoba. Da, emendik pas(e)tan san, e, emendi bertati Otxandiyoti(k). Or dao “sorgiñ estrada”, sorgiñen estradie, bai, orti itxuric, orti pas(e)tan san.

Sorgiñ estradie ementxe dao, ementxe justo, emen, onen etxe ostien, bai orti pas(e)tan sala neguen Gorbeya Anbotoko Señorie. Da gero jentie, ba, or billurte eitte san orti pas(e)tan, sorgiñen estradie salako a ber sorgiñen batek urtengoban billurres, bai.

Ipuñe moruen isingo da baie, serak, onen Marga Amaiterminguen amamak esateban, berak Anbotoko

Anbotoko Señorea? Bai, bai, bai. Guk esaten deutzagu Anbotoko Señorea beti. Nik aitari-eta entzunda, aita-eta, bueno, ipuina moduan edo kontetan euskuen.

Ba, ortik Gorbeia pasetan zala, ez dakit uda pasetan edo, ala negua pasetan, Anbototik Gorbeia, bai, orixe.

Isuski bat eroaten ebala, isuskia, esaten eban arek, isuskia, bai, ginarra, eskoba. Eta, emendik pasetan zan, e, emendik bertatik Otxandiotik. Or dago “sorgin estrada”, sorginen estradea, bai, ortik itxurea, ortik pasetan zan.

Sorgin estradea ementxe dago, ementxe justo, emen, onen etxe ostean, bai ortik pasetan zala neguan Gorbeia Anbotoko Señorea. Eta gero jentea, ba, or bildurte egiten zan ortik pasetan, sorginen estradea zalako a ver sorginen batek urtengo eban bildurrez, bai.

Ipuina moduan izango da baina, zerak, onen Marga Amaitermingoen amamak esaten eban, berak Anbotoko Señorea “lexiba joten” ikusi ebala

Señorie “lexibie joten” ikusibala Anboton, Aspe partien, d’iñok esautzela barreik eitten e.

Amaitermiñen euskerie be dife-
rentie eitten da, Otxandiyotik ur eon
arren. An, “jo” eta emen “yo”.
Amaitermiñek e bakisu sesan gure
daben? Ba, antza konde batek, or dao
Kondebaso be, ba, bere semea deste-
rrau eiban, antza, Otxandiyora eta
agindue emon otzan Amaitermiñetik
arantza pasau es eitteko. Ortik ei
dator isena be.

89.3. Begitxarra bota

Begiskue? Orrei guk u begitxa-
rra esatetzagu. Ori, ume bat ilte
sanién esate san: “orrei ume orrei
batenbatek e begitxarra bototzo”,
baie, es san ori, esan ori, es, es, es,
gaixoik ilte sien. Neu(k)p(b)e eruen
doas ume ba(t)p(b)año geiau ortu
santure, baie gaixoas ildde, d’es
begitxarras.

89.4. Otxandioko errementariak

Bueno, gerra aurrien es eguen
gause andik. Eguesan ba, katiga talle-
rrak, katiek eitteuriansan onik
Langarikana(k)p(b)e.

Errementariyek egote sien bi.
Bata esataurien Padilla, ta Padilla
sarra sala maixue, maixue serena, au
e, sera sortubana, or e, bai, Patrisio
Etxebarrian maixue isan i san Padilla
sarra. Beste errementariye Ruperto,
Erreportiko esaten geuntzen, bai,
Erreportiko Berrostegieta. Onek
gerrostien bier eitteban, bisi gusti-
yen. Orrek eittebasan askorak, atxu-

Anboton, Axpe partean, eta inork ez
eutsola barrerik egiten e.

Amaitermiñen euskerea be dife-
rentea egiten da, Otxandiotik ur egon
arren. An, “jo” eta emen “yo”. Amaiter-
minek e badakizu zer esan gura daben?
Ba, antza konde batek, or dago Konde-
baso be, ba, bere semea desterratu egin
eban, antza, Otxandiora eta agindua
emon eutsan Amaitermiñetik arantza
pasatu ez egiteko. Ortik ei dator izena
be.

Begizkoa? Orreri guk u begitxarra
esaten deutsalagu. Ori, ume bat ilten zane-
an esate zan: “orrei ume orrei baten-
batek e begitxarra bota deuto”, baina,
ez zan ori, ez zan ori, ez, ez, ez, gaixorik
ilten ziran. Neuk be eroan dodaz ume
bat baino geiago ortu santura, baina gai-
xoagaz ilda, eta ez begitxarragaz.

Bueno, gerra aurean ez egoan
gauza andirik. Egozan ba, katiga tallerrak,
kateak egiten eudiezan oneik Langari-
kanak be.

Errementariak egoten ziran bi. Bata
esaten eudien Padilla, eta Padilla zaarra
zala maixua, maixua zerarena, au e, zera
sortu ebana, or e, bai, Patrizio Etxeba-
rriaren maixua izan ei zan Padilla zaarra.
Beste errementaria Ruperto, Erreporti-
ko(sic) esaten geuntsan, bai, Erreportiko
Berrostegieta. Onek gerra ostean bear
egiten eban, bizi guztian. Orrek egiten

rrek, danetaik, areagiñek, layak, arranak, perrak, numero gustiyek, astuentzat, saldiyentzat, untza(k)p-(b)e bai, untzak asko, burdi txerrinkak, serrak, oi danoi eitte san, erreminta gustiyek, atxurrek neurri gustikuek e.

Da, entzutie, au Padilla ixen sala askoragiñe oso ona, mundu osoan saltzebasala bere askorak. Gure aittittei entzun notzan ba orrek e yarraittu baotxan oni! Baie Patrisiok ser iban? Ba, aumetau, bera(k)p(b)akarrik bier eiñbaik e artu iru lau lagun, erakutzi te gero ba aumetau. Bai, ori asi sala Padillas, Padilla maixuas.

Askorak eta eitteko, burdiñie einddeguen e. Nik ikusi ot ori e, sutegiyen sartu te, sera, leba bateas e martillu moruko bat, lelengo mailluas, gero etor san gabiye, baie lelen-go mailluas, eskus.

Gero e, arranak, ni nau(k)p(b)e aukioas d'aittei esan:

– onek arranak esan leike puskat e sea(k)t(d)ielan olan e rustiko, au e, soldarura baik, errematxeekin arranak goittik eta sulotu ta kobresko errematxeekin txapie, artu kobrie, kobreskuek sien orrek, da kobrie ba berotu da, danba-danba-danba eindde lamina bat a bueltan, d'arek alkar e soldadura baik, errematxeekin.

Errementariyek markie ipintozien perra, askora ta olangoai. Ruperto(k)p(b)e R.B. markie perra ta danai.

Bulkano? Bai, emen dauku iturriyen, ori de “ El dios del fuego”. Da errementariyek sue bi dau sutegiyen. Mutikuek auspueri emoten eitteben bier. Errementariyek albornososa yasten ebien, goittiberakue, gero amentalak.

ebazan aizkorak, aitzurrak, danetarik, area-aginak, laiak, arranak, perrak, numero guztiak, astoentzat, zaldientzat, untzak be bai, untzak asko, burdi txerrinkak, zerrak, ori danori egiten zan, erreminta guztiak, aitzurrak neurri guztikoak e.

Eta, entzutea, au Padilla izan zala aizkoragina oso ona, mundu osoan saltzen ebazala bere aizkorak. Gure aittitari entzun neutsan ba orrek e jarraitu baeutsan oni! Baina Patriziok zer egin eban? Ba, aumetatu, berak bakarrik bear egin barik e artu iru lau lagun, irakatsi eta gero ba aumetatu. Bai, ori asi zala Padillagaz, Padilla maixuagaz.

Aizkorak-eta egiteko, burdinea eginda egoan e. Nik ikusi dot ori e, sutegian sartu eta, zera, lebaATEGAZ e martillu moduko bat, leenengo mailuagaz, gero etorri zan gabia, baina leenengo mailuagaz, eskuz.

Gero e, arranak, ni neuk be euki dodaz eta aitari esan:

– oneik arranak esan leike pizka bat e zerak dirala olan e rustiko, au e, soldarura barik, errematxeekin arranak goitik eta zulotu eta kobrezko errematxeekin txapea, artu kobrea, kobrezkoak ziran orreik, eta kobrea ba berotu eta, danba-danba-danba eginda lamina bat a bueltan, eta arek alkar e soldadura barik, errematxeekin.

Errementariak markea ipinten eutsien perra, aizkora eta olangoei. Rupertok be R.B. markea perra eta danei.

Bulkano? Bai, emen daukagu iturrian, ori da “El dios del fuego”. Eta errementariak sua bear dau sutegian. Mutikoak auspoari emoten egiten eben bear. Errementariak albornoza jasten eben, goiti-beerakoa, gero amentalak.

Ba, orixe, emen Otxandiyon, kalekuek isen arren, burriña-bierra asko eindda eta leku askotako jentie etorte san erosten.

A, ori esaerie? Bai, “errementariye untzegiñ begigorriye”. Begiyek (g)orri euki bier!

Ba, orixe, emen Otxandion, kalekoak izan arren, burriña-bearra asko egin da eta leku askotako jentea etorten zan erosten.

A, ori esaerea? Bai, “errementaria untzegin begi-gorria”. Begiak gorri euki bear!

89.5. Sugeak esnea edan behiari gozo-gozo

Ori entzunde deket, e baserri-ttar batei, estaitt e nor san, baie, beiyei esnie utzitu, esne gitxi, esne gitxi te:

– Ser pas(e)tan ete ok emen? Oñio, sainddu biyua(t)p(b)a, sainddu biyuat- nik andriei esan da, semalabai tte, ba ia errapetik eraten deurien ero ba, estraperluen dabisen ero.

Da, ke, ba! alako baten parausen guardiyan, da, subie, subiek ankati gora igo beiyei te subie galanta, da, subiek eran, bai, errutik e, ba, gosogoso eraten ei eban.

Ori entzunda daukat, e baserri-tar bati, ez dakit e nor zan, baina, beiarisne utsitu, esne gitxi, esne gitxi eta:

– Zer pasetan ete dok emen? Oñio, zaindu bear joat ba, zaindu bear joat - nik andreari esan eta, seme-alabei eta, ba ia errapetik edaten daudien edo ba, estraperloan dabilzan edo.

Eta, ke, ba! alako baten paratusen guardian, eta, sugea, sugeak ankatik gora igon beiaris eta sugea galanta, eta, sugeak edan, bai, errotik e, ba, gozogozo edaten ei eban.

89.6. Baltseoa lehenengokoz Zeanurin

Ori bakitt. Seanuin abariek es eben baltzeue isten eta Otxandiyon bai, gu(k)p(b)ai, emen bai, ni yantzari gogorra ixen nas, da baltzeue be bai da Seanuin ba lelenengokos neuk.

Bai, se neskie edarra, neskie poolitte, serien itteban bier, Bilbon, bankuen baten ero eguen.

Aguasilek sartie atea euskun? Es. Gastiek ixen sien, gastiek itxurie sublebasioño bat eon san, sublebasioño bat eiben. Da egon giñen Elias España, nire koñetue dana Andres, sure osaba Andres (Txomin Bengo-

Ori badakit. Zeanurin abadeak ez eben baltseoa itxiten eta Otxandion bai, guk bai, emen bai, ni dantzari gogorra izan naz, eta baltseoa be bai eta Zeanurin ba leenengokoz neuk.

Bai, ze neskea ederra, neskea poolita, zerean egiten eban bear, Bilbon, bankuren baten edo egoan.

Aguazilak zarta atera euskun? Ez. Gazteak izan ziran, gazteak itxurea sublebasino bat egon zan, sublebasino bat egin eben. Eta egon ginan Elias España, nire koinatua dana Andres, zure osaba

aren osaba) da nau. Da guk an Seanuin amistadiek (g)eunkesan, da, orkestie, orkestie parau sen an, musikie, ta, asi giñen yantzan, baltzeue yantzan. Se a neskie oittuteguen e baltzeuen eitten e, serien, Bilbon. Da, bai, nau lelengokos Seanuin baltzeue yantzan inddakue. Ori ixingo san e en el año sesentaidos ero tresien.

Andres (Txomin Bengoaren osaba) eta neu. Eta guk an Zeanurin amistadiek geunkazan, eta, orkestea, orkestea paratu zan an, musikea, eta, asi ginan dantzan, baltseoa dantzan. Ze a neskea oituta egoan e baltseoan egiten e, zerean, Bilbon. Eta, bai, neu leenengokoz Zeanurin baltseoa dantzan egindakoa. Ori izango zan e en el año sesenta y dos edo tresian.

89.7. Santa Mañeak, limonada eta abestiak

Santa Mañeak a yai andiye(k)-t(d)ies Otxandiyon. Juliyuen dies, amasapiyen besperan asitte. Amasortziyen Santa Mañe, d'urrungo domekan errepetisiñue. Besperan kanta bat kantetan dau erri gustiyek eta errepetisiñuko gaubien "Agur Santa Mariña" limonadie eraten dogun bittartien, bai, kantau erri gustiyek e, bandiegas naste. Limonadie suriye ta baltza eitten da, segun, ardaue suriye ero baltza ixen, gero asukerie, limoiye eta ure, d'ondo nastau eta otzittuteko, oiñ erosi eitten da baie lenao laiye orti Astikurtzeko edursulo edo neberie esatetzaguneti ekarte san limonadie fresko fresko eukitkeko. Limonadie akabaurduen gustiyok etxea apal apalik.

Auxe da besperako kantie, amasapiyen kantetan dana:

1

Goraldu daigun gaur
 Mariña aundia
 saindu dagian beti
 beti gure erriya.
 Santa Mariña larrosa eder
 martiri indar andikoa
 seru goi goitik bialdu gaisus
 Jaun aundiaren grasia.

Santa Mañeak(Marinak) a jai andiak dira Otxandion. Julioan dira, amazazpian bezperan asita. Amazortzian Santa Marina, eta urrengo domekan errepetizino. Bezperan kanta bat kantetan dau erri guztiak eta errepetizinoko gauean "Agur Santa Mariña" limonadea edaten dogun bitartean, bai, kantatu erri guztiak e, bandeagaz naaste. Limonadea zuria eta baltza egiten da, segun, ardaue zuria edo baltza izan, gero azukarea, limoia eta ura, eta ondo naastatu eta otzittuteko, orain erosi egiten da baina leenago leia ortik Astikurtzeko edur-zulo edo neberia esaten deusagunetik ekarten zan limonadea fresko-fresko eukiteko. Limonadea akabatu orduan guztiok etxera apal-apalik.

Auxe da bezperako kantea, amazazpian kantetan dana:

1

Goraldu daigun gaur
 Mariña aundia
 zaindu dagian beti
 beti gure erria.
 Santa Mariña larrosa eder
 martiri indar andikoa
 zeru goi goitik bialdu gaisus
 Jaun aundiaren grazia.

2

Gora gora gure saindariya
goraldu daigun Mariña aundiya
aintza suri martiria
entzun gogo ones gure eskaria.
Emen gatos gu artekaturik
otoiska suri bios barrutik
saindu gaisus gas gustiyetatik
saindu gaisus bios biyotzetik

Auxe, errepetisiño ero yayen
askeneko kantie. Iru biderres kante-
tan dau erri gustiyek Otxandiyoko
Bulkanon plasan.

Agur Santa Mariña
baia es betiko
beste urte betian
enais etorriko.
Agur eleisa barri
agur Samartoia
agur bolalekua
agur iturriya. (bir.)
Limonadia akabaturik, akabaturik
Otxandiyoko yende gustiya dago
tristeturik. (bir)
Agur Otxandiyoko
ni banoia
urrengo artian
Yaungoikoak nai badau
etorriko nais
datorren urtian
bai kotxian.

2

Gora gora gure zaindaria
goraldu daigun Mariña aundia
aintza zuri martiria
entzun gogo onez gure eskaria.
Emen gatoz gu artekaturik
otoizka zuri biotz barrutik
zaindu gaizuz gatx guztietatik
zaindu gaizuz biotz biotzetik

Auxe, errepetizino edo jaien azke-
neko kantea. Iru biderrez kantetan dau
erri guztiak Otxandioko Bulkanoren pla-
zan.

Agur Santa Marina
baina ez betiko
beste urte betean
ez naiz etorriko.
Agur eleiza barri
agur Samartoia (sic)
agur bolalekua
agur iturria. (bir.)
Limonadea akabaturik, akabaturik
Otxandioko jende guztia dago triste-
turik. (bir)
Agur Otxandio
ni banoia
urrengo artean
Jaungoikoak nai badau
etorriko naiz
datorren urtean
baina kotxean.

90.1. Otxandio eta Aramaioko mugarría

Ori, limittae, limittauen kontue
auxe da: limittae da terreno bat, ixet-
tes, usufrutue, ba, aspalditti ya 1200 da
pikutik ona Otxandiyoko(k)t(d)auko
usufrutue, baie, Aramaiyoarrak, juru-
dikoki eurena dala, t'aurena dala.

Ori, limitadua, limitaduaren kontua
auxe da: limitadua da terreno bat, izatez,
usufruktua, ba, aspalditik ya 1200 eta piku-
tik ona Otxandiok dauka usufruktua, baina,
Aramaioarrak, jurudikoki eurena dala, eta
eurena dala.

D'ori de Otxandiyo d'Oletara bidien asken baten da iye Otxandiyo terrenu erdiye.

Aramaiyoarrak esaten daurie ori eurena dala, Otxandiyoarrak esaten du geurie, usufrutue eta bera be bai. Se orrek sien konde batenak. Or eguen Kondebaso.

Da, ori ollarrana da ya ipuñe. Baie ipuñe, bestalde bateti e egie be nastau eitten da.

Ba, ori de, antxiñeko kontue. Otxandiyoarrak eta Aramaiyoarrak esan eben ba:

– Bueno, su, au konpondu ein biu, se au dator amabigarren gisaldittik onantza es, d'au konpondu ein biu. Da, selan? Bueno, ba, a ber, goixaldien ollarrak kantetan dauenien Aramaiyoarrak Aramaiyoko plasa-tik eta guk Otxandiyoko plasa-tik urtengu eta topetan garien lekuen, antxe, ipiñiku muga, gure mugarri-ye ta or konponduko die estabaida ta ser gustiyok.

Baie, Aramaiyoarrak ollarrak (g)oixien goixeti kantau daiyen, sue iben, da suas ollarra(k)p(b)a, kantau iban estakit se ortutan, goixaldeko ordubiyetan ero, ta, ba, Aramaiyoarrak presentau sien bertan, Otxandiyon bertan, da, klaro, bertan, elixa ostien, ortxe bertan, or dao errekie, d'ori da muga naturala.

Dimakoa? Ori estakit selan dan. Baie Otxandiyok frontera gusti-ye(k)t(d)aukos ganien.

Otxandiyo billa san da pasoa eguen d'orrexegaitti da txikiye, len kale bakarrekue, auxe kalie san bakarra. Danak merkatariyek eta burriñie batesbe, errementariyek eta asko.

Eta ori da Otxandio eta Oletara bidean azken baten da ia Otxandio terreno erdia.

Aramaioarrak esaten daudie ori eurena dala, Otxandioarrak esaten dogu geurea, usufrutua eta bera be bai. Ze orreik ziran konde batenak. Or egoan Kondebaso.

Eta, ori ollarrarena da ya ipuina. Baina ipuina, beste alde batetik e egia be naastatu egiten da.

Ba, ori da, antzinako kontua. Otxandioarrak eta Aramaioarrak esan eben ba:

– Bueno, zu, au konpondu egin bear dogu, ze au dator amabigarren gizalditik onantza ez, eta au konpondu egin bear dogu. Eta, zelan? Bueno, ba, a ver, goizaldean ollarrak kantetan dauanean Aramaioarrak Aramaioko plazatik eta guk Otxandioko plazatik urtengo dogu eta topetan garean lekuan, antxe, ipiniko dogu muga, gure mugarria eta or konponduko dira eztabaida eta zer guztiok.

Baina, Aramaioarrak ollarrak goizean goizeti kantatu daien, sua egin eben, eta suagaz ollarrak ba, kantatu egin eban ez dakit zer ortutan, goizaldeko ordubietan edo, eta, ba, Aramaioarrak presentatu ziran bertan, Otxandion bertan, eta, klaro, bertan, eleiza ostean, ortxe bertan, or dago errekea, eta ori da muga naturala.

Dimakoa? Ori ez dakit zelan dan. Baina Otxandio frontera guztiak daukaz ganean.

Otxandio villa zan eta pasoa egoan eta orrexegaitik da txikia, leen kale bakarrekua, auxe kalea zan bakarra. Danak merkatariak eta burriñie batezbe, errementariak-eta asko.

90.2. Txakurraren ume-kanta

Txakur txiki poli(t) bat
falta yaku guri
esaugarriye dauko
agertu balegi
belarri baltzak eta
bustena bellegi
iruntziko leukelaokela libra bi.

Txakur txiki polit bat
falta jaku guri
ezaugarria dauka
agertu baledi,
belarri baltzak eta
buztana bellegi
iruntsiko leukelaokela libra bi.

90.3. Ezkonduaren astea

Astelenien eskondu eta
martisenien basora
eguastenien orbela batzen
eguenien etxera,
bariku goixien bedarra ebaitten
sapatu goixien konprara
domeka goixien afan gustiyas
amarretako mesara.

(Oharra: abesti honetan Koldo Pildain bere osabak be parte hantzen du, kantuan gainera)

Asteleenean ezkondu eta
martizenean basora
eguaztenean orbela batzen
egunean etxera,
bariku goizean bedarra eba(g)iten
zapatu goizean konprara
domeka goizean afan guztiagaz
amarretako mezara.

(Oharra: abesti honetan Koldo Pildain bere osabak be parte hantzen du, kantuan gainera)

90.4. Otxandio: Astikurutzeko neberea (edur-zuloa)

Udagoiyena

Neberie da sillo bat ixetie letxe, konserban eukitteko edurre. Da, orduen, selan leirik es eguen, erriyek eukittesan neberak. Erriyek atateban ori errematia, subastan. Subastie eitten san, ba, pujaka ayuntamentuen, neberie ta bolalekue ta pelotalekue ta danak ataten sien subasta(r)a orrek. Da, neberie artzeban batek, bestiek pelotalekue, bestiek bolalekue. Baten ixenien artze san, da gero lau lagun ero eoten sien koadrillan, bier barik eguasenak. Milleka killo sartze(n)

Udagoiena

Neberea da zulo bat izatea letxe, konserban eukiteko edurra. Eta, orduan, zelan leirik ez egoan, erriak eukiten eban neberak. Erriak ateraetan eban ori errematera, subastan. Subastea egiten zan, ba, pujaka ayuntamentuan, neberea eta bolalekua eta pelotalekua eta danak ateraten ziran subastara orreik. Eta, neberea artzen eban batek, besteak pelotalekua, besteak bolalekua. Baten izenean artzen zan, eta gero lau lagun edo egoten ziran koadrillan, bear barik

sien, iru tandatan ero, eoten san edurre gureñe. Lelengo in bisan orbelak altzau, orbelak eta irie batu, ure artzeko posue(k)p(b)e barristau, da, orrixek (g)ausok. Orriye bertan be sobra eoten san emen, or orriye galtezko beste baeguen, pago orriye ixeten san ona, se aretxak eta, tintie euken.

Neberiek (g)añien euken ontxe dekona moruen, kamarie. A betetan san orbelas. Orduen Araban eote(n)sien “sakas” orrek sakue(k)p(b)-eteuesan orbelas, es euen eukitten pixuik puntaño beteta be, lepuen artu te gora.

Neberiek aspiyen dauko orrek egurresko parrillie, filtrau daitten parrillie pago egurras eindde, pago egurre esta usteltzen ure dauen lekuen.

Ni ibil(i) nintzen urtietan e, es eben kanbiyeu parrillie, esan usteltzen da.

Edurre urtu te filtreu eitte san aspire, lurrien, da parrillien gainien ipintten san irie ta erramak ure filtretako. Da, orren gainien orbela, orbela bota goitti bera da orren aspiyen dao tunel bat, tunel bat (d)ao eindde, miña sulue, arek eukiko daus ba berrogai bat metro ero geiyau, orren parien aspiyen. Edurre oten sanien orrek miña sulo orrek eukitteban ure ugeri, oiñ baño geiyau, se, andixi dator ona plasa(r)a datorren e ure, ori metal ur ori, ortixi, miñasuloti dator.

Negue

Edurre sartzeko egon bidau lanbera esaten yakona. Sikuen esin leike edurre sartu, edurre eitten dauenien urtuteari ekitten eutzanien edurrek,

eguzanak. Milaka kilo sartzen ziran, iru tandatan edo, egoten zan edurra guredana. Leenengo egin bear zan orbelak altzatu, orbelak eta idea batu, ure artzeko pozoak be barriztatu, eta, orreixek gauzok. Orria bertan be sobra egoten zan emen, or orria galtzeko beste ba egoan, pago orria izaten zan ona, ze aretxak-eta,(haritz orriak) tintea eukan.

Nebereak ganean eukan oraintxe daukana moduan, kamarea. A betetan zan orbelagaz. Orduan Araban egoten ziran “sakas” orreik zakuek betetan ebezan orbelagaz, ez eban eukiten pisurik puntaraino beteta be, lepoan artu eta gora.

Nebereak azpian dauka orrek egurrezko parrillea, filtratu daiten parrillea pago egurragaz eginda, pago egurra ez da usteltzen ura dagoan lekuan.

Ni ibili nintzan urteetan e, ez eben kanbiatu parrillea, ez zan usteltzen eta.

Edurra urtu eta filtratu egiten zan azpira, lurrian, eta parrillaren ganean ipintzen zan idea eta erramak ura filtretako. Eta, orren ganean orbela, orbela bota goitik beera eta orren azpian dago tunel bat, tunel bat dago eginda, minazuloa, arek eukiko dauz ba berrogei bat metro edo geiago, orren parean azpian. Edurra egoten zanean orrek minazulo orrek eukiten eban ura ugari, orain baino geiago, ze, andixik dator ona plazara datorren e ura, ori metal-ur ori, ortixik, mina-zulotik dator.

Negua

Edurra sartzeko egon bear dau lanbera esaten jakona. Sikuan ezin leike edurra sartu, edurra egiten dauanean urtuteari ekiten eutsanean edurrak,

orduen sartu bida edurre ure dariyola daoela. Angaillek ipintten sien, egur bi lusiek, eta gero eukesan olak ipiñitte, da, aren gainien, palakindde, plegau eitten san, plegau, pla-pla-pla, politto-politto ebatu olan eta gero aundiye eitten sanien ebatu iru lau lagunen artien da goitti(k)p(b)era bota da beiyen apurtu eitten san ori.

Airien eruten san, gerra denporan da kamilleruek letxe. Gero ikeratxo bat eĩndde, taka, suloti(k)p(b)era. Beiyen apurtu eitten san bolie (edur-bolie) ta gero sabaldu erreminta bateas sabaldu, atxurreas, palias, belaukiyegas. Belaukiye da egurresko ser bat, ikesgiñek ibiltten dabiena, burdiñeskue nai egurreskue.

Parrillien gainien dao lelengo orbela, kapa bat. Gero botaten san edurre, lelengoko txandie asko, metro t'erdi ero. Sapaltzeko masue, egurreskue, ontako biribille, aundiye, asta bateas goitti(k)p(b)era.

Gero eitten san bardinddu eskiña gustiyetan palakiñ, bardinddu ondo palakiñ. Da gero ure bota ta sapaldu bastarretan eskiñak, senbat eta geiyau obeto, bat eitteban orduentxe, gero ixeten san ixotza letxe, gogor, ure bota gureiñe.

Lelengo kapie, da gero, beste ogei bat sentimetro orbela, ori ixeten san aislantie, beste kapa bat edurre.

Geroko kapak laburraguek, arek laburraguek. Goraiño betetan san, atiaño. Gero gainien orbela ta egur batzuk puska bat sapalduten aixeik estaiyen artu.

Udebarriye

Errematantiek astotxo bateas ekarteban, da, saltzeban iru txikitten

orduan sartu bear da edurra ura dariola dagoala. Angarilak ipinten ziran, egur bi luzeak, eta gero eukazan oolak ipinita, eta, aren gainean, palakin-eta, plegatu egiten zan, plegatu, pla-pla-pla, politopolito ebatu (oratu) olan eta gero aundia egiten zanean ebatu (oratu) iru lau lagunen artean eta goitik beera bota eta been apurtu egiten zan ori.

Airean eroaten zan, gerra denporan eta kamilleruak letxe. Gero ikeratxo bat egin eta, taka, zulutik beera. Been apurtu egiten zan bolea (edur-bolea) eta gero zabaldu erreminta bategaz zabaldu, atxurragaz, paleagaz, belaukiagaz. Belaukia da egurrezko zer bat, ikazginak ibiltten dabeena, burdinazkoa naiz egurrezkoa.

Parrillearen gainean dago leenengo orbela, kapa bat. Gero botaten zan edurra, leenengoko txandea asko, metro eta erdi edo. Zapaltzeko mazoa, egurrezkoa, onetako biribila, aundia, asta bategaz goitik beera.

Gero egiten zan bardindu eskina guztietan palarekin, bardindu ondo palarekin. Eta gero ura bota eta zapaldu baztarretan eskinak, zenbat eta geiago obeto, bat egiten eban orduantxe, gero izaten zan izotza letxe, gogor, ura bota guredana.

Leenengo kapea, eta gero, beste ogei bat zentimetro orbela, ori izaten zan aislantea, beste kapa bat edurra.

Geroko kapak laburragoak, areik laburragoak. Goraino betetan zan, ateraino. Gero gainean orbela eta egur batzuk puzka bat zapalduten aizerik ez dagian artu.

Udabarria

Errematanteak astotxo bategaz ekarten eban, eta, saltzen eban iru txiki-

killue ero. Da, gausa gitxi bisanien ba norberak lepos. Amar, ogei killoko satiye bisanien sakuen sartute.

Da, eitten san irie ebai, irie ipintte san ekarteko ta tapetako irie freskue.

Edurretan yuten siñenien, a edurre eoten san gogortute ta askorias ebai trosuek eta ebaikuek, sarzen sendun laiye ta txokolatie letxe urteteban satiye.

Ara yun bisan bera, kandleekin, illun oten san da kandleekin argiye eindde, sera, serrias ebaidde, gero altzau, bakotxien sati bi ero iru.

Astuek e, lenau astuek e gureiñe ote sien da astuek igoten sien gora, blokie eiñ, da astuei karga. Astue otzittu? Es, es, es es es. Ipintten san lelengo saku bat. Gero txalmie. Txalmie da, ba, lastuas eiñeko ser bat esta, forro bat. Da, aren gañia kartolak. Ta gero, batzutan astotzarak, ses-tuen e ira puskat ipiñitte.

Edur leittue erremediyo asko-ta(r)ako erabilten san, esaterako, gaixuentzako, apendisitis ero buruko miñerako ero aundittue kentzeko ta, eta Otxandiyon limonadie fresko-fresko eukittek be bai, Santa Mañetan da.

tan kiloa edo. Eta, gauza gitxi bear zanean ba norberak lepoz. Amar, ogei kiloko zatia bear zanean zakuan sartuta.

Eta, egiten zan idea ebagi, idea ipintten zan ekarteko eta tapetako idea freskoa. Edurretan joaten zinanean, a edurra egoten zan gogortuta eta aizkoreagaz ebagi trozoak eta ebagikoak, sarzen zendun laia eta txokolatea letxe urtetan eban zatiak.

Ara joan bear zan beera, kandleekin, ilun egoten zan eta kandleekin argia egin-eta, zera, zerreagaz ebagi-eta, gero altzatu, bakoitzean zati bi edo iru. Astoak e, leenago astoak e guredana egoten ziran eta astoak igoten ziran gora, blokea egin, eta astoei karga(tu). Astoa otzitu? Ez, ez, ez, ez, ez. Ipintten zan leenengo zaku bat. Gero txalmea. Txalmea da, ba, lastoagaz egineko zer bat ez da, forro bat. Eta, aren gainera kartolak. Eta gero, batzuetan asto-otzarak, zestoan e ida puzkat ipinita.

Edur leittua erremedio askotarako erabilten zan, esaterako, gaixoentzako, apendisitis edo buruko minerako edo aunditua kentzeko-eta, eta Otxandion limonadea fresko-fresko eukittek be bai, Santa Mañetan-eta.

91.1. Okila pago faltan porruan habiaginen

Gure errietan, sarriten, potontziko iseneti baño isen burleti geao esotuten da jentea esta. Da, ba, or Artea partean, barberu baragarri bet dao, Porrue isenburledune, su sau(k)p(e) esotan dosu, selebrea gero e. Da, ba, baten e Okile isenburledune yoan yakon ullea ta bixerra ebaten barberire. Da, ba, andi berba orti ite-

Gure errietan, sarritan, potontziko izenetik baino izen-burlatik geiago ezagututen da jentea ezta. Eta, ba, or Artea partean, barberu baragarri bat dago, Porrua izen-burladuna, zuk zeuk be ezagututen dozu, selebrea gero e. Eta, ba, baten e Okila izen-burladuna joan jakon ulea eta bizarra ebagiten barberiara. Eta, ba, andik berba ortik iterantzuna, Porrreak ezin euan

rantzune, Porruek isin auen agoantau burlesar ekin barik eta alangon baten badiñotzo:

- I, Okile, entzun yoat e orrik ikesginok pagoak (g)ustiek botaten yabisala iketza egosteko, ta, ba, ori olan bok, aurrerantzean non ingo(k)p-(b)a abie? Pago barik i txarto isin beostek abiginen? Oin non ingo(k)p(b)a abie?
- Ara, Porrue, eñoak bururik kantzau be iten, bakik i non ingo dodan aurrerantzean abie?
- Non?
- Porrue!

D'anda koño! berba barik itxi auen seguru Porrue, d'antxe abakau i sirean burlesar ekiteok. Isilik otea gausa andie da gero! Bromea al estala be, baie, burlerik e(s)tx(y)ako iñori be in bear, ori gausa motza yatzu.

Antzekoa pasau yakon Lábadure Ergoienekoari Báríku Elbarrenekoagas.

Ba, Báríku kamiño ondoan bisi sen, kamiñoari dotzela esta, ta, ba, eguenetan Lábadure Báríkuren etxe aurreti paseta sanean esatotzen:

- I, biger según do(k)p(b)a?- barikue erantzungotzelakoan, bere isenburlea- da
- Biger? -Báríkuk-, biger sera, labadurea esarteko egune, -Barikuetan esarte san labadurea.

Isilik oten estakien batasurrekoari, olangoxe gausak pasetan yakos. Asak emon otzesan Báríkuk Lábadureri. Barriro esotzon burlesarrik (g)eaoin.

aguantatu burlazar ekin barik eta alangoren baten badinotso:

- I, Okila, entzun joat e orreik ikazginok pagoak guztiak botaten jabizala ikatza egosteko, eta, ba, ori olan badok, aurrerantzean non egingo dok ba abia? Pago barik i txarto izan bear deustak abiaginen? Orain non egingo dok ba abia?
- Ara, Porrue, ez nioak bururik kantzatu be egiten, badakik i non egingo dodan aurrerantzean abia?
- Non?
- Porrue!

Eta anda koño! berba barik itxi euan seguru Porrue, eta antxe abakatu ei zirean burlazar ekiteok. Isilik egotea gausa andia da gero! Bromea aal ez dala be, baina, burlerik ez jako inori be egin bear, ori gausa motza jatzu.

Antzerakoa pasatu jakon Lábadure Ergoienekoari Báríku Elbarrenekoagaz.

Ba, Báríku kamino ondoan bizi zan, kaminoari deutsalaz ezta, eta, ba, eguenetan Lábadure Báríkuren etxe aurretik pasetan zanean esaten eutsan:

- I, biar zer egun dok ba?- barikua erantzungo eutsalakoa, bere izenburlea- eta
- Biar? -Báríkuk-, biar zera, lebadurea ezarteko eguna,- barikuetan ezarten zan lebadurea.

Isilik egoten ez dakien batezaurrekoari, olangoxe gauzak pasetan jakoz. Azak emon eutsazan Báríkuk Lábadureri. Barriro ez eutsan burlazarrik geiao egin.

91.2. Basaurde makeraren haginots haserrea

Baten, gure aite, sure aiten aitue, idebaten ebilen semendinguruen or

Baten, gure aita, zure aitaren aitona, ida-ebagiten ebilen zemendi inguruan or

Larramendiko baso searrean. D'orden es egoan oin beste erloju, te, ba, eguskiek Murgako puntea yotauenean, baskaitordu isiten san. Da, gure aite(k)p(b)e, egurdarte emon orden etzerantza etorren. An Erdikobitora allegau sanean, basurde makerea barruntau auen atze bete umegas, yayoparriak ondiño. D'e(s)-tx(y)akon besterik akordau alango basaurdakuma bat artzea baño. Artu bauen base, gañetuten yako amea, da, gure aitek esauena letxe gure basaurdakumea itxitea, se in auen? ba lelen-go arbolara igun basaurdakuma ta gusti. Baie, basaurda makerea arbole-an eperdiraño etorri yakon, da, ene mutilek! asten yako aginotzean arboleari te aren damorroak eta aginotzak entzuckeran, bildurtu in sen da bota in otzen basaurdakumea al auenik eta urrinen. Da, grasiek ori in auena, ostaintxean iten dotzo bear estanan bat. Basaurdak e beres be okerra(k)-t(d)ire, eta en partikular makerak umeakas daosenean. Da, gero, ya urrindu yakonean, bajatu sen arbolati te beingobaten artuen etzea, bildursartue aldean dauela. Gero, kontatu sarriten itoskun, baie bisi, baten. Barriro esan atomau olangorik iten. Bakean doanari, bakean itxi, badaespada, esatoskun. Onik i basaurdok, asagariok eta, txarresean okerra(k)-t(d)ire gero e, lebreá atetan daurie. Basaurdak e lebreá langoa iten dauskue ortuarielik eta gausestanduten. Asagarie(k)p(b)e, olloak ollategien edo korta barruko otan espadaos, lebreá atetotzie olloari, deskuidau eskero lebreá yan be bai. Guk u grasiek ollategie ondo sarratute daukune, ostaintxean, komediek! Da, ganera, gure olloak ondo dakie kortara

Larramendiko baso zearrean. Eta orduan ez egoan orain beste erloju, eta, ba, eguzkiak Murgako puntea joten euanean, bazkaitordu izaten zan. Eta, gure aitek be, egurdarte emon orden etxerantz etorren. An Erdikobitora allegatu zanean, basurde makerea barruntatu euan atze bete umegaz, jaio-barriak orandino. Eta ez jakon besterik akordatu alango basaurdekuma bat artzea baino. Artu baeuan ba ze, gainetuten jako amea, eta, gure aitek ez euan(a) letxe gura basaurdekumea itxitea, zer egin euan? ba leenengo arbolara igon basaurdekume eta guzti. Baina, basaurde makerea arbolearen eperdiraino etorri jakon, eta, ene mutilek! asten jako aginotzean arboleari eta aren damorroak eta aginotsak entzuckeran, bildurtu egin zan eta bota egin eutsan basaurdekumea aal euanik eta urrunen. Eta, graziak ori egin euana, osterantzean egiten deutso bear ez danaren bat. Basaurdeak e berez be okerrak dira, eta en partikular makerak umeakaz dagozanean. Eta, gero, ya urrundu jakonean, bajatu zan arbolatik eta beingobaten artu euan etxea, bildursartua aldean dauela. Gero, kontatu sarritan egiten euskun, baina bizi, baten. Barriro ez zan atomatu olangorik egiten. Bakean doanari, bakean itxi, badaezpada, esaten euskun. Oneik i basaurdok, azagariok eta, txarrezean okerrak dira gero e, lebreá ateraten daudie. Basaurdak e lebreá langoa egiten deuskue ortuarielik-eta, gauzeztanduten. Azagariak be, olloak ollategian edo korta barruko otan ez badagoz, lebreá ateraten deusie olloari, deskuidatu ezkeru lebreá jan be bai. Guk u graziak ollategia ondo zarratuta daukaguna, osterantzean, komediak! Eta, ganera, gure olloak ondo dakie kortara bidea.

bidea. Ollategi aldera daoen leioti etorteire otara gaube iten.

Ollategi aldera dagoen leiotik etorten dira otara gaua egiten.

91.3. Satorjoa zaranpean

Oin kontaukotzut u gausa baragarri bet. Au ser au Sabalen pasau yakon Kasimero sarrari. Segun itxurea Kasimerok esin auen gausonik in satorragas da, ba, ortu gustie auken satoryos yosite d'esin auen ortuaririk lograu patxadas. Sepoa be imintotzen baie arpelik, satorrak aragoan yo d'aren ortuen dana i sen satoryoa.

D'egun beten, esan auen berekitan ba se:

– Errekoño, sator gogaitu orrek e(s)tx(y)ostek satoryo askos geaingo segaiti se nau(k)tx(y)agongo yoat kebrantatxurregas da yoten barruntetan yoadanean, daunba-daunba-daunba, yo atxurkasu bet eta tragauko yoat sator demonintru ori.

Esan da in. Artu auen kortati simentzesko sana, yoan orture, auspes imini te ganean yarri sen satorrari etxoten atxurre eskuetan dauela.

D'an egoan, etxon da etxon, da satorran filiasiñori(k)p(b)es. Alangon baten, gogaitu sen etxoten da, artu sana ta ene! non ikusten dauen satoryo endemoniño bat bera yarrite on san lekuen. Bai su, orixe pasau yakon, seguru, irusaku in otzen satorrak Kasimero sarrari.

Orain kontatuko detsut u gausa baragarri bat. Au zer au Sabalen pasatu jakon Kasimiro zaarrari. Segun itxurea Kasimirok ezin euan gauza onik egin satorragaz eta, ba, ortu guztia eukan satorjoz josita eta ezin euan ortuaririk logratu patxadaz. Zepoa be iminten eutsan baina alperrik, satorrak aragoan jo eta aren ortuan dana ei zan satorjoa.

Eta egun baten, esan euan berekitan ba ze:

– Errekoño, sator gogaitu orrek ez jaus-tak satorjo askoz geiago egingo zergaitik ze neuk jagongo joat kebrantatxurregaz eta joten barruntetan joadanean, daunba-daunba-daunba, jo atxurkazu bat eta tragatuko joat sator demonintru ori.

Esan eta egin. Artu euan kortatik zimentzezko zarana, joan ortura, auspez imini eta ganean jarri zan satorrari itxaroten atxurra eskuetan dauela.

Eta an egoan, etxodon (itxaron) eta etxodon (itxaron), eta satorraren filiazinorik be ez. Alangoren baten, gogaitu zan etxodoten (itxaroten) eta, artu zarana eta ene! non ikusten dauen satorjo endemonino bat bera jarrita egon zan lekuan. Bai zu, orixe pasatu jakon, seguru, iruzaku egin eutsan satorrak Kasimiro zaarrari.

91.4. Tronkaleko aita-seme biren sekreto

Bueno, oin kontaukotzutena sano isilean aukiu sure aitek eta biok

Bueno, orain kontatuko deutsudana sano isilean euki dogu zure aitek eta biok

eta su sau(k)p(b)e isilean gorde, segaiti se, bakisu espabere se datorren esta?

Ba, su(k)tx(y)akingosu, gure parrokien Pasko eguneko mesea estauela abadeak (g)aituten aurreko domekan. Klaro, ori mesori Jose Antonio Agirren aldekoa da ta isilean gordetan da badaespada. Baie, abadeari pagau in beayako mesean sera, estipendioa, mesa nausiena beti de karuagoa ta, ba, guk u batzun artean dirue batzean du, eta abadeari pagau. Bakotxana ogerlekoa isiten da. Da, nik i urtero pagetan isin dot eta oin gaixokarik asi nasenean esin yoan isiten nas diru ori eroaten da ba sure aiteri geitu nauntzen isilean etorteko nire oi adarrera ta:

- I, auxe t'auxe pasetan yatak, ni esin yoan naintikok urliegana mesa-dirue eroaten da orixe mesede ori ingo lostek?
- Selan estotzut ingo ba, ni nau(k)p(b)e pagetan dot eta,-sure aitek.
- Estok isingo?
- Bai aite
- Biok pagau te bata(k)p(b)esteana yakin es, olangorik?

Ba, orixe pasau yakun, etze baten bisi, tronkalean, bikuntzan, da isileko kontu ori gaixotu arte yakin es. Oin su(k)p(b)e badakisu baie etzeti estaiela urten e, onek ser onek, espabere labesue berogi in eskero errarie kiskeldu!

eta zuk zeuk be isilean gorde, zergaitik ze, badakizu ezpabere zer datorren ezta?

Ba, zuk jakingo dozu, gure parroikian Pazko eguneko mezea ez dauala abadeak deituten aurreko domekan. Klaro, ori meza ori Jose Antonio Agirrenen aldekoa da eta isilean gordetan da badaezpada. Baina, abadeari pagatu egin bear jako mezearen zera, estipendioa, meza nagusiarena beti da karuagoa eta, ba, guk u batzuren artean dirua batzean dogu, eta abadeari pagatu. Bakoitzarena ogerlekoa izaten da. Eta, nik i urtero pagetan izan dot eta orain gaixokarik asi nazanean ezin joan izaten naz diru ori eroaten eta ba zure aitari deitu neuntsan isilean etorteko nire oe adarrera eta:

- I, auxe eta auxe pasetan jatak, ni ezin joan neintikek urliarengana meza-dirua eroaten eta orixe mesede ori egingo euskit?
- Zelan ez deusut egingo ba, nik neuk be pagetan dot eta,-zure aitak.
- Ez dok izango?
- Bai aita
- Biok pagatu eta batak bestearena jakin ez, olangorik?

Ba, orixe pasatu jakun, etxe baten bizi, tronkalean, bikuntzan, eta isileko kontu ori gaixotu arte yakin ez. Orain zuk be badakizu baina etxetik ez daiala urten e, onek zer onek, ezpabere labesua berogi egin ezkerro erraria kiskaldu!

91.5. Gerrea eta ebakuazinoa

Gerrarik entzun gure be estot. Allegau sanean, gorriek pasau gaindusen. Aitisu. Sure aite kintadeak al-

Gerrarik entzun gura be ez dot. Allegatu zanean, gorriak pasatu genduzan. Aitu egizu. Zure aita kintadeak altza-

tzauen, gudariekas, Gorbaieti. Gu besteok, sure amama ta ni atze bete umegas emen da ba, ainbatera urten bear da, ba, Sandanderarantza artu gaindun. Ganaduek e bustertu, bete burdie al isin gaindunegas da or yoan gaintzesan bidea(k)p(b)etean.

Ni ipusterrien aurreti da besteak oñes eta txikienak burdi ganean. Estotzet inñori deseetan olangorik.

Da, ba, bidea libre topetan gaindunean ondo baie beste batzutan estukurak pasetan gaindusen. Nik, tandas tanda, ganadu te umeokas amama itxi te aurrera iten nauen ia bidea libre daoen yakiteko. D'olan in gaindusen ainbet erri. Baie baten e, yoan in naintzen aurrera bidea ikusten baie bueltan orden publikokoak urten ostien bidera ta pasetan itxi es. Ai ene! A bai sala estukurea, es aurrera es atzera. Da, ba, negarrari emon nauntzen situasiñoa ikusite. Da, ba, estakit i selan baie errukitu in yatasan orden publikokook eta yoaten itxi ostien amamagana ta. Gero ba aurrera in gaindun bidea librau sanean d'alangon baten allegau gaintzesan Billaberde de Trusiosera eta an emon gaindun gerradenporea. Orregaiti diñotzut airtu gure be estodala gerrarik. Bakea diruegas be esta pagetan.

91.6. Kukua eta txamilotxa

Kukuen kontue? Baiiii! Baie lusetxue da. Etorri, Andramari martiko astean etorten da da yoan e San Pedroatan, bagilean. Ganera, nire yayoterrien baskaiten dau, konbidedu, d'urrungo urterarte esta agartu-

tu euan, gudariekaz, Gorbeiatik. Gu besteok, zure amama eta ni, atze bete ume-gaz, emen, da, ba, ainbatera urten bear eta, ba, Santanderrerantz artu gendun. Ganaduak e buztartu, bete burdia aal izan gendunagaz eta or joan gintzazan bideak betean.

Ni ipuzterriaren aurretik eta besteak oinez eta txikienak burdi ganean. Ez deusat inori deseetan olangorik.

Eta, ba, bidea libre topetan gendunean, ondo, baina beste batzuetan estukurak pasetan genduzan. Nik, tandaz tanda, ganadu eta umeokas amama itxi eta aurrera egiten neuan ia bidea libre dagoan jakiteko. Eta olan egin genduzan ainbat erri. Baina baten e, joan egin nintzan aurrera bidea ikusten baina bueltan, orden publikokoak urten eustien bidera eta pasetan itxi ez. Ai ene! A bai zala estukurea, ez aurrera ez atzera. Eta, ba, negarrari emon neuntson situazioa ikusita. Eta, ba, ez dakit i zelan baina errukitu egin jatazan orden publikokook eta joaten itxi eustien amamarengana-eta. Gero ba aurrera egin gendun bidea libratu zanean eta alangoren baten allegau gintzazan Villaverde de Trucios-era eta an emon gendun gerradenporea. Orregaitik dinotsut airtatu gura be ez dodala gerrarik. Bakea diruagaz be ez da pagetan.

ten. Bueno, ta kontu geao daukos, ori diruena ta kuku-fraka, kuku-sagar d'orrik kontu gustiok esta.

Baie, kukuen beste gausa bat kontaukutzut, igoal yakin be estosu ingo ta, da polite da.

Aiko, kukuek estau iten bere abirik, beste txori txikien abietan iminten daus arrautzak eta gero orrik txori txikiok kukuen arrautzak esarri in bear da kukuen umeak abi gustie bete ta norbereak kanpora. Lotzabakoa isin bea da gero e? Da, ba, baten, seguru, gero kantea kantaukutzut orren ganean, kuku betek arrautzaginen eragoion Kanpo de Bolantingo aratx arro bateko txamilotxean abien, an, Bilbon. Lekutera yoan san yoan be! Da, kuku orren arrautzok txamilotxean abien yayo basirean ba se, gero esarri be in ausen txamilotxeak selanbaist alan, gurestala seguramentean. Eta, erresoia da(n) moduen, txamilotxea odolak ur iteko moduen plantau sen da, yayo ala, yan in i otzesan banan banan kukukumeok. Ak aukiko auen amurrue e? Bere narruen enaunkean on gure be e! Eta, len esan dotzuden moduen, kantea aterotzien da kantau ingotzut orren istorie. Aikomen:

Kanpo de Bolantingo
aratx arro baten
kukuak egin dituz
amar ume aurten.
Kukuak egin eta
txamilotxea(k)tx(y)an
a bere, kukuentzako
se soritxarra san.

Axe in i otzen kukueri txamilotxeak. Au istori au estosu yakin esta? Ba, barraketara goasen egun beten eroan ingo satut au pasau sen lekure,

geiago daukaz, ori diruarena eta kuku-fraka, kuku-sagar eta orrik kontu guztiok ezta.

Baina, kukuaren beste gauza bat kontatuko deutsut, igual yakin be ez dozu egingo eta, eta polita da.

Aiko, kukuak ez dau egiten bere abiarik, beste txori txikien abietan iminten dauz arrautzak eta gero orreik txori txikiok kukuaren arrautzak ezarri egin bear eta kukuaren umeak abia guztia bete eta norbereak kanpora. Lotsabakoa izan bear da gero e? Eta, ba, baten, seguru, gero kantea kantatuko deutsut orren ganean, kuku betek arrautzaginen eragoion Kanpo de Bolantingo aretx arro bateko txamilotxearen abian, an, Bilbon. Lekutara joan zan joan be! Eta, kuku orren arrautzok txamilotxearen abian jaio baziran ba ze, gero ezarri be egin euazan txamilotxeak zelanbaist alan, gureztala seguramentean. Eta, errazoia dan moduan, txamilotxea odolak ur egiteko moduan plantatu zan eta, jaio aala, jan egin ei eutsazan banan banan kukukumeok. Ark eukiko euan amorrue e? Bere narruan ez neunkean egon gura be e!Eta, leen esan deutsudan moduan, kantea atera eutsoen eta kantatu egingo deutsut orren istoria. Aikomen:

Kanpo de Bolantingo
aretx arro baten
kukuak egin dituz
amar ume aurten.
Kukuak egin eta
txamilotxeak jan
a bere, kukuentzako
ze zoritxarra zan.

Axe egin ei eutsan kukuari txamilotxeak. Au istoria au ez dozu yakin ezta? Ba, barraketara goazen egun baten

Kanpo de Bolantinera. Bilboko errekeak barkutxuen pasauku, gustauko yatzu.

eroan egingo zaitut au pasatu zan lekura, Kanpo de Bolantinera. Bilboko errekeak barkutxoan pasatuko dogu, gustatuko jatzu.

91.7. Laino guztien gainetik eta sasi guztien azpitik

Ori Petralandako sera? Bai, gure aitueri t'amandreri entzunde, bueno, aitite-amamari. Gu, Arantzasun yayoak (g)ara, antxe Lamindaopean, Aita Sakramentinuen bestaldean, Biteri aldean. Baie ori terreno ori Arantzasu sen, erdien Artea on arren. Da gero ba Sásolara yoan gintzesan bisiten, Ípiñan errentore. Sásola, ie Seberiori dotzela on arren Artea da. Da guretzeta, Sásola gane-ganean dao, eguskibegien. Ganeko bistak! Lamindao t'Anboto ta dana ikusten da gureti. Oin an Osaba Paulo bisi de.

Da, Lamindaon dao ori Petralanda. Lenao antza, or Petralandako landan yantza baragarriek iten i situesan, akarran bat erdien daudiela.

Da, ba, esaturien, egas yoaten sireala paparra estakit selango origo-agas igurdite. Estai(t)p(b)a, lartxu esta isingo?

Bueno, gausea da se, egunen baten neskatoan bat sorgindu in guraudiela edo es audiela, ba yoan i sirean egas Petralandarantza, etzeko etxagunen isilean. Baie orretarako berba batzuk esan bea sirean. Onixek: "Laño gustien aspiti te sasi gustien ganeti". Da, ba, etxagun orrek asmatu in i situsen berbok esaten, baie txarto entzun edo sera, ba, artu origo ori, igurdi paparra ta bera(k)p(b)e esan in i ausen berbok, baie oker: "Laño gustien ganeti te

Ori Petralandako zera? Bai, gure aitonari eta amandreri entzunda, bueno, aitite-amamari. Gu, Arantzazun jaiok gara, antxe Lamindaopean, Aita Sakramentinuen bestaldean, Biteri aldean. Baina ori terreno ori Arantzazu zan, erdian Artea egon arren. Eta gero ba Sásolara joan gintzazan biziten, Ípiñaren errentore. Sásola, ia Zeberiori deusala egon arren Artea da. Eta gure etxea, Sásola gane-ganean dago, eguzkibegian. Ganeko bistak! Lamindao eta Anboto eta dana ikusten da guretik. Orain an Osaba Paulo bizi da.

Eta, Lamindaon dago ori Petralanda. Leenago, antza, or Petralandako landan dantza baragarriak egiten ei zituezan, akarraren bat erdian daudiela.

Eta, ba, esaten eudien, egaz joaten zirala paparra ez dakit zelango orioagaz igurdita. Ez dakit ba, lartxu ez da izango?

Bueno, gauzea da ze, egunen baten neskatoen bat sorgindu egin gura eudiela edo ez eudiela, ba joan ei ziran egaz Petralandarantz, etxeko etxagunaren isilean. Baina orretarako berba batzuk esan bear ziran. Oneixek: "*Laino guztien azpitik eta sasi guztien ganetik*". Eta, ba, etxagun orrek asmatu egin ei zituzan berbok esaten, baina txarto entzun edo zera, ba, artu orio ori, igurdi paparra eta berak be esan egin ei euzan berbok, baina oker: "*Laino guztien ganetik eta sasi guztien azpitik*". Eta ene

sasi gustien aspiti”. D’ene mutilek! Asten da egaz gora ta bera etxagun ori laño ganetati te sasipetati, te, allegau i sen Petralandara baie gustis sorabiatute, edan bako ordiegas, da gustis urrutute, errukarri, baie denporaz neskatoa, alabea, segun, sorgindu esiteko

Orixe pasau i yakon. Dana be, kontue isingo da baie kontau itoskuesan etzean olango kontuek eta. Gero, Lamindaon elexa eder bat in aurién, kanpo santu te gusti, gure aitue ta, an enterraute daos, d’an akabau sirean orrik sorginkerioik. Petralandako landea gaur be an dao, Lamindaon, Dimen, gure Sásolako etzeti bista bistan.

mutilak! Asten da egaz gora eta beera etxagun ori laino ganetatik eta sasipetatik, eta, allegatu ei zan Petralandara baina guztiz zorabiatuta, edan bako ordiagaz, eta guztiz urratuta, errukarri, baina denporaz neskatoa, alabea, segun, sorgindu ez egiteko

Orixe pasatu ei jakon. Dana be, kontua izango da baina kontatu egiten euskuezan etxean olango kontuak-eta. Gero, Lamindaon eleiza eder bat egin eudien, kanpo santu eta guzti, gure aitona-eta, an enterratuta dagoz, eta an akabatu ziran orreik sorginkerioik. Petralandako landea gaur be an dago, Lamindaon, Diman, gure Sásolako etxetik bista-bistan.

91.8. Aita Patxi pasionistea Zeberiotik

Ni sano elexastikue nas d’ainbet abade ta esotu odas, baie Aite Patxilangorik es. Aite Patxi, misinoiniatarra be etorten yaku garisema askenerantza baie, etzerik etze be ibilten yaku Seberioti gaxoak bisitau, mesea emon eta erresuotzean danakas. Bidean be bai, nik estakit autoa eroaten baie eroan dauenak esanda dakit i kotxe barruan doala be erro-sarioa erresetan yoaten dala. Santu bet. Aite Patxi, esaten daudie, onik frentean on diresenak eta, ba, baten baño geaotan bere burue ofresidu auela afusiletako beste baten ordes. Ori nok iten dau ba? D’orregaiti, urlie (isena eskoas esaten) esta mesara yoaten baie Aite Patxi datorrenean, orduen bai, orduen mesara sintzo-sintzo, sinistu Aite Patxigan, sinistu.

Emen Undurran, ermitea dau-

Ni sano eleizastikua naz eta ainbat abade-eta ezagutu dodaz, baina Aita Patxilangorik ez. Aita Patxi, misinoiniatarra be etorten jaku garizuma azkenerantza baina, etxerik etxe be ibilten jaku Zeberiotik gaixoak bisitatu, mezea emon eta errezuotsean danakaz. Bidean be bai, nik ez dakit autoa eroaten baina eroan dauanak esanda dakit i kotxe barruan doala be erro-sarioa errezetan joaten dala. Santu bat. Aita Patxi, esaten daudie, oneik frentean egon diranak-eta, ba, baten baino geiagotan bere burua ofrezidu euala afusiletako beste baten ordez. Ori nok egiten dau ba? Eta orregaitik, urlia (izena ez goaz esaten) ez da mezara joaten baina Aita Patxi datorrenean, orduan bai, orduan mezara zintzo-zintzo, sinistu Aita Patxigan, sinistu.

Emen Undurragan, ermitea daukuna letxe, San Justoko ermitea, ba, nor-

kune letxe, San Justoko ermitea, ba, normalean ermitan emoten dauksu mesea. Lelengo yoaten da abisetan etzerik etze da gero kanpaia yo ta mesea. Iños, etze barruen be emon dauksu mesea, mesa kantaue. Batzutan gautu iten yako d'orduon lo iten paretan da, seinde, sure beste aitite Manuelenean, an Uriondon, lo be in dau iños, ori sure ama(k)t(d)aki ni(k)p(b)año ogeto, se guk emen kamiñoa dauku te kamiñeran autosto be in lei baie Uriondoti nora yoan gaubean, an estao kamiñorik.

B'orixe, Aite Patxi, santu bet. San Felisisimon be ikusite dauket e berinkasiñoak emoten ume ta ameari. Seruri(k)p(b)adao ondo iripaside dauko Aite Patxik.

malean ermitan emoten deusku mezea. Leenengo joaten da abisetan etzerik etxe eta gero kanpaia jo eta mezea. Inoiz, etxe barruan be emon deusku mezea, meza kantatua. Batzuetan gautu egiten jako eta orduan lo egiten paretan da, zeinda, zure beste aitita Manuelenean, an Uriondon, lo be egin dau inoiz, ori zure amak daki nik baino obeto, ze guk emen kaminoa daukagu eta kamiñeran auto-estop be egin lei baina Uriondotik nora joan gauean, an ez dago kaminorik. Ba, orixe, Aita Patxi, santu bat. San Felizisimon be ikusita daukat e bedeinkazinoak emoten ume eta ameei. Zerurik badago ondo irabazita dauka Aita Patxik.

92.1. Laminak Jentilzulotik Anbotora

Bai. Lamiñen gainekoa, nire aitari urten sen (sic) lamiñak. Bai amen, nire amen aitari, aitite niria, Oroskokoari bai

Seanuritik etorri senean, da, etorri sen, basotatik. Ordun basotatik etorten san, d'etorri senean ba... ikusi sen (sic) ba... Ser isingo da? Ser isingo da? Berbas, berbas... entzuten san berbas, berak... eta berak bildur bet ejenploa gisona, ba berbas gaubes. Baten bat (d)ator, baten bat (d)ator ... da parau sen geldi-geldi. Eta geldi-geldi parau senean ikusi sen (sic) lamiñak e.

Bai, bai, Jentilsulotik.

Jentilsulotik urteten siran, esaten san (sic), nire aititak esaten san (sic) lamiñak urteten sirela Jentilsulotik.

Or goien dago Jentilsulo, kante-ran ondoan, bai, Oroskorantza, bai.

Bai. Laminen gainekoa, nire aititari urten zan (sic) laminak. Bai emen, nire amaren aitari, aitita nirea, Oroskokoari bai

Zeanuritik etorri zanean, eta, etorri zan, basoetatik. Orduan basoetatik etorten zan, eta etorri zanean ba... ikusi zan (sic) ba... Zer izango da? Zer izango da? Berbaz, berbaz... entzuten zan berbaz, berak... eta berak bildur bat ejenploa gizona, ba berbaz gaubez. Baten bat dator, baten bat dator ... eta paratu zan geldi-geldi. Eta geldi-geldi paratu zanean ikusi zan (sic) laminak e.

Bai, bai, Jentilzulotik.

Jentilzulotik urtetan ziran, esaten zan (sic), nire aititak esaten zan (sic) laminak urtetan zirala Jentilzulotik.

Or goian dago Jentilzulo, kanteraren ondoan, bai, Oroskorantza, bai.

Lesiaga, emen, emen bean. Ori esta, Jentilsulo dago gorago, bai.

Anbotora joaten senean, esaten san, beti esaten san ori, lamiñak Jentilsulotik urten eta Anbotora joaten seran (sic). Ori esaten san...

Eta nire aitite gusurti esen isin e, ombre, gisona formal, bai bildurre pasau sana, seguru, etorri sen, bueno, akabaute gisona etzera.

Bai, bai, bai, nire aitite pasau sen (sic) bildurre, bildurre ejemploa seguru, entzuten san berbas, klaro, eta es (s)en (sic) jakin ser dan-ser dan... eta geldiro pasau, geldi-geldi.

Da orduntxe, sorgiñek esaten san, gero lamiñek. Nire aititek esaten san (sic) lamiñek.

A(k)p(b)eti esaten san (sic), bai, batzuk esaten san sorgiñek, eta berak esaten san (sic) sorgiñek es, aiek siren lamiñek.

Or goien, bai Aranguren, bai, ortxe.

Aite bertokoa, aitite bere bai, ama Orbekoa, bai.

Eskolara? Emetik, ni? Arangurenetik?

Ortik Aretara.

Emetik! (Kateatik), oin dagon lekutik ariño, emetik, Urtetan nendun Katera, eta Kateatik, ba... Aretara. Oines, ordun... badakisu...

Kamiño es (s)en egon ordun, e! Bide bat, bidea ba ibiltan sana gurdie. Gurdie, an egoten san ba burdibidea badakisu suk

Bueno, ure bere, dana joaten san neguen. Udan ondo, baie negun?

Lesiaga, emen, emen beean. Ori ez da, Jentilzulo dago gorago, bai.

Anbotora joaten zanean, esaten zan, beti esaten zan ori, laminak Jentilzulotik urten eta Anbotora joaten zeran (sic). Ori esaten zan...

Eta nire aitita guzurtia ez zan izan e, ombre, gizona formal, bai bildurra pasatu zana, seguru, etorri zan, bueno, akabatura gizona etxera.

Bai, bai, bai, nire aitita pasatu zan (sic) bildurra, bildurra ejemploa seguru, entzuten zan berbaz, klaro, eta ez zan (sic) jakin zer dan-zer dan... eta geldiro pasatu, geldi-geldi.

Eta orduantxe, sorginak esaten zan, gero laminak. Nire aititak esaten zan (sic) laminak.

Ak beti esaten zan (sic), bai, batzuk esaten zan sorginak, eta berak esaten zan (sic) sorginak, ez, aiek ziran laminak.

Or goian, bai Aranguren, bai, ortxe.

Aita bertokoa, aitita bere bai, ama Orbekoa, bai.

Eskolara? Emetik, ni? Arangurenetik? Ortik Aretara.

Emetik! (Kateatik), orain dagoan lekutik araino, emetik, Urtetan nendun Katera, eta Kateatik, ba... Aretara. Oinez, ordun... badakizu...

Kaminoa ez zan egon ordun, e! Bide bat, bidea ba ibiltan zana gurdia. Gurdia, an egoten zan ba burdibidea badakizu zuk

Bueno, ura bere, dana joaten zan neguan. Udan ondo, baina neguan?

93.1. Itargiko gizon kondentua

Ori itargiko kontu ori, txikiterik entzunekoa da, binke txikitekoa. Ni

Ori itargiko kontu ori, txikitarik entzunekoa da, beinke txikitakoa. Ni esko-

eskolara sortzi egun bakarri(k)-tx(y)oa nintzen baie elixara asko, oba es. Gure aldien, domeketako mesara da yayegunetakora yoan es itea pekatu astune yatzun da yoan in bear, espabere, pekatu mortalean ilaskero infernure, da betiko. Orregaiti ba elixara yoaten gintzesan lelengo kanpaiotzagas etzean urtenda. Gu, mesa nausire yoaten gintzesan baia gurasoak (g)oxeko saspiretako mesara yoate sirean, gero egurdartean ganaduek gobernetako-ta. D'Aste Santuen? Erri gustie elixara, espabere?

Ba, baten, seguru, gixoneskoan bat, elixara yoan bearrean, baso-egurreran yoan i sen Bariku Santu egun beten. Yoan be itea! Ori ingo auen ba a(k)p(b)e? Yakingo auen ba elixara yoan bea sana olango egun andi beten! Baie,ata gusti be, yoan in sen basora, tolostu auen bere egur kargea da betorren, seguru, etzerantza baso-egurrori lepoan dala.

D'esaten audien gixon ori kondenu in sala d'itargien eskiñan daoela eskegite betiko, kondenaute itargien eskegite egoten. Itargieri begitu eskero antxe ikusten da gixon kondenu orren gerixea. Antza be bauko e? Isin be igual isingo da seoser e. Kontau, sikieran, olantxe itoskuen gure sarrak, an supastarrean kontu kontetan eragoten oskunean.

93.2. Begizkoa bota neuri txikerretan

Begiskoana? Ni nau ia akordau be enas iten, baie txikerretan, binke txikerretan, negarti utze naintzen, seguru. Da, baten, bost egun on i nintzen negar baten parau be in

lara zortzi egun bakarrik joan nintzan baina eleizara asko, oba ez. Gure aldian, domeketako mezara eta jaiegunetakora joan ez egitea pekatu astuna jatzun eta joan egin bear, ezpabere, pekatu mortalean il ezkerro infernura, eta betiko. Orregaitik ba eleizara joaten gintzazan leenengo kanpaiotsagaz etxean urtenda. Gu, meza nagusira joaten gintzazan baina gurasoak goizeko zazpiretako mezara joaten ziran, gero egurdartean ganaduak gobernetako-eta. Eta Aste Santuan? Erri guztia eleizara, ezpabere?

Ba, baten, seguru, gizezkoen bat, eleizara joan bearrean, baso-egurreran joan ei zan Bariku Santu egun baten. Joan be egitea! Ori egingo euan ba ak be? Jakingo euan ba eleizara joan bear zana olango egun andi baten! Baina, a eta guzti be, joan egin zan basora, tolestu euan bere egur kargea eta baetorren, seguru, etxerantza baso-egurrori lepoan dala.

Eta esaten eudien gizon ori kondenuatu egin zala eta itargiaren eskinan dagoala eskegita betiko, kondenuatuta itargian eskegita egoten. Itargiari begitu ezkerro antxe ikusten da gizon kondenuatu orren geriza. Antza be badauka e? Izan be igual izango da zeozer e. Kontatu, sikieran, olantxe egiten euskuen gure zaarrak, an supastarrean kontu kontetan eragoten euskunean.

Begizkoarena? Ni neu ia akordatu be ez naz egiten, baina txikerretan, beinke txikerretan, negarti utsa nintzan, seguru. Eta, baten, bost egun egon ei nintzan negar baten paratu be egin barik.

barik. Orduen, baten batek esan i otzen gure amari-te, sera:

- Su, orrek orpo-gorri orrek begis-koa espadaukotzu ba?
- Ba, auki be igoal, baten bate(k)p-(b)otata, se negar baten daragoio bost egunokas isildu be in barik.
- Aitisu, emoiosu anil-ure, se anil-urek kendu iten i daus olango gau-sak eta emoitzesu, esa eskuen dau-kosu te.

Alantxik in i ostien da isildu in i nintzen. Yoan egin yatan begis-koa edo dana dalakoa. Selango gausak e? Seoser auki be bauko orrek anil-ur orrek e? Se ostaintxean?

Anile, guk u erropa surieri bota-ten gauntzen gobadegunean. Anil sati bet artu d'urean urtu te liñosko ixerari-te emon sin-balde sabal baten kolore urdinskea artzeako d'usain-txue be bai. Gaur ori labadoreak.

Orduan, baten batek esan ei eutsan gure amari-eta, zera:

- Zu, orrek orpo-gorri orrek begiz-koa ezpadeukotsu ba?
- Ba, euki be igual, baten batek botata, ze negar baten daragoio bost egunokaz isildu be egin barik.
- Aitizu, emoiozu anil-ura, ze anil-urak kendu egiten ei dauz olango gauzak eta emoitsazu, eza eskuan daukazu eta.

Alantxik egin ei eustien eta isildu egin ei nintzan. Joan egin jatan begiz-koa edo dana dalakoa. Zelango gauzak e? Zeozer euki be badauka orrek anil-ur orrek e? Ze osterantxean? Anila, guk u erropa zuriari botaten geuntsan gobada-egunean. Anil zati bat artu eta urean urtu eta linozko izerari-eta emon zin-balde zabal baten kolore urdinzkea artzeako eta usaintxua be bai. Gaur ori labadoreak.

93.3. Sorgin-landa Gezaleko Olalden

Enas askorik akordau be iten, baie entzunde dauket or o Gesaleko Oraldeko etzean atzeko landan sorgi-nek-edo, estai(t)p(b)a nortzu(k)p-(b)e batzean sireala euren yantzak-eta iteko. D'olango sorginen batek e Katalin i auken isena be, d'an landan fetxoriek iten i audiesala daukat enzunde.

Gesalerrekeari dotzela dao Oralde. Suresko subie pasau bea da, d'axen atzeko landea i sen sorgin-land'ori.

Guk u, Beresiati nainora yoate-ko, andixi errekariti pasau bear isiten gaindun, da, ganeko bildurre, bildur-re langoa andi pasakeran batesbe

Ez naz askorik akordatu be egiten, baina entzunda daukat or o Gezaleko Olaldeko etxearen atzeko landan sorgi-nak-edo, ez dakit ba nortzuk be batzean zirala euren dantzak-eta egiteko. Eta olango sorginen batek e Katalin ei eukan izena be, eta an landan fetxoriak egiten ei eudiezala daukat entzunda.

Gezale- errekeari deusala dago Olalde. Zurezko zubia pasatu bear da, eta arexen atzeko landea ei zan sorgin-landa ori.

Guk u, Beresiatik nainora joateko, andixik errekaritik pasatu bear izaten gendun, eta, gaineko bildurra, bildurra langoa andik pasakeran batezbe ilundu

ilundu edo gaturduen. Oin estao eser d'esen bildurri(k)p(b)e. Baie len?

edo gautu orduan. Orain ez dago ezer eta ezeren bildurrik be. Baina leen?

93.4. Errotak prezintatu

Guk u gerra denporea eta gerrostea txarrak pasau dus da gosea bat, kendukakoa. Ogie be eskas. Garie ereiten gairduen baie errotak presintau itoskusen da isin io garie.

Da, baten e, Seberioke errotak presintaute on sirean da ba Artean baten bat bebilela ta, ba yoan in gaintzesan Julian nebea eta biok. Orti basori(k)p(b)aso yoan gaintzesan Larragotiti, Lauretati Arteako errotara sorro-garie lepoan artute tandaka eroateko, bidea be lusea san da.

Allegau gaintzesan alangonbaten Arteako kurtzerora ta ene, altoa es oskuen bota ba orrik i txapelokerrrok! Guardisibil pareta antxe, olan-gorik! D'altoa bakarrik es, kendu bes oskun in ba sorro-garie d'esebe barik itxi!

B'axe in oskuen d'isilik on bear. Nok esan eser airi txapelokerrari! D'esebe barik etorri gaintzesan etzera.

Bidean esan be in nauntzen nebeari, ba se:

– Julian, errotarantzean sainbet mende kenduko ete oskuen ardurea eroan du, da bitisu, oin menderik andiena kentzea baño andiagoa, esebes tristea. Inon danik pasau be gero! Se ingo sauntzen ba? Aguantau in bear!

Guk u gerra denporea eta gerra ostea txarrak pasatu doguz eta gosea bat, kendukakoa. Ogia be eskas. Garia ereiten gairduen baina errotak prezintatu egiten euskuezan eta ezin eo garia.

Eta, baten e, Zeberioke errotak prezintatuta egon ziran eta ba Artean baten bat baebilela eta, ba joan egin gaintzesan Julian nebea eta biok. Ortik basorik baso joan gaintzesan Larragotitik, Lauretatik Arteako errotara zorro-garia lepoan artuta tandaka eroateko, bidea be luzea zan eta.

Allegau gaintzesan alangoren baten Arteako kurtzerora eta ene, altoa ez euskuen bota ba orreik i txapelokerrrok! Guardisibil pareta antxe, olan-gorik! Eta altoa bakarrik ez, kendu be ez euskuen egin ba zorro-garia eta ezer be barik itxi!

Ba axe egin euskuen eta isilik egon bear. Nok esan ezer aiei txapelokerrari! Eta ezer be barik etorri gaintzesan etxera.

Bidean esan be egin neuntsan nebeari, ba ze:

– Julian, errotarantzean zeinbat mende kenduko ete euskuen ardurea eroan dogu, eta begitu egizu, orain menderik andiena kentzea baino andiagoa, ezebez tristea. Inon danik pasatu be gero! Zer egingo zeuntsan ba? Aguantatu egin bear!

93.5. Inizituaren kontrako erremedioak

Inisitue t'odaiek eragoiengan, etzera yoaten gaintzesan karran da

Inizitua eta odeiak eragoiengan, etxera joaten gaintzesan karran eta kan-

kandela berinkitue isitu edo erramu egunean berinkituko ereñotz orri betzuek erre surten odaie uxatuteko edo kalterik in esiteko. Da, badaespada, gatza be botaten gaindun surtera orrik parte txarrekoak-edo, deskalabrurik in esiteko. Bildurre amea!

dela bedeinkatua isiotu edo erramu egunean bedeinkatutako ereinotz orri batzuek erre surten odeia uxatuteko edo kalterik egin ez egiteko. Eta, badaezpada, gatza be botaten gendun surtera orreik parte txarrekoak-edo, deskalabrurik egin ez egiteko. Bildurra amea!

94.1. Zemendi beharrak eta gerokoak

Garie

Semendien, lenao, gari ereiteak emotoskun seregin andie. Lelengo lurre ondo giâu bear isite san da gero garie erein.

Orretarako, sinesko balde sabal baten urera botaten san galgaraue. Garau sikuak edo ustelak gora igotaidien eta sindoak bean. Gero, gau-sestanduok olloari bota da sindoak kare bisiegas nastu-nastu ite sirean, bai, karea nastu ona salako ernarorako.

Gero, soloan, asatzak iminte sirean d'erain garie. Artu sorro baten da txirran botate san asatzakas markauko lekutik.

Gero etxon. Ernarora etorri orduen, mokilek edo sokilek fundau eskero, txilindroia esaten yakon erremintea paseta san gari landarea malograu barik sokilok apur-apur iteko. Txilindroiak agines beteko iru burtzil aukesan da sokil-mokilok austu itausen landareak sufridu barik.

Gariak eldurduen, yo iten gaindusen. Guk u eskutak arrien yoten gaindusen garanduteko. Gero garbitako, artza erabilten gaindun axatuteko. Pudienteak edo aukenak, makinea aukitauen orretarako baie guk u suresko artzagas.

Garia

Zemendian, leenago, gari ereiteak emoten euskun zeregin andia. Leenengo lurra ondo gidatu bear izaten zan eta gero garia erein.

Orretarako, zinezko balde zabal baten urera botaten zan galgaraua. Garau sikuak edo ustelak gora igoten eudien eta zindoak beean. Gero, gauzeztanduok olloai bota eta zindoak kare biziagaz naastu-naastu egiten ziran, bai, karea naastu ona zalako ernarorako.

Gero, soloan, azatzak iminten ziran eta erein garia. Artu zorro baten eta txirran botaten zan azatzakas markatuko lekutik.

Gero etxodon (itxaron). Ernarora etorri orduan, mokilak edo sokilak fundatu ezkeru, txilindroia esaten jakon erremintea pasetan zan gari landarea malogratu barik sokilok apur-apur egiteko. Txilindroiak aginez beteko iru burtzil eukazan eta sokil-mokilok austu egiten euazan landareak sufridu barik.

Gariak eldu orduan, jo egiten genduzan. Guk u eskutak arrian joten genduzan garanduteko. Gero garbitako, artza erabilten gendun aizatuteko. Pudienteak edo eukanak, makinea eukiten euan orretarako baina guk u zurezko artzagaz.

Gero errotara. Guk u sabalik on eskero, Subibarriko Bixinti errotarie-ri eroaten gauntzen ioteko. Baie, bakisu, errotariek lapur antzak isiten sirean da ba sarriten e mendea amarreko ba(t)p(b)arik, bi edo iru be igual kentzeoskun. Sera, amerreko bata artoan isite san, garien geitxuago berrogeta sortzi kiloko iru t'ardi errotarientzako berentzako. Da baten asarratu be in gaintzesan da beste errota batera yoan ioten. Da, bakisu se esaosten Bixinti errotariek? Auxe:

– Errotea kanbiaukosu baie errotarie es. Aragoan be txakurrek ortosik, d'aragokoa(k)p(b)e bardin ingotzu arto sein garien mendeagas.

Gastaña

Gastaña denporea etorte sanean, ba batu iten gaindusen kirikiño klase onenak, sainde mentugorriek eta orrik, eta kirikiñusire batzean gaindusen, kirikiñoa usteldu ala, yaten yoateko. Kirikiñoak pintxoak daukisenes, suresko ugelaxoa erabilten gendun edo eskutillea pintxau barik i batu te kirikiñusien sartzeako. Ganetiko gastañetara txarriek soltetan gaindusen tripekada batzuk iteko da prentzu apur bet aurreratuteko. Gure denporan komerentzi andiri(k)p(b)esegoan da, seoser ideau bear se txarriekie ondo etorten yakun urterako, urtea lusea da ta.

Iketz-egostea

Iketzegosten orti Aibelabe aspiti ibilten gaintzesan. Usabantzat agosten gaindun. An ibilten gaintze-

Gero errotara. Guk u zabalik egon ezkeru, Zubibarriko Bixinti errotariari eroaten geuntsan eoteko. Baina, badakizu, errotariak lapur antzak izaten ziran eta ba sarritan e menda amarreko bat barik, bi edo iru be igual kentzean euskun. Zera, amarreko bata artoan izaten zan, garian geitxuago, berrogeita zortzi kiloko iru t'ardi errotarientzako berentzako. Eta baten aserretu be egin gintzazan eta beste errota batera joan eoten. Eta, badakizu zer esan eustan Bixinti errotariak? Auxe:

– Errotea kanbiatuko dozu baina errotaria ez. Aragoan be txakurrak ortozik, eta aragokoak be bardin egingo deutsu arto zein gariaren mendagaz.

Gaztainea

Gaztaña denporea etorten zanean, ba batu egiten genduzan kirikino klase onenak, zeinda mentugorriak eta orreik, eta kirikinusira batzean genduzan, kirikino a usteldu aala, jaten joateko. Kirikinoak pintxoak daukiezanez, zurezko ugelaxoa erabilten gendun edo eskutilea pintxatu barik i batu eta kirikinusian (kirikinohesian) sartzeako. Gainetiko gaztainetara txarriak soltetan genduzan tripakada batzuk egiteko eta prentsu apur bat aurreratuteko. Gure denporan komerentzi andirik be ez egoan eta, zeozer ideatu bear ze txarriakie ondo etorten jakun urterako, urtea luzea da eta.

Ikatz-egostea

Ikatz-egosten ortik Aibelabe azpitik ibilten gintzazan. Ugazabarentzat agosten gendun. An ibilten gintzazan erren-

san errentore koadrillea usabantzat iketzegosten.

Txondorra ondo yagon beada. Soiekas d'iduriegas tapetan gaindun txondorra, da, yagon in bear sein errementatu. Batzuk, etzera be yoate sirean bitarteka ganaduek (g)obernetan da gero barriro txondorrera. Baie beti baten batzuk txondorra yagoten se errementau eskero da soiekas tapau es a suloa, ba, iketza egosi bearrean erre iten da d'estau baligo gero sue iteko. Txondorra leku selaien iten gaindun da selai on esik, boto biribile iten gaindun d'antxe in txondorra, usabak auken egur klaseagas, seinde, pagoa, burbuxe edo beste seosegas.

tore koadrillea ugazabarentzat ikatzegosten.

Txondorra ondo jagon bear da. Zoiekaz eta iduriagaz tapetan gendun txondorra, eta, jagon egin bear zein errementatu. Batzuk, etxera be joaten zirean bitarteka ganaduak gobernetan eta gero barriro txondorrera. Baina beti baten batzuk txondorra jagoten ze errementatu ezkerro eta zoiekaz tapatu ez a zuloa, ba, iketza egosi bearrean erre egiten da eta ez dau balio gero sua egiteko. Txondorra leku zelaian egiten gendun eta zelai egon ezik, boto biribila egiten gendun eta antxe egin txondorra, ugazabak eukan egur klaseagas, zeinda, pagoa, burbuxe edo beste zeozegaz.

95.1. Anbotoko Señorea Untzetaben

Lenaokoak e baie lenao-lenao-koak esataudien Anbotoko Señorea Untzetabeti Anbotora yoate sala. Iru urtean ote sala Señorori Anboton da beste iru Untzetaben, da garretan yoate sala Untzetabeti Anbotora d'andik Untzetabera lo mismo.

Da gau beten, seguru, yoan i sen, estai(t)p(b)a a ixingo basan, garrrrretan seguru. Or Sabalen, palasioa esaten yakona, or bixi sirean Joaniko, orrik i Pedron d'aite-ta. Da, Pedron osabea, solteru on san ondiokarren, seguru, da Joaniko, Pedron aite, geies, gei baten:

– Joaniko-Joaniko, yagi sates, aitisu ara gora

D'ordu en berak ikusi auela justuen, suten, garretan yoan sala Anbotoko Señorea. Joanikok esatauen bera(k)p(b)e apur bet ikusi auela. Bere kuñetuek ogeto ikusi

Leenagokoak e baina leenago-leenagokoak esaten eudien Anbotoko Señorea Untzetabetik Anbotora joaten zala. Iru urtean egoten zala Señora ori Anboton eta beste iru Untzetaben, eta garretan joaten zala Untzetabetik Anbotora eta andik Untzetabera lo mismo.

Eta gau baten, seguru, joan ei zan, ez dakit ba a izango bazan, garrrrretan, seguru. Or Zabalen, palasioa esaten jakona, or bizi ziran Juaniko, orreik i Pedroren-eta aita-eta. Eta, Pedroren osabea, solteru egon zan oraindikarren, seguru, eta Juaniko, Pedroren aita, deiez, dei baten:

– Juaniko-Juaniko, jagi zaitetz, aitu egizu ara gora

Eta orduan berak ikusi euala justuan, sutan, garretan joan zala Anbotoko Señorea. Juanikok esaten euan berak be

auela se solteru egoana letxe beti ebi-
len berandu, goxaldean, da ba ak
ogeto ikusi auela Anbotoko Seño-
rori. Joanikok enkanbio justo-justo-
an ikusi auela garretan yoian ori te ba
Anbotoko Señorea isingo sala. Nor
ba ostaintxean atan ordutan garra
dariola?

apur bat ikusi euala. Bere koinatuak
obeto ikusi euala ze solteru egoana
letxe beti ebi-
len berandu, goizaldean, eta
ba ak obeto ikusi euala Anbotoko
Señora ori. Joanikok enkanbio justo-justo-
toan ikusi euala garretan joian ori eta ba
Anbotoko Señorea izango zala. Nor ba
osterantzean aretan ordutan garra
dariola?

95.2. Jentilen hondamendia Untzetapikun

Yentilek Untzetapikun bisi siala
daukotziet entzunde gure lenaokoari
d'aik auren lenao-lenaokoari entzun-
de aukotzien. Begi bakarra i aukien
bekokien erdi erdien d'indertzuek i
sian, sano andiek e, kankallotzarrak
Untzetapikun i aukien yentilok
auren arrisko txabolea, da, defendi-
duteko-edo, arri-bola biribil biribi-
lek i aukiesan inde t'iladan iminite
baten batzuk u kontra inean be. Da
baten batzuk arrimetan bayakiesan
txarresean, ba, arri-bolok botaten
otziesan txirran goiti biera, d'orre-
gaitiño agartu dire ainbet arri-bola
Orosko partean da Seberio partean
be bai. Ortxe daukosus partida bat
Arkulandan, Perun-da etzean, ba-
tzuk orma ganetan adornureko imi-
nite da besto batzuk u etzondoko
ormeari dotziela iladan iminita.

Da, ba, kontetan daudie ba se,
ori Presaldeko Apotxon ama-ta,
Oroskoko Olabarrikoak esta, d'orri-
ri, segun-itxurea, orrin aiten anajeak
edo estai(t)p(b)a, lau anaje sirean, ba,
orriri, seguru, arrabea kendutzien,
yentilok, arrabea arrapau d'aurekas
eroan Olabarriti Untzetapikuko txa-
bolara. Olabarri, Oroskon dao,
Untzetapiku aspian.

Jentilak Untzetapikun bizi zirala
deukotsiet entzunda gure leenagokoari
eta aik euren leenago-leenagokoari en-
tzunda eukiko eutsien. Begi bakarra ei
eukien bekokiaren erdi erdian eta
indartsuak ei ziran, sano andiak e, kan-
kailotzarrak Untzetapikun ei eukien jen-
tilok euren arrizko txabolea, eta, defen-
diduteko-edo, arri-bola biribil biribilak ei
eukiezan eginda eta iladan iminita baten
batzuk u kontra eginean be. Eta baten
batzuk arrimetan bajakiezan txarrezean,
ba, arri-bolok botaten eutsiezan txirran
goitik beera, eta orregaitino agertu dira
ainbat arri-bola Orosko partean eta
Zeberio partean be bai. Ortxe daukazuz
partida bat Arkulandan, Peruren-eta
etxean, batzuk orma ganetan adornura-
ko iminita eta beste batzuk u etxe ondo-
ko ormari deusiela iladan iminita.

Eta, ba, kontetan daudie ba ze, ori
Presaldeko Apotxoren ama-eta, Orosko-
ko Olabarrikoak ezta, eta orreiri, segun-
itxurea, orrein aitaren anajeak edo ez dakit
ba, lau anaje ziran, ba, orreiri, seguru, arre-
bea kendu eutsien jentilok, arrebea arra-
patu eta eurekaz eroan Olabarritik
Untzetapikuko txabolara. Olabarri, Oros-
kon dago, Untzetapiku aspian.

D'orretara, neskatxi orren lau anajeok, palankak-eta artute, yoan Untzetapikure d'apurtu in otzien a txabolea yentilori t'arabea librau t'etzera eroan, Olabarrire.

Orduxean akabau i sirean Untzetapikuko yentilok eta desapareaidu paraje atati. Sererantza, Salamankarik arago, Lebanterantza-edo in audielaskoa daukot entzunde, d'esiala geao arrimau be in Untzetapikure. Alantxe ondatu siala betiko begi-bakardun yentiltzarrok.

Agartu es, baie ondiokarren Untzetapikun aldibeteko txabolean orma errastuak agiri dire gero e, da, ba, seosen sinifikasiñoa isingo yatzu ori. Gaur u antenas yosite dao Untzetapiku, baie ormak an daos ondiño be, bista bistan. Se gausea e?

Eta orretara, neskatxi orren lau anajeok, palankak-eta artuta, joan Untzetapikura eta apurtu egin eutsien a txabolea jentiloi eta arabea libratu eta etxera eroan, Olabarrira.

Orduxean akabatu ei ziran Untzetapikuko jentilok eta desaparezidu paraje artatik. Zererantz, Salamankarik arago, Lebanterantz-edo egin eudielaskoa daukat entzunda, eta ez zirala geiago arrimatu be egin Untzetapikura. Alantxe ondatu zirala betiko begi-bakardun jentiltzarrok.

Agertu ez, baina oraindikarren Untzetapikun aldibeteko txabolearen orma errastuak agiri dira gero e, eta, ba, zeozeren signifikazioa izango jatzu ori. Gaur u antenaz josita dago Untzetapiku, baina ormak an dagoz oraindino be, bista bistan. Zer gauza e?

95.3. Begizkoa txarri-gauzari

Begizkoa, personari esese, animilieri be botatotzien, antza. Bakisu, ausonatan ikusiesine(k)p(b)e oteire ta ba lantzean bein korta-ganadueri be botatotzien begizkoa, seinde urteko txarrieri edo sesin-sekorrari edo beintxeari be igoal. Inbidie esta gauzona isin be.

Da, baten, emen estai(t)p(b)a noin txarrie(k)p(b)e, kolore baragarrie artzean asi sirean, olan e, plantxadak edo baltzuneak urtetan asi yakiesan, d'itxure txarrean i egosan makerea ta txarrikuma gustiek.

Atara, olan e begisko kontuetan aitue san baten batek esan i otzen txarrion usabari:

– I, ori gatx ori agartuteko begizkoa espayotzie(k)p(b)ota ba mantzinen batek?

Begizkoa, pertsonai ezeze, animaliai be botaten eutsien, antza. Badakizu, ausonatan ikusiezinak be egoten dira eta ba lantzean bein korta-ganaduari be botaten eutsien begizkoa, zeinda, urteko txarriai edo zezin-zekorrari edo beintxeari be igual. Inbidia ez da gauza ona izan be.

Eta, baten, emen ez dakit ba noren txarriak be, kolore baragarria artzean asi ziran, olan e, plantxadak edo baltzuneak urtetan asi jakiezan, eta itxura txarrean ei egozan makerea eta txarrikuma guztiak.

Artara, olan e begizko kontuetan aditua zan baten batek esan ei eutsan txarrion ugazabari:

– I, ori gatx ori agertuteko begizkoa ez bajautsiek bota ba mantzinen batek?

– I, ba, seoser bai, se, gauberik (g)oxera agartu yakiesak baltzuna baragarriok eta yakatzu ta triste yaosak makeratik asi te atzeko errokoranoako gustiek, ibilpidea be dekortute, sano dekor.

– I, mutil, ba, betrinarioari geitiok edo espabere anil-ur apur bet emoiotziek, onan bat i dok eta begiskoan kontrarako.

Da, ba, emotzien seguru anil-ur ori, te, oño! biskortu e(s)tx(y)akosan in ba txarriok! D'apurka- apurka baltzunok (g)arbituten yoan yakiesan da gero ba komosino! Bitisu e? Txarriari be begiskoa e? Olangorik?

– I, ba, zeozer bai, ze, gauerik goizera agertu jakiezak baltzuna baragarriok eta jakatzu eta triste jagozak makeratik asi eta atzeko errokorainoko guztiak, ibilpidea be dekortuta, sano dekor.

– I, mutil, ba, beterinarioari deitu egiok edo ezpabere anil-ur apur bat emoiotsiek, onen bat ei dok eta begizkoaren kontrarako.

Eta, ba, emon eutsien seguru anil-ur ori, eta, oño! bizkortu ez jakozan egin ba txarriok! Eta apurka- apurka baltzunok garbituten joan jakiezan eta gero ba como si no! Begitu egizu e? Txarriai be begizkoa e? Olangorik?

96.1. Jentilen Itzinako harrizarra Arantzazuko hartzubiari deutsala.

Au kontu au, orriri Antzasuko gure sarrari-te entzunda daukotziet eta kontu polite yatzu ikusikosu. Aitu:

Atxine, Antzasuarrak arrisko subie aukien inde elexara bidean, baie isin audien gauzonik in uriolakas. Arrati-errekea andi-andi etorte san bakotxean, errekariko beste gausa asko esese, arrisko subi orreri errementaso eta errekea bera eroaten otzen subi satie, alde batekoa enpartikular, bestekoa es, se bestean arta andi bet (d)ao oindo be, alosoko artea, artarra, d'ak ogeto yagotauen, seguru, bere alderdie. Da, ba barriro bearlekue subiginen, urrungo uriolak nos etorriko bildurkilik.

Antzasuarrak a gogait indegozan subigintza orregas d'egun beten Gorbaiera, Itxinara yoan i sirean an Supelegorren bisi sirean yentileri laguntza eske. Yentilok arrera ona in i otzien Antzasuarrori, onesean yoan

Au kontu au, orreiri Arantzazuko gure zaarrei-eta entzunda deukotsiet eta kontu polita jatzu ikusiko dozu. Aitu:

Antzina, Arantzazuarrak arrizko zubia eukien eginda eleizara bidean, baina ezin eudien gauzonik egin uriolakaz. Arrati-errekea andi-andi etorten zan bakoitzean, errekariko beste gauza asko ezeze, arrizko zubi orreri errementazo eta errekea beera eroaten eutsan zubi zatia, alde batekoa enpartikular, bestekoa ez, ze bestean arta andi bat dago oraindo be, alozoko artea, artarra, eta ak obeto jagoten euan, seguru, bere alderdia. Eta, ba barriro bearlekua zubiginen, urrungo uriolak noz etorriko bildurkilik.

Arantzazuarrak a gogait eginda egozan zubigintza orregaz eta egun baten Gorbeiera, Itzinara joan ei zirean an Supelegorren bizi zirean jentilei laguntza eske. Jentilok arrera ona egin ei eutsien Arantzazuarrori, onezean joan

yakiesalako e, se txarresean mantzinek i sirean gero orri(k)tx(y)entilok, d'esan i otzien ba se:

- Ser dakaskusue ba, ain estu te larri etorteko, bearrestanan bat suertau yatzue ala? Sauon oneti urtenda saosiela dirudisue, ser dauskusue ba?
- Ba, aiko, Antzasuarrok esin du gausonik in uriolakas, uriola bakotxean, Arrati-errekako ur andiek txirran letxe eroaten dosku Antzasuko arku te gustisko subi sati ederra, d'atzera konpondu bear subie, errotara sein elexara pasauko bagara. Da, ba, suokana gatos laguntzea eske. Au da gure t'isinin deseserasiñoa.
- Bueno ba, es eisue odol txarrik in, de, soasie sauroner ta seoser ingoyatzue ganeko egunen baten, selanbaist konponduku suron ser ori, porlemori, gatxagoa(k)p(b)indus de. Guk seoser ideau edo asmau bitartean, suok ekin subikonponduteari

Beragoioen Antzasuarrok subiginen, da, ba, andi denporeagarrenean, Supelegorreko yentilak, artu Itxinako asduetik atx edo arri endemoniño bat eta, tandaka, seguru, oin yentil batak eta gero besteak, Antzasun agartu sirean arri endemoniño orregas. Arkudun artzubi ondora allegau sianean, arritzar ori imini audien subie fasilen apurta san serean, tramoan, subieri uriolak kalterik in esiteko moduen, seinde parapeto les. D'arexegas, santo erremedio, seguru, yentilen laguntzari esker. Ser dan onesean ibiltea e?

Antzasuarrak orduen, agradesitako, ardi-errebañu bet opatu i otzien yentilori, in otzien mesede-

jakiezalako e, ze txarrezean mantzinak ei zirean gero orreik jentilok, eta esan ei eutsien ba ze:

- Zer dakarskuzue ba, ain estu eta larri etorteko, bearrestanaren bat sugertatu jatzue ala? Zeuon onetik urtenda zagoziela dirudizue, zer deuskuzue ba?
- Ba, aiko, Arantzazuarrok ezin dogu gauzonik egin uriolakaz, uriola bakoitzean, Arrati-errekako ur andiak txirran letxe eroaten deusku Arantzazuko arku eta guztizko zubi zati ederra, eta atzera konpondu bear zubia, errotara zein eleizara pasatuko bagara. Eta, ba, zuokana gatoz laguntzea eske. Au da gura eta ezinaren desesperaziñoa.
- Bueno ba, ez egizue odol txarrik egin, eta, zoasie zeuroner eta zeozer egingo jatzue ganeko egunen baten, zelanbaist konponduko dogu zuon zer ori, problema ori, gatxagoak be egin doguz eta. Guk zeozer ideatu edo asmatu bitartean, zuok ekin zubi-konponduteari.

Baeragoioen Arantzazuarrok zubiginen, eta, ba, andik denporeagarrenean, Supelegorreko jentilak, artu Itzinako azduetik aitz edo arri endemonino bat eta, tandaka, seguru, orain jentil batak eta gero besteak, Arantzazun agertu zirean arri endemonino orregaz. Arkudun artzubi ondora allegatu ziranean, arritzar ori imini eudien zubia fazilen apurtan zan zerean, tramoan, zubiari uriolak kalterik egin ez egiteko moduan, zeinda parapeto lez. Eta arexegas, santo erremedio, seguru, jentilen laguntzari esker. Zer dan onezean ibiltea e?

Arantzazuarrrak orduan, agradezita-ko, ardi-errebañu bat opatu ei eutsien jentiloi, egin eutsien mesedeagaitik.

gaiti. Ganeko mesedea in be! D'arri endemoniño ori antxe dao oin be, d'uriolarik andiena(k)p(b)e, mogidu bestau iten, sirkini(k)p(b)es, seguru. Alango arritzarra ekarteko inderra be beada gero e? Yentilek isin bear! Ara, yentileri bildur andie isin yakie beti, gure aldien be bai, baie kasu onetan lagun portau sirean. Kontau alan iten da sikieran, gaur askok sinistu be in es arren.

Ganeko mesedea egin be! Eta arri endemonino ori antxe dago orain be, eta uriolarik andienak be, mogitu be ez dau egiten, zirkinik be ez, seguru. Alango arritzarra ekarteko indarra be bear da gero e? Jentilak izan bear! Ara, jentilei bildur andia izan jakie beti, gure aldian be bai, baina kasu onetan lagun portatu zirean. Kontatu alan egiten da sikieran, gaur askok sinistu be egin ez arren.

97.1. Gorbeiaiko ermitari berriari buruzko bertsoak

1

Igiriñaon ser pasatu sen (grabazioan ez da ia-ia ulertzen lerro hau)
gure badosu aditu
bertzo barriak noa jartzera
ondo esango banintu
arrasoi ori neure barruan
esin yat ondo kabitu
aldameneko lagun prestuak
geiago bere baditu.

2

Ermita ori ein biar sala
lelengoan basutena
arrasoiakin ondo sebillan
oso san gison susena
atxiñetikan esautu neban
fedesutza suana
bera(k)p(b)e ondo esautu eban
mesea konbeni sana.

3

Beste deseo andi bat (d)egu
artzain gustien artean
ermita ori asi sanetik
oneraño bitartean
deskantzurikan bat ere yesda
bera ikusi artean
Ama Birgiña Lurdesekoa
bertara ekarri artean.

1

Igiriñaon zer pasatu zen (grabazioan ez da ia-ia ulertzen lerro hau)
gura badozu aditu
bertso barriak noa jartzera
ondo esango banintu
arrasoi ori neure barruan
ezin jat ondo kabitu
aldameneko lagun prestuak
geiago bere baditu.

2

Ermita ori ein bear zala
lelengoan bazutena
arrazoiakin ondo zebillan
oso zan gizon zuzena
atxiñetikan ezautu neban
fedesutsua zuana
berak be ondo ezautu eban
mezea konbeni zana.

3

Beste deseo andi bat degu
artzain guztien artean
ermita ori asi zanetik
oneraño bitartean
deskantsurikan bat ere (y)ez da
bera ikusi artean
Ama Birgina Lurdesekoa
bertara ekarri artean.

4

Ama Birgiña Lurdesekoa
beti isan degu maite
deseo(o)rrekin geure biotza
esin isan degu bete
pensamentu ori artu genduela
oraintxe dauko lau urte
gau eta yegun beti begira
ermitan ikusi arte.

5

Ama Birgiña Lurdesgoari
askok eiten dutzo bisita
euren gorputzak asko penauagas
urrinetikan asita
gaixuak eta yerrenak asko
sendatuak ikusita
posas soratzen biurtzen dira
limosna ederrak utzita.

6

Neure kristauak artu deigusan
oitura onak gogoan
Ama Birgina Lurdesgoa ta
San Antonio ta San Juan
onein ganeti gurutze andi bet
ermitaaren buruan
Gorbai menditar gustiontzako
yorra ser modu dagoan.

7

Gorbai aldean bisi gerade
gente prestuen artian
au egie da siñes (s)asute
ortan es dago dudikan
gente prestue yagertzen yaku
Gorbai gustie onretan
yArrabatikan ibiltzen dira
Gorbai aldetikan bueltan.

8

Biskaiko mendi ederra altu
gure Arraba eta Gorbeia
urrinetikan leku askotatik
isán dosu suk asia

4

Ama Birgina Lurdesekoa
beti izan degu maite
deseo orrekin geure biotza
ezin izan degu bete
pensamentu ori artu genduela
oraintxe dauko lau urte
gau eta (y)egun beti begira
ermitan ikusi arte.

5

Ama Birgina Lurdesgoari
askok eiten deutso bisita
euren gorputzak asko penauagaz
urrinetikan asita
gaixuak eta (y)errenak asko
sendatuak ikusita
pozaz zoratzen biurtzen dira
limosna ederrak utzita.

6

Neure kristauak artu deiguzan
oitura onak gogoan
Ama Birgina Lurdesgoa ta
San Antonio ta San Juan
onein ganeti gurutze andi bat
ermitaaren buruan
Gorbai menditar guztiontzako
(y)orra zer modu dagoan.

7

Gorbai aldean bizi gerade
gente prestuen artian
au egia da sinis zazute
ortan ez dago dudikan
gente prestua (y)agertzen yaku
Gorbai guztia onretan
(y)Arrabatikan ibiltzen dira
Gorbai aldetikan bueltan.

8

Bizkaiko mendi ederra altu
gure Arraba eta Gorbeia
urrinetikan leku askotatik
izan dozu zuk azia

orain eurekin onretan dosu(e)
su(k)p(b)ai gure.... ..
orregaitikan alegratzen du
Biskaiko gure erria.

9

Gorbei aldeko artzain gustiok
euskaldun begi argiak
an daude yeuren ganaduakin
mendi eskiñan jarriak
sarri askotan pasaitetues
desgustu ikaragarriak
baña eurentzat au de biar on
orra triste (e)rrukarriak.

10

Biskaiko mendi ederrak altu
gure Arraba eta Gorbeia
urrinetikan leku askotatik
isan satus ikusia
sure gañean ainbe(t)k(g)anadu
isan dosue asia
orain eurekin onretan dosu
su(k)p(b)ai gure Euskalerrria.

11

Ona yamabi berso oiekin
eman diot (d)espedida
geiago ba(t)p(b)e yesan bagarik
euro(k)p(b)eintzat asko dira
Seanuriko artzain sar batek
Gorbeian jarria(k)t(d)ira
ermita ori nois ingo daben
ementxe gagos begira.

OHARRA: Hamabi bertso dio
azken bertsoak baina hamaika baino
ez ditu kantatu Basiliok.

orain eurekin onretan dozu(e)
zuk bai gure.... ..
orregaitikan alegratzen du
Bizkaiko gure erria.

9

Gorbei aldeko artzain guziok
euskaldun begi argiak
an daude (y)euren ganaduakin
mendi eskinan jarriak
sarri askotan pasaitetuez
disgustu ikaragarriak
baina eurentzat au da bear on
orra triste errukarriak.

10

Bizkaiko mendi ederrak altu
gure Arraba eta Gorbeia
urrinetikan leku askotatik
izan zatuz ikusia
zure ganean ainbat ganadu
izan dozue asia
orain eurekin onretan dozue
zu(e)k bai gure Euskalerrria.

11

Ona (y)amabi berso oiekin
eman diot despedida
geiago bat be (y)esan bagarik
eurok beintzat asko dira
Zeanuriko artzain zaar batek
Gorbeian jarriak dira
ermita ori noiz ingo daben
ementxe gagoz begira.

OHARRA: Hamabi bertso dio
azken bertsoak baina hamaika baino ez
ditu kantatu Basiliok.

98.1. Musker demoninoa

Muskerra? Ene amatxue! Gane-
ko bildurre emotoskun muskerra
ekusten gendun gustiyetan. Kolorea

Muskerra? Ene amatxua! Ganeko
bildurra emoten euskun muskerra ekus-
ten gendun guztietan. Kolorea bere,

bere potite e, olan e berde-bellegiye, lusie, baie bildurre terrible. Gure amak-eta, muskerra koyuten audie-nean, igitiyegas-edo tragau t'erre itauden, lupue moduen. Lupue gitxiago ekuste san baie muskerra ugeri egoan Larikaon, se, an e sasune t'arriye dao asko d'an muskerrak otesin nainon. Da, gure amak-eta, gedar itoskun muskerragana arrimetan ekusi eskero. Sera esatoskun: "es arrimau muskerragana, es ukutu muskerra, se ori demoniñoa da, demoniñoa". D'es guri bakarrik, oniri gure umeori bere bardin ekitoztzin, arrimau bere es eiteko esatoztzien, bakisu, onik i arriyekas edo tiragomiegas edo muskerra tragetan yoaten sianean, orixe esatotzien: "itxiyosue bake bakien, muskerra demoniñoa da ta". Se klaro, guk entzunde uki du beti muskerrak samara iten dauela saltu t'olangoak. Oin diñue es daukola berenorik muskerrak, ostera lupue(k)p(b)ai. Lupue ekusteko polite san bere pintxo ta gusti, baie berenoa uki beuken seguru ak, eta a bere erre itaudin sein kalte in.

potita e, olan e berde-beilegia, luzea, baina bildurra terriblea. Gure amak-eta, muskerra kogiduten eudienean, igitaigaz-edo tragatu eta erre egiten eudien, lupua moduan. Lupua gitxiago ekusten zan baina muskerra ugari egoan Larikaon, ze, an e asuna eta arria dago asko eta an muskerrak egoten ziran nainon. Eta, gure amak-eta, gedar egiten euskun muskerragana arrimetan ekusi ezker. Zera esaten euskun: "ez arrimatu muskerragana, ez ikutu muskerra, ze ori demoniñoa da, demoniñoa". Eta ez guri bakarrik, oneiri gure umeori bere bardin ekiten eutsien, arrimatu bere ez egiteko esaten eutsien, badakizu, oneik i arriekaz edo tiragomeagaz edo muskerra tragetan joaten ziranean, orixe esaten eutsien: "itxi egiozue bake bakean, muskerra demoniñoa da eta". Ze klaro, guk entzunda euki dogu beti muskerrak samara egiten dauela saltu eta olangoak. Orain dinoe ez daukala berenorik muskerrak, ostera, lupuak bai. Lupua ekusteko polita zan bere pintxo eta guzti, baina berenoa euki baeukan seguru ak, eta a bere erre egiten eudien zein kalte egin.

98.2. Biborak behiari esnea edan eta gaitza sartu

Ori subea(k)p(b)eyeri esnea edateana bai, ori entzun bakarrik es, ori gure ausoko Kali-ri pasau yakon (Calistori) an Larikaon. Kalin kortako beye gero ta makalago egoan d'esekien se pasetan yakon bere. D'egun beten ango ausoko batek esan i otzen, sera: "I, Kali, au bei au gatxa(k)tx(y)ota yaok, estok isingo subean bat estok?. Da, ba, Kali, beye yagoten asi sen gau t'egun. Eta enel

Ori sugeak beiari esnea edatearena bai, ori entzun bakarrik ez, ori gure auzoko Kali-ri pasatu jakon (Calistori) an Larikaon. Kaliren kortako beia gero eta makalago egoan eta ez ekian zer pasetan jakon bere. Eta egun baten ango auzoko batek esan ei eutsan, zera: "I, Kali, au bei au gaitzak jota jagok, ez dok izango suberen bat ez dok? Eta, ba, Kali, beia jagoten asi zan gau eta egun. Eta enel Kortako orma zulotik sugea ekusi euan

Kortako orma suloti subie ekusi auen kortan sartzean, es edosein sube, biborie. Eta dsi-dsa-dsi –dsa, beyen errape aspiraño yoan, sutunik parau te suabe-suabe esnie edan beyeri errapeti. Orduen Kalik atoan tragu auen a biborie d'akabau sin ango istoriyek. Akabau bai, baie beyek es auen medretan, gatxa(k)-tx(y)ota egoan, esnie emotauen baie esne txarra, beti ebagite les, itxure txarreko esnie. Seguramente, a(k)p-(b)iboreak seoser sartu otzen errapeti beyeri, berenoa edo txue edo seoser bai se a(k)p(b)eyek es auen baligo esnerako, d'okelarako bere asko es se gero ta merroago egoan, asurrek agiriyen. Da saldu in bear isin auen Kalik a biborien gatxa(k)tx(y)oko beye. B'alantxe seguru, Kalik-eta etxieri dotzela uki audin labe aspiti i auken biboriek suloa inde kortara pasetako. Bereno bako subea isin basan, esotzon gatxik sartuko beyeri, baie biborie(k)p(b)ai. Orregaiti gure amak-eta umieri gedar itotzien sube edo muskerrak ekusi t'arrimau eskerro. D'es ori bakarrik, sube-bedarrak egosan lekure bere es yoateko agindue ukiten gendun. Sube-bedarrak polite(k)t(d)ies, orri berde-ilunekas da lorie artaburue lako garauekas, kolore diferenteko garauekas. Ba, sube-bedarretara bere es arrimetako esatoskuen amak-eta, batesbe oniri umeori. Bildurre ser dan e? Da, eukitekoa da badaespada, se gausak pasau iteire, da gero belu isin laiteke.

kortan sartzen, ez edozein sube, biborea. Eta dsi-dsa-dsi –dsa, beiaeren errape azpiraino joan, zutunik paratu eta suabe-suabe esnea edan beiaeri errapetik. Orduan Kalik atoan tragu euan a biborea eta akabau ziran ango istoriak. Akabatu bai, baina beiak ez euan medretan, gaitzak jota egoan, esnea emoten euan baina esne txarra, beti ebagita lez, itxura txarreko esnea. Seguramente, ak biboreak zeozer sartu eutsan errapetik beiaeri, berenoa edo txua edo zeozer bai ze ak beiak ez euan balio esnerako, eta okelarako bere asko ez ze gero eta merroago egoan, azurrak agirian. Eta saldu egin bear izan euan Kalik a biborearen gaitzak jotako beia. Ba alantxe seguru, Kalik-eta etxeari deutsal euki eudien labe azpitik ei eukan biboreak zuloa eginda kortara pasetako. Bereno bako sugea izan bazan, ez eutsan gaitzik sartuko beiaeri, baina biboreak bai. Orregaitik gure amak-eta umeari gedar egiten eutsien sube edo muskerrak ekusi eta arri-matu ezkerro. Eta ez ori bakarrik, sube-bedarrak egozan lekura bere ez joateko agindua eukiten gendun. Sube-bedarrak politak dira, orri berde-ilunakaz eta lorea artaburua lako garauakaz, kolore diferenteko garauakaz. Ba, sube-bedarretara bere ez arrimetako esaten euskuen amak-eta, batezbe oneiri umeori. Bildurra zer dan e? Eta, eukitekoa da badaezpada, ze gauzak pasatu egiten dira, eta gero belu izan leiteke .

98.3. San Juanetako kontu eta kantuak Larikaon

San Juanetan baiiii! Serak iten gendusin, ba, San Juan aratxa imini

San Juanetan baiiii! Zerak egiten genduzan, ba, San Juan aretxa imini bal-

balkoi edo atemarkoan. Elexerragas iten gendun engeneral. Elexar errama bat artu, arrankala txiki bet in, sartu sos bat kurtzetara da gero guk u berakas bi eta kinpulle bi iminten gauntzesan, galburue(k)p(b)e bai, d'iños lora(k)p(b)ebai. Gero gaubiluntzan, su nagosiyek in baño lenao, ba, aurreko urteko arto-lastoak edo gari eskutak artu, sue emon da soloak (g)ustiyek errekorritan gendusen San Juan gabilean (sic) kantetan. Larikao gustiye ibilte san kantuotzean solorik solo da gero bai, gero sugar nagosiek in.

San Juanetako kantie? Ba, niri ie aistu bere in yata baie akordetan nasena kantauekotzut. Ia ba:

San Juan gabilean
denporagarrian
sapoak eta subeak ondo erre
arto ta garie ondo gorde.
Gaur dala bier
bier d'egune
etzi San Juan
bere (e)gune
gure soloan saporik es
balegos bere erre beites.
San Juan bespera gaubian
atzoak asarratu sirian
estere besterik egiten
arkaleri musturrek ausiten.

koi edo ate-markoan. Leizarragaz egiten gendun en general. Leizar errama bat artu, arrankala txiki bat egin, sartu zotz bat kurtzetara eta gero guk u berakatz bi eta kinpula bi iminten geuntsazan, galburuak be bai, eta inoz lorak be bai. Gero gauiluntzan, su nagusiak egin baino leenago, ba, aurreko urteko arto-lastoak edo gari eskutak artu, sua emon eta soloak guztiak errekorrietan genduzan San Juan gabilean (sic)(bagilean) kantetan. Larikao guztia ibilten zan kantuotzean solorik solo eta gero bai, gero sugar nagusiak egin.

San Juanetako kantea? Ba, niri ia aaztu bere egin jat baina akordetan nazana kantatuko deutsut. Ia ba:

San Juan gabilean
denporagarrian
sapoak eta sugeak ondo erre
arto ta garia ondo gorde.
Gaur dala biar
biar d'egune
etzi San Juan
bere (e)gune
gure soloan saporik ez
balegoz bere erre beitez.
San Juan bezpera gaubian
atzoak asarratu zirian
eztere besterik egiten
arkaleri musturrek ausiten.

(Oharra: abestia errespetau egin da etimologi-aldaketa gutxi batzuk bakarrik eginda)

99.1. Arlanpeko atsoak labea isiotu

Árlanpeko atzoana, ori bixi in do(t) nauk e, Árlanpeko atzoan kuba bat (d)ao inportantea bea daos beste

Árlanpeko atsoarena, ori bizi egin dot neuk e, Árlanpeko atsoaren kueba bat dago inportantea baina dagoz beste

asko kuba antzekoak e, ganadue protegitan san se deko aldar andie ona norderantza, de, orduen isite san ganadu txikerra, geienak euntzek e, ganadu agile, esta terrenoa ganadu astune ibilteko. D'orduen ibilte sin gara soloan lanean de bajata san apurtxu bet temperaturea, da bearren ibilikeran da sentidu bes, norbera be gastea, ta sentidu bes. Da, áitite t'ámama-ta etorte sian da:

– Mogidu saitie mutilek, se, Árlanpeko atzoak isitu yok labesue ta.

Da lañoa bajata san, or Orduñen esatentzie “ bollo”, lañoa, bola bat apur bet anpliao, da gálapan ba nástetan pátatea edo dana dalakoa tápetan. Da gero orti ordu lauren, ordu erdi bin bitartean, taka! Állegeta san eurie, bea fallo barik e, askotzarik es bea bustiteko beste bai. Batzuk (g)anaduegas etxera, da gero ernekeran be igerten san sain lekuteti állegau sen Árlanpeko atzoa, se ibilikeran gálapan, bearra, lana, ite san txarrago, arinago be bai da txarrago, da ernekeran txarto tapau, bestea baño txárrao tapau d'itesan igerri ernekeran landarea ba, “ementxe asi gosak (g)álapan” da, pareta gintzesan artega t'arin, da, orduen ba lana txarrago in. Orixe, laño-bolea bajatute san tenpereturea apur bet e bajatu ite san d'ortidator esakerea: “Árlanpeko atzoak labesue isitu dau, ketan dao lebesue, da mogidu gaitesan, badakar eurie ta. Ori, nau(k)p(b)ixi isin dot e! Árlanpe-n aldar andie dao t'an protegitan san ganadue agile, da, a mendie, ganadu agile mántenitako fenomeno. Se kubea ganaduentzat (d) a txarra, se kuban ite san ganadue sartu. Ori nau(k)p(b)e ikusi ot, an ganadue

asko kueba antzekoak e, ganadua protegitan zan ze dauka aldaar andia ona norderantz, eta, orduan izaten zan ganadu txikerra, geienak auntzak e, ganadu agila, ez da terrenoa ganadu astuna ibilteko. Eta orduan ibiltan izan gara soloan lanean eta bajaetan zan apurtxu bat temperaturea, eta bearren ibilikeran eta sentidu be ez, norbera be gaztea, eta sentidu be ez. Eta, áitita eta ámama-eta etortan ziran eta:

– Mobidu zaitie mutilak, ze, Árlanpeko atzoak isiotu jok labesue eta.

Eta lainoa bajaetan zan, or Orduñan esaten deutsie “ bollo”, lainoa, bola bat apur bat anplioagoa, eta gálapan ba nástetan pátatea edo dana dalakoa tápetan. Eta gero ortik ordu lauren, ordu erdi bien bitartean, taka! Állegetan zan euria, baina fallo barik e, askotzarik ez baina bustiteko beste bai. Batzuk ganaduagaz etxera, eta gero ernekeran be igarten zan zein lekutatik állegau zan Árlanpeko atzoa, ze ibilikeran gálapan, bearra, lana, egiten zan txarrago, arinago be bai eta txarrago, eta ernekeran txarto tapatu, bestea baino txárrago tapatu eta egiten zan igarri ernekeran landarea ba, “ ementxe asi gozak gálapan” eta, paretan gintzasan artega eta arin, eta, orduan ba lana txarrago egin. Orixe, laino-bolea bajatuten zan tenpereturea apur bat e bajatu egiten zan eta ortik dator esakerea: “Árlanpeko atzoak labesue isiotu dau”, ketan dago lebesue, eta mobidu gaitez, badakar euria eta. Ori, neuk bizi izan dot e! Árlanpe-n aldaar andia dago eta an protegitan zan ganadu agila, eta, a mendia, ganadu agila mántenitako fenomeno. Ze kueba ganaduentzat da txarra, ze kueba egiten zan ganadua sartu. Ori neuk be ikusi dot, an

sartu da barruen antxe, d'epeletara-epeletara arkal goseagas luma(k)-p(b)e yan. Da sartu esiteko, árantzakas atear iten gaindusen tapau, éremakas, askora txiki bet eroan da, arantza éremakas itxi ite sian ganadue sartu ixiteko, se ganadue barruen sartu orduen, ona da, baie ona egun beterako, bea koietan badau bisioa, da badao sortzi egun edo amar egunean, gelditan da antxe berotasunera ta laguntasunera, umea inde badao, txarrao, umea barruen da estau gure umea atera kanpora t'urduen silloak isten gaindusen árantzakas, arantza éremakas sarratu kuba edo kuba antzeko sillo txikerra(k)p(b)e.

ganadua sartu eta barruan antxe, eta epeletara-epeletara alkar goseagaz lumak be jan. Eta sartu ez egiteko, árantzakaz atear egiten genduzan tapatu, érramakaz, aizkora txiki bat eroan eta, arantza érramakaz itxi egiten ziran ganadua sartu ez egiteko, ze ganadua barruan sartu orduan, ona da, baina ona, egun baterako, baina kogietan badau bizioa, eta badao zortzi egun edo amar egunean, geldietan da antxe berotasunera eta laguntasunera, umea eginda badao, txarrago, umea barruan eta ez dau gura umea atera kanpora eta orduan ziloak itxiten genduzan árantzakaz, arantza érramakaz zarratu kueba edo kueba antzeko zilo txikerrak be.

99.2. Ermitako santuak urten bidera gautuz gero

Emen Lemoan, guri irekatzi euskun mutikotan, ba, barrio geienetan érmite(k)t(d)aos esta, da, ermite bakotzak santu bet edo bi, da, íluntze edo gaubean berandu ibili eskero esatoskun:

– Erdusie gautu orduko se gaubean Salontzok edo Santa Mañek edo urtetan dau, bai, urtengotzue bidera ta!

Orixen esatoskun bildurtako. Gure aldetxe edo baserrie, ermiteari ukutan dao, d'andi ondoti pasau bear, da ba, bildurtako santuek urtetan dauela esatoskun berandu ibili esketiño. Da, es umetan bakarrik e, nausiagotan be, ondiño, ermitondoti pasakeran, pausue soliago eroaten nauen, barruen sartute naunkelako a bildurre, d'oin be sarsaroan, andi pasakeran gaubean, presiño apur bet etorri iten ya(t)p(b)arrure.

Emen Lemoan, guri irakatsi euskun mutikotan, ba, barrio geienetan érmitek dagoz ezta, eta, ermita bakoitzak santu bat edo bi, eta, íluntze edo gauean berandu ibili ezkeren esaten euskun:

– Erdusie gautu orduko ze gauean San Lontzok(Lorentzok) edo Santa Mañek (Marinak) edo urtetan dau, bai, urtengo deusue bidera eta!

Orixen esaten euskun bildurtako. Gure aldetxe edo baserria, ermiteari ikututen dago, eta andik ondotik pasatu bear, eta ba, bildurtako santuak urtetan dauela esaten euskun berandu ibili ezketino. Eta, ez umetan bakarrik e, nagusiagotan be, oraindino, ermitondotik pasakeran, pausua zoliago eroaten neuan, barruan sartuta neunkalako a bildurra, eta orain be zaartzaroan, andik pasakeran gauean, presiño apur bat etorri egiten jat barrura.

99.3. San Juan Aretxa inontzagaz ebagi

Emen Lemoan, San Juan Aretxa, San Juan egunek argitu baño len, inontzagaz ebate san, anak inontzagaz bustiteko, osasunentzat ona salata. San Juan Aretxa deko isena bea, elexar errematxu bet isiten da, d'areri kurtze bat in de berakatzak-eta ipini te ateko markoari edo balkoiko balaustreari lotzean yako. Da gero gaubeko sugarrak in orduko, solo t'ortu te gustiek paseta sirean susiegas " San Juan bagilean" kantea kántetan.

Emen Lemoan, San Juan Aretxa, San Juan egunak argitu baino leen, inontzagaz ebagiten zan, anak inontzagaz bustiteko, osasunarentzat ona zala eta. San Juan Aretxa dauka izena baina, leizar erramatxu bat izaten da, eta areri kurtze bat egin eta berakatzak-eta ipini eta ateko markoari edo balkoiko balaustreari lotzen jako. Eta gero gaueko sugarrak egin orduko, solo eta ortu eta guztiak pasetan zirean zuziagaz "San Juan bagilean" kantea kántetan.

99.4. Lemoako Zubieta zubi zaharrear gertatutako ezbeharra

Lemoan, Subietako arrisko subi sarra apurtute dao erditi. Lenao, orrek subi orrek iru sillo edo arku aukesan. Erdikoa dao urek eroanda ta beste biek oin be an daos, gero ikusikus gure bosu. Oin goratxogoan barrie inde dao untzu-untzu, bea egurrekoa. Da lengunean préguntea in sausten d'informau nes. Mari Ayesta, edadeko andreagas o(n) nas d'arek esan doste or subien asidentea on sala, asidente andie aldi beten. Urtea estau yakin esato, mille bedratzireun d'ogei ogeita piku inguruen, baie egune bai, bagilean amairuen Urkiolako San Antonio egunean. Antza, auto bete gente yoan san Arguyati Urkiolara, ta Lemoan, Subietako subie pasakeran, errekarayausi sen autoa d'ainbet il on siala. Su(k)t(d)inostesu ori gauze ori erderas badaoela eskribidute da batute dekosule sure "Seberioke Kantak" libruen,baie nik isin dotzut geiao

Lemoan, Zubietako arrizko zubi zaarra apurtuta dago erditik. Leenago, orrek zubi orrek iru zilo edo arku eukazan. Erdikoa dago urak eroanda eta beste biak orain be an dagoz, gero ikusiko doguz gura badozu. Orain goratxogoan barria eginda dago oraintsu-oraintsu, baina egurrezkoa. Eta leengo egunean préguntea egin zeustan eta informatu naz. Mari Ayesta, edadeko andreagaz egon naz eta ark esan deust or zubian azidentea egon zala, azidente andia aldi baten. Urtea ez dau yakin exakto, mila bederatzieun eta ogei ogeita piku inguruan, baina eguna bai, bagilearen amairuan Urkiolako San Antonio egunean. Antza, auto bete gente joan san Arguyatik (Arrigorriagatik) Urkiolara, eta Lemoan, Zubietako zubia pasakeran, errekarajausi zan autoa eta ainbat il egon zirala. Zuk dinostazu ori gauza ori erderaz badagoala eskribiduta eta batuta daukazula zure "Zeberioke Kantak" liburuan, baina nik ezin deustut geiago

esan. Ni neu(k)p(b)e, neuri kontau
orrexek androrrek.

esan. Nik neuk be, neuri kontatua orre-
kek andra orrek .

100.1. Txerriak esnea edan behiari

Nik etxean euki yoat, txarri bet, txarriye makala, kristona, olan erre-galaute agartu soan etxera, d'usabak, erdeldunek esa yostan: "*ai va, lleva el cerdo y cuando mates me das un jamón*". Da txarriye eroan kortara, da, ni baño altuagoa txarriye, ni mutikoa, da, segun itxurie txarriye saltuke, saltuek eiten kortatxiti. Yoan beyegana d'edan esne gustiye, da beye geldi-geldi. Yoan esnea atetan gero gaubean da esnerik es kristori-(k)p(b)eyek. Da gero ba etxeokak e:
– Se pasetan yako beyeri, gaxorik elduko san?

Da, egun beten ikusi in yaudian txarriye beyegana yoaten, da, sutundukeran arnasestu beten txarriye, aja-aja-aja! Da:
– Mekasuen dies, i as e?

Da gero ba, kortatxieri trabiesa batzuk imini te, alantxe akabau soan txarriyen esne betekadie.

Nik etxean euki joat, txarri bat, txarria makala, kristona, olan erregalatuta agertu zoan etxera, eta ugazabak, erdaldunak esa jaustan: "*ahi va, lleva el cerdo y cuando mates me das un jamón*". Eta txarria eroan kortara, eta, ni baino altuagoa txarria, ni mutikoa, eta, segun itxurea txarria saltuka, saltuak egiten kortatxitik. Joan beigana eta edan esne guztia, eta beia geldi-geldi. Joan esnea ateraten gero gauean eta esnerik ez kristorik beiak. Eta gero ba etxeokak e:

– Zer pasetan jako beiri, gaixorik elduko zan?

Eta, egun baten ikusi egin jaudian txarria beigana joaten, eta. zutundukeran arnasestu baten txarria, aja-aja-aja! Eta:

– Mekasuen diez, i az e?

Eta gero ba, kortatxieri trabiesa batzuk imini eta, alantxe akabatu zoan txarriaren esne betekadea.

100.2. Gari-beharrak San Miguel de Basaurin

Gariye ereiteko lenengo soloa giâu de preparau ondo lurre. Gero gariye bota ontzi betera uregas da solfatoagas. Solfatoa nastuten yakok o gariyeri ba ugerra es kuyetako. Solfatoa dok, sera, arrie, d'ori txikertu da gariyeri bota baldera. Gero erein, eskus, pausuen-pausuen, artes arloan. Eldu orduen yo, arrien yo galtzupollak garandu arte. Gero garbitu axea daonean, sestillea edo artza

Garia ereiteko leenengo soloa gidatu eta preparatu ondo lurra. Gero garia bota ontzi batera uregaz eta sulfatoagaz. Sulfatoa naastuten jakok o gariyeri ba ugerra ez kogiduteko. Sulfatoa dok, zera, arria, eta ori txikertu eta gariyeri bota baldera. Gero erein, eskuz, pausuan-pausuan, artz arloan. Eldu orduan jo, arrian jo galtzupoilak garandu arte. Gero garbitu aizea dagoanean, zestillea

artu te goiti bera axeagas, da gariye garbitu. Gero errotara. Gu Seberioiko Asandiako errotara yoaten gintzozan, sei saspik kilometro ongosak. Sorroak a astoagas edo saldiyegas. Ni saldiyegas yoate nintzoan ugelagas amarran, d'atzean karrotxuegas sorroak eroateko. Lelengo bijea inoan Asandiako errotea non daoen yakin barik. D'orduon saldiyegas, da Miravallesera allegaurduen aurreti bota inoan saldiye da bera yoan soan artes Asandiako errotara, saldiye(k)tx(y)-akin yoan ondo errotara bidea. Saldiye t'astoa ona(k)t(d)osak bidea topetan. Gure saldiyek e Lirio jaukan isena, da bera aurreti bota ta ni alboarik ara berari segitan. Alantxi inoan lelengo bijea Asandiako errotara.

edo artza artu eta goitik beera aizeagaz, eta garia garbitu. Gero errotara. Gu Zeberioiko Aresandiagako errotara joaten gintzoazan, sei zazpi kilometro egongo dozak. Zorroak a astoagaz edo zaldiagaz. Ni zaldiagaz joaten nintzoan ugelagaz amarran, eta atzean karrotxuagaz zorroak eroateko. Leenengo bijea egin nioan Aresandiagako errotea non dagoan yakin barik. Eta orduan zaldiagaz, eta Miravallesera allegatu orduan aurretik bota nioan zaldia eta bera joan zoan artez Aresandiagako errotara, zaldiak yakin joan ondo errotara bidea. Zaldia eta astoa onak dozak bidea topetan. Gure zaldiak e Lirio jaukan izena, eta bera aurretik bota eta ni alboarik ara berari segietan. Alantxik egin nioan leenengo bijea Aresandiagako errotara.

100.3. Finagako ermita zaharra eta santua

San Miguel de Basauriko Finaga ausoko ermitako santue egote soan etze baten, ermitan barik. Ermita sartuta yegoan da beye(k)p(b)e sartuten soasen elexan sabalik ote soan da, se beyek an pasteetan da ba gaubien ermitan sartu. Da, barristetan asi soasen, da barristaurduen, oin, iten yaudiek auki barik an santue ermitan, ba, eroaten yaudiek etzeti eta prosesinoan in, da prosesinoan eroaten yaudiek ango jentiek, Finagakoak. Da, gero akabaurduen barriro santue etzera. Etzea bayakiat sein doan, baia, yakin etzea sein doan bai, baie, sera, nortzuk eroaten daudien be esetuten yoadas nik. Ori prosesinoan San Martinetan bat eta beste bat iten yaudiek, serien, maiatzean ed'orti.

San Miguel de Basauriko Finaga ausoko ermitako santua egoten zoan etxe baten, ermitan barik. Ermita zaartuta jegoan eta beiak be sartuten zoazan eleizan zabalik egoten zoan eta, ze beiak an pasteetan eta ba gauean ermitan sartu. Eta, barriztetan asi zoazan, eta barriztatu orduan, orain, egiten yaudiek euki barik an santua ermitan, ba, eroaten yaudiek etxetik eta prosesinoan egin, eta prosesinoan eroaten yaudiek ango jentiek, Finagakoak. Eta, gero akabatu orduan barriro santua etxera. Etxea bajakiat zein doan, baina, yakin etxea zein doan bai, baina, zera, nortzuk eroaten daudien be ezaututen joadaz nik. Ori prosesinoan San Martinetan bat eta beste bat egiten yaudiek, zerean, maiatzean edo ortik.

100.4. San Miguel de Basauri elizate edo anteiglesiaz

Sein dan benetako erriye? Sein isingo do(k)p(b)a, San Miguel. Aiko, nauk esplikaukoat ori kontu ori bertakoa nok eta. Beitik, mutikotan, an e San Migueleko taberna sarrean, ondoko orman, letreru bet on soan burriñan grabaute t'auxe iminten yoan: *Anteiglesia de San Miguel de Basauri*. Basauri, isites, San Migueleko ausona bat (d)ok. San Migueleti Bilborantza yoan eskero, gitxi gitxi-re yaok Basauri ausunea, betikoa, baie gaur etzes beterik. Klaro, gaur gausek kanbiau in dosak e baie lenao, Bilboti onantza, urtekera bakarra on soan, Atxuriti, Mirafloreseti onantza. Bolueta pasaurduen kamiño bi yego-asen, bata Donostirakoa ta bestea Burgoserakoa, d'ortik artu yoan Bidebieta isena kamiño bien asikere-ak, gaur be ondiño norteko trenan estasiñoak Bidebieta yaukok isena. Da, ba, gaur, Bidebieta andie asi ok eta Basauri isena sabalago yabik San Miguel baño. Da, ba, Bilboko salidati gururantza in esketiño, or Boluetan fielatoa ote soan inpuestuek kobretako eta emen San Miguelen beste fielato bat Arguya partetik etorte soasenari be kobretako, autobuseri be bai, baten batek seoser eroan eskero, autobuseko kobradoriek portea kobretan yautzan gero fielatoan kontuek arregletako. Bai, seladorie ote soan kobretako. Serean be, Miraballesen be kobreta soan, baie an "katea" ote soan d'antxe iten soasen kobruiek. Orduen, argi yaok, San Miguel dok erri sarra d'elexea be bai, da, Finagako ermita sarra Biskaiko sarrena espok, ortxe-ortxe ibilikok.

Zein dan benetako erria? Zein izango dok ba, San Miguel. Aiko, neuk esplikatuko deuat ori kontu ori bertakoa nok eta. Begiratu egik, mutikotan, an e San Migueleko taberna zaarrean, ondoko orman, letreru bat egon zoan burriñan grabatuta eta auxe iminten joan: *Anteiglesia de San Miguel de Basauri*. Basauri, izatez, San Migueleko auzune bat dok. San Migueletik Bilborantz joan ezker, gitxi gitxira jagok Basauri auzunea, betikoa, baina gaur etxez beterik. Klaro, gaur gauzak kanbiatu egin dozak e baina leenago, Bilbotik onantz, urtekera bakarra egon zoan, Atxuritik, Mirafloresetik onantz. Bolueta pasatu orduan kamino bi jegoazan, bata Donostirakoa eta bestea Burgoserakoa, eta ortik artu joan Bidebieta izena kamino bien asikereak, gaur be oraindino norteko trenaren estazinoak Bidebieta jaukak izena. Eta, ba, gaur, Bidebieta andia azi dok eta Basauri izena zabalago jabilk San Miguel baino. Eta, ba, Bilboko salidatik gurerantz egin ezketino, or Boluetan, fielatoa egoten zoan inpuestuak kobretako eta emen San Miguelen beste fielato bat Arguya(Arrigorriaga) partetik etorten zoazenai be kobretako, autobusei be bai, baten batek zeozer eroan ezker, autobuseko kobadoreak portea kobretan jautsan gero fielatoan kontuak arregletako. Bai, zeladorea egoten zoan kobretako. Zerean be, Miraballesen be kobretan zoan, baina an "katea" egoten zoan eta antxe egiten zoazan kobruak. Orduan, argi jagok, San Miguel dok erri zaarra eta elizea be bai, eta, Finagako ermita zaarra Bizkaiko zaarrena ez badok, ortxe-ortxe ibiliko dok.

100.5. Sugea eta behiaren topalekua landa-okeluan

Len, txarrieyen kontue kontau doat eta oin beste bategas akordau nok. Auxe ok, bitik. Ba, guk u, landa-bedarra txikerra isite soanean, bedarra kodañeagas ebaten ibili barik i pastuen atetan giñoasen beyek, andi Finaga aldeko landatati. Da, lelengotan eskintzoasen konturetu be in baie beyek etzera ekarri orduen, bei betek e(s)tx(y)oan ia esnerik ba(t)p(b)e aukiten. D'olan luserotxuen. Da, ba, oserbetan asi gintzoasen da, soloan pastuen daosela beyek, ori beyori besteakandi apartau iten soan ara landa-okolu betera, muna bastar bateko sasitzara, d'an ote soan geldigeldi bedarra yateari itxite agoa sabalik. Da, ba, egun beten, yoan in gintzoasen kontus-kontus beyen atzeparteti se pasetan dan ikusteko, baye kontu andiegas bera(k)p(b)arruntau esiteko, da, mekasuen soz, subie beyeri errapeti esnea edaten eskiñoan ikusi ba, sutun sutunik paraute? Orduen, emon atoan akullukasu be(t)p(b)eyeri da subieri be bai, d'antxe akabau soan dana. Andik (g)eyao eskeuntzan itxi beyeri bestiekandi apartetan pastuen eta asunto arreglao. Klaro, areri beyeri sera pesetan yakooan, subiek suabe-suabe edan esnie ta bera gusture antxe, geldigeldi, relajaute. Bai gizona, subie(k)t(d)aitu edo beye bera yoan, antxe landa-bastarreko okoluen yekian euren enkuntrue. Ikusi esik siñistu bes!

101.1. Untzetapikuko Jentil-bolak

Untzetapikuko arri-bolan kontue neu(k)p(b)ere entzunde dauket.

Leen, txarriaren kontua kontatu deuat eta orain beste bategaz akordatu nok. Auxe dok, begiratu egik. Ba, guk u, landa-bedarra txikerra izaten zoanean, bedarra kodaineagaz ebagiten ibili barik i pastuan ateraten genduzan beiak, andik Finaga aldeko landatatik. Eta, leenengotan ez gintzoazan konturatu be egin baina beiak etxera ekarri orduen, bei batek ez joan ia esnerik bat be eukiten. Eta olan luzarotxuan. Eta, ba, oserbetan asi gintzoazan eta, soloan pastuan dagozala beiak, ori bei ori besteakandi apartatu egiten zoan ara landa-okelu batera, muna bazter bateko sasitzara, eta an egoten zoan geldigeldi bedarra jateari itxita aoa zabalik. Eta, ba, egun baten, joan egin gintzoazan kontuz-kontuz beieren atze partetik zer pasetan dan ikusteko baina kontu andiagaz berak barruntatu ez egiteko, eta, mekasuen zotz!, sugea beiarri errapetik esnea edaten ez genduan ikusi ba, zutun-zutunik paratuta? Orduen, emon atoan akuilukazu bat beiarri eta sugeari be bai, eta antxe akabatu zoan dana. Andik geiago ez geuntsan itxi beiarri besteekandi apartetan pastuan, eta asunto arreglao. Klaro, areri beiarri zera pesetan jakooan, sugeak suabe-suabe edan esnea eta bera gustura antxe, geldigeldi, relajatuta. Bai gizona, sugeak deitu edo beia bera joan, antxe landa-bazterreko okeluan jaukian euren enkuntruea. Ikusi ezik sinistu be ez!

Untzetapikuko arri-bolan kontua neuk bere entzunda daukat. Jose, ni

Jose ni baño gasteagoa da ta Pablo Askoagak topauko arri-bolak aitetu daus, su(k)t(d)iñosu Seberiyu partean bere agartu diala baie nik entzutea dauket orrik arri-bolak aldideteko Jentilenak siala. Oin badakiu sertarako sien, munisiño modun erabilteko, baie erriko jenteak estau yakin ori te Jentilenak i siala esaten isin dau. Lenaoko kontuek!

baino gazteagoa da eta Pablo Azkoagak topatutako arri-bolak aipatu dauz, zuk dinozu Zeberio partean bere agertu dirala baina nik entzutea daukat orreik arri-bolak aldidateko Jentilenak zirala. Orain badakigu zertarako ziran, munizino moduan erabilteko, baina erriko jenteak ez dau jakin ori eta Jentilenak ei zirala esaten izan dau. Leenagoko kontuak!

101.2. Arakaldoko parrokidun abadea herria zaintzen gerra garaian

Emen, gerrostean bates bere, on san abade bat (urlri abadea, isena estu esango) abade aundi aundie, parroki-dune, eta gogorra sermoietan yantzand- a ibilte sian neskakas. Sermoian suten pareta san, “diabruok” esatizien olango neskari. Baie errieko isin sen oso ona. Se, gerra ta gerroste- an detensiñoak eta oten sian, d’orduen ori abade andi ori enfrentau iten yakien errikoa(k)t(d)efenditako d’esatizien: “nire errien estosue iñorbere fusilauko”. Da deteniduen bat ote sanean, entzegida joate san ara ta lagundu eta esatizien: “errepublikan errespetau banaudie oin emen esta iñor denuntziauko eta afusilauko”. Eta alantxe isin bere isin sen.

(Hemen Jose Zaballa sartzen da) Su Yosu, au aiteri dekotzet entzunde, ba, ori abade ori komunista batek auki auen amensauete d’esotzen bakean bere isten. D’egun beten, abade andi t’indartzu orrek, artu auen komunistori anketatik esku bie- kas, eroan erreka ganeko subire t’an auki auen burusbera d’esan i otzen: “bakean isten espotek erre kara botakoat”. Antxe akabau i sian amenasuak eta proble nak.

Emen, gerra ostean batez bere, egon zan abade bat (urlri abadea, izena ez dogu esango) abade andi andia, parroki- duna, eta gogorra sermoietan dantzan- eta ibiltan ziran neskakaz. Sermoian sutan parentan zan, “deabruok” esaten eutsien olango neskai. Baina erriako izan zan oso ona. Ze, gerra eta gerra ostean detenzi- noak- eta egoten ziran, eta orduan ori abade andi ori enfrentatu egiten jakien errikoak defendietako eta esaten eutsien: “nire errian ez dozue inor bere fusilatu- ko”. Eta deteniduren bat egoten zanean, ensegida joaten zan ara eta lagundu eta esaten eutsien: “errepublikan errespetatu banaudie orain emen ez da inor denun- tziatuko eta fusilatuko”. Eta alantxe izan bere izan zan.

(Hemen Jose Zaballa sartzen da) Zu Josu, au aitari deukotsat entzunda, ba, ori abade ori komunista batek euki euan amensauete eta ez eutsan bakean bere itxiten. Eta egun baten, abade andi eta indartsu orrek, artu euan komunista ori anketatik esku bie- kaz, eroan erreka gane- ko zubira eta an euki euan buruzbeera eta esan ei eutsan: “bakean itxiten ez badeus- tak erre kara botako deuat”. Antxe akaba- tu ei ziran amensauak eta proble nak.

101.3. Txepetxaren mantzinkeria txindorrak konpondu

Kukuen kontue aitetu otzu(t)-p(b)aie txepetxea ta txindorrana kontaukotzut lelengo. Emen, gure txiker denporan txepetxan abiek apurtu iten giñusen. Txepetxeak abi biribile iten dau, sulotxu betegas, da txoritopetan ibili orduen, txepetxan abiek apurtu ite sien. Segaiti? Ba, asuntoa auxe da: Jesukristo kurtzean yosite egoala, antza, txepetxa batek, sera, kaka edo korotza in i otzen ganean. Orduen andi ondoti ibili sen txindor batek, paparreko lumakas garbitu in i sauen txepetxeak ineko korotza. Orregaiti, txindorra beti ikusi du ondo eta txepetxea txarto, d'orrexegaiti apurtan yakon abie txepetxeari, Jesukristori kurtzean kaka ganera egiteagaiti.

Kukuaren kontua aitatu deutsut baina txepetxea eta txindorrarena kontauko deutsut leenengo. Emen, gure txiker denporan txepetxan abiak apurtu egiten genduzan. Txepetxeak abia biribila egiten dau, zulotxo bategaz, eta txoritopetan ibili orduan, txepetxan abiak apurtu egiten ziran. Zergaitik? Ba, asuntoa auxe da: Jesukristo kurtzean josita egoala, antza, txepetxa batek, zera, kaka edo korotza egin ei eutsan ganean. Orduan andik ondolik ibili zan txindor batek, paparreko lumakaz garbitu egin ei euan txepetxeak egineko korotza. Orregaitik, txindorra beti ikusi dogu ondo eta txepetxea txarto, eta orrexegaitik apurtan jakon abia txepetxeari, Jesukristori kurtzean kaka gainera egiteagaitik.

101.4. Kukutze mendiko kontua

Orain bai, orain Kukutzeko kontue kontaukotzut. Beitu, ortxe dao mendiye, Kukutzeko mendi puntea, Arakaldoti Oroskorantza. Sarrari entzunda, b'antza, kunkuak etxea i auken ortxe puntan d'ortik Kukutze isena bere. Gero, orti Kukutzeko puntati paso gustiye ikusten da. Kukutzeko puntati, mendi arteko paso gustie ikusi lei, nerbioi errekea, trenbidea, kamiñoa ta gaur autopistea bere ondo ikusten dire. D'esaten daude, Kukutzeko mendi puntan, karlistadan, ormak in audesela atakeatati defenditako eta oin bere or daos orduko arriek. Orrexegaiti isingo da inportantea Kukutze mendipuntea, bista eta

Orain bai, orain Kukutzeko kontua kontauko deutsut. Begitu, ortxe dago mendia, Kukutzeko mendi puntea, Arakaldotik Orozkorantz. Zaarrari entzunda, ba, antza, kunkuak etxea ei eukan ortxe puntan eta ortik Kukutze izena bere. Gero, ortik Kukutzeko puntatik paso guztia ikusten da. Kukutzeko puntatik, mendi arteko paso guztia ikusi lei, nerbioi errekea, trenbidea, kaminoa eta gaur autopistea bere ondo ikusten dira. Eta esaten daude, Kukutzeko mendi puntan, karlistadan, ormak egin eudiezala atakeatatik defendietako eta orain bere or dagoz orduko arriak. Orrexegaitik izango da inportantea Kukutze mendipuntea, bista eta defentsa onagai-

defensa onagaiti. Kukuena etxea, je-je-je, ori baten batek asmaue bere isin leike. Baie, Untzetapiku eta Kukutze bie(k)t(d)ire puntu onak inguruek ikusteko edo begistetako eta defenditako.

tik. Kukuaren etxea, je-je-je, ori bateren batek asmatua bere izan leike. Baina, Untzetapiku eta Kukutze biak dira puntu onak inguruak ikusteko edo begiztetako eta defendiduteko.

102.1. Arimen bildurra gauez

Arimak? Ni akordetan nas umea isin orduen, d'urduen ibili bearrean bideti, se orduen esegoan bidea asfaltate, ba, ibilte gaintzen solo arteti igoiteko baserrire t'olan, da igual, sarriten pasauskero sementeriyo ondoti, olango gausek entzute sien asko, ume txikerrak isin orduen. Baie eske guk pasetan gendun, yoaten gintzen sementeriyo ondoti igoiteko etxera. Eta egun beten, akordetan nas, etor nintzen Mungiti, da nik auki nindun sortzi urte ed'olan, eta betik errespeto andie sementeriyo ondoti pasa orduen. D'egon san olango odoye edo tormenta de berano esatoziena, sikue, sikue eta justo bota sauela sagar bat, sagar ba(t)tx(y)ausi sen aixeagas plasta! Gaubes etorri gintzesan aite ta ni, gaubes ta nik pentzau nauen aik sementeriyo gustiyek urten saudiela kanpora. Bai, bai, arima t'olango gausek entzuten sien da ni bere por si akaso bildurregas ibilte nintzen.

Arimak? Ni akordetan naz umea izan orduan, eta orduan ibili bearrean bidetik, ze orduan ez egoan bidea asfaltatuta, ba, ibiltzen gintzan solo artetik igon egiteko baserrira eta olan, eta igual, sarritan pasatu ezkerro zementerio ondotik, olango gauzak entzuten ziran asko, ume txikerrak izan orduan. Baina eske guk pasetan gendun, joaten gintzan zementerio ondotik igon egiteko etxera. Eta egun baten, akordetan naz, etorri nintzan Mungiatik, eta nik euki nendun zortzi urte edo olan, eta beti errespeto andia zementerio ondotik pasa orduan. Eta egon zan olango odeia edo tormenta de verano esaten deusiena, sikua, sikua eta justo bota (z)euala sagar bat, sagar bat jausi zan aizeagaz plasta! Gauez etorri gintzazan aita eta ni, gauez eta nik pentsatu neuan areik zementerioko guztiak urten (z)eudiela kanpora. Bai, bai, arima eta olango gauzak entzuten ziran eta ni bere por si akaso bildurregas ibiltzen nintzan.

102.2. Gariaren azkena Arakaldon

Gariye bai, nik esotu dot txikerretan, sortzi urtegas edo olan e, sortzi urtegas igual akabuko garie gure etxean. Garie yo idiyekas da buelta-

Garia bai, nik ezagutu dot txikerretan, zortzi urtegas edo olan e, zortzi urtegas igual akabuko garia gure etxean. Garia jo idiekaz eta bueltaka, larrainean,

ka, larrañean, (Josu Irragarri sartzen da) batzuk saldiyekas, atzean narragas eta beste batzuk eskus yota arrien, esaterako amengoak. (Barriro Jose Zaballa) Ni akordeta nas narran gañean ibilde bueltaka, idiyek e bueltaka ta ni narran gañean. Garie yo ta gero garbitu, onekas, galbayekas da, eskus dana, artzagas bere bai, aixe korronteagas, aixeagas. Gaur bere ondiño iten dau nire aitek ori indabea garbituteko. Indabea galbayen altzau te goiti biera bota garbituteko, bai, gaurko egunean bere eiten dau korrontean, galbaia gora altzau te indabea biera bota ta korrontean (g)arbitu iten dau.

(Josu Irragarri sartzen da) batzuk zaldiekaz, atzean narragaz eta beste batzuk eskuz jota arrian, esaterako emengoak. (Barriro Jose Zaballa) Ni akordetan naz narraren gañean ibilita bueltaka, idiak e bueltaka eta ni narraren gañean. Garia jo eta gero garbitu, oneikaz, galbaeakaz eta, eskuz dana, artzagaz bere bai, aize korronteagaz, aizeagaz. Gaur bere oraindino egiten dau nire aitek ori indabea garbituteko. Indabea galbaean altzatu eta goitik beera bota garbituteko, bai, gaurko egunean bere egiten dau korrontean, galbaea gora altzatu eta indabea beera bota eta korrontean garbitu egiten dau.

102.3. Sugeak esnea edan behiari Artziniegako landan

Emen estot entzun, baie nire andrea Artzeniegakoa da et'an bai. Eta nire suegroa(k)p(b)ere sarri esan doste, ademas beyek oten direala geldi-geldi, se igual daukie errapea kargaute eta subeak estotzie iten minik i beyeri te sarriten subea aurek ikusi daudela esnea edaten beyeri. Subea ikusite bere aukitandin, se, segun pasetan dakien, beye(k)t(d)aos-enean esne askogas, errapea bete-bete einde, igual dabisenean landarrean bedarra jaten, d'esne gotan batzuk igual yausten dakies d'orri usinera-ta, subea(k)t(d)oaas, d'orti segun, txupau itotzie, da beyek oten dire geldi-geldi. D'ori nire suegroak sarri esan doste e. Eta se pisti dabilen yakiteko, selayen urune botate san errastue ikusteko, subeagas bere ingo audin, baie nik landarrekoa dauket entzunde suegroari Artzeniegan. Da, edateko subea sutundu iten da, ori esan doste

Emen ez dot entzun, baina nire andrea Artziniegakoa da eta an bai. Eta nire suegroak bere sarri esan deust, ademas beiak egoten dirala geldi-geldi, ze igual daukie errapea kargatuta eta sugeak ez deustie egiten minik i beiari eta sarritan sugea eurak ikusi daudela esnea edaten beiari. Sugea ikusita bere eukiten eudien, ze, segun pasetan jakien, beiak dagozanean esne askogaz, errapea bete-bete eginda, igual dabizanean landarrean bedarra jaten, eta esne gotaren batzuk igual jausten jakiez eta orrean usainera-eta, sugeak doaz, eta ortik segun, txupatu egiten deustie, eta beiak egoten dira geldi-geldi. Eta ori nire suegroak sarri esan deust e. Eta zer pizti dabilen yakiteko, zelaian uruna botaten zan errastua ikusteko, sugeagaz bere egingo eudien, baina nik landarrekoa daukat entzunda suegroari Artziniegan. Eta, edateko sugea zutundu egiten da, ori esan deust sue-

suegroak se beyek igual oteire denpora gitxi umetu diresula eta daos sano kargaute esneagas t'igual a errapeti tantakadak eskapau esneak eta subeak usinera errapera yoan eta esnea edan sutunik paraute suabe-suabe eta beye geldi-geldi, se beye utziturduen errapea, ba, egoten da deskantzaute, d'egoten da nasai-nasai, d'ori gure dau beyek. Ori entzun dot sarri Artze-niagan e, emen es.

groak ze beiak igual egoten dira denpora gitxi umetu dirazala eta dagoz sano kargatuta esneagaz eta igual a errapetik tantakadak eskapatu esneak eta sugeak usainera errapera joan eta esnea edan zutunik paratuta suabe-suabe eta beia geldi-geldi, ze beia utsitu orduan errapea, ba, egoten da deskantsatuta, eta egoten da nasai-nasai, eta ori gura dau beiak. Ori entzun dot sarri Artziniegan e, emen ez.

102.4. Errotak itxi eta uztaren parte bat kendu gerra edo gerrostean

Gu errotara, Ausibira. Akarreoa astoagas. Guk auki gindun asto txiker bat, Potxiko, d'auso gustiek erabiltauen Potxiko astoa errotara sorroak eroateko. Gure aitek ekarri sauen Potxiko asto txikerra Arrankudiati, Morteruti, eta sakuek eta erabilteko oso asto elegantea. Errotako bearra urunegas pageta san, onenbesteko bat. (Josu Irarragorri sartzen da) Baie, gerra ostean da, errotak presintaut(e) egosan da isilik eta gaubean artu sakuek eta iyoten gendun errotan. (Barriro Jose Zaballa) Niri de koste kontaute aitek, selan da, onik, arbitriosekoak etorte siala, d'orduen artu sakutan indabea, garie edo danadalakoa ta sasire bota arbitriosekoak ispesiñoa pasau arte. Baie ordun bere, beti ote san tranparen bat, se yakin ite san nos datosen da, ba, sasire bota eskero, etxean daoena bakarrik erakutzi.

Gu errotara, Anunzibaira. Akarreoa astoagaz. Guk euki gendun asto txiker bat, Potxiko, eta auzo guztiak erabilten euan Potxiko astoa errotara zorroak eroateko. Gure aitik ekarri (z)euan Potxiko asto txikerra Arrankudiagatik, Morterutik, eta zakuak-eta erabilteko oso asto elegantea. Errotako bearra urunagaz pagetan zan, onenbesteko bat. (Josu Irarragorri sartzen da) Baina, gerra ostean-eta, errotak prezintatuta egozan eta isilik eta gauean artu zakuak eta eoten gendun errotan. (Barriro Jose Zaballa) Niri deukost kontatuta aitik, zelan da, oneik, arbitrios-ekoak etorten zirala, eta orduan artu zakuetan indabea, garia edo danadalakoa eta sasira bota arbitriosekoak ispezinoa pasatu arte. Baina ordun bere, beti egoten zan tranparen bat, ze yakin egiten zan noz datozen eta, ba, sasira bota ezker, etxean dagoana bakarrik erakutsi.

103.1. San Juanetako erramu bedeinkatua Arakaldon

Bai, San Juanak emen eiten dus oin bere sugarrakas. Da gure ama bisi

Bai, San Juanak emen egiten doguz orain bere sugarrakaz. Eta gure ama bizi

sanean, sera iten gendun, erramue erre, erramu egunien berinkituko erramu orriek apur bet erre eta berinkitu soloak, San Juan besperan, sue in soloan da gero erramue erre surten d'erramu sati betegas berinkitu soloak. Nik ikusite dauket erramu satitxuik sartzean soloko bastar gustietan berinkituteko. Eta ori arrastegi iluntzean ite san da kantau bere eiten gendun, sera,

“San Juan gabilean”:
San Juan gabilean (sic)
denpora ederrean
sub(e)ak eta sapoak surtera
eta artoa ta garie gorde kamaran.

zanean, zera egiten gendun, erramua erre, erramu egunean bedeinkatutako erramu orriak apur bat erre eta bedeinkatu soloak, San Juan bezperan, sua egin soloan eta gero erramua erre surten eta erramu zati bategaz bedeinkatu soloak. Nik ikusita daukat erramu zatitxuak sartzean soloko bazter guztietan bedeinkatuteko. Eta ori arrastegi(arrastiri) iluntzean egiten zan eta kantatu bere egiten gendun, zera:

“San Juan gabilean (bagilean)”
San Juan gabilean (sic)
denpora ederrean
sub(e)ak eta sapoak surtera
eta artoa ta garia gorde kamaran.

103.2. Labesua eta labigarra Arakaldon

Labesu t'a labigerran kontui? Bai orixe. Ogie iteko lelengo iyo ite san garie, gero ai urune eralgi aspiran saye kenduteko edo apartetako. Gero nobera(k)p(b)ota lebadurie, etxekoa e, tasa baten gordeta eukite gendun lebadurie, aurreko astekoa. Gero uruneri bota ganeti lebadurie eta gero gatz da gero ur goriegas masea edo ore in. Gero ite san itxi ordu erdi bet igoin daien, d'igon edo yagi orduin atzera ite san masea igurdi eta gero ya ite sien ogiyek, opilek, pamitxak t'ipinte sien ol baten ganien da tapeta sien ba ixera betegas eta espasien altzetan, talapara bete txinger ipinten san aspian berotuteko d'altzetan sien ogiek. D'ordin ya labea aukite san ya suritute serue, labean serue, d'ori, gure dau esan ya daoela ogiek sartuteko moduin. Labea garbitu ite san ba irakas eta

Labesu eta labigerraren kontua? Bai orixe. Ogja egiteko leenengo eo egiten zan garia, gero a uruna eralgi azpiran zaia kenduteko edo apartetako. Gero norberak bota lebadurea, etxekoa e, taza baten gordeta eukiten gendun lebadurea, aurreko astekoa. Gero urunari bota ganetik lebadurea eta gero gatz eta gero ur goriagaz masea edo ore egin. Gero egiten zan itxi ordu erdi bat igon egin dagian, eta igon edo jagi orduan atzera egite zan masea igurdi eta gero ya egiten ziran ogiak, opilak, pamitxak eta ipinten ziran ool baten ganean eta tape-tan ziran ba izera bategaz eta ez baziran altzetan, talapara bete txingar ipinten zan azpian berotuteko eta altzetan ziran ogiak. Eta orduan ya labea eukiten zan ya zurituta zerua, labearen zerua, eta ori, gure dau esan ya dagoala ogiak sartuteko moduan. Labea garbitu egiten zan ba

txingerrak bastarrean ipini irakas inarrea in de garbitu. Da lelengo sartuten audisen artoak, a ber selan altzeta sien, eta gero garienak, pami-txak eta ogiek.

Eta labigerra, ori de, labeko labesu ostaiko beroa aprobetxaute, ba, artaburu betzuk sartu te berotutea, kiskortuteko apur bet eta gero ain urune onena da talo sein morokile eiteko. Labigerra in eskero urune se-se oten da, espabere busti modure urteiten dau errotati, baie labiger ostaiko urune fin-fine da, se-sea.

irakaz eta txingerrak bazterrean ipini irakaz inarrea egin eta garbitu. Eta leenengo sartuten eudezan artoak, a ber zelantzetan ziran, eta gero gariarenak, pami-txak eta ogiak.

Eta labigerra, ori da, labeko labesu osteko beroa aprobetxatuta, ba, artaburu batzuk sartu eta berotutea, kizkortuteko apur bat eta gero areen uruna onena da talo zein morokila egiteko. Labigerra egin ezkeru uruna zee-zee egoten da, ezpabere busti modura urten egiten dau errotatik, baina labiger osteko uruna fin-fina da, zee-zeea.

104.1. Austegiarmin-eko harritzarpeko Erromanuen urregorria

Urregorriena? Nau(k)p(b)ere entzuni(k)t(d)auket umetarik. Gure aiteri-te entzunekoa da txikerrak isin orduin. Ba, Erromanuek ibili siala emeti Itzine ondoti bere, da, ba, arantz eskapaudenean, an a, Austigarbin aldean urregorrie gorde audiela arritzar baten aspian. Ai arritzarra an dao oin bere, urregorrie estai(t)p(b)ae. Austigarbingo arrie esatotzu. Ba, antxe i dao Erromako soldaduik arripean gordeko ai urregorrie. Arri ori seinalaute i dao bere koloreagaiti-edo, markan ba(t)p(b)ere i dauko nauk ikusi estot in baie. Su, au kontui les eskribidu e, s'espabere baten batek siñistu in lei te joan Austigarbinera eta ai arripea arakatuten asi d'eser topau es. Kontui, kontui isingo da ori, se egie isin basan oneskero topaudin urregorri ori. Sau(k)p(b)ere esan dosu baie ori urregorrien kontui beste leku askotan bere kontetan da. Kontuik estire isingo danak? Baten bat egie bere igual isingo da esta? Baleitike.

Urregorriarena? Neuk bere entzunik daukat umetarik. Gure aitari-eta entzunekoa da txikerrak izan orduan. Ba, Erromanuek ibili zirala emetik Itzina ondotik bere, eta, ba, arantz eskapatu eudenean, an a, Austigarbin aldean urregorria gorde eudiela arritzar baten azpian. A arritzarra an dago orain bere, urregorria ez dakit baina. Austigarbineko arria esaten deusagu. Ba, antxe ei dago Erromako soldaduak arripean gordetako a urregorria. Arri ori seinalatuta ei dago bere koloreagaitik-edo, markaren bat bere ei dauka neuk ikusi ez dot egin baina. Zu, au kontua lez eskribidu e, ze ezpabere baten batek sinistu egin lei eta joan Austigarbinera eta a arripea arakatuten asi eta ezer topatu ez. Kontua, kontua izango da ori, ze egia izan bazan onezkero topatu eudien urregorri ori. Zeuk bere esan dozu baina ori urregorriaren kontua beste leku askotan bere kontetan da. Kontuak ez dira izango danak? Baten bat egia bere igual izango da ezta? Baleiteke.

104.2. Anbotoko Señorea su-bola baten itxuran zuzian inizitua lez

Anbotoko Señorea? Ba, baten e, an Albitzun, gure osaba Manu da Txomin, anajeak, komertasiñoan ebisen ai gaubiluntzeko kontui kontetan. Ba, antza, osaba Manuk tabernati etxerantzean Anbotoko Señorea ikusi eban su-bola baten itxuran susien joaten Itzinerantza inisitue baño arinao atzean garra dariola. Etxera allegau sanean sustosartue kendu esinik egoan d'orduin badiñotzo osaba Txominek, anajeak:

- Se pasetan yata ba? Beti abil bidea(k)p(b)etean gautute ta bildurtu in as estok.
- Bildurtu bakarri(k)p(b)alitzok? Anbotoko Señorea e(s)tx(y)oat ikusi ba su-bola baten itxuran, garretan, susien joaten orrantza, Itzinerana inean inisitue bera baño arinao.
- Ao isilik, apurren bat edanda etorriko intzen d'edoser ikusi orritan orduitan
- Enok etorri belu, oin bakik i negu asikeran egune(k)p(b)ere laburre(k)-t(d)osak eta atoan gaututen yok, arrastegi erdireko gaube ok
- Olan bok ogeto, baie se ikusio(k)-p(b)a, asmau estok in isingo?
- Eses ba, ori su-bolori Anbotoko Señorea isin dok, e(s)tx(y)oat eser fundau, ganeko sustue artu yoadan!
- Tirauk, mutil, afaldik seoser da lo ik lo, orrik kontui(k)t(d)osak eta, andiagoa(k)p(b)ere asmaukosak ik, redies!

Anbotoko Señorea? Ba, baten e, an Albitzun, gure osaba Manu eta Txomin, anajeak, komertasiñoan ebilzan a gaubiluntzeko kontua kontetan. Ba, antza, osaba Manuk tabernatik etxerantzean Anbotoko Señorea ikusi eban su-bola baten itxuran zuzian joaten Itzinerantza baino arinago atzean garra dariola. Etxera allegatu zanean susto sartua kendu ezinik egoan eta orduan badinotso osaba Txominek, anajeak:

- Zer pasetan jak ba? Beti abil bideak betean gaututa eta bildurtu egin az ez dok.
- Bildurtu bakarrik balitzok? Anbotoko Señorea ez joat ikusi ba su-bola baten itxuran, garretan, zuzian joaten orrantza, Itzinerana inean inizitua bera baino arinago.
- Ago isilik, apurren bat edanda etorriko intzan eta edozer ikusi orreitan orduetan
- Ez nok etorri belu, orain badakik i negu asikeran egunak bere laburrak dozak eta atoan gaututen jok, arrastiri erdirako gaua dok
- Olan badok obeto, baina zer ikusi dok ba, asmatu ez dok egin izango?
- Ezetz ba, ori su-bola ori Anbotoko Señorea izan dok, ez joat ezer fundatu, ganeko sustua artu joadan!
- Tirauk, mutil, afaldu egik zeozer eta lo egik lo, orreik kontuak dozak eta, andiagoak bere asmatuko dozak ik, rediez!

105.1. Laminarrietako zubia eta laminak

A! Ori laminen kontue? Ba, neu bisi nes Laminarrieta kallean. Orti

A! Ori laminen kontua? Ba, neu bizi naz Laminarrieta kalean. Ortik etorriko

etorriko da isena be, se or bean, subie daoen lekuen, bueno, subi sarra, estue ta beratxoago subi nausie dao, sabala, arantza ospitelera yoateko d'onantza ba kallea, gure kallea, Laminarrieta. Da, ba antza, lenao or erreka bastarretan laminek ote sian d'erreka bastarrak arris beteri(k)-t(d)aos, d'orti, segun itxurea, etorriko san isen ori, Laminarrieta. D'esandotzutenes, ba, subie(k)p(b)e bi daos inde, sarra oñeskoantzat eta barrie autoantzat. Bai subi edarra, ni txofer ibili nes naure aldien eta makina bat kamino txar esotuot. Gaur u kamiñoa(k)p(b)e onak eta autoak setan esani(k)p(b)es. Gaurko autoak, mekasuen, beres doas koño, baie len inderra beasan bolantea eroateko.

da izena be, ze or beean, zubia dagoan lekuan, bueno, zubi zaarra, estua eta beeratxoago zubi nagusia dago, zabala, arantz ospitelera joateko eta onantz ba kallea, gure kallea, Laminarrieta. Eta, ba antza, leenago or erreka bazterretan laminak egoten ziran eta erreka bazterrak arriz betarik dagoz, eta ortik, segun itxurea, etorriko zan izen ori, Laminarrieta. Eta esan deutsudanez, ba, zubiak be bi dagoz eginda, zaarra oinezkoentzat eta barria autoentzat. Bai, zubi ederra, ni txofer ibili naz neure aldian eta makina bat kamino txar ezagutu dot. Gaur u kaminoak be onak eta autoak zertan esanik be ez. Gaurko autoak, mekasuen, berez doaz koño, baina leen indarra bear zan bolantea eroateko.

105.2. Kopla eta bertsoak

1
Ai ene Mari Manu
Seberiostrarra
tranpati sartu yako
birigarro arra.

2
Ai ene mari manu
iñongo minik es
bustena gogortute
non bigundurik es.

3
Neskasar birrotxea
tejamanapean
nok esango ote doste
eskondu gaitean.

4
Ai ene penak eta
Martin Aramaio
sirritxu bet in barik
esin itxi neio.

1
Ai ene Mari Manu
Zeberioztarra
tranpatik sartu jako
birigarro arra.

2
Ai ene mari manu
iñongo minik ez
buztana gogortuta
non bigundurik ez.

3
Neskazar birrotxea
tejamanapean
nok esango ote deuste
ezkondu gaitean.

4
Ai ene penak eta
Martin Aramaio
zirritxu bet ein barik
ezin itxi neio.

5

Amorebietako
bisialargune
bakarrik egon barik
artine lagune.

6

Urruku tuku-tuku
es niri ukutu
ama kamaran dago
sentiduko gaitu.

7

Atzoa t'agurea
asarratu dire
atzosar deabrue
bargetati tire.

8

Baltza nasela dineure
niri dauste ardure gitxi
ardaua baltza da baia
askok iten dau erosi.

9

Neuk ikusikoa da
San Juan gaubean
Txomin eta Bartolo
taberna batean.

10

Ene Maritxu, Maritxu
goso salea sara su
goisean-goisean txokolatea
arratzaldean koipetzu
gisonari porrusalda
olantxe bisi sara su.

11

San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzen ni
denpora txarrak emonda
es nintzen ondo ibili.

5

Amorebietako
bizialargune
bakarrik egon barik
artina lagune.

6

Urruku tuku-tuku
ez niri ukutu
ama kamaran dago
sentiduko gaitu.

7

Atsoa t'agurea
aserretu dire
atsozar deabrua
bargetatik tire.

8

Baltza nazela dineure
niri dauste ardure gitxi
ardaua baltza da baina
askok iten dau erosi.

9

Neuk ikusikoa da
San Juan gaubean
Txomin eta Bartolo
taberna batean.

10

Ene Maritxu, Maritxu
gozo zalea zara zu
goizean-goizean txokolatea
arratzaldean koipetsu
gizonari porrusalda
olantxe bizi zara zu.

11

San Blas pasau dan urte bi
Abadiñora nintzen ni
denpora txarrak emonda
ez nintzen ondo ibili.

12

Matxalen Busturiko
isan balitz ona
esala etorriko
Busturitik ona
salada (sic)
Busturitik ona.

12

Matxalen Busturiko
izan balitz ona
ez zala etorriko
Busturitik ona
salada (sic)
Busturitik ona.

BERTSOAK

1

Gure amama kamaran dago
eta aitite tabernan
ostera bere yegongo dire
txaltxu nabarrak eusoa

2

Dosena bat bertzo barri
gastean konsolagarri
nere mingaña sano dan arte
egingotzuedas jarri.

3

Bart amarretan eskondu nintzen
amaiketako senardun
amabietan il yatan eta
geratu nintzen alargun.

4

Andia daukat sentimentua
andiagoa penea
ordubeteko senarragaiti
alargun gelditutea.

SANTA AGEDA

1

Ementxe gatos, ementxe gatos
ondo lotzas da bildurres
usaba jaunak esango dosku
kanteko badu edo es.

BERTSOAK

1

Gure amama kamaran dago
eta aitita tabernan
ostera bere egongo dira
txaltxu nabarrak auzoan

2

Dozena bat bertso barri
gaztean konsolagarri
nere mingaña sano dan arte
egingotsuedaz jarri.

3

Bart amarretan ezkondu nintzan
amaiketako senardun
amabietan il jatan eta
geratu nintzan alargun.

4

Andia daukat sentimentua
andiagoa penea
ordubeteko senarragaitik
alargun gelditutea.

SANTA AGEDA

1

Ementxe gatoz, ementxe gatoz
ondo lotsaz da bildurrez
uzaba jaunak esango deusku
kanteko badu edo ez.

2

Alkate jaunagas egon garela
atzoko arratzaldean
libertadea gurekin degu
ibiliteko bakean.

3

Ibiliteko bakean eta
lenauko sarran legean
bestela sartuko gaituela
kartzela ilun batean.

4

Bedeinkatua isan daitela
etxe onetako jentea
pobre ta umilde gabisanontzat
eukisu borondatea.

2

Alkate jaunagaz egon garela
atzoko arratsaldean
libertadea gurekin degu
ibiliteko bakean.

3

Ibiliteko bakean eta
lenauko zarran legean
bestela sartuko gaituela
kartzela ilun batean.

4

Bedeinkatua izan daitela
etxe onetako jentea
pobre ta umilde gabisanontzat
eukizu borondatea.

OHARRA: (kopla eta bertsoak
direnez, etimologiaratze minimoa
baino ez da egin originala errespe-
tatzeko.)

106.1. Zezenak Salamankatik Bilboko zezen plazara oinez

Nik entzutie dekotena, lenao ekarten audesela sesenak, serera, Bilboko plasara Salamankatik asi te oñes ekartaudesela emeti Ganbarruti eta or Ganekogortan atzeko aldien aukitaudesela yatekoa-ta emoteko, beresko trokarro baten sarratute, sera ikusten da gitxi gora bera, d'atzeko aldeti, Pagasarriti Bilbora, plasara eroataudesela uñes ekartaudesan Salamankatik edo nik estait nondik e baie uñes. Danak ekarten sien Orduñetik uñes, Laudiyoti paseta sien emeko serak eta gero Santa Lusitik igoten auden Ganakogortara atzeko aldeti, or goyen dau ser bat, toki bet, trokarro bat, sakon moduko bat (d)anera, esiye inde, korta modu-

Nik entzutea daukodana, leenago ekarten eudezala zezenak, zerera, Bilboko plazara Salamankatik asi eta oinez ekarten eudezala emetik Ganbarrutik eta or Ganekogortan atzeko aldean eukiten eudezala jatekoa-eta emoteko, berezko trokarro baten zarratuta, zera ikusten da gitxi gora beera, eta atzeko aldetik, Pagasarritik Bilbora, plazara eroaten eudezala oinez ekarten eudezan Salamankatik edo nik ez dakit nondik e baina oinez. Danak ekarten ziran Orduñatik oinez, Laudiotik pasetan ziran emeko zerak eta gero Santa Luziatik igoten euden Ganakogortara atzeko aldetik, or goian dago zer bat, toki bat, trokarro bat, sakon moduko bat

re, d'an eukitau-desan sesenak. Et'abuelok esatausten andik ekartau-desela sesenak, atzeko aldeti er(o)aten audesela Pagasarritik, Larraskituti Bilboko sesen plasara. Asko tardeta i yauren e, Salamankati Bilborano. D'au isingo san Bilbora trena-edo ekarri aurreti. Etapatan ekartau-desan, orduen dana isin sen karreterue ero pastoriekas se orduko denporatan gurdiyekas ekartauden gariye, t'ardaoa ta sera. Orduñen posadan ote sien, sera, kortak egon sien ba ayuntamentue dauen lekuen, da kortak on sien idiyek parejak (g)aubietan lotuteko. Da gero San Migelen, oin etxie, kulturie in dauen lekuen be egon sien kortak deskantzue iteko bidien. Da Pagasarriti Bilboko plasara yoaten sien gustiyek kerixakas da danagas da Larraskitun kobretotziesan deretxoak, emeti, Pagasarriti uñes yoate sien, d'an dau oin be a etxie, d'an kobretotziesan deretxoak plasara Bilboko plasara uñes yoaten sien gustiyeri.

danera, esia eginda, korta modura, eta an eukiten eudezan zezenak. Eta abuelok esaten eustan andik ekarten eudezala zezenak, atzeko aldetik eroaten eudezala Pagasarritik, Larraskitutik Bilboko zezen plasara. Asko tardetan ei euden e, Salamankatik Bilboraino. Eta au izango zan Bilbora trena-edo ekarri aurretik. Etapatan ekarten eudezan, orduan dana izan zan karreterua edo pastoreakaz ze orduko denporetan gurdiekaz ekarten euden garia, eta ardoa eta zera. Orduñan posadan egoten ziran, zera, kortak egon ziran ba ayuntamentua dagoan lekuan, eta kortak egon ziran idiak parejak gauetan lotuteko. Eta gero San Migelen, orain etxea, kulturea egin dauen lekuan be egon ziran kortak deskantsua egiteko bidean. Eta Pagasarritik Bilboko plazara joaten ziran guztiak kereizakaz eta danagaz-eta Larraskitun kobretan eutsiezan deretxoak, emetik, Pagasarritik oinez joaten ziran, eta an dago orain be a etxea, eta an kobretan eutsiezan deretxoak plazara Bilboko plazara oinez joaten ziran guztiei.

106.2. Ilargi betean Amabirjinaren geriza

Nik iños entzunde dauket Amabirjinie modukoa dala ori sera, geispie. Amabirjinien itxurie deukielatargiko aik (g)eispiiek eta ba: begitiosu te begitiosu itargiyeri, esatoskuen, itxurie aukiten dau, itxurie ederto Amabirjinien santue, itxurie serak, t'orregaiti nik entzun in dot ori sarriten, da begitu be in dotzet eta ba nauri be eretxiten dauste, bai, Amabirjinien itxurie daukela. Au entzun etxien, iños entzun dot: aitu

Nik inoz entzunda daukat Amabirjinea modukoa dala ori zera, gerizpea. Amabirjinearen itxurea daukiela itargiko aik gerizpeak eta ba: "begitu egiozu eta begitu egiozu itargiari ", esaten euskuen, itxurea eukiten dau, itxurea ederto Amabirjinearen santua, itxurea zerak, eta orregaitik nik entzun egin dot ori sarritan, eta begiratu be egin deustat eta ba neuri be eretxiten deust, bai, Amabirjinearen itxurea daukala. Au en-

selan polito dauen. Se gure etxien beti errosariyoa erresetan san lastoak itorduen, kanile, burruxe, da, errosariyo bat edo bi parau barik pa-pa-pa.

Itargiyeri errespetoa e. Baten, gure abuelari nik esan notzen ba:

– Bakixu amerikanuek itargire eldu disela? – eta Mirenen Larraskituko abuelak-.

– Es Sabino, esaixu esan ori, isilik on sate, eskomulgau ingotzue, botakotzue elextati, isilik, ori esaixu esan e.Egiok ori e!

tzun etxean, inoz entzun dot: "aitu zelan polito dagoan". Ze gure etxean beti errosarioa errezetan zan lastoak egite orduan, kanila, burruxa, eta, errosario bat edo bi paratu barik pa-pa-pa.

Itargiari errespetoa e. Baten, gure abuelari nik esan neutsan ba:

– Badakizu amerikanuak itargira eldu dirala? – eta Mirenen Larraskituko abuelak-.

– Ez Sabino, ez egizu esan ori, isilik egon zaitez, eskomulgatu egingo deutsue, botako deutsue eleizatik, isilik, ori ez egizu esan e.Egia dok ori e!

106.3. Begizkoa umeari agertu jaiokeran

Begiskoa botatie, gause baten fijau eskero, gero ba faltie-edo lotuten dala sera... Bai, te ointxe be esaten daude, ba, begiskoa edo daukela, kapritxoa esaten dotzune guk edo ba gustetan bayatzu edo sagarra edo mallukiek edo sera, da, espadosun yaten, mantxiek mallukienak-edo urteitotziela umieri, esaten daure, barruen dauen umieri mantxie urtetan i dotzie, bai, andrie ernari daoenien. Orrik, lenaoko kontuek, estaki(t)p(b)esterik. Lenao, jentie atra-saute edo mediyori(k)p(b)es, da, ba, errue, begiskoari bota.

Begizkoa botatea, gauza baten fijatu ezkerro, gero ba faltea-edo lotuten dala zera... Bai, eta oraintxe be esaten daude, ba, begizkoa-edo daukala, kapritxoa esaten deutsaguna guk edo ba gustetan bajatzu edo sagarra edo mailukiak edo zera, eta, ez badozun(sic) jaten, mantxeak mailukiarenak-edo urten egiten deutsiela umeei, esaten daude, barruan dagoan umeari mantxea urtetan ei deutsie, bai, andrea ernari dagoanean. Orreik, leenagoko kontuak, ez dakit besterik. Leenago, jentea atrasatuta edo mediorik be ez, eta, ba, errua, begizkoari bota.

106.4. San Juanetako ilintxia soloak bedeinkatzeko

Guk San Juan egunean egiten gendun sua, famoso ori, eta gero ilintxea, txingerra kosi baktokak txinger bat eta kantetan yoate gintzesan:

Guk San Juan egunean egiten gendun sua, famoso ori, eta gero ilintxia, txingarra kogidu bakoitzak txingar bat eta kantetan joaten gintzazan:

“San Juan gabillien
sapoak eta subiek ondo-ondo erre
eta artoa ta gariye ondo-ondo gorde
kamarara eroatarte”.

Olan yoaten gintzen solosik solo ilintxiye artu su nagositi te, erretan dauena, ilintxiye palue suegas puntan, aregas yoaten gintzen.

Gero, urrongo egunien iminten giñun, ori, San Juan arbolie, atien alboan eldute, lexarra. Eta kurtzie orreri lexarrari baño geyo iten geuntzen kurtze txiki bet eiten geuntzen Erramu egunien ereñotzari, d’ereñotzak iminten giñusen soloan, San Juan ostaien, erramu berinkitueri kurtze bat ein de iminte san solo batzutan. Berinkituteko ereños kargie eroten giñun Erramu egunien elexara, erramu asko beasan-eta solo gus-tiyetarako.

“San Juan gabillien(sic)
sapoak eta subiek ondo-ondo erre
eta artoa ta gariye ondo-ondo gorde
kamarara eroatarte.”

Olan joaten gintzazan solorik solo ilintxia artu su nagusitik eta, erretan dagoana, ilintxia palua suagaz puntan, aregaz joaten gintzazan.

Gero, urrongo egunean iminten gendun, ori, San Juan arbolea, atearen alboan elduta, leizarra. Eta kurtzea orreri leizarrari baino geiago egiten geuntsan kurtze txiki bat egiten geuntsan Erramu egunean ereinotzari, eta ereinotzak iminten genduzan soloan, San Juan ostean, erramu bedeinkatuai kurtze bat egin eta iminten zan solo batzuetan. Bedeinkatutako ereinotz kargea eroaten gendun Erramu egunean eleizara, erramu asko bear zan-eta solo guztietarako.

106.5. Ikatz-egostea Zollon

Lelengo egurre botat’auden, burbuxe, da bota segiduen da emototzien sue, su arin bet, orriyek eta errama txikiyek erre ta gero lotute san egurre. D’ori egur ori ebai itauden, pikau metro bat inguruko satiyek. Eta egiten auden larrena, larrena da olango selai bet e erredondoa sera, de, iminten auden palu loditxu bet erdiyen, d’orren alboan iten auden plegau sutunik eta bete-bete itesan goraño txondorra. Gero, imintotzien idie, d’idien ganien lurre, ondo-ondo tapetako serien, de, goiti brasie botaten auden, kanpoan egoan braserue t’ango brasa eta ilintxak (g)oiti botaten audesan, d’aste san iketza egosten. Egositorduen, nosipin, suloak

Leenengo egurra botaten euden, burbuxa, eta bota segiduan eta emoten eutsoen sua, su arin bat, orriak eta errama txikiak erre eta gero lotuten zan egurra. Eta ori egur ori ebagi egiten euden, pikatu metro bat inguruko zatiak. Eta egiten euden larrena, larrena eta olango zelai bat e erredondoa zera, eta, iminten euden palu loditxo bat erdian, eta orren alboan egiten euden plegatu zutunik eta bete-bete egiten zan goraino txondorra. Gero, iminten eutsoen idea, eta idearen ganean lurra, ondo-ondo tapetako zerean, eta, goitik brasea botaten euden, kanpoan egoan braserua eta ango brasa eta ilintxiak goitik botaten eudezan, eta asten zan ikatza egosten.

edo urteitotzien kanpora, d'iten audezan ostera be ondo-ondo tapau lurregas edo seragas, se osteintzien ak suek koisten auen aisie da ingo san kiskeldu dana. Da iketza egosi orduen, galbaitati pasau eta sakue(k)-p(b)ete. Len astu in yat esatie, burbux-egurren akarreo a idiyekas ite san, narras, narrean edo gurdiyen, d'ur oneskero eskus be bai. Iketze-gostie inportantie san diru apur bet irepasi edo atetako.

Egositorduan, noizean bein, zuloak edo urten egiten eutsoen kanpora, eta egiten eudezan ostera be ondo-ondo tapatu lurregaz edo zeragaz, ze osterantzean ak suak kogiduten euan aizea eta egingo zan kiskaldu dana. Eta ikatza egosi orduan, galbaitatik pasatu eta zakuak bete. Leen aaztu egin jat esatea, burbux-egurraren akarreo a idiekaz egiten zan, narras, narrean edo gurdian, eta ur egon ezkeru eskuz be bai. Ikatz-egostea inportantea zan diru apur bat irabazi edo aterateko.

106.6. Bel(e)ak eta saiak ganadua jaten

Ganadu tragauegana lelengo yoaten da belie d'atetan dotzos begiye k eta gero estaki(t)p(b)aiek abisetan botzie, baie saiye k etorten dire, bai saye k etorten dire. Beitixu, guk ementxe, etxaurrien, atatusus tripak txarriye il baño es, de, ikusikosus iru lau metroan saiye k e ogei edo otamar, baie errebañue, zzziiiiiii! selango aterrisajie iten dauden, samie builtau iten daude ta yast! tripa(k)tx(y)an. Baie, ik botaten dosak tripak edo sartzak or serien eta al momento yatosak saiye k. Txala ikeran be bai, umetokiye(k)tx(y)aten eta deskuidauskeru txala be yan. Baie ganadue gaxoag gas ilten danien, tragaurduen, bastante anditute ta sera, egoten dira etxoiten, d'ordu en egun betzutan estotzie pikurik sartzean saye k e. Gero bai, egun betzu(k)p(b)arru bai.

Nik emen jitanuei ikusi yautziat a emen txarriye tragau, karretillan edo gurdiyen eroan da, enterrau. Da, jitanuek atera ta yan. Enteretan soasenien, ateraten yauden enterraute

Ganadu tragatuagana leenengo joaten da belea eta ateraten deutzaz begiak eta gero ez dakit ba areik abisetan badeutsie, baina saiak etorten dira, bai saiak etorten dira. Begitu egizu, guk ementxe, etxe aurrean, ateraten dozuz tripak txarria il baino ez, eta, ikusiko dozuz iru lau metroan saiak e ogei edo ogeita amar, baina errebañua, zzziiiiiii! zelango aterrizajea egiten dauden, samea bueltatu egiten daude eta yast! tripak jan. Baina, ik botaten dozak tripak edo satsak or zerean eta al momento jatozak saiak. Txaala egikeran be bai, umetokiak jaten eta deskuidatu ezkeru txaala be jan. Baina ganadua gaixoagaz ilten danean, tragatu orduan, bastante andituta eta zera, egoten dira etxodoten (itxaroten), eta orduan egun batzuetan ez deutzie pikurik sartzean saiak e. Gero bai, egun batzuk barru bai.

Nik emen jitanuei ikusi jautsiat a emen txarria tragatu, karretillan edo gurdian eroan eta, enterratu. Eta, jitanuak atera eta jan. Enteretan zoazenean, ate-

yegoan lekuti, t'eroaten yauden andik iru lau bat egungarrenien edo.

raten jauden enterratuta jegoan lekutik, eta eroaten jauden andik iru lau bat egungarreanean-edo.

106.7. Txepetxa eta kukua

Epetxiak eiten dau abiye oso txikiye. Nik estakitena da selan iten dotzien an kendu beste arrautzak eta kukuek e bere arrautzie barruen sartu, txepetxienien. Onango sulo txikitxu bet iten dau te onango boltza bat (d)ao, d'estakit selan sartzen dotzen. Nik ikusi dot kukue e, da gero txepetxie yaten emoten ra-ra-ra, onango txori txikitxu bet eta bestie andiye iten da, pinto-pintoa kukue. Arrautzie igual pikuegas sartuko yotziek andi sulotxuti. Kukuek abiye eiten dau edo txindorranien edo epetxienien. De, epetxien abire kukue asten danien, errementau itotzo ta eskapau. Kukuek arrautza ba(t)p-(b)akarrik iminten yok. Kukuek e(s)tx(y)ok iten esebe. Faltzoagoa dok faltzoagoa sera baño! Kukue faltzoa da.

Epetxak egiten dau abia oso txikia. Nik ez dakidana da zelan egiten deutsien an kendu beste arrautzak eta kukuak e bere arrautzea barruan sartu, txepetxearanean. Onango zulo txikitxu bat egiten dau eta onango boltsa bat dago, eta ez dakit zelan sartzen deutsan. Nik ikusi dot kukua e, eta gero txepetxea jaten emoten ra-ra-ra, onango txori txikitxu bat eta bestea andia egiten eta, pinto-pintoa kukua. Arrautzea igual pikuegas sartuko jautsiek andik zulotxutik. Kukuak abia egiten dau edo txindorrenean edo epetxearanean. Eta, epetxearen abiara kukua asten danean, errementatu egiten deutso eta eskapatu. Kukuak arrautza bat bakarrik iminten jok. Kukuak ez jok egiten ezerbe. Faltzoagoa dok faltzoagoa zera baino! Kukua faltsoa da.

106.8. Abade kazari edo ehiztaria

Nik abadien esakera(k)t(d)aukedas. Kasariak isin siela. Eta egon i soan abade bat euskeldune, d'egon soan or Araba partien d'iru erriten edo mesie emoten i yoan. Eta eper bat edo pare bat edo artu yoasala de, etorri soala mesara eta selan iminikotzen andriek abixue emon gurien badiñotzo abadiak:

– “*Maritxu korupeko
len egonas esateko*

Nik abadeen esakerak daukadaz. Kazariak izan zirala. Eta egon ei zoan abade bat euskalduna, eta egon zoan or Araba partean eta iru erritan-edo mezea emoten ei joan. Eta eper bat edo pare bat edo artu joazala eta, etorri zoala mezara eta zelan iminiko deutsan andreak abisua emon gurean badiñotso abadeak:

– “*Maritxu korupeko
leen egon nas esateko*

*eperra ekarri dotela
eta saltzan ipinteko”.*

- Amen!- erantzun yotzan korupeti Maritxuk-.
- Ulertu yok!- abadiak.

*eperra ekarri dodala
eta saltsan ipinteko”.*

- Amen!- erantzun jautsan korupetik Maritxuk-.
- Ulertu jok!- abadeak.

106.9. Gabon gaueko ogia txakur-katuen amorrua kentzeko

Gabon gaubien, lelengo yaten soan beti orio-asié edo koniflora eta gero besugue edo txitxarroa. Gure etxien karakolik esoan yaten, beste etxe askotan bai. Postrie intxaursaltzie beti, gastaye te menbrillue be bai.

Ogiyegas eiten soan, bereinkitu, kurtzie eite yakon ogiyeri aspiti kutxilloagas, satitu ite soan da ba, mantelpien lotuten soan, alde batién sati bet eta beste sati bet bestaldien. Da bata isite soan txakurrentzako da bestie katuentzako, amorrutu es iteko. Da beti emoten yakiyen urrungo egunien, txakurreri a satiye, ogi txatala, eta bestie katueri.

Gabon gauean, leenengo jaten zoan beti orio-azea edo koliflora eta gero besigua edo txitxarroa. Gure etxean karakolik ez zoan jaten, beste etxe askotan bai. Postrea intxaursaltsea beti, gaztaia eta menbrillua be bai.

Ogiagaz egiten zoan, bedeinkatu, kurtzea egiten jakon ogiari azpitik kutxilloagaz, zatitu egiten zoan eta ba, mantelpean lotuten zoan, alde batean zati bat eta beste zati bat bestaldean. Eta bata izaten zoan txakurrentzako eta bestea katuentzako, amorrutu ez egiteko. Eta beti emoten jakian urrengo egunean, txakurrai a zatia, ogi txatala, eta bestea katuai.

106.10. Semeak aita asilora apurrin

Ori entzun yoat sarri, nori pasau yakon es baie entzutie bai. Semeak aiteri ya edadekoa sana letxe, sera, ba esin eutzon sertu te lagundute, asilora er(o)an gurauen. Eta orduen, lepoan artute, apurrin, eroan auenean, kantzate bidien, arri beten ganien lotu sien deskantzetan. Da, gero ango arriyen, sera, aitek esan iyotzen semieri: “Emeko arriyen, neu(k)p(b)e kantzate, emen deskantzau niñoan nau(k)p(b)e aite er(o)an niñoanien, serera, asilora”.

Ori entzun joat sarri, nori pasau jakon ez baina entzutea bai. Semeak aitari ya edadekoa zana letxe, zera, ba ezin eutsan zertu eta lagundu eta, asilora eroan gura euan. Eta orduan, lepoan artuta, apurrin, eroan euanean, kantsatuta bidean, arri baten ganean lotu ziran deskantzetan. Eta, gero ango arrian, zera, aitik esan ei jautsan semeari: “Emeko arrian, neuk be kantsatuta, emen deskantsatu nioan neuk be aita eroan nioanean, zerera, asilora”. Eta orduan semeak berak be pentsatu egin ei joan eta:

D'orduén semiek bera(k)p(b)e pen-
tzau in iyoan de: “B’orduén nauri be
auxe ingo yostiek eta etxera er(o)an
biyoat aite”.

“Ba orduan neuri be auxe egingo jaus-
tiek eta etxera eroan bear joat aita”.

106.11. Zolloko abestia

Sollotarrak
sollotarrak (g)ara
sollotarra(k)p(b)etiko
isango gara

1-.

Sollotarrak (g)era gu
bera da nagusi
d’aren menpean beti
gura dogu bisi.

2-.

Selango isango da
Solloko erria
Gorbeiaiko kurtzea be
berari begira.

3-.

Sollotarra(k)p(b)e dira
gure gurasoak
euskaldun sarrak eta
ben-benetakoak.

(Oharra: estrofa gehiago be
baditu baina berriemaileak ez ditu
gogoratzen)

Zollotarrak
zollotarrak gara
zollotarrak betiko
izango gara

1-.

Sollotarrak gera gu
bera da nagusi
d’aren menpean beti
gura dogu bizi.

2-.

Zelango izango da
Zolloko erria
Gorbeiaiko kurtzea be
berari begira.

3-.

Zollotarrak be dira
gure gurasoak
euskaldun zaarrak eta
ben-benetakoak.

(Oharra: estrofa gehiago be baditu
baina berriemaileak ez ditu gogoratzen)

107.1. Hiru eguneko ezteguak Uriondon

Uriyondokoa sarela ama-parteti?
Bai gizona, yakingo esto(t)p(b)a?
Uriyondon baten e bodielangoa in
gendun, esteguek esatauden gure
aitek eta. Ba, ondiño ondo akorduen
dauket auki be. Sure osaba Josen
bodie isin sen d’iru egun on gintze-

Uriyondokoa zarala ama-partetik?
Bai gizona, jakingo ez dot ba? Uriondon
baten e bodealangoa egin gendun, ezte-
guak esaten euden gure aita-eta. Ba,
oraindino ondo akorduan daukat euki
be. Zure osaba Joseren bodea izan zan
eta iru egun egon gintzazan bodak jaten.

san boda(k)tx(y)aten. Ni nau soñuegas soñulari. Oin kontaukotzut astiroago. B'ori bodori mil nobesientos kaurentaiseisean isin sen, nik orduen amasortzi urte, ganeko sasoye! D'eskondu Seberiyoko Santa Kurtzen in sirean, iru yayonak entzun de gero. Mesostean, oñes mogidu gintzen kamiñoa bera eta Arbildun in gendun lelengo soñualdiye. Gero Uriyondora be oñes. Orduko denporan, da gero be, Uriyondora es egoan kamiñorik eta ie orduerdiko bidie dao. D'es ori, Uriyondon orduen es egoan es argirik es urik etxeatan. Argiye, seragas, petrolio-argiye edo karburoa edo kandelakas. Bueno, allegau gintzesan Uriyondora ta bodie sure osaba Josen etxean in gendun, Beanun. Andrie be Uriyondokoa, Amondaraintarra, Marortukoa, biyek Uriyondokoak. Interatan Uriyondon aundeka(k)p(b)isi sien, etxekadak, errentoriek (g)eyenak e, baie umoretzuek. Ba bai, a bai isin sala bodie, iru egunekoa. Gogoan dauket e, ba, irugarren egunerako yana bea san d'orduen sure aitite Manuelek-eta il ardiye d'ardi-okeliegas bete gendun tripie, da goso in be. Ni soñuotzean parau be in barik. A bai, umorie ta sasoiye. Kontuek atera, soñue yo ta soñue yo, atzamarretati odola dariyola on nintzen, atzamar puntak mindute, alangorik? Amasortzi urte orduen, gaur nok auki leikesan?

Oin, esto(t)tx(y)oten soñurik, semea(k)p(b)ai d'ondo ganera, soñulari onak urten daust. Oin gaxokarik nabil da ba ementxe, Busturin, paseotxu betzuk in de aurrera. Selan dabil sure aitexie, Justo? A(k)p(b)e larogaiti gora isin beoste. Orrik In-

Ni neu soinuagaz soinulari. Orain kontatuko deutsut astiroago. Ba ori boda ori mil nobezientos kaurentaiseisean izan zan, nik orduan amazortzi urte, ganeko sasoi! Eta ezkondu Zeberioke Santa Kurtzen egin ziran, iru deionak entzun eta gero. Meza ostean, oinez mobidu gintzan kaminoa beera eta Arbildun egin gendun leelengo soinualdia. Gero Uriondora be oinez. Orduko denporan, eta gero be, Uriondora ez egoan kamiñorik eta ia orduerdiko bidea dago. Eta ez ori, Uriondon orduan ez egoan ez argirik ez urik etxeetan. Argia, zeragaz, petrolio-argia edo karburoa edo kandelakaz. Bueno, allegatu gintzazan Uriondora eta bodea zure osaba Joserren etxean egin gendun, Beanu-n. Andrea be Uriondokoa, Amondaraintarra, Marortukoa, biak Uriondokoak. Intera artan Uriondon eundakak bizi ziran, etxekadak, errentoreak geienak e, baina umoretsuak. Ba bai, a bai izan zala bodea, iru egunekoa. Gogoan daukat e, ba, irugarren egunerako jana bear zan eta orduan zure aitita Manuelek-eta il ardia eta ardi-okeleagaz bete gendun tripea, eta gozo egin be. Ni soinuotsean paratu be egin barik. A bai, umorea eta sasoi. Kontuak atera, soinua jo eta soinua jo, atzamarretatik odola dariola egon nintzan, atzamar puntak minduta; alangorik? Amazortzi urte orduan, gaur nok euki leikezan?

Orain, ez dot joten soinurik, semeak bai eta ondo ganera, soinulari onak urten deust. Orain gaixokarik nabil eta ba ementxe, Busturian, paseotxu batzuk egin eta aurrera. Zelan dabil zure aitaxea, Justo? Ak be larogetik gora izan bear deust. Orreik Intxaurragatarrok bai dantzariak, en partikular Pablo. Bueno, kon-

txaurragatarro(k)p(b)ai yantzariyek, en partikular Pablo. Bueno, kontautzudes Seberiyoko kontu betzuk esta? Ai(k)t(d)enporak aistu be estodas iten!

tatu deutsudaz Zeberiyoko kontu batzuk ezta? Aik denporak aaztu be ez dodaz egiten!

107.2. Urdaibaiko Jentila

Yentilen konturi(k)t(d)akiden? Sauri entzun espanontzun ako an Bertzutenen batu sendun kontu ori, ni nau akordau bes. Suk esaostesu yentil kankalloan batek anka bata imintauela Untzetapikun da bestea Mandoyen, d'ure edan Arkulandako arri-pausuetan. Ba, koño, andiek isin beako yoan yentil orrek, se Untzetapikuti Mandoyera kilometroa(k)tx-(y)aosak on be gero, mekasuen sotz!

Ori entzunde, emeko Urdaibaiko yentilegas akordau nes. Estakit ondo kontaukotzuden, baie, txarka be, esebesa baño obie. Aiko. Busturin entzunde dauket au e, emen be on sala yentil bet, andiye gero e, iye Seberiyokoa bestekoa. Aitik, emeko yentil orrek antza, lauankan, anka bata imintauen Solluben, da, bestie Ereñosarren, San Miguelen ermitie dao an. Gero esku bata Atxerren, ortxe aurrean dauku, ikustosu? b'ortxe, San Pedron ermitie da or, da beste eskue Isaron, da ure edaten i auen surrupadotzean Isaro t'Ogoño bitartien, d'itzesoko ure be bajatu ite salaskoa apur bet, tragu andiyek ingo yoasen da, je-je-je. Bueno ori esaik siñistu gero e, orrik (k)ontue(k)p-(b)año estosak isingo ta, Seberiyokoa be bai t'emekoa be bai. Atxineko kontuek!

Jentilen konturik dakidan? Zeuri entzun ez baneutsun arako an Bertsuten-en batu zendun kontu ori, ni neu akordatu be ez. Zuk esan deustazu jentil kankailoren batek anka bata iminten euala Untzetapikun eta bestea Mandoian, eta ura edan Arkulandako arri-pausuetan. Ba, koño, andiak izan bearko joan jentil orrek, ze Untzetapikutik Mandoiara kilometroak jagozak egon be gero, mekasuen zotz!

Ori entzunda, emeko Urdaibaiko jentilegaz akordatu naz. Ez dakit ondo kontatuko deutsudan, baina, txarka be, ezebeza baino obea. Aiko. Busturian entzunda daukat au e, emen be egon zala jentil bat, andia gero e, ia Zeberiyokoa bestekoa. Aitik, emeko jentil orrek antza, lau-ankan, anka bata iminten euan Sollube-n, eta, bestea Ereñosarren, San Miguelen ermitea dago an. Gero esku bata Atxerren, ortxe aurrean daukagu, ikusten dozu? ba ortxe, San Pedroren ermitea dago or, eta beste eskua Izaron, eta ura edaten ei euan zurrupadaotsean Izaro eta Ogoño bitartean, eta itsasoko ura be bajatu egiten zalazkoa apur bat, tragu andiak egingo joazan eta, je-je-je! Bueno ori ez egik sinistu gero e, orreik kontuak baino ez dozak izango eta, Zeberiyokoa be bai eta emekoa be bai. Antxinako kontuak!

107.3. Sorginak Motrollutik Dantzalekura

Sorgiñen kontue, an Sollon be entzunde dauket auki, baie emekoagas akordetan nas geyo. Busturiko bateri entzun nauntzen au ser au, sorgiñen kontu au. Beitu, ementxe, eskerretara Motrollu iseneko larrie dao, etxie be bai, da, ba, entzutie, orti Motrolluti egas-edo yoate sialaskoa sorgiñek ara Dantzaleku esaten yakon selaire. Dantzaleku, Akordati gorantza dao, Ibarrangelu erris, itzesoareen bestaldien, San Pedro de Atxerre aspituken, antxe daukosu aurre aurrien Atxerre, emetixi ikusten da, aikoan an. Da ba an Dantzalekun bidekurtzie dao selaikadan, t'arri andi betzu(k)p(b)e bai, d'ara yoate i siela sorgiñek. An Sollo partien, esakera bat aukien sorgiñek, sera: "laño gustiyeen aspiti te sasi gustiyeen ganeti", emen estai(t)p(b)a, sasi gustiyeen ganeti barik i " itzesoan ganeti" esangudien, je-je-je! se Motrolluti Dantzalekure yoateko itzesoa pasau bea da ganeti, Mundekako itzes-adarra, marie beyen daoenieen ur gitxi oten da baie. Nik lelengotan Dantzaleku yantzan iteko lekue salakoan nengoan, baie nire andra partekoari entzunde, ba, Dantzaleku beste seozetarako lekue i sen antza, kontau iten dire gausek eta. Oin, siñistu es e!

108.1. Ellakuriko txakurra

Ellakuriko Txakurren kontue entzunde daukadan? Oba es, nau nas da Ellakurikoa. Bai, ombre, d'asko(k)t(d)aki barres ori kontu ori, d'asko kontetan da, pasau b'iten da-ta.

Sorginen kontua, an Zollon be entzunda daukat euki, baina emekoagas akordetan naz geiago. Busturiko bateri entzun neuntsan au zer au, sorginen kontu au. Begitu, ementxe, ezkerretara, Motrollu izeneko larrea dago, etxea be bai, eta, ba, entzutea, ortik Motrollutik egaz-edo joaten ziralazkoa sorginak ara Dantzaleku esaten jakon zelaira. Dantzaleku, Akordatik gorantz dago, Ibarrangelua erriz, itsasoaren bestaldean, San Pedro de Atxerre azpitxuan, antxe daukazu aurre aurrean Atxerre, emetixi ikusten da, aikoan an. Eta ba an Dantzalekun bidekurtzea dago zelaikadan, eta arri andi batzuk be bai, eta ara joaten ei zirala sorginak. An Zollo partean, esakera bat eukien sorginak, sera: "laine guztien azpitik eta sasi guztien ganetik", emen ez dakit ba, sasi guztien ganetik barik i "itsasoaren ganetik" esango eudien, je-je-je! ze Motrollutik Dantzalekura joateko itsasoa pasatu bear da ganetik, Mundakako itsas-adarra, marea beean dagoanean ur gitxi egoten da baina. Nik leenengotan, Dantzaleku, dantzan egiteko lekua zalakotan nengoan, baina nire andra partekoai entzunda, ba, Dantzaleku beste zeozetarako lekua ei zan antza, kontatu egiten dira gauzak eta. Orain, sinistu ez e!

Ellakuriko txakurre goseberea isin sen, da, Ellakurin belutxu basakaitaurenes, ba mojan komentora bajatu sen. Komentoan baskaitauren amabietan, Ellakuriko baserrien baño lenao, da, ba, txakur ori lenao bajatu sen komentora. Klausurako mojan komentoa Ellakurin aspitzuen dao, errekondoan, kamiño jenerala ta errekea bitartean. Oin ya estao mojarik e, Oñatire eroan ditues danak, komentoa utzi(k)t(d)ao. Da, ba, txakur ori bajatu sen komentora, seguru, bea berandutxu bajatu sen antza se komentoko mojak, ákabaute, baskarie ákabaute topausen, da, Ellakurire igun auen, bere etxera yoan san an baskaiteko. Bea, bueltarako Ellakurire be belu allegau sen antza ta, ba, atzenean, es batean es bestean, baskari barik lotu sen Ellakuriko txakurre.

108.2. Gauetako kateotsa

Sorginek? A bai, entzutea bai or Lamindaon-da. Bea, sorgine benetakoa on san or Gaurkula aldean. Sera, Pepin Gaurkulakoa, Pepin sarra, gaubiluntza batzutan kateotzean ibilte san bidea(k)p(b)etean da enbrari-te, parajari-te, gizonari-te urtetozien bidera olan e berandu ebisenari, bildurre sartzeako-edo. Pepin sarrak a komediek iten i ausen in be seguru, baragarrie i sen, da, ba, jentea bildurtute, da yakin arte nor san, ba, inon direnak asmetan ausen jenteak e, bildurragas, sorginek edo parte txarrekoak edo bate(k)p(b)aki nok urten dotzient bidera gaubean, d'olangoak. Fetxoriek in be. Es ke orduen mundo gustiebilen oñes, da gaubek errespe-

Ellakuriko txakurra goseberea izan zan, eta, Ellakurin belutxu bazkaiten eudenez, ba mojan komentora bajatu zan. Komentoan bazkaiten euren, amabietan, Ellakuriko baserrian baino leenago, eta, ba, txakur ori leenago bajatu zan komentora. Klausurako mojan komentoa Ellakuriren azpitzuan dago, erreka ondoan, kamino generala eta errekea bitartean. Orain ya ez dago mojarik e, Oñatira eroan dituez danak, komentoa utsik dago. Eta, ba, txakur ori bajatu zan komentora, seguru, baina berandutxu bajatu zan, antza, ze komentoko mojak, ákabatuta, bazkaria ákabatuta topatu euazan, eta, Ellakurira igon euan, bere etxera joan zan an bazkaiteko. Baina, bueltarako Ellakurira be belu allegatu zan, antza, eta, ba, atzenean, ez batean ez bestean, bazkari barik lotu zan Ellakuriko txakurra.

Sorginak? A bai, entzutea bai or Lamindaon-eta. Baina, sorgina benetakoa egon zan or Gaurkula aldean. Zera, Pepin Gaurkulakoa, Pepin zaarra, gaubiluntze batzutan kateotsean ibiltzen zan bideak betean eta enbrari-eta, parejari-eta, gizonari-eta urtetan eutsien bidera olan e berandu ebilzanari, bildurra sartzeako-edo. Pepin zaarrak a komediak egiten ei euazan egin be seguru, baragarria ei zan, eta, ba, jentea bildurtuta, eta yakin arte nor zan, ba, inon diranak asmetan euazan jenteak e, bildurragas, sorginak edo parte txarrekoak edo batek badaki nok urten deutsien bidera gaubean, eta olangoak. Fetxoriek egin be. Es ke orduan mundo guztia ebilen oinez,

toa emototzien oñeskoari, edosein sata san naiko buruko ulleak artestuteko.

eta gauak errespetoa emoten eutsien oinezkoari, edozein zarata zan naiko buruko uleak arteztuteko.

108.3. Anbotoko Señorea haitzik haitz.

Anbotoko Señorea entzun bai, entzun, ba, ibilte sala suten atxetik atxera, aspuntarik aspuntara, orti Supelegorreti Atxularko begie pasau te Lekandako atxeti Kubuluko atxera, Kubulu Lamindaoko atxa da, ta orti, Ilunbe atxeti atxik atx ibilte sala suten Anbotora. Orixe dauket lenaokoari entzunde.

Anbotoko Señorea entzun bai, entzun, ba, ibilten zala sutan aitzetik aitzera, aitz-puntarik aitz-puntara, ortik Supelegorretik Atxularko (Atxulo) begia pasatu eta Lekandako aitzetik Kubuluko aitzera, Kubulu Lamindaoko aitzza da, eta ortik, Ilunbe aitzetik aitzik aitz ibilten zala sutan Anbotora. Orixe daukat leenago koari entzunda.

108.4. Begizkoa jaio eta gero

Begizkoa iten sala entzunde dauket. Umea, yayo ta gero e, endredau ite sala, kanbiau ite sala umea. D'ordu en esaten aurela: "ume oneri baten batek e begizkoa in dotzo", ori entzunde dauket. Yayo ta gero kanbioa txarrera, igual e umea itzela ta kabiau. O sea ke, yayo ta gero be botatauren begizkoa d'umea endredau.

Begizkoa egiten zala entzunda daukat. Umea, jaio eta gero e, endredatu egiten zala, kanbiatu egiten zala umea. Eta orduan esaten eudela: "ume oneri baten batek e begizkoa egin deutso", ori entzunda daukat. Jaio eta gero kanbioa txarrera, igual e umea itzela eta kabiatu. O sea ke, jaio eta gero be botaten euden begizkoa eta umea endredatu.

108.5. Josafateko Landea

Josepeteko landea? Bai, ori entzunde bai bea non dauen bestait. Seoser txarra in ordu en sesaten dan badakit, auxe: "Josepeteko landan pagau beakosus gero emeko sorrak, emeko txarto inek". Ori bai, ori entzunde dauket. Estaki(t)k(g)ea.

Josepeteko(sic) (Josafat-eko) landea? Bai, ori entzunda bai baina non dagoan be ez dakit. Zeozer txarra egin orduan zer esaten dan badakit, auxe: "Josafat-eko landan pagatu bearko dozuz gero emeko zorrak, emeko txarto eginak". Ori bai, ori entzunda daukat. Ez dakit geiago.

108.6. Ogigaztaiari bildurra

Ogigastaiari bildurre amea. Ogi-gastaia(k)p(b)erenoa deko ta badéko e berenoa. Ogigastaia nik i il be in dot. An, Askaldean, gastaña andi bet ote san, da, gastañe denporan e gastañapean ogigastaia gastaña(k)tx(y)-aten, d'enuen yakin ser dan be e, da palu betegas il inauen. Bastante arin itauen bea nik arinao ta kuyau nauen askenean. Da, beitu, enauen yakin se bitxo dan be, d'ukutu be enautzen in. D'olan palutxu betegas bitartean goatute eroan nauen etxera, Ellakurire, da tia Jesusak esausten: “ser dakasu? Ori ogigastaia da, orre(k)-p(b)ereno andie deko, ene mutilek”.

Ogigaztaiari bildurra amea. Ogi-gaztaiak berenoa dauka eta badauka e berenoa. Ogigaztaia nik i il be egin dot. An, Askaldean, gaztaña andi bat egoten zan, eta, gaztaña denporan e gaztainapean ogigaztaia gaztañak jaten, eta ez neuan jakin zer dan be e, eta palu bategaz il egin neuan. Bastante arin egiten euan baina nik arinago eta kogidu neuan azkenean. Eta, begitu, ez neuan jakin ze bitxo dan be, eta ikutu be ez neuntsan egin. Eta olan palutxu bategaz bitartean goratuta eroan neuan etxera, Ellakurira, eta tia Jesusak esan eustan: “zer dakarzu? Ori ogigaztaia da, orrek bereno andia dauka, ene mutilak”.

108.7. Saiak, beleak eta ganadua

Ganadu bet il edo tragetan danean, lelengo belea yoaten da. Belea(k)-p(b)egiek atetotzos da gero yoakos saiek. Es i sen bajetan sairik i begiekas badao ganadue. Kabrunkuneagas-da tragau eskero, esaten daure estirela yoaten saiek egun betzuk pasau arte. Saiek kabrunkuneari-te igitri iten dotziela entzunde dekot.

Ganadu bat il edo tragetan danean, leenengo belea joaten da. Beleak begiak ateraten deutzaz eta gero joakoz saiak. Ez ei zan bajetan sairik i begiekaz badao ganadua. Karbunkoanagaz-eta tragatu ezkerro, esaten daude ez dirala joaten saiak egun batzuk pasatu arte. Saiak karbunkoanari-eta igarri egiten deutzia entzunda daukat.

108.8. San Juanak Ellakurin

San Juan besperan, suek, Ellakurin. Bea suek in orduko galtzupullakas e soloak (g)ustiek errekorridu da kantau:

“San Juan bagilean
denpora ederrean

San Juan bezperan, suak, Ellakurin. Baina suak egin orduko galtzupoilakaz e soloak guztiak errekorritu eta kantatu:

“San Juan bagilean
denpora ederrean

sapoak eta subeak erre
artoak eta gariak (g)orde”.

San Juan aratxa? Beti, lexarragas, kurtzea in, lorak imini, galburue-(k)p(b)e bai, d’ori sen inisituek eta yámoteko. Da, San Juan goxean ekarte san olan e idea ta bedar naste bat, moltzoa, d’itxi portalean, da sikiturduen gorde ite san. Da, entzunde be badekot, ortosik ibilte siala inñontzean osaunerako onen bat sala-ta.

sapoak eta sugeak erre
artoak eta gariak gorde”.

San Juan aretxa? Beti, leizarragas, kurtzea egin, lorak imini, galburuak be bai, eta ori zan inizituak-eta járamoteko. Eta, San Juan goizean ekarten zan olan e idea eta bedar naaste bat, moltzoa, eta itxi portalean, eta sikatu orduan gorde egiten zan. Eta, entzunda be badaukat, ortozik ibiltzen zirala inontzean osaunerako onen bat zala-eta.

108.9. Karobiak Lamindao aldean

Kárabiek emen serean bai, Lamindaon-edo daos d’ite san karea. Ikusi oin i Seanin, San Juston iten daure urtean baten orrik Ipiskikoak.

Len, an Olasabalen be ote san kárabie d’ikusite dekot selan ite san orduen be. Olasabal, Lamindaoti Dimera bidean, emeti Ílunbeti sartzean da Dimera d’or dao Olasabal d’an ikusite iten bai. An e beti, kontinualemente egoan karea iten, goiti arrie bota ta gero otea, basoko otea, egurre barik otea botatotzien, asko, d’atzera arrie, da gero atzera otea, da bean atera ta atera karea. Kárabien ondoan atxa dao. Da karea, soloatara, kortatara be bai, desinfetetako-ta sererako, etxesuritako-ta. Arrautzak karetan ikusite badekot, fresko-fresko kónserbetan dire, seguru. Or Onaidianean orduen ulloak aukiesan, errotan, da uden-edo estai(t)p(b)a, arrautzea eskatuten sanean, andik ateraten situsan kareatati, da fresko-fresko, da letxadean moduen inde.

Károbiak emen zerean bai, Lamindaon-edo dagoz eta egiten zan karea. Ikusi orain i Zeanurin, San Juston egiten daude urtean baten orreik Ipizkikoak.

Leen, an Olazabalen be egoten zan károbia eta ikusita daukat zelan egiten zan orduan be. Olazabal, Lamindaotik Dimara bidean, emetik Ílunbetik sartzean da Dimera eta or dago Olazabal eta an ikusita egiten bai. An e beti, kontinualemente egoan karea egiten, goitik arria bota eta gero otea, basoko otea, egurra barik otea botaten eutsien, asko, eta atzera arria, eta gero atzera otea, eta bean atera eta atera karea. Károbiaren ondoan aitzia dago. Eta karea, soloatara, kortatara be bai, desinfetetako-eta zererako, etxe-zuritako-eta. Arrautzak karetan ikusita badaukat, fresko-fresko kónserbetan dira, seguru. Or Onaidianean orduan olloak eukiezan, errotan, eta udan-edo ez dakit ba, arrautzea eskatuten zanean, andik ateraten zituezan kareatatik, eta fresko-fresko, eta letxadearen moduan eginda.

108.10. San Blas ermitako erromerian baltseo-dantza galarazo

San Blas Dime da, bueno, Dime ta Seani biek, erdie Dime t'erdie Seani. (Martin sartzen da) Linea bat (d)ao an arriekas. Ermiten atean paretan basara, olan, línea bat ikusten da bidean, bata da Seani ta bestea Dime.

(Fermin barriro) Ermitea Dime ta Seani, ta, etxea be bai, etxea be bisi-modu bikoa, erdie Dime t'erdie Seani. Erromerie be biek itauren, batean yantzan agarraue ta bestean txistue, soltue. Agarraue Dime partean da Seanin bestea, esaturen isten agarraue ta. Seanin, agarraue galasota egoan, d'ori ikusite be bai gero, guardasuble(k)p(b)e bai, edo, gaurdasublek alkateak agindute. Ostean, Seanin, nauri be pasau yat ori e, agu(a)sile etorri te séparau edo yantzea parau, yantzan ikusi askero agarrauen, parau, ixildu ite san musikea.

San Blas Dima da, bueno, Dima eta Zeanuri biak, erdia Dima eta erdia Zeanuri. (Martin sartzen da) Linea bat dago an arriekaz. Ermitearen atean paretan bazara, olan, línea bat ikusten da bidean, bata da Zeanuri eta bestea Dima.

(Fermin barriro) Ermitea Dima eta Zeanuri, eta, etxea be bai, etxea be bisi-modu bikoa, erdia Dima eta erdia Zeanuri. Erromeria be biak egiten euden, batean dantzan agarradua eta bestean txistua, soltua. Agarradua Dima partean eta Zeanurin bestea, ez euden itxiten agarradua eta. Zeanurin, agarradua galarazota egoan, eta ori ikusita be bai gero, guardiazipilak be bai, edo, gaurdiazibilak alkateak aginduta. Ostean, Zeanurin, neuri be pasatu jat ori e, aguzila etorri eta séparatu edo dantzea paratu, dantzan ikusi ezker agarraduan, paratu, isildu egiten zan musikea.

108.11. Semeak aita asilora

Ori kontu ori Txókori pasau yakon. Txomin Txokok, komento ondokoak, eroan i auen aite asilora, lepoan-edo. Da, asilora orduko yarri in i siren aitek déskantzau daien apur beten-edo, olango arri beten ganean, yarrite, d'esan i otzen aitek semeari: "ementxe déskantzau giñoan neure aitegas etorri nintzoanean be". Da, orduen semeak, artu te: "aite, goasen etxera". D'etxera ero(a)n i auen.

Ori kontu ori Txókori pasatu jakon. Txomin Txokok, komento ondokoak, eroan ei euan aita asilora, lepoan-edo. Eta, asilora orduko jarri egin ei ziran aitik déskantsatu dagian apur baten-edo, olango arri baten ganean, jarrita, eta esan ei eutsan aitik semeari: "ementxe déskantzatu ginoan(genduan) neure aitagaz etorri nintzoanean be". Eta, orduan semeak, artu eta: "aita, goazen etxera". Eta etxera eroan ei euan.

108-12. Garia Ellakurin

Garie Ellakurin? Bai gisona!

Garia Ellakurin? Bai gizona! Gari

Gari bearretarako, lelengo soloa makinetu de gero areakas a lurre yo iten gendun, pasada bat , makinetue yo apur bet selaitu te erein garie ta beste pasada bat areakas.

Gari-asie lelango uretan apartau, gero igotaurenak (galgarau txarrak) kendu, gero garau gustieri asufrea bota ta karea be bai. Karea da, ereikeran nondi sabisen ikusteko be bai, asufreak estai(t)p(b)a se itotzen, bea asufrea botaten yakon. Gero ereiteko asatzak ipinten gindusen, asatzak (g)altzuegas guk, sera, galtzu-eskutea erdibitu ta illadak-illadak ipini sololan, andi ereiteko. Garie erein de mokilek in orduen, tráparea pasada bat emon. Tráparea, area isite san, areak isite siren puntak olan aurrerantza, da tráparea(k)t(d)aukos atzerantza aginek, aik untzeak aurrerantza barik atzerantza, tráparea da ori, tráparea ixite san itzue kasi ganea, d'untzeak atzerantza, onango tablerruek, untzeak atzerantza da punte laburtxuek e, gari erneari kalterik in esiteko. Gero pasetan gindun, au, serak urten auen mokilek apurtako, txilindroiak eta gero orregas pasetan gindusen, bea lelangotan bestea, tráparea.

Garie ebagi, udan, juliorantza, eta yo arri ganean, eskus, tipi-tapa, tipi-tapa, joe! a san bearra! Garbitu makineagas, bea aurreti artzea, artzeagas. Gurean e Ellakurin bi egosan alangoak d'artzeagas axetara atera ta garbitu. Errotara guk ona Onaindianera. Kobrau amarreti bat, arto eta garie bardin. Artoa, a sera, labai-gerra, labasue in orduen, ogiek-eta atera ta artaburuek ara bota, arto barrie, ondio ondo sikitu barik kasi, te artagarauk sikitu edo kiskortu te

bearretarako, leenengo soloa makinatu eta gero areakaz a lurra jo egiten gendun, pasada bat, makinatua jo apur bat zelaitu eta erein garia eta beste pasada bat areakaz.

Gari-azia leenengo uretan apartatu, gero igoten eudenak (galgarau txarrak) kendu, gero garau guztieri azufrea bota eta karea be bai. Karea da, ereikeran nondik zabilzan ikusteko be bai, azufreak ez dakit ba zer egiten deusan, baina azufrea botaten jakon. Gero ereiteko azatzak ipinten genduzan, azatzak galtzuagaz guk, zera, galtzu-eskutea erdibitu eta illadak-illadak ipini sololan, andik ereiteko. Garia erein eta mokilak egin orduan, tráparea pasada bat emon. Tráparea, area izaten zan, areak izaten ziran puntak olan aurrerantz, eta tráparea daukaz atzerantz aginak, areik untzeak aurrerantz barik atzerantz, tráparea da ori, tráparea izaten zan itsua kasi ganea, eta untzeak atzerantz, onango tablerruak, untzeak atzerantz eta punta laburtxuak e, gari erneari kalterik egin ez egiteko. Gero pasetan gendun, au, zerak urten euan mokilak apurtako, txilindroiak eta gero orregaz pasetan genduzan, baina leenengotan bestea, tráparea.

Garia ebagi, udan, juliorantz, eta jo arri ganean, eskuz, tipi-tapa, tipi-tapa, joe! a zan bearra! Garbitu makineagas, baina aurretik artza, artzagaz. Gurean e Ellakurin bi egosan alangoak eta artzagaz aietara atera eta garbitu. Errotara guk ona Onaindiarenera. Kobratu amarretik bat, arto eta garia bardin. Artoa, a zera, labaigerra, labesua egin orduan, ogiak-eta atera eta artaburuak ara bota, arto barria, orandino ondo sikatu barik kasi, eta artagarauk sikatu edo kiskortu eta

gero errotan iyo talo sein morokilerako urun ohea da ta.

Gero ba, pasau te kontau be iten dire, serak, asarreak-eta errotariekas, bakisu, mendea kendukeran ba lartxu kendu edo, ta, ba, batzuk u musturtu iten siren errotariekas, musturraldiek pasetaudesan d'errotea kanbiau be bai iños. Garie gausandie san gure gaste denporan, oin etxera dakasku panaderuek, estosu entzun bosinea? Mari! Bean deku panaderue, banoa ogiten. (Fermin ogitan bajatu zan)

gero errotan eo talo zein morokilerako urun ohea da eta.

Gero ba, pasatu eta kontatu be egiten dira, zerak, aserreak-eta errotariekaz, badakizu, menda kendukeran ba lartxu kendu-edo, eta, ba, batzuk u musturtu egiten ziran errotariekaz, musturraldiak pasetan eudezan eta errotea kanbiatu be bai inoz. Garia gauza andia zan gure gazte denporan, orain etxera dakartzku panaderuak, ez dozu entzun bozinea? Mari! Bbean daukagu panaderua, banoa ogitan. (Fermin ogitan bajatu zan).

109.1. Mari Anbotokoa jaramoten saiak eta beleak Supelegorren

Mari Anbotokoa? Bai, entzunde dauket, pastoreak selan ikustauriesan txoriek Supelegor kobasuloaren atean eta iños sartu pastorean ba(t)p(b)arrure ta gero atzerantza es urtetearren- edo, saiek-edo átakauriela, ateetan pastorean bat, ori entzunde dauket. Txoriek sartzean siren Mari barruen saeola, atea yámotaurien beleak eta saiek. Egoten siren saiek eta beleak Supelegorreko ateatan Mari yámoten, da pastorean batek ikusi auen antza baten ba(t)p(b)arruen, Mari ixingo san, da sartu sen barrure d'esan konturetu urten bear sala arpegie emoten Mariri, lepos urten beasala. Ak pastoreak esauen urten lepos, eta orduen, saiek átakau in i aurien d'es-tait selan ákabau sen. Mari, neguen oten i sen Supelegorren, d'or esaten daurie Mari Atxularko begiti pasetan sala atxik atx ibilteko. Itxinen, Atxularko suloti, Kubulu, Lamindaoko atxera, d'andik Anbotora, gure aitek esan dotzun moduen, suten, garra dariola.

Mari Anbotokoa? Bai, entzunda daukat, pastoreak zelan ikusten eudiezan txoriak Supelegor koba-zuloaren atean eta inoz sartu pastoreren bat barrura eta gero atzerantz ez urtetearren- edo, saiak-edo átakatu eudiela, ateetan pastoreren bat, ori entzunda daukat. Txoriak sartzean ziran Mari barruan (z)egoala, atea jaramoten eudien beleak eta saiak. Egoten ziran saiak eta beleak Supelegorreko ateatan Mari jaramoten, eta pastoreren batek ikusi euan antza baten bat barruan, Mari izango zan, eta sartu zan barrura eta ez zan kontratu urten bear zala aurpegia emoten Mariri, lepoz urten bear zala. Ak pastoreak ez euan urten lepoz, eta orduan, saiak atakatu egin ei eudien eta ez dakit zelan akabatu zan. Mari, neguan egoten ei zan Supelegorren, eta or esaten daudie, Mari, Atxularko begitik pasetan zala aitzik aitz ibilteko. Itzinan, Atxularko zulotik, Kubulu, Lamindaoko aitzera, eta andik Anbotora, gure aitek esan deutzun moduan, sutan, garra dariola.

109.2. Aspezar koba-zuloko pastoreen potxingo-iturria

Itxinen dao troka bat eta olan leor bat, kobasulo bat, Aspezar ixenekoa, Supelegor eta Lexardi bitartean. Eta pastoreak eurek ure edateko araxe yoaten siren, kobasulora barrurre posue edo otxine aukin arren kanpoan. Aspezar suloak olan e entrada bat (d)eko barruen, orma bat arriskoa modukoa, arriek ipinite, arriekas inde, d'arrien alboatati sartzean sara barrure, da, bajetan da olan arri-losa bat erdi itxunde, d'a beti dao ixerditen, da bean deko, oin yausite dao e, posotxu bet, potxingo bat arriekas inde, da, andi potxingoti ateraturien edateko, ure edatekoa, bai, ure atxeti(k)t(d)ator, ixerditen dao, negarres beti a atxa, d'ara potxingora batzean da ixerdi gustie. D'ur ori garbi garbie da, d'orixe edaten daurie pastoreak, da kanpoko otxinekoa estaurie edaten pastoreak e, ganadue(k)p(b)ai. Aspezarko potxingora esin dires ganaduek sartu, orregaiti dao beti garbi ango ure. Itxinen posotxue(k)p(b)e badaos tapaute, arri kontranda badaos. Arriekas tapau iten ditues. Atxular aspian be badao potxingo bat tapaute, sera, ganaduek musturre-ta sartu estaien, bai aurek pastoreak uredateko, Aspezarko barruko ure edaten daurie, atxan ixerditi etorrie.

(Orain Fermin sartzen da) Potxingoa an Siriakon txabola ondoan be badao, Lekandan aspian. An dao manantial bat, iturrie tapaute, da otxine edo posue beragoan ganaduentzat, antxe, Lekandapean Viollaroko neberean aspian. An Atxikiturrin bean Itxinen, an dao, Atxikiturri landan iturri bet (d)ao,

Itzinan dago troka bat eta olan legor bat, koba-zulo bat, Aspezar izenekoa, Supelegor eta Lexardi bitartean. Eta pastoreak eurak ura edateko araxe joaten ziran, koba-zulora barrura pozua edo otsina euki(n) arren kanpoan. Aspezar zuloak olan e entrada bat dauka barruan, orma bat arrizkoa modukoa, arriak ipinita, arriekaz eginda, eta arrien alboetatik sartzean zara barrura, eta, bajetan da olan arri-losa bat erdi etxunda, eta a beti dago izerditan, eta beean dauka, orain jausita dago e, pozutxu bat, potxingo bat arriekaz eginda, eta, andik potxingotik ateraten eudien edateko, ura edatekoa, bai, ure aitzetik dator, izerditan dago, negarrez beti a aitzia, eta ara potxingora batzean da izerdi guztia. Eta ur ori garbi garbia da, eta orixe edaten daudie pastoreak, eta kanpoko otsinekoa ez daudie edaten pastoreak e, ganaduak bai. Aspezarko potxingora ezin dira ganaduak sartu, orregaitik dago beti garbi ango ura. Itzinan pozutxuak be badagoz tapatuta, arri kontran-eta, badagoz. Arriekaz tapatu egiten dituez. Atxular azpian be badago potxingo bat tapatuta, zera, ganaduak musturra-eta sartu ez dagien, bai eurak pastoreak ura edateko, Aspezarko barruko ura edaten daudie, aitzaren izerditik etorria.

(Orain Fermin sartzen da) Potxingoa an Ziriakoren txabola ondoan be badago, Lekandaren azpian. An dago manantial bat, iturria tapatuta, eta otsina edo pozua beeragoan ganaduentzat, antxe, Lekandapean Viollaroko neberearen azpian. An, Atxikiturrin beean Itzinan, an dago, Atxikiturri landan iturri bat dago, eta azpian dago landatxu bat

d'aspian dao landatxu bet Atxikiturripe, d'an be beste iturri bet (d)ao, d'a be tapaute oten da arriekas ganaduek sartu esiteko, da gu goasenean arriek altzau t'edaten du ango ur garbie.

(Martin barriro) Itxinen eta inguruetan, estaoela esaten deurie bea manantial asko dao, bea ganaduen potxingoak uren emoi e baño bera txugoan beti, ganaduegas nastu esiteko. Eske, ganaduek ure edan bai bea apatxa(k)p(b)e igual sartzean dotzus potxingoan da gero ure loitu te kontaminau be bai igual e. Se, ganadu betzuk apatxartekoa aukiten daure, apatxarteko gaixoa edo gatxa, apatxartea soldute, eta ure (e)dakeran euren apatxak potxingoan sartu eske-ro, ba, ure kontaminau, eta, pastoreak-eta ur kontaminau ori edan eske-ro, ba, aure(k)p(b)e gaixotu. Kontus ibili bea da iturri-potxingoatako urekas, espabere?

Nik Itxiner a bija asko iten dodas, ie aste gustietan, GPS ta gusti, da mapa bat iten nabil ordenadorean, topetan dodan gustie eskalan markaute. Erakutzi ingotzut. (Eta erakutsi egin eustan ordenagailuan egin da daukan eta egiten dabilen Itzinako datu-bilketa guztia. Lan ederra eta ineditoa)

109.3. Laminak eta sorginak Villaron

Lamiñak? Bai, ementxe bertan, errien, or Iturriondoko errekea eta Arrati-errekea bat iten diren lekuen, or mataderoa dao eta "Laminos" deko ixena, ortxe Arratiko errekea(k)t'(d)Upokoa(k)p(b)at iten dauren lekuek "Laminos" deko ixena

Atxikiturripe, eta an be beste iturri bat dago, eta a be tapatuta egoten da arriekaz ganaduak sartu ez egiteko, eta gu goazenean arriak altzatu eta edaten dogu ango ur garbia.

(Martin barriro) Itzinan eta inguruetan, ez dagoala esaten daudie baina manantial asko dago, baina ganaduen potxingoak uraren emoia baino beera txuagoan beti, ganaduagaz naastu ez egiteko. Eske, ganaduak ura edan bai baina apatxak be igual sartzean deusuz potxingoan eta gero ura loitu eta kontaminatu be bai igual e. Ze, ganadu batzuk apatx-artekoa eukiten daudie, apatx-arteko gaixoa edo gatxa, apatx-artea zolduta, eta ura edakeran euren apatxak potxingoan sartu ezke-ro, ba, ura kontaminatu, eta, pastoreak-eta ur kontaminatu ori edan ezke-ro, ba, eurak be gaixotu. Kontuz ibili bear da iturri-potxingoetako urekaz, ezpabere?

Nik Itzinar a bija (biaje) asko egiten dodaz, ia aste guztietan, GPS eta guzti, eta mapa bat egiten nabil ordenadorean, topetan dodan guztia eskalan markatuta. Erakutsi egingo deusut. (Eta erakutsi egin eustan ordenagailuan eginda daukan eta egiten dabilen Itzinako datu-bilketa guztia. Lan ederra eta ineditoa)

Laminak? Bai, ementxe bertan, errian, or Iturriondoko errekea eta Arrati-errekea bat egiten diran lekuan, or mataderoa dago eta "Laminos" dauka izena, ortxe Arratiko errekeak eta Upokoak bat egiten dauden lekuak "Laminos" dauka izena eta orren batetik

d'orren bateti etorriko da ixena, lamiñak ongo siren- edo

Oin, emen Lamindaon, santigitue itauren asko, santigitue t'olangoak iten situsenak (g)eyenak Lamindaokoak ixiten siren. (Fermin sartzen da orain) Nik ikusi ot ños iten santiigitue, olan, origo apur betegas untau, igurdi te bedar batzuk ipini t'erresau-edo be bai. (Martín barriro) Ori ser ori itaudienak, emen, Lamindaokoak sirean geyenak, d'orti etorriko da Lamindao ixena be.

etorriko da izena, laminak egongo ziran-edo.

Orain, emen Lamindaon, zaintiratua egiten euden asko, zaintiratua eta olan-goak egiten zituezanak geienak Lamindaokoak izaten ziran. (Fermin sartzen da orain) Nik ikusi dot inoz egiten zaintiratua, olan, orio apur bategaz untatu, igurdi eta bedar batzuk ipini eta errezatu-edo be bai. (Martín barriro) Ori zer ori egiten eudienak, emen, Lamindaokoak ziran geienak, eta ortik etorriko da Lamindao izena be.

109.4. San Juan bezpera gaua Gorbeiaiko kurtzean

Aitek lengo San Juanak kontautzuz bea oin kostunbrea kanbiau indentzat. Oin, San Juan bespera gaubean, libre onaskero, Gorbaieko kurtzera yoate nas beti. Ni yoate nas San Juan bespera gaubean lo iten. Lo kurtzepean bertan, saku betegas. Da, San Juan goxean eguskie urtetan ikusi, ñontza sapaldu apur bet, ortosik e, yantzi oñetakoak, atera argaski betzuk eta berantza. Jentea egoten da, bai. Iges nau bakarrik on nintzen bea oten da jentea bai, San Juan goxean asko. Da Gorbaieti lelengo eguskie ikusten da Anboto ganean, Ois parterantza, ori “ paso del diablo” esatotzien ganeti ikusten da eguskie Gorbaieko kurtzeti.

Aitak leengo San Juanak kontatu deusuz baina orain kostunbrea kanbiatu egin da niretzat. Orain, San Juan bezpera gauean, libre egon ezker, Gorbeiaiko kurtzera joaten naz beti. Ni joaten naz San Juan bezpera gauean lo egiten. Lo kurtzepean bertan, zaku bategaz. Eta, San Juan goizean eguzkia urtetan ikusi, inontza zapaldu apur bat, ortozik e, jantzi oinetakoak, atera argazki batzuk eta beerantz. Jentea egoten da, bai. laz neu bakarrik egon nintzan baina egoten da jentea bai, San Juan goizean asko. Eta Gorbeiatik leenengo eguzkia ikusten da Anboto ganean, Oiz parterantz, ori “*paso del diablo*” esaten deutsoen ganetik ikusten da eguzkia Gorbeiaiko kurtzetik.

109.5. “Bonba jausitako lekua” Itzina ondoan

Aite(k)t(d)aki ondo ori kontu ori. Esatauen, bigarren gerra mundiala ákabau sanean, Frantzietari éska-

Aitak daki ondo ori kontu ori. Esaten euan, bigarren gerra mundiala ákabatu zanean, Frantzietatik éskapetan

petan etorri sirela Alemanak d'abioien bat etorri sen kargaute bonbakas. Iru bonba edo bota situetan e, Gorbaien. D'esotzien emon permisirik erri ganetik orregas kargeagas ibilteko. Botaudesan espoletea kendute, yausi bai bea bonbak es auden errementau. Da botaudiesan parakaidasakas, da ba(t)tx(y)ausi sen emen Itxine barruen, da beste bat emen Pagomakurren Atxularren eskerretara ikusten dan suloan, sulotzarra ikusten da, kraterra, se etorri siren antza artifizieruek eta bertan errementaurien. Viturietari etorri sirean artilleruek eta errementaso iyotzien bertan. (Fermin sartzen da). Ori urrietan san, idebaten on gaintzesan gu errementauenean, a(k)p(b)onbeak, emen be lurre mobidu e. Beste bonba bat egoan as baten bitartean, askontratik sartute, Atxularreko begiti Oroskorantzago, onango tanborra ikuste san, erdie-edo, sati bet ikuste san, onan, metro bat et'erdie-do kanpoan, bestea sartute barrure, da parakaidasa albora yausite. Da beste ori, errementasotziena, an Pagomakurre ondoan, pagoa(k)p(b)e suster da gusti, aidean botata egosan. Siriakogas yoanintzen orduen a ikusten. Aterauen ke moltzo bat! Idebateari itxi es, bea, dardakeoa langoa sartu yakun ikusite bakarri(k)p(b)e a ke moltzoa!

(Martín barriro) Esan dotzuten moduen, orrek bonba sulo orrek, Atxularreko begien eskerretara daoan sulotzar edo krater andi orrek, "Bonbayausitakolekue" dauko gaur ixena. Antxe dao. Gurosunean lagundukotzut ikusten.

etorri zirala Alemanak eta abioiren bat etorri zan kargatuta bonbakaz. Iru bonba-edo bota zituezan e, Gorbeian. Eta ez eutsien emon permisirik erri ganetik orregaz kargeagaz ibilteko. Bota eudezan espoletea kenduta, jausi bai baina bonbak ez euden errementatu. Eta bota eudiezan parakaidasakaz, eta bat jausi zan emen Itzina barruan, eta beste bat emen Pagomakurren, Atxularren ezkerretara ikusten dan zuloan, zulotzarra ikusten da, kraterra, ze etorri ziran antza artifizieruak eta bertan errementatu eudien. Vitoriatik etorri ziran artilleruak eta errementazo egin eutsoen bertan. (Fermin sartzen da). Ori urrietan zan, idebaten on gintzazan gu errementatu euanean, ak bonbeak, emen be lurra mobidu e. Beste bonba bat egoan aitz baten bitartean, aitz-kontratik sartuta, Atxularreko begitik Orozkorantzago, onango tanborra ikusten zan, erdia-edo, zati bat ikusten zan, onan, metro bat eta erdie-edo kanpoan, bestea sartuta barrura, eta parakaidasa albora jausita. Eta beste ori, errementazo eutsoena, an Pagomakurre ondoan, pagoak be zuztar eta guzti, aidean botata egozan. Ziriakogaz joan nintzan orduan a ikusten. Atera euan ke moltso bat! Idebateari itxi ez baina, dardakeoa langoa sartu yakun ikusita bakarrik be a ke moltsoa!

(Martín barriro) Esan deutsudan moduan, orrek bonba-zulo orrek, Atxularreko begiaren ezkerretara dagoan zulotzar edo krater andi orrek, "Bonbayausitakolekua" (Bonba jausitako lekua) dauka gaur izena. Antxe dago. Gura dozunean lagunduko deutsut ikusten.

109.6. “Kaka Villaro” ezizenaren jatorriaz.

Gorbaialdeako errietan ie erri gustiek daukie ixen-burlea, suok Seberiookook “txubelaxuek”, Seani-koak “kokoak” eta guk Villarokook “kaka Villaro” entzun bear isiten du sarriten, oin gitxiao, bea len asko nire txiker denporan d’aitenean da, asko-sas geio.

Nondi datorkun ori? Ba, nire eretxien, sereti, Villaro erdel errie ixiteti. Villaro, billa bat (d)a, Villa de Haro, 1338an fundae eta bere munarriek ondo limitaute daos. Ingeruen daukus, Orosko, Seanui d’Artea, d’Artea parterantza dao Areatza balladea, tejerea on san lekurantza, d’ortik artu da gaurko isen barrie be, Areatza, bea ondiño Arrati t’inguruetan Villaro asko entzuten da, suk sau(k)p(b)e Villaro esaten dosu esta? Vituriegas be beste ainbeste pasetan da, gaur, Gasteis, bea len Viturie, da gaur be bai askok.

Da, ba, “kaka Villaro” ixen-burlea, nire eretxiti, sereti dator, ba, Villaro billa (villa) ixitera, erdeldunekas bete san aldi beten, nais eta gero apurka-apurka inguruetako euskaldun asko Villarora etorri bixiten, gure aitek-eta in auren moduen. Da, villarostarrak erdeldun fama aukiu beti. D’es orregaiti bakarrik ixen-burlea. Nire eretxien, Villaro fundaren Viturie t’Arratien arteko komertzioa indertuteko Barasarreko portuti, lenaoko kaltzadati. Da, ba, orrek komertzio orrek impuestuek ekarri ausen. Villarok inpuestue kobretauen kanpoko generoa Villarora ekarri eskero, ardaoa ta, da, klaro, Arratiko jentea kexas beti pagaubearragas d’igual orrexegaiti, antoju artu te bur-

Gorbaialdeako errietan ia erri guztiek daukie izen-burlea, zuok Zeberiookook “txubelaxuak”, Zeanurikoak “kokoak” eta guk Villarokook “kaka Villaro” entzun bear izaten dogu sarritan, orain gitxiago, baina leen asko nire txiker denporan eta aitarenean-eta, askozaz gei-ago.

Nondik datorkun ori? Ba, nire iritzian, zeretik, Villaro erdal erria izatetik. Villaro, billa (villa) bat da, Villa de Haro, 1338an fundatua eta bere munarriak ondo limitatuta dagoz. Inguruan daukaguz, Orozko, Zeanui eta Artea, eta Artea parterantz dago Areatza balladea, tejerea egon zan lekurantz, eta ortik artu da gaurko izen barria be, Areatza, baina oraindino Arratia eta inguruetan Villaro asko entzuten da, zuk zeuk be Villaro esaten dozu ezta? Vitoriagaz be beste ainbeste pasetan da, gaur, Gasteiz, baina leen Vitoria, eta gaur be bai askok.

Eta, ba, “kaka Villaro” izen-burlea, nire iritzitik, zeretik dator, ba, Villaro billa (villa) izatera, erdaldunekaz bete zan aldi baten, naiz eta gero apurka-apurka inguruetako euskaldun asko Villarora etorri biziten, gure aita-eta egin euden moduan. Eta, villaroztarrak erdaldun fama euki dogu beti. Eta ez orregaitik bakarrik izen-burlea. Nire iritzian, Villaro fundatu euden Vitoria eta Arratiaren arteko komertzioa indartuteko Barazarreko portutik, leenagoko kaltzadatik. Eta, ba, orrek komertzio orrek impuestuak ekarri euazan. Villarok inpuestua kobretan euan kanpoko generoa Villarora ekarri ezker, ardaoa-eta, eta, klaro, Arratiko jentea kexas beti pagatu bearragaz eta igual orrexegaitik, antoju

lea ipini. (Fermin sartzen da berbaz) D'au inpuestuena egie da gero e. Baten e, nauk ekarri nauen seoser Ellakurireko ta Villaroko aguasilek segidu in osten mojan komento ondoko subie pasau arte, se, derrigor pasau bear nauen Villaroti Ellakurire yoateko, bea, aguasile esan fietan da segidu in osten. Segaiti? Ba, merkantzie, Villaroti kanporako isin eskero, esaturen kobretan, bea, Villaro barruen itxi eskero, orduen bai. Osea ke, Villaron sartzean san kanpoko generoa kobrau itauren, sain Arteati sartu sain Seaniti. Oroskoti es egoan bildurrik, mendie da dana ta.

(Martin barrero) Ba, nik pentzetot orti datorrela "kaka Villaro" ixen-burlea. Gaur gitxigo entzuten da. Oin i, Villaro etxes bete da eta euskeldun asko etorri de Arratiti-te, da ganera oin eskolatan be euskerea ikisten da. A! ta ganera oin Areatza daukunes ixen barrie, ba Villaro gitxi(a)go entzun, d'ixen-burlea be gitxigo.

artu eta burlea ipini. (Fermin sartzen da berbaz) Eta au inpuestuarena egia da gero e. Baten e, neuk ekarri neuan zeozer Ellakurirako eta Villaroko aguazilak segidu egin eustan mojan komento ondoko zubia pasatu arte, ze, derrigor pasatu bear neuan Villarotik Ellakurira joateko, baina, aguazila ez zan fietan eta segidu egin eustan. Zergaitik? Ba, merkantzia, Villarotik kanporako izan ezkerro, ez euden kobretan, baina, Villaro barruan itxi ezkerro, orduan bai. Osea ke, Villaron sartzean zan kanpoko generoa kobratu egiten euden, zein Arteatik sartu zein Zeanuritik. Orozkotik ez egoan bildurrik, mendia da dana eta.

(Martin barrero) Ba, nik pentsetan dot ortik datorrela "kaka Villaro" izen-burlea. Gaur gitxiago entzuten da. Orain i, Villaro etxez bete da eta euskaldun asko etorri da Arratitik-eta, eta ganera orain eskolatan be euskerea ikasten da. A! eta ganera orain Areatza daukagunez izen barria, ba Villaro gitxiago entzun, eta izen-burlea be gitxiago.

110.1. Anbotoko Señorea Anboton eta Gorbeian hiru urtez

Anbotoko Señoreak iru urte iten ausen Anboton da beste iru Gorbaian. Bateti bestera suten pasetan sala d'askok ikusi be in auela pasetan, baie beti gaubes. Gorbaian oten sala kueba baten, Itzinan, Supelegorren. Da, Anbotoko kueban ote san iru urte da beste iru Gorbaieko Supelegorren. Da, Gorbaian itausen urteak, edur urteak sireala esatauden eta Anboton itausenak, ostera, axe urteak. Esan dotzutenes, lenao, askok ikusi be iten i auen suten, garretan yoaten bateti

Anbotoko Señoreak iru urte egiten euazan Anboton eta beste iru Gorbeian. Batetik bestera sutan pasetan zala eta askok ikusi be egin euala pasetan, baina beti gaez. Gorbeian egoten zala kueba baten, Itzinan, Supelegorren. Eta, Anbotoko kueban egoten zan iru urte eta beste iru Gorbeiaiko Supelegorren. Eta, Gorbeian egiten euazan urteak, edur urteak zirala esaten euden eta Anboton egiten euazanak, ostera, aize-urteak. Esan deutsudanez, leenago, askok ikusi be egiten ei euan sutan, garretan joaten bate-

bestera. Oin i estau iño(k)p(b)e ikusten.

tik bestera. Orain i ez dau inok be ikusten.

110.2. Jentilzubi-ko jentilak

Dimeko guretxeti ur-ur daos Axlora da Baltzolako kobasuloak, antxe aurrez aur. D'antxe daukosu Jentilzubi esatotzun beresko subie, atxeskoa, andie.

Lengo sarrak esatoskuen Yentilek ibili siala subiginen, subi ori ondo in gurean, baie, atan dabisela Dimeko eleaxo kanpaiotza entzun audiela eta Baltzolako kobasuloan barrure sartu siala d'ondiño an barruen daosela. Orregaitik-edo esatoskuen gure gurasoak es arrimetako gaubes kobasuloatara sein yentilek urten d'aberien in.

Dimako gure etxetik ur-ur dagoz Axlora eta Baltzolako koba-zuloak, antxe aurrez aur. Eta antxe daukazu Jentilzubi esaten deusagun berezko zubia, aitezkoa, andia.

Leengo zaarrak esaten euskuen jentilak ibili zirala zubiginen, zubi ori ondo egin guran, baina, artan dabilzala Dimako eleizako kanpaiotza entzun eudiela eta Baltzolako koba-zuloan barrura sartu zirala eta orandino an barruan dagozala. Orregaitik-edo esaten euskuen gure gurasoak ez arrimetako gauzez koba-zuloetara zein jentilak urten eta aberiaren bat egin.

110.3. Dimako kanpaia mundukorik onena

Esaten daure, ba, Dimeko eleaxo lengo kanpai nausie mundukorik onena sala, kalidade onekoa ta kanpaiotza be inon es lakoa atetauena. Es i egoan antzeko kanpairik mundu gustien segun esatauden lenaokoak.

D'orduen, enterau in siala-ta, Erromatik etorri i sirean kanpai ori erosteko asmoagaz. Da, kanpai nausi orregaiti, kanpaia bera bete urregorri agindu i otzien parrokoari. Baia kia. Eleaxo parrokoa esetzean. D'auxe erantzun i otzien Erromatik etorrikoari: " Urregorri gusti ori agindute be eskoas kanpai au saltzean, se au kanpai au Dimeko erriena da, d'errientzat ekarrie esin lei saldu esegaiti be, errien on bea dau, d'estao bentarik".

Esaten daude, ba, Dimako eleizako leengo kanpai nagusia mundukorik onena zala, kalidade onekoa eta kanpaiotza be inon ez lakoa ateraten euana. Ez ei egoan antzeko kanpairik mundu guztian segun esaten euden leenagokoak.

Eta orduan, enteratu egin zirala-eta, Erromatik etorri ei zirean kanpai ori erosteko asmoagaz. Eta, kanpai nagusi orregaitik, kanpaia bera bete urregorri agindu ei etsoen parrokoari. Baina kia. Eleizako parrokoa ezetzean. Eta auxe erantzun ei eutsien Erromatik etorritakoari: " Urregorri guzti ori aginduta be ez goaz kanpai au saltzean, ze au kanpai au Dimako erriarena da, eta erriarentzat ekarria ezin lei saldu ezergaitik be, errian egon bear dau, eta ez dago bentarik".

110.4. Dimako sugetzarra

Bein baten, Dimen, Makastui ausunan iru bet metro inguruko subetzar bat ikusi auden da bildurtu in sirean, sano bildurtu be. Da, ba, Seanin egoan Balentxo esatotzien abade famau bet, eta berari abisetea akordau yakien bendesiño ba(t)p(b)-otateko subetzar orreri. Balentxo etorri be in sen da jente asko batu sen bere inguruan. Balentxok o yantzi ausen elexako erropak eta bere orasiño-librue artute badiñotzo subetzar orreri: *“lurpean basaos estosu geao urtengo kanpora eta kanpoan basaos, etzara lotuko Txinako deabru-kobararteño”*. Danak lotu sirean ikeratuta eta milagrotzat artudien Balentxon bendisiñoa. D’ain isin sen benetako bendisiñoa, ba, ango andra batek, Filomenak, esan otzen:

- “Balentxo, beste bedinkasiño ba(t)p(b)ota leike beorrek arratoi, sube-txiki ta pisti gustientzako?” Eta Balentxok erantzun:
- Bendisiñoa gauze danentzat (d)a ona, baia su(k)t(d)iñosusenantzat onena sera: goatu te garbitu, tragau ikusi ala.

Agoa sabalik (g)eratu sirean danak, txiterdi bera be atera barik.

110.5. Kea galantagana joaten dona

An, gur(e) errien, Dimen, Durangokorta esaten yakon baserri bet (d)ao, mendi artean bakar bakarrik. D’an on sirean aldi beten neskato bi, aista(k)p(b)iek, isenes, bata Ermenejilda da bestea Sebastiana. D’astegun buru suri beten esan i otzien mutilen batek: “Datorren domekan Dimeti

Bein baten, Diman, Makastui auzunean iru bat metro inguruko sugetzar bat ikusi euden eta bildurtu egin ziran, sano bildurtu be. Eta, ba, Zeanurin egoan Balentxo esaten eutsoen abade famatu bat, eta berari abisetea akordatu jakien bendizino bat botateko sugetzar orreri. Balentxo etorri be egin zan eta jente asko batu zan bere inguruan. Balentxok o jantzi euazan eleizako erropak eta bere orazino-liburua artuta badinotso sugetzar orreri: *“lurpean bazagoz ez dozu geiago urtengo kanpora eta kanpoan bazagoz, ez zara lotuko Txinako deabru-kobararteino”*. Danak lotu ziran ikaratuta eta milagrotzat artu eudien Balentxoren bendizinoa. Eta ain izan zan benetako bendizinoa, ba, ango andra batek, Filomenak, esan eutsan:

- “Balentxo, beste bedeinkazino bat bota leike berorrek arratoi, sube-txiki eta pizti guztientzako?” Eta Balentxok erantzun:
 - Bendizinoa gauza danentzat da ona, baina zuk dinozuanantzat onena zera: goratu eta garbitu, tragatu ikusi aala.
- Aoa zabalik geratu ziran danak, txiterdi bera be atera barik.

ibiliko gosena mutil koadrilla bat orti sear suokas egun(e) emoteko”.

D’orduen, Ermenejilda beste aistea baño apur bet listagoa sana letxe, badoa ta badiñotzo Sebastianari: “I, domekan mutile(k)tx(y)-atosena gugana d’egur busti antzakas sue in bear yoaguk se alan, ke andie botako yona suek, eta nau parauko nona kean aldeti, d’esango yoat nau-rekitan: “Au dona au kea!”. Eta ik erantzungostena: “Kea galantagana yoaten dona”. D’atan ba.

Eldu yakien ba egun ori, da yoan be in yakiesan mutilok. In auden su ori, ketzue in be abar berde ta bustiekas. Esaneko moduen, Ermenejilda parau sen kean alderditi eta klaro, dana san kea, begietara itauen kea ta badiño Ermenejildak: “Au bai dona au kean lodie ta sarratue! Orretara badiñotzo Sebastianak: “Kea galantagana yoaten dona bete betean”. Eta Ermenejildak erantzun ba(t)p(b)e malesi barik: “Ni galanta nona ala?” D’Ermenejildak: “Ba, neskato, euk esan dostena orix(e) esateko d’orixe (e)san donat”. Olan-txe argitu sen Ermenejildan yakituri gustie. Bakisu ba, galanta isitea da bat eta isin gurea beste bat. Sintzoa ta naturala isitea onena, esteretxasu?

koadrilla bat ortik zear zuokaz eguna emoteko”.

Eta orduan, Ermenejilda beste aiz-tea baino apur bat listagoa zana letxe, badoa eta badinotso Sebastianari: “I, domekan mutilak jatozana gugana eta egur busti antzakaz sua egin bear jona-guk ze alan, ke andia botako jona suak, eta neu paratuko nona kearen aldetik, eta esango yoat neurekitan: “Au dona au kea!”. Eta ik erantzungo deustana: “Kea galantagana joaten dona”. Eta atan ba.

Eldu jakien ba egun ori, eta joan be egin jakiezan mutilok. Egin euden su ori, ketsua egin be abar berde eta bustiekaz. Esaneko moduan, Ermenejilda paratu zan kearen alderditik eta klaro, dana zan kea, begietara egiten euan kea eta badi-no Ermenejildak: “Au bai dona au kearen lodia eta zarratual! Orretara badinotso Sebastianak: “Kea galantagana joaten dona bete betean”. Eta Ermenejildak erantzun bat be malezia barik: “Ni galanta nona ala?” Eta Ermenejildak: “Ba, neskato, euk esan deustana orixe esateko eta orixe esan donat”. Olan-txe argitu zan Ermenejildaren jakituria guztia. Badakizu ba, galanta izatea da bat eta izan gurea beste bat. Zintzoa eta naturala izatea onena, ez deritzazu?

110.6. Anbotoko Señorea eta laminak Baltzolan

Baltzolako kobea emen Dimen dauku. Bertara bidean Gibiltar iseneko baserrie dao, da bera dala esaten da Arratiko etzalderik sarrena.

Baltzolako koba-suloan atzinean Jentil-subi dao, len be esan dotzut, eta kobaren barruti errekea pasetan da, ta entzutea, lamiñas beterik ote

Baltzolako kobea emen Diman daukagu. Bertara bidean Gibiltar izeneko baserria dago, eta bera dala esaten da Arratiko etzalderik zaarrena.

Baltzolako koba-zuloaren aitzinean Jentil-zubi dago, leen be esan deutzut, eta kobaren barrutik errekea pasetan da, eta entzutea, laminaz beterik egoten zala

sala errekori. Lamiñak a garrisgorea andraskoana aukien seguru, baie anak a patoan yasekoak, erparik erpara mintz edo asal da gustiskoak.

Anbotoko Señorea barris, Lamindaora etorten i sen. Baltzolati urrin barik, Petralandako landea dao d'atxine, akelarre eta antzeko funtziñoak iten audiesan orrik i parte txarrekoak antza.

Da baten, seguru, Anbotoko Señorea be garretan etorri i yakien Supelegorreti Petralandako Landara da sorginon yaie ospatuteko akarran bat arrapau auden gero bere inguruen iteko euren fetxoriok.

Anbotoko Señorea señe inde egoan, seguru, eta akelarre ostaien, sentzain egoan bitartean, beste gustiek erregaluek emoten i otziesan, seinde, seletin bete gastaña, otzara bete piper, san bete berakatz eta ganetikoak, erara aukena bakotxak.

Bein akelarre-funtziñoak akabau orduen, bakotxa bere lekuetara. Anbotoko Señorea d'alabea Supelegorrera, lamiñak Baltzolako kobasuloko errekarra da sorginek estai(t)p(b)a nora, ba, arenbatera.

Denporaren yoanean, galdus yoan san Petralandako usadio ori. Esatauren, Eibarko eskopetak esese, San Prantziskoko kanpaiotzakaiti be galdu siala lamiña d'Anbotoko Señorean kontuok.

Ni nau sarri onas Petralandan da Baltzolako kobasuloan d'ikusi estot in sekule es lamiñarik es Anbotoko Señorarik. Atxinekoak asmauko kntuek isingo yatzus, ser ba ostaintxean?

erreka ori. Laminak a garrizgorea andrazkoena eukien seguru, baina anak a patoaren jasekoak, erparik erpara mintz edo azal eta guttizkoak.

Anbotoko Señorea barriz, Lamindaora etorten ei zan. Baltzolatik urrin barik, Petralandako landea dago eta antxina, akelarre eta antzeko funtziñoak egiten eudiezan orreik i parte txarrekoak antza.

Eta baten, seguru, Anbotoko Señorea be garretan etorri ei jakien Supelegorretik Petralandako Landara eta sorginon jaia ospatuteko akarran bat arrapatu euden gero bere inguruan egiteko euren fetxoriok.

Anbotoko Señorea seina eginda egoan, seguru, eta akelarre ostean, sentzain egoan bitartean, beste guztiak erregaluak emoten ei eutsoezan, zeinda, zeletin bete gaztaña, otzara bete piper, zaran bete berakatz eta gainetikoak, erara eukana bakoitzak.

Bein akelarre-funtzinook akabatu orduan, bakoitza bere lekuetara. Anbotoko Señorea eta alabea Supelegorrera, laminak Baltzolako kobazuloko errekarra eta sorginak ez dakit ba nora, ba, arenbatera.

Denporaren joanean, galduz joan zan Petralandako usadio ori. Esaten euden, Eibarko eskopetak ezeze, San Frantziskoko kanpaiotsakitik be galdu zirala lamina eta Anbotoko Señorearen kontuok.

Ni neu sarri egon naz Petralandan eta Baltzolako kobazuloan eta ikusi ez dot egin sekula ez laminarik ez Anbotoko Señorarik. Antxinakoak asmaututako kntuak izango jatzuz, zer ba ostearantxean?

111.1. Arguiako Sagarduytar emaztearen sendiari eginiko bertsoak

BARRU BARRUTIK

Barru barrutik oraintxe noa
iru lau bertzo ateraten
neure fameli maite maiteak
sarritan ondo entzun daisen.

Sagardui danen fameli buru
dago gure ama Mari Antón
aibat urtean postasunean
bisi al yakune San Pedron.
Bere bisitzan es da tatxarik
naita munduan asko egon
larogei urte orain badaute
Gizotzoa? Bildurrelangoa emoten euan entzuteak bakarrik be bere izena. Zergaitik? Ba, aiko. Guk entzutea ba, Gizotzoa ortik Lamindanotik, or lese asko dago eta ortik etorten zala saltoka

tuke ona Iturtza ganeko Armolandire. Armolandi, altuen daoen atx andi bet (d)a. Bista ona dao bertati. Da, ba, Gizotzo orrek anka bakarra aukite oan eta bekokien begi bakarra, alosokoa, da sailtuke ibilte sala bate-ti bestera ankatzar orregas. D'or Armolandiko atxean sootz ite(n) oala tripea betetako.

Da entzutia e, baten, ba emen Atxerdi iseneko baserriko usandrea umeari bularra emoten, titie emoten, i egoan beti letxe, suitian, laratzuti eskegite maskilluen esnea egosten oan bitartean, bai, besuen esnea yamoten bidebates. D' atan egoala aupadak entzun oasan: "eee! *bayoatzu Gizotzoa, itxi Atxerdiko atea*". Baie arpelik. Ato baten bayatorko Gizotzoa suitera barrure ta, dranga-dranga maskilluko esne gustie edan ostean andreari bular biek arrankau otzesan da yan, d'eskapa oala sailtuke anka bakarragas. D'esatauden tripea bete orduen Armolandire yoate sala da kaka be andi bera itoala da gero Lamiñitigiteko ku(e)ban ostontan sala. Atxine bildurre selan eskauntzen eukiko ba, kendubakoa. Gaur arean bes.

ona Iturtza (Iturizaga) ganeko Armolandira. Armolandi, altuan dagoan aitz andi bat da. Bista ona dago bertatik. Eta, ba, Gizotso orrek anka bakarra eukiten euan eta bekokian begi bakarra, alozokoa, eta saltoka ibilten zala batetik bestera ankatzar orregaz. Eta or Armolandiko aitzean sorots egiten euala tripea betetako.

Eta entzutea e, baten, ba emen Atxerdi izeneko baserriko ugazabandrea umeari bularra emoten, titia emoten, ei egoan beti letxe, suetean, laratzutik eskegita maskeluan esnea egosten euan bitartean, bai, beesuan esnea jaramoten bidebatez. Eta atan egoala eupadak entzun euazan: "eee! *bajoatzu Gizotsoa, itxi Atxerdiko atea*". Baina alperrik. Ato baten bajatorko Gizotsoa suetera barrura eta, dranga-dranga maskeluko esne guztia edan ostean andreari bular biak arrankatu eutsazan eta jan, eta eskapatu euala saltoka anka bakarragas. Eta esaten euden tripea bete orduan Armolandira joaten zala eta kaka be andik beera egiten euala eta gero Laminategietako kueb-an ostontan zala. Antzina bildurra zelan ez geuntsan eukiko ba, kendubakoa. Gaur arean be ez.

115.1. Anbotoko Señorea Anbototik Atso-Aguretara joan-etorrian hama-bostero

Lenao, emen mutikotan, olgau ite soan ausunetan, kuadrillek-kuadrillek, eta gure amak a, bildurtuteko-edo, esate yoan ba Anbotoko Señorea beti sue dariola paseta sala, d'amabost egun iten yoasala Atzo-Aguretan, Itzineko Atzo-Aguretan, da gero, San Migeleko ermitia ortxe yak, San Migel de Urkiste, d'a(k)-

Leenago, emen mutikotan, olgatu egiten zoan auzunetan, kuadrillak-kuadrillak, eta gure amak a, bildurtuteko-edo, esaten joan ba Anbotoko Señorea beti sua dariola pasetan zala, eta amabost egun egiten joazala Atso-Aguretan, Itzinako Atso-Aguretan, eta gero, San Migeleko ermitea ortxe jagok, San Migel

tx(y)ekok olan a(i)ngeru moduko mutiko txiki beten moduko sulo bat atzekaldeti, laioa, burue mutiko baten formea, orman, d'ateti sartuten soala elixara barrure d'orti sulo edo laioti urtenda yoate soala Anbotora beste amabost egun pasetan. Da, klaro, guk u, lenao sinistu ite soan. Untxe be antxe yak suloa, laioa, d'ume baten formea yekek, d'andi paseta sala, ta, jode, elexara-ta yoaten gintzosanean, andixi paseta sala-ta, jente gustiek e, sera auki yauren, sartute buruen. Da, ba, Atzo-Agureak antxe yasak, Itzine barrenean, Oroskorantza, as punta bi. Da, ba, gure aite edo Juantxo anaie etorri te, bildurtuteko-edo: *“untxe pasau de urrean Anbotoko Señorea orti, mekaguen la ostra, sue dariola”*. D'andixi San Migelgo ermitako ateti sartu te andixi suloti, laioti urtete yoala amabostero Anbotoko Señorrek. Ori esate yoskuan bildurtuteko, naure eretxien e, mekaguen la ostra! Bildurre!

de Urkiste, eta ak jaukak olan aingeru moduko mutiko txiki baten moduko zulo bat atzekaldetik, leioa, burua mutiko baten formea, orman, eta atetik sartuten zoala eleizara barrura eta ortik zulo edo leiotik urtenda joaten zoala Anbotora beste amabost egun pasetan. Eta, klaro, guk u, leenago sinistu egiten zoan. Oraintxe be antxe jagok zuloa, leioa, eta ume baten formea jaukak, eta andik pasetan zala, eta, joder, elizara-eta joaten gintzoazanean, andixik pasetan zala-eta, gente guztiak e, zera euki jauden, sartuta buruan. Eta, ba, Atzo-Agureak antxe jagozak, Itzina barrenean, Orozkorantza, aitz punta bi. Eta, ba, gure aita edo Juantxo anaia etorri eta, bildurtuteko-edo: *“oraintxe pasatu da urrean Anbotoko Señorea ortik, mekaguen la ostra”, sua dariola*”. Eta andixik San Migelgo ermitako atetik sartu eta andixik zulotik, leiotik urtetan joala amabostero Anbotoko Señora orrek. Ori esaten jauskuan bildurtuteko, neure eritzian e, *“mekaguen la ostra”!* Bildurra!

115.2. Laminak Lamiñategietako kobazuloan (Uribe-Zeanuri)

Lamiñek e kueba baten ote soasan. D'ori kuebori emetixik, or yak e, yoan be in gintikosak ara gure bok, ementxe bertan, d'ixena, Lamiñategi(e)tako kueba. Da kontetan yoskuan gastetan-da, ba, Mendipe yak an andikalderdien, da Mendipen egoten soasan, naparrak, andalusek eta gure aite-ta be ikesginen. D'amak kontetan yauskuan e: *“aiteri atzo terriblea pasau yako. Ser? Da, Pedro Mari te biek etorri dire onantza ta lamiñek urten dotzie, d'aitek e yaurtin dotzie askorea ta lamiñeak asko-*

Laminak e kueba baten egoten zoazan. Eta ori kueba ori emetixik, or jagok e, joan be egin geintikozak ara gura badok, ementxe bertan, eta izena, Lamiñategietako kueba. Eta kontetan jauskuan gaztetan-eta, ba, Mendipe jagok an andikalderdian, eta Mendipen egoten zoazan, naparrak, andaluzak eta gure aita-eta be ikazginen. Eta amak kontetan jauskuan e: *“aitari atzo terriblea pasatu yako. Zer? Eta, Pedro Mari eta biak etorri dira onantza eta laminak urten deutsie, eta aitag e jaurtin deutsie aizkorea eta*

ra-kirtena ebagi in dotzo, erdibitu, seragas". Se guk pentzetan giñoan lamiña edo labaña d'ebagi in otzela askora-kirtena, mekaguen la ostral! Eske, sinistu iten giñoan. Oingo umeari ori kontaute, bueno, barre. Gero, mutikotan, yoate gintzoasan ara, Lamiñategietako kuebara, baia mutikotan e, atakara, barrure es, d'e-sate yoskuan: "esai yoan orra barrure, lamiñak urtengostia-ta". (sic) da gero aurekas eroan barrure or iten yaudiek lo be-ta".

lamineak aizkora-kirtena ebagi egin deutso, erdibitu, zeragaz". Ze guk pentzetan ginoan(genduan) laminea edo labainea eta ebagi egin eutsala aizkora-kirtena, mekaguen la ostral! Eske, sinistu egiten ginoan(genduan). Oraingo umeai ori kontatuta, bueno, barre. Gero, mutikotan, joaten gintzoazan ara, Lamiñategietako kuebara, baina mutikotan e, atakara, barrura ez, eta esaten jauskuan: "ez adi joan orra barrura, laminak urtengo deustia-eta". (sic) eta gero eurekaz eroan barrura or egiten jaudiek lo be-eta".

115.3. Gizotsoak Atxerdi-ko andreari maslekuko esnea edan eta bularrak kendu

Ik entzunde daukotzek estok ama gureari. Ba, gure amak-eta esate yaurian Gizotzoa Armolandin ote soala. Da, emen gureak esate yaurian Gizotzoak aukite yoala begi bet, serean, bekokien erdien, alosokoa, eta anka bat, anka bakarra, motza baie motza e, d'etorte soala sailtuke Lamindao aldeti-edo. Da, ortxe, Enrike Elexartzakoan etze ganean yaok Armolandi, armol andi bet. Armol'ok auxe gure suitian inguruko edo andigoa, armol bat, atxa-atxa, armola. D'Armolandi, d'ixena be Armolandi yekek e, d'antxe ote soala sotsz iten, sotsz esaten yuk, bijiletan Gizotz'ori. Andi urteta yoan orduen, ya, segurure yoate soan, baten baten serera ta. Ementxe, ortxe San Migelen yak etzea, an etzean, Urkisten, Aranguren ausuneko Atxerdi baserrie, ortxe San Migelgo elexean ondoan yak. D'or on soala andra bat umeari titi(e) emoten, ba suitian, da

Ik entzunda daukotsak ez dok ama gureari. Ba, gure amak-eta esaten jaudian Gizotzoa Armolandin egoten zoala. Eta, emen gureak esaten jaudian Gizotsoak eukiten joala begi bat, zerean, bekokiaren erdian, alozokoa, eta anka bat, anka bakarra, motza baina motza e, eta etorten zoala saltoka Lamindao aldetik-edo. Eta, ortxe, Enrike Elexartzakoaren etxe ganean jagok Armolandi, armol andi bat. Armola dok auxe gure suetearen inguruko edo andiagooa, armol bat, aitzaitza, armola. Eta Armolandi, eta izena be Armolandi jaukak e, eta antxe egoten zoala sorots egiten, sorots esaten joaguk, bijiletan Gizotso ori. Andik urtetan joan orduan, ya, segurura joaten zoan, baten baten zerera eta. Ementxe, ortxe San Migelen jagok etxea, an etxean, Urkisten, Aranguren auzuneko Atxerdi baserria, ortxe San Migelgo eleizearen ondoan jagok. Eta or egon zoala andra bat umeari titia emoten, ba suetearen, eta

maskillu bete esne egosten laratzuen. D'etorri soala Gisotzoa ta maskilluko esnea dana edan d'andreaki titi biek kendu, arrankau, da yoan, d'eskapau i oala. D'Armolandin, gu, domeka arrastietan-da, d'emeko jente sarra be, da inguruko gustie ikusten dok andi Armolanditi, seinde mirador bat (d)oken moduen. Da, esaerea jenteak an: "ementxe oten dok e Gisotzoa, da gero tripea bet'orduen, kaka be emetixi bera iten yok". Eta guk, mutikoak-eta estakik? D'orrek korritan isin yok olantxi. D'Armolanditi atzera yoate soala Lamiñategi(e)tako kueba da d'ostandu ite sala an Gisotzo ori. Armolanditi Lamiñategi(e)tako kueba, uñes e, amar minutu ordu lauren inguru, ementxe bertan yak ori. D'au kueba au, gu mutikotan asko yoate gintzosan, emeko jentea, baie berrogeta amabos bat urtetik berako jenteak e(s)tx(y)akiek e existitan bayo(k)p(b)e. Da nauri akordau yatan baten, ba, ori kueba ori, ba, sertu in beako yuk, yakitea sikan badaoela, se ostaintxean bertan bera, ba, ori ok o yakin es itea. D'esaten yaustian: "ori kueb'ori inori be esaiok esan, se jentea etorri ingok eta". Nik i, ba, yatorrela!

maskelu bete esne egosten laratzuan. Eta etorri zoala Gizotzoa eta maskeluko esnea dana edan eta andreaki titi biak kendu, arrankatu, eta joan, eta eskapatu ei euala. Eta Armolandin, gu, domeka arrastietan-eta, eta emeko jente zaarra be, eta inguruko guztia ikusten dok andik Armolanditik, zeinda mirador bat dokan moduan. Eta, esaerea jenteak an: "ementxe egoten dok e Gizotzoa, eta gero tripea bete orduan, kaka be emetixik beera egiten jok". Eta guk, mutikoak-eta ez dakik? Eta orrek korritan izan jok olantxik. Eta Armolanditik atzera joaten zoala Lamiñategi(e)tako kueba eta ostendu egiten zala an Gizotzo ori. Armolanditik Lamiñategi(e)tako kueba, oinez e, amar minutu ordu lauren inguru, ementxe bertan jagok ori. Eta au kueba au, gu mutikotan asko joaten gintzoazan, emeko jentea, baina berrogeta amabost bat urtetik beerako jenteak ez jakiek e existitan bajok be. Eta neuri akordatu jatan baten, ba, ori kueba ori, ba, zertu egin bearko joaguk, jakitea sik(i)eran badagoala, ze osterantzean bertan beera, ba, ori dok o yakin ez egitea. Eta esaten jaustian: "ori kueba ori inori be ez eiok esan, ze jentea etorri egingo dok eta". Nik i, ba, jatorrala!

115.4. Oiloari ipurdian gatza emon arrautza egiteko

Olloa, ik i jakingok. Lenao gure aitek-eta orduko denporatan ba basora yoan bear, ardietara, da maletarako arrautzarik es, d'amak: "ia, yoan sates arrautzari(k)p(b)adao". D'arrautzarik es. Da sera iten gauntzan, olloari arr(a)utzea iteko eperdien gatz apur bet, eperdien gatz

Olloa, ik i jakingo dok. Leenago gure aitek-eta orduko denporatan ba basora joan bear, ardietara, eta maletarako arrautzarik ez, eta amak: "ia, joan zaitetz arrautzarik badago". Eta arrautzarik ez. Eta zera egiten geuntsan, olloari arrautzea egiteko eperdien gatz apur bat, eperdien gatz apur bat botaten deusak

apur be(t)p(b)otatotzek eta entzegida iten yok arr(a)utzea, bai, gai gizona, ori egi'ok, ori untxe be bardin in leik i pruebea e. Lenao atzamarra sartzean yakoan olloari eperditi, da:

- Ene, punte punten dauko arrutzea.
- Ba, iosu gatz apur bat

Eta gatz in d'entzegida iten yoan gero olloak arr(a)utzea in be. Lenao olloak a galdu ite yasan basoan-da arrautzak.

Da, ba, gero, olloak arrautzak iteari itxi eskero, ba, il eta yan ullosaldea in de gero. Eta ollalumakas, finekas e, ba aurtikoa edo armudea iten soan oirako, uyaren alderik aldeko aurtikoa, gero asala ifinten yakoan, armudasala. B'orixe gatzagaz.

eta ensegida egiten jok arrautzea, bai, gai gizona, ori egia dok, ori oraintxe be bardin egin leik (leikek) i pruebea e. Leenago atzamarra sartzean jokoan olloari eperditik, eta:

- Ene, punta puntan dauka arrautzea.
- Ba, egiozu gatz apur bat

Eta gatz egin eta ensegida egiten joan gero olloak arrautzea egin be. Leenago olloak a galdu egiten joazan basoan-eta arrautzak.

Eta, ba, gero, olloak arrautzak egiteari itxi ezker, ba, il eta jan ullosaldea egin eta gero. Eta ollalumakaz, finekaz e, ba aurtikoa edo armudea egiten zoan oerako, oearen alderik aldeko aurtikoa, gero azala ipinten jokoan, armudazala. Ba orixe gatzagaz.

115.5. Gabon gaueko ogi bedeinkatua jan txakur amorratuaren erremedio legez

Bitiok. Entzunde yakat, sera, txakurrek e personean odola txupau edo aragie yan eskero, amurrutu iten dala. D'ori gaxo txarra ok eta orrexegaiti bakunau iten dosak txakurrek. Lenao, usadioa dok au, baie lenao Gabon gaubeko afariko lelengo ogi kuskurre, berinkitu te mantelpean gordetan soan txakur amurrutuen kontrako erremedio les. Gurean beste ganadu betzuri be emoten yakian umea yayo edo in de gero d'olan.

Begitu egiok. Entzunda jaukat, zera, txakurrak e pertsonaren odola txupatu edo aragia jan ezker, amorratu egiten dala. Eta ori gaixo txarra dok eta orrexegaitik bakunatu egiten dozak txakurrak. Leenago, usadioa dok au, baina leenago Gabon gaueko afariko leenengo ogi kuskurra, bedeinkatu eta mantelpean gordetan zoan txakur amorratuaren kontrako erremedio lez. Gurean beste ganadu batzuri be emoten jakian umea jaio edo egin eta gero eta olan.

115.6. Ahuntz-narrua eskegita kortan karbunkoaren kontrako erremedio lez

Gero, korta gustietan, bueno, gurean bai sikeran, auntzen narrue ote soan orman yosite edo solibati

Gero, korta guztietan, bueno, gurean bai sik(i)eran, auntzaren narrua egote zoan orman josita edo solibatik eskegita,

eskegite, akarrana-edo. D'ori isite soan kabrunkoatarako d'olango gaxoak artu es iteko. Ganaduentzako kabrunkunea gaixo txarra ok, la ostra. B'orixe, auzn-narrue eskegite kortan. Nau(k)p(b)e esotute yakat (g)ure kortan-da. Gaur estok ikusten olangorik. Gaur adelantu andie(k)-tx(y)asak.

akarrarena-edo. Eta ori izaten zoan karbunkoatarako eta olango gaixoak artu ez egiteko. Ganaduentzako karbunkoena gaixo txarra dok, la ostra. Ba orixe, auzn-narrua eskegita kortan. Neuk ez ezagututa jaukat gure kortan-eta. Gaur ez dok ikusten olangorik. Gaur adelantu andiak jagozak.

115.7. Guztiz hil baino lehenago entierria egiteko esan

Ba, emen, orko beko baserri beten pasau i soan au fetxori au

Nos e(s)tx(y)akiat e, baie aldi beten gripe txarren bat on soan, gripe asiatika-edo olango seoser. Da, ba, gaxo asko etzeatan da mediku ba(t)p(b)akarrik Seanui gustireko. Da klaro emen Seanuin ausune bateti bestera distantzi alosokoa yak eta mediakuek esin yoan abastorik emon, antza. Da, ba baten e, emen baserrien baten iru persona batera ilten gripe orregas, da, ba, abisau yaurian medikue baie beste puntati ona allegau orduko iruti bi il in soasen. Da, ba medikue be ia desesperaute-edo, esinean, d'esaiotzian: "Bueno ba, entierrie iosue batera bieri d'irugarren au be eroaisue aurekas se bigerko ilde dao, agonien dao ta".

Esaneko moduen in yaurian. Urrengo goxean iru kaja edo atauta batera. Da, ba, baten bat etorri i soan tranbien Sulaibarrera ta iru atautak ikusi orduen badiñotziek:

– Ikusteko be olangorik? Nortzuk il dosa(k)p(b)a?

– Ba, urlie, urlie ta urlie.

D'orduen atzenengo kajakoak tapeari gorantza inde badiñok:

Ba, emen, orko beeko baserri baten pasatu ei zoan au fetxoria au

Noz ez jakiat e, baina aldi baten gripe txarren bat egon zoan, gripe asiatika-edo olango zeozer. Eta, ba, gaixo asko etxeatan eta mediku bat bakarrik Zeanuri guztirako. Eta klaro emen Zeanurin auzune batetik bestera distantzia alozokoa jagok eta mediakuak ezin joan abastorik emon, antza. Eta, ba baten e, emen baserriren baten iru pertsona batera ilten gripe orregaz, eta, ba, abisatu jaudian medikua baina beste puntatik ona allegatu orduko irutik bi il egin zoazan. Eta, ba medikua be ia desesperatuta-edo, ezinean, eta esan ei eutsian: "Bueno ba, entierria egiozue batera bieri eta irugarren au be eroan egizue eurekaz ze biariko ilda dago, agonian dago-eta".

Esaneko moduan egin jaudian. Urrengo goizean iru kaja edo atauta batera. Eta, ba, bateren bat etorri ei zoan tranbian Zulaibarrera eta iru atautak ikusi orduan badiñotziek:

– Ikusteko be olangorik? Nortzuk il dozak ba?

– Ba, urlia, urlia eta urlia.

Eta orduan atzenengo kajakoak tapeari gorantza eginda badiñok:

- E! Ni ondiño bisiri(k)ñaok e!
- Isilik on ai- aspiko andari betek-, medikue(k)p(b)añño geio yakingok ala ik?

Je-je-je! Bueno, au kontau ite soan estok. Pasau gatxao. Baie i, esate yauriek e ilde gero ogeta lau ordu etxon bea dala enterretako ori ebite-tako, se ilde daoela pentzau arren egon es in leitikok. Lenao gaur beste yakin be e(s) soan iten da.

- E! Ni oraindino bizirik niagok e!
- Isilik egon adi- azpiko andari batek-, medikuak baino geiago jakingo dok ala ik?

Je-je-je! Bueno, au kontatu egiten zoan ez dok. Pasatu gatxago. Baina i, esaten jaudiek e ilda gero ogeita lau ordu etxodon (itxaron) bear dala enterretako ori ebite-tako, ze ilda dagoala pentsatu arren egon ez egin leitikek. Leenago gaur beste jakin be ez zoan egiten-eta.

115.8. Josafat-en Landako kontu-hartzeak

Josepeteko (sic) Landakoa? Bai, mutil, entzunde yakat. Or, orko beko baserrien baten il i soan etzeko gizona. Da, ba, gorpue yantziteko amalabok ebatziten. D'alabeak amari:

- Auxe traje au ifini beakotzu aiteri esta?
- Bai sera, ori traje ori es, in barri in barrie da ta, astegunetako arkondareagas be naikoa dau, total, lurperako. Ama, baie au arkondar(a) au lepoti tarratadeagas dao ba-ta
- Estotzo ardure, itxunde, atzekoa ikusi be esta iten.

Da, ba, atan. D'entieruko mesan abadea sermoia iten da badiñok: "Kristiñau maite maiteok: mundue itxite yoan yaku gure urlie. Baie es aistu gero e, Josepeteko Landan, aldean daro(a)gunegas agartuko gara kontu gustiek emoteko. Sintzo ibili, artes".

Abadean berbok entzun orduen, alabea artega, ta badiñotzek amari isilean:

- Ama, Josepeteko Landan aite tarratada ta gustiko arkondareagas agartuko da. Selango lotzea!

Josepeteko(sic) Josafat-eko Landakoa? Bai, mutil, entzunda jaukat. Or, orko beeko baserriren baten il ei zoan etzeko gizona. Eta, ba, gorpua jantziteko amalabok ebatziten. Eta alabeak amari:

- Auxe traje au ifini bearko deutsagu aitari ezta?
- Bai zera, ori traje ori ez, egin barri egin barria da-eta, astegunetako arkondaregaz be naikoa dau, total, lurperako. Ama, baina au arkondara au lepotik tarratadeagaz dago ba-eta
- Ez deutso ardura, itxunda, atzekoa ikusi be ez da egiten.

Da, ba, atan. Eta entieruko mezan abadea sermoia egiten eta badinok: "Kristinau maite maiteok: mundua itxita joan jaku gure urlia. Baina ez aaztu gero e, Josepeteko(sic) Josafat-eko Landan, aldean daroagunagaz agertuko gara kontu guztiak emoteko. Zintzo ibili, artez".

Abadean berbok entzun orduan, alabea artega, eta badinotsak amari isilean:

- Ama, Josepeteko(sic) Josafat-eko Landan aita tarratada eta guztiko arkondaregaz agertuko da. Zelango lotsa!

– Es arduretu- amak albotik- sure aite konponduko da orma bastarren bateri dotzela lepoa ifinite tarratadea iñok ikusi es iteko.

– Ez arduratu- amak albotik- zure aita konponduko da orma bazterren bateri deutsala lepoa ifinita tarratadea inok ikusi ez egiteko.

115.9. Ardi-arran motak eta ardi-auskularia

Emen Gorbeialdean klase askotako arrana(k)tx(y)asak ardienezako, seinde:

Bitartearranak: onik iminten dosak udabarrien, solorako-ta, eleganteak, sererako, barrutietarako.

Kinkillarranak: orrik ifintosak udegoiengan, da, ba, Gorbeien-da, ba, nondi dabisen jakiteko.

Asuriarranak: onik i txikerragoak, asuri gasteak, asuri gasteari ifinteko. Iru klase bai sikeran. Nau(k)-p(b)e aukin be bayakasat.

Eta gero beienak-eta aparte, seinde Bigarren klaseko arranak.

Gero beste ba(t)tx(y)ak, dunbia, bayakat emen nik ardiengan, d'ifinten jakok ardirik eleganteanari, dunbia, da, dok e ba, atentziñoa geituteko.

Gero ba ardiek leku bateti bestera eroateko-ta, ba txistu be iten yotzuk edo txakurre bota. Baie bayak beste modu esaun bet ardiek mogitako. Bitiok, auskularie esaten jakok orreri ardiari. Ondo elejidu beok, ardi ona, da, ba, ardi orreri eskuen arto, gari edo prentzu apur bet erakutzi te emoten jakok eta tapa-tapa etortok noberagana d'atzean beste ardi gustiek.

Lenao inportantzi andie aukiten yoan ardi auskulariek, se ostaintxean ardiek, emen bideak ote soasen estuek, estartak eta igual yoan bear isiten soan emen asi te Asterrire, ta, ba, ardiek gosea kendu be e(s)tx(y)-

Emen Gorbeialdean klase askotako arranak jagozak ardienezako, zeinda:

Bitartearranak: oneik iminten dozak udabarrian, solorako-eta, eleganteak, zererako, barrutietarako.

Kinkillarranak: orreik ifinten dozak udagoiengan, eta, ba, Gorbeian-eta, ba, nondi dabilzan jakiteko.

Azuriarranak: oneik i txikerragoak, azuri gazteak, azuri gazteari ifinteko. Iru klase bai sikieran. Neuk be eukin be bajaukazat.

Eta gero beienak-eta aparte, zeinda Bigarren klaseko arranak.

Gero beste bat jagok, dunbea, bajaukat emen nik ardiengan, eta ifinten jakok ardirik eleganteanari, dunbea, eta, dok e ba, atentziñoa deituteko.

Gero ba ardiak leku batetik bestera eroateko-eta, ba txistu be egiten jeutsaguk edo txakurra bota. Baina bajagok beste modu ezagun bat ardiak mogietako. Begitu egiok, auskularia esaten jakok orreri ardiari. Ondo elejidu bear dok, ardi ona, eta, ba, ardi orreri eskuan arto, gari edo prentsu(pentsu) apur bat erakutsi eta emoten jakok eta tapa-tapa etortzen dok norberagana eta atzean beste ardi guztiak.

Leenago inportantzia andia eukiten joan ardi auskulariak, ze osterantzean ardiak, emen bideak egoten zoazan estuak, estartak eta igual joan bear izaten zoan emen asi eta Asterrira, eta, ba,

uen iten, bidesiñurretati-te yoan bear isiten soan, se bide-estartak trongotan -da lupestute da bidesiñurerek(sic), lenao, bakik ser dan? Bidesiñurre dok estarteak alboan aukiten yoan bidia, estarta alboti ote soan bidia, idiek-eta estartati baia alboti norbera garbigio yoateko, d'orti ardiekas da kristolango serak ote soasan.

Ardiek esotu iten yok pastorea d'auskulari onak ardiek eroaten yosak formal-formal bere atzeti. Auskulari txarra(k)p(b)e otosak baia pastoreak ondo elejitan be bayakik. Auskularieri eskupekoa emoten yakoan, artagarau edo olango seoser, da, taka, etorten dok untxe be noberagana da besteak atzetik. Len guk ardi asko emen, gaur nik ogetamar inguru yakasat. An yasak antxe goien, Lekandapean da katalajuekas sosten yoasat. Laster, otzakas-da, etzera ekarriko yoasat, neguemoten, sikue yaten emoteko bitarteka.

ardiak gosea kendu be ez juen (jaudien) egiten, bide-zinorretatik-eta joan bear izaten zoan, ze bide-estartak trongotan-eta lupeztuta eta bidezinorrak, leenago, badakik zer dan? Bide-zinorra dok estarteak alboan eukiten joan bidea, estarta albotik egoten zoan bidea, idiak-eta estartatik baina albotik norbera garbiago joateko, eta ortik ardiekaz eta kristolango zerak egoten zoazan.

Ardiak ezagutu egiten jok pastorea eta auskulari onak ardiak eroaten jozak formal-formal bere atzetik. Auskulari txarrak be egoten dozak baina pastoreak ondo elegietan be bajakik. Auskulariari eskupekoa emoten jakoan, artagarau edo olango zeozer, eta, taka, etorten dok oraintxe be norberagana eta besteak atzetik. Leen guk ardi asko emen, gaur nik ogeitamar inguru jaukoazat. An jagozak antxe goian, Lekandapean eta katalajuekaz sorosten joazat. Laster, otzakaz-eta, etxera ekarriko joazat, negua emoten, sikua jaten emoteko bitarteka.

115.10. Esnea surtara jausi ezkerro gatza bota behiak lasiertuna hartu ez egiteko

Besuen, latzuen eskegi maskillue eta esnea egosi da ganas in eskero esate yauskuan beieri errapea lasiertunak artzeotzela, da gatza botate soan lenao surtera beiek lasiertuna artu es iteko. Lasiertuna dok, errapea gogortu beieri, mamitis edo ori. Da lasiertunagas beiek e(s)tx(y)o(k)p(b)-alio esnerako, errapea gogortu eskero esnerik e(s)tx(y)ok emoten, da, ba, gero saldu in bear okelarako-edo.

Beesuan, laratzuen eskegi maskelua eta esnea egosi eta ganaz egin ezkerro esaten jauskuan beieri errapea lasiertunak artzean eutsala, eta gatza botaten zoan leenago surtara beiak lasiertuna artu ez egiteko. Lasiertuna dok, errapea gogortu beieri, mamitis edo ori. Eta lasiertunagaz beiak ez jok balio esne(ta)rako, errapea gogortu ezkerro esnerik ez jok emoten, eta, ba, gero saldu egin bear okela(ta)rako-edo.

115.11. Ellakuriko txakurra Iturrizagara joan-etorrian

Ellakuriko txakurreri, gure amak esate yoan se pasau yakon. Ellakuri yak kamiñoan bestalderdien, Villaro ganean baie Seanui dok.

D'etorri soan ona gurera, guk sekorra aukiten giñoan, sementala, paradakoa, lenao, d'etorri soan Ellakurikoa beiegas sekorragera, sekortuten beie. Da klaro, d'Ellakuriko txakur ori atzean. D'emen gurean txakurre agi, agi, alta, da moxal be esaten yaudie(k)p(b)atzuk eta olan ba, sekorra bota ta yoan soan Ellakurikoa beiegas etzera. Baie, klaro, txakurre emen geldatu soan gure txakurre arratuteko gogoagas baie guk emen gure txakurregas umerik eskendunean gurisiten, ba, txakurre gorde iten giñoan arratu es iteko. Da Ellakuriko txakurreri pasau yakoan, etorri in soan ona d'e(s)tx(y)oan arratu gure txakurre, gordeta on soalako, da bere etzera yoan soanean angoa(k)p(b)e sisten topau yoasen da txakur emea be itxunde. D'esate yaurian, esakerea, Ellakuriko txakurrena pasau yakok: es an d'es emen.

Ellakuriko txakurrari, gure amak esaten joan zer pasatu jakon. Ellakuri jagok kaminoaren bestalderdian, Villaro ganean baina Zeanuri dok.

Eta etorri zoan ona gurera, guk zekorra eukiten ginoan (genduan), sementala, paradakoa, leenago, eta etorri zoan Ellakurikoa beiegas zekorragera, zekortuten beia. Eta klaro, eta Ellakuriko txakur ori atzean. Eta emen gurean txakurra agi, agi, alta, eta moxal be esaten jaudiek batzuk eta olan ba, zekorra bota eta joan zoan Ellakurikoa beiegas etxera. Baina, klaro, txakurra emen geldatu (geratu) zoan gure txakurra arratuteko gogoagaz baina guk emen gure txakurragaz umerik ez gendunean gura-izaten, ba, txakurra gorde egiten ginoan (genduan) arratu ez egiteko. Eta Ellakuriko txakurrari pasatu jakon, etorri egin zoan ona eta ez joan arratu gure txakurra, gordeta egon zoalako, eta bere etxera joan zoanean angoak be sisten topatu joazan eta txakur emea be etxunda. Eta esaten jaudian, esakerea, Ellakuriko txakurrena pasatu jakok: ez an eta ez emen.

115.12. Animalia bakoitzaren zelo edo araldi izenak

Ori baserriko edosinek esangusia. Bitiok. Animilien beroaldie-edo esateko bakotxa(k)p(b)erea yekek. Olan e bat esatekotan, ba, bero, bero dao edo bero dabil, esaten yuk, adrean kasuen be bai. Baie gaxan animili bakotxana esaten:

Txakurre: agi, agiri be esatok e baie guk emen agi, moxal be entzun yoat orti.

Ori baserriko edozeinek esango deustea. Begitu egiok. Animalien beroaldie-edo esateko bakoitzak berea jaukak. Olan e bat esatekotan, ba, bero, bero dago edo bero dabil, esaten joaguk, adrearen kasuan be bai. Baina goazan animalia bakoitzarena esaten:

Txakurra: agi, agiri be esaten dok e baina guk emen agi, moxal be entzun joat ortik.

Astoa: alta
 Ardia: arkerera
 Auntze: auskera
 Txarria: irusi
 Beie: susera
 Katue: alta

Bai, gisona, olantxi dosak orrin isenak. Emen gure etzean sekorra auki giñoan, paradako sekorra, sementala, da, ba, dirutxue atetan giñoan an or emendi bei suserak ekarte yoskuazan sekorra botateko d'ori kobrau ite soan onenbesteko bat, bakik, sekorra mantenidu be in beasoan-da indertzu oteko lelengoaan ernarituteko bei suserea.

Astoa: alta
 Ardia: arkerera
 Auntza: azkera
 Txarria: irausi
 Beia: susara
 Katua: alta

Bai, gizona, olantxik dozak orrean izenak. Emen gure etxean zekorra euki ginoan (genduan), paradako zekorra, sementala, eta, ba, dirutxua ateraten ginoan (genduan) an or emendik bei susarak ekarten jauskuazan zekorra botateko eta ori kobratu egiten zolan onen-besteko bat, badakik, zekorra mantenidu be egin bear zolan-eta indartsu egoteko leenengoaan ernarituteko bei susara.

115.13. Dantzan, baltseoa galarazo San Lontzoatan Zeanurin

Aiko, ementxe, San Lontzo yak or, nau(k)tx(y)aukat esotute, nauk e. Óromiño, Óromiño trikitalarie emen ote soan, sartxo bat, Óromiño iseneko. Da, Salontzon ba lenao beti, Fasio(k)p(b)e esate oala, baltzeoa gure baie baltzeoa galasota, proibidute ote soan, onik abadeok-eta. Da, ba, sera, Juanpe, propitario, il soan e, da soloa auki yoan ermit'ondoan, dotzela, d'esate yoan:

– Abade orrek proibidu bayok etorri gaure solora baltzeoa yantzan.

Da, ba alantxe in baltzeoa Juanpen soloan d'iñok esin galaso.

D'emen gurean be, erromerie ite soan San Migeletan. Igual e aun lagun neska ta mutil. Da Pedro Mari gure anayak Seberio Maturana soñularie ekarte yoan da gau gustien erromerie. Da batzuk u or kanpoko artotzati-te soñue entzuten ostandute.

Aiko, ementxe, San Lontzo jagok or, neuk jaukat ezagututa, neuk e. Óromiño, Óromiño trikitalaria emen egoten zolan, zaartxo bat, Óromiño izeneko. Eta, San Lontzon ba leenago beti, Fasiok be esaten euala, baltseoa gura baina baltseoa galarazota, proibiduta egoten zolan, oneik abadeok-eta. Eta, ba, zera, Juanpe, propitario, il zolan e, eta soloa euki joan ermita ondoan, deutsal, eta esaten joan: – Abade orrek proibidu bajok etorri geure solora baltseoa dantzan.

Eta, ba alantxe egin baltzeoa Juanperen soloan eta inok ezin galarazo.

Eta emen gurean be, erromeria egiten zolan San Migeletan. Igual e eun lagun neska eta mutil. Eta Pedro Mari gure anaiak Zeberio Maturana soñularia ekarten joan eta gau guztian erromeria. Eta batzuk u or kanpoko artotzati-eta soñua entzuten ostonduta.

Da, ba, gero, gure aiteri geituten yotzan aintamintuti alkateak urrun-go egunean edo bigarreanean-edo, ba, kontuek artezako baie etze barruen isiten soan erromerie ta iñok esin galaso. Eske, norbere propiedadean usabak agintan yok, seinde etzean, soloan edo danadalakoan. I au be etorte intzen gurera konbidedu San Migeletan, akordauko as estok? Urtea(k)t(d)osak e? B'ementxe bisi nok eta auk (g)urokenean etorri, ondo artue isingo as-da, aspaldiko Juan Manuel.

116.1. Hiru ahodun txahala jaio Zeberion

Emen Seberioako elbarrenen, txarto aitute espanao, or Untzetabeperantz, Torreko esatotzien etzaldean, iru agoko txal ba(t)tx(y)aio san nire gaste denporan, iru agokoa e,da, ba, etzeakoak esekien ser in beragas. Ganaduen ermandarako be txarto se bisirik egoan txala, galdue isin basan abonaukotzien baie. Da, ba ausoa(k)p(b)e enterau sirean d'ikus-ten yoan be bai. Danak ikeratute, olangorik, iru ago txal batek! Esnea be emototzien baie ago bateti sartu te beste bietatik urten. D'orduén batzuri akordau yakien usabari txal ori erosteá estait i seinbet ogorlekotan, baie sano merke isin bear auen, se total tragau inik egoan esnea artu esinde.

Da erosi audenok, se in audien? B'alboetako ago txikien biek tapau d'andieneti emon esnea, da, oño, iruntzi esnea da txala biskortu, medretan asi yakien.

Andik aurrera, sera pentzau- dien, txal orregas esibisiñoak itea

Eta, ba, gero, gure aitari deituten jautsan ayuntamientutik alkateak urrun-go egunean edo bigarreanean-edo, ba, kontuak artezako baina etxe barruan izaten zoan erromeria eta inok ezin galaz-razo. Eske, norbere propiedadean ugazabak agintan jok, zeinda etxean, soloan edo danadalakoan. I eu be etorten intzan gurera konbidadu San Migeletan, akordatuko az eztok? Urteak dozak e? Ba ementxe bizi nok eta euk gura dokanean etorri, ondo artua izango az-eta, aspaldiko Juan Manuel.

Emen Zeberioako elbarrenen, txarto adituta ez banago, or Untetabeperantz, Torreko esaten deutsoen etzaldean, iru aoko txal bat jaio zan nire gazte denporan, iru aokoa e, eta, ba, etxeakoak ez ekien zer egin beragaz. Ganaduen ermandarako be txarto ze bizirik egoan txala, galdue izan bazan abonatu-ko eutsien baina. Eta, ba auzoak be enteratu ziran eta ikusten joan be bai. Danak ikaratuta, olangorik, iru ao txal batek! Esnea be emoten etsoen baina ao bate- tik sartu eta beste bietatik urten. Eta orduan batzuri akordatu jakien ugazabari txal ori erosteá ez dakit i zeinbat ogerlekotan, baina sano merke izan bear euan, ze total tragatu eginik egoan esnea artu ezinda.

Eta erosi eudenok, zer egin eudien? Ba alboetako ao txikien biak tapatu eta andienetik emon esnea, eta, oño, iruntzi esnea eta txala biskortu, medretan asi jakien.

Andik aurrera, zera pentzatu eu- dien, txal orregaz exhibiziñoak egitea

Seberion bertan asite. Estakit i seinbet lekutera eroan audin txal ori, baie, Santa Kurtzekoa akordu akorduen daukok. Suk seu(k)p(b)e bai? Ai la letxe, ba gastetxue isingo sain-tzen ba. Ba Santa Kurtzetan olesko ser bat, txabolatxu bet in otzien d'an barruen erakutzi entradea kobraute, klaro. Santa Kurtzeraño gemesa baten eroan audin buruen saku bet sartute sein baten batzuk balkoi edo bentanetatik ikusi. Es auden gure, antza, pagau barik iñok ikusterik.

O sea ke su seu be egon sintzen tia Josefinan etzeko balkoian lengusuekas txala ikusteko ditean esta? Baie esin saindun ikusi se txal ori buruen sakue dala eroaudien-da beren beregi, iñok ikusi esiteko. Gero bai, Santa Kurtzen, an Txominen etze aurrean aukien txal ori olesko txabolatxuen eta an bai, an ikusi gaindu bai pagaute. Seu(k)p(b)e bai orduen esta?

Estakiu seinbet (d)iru atarako audin, baie entzunde dauket saldu otzien usaba es egoala ondo eretxite se berari miseri bet pagau d'aurek askos geao iripasi. Bueno, gero entzun naindun tragau-edo in yakiela txal ori. Baie, benetan be, a iru agoko txala ikustekoa isin sen gero isin be e! Naturaleseak selango gausak esta? Ba, hau egie da gero e. Bueno suk sau(k)p(b)e badakisu, ikusi in saindun-da. Testigu oberik?

Zeberion bertan asita. Ez dakit i zeinbat lekutara eroan eudien txaal ori, baina, Santa Kurtzekoa akordu akorduan daukak. Zuk zeuk be bai? Ai la letxe, ba gazetxua izango zintzan ba. Ba Santa Kurtzetan oolezko zer bat, txabolatxu bat egin eutsoen eta an barruan erakut-si entradea kobratuta, klaro. Santa Kurtzeraino gemeze (GMC kamioi mota bat) baten eroan eudien buruan zaku bat sartuta zein baten batzuk balkoi edo bentanetatik ikusi. Ez euden gura, antza, pagatu barik inok ikusterik.

O sea ke zu zeu be egon zintzan tia Josefinaren etzeko balkoian leengusuek-az txaala ikusteko ditean ezta? Baina ezin zendun ikusi ze txaal ori buruan zakua dala eroan eudien-eta beren beregi, inok ikusi ez egiteko. Gero bai, Santa Kurtzen, an Txominen etxe aurrean eukien txaal ori oolezko txabolatxuan eta an bai, an ikusi gendun baina pagatu-ta. Zeuk be bai orduan ezta?

Ez dakigu zeinbat diru atarako eudien, baina entzunda daukat saldu eut-sien ugazaba ez egoala ondo eretxita ze berari miseria bat pagatu eta eurak askoz geiago irabazi. Bueno, gero entzun nen-dun (neuan) tragatu-edo egin jakiela txaal ori. Baina, benetan be, a iru aoko txaala ikustekoa izan zan gero izan be e! Naturalezeak zelango gauzak ezta? Ba, au egia da gero e. Bueno zuk zeuk be bada-kizu, ikusi egin zendun-eta. Testigu oberik?

117.1. Orbelak airez aire abestian Mari Birjina orrazten Aldamin-errekan.

(Orbelak airez aire)

1
Orbela kaibes kaibes(sic)
ipestxo (sic)dultzia

(Orbelak airez aire)

1
Orbelak airez airez
ipartxo dultzia

Aldamin ederreti
dator errekia.

2

Antxe topa(d)u neban
Mari Birjiñia
egoala orrastute
buruko ullia.

3

A etzan ullia
espasan urria
ullondo baktxeti
dariyon perlia.

Aldamin ederretik
dator errekia.

2

Antxe topa(d)u neban
Mari Birjina
egoala orraztuta
buruko ulia.

3

A ez zan ulia
ezbazan urria
ul(e)ondo baktxetik
darion perlia.

(Ume kanta bat)

Obabatxue txingorin gotxo
es egin lori(k)p(b)asoan
asegarie(k)tx(y)an es seiesan
olloa sarialakuan.

(Ume kanta bat)

Obabatxua txingorin gotxo
ez egin lorik basoan
azegariak jan ez zagiezan
olloa zarealakoan.

118.1. Zeanuriko Uribeko Diputazio-eskola barriari bertsoak

1

Esplikatzera noa
lendabisikua
naure begien aurrean
ikusitakua
eskola bat in degu
oingo usukua
Diputazio jaunari
enkargatukua.

2

Andra Mari egunian
inagurariyua
diputadu d'alkate
egin konsillua
San Migelgo ermitan
errosariyua
d'andik atera gendun
ki(sic) prososiñua.

1

Esplikatzera noa
lendabizikua
neure begien aurrean
ikusitakua
eskola bat ein degu
oingo usukua
Diputazio jaunari
enkargatukua.

2

Andra Mari egunean
inagurariyua
diputadu t'alkate
egin konsillua
San Migelgo ermitan
errosariyua
d'andik atera gendun
ki(sic) prozesinua.

3
OHARRA: bertso hau es da
ulertzen

4
Ausotako jentea
alkar erratuta
balkoi eta bentanak
jantzis estalduta
eskola umia(k)p (b)arris
ondo apainduta
eskola inguruak
jentes betetuta.

5
Ori san ikusia
baserri batian
jentea kolokau esin
etxe bitartian
sinistu esin leike
ikusi artian
akordu bat in degu
gure Kofradian.

6
Pasadisu barriak
egin deigus(sic) aurten
ederragorik iñon
egingo es suten
orain berraun urte
ikusi basuten
juisioko egune sala
pentzatuko suten.

3
OHARRA: bertso hau es da
ulertzen

4
Auzotako jentea
alkar erratuta
balkoi eta bentanak
jantziz estalduta
eskola umia(k)p (b)arriz
ondo apainduta
eskola inguruak
jentez betetuta

5
Ori zan ikusia
baserri batian
jentea kolokau ezin
etxe bitartian
sinistu ezin leike
ikusi artian
akordu bat ein degu
gure Kofradian.

6
Pasadizu barriak
egin deiguz aurten
ederragorik inon
egingo ez zuten
orain berreun urte
ikusi bazuten
juizioko eguna zala
pentsatuko zuten.

119.1. Gauargi bildurgarria agertu Orozkoko Gallartu-ra bidean gauez

Au nauri pasau yatan gau beten
Oroskoko Iberreti Gallature noala
gaubes. Bildurrelangoa pasau nauen
Gauargi ikusi nauenean. La letxe!

Ba, beitu. Oroskoko Iberreti
gora joan nintzen gau beten da, ba,
Gallature allegau baño lentxuago,
Gauargi barruntau nauen ondoan,

Au neuri pasatu jatan gau baten
Oroskoko Ibarretik Gallatura noala
gauez. Bildurrangoa pasatu neuan
Gauargi ikusi neuean. La letxe!

Ba, begiratu. Oroskoko Ibarretik
gora joan nintzan gau baten eta, ba,
Gallatura allegatu baino leentxuago,
Gauargi barruntatu neuan ondoan,

bidertzeko pago baten, geldi, erre-dondo-erredondoa san da kolorea kanbiau iten yakon batzutan gorris-kea da besto batzutan asulerantza. Pago-errama artean katigitute les egoan, geldi-geldi. Sustau in nintzen da galapan asi t'etzera joan nintzen bildurkilik. Amari kontau nautzen d'esaosten ba se:

- Gauargi ikusi osule? Ba,segaitio jo estosu in palu betegas?
- Palu betegas jo? Bai sera! Etzera artes badaespada. Paluigas jota bere, estakit se pasauko san. Gausonik es.
- Ba, bai- amak-, ondo in dosu se sárrari bere entzunde nao Gauargi orren kontue ta danak isin dotzei bildurre. D'ori geldi on dala diñosu, baie, or Itzinen, Atzo-Agurea(k)t(d)aosan lekuin, or bere agartute i sirean Gauargi biribilok eta ganera mobidu iten sirean Gauargiok, euren kolore eta gusti, da kanbiau bere euren kolorea, gorriti asulera. Bai, bildur andie isiten gauntzen d'errespetoa sartzean auden orrik argiok (g)autu orduin. Emeti Gallartuti aurreaur ikustei-re Atzo-Agureak.

B'orixe in naindun, Gauargi paluigas atakau bearrean, etzera joan karran se paluigas jo banauen no(k)tx(j)akin se pasauko yatan. Gauargik atakau bere igual eta gero ser? Bueno, gaur estot sinisten olango kontuitan, baie lenao dana san oñes, da, oño, gauberi errespetoa e! Bildurre isingo san esta?

bidertzeko pago baten, geldi, erre-dondo-erredondoa zan eta kolorea kanbiatu egiten jakon batzuetan gorrizkea eta beste batzuetan azulerantz. Pago-errama artean katigatuta lez egoan, geldi-geldi. Sustatu egin nintzan eta galapan asi eta etxera joan nintzan bildurkilik. Amari kontatu neutsan eta esan eustan ba ze:

- Gauargi ikusi dozula? Ba, zergaitino jo ez dozu egin palu bategaz?
- Palu bategaz jo? Bai zera! Etxera artez badaezpada. Paluagaz jota bere, ez dakit zer pasatuko zan. Gauza onik ez.
- Ba, bai- amak-, ondo egin dozu ze zaarrari bere entzunda nago Gauargi orren kontua eta danak izan deutsie bildurra. Eta ori geldi egon dala dinozu, baina, or Itzinan, Atso-Agureak dagozan lekuan, or bere agertuten ei ziran Gauargi biribilok eta ganera mobidu egiten ziran Gauargiok, euren kolore eta guzti, eta kanbiatu bere euren kolorea, gorritik azulera. Bai, bildur andia izaten geuntsan eta errespetoa sartzean euden orreik argiok gautu orduan. Emetik Gallartutik aurrez aur ikusten dira Atso-Agureak.

Ba orixe egin nendun, Gauargi paluagaz atakatu bearrean, etxera joan karran ze paluagaz jo baneuan nok jakin zer pasatuko jatan. Gauargik atakatu bere igual eta gero zer? Bueno, gaur ez dot sinisten olango kontuetan, baina leenago dana zan oinez, eta, oño, gauari errespetoa e! Bildurra izango zan ezta?

120.1. Aibelabe gaineko gauerdiko argi azul indartsua: intzentsoa

Aibelabekoa? Bai gixona. Txikiten, Elexartzan bisi gintzoase-

Aibelabekoa? Bai gizona. Txikitan, Elexartzan bizi gintzoazanean, gure

nean, gure amak-eta kontetan yauskuan Aibelabeko argi asul indertzua-ren kontue.

Aibelabe, Seberio r'Oroskon linderoan yaok. Atx ilune dok eta kontrasolean geao.

Esaten yauskuan an e Aibelabeko atxan tontorrean, busoia yaoan lekuen, antxe agartuten soala ikera-garrisiko argi asul potentea, asul asule e, gauberdiko amabi amabietan. Ixena be imini yautzian areri argi asuleri, sera: **intzentzoa**. Esin doat esan urteko se tertzio isiten soan, se esoan urte gustien agartuten, ile batzuetan bakarrik.

E(s)tx(y)akiat se isingo soan baie gure sarrak ondo bildurtute ibilte soasan "intzentzo" ori agartuten soanean. Bildurre auki bear se Elexartzati Aibelabe artes yaok, aurre aurre. Gaube dana dok (g)aube baie Elexartza basoan yaok eta an e(s)tx(y)egoan gaubean eletrisidade-argirik eta dana ilun, da, a argitzarra ikusikeran, ba, kontuek atera isek selango sera, impresioa ingo yotzian. Misterioa!

amak-eta kontetan jauskuan Aibelabeko argi azul indartsuaren kontua.

Aibelabe, Zeberio eta Orozkoren linderoan jagok. Aitz iluna dok eta kontrasolean geiago.

Esaten jauskuan an e Aibelabeko aitzaren tontorrean, buzoia jagoan lekuan, antxe agertuten zoala ikaragarriko argi azul potentea, azul azula e, gauerdiko amabi amabietan. Izena be imini jautsian areri argi azulari, zera: **intzentsoa**. Ezin deuat esan urteko zer tertzio izaten zoan, ze ez zoan urte gutzian agertuten, il batzuetan bakarrik.

Ez jakiat zer izango zoan baina gure zaarrak ondo bildurtuta ibiltzen zoazan "intzentso" ori agertuten zoanean. Bildurra euki bear ze Elexartzatik Aibelabe artez jagok, aurrez aurre. Gaua dana dok gaua baina Elexartza basoan jagok eta an ez jagoan gauean elektrizitate-argirik eta dana ilun, eta, a argitzarra ikusikeran, ba, kontuak atera egizak zelango zera, inpresioa egingo jautsian. Misterioa!

120.2. Laminak agertu ez egiteko gatza bota surtara jausitako esnari

Lenao, Elexartzan, suonean be bardin ingo soan emen Undurran,, ba, besue aukiten gaiñoan da, ba, kosinamintuek antxe iten soasan, seinde, ba, trebera ganean edo laratzuen eskegite edo beste barik lapikoa suen arrimuen iminite.

Gure amak-eta kontetan yoskuan ba esnea maskilluen egosten imini laratzuti eskegite estok, eta ba sarriten eperdie emon orduko esneak a ganas in de fra! esne pilloa surtera. Ori pasau eskero, esaten yoskuan esku

Leenago, Elexartzan, zuonean be bardin egingo zoan emen Undurran, ba, beesua eukiten geinuan eta, ba, kozinamentuak antxe egiten zoazan, zeinda, ba, trebera ganean edo laratzuan eskegita edo beste barik lapikoa suaren arrimuan iminita.

Gure amak-eta kontetan jauskuan ba esnea maskeluan egosten imini laratzutik eskegita ez dok, eta ba sarritan eperdia emon orduko esneak a ganaz egin eta fra! esne piloa surtara. Ori pasatu ezker, esaten jauskuan esku bete

bete gatz bota bea sala surtera, yausiko esne ganera sein lamiñak etorri tximinito bera, osea ke, gatzta bota lamiñak sartu es iteko esne kirezera d'alan uxatu lamiña demonintruok

gatz bota bear zala surtara, jausi(ta)ko esne ganera zein laminak etorri tximinitik beera, osea ke, gatzta bota laminak sartu ez egiteko esne kiratsera eta alan uxatu lamina demonintruok.

120.3. Gaueko argiak Aibelabepean Beresia eta Elexartza bitartean

Aibelabe aldeko argiek estosak atxinekoa(k)p(b)akarrik e. Beitik. Teresa, gure arrabea, eskon aurreko asteen, e(s)tx(y)akiat fijo 1948 ala 1950an eskondu soan, baie, lenaoko usure etzeikusie iten ekarri yoan Abundio Isisikoa, bere nobioa. Iluntzea soan da, ba, andi, Gesaleti gora, Beresia parera allegau soasenean argiek ikusi yaudiesan burpide ta errekean artean, baie, argi asko, kandelargien modukoak edo biribilagoak. Sustau in soasen, da sano in be ganera. Elexartzara allegau soasenean kontau in yaudian ikusikoa. Etzekoa(k)p(b)e ardures, se Abundiok atzera yoan bear yoan Isisire ta, ba, Beresiati pasau bear berantzean. Orduen, gure anajeak, Iginio ta Txomin euren eskopetok artu te yoan in soasen argiok agartuko lekure. Baie e(s)tx(y)audian eser topau t'etzera etorri soasen. I, ba Teresak eta Abundio(k)p(b)iek ikusteko seoser isingo soan, asmau e(s)tx(y)audian ingo argion istorie, umea(k)p(b)e es soasen da. Baie, argio(k)t(d)iralala d'estirala, sustue mortala urrean e! Nik entzunde e, se ni mutikotxue nintzoan orduko interan.

Aibelabe aldeko argiak ez dozak antxinakoak bakarrik e. Begiratu egik. Teresa, gure arrebea, ezkon aurreko asteen, ez jakiat fijo 1948 ala 1950an ezkondu zoan, baina, leenagoko usura etxeikusia egiten ekarri joan Abundio Isasikoa, bere nobioa. Iluntzea zoan eta, ba, andik, Gezaletik gora, Beresia parera allegatu zoazenean argiak ikusi jaudiezan burpide eta errekearen artean, baina, argi asko, kandelargien moduko edo biribilagoak. Sustatu egin zoazan, eta sano egin be ganera. Elexartzara allegatu zoazenean kontatu egin jaudian ikusi(ta)koa. Etzekoak be arduraz, ze Abundiok atzera joan bear joan Isasira eta, ba, Beresiatik pasatu bear beerantzean. Orduan, gure anajeak, Iginio ta Txomin euren eskopetok artu eta joan egin zoazan argiok agertu(ta)ko lekura. Baina ez jaudian ezer topatu eta etxera etorri zoazan. I, ba Teresak eta Abundiok biak ikusteko zeozer izango zoan, asmau ez jaudian egingo argion istoria, umeak be ez zoazan eta. Baina, argiok dirala eta ez dirala, sustua mortala urrean e! Nik entzunda e, ze ni mutikotxua nintzoan orduko interan.

121.1. San Martinen hamabi egia Alonsotegin

Alonsotegin subi bet iten ibili si(r)ian. Estakit selango jente(a) isin

Alonsotegin zubi bat egiten ibili zirean. Ez dakit zelango jentea izan zan,

sen, baie, ba, sorginek-edo, sorginek sireanak. Da subi ori iten ibilite, ba Samartinen e konturen ba(t)p(b)aten batek esan euen: “Samartinek, beee! Ori esto(k) kontue”, edo estaki(t)-p(b)a se (e)sanotzien, se kontestautzien, nire amamak esitusen, orri(k)-t(d)anok esitusen esaten da. Da gero ba asi si(r)ian kantetan da asi si(r)ian kantetan Samartinen ba sera, kontaderie, mandamentuek ed’orrik (g)ausek. D’asi sen onaintxe:

Samartin, esai(k)p(b)at,
gure Jaune bera do(k)p(b)at,
berak salbauko gaiosak.

Samartin, esai(k)p(i),
Erromako altara santue(k)p(b)i,
gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k)
salbauko gaiosak.

Samartin, esaik iru,
iru eternidadeak iru, Erromako
altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera
do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esaik lau,
lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak
iru, Erromako altara santue(k)p(b)i,
gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k)
salbauko gaiosak.

Samartin, esai(k)p(b)ost,
Kristoren bosllaga(k)p(b)ost,
lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak
iru, Erromako altara santue(k)p(b)i,
gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k)
salbauko gaiosak.

Samartin, esaik sei,
sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kris-
toren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanje-
listak lau, iru eternidadeak iru,
Erromako altara santue(k)p(b)i, gure
Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) sal-
bauko gaiosak.

baina, ba, sorginak-edo, sorginak zireanak. Eta zubi ori egiten ibilite, ba San Martinen e konturen bat baten batek esan euan: “San Martinek, beee! Ori ez dok kontua”, edo ez dakit ba zer esan eutsien, zer kontestatu eutsien, nire amamak ez zituzan, orreik danok ez zituzan esaten eta. Eta gero ba asi zirean kante-
tan eta asi zirean kantetan San Martinen ba zera, kontaderia, mandamentuak edo orreik gauzak. Eta asi zan onantxe:

San Martin, esan egik bat,
gure Jauna bera dok bat, berak sal-
batuko gaiozak.

San Martin, esan egik bi,
Erromako altara santuak bi, gure
Jauna bera dok bat, berak salbatuko
gaiozak.

San Martin, esan egik iru,
iru eternidadeak iru, Erromako
altara santuak bi, gure Jauna bera dok
bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik lau,
lau ebanjelistak lau, iru eternidade-
ak iru, Erromako altara santuak bi, gure
Jauna bera dok bat, berak salbatuko
gaiozak.

San Martin, esan egik bost,
Kristoren bost llagak bost, lau eban-
jelistak lau, iru eternidadeak iru,
Erromako altara santuak bi, gure Jauna
bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik sei,
sei izarbelak dozak sei, Kristoren
bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru
eternidadeak iru, Erromako altara san-
tuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak
salbatuko gaiozak.

Samartin, esaik saspi,
saspi sakramentuek, sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kristoren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esaik sortzi,
sortzirek seruek, saspi sakramentuek, sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kristoren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esai(k)p(b)edratzi,
bedratzi ordenamentuek, sortzirek seruek, saspi sakramentuek, sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kristoren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esaik amar,
amar mandamentuek, bedratzi ordenamentuek, sortzirek seruek, saspi sakramentuek, sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kristoren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esaik amaika,
amaika mill(e) angeruek, amar mandamentuek, bedratzi ordenamentuek, sortzirek seruek, saspi sakramentuek, sei serbilla(k)t(d)osak sei, Kristoren bosllaga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santue(k)p(b)i, gure Jaune bera do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

San Martin, esan egik zazpi,
zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak sei, Kristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik zortzi,
zortzirik zeruak, zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak sei, Kristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik bederatzi,
bederatzi ordenamentuak, zortzirik zeruak, zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak sei, Kristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik amar,
amar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik zeruak, zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak sei, Kristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik amaika,
amaika milla angeruak, amar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik zeruak, zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak sei, Kristoren bost llagak bost, lau ebanjelistak lau, iru eternidadeak iru, Erromako altara santuak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

Samartin, esaik amabi,
 amabi apostoluek, amaika mill(e)
 angeruek, amar mandamentuek, be-
 dratzi ordenamentuek, sortzirek
 seruek, saspi sakramentuek, sei serbi-
 lla(k)t(d)osak sei, Kristoren boslla-
 ga(k)p(b)ost, lau ebanjelistak lau, iru
 eternidadeak iru, Erromako altara san-
 tue(k)p(b)i, gure Jaune bera
 do(k)p(b)at, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin, esaik amairu,
 estosak amairu, ollarra(k)tx(y)-
 oko(sic) munduen, Ama Birjiñari
 entregau deutzet arimetxu bet al-
 tzuen, angerutxuek seruen, Samarti-
 neren (sic) kontuen.

Esto, ba gero ord(u)in ori ein
 sanean, ori ollarra(k)tx(y)o (a)uene-
 an, ordu(e-i)n eskapaudi(e)n, da
 subie bertan parau sen, ba, arri beten
 faltan. Da gero ba nire amama-
 (k)p(b)esaten auen, uindo be arri
 beten faltan daola ori subi ori. Ortxe
 akabau. Nik ortik aurrerago esta-
 ki(t)k(g)ean kontetan.

San Martin, esan egik amabi,
 amabi apostoluak, amaika milla
 angeruak, amar mandamentuak, bede-
 ratzi ordenamentuak, zortzirak zeruak,
 zazpi sakramentuak, sei izarbelak dozak
 sei, Kristoren bost llagak bost, lau eban-
 jelistak lau, iru eternidadeak iru,
 Erromako altara santuak bi, gure Jauna
 bera dok bat, berak salbatuko gaiozak.

San Martin, esan egik amairu,
 ez dozak amairu, ollarrak joko (sic)
 munduan, Ama Birjinari entregatu deu-
 tsat arimatxo bat altzoan, angerutxoak
 zeruan, San Martinen kontuan.

Esto, ba gero orduan ori egin zane-
 an, ori ollarrak jo euanean, orduan eska-
 patu eudien, eta zubia bertan paratu zan,
 ba, arri baten faltan. Eta gero ba nire
 amamak be esaten euan, oraindo be arri
 baten faltan dagoala ori zubi ori. Ortxe
 akabatu. Nik ortik aurrerago ez dakit
 geiago kontetan.

121.2. Parte txarrekoak kajatik urten eta beharra eske Aspurun

Aspurun egon i sen abaderen
 ba(t)p(b)isiten, nire amamak, nire
 aitek-eta, sarrak lengoak (g)eienak
 kontetan euden ori. De abade ori ba
 Aspuruti estai(t)p(b)a nora, se mesa-
 tara edo norako eukiteuen e bere ser
 ori, ba berak mesa ta gausak non esan
 bear ausen. Baie (e)uken estaki(t) nik,
 ala arrebea ala enbrasko bat euki uen
 etzean. Da, enbrasko ori etzean
 parau sen bera joan san arenbateti t'
 enbra ori etzean parau sanean, ba,
 ibili sen etzea arregletan da etzea
 arregletan dabilela, topauen kaja bat,

Aspurun egon ei zan abaderen bat
 biziten, nire amamak, nire aita-eta, zaa-
 rrak leengoak geienak kontetan euden
 ori. Eta abade ori ba Aspurutik ez dakit
 ba nora, ze mezatarra edo norako euki-
 ten euan e bere zer ori, ba berak meza
 eta gauzak non esan bear euazan. Baina
 eukan ez dakit nik, ala arreba ala enbra-
 zko bat euki euan etxean. Eta, enbrazko
 ori etxean paratu zan bera joan zan
 arenbatetik eta enbra ori etxean paratu
 zanean, ba, ibili zan etxea arregletan eta
 etxea arregletan dabilela, topatu euan
 kaja bat, eta kaja orretan euki euazan

da kaj'orretan euki ausen abade orrek e, segun, parte txarrekoan batzuk egon da bereinkasiñoa(g)as batu te kajan euki ausen. Da ser ete daon estaon, kajea sabalduenean a urten eud(e)in d'urten orduin i bear esk'asi yakosan enbrorreri, bearra. Ba ekarrixuis egurrek, ekarrixui bestea. Baie aitian eiteko denporea baño lenao planta(u) in yakosan bearragas, bearra, agindut'otzien bearragas. D'atzenean enbrorre(k)p(b)a, nik ser agindukotziet pentzau i (e)uen bere artean, da, esan eitzen ba: "Nafarrondoko errekatu ekarristesui galbaian, sera, ba, ure". D'aber, joan, da, bustinegas galbaian dana konpondu, da, galbaian ure (e)karri ei otzien. Gero, abadea etorri ei sen, da, abadeak a: "Baie ser ein dosu?" D'abadea(k)p(b)a oster a be, ba, bere abilidade, bere bereinkasiño edo bere erresu edo bere gausokas, ba, batu (eu)sen da bakeak ein ei si(r)en, baie ostean ixin euresan, enbreak ixin euen gausonik ein. Lamiñak edo deabruik.

122.1. Anbotoko Señorea eta deabrua

Esateban jentiek, dauela esaten iyoben denpora asko dala, Anbotoko Señorie, urte askoko gausa sarretai-kue.

Señora aberatzen bat, oso andra ederren bat, baie estakitt segaittik kondenaute, kanbiyuen gausa batzuk, orixe ondo estakitt, baie erregular kanbiyu betzuk (e)i basan, seras, demoniñuas. Da kanbiyuen palasiyo eleganten bat emongotzela baie doyen lekuti(k)tx(y)un bidauela erreta su te garra dariyola. D'Anbo-

abade orrek e, segun, parte txarrekoen batzuk egon eta bedeinkaziñoagaz batu eta kajan euki euazan. Eta zer ete dagoan ez dagoan, kajea zabaldu euanean a urten eudien eta urten orduan e bear eske asi jakozan enbra orreri, bearra. Ba ekarri egizuez egurrak, ekarri egizue bestea. Baina aitearen egiteko denporea baino leenago plantatu egin jakozan bearragas, bearra, aginduten eutsien bearragas. Eta atzenean enbra orrek ba, nik zer aginduko deusiet pentsatu ei euan bere artean, eta, esan ei eutsen ba: "Nafarrondoko errekatu ekarri egizta-zue galbaean, zera, ba, ura". Eta a ber, joan, eta, buztinagaz galbaean dana konpondu, eta, galbaean ura ekarri ei eutsien. Gero, abadea etorri ei zan, eta, abadeak a: "Baina zer egin dozu?" Eta abadeak ba, oster a be, ba, bere abilidade, bere bedeinkaziño edo bere errezu edo bere gauzokaz, ba, batu euazan eta bakeak egin ei ziran, baina ostean ezin eudezan, enbreak ezin euan gauza onik egin. Laminak edo deabruak.

Esaten eban jenteak, dagoala esaten ei eben denpora asko dala, Anbotoko Señorea, urte askoko gausa zaarretariko.

Señora aberatsen bat, oso andra ederren bat, baina ez dakit zergaittik kondenatuta, kanbioan gauza batzuk, orixe ondo ez dakit, baina erregular kanbio batzuk egin ebazan, zeragaz, demoniñoagaz. Eta kanbioan palazio eleganteren bat emongo deusala baina do(e)an lekutik joan bear dauela erreta su eta

toko andriek i dauko koban palasiyo eleganten bat bere kriyara ta gusti, danak. Ango aberastasune! Ango lujue! An i dau egoteko gausie! Da barrua sartzen danak es i dauko urteiyerarik. Bein baiño sarriyau yuen (e) i die. Da berak eskinddu sartzeko, baiyetz emongotzela ostatue. Da bestiek esetz, da bera(k)p(b)aiyetz sartzeko da akabo, esin urten.

Osaba Pedro, on bat san gisajua, ira-ebaitten ebillela, sera, Urkiyolako mendiyetan. Da, alako baten somau iyoban olan, sagatie, fru-fru...begitzen dau atzia, da señora bat silloi baten su ta garra dariyola bere koroa ta gusti. Emototzo añiketiai, dana bota, bere serok, bai igitaye ta eukibasan trepetxuek. Da bayiyoien etxia. Da etxien, ser pasetan yakan ba, ta itxitteko bera, ikusi dauela ta. Da a ver ser ikusi dauen ba. Da Anbotoko Señorie ikusi dauela ba. Da bestiek es itteko yamonik, orrek (g)usurre(k)t(d)jela. Es, gusurrik es, berak ikusi dauela señora elegante eder bat silloien erretan, da posi(k)-p(b)era estauenien erre, berak pentzetabala bera arrapaukobala. Da geixotute egon i san egunetan, da gero pasau yakan.

122.2. Laminak bidekurutzetan

Lamiña(k)p(b)e ibiltten i sien lenau ba(t)p(b)año geyau. Andra aundiye ixeten i sien, aundiye eta makalak, da paitten ankakin, selan da ori? Es ekiyien sertzu(sic) sien, baie lamiñak.

An or emen, an or emen, urteten iyoben bire kurutzetan da jentie billurtute ibiltten i san, esien atrebi-

garra dariola. Eta Anbotoko andreak ei dauka koban palazio eleganteren bat bere kriada eta guzi, danak. Ango aberastasuna! Ango lujoa! An ei dago egoteko gauzea! Eta barrura sartzen danak ez ei dauka urteirarik. Bein baino sarriago joan ei dira. Eta berak eskeindu sartzeko, baietz emongo deutsalala ostatua. Eta besteak ezetz, eta berak baietz sartzeko eta akabo, ezin urten.

Osaba Pedro, on bat zan gizajoa, ira-ebagiten ebillela, zera, Urkiolako mendietan. Eta, alako baten somatu ei eban olan, zaratea, fru-fru...begitzen dau atzera, eta señora bat silloi baten su eta garra dariola bere korona eta guzi. Emoten deutso arineketeari, dana bota, bere zerok, bai igitai eta euki ebazan trepetxuak (pertretxoak). Eta ba ei joian etxera. Eta etxean, zer pasetan jakon ba, eta itxitteko bera, ikusi dauela eta. Eta a ber zer ikusi dauan ba. Eta Anbotoko Señorea ikusi dauela ba. Eta besteak ez egiteko jaramonik, orreek guzurrak dirala. Ez, guzurrik ez, berak ikusi dauela señora elegante eder bat silloian erretan, eta pozik bera ez dauanean erre, berak pentsetan ebala bera arrapatuko ebala. Eta gaixotuta egon ei zan egunetan, eta gero pasatu jakon.

Laminak be ibiltten ei ziran leenago bat baino geiago. Andra andiak izaten ei ziran, andiak eta makalak, eta paiten ankakin, zelan da ori? Ez ekien zertzuk ziran, baina laminak.

An or emen, an or emen, urtetan ei eben bide kurutzetan eta jentea bildurtuta ibiltten ei zan, ez ziran atrebiduten

ruten bakarri(k)tx(y)uten, batren batias betik. Da oriyeuen usañe somataben bire kurutzetan.

Su konturatu saïttes oriyo usañe dauela. Bestie konturatu ittesan. Da, errasoie daukosu. Esan da iñ, oriyo usañe. Da sarrakin berba itteben da bai, kurutzetatik paseta siela lamiñak. Da ixteben oriyo usañe, esekiyeien se sinifikasiñue ete auken arek. Ibilten i sien gabetan, gabien da egunabarretan. Da orrek (g)abesko personak, baie estakiu sertzuz ixengo dien lamiñak. Batzu(k)t(d)iñue eskopetak asmaubesianien alde ibela ametik sustaute.

122.3. Gauezko arima fraidez jantzita

Lenau eseguen urik Otxandi-yoko etxietan da yun bixitesan uretan itturrire Bulkanua. Da andra batek urteban etxetik uretan, se umie negarres, egarriyas eguen edurtza galanta kanpuen dala. Da, arantzakuen gionesko bat frailles yantzitte ikusi ban elespien buelta ta buelta, eskuen liburu bet ebala. Da buelta ara ta buelta ona, ba, onantzakuen be ikusi ban. Da esan iyotzan gison orri arantzakuen:

– Ene gison, selan dabil beroi gau onetan pasietan dauen gabas, estau ba gaba pasietako.

Da, es iyotzan kontestau. Da onantzakuen uras etorrela atzia esatzen bardiñ:

– Etorri bei gaure etxia, nauk ostatua emongotzat-eta.

Da es iyotzan kontestau, da bera parau i san tristetute. Da gison oi kontestau barik andrian atzetik. Begitzen dau atzia ta tipi-tapa bere

bakarrik joaten, bateren bategaz betirik. Eta orioaren usaina somaten eben bide kurutzetan.

Zu konturatu zaitez orio usaina dagoala. Bestea konturatu egiten zan. Eta, errazoia daukazu. Esan eta egin, orio usaina. Eta zaarrakin berba egiten eben eta bai, kurutzetatik pasetan zirala laminak. Eta izaten eben orio usaina, ez ekien zer signifikazino(a) ete euken arek. Ibilten ei ziran gauetan, gauean eta egunabarretan. Eta orreek gauezko pertsonak, baina ez dakigu zertzuk izango diran laminak. Bartzuk dinoe eskopetak asmatu ebezanean alde egin ebela emetik sustatuta.

Leenago ez egoan urik Otxandioko etxeetan eta joan bear izaten zan uretan iturrira Bulkanora. Eta andra batek urten eban etxetik uretan, ze umea negarrez, egarriaz egoan edurtza galanta kanpuen dala. Eta, arantzakoan gionezko bat frailez jantzita ikusi eban eleizpean buelta eta buelta, eskuan liburu bat ebala. Eta buelta ara eta buelta ona, ba, onantzakuan be ikusi eban. Eta esan ei eutsan gizon orri arantzakoan:

– Ene gizon, zelan dabil berori gau onetan paseetan dagoan gauagaz, ez dago ba gaua paseetako.

Eta, ez ei eutsan kontestatu. Eta onantzakoan uragaz etorrela atzera esan eutsan bardin:

– Etorri bedi geure etxera, neuk ostatua emongo deusatz-eta.

Eta ez ei eutsan kontestatu, eta bera paratu ei zan tristetuta. Eta gizon ori kontestatu barik andrearen atzetik. Begitzen dau atzera eta tipi-tapa bere

atzetik oso sustau i san andrie. Etxia sartzen doielá, atie sabaldu, da atartien aukela semetxue, bera(k)p(b)esuen artu da esan iyotzan:

– Andratxue, iskerrak emoiyosus beroni se gaur sure arimie nun egongotesan oingo. Bein berba itten botzasu gabesko bati, berak espotzu kontestetan, bakien itxi. Gabeskuentza(t)k(g)aba, gabien dabillenari itxi bakien. Ori esanda desaparesidu yakan.

atzetik oso sustatu ei zan andrea. Etxera sartzen do(e)ala, atea zabaldu, eta atartean eukala semetxua, berak besoan artu eta esan ei eutsan:

– Andratxoa, eskerrak emoiozuz beroni ze gaur zure arimea non egongo ete zan oraingo. Bein berba egiten badeutsazu gaeuzko bati, berak ez badeutsu kontestetan, bakean itxi. Gaeuzkoentzat gaur, gauean dabillenari itxi bakean. Ori esanda desaparesidu jakon.

122.4. Otsoak andreari umea eroan edurtzatik Otxandio aldean

Ba orduen be eguen ointxe letxe, neguen letxe, edurtza galanta. Da urteban andratxo batek uretan. Uri(k)p(b)es etxien da yusan, da denporie emon bier birien se edurtza galanta eguen-da. Astiro-astiro. Edurtza andiyek ittebasan gero. Badoie itturrire ta umie itxiban kunan. Bator etxia, atia san bikotxa, goiko satiye itxiban sabalik eta bekue itxitte. Bator etxia da umie kunan es. Oi! Koittau oi andrie asi san digar baten, da alanbier topaubasan, eras aukobasan, len serak egote sien, saldiyek, saldiyekin ibilttesan jentie. Da gison bi lantzakin. Segiru otzien errastuoi, otzuen errastuoi, da topau iyoben mendiyen ba or San Bernabe inguruen otzue umie bixik aguen doielá. Da, alanbier lantzie sartu otzien otzu orri. Otzue ilben da umie bixik ata otzien da etxia eruben. Ori Otxandiyon pasau san.

Ba orduan be egoan oraintxe letxe, neguan letxe, edurtza galanta. Eta urten eban andratxo batek uretan. Urik be ez etxean eta joan zan, eta denporea emon bear bidean ze edurtza galanta egoan-eta. Astiro-astiro. Edurtza andiak egiten ebazan gero. Bado(e)a iturrira eta umea itxi eban kunan. Badator etxera, atea zan bikoitza, goiko zatia itxi eban zabalik eta beekoa itxita. Badator etxera eta umea kunan ez. Oi! Koitadu ori andrea asi zan deiadar baten, eta alanbear topatu ebazan, eraz eukiko ebazan, leen zerak egoten ziran, zaldiak, zaldiekin ibilten zan jentea. Eta gizon bi lantzakin. Segidu eutsien errastuoi, otsoaren errastuoi, eta topatu ei eben mendian ba or San Bernabe inguruan otsoa umea bizirik aoan do(e)ala. Eta, alanbear lantzea sartu eutsuen otso orri. Otsoa il eben eta umea bizirik atera eutsuen eta etxera eroan eben. Ori Otxandion pasatu zan.

122.5. Juaniko txistularia kondenaturik

Oso kasan afisiño aundiyeen bat aukena, itzela, kasan bittarte gustiye-

Oso kasan afizino andiren bat eukana, itzela, kasan bitarte guztietan

tan mesak eta eleixako bier gustiyek ittebasanien, beti kasan.

Len, uran, eleixako atiek sabaldu ittesien beruas da selan altarak egoten sien ormantza begire, jentiai lepue emote otzien. Da, “Dominus boviskun” mesie emoten dabillega abari au, ba “Dominus bobiskun” esabanien ikusiban,- ori esate sanien bueltie emon bixitesan-, alanbier alantxe paren-parian erbi aundiyen bat eta atzetik txakurre erbiyoi arrapetan. Selan itxiko dauen okasiñue berak esaban berekaute (sic). Itxi mesie bertan dauenien dauela, yusan sakristiya, kendubasan erropok, da sotana baltz oi ipiniban momentutik elixatik urtetan doiela, igoiyeban giñarrie baño puskat altutxuau bere alturan. Da ordutixik ona kondenau isan demoniñuek ipini otzen aurretik erbiye ta atzetik txakurre. Ordutik ona ya Don Juan ixengo san bere, baia oin Juaniko Txistulaiye, a dabil mundu gustiyen, da askok ikusi daure, askok.

Gure Gordobilko aitteyaune-(k)p(b)e ikusiban, ikesgiñen dabillega an Motxoteiyen, gabien ibiltesienda, baie iketz txondorrai begire ikusiban da ser ete san txistuke ta txistuke, I...AU...I...AA..eta txistuek. Da selan aitteyaunek ekiyen nor san, dana bertan bera itxi. Arek artu iyoban sustue, pasaute gellatu i san gustis. Arin bai arin etxia yun i san. Da amandriek esan iyotzan:

- Ene, ser pastan yatzu?
- Juaniko Txistulaiye ikusi ot
- Esta ixengo? Esin leike ixen
- Bai por sierto, ikusi ot nik, nik artuot sustue.

mezak eta eleizako bear guztiak egiten ebazanean, beti kasan.

Leen, udan, eleizako atek zabaldu egiten ziran beroagaz eta zelan altarak egoten ziran ormarantz begira, jenteari lepoa emoten eutsien. Eta, “Dominus vobiscum” mezea emoten dabillega abade au, ba “Dominus vobiscum” esan ebanean ikusi eban,- ori esaten zanean bueltea emon bear izaten zan-, alanbear alantxe pare-parean erbi andiren bat eta atzetik txakurra erbi ori arrapetan. Zelan itxiko dauan okasinoa berak esan eban berekautan. Itxi mezea bertan dagoanean dagoala, joan zan sakristiara, kendu ebazan erropok, eta sotana baltz ori ipini eban momentutik elizatik urtetan do(e)ala, igon ei eban ginareta baino pizkat altutxuago bere alturan. Eta ordutixik ona kondenatu ei zan demoninoak ipini eutsan aurretik erbia eta atzetik txakurra. Ordutik ona ya Don Juan izango zan bere, baina orain Juaniko Txistularia, a dabil mundu guztian, eta askok ikusi daude, askok.

Gure Gordobilko aitajaunak be ikusi eban, ikazginen dabillega an Motxotegian, gauean ibilten ziran-eta, baina ikatz txondorrai begira ikusi eban eta zer ete zan txistuka eta txistuka, I...AU...I...AA..eta txistuak. Eta zelan aitajaunak ekian nor zan, dana bertan beera itxi. Arek artu ei eban sustua, pasatuta geratu ei zan guztiz. Arin bai arin etxera joan ei zan. Eta amandreak esan ei eutsan:

- Ene, zer pasetan jatzu?
- Juaniko Txistularia ikusi dot
- Ez da izango? Ezin leike izan
- Bai por zierto, ikusi dot nik, nik artu dot sustua!

Arin pasau i san, oso arin. Da egosan egunetan susto galanta daukela. D'atan gellatu san.

Arin pasatu ei zan, oso arin. Eta egon zan egunetan susto galanta daukela. Eta artan geratu zan.

122.6. Lapurrak uxatu gizon batek purgatorioko arimak lagun

Lenau ibiltten i sien erri bateti bestia esta! Ganaduek eta saltzen yun bierben ganadu tratuetan. Da lapurrek, lenau be ointxe letxe lapurrek ibiltten i sien da lapurrek ekiyen nos kobretaban, nundi pasetan san, se orduetan da dana. Da iru ero lau sien lapurrok. Da parau sien ba puntu diferentietan se bakiyen diru askogas yoiela gison oi. Da andriek orretako esan iyotzan:

- Ai gisona, enau konforme ba, enau konforme, diru askogas soies-da estakitt segoser pasauko te yatzun dauket erreselue.
- Es andrie, egon trankillo, e(s)tx(y)-at pasauko eser.

Da lapurro(k)p(b)akiyen diru pillu aundiyas doiena.

Bat alde baten bestia beste baten, bire lusien iyioien, asko ibiltten da gabes igitargiyas da: "Errosariyue erresau biyuet, olan denporie ariñau pasauko yuet eta purgatorioko arimak olan igual lagundu ingost(i)ek".

Da esan da iñ, errosariyue erretetan yuen i san da allegau i san allegau bidauen lekua da in iyoban tratu oi. Gero gabien yuesan etxia da:

- Ene andrie, banator ni
- Estakixu selan egon nasen, nik pasau ot gabe!
- Baie ikusi osu selan etorri nasen, danak indduas da ondo etorri nas.

Olantxe berbetan dabixela: DAN-DAN, atie:

Leenago ibiltten ei zirn erri batetik bestera ezta! Ganaduak eta saltzen joan bear eben ganadu tratuetan. Eta lapurrak, leenago be oraintxe letxe lapurrak ibiltten ei ziran eta lapurrak ekien noz kobretan eban, nondik pasetan zan, zer orduetan eta dana. Eta iru edo lau ziran lapurrok. Eta paratu ziran ba puntu diferentietan ze baekien diru askogaz joiala gizon ori. Eta andreak orretarako esan ei eutsan:

- Ai gizona, ez nago konforme ba, ez nago konforme, diru askogaz zoaz-eta ez dakit zeozer pasatuko ete jatzun daukat errezeloa.
- Ez andrea, egon trankilo, ez jat pasatuko ezer.

Eta lapurrok baekien diru pilo andiagaz do(e)ana.

Bat alde baten bestea beste baten, bide luzean ei joian, asko ibiltten eta gaez iretargiagaz eta: "Errosarioa errezatu bear joat, olan denporea arinago pasatuko joat eta purgatorioko arimak olan igual lagundu egingo jaustiek".

Eta esan eta egin, errosarioa erretetan joan ei zan ea allegatu ei zan allegatu bear dauan lekura eta egin ei eban tratu ori. Gero gauean joan zan etxera eta:

- Ene andrea, banator ni
- Ez dakizu zelan egon nazan, nik pasatu dot gaua!
- Baina ikusi dozu zelan etorri nazan, danak egin dodaz eta ondo etorri naz.

- Nor da?
 - Urliye, -esan iyotzan.
 - Sabalduyosu atie- da gison orrek esan iyotzan:
 - Senbat jentias etorri sa su birien gaur tratu oi itten?
 - Ni nau bakarrik
 - Bakarrik? Bakarrik es, su jente pilluas etorri sa
 - Es, benetan diñotzut, bakarrik etorri nasena benetan, ba se niri akordau yat errosariyue erresetie da nau bakarrik etorri nas.-esan iyotzan.
 - Gaur da atzeneko egune lapurren itten dune, gaurdi geiyau akabo gure lapurretak. Jaungoikuek salbau satu. Suk purgatoriyoko arimai erresautzasu te arixek.
- Da, arexen bosak, jentien pilluen bosak sometabasan. Agaittik esan iyotzan a ber senbat jentias yusan. Da ordutixik ona konbertiru sien lapurrok.
- Bai, sinistentzut gizona, bai su esta lelenkoa bakarri(k)tx(y)uen sarana, leku bateti bestia gaur letxe, da gaur suri arimak kontestautzue da olan pentzetan ixen daure (lapurrek) jente pilluegas soiesela.

- Olantxe berbetan dabizela: DAN-DAN, atea:
- Nor da?
 - Urliä, -esan ei eutsan.
 - Zabaldü egiozu atea- eta gizon orrek esan ei eutsan:
 - Zenbat jentegaz etorri zara zu bidean gaur tratu ori egiten?
 - Ni neu bakarrik
 - Bakarrik? Bakarrik ez, zu jente piloagaz etorri zara
 - Ez, benetan dinotsut, bakarrik etorri nazana benetan, ba ze niri akordatu jat errosarioa errezatea eta neu bakarrik etorri naz.-esan ei eutsan.
 - Gaur da atzeneko eguna lapurren egiten doguna, gaurtik geiägo akabo gure lapurretak. Jaungoikoak salbatu zaitu. Zuk purgatorioko arimai errezatu deutzazu eta areixek.

Eta, areixen bozak, jentearen piloen bozak sometan ebazan. Agaitik esan ei eutsan a ber zenbat jente(a)gaz joan zan. Eta ordutixik ona konbertitu ziran lapurrok.

- Bai, sinisten deutzut gizona, bai zu ez da leenengoa bakarrik joan zarana, leku batetik bestera gaur letxe, eta gaur zuri arimak kontestatu deutzue eta olan pentsetan izan daude (lapurrek) jente piloagaz zoezela.

122.7. Hamalau tripako gizona

Baeguesen andra-gisonen batzuk, aberatzak aundiyek, baie umei(k)p(b)es, umie gure ta esin auki, da umie gure ba da selan aixen penias umie gurebela-ta. Alako baten, estakitt ala gizona ala andriesan, Jaungoikuai eskatu otzien sike-

Baego(a)zan andra-gizonen batzuk, aberatsak andiak, baina umerik be ez, umea gura eta ezin euki, eta umea gura ba eta zelan arexen peneagaz umea gura ebela-eta. Alako baten, ez dakit ala gizona ala andrea zan, Jaungoikoari eskatu

ran amalau tripena. Aurek manteneruko dauriela. Da esan da iñ.

Jaungoikuai estakitt selan eskatu otzien **amalau tripako** umioi. A lelengotan esin bete, esin, umie amalau tripakue san da. Titiye ta esnie ta basterra(sic) gustiyek. Bigaitxo baten esnie ta danak manejata otziesan, danak esin bete umioi. Amalau tripako umie bakixu ser dan?

Gero asi sanien esan iyotzien, pobretzen ekiotzien, asi sien ya ainbeste gausa beretzako manteniruten-da: “Ene semetxue, sentiruten du, baie kriyau yun bikosu”. Bai, ona san, etzala ardure, yungo diela bisittetan, yungo dala ikusten da baiyetz posik, yaten emonaskero bera(k) topauko dauela. Atzotxo ba(t)p(b)ayoi en da:

- Ene, ser dabillen?- atzotxo orri.
- Ba ementxe nabil ba, auxe artu au yorratzen
- Da berak-opiltxo bat emoten botzo, armosua emoten botzo, bera(k)tx(y)orratukotzela ensegidako baten.

Se san indertzue, oso morrosko fuertie. Atxur oi artu te airien solo sati galanta ensegidako baten yorratu in iyotzan. Da, atzotxo orrek

- Ba ementxe dauket opiltxo bat nauk armostako ekarri dodana, amentxe berakas sope ta opiltxo bat daukas.

Da eskinddu otzasan berak, berai etzela ardure, yan daiyela berak. Ene ba berak albu begittu orduko dana(k)tx(y)aiotzasan airien. Da esatzan a ber beste opiltxon ba(t)p(b)e estauken etxien, baiyetz, beinguen yungo dala etxia da ekarrikotzela.

Atzotxue bakarrik bisi i san da bestiak aire baten yan iyotzan. Ene

eutsoen sikieran amalau tripena. Eurak mantenerituko daudiela. Eta esan eta egin.

Jaungoikoari ez dakit zelan eskatu eutsoen amalau tripako ume ori. A leenngotan ezin bete, ezin, umea **amalau tripakoa** zan eta. Titia eta esnea eta bazterrak guztiak. Bigaitxo baten esnea eta danak manejetan eutsiezan, danak ezin bete ume ori. Amalau tripako umea badakizu zer dan?

Gero asi zanean esan ei eutsien, pobretzen ekin eutsien, asi ziran ya ainbeste gauza beretzako mantenituten-eta: “Ene semetxoa, sentituten dogu, baina kriadu joan bearko dozu”. Bai, ona zan, ez deusala ardura, joango dirala bisittetan, joango dala ikusten eta baietz pozik, jaten emon ezkerro berak topatuko dauela. Atsotxo bat bajoian eta:

- Ene, zer dabilen?- atsotxo orri.
- Ba ementxe nabil ba, auxe arto au jorratzen
- Eta berak-opiltxo bat emoten badeutso, armozua emoten badeutso, berak jorratuko deusala ensegidako baten.

Ze zan indartsua, oso morrosko fuertea. Atxur ori artu eta airean solo zati galanta ensegidako baten jorratu egin ei eutsan. Eta, atsotxo orrek

- Ba ementxe daukat opiltxo bat neuk armozetako ekarri dodana, ementxe berakatz sopea eta opiltxo bat daukadaz.

Eta eskeintu eutsazan berak, berari ez deusala ardura, jan dagiala berak. Ene ba berak albora begiratu orduko danak jane i eutsazan airean. Eta esan eutsan a ber beste opiltxoren bat be ez daukan etxean, baietz, beingoan joango dala etxera eta ekarriko deusala.

Atsotxoa bakarrik bizi ei zan eta besteak aire baten jan ei eutsan. Ene

atzotzuek ikusi banien, esin leikela bete esan iyotzan, sentiruten dauela baie esin leiyola emon segiruen bierra se estaukela yanik eta esin leikela mantenir, ba etzala ardure, ba urrengo arte despeiduban, ondo bisitte agur. Badoie gosie kendu esindda ebillen. Da gero badoie arantzau ta ibillitta ibilli ebillen da, serak, mendiyen ba segiru esindde ero, astotxo bat gellatu i san bere amiai segiru esindda. Astotxu oi besartien artu, bera yabe i san astu orregas, bera tripie bete esindde ta astue bere konture, besartien astotxua dauela ibilli te ibilli ittesan da. Badoie ta atzo-aguretxo batzuk intxaurre(k)p(b)atzen, ene iskillaratxo batia igo ta iru ero lau intxaurtxo artu te otzaratxo batia botaten iyobasan da beste aguratxu orrek artu te andratxu orri emon, da:

- Ene ser dabillen?
- Amentxe dabixela batzen indderra(sic) asko daukiesala-ta arixek intxaurrak seregin asko emote otziesala.
- Berak ensegida baten batukotziesela yatzittek andik goittik.
- Da selan batuko dausen ba?
- Da baiyetz.

Ona san mesere itten be. Artzen dau astotxu oi, botaten dau arbola ganera eta txintxirrin-txantxarran, danak lurria. "Ene Jaungoikoa, seru sabalien sartuko dauela berak intzien meserie selangoa ta eskerrik asko". Da emon iyotziesan danak, despeidu basan da martxauban.

Gero baebillen gosie gisajue kendu esindde. Eskiña baten enterau san bueno bera es baie esaotzien sorgiñen bat ebillela inguruen da sorgiñ orrek (g)ure dauela bistatik kendu.

atsotxoak ikusi ebanean, ezin leikela bete esan ei eutsan, sentituten dauala baina ezin leiola emon segituan bearra ze ez daukala janik eta ezin leikela mantenitu, ba ez deutsala ardura, ba urrengora arte despeitu eban, ondo bizi eta agur. Bado(e)a gosea kendu ezinda ebilen. Eta gero bado(e)a arantzago eta ibili eta ibili ebilen eta, zerak, mendian ba segitu ezinda edo, astotxo bat geratu ei zan bere ameari segitu ezinda. Astotxu ori besartean artu, bera jabe egin zan asto orregaz, bera tripea bete ezinda eta astoa bere kontura, besartean astotxoa dauala ibili eta ibili egiten zan eta. Bado(e)a eta atso-aguretxo batzuk intxaurrak batzen, ene eskilaratxo batera igon eta iru edo lau intxaurtxo artu eta otzaratxo batera botaten ei ebazan eta beste aguretxo orrek artu eta andratxo orri emon, eta:

- Ene zer dabilen?
- Ementxe dabizela batzen indderra(sic) asko daukiezala-eta areixek intxaurrak zeregin asko emoten eutsiezala.
- Berak ensegida baten batuko deutziezala jatsitoko andik goitik.
- Eta zelan batuko dauzan ba?
- Eta baietz.

Ona zan mesede egiten be. Artzen dau astotxu ori, botaten dau arbola ganera eta txintxirrin-txantxarran, danak lurrera. "Ene Jaungoikoa, zeru zabalean sartuko dauala berak egin deutzien mesede zelangoa eta eskerrik asko". Eta emon ei eutsiezan danak, despeditu ebazan eta martxatu eban.

Gero baebilen gosea gizajoa kendu ezinda. Eskina baten enteratu zan bueno bera ez baina esan eutsoen sorginen bat ebillela inguruan eta sorgin orrek gura dauala bistatik kendu. Berak esan eban jaramonik egiten ona zan-eta.

Berak esaban yamonik itten ona sanda.

Da nundik asmauko bistatik kentzeko ta soldau erregimentu bat egon i san kapittana ero koronela dana dalakue, esin pentzau, selan pentzauko te dauen aixe kendutie, bistatik kendu bisala se danak, arek amalau tripa aukesala, esin laikiela manteniriu, yute san leku gustiyeta, aixe itteban.

Da esan iyotzien erregimentu bati ba iya gure dauen konpetiru. Bera(k)p(b)aietz baie kondesiño batias, emoteko berak eskatzen dauena. Baiyetz kapittan orrek esan iyotzan, berak (g)ure dauen erreminta ero gure dauena eskatzeko, berak emongotzela. Esan iyotzan esabala gure eser besteik tantai aundi baten onduen ipinteko. Kapittan orre(k)p(b)aietz. Badaus preparaute atakien bera erregimentu baten kontra. Da emoban señali oi ekitteko ataketan, erregimentu ori Amalautripen kontra. Alako baten artzen dau tantaiyoi, orpotik ekittentzo, ser oi tantaiyoi ataten, botaten dau seren gustire ta soldau danak manejaui te bera bixik gellatu, kapittan da danak manejaui.

Ori pasau san da gero atzia be nundik asmauko ta sorgin orrek kapittan orri. Da bueno, pentzetan, se ori kendu bisala-ta. Yusan beste erregimentu batia ta iye bidauen seoser itteko se bera gose san, amalau tripa aukesala. Amalau tripa entzun otzenien, amalau tripa, aurek (g)osie kendu esin, kendu esindde ba pentzau bes, alde itteko andik, ondotik alde itteko gero, aurek amalau tripa-ko soldaurik esieiyela manteniriu, berak erosin gausa, saldiyen aspiyek ata ero seoser ingo dauela. Itxitteko

Eta nondik asmatuko bistatik kentzeko eta soldadu erregimentu bat egon ei zan kapitana edo koronela dana dalakoa, ezin pentsatu, zelan pentsatuko ete dauan axe kendutea, bistatik kendu bear zala ze danak, arek amalau tripa eukazala, ezin leikiela mantenitu, joaten zan leku guztietan, axe egiten eban.

Eta esan ei eutsien erregimentu bati ba ia gura dauan konpetiru. Berak baietz baina kondizino bategaz, emoteko berak eskatzen dauana. Baietz kapitan orrek esan ei eutsan, berak gura dauan erreminta edo gura dauana eskatzeko, berak emongo deutsalala. Esan ei eutsan ez ebalala gura ezer besterik tantai andi baten ondoan ipinteko. Kapitan orrek baietz. Badagoz preparatuta atakean bera erregimentu baten kontra. Eta emon eban seinale ori ekiteko ataketan, erregimentu ori Amalautripen kontra. Alako baten artzen dau tantai ori, orpotik ekiten deutso, zer ori tantai ori ateraten, botaten dau zeren guztira eta soldadu danak manejaui eta bera bizirik geratu, kapitan eta danak manejaui.

Ori pasatu zan eta gero atzera be nondik asmatuko eta sorgin orrek kapitan orri. Eta bueno, pentsetan, ze ori kendu bear zala-eta. Joan zan beste erregimentu batera eta ia bear dauan zeozer egiteko ze bera gose zan, amalau tripa eukazala. Amalau tripa entzun eutsanean, amalau tripa, eurak gosea kendu ezin, kendu ezinda ba pentsatu be ez, alde egiteko andik, ondotik alde egiteko gero, eurak amalau tripako soldaurik ezin leiela mantenitu, berak edozein gauza, zaldien azpiak atera edo zeozer egingo dauala. Itxitteko ba esan ei eutsan jefe batek egunen bategaitik.

Rantxoa jaten dagozala, eta gosea ezin kendu. Besteak beste alderantza

ba esan iyotzan jefe batek egunen bategaittik.

Rantxue yaten dausela, da gosie esin kendu. Bestiek beste aldiantza begire dausela, dana yan, platerok eta basterra(sic) gustiyok, esan iyotzien olan yuteko martxetako, esin leiyela manteniruru. Da alde iban.

Gero eldu yakan ordue. Sorgin orrek asmauban, ipiniko dauela lo dauenien baie yun bidauriela astiro ta ixilik oso tatika aundiya, etxunde dauenien egur kargilla batzuk, abar meiek, ipinikotzesela, astiro-astiro, bere ganien da gero soldau pillo bat parauko dala ta errementau eraingotziela ostantzien estauela ilterrik, orixe dala unikoko il leiyena. Esan de iñ. Ipintenzos kargillok, suabe-suabe, abar meio, soldau pillo bat paretan da bere ganien da errementauben gisajue.

Gero badoie infernua ta, DAN-DAN

– Nor da

– Amalau

– Amalauk estauko emen lekuik etxo txarrak iñekue da.

Beste Lusifer egon i san da:

– Ba itxiyok, pasau daittela.

Da a ber se ofisiyo ipinikotzien berai esan iyoban. Bueno, galdarai ereitten, arimak galdaratan, erretan egosten ipinttebasan, arixei galdarai eragitten. Auxe ofisiyue ipinikotziela...

Lusifer oi parau i san bere onduen da, dirrin, darran, dirrin, darran. Alako baten artzen dau orio plastada bat eta Lusifer oi botatentzo ta ixter gustiye erre iyotzan.

– Ai lotzabako, ser inddok? Kendu deistesu nire ondotik au, bistatik.

Da andik kenduben da beste demoniñuas, txiki bat, eskiñan barre

begira dagozala, dana jan, platerok eta bazterra(sic) guztiok, esan ei eutsoen olan joateko martxetako, ezin leiyela mantenitu. Eta alde egin eban.

Gero eldu jakon ordua. Sorgin orrek asmatu eban, ipiniko dauela lo dagoanean baina joan bear dudiela astiro eta isilik oso taktika andiaz, etxunda dagoanean egur kargilla batzuk, abar meeak, ipiniko deuteszala, astiro-astiro, bere ganean eta gero soldadu pilo bat paratuko dala eta errementatu eragingo eutsoela osterantzean ez dauela ilterrik, orixe dala unikoko il leiena. Esan eta egin. Ipinten deutesaz kargillok, suabe-suabe, abar meeok, soldadu pilo bat paretan da bere ganean eta errementatu eben giza-joa.

Gero bado(e)a infernura eta, DAN-DAN

– Nor da

– Amalau

– Amalauk ez dauka emen lekuri etxo txarrak eginekoa da.

Beste Luzifer egon ei zan eta:

– Ba itxi egjok, pasatu daitela.

Eta a ber zer ofizio ipiniko deutsoen berari esan ei eban. Bueno, galdarai ereiten, arimak galdaratan, erretan egosten ipinten ebazan, arexei galdarai eragiten. Auxe ofizioa ipiniko deutsoela.

Luzifer ori paratu ei zan bere onduen eta, dirrin, darran, dirrin, darran. Alako baten artzen dau orio plastada bat eta Luzifer orri botaten deutso eta izter guztia erre ei eutsan.

– Ai lotsabako, zer egin dok? Kendu (d)eistazu nire ondotik au, bistatik.

Eta andik kendu eben eta beste demoninoagaz, txiki bat, eskinan barre baten ebatzen deutso olako tenaza bategaz eta lepora:

baten ebatzentzo olako tenasa batias da lepua:

- Itxidek, itxidek, lotzabakue!
- Estostat itxiko, esaidak lelengo atako nauala ostantzien estostat itxiko.

Itxiotzan baie surre tenasan dauela, surre bota ta tenasa itxi eskiña baten da urteban infernutik. Gero serua ta DAN-DAN. San Pedro eguen

- Jaune banator
- Ik onako bireik estok in, ik bire txarrak inddosak, esiaike ona etorri.
- Ba infernutik despatxau iñauere ta nua yungo nas ni. Ni ona nator.

San Pedro giltza andi batias ona ta orra ser iñ estakiyela, koittau-koi-ttau ipini san, on onik sartu daiyen. Olako baten arantza begire dauela sartu i san barrua. Da San Pedro:

- Ai Jaune, nua sartu ete yat.

Jesukristok selan kokotien begiye auken, berak ikusi.

- Pedro ser topetan abil?
- Amalau sartu yat, Jaune, ai, nik inddot ittekue, nau konturatu barik sartu yat serua ta etxo txarrak iñekue da, da infernuti(k) despatxau dauriela esan dost, da egonas pentzetan ser ingotenuan, da alako baten martxaus(t)p(b)a.
- Infernutik despatxau daurienaske-ro ain txarra estok ixengo, estok pentzetan? Itxiyok, itxiyok gisaju orri.

Da antxe gellatu san.

- Itxi eidak, itxi eidak, lotsabakoa!
- Ez deustat itxiko, esaidak leenengo aterako nauala osterantzean ez deustat itxiko.

Itxi eutsan baina sudurra tenazan dauela, sudurra bota eta tenaza itxi eskina baten eta urten eban infernutik. Gero zerura eta DAN-DAN. San Pedro egoan

- Jauna banator
- Ik onako biderik ez dok egin, ik bide txarrak egin dozak, ezin aike ona etorri.
- Ba infernutik despatxatu egin aude eta nora joango naz ni. Ni ona nator.

San Pedro giltza andi bategaz ona eta orra zer egin ez dakiela, koitadu-koitadu ipini zan, on onik sartu dagjan. Olako baten arantza begira dagoala sartu ei zan barrura. Eta San Pedro:

- Ai Jauna, nora sartu ete jat.

Jesukristok zelan kokotean begia eukan, berak ikusi.

- Pedro zer topetan abil?
- Amalau sartu jat, Jauna, ai, nik egin dot egitekoea, neu konturatu barik sartu jat zerura eta etxo txarrak eginekoea da, eta infernuti(k) despatxatu daudiela esan deust, eta egon naz pentsetan zer egingo ete neuan, eta alako baten martxatu deust ba.
- Infernutik despatxatu daudien ezkeroin txarra ez dok izango, ez dok pentsetan? Itxi egiok, itxi egiok gizajo orri. Eta antxe geratu zan.

122.8. Juan Soldadu

Jesukriston denporan asi sien munduen ibiltten ba millagruak itten

Jesukristorenn denporan asi ziran munduan ibiltten ba milagroak egiten eta,

da, ba, danetatik: San Pedro, Juan Soldau ta Jesukristo.

Ba ibilli ibilte sien ara ta orra, ara ta orra ta gisajo batzuk, gisajo batzuk, gosie ta danetatik pasetaben, miseriya asko.

San Pedro gosie kendu esindde, da panaderiya batetik pasau sien da bera konturatu orduko panaderiyatik pasetakuen olako bollon bat artu iyeban da poltzan sartu. Bokau bat kentzeban bakotxien Jesukristo(k)p-(b)erba itteotzan estaitten konturatu bokau oi lurria botaten iyoban da gero atzia be iru ero lau pauso emon da atzia beste bokau bat eta orduen be Jesukristok seoser esan bier da orduen be bota. Da alantxe bollo oi satike-satike bota iyoban eta iyoban agotik Jesukristok berba itteotzani. Serak esatzen, Jesukristok:

- Pedro, begittik amen kokotien ser daukuan.E(s)tx(y)akiyet ser daukuan emen.
- Ene! Jaune begiye dauko bata bedorrek!
- A! Orregaittik ikusi yuet ser indduan Pedro, ikusi aut
- Jaune, nik tripa bi gureas
- Tripa bi? Ba(t)p(b)ete esindde ta tripa bi? Onakasak!

Da bueno, bayoiesak, da ikusiben alako baserriyen baten, baserri olako urriñen baten aguratxo bat daukiela geixorik eta Jesukristok selan potestadie auken, ba Jesukristok esan iyotzan bestiai, urliyen lekuen dauela aixe ta yun in bidauela ta baiyetz da eskatzeko ondo Juan Soldau, a diru salie san, eskatzeko ondo kanbiyuen se millagruie itten badaure; es estututeko eskatuko daukiela emongotziela dirue ta yana ta seoser.

ba, danetatik: San Pedro, Juan Soldadu eta Jesukristo.

Ba ibilli ibilten ziran ara eta orra, ara eta orra eta gizajo batzuk, gizajo batzuk, gosea eta danetatik pasetan eben, miseriya asko.

San Pedro gosea kendu ezinda, eta panaderia batetik pasatu ziran eta bera konturatu orduko panaderiatik pasetakoan olako bolloren bat artu ei eban eta poltsan sartu. Bokadu bat kentzen eban bakoitzean Jesukristok berba egiten eutsan ez daiten konturatu bokadu ori lurrera botaten ei eban eta gero atzera be iru edo lau pausu emon eta atzera beste bokadu bat eta orduan be Jesukristok zeozer esan bear eta orduan be bota. Eta alantxe bollo ori zatika-zatika bota ei eban eta egin eban aotik Jesukristok berba egiten eutsanean. Zerak esan eutsan, Jesukristok:

- Pedro, begiratu egik emen kokotean zer daukadan.Ez jakiat zer daukadan emen.
- Ene! Jauna begia dauka ba-eta berorrek!
- A! Orregaittik ikusi joat zer egin dokan Pedro, ikusi aut
- Jauna, nik tripa bi gura dodas
- Tripa bi? Bat bete ezinda eta tripa bi? Onak gagozak!

Eta bueno, bajoiazak, eta ikusi eben alako baserriren baten, baserri olako urriñen baten aguretso bat daukiela geixorik eta Jesukristok zelan potestadea eukan, ba Jesukristok esan ei eutsan bestiai, urliren lekuan dagoala axe eta joan egin bear dauela eta baietz eta eskatzeko ondo Juan Soldadu, a diru zalea zan, eskatzeko ondo kanbioan ze milagroa egiten badaude; ez estututeko eskatuko daukiela, emongo deutsiela dirua eta jana eta zeozer.

Bueno yusien da esaotzen Jesu-kristo sala ta bestiek e bere apostoluak, lagune(k)t(d)iela. Aguratxo oi txarto ta a ber se gura daurien, aguratuoi osatu ala mutil gastie.

- Ene Jaune,-esan iyotzien-, ba guk mutil gastie geiyau, baie ori esileike ixen.
- Bai, suek siñestu neugan, se nik osatukot, da suek nik esaten duana iñ.

Alantxe esan da iñ

- Gertau deistesue galdara aundi bat, sue ta askoraxo bat.

Da aguratxo oi, ene danak sustaute, ser in bier ete dauen. Artzen dau aguratxoi askorias, taka-taka ta txikittu iyoban da sartu iyoban galdaran da Juan Soldau ta bestie begire ser in bier dauen, sustaute.

- Ai Jaune, selan urtengo dau?
- Ixilik, ixilik.

Bera seren batzuk, bedeinkasiño batzuk bota iyobasan da sustaute etxekuek. Es, es estututeko, ixilik egoteko. Alako baten pasau i san, bier iyoban, bedeinkasiñue bota, esan duana ta alako mutil gaste ederrren bat aren begiyetan argittu san. Oi ango posa, a ser ixesan, bierra ta aguren aldien mutil gastie etxien, ango posa! Da ser emonbitzien ba sakuto, olako saku txikitxo batzuk aukí iyobasan, ba sakuto bat, arixe sakutotxo bete diru al badau erun da yana apurtxo bat eta biriako opiltxon bat ero seoser emoten botze ba naiku konforme. Baiyetz, emongotziela, da San Pedro bastante konforme baie Juan Soldau, a betik (g)eyiau gure, emoteotziela baño geiyau gure.

- Ai Jaune, estau eskatu bedorrek asko
- Ixilik eguai, estok ikusten ba

Bueno joan ziran eta esan eutsen Jesukristo zala eta besteak e bere apostoluak, lagunak dirala. Aguretzo ori txarto eta a ber zer gura daudien, aguretzu ori osatu ala mutil gaztea.

- Ene Jauna,-esan ei eutsan-, ba guk mutil gaztea geiago, baina ori ezin lei(te)ke izan.
- Bai, zuek sinistu neugan, ze nik osatuko dot, eta zuek nik esaten dodana egin.

Alantxe esan eta egin

- Gertatu (d)eistazue galdara andi bat, sua eta aizkoraxo bat.

Eta aguretzo ori, ene danak sustauta, zer egin bear ete dauan. Artzen dau aguretzo ori aizkoreaz, taka-taka eta txikitu egin eban eta sartu egin eban galdaran ea Juan Soldadu eta bestea begira zer egin bear dauan, sustatuta.

- Ai Jauna, zelan urtengo dau?
- Isilik, isilik.

Bera zeren batzuk, bedeinkazino batzuk bota ei ebazan eta sustatuta etxekoak. Ez, ez estututeko, isilik egoteko. Alako baten pasatu ei zan, bear ei eban, bedeinkazinoa bota, esan dodana eta alako mutil gazte ederrren bat aren begietan argitu zan. Oi ango poza, a zer izan zan, bearra eta agurearen aldean mutil gaztea etxean, ango poza! Eta zer emon bear dutsien ba zakuto, olako zaku txikitxo batzuk euki ei ebazan, ba zakuto bat, axe zakutotxo bete diru aal badau eroan eta jana apurtxo bat eta biderako opiltxoren bat edo zeozer emoten badeutse ba naiko konforme. Baietz, emongo deusiela, eta San Pedro bastante konforme baina Juan Soldadu, a betirik geiago gura, emoten eutsiena baino geiago gura.

- Ai Jauna, ez dau eskatu berorrek asko
- Isilik egon adi, ez dok ikusten ba eurak

aure(k)p(b)e biergiñe(k)t(d)iena,
aure(k)p(b)e koittau diena, po-
brie(k)t(d)osa(k)p(b)a.

Oso posi(k)tx(y)uteko urren-
go bisittetan da ango posa, an etxien
itxiben posa. Yusien aurek ibili bier-
bela ta, esin leiyela leku baten egon,
aure(k)p(b)e ibili bierbela munduen.
Andi(k)p(b)este paraje batzutan be,
an be entzuben neskatotxon bat
(d)auela geixorik, kalentura txarre-
kindde, txarto eguela txarto.

– Ene Jaune, yungo ga?

– Bai, yun inbikoyuau

Da Juan Soldau:

– Bai Jaune, an be saku bat es saku bi
diru eskatu bidaus.

– Ai Juan, ixilik eguai, ixilik eguai,
estok ixen bier ain gosekillle.

Badoies posi(k)p(b)irien, oso
posik eta:

– Juan, begittuyok Jesukristuai or
atzian ser dauken

– Ser dauko ba?

– Ba, e(s)tx(y)akiye(t)p(b)a. Nau(k)-
p(b)e e(s)tx(y)akiyet ser dauken

– Ene Jaune, begiye dauko bata!

– Nik atzetik eta aurretik ikusten
yuet. Nik ikusi yuet len be Pedrok
ser inddauen.

Da alantxe fijau sien Jesukristo
seoser sala. Are(k)p(b)auken potesta-
die, seoser aukena. Badoies neskato
orren etxia ta an negar baten danak,
neskatuek il bierbala. Da esaban es
estututeko berak osatuko dauela.
Baiyetz, Juan Soldau posik:

– Ixue bedorrek esaten dauena, nes-
katu oi, neskatilea ederra atako-
tzue.

– Ixilik Juan, ixilik eguai ire ordua
estok allegau te.

San Pedrok señaie itteotzan ixilik
egoteko se lagunek sien baie esaukien

be bearginak dirana, eurak be koitadu
dirana, pobreak dozak ba.

Oso pozik joateko urren-
go bisittetan eta ango poza, an etxean itxi eben
poza. Joan ziran eurak ibili bear ebela eta,
ezin leiela leku baten egon, eurak be ibili
bear ebela munduan. Andik beste paraje
batzutan be, an be entzun eben neska-
totxoren bat dagoala gaixorik, kalentura
txarrekin eta, txarto egoala txarto.

– Ene Jauna, joango gara?

– Bai, joan egin bearko joagu

Eta Juan Soldadu:

– Bai Jauna, an be zaku bat ez zaku bi
diru eskatu bear dauz.

– Ai Juan, isilik egon adi, isilik egon adi, ez
dok izan bear ain goseakila.

Badoaz pozik bidean, oso pozik
eta:

– Juan, begitu egiok Jesukristo(a)ri or
atzean zer daukan

– Zer dauka ba?

– Ba, ez jakiat ba. Neuk be ez jakiat zer
daukan

– Ene Jauna, begia dauko ba-eta!

– Nik atzetik eta aurretik ikusten joat.
Nik ikusi joat leen be Pedrok zer egin
dauan.

Eta alantxe fijatu ziran Jesukristo
zeozer zala. Arek baeukan potestadea,
zeozer eukana. Bado(e)az neskato orren
etxera eta an negar baten danak, neska-
toak il bear ebala. Eta esan eban ez estu-
tuteko berak osatuko dauala. Baietz, Juan
Soldadu pozik:

– Egizue berorrek esaten dauana, neska-
to ori, neskatilea ederra aterako deu-
tsue.

– Isilik Juan, isilik egon adi ire ordua ez
dok allegatu eta.

San Pedrok señaie egiten eutsan isi-
lik egoteko ze lagunak ziran baina ez

bere potestadeik. Esan da iñ. Esaotzien ba ipintteko etxunde olako oie olen batzun ganien. Begittu iyotzan ondo ta esan iyotzan:

- Neskatilea ala neskatotxue gurose osatu?
- Bai Jaune, guk neskatotxue bai, baie neskatilea bada obeto se gero gau(k)p(b)e laguntasune aukiku.

Baiyetz, iyobasan bere esaniko gausak. A ipini iyoban galdara baten egosten, txiki-txiki indde. Bestiek ipini sien posik diru geiyau te Juan Soldau a san listue. Bedeinkasiño batzu(k)p(b)ota ta neskatilea bat, sekula auren begiyen aurrien ikusi esaben morukue, neskatilea ederren bat auki iyoben. Oso posik eta ser emonbitzien, da Juan Soldau:

- Jaune, Jaune saku bi, saku bi

Es emoteko orixe sakutotxo oi baño, Jesukristok esaban eskatzen orrenbeste. Sakutxo bat emongotziela, aurek esaukiela asko ba, se urtiekin ain onak es otziela urten, gariyek saldubesela baie esaukiela orren beste diruik. Es, sakutotxo batias naiko dala.

- Ene gellatzeko, gellatu satese urrengo egun arte

Da es, aure(k)tx(y)un in bidauriela, esinleiyela, auren bisimorue oixe dala, ibili tte ibili, bestiek posik.

- Jaunek sartuko dauriesala seruen, arek iotzien meserie!

Baebixen ibili tte ibili, ittebesen olako millagruet. Olakoxe baten Juan Soldau asarratu i san, apartau in bierbela, kantzau sala aurekin ibiltten. Esaotzan Jesukristok ondo dauela, baiyetz. Da berak, bere konture atako dauela bisimorue.

eukien bere potestaderik. Esan eta egin. Esan eutsien ba ipinteko etzunda olako oea oolen batzun ganean. Begiratu ei eutsan ondo eta esan ei eutsan:

- Neskatilea ala neskatotxoa gura dozue osatu?
- Bai Jaune, guk neskatotxoa baina, baina neskatilea bada obeto ze gero geuk be laguntasuna eukiko dogu.

Baietz, egin ebazan bere esaniko gauzak. A ipini ei eban galdara baten egosten, txiki-txiki eginda. Besteak ipini ziran pozik diru geiago eta Juan Soldadu a zan listoa. Bedeinkazino batzuk bota eta neskatilearen bat, sekula euren begien aurrean ikusi ez eben modukoa, neskatilea ederren bat euki ei eben. Oso pozik eta zer emon bear deutsien, eta Juan Soldadu:

- Jauna, Jauna zaku bi, zaku bi

Ez emoteko orixe zakutotxo ori baino, Jesukristok ez eban eskatzen orrenbeste. Zakutxo bat emongo deutsiela, eurak ez eukiela asko ba, ze urtekin ain onak ez eutsiela urten, gariak saldu ebezala baina ez eukiela orren beste dirurik. Ez, zakutotxo bategaz naiko dala.

- Ene geratzeko, geratu zaitezte urrengo egun arte

Eta ez, eurak joan egin bear daukiela, ezin leiela, euren bizimodua orixe dala, ibili eta ibili, besteak pozik

- Jaunak sartuko daudiezala zeruan, arek egin eutsien mesedeal!

Ba ebilzan ibili eta ibili, egiten ebazan olako milagroak. Olakoxe baten Juan Soldadu aserretu egin zan, apartatu egin bear ebela, kantsatu zala eurekin ibiltten. Esan eutsan Jesukristok ondo dagoala, baietz. Eta berak, bere kontura aterako dauela bizimodua.

Diruek errepertiru te kontau. Juan Soldau(k)p(b)erak kontauko dausela. Beti(k)p(b)ere aldia geiyau ipintteban, pillu ba(t)k(g)eyiau, pillu bat, pillu bi, iru pillu, pillutxo ba(t)k(g)eyiau. Arantza begire berbetan dausela Jesukristo San Pedrori begire dauela, berak pillu ba(t)k(g)-eyiau da alako baten:

- Da ori laugarren pillu au nuentzako do(k)p(b)a?
- Ai Jaune enas konturatu
- Errepertirik ori ondo, amen iru gasak es lau. Es as akordetan nik kokotien begiye daukuana?
- Oi Jaune, benetan begiye dauko.

Da ipinibesan diruek auren sakutotxuen da apartau sien.

Gero Jesukristo ta San Pedro baebixen auren inguruetatik eta Juan Soldau orrek pentzetaban Jesukristo moruen inbierbasela millagruiek eta gausak eta dirus beteko sala ta alantxe bixiko sala munduen, bierrik iñ barik se orretako ori Juan Soldau soldautzatik martxaiko bat san, ernegaute olan batu sen Jesukristoas da bere konture alantxe asi san millagruiek...

Yusan aguratxon baten etxia ta DAN-DAN:

- Yakinddot geixo sausiena ta gure bosue nauk osatuko satuet.

- ezarri:** 1 jarri. 2 arrautzak inkubatu.
- ezaupidea:** ezagutzeko bidea, aukera.
- ezaurea:** ezaupidea; ezagutzeko bidea, aukera.
- ezaia:** eztabaida, diskusioa.
- ezebeza:** ezer be eza. Gazt. “la nada”.
- ezebeza begirako ona:** (esaera): begiak ez du ahutsa be onartzen.
- ezeukia:** pobrezia, modu gutxi.
- ezgauza:** ohikoa ez dena, gutxi ikusia.
- ezkonparria:** ezkondu berria.
- ezkurra:** haritz, pago eta abarren fruitua.
- ezkutokia:** ezkutatzetokia.
- ezlekua:** ohikoa ez den lekua, apartekoa.
- ezordua:** destenorea, ordu normaletik kanpokoa, batez be gau-berandua.
- ezpabere:** bestela.
- ezpadurdina:** euli-mota. Gazt. “tábano”.
- ezpala:** egur zatitxoa.
- ezpia:** sugearen punta biko mihia.
- eztegua:** ezteia, eztei eguna.
- faltorra:** faltatzen dabilena.
- fartika:** baranda, palu luzea.
- fatua:** ganorabakoa.
- fetura:** ganora; itxura, patxada.
- fidan:** arduran, karguan.

- fielatoa:** antzinako zergak kobratzeko bulegoa.
- filiazioa:** arrastoa, aztarna, pista...: *wrliaren filiaziorik be ez*, arrastorik ez.
- firua:** josteko haria.
- flakezia:** ahultasuna, indargabetasuna.
- fota:** ogi mota bat.
- fradua:** ekina, egin beharra, derrotxea, akzioa.
- frakagorriak:** galtzagorriak, deabruak, parte txarrekoak.
- frakak burutik jantzi:** mozkor-mozkor eginda dagoela adierazteko erabilitako esamoldea.
- frakak soltau:** kaka egiten joatea. (eufemismoa).
- fraketan kabidu ezin:** (esaera): zer edo zergatik artega, urduri egotea.
- frantsesa:** belar mota bat, sekula-belarraren antzekoa, hirusta belarraren antzekoa, baina hazi luzangaduna.
- fumalaria:** erretzailea, zigarroak eta abar erretzen dituen.
- gabia:** ola-mailu handia, ur-indarrez mugitua.
- gabonkariak:** Gabon jaietarako gorde edo eta erosten diren jan-edari bereziak.
- gabonsubil:** Gabon gauean isiotzeko basoan aukeratzen den enborra.
- gabonzuzia:** Gabon gauean pizten den enbor esanguratsua.
- gaineko:** a zer nolako.
- gainetiko:** gainontzeko.
- gainetu:** gainera etorri zerbait egiteko asmoz.
- gaitza:** gaixotasuna.
- gaixokarik:** gaixoaldian, erdi-gaixorik, gaixorik antzean.
- galarazo/ galarazi:** debekatu.
- galautsa:** gariburu bakoitzak duen gaineko azaltxo.
- galbahea:** galgaraua eralkitzeko tresna.
- galbarra:** ile mota batzuen buruko erremolino.
- galbarrokerra:** galbar bi edo hirukoa, okerra, bihurria.
- galberdea:** belar moduan berdean jaten den gari mota.
- galburua:** gariburua.
- galdaila:** kobrezko ontzi bat laratzean edozer egosteko.
- galdara:** ontzia, balde handia (gazt: caldera)
- galerea:** barregarria, aparejua, petrala, molindea.
- galga:** freno.
- galgaraua:** gari garaua.
- galondoa:** garia egondako soroa.
- galtzaia:** "perdidea".
- galtzu:** gari-lastoa.
- galtzupoila:** galtzu-lastoz egindako eskuta, garia jotzeko edo eta gainetikoetarako.
- gana:** akuiluak puntan duen burdinazko zirrikagailu punta-zorrotza.
- ganaga:** gurdiaeren kama punta edo gabitxoa area-katea lotzeko.
- ganorabakoa:** fundamentu gabea, fetura gutxikoa.
- ganosoa:** gogo handiz, gustura, gana handiz.
- garandu:** 1 garauak kendu. 2 pentsatu, hausnartu, deskubritu.
- gara/ garea:** landarearen gora egitea, hazirantz joatea.
- garagarrila:** bagila edo ekaina.

- garapa:** zer edo zertxo bat bota mehe-mehe, fin-fin gaintetik, kapatxo bat (gatza, azukrea, olio, ardoa, elurra, euria etab...).
- garautakoa:** 1 heldu eta berez jausten den fruitua. 2 ganorabakoa, txaloa.
- garbea:** artoaren lorea.
- garbikuzia:** garbiketa. Gazt. "limpieza".
- garbizkina:** karena, ume-ondokoa, ganaduak botatzen duena. Gazt. "placenta".
- garbizuzia:** garbiikuzia, garbiketa. Gazt. "limpieza".
- garia:** garatxoa. Gazt. "verruqa".
- gari-jotea:** era batera zein bestera, galburuak garantzea.
- garratza:** 1 geza edo sosoa ez dena. 2 maila handiko edo sakonari handiko eskailera, aurgora, aldapa edo aldats gora handiko zorua.
- garratza:** inausi gabeko zuhaitz handia.
- garretan:** garra dariola.
- garrikoa/gerrikoa:** prakak edo galtzak gerrian lotzeko erabiltzen zen/den ehunezko estukia, gaur egun pilotari eta dantzarien artea sano erabilia.
- garrikotea:** gerria lodi edo txitxiak dituena.
- gastelusearra:** ganaduari sama inguruko lumak jaustea.
- gatx/gaitz:** gaixotasuna, maldadea.
- gatzetako atera:** eguneko irabazia, jornala.
- gatz-kaiza:** tinakoa gatza emateko urdai, okela eta abarri.
- gatzura:** ardi-esne eta abarri legarra eman eta gazta bigunaren gainean geratzen den ur gazi edo sueroa. (Artzainek txerriak loditzeko erabilia euren txabola ondoko txerrikorta edo kortatxoetan)
- gauaroa:** gaueko denbora, gau luzea.
- gau-berandua:** gauean sartutako orduak.
- gaukarrak:** zeruko gauetako garrak.
- gaulendia:** iluntzea, ilunabarra.
- gautu:** gaua heldu, ilundu.
- gauza:** gizon-gauza; andra-gauza; ume gauza, etab. (x-itxurakoa)
- gauzeztandu:** balio ezean geratu, zaharkitu, hondatu.
- gaza:** 1 geza, garratza edo gazia ez dena. 2 sakonari gutxiko mailadun eskailera, aurgora-aurrehera errazeko zorua, etab.
- gazgina:** txarra, kaltegia.
- gazigarri:** gatza hartutako edozer: pernil, urdai, lukainka...
- gatzeloa:** ez ume ez gizon, gaztekote.
- gedar:** hitz-zarata gogorra, matraka, oihua.
- gedarrotsa:** kedar eta kedar.
- geldorreztatu:** odoloste eta buzkantza freskoak lehenengoz egostea.
- geriza:** gerizpe, silueta.
- gesu baten:** lasterrera, denbora gutxi barru, halako batean.
- giatu:** labratu, soroa landu.
- giberria:** urtetik gorako artxo edo auma.
- ginarra:** isatsa, erratza. Gazt. "brezo".
- ginen:** (atzizkia) -ten, -tzen
- girigaia:** algara, juerga.
- gitxiendiz/ gutxiendiz:** gutxienez.

- Gizotso(a):** Gorbeialdeako pertsonaia mitikoa. Itxura txarrekoa, motz-motza, hanka bakarra eta bekokian begi bakarrekoa. Lapurra eta mantzina, emakumeari bularrak kentzerainokoa. Beldurgarria.
- gobada:** gobara, bogada, arropa-garbikuzia.
- gobadotzara:** zaran eta errari-otzaren erditertzioko asta biko otzara.
- gobela:** kareharria berotu ondoren zuritutakoa, gero kare-hautsetarako.
- gogaitu:** aspertu.
- gogaitua:** aspergarria, lotsabakoa, plast.
- gogatsu:** gogo handiz.
- gogo-aldia:** gogoan edukitzen dena.
- gogojardunak:** gogo jardunak; ariketa espiritualak.
- goian behean:** ugari, asko, indarrean (euria, elurra).
- goitegia:** ganbara barruko goiko partea.
- goiti beheiti:** gora eta behera.
- goiti-beherakoa:** burutik jantzitako soinekoa (errementari edo olagizonena).
- goiz-berandua:** eguerdi arte barruan eguerdiragoko tertzio edo garaia.
- goldea:** lurra arakatzeko antzinako tresna.
- (g)oratu/goratu/gatu:** heldu.
- gordin:** natural.
- gorpua:** hilaren gorputza.
- gorriak pasatu:** larrialdia pasatu.
- gorueta:** liho edo artilearekin hari edo firua egitea.
- gosea emon/eman:** jaten eman ez edo jaten gutxi eman, gosea pasarazi.
- goseakila:** goseak hila, jan bakoa, zer janik ez duena.
- goseakilik:** goseak hilik, gose handi-handiz.
- gosebera/goseberea:** gosetua, entrama handikoa.
- gosunea:** arin jan edo edatearen ondoriozko samako mina.
- gozo-gauzak:** gozoak, orokorrean.
- granda:** dezentea, alozokoa, ona, tamainakoa.
- graziak:** eskerrak.
- greda:** markatu, marraztu edo idazteko erabiltzen zen igeltsu, eskaiola edo antzeko elementu zurixka. Gaurko tiza edo klariona.
- grillistua:** irrintzi handia, aienea, hots handia.
- gura barik:** gura ez dela, nahi ez dela, nahi gabe.
- guradala:** nahita, nahi izanda, gura izanda.
- guradana:** asko, nahi den beste, handia.
- guraizana:** maitasun fisikoa zein bihotzekoa.
- gurata:** nahita, nahi izanda, gura izanda.
- Gure Jauna:** komunioa, ostia kontsagratua, biatikoa.
- gureak egin:** hil, azkenera heldu, bukatu.
- gureztala:** nahi ez dela, gura ez dela, nahi gabe.
- hagea:** 1 arbola edo egurra. 2 tradizioa, herentzia, kasta.
- hagearena:** etxea erre orduan berria egiteko ematen ziren haritzak, etab., zutik zein ebakita.
- hagina:** zuhaitz berezia, hortza.
- haginadura:** ahoko haginak edo izara, mantel eta abarren punta-ertzetako bordatua.

- haginotsa:** hagin-zarata.
- hainbaten:** nonbaiten, lekuren baten.
- haitzura:** haitzak ematen duen ura, haitz barrutik datorrena, garbia.
- haizebegia:** haizeak jotzen duen tokia.
- haizetuta:** pertsona zein ganadua digestio-haizez handiturik dagoenean.
- hala biz:** halabiz, hala izan dadila.
- halanbear / alanbear:** kasualitatea, fortuna, fatalitatea, destinoa.
- haltza:** erreka ertzetako zuhaitz mota.
- haltzaren ondoan haltza erne:** (esaera), *zer ikusi ba ikasi*-ren parekoa.
- hamarrenak:** ondasunen %10 ordaintzea, dirutan zein ekoizketan.
- hamaseiko gorria:** hamasei ogerlekoko urregorritzko txanpona, balio handikoa.
- handik gehiago:** handik aurrera(go).
- handikaldeko:** hango aldeko, hango alderdiko.
- handikalderdia:** hango alderdia, handiko alderdia.
- handiko:** hango aldeko, hango alderdiko.
- handitu:** jo eta jo egin, paliza handi bat eman.
- handitua:** Gazt. “hinchazón”.
- hanka egin:** alde egin, aldendu.
- hankabitorra:** orkatila.
- hanka-jokoa:** aldegin beharra, ihesaldia.
- hankarte:** gizon-emakumeen sexu-organoak.
- harila:** hari edo artilezko harila, bobina.
- harizdui:** hariztia, haritzak dauden beresia (berez erneak) edo basoa(landatuak direnean).
- harjoa:** harrak jo eta usteltzen, ildotzen edo holtzen hasten dena.
- harkien:** hartuan, hartzeko.
- harena:** hara eta hona.
- haronakoa:** hara eta honako joan etorria.
- harri-pausuak:** ur gutxiko erreka oinez pasatzeko harri tinkoak.
- harrizkorra :** harri zatitxoa.
- harrotu:** 1 zeozer harro bihurtu, harrotasuna eman, barruan hutsuneak sortu zelanelan. 2 apalduren kontrakoa.
- hastea neke:** (esaera): hastea baino ez dela behar.
- hatz-begiak ondo ekarri:** (esaera): haurra falta barik jaio, ondo osatuta, sano.
- haustu:** hauts egin, birrin-birrin egin, xehe-xehe egin.
- hazbegiak ondo eduki:** (esaera): umea sano jaio, defektu barik.
- hazdui:** haitz askoko tokia.
- hazeguna:** ereitzak-eta egiteko garai egokia.
- hazitarako:** hurrengo urtera ereiteko aukeratzen den hazi ona. (esaera): *hazitarako modukoa*, pertsona ona, zintzoa.
- hazitu:** liho, lana edo artile amilua harro-harro utzi goruetan haria egiteko.
- hazkaia:** haziera, zelan hazten doan. Gazt. “crecimiento”.
- hedea:** uhalezko zinta uztarriak, bridak eta abar lotzeko.
- hegillamu:** hegia, hegi zelaia.
- heinean:** apur bat, zerbait -(e)ra; -(e)rantz.
- hemendikaldeko:** hemengo aldeko, hemengo alderdiko.

hemendiko: hemengo aldeko.

(h)erri-behia: euskal arrazako behi gorrixka, basa-behia.

herri-idi: herri-behitik jaiotako zekor iditua, euskal arrazakoa.

herri-zekorra: euskal arrazako zekorra, gorrixka.

hesia: harri edo zurezko oboan-oboago ingurapena(ganadua batzeko, gaztaina-kiriki-noak gordetzeko- *kirikiñusiak*, etab.

hesialdia: egurrezko hesiaren iraupena.

hesituta: hesia eginda, inguratuta.

hezialdia: hezten denbora bat eman, esperientziak irakatsi.

hil eginik: hiltzeko zorian.

hirutzuk: hiru bikote.

hiruzakua: iruzurra, engainua, tranpa, azpikeria.

hiruzaku egin: tranpa egin, engainatu, iruzur egin.

hobaria: irabazia, etekina.

hodeia: 1 hodei-lainoa. 2 trumoia.

hodeiak jo: trumoia.

hordia: mozkorra (esaera): *edan bako hordia:* zorabioa.

horraitio: horregatik! (esamoldea).

hotzakilik: hotz handiaz, hotzak hiltzeko moduan.

huntzorria: horma, haitz eta abarrari deusala egoten den landarea. Gazt. "hiedra".

hurritza: hurrak ematen dituen zuhaitza.

huskeria: gauza txikia, gauza eskasa, garrantzia txikiko gauza.

huskeria hutsa: (esamoldea) ia ezereza, apurra.

hutsa: ezereza, bete bakoa.

-hutsa: atzizki funtzioz: handia, ugaria (*alper hutsa, gezur hutsa, barre hutsa, droga hutsa, maldizio hutsa, errezo hutsa, nagi hutsa, diru hutsa, faltsu hutsa, uzkar hutsa, negar hutsa, etab.*).

-hutsik: atzizki funtzioz: *jupoi hutsik, esku hutsik, berna-hutsik, alkandora hutsik, mahuka-hutsik, kantzontzillutsik(kaltzontzilo hutsik), =-(r)ekin bakarrik, butsean.*

iauna: iritzia, harro xamarra, señoritoa, handiki xamarra. (Oharra: Zeberion, *jauna* da gauza bat eta *iauna/yauna* beste bat. Bereizi egiten dira ezaugarri fonetikoaren bidez.

ibilpidea: oinez ibiltzeko ahalmena, kapaz izatea.

ibiltaroa: ibiltzeko aroa, ona edo txarra; (egotaro, etab.-en antzera).

ida: ira, garoa.

idea: edadea, adina, antzekoa, lagunabarra.

idebatea: irak ebakitzearen ekintza, hau da, zemendiaz geroko beharlekua.

ideatu: asmatu, bideratu, inbentatu.

idergiberria: ilargi berria.

idergibetea: ilargi betea.

iduna: sama, eztarria, lepoa.

iduria: erre osteko hautsa.

igarri: asmatu, antzeman.

igero: liho-matazak garbitzeko ekintza.

igeska: zuhaitz enborreko perretxiko sikua, jo-jo egin eta gero, txispatik sua hartzeko onenatarikoa, lehenago, harririk hara sua egiteko oso erabilia.

- igurdi:** igurtzi.
igurdialdia: masajea.
ihintza: inontza.
ikazginen: ikatza egosten.
ildoa: arbola erdi zindo erdi ustel dagoenean holtzen hasten dena.
ilena: astelehena.
ilinti / ilentia: surtan punta batetik erretzen dagoen egur luzanga.
ilintxa: ilinti txikia, ikatz txarto egosia edo guztiz egosi bakoa.
ilunbea: iluntasuna.
ilundea: laino ilunak egindako iluntasuna.
inausi: kimatu.
indarga/-ge: indar barik, indar gutxiz.
indartzarra: indar handia
indizinoa: injekzioa, xiringada. Gazt. “inyección”.
indusi: txerri, urde, basurde edo bestek lurra harrotu.
industu: txerri, urde, basurde edo bestek lurra harrotu.
infernuko lekua: oso urrun.
inizitua: oinaztargia, oinaztua, tximista-argia.
inon denik: holako gauza arrarorik!
inon diranak: ahalegin handiak, ahal den guztiak.
inontza: ihintza.
inorena: norbera ez dena, beste batena.
intera: garaia, denbora, sasoi, tertzioa, aldikada.
interan: garaian, denboran.
intilla: tragaza, soroa lantzeko tresna bat.
intxaurmantxeruak: eskuetako intxaur-sumikaren aurkako mamuak.
intsentsarioa: intsentsu-ontzia, intsentsatzekoa.
intzentsoa: intsentsua, elizako erritoetan erretzen den hautsa usaina zabalduz.
intzerrea: leia egiten dueneko haize hotza.
intzigua: gogo bizia, grina, desira.
iparrandia: behe-beheraino sartzen den lainabehera hotza.
ipizkia: ira multzo batekin egiten den inarra labea eta abar garbitzeko.
ipurditik bota: arbola lur-lurretik ebaki.
ipuztarria: idi bikotea uztarran (behiak ere bai).
irakutzi: barruak garbitu, enjuagatu.
irazi: iragazi.
iragazi: irazi.
irauli/iruli: azpikoz gora jarri, buelta eman (gurdia eta abar).
irausi/irusi: txerria araldian egotea.
iraztontzi/ iragaztontzi: zeozer irazi eta iragazteko tresna, oihalezkoa zein metalezkoa.
irentsi/iruntsi: ahorik hara urdaileratu.
iruntzitara/irentzitara: barrukoz kanpo.
irrintza/irrintze/irrintzi: animalia batzuen oihua.
irrintza baten: irrintzika geratu barik.
irrintzaotsean: irrintzika baten geratu barik.

- iruli/irauli:** azpikoz gora jarri, buelta eman (gurdia eta abar).
- irun:** haria egin.
- isiotu:** piztu (sua, argia zein animoa).
- iski:** apur bat, gauza arin bat, pixka bat.
- iso!:** astoari-eta gelditzeko esaten zaiena. Kontrakoa: *arre!*
- isopoa:** isipua, elizan ur bedeinkatuarekin bedeinkatzeko erabiltzen den tresna zulo-duna.
- iskusia:** ginarra, eskoba
- itarin:** egin arin, guztiz ondu barik, zer edo zeren faltan.
- itaurrekoa:** idaurren dabilena.
- itaurren:** uztartutako idi edo behien aurretik ibili gidatzeko.
- itaxura/itoxura:** itogina, batez ere teilatu hegaletatik erortzen dena.
- iterantzuna:** tantaka ibili, alusioak egin, ziriak bota.
- iturrikoura:** iturri naturaleko ura.
- itxaron:** *etxodon>etxon*.
- itxarrik/itzarrik:** iratzarrik, esnaturik.
- itzekarra:** arrakala.
- itzel:** oso ondo (*itzel ibili da*, sano edo oso ondo ibili da).
- itzela:** handia.
- itzulimurdika:** atzera aurrera, bueltaka.
- ixorrabarri:** ernaritu berri.
- “ixorrai/izorrai”:** < ixorra hadi/izorra hadi, (irain bezala)
- ixorratu/ izorratu:** ernaritu.
- ixurria:** belarri oste edo besapean sortzen dan garau edo glandula.
- izarbela:** Gazt. “planeta”.
- izenburlea/ izen-burlea:** ezizena, goitizena.
- izentazinoa:** lagin bat.
- izerdi-larria:** larritasunak, beldurak eta holakoek eragindako izerdia.
- izetu:** isiotu, piztu, argia zein sua zein animoa.
- iztenak/iztandak/eztandak:** ahalak egin, ia errementatu beharrean.
- iztuki/iztoki:** sakonari azaleko ur egondu, lupetz, padura, etab. Gazt. “fango, hondonada cenagosa...”.
- izurriak/ ixurriak:** belarri osteetan eta besapeetan irtetzen diren garau edo handituak.
- jagi:** 1 altxatu (ohetik, zorutik, etab.) 2 Hartzitu (ogi-erraria, artoa, etab.).
- jagia:** erraria legamiaz hartzitua.
- jagi bi:** ogia egin orduko birritan jagiarazi edo hartziarazi.
- jaionak/deionak/dei-onak:** ezkondu aurretik elizan egiten ziren hiru deiak.
- jakatzu:** jateko gogo barik dagoena.
- jakia:** jatekoa.
- janberri/janbarri:** oraintsu janda, jan eta nahiko arin.
- janzahar:** aspalditxoan janda dagoena.
- janzaharrean:** janberritan ez, geroago baino.
- janzkunea:** janzteko era edo modua.
- jaramon:** 1 kasu egin. 2 jagon.
- jasa:** antza, itxura.
- jatordua:** jateko ordua orokorrean, bazkaria gehienetan.

- jatuna:** ondo edo eta asko jaten duena.
- jaunekobean:** jo eta ke.
- jauskera:** jausteko era.
- jazoa:** ume jazoa, ezkongabetan izandako umea edo ezkontzaz kanpoko haurra.
- jentilbolak:** harrizko bola biribil handiak jentilen jolaserako.
- jentilkumea:** jentilen umea.
- jolin:** Gaztelaniazko “joder”-en eufemismoa.
- gorraa/jorrea:** jorrazteko ekintza.
- gorraia:** aitzur txikia.
- jorratu:** landare inguruko lurra lantzea.
- Josafaten landa:** (sineskera) beste mundura bideko landa kontu-hartzailea.
- josita:**-z *josita*: beterik, asko.
- juboia:** barruko elastikoa, mahukaduna zein mahukagabea.
- juboi-hutsik:** juboiarekin bakarrik aldean.
- juramentua:** maldizioa, juratzea.
- juramentuka:** maldizioka, txorigorriak botatzen.
- ka/ kia:** ez, ezetza, *bai zera!*
- kabila:** burdina-ziria katetik uztarrira lotzeko tresna.
- kabrerua:** ahuntzaina, ahuntz-artaldea edo taldea duena.
- kabrioa:** gapiroa, teilatuaren gailurretik teilatu-hegaletara datozen habeak, gainean oholak josi eta gainerago teilak ipintzeko.
- kabrunkunea:** karbunkoa, ganaduen gaixotasun mortala. Gazt. “carbunco”.
- kakadario:** beldurrez kaka dariola, beldurti.
- kakokoa:** zartagineko gazigarria (pernila, urdaia, lukainka).
- kalamitatea:** desastrea, itxia, galdua, ganorabakoa.
- kaletza:** umore txarra, izaera temosoa, protestoia.
- kamarea:** ganbara, goitegia, etxe edo eta abarren goiko parteak, sikurako.
- kaminera:** kamino ertza, kamino ertzean dauden etxeak, etab.
- kaminerua:** kaminoak jagoten ibiltzen ziren Diputazioko langileak txapel gorria buruan zutela.
- kamino-bidea:** kaminoa, errepide asfaltatua.
- kamino-zubia:** harri, zementu edo asfaltozko zubia, gurdiak, autoak eta abar pasatzeko; zurezkoetatik egin ezin zena zein apurtu.
- kana/ kanea:** neurri mota bat. Gazt. “vara de medir”.
- kana t’erdi:** neurri mota bat. Gazt. “vara y media de medir”.
- kandelargia:** kandela bidez egiten zen argia.
- kanikula:** udako bero sano handia.
- kanila:** artaburutik artalorera doan lasto zatia.
- kankailoa:** baldarra, trauskila, handitzarra-
- kanpantxoa:** dei-kanpai txikia(sakristietan, komentuetan...).
- kanponazinoa:** kanpotar nazioa, gure naziotik kanpokoak.
- kanporamartxo:** garizuma aurretxoko txitxi-burruntzi eguna, igandez, hauts-eguna baino domeka bi lehenago. *Hurrengo domekea: etxeramartxo.*
- kanposantua:** ortusantua, hilerria.
- kantina:** ura eta abarretarako neurri ezberdinetako ontzi bat.
- kantzontzilo-hutsik:** galtzontziloekin bakarrik, praka barik.

- kapoia:** oilasko irendua loditzeko.
- kaponada:** kapoiak loditzeko zurezko edo burdinazko sarea duen armairua.
- karaubi / karobi:** karobia, karea egiteko zuloa, lurrezkoa edo harrizkoa.
- karbunkoarena/ karbunkunea/ kabrunkunea:** ganaduen gaixotasun mortala. Gazt. “carbunco”.
- kardena/ gardena:** kolore berdexka, kardeniloaren jasekoa.
- kardulatza:** kardu belar mota bat, oso latza eta kaltegarria sororako.
- karela:** zaran edo otzarak goian daroana zurezko aroa edo txerrintola.
- karga:** 1 karga, pisua. 2 mozkorra.
- kargera:** ikatz-txondorraren erdiko haga/habea.
- kargu egin:** aditu, begiratu, zaindu, jagon.
- kargutu:** kargua hartu, aditu, ohartu.
- karran:** karraderan, arineketan, korrikan.
- kaskondua:** ume hazitxoa, mutikoa, buruko kaskezurra itxira daukana.
- kasulla:** abadeak meza emateko erabiltzen duen soinekoa, burutik sartuta.
- katiga:** katea.
- katrea:** lehenengotako hamaka edo tunbona.
- kausatu:** zergatia izan, ondorioa izan, motibo izan.
- kazan:** ehizan.
- kazaria:** ehiztaria.
- kebrantaitzurra:** sakon aitzurtzeko aitzur nagusia, bideak egiteko.
- kedarrea:** tximinia barruetan egiten den ikatz modukoa.
- ketea/keta:** kedarra edo antzekoa, zapore gazi edo astunekoa. *Keta baino gaziago dago* (esaera).
- ketoa:** motela, paratua, odolbakoa.
- kia/ka:** ez, ezetz.
- kikiribuelta:** burua hanketan dela buelta egitea. Gazt. “voltereta”.
- kinki(l)larranak:** arran mota bat, ardiak udagoienean mendian zehar eroateko.
- kintadea:** herriko kinto-lagunen taldea (lehen 21 urte).
- kintxoa:** ondasun partea: dirutan, generotan zein herentzian.
- kiputu:** atzamarrak zurixkatu, hozmindu, moteldu, beratu, bigun-zuritu urak edo hozak.
- kiratsa:** usain astuna.
- kirikiñusia:** gaztainadietako gaztaina-kirikinoak pilatzeko hesia, egurrezko zein harrizkoa.
- kirimillak:** kilikiak.
- kiskaldu:** kiskali, erre, kixkortu.
- kiskortu:** siku-siku egin, tustatu artagaraua, etab. irin xehea ateratzeko.
- kitutu:** kitatu, ordaindu.
- koita:** aitzakia, tekla, diskulpa.
- koitadu/da:** gizagaixoa.
- koiu:** harrapatu.
- kokaldea:** ardien paparraren inguruko gaixotasuna.
- koko:** (ume-berbakunea) txokolatea.
- kokorio:** leloa, malbakoa, enbelekua, artaburua, ganorabakoa.
- kokotea:** zaputza, idunaren atzea.

- kokoterre:** kokote eskasa, argala, zuloa eginda duena.
- komerentzia:** komenentzia. Gazt. “conveniencia”.
- komertaziona:** elkarrizketa.
- konkea:** aitzakia.
- konortea:** sena, zentzua.
- konprimentu:** inportantzia.
- kontaderia:** kopurua.
- kontraterrenoa:** zelai edo lau ez dagoena.
- kopau:** janari mokadu.
- kopla:** broma, bertso-mota.
- kordela:** estukia. Gazt. “cuerda de atar”.
- kordena:** ik. **kardena**
- korkobatu:** makurtu, borobildu (minarekin edo adinarekin).
- korta-ganadua:** kortako ganadua, domestikatu.
- kortatxia:** korta barruan txerriaren txerri-korta.
- kortikea:** zikinkeriazko azala, kostra.
- koska:** ozka, zuloa, hobia, sakonunea.
- koskorondokoa:** buruan kosk edo koskot egitea.
- koskot:** buruan kosk edo koskorrekoa ematea: *atxea motxea*, jolaseko zigorra.
- koskotekoa:** buruko kolpetxo.
- (k)ota:** oilategi edo kortan oiloak lo egiteko haga(k): *oil oak (k)otan dagoz gauaroan*.
- kotejazinoa:** neurria, zenbatekoa.
- koxitza:** uzta, fruitu, emaitza.
- kozinea:** sukaldaritza(kasu honetan eskolako jantoki berezia: bakoitzak etxetik daka-
rrena eskolako sukaldariak prestatzeko).
- kozkot:** buruan “koz” edo koskorrekoa ematea: *atxea motxea*, zigorra.
- kreditua:** batangan sinistuta, fidatzea, fama, sinesgarritasuna.
- kuadroa:** egoera, situazioa, biziera (esamoldea: hau da kuadroa!).
- kuartilua:** litro erdi.
- kukurrukua:** oilarra.
- kuku-fraka:** kuku-garaiko lore lila berezia.
- kukukumea:** kukuaren umea.
- kuku-sagarra:** haritzaren adarretan sortzen den sagar itxurako bolatxo.
- kurebioa:** liztorra. Gazt. “avispa”.
- kurra:** (ume-berbakunea) oiloa.
- kurtzelua/ kurtzulua:** kriseilua.
- kurtzeroa:** bidegurutzeta.
- kurtzulua/kurtzel(l)ua:** kriseilua, argi-mutila. Gazt. “candil”. 1 Lehenagoko argia egi-
teko ontzia, barruan oiloa eta erdian metxa. 2 Geldi edo gutxi mugitzen den per-
tsona edo animalia, geldoa, zeinakio dagoena.
- kuskurra:** ogi zatia, normalean ertzekoa.
- labainkera:** labaintzea, labaintzeko era.
- labegurra:** laberako, labeko surako egurra.
- labesuginen:** labesua egiten.
- labigarra:** artaburuak labean berotu eta sikatzeko ekintza, labigar osteko arto-ehoa
bahetu edo eralgitako.

- laborea:** zereala, soro-beharra.
- labrantza:** laborantza, soro-beharra baserrian.
- lagunabarra:** norbere ideiak, maila edo neurriko laguna.
- lagundutalde:** laguntzearen truke.
- laia:** burdinazko adar luze bi dituen tresna zaharra.
- lain:** beste.
- lainabehera:** behe-lainoa.
- laitegia:** ardiari belarrian egiten zaion laia itxurako marka.
- laktza:** arbola enborretako adarkia edota laztasuna.
- lana:** era bateko edo besteko zeregina edo ataza (artajorra, gari jotzea, ira ebakitzea, ikatz egostea, etab.).
- lanbera:** elur-euria.
- landar/-a:** landa utzitako soroa edo laboratzeko erabiltzen ez dena. Gazt. “barbecho”.
- lantegia:** etxea, laborantza-soroa, basoa eta abarretako zeregina. Behar egiten den lekua, beharlekua.
- lantzean:** noizean behinean.
- lapazorria:** zorria. Gazt. “piojo”.
- lapikotxa:** lapiko txikia.
- lapraskada:** labainkada, irristada, labaintzea.
- laratza/ laratzu:** behe-suko tximiniatik egostontziak eskegitzeko arandeladun burdin tresna.
- laratzak ezagutuko du:** (esaera) eguneroko bizitzak ezagutu.
- lardangaina:** gehiegi, larregi, lardanbeste.
- larraina:** etxe aurreko harrizko zelaigunea.
- larratu:** kanpora bota, aldendu erazi, urrundu (pertsona zein animaliak).
- larreetia:** larrapotea, kakarraldoa.
- lasiertuna:** ganaduaren gaixotasuna, errapeak gogortzen zaizkiona. Gazt. “mamitis”.
- lastamarragea:** arto-kapaxaz egindako koltxoia.
- lastargia:** gari-lastoz edo antzekoekin egiten den zuzia, tortxa gisa erabiltzeko.
- lata:** sororako egur-habezko hesi-pasoak.
- latigoan:** jo eta ke, biziki, aktiboki.
- lau-hankan:** pertsonak hanka eta eskuak zoruan direla ibiltzea.
- laurena:** laurdena.
- laurkindu:** lau zati egin, normalean gurutzetara.
- lausotu:** begiekin argi ikusi ez.
- lebadurea:** legamia.
- lebadurea ezarri:** labesu aurretik ogi-errariari legamia botatzea, masa jagiteko edo hartzitzeko.
- lebrea:** demasa, ugaria, handia.
- lebrea egin, atera, jan, erabili, bota:** edozein ekintza demasa, ugaria, handia egin.
- legarra:** ardi eta abarren gatzagia. Legar natural edota kimikoa esnerik hara gazta egiteko erabiltzen da, legar bidez esnea solido egiten da. Legarra, gazta ezeze putxa edo gatzatua egiteko ere erabiltzen da.
- legoa:** meza eman bako fraidea, anaia.
- lehenago moro:** (esaera): ezergatik bere ez lukeela ekintza hori egingo.
- lehengo egun baten:** orain dela egun batzuk.

- leihoa:** hormetako marko eta kristal bako leihoa.
leitza: izoztea (gau hotzak ematen duena).
leizea: kobazuloa, haitz-bitarte handi oso sakona.
lekutara: urrunera.
leloa: tentela, inozoa, baina gizonezkoari esaten zaiona edo animalia arrari.
lepoa berotu: jo.
lepo bete eman: lepoan jo-jo egin.
leporikoa: kaltegarria.
lepozuria: alferra, nagia, lanari fit egiten diona.
lerdena: elegantea.
letania: Jainko, santu eta santa jarraian izendatu eta erantzuteko otoitza.
letrerua: iragarki edo abisu idatzia.
letxadea: kare eta urarekin egiten den nahastea.
letxea: jenioa, umore txarra, kaletra txarra.
lexiba/lexia: lixiba, arroparen garbi-ikuzia, bokata.
lexiba jo: lixiban beratutako lihozko izarak-eta jo-jo egiten ziren harrian eta gero akla-
ratu erreka-urean edo labaderoan.
libratu: jaio, erdi, umea izan.
limitadua: muga.
limonadea: edabe bat, gaseosa antzeko freskagarria.
linaza: liho-hazia erne eta belarrean dagoena heldu arte.
linderoa: muga, muna, basoan arbola-ilara muga bereizteko.
lo arrazo: umeari lo egiten lagundu loak hartu arte.
lo bat: gau bateko loa.
lo-korroa: korronka, zurrunga. Gazt. “ronquido”.
lolo: (ume-berbakunea) lo egitea.
lopetxak: gaztaina mota bat.
lorra: zerbaiti buruan bueltak eman, hausnarketa sakona.
lotu: 1 geratu. 2 estu, amarratu.
lotsa-galdua: lotsa galdu duena, lotsabakoa, lotsagabea.
lotsa-gedarrez: lotsatuta kedarrez, oihuka.
lotsaria: lotsa handia.
lo txarrekoa: lo ondo egiten ez duena.
lozorroa: lo sakona.
lukainka: txorizoa.
lumatu: hegaztiari lumak kendu.
lumorraztu: hegaztikumea lumaz jantzita.
lumorraztubakoa: 1 lumaz jantzibakoa. 2 heldu edo maleziabakoa.
lupetza: basa, lokatza.
lupua: kolore berdexka eta zitzaz beteko mamorroa edo “infernuko katua” deiturikoa
bere pozoi edo benenoagatik, horregatik erre egiten zen.
lurbela: lur iluna edo beltza.
lurmena: elurtzako elurra urtu eta lurra ikusten den tokia.
lurmendu: elurra urtu eta lurra ikusi.
lurra jo: lurra landu ereintzarako.
lustrea: betuna, distira ateratzeko erabiltzen dena.

- luzanga:** luzetxoa, luze xamarra.
luzettoa: luze samarra.
madarikatua: txarra, mantzina. Lat.: “maledicatum”.
magala: edozein soinetako luzeren barrenak.
magalotsa: arropa-magalaren zarata.
mahasdui: mahastia.
Maiazpazkoa: Mendekoste-eguna. Gazt.: “Pascua de Pentecostés”.
maila: eskailleraren edo beste zerbaiten zatia. Gazt. “grada, peldaño”.
mailuskatu: kolpe asko eman edo hartu.
maina: negarti-jokoa, murria. Gazt. “lloriqueo”.
maistrea: maistra, andereñoa. Gazt. “maestra”.
maitinesak: komentuetako goiz-goizeko errezoak.
majo: polito, ondo, dezente.
makala: argala, gaixo antza.
makatza: madari txikia, basokoa.
makera: txerrikumedun txerri emea.
makina bat: asko.
malbako: malezia gabeko.
maleta sikua: kozinatu gabeko jakiak, ogitartekoak, etab.
maletxorea: gaizkilea, mantzina, kalteak egiten dituena.
malta/ea: labore-hazi mota bat, txigortu eta eho ondoren kafe-hautsari nahasten zaio-na merkeago irtetzeko, txikoriarekin batera.
mama: (ume-berbakunea) ura.
mamala/-ea: tentela, inozoa, baina andrezkoari esaten zaiona edo edozein animalia emeri.
mamarroa: mamorroa, harra, zizarea, beldarra.
mamukioa: sendabelarra (haren ura zauriak osatzeko erabiltzen da).
mandaitu: handitu.
mandaulia: euli mota bat, ganadu kiratsera etortzen dena.
mandazaina: 1 mandoen zaindaria. 2 astakirtena, kankailua.
mankatu: zauritu, ezbehartu.
mantenitalde: lan egin mantenu alde, batez bere sein-lanetan.
mantzina: txarra, gaiztoa, okerra, gaiztagina.
mantzinkeria: gaiztakeria, okerkeria.
maraza/maraxa: eskasa, txarra, gastatua, klase eskasekoa.
maraztua: zaharkitua, gastatua.
mardo: lodi, sendo, gizen.
mari: marabedia (diru mota).
marijesiak: Gabonetan kantatzen ziren eta diren oles eta eliza kutsuko kantak.
markadora: artoa ereiteko ubideak egiteko tresna.
martikakatsu/ marti-kakatsu: zozomikotea (martiko azken eguna/k eta apirileko lehenengoa/k).
marti-oilarra: martian jaiotako oilarra, kantaria.
marti-zozoa: zozo mota bat, martian habia egiten hasten dena; txorietan lehenengoa habia egiten.
martxandera: arrautza eta hegazti eroslea, salerosketarako.

- maskalak:** txondorraren bazterretako hondakin erreak.
- maskelu:** esnea egosteko ontzia behe-suan larazetik eskegita.
- matarifea:** txerri eta abarrak hiltzen dedikatzen dena.
- materia:** zornea, zoltzaina. Gazt. “pus”.
- mau-mau:** (ume-berbakunea) jan, jatea.
- medelina/medilena/medialina:** deutsalako etxe, etxe barruko gela zein beste leku bat bitan banatzeko horma edo antzekoa separazioa. Gazt. “medianil”.
- mediginen:** mediak egiten.
- medratu:** mejoratu, ondu, irabazi.
- mehatzunea:** baso, soro edo antzeko zelai hutsunea.
- meko:** argala, makala.
- menda:** errotariak lansaria kobratzeko kentzen duen garau-eho neurria: gariari 48 kilo-ko 3,5 kilo eta artoari 10eko 1.
- mendia hartu:** bizenetoki berriari egokitu, ohiturak onartu, hartara egin.
- menester:** zeregina, eginbeharra, ekintza.
- merindafaria:** iluntzerantz egiten den janaria, sarritan soroan bertan.
- merroa:** eskasa, makala, argala.
- meta:** gari, belar, ira eta abarren pilaketa plegatua.
- metalura:** ur gorrixka, minerala nahastean dakarrena.
- metxotea:** 1 kokotean ile multzoa, koleta. 2 Galtzupoila edo belarrez eginiko zuzia.
- meza eraso:** meza ematen lagundu, akolito izan.
- mihian ar bakoa:** edozer esateko beldur bakoa.
- mihian ar barik:** berba egiteko ikararik gabe.
- mihian ulerik ez:** edozer esateko lotsarik ez.
- mihinean ar barik:** berba egiteko ez duela ikararik.
- mihisea:** liho-hariaz egindako ehuna, soinekoa, etab.
- mila-erreal:** 250 pezeta = 50 ogerleko (hogei-errealako) (lehengo diru neurri bat, oso erabilia).
- minazpikoa:** ardiari aho barruko gaixotasun bat. Gazt. “enfermedad de la lengua azul”.
- mintasuna:** ardura, gogoa, dolimintua.
- mira:** harrera, txera, kasua.
- mirakollosa:** berritsua, kuriosoa, inoren susman dabilena, dena jakin gurakoa. Gazt. “cotilla”.
- mirua(k) harra(ri) letxe:** (esaera): arin, berehala.
- miru-buztana:** ardiari belarrian egiten zaion urkulu antzeko marka.
- misinoak:** Aste Santu aurrean egite ziren gogo-jardunak.
- mitxina:** (berbakuntza) katua.
- mizkatu/mizketu:** gozo-zale edo jakietan kapritxoso edo selektibo egin.
- mizke:** kapritxoz beterik, eroso, bizi-gozoan.
- mizkeria lan gaizto:** (esaera): kapritxosoa izatea.
- mizmeru / miziru:** mizpira, oxorroa.
- modua:** 1 era. 2 dirua, aukera, ahalmena.
- modua egin:** dirua irabazi edo ondarea egin.
- modukoa:** 1 antzekoa, erakoa. 2 diruduna, ondasunduna, ahalmenduna.
- mokila:** lur zati gogorra eta boldroa; sokila.
- mokil-hausi:** soroko mokilak jo eta apurtu lurra birrintzeko.

- mokodario:** mukitsua, mukia dariola dabilena.
- mokola:** azala, arto-mokola, kapaxa.
- moko-pañelua:** mukizapia.
- mokorra:** zuhaitz enbor zatia, normalean sustrai aldekoa.
- mokotsa:** morrokota, hau da, hiru puntako ogitxoa erdian arrautza eta guzti.
- molinda/ea:** baragarria, ganorabakoa, buruarina.
- moltsoa:** ur-garbizakia egiteko erabiltzen den zapia, harrikoa egiteko, zorua igurtzi-garbitzeko.
- moltzo:** multzoa.
- morokila:** arto-irinarekin egiten den jaki biguna.
- moropila:** korapiloa.
- morrala:** sorbaldatik eskegita eramateko zakutoa.
- morroilada:** txerria hil ondorengo odoloste eta abar jatea.
- morrokota:** mokots.
- mortalak:** handiak, ikaragarriak.
- motxoa:** txikia, txatoa, eskasa.
- motza:** itsusia.
- moxal:** agi/agiri adierazteko.
- mugarria:** munarri, mugak adierazteko harria azpian teila zatia duelarik testigantzarako.
- mugarrian sartu:** (esamoldea) *inoren mugarrietan sartu*= inoren kontuetan sartu.
- muna:** soroko ertza.
- munarria:** mugarria.
- munarritu:** munarriak sartu azpian teila kasko bat dela testigantzarako.
- mundurik aramaio:** (esaera): mundurik zehar, hortik zehar, bideak betean ibiltzea.
- murria:** maina, maina-negarra, borroa, kexati egotea.
- muski(n)a:** hondakina.
- muskildu:** erdi-janean eta nahastuta uztea janaria.
- musturra:** muturra, sudurra.
- musturtu:** haserretu.
- musturraldi:** haserrealdia.
- mutildu:** ilea edo artilea ebaki labur-labur.
- mutxurioa:** eskuz egindako meta txikia.
- nabarra:** arrea, beltzaxka.
- nabeta:** intsentsu hautsa edukitzeko barku erako tresnatxoa.
- nagiak atera:** besoak eta abar luzatu. Gazt. “desperezarse”.
- nahaste:** (enklitikoa): batera: *urliaz nahaste edo batera*.
- nahiera:** kapritxoa, apeta.
- nahinoiz:** noiznahi, edozein unetan, momentutan.
- nahinon:** nonahi, edozein lekutan.
- nar egin:** lurra, haitza, etab. goitik behera jausi, erori, berez edo uriolarekin.
- narraz:** arrastaka.
- narrua jo:** txotxoka egin, untzea jo, sexu harremanak izan.
- narrukoa:** kolpea.
- nebera:** leia lortzeko zulo berezia, elurrez bete eta leia lortu, elur-zuloa.
- negar baten:** negar eta negar geratu barik.

- negarranpuluu:** negar-malkoa.
- negu-arrana:** arran handia ardiak hobeto kontrolatzeko mendian.
- neuk egin/ egiten / egiten izan dut / nuen ba!:** (esamoldea) *banengoen ba ni!* Gazt. “¡ya decía yo!”. (zuka zein hitanoz)
- neuk esan / esaten / esaten izan dut / nuen ba!:** (esamoldea) *banengoen ba ni!* Gazt. “¡ya decía yo!”. (zuka zein hitanoz)
- neure burutatik:** (esamoldea) neure kabuz.
- nobioerdia:** hasi berritan dabilen senargaia.
- noizago:** hurrengo noiz?
- noizgura:** gura duzunean.
- notatu:** apuntatu, markatu, seinalatu.
- oboan-oboan:** inguratuz-inguratuz; bueltan-bueltan; ingurumarian.
- odeia:** inizitua eta trumoiak dakarren hodeia (*bodeia dakar, bodeiak jo...*).
- odol malauria:** zauri zoldu bateko odola, zoltzairikakoa.
- odol txarra egin:** haserretu, disgustatu, mindu.
- odolak ur egin:** (esaera) haserre amorratua, disgustu ikaragarria.
- ogi-erraria:** laberako eta laberik harako ogia, artoa eta abarrak.
- oheadarra:** ohe mota batzuen lau ertzetako goranzko apaingarria.
- ohekuxa:** 1 lehenagoko ohe motaren aurrealdeko eta atzealdeko zurezko zatia eta sarritan lau ertzetan ohe-adarra apaingarri lez. 2 katrea edo hamaka edo lo egiteko kutxa.
- oilaloka:** oiloa lokatuta arrautzak ezartzeko.
- oilaluma:** oiloaren luma (oherako aurtikoa).
- oila-lurra:** herrilurra, lur komunala, edozeinena, eskrituratu gabea.
- oinberdinka:** oin biak batera direla saltoka.
- okarana:** arana. Gazt. “ciruela”.
- okasino:** hileta, hileta-meza, funerala.
- okela:** haragia.
- okelua:** bazterra.
- olata:** hileta hurrengo igandean eskaintzen den meza.
- oldu:** usteldu.
- olgatu:** jolastu, jokatu.
- oloa:** zereal mota. Gazt. “avena”.
- ondo esan:** ondo tratatu.
- onezean:** onean intentzio onean. Gazt. “a buenas”.
- oraindo:** oraindino.
- oratu:** heldu, eutsi.
- orbela:** orri iluna, udazkenekoa.
- ordotsa:** txerri ar gaztea.
- orduan:** 1 eta gero; ondoren. 2 beraz.
- orea:** arto-irin edo irina eta urarekin egiten den nahaste edo pasta (hegaztientzat hutsean, gainetikoontzat, legamia eta gatzarekin ere bai).
- oritza:** txahala egin berritako esne lodia.
- orkolo-hatza:** eskuko hatz lodia.
- oroak eta moroak:** (esaera) gauza asko eta handiak lortu.
- orpoetan ar barik:** esaera: arin be arin, apatx-hotsean, bizkor-bizkor, abantean, abia-dan.

- orpo-gorria:** ume jaioberria (orpoak gorri-gorri izaten dituelako).
- orrigenen:** orriak batzen, ebakitzen.
- orroaka:** ganaduen zein tripetako haize edo gosearen hotsa.
- ortozik:** oinutsik.
- ortuaria:** ortuan lortzen dena, aza, porru, kipula, etab...
- ortusantua:** hilerria, kanposantua.
- ostean:** osterantzean.
- ostera:** ordea.
- osterantzean:** bestela.
- ostondu/ ostendu:** estaldu, estali.
- ota/ote:** sugin oneko landarea. Gazt. “argoma”.
- ota:** ik. (k)ota
- otaka:** sugin oneko landarea.
- otegurra:** ote egurra.
- otoz otoan:** ustekabea, sorpresaz.
- otsina:** ur-putzua (normalean egin egiten da, harriz edo zurez).
- otsin-iturria:** putzudun iturria, emoia azpitik daukana.
- oxorroa:** mizpira, mizmerua / mizmirua.
- ozka/ea:** koska, zuloa, sakonaria, hobia.
- pa:** (berbakuntza) musua.
- padura:** lurralde urtsua.
- pagadi:** pagadia.
- paia:** ahatea.
- pajarra:** ohea, lastamarrazkoa zein modernoagoa.
- palatua:** lur zapalduzko hesia.
- palukazu:** paluaz jotzea.
- pamitxa:** ogi txikia eta erdi zapala.
- papa:** (ume-berbakunea) ogia.
- papaokeria:** lelokeria.
- parajea:** lurraldea.
- parauezinbakoa:** geldi egon ezin dena, mugikorra.
- parkeske:** barkamena.
- párteak:** gizon-emakumeen sexu-organoak.
- parte-txarrekoak:** mito-pertsonai txarrak.
- partidea:** asko.
- pasatuta:** sustatuta.
- pastorea:** ardi, zaldi, behor, herri-behi, basa-behi, mando, ahuntz, etab. zaintzen dituen. Gorbeialdean erabiltzen da. “Artzain” hitza ere, “ardi-pastorea”.
- Pater Noster:** latineko otoi-tza, euskaraz: *Aita gurea*, lehen; gaur *Gure Aita*.
- pauta-pauta:** geratu barik, ganoso.
- paxa/paxea:** lehenago ume txikiei gerrian biribiltzeko asko erabilia. Gazt. “faja”.
- Pazkoazkoagaz bete/kunplitu:** Eliza Katolikoaren antzinako agindu bat, hots, urtean behi konfesatu eta komulgatzea. Normalean, Pazko egunean betetzen zen agindu hau, Aste Santu aurretikoko ejertzizioen ondoren aitortza orokorra egin eta gero.
- Pazko-zirioa:** Zapatu Santu gauerdiko mezan bedeinkatzen den zirio edo kandela nagusia.

Pedro Botero: deabrua (esaera): *Pedro Boteroren galdara*. Infernua edota deabrua adierazteko modu bat. Esaterako: “Inpernura joango zara” esateko “Pedro Boteroren galdarara joango zara”.

pegatu: 1 itsatsi zeozer. 2 sartu, egin: *ederra pegatu*=ederra sartu, faena bat egin.

pekatu astuna: bekatu mortala.

pendiza: aldatza, aurgora, aldapa.

pentsua/prentsua: ganaduen janari sikua, garaua zein konposatua.

perra: ferra. Gazt. “herradura”.

pertxeta: aibela, airoa.

petoa: burkamaren atzeko parteko zatia edo ateratzen dena.

pinu-sartzea: pinu landarea sartzeko ekintza.

pipiladura: oilo-narrua pertsonetan. Gazt. “carne de gallina”.

pispit: txatxamarka egin, atximurka, pitxikaka egin. Gazt. “pellizco”.

pitantza: errotariak diruaz barik irinetan kobratzen duena.

piti(a): apur(ra), txiki(a).

pitxina: pitilina, zakila.

pizarra: marko baten barruko arbel beltza, eskolan pizarrinarekin idazteko.

pizarrina: eskola-arbelean idazteko arbel biguneko idazkailua.

plageak harturik: (esaera): gehiago lortu nahian, afanean.

plastada: 1 zeozer jotzearen hotsa. 2 lupetzan jausi eta prakak ipurditik zikintzea.

podesuz: poderioz.

poilak: galtzu zein lihoarekin egiten ziren kargatxoak edo eskutak.

popo: (ume-berbakunea) autoa.

porreak buruan jo: (esaera) azkenera arte itxaron.

porrika: tenaza handia, luzea.

porrot: (ume-berbakunea) puzkerra.

postura: apustua.

potondegia: elizetako ponte edo bataiatzeko harria.

potontzia: potondegia, elizetako ponte edo bataiatzeko harria.

potroak: barrabilak, parteak.

potro-boltsak: barrabilen gaineko narrua.

potxingoa: euri osteko edo zer edo zerk sortutako putzu txikia.

prefektoa: lehengo barnetegi-ikastetxeetako irakasle zaintzailea.

presondegia: espetxea, kartzela.

pupua: mina umeen hizkuntzan edo berbakunean.

purgatorioa: elizaren katekesian, mundu honetatik zeruan sartu aurreko arima garbitzeko tokia.

puskat: puska bat, apur bat.

putxa-putxa: bigun-bigun.

putxea: gatzatua. Lat. pultes > gazt. puche.

puzka/puxka: pizka/pixka, apurra.

refektorioa: jantokia adierazteko latinetik berba. Gazt. “comedor”.

-ri deutsal: ondo-ondoan.

-rik gehiago: ordurik/-tik hona: *txikitarik gehiago*. Gazt. “desde”.

-rik hara: -tik segituan; -tik hur; aldetik.

sabia: mintegia (hazia erein eta landarea lortzeko lur-landu hesitua).

- saia:** putrea.
- sai-pozoa/putzua:** saien igerilekua, saiak ura edan edo igeri egiteko putzu, osin edo iturria.
- sakamantekasa:** umeei beldurra sartzeko erabiltzen zen izen mitikoa, (harako, Araba aldean bizi zen benetako “sacamantecas” horren ondoriorik harakoa).
- sakonaria:** sakontasuna.
- sakristau:** elizako laguntzaile ofiziala.
- sakristania:** sakristia.
- sakristia:** elizan, apaizak jantzi eta abarretarako gela.
- saldamenteuak:** gaztaina mota bat.
- salga/salgea:** mehea, mehatza, maraza, (*ehun salgea* = lienzo o paño poco espeso).
- sama/samea:** iduna, lepoa.
- sama-sikua:** egarribera, edalea.
- samazarratua:** afoña, berba egin ezina.
- sandoniak:** San Antolinak.
- sano:** oso.
- sarea:** 1 harizko tresna. 2 ganaduentzat zurezko eskailera erakoa aska gainean.
- santiamen:** denbora gutxian, arin, berehala.
- saputzak:** soroa lantzerakoan ateratzen diren belarrak.
- sartzamendia:** iluntzean eguzkia sartzen den zeru-lur toki, mendebaldea.
- sasikoa:** ezkongabetako umea (peioratibo kutsukoa).
- saskila:** zikina, lohia, itxia, ugerra, ugerdoa.
- sastaparra:** edozelako zera txiki bat, belar, egur eta abarrezko bat.
- sataia:** egur-palanka burdina ez iraultzeko, kontrapisua egiteko.
- satarra:** sagu arra.
- satorjoa:** satorrak jotzen duenean egiten duen lur birrin pilo satorzulo gainean.
- satsa:** ongari naturala, simaurra, gorotza.
- sedazko boltsa:** aldi bateko zetazko poltsatxo dirua eramateko.
- segun itxura/itxurea:** antza denez, itxura denez.
- seguru:** antza, dirudienez.
- seiszientosa:** aldi bateko automobila.
- sekulabedarra:** sekula belarra, hirusta mota bat.
- sekula santan:** inoiz ere ez.
- sentzain:** seintzaina, haurra edo umea zaintzen edo jagoten duena.
- sepultura:** eliza barruan familiako hildakoak gogoratzeko toki, kandela, tapetea eta estipendioak bitarteko.
- serora:** abadetxe eta elizako andere arduraduna.
- sikeran/ sikieran:** gutxienez, sikiera.
- siria:** lehenagoko moneta mota bat.
- sitsa:** zedena, egurra zulatuz jaten duena.
- sobea:** gurtedea, uztapean gurdia kama-punta edo gabitxo sartzeko uhalezko zuloa.
- sobrestantea:** kamineroen arduraduna edo nagusia.
- sokil:** lur zati gogorra eta boldroa, mokila.
- soldadiska:** soldaduska, soldadu denbora.
- soliba:** baserrietako solairuetan ohola josteko azpiko habeak.

- solibaria:** etxe baten soliba kopurua, soliba gauza.
sor: mugimendu gutxikoa, astuna, gogorra.
sorki: trapua, ontziak-eta sikatzeko, buruan ipintzeko erradapean-eta.
sorots egin: zelatatu, sorotsi.
sorotsi: sorots egin: zelatatu.
sosegatu: lasaitu, baretu.
sotana: apaizen soineko beltza.
subea: sugea.
subil/a: zuhaitz enborra.
suela eman: kanpora bota.
suetea/sugetea: sukaldea.
sugegorria: bibora.
suge-bedarra: suge-belarra, orri berde-ilun eta artaburua lako lore edo hazia duen belarra eta antza, arriskutsua sineskera zaharren arabera.
sugin: sua egiteko ona, egokia.
sumika: erretxinak, soroariak edo egosteak uzten duen mantxa berezia.
sunda: usaina.
surgua: kanala, ubidea.
surtea/ surta: beheko sua sutan, edozein su, su artea.
susara: behia bero edo araldian egotea.
sustosartua: aurreko sustoen eragina kendu barik.
sutegia: errementarien-eta burdina berotzeko sutokia.
taiua: taxua.
tajua: patxada, fetura, fundamentua.
taka-taka: (ume-berbakunea) oinez ibili, oinez ibiltzea, batez ere lehenengoz egitea.
talaburrina: talo burdina, taloak erretzeko asto eta guztizko burdina zapala.
taloa: 1 arto-irinezko errari mehea. 2 lupetzan jausi eta ipurdian zikin-plastada bat egitea.
talo jagia: legami eta guztizko taloa, gehienetan ogi-irinezkoa.
tantaia: egur luze eta lodia, enborra.
tantuxenaldia: joera-txanda, joera berezia, normala ez den zertara-hartara buruak ematea.
tarratada: tela edo arropa bat apurtu edo arrakalatzea. (gazt. desgarru)
tas-tas: (ume-berbakunea) jotzea.
taupadotsa: bihotzaren taupada bizkorra.
taxua: itxura, forma.
tejamana/tejabana: belar sikua eta abar gordetzeko txabola nagusia.
tekla: aitzakia.
tenola: indarra, gogoia, animoa, adorea.
tentadu: ukitu.
tentazar: burlatzar, adarra jotzen.
tertzio: garaia, sasoa, goiza, ordua.
-tik gehiago: -tik aurrera.
tinakoa: urdaia, zezina eta abarri gatz emateko aska berezia.
tinterrik: ezerez, batere ez, ezer (negatiboa ez denean).
tipirrika: urduri, saltoka, artega.

tirada: bide luzea, bide arloa.

tiragoma: aldi bateko jolas-tresna urkulu batetik lotutako goma bidez harriak botatzeko txori, pizti eta abarrei.

tirauzu: erdu, zatoz!

tirauzue: erduzie, zatozte!

titi-harria/k: lehenago amak sama edo idunetik eskegita erabiltzen zituen harri/harriak umearentzat titi ona eta ugaria edukitzeko, zein lasiertuna edo mamitisa (bular-gogortzea) ez harrapatzeko.

toilara: etxeko atzealdea, sagardo, txerri-gauzak eta abarretarako.

tokadak: hil-kanpaiak.

tokamena: txanda, tokatzen den arloa, banaketa.

tolestu/tolostu: antolatu, plegatu, atondu.

toto: (ume-berbakunea) txakurra.

tragastu: soloa lantzeko tresna den tragasa erabili.

tragatu: animalia bat berez edo norbaitek hil, ateko ez den pizti bat norbaitek edo berez hil. Pertsonentzat ere erabiltzen da lagun artean.

trailak: artilezko kordelak.

trajura: itxura, patxada.

tranpako atea: kortara jaisteko barruko eskaileretako atea.

traparea: area mota bat, itsua eta haginak laburrak eta atzerantz dituen, garia erne eta gero mokilak apurtzeko erabiltzen dena gari landareari kalterik egin ez egiteko.

trastoa: okerra, bihurria, nahasteroa.

trauskila: ganorabakoa.

traustik: deusik, ezer.

trebera: hiru hankako tresna su gainerako eta gainean lapikoa.

trebitua: buruhaustea, gatazka, nahastea.

tremendoa: handia, oso handia.

tremesa: gari zahi edo azal eta guztizko ogi mehea, osoko ogia.

trepetxu: laborantza-tresna, lanabesa.

trikimailu: azpikeria, tranpa, burlatzar ekitea.

tripalak: tripa edo sabeleko minak.

tripiskildu: zati-zati egin; apur-apur egin.

troka-arroa: errekarri edo erreka inguruko troka.

trolebusa: lehengo autobus elektrikoak, pisu bat zein bikoak.

trongoa: enborra, habea/haga.

tronkala: etxaguntzan aitak semeari etxea-eta herentzian ematea.

trontza: binakako zerra handia enbor lodiak ebakitzeko.

tumulua: lehenago hiletetan aldare aurrean jartzen zen atauta edo zerraldo itxurako tramankulua. Gazt. "túmulo".

turrumutua: zarata sano handia.

tutua: uzkia, ipurdiko zuloa, edozeinena, baita andrazkoen alua ere.

txaflanean: inklinazioan, erdi-etzanean, gobada edo garia jotzeko harria eta abarretarako legez, aurrea behera eta atzea gorantz heinean ipinita.

txahal: behiaren umea (zekorra zein urrixa).

txahala soltatu: txahala behiaren erro edo errapera bota esnea edateko.

txahal-galdua: abortuz jaioa edo hilda jaioa.

- txakarra:** ametza edota artearen jaseko zuhaitza, orriak haginadura eta guztizkoak eta orrien kolorea artearena baino berdexkagoa, orri iraunkorrekoa. Egur gogorra, gurdiazen larakoak-eta egiteko erabilia. Gazt. “chaparra, coscojo”. Chaparra, prerromanikoa? Ikus J. Corominas.
- txakur-amesa:** txakur ametsa, iratzarririk ametsetan.
- txakurra:** 1 animalia. 2 diru mota bat (txakur handia, txakur txikia/ txakur txikerra).
- txakurrandia:** txakur handia, moneta mota bat. Gazt. “perra gorda”. Pezeta baten hamarrena (lehengo txanpona).
- txakurreztula:** eztul mota bat, txakurraren itxurakoa.
- txakurtxikia/txakurtxikerra:** txakur txikia/txakur txikerra, moneta mota bat, txakur handiaren hamarrena. Gazt. “perra chica”.
- txalma/txalmea:** asto-zaldikiei aparejuen azpitik jartzen zaiena. Gazt. “albarda”.
- txalua:** batezaurrekoa, berritsua, berbalapikoa, leloa.
- txamilotxa:** amilotxa (txori mota).
- txanfaina/ txanfainea:** fetxoria, zeregin, eginbehar edo beharleku nahastetsua.
- txangori:** sargori antzeko beroa.
- txanka:** hanka mehea, eskasa, gazteen hanka.
- txankerrea:** hanka meheak edo argalak dituena.
- txantxetan:** brometan, burlatzar, adarra jotzen.
- txantxila:** 1 eskasa, urria, mehea, etab. 2 ganorabako samarra.
- txantxurra:** (ume-berbakunea) hagin irten berria.
- txaramela:** 1 ate osteetako pasadora. 2 berbatia, mihia solte darabilena.
- txarka:** ondo ez dela.
- txarka be:** (esamoldea) ondo egina ez dela bere, egin bakoa baino hobea: *pertsona hau txarka be bestea baino hobea. Eguraldi hau txarka be bestea baino gurago. Tertzioan ereitea txarka be belu ereitea baino hobe*, etab. (erabilera asko ditu).
- txarrezean:** modu txarrean, kontrara, haserre. Gazt. “a malas”.
- txatxa:** (ume-berbakunea) sagarra.
- txatxamarka:** atzazalak edo azazkalak haragian sartu igurtziaz.
- txera:** abegia, agurra, mira, harrera.
- txerria-hiltekoa:** patarra, anisa, anis arrunta.
- txerri-korta:** korta barruan txerria egoten den gelatxoa.
- txerrikuma:** txerrikumea, txerriaren umea.
- txerrinka:** gurpila, erruda.
- txerrintola:** egur, alanbre lodi edo zinezko jolas-gurpila.
- txerriokarana/ txerri-okarana:** basa-haranondo, elorrantza edo elorri beltzaren fruitua. Gazt. “endrina/o”.
- txetxe:** umea, umea beste ume batentzat.
- txibita:** zeozer jotzeko tresna, zati batekoa edo zeozerekin lotua, palu mehea, barda.
- txibiz:** inbidiosoa, kapritxosoa.
- txibizkeria 1:** gozo-egarria edo gogoa, kapritxoa.
- txibizkeria 2:** ikusi-ezina, inbidia.
- Txibizao:** “Txibisao/Txibixao” < “txibiz hago”-tik sortutako toponimoa, Dimako Lamindaon Petralandapeko akelarre lekuari jarritakoa hango ingurukoek.
- txikerra:** txikia.
- txiki:** diru mota bat.

- txilindroia:** gariaren ernaro osteko mokil-sokilak birrintzeko hagindun tresna.
- txilio:** animalien irrintziak zein pertsonen hotsak edo berbarotsak.
- tximistorratza:** Gazt. “pararrayos”.
- tximur:** zimur.
- txina:** (ume-berbakunea) dirua.
- txindorra:** 1 txantxangorria. 2 begiko garau edo zaldar zoldu berezia. Gazt. “orzuelo”.
- txingarra:** egur-brasa.
- txirgora:** babazuza, txingorra.
- txirran:** bueltaka-bueltaka, bilinbolaka, airean botata.
- txirripitixioa:** txorien kantua.
- txirripiztada:** txipristina.
- txirritxirria:** girgilua, kilkerra.
- txiskeru/o:** txiskeroa, metxari-edo sua emateko harri txispadun tresna.
- txispa:** mozkorra.
- txispatu:** mozkortu.
- txisposean:** txispak dariola, garretan.
- txistada:** txissst dei-hotsa.
- txita:** arrautzarik harako oilakia.
- txiterdi:** berba erdi, hitz erdi.
- txitik atera:** hitzik egin.
- txitxia:** (ume-berbaikunea) okela, haragia.
- txitxiburduntzi:** urdai, lukainka eta gainetikoak burdinazko zein zurezko burruntzian erretzea. (Esaera: *errementariaren etxean zotza burduntzi*).
- txitxina:** pitilina, zakila.
- txokatu:** harritu
- txokinoa:** txoko txikia, gordeleku txikia.
- txoleta:** lata edo metalezko ontzia.
- txorbela:** zuhaitz adartxo bat orri eta guzti ganaduei euli eta abarrak uxatzeko.
- txorigorriak:** madarikazioak, juramentuak, berba txarrak.
- txori-satsa:** ongarria, hasieran txoriengandikoa (lurra aberasteko, baserrietan, satsa zen lehengo ongarri bakarra. Geroagora, “nitrato de Chile” izeneko abonua heldu zen, “txori-satsa” izenez ezagutua, izan ere, Txileko-eta txorien sats edo beko-rotzik hara tratatua).
- txori-topetan:** txori habiak aurkitzeko jolas edo denbora emate edo entretenimendua.
- txorta:** zorta, multzoa.
- txotoa:** txanoa.
- txotxoka egin:** larrua jo, sexu-harremanak izan.
- txua:** ttua, txistua, listua. Gazt. “saliva”.
- txubelaxua:** igela.
- txuria gora:** (esaera): laminak esnea surten ganaz hasten zeneko berbak.
- txurruplin:** zurrut edan likor-gauza bat.
- ubidea:** 1 ubidea, kanala. 2 “markatzailea” izeneko tresnak egiten dituen ildo edo hazi-bideak artoa-eta ereiteko edo porruak-eta landatzeko.
- udelandu:** lur gaineko belarra aitzurtu eta kendu, gero lurra lantzeko.
- ugazaba:** jabetza duen nagusia (gizonezkoa).
- ugazabandrea:** jabetza duen andrea (andrazkoa).

- ugelaxoa:** gaztaina-kirikiñoak hartzeko egurrezko tresna.
- ugeldarria:** gauza egonak uzten duen kortika edo kapa.
- ugerra:** zikina, lohia, herdoila.
- uhala:** larruzko zinta, hedea, uhala, narrua.
- uhal-kapelak:** atzamarrak jagoteko uhalezko eskularru mota.(gari-ebakitze orduan jartzen ziren atzamarretan zein igitaiarekin ebakiren bat egin)
- ukabila:** Gazt. “puño”.
- umea galdu:** abortu naturala.
- ume-jazoa :** ezkongabetako umea, ezkontzaz kanpoko seme-edo alaba.
- umetokia:** jaio arteko ume-poltsa. Gazt. “parias”.
- umetu:** 1 ume legez jokatu. 2 ume bat izan.
- unbardinka/oin-berdinka:** jolasa: oin biak batera jarri eta lasterketa egitea, saltoka.
- untoa:** untatu edo igurzteko edozer (olioa, koipea, gantza, etab.)
- untzea:** iltzea.
- untze-joa:** 1 ferrak jostean untzeak edo iltzeak min egitea ganaduaren apatx barruan. 2 narrutan egin, sexu-harremanak izan (eufemismoa).
- urahoa:** erreka edo ibai batek beste handiago batean edo itsasoan bat egiten duen tokia.
- uratsa:** sulfurodun ura, kirasduna, medizinala.
- uratzea:** ur asko.
- ur-bedeinkatu-ontzi:** ur bedeinkatu ontzia, elizetako sarrera-aldamenetan dagoena eta hango ur bedeinkatuarekin “aitaren” egiteko elizan sartzean. Pertsonetan kokoterreak duen ozka edo zuloa.
- urdinxka:** urdinxka, urdin kolorekoa, urdineranzkoa.
- urguxua:** txubelaxua, ugaraxoa, igela.
- urikoa:** uri edo hiritik ekarritako umea, adoptatua (hazi arte edo betiko).
- urkatxa/ urkulua:** adar bik egiten duten angelua.
- urlia:** Gazt. “fulano”.
- urkulua:** edozeinen angelua, gorantz zabal dela.
- urreetan:** antza, seguru, dirudienez.
- urruna:** pertsonen edo batez ere ganaduen marru, baurre edo orro antzekoa.
- urruza:** urriza, animalia emeak orokorrean adierazteko hitza. Baina “urriza” bakoitzak ardi/aharrietan, ahuntz/akerretan, zaldi/behorretan eta abarretan izen berezia du euskaraz.
- urteagarrean:** urte bat barru, urtera.
- urtekarrean:** urte batzuk barru, urteetara.
- urtearen kabuan San Silbestre:** (esaera) Urteko gorabeherak goiti beheiti aurrera.
- urteira:** irteera, urtekera.
- usadioa:** ohitura.
- uso:** 1 emakumearen sexu-organoa. 2 txori mota.
- usufruktua:** gozamina, ondasunen eskubidea euren biziz, herentzia bidezko propietatea beste baten izenean egon arren (eskrituretan adierazi egiten da hori).
- uzama:** ugazama, ugazama andrea.
- uzkia/ uzkaia:** ipurdiko zuloa, tutua.
- zabaltoa:** zabal xamarra.
- zahagia:** ardotarako narru-ontzia.
- zahar on egin:** (esaera) zahartzarora osasunez heldu.

- zaharkitu:** zahartu.
- zahatoa:** ardoa edatekoa.
- zahia:** gari garauaren azala eho, eralgi eta gero.
- zainbedarra:** zainbelarra, zainak dituen belar mota.
- zaintiratua:** eraso baten ondoren egiten zen errito fisiko-magikoa.
- zaldarra:** garau berezi zoldua. Gazt. “divieso”.
- zakutoa:** zaku txikia, morrala.
- zankaloste:** belaunaren atzea.
- zantzoa:** irrintzia, eupada handia, alauria.
- zapa/ zapea:** 1 ile handia kokotetik behera eta belarri gainetatik. 2 Idiak-eta uztarran daudenean eroaten duten tresna buru-bekoki aurrean.
- zapalgea:** ikatz-txondorrerako egurrezko mailu handia.
- zaputza:** 1 kokotea, buruko ilea, metxotea. 2 galondoko zuztar-hondakinak.
- zaragia** zahagia, larruzko ardo-ontzia, larru osokoa.
- zarana:** zumintzezko otzara.
- zarrantxa:** burdinazko orrazi latza.
- zarraparra:** edozelako hondakin txiki bat, belar, egur eta abarrik harakoa.
- zarta:** palua, barda, txibita.
- Zautu/ Sautu** beresi, isasi, ibarbaso. Lat. Saltus. (Gaur egun toponimoa da. Beheratxoagoan Zautuola/ Sautuola auzunea dago.)
- zazpisu(ge)tea:** berritsua, berbalapikoa. Gazt. “cotilla”
- zedena:** sitsa, zura zulatuz jaten duena.
- zegan:** zenbatetan, zer preziotan?
- zehea:** fin-fina, xehea, birrin-birrina.
- zein... egin:** eginean ere; egiten ba... ere. Gazt. “por si...”.
- zein...+ aditza (part. zein subj.):** ...ean ere; ba...ere. Gazt. “por si...”.
- zeinakio:** zer egin ez dakiala, ezer egin barik.
- zeinda:** hau da; hots; adibidez; esaterako.
- zeiteko:** zertarako, zergaitik, zer egiteko?
- zelanbaist:** zelanbait, nolabait, zelan edo halan.
- zelanbaist halan:** zelanbait halan, nolabait, zelan edo halan.
- zelebrea:** berezia, baragarria.
- zemendia:** azaroa.
- zemendikaria:** zezina, (zemendian/azarooan hiltzen delako horretarako ganadua).
- zera:** “komodin” bezala erabiltzen den hitza zerbait gogoratzen ez dugunean edo aurrekoak kontestuan zer den ulertzen duenean.
- zer dan beist:** zer den edo zer ez den.
- zer den baino ez da!:** ez dakit zer den.
- zerbaist:** zer edo zer, zerbait.
- zertu:** “komodin” bezala erabiltzen den aditza zerbait gogoratzen ez dugunean edo aurrekoak kontestuan zer den ulertzen duenean.
- zerua goian-behean:** (esamoldea) euri edo eta elur/elur jauste handia, zaparrada handia, dilubioa.
- zeruka:** leka, garau eta guztizko baba, indaba, ilarra, etab.
- zezina:** ganadu-haragi gazitu-sikatua.
- zezpala:** ezpala.

- zia:** koipe-ura.
- zigarro bat egin:** (esaera) atsedena hartu. Lehenago, zigarro bat egiteak eta erretzeak bere denboratxoa behar izaten zuen.
- zil/zila:** 1 zilborra. 2 patata, kipula eta abarri urtetan dioen aihena.
- zilbota:** tripa lodia, garrikotea.
- zildu:** zilak irten, ernamuinak irten.
- zimintza/zimitza/zurmitza:** gaztaina-egur gaztetik ateratzen diren zur-tira meheak, zaranak, otzarak, etab. egiteko.
- zina:** zinezko baldea, ontzia.
- ziria:** 1 punta. 2 iterantzuna, alusioa, engainua.
- ziribedarra:** belar mehe eta luzea.
- zirigutzia:** astinaldia, nahastea, astintzea.
- zirioa:** kandela.
- ziriporra:** burdin ziri nagusiak jotzeko mailu nagusia.
- zirkin:** mugimendua.
- zizeilua/ txizilu:** sutondoko jarleku eta abarretarako tresna.
- zizpuru:** suspirioa, hasperena, negarra.
- zohia:** belar eta guzti ateratzen den lur zatia.
- zoldu:** infektatu.
- zoli:** bizkor, arin.
- zoltzaia:** infekzioa, zornea, materia.
- zorabiatu:** mareatu.
- zorrak kanpaiak pagatu:** (esaera) hilez gero zorrik ez hildakoak.
- zorribidea:** zimurdura bitarteak batez ere aurpegian urteak bete ahala.
- zorritzoa:** zorriak dituen, sapaztoa, lepozikina, lohia.
- zorroa:** zakua.
- zorro-garia:** galgarauz beteko zorro edo zakua.
- zotzalbo egin:** (esaera): behar gutxi egin, askorik ez urratu.
- zozomikotea:** martiko azken egunak eta apirileko lehenengoak.
- zuhurra:** bizkorra, espabilatua, azkarra.
- zuhurtu:** atento ibili, espabilatu, zuhurtziaz jokatu, adimena erabili.
- zuldarra:** ganaduen larrupeko zaldar edo garau berezia.
- zura:** egurra.
- zurezko:** egurrezko.
- zurmitza/ zimintz/zimentz:** otzarak eta egiteko egur mehe landuak.
- zurzubil:** zumitzak gurutzatzeko eta enkajatzeko tresna otzaragintza eta abarretan.
- zuzian:** abiatan; abantean, oso arin.
- zuztarbakoa:** ganorabakoa, feturabakoa.
- zuztarbakokeria:** ganorabakokeria, lelokeria.
- zuztarra:** sustraia, fundamentua.
- zuztartu:** aurkitu, topatu.

4. AURKIBIDE TEMATIKOA

Berriemaileekin erabili dudan inkesta-mota, besteak beste, aurkibide tematiko honetan agertzen dena da. Mitologiatik hasten naiz beti, urtearen garai ziklikoko bizikerekin bukatzeko. Horretarako, lehenengo, giro egokia sortu dut eta emaitzak onak baino hobekak izan dira berriemaile gehienak herri-enziklopediak direlako. Teknikari dagokionez, EBOKAZIO bidea erabili dut ahaztuta edo erdi ahaztutako gauzak gogorarazteko, kasuan kasuko berriemaileari.

Aurkibide tematiko honetako sailkapenean, batzuetan, gai bat baino gehiago agertzen da, kontatu ahala jasoak, jakina, horixe dakarrelako sarritan.

MARI: 7.2 + 19.19 + 19.20 + 46.6 + 73.1 + 74.1 + 75.1 + 76.1 + 77.1 + 78.5 + 79.1 + 79.2 + 79.6 + 80.4 + 82.1 + 83.1 + 88.1 + 89.2 + 95.1 + 104.2 + 108.3 + 109.1 + 110.1 + 110.6 + 115.1 + 122.1

JENTILAK: 21.5 + 22.2 + 33.3 + 51.2 + 51.4 + 57.1 + 59.3 + 65.5 + 73.4 + 74.2 + 76.5 + 78.1 + 78.2 + 79.3 + 80.1 + 80.2 + 80.3 + 80.5 + 95.2 + 96.1 + 101.1 + 107.2 + 110.2

GIZOTSOA: 114.1 + 115.3

ADUAK: 25.30 + 25.33 + 25.34

LAMINAK: 1.15 + 9.4 + 43.5 + 45.2 + 51.3 + 56.1 + 60.4 + 62.3 + 65.1 + 65.3 + 75.2 + 75.3 + 76.2 + 78.4 + 83.2 + 92.1 + 105.1 + 109.3 + 115.2 + 120.2 + 122.2

SORGINAK: 1.19 + 12.3 + 47.14 + 59.5 + 60.3 + 62.5 + 65.2 + 65.6 + 66.3 + 78.6 + 89.3 + 91.7 + 93.2 + 93.3 + 95.3 + 106.3 + 107.3 + 108.2 + 108.4 + 113.1 + 113.2 + 121.2

LINDEROAK: 2.55 + 50.4 + 53.1 + 54.2 + 57.6 + 61.4 + 63.1 + 63.2 + 73.2 + 88.4 + 90.1

DEABRUA: 2.42 + 7.3 + 7.4 + 25.31 + 47.7 + 47.12 + 52.6 + 71.1 + 78.9 + 78.11 + 84.3 + 98.1 + 110.4 + 121.1

LANDAREAK: 28.4 + 46.8 + 47.4 + 52.5 + 57.5 + 88.5 + 94.1 + 100.2 + 102.2 + 108.12 + 112.3

ARIMAK: 2.28 + 2.29 + 2.33 + 2.34 + 5.5 + 39.5 + 47.8 + 58.5 + 79.7 + 81.6 + 84.4 + 93.1 + 99.2 + 102.1 + 108.5 + 112.1 + 115.8 + 122.3 + 122.5

BARAGARRIAK: 1.17 + 2.35 + 47.10 + 47.11 + 52.7 + 52.8 + 56.2 + 57.3 + 57.4 + 58.6 + 60.2 + 110.5

ANIMALIAK: 1.20 + 2.21 + 2.24 + 2.31 + 2.39 + 2.41 + 2.47 + 2.51 + 2.56 + 3.4 + 3.5 + 3.7 + 5.8 + 15.4 + 19.13 + 19.14 + 19.15 + 19.17 + 28.2 + 34.3 + 43.4 + 46.5 + 46.7 + 51.1 + 51.5 + 51.6 + 51.7 + 52.2 + 57.2 + 58.1 + 58.3 + 58.4 + 59.1 + 59.9 + 60.1 + 61.1 + 61.2 + 61.3 + 61.6 + 62.4 + 65.4 + 73.3 + 73.5 + 74.3 + 74.4 + 75.7 + 77.2 + 78.10 + 79.4 + 81.2 + 81.3 + 81.4 + 81.5 + 83.3 + 84.1 + 84.2 + 84.6 + 84.7 + 85.2 + 85.3 + 88.6

- + 88.7 + 89.5 + 91.1 + 91.2 + 91.3 + 91.6 + 98.2 + 100.1 + 100.5 + 101.3 + 102.3 + 106.1
+ 106.6 + 106.7 + 108.1 + 108.6 + 108.7 + 112.2 + 112.5 + 112.6 + 115.4 + 115.5 + 115.9
+ 115.11 + 115.12 + 116.1 + 122.4
- ERLIJIOSOAK:** 2.22 + 2.30 + 2.52 + 4.4 + 19.18 + 44.6 + 52.1 + 55.1 + 55.2 + 59.4 + 59.6
+ 59.7 + 59.8 + 59.11 + 64.2 + 74.6 + 75.4 + 86.1 + 86.4 + 88.8 + 88.9 + 97.1 + 100.3
+ 106.8 + 108.10 + 110.3
- SAN JUANETAKO KONTU-KANTUAK:** 44.4 + 62.2 + 64.1 + 73.6 + 74.7 + 78.8 +
98.3 + 99.3 + 103.1 + 106.4 + 108.8 + 109.4 + 112.4
- PASADIZUAK:** 2.25 + 2.26 + 2.27 + 2.36 + 2.37 + 5.6 + 24.3 + 28.3 + 81.1 + 83.4 + 84.9
+ 85.6 + 88.3 + 106.10
- SEXU-KUTSUKOAK:** 1.18 + 2.32 + 25.32 + 47.5 + 47.6 + 86.3
- LAPURRENAK:** 25.36 + 42.3 + 47.9 + 47.13 + 73.7 + 76.4 + 84.8 + 85.4 + 85.5 + 88.2 +
93.4 + 122.6
- USADIOAK:** 2.43 + 2.49 + 2.50 + 3.6 + 5.7 + 12.4 + 24.4 + 44.5 + 44.7 + 49.7 + 60.7 + 62.1
+ 62.6 + 66.1 + 66.2 + 69.1 + 70.1 + 75.6 + 77.3 + 78.7 + 83.5 + 85.1 + 85.7 + 87.1 +
87.2 + 89.4 + 89.7 + 90.4 + 103.2 + 106.5 + 106.9 + 108.9 + 109.2 + 115.6 + 115.10 +
115.13
- BIDAZTI-EKINTZAK:** 1.16 + 2.40 + 4.5 + 74.5
- KANTAK:** 49.6 + 71.2 + 71.3 + 71.4 + 71.5 + 72.1 + 90.2 + 90.3 + 98.3 + 105.2 + 106.11 +
111.1 + 111.2 + 111.3 + 117.1 + 118.1
- IPUINAK:** 2.23 + 53.3 + 54.4 + 59.2 + 75.5 + 86.2
- HISTORIAK:** 2.38 + 2.44 + 2.45 + 2.46 + 2.54 + 6.2 + 9.3 + 11.6 + 13.3 + 19.16 + 42.4 +
52.4 + 52.9 + 53.2 + 53.4 + 54.3 + 58.2 + 60.5 + 60.6 + 61.5 + 63.3 + 67.1 + 76.3 + 82.2
+ 82.3 + 89.6 + 91.4 + 91.5 + 99.4 + 100.4 + 101.2 + 101.4 + 102.4 + 108.11 + 109.5 +
109.6 + 115.7 + 122.7 + 122.8 + 122.9
- UME-KONTUAK:** 2.53 + 11.7 + 52.3 + 54.1 + 59.10 + 68.1
- PERTSONAIAK:** 5.4 + 89.1 + 91.8 + 107.1
- URREGORRIA:** 20.5 + 25.35 + 78.3 + 79.5 + 104.1
- DENBORA:** 65.7 + 84.5 + 87.3 + 93.5 + 99.1 + 106.2
- GAUARGI:** 119.1 + 120.1 + 120.3

5. BERRIEMAILEAK

(OHARRA: Sarreran esan bezala, nire *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* (Labayru Ikastegia & BBK. Bilbo, 1995) liburuan, berrogeita hamar berriemaile agertzen ziren. Berrogeita hamar berriemaile horietatik, hogeita hamar, berriro agertuko dira liburu honetan, euren zenbakia errespetatuz, baina etnokontaketa berriekin, eta jarraiko zenbakiarekin. Ordea, berrogeita hamaikatik gorako berriemaileak berriak dira eta euren etnokontaketak batetik hasiko dira. Beraz, 1995eko liburuko berrogeita hamar berriemailetatik hogeita hamar berriro agertzen dira, eta euren zenbakia errespetatu egin da. Beste hogeit berriemaileak ez dira agertzen eta horrexegatik dira hutsune edo jauziak zerrendan).

1. Berriemaile: **Patxi Etxebarria Arroita**, neure aita, Zeberioko Undurraga auzuneko. Nekazaria eta baserritarra. 1979an, 62 urte.

2. Berriemaile: **Leonor Ayesta Goikoetxea**, neure ama, Zeberioko Uriondoko, Undurragara ezkondua eta han bizi izan da gure aitaren tronkaleko baserrian. 2007an, 88 urte.

3. Berriemaile: **Jose Arroita Bernaola**, Zeberioko Undurragakoa. Baserrian ezkondua. Grabaketa 1983an, 60 urte. Nekazaria bere aldi guztian.

4. Berriemaile: **Juanita Arroita Bernaola**, Zeberioko Undurragakoa. Baserritarra. Oso irakurlea. 2007an, 74 urte.

5. Berriemaile: **Paula Arroita Usategi**, neure amama, aitaren ama. Zeberioko Ergoieneko Undurragakoa. Nekazari eta etxeoandrea. Grabaketa: 1977an, 84 urte.

6. Berriemaile: **Dolores Beldarrain Artetxe**, Zeberioko Ugarte auzuneko. Ezkondua. Grabaketa 1987an, 83 urte. Nekazaria eta etxeoandrea bere aldi guztian eta ia-ia gaztelanaririk gabekoa.

7. Berriemaile: **Juan Solatxi Emaldi**, Zeberioko Ergoieneko, Etxebarri auzuneko. Baserritarra, baina fabrikari lanean ibilia eta oso irakurlea. 1986an, 72 urte.

9. Berriemaile: **Kaïetana Goikoetxea**, Zeberioko Elexartza auzuneko. Ezkondua. Grabaketa 1983an, 79 urte. Nekazari eta etxeo andrea bere aldi guztian. Aspaldiko urteotan Etxebarri auzunera etorria bizitzen. Izan ere, Elexartza gaur pinu artean dago Aibelagabe azpian. Dena dela, bere euskara Elexartzakoa da.

11. Berriemaile: **Dolores Artiñano Iriondo**, Zeberioko Etxazo auzuneko. Ezkondu arte nekazaria, gero Basaurin bizi izan da urte askotan eta gaur Galdakaon bizi da. Neure amaxea da. Grabaketa, 1991n, 65 urte. Kasu hau kontuan hartzeko da. Basauri erdal herria da, baina nire emaztearen gurasoen etxean euskara hutsa erabili da eta zaindu, etorkizunerako. Beste askok oster, kasu berean euskara galdu egin dute, ez beraiek baina bai seme-alabek.

12. Berriemailea: **Joakin Goti**. Zeberioako Ametza auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria, hargina eta trikitilaria. Grabaketa 1990ean, 90 urte. Azken urteotan Zubibarra auzunera etorria eta gero Isasi auzunera, hil arte.

13. Berriemailea: **Felix Maiz**. Zeberioako Zubibarra auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria bere aldi guztian. Grabaketa 1982an, 88 urte.

15. Berriemailea: **Asensio Beldarrain**. Zeberioako Solatxi auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria eta etxegintzako zein tresnagintzako arotza edo zurgina. Irakurzalea. Grabaketa 1991n, 88 urte.

19. Berriemailea: **Juan Akesolo**. Zeberioako Bertzutengoa. Baserritarra eta Ugaoko lantegi bateko behargina. 1979an, 64 urte. Zahartzaroan, Ugaora joan zen bizitzen.

Oharra: 19.18 esaunda, zehatzena, Ander Akesolok kontatua da, Maria Akesolo bere amari eta Juan Akesolo bere amaren nebari sarritan entzunda, Bertzutenetik Zeberioan azpiko Uribarri auzora soro-beharretan laguntzen etortzen zirelako beraien sendeengana “mantenitalde”. (Anderrek bere amaren abizena lehenengora aldatu du Akesolotarren hagarari eusteko. Gaur egun, Uribarri auzoan bizi da bere ganadu-haztegiarekin.)

20. Berriemailea: **Zipriano Etxebarria**. Zeberioako Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria. Grabaketa 1979an, 67 urte. Geroago Ugaora bizitzen joana beste Zeberioako asko legez. (Zipriano eta bere ahizpa Damianagana Txomin Aretxagak lagundu zidan).

21. Berriemailea: **Damiana Etxebarria**. Zeberioako Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria eta etxeakoandrea. Grabaketa 1979an 67 urterekin. Gainera, bertso-paper mordo bat lortu nuen beragandik. (Batzuk Auspoa Liburutegiko 259. zenbakian argitaratuak).

22. Berriemailea: **Txomin Aretxaga**. Zeberioako Santa Kurtze auzunekoak, Olatzarrera ezkondu baina berriz Santa Kurtzera joana. Grabaketa, 1985ean, 75 urte. Lantegi batean bere aldia. Laguntzaile legez erabili dut grabaketa batzuetan.

24. Berriemailea: **Ignacia Salcedo Aretxaga**. Zeberioako Uriondo auzunekoak. Nekazaria eta etxeakoandrea. Grabaketa 1983an 75 urte. Ezkondua. Azken urteak Ugaon, pisuan, beste Uriondoko errentadore askoren moduan.

(Oharra: Grabaketa hau berezia izan zen. Nire helburua andrazkoen hitanoa batzea zen neure doktorego tesirako eta horretarako hauxe egin nuen: Ignacia nire amaren txikitako laguna zen legez, amari esan nion beragana joango ginela eta hitanoan beren-beregi egiteko, txikitako moduan. Orduan amak esan zidan Areiltzara ezkontuta zegoen Rosario, Ignaciaren ahizpa, ere eraman behar genukeela eta halaxe egin genuen, hirurak andrazkoen hitanoan egin eta grabatzeko.

25. Berriemailea: **Simon Goioaga**. Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoak. Orozkon “kridu” (morroi) egondakoa, jarraian Arteagako Seminarioan lanean eta handik Zeberioako Undurragara ezkondua. Bertan bizi izan zen hil arte. 1979ko grabaketan 77 urte zuzkan. Laurogeitik gora zen hil zenean. Nekazaria eta mitologia-ipuin kontatzaile onena.

28. Berriemailea: **Jose Luis Artiñano**. Zeberioako Etxazoko Aranebako auzunekoak. Nekazaria, baina Bilbon lanean ibilia. Grabaketa 1991n, 60 urte. Gerora Igorrera joana bizitzen.

33. Berriemailea: **Petra Etxebarria**, Orozkoko Elbarrengoak. Ezkondua. Etxekoandrea. Grabaketa, 1983an, 86 urte.

34. Berriemailea: **Anselmo Amondarain**. Orozkokoa. Artzain ibilitakoa Gorbeialdean. Grabaketa 1983an, 82 urte. Zahartzaroan Galdakaora etorria bizitzen. (Berriemaile hau, Justo Intxaurrea neure aitaxeak aurkitu zidan).

39. Berriemailea: **Maria Artetxe**. Arteaga-Arratiako Iturriaga auzuneko. Etxekoandrea. Zeanuriko Lanbreabe auzunera ezkondua. Grabaketa 1987an, 101 urte. Grabaketa, Arteagako Amaia Espinosak egina.

42. Berriemailea: **Luisa Arteagoitia**. Basauriko Elexaldekoa. Etxekoandrea. Grabaketa 1980an 71 urte zeuzkala, J.J. Gurtubay neure ikasleak egina.

43. Berriemailea: **Julia Azkue**. Galdakaoko Irigoien auzuneko. Nekazaria. Grabaketa 1980an, 71 urte. J.J. Gurtubay neure ikasleak egina.

44. Berriemailea: **Ageda Zabalandikoetxea**. Udaletxez, Bilboko Buiagoiti auzuneko. Elizaz Arrigorriagakoa, (*Arguia*). Nekazaria. Ezkondua. Grabaketa 1986an, 78 urte.

45. Berriemailea: **Paula Duñabeitia Ugarriza**. Galdakaoko Erletxetakoa. Ezkondua. Etxekoandrea. 1985ean, 69 urte. Transkripzioa neure bada ere, grabaketa Eduardo Bizkarra neure ikasleak egina da.

46. Berriemailea: **Jose Canales Goikoetxea**. Arteaga-Arratiakoa. Ezkondua. Lantegi batean ibilia eta gero artzain Gorbeian. Ardi-barrutiak Zeberion edukitzen zituen eta ardiak Baltzolako baserri zaharkituan bildu gaez. 1986an, 86 urte. Bizitzaren azken partea Areatzan.

47. Berriemailea: **Patxi Bilbao**, Dimako Bargondiko Ugalde baserrikoa. Dultzainero ospetsua. Zahartzaroan, osasunagatik Dimatik Lemoara aldatu zen semearen etxera eta nik 1979an egindako grabazio batzuk argitaratuta daude *Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* liburuan 47. zenbakia jarriz berriemaileari (Labayru Ikastegia-BBK, 1995). Gerora, neuk grabatutakoetarik aparte, Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegotik jaso nuen berriemaile beraren bideokasete bat eta hantxe agertzen dira oraingook. (F. Laespadak pasatu zidan zintatik kasetera). Bideo hau 2000. urtean grabatutakoa da eta 1979an neuk grabatutako ipuinak ere berdin-berdin kontatzen ditu, baina datozen berriotarik bi Euskaltegiko batzuk probokatutakoak dira eta horregatik Patxi Bilbaok, insistentziaren poderioz, lotsa-irribarre batzuk egin ondoren, kontatu egin zituen sexu kutsuko ipuin “berde edo pikanteok”). Eskerrak grabatzaile eta eratzaila F. Laespadari.

Beste aurkikuntza bat: Patxi Bilbaoren iloba den Juan Jose Pujana Arza, euskaltzale, legegizon eta Elorrion bizi den euskal politikoa, 1958an Patxi Bilbao bere osabaren ahorik hara entzundakoak eta bere erara transkribatutako ipuin eta esaunda batzuk eman dizkit 2015-01-27an, neure metodologia bitarteko, liburu honetan argitaratzeko, betiere jasotakoa errespetatuz. Eskerrik asko Juan Jose Pujanari.

(Oharra: Nire *Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* liburuan, (Labayru Ikastegia-BBK, 1995), 47.1 *Baltzolako sugea* mitoa, 1986an 79 urterekin neuk egindako grabaziorik hara transkribatutakoa da. Oraingo honetako 47.12 *Baltzolako sube deabrua*, 1958an Patxi Bilbaok bere iloba Juan Jose Pujanari kontatu eta berak transkribatutakoa da. Beraz, garai biak ikusita, ikusten da, alde batetik, mito berbera ez duela berdin kontatzen, eta bestetik, grabaziorik harako transkribapenak zehatzagoak direla. Dena dela, salbuespenak salbuespen, mito honek merezi du argitaratzea grabaziotik kanpo egon arren. Ez ahaztu, 1958an nola zegoen euskararen egoera 1986koarekin konparatuz.)

49. Berriemailea: **Roke Abrisketa Añibarro**. Ugaokoa, Morteru auzuneko. Nekazaria. Grabaketa 1990ean, 73 urte. Grabaketa bere iloba eta nire Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasle izan nuen Leire Abrisketa Atutxak egina da. Jakingarri legez, Roke, Morterutik Ugao herrira joan zen, bere baserria bota egin zutelako autobidea egiteko.

50. Berriemailea: **Maria Clefe Iturriaga Goiarrola**. Ugaokoa. Etxekoandrea. Grabaketa, 1987an, 94 urte. Zeberiora ezkondu zen eta zahartzaroan Bilboratu, hil arte.

51. Berriemailea: **Modesto Intxaurraga Artiñano**. Zeberioko Solatxi auzuneko. Baserritarra. Basoetan eta zerrategi batean lanean ibilia. Kontalari ona. Bertsotan ere aritua eta dantzaria. 2006an 77 urte.

52. Berriemailea: **Justo Intxaurraga**. Zeberioko Solatxi auzuneko. Etxegintzan aritzeagatik herri ezberdinetan bizi izan da: Sopelan, Basaurin eta azkenik Galdakaon. 2007an, 85 urte.

53. Berriemailea: **Pedro Lariz Ipiña**. Arteaga-Arratiako Sarasolako. Baserritarra baina urte askotan Basauriko Baskonia fabrikari ibilitakoa Arratiako tranbia bitarteko. Ezkondua. 1985ean, 78 urte.

54. Berriemailea: **Leon Bilbao Ibarretxe**. Nire osaba, gure izeko Klaudiarekin ezkondua. Albokari ospetsua. Baserritarra. Arteaga-Arratiakoa. 1985ean, 66 urte.

55. Berriemailea: **Benantzio Bernaola Intxaurbe**. Arteaga-Arratiakoa. Trikitilaria. Maurizia Aldaiturriaga pandero-jotzailearen senarra. 1972ean 75 urte.

56. Berriemailea: **Zipriana Egiluz**. Zeanuriko Lanbreabeko errotakoa. Arantzazuko Olarre etxaguntzara ezkondua. Etxekoandrea. Baserrian hiru belaunaldi bizi izan dira, seme Victoriano, (Arratiako tranbiako langilea), Zeberioko errain Elena eta beraien seme-alabekin. Grabaketa 1978an, 80 urte.

57. Berriemailea: **Pablo Intxaurraga**. Zeberioko Solatxikoa, Etxazora ezkondua. Bertsolaria. Dantzaria. Baserrian, basoetan eta lantegietan lanean ibilia. 2008an, 83 urte. (OHARRA: esaunda hau 2008an entzuna eta batua da baina 1941ean gertaturikoa, berriemaileak berak adierazten duenez).

58. Berriemailea: **Lino Ayesta Goikoetxea**. Zeberioko Uriondoko. Baserrian gaztetan baina gero fabriketan ibilia bere aldi guztian, Ugaon, Lezaman, Deustun. Uriondotik Kalle-ra (Ugaora) ezkondu eta gero Basaurin bizi. Gerora, Amurrion bizi izan baina bere alabaren ondora. Bertsogilea. Auspoa Liburutegiko bilduman liburu bi dauzka, A. Zavalak argitaratuta: 217 zkia. *Gure izkuntzaren mugatik*, bertsoz, eta 245 zkia. *Ikusiak eta entzunak*, prosaz. Linok 2008an 87 urte. (Linoren prosazko liburuarri, argibide gisa, sarreratxo bat egin nion A. Zavalaren estiloa ulerterraz biderantz eginda dagoela adierazteko. Beraz, Auspoako bere euskara ez da etnotestu hutsa, bai oster, nik jasotako mito-esaundetako.)

59. Berriemailea: **Juan Olano Solatxi**. Zeberioko Ermitabarrikoa, parrokia azpiko baserrikoa. Urte askotan parrokiako sakristaua izan zen. Ugaon beharrean ibilitakoa. Ezkondua. Elkarrizketa 1999koa da, 86 urte zeuzkala. 2005ean hil zen 92 urterekin.

60. Berriemailea: **Damian Etxebarria Sasiain**. Zeberioko Ibarra auzuneko. Baserrikoa baina Bilbon lanean ibilia. Gizon landua, irakurzalea, kontalaria eta azken urteotan, parrokiako laguntzailea. Grabazioa 2008an 75 urte. (Justo Intxaurraga neure aitaxea eraman nuen girotze-lagun legez).

61. Berriemailea: **Iñaki Garcia Ereño**. Orozkoko Olartekoa. Sestaon jaioa aitaren lanagatik eta, gerra garaian, aita galdu eta Olartera etorria. Eskola adinean morroi Orozkoko Igoarriartzara eta gero handik Arteaga-Arratiako Elexabeitira etxe mutil. Galdakaora ezkondu eta fabrikako langilea bere aldian, jubilatuta arte. Grabaketa 2009an, 76 urte.

62. Berriemailea: **Kontxi Moja Zabalandikoetxea**. Bilboko Buiagoiti baserrikoa. Etxekoandrea, bendejera eta esne-saltzailea Basauritik. Elizaz, Arrigorriagakoa. Bere senarra Felix Atutxa ere Bilboko Larraskitukoa. Grabaketa 2009an, 69 urte. Bilboko azkenengotako euskaldunak. (44. Ageda Zabalandikoetxearen alaba).

63. Berriemailea: **Felix Atutxa**. Bilboko Larraskituko Kanpa de San Justoko baserrikoa. Buianagoitira ezkondua 28 urterekin Kontxi Mojarekin. Gero 38 urtez Bilboko suhiltzailea. Grabaketa 2009an, 75 urte. (Justo Intxaurreaga neure aitaxea eraman nuen giroitze-lagun legez).

64. Berriemailea: **Eusebi Iturrizar Etxebarria**. Buian jaioa baina Bilboko Seberetxera ezkondua Asuko baserrira. Nekazaria eta etxekoandrea bere aldi guztian. Etnotestua, Eusebiren iloba Nerea Abos Mendizabalena da. Neuk zuzendutako tesi-natik hartua. Defentsa 2002-10-09koa da eta grabazioa 80 urterekin egindakoa. (Oharra: Transkripzioan, errespetatu egin da “dx”= sabaiaurreko frikari ahostuna, tesi-nan legez).

65. Berriemailea: **Luisa Lopez de Letona**. Galdakaoko Usansoloko Artetakoa. Aurrengoetxea baserrikoa, Santontxikerra ermita zaharraren ondokoa. Gaur egun enpresa baten lurraldea da. Baserriak hutsik eta ermita berria beheagoan dago. Luisaren Ama Bediako Barrankukoa zen eta aita Otxandiokoa. Grabaketa bere alaba Ana Ayestak egina da, 2009an, 84 urterekin.

66. Berriemailea: **Pilar Isasi Ugarriza**. Baranbioko azkenengo euskalduna. Baranbiogoi auzokoa. Koskorra baserrikoa. Grabazioa 1973an, 84 urte. Grabazioa Federico Barrengo Arberasek egina da eta nire eskuetara, Luiso Lopez baranbiarraren bidez heldu da 2009an. Euskara hau interesgarria da benetan Baranbioko azken-azkenetako euskal dokumentua delako.

67. Berriemailea: **Julita Burutxaga Otegi**. Baranbioko azkenengotako euskalduna. Grabazioa 1972an, 86 urte. Grabazioa Federico Barrengo Arberasek egina da eta nire eskuetara, Luiso Lopez baranbiarraren bidez heldu da 2009an. Luisoren amama da. Euskara hau interesgarria dugu benetan Baranbioko azken-azkenetako euskal dokumentua delako.

68. Berriemailea: **Antonia Madariaga**. Igorreko Urkizuko Saldarri auzuneko. Etxekoandrea. Galdakaora ezkondua. Grabaketa 1978an, 78 urte. Grabazioa, nire ikasle eta Antoniaren iloba Asier Astigarragak egina.

69. Berriemailea: **Antonia Arza**. Arrankudiagako San Pedro auzuneko. Etxekoandrea. Gizonaren lana dela eta, herri askotan bizitakoa. Arrankudiagan, Ugaon, Basauri-Bidebietan, Lezaman, berriro Bidebietan (Basauri) eta azken urteotan Amurrión (kasu honetan alabaren ondoan bizitzeko). Grabazioa 1987an, 63 urte. Neure izeko eta amabitxi da, Lino Ayesta, nire osaba eta aitabitxiren andrea.

70. Berriemailea: **Gregoria Goti**. Zeberrioko Elordi auzuneko. Etxekoandrea. Lemoara bizitzen joana eta handik Bedia edo Kolaziñora *sentzain*, eta gero Bediara bertara ezkondu. Grabaketa 1979an, 78 urte. Grabazioa nire ikasle eta Gregoriaren biloba den Joseba Lekuek egina da.

71. Berriemailea: **Manu Ayesta Goikoetxea**. Zeberiko Uriondokoa. Lehenengo, baserrian baina gero lantegian ibilia, Ugaon. Uriondotik Egia auzunera etorria bizitzen, bere emazte Gregoria Sautukoaren baserri ondora. Azkenik Arrigorriagara, bere seme Karmeloren etxera. Kantari ona eta herri-bertsolaria. Neure amaren parteko osabarik zaharrena. Grabaketa 1981ean, 75 urte. Bertsoetariko batzuk, bere iloba Jesus Ayestagandikoak dira, gogora etorri ahala kantatu eta zuzenean transkribatuak.

72. Berriemailea: **Maurizia Aldaiturriaga**. Zeberiko Zubialde edo Plaza gainean dagoen Egia auzuneko. Arteagako Elexabeitira ezkondua Benantzio Bernaola soinulariarekin. Baserriko etxeandrea eta pandero-jotzailea. Kantari aparta, koplak guztien azkenean oktaba bat altuago kantatuz entzuleen txalo artean. Pandero-jotzailea bere gizonarekin eta gero Leon Bilbao albokariarekin. Gehiagori ere lagundu dio panderoaz, Fasiori esaterako. Nik neuk, familia honekin hartu-eman handia izan dut, alde batetik, Maurizia nire herritarra zelako eta bestetik Leon Bilbao albokaria nire osaba. 1977an Mauriziak 73 urte.

73. Berriemailea: **Juan Teodoro Etxebarria Solaun**. Orozkoko Igoarriurtza baserrikoa. Tronkaleko etxera ezkondua. Baserritarra bere aldi guztian. Bere aurrekoengandik hasita, baserriarekin batera ganadu munduan sano sartua. Tratante familia-koa, bai ganadu nagusiekin eta bai txikiagoekin. Basabehiak, zaldiak, mandoak, txerriak, astoak, berba batean esanda, tratante fuertea etxaguntza fuertean. Zahartzaroon, semea bitarteko, labrantza eta ganaduak alde batera utzi eta okintzan ibili da, laberik harako ogiak erre eta saltzen. Grabaketa 2009ko uztailaren 3an egin da 87 urterekin. Grabaketarako bidelaguna bere iloba eta neure lagun Juan Luis Basoa Etxebarria izan da giro egokia lortzeko bidean.

74. Berriemailea: **Txomin Belamendia**. Bediako Ereño auzuneko. Artzaina, behi, zaldi, ardi eta ahuntzak bitarteko. Gaur egun artzaintzan dabil bere artaldearekin. Bizi, Bedian bizi da, pisuan, baina ardiak Ereño ingurutatik darabiltza. Grabazioa Bedian egin da Ainhoa Etxazarraren gurasoen etxean. Txominen emazte Izar Zenarrutzabeitia ere aurrean zen berak ere laguntzen diolako gaztak egiten. Grabazioa 2009ko uztailaren 14an egin da 78 urterekin. (Ereño, Bediatik Mandoia mendira bidean dagoen goi-azune bat da.)

75. Berriemailea: **Simona Intxaurbe**. Zeanuriko Uribe auzuneko Aspegoikoa baserrikoa. Zeanuri beheko Olabarriko errotara ezkondua Benigno Pujana errotariarekin. Errotan bizi izan da. Grabazioa errotan bertan egin da 2009ko uztailaren 21ean, 92 urterekin. Buru argikoa izan arren, adinak ez du barkatzen eta gogora ekartze beharretan, bere alaba Bibiñe Pujana egon zen alborik hara bizierak gogoratu eta argi ahoskatu ez duena berriro errepikatzen.

76. Berriemailea: **Luis Etxebarria Artetxe**. Igorreko beheko plazakoa. Hiru seminariotan ibilia, Gordexolan, Arteaga-Arratian eta gero Derion. Geroago, ofizio ikasketak Deustun eta lantegian behargin jubilatuta arte. Hortik aparte, ibiltari handia erromes bideetan, mendigoizalea, auzolanetan ere asko ibilia. Grabazio hau egiteko bere loba Gontzal Mendibil abeslaria izan dut bitarteko eta Zeanuriko Soloetako baserrian egin da 2009ko uztailaren 21ean, 72 urterekin. Baserriaren aurrealdetik Gorbeia eta Itzina aurrez aurre ikusten dira. Elkarrizketa guztia hitanoz eginik dago.

77. Berriemailea: **Maribel Goroztizagoiza**. Zeanuriko Barazar baserrikoa. Baserri-etxe hau, Areatza gainean dago, Ellakuri ondoan. Beraz, Areatzari dagokiola. Guraso askoren ohiturari jarraituz, Maribel, Bilbon, Indautxun, jaio zen “*La gota de*

Leche” klinikan eta Karmengo elizan bataiatu. Amak klinikan alta hartuz geroztik, Barazar baserrian bizi izan zen ezkondu arte, baserriko beharretan. Gero Areatzara ezkondu, eliza ondoko pisu batera, baina gizonaren familiako beharrianengatik, Gorbeia bideko Altamira auzoan egin zituen 23 urte. Gero berriro pisura eta azken 10 urteotan Areatzako moja klarisen komentuko kargua darama Areatzako parrokiako ardurarekin batera. Baserririk harakoa izan arren andre jakituna da eta esatari ona. Maribel berriemailearengana, Gontzal Mendibil bion lagunaren bidez heldu naiz eta grabaketa, 2009ko abenduaren 29an egin da, komentuan bertan, 69 urterekin.

78. Berriemaile: **Rosalía Olabarri Etxebarria**. Zeberioko Bertzuten auzunekoa, Untzuetan aspian. Ezkondua. Nekazaria eta etxeko-andrea. Grabaketa 2010ean, 73 urte. Berarekin batera bere senarra neukan ondoan eta noizean behin berbaz sartzen zen. Senarra, Juan Luis Orue, Zeberioko Arkulanda auzunekoa, Bertzutenera ezkondua. (Rosaliaren ama zen Damiana Etxebarriaren mito eta esaundak 1995eko nire liburuan agertzen dira.)

79. Berriemaile: **Jose Mari Iriondo Linaza**. Orozkokoa, Olaguenaga auzunekoa (Gallartu ondoan). Grabaketa 2010ean, 81 urte. 28 urterekin ezkondu zen Zeberioko Aldekoa auzunera. Labrantzan eta ganaduekin ibili da beti. Auzune hau Untzuetan azpitxoan dago eta etxearen aurrealdetik Anbotoko puntarainokoa ikusten da Lamindao eta Dimatxen gainetik. Ikuspegi zoragarria, egunez zein gauez. Bere euskara, Orozkokoa da baina Zeberioko eragina nabarmena da hainbeste urtean.

80. Berriemaile: **Pablo Azkoaga Olabarria**. Orozkokoa, Presatxu baserrikoa. Grabaketa 2011n, 81 urte. Baserritarra baina urte askotan baso-beharretan ibilia, egur salerosketan eta delegatu forestalista legez ere bai. Gaur egun labesuginen dabil, etxeko ogiak eta gainetikoak egiten emaztea lagun. Beragana joateko, laguntzaile erabilitakoak: Juan Uribarren Larrea, bere ama Aurora Larrea Artetxe eta bere izeko Olga Larrea Artetxe. Aipamen berezia behar du Pablaren emaztea den Julia Barberena Irigoien andreak. Nafarra da, Zugarramurdikoa, 1941ean jaioa. Epaltza familiak neskatu legez hartu zuen 1960an eta Orozkon zeukaten etxean (Orozko gunetik Ibarra auzunera bitarteko etxean) denboraldiak egiten zituen. Horrela ezagutu zuen Pablo eta 1964an ezkondu egin ziren. Kontalari aparta da eta Orozkoko esaundak ere kontaktzen ditu, baina bere euskalkian. Presatxu baserria, Orozkon, sarreran dago, eta Orozko behe parteko askoren antzera, Pablok ere erdararako joera dauka eta hori nabaritzen zaio Orozkoko beste auzune batzuetakoekin konparatuz. Transkripzioan ikusiko denez, konkordantzia akatsak eta abar agertzen dira baina bestaldetik, hitanoa darabil zukarekin nahastuta, fonetikarako interesgarria, zuka ari denean /j/ ahoskabe legez darabilelako eta hitanoan /j/ ahostun legez.

81. Berriemaile: **Luis Larrea**. Orozkokoa, Zalao auzunekoa. Grabaketa 2011n, 72 urte. Artzaina bere aldi guztian. Eskola amaituz batera, 14 urterekin joan zen artzain Gorbeialdeko Itzina hazduira. Bere aita eta aitona ere artzainak ziren. Itzinan 14 urtetik berrogeitaka urte luzera arte egon ondoren, (soldaduskako denbora izan ezik) Austegiarminen egin du bere txabola berria eta bertan dabil gaur ere, Zaloako baserria itxi gabe, artzaintza beharretan. Beragana joateko bitartekoa: Juan Uribarren Larrea.

82. Berriemaile: **Felipe Ipiña Amorrortu**. Zeberioko Areiltza auzunekoa. Baserriarekin batera beste lan batzuetan ibilia. Grabazioa 2011n, 88 urte. Bitartekoak: batetik, bere auzokide Mari Karmen Mendiguren eta, bestetik, bere adinkidea den Justo Intxaurreaga. Honek ere parte hartzen du bitarteka.

83. Berriemailea: **Enrike Etxebarria Lejarza**. Zeanurikoa, Uribe auzuneko Elexartza baserrikoa. 14 urterik hona artzaina, bere aita eta aitona legez Gorbeialdeko Arrabako landan, Lekandapean. Hantxe dauka bere txabola ikuspegi ederrekin. Elexartzako baserria ere egokiturik dauka artzain lanetarako eta labrantzan ere bada-ragoio bitarteka.

Dultzaineroa ere bada, bere aita Basilio legez. Artaldea zaintzeaz gain, 1960tik 1992ra Arrabako Bizkako Mendizale Federazioaren Federación de Montaña” deritzon mendiko aterpeko arduraduna izan zen.

Urteokin, Ipizki taldearen eraginez, uda aurretik, uztailaren hasieran, larre-aldaketa egitean bere artaldearekin Elexartzatik Arrabako landara, gonbidatu egiten da jendea Enikerekin batera bide hori egiteko. Azarotik aurrera, lehenengo elurteekin, behealdera dator bazkarako barrutiak aukeratzera.

Grabaketa, 2011-01-14an egina da, 67 urte dituela. Bitartekoa, bere loba Eneko Olabari Etxebarria.

Gaur egun, Arraba eta Egririñoa aldeko azkenengo artzain aktiboa dela esan daiteke.

84. Berriemailea: **Jesus Lezama Ayesta**. Bediako (Kolasiño) Ereño auzuneko. Baserrian, basoetan eta artzaintzan ibilitakoa 24 urterekin Usansolora ezkondu artean. Ezkondata gero ere, txandakatu egin du fabrikako lana eta artzaintzakoa bere anaia artzainarekin. Grabaketa, 2011-01-22an egindakoa da, 72 urte dituela. Ereño auzunea, Bedia da eta gaur egun bidez komunikatuta badago ere, berriemaile honen ezkon aurreko denboran, ez zegoen horrelakorik eta Ereño leku altuan dagoenez, ia-ia ez zen egon harremanik Bediako herriarekin, domeketako kultutik aparte. Beraz, Ereño leku isolatua izan da bide asfaltatua egin zuten arte.

85. Berriemailea: **Luziano Zubimendi Agirre**. Ubidekoa. Bere aldi guztian artzain eta labrantzan tarteka. Kontalari aparta eta abeslaria, tarteka bertsotan ere bai. Grabaketa, 2011-01-22an egina da 86 urterekin. Bitartekoa, Gontzal Mendibil abeslaria eta Josean Ubideko alkatea.

86. Berriemailea: **Eugenio Ibagutxi Barrondo**. Ubidekoa. Baserritarra baina han-hor-hemen jornaletan asko ibilitakoa. Esaterako Barazar gaineko gasolindegian, hogeitaka urteak, lehenago, Legutiotik Zeanurirako ur-jauzien tunela egiten ere bai hiru bat urtez, etab. Grabaketa, 2011-01-22an egina da 83 urterekin. Bitartekoak, Gontzal Mendibil abeslaria eta Josean Ubideko alkatea.

87. Berriemailea: **Begoña Serrano Abasolo**. Otxandiokoa, Bilbon jaio arren; Otxandion, kalekoa, orain Trapagaranen bizi bada ere, Areeta eta Portugaletetik pasatu ostean. Bere aita Bilbokoa eta erdalduna zen baina ez zuen ezagutu. Txikitatik bere amarekin bizi izan da. Bere ama Otxandiokoa, euskalduna. Bere amaren parteko aitona Ubidekoa. Begoñak ez zuen bere aitona ezagutu, baina, bere aztarnak utzi zituen bere amamarengan eta gero bere amarengan. Aipagarria da bere izekoarengandik izandako eragina. Izekoa Hondarribikoa zen baina ia beti gazteleraz hitz egiten zion eta hortik horren eragina. Grabazioa 2011-02-04an egindakoa da 75 urterekin. Grabaketa bere iloba Endika Cuesta Gonzalez-ek egina da, Euskal Filologiako neure ikaslea izandakoa Deustuko Unibertsitatean.

88. Berriemailea: **Antonio Atutxa Iza**. Dimako Oba auzuneko. Aita Lino Akesoloren auzokoa. Kepa eta Aitzol Atutxa aizkolarien aita eta aitona, hurrenez hurren. Gaur Galdakaon bizi da. Hamaika urterekin Algortako Trinitarioetara joan zen ikasten. Urte gutxi egin zituen eta berriro Dimara. Basoetan lan egin du egurgin-

tzaren sektorean, herri-idiiekin lehenengo eta gero auto bidez. Fabrikari ere ibili da. Grabazioa 2011-02-17an egin da, 81 urterekin. Bitarteko legez, nire aitaxe eta Antonio Atutxaren lagun Justo Intxaurraga izan dut.

89. Berriemailea: **Koldo Pildain Gonzalez de Langarika**. Otxandiokoa. Kalekoa. Lantegian, tornularia. Abeslari eta dantzari trebea. Grabaketa 2011-02-26koa, 79 urterekin. Grabaketa, berarekin batera, bere iloba Txomin Bengoa Axpe ere zegoen, tarteka parte hartuz. Girotze-bitartekaria, Amaitermingo Marga Untzalu Garaigordobil euren senitartekoa izan da. Amaitermin, herriz Abadiño da baina elizaz Otxandio.

90. Berriemailea: **Txomin Bengoa Axpe**. Otxandiokoa. Urte batzuk Otxandiotik kanpo bizi izan arren, berriro bizi da Otxandion, bertako euskara eta kultura bihotzez bizi dituelarik. Euskaltzalea eta abeslari trebea. Bere ahotsa, ezaguna da erreportari zein bikoizketa lanetan. Grabaketa 2011-02-26koa, 60 urterekin. Bere osaba baino gazteagoa izan arren, oso ondo gordetzen ditu Otxandioko fonetismoak. Grabaketa, berarekin batera, bere osaba Koldo Pildain Gonzalez de Langarika ere aurrean zegoen, tarteka parte hartuz. Girotze-bitartekaria, Amaitermingo Marga Untzalu Garaigordobil euren senitartekoa izan da.

91. Berriemailea: **Francisco Etxebarria Madariaga**. Neure aitaren aldeko aitaita. Arantzazun jaioa, Arteaga, Lamindao (Dima) eta Areatza arteko Biteri inguruko Arantzazuren enklabe zaharrea. Gerora Arteagan bizi, Sarasola auzunean eta azkenik Zeberiora ezkondu, Undurraga auzunera. Baserritarra, ikazkina, etxeko-arotzerian aditua eta bidegintzan ere ibilia. Eleizastikoa, bai meza, bai arrosario bai angelus erretzatze eta abarretan. (beharbada, hortik mitoak-eta, alde batera uztea). Gure baserria tronkalekoa izan da eta gure aita-eta, aitaita-eta, bikuntzan bizi izan dira euren bizi guztian. Jarraian datozen kontakizunak aspaldikoak dira, nire lehenengotako transkripzioak, 1970-71koak, aitaitak 79 urte zituela eginak. Mitoak izan ez arren, interesgarriak dira aspaldiko kontaketak, eta horregatik berreskuratu ditut, 1995eko liburu-ko aukeraketa argitaratu gabe utzi nituelako.

92. Berriemailea: **Lourdes Okeranza Arroita**. Laudion jaioa, Aranguren baserrian, Orozko/Laudioko mugan. Gaur egun, Orozko parteko Katea auzunean bizi da, Laudioarekin muga-muga. Katea izena dauka, hor kate bat zegoelako muga-zergak kobratzeko. Aita Laudiokoa eta ama Orozkokoa izan ditu, biak euskaldunak. Grabazioa 2010-03-10ean 70 urterekin. Grabazioa eta lehen transkripzioa Bittor Arbizu Barona nire zuzendaritzapeko doktoreak egin. (Ohar moduan hauxe, irregulartasun batzuk argitzeko: andrazko honek erdara gehiago egiten du euskara baino joan den aspalditxoan eta aditz forma batzuetan forma bakarrera jo du, “sen” (Bizk. lit. zan) erabiltzean adibidez, hots, ““ekarri (s)auen”-en ordez “ekarri sen” lit: euan>eban-en ordez, zen, (Bizk. lit. zan), hau da, “Nor” darabil simplifikazioz).

93. Berriemailea: **Lontza Uria Emaldi**, Zeberioko Beresia baserrian jaioa 1906-10-08an. Gaur egun erorita dagoen etxebizitza biko Beresia baserria, baso-basoan zegoen, Zeberioko parrokiatik ia lau bat kilometrotara. Lontza zortzi egunez bakarrik joan zen eskolara, bai, Beresiatik ia sei kilometrotara zegoen Zeberioko plazako eskola zaharrera.

Ume-umetarik joan zen neskame Galdakaora. Hortik, Galdakaon eta Galdakaora ezkondu zen eta urte gutxi barru alargundu. Horretara, berriro itzuli zen gurasoen Beresia baserria, labrantzan eragiteko. Alaba zaharrena Zeberioko Areiltza (*Ariltze*) auzuneko Aunzkorta baserrian bizi izan da, haraxe ezkondu zenetik Miguel Ugalderekin, eta beste alaba, Gezale auzunean, aldi bateko ur gazidun bainuetxe berriztatuan. Lontza, Beresia itxi eta Areiltza auzuneko Aunzkorta baserrian bizi izan

da azken 45 urteotan alaba zaharrenaren eta bere senarraren etxean. Hantxe bizi izan dira Lontza 106 urterekin eta Julian neba 102 urterekin ondo esanda eta jagonda. Grabatzen joan baino lehen, Lontzaren familia jakitun jarri nuen eta 2012-11-25ean elkarriketatzen joan nintzen, lagun legez, Lontzaren alaba Lina eta Mari Jose eta Josu Mikel ilobekin, giro ezin hobea lortuz.

Egia esateko, bai Lontzaren alaba Linak eta suhi Miguelek asko lagundu zidaten ebokazio lanetan. Eta horretara, Miguelengandik beragandik ere hainbat berri jaso nuen gogoratzeko edo ustekabeko infomatzailea aurkituz. Laburbilduz, hiru berriemaile etxe batean.

94. Berriemailea: **Julian Uria Emaldi**, Zeberioko Beresia baserrian jaioa 1910-01-28an. Gaur egun erorita dagoen etxebizitza biko Beresia baserria, baso-basoan zegoen, Zeberioko parrokiatik ia lau bat kilometrotara. Julian gutxi joan zen eskolara, Beresitik ia sei kilometrotara zegoen Zeberioko plazako eskola zaharrera. Gazte gaztetarik joan zen morroi Erandiora. Gerora, berriro itzuli zen gurasoen Beresia baserrira. Geroago, Beresia utzi eta Areiltza auzuneko Aunzkorta baserrian bizi izan da 45 urteokin loba zaharrenaren eta bere senarraren etxean.

95. Berriemailea: **Miguel Ugalde Intxaurrea**, 1926-11-13an jaioa. Zeberioko Areiltza auzuneko Aunzkorta baserrian bizi da. Baserriko beharretarik gehiago, Laudion egin zuen lan fabrika batean. Areiltzako Aunzkortan hantxe bizi izan dira berarekin, Lontza amaxea 106 urterekin eta Julian andrearen osaba 102 urterekin.

96. Berriemailea: **Mari Ipiña Beaskoetxea**. Arantzazun jaioa Arantzazugoiti baserrian 1911n eta hil 1992an 81 urterekin. Labrantza-etxean bizi izan zen harik eta ezkondu arte. Geroago, Arantzazu behekora ezkondu zen, plaza ondora eta han bizi hil arte. Mari beragandik jasotako mito hau, bere seme Elias Artabe Ipiñaren bidez lortua da. Baina mito honen berri Mariren iloba eta Eliasen seme Alex Artabe Zuazoren bidez jakin dut Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasle izan dudalarik.

97. Berriemailea: **Basilio Etxebarria**. Zeanurikoa, Uribe auzuneko Elexartza baserrikoa. Artzain ospetsua, Gorbeialdeko Arrabako landa, Lekandapean. Hantxe dago bere txabola ikuspegi ederrekin. Gaur, bere seme Enrike Etxebarriaren karguan dago. Dultzaineroa ere izan zen. Artaldea zaintzeaz gain, Arrabako Bizkaiko Mendizale Federazioaren mendi aterpeko arduraduna izan zen, semearekin batera.

Basilio Etxebarria, 1899an jaio zen eta 1982an hil zen. Grabazioa, Basilioen suhi Gotzon Olabarrik egindakoa da 1977ko udan. Grabazio CD-ratu hori Basilioen iloba Eneko Olabarriren bidez heldu zait eskuetara.

Jarraian Basiliok kantaturiko bertso batzuk datoz. Ez dakigu norenak diren baina euskalki nahasketa ageri da. Bertsook, Gorbeia ermitari buruzkoak dira. Izan ere, 1930-05-23an, Basiliok 31 urte zituela, Egiriñaon Gorbeia ermita berria egiteko lizentzia eskatzen da, lehengoa, haitzaren barruan, oso txiki geratu zelako eta meza entzuleak kanpoan geratu behar. Baina proiektu hori ez zen aurrera eraman.

98. Berriemailea: **M^a Natividad Zarraga Etxebarria**. Zaratamoko Larikao auzuneko. Auzune hori Arkotzarantz heinean dago, hau da, Galdakaorantz heinean. Nati, 1944-04-15ean jaio zen eta labrantzan bizi eta gerora Larikaotik Usansolora ezkondu zen. Grabaketa Usansolora eginda dago 2012-12-15ean bere gizon Julian Gandarias (Usansolokoa) eta euren seme Julen lagun-giro izan ditudalarik. Natiren familia oso ezagun izan dut, gure ama neskame egon zelako beraienean eta harrezkero etxeko legez izan garelako.

99. Berriemailea: **Jose Benito Ortuondo**. Lemoakoa, 1948an jaioa. Bere aita Saldarrikoa eta ama Azurrikakoa. Bere emaztea Zeberioko Uriondokoa. Txikitatik hasita bizi izan da baserrian nahiz eta lantegi batean behar egin jubilatuta arte. Gaur egun ere jarraitzen du labrantzan, ortuarian batez ere. Grabaketa 2012-12-26an egina da. Beragana joateko bere emazte eta nire lehengusina den Bego Ayesta erabili dut.

100. Berriemailea: **Jose Luis Moja**. Basaurikoa. 1945ean jaioa. Bere aita San Miguel de Basauriko Finagakoa eta bere ama Arakaldokoa. Bere emaztea Zeberioko Uriondokoa. Grabaketa 2012-12-26an egina da. Jose Luis, labrantzan ibilia da eta gero fabrikari ere bai. Hitanoz ere berba egiten du oraindino eta grabaketan horrela egiteko eskatu diot. Beragana joateko bere emazte eta neure lehengusina den Rosario Ayesta erabili dut bitarteko.

101. Berriemailea: **Josu Irarragorri**. Bilbon jaioa izan arren, gerrarekin batera 1937an, bere gurasoak Arakaldoko Iturriaga baserrikoak zirenez, haraxe joan zen. Josefa Pagatzaurtundua bere emaztea ere Arakaldokoa, nahiz eta aurrekoak orozkoarraz izan. Josu, gerra eta gerraosteko gorabeherengatik hara-horra ibili zen baina gero, osagile legez ibili da lanean Bilbon, jubilatuta arte. Baina Arakaldoko tronkaleko etxea bere-berea du eta Arakaldokotzat hartu dugu hangoxe euskara darabilelako. Grabaketa 2012-12-28an egina da. Grabaketa egiteko giro aparta izan dut. Josuren seme Ibon erabili dut bitarteko, Ibonen ama Josefa eta gainera Gabonak egiten etorritako Josuren alaba Leire ere han zeuden tertulian. Leire ikasle izan nuen Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian. Benetan ere giro ederra Iturriaga baserri berriztatuan izan genuena. Ez da erraza, gaur egun, Arakaldon euskal hiztunak aurkitzea baina zorionez lortu dugu eta eraginak eragin, Josu eta bere sendia lekuko apartak izango dira etorkizunerrako. Grabaketa unean, Josuren emazte Josefaren ahizpa Miren ere han agertu zen eta berak ere parte hartu zuen.

102. Berriemailea: **Jose Zaballa Etxebarria**. Arakaldo Bizkaiko herririk txikienetakoan, 1956an jaioa. Bertan bizi izan zen Laudiora ezkondu arte. Hasierako helburua, bere aita grabatzea zen baina familiako alabaren ezezkoaren aurrean, Jose, seme zaharrena opatu egin zen informatzaile izateko. Nola? Ba, aiko. Ibon Irarragorri bere ama Josefari esan eta Josefak azkenean Jose elkarrizketatzea lortu zidan. Non? Ba Josu Irarragorri eta Josefa Pagatzaurtundua familiak Arakaldon daukan Iturriaga baserrian. Han elkartu ginen, Jose Zaballa informatzailea, Josu Irarragorri, bere emazte Josefa Pagatzaurtundua, euren seme-alaba Ibon eta Leire Irarragorri (Ibon, nire emaztearen lankidea da eta Leire, nire aldi bateko Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasle ohia), Miren Pagatzaurtundua Josefaren ahizpa, Leireren alaba nerabe biak eta Ibonen semetxoa. Giro aparta benetan. Grabaketa 2012-12-28an.

103. Berriemailea: **Miren Karmele Pagatzaurtundua**. Arakaldokoa, 1935ean jaioa. Bere ama Orozko partekoa izatera gorde egin ditu Orozkoko ezaugarri batzuk. Grabaketa, 2012-12-28an egina da Arakaldon, Iturriaga baserrian, bere ahizpa Josefa, koinatu Josu Irarragorri eta gaintetiko familiarekin batera.

104. Berriemailea: **Bittor Olaguenaga Arzuaga**. Orozkoko behe partekoa. 1959an jaioa. Aita Orozkokoa eta ama Arantzazuko Albitzukoa. Albitzu, elizaz Zeberio eta herriz Arantzazu izan zen. Gaur egun Albitzu, Zeberio da bai elizaz eta bai herriz. Kontaketa biak 2012-12-30ean jasoak dira Orozkon bertan Itzinako hazduiari begira. Kontaketa bat Orozkokoa da eta bestea Arantzazu-Zeberioko Albitzukoa baina Orozkoko hizkeran kontatuta, nahiz eta batzuetan amaren Zeberioko eragina agertu.

105. Berriemailea: **Alejandro Goti Zabala**. Bedian jaioa 1925-07-05ean. Umetan Bedian bizi zen eta gero Usansolora joan. Usansolon baserri eta basoetan ibili zen lanean eta nagusitan txofer garraioan. Bitarteetan pandero-jotzaile izan zen eta koplari. Gaur egun Usansolon, Laminarrieta kalean bizi da. Beragandiko kanta eta kontu hauek, 2012-12-29an jasoak dira, 87 urterekin. Alejandrogana joateko, bere anaia Tomas, lagun Julian Gandarias eta neure aitaxe Justo Intxaurraga izan ditut bitarteko.

106. Berriemailea: **Sabino Larizgoitia Larrazabal**. Zollokoa. Jaiotza: 1933-08-15. Grabaketa: 2013-01-04, 79 urterekin Zolloko, Zollo-Urrutibeko baserrian. Labrantzakoa izan arren, gero lantegi-gizona izan da jubilatuta arte. Esatari eta kantari aparta eta ehiztari ona oilagorretan etab. Emaztea, Larraskitu-Bilbokoa. Euskalduna izan arren, ez zen ausartu euskara egiten, baina Felix Atutxa bere neba zaharragoaren euskara jasota daukat. (Ikus 63. Berriemailea: Felix Atutxa). Nahiz eta lehendik ere ezaguna izan, laguntzaile legez Justo Intxaurraga erabili dut Sabino eta biak aspaldiko lagunak direlako. Zollo herriari buruz ondo legoke argitasun batzuk ematea. Zollo, 1551n elizate independente egin zen eta horrela egon da 1968an Arrankudiaga-Zollo izatera heldu arte. Baina guretzat, Zollo herria da, eta herri euskalduna, Nerbioi ibaiaren ezkerreko aldeko azken herri euskalduna izanik, Zeberio Nerbioi ibaiaren eskumatik den legez. Herri euskalduntzat hartzeko, eliza erabiltzen dugu neurri legez. Hau da, elizako meza euskaraz badira, herri euskaldun osotzat hartzen dugu, eta horrela izan da Zollon zein Zeberion. Zollo herriaren kokapen geografikoa ere aipatzekoa da. Iparraldetik Arrigorriaga (*Arguya*) eta Alonsotegi ditu, Ganekogorta mendian muga egiten duelarik. Hegoaldetik Arrankudiaga. Sortaldetik Arrigorriaga eta sartaldetik Arabako Okondo. Gaur egun, 1968tik hona Arrankudiaga-Zollo bat direla jakin arren, Zolloko euskara eta Arrankudiagakoa ez dira berdinak. Beraz, Zolloko euskarari bere tokia eman nahi diogu Sabino bezalako esatari apartaren bidez.

107. Berriemailea: **Luis Etxebarria**. Zolloko Dimutio aldeko Azpiuntza auzuneko Goiengo baserrikoa. 1928an jaio zen eta 2005ean hil 77 urterekin. 1968rik hona Arrankudiaga-Zollo da. Luis, gaztetan, baserrian eta basoetan beharren ibili zen eta gero garraiolari legez Baskonia lantegian. Hortik aparte musikari aparta izan da bere aldi gutzian, akordeoilari eta pandero-jotzaile, besteak beste. Luisen aita “Piti” ere trikitilaria izan zen eta Luisen seme Koldo ere trikitilari ospetsua da Unai semeak panderoaz lagundurik. Beraz, lau belaunaldiak musikari. Luisen emaztea Busturikoa izatera Luisek Busturian egiten zituen denboraldiak, San Antonioko itsasertzean. Nik, batez ere neure ama parteko familiari esker, oso ezaguna izan dut Luis eta baita gaur egun bere familia ere, eta gainera, udan ere sarritan egon izan naiz Luisekin, Mundakan pasatzen dudalako udaldia. Luisengandik hartutako kontuak udaldian jasotakoak dira Luisekin berarekin egiten nituen egotaldiak bitarteko, han Busturiko San Antonio auzuneko gaintxoan, Arrizuriaga “kurtzero”an, 70 urtetik gora zela. Hainbat bider egon nintzen berarekin kontu kontari Axpera bidean dagoen arboladiaren gerizpetan Urdaibaiko ikuspegi ederra gozatuz, besteak beste, Izaro ezkerretara, Urdaibai gaineko Atzarreko San Pedro aurrez aurre eta Oiz mendirainoko guztia eskumatara izanik. (Oharra: zuka eta hitanoa biak darabiltza txandaka)

108. Berriemailea: **Fermin Sagarna Amuriza**. Areatzako Ellakurikoa, 1927-09-25ean jaioa. Ellakuri, izatez Zeanuri parte da baina Ferminentzat Areatza izan da beti, Ellakuri elizaz beti izan delako Areatza. Ellakuri, Asterri eta Lamindao bitartean dago, altueran eta eguzki-begian Gorbeira adi, Ogaragoti eta Ogarabeti azpitxoan, labran-

tza-etxe ederra. Ezkondu ezkeru, Areatzan bizi da eta grabazioa 2013-01-26an egina da 85 urterekin. Gaztetan labrantzan ibilitakoa eta gero garraiolari. Hortik aparte, arotzerian ere oso trebea da eta inon diren eskulturak eta tresnak egiten ditu egurrean, batez ere jubilatuz zenetik eta hona. Bere andrea, Mari Etxebarria, Arteagakoa da, nire aitaren lehengusina. Hortik, ba, girotze bide aparta.

109. Berriemailea: **Martin Sagarna Etxebarria**. Areatzakoa. Martin 1957-09-12an jaio zen eta Areatzan bizi da. Bere aita, Fermin, Ellakurikoa eta ama, Mari, Arteagakoa. Aipatzekoa da Areatza, lehenago, parte handi batean behintzat, erdal herria izanik, Martinek bere familiari esker euskarari eutsi izana. Gaur egun lorezaintza munduan dabil beharrean. Hortik aparte, oso mendigoizalea da eta zehatzago esanda, espezialista Gorbeia-aren eta batez ere Itzinako hazduiaren ezagutzan. Martinek berak esanda, ia astero joaten da Itzina GPS eta guzti eta hango bide eta zulo guztiak dakizki eta eskalarekin bat egiten dabil bere kontura ordenadorean Itzinako bide, kobazulo, iturri, osin, putzu, potxingo, txabola eta abar luze baten berri emateko asmoz. Lan hau egiten dabilen bitartean, hainbat artzainekin berba egiten du Gorbeialdean eta hortik datoz kontatu dizkidan mito eta esanda batzuk. Grabazioa, 2013-01-26an egina bere gurasoen etxean. Martin nire bigarren lehengusua izatera, grabazio giroa oso ona eta nasaia izan da, hamaitaketa eta guzti. Kuriositate legez, Martinen familia bizi den hiru pisuko etxearen balkoietako balaustara bakoitzean, Gernikako Arbola ikus daiteke. Beraz, Sagarna eta Etxebarria familia, euskaldun-euskalduna barrutik zein kanpotik.

110. Berriemailea: **Faustino Etxebarria**. Dimako Indusi auzuneko Etxenagusia baserrikoa. 1917an jaio zen Diman, Baltzola eta Axlor-eko kobazuloen ondoan eta 2008an hil Galdakaon. Faustino, 14 urterekin ahuntzain joan zen eta hantxe hasi zen, bertso-paperak bitarteko, bere bertsozaletasuna. Labrantzan eta ikatz egosten ere ibilia zen eta gerora zerrari legez Diman eta Gasteizen. Azkenean Galdakaon bizi izan zen, hil arte. Galdakaon auzokide izan dut baina ume-umetarik izan dut ezaguna bere familia. Kontaketa hauek, 1996 aldera jasoak dira. Kontua hauxe da: Faustino, besteak beste, herri-bertsolaria izan da eta neuk jarri nuen Antonio Zavalarekin harremanetan bere lehen bertso liburua argitaratzeko (*Nor garan azaldu* Auspoa 208 zk. 1990). Gero A. Zavalak prosaz beste liburua bat idazteko agindu zion eta garai horretakoak dira nik hemen jasotzen ditudan mito eta esandak. Faustinoaren Auspoa-ko bigarren liburua hauxe da: (*Nire gazte denpora* Auspoa 237 zk. 1996). Liburu honen sarreran, "Argigarria" izenburupean argi utzi nuen liburua horretako euskara ez dela etnotestu hutsa, literarioagoa baino, betiere, ulerterrazago egiteko bidean, A. Zavalaren estiloan. Jakingarri legez, Faustino berak kontatuta dakit On Jose Miguel Barandiaran, bere Indusiko baserrian egon zela bizitzen bai gerraurrean eta bai gerraostean, Baltzolako eta Axlorreko indusketak egiten ibili zen garaietan. Autodidakta legez landu arren euskara, Faustinoaren testigantza interesgarria da Dimako euskal altxorra ezagutzeko.

111. Berriemailea: **Carmelo Ayesta Aranguren**. Zeberiokoa. Uriondon jaio 1932-01-05ean eta Egia auzunera ezkondu eta bertara bizitzera joan zen. Geroago, Zeberiotik Galdakaora joan eta 5 urtez han bizi. Gero Arrigorriagara aldatu eta han daramatza 40 urte Larrasko auzoan. Elkarrizketa 2013-10-22an egina da 81 urterekin Larrasko auzuneko bere etxean. Elkarrizketa antolatzeko, bere seme Karmelo Ayesta Sagarduy izan dut bitartekari. Carmeloren emaztea, Juana Sagarduy, Arrigorriagako Abrisketa auzuneko zen. Hortik ba bere bertso batzuen arrazoiak. Santa Agedarenak osterak, Carmelok bere aita Manurengandik ikasi zituen eta berak berriak egin ere bai.

Manu herri-bertsolaria zen eta semeak ere haritik jarraitu dio. Ni, senide naiz eurekin. Manu, nire ama parteko osabarik zaharrena, eta Carmelo, nire lehengusu zaharrena. Etxegintza izan da bere lanbide nagusia. Gizon lerdena, aibela eta abeslari ona. Notara ere badauka.

112. Berriemailea: **Jose Mari Ipiña Urrutikoetxea**. Arrigorriagakoa. Abrisketa auzuneko Bekoetxe baserrian jaioa 1924-10-13an. Gero Larrinaga baserrira pasatu zen bizitzen. Azkenengoz Arrigorriagan pisuan bizi izan da. Elkarrizketa eta grabaketa 2013-10-22an eginak dira 89 urterekin Arrigorriagako Larrasko auzoko Carmelo Ayesta Aranguren bere koinatuaren etxean. Elkarrizketa egiteko bitartekari legez, Carmelo Ayesta Aranguren bere koinatua, Karmelo Ayesta Sagarduy bere loba eta Juan Manuel Ipiña Sagarduy bere semea erabili ditut. Jose Mari Ipiña, lanbidez, guarda izan da dinamitan, Rezola ondoan, eta tarteka baserrian ibili da era guztietako beharlekuetan. Etnotestuetan ikusiko denez, Jose Mari Ipiñak zuka eta hitanoa biak darabiltza nahastean. San Pedro Abrisketa auzunea Arrigorriaga (Arguiako) ipar-mendebalderantz dago eta ia Bilborekin mugan. Interresgarria, beraz, inguru honetako herri-euskararen etorkizuneko lekuko legez.

113. Berriemailea: **Tomas Gorrotxategi Beldarrain**. Herriz, Arratiako Arantza-zuko Albitzu auzuneko. Elizaz, Zeberioko Olabarrietako San Tomas parrokiakoa eta ermitaz, Zeberioko Eergoieneko San Justo eta Pastor-ekoa, Undurragan kokatutakoa. Jaio, 1928-01-26an egin zen eta hil 2005-12-05ean. Jaioteritik beste herri batzuetara joandakoa da bizitzen bere lanagatik, lehenengo Basaurira eta azkenik Galdakaora. Kontaketok 2003ko udan kontatu zizkidan, 75 urterekin.

114. Berriemailea: **Constancia Egiluz Arruabarrena “Kosta”**. Zeanuriko Ipiñaburun jaioa 1907an. Handik Uribe aldeko Iturritzaga (*Iturtza*) baserrira ezkondu Pedro Astondoa artzainarekin. Hil 1975ean, 68 urterekin. Garai batean, Pedro Astondoa eta semeak, ardiekin etorri ziren Zeberioko gure Undurragako baserrira barrutiak jaten eta lo eta guzti egiten zuten gurean. Horretara, sanmigeletan beraien etxera joaten nintzen gonbidatu eta han entzun nion Kostari (Constanciari) Gizotsoaren ipuina, Pedro, gizona, ez zelako ipuinzalea. Ia berrogei urte geroago, Pedro eta Kostaren seme Pabi Astondoa Egiluz elkarrizketatu nuen baserri bereberean. Urteak ez dira alperrik joan, baina aldaketak aldaketa, semeak ez du galdu amaren haga.

115. Berriemailea: **Pabi Astondoa Egiluz**. Zeanuriko Iturritzaga (*Iturtza*) baserrikoa. Pedro Astondoa Gorbeia artzain ospetsuaren semea. Jaio, 1949-06-30ean egin zen eta elkarrizketa 2013-11-09an egin bere baserrian, 64 urterekin. Txikitatik aitarekin artzain ibilitakoa da. Gero lantegian eta beste ekintza batzuetan ere bai. Aspaldiko partez herri-kiroletan da ezaguna eta gaur egun artaldea dauka Gorbeia pean esne, gazta eta abar egiteaz gain, txapelketa eta erakusketetan parte hartzeko. Bere amari entzundako “Gizotso”aren mitoa eta hainbat gehiago kontatu dizkit Pabik oraingoan. Elkarrizketa guztia hitanoz dago, giro ederrean eginda, Pabi, bere emazte Mari Sol eta Irati bere alabaren laguntasunean.

116. Berriemailea: **Juan Luis Orue Zabala**. Zeberioko Isasi auzunean jaio eta hamabost urterekin Arkulanda auzunera joanekoa gero Bertzuten auzunera ezkondua, Untzuetan azpian. Nekazari eta langile. Grabaketa 2010ean 76 urterekin. Berarekin batera Rosalia bere andrea neukan ondoan. Rosalia kontalari aparta da, bere ama bezalakoa, eta bitarteka Juan Luis ere sartzen zen elkarrizketan. Hemen Juan Luis bera bakarrik agertzen da istorio kurioso baina benetako hau kontatzean.

117. Berriemailea: **Felisa Lejarza**. Zeanuriko Elexartzan jaioa 1910ean eta 1999an hila. Basilio Etxebarria Gorbeiaiko artzain ospetsuaren andrea eta gaurko Enrike Etxebarria artzainaren ama. Grabazioa, Felisaren suhi Gotzon Olabarrik egindakoa da eta CD hori Basilioaren iloba Eneko Olabarriren bidez heldu zait. Datuak zehazte bidean Anita Astondoa izan dut bitarteko.

118. Berriemailea: **Juana Gorostizagoiza**. Dimako Goiñolan jaioa 1896an. Gero Zeanuriko Uribeko Elexartzara ezkondua, Basilio Etxebarria eta Teresa Lexartzaren ondora. Grabazioa, Gotzon Olabarrik egindakoa da eta CD hori Basilioaren iloba Eneko Olabarriren bidez heldu zait. 1985ean hil zen. Datuak zehazte bidean bere alaba Mila Lejarza eta auzokide Anita Astondoa izan ditut bitarteko.

119. Berriemailea: **Iñaki Petralanda**. Orozkoko Gallartu auzunean jaioa 1933an. Umetarik aita barik eta baserrian, eta basoan ikatz egosten ibilia. Gero 18 urterekin Zaratamoko harrobietan beharrean. Geroago Rezola zementu-fabrikari. Gero garraio-lari Zaratamoko Urrutikoetxearekin. Soldaduska ostean Arrigorriagan txapa tailer-mekanikoa sortu eta hantxe jubilatu arte. Ezkondu Zeberioko Eskoriko Begoña Gorrotxategirekin. Herri askotan ibiltzeak bere eragina dauka Iñakiren euskarari. Elkarrizketa Zeberioko etxean egingo da hil aurretik, Arrigorriagan bizi arren Zeberioko Eskoriko etxean egotaldiak egiten zituelako. Euskaltzale handia izan zen eta 2006an hil zen. Elkarrizketa 2005eko da 72 urterekin, eta horretarako Iñakiren emazte Begoña eta euren alaba Montserrat (Montsi) izan ditut bitarteko.

120. Berriemailea: **Iñaki Etxebarria Goikoetxea**. Zeberioko Elexartza baserrian jaioa 1944an. Hamar urterekin Zeberioko Etxebarri auzunera aldatu ziren Elexartza, Bikoxgane eta Aibelagabe azpian egotera oso aparte zegoelako. Baserriko beharretan ibilia eta gero fabrikari baina bitarteka baserri-beharrak utzi barik. Ezkondu Basaurira baina gaur egun Zeberion bizi da Sautuolabarri auzune berrian. Elkarrizketa 2013-12-02an egingo da 69 urterekin.

121. Berriemailea: **Justo Respaldiza**. Orozkoko San Martin auzuneko Goreitze (Goroztiza) baserrian jaioa 1909-12-13an eta hil 1998-03-11n. Baserrikoa eta basoetako suen begiralea Arrugaetako haitez gaineke txabola bitarteko. Anastasia Ozaeta Orozkoko San Martineko Unibaso auzunekoarekin ezkondua. Kontaketa bi lortu ditut. Lehenengoa, datu eta guzti, Justoren seme Juanjo Respaldiza bertsolariaren bidez, berak posta elektronikoz bidalita. Grabaketa hori J. Aurre sortan agertzen da eta YouTubean sarturik dago 2010-02-23an. X. Amurizak ere jasotzen du bere erara transkribaturik, *Bizkaiko Bertsoegintza I* liburuan. Oraingo transkripzioa eta gainetiko zehaztasunak neu-reak dira, neure metodologiari jarraituz. Bigarrena, Jon Arretzek Justori grabatua da 1985ean 75 urterekin eta neure zuzendaritzapean egindako *Basauriko Euskara* doktorego tesian agertzen da eranskin legez. Oinarrizko testua berrikusi egin dut eta gainetiko zehaztasunak jarri nire metodologiaren bidean. Eskerrak bitarteko guztioi.

122. Berriemailea: **Felisa Ajuria Pujana**, Otxandiokoa. 1934an jaioa. Bere gurasoak Otxandioko Gordobil auzunekoak. Grabaketa 1987an egindakoa da. Grabaketa eta lehenengo transkripzioa bere seme Xabier Burguetek egingo da bere garaian. Material hau guztia 2014ko uztailean heldu da nire eskuetara Xabier Burguete Ajuria bitarteko. Nik neure metodologiara erakarri dut transkripzio fonologikotik hasi eta gainetiko guztietara. Eskerrak Xabier Burguete Ajuria jaunari bere amaren Otxandioko material ugari eta eder hau etorkizunera bidean nire lan etnografiako honen bidez jartzeagatik.

6. BIBLIOGRAFIA

- AGUD, M. & TOVAR, A, 1992, *Diccionario Etimológico Vasco*. San Sebastián.
- ARANA MURILLO, A, 1996, *Orozko haraneko kondaira mitikoak. Bilduma eta azterketa*. Baiona.
- AKESOLO, L., 1977, *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*. Bilbao.
- AZKUE, R.M, 1930, *Del acento vasco en algunos de sus dialectos*. in *Euskera* IV .
—, 1966, *Morfología vasca*. Bilbao: Gran Enciclopedia Vasca.
—, 1989, *Euskalerraren Yakintza II*. Madrid: Espasa-Calpe, 3. argitaraldia.
- BARANDIARAN, J.M., 1973, *Obras Completas II. Eusko-Folklore*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
—, 1976, “Guía para una encuesta etnográfica”. Vitoria: Diputación de Álava.
—, 1973, *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Obras Completas II. Bilbao: Eusko-Folklore, La Gran Enciclopedia Vasca.
- ETXEBARRIA AYESTA, J.M., 2001, “Azentuaren eragina kontsonanteen gortzean” in ENSEIUKARREAN, 15. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria, 11-30. or.
—, 2002, “Azentua rasgo bereiztailea homonimoetan” in. ENSEIUKARREAN, 16. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria, 129.136. or.).
—, 1991, *Zeberrioko Haraneko Euskeraren Azterketa Etno-Linguistikoa*. Doktorego Tesia. Zornotza: Ibaizabal.
—, 1995, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbao: Labayru & BBK.
—, 1995, *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*. Zornotza: Ibaizabal.
—, 1999, *Zeberrioko Kantak*. Oiartzun: Auspoa Liburutegia 259. Sendoa.
—, 2002, *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*. CD Multimedial. Zornotza: Ibaizabal.
—, 2003, *Euskal Urtea, Obituraz Betea*. Amorebieta: Ibaizabal.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Antologia*. Bilbo.
- GAMINDE, I, 1993, *Bizkaiko azentu-motei buruz. Uztaro 7*: 111-140.
- GARATE, G., 2003, *30.466 atsotitzak* (euskaraz, gazteleraz, latinez, ingelesez). Bilbo: Bilbao Bizkaia Kutxa.
- HUALDE J.I, 1997, *Euskararen azentuerak*. ASJU. Bilbo.
- KALZAKORTA, J., 1997, *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
—, *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa*. Doktorego tesia. Deustuko Unibertsitatean defenditua 2015-12-21ean, neure zuzendaritzapean.
- LABAYRU HIZTEGIA, 2003, *Labayru Ikastegia*. (A. Arejitaren zuzendaritzapean). Bilbo.
- LAKARRA, J., 1996, *Refranes y Sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia. Bilbao.

- LARREA, A & REKALDE, I, 2010, *Arratia Inguruko Hiztegia*. Bilbo.
- MITXELENA, K., 1961, *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastián.
- SEGURA MUNGUIA, S & ÉTXEBARRIA AYESTA, J.M., 1996, *Del latín al euskara-Latinetik euskarara*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- TXILLARDEGI, 1984, *Euskal Azentuaz*. Donostia.
- ZUAZO, Koldo, 2000, *Euskararen Sendebelarrak*, Alberdania.
- , 2008, *Euskalkiak: Euskeraren dialektoak*, Elkar.



On Jose Miguel Barandiaran eta Juan Manuel Etxebarria Ayesta bere mito-ipuin liburuak oparitzen On Jose Miguel Barandiaran jaun ospetsuari, Ataunen 100 urte bete zituen egunean. (1989-XII-31. Argazkia: Etniker-Labayru)

**ERANSKINA:
ZEBERIOKO EUSKARAREN
AZTERKETA**

1. ZEBERIOKO EUSKARAREN BOKALISMOA

Bide asko dago herri bateko edo besteko bokalismoa aztertzeko eta batetik zein bestetik joan, zehaztasunez jokatzeari litzateke biderik zuzenena.

Nik neuk, neure aldetik, neure kezkek eragindako bide bat hartu dut eta ez da besterik haxe baino: azentudun zein azentu gabeko bokal ezberdinak era guztietako kontsonanteekin konbinaturiko hitz edo talde fonetiko zerrenda bat aukeratu Zeberioko euskara bizi bizitik eta gero Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoan aztertzea.

Laborategi Fonetikoaren barruan ere, era askotako joera hartzeko aukera daukagu inkesta bat egiterakoan. Aukeratu dudan berriemaileak eta nik ez ditugu ahoa eta belarriak baino erabili grabaketa egikeran. Batzuek, (1) irakurraraziz egin dute inkesta, beste batzuek gazteleratik euskarara itzuliz, ahoz zein idatziz, (2) baina nik ahozkoa bakarrik erabili dut eta euskaratik euskarara, jakina, zehaztasun eta jatortasun handiena lortu guran.

Nik ondo ezagutzen dut neure herriko euskara eta ezagutza hori bera izan da nire grabaketaren oinarri.

Norbaitek pentsa lezake berriemaileak neuk ahoskatzen ditudan lez ahoskatuko dituela neuk aurretik eta berak jarraian ahoskatzen dituen talde fonetikoak, baina nire kasuan ez da hori gertatzen, aukeratutakotalde fonetikoak bizi-biziak direlako.

Esandako hau baieztatzeko, hona hemen adibide argigarri bat.

Zeberion, gazteok, bokal batzuk ixteko ohitura daukagu: “ulloa, uya, uñela...” baina adinekoek ez “olloa, oya, oñela...”

Nik neuk ere itxi egiten ditut bokalok baina grabaketa egiterakoan nik neure erara ahoskatzen nituen arren, nire berriemaileak bereari zeragoion eta berak beti esaten dituen bezala ahoskatzen zituen. Jakina, fenomeno hau aspalditik ezagutzen nuen eta hainbat eta baita hainbat aldiz baieztatu ere laborategira joan aurretik. (3)

Zeberio, herri bakarra denez, berriemaile bat bakarrik aukeratu dut, baina bera ondo. Zeberioko herria luzea da eta herri barruan Ergoienekoa aukeratu dut, Elbarrenekoek eta erdikoek baino erdararen eragin gutxiago daukalako. (4)

Beste alde batetik, berriemailea, bakarra izan arren, aztertutako bokalen kopurua handia da: 288 bokal, 106 azentudunak eta 182 azentugabeak.

1.1. Berriemailea

Gure baserria, etxaguntzakoa da eta neure aitita-amamak ere bertan bizitzen ezagutu ditut. (5)

Aukeratutako berriemailea, Patxi Etxebarria Arroita da, neure aita. 70 urte ditu (1985ean) eta jaiotzatik bizi da baserrian. Nekazaria bere aldian eta eskolako urte apurretatik kanpo ez du beste ikasketarik.

Grabaketarako aita aukeratu badut ere (gizonezkoen tinbrea egokiagoa delako), neure amarengandik hartutako argibideak ere sano kontuan hartzekoak dira.

Nire ama, Leonor Ayesta Goikoetxea da, Uriondoko baina Undurrara ezkondua. Mapan ikusi daitekeenez (6) Undurra ekialderantz dago, Arratia ukitzen eta Uriondo mendebalderantz. Uriondo erdal-mugatik hurbilago dago, baina mendian dagoen auzune bat denez, euskara garbi zaindu da. (7)

Guzti honegatik bada, nire gurasoen euskara aberatsa da eta eurak izan dira nire berriemailerik zuzenenak.

1.2. Laborategi fonetiko (8)

Grabaketa egiteko Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoa erabili dut. Bertako magnetofonoa hauxe da: UHER 4000 REPORT MONITOR.

Espektrogramak zein sonogramak, era bitakoak erabili ditugu: 300eko zerrenda, “banda ancha”koak eta intonaziorako “banda ancha ampliada”koak. Biak: TYPE B/65 SONAGRAM (R) KAY ELEMENTRICS CO. PINE BROOK, N.J.

1.3. Bokalismoa diakronian

Zeberrioko bokalismoaren azterketa sinkronikoa luze eta sakon azterturik dago nire doktorego tesian (Etxebarria Ayesta J.M., 1991) eta orain diakronian sartzeari beharrezko deritzat hau arlo hau borobiltzeko.

Fenomeno ezagunenetariko bat bokal-irekidura dugu eta adibideak lagun, gatozen kasuistikara.

Goi-hobietako dardarkari (multiplea) ozenaren aurreko bokal-irekidura gertatzen da kasu batzuetan.

Adibideetara joanik hor ditugu: “barri” lit. berri; “garri”, lit. gerri; “txarri”, lit. zerri; etab.

Mitxelenak (9) dioena baieztatuz, “-ER” multzoa “-AR” egitera heldu da irekiduraz. Esate baterako: “baster”, lit. bazter; “bastartu”, lit. baztertu; “agartu”, lit. ageri/agiri-tik.

Azken adibide hau, aditz mailan Zeberion “agartu” esaten badugu ere, bere partizipioa “agiri” diogu. Adibidez: “agiri de”; estagiri” etab.

Badugu “-TU” atzizkidun “agiri” bat: “agiritu” hain zuzen, gaztelerazko “destapar” adierazteko.

Baditu beste erabilera batzuk ere. Esate baterako “agirian” edo “agiri” huts-hutsean animalia batzuen *época de celo* adierazteko. Adibidez: “gure txakurre agiri ok eta estok agiri” (*nuestro perro está en celo y no aparece*).

Toponimiara joanik, badugu “Agarre” izeneko bat eta hor ere argi dago “Agirre/Agerre”ren irekidura bat dena. Beste hainbatetan, aldiz, inguru berean ez da gertatu irekidurarik baina horren arrazoia ez da besterik hauxe baino: aurreko silabako bokala “I/U” dela eta bokal itxiak izanik ez duela utzi irekitzen, edo garairen batean irekirik erabili badira, berez-berez itxi direla armonia bokalikoaren eraginez. Adibidez: “ister”, lit. izter; “bider”, lit. bider; “musker”, lit. musker; “piper”, lit. piper; “pitxer”, lit. pitxer; “suster”, lit. zuztar; etab.

“-R + Kontsonante” kasuan, Mitxelenak (10) “I > E” irekidura edo bazilazioa behintzat adierazten digu baina Zeberion era honetara egiten ditugu berak jartzen dituen adibideak: “kirten”, lit. kirten; “urten”, lit. irten (baina ez dira esangura berekoak); “kemen”, lit. kermen; “txiker”, mer. txikir: “agartu”, lit. agirtu; etab.

Antzera gertatzen da “U” bokalarekin, ireki eta “O” egiten bihurtzen baita. Adibidez: “biortu”, lit. bihurtu.

Zeberioke alde batean txistukari aurrean ere gertatu da irekidura. Kasu bakarra izanik ere aipatzera noa: “nagosie” lit. nagusia. Gehienok “nausie” egiten dugu.

Irekidura “L” inplosiboaren aurrean ere gertatu da, esate baterako: “baltz”, lit. beltz; baina beste kasu hauetan ez da aldaketarik sortu: adibidez, “orbel”, lit. orbel; “Aibelabe” (top.).

Beste alde batetik, “beldur/bildur” dela eta, Zeberion “bildur” darabilgu beti: “bildur, bildurti, bildurkilik, bildurbako, bildursartu” etab.

Hasiera absolutuan ez da gertatu irekidurarik bikote hauetan ikus daitekeenez: “erri/ardi”; “erdi/ardi”; “erbi/arbi” etab.

“R-”z hasten diren mailegutan bokal protetiko baten bidez osatzera jo dugu eta Zeberion “E-” protetikora joan gara, behar bada, asimilazioaren eraginez. Adibidez: “erresoi, erregu, erruda, erresau, ernegau, errepasau, Erramon” etab.

“A-” protetikoa erabili badarabilgu baina asimilazioz, esate baterako: “arratoi, arrayoa...” etab.

Irekidura fenomenoaren ondoan itxidura daukagu eta Mitxelenari (11) jarraituz, bokal mailegu zaharren iraunkortasunaren ondoan aldakortasuna ere ugaria da.

“A > E” egiten da itxiduraz aurreko silaban “I/U” dagoenean. Adibideak zenbat gura eta harexen beste: “aite, andie, burue, dakisune, ikusie, txori bet, buru bet, etorri de, apurtu de,” etab...

“I/U” bokalek eragina izan dezakete aurrekoarengan eta hura itxi. “Igueski”, lit. eguzki; “igurdi”, lit. eguerdi; etab.

Itxidura bikoitza ere gertatzen da inoiz. Esate baterako “ikuski”, lit. ikuzi. Faktitiboa erabiliz: i-ra-kutzi genuke. Zeberion “irukutzi” esaten dugu (gazt. enjuagar).

“O > U” itxidura “N” baten aurrean ezaguna dugu esate baterako Zuberoan, baina Zeberion ere, eta batez ere belaunaldi gaztearen artean (30-40) aurkitu ditut kasu batzuk. Adibidez: “untxe”, lit. oraintxe; “undiño”, lit. oraindino; “untzu”, lit. oraintsu; “igun”, lit. igon; etab.

Datozen adibideotan, zahar eta gazte, denok goaz bat. Adibidez: “unbardinke”, lit. oin berdinka; “askunarra”, lit. azkonarra; etab.

Mitxelenak (12) “*ken-” erroa dela eta gaztelerazko “hedor” adierazteko Bizkairako “kirats” aipatzen du baina Zeberion “kiretz” darabilgu, Nafarroan bezala.

Itxidura, sabaikari baten aurrean ere gertatzen da eta adibideak ugariak baino ugariagoak: “itxun”, lit. etzan; itxura”, lit. etxura; “iyo”, lit. eho; “uye”, lit. oia(gazt. encía) edo ui (gazt. la pez); etab.

Belaunaldi gazteak (30-40) kasu gehiagotan ixten dugu: “ullo”, lit. oilo; “uñetako”, lit. oinetako; “kullara”, lit. koilara; “uya”, lit. ohea; “guyen”, lit. goian; “luye”, lit. lohia; “uñela”, lit. orinala; etab.

Bokal itxi baten eraginez, batez ere gazteok ixteraino heldu gara aurreko zein atzeko bokala. Esate baterako: “kuipea”, lit. koipea; “guitik”, lit. goitik; “Guikiri” (top.); “biusturie”, lit. bihozturi; etab.

“I”dun hiru silabakoetan, bokal hori lehen zein hirugarrenean badago, “E,O,A” bokalak aldakor bihurtzen dira. Adibidez: “igirri”, lit. igarri; “igurdi”, lit. igordi; “imini”, Ax. “ibeni”; “ikisi”, lit. ikasi; “iruntzi”, lit. irentsi;

Lekuko bezala, aipagarria da “izena”rekin gertatzen dena. Gehienok “ixena” [isena] egiten dugu, baina lekutan-lekutan “isena” edo “usena” ere entzuten dira.

Beste kasu batean, “ikuski”-n hain zuzen, gehienok horrela egin arren, batzuk “ukusi”, “ukustosu” etab. egiten dute.

Borobilduz, “E,O,A”ren artean asimilazioak ere gertatzen dira, batzuetan aurreranzkoak eta besteetan atzeranzkoak: “ete”; “odoloste” etab.

Eta bokal berdin bi elkartzen direnean disimilazioa bitarteko dela bereizten dira.

1.4. “I/U” alternantzia

Mitxelenak (13) dioena baieztatzeko ez dago adibideetara joatea baino Zeberiko erabilera ezagutzeko. “U”ren alde egin dugu eta betoz adibideak: “uger”, lit. igeri; “ugelaxue-txubelaxue”, lit. igel...; “ule/ulle”, lit. ile; “untza”, lit. iltze; “urten”, lit. irten; “urun”, lit. irin; “uri”, lit. hiri.

“Isen/usen” alternantzia ere badugu Zeberion, gazteok “ixena” egitera etorri bagara ere.

Sudurkari baten aurrean ere “U”ren alde jo dugu, adibidez: “umo, umel...”.

Lit. zu(r)mitz delakoan, Zeberion “simentz” egiten dugu. Hor, “I”ren aldeko asimilazio bat gertatuko zen eta gero artikulua jartzean bigarrena ireki egin da, “E” eginaz.

Lit. zumel delakoan, Zeberion “tximel” egiten da “I”ren alde.

“Silo/sulo” bikotea bizirik daukagu baina “silo” ganaduen janaria gordetzeko zuloari esaten zaio.

Sabaikari baten aurrean ere “I”ren alde jo da, adibidez “gitxi” lit. gutxi.

Latineko “subsellium” Zeberion “txisilu” edo “txixilu” egiten dugu.

“I,U > U,U” asimilazioa ere ikus dezakegu esate baterako: lit. ikusi, Zeb. “ukusi”

“U,I > U,U” asimilazioa ere gertatzen da adibide hauetan ikus daitekeenez: “urrutxa”, lit. hurritz; “Urrusti”, (top.), lit. hurritz; etab. Metatesi kasua aipatuz, hor dugu lit. ukutu, Zeberion “ikutu” eta askok “ukutu” eginik asimilazioz.

1.5. Zeberioko euskararen diptongazioa

Sarrera gisa eta sailkapen bat egiteko asmotan, euskarazko diptongoak lau sail nagusitan banatuko nituzke:

- a) Beheranzkoak
- b) Goranzkoak
- d) Primarioak edo jatorrizkoak
- e) Sekundarioak edo diakronian sortuak(14)

Euskararen handik honakoan, jatorrizko diptongo askoren era bateko edo besteko aldaketa sortu da, batzuetan diptongoa monoptongatuz eta beste askotan epentesi kontsonantiko batez apurtuz.

Beste alde batetik eta batez ere mintza-mailan, jatorrizko diptongorik egon ez den kasu askotan egin egin dira diptongo bereziak talde fonetiko barruko mintzajokoan.

Zeberioko euskarari dagokionez, era guztietako diptongoak entzuten dira eta gehiagoko barik, goazen banan-banan aipatzera: komatxo arteko etnotestuak literarioa darama eskuman beharrezko denean.

1.5.1. Beheranzkoak (primarioak zein sekundarioak)

1. “AU”: Diptongo hau oso ugaria dugu Zeberioko euskararen:

“gaur”
“lau”

“gausa”	lit. gauza
“au”	“ hau
etab...	

Ahoskera berebereko beste diptongo sekundario asko egiten dira bokalarteko kontsonanteren bat galdu ondoren.

“nausi”	lit. nagusi
“dauket”	“ da(d)ukat
“auldu”	“ ahuldu
“auntz”	“ ahuntz
etab...	

Honezaz gainera, talde honetan sartu behar ditugu “EU” diptongotik datozen guztiak.

2. “EU” diptongoa jatortasunez erabiltzen bada ere, sarri askotan “AU” egitera etorri da.

Primarioetatik hasita, hona hemen jasotako adibide batzuk:

“nau”	lit. neu
“naurri”	“ neurri
“auskera”	“ euskera
“daust”	“ deust
etab...	

Sekundarioetara bagoaz, beste hainbeste gertatzen dela ikusiko dugu:

“auki”	lit. eduki
“aun”	“ ehun
“aulea”	“ ehulea
etab...	

3. “AI”. Diptongo hau ere oso ugaria dugu Zeberioko euskaran.

Primarioak jatortasunez erabiltzen dira jarraian beste bokal bat ez badago:

“bai”	lit. bai
“ibai”	“ ibai
“nasai”	“ nasai
etab...	

Sekundarioak ez dira batere urriagoak:

“bai”	lit. bahe
“nai”	“ nahi
“aitu”	“ aditu
etab...	

Lehenago ere esan dugunez, diptongo honen jarraian beste bokal bat badago, “AI” diptongoaren bigarren elementua ez da hain argia eta espektrogrametan ere horrela

agertzen da “Y” grekoa balitz bezala, fonetikoki goranzko diptongoaren erdi-kontsonantea:

“nasaya”	lit. nasaia
“baya”	“ bahea
“anaya”	“ anaia
etab...	

Sail hau osatzeko ezin ditugu ahaztu “EI” diptongoaren ahoskera aldaketatik datozenak.

4. “EI”. Diptongo hau ere era bitara entzuten da, eta jatorrizkoa gorde gordetzen da:

“odei”	lit. hodei
“sein”	“ zein
“erein”	“ erein
“sei”	“ sei
etab...	

Sekundarioak ere gordetzen dira:

“bei”	lit. behi
“eisu”	“ egizu
“beitu”	“ begitu
etab...	

Hori horrela bada ere, sarri askotan “EI” > “AI” egitera etorri da primario zein sekundarioetan:

Primarioetan:

“sai”	lit. sei
“erain”	“ erein
“odai”	“ hodei
etab...	

Sekundarioetan:

“bai”	lit. behi
“gaitu”	“ deitu
“bai”	“ bedi
etab...	

5. “OI”. Kasu honetan ere era bietakoak aurkitzen dira.

Primarioak:

“goi”	lit. goi
“gois”	“ goiz
“koipe”	“ koipe
etab...	

Sekundarioak:

“oi”	lit. ohe
“oin”	“ orain
“loi”	“ lohi
etab...	

Kasu honetan ere, “OI” diptongoari jarraian bokal bat jarritz gero, sarritan “I” > “Y” egiteko joera dago.

“OI” diptongoa dela eta, fenomeno kurioso bat ari da gertatzen Zeberioako 40 urtetik beherako belaunaldikoen artean.

Hainbat kasutan, eta adinekoek jatorrasunez ahoskatu arren, guk beste gazteagok “OI” > “UI” egiteko joera daukagu, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

6. “UI”. Jatorrizkoak ez dira hain ugariak baina hala eta guztiz ere hona hemen batzuk:

“suin”	lit. suhi
“ipuin”	“ ipuin
“kui”	“ kui
“sagardui”	“ sagardui
“Arandui”	“ Arandui
etab...	

Lehen esan dudanez, eta belaunaldi gaztearen “OI” > “UI” egiteko joera kontuan hartuz asko ugaritzen da ugaritu ere sail hau.

“gui”	lit. goi
“lui”	“ lohi
“uin”	“ orain
“ui”	“ ohe
etab...	

Adibideok, beherazko erara transkribatu ditut baina goranzko erara ere aurkitzea bidezko da talde fonetikoaren arabera.

“sagardui”	lit. sagardui
“lui”	“ lohi
etab...	

1.5.2. Goranzkoak (primarioak zein sekundarioak)

Goranzko diptongoen banan-banangoari ekin aurretik K. Mitxelena bere FHVn honetaz diogenarekin bat natorrela esan behar dut.(15)

Baina beste alde batetik Zeberioako euskara biziko talde fonetikoak aztertu ondoren hainbat eta hainbat goranzko diptongo agertzen zaizkigu azentu eta intonazioaren eragina bitarteko delarik.(16)

Goazen bada banan-banango aipamenera baina ez ahaztu ahoskeraren mugagabetasuna, azken batean, hizkuntza mintzatua bizitzaren tresna da eta talde fonetiko berberak ahoskera bat baino gehiago izan dezake. (Kortxete artean ezaugarri fonetiko-filologikoa dago, “J” edo “W” diptongoen kasua bakarrik adieraziz).

1. “IA” [JA]

“iturrialde”	[iturjalde]
“andiandi”	[andjandi]
“argiargi”	[argjargi]
etab...	

2. “IE” [JE]

“bieti”	[bjeti]	(behetik)
“audienean”	[audjenean]	(eudenean)
“aspienda”	[aspjenda]	(azpian da)
etab...		

3. “IO” [JO]

“asiordu”	[asjordu]	(hasi ordu)
“Uriondo”	[urjondo]	(toponimoa)
“arriotza”	[arjoca]	(harri-hotsa)
etab...		

4. “IU” [JU]

“biune”	[bjune]	(behar doguna)
“gariurte”	[garjurte]	(gari urte)
“gariurune”	[garjurune]	(gari-uruna)
etab...		

5. “UA” [WA]

“Iruatxeta”	[irwatxeta]	(toponimoa)
“sartualde”	[sartwalde]	(sartu alde)
“eskuartean”	[eskwartean]	(esku artean)
etab...		

6. “UE” [WE]

“barruenda”	[barwenda]	(barruan da)
“barruenaok”	[baruwenyaok]	(barruan jagok)
“galduen dao”	[galdwendao]	(galduen dago)
etab...		

7. “UO” [WO]

“ortuondora”	[ortwondora]	(ortu ondora)
“artuorduko”	[artworduko]	(hartu orduko)
“aistuorduko”	[aistworduko]	(ahaztu orduko)
etab...		

1.5.3. *Diptongo bereziak. Bokal silabikoen artekoak. (17)*

Diptongo bat osatzeko bokal silabiko bat eta erdi bokal edo erdi kontsonante bat behar dira. (18)

Baina Zeberioko euskaran, hainbat alditan, bokal silabiko bi silaba batean egiten dira eta diptongo funtzioa bete arren, bokal silabiko biak ahoskatzen dira.

Hona hemen aurkitutako kasuak: “EA, OA, EO, OE, AO” eta Zeberioko triangelu bokalikoa aztertzean esandakoa kontuan hartzen badugu, ez da harritzekoa fenomeno hau. (19)

Funtzioa, diptongoarena dela esan dut eta hala da izan ere, kasuan kasuko bietariko bokal bat oso itxia delako eta bokal itxi horrek erdi bokal edo erdi kontsonante balioa hartzen duelako.

Adibideak dira argigarrienak eta goazen kasu bakoitzaren berri ematera, bokal silabikoari azentua jarritz.

1. “E-A” [EA]. (20)

“beárra”	[bea-rra]	(beharra)
“beáda”	[bea-da]	(behar da)
etab...		

2. “E-O” [EO]

“beósu”	[beo-su]	(behar dozu)
“beórrek”	[beo-rrek]	(berorrek)
etab...		

3. “O-A” [OA]

“osoán yaok”	[o-soan-yaok]	(osoan jagok)
“yoán da”	[yoan-da]	(joan da)
etab...		

4. “A-O” [AO]

“yaók”	[yaok]	(jagok)
“daós”	[daos]	(dagoz)
etab...		

5. “O-E” [OE]

“soloérdi”	[so-loer-di]	(solo erdi)
“ondoéstea”	[on-does-tea]	(hondo-hestea)
etab...		

1.5.4. *Diptongoa desegiteaz*

Egiten diren diptongoen berri eman ondoren, hargatik edo horregatik egiten ez direnen berri ematea ere ondo letorke.(21)

Euskal Herrian zehar diptongoak apurtzeko joera handia badago, Zeberion gauza bera gertatzen da eta labur baino ez bada ere hona hemen adibidez lagunduriko sailkapen hau.

1. Sabaikaritzearen eragina

Diptongoaren bigarren elementua “i” denean, askotan jarraian datorren kontsonantea sabaikaritu egiten du eta fonema-elkartze horretan diptongoa bera ere apurtu egiten da.

“talletu”	lit. teilatu
“ollar”	“ oilar
“axea”	“ haizea
“atxa	“ haitza
“oñes”	“ oinez
etab...	

Diptongoaren “i” horren jarraian bokal bat doanean fenomeno berezi bat gertatzen da eta bietara uler daiteke: aurrekoaren bokal-erdia edo atzekoaren kontsonante-erdia. Adibidez: lit. baina = “baya/baia” [baya]/[baia]; eta horren antzean beste kasu asko.

2. Monoportongazioa

Sabaikaritzetik kanpo, gazteleratik hartutako diptongodun hitzak monoportongatzera joan gara neurri handi batean.

Gai hau maisuki azaldu du K. Mitxelenak bere FHVn eta nire aldetik baieztatu baino ez dut egingo Zeberioko adibide batzuk jasoz. (22)

“arמוש”	(almuerzo)
“merinda”	(merienda)
“soltu”	(suelto)
“gubernue”	(gobierno)
etab...	

Dena den, ez dugu ahaztu behar euskarak latinetikako bokalak gorde egin dituela eta horregatik kasu batzuk gazteleratik begiraturaz gero, monoportongazioa dira baina latinetik begiraturaz jarraipen hutsa.(23)

3. Epentesi bidezko monoportongazioa

Hauxe dugu diptongoak apurtzeko beste fenomenoetariko bat.

Diptongodun mailegu asko eta asko epentesi kontsonantiko baten bidez diptongo gabe gelditzen dira euskaraz silaba bat gehiago eginez.

“sugertea”	(suerte)
“biboline”	(violín)
“igeltzo”	(yeso)
“ igeska”	(yesca)

4. “U” erdi-bokal edo erdi-kontsonantea “ B” eginez

“ gabean / gaubean ” (gauean)

1.6. Bokalak hiatuan

Diptongazioan kasuistika ugari aurkitu badugu, hiatuan beste hainbeste gertatuko da. Labur baino ez bada ere, goazen adibideak bitarteko direlarik banan-banangora.

1. “-A+A > EA”. Adibidez: “alabea, ormea, gausea, ankea, sarea, bernea...” etab.

Kasu batzuetan, “EA” bukaeradun hitzak “A” organikotzat jo ditugu “laba, bela” baina jatorrizkoak, labe, bele, dira.

- | | |
|------------------|--|
| 2. “-A+E > AE”. | Adibidez: “ara es, ona es”, |
| “-A+E > AI”. | Adibidez: “gastai, kanpai”, |
| “-A+E > E “. | Adibidez: “kantetan, anketan” |
| 3. “-A+O > AO”. | Adibidez: “bera ok, esta on” |
| “-A+O > O “. | Adibidez: “bok espok, gauson” |
| 4. “-E+A > EA”. | Adibidez: “fedea, epea, berdea” |
| 5. “-E+E > IE”. | Adibidez: “sarie, daurie” |
| “-E+E > EA”. | Adibidez: “etzeatan, landareatan” |
| 6. “-E+O > EO”. | Adibidez: “beot, edeok” |
| “-E+O > O “. | Adibidez: “labok, idok”, etab. |
| 7. “-O+A > OA”. | Adibidez: “astoa, estoa, agoa” |
| 8. “-O+E > OE”. | Adibidez: “sasoi, erresoi, kamioi” |
| “-O+E > OE”. | Adibidez: “ondoes, txarto es” |
| 9. “-O+O > OO”. | Adibidez: “besook, artook”, batzuetan ez da hain argia baina edozein kasutan “O” luzea da. |
| 10. “-I+A > IE”. | Adibidez: “txorie, mendie, egie” |
| 11. “-I+E > IE”. | Adibidez: “ori es, argi es” |
| 12. “-I+O > IO”. | Adibidez: “txoriok, gariok” |
| 13. “-I+U > IU”. | Adibidez: “ikisiu”, lit. ikasi dogu; “biu”, lit. behar dogu, etab... |
| 14. “-U+A > UE”. | Adibidez: “burue, mundue, eskue”, etab. |
| 15. “-U+E > UE”. | Adibidez: “galdu es, estu es” |
| 16. “-U+I > UI”. | Adibidez: “estu in, (ez dogu egin) artu in dau,... “ |
| 17. “-U+O > UO”. | Adibidez: “eskuok, artuok (hartu dok)” |
| 18. “-U+U > UU”. | Adibidez: “artuu (hartu dogu) etab.” |

Jasotako adibidetan ikusten denez, esandako guztia egia da baina adibide berberok aldakorrak gertatzen dira talde fonetikoaren arabera. Batzuetan hiatook diptongo bihurtuko dira eta inoiz, asimilazioz, bateratu ere.

2. ZEBERIOKO EUSKARAREN KONTSONANTISMOA

2.1. Azentuaren eragina kontsonanteen gortzean

Hipotesi gisa, Zeberrioko euskarari buruzko doktorego tesia egin nuenean, (24) kontsonante multzoetako ahoskeraren ondorio batzuk argitu nituen eta beste batzuk planteatuta bakarrik utzi (25). Ondorioen artean, kontsonante ozen batzuen gorketa baieztatzen da aldameneko beste kontsonante ahoskabe batek eraginda. Baina, beste hainbat kasutan, bokal artean zein bokal eta kontsonante ozen artean edota kontsonante ozenen artean ere, kontsonante ozen batzuen gorketa dagoer.

Zeberrioko euskararen ahoskeraren errealitate zabaldu honen zergati-hipotesia, AZENTU TONIKOan eta INTENTSITATEAn dagoela esango nuke, lexematik hasi eta goragoko multzo fonikoetara bitartean.

2.2. Kontsonante multzoak eta gorketa

Nire doktorego tesiko ondorioen laburpena eskaini baino lehen, K. Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vascan*, “Grupos de Consonantes” izenburuko 18. kapituluan dioena gogoratu nahi nuke.

K. Mitxelenak, kapitulu horretan, kontsonante multzoen arteko kasuistika luzea eskaintzen digu, tokian tokiko adibideak lagun.

Kontsonante ozenen gorketari dagokionez, K. Mitxelenak, 18.2.an, Leherkari+Leherkari multzoan “-t eta -K” + kontsonante ozena > gorketa baieztatzen digu adibideak eskainiz: Esate baterako: “nitakit” < nik dakit;(B) “onati(r)a” < onak dira(G) edo “oroipen” < *oroit+men (A.N.; G). Bere hitz testualetan esanda: “El resultado es el enmudecimiento de la implosiva con ensordecimiento de la explosiva. Cuando ésta es sorda, se pierde simplemente la primera.”

Beste alde batetik, 18.6.an, Txistukari+Leherkari multzoan ere gorketa agertzen da. Hona hemen K. Mitxelenaren hitz testualak: “Sibilante +Oclusiva. El resultado uniforme, descontadas grafías etimológicas y pronunciaciones influidas por analogía, es Sibilante Fricativa+Oclusiva Sorda. (Ejemplos en 12.6 y 14.6 c)”

Lehen aipatu dudak bezala, nire Zeberrioko euskararen doktorego tesiko VIII. kapituluan (26) sakonki aztertu nuen kontsonante multzoetako ahoskera. Azentu tonikoaren nire hipotesian zuzenean sartu aurretik, komenigarria litzateke kapitulu luze horretako planteamendu eta ondorengo gorketa batzuk aipatzea adibide eta guzti.

2.3. Zeberrioko euskararen kontsonante multzoen ahoskera

Hitz egiten dugunean, “kanpo sandhi” edo “talde fonetiko”en bidez egiten dugu eta era horretara kontsonanteen elkar-jotzeak sortzea guztiz bidezko da herri-hizkuntzaren eufonia, ekonomia eta artikulazio ohitura bitarteko direlarik.

Izan ere, ez da batere erraza “talde fonetiko” edo osterantzeko kontsonante elkarte batzuk ahoskatzea eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erraztu egin du kontsonanteon ahoskera. (27)

Hiztun bakoitza aparteko mundu bat da bakarrean zein gizartean eta beste hiztunekin bateratsu hitz egin arren, beti dira bata bestearengandiko aldakuntzak.

Gainera, hiztun bakoitzarengan ere, bizitzako egoera guztiak ez dira berdinak, eta egoera batean egon edo beste batean egon “talde fonetiko” berbera ez da berdin-berdin ahoskatzen. (28)

Nire aldetik, Zeberioko euskararen aurkitu ditudan “kontsonante multzo”en ahoskera jasotzen saiatu naiz, euretariko batzuk, aurrerago aipatu ditudan faktoreen arabera, beti berdin ahoskatzen ez direlarik. Hemen ez dut doktorego tesiko adibidete guztia aipatu, kontsonante gorketaridagokiona baizik.

Metodologiari dagokionez, era askotara azter daiteke “kontsonante multzo”en ahoskera. Nik jarraitu dudana bidea hauxe da: Ahots-Moldeari dagokion sailkapena hartu eta euretariko kontsonante bakoitza herrian erabiltzen diren beste kontsonante posible guztiak elkar joarazi banan-banan eta alfabetikoki herriko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko direla. (29)

Argibide bezala, komatxo artean doan fonologia mailako herri-adibide bakoitzak, literatura mailako bere parearen gainean, “kontsonante multzo”en jatorria ikusi eta ondorioak ateratzeko.

Jarraian, “Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoko”-tik azterketa gai honi dagozkion kasuen hustuketari ekingo diot. (30)

2.3.1. *Leberkari gorrak*

2.3.1.1. “-P” bukaeradunak + gaintetikoak

Ez da erraza azken posizioan “p” bat aurkitzea “eup!” edo ez bada. Beraz, bertan behera utziko dugu.

2.3.1.2. “-t” bukaeradunak + gaintetikoak

2.3.1.2.1 “-t + b-” > “-p-”

- 1) bat bai
“bapai”
- 2) bat bakarrik
“bapakarrik”
- 3) ez dakit buruz
“estakipurus”

2.3.1.2.2 “-t + d-” > “-t-”

- 1) bat dator
“batator”
- 2) ontzat dauka
“ontzatauko”
- 3) ez dakit dana
“estatitana”

2.3.1.2.3. “-t + g-” > “-k-”

- 1) bat gara
“bakara”
- 2) zeuretzat gorde
“sautzakorde”
- 3) ez jat gustatu
“etxakustau”

2.3.1.2.4. “-t + j-” > “-j-” (31)

“-t + y-” > “tx-”

- 1) bat jan dau
“batxandau”
- 2) esantzat joan da
“esantzatxoan da”
- 3) ez dakit jaten
“estatixaten”

2.3.1.3. *Ondorioak*

a) “-t” fonemak “b-; g-; y-” jotzean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: “-p; -k-; -tx-” hain zuzen.

Fonema berrion izateari buruz, ahoskunea bigarren fonemarena da baina ahots-moldekoaren eraginez gorturik.

b) “-t + d-” kasuan, biak ditugu ahoskune berekoak eta elkar jotzean gorra nagusitzen da.

d) “-t + y-” kasuan, gortzetik aparte, ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, “-t” galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

Baliteke “-t” hori galdu ez egitea intentsitatearen arabera, baina orduan leherkari gorraren eraginezko eten bat sortuko litzateke eta datorren fonema (32) hitz hasieran balego bezala hartu behar da. Dena den, herria beti doa errazera eta galtzea da

errazena. Intentsitate gutxiko ahoskeran “-t+b.d.g-” ozenduta ere entzun daitezke, multzo fonikoko kontsonante biak frikari suertatuz: Adibidez: Bat bai > “ badbai”. Beste testuinguru batzuetan ere frikaritzen da azken posiziooko leherkaria. Adibidez: bat zan > “ badsan “.

2.3.1.4. “-k” bukaeradunak+gainetikoak

2.3.1.4.1. “-k + b-” > “-p-”

- 1) nik badakit
“n**p**akit”
- 2) biderik bide
“bider**p**ide”
- 3) etorri dok ba!
“etorri**p**!”

2.3.1.4.2. “k + d-” > “-t-”

- 1) geuk dakigu
“gaut**t**akiu”
- 2) eurak dabilz
“aure**t**abis”
- 3) gastatu jok dirua
“gastauyot**t**irue”

2.3.1.4.3. “-k + g-” > “-k-”

- 1) hark garoaz
“a**k**aroas”
- 2) gazterik gangartu
“gasteri**k**angartu”
- 3) hortik goaz
“orti**k**oas”

2.3.1.4.4. “-k + y-” > “-tx-”

- 1) berak jan dau
“berat**x**andau”
- 2) ez dok jan
“estot**x**an”
- 3) pozik joan da
“posit**x**oan da”

2.3.1.5. Ondorioak

a) “-k” fonemak “b-; d-; y-” jotzean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: “-p-; -t-; -tx-” hain zuzen.

Fonema berrion izatea dela eta, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gortutakoa.

b) “-k + g-” kasuan, biak dira Ahoskune berekoak eta elkar jotzean gorra nagusitzen da.

d) “-k + y-” kasuan gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, “-t”rekin gertatu den bezalaxe, “-k” galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz. Eta ahoskera erlaxatu batean elkarteko leherkari biak frikari ozen bezala ere entzun daitezke. Adibidez: nik bai > “nigbai “. Beste kontsonante batzuekin ere bai, adibidez: nik neuk > “nignauk”

2.3.1.6. Frikari-txistukariak

2.3.1.6.1. “-s” fonema ez da oso ugaria azken posizioetan eta gainera ez du ahoskatze arazorik beste kontsonanteekin elkar-jotzean.

2.3.1.6.2. “-z” (“S” bezala ahoskatzen da)

(E) Z “-z + b-” > “-zp-”

1) ez badator
“espadator”

2) ez bedi esan
“espei esan”

3) ez baletor
“espaletor”

2.3.1.6.3 “-z + d-” > “-zt-”

1) ez dator
“estator”

2) ez dakit
“estakit”

3) ez deutsu egin
“estotzu in”

2.3.1.6.4 “-z + g-” > “-zk-”

1) ez gara
“eskara”

2) ez gabilz
“eskabis”

3) ez gaitu
“eskatu”

2.3.1.6.5. “-z + y-” > “-tx-”

1) ez jatok
“etxatok

2) ez jakiat ba
“etxakiapa”

3) ez jautsat ezer egin
“etxotzat eser in”

2.3.1.7-. *Ondorioak*

Herriko adibideetan ikusi ahal izan dugunez, baditugu fenomeno aipagarri batzuk (E)Z proklitikoaren “-Z” dela eta.

a) Alde batetik goian aipatu dugun “-Z” horrek gortu egin ditu hurrengo “b-; d-; g-; y-” fonemak “-p-; -t-; -k-; -tx-” bihurtuz.

b) “-z + z-” kasuan, gaur egun, adinekoren bat ez bada, goi-hobietakoa egiten dugu bizkar-hobietakoa egin beharrean.

d) Beste kasuetan leherkari gorra ez bada “-z” galdu egiten da hurrengo datorren fonema nagusituz.

e) Gorketa ez egitea ere posible da eta gazteengan entzun ere egiten da. Adib: “esgoas” < lit. ez goaz; etab.

2.3.1.8. Orain arte esandakoa egia bada ere, badira gorketarik gertatzen ez diren “talde fonetikoak”

- a) ez behar > “esbear “
- b) ez gauza > “esgausa “
- d) ez jakin > “esyakin”
- e) etab. etab.

Ez gortzearen arrazoia zabala litzateke, baina hipotesi gisa baino ez bada ere, gorketa gehientsuenak aditz jokatuan gertatu dira eta beste kasuok ez dira erabilera berekoak. Eta gainera nire ustez kronologiarekin loturik dago gortzea edo ez gortzea, geroago ere ikusiko dugun bezala.

2.3.1.9. (—) -Z instrumentala hartzen badugu ez dugu ahoskaberik aurkitzen normalean.

- a) berez badabil > “beresbadabil”
- b) berez dator > “beresdator”

- d) berez goaz >”beresgoas”
- e) oinez jatok > “oñesyatok”
- f) buruz dakit > “burusdakit”
- g) etab. etab...

Dena dela, eta kronologia kontuan harturik, kasu batzuetan agertzen da gorketa, esate baterako “-Z GERO” kasuan:

- joanez gero >”yoaneskero”
- etorritz gero >”etorri eskero”
- etab...

Kasu berean eta esakune eginetan ere agertzen da gorketa hori:

- “arreskero”
- “oneskero”
- etab...

2.3.1.10-. Afrikariak

2.3.1.10.1. “-tx + b-” > “-sb-”

- 1) apatx barrua
“apa**s**barrue”
- 2) apatx burua
“apa**s**burue”
- 3) gatx barik
“ga**s**barik”

2.3.1.10.2. “-tx + d-” > “-sd-”

- 1) apatx dandarras
“apa**s**dandarras”
- 2) gatx daukat
“ga**s**daukat”
- 3) gatx dago
“ga**s**dao”

2.3.1.10.3. “-tx + g-” > “-sg-”

- 1) apatx ganea
“apa**s**ganea”
- 2) apatx garbia
“apa**s**garbie”
- 3) gatx gogorra
“ga**s**gogorra”

2.3.1.10.4. “-tx+y-” > “-sy”-

- 1) gatx jagok
“gasyaok”
- 2) gatx jaukak
“gasyaukok”
- 3) gatx joakok
“gasyoakok”

2.3.1.11-. *Ondorioak*

“-tx + ...etab. etab...” > “-s + beste kontsonentea”

Ikusten denez, “-tx” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Hurrengo kontsonantea ozena baldin bada ozendu egiten da, bestela gor jarraitzen du.

2.3.1.12. “-tz + etab. etab.” > “-s + beste kontsonantea”

2.3.1.12.1. “-tz + b-” > “-sb-”

- 1) gatx bakoa
“gasbakoa”
- 2) hotz bakoa
“osbakoa”
- 3) berakatz burua
“berakasburue”

2.3.1.12.2. “-tz + d-” > “-sd-”

- 1) gatx dirua
“gasdirue”
- 2) hotz dabil
“osdabil”
- 3) berakatz dariola
“berakasdariola”

2.3.1.12.3. “-tz + g-” > “-sg-”

- 1) gatx garaua
“gasgaraue”
- 2) hotz gara
“osgara”
- 3) berakatz garaua
“berakasgaraue”

2.3.1.12.4. “-tz + y-”> “-sy-”

- 1) gatz jatea
“gasyotea”
- 2) hotz jatea
“osyatea”
- 3) latz jostea
“lasyostea”

2.3.1.13. *Ondorioak*

2.3.1.13.1. “-tz + ...etab. etab...” > “-s + hurrengo konts.

Kasu honetan ere “-tz” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Ozen edo gor izatea jarraian doan kontsonanteak dakarkio.

2.3.1.14. **Sudurkariak**

2.3.1.14.1. “-nb-” elkartzean eta biak ozenak izan arren, esakune zahar eginetan bigarrena gortu egiten da:

zain bedar > “sanpédar”
agindu/te bide > “aginpíde”
ezkondu/te barri > “eskonpárri”
ezagun/te bide > “esaupíde”

2.3.1.14.2. “-n + m-” > “-m-” egitea bidezko da eta “-n + n-” asimilatzea ere bai.

Adibidez: ahal dan moduan>“aldamoduen”

2.3.1.14.3. Kasu honetan bere, “n”ri dagokionez, jarraian kontsonante gor bat badago, “n” hori galtzeko joera daukagu. Adibidez: egoten zan> “otesan”; monjea> “mojea”.

2.3.1.15. **Albokariak**

2.3.1.15.1. “-l+b-” elkartean, biak ozen egitea bada ere normalena, kasuren batean bigarren elementua gorturik dago:

ibilbide > “ibilpíde”

2.3.1.15.2. Dena dela, kasu honetan bere, “l” baten jarraian fonema gor bat datorrenean, “l” hori galtzeko joera dago. Adibidez: dabilz> “dabis”; darabilt> “da(r)abit.

2.3.1.16. **Dardarkariak**

2.3.1.16.1 “-r”ren jarraian kontsonante ozen bat baldin badago erraz galtzen da dardarkaria; eta gorra badatorrkio errazago.

- 1) behar da >"beada"
- 2) ur bidea >"ubidea"
- 3) akersolo >"akesolo"
- 4) dakarzu >"dakasu"
- 5) dakargu >"dakagu"
- 6) daroardie >"darodie"
- 7) dakart >"dakat"
- 8) merzedez >"mesedes"

2.3.1.16.2. Esakune eginetan gortzeraino ere heltzen da dardarkariaren hurrengo kontsonante ozena:

- burdi bide >"burpíde"
arri bide >"arpíde"

2.3.1.17. Kontsonante bikoitzak

2.3.1.17.1. "-ST" + beste kontsonanteak

2.3.1.17.2. "-st + b-" > "-sb-"

- 1) bost bider
"bos**u**bider"
- 2) bost baso
"bos**u**baso"
- 3) bost barku
"bos**u**barku"

2.3.1.17.3. "-st + d-" > "-sd-"

- 1) bost doaz
"bos**u**doas"
- 2) bost datoz
"bos**u**datos"
- 3) bost dozena
"bos**u**dosena"

2.3.1.17.4. "-st + g-" > "-sg-"

- 1) bost goas
"gos**u**goas"
- 2) bost gara
"bos**u**gara"
- 3) bost ganadu
"bos**u**ganadu"

2.3.1.17.5. “-st+y-” > “-sy-”

- 1) bost joan
“bosyoan”
- 2) bost jan
“bosyan”
- 3) bost jorrai
“bosyorrai”

2.3.1.18. *Ondorioak*

“-st + etab. etab...” > “-s + beste kontsonantea”

Kasu honetan leherkari gorra galtzen da eta ozen-gor arazoa hurrengo fonemak eragiten du.

Bizkaieraz, ZER-NORI-NORK aditz-erroa “EUTSI”tik hartzen da eta berez “-ts”z bukatu behar luke baina metatesi bidez “-ST” egiten du.

Dena den, aditz horren lehen pertsonan “-ST” azken posizioa bada, ahoskatu egiten da baina sarritan hobeto ahoskatzeko edo, bokal paragogiko bat agertzen da azken “-T” horri dagokionez.

ekarri deust
“ekarrioste” (33)

2.3.1.19. “-RT” + beste kontsonanteak

2.3.1.19.1. “-rt + b-” > “-rp-”

- 1) bart bai
“barpai”
- 2) bart bakarrik
“barpakarrik”
- 3) bart bakean egon gara
“barpakean on gara”

2.3.1.19.2. “-rt + d-” > “-rt-”

- 1) bart danok
“bartanok”
- 2) bart dirua galdu dot
“bartirue galduot”
- 3) bart dana beharrean
“bartanabearrean”

2.3.1.19.3. “-rt + g-” > “-rk-”

- 1) bart goizetik
“barkoxetik”
- 2) bart kantzatuta
barkantzaute”
- 3) bart kontuz
“barkontus”

2.3.1.19.4. “-rt + y-” > “-rtx-”

- 1) bart jan> “bartxan”
- 2) bart joan> “bartxoan”
- 3) bart jausi> “bartxausi”

2.3.1.20. *Ondorioak*

Kasu honetan, “-R-” gorde egiten da eta “-T-” fonemak beste kontsonante ezberdinekin jotzean aurrean aipatu dudana 1.2. atalaren antzera jokatzeko du.

2.3.1.21. “-RK”+ beste kontsonanteak

2.3.1.21.1. -rk + b-” > “-p-”

- 1) inork badaki?
“iñopádaki”
- 2) nork batu dau?
“nopatu dau”
- 3) zerk bizi dau?
“sepsidau”

2.3.1.21.2. “-rk + d-” > “-t-”

- 1) nork dauka?
“notauko?”
- 2) nork daki?
“notaki”
- 3) zerk daragoio?
“setaragoyo”

2.3.1.21.3. “-rk + g-” > “-k-”

- 1) nork garoaz?
“nokaroas?”

2) nork galdu jok?
“nokalduyok”

3) zerk galdu jok?
sekalduyok”

2.3.1.21.4. “-rk+y-”> “-tx-”

1) nork jakin
“notxakin”

2) zerk jakak
“setxakak”

3) hark jan jok
“atxanyok”

2.3.1.22. *Ondorioak*

Bikote honetan “-R-” galtzen da eta “-K-” fonemak beste fonema ezberdinekin elkar jotzean aurrerago aipatu dugun 1.4. atalekoen antzera jokutzen du.

2.3.1.23. “-LZ”

Kasu hau, aditzean aurkitzen dugu eta Zeberioko euskaran “L” galtzen da eta “Z” bakarrrik ahoskatzen, Goi-Hobietakoa eginaz.

Adibidez:

“sabis” < lit. zr. zabilz lit. zabiltz
“gabis” < lit. zr. gabilz lit. gabiltz
“dabis” < lit. zr. dabilz lit. dabiltz

2.3.1.24. “-LK-”

Kasu hau suertatzen denean ere, kontsonante ozena galdu egiten da.

Adibidez:

“ñabiko” < lit. niabilko
“sabikos” < lit. zabilkoz
etab...

2.3.1.25. “-RS-” lit. -RZ-

“-NS-” lit. -NZ-

Kasu hauetan ere, kontsonante ozenak galdurik aurkitzen ditugu lehen kasua bigarrena baino argiagoa delarik.

Adibidez:

“dakasu” < lit. dakarzu
“ekasu” < lit. ekarri egizu

“otesan” < lit. egoten zan
 “itesaindun” < lit. egiten zendun
 etab...

2.3.1.26. *Ondorioak*

Jasoak jasota eta joera nagusi bezala harturik, ondorio hau atera genezake azken adibideotatik: kontsonante elkarte hauetan bigarrena nagusitzen dela, alde batetik, posizioaren arabera, eta, bestetik, elkarteko ozena, hemen aurrekoa, errazago galtzen delako.

Orokorki aipatuz, beti goaz kontu berera : hiztunak badaki zer behar duen aurrekoak ulertzeko eta logika osoz gordetzen ditu behar dituen fonemak behar duena adierazteko. Honi guztiari dagokiola, hor dugu ume txikitxoegaz darabilgun hizkuntz jokoak eta gainteko mundu hipokoristikoa.

Kasu honetan, sistematik edota normatik aldatzen gara, batzuetan geuk, nagusiok gurata, eta sarritan umeak eurak hizketan ikasi ahala darabilten hizkuntza imitatu baino ez dugulako egiten.

2.4. Kontsonante ozenak ahoskabetzeari buruzko datu berriak

Hasierako hipotesiaren planteamenduari eusteko, lehenago aipatutako 2.3.1.6.-puntuari kontsonante ozenen arteko gorketa berezi bat aipatzen da.

Kontsonante multzoetan gertatzen den gorketa, bai K. Mitxelenaren (34) sailkapenean, bai nire Zeberiokoarenean, (35) badirudi kontsonante gor baten eraginezko gorketa dela.

Ni neu aurrerago joango nintzateke. Kontsonante gor baten eraginaz gain, AZENTUA ere erabakigarria dela esango nuke.

Nire ikerketa honetako ekarpen gisa, eta hipotesi honen euskarri bezala, tesia egin ondoren hainbat eta hainbat adibide gehiago aurkitu ditut Zeberioko euskara bizian eta etnotestuetan (36). Badakit, jakin, Euskal Herri luze zabaleko beste lurralde batzuetan ere gertatuko dena fenomeno hau. Ni neu, oraingoz, Zeberioko testigantza ematera noakizue.

2.4.1. *Gorketaren posizioa*

Herriko adibideetan ikusiko dugun bezala, aipatutako kontsonante gorketa hiru testuingurutan egiten dela ikusi dut. Hasteko, lexeman bertan; baita lexemari mugatzailea eransterakoan eta azkenik hortik goragorako multzo fonikoetan. Artikulua dela eta, argi dago gorketa, artikulua erabiltzen hasi baino lehenagokoa dena. Izan ere, artikulua eransterakoan, azentua sarritan silabaz aldatzen da baina lehenago bilakatutako gorketak berdin jarraitzen du.

Esandakoa horrela bada ere, ahoskera erlaxatuan baliteke ahoskabetzerik agertu ere ez egitea, baina, jarraian datozen adibideak azentua edota intentsitatearen eraginezko gortasunaren testigu ditugu.

Hiru testuinguruotako adibideak aurkeztuko dira azentua edota intentsitatea markatuz. Adibideetan herri-ahoskerako etnotestuaren ondoan Bizkaiera literarioa agertuko da.

2.4.2. *Bokalarteko kontsonanteen gorketa*

2.4.2.1. “ epái“ < ebagi (37)

- Adibidez: 1) “ epái ertza artes eroan galberdean”. Lit. epai ertza artez eroan galberdean.
2) “epái ona daukatzu gastai onek”. Lit. epai ona daukatsu gaztai honek.
3) “epái sala yaukok urdai gardamutu onek”. Lit. epai zaila jaukak urdai gardamutu honek.

2.4.2.2. “ epáie“ < ebagia

- Adibidez: 1) “ganeko epáie daukatzun galberde onek”. Lit. gaineko epaia daukatsun galberde honek.
2) “epáie urdindu yako gastaiari”. Lit. epaia undindu jako gaztaiari.
3) “ sasbako landeak epáie txarra”. Lit. sats bako landeak epaia txarra.

2.4.2.3. “ yayopárrri“ < jaiobarri (38)

- Adibidez: 1) “yayopárrri dao ondiño”. Lit. jaobarri dago oraindiño.
2) “yayopárrri orpogorrie yatzu”. Lit. jaiobarri orpogorria jatzu.
3) “yayopárrriten arpegi urdine aukiten dotzue úmeak”. Lit. jaiobarritan aurpegi urdina aukiten deusue umek.

2.4.2.4. “ yayopárrrie“ < jaiobarria

- Adibidez: 1) “yayopárrriek asbegiek ondo ekarri daisela”. Lit. jaiobarriak hatz-begiak ondo ekarri dagizala.
2) “yayopárrrieri naira asko in beayako”. Lit. jaiobarriari nahiera asko egin behar jako.
3) “yayopárrrien amari ermakariek iten jakos”. Lit. jaiobarriaren amari ermakariak egiten jakoz.

2.4.2.5. “ iripási“ < irabazi (39)

- Adibidez: 1) “iripási andiekas kontus”. Lit. irabazi handiekaz kontuz.
2) “ iripási in yostek”. Lit. irabazi egin jaustak.
3) “ iripási baño galdu geao”. Lit. irabazi baino galdu gehiago.

2.4.2.6. “ iripásie” < irabazia

- Adibidez: 1) “iripásien yabik kartetan” .Lit. irabazian diabilk kartetan
2) “iripásiekustietxan yosak”. Lit irabaziak guztiak jan jozak
3) “iripásieri eutzin in beayakiek” .Lit. irabaziei eutsi egin behar jakiek

2.4.3. *Kontsonante ozen/ahostun eta bokalarteko kontsonanteen gorketa*

2.4.3.1. “ sanpédar” < zain bedar (40)

- Adibidez: 1) “sanpédar asko agiri de artotzan” Lit. zain bedar asko ageri da artotzan.
2) “sanpédar denodu onek onurea yaten yotzek artoari “. Lit zain bedar denodu honek onura jaten jautsak artoari.
3) “sanpédar au nok ebateko ba? Lit. zain bedar hau nork ebagiteko ba?

2.4.3.2. “ sanpedárra “ < zain bedarra/zain belarra

- Adibidez: 1) “sanpedárra ebaten daragoio”. Lit zain bedarra ebagiten daragoio.
2) “sanpedárra estaurie yaten ondo ganaduek”. Lit. zain bedarra ez dabe jaten ondo ganaduek.
3) “sanpedárra igitiegas ebagi beada”. Lit. zain bedarra igitaiaz ebagi behar da.

2.4.3.3. “nosepéin “ < noizean behin

- Adibidez: 1) “ nosepéin etorten yaku”. Lit. noizean behin etorten jaku
2) “nosepeinéan ondo yatorkuk”.Lit. noizean behinean ondo jatorkuk.
3) “nósepein egaberape ikusten yusek”. Lit. noizean behin egaberak be ikusten joaguzak.

2.4.3.4. “ sapátu “ < zapatu <sabbatum

K. Mitxelenak, FHV 12.5-ean dio: “ Hay ejemplos claros, aunque escasos, que prueban que oclusivas sonoras geminadas latinas o grupos de consonantes sonoras romances están representados por oclusivas sordas vascas.”

Adibide hau eta gehiago jartzen ditu K. Mitxelenak, baina nik aurrerago joko nuke nire hipotesian. Gaztelerak azentua aurrean daroa eta hortik “sábado” baina Zeberion (zabalago ere bai) azentua bigarren silaban daroa eta beste kasuetan lez, bokalarteko kontsonante ozena gorturik agertzen da: “sapátu”. Beraz, nire hipotesian, azentuak eragina dauka gortzean.

- Adibidez: 1) “sapátuetomekea yakak”. Lit. zapatuak domekea jakak
2) “sapatú-domekak onatosak”. Lit zapatu-domekak onak dozak
3) “sapáturitxoak juergan”.Lit zapaturik joak juergan.

2.4.3.5. “ibilpíde” <ibilbidea (gatz. facultad de andar) (41)

- Adibidez: 1) “ibilpíde eskasean ikusi yoat urlie “. Lit. ibilpíde eskasean ikusi joat urlia.
 2) “ibilpíde alosokoan yabik undiño”. Lit. Ibilpíde alosokoan diabilk oraindino
 3) “ibilpíde txarreko idirik etxupear” Lit. ibilpíde txarreko idirik ez joaguk behar.

2.4.3.6. “ibilpídea” <ibilbidea (gatz. la facultad de andar)

- Adibidez: 1) “ibilpídea galdu eskero es as gause esetako ”. Lit. ibilpídea galdu ezkerero ez haiz gauza ezertarako.
 2) “ibilpídea gausonookero!”. Lit. ibilpídea gauza ona dok gero!.
 3) “ibilpídea nok etxokaltzean ba sartzaroan?”. Lit. ibilpídea nork ez joaltzen ba zahartzaroan?

2.4.4. *bebe < -be/ -pe, hitz konposatuetan*

K. Mitxelenak, FHVko 12.18.an protoeuskarako leherkarien serie bikoitza aipatzen digu eta 21.5.ean bikoiztasun hori azentuan edota azenturik ezean oinarritzen du.

Zeberioko euskara bizian (haragoan ere antzera egingo da) bokal arte eta kontsonante ozenaren jarraiko leherkari ozena gortzearen adibide ugari dugu eta hemen ere azentu intentsitatea nabaria dela esango nuke.

- Adibidez: “lurpé, lurpéa”
 “urpé, urpéa”
 “oinpé, oinpéa”
 “minpé, minpéa”
 “surpé, surpéa” < sudurpe
 etab. etab.

2.4.5. *Konposatuetaiko lehen hitzaren azkeneko gortzeak*

2.4.5.1. K. Mitxelenaren FHVko 12.10.ean hauxe dator: “En compuestos antiguos es regular que, cuando las consonantes d, g, h quedaban en final de primer miembro a consecuencia de la caída de la vocal que les seguía, según 6.1, aparezcan representadas por la sorda -t ante vocal. A veces t se escribe también -y no hay razón para pensar que no se pronunciará- ante oclusiva inicial del segundo miembro, pero por lo general su antigua presencia se patentiza por el ensordecimiento de esta oclusiva.”.

Baieztapen hau ukatu gabe, nire hipotesiari jarraituz, kasu hauetan ere azentu intentsitatearen eragina nabarmena dela esango nuke kontsonanteon gorketan. Ikus ditzagun adibideak:

2.4.5.2. “itáurren” < idiaurren (gaur idi aurrean)

- Adibidez: 1) “itáurreko onik etxaok iñonbe “. Lit. itaurreko onik ez jagok inon be.
 2) “itáurren gogaitute ñaok”. Lit. itaurren gogaituta niagok.
 3) “itáurreokas kontzelauko as”. Lit. itaurreokaz kontsolatuko haiz.

2.4.5.3. Bide beretik joango liratekeen beste adibide hauek aipatu eta zerrendatu baino ez ditut egingo:

“bepúru, bepurúe “ < begi burua
 “burpíde, burpidéa “ < burdi bidea
 “arkáste, arkastéa “ < ardi gaztea
 “ertígídien “ < erdi edegian
 “aginpíde, aginpídea “ < agindu/te bidea (42)
 “eskonpárrri “ < ezkondu/te barri
 “bekáne, bekáne, bekanéko” < begi gane
 “ipústarri, ipústarrie” < idi buztarria
 “supúru, supurúe” < su/te buru (43)
 “supástar, supastárra” < su/te bazter
 “esaupíde” < ezagun/te bide
 etab.etab.

2.4.5.4. “itargi / idergi” dela eta argitasun batzuk ematea interesgarritzat jotzen dut. Hasteko, Zeberion “itárgi- itárgie”= luna, la luna, dugu eta “idérgi-idérgíe (betea zein barria)= luna llena eta luna nueva, hain zuzen.

M. Agud-ek eta A. Tovar-ek, hitz honen teoria ezberdinak jasotzen dituzte eta R.M. Azkueri jarraituz “ illargi+argi oinarritzat hartzen badugu, 2.6.3.ko adibideen artean sartu beharko genuke.

Honen ondoan, nire neure hipotesia hauxe litzateke: “il+argi”-tik hipotetikoki hasiko bagenu bilakaera, “ l / r “ eta gero “r / d” alternantziak bidezkoak dira, hots: “irargi / idargi.

Behin “ idargi” berbara helduz gero, eta azentu tonikoa bitarteko, “ itárgi “ daukagu, Zeberion egiten duguna. (44)

2.4.6. *Kontsonante ozenak gorturik hasiera absolutuan*

Problematika hau, zabal, luze eta maisuki aztertzen du K. Mítxelenak bere FHVko zenbait kapitulutan.

Ni neu, oraingo honetan beste bide batetik noa. Nire neure “Zeberio Haraneko Azterketa Etno-Linguistikoa” doktorego tesian, (45) herririk harako hainbat hitz edota multzo fonikoren sonograma aztertu nituen Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikoan.

Emaitzak hor daude. Baina sonogramak berraztertuz, fenomeno kurioso bat gertatzen da, hauxe: hitz edota multzo fonikoko hasiera absolutuko kontsonante ozenak ozen jarraitu arren, hurrengo bokalean azentu tonikoa baldin badarama, hainbat kasutan, sonoritateko marra gabe dager sonograma. Aztertutako sonogramak asko direnez batzuk bakarrik hartuko ditugu adibide gisa, tesian agertzen diren zenbaki eta guzti: 34- bére; 87-gúre; 138-yákin; 153- beárren (ea=diptongo balioaz); 158-beósu (eo= diptongo balioaz); 161- dáo; 165- béot; 179-yákak; 213- bíger; 242-góxa; 244- góye; 279- bápai < bat bai; 301- bátxandau < bat yan dau; etab.

2.4.7. Ondorioak

Neure doktorego tesiko sonogrametan ikus daitekeenez, azentu tonikodun bokalaren ezkerreko kontsonanteak ez du sonoritate marrarik ageri hasiera absolutuko hainbat kasutan. Nire ustez, azentu tonikoak eta intentsitateak badu bai zerikusia fenomeno horretan. Beraz, kasuistika hau ere, ekarpen-hipotesiaren barruan sartuko nuke.

3. AZENTUA EZAUGARRI BEREIZLEA HOMONIMOETAN

Homonimoen arteko bereizketa bideratzeko hizkuntzaren joan-etorrian irtenbide bat baino gehiago sortu dira eta Zeberioko herri euskara bizian, besteak beste, AZENTU TONIKOA dager ezaugarri bereizle bezala. (46)

Euskara mintzatuan, hargatik horregatik, (47) sarri gertatzen dira berezko edo jatorrizko etimologia ezberdinetatik sortutako homonimiak. (*Homonimia* hitza erabiliko dugu nahiz eta kasu batzuetan *homofonia* edo/eta *homografia* mailakoa izan).

Ahozko zein idatzizko homonimiari dagokiola, Zeberioko herri-euskara bizitik jasotako adibide ugariok, kasuak kasu, homonimiaren barruan ez eze, polisemia, homofonia, homografia eta homomorfoen alorrean ere koka daitezke. (48)

Behin homonimiaraz gero, eta elkar komunikazio nahasterik sor ez dadin, era bateko edo besteko irtenbideak asmatu ditu herri-euskarak homonimook edo kointzidentziok bereizteko.

Irtenbide bereizleak, lekuan lekukoak eta garaian garaikoak direla esango nuke. Har ditzagun hizkuntza ezberdinen arteko adibide batzuk:

Latin herrikoian, homonimia ugari sortu ziren: Bat hartzearren, aiko hemen hauxe: “*equus* = zaldia, eta, *aequus* = berdin/a” hitzen arteko homonimia. Irtenbidea, hitzez aldatzea izan zen eta “*equus* = zaldia”-ren orde, “*caballus* = caballo castrado o de trabajo” erabiltzea, bereizteko. (49)

Gaztelera, “*el pez* < lat. *piscis* / *la pez* < lat. *pix*”; “*el corte* / *la corte*”; “*sábana* / *sabána*” ezaugarri morfologiko-sintaktikoak bitarteko direla.

Ingelese, “*récord* (sust.) / *recórd* (aditz.)”; “*cónvert* (sust.) / *convért* (aditz.)”, azentua bereizle delarik.

Frantsesez, “*ouer* < lat. *locare* = alquilar / *louer* < lat. *laudare* = alabar” testuinguruaren arabera bereizten direla. (50)Euskaraz, bizkaieraz, “*osotu* = completar / *osatu* = curar/se” daukagu. Beste euskalkietan gure “*osatu*” “completar” da eta horregatik “*curar/se*” sendatu esaten da.

Bizkaiko Urdaibai aldean-eta, homonimiak yod antihatika baten bidez bereizten dira. Esaterako, “*zurie* < *zurea* = *tuyo* / *zuriye* < *zuria* = blanco/a”; “*arie* < *area* < *arena* / (h)ariye < (h)aria = hilo”. (51)

Zeberioko herri-euskara bizian, haragoan ere ikusi egin beharko da, (52) jakina, homonimoak azentuaz bereizten ditugu. Beraz, eta hauxe da nire oraingo testigantza eta guztizko ekarpena, Zeberion azentu tonikoa ezaugarri bereizlea da hizkuntzaren testuinguru ezberdinetako hainbat eta hainbat homonimotan.

Hau gai hau, nire doktorego tesian aipatu baino ez nuen egin. (53) Orain, adibide ugariz horniturik, sakondu egin nahi dut beste euskalki, azpieuskalki eta aldakietan ere beste hainbeste eginaz hobeto ezagutzeko gure euskararen baliabideak. (54)

3.1. Perpaus nagusien eta menpekoen arteko homonimiak aditz jokatueta

Homonimo garbi-garbietan sartu baino lehen, perpaus parataktikotik hipotaktikora bidean, menpekotasanaren morfema markaz aparte, azentu aldaketa ere nabaritzen da Zeberioko euskaran. Adibidez: (jasotako adibide guztiak etnotestuak dira eta horregatik, aldamenean edo azpian, bizkaiera literarioaren baliokidea adieraziko da).

PERPAUS NAGUSIAK

Esan dósu
(lit. esan dozu)
Ser esan dósu?
(lit. zer esan dozu?)
Nos esan dósu?
(lit. noiz esan dozu?)
Sergaitik esan dósu?
(lit. zergaitik esan dozu?)
Selan esan dósu
(lit. zelan esan dozu?)
etab.

MENPEKO PERPAUSAK

Esan dosún kontue
(lit. esan dozun kontua)
Badakit ser esan dosún
(lit. badakit zer esan dozun)
Esan dosúnean
(lit. esan dozunean)
Esan dosúlako
(lit. esan dozulako)
Seuk esan dosún les
(lit. Zeuk esan dozun lez)
etab.

3.1.1. *Homonimia garbietara bagoaz beste hainbeste gertatuko dela ikus genezake Zeberioko herri-euskaran*

Menpeko perpaus askoren morfema marka “-n” dugu eta aditzen iraganeko morfema marka ere bai. Beraz, erraz suertatzen dira aditz forma homonimoak.

ADITZ NAGUSIAK IRAGANEAN

yo náuen
(lit. jo neban)
esan náuen
(lit. esan neban)
esan séndun
(lit. esan zendun)
esan géndun
(lit. esan gendun)
“ser esan náuen?”
(lit. zer esan neban?)
ser esan séndun?
(lit. zer esan zendun?)
selan esan géndun?
(lit. zelan esan gendun?)
segaitik esan náuen?
(lit. zergaitik esan neban?)
segaitik esan séndun?
(lit. zergaitik esan zendun?)
segaitik esan géndun?

MENPEKOAK IRAGANEAN

ia yo nauén
(lit. ea jo neban)
esan nauén kontue
(lit. esan neban kontua)
esan sendún kontue
(lit. esan zendun kontua)
esan gendún kontue
(lit. esan gendun kontua)
bakit ser esan nauén
(lit. badakit zer esan neban)
bakit ser esan sendún
(lit. badakit zer esan zendun)
bakit selan esan géndun
(lit. badakit zelan esan gendun)
esan nauélako (55)
(lit. esan nebalako)
esan sendúlako
(lit. esan zendualako)
esan gendúlako

(lit. zergaitik esan gendun?)	(lit.esan gendualako)
nos ekarri áuen?	ekarri auénean
(lit. noiz ekarri eban?)	(lit ekarri ebanean)
selan ekarri séndun?	esan sendún moduen
(lit. zelan ekarri zendun?)	(lit. esan zendun moduan)
etab. etab.	etab. etab.

3.1.2. *Subjuntiboaren morfema marka “-n” dugunez, “-n” markadun menpeko perpausekin homonimiak sortzen dira eta hemen ere Zeberioko euskarak azentuz bereizten ditu. Adibidez:*

PERPAUS NAGUSIA

yoan gaitésan / gáitesan
(lit. joan gaitezán)
yan dáigun
(lit. jan daigun)
yan dáigusan / daigúsán
(lit. jan daiguzán)
etab.etab.

MENPEKO PERPAUSA

yoan gaitesán diño ori (56)
(lit. joan gaitezán dino hori)
jan daigún erosi (d)osku
(lit. jan daigun erosi deusku)
yan daigusán erosi (d)oskus
(lit.jan daiguzán erosi deuskuz)
etab.etab.

3.1.3. *Baldintza eta baieztatzaileen arteko bereizketa. Indikatibozko baldintza eta perpaus nagusi baieztatzaileen arten ere homonimiak sortzen dira eta Zeberioko euskarak, hemen ere azentua darabil bereizgarri bezala. Adibideen aldamenetan gaztelerazko itzulpena jartzen dugu argiago ikusteko*

PERPAUS NAGUSIA

banóa (ya voy)
banábil (ya ando)
badároat (ya lo llevo)
etab.etab.

MENPEKO PERPAUSA

bánoa (si voy)
bánabil (si ando)
bádaroat (si lo llevo)
etab. etab.

3.1.4. *Agintera formak konpletiboen eta moduzkoen bereizketan. Funtzioak funtzio, Zeberioko euskarak azentua darabil era bateko edo besteko perpausok bereizteko. Adibidez:*

AGINTERA

dáoela geldi
dóala kanpora
dátorrela bidera
goásen < (goazen) arin
etab.etab.

KONPLETIBOA-MODUZKOA

geldi daoéla
kanpora doála
bidera datorréla
arin goasén < (goazén) diño (57)
etab.etab.

3.1.5. *Adberbioen eta menpeko konparatiboen arteko azentu bereizketa*

ADBERBIOAK

béstean (en el otro/a)
béstekoa (de.....)

MENPEKO KONPARATIBOAK

ni bestéan badabil
ni bestékoa bada

3.2. Substantiboen arteko bereizketak

Alor honetan, era askotako bikote errealak aurkitu ditudanez, sailkatu egingo ditut behar denetan etimologia argituz.

3.2.1. *Aditz substantibatunak eta beste substantibo batzuen arteko azentu bereizketa*

ADITZ SUBSTANTIBATUA

hástea < hasi
háztea < hazi
hártzea < hartu
záríe < zaree
lótzea < lotu
sáltzea < saldu
ótea < egotea
(h)órdáo < ordago (musean)

SUBSTANTIBOA

astéa (semana)
astéa < astaa (asa, mango)
artzéa < artzaa (zaranda)
saríe < saria(premio)
lotzéa < lotsaa (vergüenza)
saltzéa < saltsaa (salsa)
otéa (la argoma)
(h)ordáo < hor dago

3.2.2. *Gerundio-partizipioa eta substantiboaren arteko azentu bereizketa*

GERUNDIO-PARTIZIPIOA

begíre < begira (mirando)
akábaue (lo terminado)

SUBSTANTIBOA

bégire < bigira (vigilia)
akabáue (lo último)

3.2.3. *Hitz autoktono zein mailegu eta euskarazkoen arteko azentu bereizketa*

ártea (pazientzia)
kánea (gazt. cana)
sálea < salaa (58)
ártea < arte
ároa < aro
aréan (en la arena)
kókóa < coco
párea < par
métea < meta
bótea < bote
kásue < cazo

artéa (arbola)
kanéa (neurria)
zaléa (aficionado)
artéa (arbola)
aróa (giroa)
árean (apur bat) (59)
kokóa (gorgojo)
paréa (pala)
metéa (gari edo idarena)
botéa (zahatoa)
kasúe (kasua egin)

fáldea < falda (jantzia)	faldéa (okela mota bat)
bólea < bola	boléa (boléa)
sósoa < soso	zozóa (txoria)(insultoa)
gásea < gasa	gazéa (gazbako)
árroa (barranco)	(h)arróa / arroba
etab.	etab.

3.3. Deklinabide barruko singularraren eta pluralaren arteko azentu bereizketak. (60)

SINGULARRA

gixonán < gizonaren
 gixonári < gizonari
 gixonántzat < gizonarentzat
 gixonán ganean < gizonaren ganean
 súen < zuen
 etab.

PLURALA

gixonán < gizonen
 gixonari < gizonei
 gixonántzat < gizonentzat
 gixonán ganean < gizonen ganean
 suén < suaren
 etab.

3.3.1. SUPERLATIBOA

ónena
 gásteana < gazteena
 úmeana < meena
 árgiena / argiena
 pólitena / polítina
 ándiena / andièna < handiena
 lotzábakoana < lotsabakoena

GENITIBOA

onéna < honena (61)
 gasteána < gaztearena
 uméana < umearena
 argiéna < argiarena
 polítina < politarena
 andiéna < handiarena
 lotzabákoana < lotsabakoarena

3.4. Azentua bereizlea toponimian

Baserri-toponimoa adierazteko erabiltzen da bata eta baserriko etxaguna adierazteko bestea. Hau da azentua tokiz aldatuta egiten da bereizketa hau. Ikus ditzagun adibideak. (62)

BASERRI-TOPONIMOA

Sabále < Zabale
 Iturtxa < Iturriza
 Artxánda
 Laitóki
 Urtéa
 Artzúbi
 Elórria
 Ugérte < Ugarte

BASERRIKO ETXAGUNA

Sábale < Zabale
 íturtxa < Iturriza
 ártxanda
 láitoki
 úrtea
 ártzubi
 élorria
 úgerte

Presálde	présalde
Apála	ápala
Arándui	árandui
etab.	etab.

Adibidez:

“Sabále, sábalen ixenean dao eta sábale da etxagune.”

(lit. Zabale, Zabalen izenean dago eta Zabale da etxaguna).

Argituz: “sábale” azentu proparoxitonodun hau, inguruetako baserrikoentzat, “Peru” da. Hau da, baserritarrei euren izenetik deitu beharrean, baserriaren izen berarekin izendatzen dira baina, jakina, azentua aldatuta, ezaugarri bereizlea izanik.

3.5. Toponimoetatik kanpo ere gertatzen da fenomeno hau. Izen-abizen edota ezizenetan adibidez

IZEN-ABIZEN-EZIZEN-HERRIA

baríku
Landájo
lúkíe
Subéro < Zubero
mendíko
uríko
Órosko < Orozko
Durúngo < Durango
Ótzandío < Otxandiano
bískáitarra < bizkaitarra
etab.

PERTSONA

Bárikú
Lándájo
Lukíe
Súbero < Zubero
Méndiko
Úriko
Órosko < Orozko
Dúrungo < Durango
Ótzandío < Otxandiano
bískaitarra < bízkaitarra (nazionalista)
etab.

3.6. Hitz bakarra konposizioan sartzen denean, paroxitonotik proparoxitono posizioa aldatzen da azentua, bata besteagandik bereizteko

HITZ BAKARRA

ollárra
katúe < katua
mutíle < mutila
txakúrre < txakurra
gixóna < gizona
bedárra
arátxa <(h)arítza
kirténa
txoríe < txoria

KONPOSATUA

basóllarra
basakátue < basakatua
etzemútile < etxemutilla
arditxákurre < arditxakurra
plasagíxona < plazagizona
albisbédarra < albitzbedarra
San Juan áratxa < (h)arítza (63)
astakírtena
elestxórie < eleitxoria

portálea
kitárrea
lapíkkoa
errékea
etab.

eléspórtalea < eleizportalea
mosukítárrea
berbalápíkkoa
gesalérrekea (Gezale, top.)
etab.

3.7. Ondorioak

Hizkuntza, fonematik hasi eta goragoko elementuen arteko oposizio sistema bat dugu eta ezaugarri bereizleak beharrezkoak dira gure elkar komunikaziorako.

Ikerketa labur honetan ikusi dugunez, azentu tonikoa ezaugarri bereizlea da mintzaeraren barruko hainbat kasutan.

Nik neure ama-hizkuntzarik harako azterketa aurkezten dut lan honetan baina badakit Zeberion ez eze, beste lurralde askotan ere antzerako fenomenoak gertatuko direna. Beraz, tokian tokiko azterketak egin behar lirateke bide bateratsuak atera eta irakaskuntzan aplikatzeko.

NOTA BIBLIOGRAFIKOAK

- (1) Salaburu, P. in *Hizkuntzaren Teoria eta Baztango Euskalkia: Fonetika eta Fonologia*; 171. or. Jarraian T. Navarro Tomás, SS. 1923, 49 eta 50 or. ahoskatze aldaketak ere aipatzen ditu.
- (2) Urrutia, H. eta bere taldeak, Deustuko Unibertsitateko laborategi fonetikoan, Patxi Etxebarriari neure aurrean egina.
- (3) 1976an hasita daragoiot transkripzio-lanak argitaratzen *Etniker* aldizkarian, hortixik bada fenomeno horren berri.
- (4) Zeberioiko Elbarren, Ugaori deutsalada dago eta erdararako joera handia dago, izan ere, Ugaotik behera erdara nagusitzen ari delako. Ergoien osterahobeto gordea da Arratiarako joeragatik.
- (5) Undurra(ga). Zeberioiko Ergoieneko azkenengotariko auzunea. Kilometro bat gorago Artea-Arratia.
- (6) Ikus grabaketa mapan Undurra eta Uriondoren arteko distantzia. Etxebarria Ayesta, J.M. 1991.
- (7) Uriondo, goietan dago eta baso artean. Oraintsu arte argi-endarrik gabe bizi izan dira. Errepidea egin berri dago. Beraz, hango biztanleek beste batzuk lako joan-etorrikerik ez dute izan eta hortik zaintze hori.
- (8) Deustuko Unibertsitateko Laborategi Fonetikora bertara eraman nuen berriemaile grabazio hobea lortzeko.

- (9) Mitxelena, K. FHV 1961. 62 or.
- (10) Mitxelena, K. op. cit. 62 or.
- (11) Mitxelena, K. op. cit. 50 or.
- (12) Mitxelena, K. op. cit. 67 or.
- (13) Mitxelena, K. op. cit. 73-85 or.
- (14) Mitxelena, K. 1961, FHV IV. kap. 87 or. eta 485.ean garrenean osatua. 1977.
- (15) Mitxelena, K. 1961, FHV IX. kap. 167 or. eta 515.ean osatua. 1977.
- (16) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991, azentuaren kapituluko herri-adibideak eta eurei dagozkien espektrogramak.
- (17) “Bereziak” deitura hau, nik neuk asmatua da, bokal silabiko teoriko bi silaba batean egiten direnean adierazteko, hots, sineresi mailan.
- (18) Meillet, A. *Linguistique historique et linguistique générale*. París,1965.
- (19) Ikus Zeberioko triangelu bokalikoa gaztelerazkoarekin konparatua. Etxebarria Ayesta J.M.1991.
- (20) Bokal silabiko bi batean egitean, bata itxia da diptongo balioa hartuz eta hori adierazteko silabaka jarri dira, bai goranzkoetan eta bai beheranzkoetan.
- (21) Mitxelena, K. 1961, 1977. Diptongos. IV. kap.
- (22) Mitxelena, K. 1961, 1977. Diptongos. IV. kap.
- (23) Mitxelena, K. 1961. 1977. Diptongos. IV. kap.
- (24) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991.
- (25) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991 (275-276-277 or.)
- (26) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991 (261-282 or.)
- (27) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991ko corpusean datozen euskara biziaren transkripzioak.
- (28) Adibideak ugariak dira baina hona hemen bat edo beste: “ EGON “ hiru eratara entzun daiteke: “egon; eon edo on”. “EGIN” berdin: “egin, ein edo in”. Laburketok multzo fonikoaren arabera egiten dira hiztunaren barbaroaren abiada bitarteko.
- (29) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991ko kontsonantismoaren taula, (113 or.)
- (30) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991 (261-282 or.)
- (31) Kasu hau abadeari-eta, emandako erantzuna da. Berorikako tratamendua normala zen: “ bai jauna, ez jauna”. Kasu honetan, erantzunean, ergatiboa galdu da baina galderazko esaldia da, ondo uler dadin.

- (32) Herri berbaera bizian ez da erraza eten hori aurkitzea, gehienetan leherkari bat “jan” egiten delako.
- (33) Bokal paragogikoak egiteko joera dago. Adibidez: “ etzerantza, jata, etab.
- (34) Ikus K. Mitxelena: FHV 1977 (343-377 orr)
- (35) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991 (VIII. kapitulua).
- (36) Ikus Etxebarria Ayesta J.M.“ Gorbeia inguruko Etno-ipuina eta Esaundak” 1995.
- (37) K. Mitxelenak, kasu honetarako haxe dakar bere FHVko 12.7 artikuluan: “No obstante, también se observa una alternancia sonora/sorda en las formas nominales de algunos verbos antiguos.” Ez du azenturik aipatu ere egiten. Ikus Zeberioko euskara biziaren sonograma eranskinean. (Etxebarria Ayesta, J.M. 1991)
- (38) K. Mitxelena, (FHV 12.15) R.S. 486ko “ jaypar(r)i” hitz konposaturako, “-te” substantibo berbalak egiteko atzizkitik hasten da. Beraz, “jaiote barri>jaioparri>jaiparri”. Baina ez du azenturik aipatzen.
- (39) Aditz honen testigantzarako ikus adibidez: R.S. 155: “yrapazi” Onsa 170: “irapaizteko, irapaizliak”; *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa Antologia*, 1999, Zeberioko informatzailea Pantxike Ellakuria, 13.or. Ikus, gainera, Zeberioko euskara biziaren sonograma eranskinean. (Etxebarria Ayesta, J.M. 1991)
- (40) DRAEn “sapedar” dator. *Labairu Hiztegia* “ sapedar, sapabedar” . Arratia Inguruko Hiztegia “sapedar, sapédarra (azentu eta guzti) “
- (41) “Ibilte bide”-tik baletor, ikus 2.6.3. Ikus Zeberioko euskara biziaren sonograma eranskinean. (Etxebarria Ayesta, J.M.1991).
- (42) Batetik etorri zein bestetik etorri, ikus FHV 12.15, gorketa, azentu tonikoaren aurrean gertatzen da. “ eskonpárrri ”-rekin beste hainbeste.
- (43) *Su* nahiz *sutetik* etor daiteke. Argibide gehiago ematearren, Zeberioko euskarari, su=fuego; surte= fuego; sute=(sute)=cocina.
- (44) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1995: “Itargia, Eguzkia eta Mundua” ipuina, 99 or.
- (45) Ikus Etxebarria Ayesta J.M: 1991. Sonogramen eranskina.
- (46) Ikus Etxebarria Ayesta, J.M. 2001. Enseiukarrean 15. zk. “Azentuaren eragina kontsonanteen gortzean”.
- (47) Hitzunon artean, hizkuntzaren ekonomia, eufonia eta belaunaldien arteko transmisio ohitura bitarteko, laburdura ugari egiten da hitzak edo multzo fonikoak ahoskatzerakoan.
- (48) F. Lazaro Carreter-ek, Bally aipatuz, gehiago zehazten du alor hau, homonimo absolutuak eta partzialak aipatuz. T. Lewandowskik, homonimia eta polisemiaren arteko muga estua ezin jarri deitekeela dio.
- (49) Ikus Veikko Väänänen. *Introducción al Latín Vulgar*-eko 150 art. (Gredos 1968)

- (50) Gaztelera, ingelesa eta frantseseko adibideak, T. Lewandowskiren *Diccionario de Lingüística*-tik hartu dira.
- (51) Artikulu mugatzailearen aurrean “i” organikoa dagoenean, “-ia” daukagu eta “-ea > ia” itxidurazkoarengandik bereizteko, yod antihiatika bat sortzen da. Fenomeno konstantea da lurralde batzuetan. Lehenago, “w”-rekin beste hainbeste gertatzen zen, “-u” organikoa eta “-a” artikuluaeren artean “-b-” epentesia sortuz. Adibidez: buruba, eskuba etab., baina “-oa > -ua” itxidurazkoarekin ez. Adibidez: osoa > osua; besoa > besua etab.
- (52) Fenomeno hau ez da Zeberiokoa bakarrik. Nik neuk neure jaioterriko testigantza bakarrik ematen dut eredu bezala hartzeko, haragoan ere beste hainbeste egin asmoz.
- (53) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991. “Azentoaren kapituloa”.
- (54) J.I. Hualdek ere aipatu aipatzen du fenomeno hau, bere *Euskararen Azentuerak* liburuko 2.10 puntuan.
- (55) Iraganeko “-n” marka galdu egiten da jarraian zerbait erantsiz gero. Jatorrizko homonimoari, menpeko beste ezaugarri bat jarrita ere, azentua berdin.
- (56) Aditz nagusiaren azentua paroxitonoa zein proparoxitonoa izan, menpekoarena oxitonoa da.
- (57) Perpau substantiboaren artean, hau, zehar-galdera litzateke.
- (58) Ikus K. Mitxelena. FHV 5.3 puntua “-aa” bokal geminatu homorganen adibide gehiago.
- (59) Hitz hau, bizirik daukagu Zeberion (inguruetan ere bai), baina esanahiaren aldetik “apur bat”, “zeozer” zentzuarekin. R.S-ean ere zentzu hau dager. FHVn “arean” = de allí.
- (60) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991. “Azentoaren kapituloa”.
- (61) Kasu honetan, homonimoa erakuslea da; “ona”rena denean, azentuz gain, bokala ere aldatzen da, hots, “onána” < lit. onarena.
- (62) Ikus Etxebarria Ayesta J.M. 1991. “Azentoaren kapituloa”.
- (63) S. Juanetako usadio bat da. Etimologiaz, haritz-adar edo landare bat litzateke, baina normalean, lizar adar edo landare bat jartzen da etxeiko balkoi edo atarian, lore, galburu... eta gurutze bat ere jarriaz.
- (64) Liburu osoan zehar agertzen diren bertso, koplak eta kantuetan, ETNOTESTU-zutabearen, entzundakoa transkribatu da eta BERTSIO ETIMOLOGIKO-zutabearen grafia aldaketa batzuk baino ez dira egin, beti ere, bertso, koplak eta kantuen neurria, errima etab. errespetatuz.

4. TAULA FONOLOGIKO-FONETIKOA (IPA)

KONTSONANTEAK: FONEMAK ETA ALOFONOAK

		AHOSKATZE GUNEA																
		Ezpainetako		Ezpain-hortzetako		Hortzetako		Laminare		Bizkar-hobietako		Goi-hobietako		Sabaiaurreko eta Sabaiko		Beloko		
A H O S K A T Z E M O D U A	Herskaria	p	b			t	d							c	ç	k	g	
	Sudurkaria		m		ɱ		ɲ		ɳ				n		ɲ		ŋ	
	Dardarkari bakuna												r					
	Dardarkari anizkuna												r					
	Frikaria			f								š	ž	ʃ	ʒ	x		
	Afrikaria									ts				tʃ				
	Albokaria						ɭ		ɮ				ɻ		ʎ			
	Hurbilkaria		β				ø						ɹ				ʁ	
	(-) ahoskabea (+) ahostuna		-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+

(Oharra: Gaur egun aldaketa batzuk gomendatzen dira fonetisten artean. Esaterako: Laminare > Laminarra; Goi-hobietako > Albeolarra; Beloko > Belarra)

5. HERRI-EUSKARATIK EUSKARA BATURA

Hizkuntzalaritzari ekarria

Gaur egun, euskara estandarra darabilgu baina herri-euskara bizirik daukagu bere aberastasunean. Euskara aberats horri ezin diogu *tabula rasarik* egin. Euskararen leku-denborak kontuan hartu behar dira eta guganaino heldu dena etorkizunera bideratu euskara batuaren aberasbidean.

Esandakoa arrazoitzeko, aiko hemen herri-esaunda horren hasierako lagin bat bost bertsiotan, fonetikoaren barne. “Batu” aditzak, “batu”, esan nahi du eta ez “aldatu edo baztertu”, eta okerrago oraindik, euskalki bateko hitz bat ez ezagutzea edo eta ezagututa ere ez erabiltzea ez da “batua”-ren bide zuzena. Zuberoak duena Zeberioi ez badu, hartu egin behar du, eta Zeberioi duena Zuberoak ez badu, beste hainbeste “batua” aberasteko.

BOST BERTSIOTAN ZEHAZTUZ. BERTSIO FONETIKOTIK EUSKARA BATURA

Mari, Anboton eta Supelegorren				
1)BERTSIO FONETIKOA (IPA) [Ajitgamamari sari ðaukotsjet entsuŋde ori ambotoko ʒeporeŋ koŋtu ori. eðonoŋko koŋtue iŋimbe. gure ʒarak ee... olango gauŋa aŋko koŋtetoŋkwueŋam batezbe neywiŋguruen ambeŋuen oŋuem bernutsik eta eŋku kiputwe perotan otengintseganean ʒein otsatrayau]	2)ETNOTES-TUA “Aititeamamari sarri daukotziet entzunde ori Anbotoko Señorean kontu ori. Edonosko kontue ixin be. Gure sarrak ee... olango gauŋa asko kontetoskuesan bates be negu inguruen an besuen obuena bernutzik eta esku kiputue(k)p(b)er otan oten gintzesanean sein otza(k)tragau”.	3)BERTSIO ETIMOLOGIKOA Aititeamamari sarri deukotset entzunda ori Anbotoko Señorearen kontu ori. Edonozko kontua izan be. Gure zaarrak e olango gauza asko kontetan euskuezan batez be negu inguruan an besuaren oboan bernutsik eta esku kiputuak berotuten egoten gintzazanean zein otzak tragadu.	4)BIZKAIERA LITERARIOA Aitite-amamei sarri deukotset entzunda hori Anbotoko Señorearen kontu hori. Edonoizko kontua izan be. Gure zaharrek e holango gauza asko kontetan euskuezan batez be negu inguruan han behesuaren oboan bernutsik eta esku kiputuak berotuten egoten gintzazanean zein hotzak tragatu.	5)EUSKARA BATUA Aitite-amamei sarri deukotset entzunda hori Anbotoko Señorearen kontu hori. Edonoizko kontua izan be. Gure zaharrek e holako gauza asko kontetan zizkiguten batez ere negu inguruan han behesuaren oboan bernutsik eta esku kiputuak berotzen egoten ginenean zein hotzak tragatu.

(Berriemailea: **Juan Solatxi Emaldi**. Zeberioiko ergoienekoa, Etxebarri auzokoa. Baserritarra baina fabrikara beharrean ibilia. 1986an 72 urte) (Oharra: Ipuin-esaunda hau, beste asko bezala, 1995ean, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* nire liburua argitaratu eta geroago transkribatutakoa da artxiboan ditudan zintetarik eta Etniker 15.ean argitaratua. Ikus etnotestu osoa 7.2 zenbakian, 131. orrialdean.)

